





# **EUSKARAREN GRAMATIKA**

***GRAMATIKA BATZORDEA***  
**EUSKALTZAINDIA**  
**2021**





**EUSKALTZAINDIA  
GRAMATIKA BATZORDEA**

**SARRERA  
MORFOLOGIA  
PERPAUS BAKUNA**

**EUSKARAREN GRAMATIKA  
2021**

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan: [www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca: [www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque: [www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language: [www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

*Euskararen Gramatika* Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordearen ekarria da. Beraz, lanak ez du eragozten edo baldintzatzen Euskaltzaindiaren Osoko bilkurak etorkizunean ondu edo moldatu ditzakeen alor honetako bestelako lanak, arauemaileak ere aintzat harturik.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / Académie de la Langue Basque / Royal Academy of the Basque Language, 2021  
Plaza Barria, 15 - 48005 Bilbo

Azalaren diseinua eta maketazio-lanak: Composiciones RALI, S.A.  
Inprimategia: Composiciones RALI, S.A.  
Costa, 12-14 - 48010 Bilbao

ISBN (obra osoarena): 978-84-121889-9-8  
ISBN (lehen liburukiarena): 978-84-122988-8-8  
L.G.: LG BI 01928-2021

## **GRAMATIKA BATZORDEA**

**Burua:** Salaburu, Pello

**Idazkaria:** Makazaga, Jesus Mari

### **Kideak:**

Amundarain, Iñaki

Azkarate, Miren

Berro, Ane

Fernández, Beatriz

Garzia, Juan

Goenaga, Patxi

King, Alan (†)

Mounole, Céline

Mujika, Jose Antonio

Oihartzabal, Beñat

Rekalde, Paskual

## **ARGITALPEN HONEN KAPITULUEN IBILBIDE AKADEMIKOA**

Lan honen kapitulu guztiak izan dira batzordean eztabaidatuak, eta denek izan dituzte aldaketak bertsiotik bestera. Baina, nolabait esateko, lan honen erantzukizuna batzorde osoak hartzen badu ere, kapitulu bakoitzak izan du bere txostengilea, eta horren berri zehatza ematen da *Aurkezpena* atalean.

Txostengile horiek egindako lana denen artean eztabaidatu zen, oharrak eta zuzenketak sartu, eta ondoren Pello Salaburu Batzordeburuak egokitu zituen atal eta kapitulu guztiak elkarren artean. Azkenean, Koro Seguiolak egin du edizio lan aipagarria.

Hartara, txosten guztiak bateratu dira lan beregain, oso eta autonomo batean. Lan hori lan kolektiboa da, Euskaltzaindiaren babespean ondu dena eta berari dagozkio jabetza intelektualaren eskubide eskusiboak.

Prozesu horretan, hasiera-hasieratik batzordekide izan dugun Alan King lagun eta adiskidea zendu zen.

## Aurkezpena

Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordeak ibilbide luzea egin du, 1980ko hamarkadaren hasieran lanean abiatu zenetik. Lehenbiziko Gramatika Batzordea 1980ko apirilaren 18an izendatu zuen Akademiak: Pierre Lafitte zen buru; Jean Haritxelar buruorde; Patxi Goenaga idazkari eta Maria Pilar Lasarte idazkariorde. Eta erabakiaren berri ematen duen Euskaltzaindiaren agiriak hitzez hitz dio batzordelagun izanen direla “Arrasateko batzarrean txostenak egin zituztenak” eta “gaur gramatika lanetan sartuak diren beste zenbait ikerleren izenak”. Izen horiek ere gaineratu beharko direla, hortaz.

Beraz, erraz esaten da gero, orain dela 40 urte inguruko kontuak dira hauek guztiak. Batzordea berehala hasi zen bilerak egiten, Gipuzkoako Foru Aldundiko Julio Urkijo liburutegi txukunean. Orduan hainbeste jende hurbiltzen zen bilkuretara, batez ere lehenbiziko hilabeteetan, lanean hasi zelarik. Tartean ziren, noski, Arrasateko batzarrean txostenak egin zituztenak, agiriak nahi zuen bezala. Hastean, norabide argirik gabe abiatu ziren batzordekideen eztabaidak: gramatika egin behar zela, bai, zerbait berria, baina ez zen sobera gehiago zehazten eta inprobisatze puntu handia zegoen. Askatasuna izan zuten batzordekideek gaiak lantzeko orduan: urte horretako irailan Patxi Altunak, adibidez, inesiboari buruzko lan bat aurkeztu zuen, eta Lafittek beste bat euskal artikuluz. Gero, pixkanaka, egin behar ziren lanak zehaztu ahala, lankide taldea mugatuz joan zen, azkenean dozena bat lagun inguru gelditu artio.

Nahiko fite, Euskaltzaindiak hala eskaturik, batzordeak 1984an Iruñean gramatikari buruz egin behar zen batzarrean aurkezteko bideratu zituen bere eginbehar eta ahaleginak. Eta aurkeztu ere, Iruñean aurkeztu zen geroztik *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* (EGLU) deituko zen lanaren lehenbiziko liburukia. Perpaus bakuna aztertzen zuen liburuak eta, ordenagailuen garaia ere bere hasieretan zela, testua idazmakinez taxutua argitaratu zen lehenbiziko edizio hartan. Ez zen orduan, jakina, corpusik eta antzeko baliabiderik, eta OEH ere bidean zen oraindik. Holako guztiak geroagoko lanak baitira.

Azkenean, epeka argitaratuz joan diren EGLUren zazpi liburukiak —azkena 2011n argitaratua—, eta bestelako gehigarri batzuk, aski ezagunak egin dira euskararen erabiltzaileen artean. Euskaltzaindiaren babesak, laguntzak, arnasak eta errespetuak egin du posible hori.

Geroztik Gramatika Batzordeak urte horietan guztietan segitu du lanean, gorabeherekin, jakina: batzuetan lan hori joriagoa izan da, orduak eskatu ditu, eta beste batzuetan erritmoa ere apaldu eta moteldu da pixka bat. Kontuan izan behar da batzordea osatzen duten kideek kanpoan egiten dutela lan, ez Euskaltzaindian, eta kanpoan egiten den lan horren aztergaia gramatika bada ere, ezin izan dutela zenbaitetan nahi luketen adina ordu sartu egitasmo honetan. Bestetik, urte luze hauetan batzordea bera asko aldatu da: kide batzuk joan dira, beste batzuek erretiroa hartu eta bizitza beste begi batzuekin ikusten hasi dira, jende berria sartu da... Hasierako batzordea eta oraingoa ez dira, hortaz, izenaz baizik berdinak, kideei dagokienez. Zernahi gisaz, esan behar da lan egiteko sistema nahiko egonkorra izan dela urte hauetan guztietan.

Ez hori bakarrik: ikerketa eta lan akademikoa egiteko baldintzak ere aldatu dira. Egun, orduan ez bezala, inoiz baino jende gehiago ari da lanean euskarekin, eta hizkuntzari buruz euskararen erabiltzaileok ditugun ikuspuntuak aberatsago eta funtsatuagoak dira. Gaur egun euskarak irakaskuntzaren maila guztietan eta jakintza arlo guztietan du indarra; euskararen historia osoan baino gehiago eta hobeki idazten da; itzulpen asko egiten dira; literatura lanak argitaratzen dira; terminologia berezia eskatzen duten arloak lantzen dira; jende askok amaitu ditu euskal filologiako ikasketak eta doktore tesi andana bat ere badugu; hemengo ikasle zenbait kanpora joan da espezializatzerara; komu-

nikabideetan hogeita lau orduz entzun daiteke euskara, ongi prestatutako kazetariei esker eta abar. Eta, horren ondorio, inoiz baino lan eta testu masa handiagoa dugu eskura, corpusetan bildua. Ez da gutxi hori. Euskararen argazkiak, 1980koa eta oraingoa, aski diferenteak dira.

Hasiera hartan, euskaltzaleek bere buruaz fidatu behar zuten, edo noizbait lapitz batekin egindako esku-fitxa batzuetan kontsultatu behar zituzten zalantzak: “Halakok hola esaten zuen, eta halako liburuetan hola idatzi zuen”. Egoera horretan landu zituen batzordeak lehenbiziko bi liburukiak, lanabes biziki mugatuak zituela. Euskarri informatikoei dagokienez, EGLU-III liburukitik aurrera hasi zen batzordea lanean Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIEk) testu klasikoen oinarritzko corpus bat antolatu eta CD batean eskuratu zionean. Han hasi ziren txostengileak lehenengo aldiz kontsultak modu sistematikoan, nahiz aski mugatuan, egiten.

Gaur egun gauzak biziki aldatu dira, eta ordenagailuaren sagutxoarekin egin daitekeen klik batek bat-batean irekitzen du euskal testuen munduaren ikuspegi zabala: milaka adibide bistaraten dira, garai guztietako idazleek idatziak. Iturri aberats horretatik edan daiteke gaur egun, orduan ez bezala.

2011n, EGLU guztiak bukatuak zirela, berriz ere hasi zen batzordea pentsatzen nola hobetu eta gaurkotu lana. Batetik, bistan da, eman diren arrazoiengatik, liburuki guztiak ez ziren lanabes homogeneouskin landuak izan: lanak aurreratu ahala etxeko ordenagailuen erabilera areagotu zen, OEHren liburukiak eskura jarri ziren, corpusak gero eta handiago eta aberatsago ziren, euskal hizkuntzalaritzan sartutako ikertzaile gazteek sintaxiaren eta gramatikaren inguruko puntu zehatzak ikusmolde berriarekin hasi ziren lantzen... Beraz, egoera aldatzen ari zen lastertasun handiz.

Material hori guztia eskuetan zutela, batzordekideak berehala ohartu ziren gero eta gehiago zekitela edo, nahi bada, gero eta gehiago jakiteko bidean zirela, hortaz. Baina zalantzak ere maila berean ugaritzen zirela jabetzen ziren. Ugaritu, gainera, ikusirik nola inguruko hizkuntzetan, batez ere gaztelaniaz eta katalanez, antzeko kezkei erantzuna eman nahian xehetasun handiko gramatika oso landuak argitaratzen hasiak ziren. Eta galegoek ere bazutela bidean zerbait.

EGLU osoak batasun handiagoa behar zuen. Eta horri ekin zion batzordeak: definituz, lehenik, argitaratutako liburuetan zer aldatu behar zen, zer hobetu, zer zuzendu, zer beste modu batera azaldu. Hori definiturik eskema luze bat prestatu zen, behin eta berriz eztabaidatu zena. Eta, ondoren, eskema horren edukia osatzen hasi ziren kideak.

*Euskararen Gramatika* hau idazteko ez da EGLU idazteko erabili zen metodologia bera baliatu. Orduan, atalak banatu ondoren, kideren batek idatzi txostena mahaian uzten zuen, eta bi, hiru edo lau aldiz eztabaidatzen zen denen artean, lerroz lerro, hitzez hitz. Eztabaida luzeak gertatzen ziren horrela kideen artean. Aldi bakoitzean, txosten egileak bertsioak hobetu behar zituen, bestek esanetara egokitu, esan nahi da, azkenean batzordekide guztien oniritzia izan arte. Gero, liburu osoaren batasun estiloa ematen zioten kide batek edo bik liburukia argitaratu baino lehen.

Orain ez da prozedura bera erabili. Oraingoan txostengile bakoitzak askatasun handiagoa izan du, zentzu batean bederen: testuak ez dira gainerako kide guztien aurrean xeheki irakurri, orduan bezala. Txostengileak, testua kide guztien artean banatu ondoren, denen aitzinean azaldu du idatzitakoa hitzez, zalantzak izan dituen puntuak eztabaidatzeko bereizi ditu, eta azkenean besteren oharra idatziz jaso ditu. Ez da esan beharrik kapitulu guztiak denen artean eztabaidatuak izan direla, eta kide guztiek izan dutela aukera langaiak sakon eztabaidatzeko. Baina prozedura arinagoa gertatu da oraingoan, aurrekoetan egiten ziren horrenbesteko txosten bertsioen joan-etorriak laburturik.

Zer egin, zer kendu, zer aldatu, zer osatu prozesu horrek beste emaitza bat ekarri du esku artean duzun gramatika hau eta EGLU konparatzen baditugu: badira atal oso-osoak guztiz berriak, aurrekoan ageri ere ez zirenak; badira han ukitu ere egin ez ziren gramatika gaiak, hemen nahiko sakonki landuak; badira orduan esandakoarekin erkaturik errozko zuzenketak egin eta guztiz berrituak aurkezten direnak; badira orduan esandako zenbait gauza azaletik bakarrik aldatuak eta berriz ere hemen bildu direnak; badira, segur aski, ikerketa gehiago behar luketen atalak ere. Baina EGLUekin konparatuz, lan hau beste zerbait da. Bai formaz, eta bai edukiaz. Formaz, hemengo orrialde hauek EGLUkoak ez bezala, aise trinkoagoak baitira. Orrialdeak bete-betean ageri



dira, tarte gutxirekin, eta adibideak ere lerro artean daude gehienetan. Irakurlea ohartuko da sarritan lan honek gai honetaz edo hartaz kontsultak egiteko balioko diola, dena hasieratik amaitu arte segidan irakurtzeko baino gehiago. Horregatik, dei gurutzatu asko egin dira, irakurlea atal batetik bestera bidaliz eta erreferentziak emanez. Eta arrazoi beragatik, kontu batzuk laburturik errepikatzen dira han-hemenka, irakurketa autonomoagoa gerta dadin.

Edukiari dagokionez, esan bezala, hemen material gehiago dago eta gai berriak ere ukitzen dira. Terminologia dela eta, zenbait terminoren egokitu beharra ikusi da (*trantsitibo, adjektibo, adberbio, aldia* —eta ez *tempusa*—... hautatu dira, orain arte erabilitakoak arras baztertu gabe). Eta kontzeptu batzuk ere beste modu batera aurkezten dira: esaterako, “deklinabide” termino klasikoaren ordez “postposizio sistema” erabiltzen da, gure ustez aise egokiago eta zuzenagoa baita; trantsitibitatea eta intrantsitibitatea ere beste modu batera definitu dira, gainerako hizkuntzetako gramatikek egiten duten gisan, adizki laguntzailearen motan oinarritu gabe; EGLUn aipatzen zen lokailuen kontua ere birdefinitu eta egokitu da; aditzen argumentu sarea; ahal dela *izan, ukan, \*edin, \*ezan* erabili beharrean —nahiz horiek erabiliz euskal aditz sistemaren hezurdura aise garbiago azaltzen den— “*da* aditza”, “*du* aditza” eta horien gisakoak erabiltzen saiatu gara, irakurketa errazten duelakoan. Baina zenbaitean ezinezkoa gertatu da. Adibide batzuk bakarrik aipatzearren.

Ez dira ematen aldi bakoitzean aipatzen diren adibideen iturriak: autorea nor den esaten da, ez besterik. Gramatikan ageri diren adibide gehienak, betiere % 95etik gora, non ez diren kideek zuzenean sortutakoak (hori gertatzen baita adibide arruntekin), gaur egun euskal testuen gainean kontsulta daitezkeen hiztegi eta corpus publikoetatik atera dira. Corpusetan daude bilduak gure tradizioko idazle nagusien testuak eta gaur egungo idazleen testuak ere, dela liburuetakoa, dela egunkarietakoa. Testu horietako batzuk ez dira jatorriz euskaraz idatzi, itzulpenak dira. Horietarik ere hartu ditugu adibideak. Adibide bakoitzean jarri da, parentesi artean, nori dagokion euskal testu hori, bestelako azalpenik eman gabe, eta itzulpenen kasuan ere itzultzailearen izena bakarrik jarri da, hau da, euskal testuaren egilearena. Iturrien zerrendan ere ez dira liburu horiek sartu, baina corpusetan bildua ez den libururen batetik har-

tua baldin bada adibidea, orduan bai, zerrendan jaso da. Testuan era laburtuan idatzi dira egileen izenak eta zenbait idazlanen izenburuak, eta iturrien zerrendan ikus daitezke izen-deitura eta izenburu osoak.

Adibideak egun sarean eskura ditugun hiztegi eta corpusetatik hartuak dira: EHUko Euskara Institutuak argitaratu dituen corpusetatik (CH, ETC, EPD, EPG, EKC, ETC, EUDIMA eta abar); ZTC corpusetik; Euskaltzaindiaren OEhtik, *Lexikoaren Behatokiaren Corpusetik* eta abar. Mitxelenaren adibideak ere Mitxelenaren lanen corpusean ikus daitezke (lan guztiak daude bilduak), nahiz haren lan batzuk espresuki aipatu ditugun bibliografian, betiere ez adibideak, baizik Mitxelenak euskal gramatikaz egin ekarpen teorikoa aipatu nahi denean.

Hasiera batean adibide guztiak eredu estandarrean emateko erabakia hartu zuen batzordeak, baina batzordekideak berehala ohartu ziren ezinezkoa zela, horrek irakurleari bideak errazten bazizkion ere, adibideek egilearen eta tokiko mintzoaren kolorea galtzeko arrisku handia baitzuten<sup>1</sup>. Batzuetan, gainera, ia ezinezkoa zen batuan paratzea (pentsa, adibidez, bertso batzuez ari bagara). Baina bere horretan utziz gero ere beste arazo batzuk sortzen ziren: batzuetan horretara jarria ez denak ez litzuke aise ulertuko, eta irakurketan laguntza izan beharrean azkenean oztopo ere gerta litezke. Hori dela eta, aukera koherente osoa egiterik ez denez, txostengile bakoitzari askatasuna eman zaio adibideak egokien ikusten duen moduan testuan paratzeko. Axaleko aldaketak eginez bakarrik, jakina. Batzuek estandararrera jo dute, oso-osoan ez bada ere, beste kasu batzuetan ortografia bakarrik batu da, eta txostenetan ez dira falta erdiko bidea hartu dutenak ere. Egile klasi-koak euskal grafia modernoan eman ditugu (Elizanburu, Etxepare eta abar).

Urte luzeetako proiektuaren beste urrats bat besterik ez da lan hau. Beraz, alde edo moldez, jende askoren lana da hau, ez bakarrik gaurko egunean ba-

---

<sup>1</sup> Zer egin, esate baterako, holako adibideekin: *Beste gizonak zuei egitea nahi duzuen bezala, zuek ere **alaxe** egiezue haiei*; *Beste gizonek zuei egitea nahi duzuen bezala, zuek ere **halaxe** egiezue haiei*; *Bertze gizonek zuei egitea nahi duzuen bezala, zuek ere **halaxe** egiezue haiei*; *Beste gizonek zuei egitea nahi duzuen bezala, zuek ere **alandaxe** egiezue haieri*.

tzordea osatzen duten kideena. Honako hauena guztiena: Lino Akesolo (†); Patxi Altuna (†); Iñaki Amundarain; Miren Azkarate; Luis Baraiazarra; Ane Berro; Piarres Charriton (†); Andolin Eguzkitza (†); Beatriz Fernandez; Juan Garzia; Patxi Goenaga; Jean Haritschelhar (†); Nora Iriarte; Alan King (†); Pierre Lafitte (†); Itziar Laka; Joxe Mari Larrarte (†); Maria Pilar Lasarte; Jesus Mari Makazaga; Céline Mounole; Jose Antonio Mujika; Patxi Ondarra (†); Beñat Oyharçabal; Paskual Rekalde; Karmele Rotaetxe (†); Pello Salaburu.

Aurreko EGLU liburukiak bezala, gramatika honek ere baditu bi ezaugarri azpimarratu behar direnak: zuzenean hartarako egin ez bada ere, neurri batean bederen gramatika arauemailea da. Ez arauak ematen dituelako: Gramatika Batzordea ez da nor arauak emateko, hori osoko bilkurari baitagokio. Baina testuan Euskaltzaindiak eman dituen arauak biltzen dira, aztertzen den gaiarekin zerikusirik baldin badute, eta bestela ere idaztanka mota bat hautatu da, lehentasuna eman zaie hautu batzuei, kontu batzuk azpimarratu dira besteen gaineratik. Horregatik, iturria izan daiteke arau berriak proposatzeko, betiere komenigarria bada arauak proposatzea, jakina, idazle eta irakasleen artean beti gertatzen baita halako tentsio pertsonal bat, zenbaitetan arauen beharra sumatuz eta beste zenbaitetan arauen gehiegikeria ikusiz. Gramatika deskriptiboa da, zintzotasunez egin nahi izan da hori, baina aldi berean irakurleari norabide jakin bat markatzen dio. Hori, batetik. Bestetik, hau da bigarren ezaugarria, batzordeak lan irekia aurkeztu nahi du, interesa izan dezaketenen artean eztabaidatua izan dadin. Betiere jendearen ekarpenak eskuratzeko prest dago batzordea, ezingo litzateke beste modu batera izan.

Esan dezagun zerbait, azkenean, hemen aurkezten diren kapituluaren ibilbide akademikoaz. Denak izan dira batzordean eztabaidatuak, eta denek izan dituzte aldaketak bertsio batetik bestera. Baina, nolabait esateko, lan honen erantzukizuna batzorde osoak hartzen badu ere, kapitulu bakoitzak izan du bere txostengilea, eta horren berri nahi genuke eman hemen.

1. *Euskararen bereizgarri orokorrak*. Beatriz Fernandez eta Itziar Laka
2. *Perpauza: sintagmak zer diren*. P. Goenaga
3. *Morfologia (sarrera)*. M. Azkarate

4. *Morfologia lexikoa: Eratorpena (I)*. Miren Azkarate
5. *Morfologia lexikoa: Eratorpena (II)*. Miren Azkarate
6. *Morfologia lexikoa: Eratorpena (III)*. Miren Azkarate
7. *Morfologia lexikoa: Hitz elkarketa (I)*. Miren Azkarate
8. *Morfologia lexikoa: Hitz elkarketa (II)*. Miren Azkarate
9. *Morfologia lexikoa: Hitz elkarketa (III)*. Miren Azkarate
10. *Perpausak zer diren*. Juan Garzia
11. *Kategoriak*. Ane Berro
12. *Izena*. Pello Salaburu
13. *Izenordainak*. Pello Salaburu
14. *Adjektiboa*. Pello Salaburu
15. *Determinatzaileak (I): Mugatzailea*. Pello Salaburu
16. *Determinatzaileak (II): Zenbatzailea*. Pello Salaburu
17. *Determinatzaileak (III): Zehaztugabea*. Pello Salaburu
18. *Egiturazko kasuak*. Pello Salaburu
19. *Postposizioak (I)*. Patxi Goenaga
20. *Postposizioak (II)*. Patxi Goenaga
21. *Postposizioak (III)*. Patxi Goenaga
22. *Adberbioa*. Pello Salaburu
23. *Aditza (I)*. Miren Azkarate eta Pello Salaburu
24. *Aditza (II)*. Iñaki Amundarain
25. *Aditza (III)*. Céline Mounole
26. *Aditza (IV)*. Céline Mounole
27. *Aditza (V)*. Pello Salaburu
28. *Juntadura*. Iñaki Amundarain
29. *Menderakuntza*. Pello Salaburu

30. *Perpaus osagarriak*. Juan Garzia eta Miren Azkarate
31. *Perpaus erlatiboak*. Beñat Oyharçabal, Juan Garzia eta Miren Azkarate
32. *Konparazio perpausak*. P. Goenaga eta J. A. Mujika
33. *Ondoriozko perpausak*. J. A. Mujika
34. *Baldintzazko perpausak*. I. Amundarain
35. *Denborazko perpausak (I)*. J. A. Mujika
36. *Denborazko perpausak (II)*. J. A. Mujika
37. *Helburuzko perpausak*. J. A. Mujika
38. *Kausazko perpausak*. P. Goenaga eta J. A. Mujika
39. *Kontzesio perpausak*. J. M. Makazaga
40. *Moduzko perpausak*. I. Amundarain
41. *Hitz ordena eta euskararen sintaxia*. M. Azkarate
42. *Diskurtso markatzaileak (I)*. Xabier Alberdi eta Pello Salaburu
43. *Diskurtso markatzaileak (II)*. Xabier Alberdi eta Pello Salaburu

Horiek egindako lana denen artean eztabaidatu zen, oharrak eta zuzenketak sartu, eta ondoren Pello Salaburu Batzordeburuak egokitu zituen atal eta kapitulu guztiak elkarren artean. Azkenean, Koro Seguroiak egin du edizio lan aipagarria.

Hartara, txosten guztiak bateratu dira lan beregain, oso eta autonomo batean. Lan hori lan kolektiboa da, Euskaltzaindiaren babespean ondu dena eta berari dagozkio jabetza intelektualaren eskubide eskusiboak.

Prozesu horretan, hasiera-hasieratik batzordekide izan dugun Alan King lagun eta adiskidea zendu zen.

Pello Salaburu  
Gramatika Batzordeburua



# Aurkibidea

## I. LIBURUKIA

---

<b>AURKEZPENA</b> .....	IX
<b>LABURDURA OROKORRAK</b> .....	LXIII
<b>ZEINUA</b> K .....	LXV

### 1. partea SARRERA

<b>1. EUSKARAREN BEREIZGARRI OROKORRAK</b> .....	3
1.1. Euskara, ahaidetik gabeko hizkuntza.....	3
1.2. Euskara SOV hurrenkerako hizkuntza da .....	4
1.3. Euskara hizkuntza eranskaria da.....	6
1.4. Sintagmek burua azkenean dute .....	10
1.5. Euskara hizkuntza ergatiboa da .....	13
1.6. Aditz komuntadura .....	19
1.7. Euskara <i>pro-drop</i> hizkuntza da .....	26
1.8. Aditz laguntzailearen txandakatzea .....	27
1.9. Euskararen ezaugarrien laburpena .....	32
<b>2. PERPAUSAK: SINTAGMAK ZER DIREN</b> .....	35
2.1. Gramatika, perpausak sortzeko gailua .....	35

2.2. Perpausaren osagaiak .....	38
2.3. Hitz klaseak.....	39
2.4. Banako lexikoak eta banako funtzionalak .....	41
2.5. Sintagmen izaera orokorra .....	44
2.6. Kategoria lexikoak, sintagmaburu .....	47
2.7. Izena eta ISa.....	47
2.8. Adjektiboa, AdjSaren buru.....	51
2.9. Adberbioa, AdbSaren buru.....	52
2.10. Postposizioa eta PSa .....	54
2.11. Aditza eta ASa.....	55
2.12. Kategoria funtzionalak, sintagmaburu .....	59
2.13. Determinatzailea(k) eta DSa.....	59
2.14. Inflexioa, perpausaren (= Inflexio sintagmaren) buru.....	61
2.14.1. Perpaus jokatueto inflexioa .....	62
2.14.2. Perpaus jokatugeteto inflexioa .....	63
2.15. Konplementatzailea, KonpSaren buru .....	64
2.16. Juntaturaren arazoak .....	66
2.17. Interjekzioak, esaldi mailako elementuak.....	67

2. partea

**MORFOLOGIA**

<b>3. MORFOLOGIA LEXIKOA: SARRERA.....</b>	<b>71</b>
3.1. Sarrera: definizioak eta atalak.....	71
3.2. Eratorpena: atzizkiak, aurrizkiak eta artizkiak .....	80
3.3. Hitz elkarketa: izenak, adjektiboak, aditzak eta adberbioak.....	81
<b>4. MORFOLOGIA LEXIKOA: ERATORPENA (I) .....</b>	<b>89</b>
4.1. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (I). Nolakotasuna, izaera edo lanbidea adierako izenak (-tasun, -keria, -go, -tza <sub>1</sub> , -gintza, -era <sub>1</sub> ) ...	90
4.1.1. Sarrera.....	90
4.1.2. -tasun .....	91
4.1.3. -keria.....	95
4.1.4. -go .....	96



4.1.5. - <i>tza</i> <sub>1</sub> .....	97
4.1.6. - <i>gintza</i> .....	98
4.1.7. - <i>era</i> <sub>1</sub> .....	99
4.1.8. Beste atzizki batzuk: - <i>ezia</i> , - <i>tate</i> , - <i>tzia</i> .....	99
4.2. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (II). Izen bizidunak sortzen dituzten atzizkiak (- <i>ari</i> , - <i>gin</i> , - <i>gile</i> , - <i>le</i> , - <i>tzaile</i> , - <i>ko</i> <sub>1</sub> , - <i>zale</i> , - <i>sa</i> ).....	100
4.2.1. Sarrera.....	100
4.2.2. - <i>ari</i> (- <i>lari</i> ).....	101
4.2.3. - <i>gin</i> , - <i>gile</i> .....	104
4.2.4. - <i>le</i> , - <i>tzaile</i> .....	105
4.2.5. - <i>ko</i> <sub>1</sub> .....	109
4.2.6. - <i>zale</i> .....	110
4.2.7. - <i>sa</i> .....	110
4.3. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (III). Izen multzokarien sortzaileak (- <i>di</i> , - <i>eria</i> , - <i>tza</i> <sub>2</sub> , - <i>keta</i> <sub>1</sub> , - <i>kada</i> <sub>1</sub> , - <i>te</i> ).....	111
4.3.1. Sarrera.....	111
4.3.2. - <i>di</i> .....	112
4.3.3. - <i>eria</i> (- <i>teria</i> ).....	113
4.3.4. - <i>tza</i> <sub>2</sub> .....	113
4.3.5. - <i>keta</i> <sub>1</sub> .....	114
4.3.6. - <i>kada</i> <sub>1</sub> / - <i>tara</i> .....	115
4.3.7. - <i>te</i> .....	115
4.3.8. Beste atzizki batzuk: - <i>kote</i> , - <i>tegi</i> , - <i>keta</i> <sub>2</sub> .....	116
4.4. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (IV). Objektua, tresna, lekua adierazten duten izenen sortzaileak (- <i>gailu</i> , - <i>garri</i> , - <i>ki</i> <sub>1</sub> , - <i>kada</i> <sub>2</sub> , - <i>kari</i> <sub>1</sub> , - <i>ki</i> <sub>2</sub> , - <i>kin</i> <sub>1</sub> , - <i>kizun</i> <sub>1</sub> , - <i>ko</i> <sub>2</sub> , - <i>gia</i> , - <i>tegi</i> ).....	117
4.4.1. Sarrera.....	117
4.4.2. Tresna adierako izenen sortzaileak.....	121
4.4.2.1. - <i>gailu</i> .....	121
4.4.2.2. - <i>garri</i> (- <i>karri</i> ).....	123
4.4.2.3. - <i>ki</i> <sub>1</sub> .....	124
4.4.3. Objektu adierako izenen sortzaileak.....	124
4.4.3.1. - <i>kada</i> <sub>2</sub> (- <i>ada</i> ).....	124
4.4.3.2. - <i>kari</i> <sub>1</sub> .....	125
4.4.3.3. - <i>ki</i> <sub>2</sub> .....	126

4.4.3.4. -kin <sub>1</sub> .....	127
4.4.3.5. -kizun <sub>1</sub> .....	128
4.4.3.6. -ko <sub>2</sub> .....	128
4.4.4. Leku adierako izenen sortzaileak .....	129
4.4.4.1. -gia.....	129
4.4.4.2. -tegi (-degi).....	130
4.5. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (V). Gertaera, egoera edo on- dorio izenen sortzaileak (-dura, -era <sub>2</sub> , -keta <sub>3</sub> , -kunde, -kuntza, -men/ -pen, -tza <sub>3</sub> /-tze, -tzel/-te, -zio, -ginan) .....	131
4.5.1. Sarrera.....	131
4.5.2. -dura (-tura).....	133
4.5.3. -era <sub>2</sub> (-kera) .....	134
4.5.4. -keta <sub>3</sub> .....	135
4.5.5. -kunde .....	138
4.5.6. -kuntza .....	139
4.5.7. -men/-pen .....	140
4.5.8. -tza <sub>3</sub> /-tze .....	142
4.5.9. -tzel/-te .....	143
4.5.10. -zio (-zino, -zione, -ziño).....	145
4.5.11. -ginan, -ginean.....	146
4.5.12. Beste atzizki batzuk: -ada, -antza/-antzia .....	146
4.5.12.1. -ada.....	146
4.5.12.2. -antza/-antzia.....	147
4.6. Zero atzizkia.....	148
<b>5. MORFOLOGIA LEXIKOA: ERATORPENA (II).....</b>	<b>149</b>
5.1. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak.....	149
5.1.1. Sarrera.....	149
5.2. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (I). ‘Ugaritasuna’ adiera- koak (-tsu, -os/-oso) .....	150
5.2.1. -tsu .....	150
5.2.2. -os/-oso .....	151
5.3. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (II). ‘Jatorria’ adierakoak edo gentilizioak (-(t)ar) .....	152
5.3.1. -(t)ar (-dar) .....	152

5.4. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (III). ‘Joera, izaera’ adierakoak (-bera, -kari <sub>2</sub> , -kin <sub>2</sub> , -koi, -kor, -tiar/-liar, -ti) .....	158
5.4.1. Sarrera.....	158
5.4.2. -bera.....	158
5.4.3. -kari <sub>2</sub> .....	159
5.4.4. -kin <sub>2</sub> .....	159
5.4.5. -koi (-oi).....	160
5.4.6. -kor (-or).....	161
5.4.7. -tiar/-liar.....	162
5.4.8. -ti.....	163
5.5. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (IV). ‘Gaitasuna’ adierakoak (-garri, -kizun <sub>2</sub> ).....	164
5.5.1. Sarrera.....	164
5.5.2. -garri.....	164
5.5.3. -kizun <sub>2</sub> .....	169
5.6. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (V). ‘Jabegoa’ adierakoak (-dun, -ko <sub>3</sub> ).....	170
5.6.1. Sarrera.....	170
5.6.2. -dun (-tun).....	171
5.6.3. -ko <sub>3</sub> .....	173
<b>6. MORFOLOGIA LEXIKOA: ERATORPENA (III) .....</b>	<b>177</b>
6.1. Eratorpena. Atzizki aditz-sortzaileak (-tu).....	177
6.2. Eratorpena. Atzizki adverbio-sortzaileak (-ero, -ka, -ki <sub>3</sub> , -ro, -to).....	184
6.2.1. Sarrera.....	184
6.2.2. -ero.....	184
6.2.3. -ka.....	185
6.2.4. -ki <sub>3</sub> .....	187
6.2.5. -ro.....	188
6.2.6. -to.....	189
6.3. Eratorpena. Irizpen-atzizkiak: atzizki handigarriak eta txikigarriak (-kote, -ño, -tsu, -txo, -tzar, -xe, -xka, -xko).....	189
6.3.1. Sarrera.....	189
6.3.2. -kote.....	190
6.3.3. -ño.....	191
6.3.4. -tsu.....	192

6.3.5. -txo .....	193
6.3.6. -tzar .....	194
6.3.7. -xe .....	195
6.3.8. -xka, -xko (-ska, -sko, -zka) .....	195
6.3.9. Beste atzizki batzuk (-kila/-kilo, -xkila, -tila, -ko; -ail, -antz, -ats, -kara, -zta) .....	196
6.4. Eratorpena. Atzizki zenbatzaile-sortzaileak .....	197
6.4.1. -kun, -koitz, -na, -garren .....	197
6.5. Eratorpena. Aurrizkiak (ber-/bir-, des-, erdi-, ez-) .....	198
6.5.1. Sarrera .....	198
6.5.2. ber-/bir- .....	199
6.5.3. des- .....	200
6.5.4. erdi- .....	201
6.5.5. ez- .....	202
6.5.6. Beste aurrizki batzuk: erre- (arra-), anti- .....	203
6.5.6.1. erre- (arra-) .....	203
6.5.6.2. anti- .....	204
<b>7. MORFOLOGIA LEXIKOA: HITZ ELKARKETA (I)</b> .....	<b>205</b>
7.1. Hitz elkarketa. Izen elkartuak (I). Dvandva motako elkartuak, atributu eta koordinazio egiturako elkartuak, tautologiazko elkartuak ...	206
7.1.1. Sarrera .....	206
7.1.2. Dvandva elkartuak .....	207
7.1.3. Atributu eta koordinazio egiturako izen elkartuak .....	211
7.1.4. Tautologiazko elkartuak .....	215
7.2. Hitz elkarketa. Izen elkartuak (II). Mendekotasunezko elkartuak .....	217
7.2.1. Sarrera .....	217
7.2.2. Izen+izen kategoriako hitz elkartuak. Eguzki-lore: mendekotasunezko izen elkartuak .....	218
7.2.2.1. Sarrera .....	218
7.2.2.2. Behi-esne moduko izen elkartu arruntak .....	219
7.2.2.3. Mugakizun bereziko izen elkartuak .....	226
7.2.2.4. Mugatzaile bereziko izen elkartuak .....	248
7.2.3. Aditzoin+izen kategoriako elkartuak: Jarleku mota .....	250
7.2.4. 'Osagarri-buru' egiturako izen elkartuak .....	252

7.2.5. <i>Lo falta</i> .....	252
7.2.6. <i>Asmo, behar, gogo, gura, nahi, beldur, larri, min, egarri, gose, uste</i> mugakizun dutenak .....	253
7.2.7. Izen elkartu sintetikoak.....	257
7.2.7.1. Sarrera.....	257
7.2.7.2. Egile adierako elkartu sintetikoak .....	258
7.2.7.3. Ekintza adierako elkartu sintetikoak .....	260
7.2.8. Aposizio egiturako hitz elkartuak .....	262
7.2.8.1. Sarrera.....	262
7.2.8.2. Izen propioa + izen arrunt bizigabea .....	263
7.2.8.3. Izen arrunta + izen arrunta.....	265
7.2.8.4. Izen propioa + izen arrunt biziduna / izen arrunt biziduna + izen propioa .....	265
7.2.8.5. <i>Jaun/andre</i> osagaitzat dutenak .....	266
7.2.8.6. Aposizio egiturako elkartuak eta atribuzio egiturakoak ....	266
7.2.9. Izengoiti adierako izen elkartuak.....	267
7.2.10. Izen elkartu exozentrikoak: <i>astaputz, artaburu, babalore, txoriburu; artabero, oilobusti</i> ... ..	271
7.2.11. Hitz-andana ihartuak: <i>udaberri, mutilzahar, frantses porru, etxeakoandre, Erromako zubi, aitoren seme</i> .....	273
<b>8. MORFOLOGIA LEXIKOA: HITZ ELKARKETA (II)</b> .....	277
8.1. Hitz elkarketa. Adjektibo elkartuak (I). Adjektibo dvandvak .....	277
8.2. Hitz elkarketa. Adjektibo elkartuak (II). Mendekotasunezko adjektibo elkartuak.....	279
8.2.1. Sarrera.....	279
8.2.2. <i>Bahuvrihi</i> motako adjektibo elkartuak .....	280
8.2.3. Osagarri + buru egiturakoak: <i>lotsagabe, bakezale, begi-mingarri, lotsagaldu(a)</i> .....	282
8.2.4. Aditzoin + adjektibo egiturakoak: <i>asmaezin, ulergaitz, ulerterraz, sinesgogor, sinesbera</i> .....	287
8.2.5. Partizipioa + <i>arin</i> , partizipioa + <i>berri</i> , partizipioa + <i>zahar</i> egiturakoak .....	289
<b>9. MORFOLOGIA: HITZ ELKARKETA (III)</b> .....	291
9.1. Sarrera.....	291

9.2. Aditz dvandvak .....	292
9.3. Mendekotasunezko aditz elkartuak: izena + aditza .....	292
9.3.1. <i>Antzaldatu, gurutziltzatu, odolustu</i> .....	292
9.3.2. Mendekotasunezko aditz elkartuak: leku-denborazko mugatzailedunak .....	293
9.3.3. Sintagma egiturako aditzak .....	294
9.3.3.1. Sarrera.....	294
9.3.3.2. <i>Arazi</i> .....	295
9.3.3.3. Adjektiboa + <i>etsi, iritzi</i> .....	296
9.3.3.4. Aditz predikatu konplexuak.....	297
9.3.3.4.1. Sarrera .....	297
9.3.3.4.2. Izena + <i>egin, eman, hartu</i> aditz lokuzioak .....	297
9.3.3.4.3. Izena + <i>izan</i> .....	299
9.3.3.4.4. Partizipioa + <i>behar, gura/nahi (izan)</i> .....	300
9.3.3.4.5. Partizipioa + <i>asmo, gogo, uste (izan)</i> .....	300
9.4. Hitz elkarketa. Adberbio elkartuak .....	300
9.4.1. Adberbio dvandvak.....	300
9.4.2. Mendekotasunezko adberbio elkartuak .....	301
9.4.3. Jarduera adierako elkartu sintetikoak .....	301
9.5. Modifikatzaile-buru erlazioa dutenak .....	303
9.6. Sinbolismo fonetiko eta hots uztardurak .....	303
9.7. Zenbatzaile elkartuak, galde hitz elkartuak .....	304
9.8. Exoelkartuak .....	305
9.9. Bikoiztapenak .....	306
9.10. Galde hitzaren gain osatutako morfema konplexuak.....	310

3. partea

**PERPAUS BAKUNA**

<b>10. PERPAUSAK ZER DIREN</b> .....	313
10.1. Sintagma nagusia eta perpausa .....	313
10.2. Perpaus (beregain) motak .....	316
10.3. Perpaus <i>tipoak</i> , indar ilokutiboa eta modalitatea .....	320
10.3.1. Perpaus <i>tipoak</i> .....	320

10.3.2. Adierazpenezko, galdezko, agintezko eta harridurazko perpausak .....	321
10.3.2.1. Adierazpen perpausak.....	321
10.3.2.2. Galde perpausak .....	321
10.3.2.3. Aginte perpausak .....	322
10.3.2.4. Harridura perpausak .....	324
10.3.2.5. Baiezko eta ezezko perpausak .....	325
10.3.3. Tipo formala eta indar ilokutiboa .....	327
10.4. Perpausen modalitatea .....	328
10.4.1. Definizioa eta sailkapena .....	328
10.4.2. Modalitatea adierazteko bideak .....	330
<b>11. GRAMATIKA KATEGORIAK.....</b>	<b>333</b>
11.1. Zer diren kategoriak .....	333
11.2. Kategoriak sailkatzeko zailtasunak .....	334
11.3. Kategoria lexikoak eta funtzionalak. Ohiko sailkapena .....	339
11.4. Kategoria lexikoak eta funtzionalak. Sailkapenaren arazoak .....	342
11.5. Izenak eta aditzak.....	349
11.6. Izenak, adjektiboak eta postposizioak.....	353
11.7. Izenordainak.....	354
11.8. Aditzak eta adjektiboak.....	355
11.9. Adberbioak, adjektiboak eta postposizioak.....	356
11.10. <i>-ka</i> formak: zenbatzaileak, aditzak, postposizio sintagmak eta adberbioak.....	358
<b>12. IZENA.....</b>	<b>361</b>
12.1. Hitzak eta kategoriak. Kategoria motak .....	361
12.2. Izen sintagmaren ardatza .....	363
12.3. Izenen sailkapena .....	365
12.3.1. Sarrera.....	365
12.3.2. Izen arruntak eta izen bereziak .....	366
12.3.3. Izen banakariak eta multzokariak .....	374
12.3.4. Izen abstraktuak eta konkretuak .....	375
12.3.5. Argumentu, gertaera, kuantifikazio eta sailkapen izenak.....	376

12.3.6. Izen zenbakarriak eta izen zenbakaitzak .....	382
12.3.7. Izen zenbakaitz neurgarriak eta neurgaitzak .....	384
12.3.8. Izen bizidunak eta izen bizigabeak .....	385
12.3.9. Izen bakunak, eratorriak eta elkartuak .....	389
12.3.10. Izena eta aditza .....	389
12.4. Generoa .....	394
<b>13. IZENORDAINAK</b> .....	<b>397</b>
13.1. Zer den izenordaina .....	398
13.2. Izenordain motak .....	399
13.3. Pertsona izenordain arruntak .....	400
13.3.1. <i>Ni</i> .....	400
13.3.2. <i>Hi</i> .....	402
13.3.3. <i>Zu</i> .....	403
13.3.4. <i>Berori</i> .....	405
13.3.5. <i>Gu</i> .....	406
13.3.6. <i>Zuek</i> .....	407
13.3.7. <i>Beroriek</i> .....	407
13.3.8. <i>Bera</i> .....	408
13.4. Pertsona izenordain indartuak .....	410
13.4.1. Aldaerak .....	410
13.4.2. Erabilera .....	411
13.5. Forma indartuen genitiboaren forma .....	417
13.6. <i>Han, bertan, berean</i> .....	418
13.7. Linschmann-Aresti legea .....	419
13.7.1. Legearen formulazioa .....	419
13.7.2. Linschmann-Aresti legeak sortzen dituen zalantzak .....	423
13.7.3. Linschmann-Aresti legea hausten delarik .....	425
13.8. Bihurkariak eta elkarkariak .....	428
13.8.1. Zertaz ari garen .....	428
13.8.2. <i>X-en burua</i> bihurkaria .....	428
13.8.3. <i>X-en burua</i> eta aditz intrantsitiboa .....	431
13.8.4. <i>Elkar</i> elkarkaria .....	432
13.8.5. <i>Elkar</i> eta <i>bata beste</i> egitura .....	436
13.9. Ezabaketa dela eta .....	437



13.9.1. Izena ageri ez .....	437
13.9.2. Izenordainen eta beste zenbait sintagmaren ezabaketa.....	439
13.10. Izenordain zehaztugabeak.....	442
13.10.1. Zer diren izenordain zehaztugabeak .....	442
13.10.2. Izenordain zehaztugabeak: galdetzaileak .....	443
13.10.3. <i>Nor</i> izenordaina .....	443
13.10.4. <i>Zein</i> izenordaina .....	445
13.10.5. <i>Zer</i> izenordaina .....	447
13.10.6. Galdetzaileen gainean beste ohar batzuk .....	452
13.10.7. Galdetzaileetatik eratorritako izenordainak .....	454
13.10.7.1. <i>Norbait, zerbait</i> .....	454
13.10.7.2. <i>Nor edo nor, zer edo zer</i> .....	458
13.10.7.3. <i>Edonor, edozein, nornahi, zeinahi</i> .....	459
13.10.7.4. <i>Edozer, zernahi</i> .....	461
13.10.7.5. <i>Nor (ere), zer (ere)</i> .....	463
13.10.7.6. <i>Inor/nehor, ezer (deus, batere)</i> .....	464
13.10.7.7. <i>Norbera eta norbere</i> .....	473
13.10.7.8. <i>Nor bere, zein bere</i> .....	475
13.11. <i>Batbedera</i> .....	476
13.12. <i>Beste</i> .....	477
<b>14. ADJEKTIBOA</b> .....	479
14.1. Zeri deitzen diogun adjektibo .....	480
14.2. Adjektibo motak.....	486
14.2.1. Adjektibo kalifikatzaileak .....	486
14.2.2. Funtzio murriztailea duten adjektiboak .....	487
14.2.3. <i>-dun</i> eta <i>-(t)ar</i> atzizkiak hartzen dituzten hitzen kategoriaz ...	488
14.2.4. Beste gentilizio batzuk.....	493
14.2.5. <i>Euskal langileria</i> tankerakoen izaera .....	495
14.2.6. Erreferentzia adjektiboak.....	496
14.2.7. Adjektibo adberbialak.....	497
14.2.8. Adjektiboen bestelako sailkapen batzuk.....	497
14.2.8.1. Adjektibo ebakitzzaileak .....	497
14.2.8.2. Adjektibo ez-ebakitzzaileak .....	497
14.2.9. Eпитetoak .....	499

14.3. Adjektibo bat baino gehiago izen sintagmaren barnean .....	500
14.3.1. Adjektiboen tokia.....	500
14.3.2. Adjektiboen hurrenkera hierarkia .....	501
14.4. Izen koordinatuak eta adjektiboak .....	503
14.5. Partizipioa eta adjektiboa.....	504
14.6. Adjektiboak predikatu gisa .....	505
14.7. Lotura aditzak .....	508
14.8. Adjektiboa eta kategoria aldaketak .....	511
14.9. Adjektibo berezi batzuk .....	512
14.9.1. <i>Huts</i> .....	512
14.9.2. <i>Beste</i> hitzaren kategoriaz .....	513
14.9.3. <i>Gabe</i> hitzak sortzen dituen arazoak.....	515
14.10. Adjektiboen mailakatzea.....	518
14.10.1. Sarrera.....	518
14.10.2. Marka fonetikoak.....	518
14.10.3. Marka morfologikoak .....	519
14.10.4. Mailakatze adberbioak.....	521
14.10.5. Konparazioak eta adjektiboen mailakatzea .....	525
14.10.5.1. Sarrera.....	525
14.10.5.2. <i>-EN</i> atzizkia.....	526
14.10.5.3. <i>-AGO</i> atzizkia.....	527
14.10.5.4. <i>On, hobe</i> ... ..	532
14.10.5.5. <i>Are</i> ... <i>-ago</i> .....	533
14.10.5.6. Berdintasunezko konparazioak.....	536
14.10.5.7. Harridura esaldietan.....	537
14.10.5.8. Zenbait debeku .....	538
14.10.5.9. Aposizioa eta aposizio motak .....	539
<b>15. DETERMINATZAILEAK (I): MUGATZAILEA.....</b>	<b>545</b>
15.1. Determinatzaile motak .....	545
15.2. Artikulua .....	547
15.2.1. Mugatzailearen beharra .....	547
15.2.2. Mugatzailerik gabeko sintagmak.....	548
15.3. Artikulua eta sintagmaren numeroa .....	551
15.4. Erakusleak.....	553

15.4.1. Erakusleen funtzioa .....	553
15.4.2. Erakusleen lekua perpausean .....	554
15.4.3. Erakusleen erro eta formak .....	554
15.4.4. Erakusleak eta esapideak .....	556
15.4.5. Erakusle indartuak .....	559
15.4.6. <i>Bera</i> eta <i>berdin</i> .....	561
15.4.7. <i>Bera</i> aposizioa .....	562
15.4.8. <i>Hura</i> eta <i>bera</i> .....	563
15.4.9. Forma berrindartuak .....	565
15.4.10. <i>Ber</i> daramaten forma batzuk .....	566
15.5. Partitiboa .....	567
<b>16. DETERMINATZAILEAK (II): ZENBATZAILEA .....</b>	<b>569</b>
16.1. Kuantifikazioa eta zenbatzaileak .....	569
16.2. Zenbatzaile zehaztuak .....	571
16.2.1. Sarrera .....	571
16.2.2. <i>Bat</i> zenbatzailea .....	574
16.2.3. Izen bereziak eta zenbatzaileak .....	581
16.2.4. <i>Bat</i> eta <i>batzuk</i> : kasu markak .....	581
16.2.5. <i>Bi</i> eta gainerako zenbatzaileak .....	582
16.2.6. Zenbatzaileak eta kuantifikazio izenak .....	587
16.2.7. Balio enfatikoa duten zenbatzaileak .....	587
16.2.8. Orduak nola eman euskaraz .....	588
16.2.9. Urteak eta data .....	592
16.2.10. Frakzioak eta kalkulu eragiketak .....	594
16.2.11. Zenbatzaile zehaztuak eta komuntadura .....	595
16.2.12. Ordinalak .....	597
16.2.13. Adjektibo biderkatzaileak .....	599
16.2.14. Distributiboak .....	601
16.2.15. Esamolde batzuk .....	603
16.3. Zenbatzaile zehaztugabeak .....	604
16.3.1. <i>Batzuk</i> .....	605
16.3.2. <i>Zenbait</i> .....	606
16.3.3. <i>Asko</i> .....	609
16.3.4. <i>Anitz</i> .....	613

16.3.5. <i>Gutxi</i> .....	616
16.3.6. <i>Honenbeste</i> eta kideak .....	618
16.3.7. <i>Franko</i> .....	621
16.3.8. <i>Zenbat, zenbanahi</i> .....	622
16.3.9. Beste zenbatzaile batzuk .....	623
16.4. Zenbatzaile orokorrak .....	624
16.4.1. <i>Dena</i> .....	625
16.4.2. <i>Guzti</i> .....	627
16.4.3. <i>Oro</i> .....	629
<b>17. DETERMINATZAILEAK (III): ZEHAZTUGABEA</b> .....	633
17.1. Zer diren determinatzaileak .....	633
17.2. Determinatzaile zehaztugabeen aldaerak .....	633
<b>18. EGITURAZKO KASUAK</b> .....	635
18.1. Zer diren egiturazko kasuak .....	635
18.2. Absolutiboa .....	638
18.2.1. Funtzioa eta kasu marka .....	638
18.2.2. Absolutiboaren forma .....	639
18.2.3. Absolutiboaren erabilera .....	639
18.2.4. Absolutiboa eta partitiboa .....	642
18.2.5. Absolutiboa eta genitiboa .....	646
18.3. Ergatiboa .....	648
18.3.1. Funtzioa eta kasu marka .....	648
18.3.2. Erabilera .....	650
18.3.3. Ergatiboaren hausturaz .....	651
18.3.4. Egitura ergatiboak eta pasiboak .....	652
18.4. Datiboa .....	653
18.4.1. Kasu marka .....	653
18.4.2. Helburu eta onuradunak. Osagarri bikoitzeko egiturak .....	653
18.4.3. Esperimentatzaileak .....	655
18.4.4. Datibo hunkituak eta jabe datiboak .....	656
18.4.5. Datiboaren eta adlatibo/ablatiboaren arteko harremanez .....	658
18.4.6. Marinelei abisua: <i>izenondoko datiboak</i> .....	660

18.4.7. Datiboa hautatzen duten aditzez besteko kategoriak: postposizioak adibide .....	663
18.5. Partitiboa .....	664
18.5.1. Zer den partitiboa.....	664
18.5.2. Erabilera.....	665
18.6. Genitiboa (-en).....	667
18.6.1. Forma eta funtzioa .....	667
18.6.2. Erabilera.....	668
<b>19. POSTPOSIZIO SINTAGMAK (I) .....</b>	<b>671</b>
19.1. Postposizio sintagmak eta egiturazko kasuak .....	671
19.2. Postposizio itsatsiak .....	674
19.3. Postposizio askeak .....	674
19.4. Leku/denborazko PSak eta leku/denborazko ez direnak .....	676
19.5. Leku/denborazko PSen ezaugarri morfologikoak.....	676
19.5.1. Bereizgarri nagusiak .....	676
19.5.1.1. -TA- artizkia .....	677
19.5.1.2. -GA- postposizioa.....	679
19.5.1.3. Artikulurik ez agerian .....	679
19.5.2. Laburbilduz: leku/denborazko PSen bereizgarri morfologikoak .....	680
<b>20. POSTPOSIZIO SINTAGMAK (II): LEKU/DENBORAZKOAK (INESIBOA, ABLATIBOA ETA ADLATIBOAK).....</b>	<b>683</b>
20.1. Inesiboa: -N ('non', 'noiz', 'zertan' ...) .....	684
20.1.1. Inesiboa, oinarrizko PSa .....	684
20.1.2. PS inesiboaren morfologia.....	684
20.1.3. PS inesiboaren funtzio sintaktikoa .....	688
20.1.4. Inesiboaren adiera.....	690
20.1.4.1. Lekua .....	690
20.1.4.2. Denbora .....	692
20.1.4.3. Jarduera.....	693
20.1.4.4. Prezioa .....	693
20.1.4.5. Modua.....	694
20.1.5. Inesiboa leku/denborazko PSen oinarrian .....	695

20.2. Ablatiboa: <i>-TIK/-RIK</i> .....	696
20.2.1. PS ablatiboaren morfologia .....	696
20.2.1.1. <i>-TIK</i> eta <i>-(R)IK</i> .....	696
20.2.1.2. <i>Harik/honik/arean</i> , adberbio ihartuak .....	698
20.2.1.3. Morfema bat baino gehiago: inesiboa oinarrian .....	699
20.2.1.4. Postposizio sintagma ablatiboa: $[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] -TIK]$ ...	700
20.2.2. PS ablatiboaren funtzio sintaktikoa .....	702
20.2.3. Adiera .....	703
20.3. Adlatiboa: [... <i>-RA</i> ]; [... <i>-RAINO</i> ]; [... <i>-RANTZ</i> ]; [... <i>-(RA)KO</i> ] .....	705
20.3.1. PS adlatiboen morfologia: $[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] \{-(R)A / -RAINO / -RANTZ / -(R)AKO\}]$ .....	706
20.3.1.1. Adlatiboa <sub>1</sub> ('nora'): $[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] \{-(R)A\}]$ .....	707
20.3.1.2. Muga adlatiboa ('noraino'): $[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] \{-(R)A-INO\}]$	710
20.3.1.3. Hurbiltze adlatiboa ('norantz'): $[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] \{-(R)A-NTZ\}]$ .	710
20.3.1.4. Adlatibo destinatiboa ('norako'/'noizko'/'zerta(ra)ko'):	
$[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] \{-(R)A-KO\}]$ .....	711
20.3.2. PS adlatiboen funtzio sintaktikoa .....	713
20.3.3. Adlatiboen adiera .....	716
20.3.3.1. $[_{PS} \dots -RA]$ adlatiboak adiera bat baino gehiago izan ditzake	716
20.3.3.2. $[_{PS} \dots -RAINO]$ adlatiboaren adiera .....	717
20.3.3.3. $[_{PS} \dots -RANTZ]$ adlatiboaren adiera .....	718
20.3.3.4. $[_{PS} \dots -RAKO]$ adlatiboaren adiera .....	719
20.4. Leku/denborazko PSak laburbilduz .....	719
<b>21. POSTPOSIZIO SINTAGMAK (III): LEKU/DENBORAZKO EZ DIRENAK</b> .....	723
21.1. Sarrera .....	724
21.2. Soziatiboa: $[_{PS} \dots -(R)EKIN]$ .....	725
21.2.1. Morfologia .....	725
21.2.2. Funtzio sintaktikoa .....	727
21.2.3. Adiera .....	728
21.3. Kausazkoa: $[_{PS} \dots -(EN)-GATIK]$ .....	729
21.3.1. Morfologia .....	729
21.3.2. Funtzio sintaktikoa .....	731

21.3.3. Adiera.....	732
21.4. Destinatiboa: [ <sub>PS</sub> ... -(EN)TZAT] .....	733
21.4.1. Morfologia.....	733
21.4.2. Funtzio sintaktikoa .....	735
21.4.3. Adiera.....	735
21.5. Prolatiboa: [ <sub>PS</sub> ... -TZAT] .....	736
21.5.1. Morfologia.....	736
21.5.2. Funtzio sintaktikoa .....	738
21.5.3. Adiera.....	738
21.6. Instrumentala: [ <sub>PS</sub> ... -Z] ('zertaz'/'zerez') .....	739
21.6.1. Morfologia.....	739
21.6.2. Funtzio sintaktikoa .....	744
21.6.3. Adiera.....	745
21.7. Leku/denborazko ez diren PSak laburbilduz .....	750
21.8. [ <sub>PS</sub> ... -KO] postposizio sintagma .....	750
21.8.1. -KOREN eremu zabala.....	750
21.8.2. -KO postposizioa, inesiboa osagarri duela: [ <sub>PS</sub> [ <sub>PS</sub> ... -N] -KO] ...	751
21.8.3. -KOREN osagarria, inesiboaz bestelako leku/denborazko PSa ...	754
21.8.4. Leku/denborazko ez diren postposizio sintagmak -KOREN osagarri.....	755
21.8.5. Zenbatzaile sintagmak -KOREN osagarri .....	756
21.8.6. IS soila -KOREN osagarri .....	759
21.8.7. -KO zenbait predikatu osagarri itsatsirik .....	760
21.8.8. Mendeko perpausak -KOREN osagarri.....	760
21.8.9. -KO, erlaziozko postposizioa .....	761
21.9 -KOREN lana morfologian.....	763
21.9.1. Morfologia lexikoan .....	763
21.9.2. Aditz morfologian.....	763
21.9.3. -KOREN erabilerari dagozkion zenbait auzi.....	764
21.10. Postposizio askeak .....	766
21.10.1. Postposizio itsatsiak eta askeak .....	766
21.10.2. Ohiko adberbioen gainean eraikitako postposizio askeak .....	767
21.10.3. Kokapen izenez eraikitako postposizio askeak ( <i>aurrean, gainera, ondotik...</i> ) .....	768
21.10.3.1. Kokapen izenak .....	768

21.10.3.2. <i>Gora, behera vs gainera, azpira</i> .....	770
21.10.3.3. <i>Etxearen ondoan / etxe ondoan</i> gisako sintagmak .....	771
21.10.4. Instrumentala buru duten postposizio askeak ( <i>erruz, bidez, ondorioz...</i> ) .....	773
21.10.5. Postposizio askeen zerrenda bat .....	773
<b>22. ADBERBIOA</b> .....	783
22.1. Adberbioak zer diren.....	784
22.1.1. Kategoria mota bat.....	784
22.1.2. Adberbioak ez dira aditz argumentuak .....	785
22.1.3. Aditz sintagmaren edo perpaus osoaren modifikatzaile .....	786
22.1.4. Adberbio sintagmak eta postposizio sintagmak.....	787
22.1.5. Adberbioen aldaezintasuna .....	789
22.1.6. Adberbioen funtzioaz.....	789
22.1.7. Adberbioen sailkapen motak .....	790
22.2. Adberbioen sailkapen formalak: adberbio bakunak, eratorriak eta elkartuak.....	791
22.2.1. Adberbio bakunak.....	791
22.2.2. Adberbio eratorriak .....	792
22.2.3. Adberbio elkartuak .....	798
22.2.3.1. Adberbio elkartu motak .....	798
22.2.3.2. Galdetzaileetan oinarritu adberbioak.....	798
22.2.3.3. Adberbio dvandvak.....	800
22.2.3.4. Mendekotasunezko adberbio elkartuak .....	800
22.2.3.5. Adberbioak eta hots uztardura .....	801
22.2.4. Adberbio gisa erabilitako bestelako hitzak .....	801
22.2.4.1. Hitzak eta adberbioak .....	801
22.2.4.2. Adberbio bihurtu diren hitzak.....	802
22.2.4.3. Adberbio bihurtzeko diren hitzak .....	802
22.2.4.4. Adberbioak sortzeko beste bide batzuk .....	803
22.2.4.5. Adberbio gisa erabiliak mugatzailea eta guzti.....	804
22.2.4.6. Adberbio gisa erabilitako hitz multzoak.....	805
22.3. Adberbioen sailkapen semantikoa (I) .....	806
22.3.1. Sailkapen mota asko .....	806
22.3.2. Zirkunstantzia, nozioa, jarrera.....	806



22.4. Adberbioen sailkapen semantikoa (II): Denbora adberbioak .....	808
22.4.1. Zer diren denbora adberbioak: <i>Noiz</i> , oinarrizko galdera .....	808
22.4.2. Denbora adberbioak eta postposizioak .....	809
22.4.3. Denbora adberbioen kokapena .....	811
22.4.3.1. Askotariko adberbioak .....	811
22.4.3.2. <i>Orain</i> multzoko adberbioak .....	812
22.4.3.3. <i>Egun</i> multzoko adberbioak .....	814
22.4.3.4. <i>Aurten</i> multzoko adberbioak .....	816
22.4.4. Maiztasuna adierazten duten adberbioak .....	816
22.4.5. Iraupena markatzen duten adberbioak .....	818
22.4.6. Bestelako denbora adberbioak .....	818
22.4.7. Denbora adberbioen indargarriak eta esamoldeak .....	821
22.4.8. Hitz batzuen denborazko erabilera adberbiala .....	822
22.5. Adberbioen sailkapen semantikoa (III): Leku adberbioak .....	824
22.5.1. Zer diren leku adberbioak: <i>Non</i> , oinarrizko galdera .....	824
22.5.2. Sintagma erabilienak .....	825
22.5.3. Forma indartuak .....	825
22.5.4. Adberbio elkartu zehaztugabeak .....	827
22.5.5. Adberbio-adjektiboak .....	828
22.5.6. Maila markak, esaera adberbialak eta bestelakoak .....	829
22.6. Adberbioen sailkapen semantikoa (IV): Modu adberbioak .....	830
22.6.1. Modu adberbioak zer diren: <i>Nola</i> eta <i>zelan</i> , oinarrizko galderak .....	830
22.6.2. <i>Nola</i> -ren bestelako erabilerak .....	831
22.6.3. Bestelako galdetzaileak .....	832
22.6.4. Adberbio elkartu zehaztugabeak .....	833
22.6.5. Erakusleetatik eratorritako adberbioak .....	834
22.6.6. Adberbio eratorriak .....	837
22.6.7. Bestelakoak .....	837
22.6.8. Elkartze sintaktikoak .....	839
22.7. Adberbioen sailkapen semantikoa (V): Maila adberbioak eta zen- batekoak .....	840
22.7.1. Maila adberbioak zer diren .....	840
22.7.2. <i>Oso</i> .....	840
22.7.3. <i>Berdin</i> eta <i>nahiko</i> .....	842
22.7.4. Maila adberbio hutsak .....	843

22.7.5. Kokagunea .....	843
22.7.6. <i>Asko, aski, samar, pixka bat</i> .....	844
22.7.7. Kopuruari eta osotasunari lotutako adberbioak .....	845
22.7.8. Deiktikoak .....	846
22.7.9. <i>Zein, zer</i> .....	847
22.7.10. Azken oharrak .....	848
22.8. Adberbioen sailkapen semantikoa (VI): Iritzi adberbioak .....	849
22.9. Adberbioen sailkapen semantikoa (VII): Bestelako adberbio batzuk	851
22.9.1. Diskurtso markatzaileak .....	851
22.9.2. <i>Ere</i> .....	851
22.9.3. <i>Omen/ei, ote</i> .....	851
22.9.3.1. “Partikulak” deituak .....	851
22.9.3.2. <i>Omen/ei</i> .....	852
22.9.3.3. <i>Ote</i> .....	852
22.9.3.4. <i>Bide</i> .....	852
22.9.3.5. <i>Al</i> .....	853
22.9.3.6. <i>Ahal</i> .....	853
22.9.3.7. <i>Bai eta ez</i> .....	854
<b>23. ADITZA (I): AURKEZPENA</b> .....	859
23.1. Sarrera .....	860
23.2. Aditz motak .....	869
23.2.1. Morfologia egitura .....	869
23.2.1.1. Aditz bakunak, eratorriak eta elkartuak .....	869
23.2.1.2. Aditz arazleak .....	870
23.2.1.3. Aditz predikatu konplexuak.....	872
23.2.1.3.1. [izena + <i>egin</i> ], [PS/adberbioa + <i>egin</i> ] egiturako aditz lokuzioak .....	873
23.2.1.3.2. [izena/DS + <i>eman/hartu</i> ] egiturako aditz lokuzioak	876
23.2.1.3.3. [izena/DS/PS + <i>eman, hartu, jan, jo, lotu, sartu</i> ...]: <i>lur jo, gogoak eman, bideari lotu, kontuan hartu</i> ...	878
23.2.1.3.4. [izena/adjektiboa + <i>izan (da/du)</i> ] egiturako aditz predikatuak .....	879
23.2.1.3.5. [adberbioa/PS/adjektiboa + <i>egon, ibili</i> ] aditzekin osatutako predikatu konplexuak.....	882

23.2.2. <i>Kasu-balentziak</i> .....	883
23.2.2.1. <i>Kasu-balentziaren</i> araberako lau aditz mota nagusiak: <i>da, du, zaio, dio</i> .....	883
23.2.2.2. Aditz intrantsitiboak .....	886
23.2.2.3. Aditz intrantsitibo datibodunak .....	892
23.2.2.4. Aditz intrantsitibo ergatibodunak (eta intrantsitibo erga- tibodun eta datibodunak) .....	894
23.2.2.5. Aditz trantsitiboak .....	898
23.2.2.6. Aditz ditransitiboak .....	902
23.2.2.7. Alternantziak.....	902
23.2.2.8. Aditz trantsitibozko perpausak inpersonal bihurtzea.....	904
23.2.2.8.1. Adizki trantsitiboa intrantsitibo bihurtzea ( <i>onartu da</i> )	904
23.2.2.8.2. Hirugarren pertsona gramatikal pluralari erreferen- te-balio generikoa ematea ( <i>debekatu dute</i> ).....	905
23.2.2.8.3. Pasiboa eta erdi-pasiboa .....	905
23.2.2.8.4. Datibozko <i>esperimentatzailea</i> ezabatzea.....	909
23.2.2.8.5. Zenbait esapide berezi .....	909
23.3. Argumentuak.....	910
23.3.1. Aditza eta argumentuak .....	910
23.3.2. Izena eta argumentuak .....	917
23.4. Aditz modalak .....	919
23.4.1. Sarrera.....	919
23.4.2. <i>Ahal izan</i> .....	922
23.4.3. <i>Behar izan</i> .....	924
23.4.4. <i>Ezin izan</i> .....	925
23.4.5. <i>Nahi/gura izan</i> .....	926
23.5. Adizki jokatuaren inguruko osagaiak .....	927
23.5.1. <i>Bai/ba-</i> eta <i>ez</i> adberbioak .....	927
23.5.2. <i>Al</i> eta <i>-a</i> galdera markatzaileak .....	928
23.5.3. Modalitate epistemikoa eta ebidentzialitatea: <i>omen/ei, bide,</i> <i>ote</i> eta <i>ahal</i> partikulak .....	930
23.5.3.1. Ezaugarri orokorrak.....	930
23.5.3.2. <i>Omen/ei</i> .....	931
23.5.3.3. <i>Bide</i> .....	936
23.5.3.4. <i>Omen vs bide</i> .....	937

23.5.3.5. <i>Ote</i> .....	938
23.5.3.6. <i>Ahal</i> .....	940
<b>24. ADITZA (II): ATRIBUZIOA ETA PREDIKAZIOA</b> .....	943
24.1. Sarrera .....	943
24.2. Aditzezkoak ez diren predikatuak.....	946
24.3. Lehen mailako predikazioa .....	948
24.3.1. Adiera desberdinak egitura kopulatiboetan .....	948
24.3.2. Aditz eta egitura kopulatiboak .....	950
24.3.3. <i>Izan</i> eta <i>egon</i> .....	952
24.3.3.1. <i>Izan</i> .....	953
24.3.3.2. <i>Egon</i> .....	956
24.3.4. <i>Ukan</i> eta <i>eduki</i> erabiliz osatutako egitura kopulatiboak .....	958
24.3.5. Aditz eta egitura semikopulatiboak .....	961
24.3.5.1. Askotariko aditz eta egiturak .....	961
24.3.5.2. Iritzi aditzak .....	962
24.3.5.3. Gertaera aditzak .....	966
24.3.5.4. Aldaketa eta iraupen aditzak.....	967
24.4. Bigarren mailako predikazioa .....	969
24.4.1. Zer den bigarren mailako predikazioa .....	969
24.4.2. Subjektuari begirako bigarren mailako predikazioa .....	970
24.4.3. Objektuari begirako bigarren mailako predikazioa .....	972
24.4.4. Aukerako eta nahitaezko bigarren mailako predikatuak.....	973
24.4.5. Bigarren mailako predikatuen interpretazio semantikoak .....	975
<b>25. ADITZA (III): ADIZKI JOKATUGABEAK</b> .....	977
25.1. Aditzoina .....	977
25.1.1. Formak eta erabilerak .....	977
25.1.2. Aditzoina perpaus lokabeetan .....	980
25.1.3. Aditzoina juntadura perpausetan .....	982
25.1.4. Aditzoina mendeko perpausetan .....	982
25.1.5. Aditzoina oinarri duten adizki analitikoak.....	984
25.2. Partizipioa .....	985
25.2.1. Partizipioa: formak eta erabilerak.....	985
25.2.2. Partizipioa eta adjektiboa.....	987

25.2.3. Partizipioa eta izena.....	988
25.2.4. Partizipioa mendeko perpausetan .....	989
25.2.5. Partizipioa juntadura perpausetan.....	993
25.2.6. Beste erabilera zenbait.....	994
25.2.7. Partizipioa oinarri duten adizki analitikoak eta perifrasiak ....	995
25.3. Aditz izena .....	996
25.3.1. Formak eta erabilerak .....	996
25.3.2. Aditz izena eta kasuak .....	998
25.3.3. Aditz izena eta postposizioak .....	999
25.3.4. Beste erabilera batzuk.....	1003
25.3.5. Aditz izena oinarri duten adizki analitikoak eta perifrasiak ....	1003
25.4. Partizipio prospektiboa .....	1004
<b>26. ADITZA (IV): ADIZKI JOKATUAK .....</b>	<b>1005</b>
26.0. Sarrera.....	1006
26.1. Adizki jokatuaren marka semantikoak eta formalak.....	1007
26.1.1. Erroa .....	1007
26.1.2. Denbora eta aldia .....	1008
26.1.3. Aldi motak .....	1010
26.1.4. Aspektua .....	1011
26.1.4.1. Aspektu lexikala eta predikatuaren mailakoa .....	1012
26.1.4.2. Aspektu gramatikala .....	1013
26.1.5. Modua .....	1016
26.1.5.1. Indikatiboa eta subjuntiboa.....	1016
26.1.5.2. Alegiazko adizkiak .....	1016
26.1.5.3. <i>-ke</i> atzizkia.....	1018
26.1.5.4. Aginte adizkiak .....	1019
26.1.6. Pertsona .....	1022
26.1.7. Numeroa .....	1024
26.2. Adizki sintetikoak .....	1025
26.2.1. Sarrera.....	1025
26.2.2. Aldia eta aspektua.....	1027
26.2.3. Modua eta modalitatea.....	1028
26.3. Adizki analitikoak .....	1030
26.3.1. Sarrera.....	1030

26.3.2. Adizki nagusiak .....	1030
26.3.2.1. Partizipio burutua .....	1030
26.3.2.2. Partizipio burutugabea .....	1031
26.3.2.3. Partizipio prospektiboa .....	1032
26.3.2.4. Aditzoina .....	1032
26.3.3. Adizki laguntzaileak .....	1032
26.3.4. Aldia eta aspektua .....	1033
26.3.5. Modua eta modalitatea .....	1035
26.3.5.1. Subjuntiboa eta agintera .....	1035
26.3.5.2. Ahalera .....	1036
26.3.5.3. Alegiazko paradigma .....	1036
26.3.5.4. <i>-ke</i> atzizkia .....	1037
26.4. Perifrasiak .....	1038
26.5. Aditz predikatu konplexuak .....	1040
26.6. Denbora, aspektua eta modua .....	1042
26.6.1. Denbora eta aspektua .....	1042
26.6.1.1. Orainaldia .....	1042
26.6.1.1.1. Burutugabea .....	1043
26.6.1.1.2. Burutua .....	1045
26.6.1.2. Iraganaldia .....	1048
26.6.1.2.1. Burutugabea .....	1049
26.6.1.2.2. Burutua .....	1050
26.6.1.3. Geroaldia .....	1054
26.6.2. Modua .....	1057
26.6.2.1. Subjuntiboa .....	1057
26.6.2.2. Agintera .....	1060
26.6.2.3. Hipotetikoa .....	1060
26.6.3. Modalitatea .....	1060
26.6.3.1. Ahalera .....	1061
26.6.3.2. Modalitate epistemikoa eta ebidentzialitatea .....	1066
<b>27. ADITZA (V): ADIZKI ALOKUTIBOAK .....</b>	<b>1069</b>
27.1. Komunztadura argumentala .....	1069
27.2. Euskararen tratamenduak .....	1070
27.3. Tratamenduak eta adizki alokutiboak .....	1071

27.4. Alokutiboaren hedadura .....	1074
27.5. Hitano alokutiboaren erabilera.....	1077
27.6. Alokutiboaren muga sintaktikoak .....	1081
27.7. Hika alokutiboaren adizkiak .....	1083

## II. LIBURUKIA

<b>LABURDURA OROKORRAK</b> .....	LIII
<b>ZEINUAUAK</b> .....	LV

### 4. partea

#### PERPAUS ELKARTUAK: JUNTADURA ETA MENDERAKUNTZA

<b>28. JUNTADURA</b> .....	1089
28.1. Sarrera: mota bereko osagaien juntadura .....	1090
28.1.1. Maila bereko sintagmak elkartzen dira.....	1090
28.1.2. Juntadura mota desberdinak .....	1091
28.2. Juntagaiak .....	1093
28.2.1. “Modu bereko” juntagaiak.....	1093
28.2.2. Auziaren konplexutasuna.....	1095
28.3. Juntadura eta menderakuntza.....	1097
28.3.1. Elkarketa mota desberdinak.....	1097
28.3.2. Irizpideak zehazteko zailtasuna .....	1099
28.4. Emendiozko juntadura .....	1102
28.4.1. Sarrera.....	1102
28.4.2. Zer elementu junta daitezke? .....	1104
28.4.3. Aditzarekiko komuntadura.....	1110
28.4.4. Juntaduraren irakurketak .....	1112
28.4.5. Osagai ezabaketa .....	1113
28.4.6. <i>Eta</i> juntagailuaren tokia .....	1122
28.4.7. Emendiozko esamoldeak .....	1124
28.4.8. Banakaritza .....	1131
28.4.9. Zenbait esapide .....	1134

28.5. Juntadura hautakaria .....	1139
28.5.1. Sarrera.....	1139
28.5.2. <i>Edo</i> juntagailua .....	1140
28.5.2.1. Juntagailua eta juntagaiak.....	1140
28.5.2.2. Balioak.....	1143
28.5.2.3. Ezabaketak.....	1148
28.5.2.4. <i>Edo X edo Y</i> .....	1149
28.5.2.5. <i>X edo</i> .....	1150
28.5.3. <i>Edota</i> juntagailua .....	1151
28.5.3.1. Juntagailua eta juntagaiak.....	1151
28.5.3.2. Balioak.....	1152
28.5.3.3. Ezabaketak.....	1154
28.5.3.4. Tokia .....	1154
28.5.4. <i>Ala</i> juntagailua .....	1154
28.5.4.1. Juntagailua eta juntagaiak.....	1154
28.5.4.2. Balioak.....	1156
28.5.4.3. Ezabaketak.....	1157
28.5.4.4. Tokia .....	1158
28.5.5. Beste molde batzuk.....	1160
28.5.6. Balioak eta juntagailuak: laburpena .....	1163
28.5.7. Aditzarekiko komunztadura.....	1164
28.6. Aurkaritzako juntadura .....	1166
28.6.1. Sarrera.....	1166
28.6.2. <i>Baina</i> juntagailua .....	1169
28.6.2.1. Sarrera.....	1169
28.6.2.2. Juntagaiak .....	1172
28.6.2.3. Ezabaketak.....	1174
28.6.2.4. Tokia .....	1175
28.6.2.5. Aurkaritza eta kontzesioa .....	1176
28.6.2.6. Zenbait esapide.....	1179
28.6.3. <i>Baizik</i> eta horren kideen aurkaritza ( <i>ez A, B baizik</i> ) .....	1180
28.6.3.1. Sarrera.....	1180
28.6.3.2. Aurkaritza honen zer-nolakoak.....	1180
28.6.3.3. Ezabaketak.....	1184
28.6.3.4. <i>Baizik</i> juntagailua .....	1186



28.6.3.5. <i>Baino</i> eta <i>Ezpada</i> juntagailuak .....	1187
28.6.3.6. <i>Baina</i> juntagailua .....	1188
28.6.3.7. <i>Ez baina</i> .....	1190
28.6.3.8. <i>Baizik</i> eta <i>Baino</i> hitzen erabilera “murriztailea” .....	1191
28.7. Juntagailuak eta Buru-parametroa .....	1192
28.8. Juntadura eta osagaitasuna .....	1194
28.9. Alborakuntza eta aposizioa .....	1196
28.9.1. Alborakuntza .....	1196
28.9.2. Aposizioa .....	1199
<b>29. MENDERAKUNTZA</b> .....	1207
29.1. Perpausak konbinazioan .....	1207
29.2. Menderakuntzaren ezaugarri morfosintaktikoak .....	1209
29.3. Menderagailuaren eta aditzaren arteko egokitze morfologikoak.....	1210
29.4. Ohar orokor batzuk .....	1211
29.5. Formatik abiatzen den sailkapena .....	1211
29.6. Esanahitik abiatzen den sailkapena.....	1213
<b>30. PERPAUS OSAGARRIAK</b> .....	1215
30.1. Sarrera .....	1216
30.1.1. Konplementazio erlazioa .....	1216
30.1.2. Konplementazioaren osagaiak .....	1218
30.1.2.1. Elementu gobernatzaileak .....	1218
30.1.2.2. Perpaus osagarriak: jokatuak eta jokatugabeak .....	1220
30.1.2.3. Menderagailuak .....	1220
30.1.3. Perpaus osagarrien sailkapena .....	1223
30.2. Perpaus osagarrien ezaugarri orokor batzuk .....	1223
30.2.1. Zertarako erabiltzen ditugun perpaus osagarriak.....	1223
30.2.2. Denbora komunztadura perpaus jokatueta .....	1224
30.2.3. Perpaus jokatugabeetan zer gertatzen den .....	1226
30.2.4. Desberdintasunak euskalkien arabera.....	1227
30.2.5. Erreferentziakidetasuna eta kontrol egiturak .....	1228
30.3. Perpaus osagarrien funtzio sintaktikoa .....	1229
30.3.1. Perpaus osagarriak eta egiturazko kasuak .....	1229
30.3.2. Perpaus osagarriak eta instrumentala .....	1231

30.4. Perpaus osagarriek perpaus nagusiaren argumentuen artean duten lekuaz .....	1231
30.4.1. Osagarri-erlazioa .....	1231
30.4.2. Predikatuen argumentu sarea .....	1232
30.5. Hitzen ordena perpaus osagarrietan .....	1235
30.5.1. Perpaus jokatueta .....	1235
30.5.2. Perpaus jokatugabeetan .....	1237
30.6. Adierazpen perpaus osagarriak .....	1238
30.6.1. Sarrera .....	1238
30.6.2. Aditzaren mendeko adierazpen perpaus osagarri jokatuak .....	1239
30.6.2.1. <i>-(e)la</i> menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak .....	1239
30.6.2.2. <i>-(e)na</i> menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak .....	1248
30.6.2.3. <i>-(e)nik</i> menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak .....	1249
30.6.2.4. <i>-(e)n</i> menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak .....	1251
30.6.2.5. <i>Bait-</i> menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak .....	1254
30.6.2.6. <i>-(e)larekin</i> edo beste menderagailu batekin egin daitezkeen adierazpen perpaus osagarri jokatuak .....	1255
30.6.3. Aditzaren mendeko adierazpen perpaus osagarri jokatugabeak .....	1256
30.6.3.1. <i>-tze(a)</i> eta <i>-tzerik</i> perpaus osagarriak .....	1256
30.6.3.1.1. <i>-tzea</i> perpaus osagarriak .....	1256
30.6.3.1.2. <i>Ezin izan + -tzea (ezin egin izatea)</i> .....	1261
30.6.3.1.3. <i>-tzerik</i> perpaus osagarriak .....	1262
30.6.3.2. [ <i>-tzea + atzizkia</i> ] perpaus osagarriak .....	1263
30.6.3.2.1. Sarrera .....	1263
30.6.3.2.2. <i>-tzetik</i> perpaus osagarriak (eta <i>-tzetik -tzero</i> ) .....	1264
30.6.3.2.3. <i>-tzean</i> perpaus osagarriak .....	1267
30.6.3.2.4. <i>-tzearekin/-tzeagaz</i> perpaus osagarriak .....	1268
30.6.3.2.5. <i>-tzeaz</i> perpaus osagarriak .....	1269
30.6.3.2.6. <i>-tzeari</i> perpaus osagarriak .....	1273
30.6.3.2.7. <i>-tzeak</i> perpaus osagarriak .....	1275

30.6.3.3. - <i>tzen</i> perpaus osagarriak .....	1277
30.6.3.3.1. Forma eta esanahia .....	1277
30.6.3.3.2. Aspektu perifrasiak .....	1280
30.6.3.3.3. Kontrola .....	1282
30.6.3.3.4. Predikatu gobernatzailen sailkapen formala .....	1283
30.6.3.4. - <i>tzero(t)</i> perpaus osagarriak .....	1285
30.6.3.5. Perpaus osagarri molde batzuen berezitasunak .....	1289
30.6.3.5.1. - <i>tzen</i> , - <i>tzero</i> eta - <i>tzeko</i> alternantziak .....	1289
30.6.3.5.2. - <i>tzea</i> eta - <i>tzen</i> predikatu berarekin .....	1290
30.6.3.6. Perpaus osagarri jokatu gabe burutuak (- <i>tua</i> nahiz - <i>tu izana</i> ) .....	1291
30.6.4. Izenaren mendeko adierazpen perpaus osagarriak: jokatuak eta jokatu gabeak .....	1292
30.6.4.1. Perpaus izenlagun adierazpenezkoak .....	1292
30.6.4.1.1. Adierazpenezko perpaus izenlagun jokatuak .....	1293
30.6.4.1.2. Adierazpenezko perpaus izenlagun jokatu gabeak .....	1296
30.7. ‘Agindua, eskea, erregua’ adierako predikatuen osagarriak .....	1299
30.7.1. Perpaus jokatuak .....	1299
30.7.1.1. Subjuntibozko forma eta menderagailua .....	1299
30.7.1.2. Ezaugarri batzuk .....	1302
30.7.2. Perpaus jokatu gabeak .....	1303
30.7.2.1. - <i>tzeko</i> perpaus osagarriak .....	1304
30.7.2.1.1. Subjuntibozko perpausen kideak .....	1304
30.7.2.1.2. - <i>tzea</i> perpaus osagarriak, ondoan subjuntiboko osagarri jokatu dutenak .....	1308
30.7.2.2. - <i>tzeal-tzeko</i> alternantzia .....	1311
30.7.3. <i>Nahi, galde, eske, beldur, agindu(a), erregu</i> eta mota horretako izenen perpaus izenlagunak .....	1314
30.7.3.1. Perpaus izenlagun jokatuak .....	1314
30.7.3.2. Perpaus izenlagun jokatu gabeak .....	1315
30.8. Zehar-galderak .....	1315
30.8.1. Ezaugarri orokorrak .....	1315
30.8.2. Zehar-galdera jokatuak .....	1319
30.8.2.1. Zehar-galdera orokorrak .....	1320
30.8.2.2. Zehar-galdera zatizkoak .....	1323

30.8.3. Zehar-galdera jokatugabezko perpaus osagarriak .....	1326
30.8.4. Zehar-galderak izenaren osagarri .....	1330
<b>31. PERPAUS ERLATIBOAK.....</b>	<b>1333</b>
31.1. Perpaus erlatiboak izenaren modifikatzaile adjektibalen artean .....	1334
31.2. Erlatibo motak .....	1335
31.2.1. Perpaus erlatibo arruntak: jokatuak (P+-n) eta jokatugabeak (partizipio+-ta+-ko) .....	1335
31.2.2. Izenordain erlatiboz eraturiko perpaus aposiziozkoak ( <i>zein+</i> + <i>bait</i> -/ <i>n</i> ) .....	1336
31.2.3. Korrelaziozko erlatibizatzea: galdera hitza (+ <i>bait</i> -/ <i>n</i> ), anafora [ <i>Zu nora (baitzoaz/zoazen), hara(xe) (noa) ni</i> ] .....	1336
31.2.4. Zehar-galdera jokatugabeen egitura bereko perpaus erlatibo balioko esapideak .....	1337
31.3. Zer den interpretazio zehaztailea eta zerk eragiten edo eragozten duen halakoa .....	1338
31.3.1. Sintagma adjektibalak erreferente espezifikoa (zehatz eta barkarra) duten izen-ardatzekin: pertsona izenordainak, izen bereziak .....	1338
31.3.2. Interpretazio zehaztailea eragiteko gai den IS-konfigurazioa: [( <i>sintagma adjektibal</i> ) <i>I</i> ( <i>sintagma adjektibal</i> )] + <i>-a(k)</i> .....	1339
31.3.3. Kasuan kasuko interpretazioa: sintagma adjektibalen semantika eta pragmatika.....	1340
31.4. Perpaus erlatibo jokatuak.....	1342
31.4.1. Zer diren perpaus erlatiboak .....	1342
31.4.2. Perpaus erlatiboetan diren mota desberdinak .....	1343
31.4.3. Perpaus erlatibo jokatu arruntak .....	1344
31.4.3.1. Izen sintagma erlatibatua: perpaus erlatiboan isildua dena.....	1344
31.4.3.2. Perpaus erlatiboetako menderagailua .....	1345
31.4.3.3. Perpaus erlatiboaren tokia ardatzari buruz .....	1345
31.4.3.4. Sintagma erlatibatua perpaus erlatiboaren barneko beste perpaus menderatu batekoa denean .....	1347
31.4.3.5. Perpaus erlatiboen barneko osagaien tokia.....	1348

31.4.3.6. Zein diren erlatiba daitezkeen izen sintagmak: erlatiba-tze eskala .....	1349
31.4.3.7. Testuinguruaren garrantzia .....	1351
31.4.3.8. Erlatibatzea errazteko bideak .....	1351
31.4.3.9. Ardatzaren nolakotasuna .....	1354
31.4.3.10. Erlatibatzea gertatzen den perpausak zer motatakoak izan daitezkeen .....	1355
31.4.3.11. Perpaus erlatiboen metatzea .....	1355
31.4.3.12. Perpaus erlatibo subjektiboak (-lako) .....	1356
31.4.3.13. Izen ardatza isildurik daukaten perpaus erlatiboak .....	1357
31.4.3.14. Perpaus erlatibo arruntak aposizioan .....	1361
31.4.3.15. Ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatibo subjektiboak .....	1363
31.4.4. Zein-erlatiboak. Ezaugarriak .....	1363
31.4.4.1. Menderagailuaren forma .....	1365
31.4.4.2. Izenordain erlatiboaren forma (zein-/zeina- eta non-) .....	1366
31.4.4.3. Izenordain erlatiboak hartzen dituen kasu marka nahiz postposizioak .....	1369
31.4.4.4. Zein-erlatibo konposatu eta konplexuak .....	1372
31.4.4.5. Zein-erlatiboen tokia aurrekariaren eretzera .....	1373
31.4.4.6. Zein-erlatiboen oinarritzko balio semantikoa eta erlatibo moldeen arteko desberdintasunen neutralizazioa .....	1374
31.4.5. Bait-erlatiboak .....	1376
31.4.5.1. Bait-erlatiboen ezaugarriak .....	1376
31.4.5.2. Erresunptiboen forma (agerikoa edo ez-agerikoa) .....	1377
31.4.5.3. Bait-erlatiboetako izen sintagma erlatibatuen kasu markak eta postposizioak .....	1378
31.4.5.4. Bait-erlatibo konplexuak .....	1378
31.4.5.5. Aposizio motak .....	1379
31.4.5.6. Bait-perpausen anbiguotasuna .....	1379
31.4.5.7. Bait-perpaseko izenordain batek aurrekari gisa perpaus bat duenean .....	1380
31.4.6. Korrelazioz eraturiko perpaus erlatiboak .....	1381
31.4.6.1. Korrelaziozko perpausak: aurkezpena .....	1381
31.4.6.2. Korrelaziozko perpausen egitura .....	1381

31.4.6.3. Korrelaziozko perpausen balioa .....	1383
31.4.6.4. Izenordain korrelatu aurrekariaren forma.....	1384
31.4.6.5. Korrelaziozko izenordain anaforikoaren forma.....	1385
31.4.6.6. <i>Ere</i> eta <i>eta</i> korrelaziozko perpaus erlatiboetan.....	1387
31.4.6.7. Korrelaziozko erlatiboak mendeko perpaus bateko osagai	1387
31.4.6.8. Korrelaziozko perpaus erlatiboaren tokia.....	1388
31.4.7. Aurrekaririk gabeko galdera izenordaina duten erlatiboak.....	1389
31.5. Perpaus erlatibo jokaturgabeak .....	1390
31.5.1. Sarrera.....	1390
31.5.2. Perpaus erlatibo jokaturgabe arruntak .....	1391
31.5.2.1. Perpaus erlatibo jokaturgabe arrunten aldaerak .....	1391
31.5.2.2. Zenbait ezaugarri, perpaus erlatibo arrunt guztiei dagoz-	
kienak .....	1394
31.5.2.3. Perpaus erlatibo jokaturgabeen ezaugarri bereziak .....	1397
31.5.3. Korrelaziozko perpaus erlatibo jokaturgabeak .....	1400
31.5.4. Galderazko izenordaina daukaten perpaus erlatibo jokaturgabeak	1401
<b>32. KONPARAZIO PERPAUSAK .....</b>	<b>1407</b>
32.0. Sarrera .....	1408
32.1. Ohiko eredu konparazio perpausak.....	1408
32.1.1. Konparazio perpausen egitekoa eta motak .....	1408
32.1.2. Konparazio egituraren osagaiak .....	1412
32.1.2.1. Konparazio terminoa, gaia eta morfema .....	1412
32.1.2.2. Konparazioaren terminoak .....	1413
32.1.2.3. Konparazio gaia edo ardatza .....	1414
32.1.2.4. Konparazio terminoak osagai bat baino gehiago.....	1416
32.1.2.5. Konparazio morfemak .....	1417
32.1.2.6. Osagaiak isilik .....	1418
32.1.2.7. Juntadurara irekiak .....	1419
32.1.3. Konparazio perpausen egitura sintaktikoa.....	1420
32.1.3.1. Konparazio sintagmak sinpleak edo konplexuak .....	1420
32.1.3.2. Sintagmak isildurik.....	1422
32.1.3.3. Konparazio perpausak beste bat mendean.....	1423
32.1.3.4. Zer isiltzen den .....	1425
32.1.3.5. <i>-n</i> eta <i>-na</i> menderagailuak .....	1427

32.2. Berdintasunezko konparazioa .....	1430
32.2.1. Maila alderatzen duten berdintasunezko perpausak .....	1430
32.2.1.1. <i>Bezain</i> morfema .....	1430
32.2.1.2. <i>Bezain</i> morfemaren ezkerreko osagaia .....	1431
32.2.1.3. Bestelako kasu batzuk .....	1433
32.2.2. Zenbatekoa alderatzen duten berdintasunezko perpausak .....	1436
32.2.2.1. Berdintasunezko morfemak .....	1436
32.2.2.2. Konparazioaren beste xehetasun batzuk .....	1438
32.3. Desberdintasunezko konparazio perpausak .....	1441
32.3.1. Maila alderatzen duten desberdintasunezko perpausak .....	1441
32.3.1.1. Morfema .....	1441
32.3.1.2. Beste konparazio mota batzuk .....	1445
32.3.2. Zenbatekoa alderatzen duten desberdintasunezko perpausak .	1450
32.3.2.1. Morfema eta kokapena .....	1450
32.3.2.2. Zenbatekoa adierazten dutenak .....	1452
32.3.3. Adiera superlatiboko konparazioak .....	1456
32.4. Parekotasunezko konparazio perpausak .....	1457
32.4.1. <i>Bezala/legez</i> morfemekin eginiko parekotasunezko perpausak ...	1457
32.4.2. <i>Bezalako/legezko</i> formekin eginiko parekotasunezko perpausak	1462
32.4.3. <i>Bezala/legez</i> morfemak alderaketaz bestelako erabileretan ....	1464
32.5. Eredu erromanikoko konparazio perpausak. Egitura eta motak .....	1469
32.6. [ <i>Hain ... nola</i> ] gisako alderaketa .....	1471
32.6.1. Alderaketaren osagaiak eta egitura .....	1471
32.6.2. Mailaren alderaketa .....	1472
32.6.3. Zenbatekoaren alderaketa .....	1473
32.7. [ <i>Hainbat ... zenbat</i> ] gisako korrelazioak .....	1474
32.7.1. Mailaren alderaketa .....	1474
32.7.2. Zenbatekoaren alderaketa .....	1475
32.8. Konparazio proportzionala eta progresiboa .....	1476
32.8.1. Konparazio proportzionala .....	1476
32.8.2. Konparazio progresiboa .....	1478
32.9. Parekotasunezko korrelazioak .....	1480
32.10. Egitura superlatiboak eta gehiegizkoa adierazten dutenak .....	1482
32.10.1. Egitura superlatiboak .....	1482
32.10.1.1. Zer alderatzen duten superlatiboek .....	1482

32.10.1.2. Egitura superlatiboa izenarekin eta adjektiboarekin.....	1483
32.10.1.3. Zenbatekoarekin .....	1487
32.10.1.4. Konplementu mugatzailea .....	1489
32.10.2. Gehiegizkoa adierazten duten egiturak.....	1492
<b>33. ONDORIO PERPAUSAK .....</b>	<b>1497</b>
33.1. Ondoriozko perpausen egitekoa.....	1497
33.1.1. Bi gertakari .....	1497
33.1.2. Ondoriozkoak eta kausazkoak .....	1498
33.2. Ondoriozko perpausen egiturak eta morfemak .....	1499
33.2.1. Bi osagaien zeregina .....	1499
33.2.2. <i>-(e)la</i> menderagailua, eta subjuntiboa ere.....	1501
33.3. Ondorio perpaus mendekoak .....	1502
33.4. Ondorio perpaus alboratuak.....	1505
<b>34. BALDINTZAZKO PERPAUSAK .....</b>	<b>1509</b>
34.1. Sarrera .....	1510
34.2. Menderagailuak .....	1511
34.3. Baldintzazko perpausak zer diren .....	1515
34.3.1. <i>Baldintza</i> kontzeptua, definigaitza.....	1515
34.3.2. Baldintza eta kausa .....	1516
34.3.3. Baldintza eta hipotesia .....	1517
34.3.4. Aldiberekotasuna .....	1519
34.3.5. Solas jokoak eta inferentzia bidezko erabilerak .....	1521
34.4. Baldintzazko perpausen nolakotasuna .....	1526
34.5. <i>Ba-</i> aurizkia duten baldintzazko perpausak .....	1530
34.5.1. Menderagailu nagusi bat.....	1530
34.5.2. Alegialdiko baldintzazko perpausak: baldintza irrealak .....	1532
34.5.2.1. Aspektu oposizioak baldintza irrealetan .....	1532
34.5.2.2. Aspektu burutua duten alegialdiko baldintzazko perpausak ( <i>etorri balitz, ekarri balu</i> ) .....	1533
34.5.2.3. Aspektu burutua ez duten baldintzazko perpausak.....	1535
34.5.3. Alegialdia ez dakarten baldintzazko perpausak: baldintza irrealak.....	1540



34.5.4. Laburtuz.....	1545
34.6. <i>Non (eta) ez... -n</i> .....	1546
34.7. <i>-tuz gero</i> .....	1547
34.8. <i>-tu ezik</i> .....	1551
34.9. <i>-tu ezean</i> .....	1553
34.10. <i>-t(z)ekotan/-t(z)ekotz</i> .....	1554
34.11. <i>-t(z)ez gero</i> .....	1557
34.12. <i>-t(z)era(t)</i> .....	1558
34.13. <i>-tuenean</i> .....	1558
34.14. <i>Zer + ADITZOINA + ere (zer (nahi) gerta (ere), zer hel ere)</i> .....	1559
<b>35. DENBORAZKO PERPAUSAK (I)</b> .....	1561
35.1. <i>Sarrera</i> .....	1561
35.2. <i>Perpauasaz besteko osagarri adberbialak</i> .....	1563
35.2.1. <i>Formak eta motak</i> .....	1563
35.2.2. <i>Kokapena adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1566
35.2.3. <i>Aldiberekotasuna adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1569
35.2.4. <i>Aurrekotasuna adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1573
35.2.5. <i>Ondokotasuna adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1578
35.2.6. <i>Bestelako adierazpenak dituzten osagarri adberbialak</i> .....	1582
35.2.7. <i>Iraupena adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1584
35.2.8. <i>Iraupenaren adierazpen kuantitatiboa adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1584
35.2.9. <i>Hasierako muga adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1589
35.2.10. <i>Hondarreko muga adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1591
35.2.11. <i>Bi mugak adierazten dituzten osagarri adberbialak</i> .....	1592
35.2.12. <i>Maiztasuna adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1593
35.2.13. <i>Fasea adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1596
<b>36. DENBORAZKO PERPAUSAK (II)</b> .....	1601
36.1. <i>Oinarrian perpausa duten osagarri adberbialak ('Denborazko perpauasak')</i> .....	1602
36.2. <i>Izaera, formak eta motak</i> .....	1602
36.2.1. <i>Postposizioak eta denboraren adierazpena</i> .....	1603

36.2.2. Egitura hauen ezaugarriak .....	1603
36.2.3. Gertakari bi aipatzen dira .....	1606
36.3. Kokapenezko perpausak: Aldiberekotasuna .....	1609
36.4. Aldiberekotasunaren adierazpen orokorra .....	1610
36.4.1. Aldiberekotasuna adierazten duten morfemak: <i>-nean</i> .....	1610
36.4.2. <i>-nean</i> morfemaren bestelako adiera batzuk .....	1614
36.4.3. <i>-tzean</i> morfema .....	1615
36.4.4. <i>-tzerakoan</i> , <i>-tu(k)eran</i> , <i>-tzearekin</i> eta <i>-larik</i> .....	1616
36.4.5. <i>Noiz ere ... bait-</i> egitura .....	1620
36.5. Aldiberekotasun estua .....	1623
36.5.1. Aldiberekotasuna seinalatzeko zenbait bide: <i>-neko</i> forma .....	1623
36.5.2. <i>-tzerako</i> , <i>...orduko</i> , <i>...batera</i> , <i>bezain laster</i> eta beste batzuk ...	1624
36.5.3. <i>-tu eta berehala</i> gisako formak .....	1626
36.6. Aldiberekotasun zehatza .....	1628
36.6.1. Aldiberekotasun zehatza seinalatzen duten formak .....	1628
36.6.2. <i>-no</i> , <i>... bitartean</i> , <i>-n artean</i> , <i>-tu ahala</i> , <i>-tu arau</i> .....	1629
36.7. Kokapenezko perpausak: aurrekotasuna eta ondokotasuna .....	1633
36.7.1. Aurrekotasuna eta ondokotasuna adierazten duten formak .....	1633
36.7.2. Aurrekotasuna adierazten duten formak .....	1635
36.7.3. Ondokotasuna adierazten duten formak .....	1639
36.8. Iraupeneko gertakarien muga adierazten duten perpausak .....	1645
36.9. Hasierako muga adierazten duten formak .....	1647
36.10. Hondarreko muga adierazten duten formak.....	1649
36.11. Maiztasuna ere adierazten duten kokapenezko perpausak.....	1652
<b>37. HELBURUZKO PERPAUSAK .....</b>	<b>1655</b>
37.1. Sarrera. Zer diren. Harremanak kausalekin eta ondoriozkoekin .....	1655
37.2. Helburuzko perpausak: formak eta motak .....	1660
37.2.1. Formak .....	1660
37.2.2. Motak .....	1663
37.3. Subjuntiboarekin eginiko helburuzko perpausak .....	1664
37.3.1. Subjuntibo soilarekin eginak .....	1664
37.3.2. Subjuntiboa postposizioarekin edo aurretiko partikularekin ...	1667
37.3.3. Helburuzkoen hurbileko subjuntibozko perpausak .....	1675

37.4. - <i>tzeko</i> formarekin eginiko helburuzko perpausak .....	1675
37.4.1. - <i>tzeko</i> soila .....	1675
37.4.2. «- <i>tzeko</i> + postposizioa» egiturako formak .....	1678
37.4.3. Helburua eta ezinbesteko baldintza .....	1680
37.4.4. - <i>tzeko</i> formarekin eginiko helburuzkoen bestelako perpaus mota batzuk .....	1681
37.5. - <i>tzeagatik</i> eta - <i>tzearren</i> formekin eginiko helburuzko perpausak....	1686
37.5.1. - <i>tzeagatik</i> eta - <i>tzearren</i> formak, kausazko eta helburuzko .....	1686
37.5.2. Helburuzko - <i>tzeagatik</i> forma .....	1687
37.5.3. Helburuzko - <i>tzearren</i> forma .....	1688
37.5.4. <i>Esateagatik esan</i> gisako esaldiak .....	1690
37.6. - <i>tze aldera</i> formarekin eginiko helburuzko perpausak .....	1690
37.6.1. Aldaerak eta adierak .....	1690
37.6.2. Erabilera .....	1691
37.6.3. <i>Esate aldera esan</i> gisako esaldiak .....	1692
37.6.4. Trukearen adierazpidea .....	1692
37.6.5. - <i>tze aldera</i> , helburuzkoen bestelakoetan: <i>zertarako-</i> eta <i>zerta-</i> <i>ra-osagarri</i> .....	1693
37.7. - <i>tzera</i> formako osagarriak eta helburuzko perpausak .....	1693
<b>38. KAUSAZKO PERPAUSAK .....</b>	<b>1697</b>
38.1. Sarrera: kausa, ondorioa, helburua .....	1697
38.1.1. Kausa-ondorioaren adierazpenak .....	1697
38.1.2. Kausazko perpausak eta helburuzkoak .....	1698
38.1.3. Kausa adierazten duten egiturak eta hura iradokitzen dutenak	1699
38.1.4. Kausa adierazten duten formak .....	1700
38.2. Kausazko perpausak: motak eta formak .....	1703
38.2.1. Predikatuaren barneko osagai direnak, kausalak .....	1703
38.2.2. Predikatuaren kanpoko osagai direnak, azalpenezkoak .....	1704
38.2.3. Kausalak eta azalpenezkoak .....	1708
38.2.4. Formak .....	1708
38.3. - <i>lako(tz)</i> , kausala .....	1710
38.4. - <i>tzeagatik</i> eta - <i>tzearren</i> , kausalak .....	1716
38.5. <i>Bait-</i> , kausala eta azalpenezkoa .....	1720
38.6. <i>Zeren...-n</i> eta <i>zeren...bait-</i> , kausalak eta azalpenezkoak .....	1724

38.7. -eta enklitikoa, azalpenezkoa.....	1731
38.8. -nez gero, azalpenezkoa .....	1736
38.9. Nola... {bait-; -n}, zelan...-n azalpenezkoak .....	1739
<b>39. KONTZESIO PERPAUSAK .....</b>	<b>1741</b>
39.1. Sarrera .....	1742
39.1.1. Kontzesio perpausak zer diren.....	1742
39.1.2. Bestelako egitura batzuekiko antzekotasuna .....	1746
39.1.3. Aurkaritzako diskurtso markatzaileak eta kontzesio perpausak	1746
39.1.4. Aurkaritzako juntadura .....	1748
39.1.5. Beste egitura hurbileko batzuk .....	1750
39.1.5.1. Baldintza perpausak .....	1750
39.1.5.2. Beste zenbait adberbio perpaus (-ela(rik), -tuta, -turik...).	1751
39.2. Kontzesio perpausen ezaugarriak .....	1752
39.2.1. Kontzesiozko egituretako menderagailuen inbentarioa eta adibideak.....	1753
39.2.2. Kontzesio perpausen funtzioa, kokagunea eta barne hurrenkera .	1754
39.2.3. Ere kontzesio perpausetan eta diskurtso markatzaile aurkaritzakoetan .....	1756
39.2.3.1. Ere kontzesio perpausetan .....	1756
39.2.3.2. Ere diskurtso markatzaile aurkaritzakoetan .....	1758
39.2.4. Aurkaritza diskurtso markatzaileak kontzesio perpausen indargarri .....	1759
39.2.5. Aditzaren elipsia .....	1760
39.2.6. Zer aditz motarekin osa daitezkeen kontzesio perpausak.....	1760
39.2.7. Kontzesio gailuen metatzea .....	1761
39.3. Kontzesio egiturak .....	1762
39.3.1. Nahiz markaren bidez eratutako egiturak .....	1763
39.3.2. Arren postposizioaren bidez eratutako egiturak .....	1769
39.3.3. -gatik postposizioaren bidez eratuak .....	1772
39.3.4. Baina enklitikoaren bidez eratuak .....	1775
39.3.5. -tuta ere / -turik ere / -tu gabe ere / -tu ezik ere .....	1779
39.3.6. (Baldin) ba-... ere, -tuz gero ere: baldintzakoetan oinarrituak .....	1781

39.3.7. -ela/-elarik + ere .....	1784
39.3.8. Galdetzailea + ere + bait-/en .....	1788
39.3.9. Banakaritza egiturak .....	1790
39.3.10. Perpaus erlatiboan oinarrituak: datorrena datorrela .....	1792
39.3.11. Edo-galdetzailea/galdetzailea-nahi + -ela/-en/-elarik + (ere)	1794
39.3.12. Kontzesioa adieraz dezaketen beste zenbait egitura .....	1796
39.3.12.1. Ez delakoan ere / Ez idurian ere .....	1797
39.3.12.2. Bait- .....	1798
39.3.12.3. -eta .....	1799
39.3.12.4. -ela(rik) .....	1800
39.3.12.5. -elako .....	1800
<b>40. MODUZKO PERPAUSAK .....</b>	<b>1801</b>
40.1. Sarrera .....	1801
40.2. Modua eta beste nozio batzuk .....	1803
40.3. Barneko eta kanpoko moduzkoak .....	1807
40.4. Barneko moduzko perpausak .....	1808
40.4.1. Adjuntu funtzioa dutenak .....	1808
40.4.2. Erabilera predikatiboa dutenak .....	1808
40.5. Kanpoko moduzko perpausak .....	1816
40.6. Menderagailuak eta osaera .....	1819
40.7. -turik eta -tuta .....	1822
40.7.1. -turik .....	1822
40.7.2. -tuta .....	1824
40.8. -tua(k) .....	1825
40.9. -tuz (-tuaz) .....	1828
40.10. -tu + postposizioa .....	1834
40.11. Aditz izena oinarri dutenak .....	1841
40.12. Aditzoina oinarri dutenak .....	1844
40.13. -ela eta -elarik .....	1845
40.14. -en moduan, -en eran, -en arau, -en gisa, -en antz, -en molde .....	1849
40.15. Konparaziozkoak (-en bezala / -en legez) .....	1851
40.16. Galdetzaile batekin hornituriko mendeko perpausak .....	1852
40.17. -enez .....	1853

<b>41. HITZ ORDENA: INFORMAZIO EGITURA .....</b>	<b>1855</b>
41.1. Sintagma barneko hitz ordena eta perpaus barneko hitz ordena.....	1855
41.2. Ordena neutroa (kanonikoa) / ordena markatua .....	1859
41.3. Ordena kanonikoa eta testu-generoak.....	1863
41.4. Ordena markatua: Galdegaia .....	1867
41.4.1. Perpauseko informazio berria .....	1867
41.4.2. Galdegaia nola nabarmendu .....	1871
41.4.3. Kokagunea .....	1874
41.4.4. Galdegai gehitua .....	1881
41.5. Periferia guneak. Mintzagaia: mintzagai aurreratua / mintzagai atzeratua .....	1882
41.5.1. Mintzagai motak .....	1882
41.5.2. Mintzagai isildua .....	1884
41.5.3. Mintzagai aurreratua.....	1884
41.5.4. Bi mintzagai kontraste bidez emanak .....	1888
41.5.5. Mintzagai atzeratua.....	1888
41.5.6. Erdiko mintzagaia.....	1889
41.6. Laburbilduz .....	1890

Eranskina

**DISKURTSO MAILAKO LOTURAK**

<b>42. DISKURTSO MARKATZAILEAK (I): DM MOTAK .....</b>	<b>1895</b>
42.1. Perpausak ez dira uharteak: testu batean josiak agertzen dira .....	1896
42.2. Hizketa, hizkuntza, perpausa eta esaldia .....	1897
42.3. Perpausa, gramatikaren lehengai.....	1900
42.4. Juntagailuak eta menderagailuak .....	1904
42.5. Juntadura eta menderakuntzaren arteko bereizketa .....	1909
42.6. Juntaduraren egitekoa .....	1911
42.7. Alboratze hutsezko juntadura.....	1911
42.8. Perpausen arteko harremanak .....	1913
42.9. Diskurtso markatzaileak (DMak) eta lokailuak .....	1920
42.10. Diskurtso markatzaileen (DMen) sailkapena.....	1922
42.11. DM: Informazioaren egituratzaileak.....	1922

42.12. DM: Lokailuak.....	1923
42.13. DM: Birformulatzailak.....	1924
42.14. DM: Argumentu operadoreak .....	1925
42.15. DM: Elkarrizketa markatzaileak .....	1925
42.16. Diskurtso markatzaileen kokalekua perpausean .....	1926
42.17. DMen eta juntagailuen arteko harremanak eta bereizkuntzak .....	1927
42.18. Diskurtso markatzaileak: laburbilduz .....	1930
42.19. Emendiozkoak .....	1932
42.19.1. Sarrera.....	1932
42.19.2. <i>Ere</i> .....	1934
42.19.3. <i>Gainera</i> .....	1945
42.19.4. <i>Bestalde/bertzalde</i> .....	1947
42.19.5. <i>Halaber (orobat, berebat)</i> .....	1949
42.19.6. <i>Behintzat (eta segurik)</i> .....	1954
42.19.7. <i>Bederen, bederik, behinik behin</i> .....	1961
42.19.8. <i>Badere</i> .....	1962
42.19.9. <i>Badarik (ere)</i> .....	1963
42.20. Hautakariak .....	1964
42.20.1. Sarrera.....	1964
42.20.2. <i>Bestela/Bertzenaz</i> .....	1965
42.20.3. <i>Osterantzean</i> .....	1969
42.20.4. <i>Gainerantzean</i> .....	1969
42.20.5. <i>Ezpere(n) eta ezpabere</i> .....	1972
42.21. Aurkaritzakoak.....	1974
42.21.1. Zer diren aurkaritzako diskurtso markatzaileak .....	1974
42.21.2. <i>Ordea</i> .....	1976
42.21.3. <i>Berriz</i> .....	1979
42.21.4. <i>Ostera</i> .....	1983
42.21.5. <i>Aldiz</i> .....	1984
42.21.6. <i>Aitzitik</i> .....	1986
42.21.7. <i>Bizkitartean, bitartean, bien bitartean, artean</i> .....	1988
42.21.8. <i>Alta, alabaina, alabadere</i> .....	1990
42.21.9. <i>Dena dela, dena den</i> .....	1993
42.21.10. <i>Hala ere, hala eta guztiz ere</i> .....	1993
42.21.11. <i>Haatik/hargatik, horratik/horregatik</i> .....	1993

42.21.12. <i>Barren</i> .....	1997
42.21.13. <i>Badarik ere</i> .....	1997
42.21.14. Aurkaritza adierazten duten esapideak .....	1998
42.22. Ondoriozkoak .....	1998
42.22.1. <i>Sarrera</i> .....	1998
42.22.2. <i>Beraz eta Bada</i> kide .....	1999
42.22.3. <i>Hortaz</i> .....	2015
42.22.4. <i>Orduan</i> .....	2016
42.22.5. <i>Honenbestez, Horrenbestez, Hainbestez</i> .....	2018
42.22.6. <i>Halatan, Hala</i> .....	2019
42.23. Kausazkoak .....	2020
42.23.1. <i>Sarrera</i> .....	2020
42.23.2. <i>Zeren</i> .....	2021
42.23.3. <i>Zergatik</i> .....	2024
42.23.4. <i>Alabaina</i> .....	2026
42.23.5. <i>Bada</i> .....	2028
42.23.6. <i>Izan ere</i> .....	2032
<b>43. DISKURTSO MARKATZAILEAK (II): BIRFORMULATZAI- LEAK</b> .....	2035
43.1. <i>Testuingurua</i> .....	2036
43.2. <i>Metodologia: EUDIMA corpusa</i> .....	2038
43.3. <i>Birformulatzaiak: aztergaiak</i> .....	2040
43.4. <i>Diskurtso markatzaileak eta birformulatzaiak</i> .....	2043
43.5. <i>Birformulazioa eta birformulatzaiak</i> .....	2046
43.6. <i>Euskarazko birformulatzaielen sailkapena</i> .....	2052
43.7. <i>Birformulatzaiak esplikati bo nagusiak</i> .....	2054
43.7.1. <i>Birformulatzaiak esplikati boen balio oinarrikoa: azalpena</i> ....	2055
43.7.2. <i>Birformulatzaiak esplikati boen balio nagusiak</i> .....	2056
43.7.2.1. <i>Erreferentziako birformulazioa</i> .....	2056
43.7.2.2. <i>Azalpeneko birformulazioa</i> .....	2057
43.7.2.3. <i>Definiziozko birformulazioa</i> .....	2058
43.7.2.4. <i>Izendapenezko birformulazioa</i> .....	2058
43.7.2.5. <i>Inferentziako birformulazioa</i> .....	2059
43.7.2.6. <i>Laburpen taula</i> .....	2060



43.7.3. Birformulazio parafrastikoa.....	2061
43.7.4. Birformulazio partziala eta erabatekoa.....	2061
43.7.5. Sintaxia .....	2063
43.7.6. Birformulatzailen kokagunea.....	2066
43.7.7. Puntuazioa birformulazioan.....	2067
43.7.8. Baliokidetzak birformulatzailleetan.....	2070
43.7.9. Tradizioa, testu mota, erregistroa... ..	2071
43.8. Birformulazio zehaztaileak .....	2071
43.8.1. Birformulatzaille zehaztaileen funtzio aniztasuna.....	2072
43.8.2. Balioak.....	2074
43.8.3. Birformulatzaille zehaztaileen kokagunea.....	2077
43.8.4. Birformulakizunen sintaxia .....	2077
43.8.5. Puntuazioa .....	2078
43.8.6. Tradizioa, testu mota, erregistroa... ..	2078
43.9. Birformulatzaille laburbiltzaileak .....	2079
43.9.1. Birformulatzaille laburbiltzaile hutsak: balioak, kokagunea, sintaxia.....	2080
43.9.2. Birformulatzaille berraztertzaileak .....	2084
43.10. Birformulatzaille urruntzaileak.....	2087
43.10.1. <i>Dena dela, dena den</i> .....	2090
43.10.2. <i>Edonola ere (edozein ere)</i> .....	2093
43.10.3. <i>Edozein kasutan (ere)</i> .....	2094
43.10.4. <i>Edozein modutan (ere)</i> .....	2096
43.10.5. <i>Hala ere</i> esapidearen bi balioak.....	2097
43.10.6. <i>Hala eta guztiz ere</i> esapidearen bi balioak .....	2100
43.10.7. Birformulatzaille urruntzaileak: kokagunea, sintaxia, puntuazioa.....	2101
43.11. Birformulatzaille zuzentzaileak: ( <i>edo</i> ) <i>hobeto/hobeki, are hobeto/hobeki, barkatu, hobeto esanda</i> .....	2102
43.11.1. ( <i>edo</i> ) <i>hobeto/hobeki</i> .....	2103
43.11.2. <i>Are hobeto/hobeki</i> .....	2106
43.11.3. <i>Barkatu, barka</i> .....	2106
43.11.4. <i>Bestela esanda</i> .....	2108
43.11.5. <i>Egia esan (egia esanda...)</i> .....	2109
43.11.6. <i>Hobeto/hobeki esan</i> .....	2110
43.11.7. <i>Zer diot?</i> .....	2111

<b>ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>2113</b>
1. Iturriak .....	2113
1.1. Adibideen iturriak .....	2114
1.2. Sareko baliabideak: corpusak eta hiztegiak .....	2133
1.2.1. Laburdurak .....	2133
1.2.2. Corpusak .....	2134
1.2.3. Hiztegiak .....	2134
2. Bibliografia orokorra .....	2135
2.1. Laburdurak .....	2135
2.2. Bibliografia .....	2137
<b>GAI AURKIBIDEA .....</b>	<b>2181</b>

## Laburdura orokorrak

abs.	=	absolutiboa
ad.	=	aditza
AdbS	=	adberbio sintagma
adib.	=	adibidez
adj.	=	adjektiboa
AdjS	=	adjektibo sintagma
adlat.	=	adlatiboa
anim.	=	animatua
art.	=	artikulua
AS	=	aditz sintagma
bizk.	=	bizkaiera
cf.	=	<i>confer</i>
dat.	=	datiboa
DM	=	diskurtso markatzailea
DS	=	determinatzaile sintagma
e.h.	=	eta hurrengoak
erakus.	=	erakuslea
erg.	=	ergatiboa
etab.	=	eta abar
fr.	=	frantsesa
galdeg.	=	galdegaia
gazt.	=	gaztelania

gen.	=	genitiboa
gip.	=	gipuzkera
Hego.	=	Hegoaldea
HelP	=	helburuzko perpausa
hur.	=	hurrengoak
ines.	=	inesiboa
InflS	=	inflexio sintagma
ing.	=	ingelesa
instr.	=	instrumentala
Ipar.	=	Iparraldea
IS	=	izen sintagma
it.	=	italiera
iz.	=	izena
izond.	=	izenondoa
izord.	=	izenordaina
KK	=	kuantifikatzaile konparatiboa
KonpS	=	konplementazio sintagma
konts.	=	kontsonantea
lat.	=	latina
MaS	=	maila sintagma
mintz.	=	mintzagaia
mug.	=	mugatua
obj.	=	objektua
perts.	=	pertsona
pl.	=	plurala
Pm	=	mendeko perpausa
PNom	=	perpau nominalizatua
prop.	=	propioa
PS	=	postposizio sintagma
sing.	=	singularra
soziat.	=	soziatiboa
subj.	=	subjektua
ZenbS	=	zenbatzaile sintagma

## Zeinuak

- § Kapitulu baten atala edo azpiatala adierazten du.
- # Zeinu hau daraman adibidea berez gramatikala da, baina testuinguru horretan ez da egokia.
- \* Zeinu hau daraman adibidea ez da gramatikala.
- ? Zeinu hau daraman adibidearen gramatikaltasuna zalantzazkoa da.
- Ø Gramatika osagai isildua edo hutsa.
- [...] Aipu batean idatzi gabe utzi den testu zatia.
- { } Zeinuaren barruan ageri diren osagaietatik bat aukeratu behar dela adierazten du.
- ( ) Informazio tartekia ez denean, parentesi barrukoa aukerakoa dela adierazten du.
- ~ Neurri batean bederen pareko direla, edo ezaugarri partekatuak dituzten osagaiak direla adierazten du.
- / Morfemen eta bestelako gramatika unitateen aldaerak bereizten ditu.
- // Serie batzuen artean bereizten du, arruntagoa den koma edo bestelako puntuazio markaren bat ilun samar geratzen denean.
- ≠ Morfemen eta bestelako gramatika unitateen ezberdintasuna adierazten du.
- = Morfemen eta bestelako gramatika unitateen baliokidetasuna adierazten du.
- Implikazioak edo inferentziak markatzen ditu.



1. partea

**SARRERA**

---





# 1. Euskararen bereizgarri orokorrak

---

- 1.1. Euskara, ahaiderik gabeko hizkuntza
  - 1.2. Euskara SOV hurrenkerako hizkuntza da
  - 1.3. Euskara hizkuntza eranskaria da
  - 1.4. Sintagmek burua azkenean dute
  - 1.5. Euskara hizkuntza ergatiboa da
  - 1.6. Aditz komunztadura
  - 1.7. Euskara *pro-drop* hizkuntza da
  - 1.8. Aditz laguntzailearen txandakatzea
  - 1.9. Euskararen ezaugarrien laburpena
- 

## 1.1. Euskara, ahaiderik gabeko hizkuntza

**1.1a** Euskarak dituen funtsezko ezaugarri batzuei buruzko informazioa ematen da atal honetan. Zertan den bereiz euskara, hori da kapitulu honek azaldu nahi duena. Jakina denez, euskarak ez du ahaiderik hizkuntzen artean. Egoera hau, euskararen bakartze hau esan nahi dugu, aski berezia da, baina ez da euskararekin bakarrik gertatzen, bai baitira munduan beste zenbait hizkuntza, euskara bezain isolatu ageri direnak, familiarik gabeak. European ere suomiera (finlandiera), hungariera eta Kaukaso aldeko hizkuntzak ere ez dira indoeuroparrak, adibide batzuk emateagatik. Arruntean munduko hizkuntzak familia-ka sailkatzen dira, taldeka. Hizkuntzen arteko erlazioen berri dokumentu historikoek, konparazio sistemek, zeharkako datuek... ematen dute, eta horietaz

baliatzen dira filologoak erlazio eta harreman horiei buruzkoak azaltzeko orduan. Hala, hizkuntza erromanikoak, adibidez, latinetik sortu direla esaten dugu. Horregatik deitzen ditugu latin hizkuntzak ere. Bada lekukotasun asko testuetan hori hala gertatu dela baieztatzeko.

**1.1b** Europako hizkuntza gehienak hizkuntza *indoeuroparraren* ondokoak dira, aski da hizkuntzen mapa batean ikustea (Comrie 1987; Clackson 2007; Haarmann 2011; Reissmann & Argador 2006). Multzo handi horretatik bereiz gelditzen dira, hizkuntza indoeuroparrek inguraturik uharte batzuen antzera, beste hizkuntza zenbait, nahiz kasu batzuetan hizkuntza-familia horien arteko osaera eta mugak zehaztea ez den batere lan erraza eta garbia. Eztabaida handiak daude hizkuntzalarien artean. Esan dezagun, zernahi gisaz, familia indoeuroparretik kanpo gelditzen direla euskara, hungariera, hizkuntza altaikoak (hizkuntza mongolikoak, turkiera...) eta uralikoak (finlandiera-suomiera eta abar). Europaz bakarrik ari gara, noski. Gainerakoak, Europa osoan hedatuak direnak, jatorri indoeuroparrekoak dira: latin hizkuntzak (espainiera, frantsesa, italiara...); germaniarrak (alemana, ingelesa, suediera, daniera...); zeltikoak (bretoiera, gaelikoa...); baltikoak (estoniera, lituaniera...); greziera eta albaniera.

## **1.2. Euskara SOV hurrenkerako hizkuntza da**

**1.2a** Baditu euskararen gramatikak zenbait bereizgarri nabarmen. Asko dira eta askotarikoak, ikuspuntua nolakoa hartzen dugun, baina badira bereizgarri batzuk guztietatik bereziki gogoan hartzekoak. Lehenik eta behin, euskararen hitz hurrenkera ez-markatua Subjektua-Objektua-Aditza (SOV) da (ikus 41. kapitulua). Egia da euskaraz *Gazte horrek auto berria erosi du* esaten badugu, perpaus horretan ageri diren hitzek beste hurrenkera asko onartzen dituztela: *Auto berria erosi du gazte horrek* (OVS); *Gazte horrek erosi du auto berria* (SVO); *Erosi du gazte horrek auto berria* (VSO) eta beste hainbat. Lehenbiziko hurrenkera bezain egokiak dira guztiak euskaraz, testuingurua nolakoa den eta zer adierazi nahi den. Gauza bera gertatzen da zeharkako osagarria sartu nahi izanez gero: *Aitak amari gona gorria ekarri dio*, adibide klasiko bat ekar-

tzeko hona. Hori bezain euskara da *Amari ekarri dio aitak gona gorria* edo *Gona gorria ekarri dio aitak amari*, eta horien antzeko beste zenbait hurrenkera ere (Goenaga 1978).

**1.2b** Hala ere, lehenbiziko hurrenkera (*Gazte horrek auto berria erosi du*) naturalago sentitzen du hiztunak. Ez da kontua bigarrena (*Auto berria erosi du gazte horrek*), adibidez, ezin dela erabili, arazorik gabe erabiltzen ahal baita. Badirudi, ordea, bigarren hurrenkera horretan zerbait bereziagoa adierazi nahi dugula, zerbait markatuagoa. Ez gara zerbait neutroa kontatzen ari (*zer gertatu da gaur?*), baizik galdera bereziago bati erantzuten (*zer erosi du gazte horrek?*). Bigarren hurrenkera horrek badu bere gainean lehenbizikoak ez duen informazio gehigarri bat. Lehenbizikoarena, SOV, hurrenkera ez-markatua dela esaten dugu. Egia da hemen perpaus sinpleez ari garela, eta gauzak ez direla hain garbi perpausak luzatu eta mendeko perpausak ere erabiltzen ditugunean: *Hemen dauden guztiak Jaunak ez duela ezpatarik ez lantzarik behar gu salbatzeko jakingo dute* esaldia baino naturalago erabiltzen dugu *Hemen dauden guztiak jakingo dute Jaunak ez duela ezpatarik ez lantzarik behar gu salbatzeko* esaldia (J. A. Mujika), osagarri luzea aditzaren eskuinaldera eramanez.

**1.2c** Ikus dezagun beste perpaus hau: *Zuk gizonari sagarra kendu diozu*. Hori ere, aurrekoan bezala, modurik neutroenean eman dugu, nahiz bestelako hurrenkera asko onartzen dituen, denak gramatikalak, aldi bakoitzean dagokien erara molda daitezkeenak. Perpaus hori beste baten barnean txerta dezakegu, perpaus erlatibo baten barnean, esaterako. Orduan *Zuk sagarra kendu diozun gizona gure osaba da* bezalako zerbait esan dezakegu. Baina hor ez da hain erraza bururatzen zaizkigun hurrenkera guztiak erabiltzea. Ezin dugu esan, adibidez, *\*Zuk kendu diozun sagarra gizona gure osaba da*. Perpaus erlatiboetako sintagmak ezin ditugu nolana jarri, eta hurrenkera batzuk bakarrik onartzen dituzte, ez besteak. Perpaus horretan, esate baterako, aditzak amaieran joan behar du: *[[Zuk \_\_ sagarra kendu diozun] gizona] gure osaba da*.

**1.2d** Zenbait argudio bide erabili izan dituzte gramatikariek (Gramatika Batzordea 1987a, EGLU-I) euskara SOV hurrenkerako hizkuntza dela erakusteko: “naturaltasuna”, hurrenkera ez askea mendeko perpaus batzuetan —azken

adibidea bezalakoetan—, hurrenkeraren estatistikak<sup>1</sup>, ordena bateko edo beste perpausen prozesamendua burmuinean<sup>2</sup> eta abar. Euskara SOV dela baieztatzen badugu ere, ez ditugu, esan bezala, beste hurrenkerak baztertzeko, euskarak, inguruko hizkuntzekin erkatuz gero, aise askatasun handiagoa baitu perpaus barneko hitzak (azken batean, osagaiak) ordenatzeko. Hau esan nahi dugu: hurrenkera posible anitz izanik ere, badira argudio bideak baieztatzeko horietako bat oinarrizkoagoa dela besteak baino. Hurrenkera horretan perpausak subjektuarekin hasten ditugu eta tartean osagai gramatikalak sarturik, aditza amaierara eramaten dugu<sup>3</sup>.

### 1.3. Euskara hizkuntza eranskaria da

**1.3a** Hizkuntzak era askotakoak dira, baina tipologoen hizkuntza *bakartzaileak*, *malgukariak* eta *eranskariak* bereizten dituzte, haien arteko bereizketak egitea anitzetan aski zaila baldin bada ere. Hizkuntza *bakartzaileak* (txinera estandarra, vietnamera, hizkuntza austronesioak eta abar) joera dute forma bakarreko hitzak erabiltzeko, eta ez dute, horregatik, hitz eratorpen edo elkarketa prozesu asko erabiltzen. Beste hizkuntza batzuk *malgukariak* dira. Latina

---

<sup>1</sup> Estatistiken kontua eztabaidatua izan da. Gai honetaz, besteak beste, Rudolf de Rijk (1969) mintzatu da. Bittor Hidalgok (1994) zalantzan jarri ditu Rudolf de Rijken emaitzak. Geroago K. Erdociak (2006a: 65) erakutsi du bere tesian Hidalgo ez zebilela zuzen, batez ere O kategoria objektu zuzenari deitzen baitzaio eta ez, Hidalgok egiten duen gisan, aditzaren ondotik datorren edozein osagai sintaktikori. Horrek aldatzen ditu emaitza estatistiko guztiak. L. Pastor eta I. Laka (2013) ere mintzatu dira gai honetaz. Nolanahi ere, gaurko testuetan, egitura sinpleenetan bederen, *Andreak gizona ikusi du* (SOV) bezalako esaldiak hamar aldiz gehiago ageri dira *Gizona andreak ikusi du* (OSV) baino, eta hiru aldiz gehiago *Andreak ikusi du gizona* (SVO) baino, EHUKo Euskara Institutuak egin dituen azterketen arabera (<http://corsyntax.ametza.com/cas>).

<sup>2</sup> Hemen honako lan hauek aipa daitezke: Erdocia et al. 2009; Laka et al. 2009; Laka & Erdocia 2012; Laka et al. 2012; Laka 2012 eta Erdocia et al. 2012.

<sup>3</sup> Altubek (1930) eragin handia izan du, eta haren arauak zurrunegi ezarri izan dira askotan. Euskal hitzen hurrenkera, batez ere perpaus luze eta elkartuetan, ez dator bat askotan perpaus bakunetako hurrenkerarekin.

da hor kasu argia. Izenekin, adibidez, hau gertatzen da: *dominus, domini, dominorum*... Ikusten denez, izenaren oinarritzko erroak deklinabideko kasuen markak hartzen ditu, izenaren itxura aldatzen dutenak: *dominus* da nominati-boa, baina gero *domini* ageri da, edo *domino*, eta gainerako kasu guztiak, nahiz *domin-* horrek ez duen berezko izaerarik hiztegian hitz laxo gisan (ikus § 1.3f). Hizkuntza horiek dute benetako deklinabidea. Beste hizkuntza batzuk, euskara tarteko, *eranskariak* dira: hizkiak (artikulua, pluralgilea eta abar) gaineratzen zaizkio hiztegiko hitzari (*adiskide-a*), eta azkenean postposizioak eransten zaizkio aurreko sintagmari (*adiskidea-rentzat*). Latinez ez bezala, hizkuntza hauek hiztegiko hitz bat hartzen dute oinarri, bere osotasunean, eta hitzaren itxura aldatu gabe, kasu markak nahiz postposizioak eransten dizkio- te sintagmaren amaierako hitzari: *adiskidea, adiskidearen, adiskidearentzat* eta abar. Izenekin, adjektiboekin eta izenordainekin gertatzen da hori.

**1.3b** Gaztelaniak eta frantsesak preposizioak dituzte. Euskara, berriz, esan dugun bezala, eranskaria eta postposizioduna da. Postposizioak izenaren ondoren idazten ditugu, izenarekin (edo dagokion sintagmarekin) elkaturik. Gaztelaniaz edo frantsesez elementu horiek guztiak aurretik jartzen ditugu, bereiz idatziak: *mujer, la mujer, de la mujer, con la mujer; femme, la femme, de la femme, avec la femme*. Euskarak erabiltzen dituen elementuak balioki- deak dira, baina eskuinaldean kokatzen ditugu eta, gainera, itsatsiak. Hurrenkera hori da euskara inguruko hizkuntzetatik bereizten duen ezauga- rrietako bat.

**1.3c** Erantsitako postposizio horiek itsatsiak ditugu batzuetan: *Jonekin, mendi- tik, lurrean, zuretzat, Ainhoari, Izarorengan* eta abar. Beste batzuetan, ordea, postposizioak bereiz jartzen ditugu, askeak dira: *maldan behera, zure ordez, etxe aurrean, lanari buruz, gizona baitan, goitik behera* eta abar (ikus “Postposizio itsatsiak” § 19.2, “Postposizio askeak” § 19.3). Ohart gaitezen postposizio aske horiek arau zehatz batzuen agindupean eratzen ditugula. Batetik, postposizioari berari behatzen badiogu, horietako askok *-ko* genitiboaren marka har dezakete: *maldan beherako, zure ordezko, etxe aurreko, lanari buruzko, goitik beherako*. Beste zenbaitetan, beste kasu marka batzuk ere har ditzakete: *etxe aurretik, etxe aurrean, gizona baitatik*... Badirudi horietan toki markak erants daitezkeela ara-

zorik gabe. Ez, ordea, beste batzuetan: \**lanari burutik*. Hortaz, esan daiteke postposizioak direla hor *behe, orde, aurre, baita...* eta postposizio aske horiek beste postposizio itsatsi batzuk har ditzaketela. Hori batetik.

Bestetik, postposizio bakoitzak aurreko sintagma gobernatzen du: *maldan behera*, baina ez \**maldako behera*. Beste hitz batzuetan esateko, postposizioak agintzen du nolako markak hartu behar dituen aurreko sintagmak: *behera* postposizioak inesiboa (-n) eskatzen du: *maldan behera*. Baina postposizio horren barneko egiturari behatuz gero, berehala ohartzen gara hor *behe* izena dagoela -*ra* kasu marka harturik. Gauza bera gertatzen da *etxe ondoan* bezalako sintagmetan: hor *ondo* izenak hartzen du inesiboaren marka (§ 1.3e).

Postposizio asko izenak dira jatorriz, baina erabilera horretan guztiz adberbializatu direla esan daiteke. Horregatik diogu postposizioak berak markak har ditzakeela, eta aldi berean aurreko sintagmak hartu behar dituenak zein diren agintzen duela. Hau guztia 19. kapituluaz azaltzen da. Batzuetan sintagma soilak eskatzen du, hutsean: *erreka alboan, herri barruan*. Edo absolutiboa: *hirurak inguruan, ordu bata arte*. Aski arrunta da genitiboa eskatzea: *gure aitzi-nean*. Edo datiboa: *lanari buruz*. Ablatiboa ere, edo inesiboa: *eskolatik at; maldan goiti*. Instrumentala da batzuek nahi dutena: *honetaz gain; elizaz landa*. Beste zenbaitetan, partizipioa eskatzen du postposizioak, edo aditzoina: *etorri artean; ekarri beharrean; ebats arau*. Adjektibo sintagma ere eska dezake: *makal antzean*. Edo zenbatzaile sintagma: *bi ordu barru*.

**1.3d** Euskal gramatiketan, eta EGLUn ere, *euskal deklinabideaz* hitz egin izan da. Horrela, *deklinabideko* kasuak aipatzen dira. Gramatika honetan, hala ere, ez dugu hitz hori erabiliko, ez baita egokia, gure ustez, euskararen kasuan termino horretaz baliatzea. Azken batean, nola gaztelaniak edo frantsesak preposizioak dituzten, dagokien izenaren aurrean jartzen direnak, euskarak preposizioak izan beharrean postposizioak dituela esatearekin aski da, kasu markak ere, azken buruan, postposizioak baitira: *Juan vive con Antonio; Jean habite avec Antoine; Andonirekin bizi da*.

**1.3e** Badira bestelako desberdintasunak, nolana ere, preposizioen eta postposizioen artean, ez bakarrik tokiari dagozkionak. Preposizioek badute nola-

baiteko askatasun puntu bat, euskal postposizioekin gertatzen ez dena. Hori dela eta, euskal postposizioak lotuago daude aurreko izen sintagmarekin, preposizioak beren izen sintagmekin baino. Juntaduretan ikusten da hori, esaterako: gaztelaniaz ez da arazorik *lo hago por y para ti*, adibidez, esateko. Baina euskaraz ez da gramatikala horren parekoa: \**Zuretzat eta gatik egiten dut* (*Zuretzat eta zuregatik egiten dut*).

Idazkeran ere islatzen da gauza bera: preposizioak bereiz idatzirik ageri dira (*a casa, à la montagne, to the mountain*). Euskal postposizio asko, ordea, itsatsiak deitzen ditugunak, izenarekin<sup>4</sup> elkarturik ematen dira: *mendira* (§ 19.2).

Beste batzuk postposizio askeak dira, eta bereiz idazten ditugu (*mendi ondoan*). Azken kasu horretan postposizio askea den *ondo* horrek beste postposizio atxiki bat (-n) hartzen du<sup>5</sup> (§ 19.3).

**1.3f** Beste desberdintasun bat kasu marka hartzen duen oinarriari dagokio. Hala, deklinabidea duten hizkuntzetan, latinez, adibidez, izenaren oinarria da erroa (*domin-us, domin-i...*), ez izena bere osotasunean (*domin* ez da izena). Euskaraz, ordea, izena bera (edo adjektiboa, izenordaina...), oso-osoa, hartzen da oinarri, eta hari gaineratzen zaizkio determinatzailea eta postposizioak (*jaun-arekin, jaun-ari*).

Sintagma preposizionaletan, izenak eta adjektiboak hartzen dituzte genero eta numero markak (*con los chicos pequeños avec les petits enfants*). Baina ez da holakorik gertatzen euskaraz, sintagma osoak hartzen baititu marka horiek: *ume txikiekin / \*umeekin txikiekin*.

---

<sup>4</sup> Edo determinatzaile sintagmarekin, geroago ikusiko den gisan.

<sup>5</sup> *Ondo* postposiziotzat hartu behar den edo ez zalantzak izan daitezke. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* iz. kategoriarekin ageri da, bigarren adieran (*mahai* edo *itxaropen* bezala). Hala ere, ez da gainerako izenak bezalakoa. Baina *Egungo Euskararen Hiztegi*ko (EEHko) adibideak ikusten baditugu berehala ohartuko gara gaur ez dela izen moduan erabiltzen. Bada “izen” multzo bat (*ondoan, aurrean, atzean, gainean, azpian...*) tokia (batzuetan denbora ere) adierazten dutenak eta -n, -ra, -tik postposizioekin erabiltzen dira ia beti. Horregatik erabaki dugu postposiziotzat hartzea.

Egiazko deklinabidea duten sintagmetan izenak eta adjektiboak deklinatzen dira (*filio bono*). Euskaraz, ordea, holakoetan adjektiboak bakarrik hartzen du determinatzailea eta postposizioa (*seme onari*).

**1.3g** Latinak bost deklinabide ditu, hau da, kasu bakoitzeko bost marka desberdin, hitzaren arabera (*rosa, rosae...*; *dominus, domini; rex, regis...*), baina euskarak postposizio bakarra du kasu bakoitzeko (*-ekin*).

**1.3h** Arrazoi horiengatik guztiengatik diogu ez dagoela deklinabiderik euskaraz. Baina deklinabiderik ez bada, horrek esan nahi du kasurik ere ez dela? Ez nahitaez. Euskaraz ez da deklinabiderik, baina badira kasuak gramatika honetan zehar ikusiko dugunez (ikus 18. kapitulua, adibidez). Inguruko hizkuntzetan ere, nahiz deklinabiderik izan ez, genitiboa, zeharkako kasua eta holakoak aipatzen dira. Hemen bertan (§ 1.5a), horrek izenordainetan duen eragina aipatzen da. Beraz, kasuez mintzatuko gara, baina euskaraz kasuak ez dira eratzen deklinabidearen bitartez.

## 1.4. Sintagmek burua azkenean dute

**1.4a** Adibide guztietan ikusten da euskara eranskaria dela: postposizioak eransten zaizkio sintagma osatzen duen azken hitzari (*etxe ederrean, mendi gainean dagoen herrira...*). Postposizioak hautatzen du (“gobernatzen” du) sintagma eskuinaldetik, eta gauza bera gertatzen da postposizio askeekin ere: eskuinetik gobernatzen dute aurreko sintagma (*maldan beheara*) eta, aldi berean, batzuetan postposizio aske horrek berorrek postposizio itsatsiak ere hartzen ahal ditu (*etxe ondotik*).

Hau guztia beste ezaugarri batekin loturik dago. Euskarak sintagmen burua azkenean jartzen duela esaten dugu. Zer esan nahi dugu horrekin? Lehenago aipatu dugu euskara SOV hizkuntza dela (*neskak mutila besarkatu du*), aditza azkenean jartzen duela, alegia, hurrenkera ez markatueta (ikus 41. kapitulua). Aditza da aditz sintagmaren muina. Aditzaren barnean dago —edo aditzarekin lotua, barnean biltzen ez badu ere, hori *sintetikoetan* (trinkoetan) bakarrik gertatzen baita— perpausaren burua (laguntzailea edo, hobeki esan, *inflexioa*



deritzana: § 2.14). Perpausaren azkenean doa aditza, eta berak biltzen du perpausaren gunea. Zehatzago izan nahi badugu: perpausaren gunea edo burua inflexioa da, eta azkenean doan (*egin dute, ikus dezagun...*) inflexio sintagma horrek biltzen du aditz sintagma. Aditz sintagmaren burua aditza da. Ikusten dugu, hortaz, osagai hori amaieran uzten dugula. Ez da hori gertatzen inguruko hizkuntzetan: *lo han hecho; hemos venido; Marie est venue...*

**1.4b** Koherentea da hori guztia, halaber, hizkuntza postposizioduna izatearekin, kasuetan ageri diren marka horiek (*etxean, etxetik, lagunarekin...*) baitira, berez, sintagmaburuak, eta burua azkenean ageri baita (preposiziodunak diren hizkuntzetan alderantziz gertatzen da: *en casa/at home/à la maison; de casa; con el amigo). Mugatzaileak ere (artikulua eta erakusleak) beti amaieran jartzen ditugu: *etxea; herri horiek...*, eta ez aurretik, inguruko hizkuntzetan bezala (*la casa; la maison; the house*).*

**1.4c** Euskarak, bestetik, menderagailuak ditu, eta menderagailu gehienak ere laguntzailearen eskuinean jartzen dira: *entzun dugula, ikusi duten, delako* eta abar (ondoko hizkuntzetan: *que hemos oído, que han visto, porque es pequeño...*).

**1.4d** Euskarak, azkenik, atzizkiak ditu, ez aurrizkiak (edo, aurrizki batzuk baldin baditu ere, gutxiago dira, eta berriagoak, arruntean —nahiz ez denak— mailegu berrien analogiaz sortuak direnak). Nolanahi ere, bistan da gaztelania eta frantsesak aurrizkiak dituztela, batez ere, eta euskarak atzizkiak, batez ere. Hori ere koherentea da “burua azkenean” emandako arauarekin.

Gramatikan ikusiko dugunez, hurrenkera horiek guztiek, azken batean, gauza bat erakusten dute, euskal sintagmen burua sintagmaren amaieran ageri dela.

**1.4e** Postposizioak eratzen duen sintagma postposizio sintagma deitzen dugu (ikus 19. kapitulua). Holakoak dira *mendian, etxe ondoan, Mikelentzat, maldan goiti, ahizparekin*... Horiek guztiak postposizio sintagmak dira, eta postposizio baten inguruan eratzen dira. Denen ezaugarria da sintagmaren ardatza azkenean ageri dela. Bat dator hori goian esan dugunarekin: burua azkenean. Greenberg hizkuntzalariak (1963a) aztertu ditu munduko hizkuntzek dituzten antzekotasun tipologikoak, bera izan da holako lan mota modu sistematikoan

egin duen lehenbizikoetakoa. Hizkuntzak sailkatzeko orduan honako hau aurkitu zuen, besteak beste: adierazpen perpausetan joera handia dago subjektua osagarri zuzena baino lehenago agertzeko (SOV); SOV hizkuntzak arruntean postposiziodunak dira (*etxera*), Greenbergen 4. unibertsala; genitiboa, hizkuntza preposiziodunetan, izenaren ondotik doa (*la casa de Juan; la maison de Jean*), baina hizkuntza postposiziodunetan aurretik ageri da (*Jonen argazkia*); SOV hizkuntza batean genitiboa izenaren ondoren ageri bada, orduan adjektiboa ere izenaren ondotik doa. Berehala itzuliko gara hona.

**1.4f** Gramatiketan izen sintagma (IS) deitu izan dira *adiskidea, gure etxea* edo *leiho handia* bezalakoak. Hala ere, gramatikari batzuen ustez egokiago litzateke holakoetan *determinatzaile sintagmaz* hitz egitea. Horiek determinatzaile sintagmak lirerateke, eta hala deitzen dituzte hizkuntzalariek beste hizkuntza batzuetan. Gramatika honetan aurrerago azalduko da arazoa, baina koherentea litzateke orain arte esaten dugunarekin, hor ere burua, *-a* determinatzailea kasu honetan, amaieran ageri baita. Kontu honetara berriz ere itzuliko gara gramatika honetan (§ 2.13: “Determinatzailea(k) eta DSa”).

Arazoak sor litezke, itxura batean, adjektiboekin: *etxe handia* esaten dugunean, determinatzaile sintagma litzateke sintagma osoa. Zer da, ordea, hor ageri den *etxe handi* hori? Badirudi izen sintagma dela, baina sintagmaburua izena (*etxe*) baldin bada ez da amaieran ageri, baizik aurretik. Greenbergekin egindako azterketetan, OV motako hizkuntzetan adjektiboak izenaren aurrean egon behar luke (genitiboarekin gertatzen den gisan), eta izenaren ondotik hurrenkera VO baldin bada. Hori ez letorke bat euskararekin. Baina Greenbergen analisia, puntu honi dagokionez, ez dirudi zuzena den, berehalaxe izan baitzen hizkuntzalarien artean eztabaidatua. Dryer-ek (1992) erakutsi zuen ez dagoela halako joerarik, munduko berrehun hizkuntzatik gora aztertu ondoren. Cinquek (2005) ere gauza bera erakutsi zuen. Gaurko gramatiketan, zernahi gisaz, *gizon handi* ez dela berez ISa proposatzen da, baizik adjektibo sintagma (AdjS), hau da, sintagma horretan adjektiboa bera (*handi*) izango litzateke burua, ISa (*gizon*) haren osagarria eta adjektiboak dagokion determinatzailea harturik (*-a*, kasu honetan) osatuko luke DSa, determinatzaile sintagma: *gizon handia*. Hori proposatu izan dute Artiagoitiak (2002a, 2002b, 2004, 2006) eta

Oyharçabalek (2006b), esate baterako, argumentu sendoak erabiliz, gainera. Badira, hortaz, arrazoiak holako zerbait dela pentsatzeko (ikus § 2.8: “Adjektiboa, AdjSaren buru”). Hori hala balitz, orduan ez genuke arazorik izango, eta guztia koherentea litzateke, burua azkenean ageri baita (*gizon handi*).

## 1.5. Euskara hizkuntza ergatiboa da

**1.5a** Euskararen beste bereizgarri bat —euskaldunen arreta ez ezik, kanpoko hizkuntzalariena ere jaso duena— ergatibotasuna da. Izan ere, euskara *hizkuntza ergatiboa* da, eta auzoko hizkuntzak —frantsesa eta gaztelania, adibidez— *hizkuntza akusatiboak* dira. Hizkuntza bat ergatiboa denetz jakiteko, bere kasu sistemari begiratzen diogu eta sistema hori nola atontzen den ikusten dugu. Jo dezagun bi perpaus hauek ditugula: *Zu berandu etorri zara*; *Zuk ni ikusi nauzu*.

Lehen perpausean, *etorri* aditza dugu eta bigarreanean *ikusi*, eta bi perpausetako subjektuak desberdinki markatzen dira: batean *zu* forma dugu eta bestean *zuk*. Bada, *zu* pertsona izenordainari gaineratu zaion *-k* marka morfologikoa kasu marka bat da, eta *ergatiboa* deitzen zaio. Aldiz, lehen perpauseko *zu* pertsona izenordainak zero kasu marka duela esan ohi da, eta kasu honi *absolutiboa* deitzen zaio (§ 18.2). Euskararen gisako hizkuntza ergatiboetan, perpauseko subjektuak kasu marka bat edo bestea jasotzen du, aditza zein den: *etorri* edo beste aditz intrantsitibo bat izanez gero, orduan subjektuak absolutiboa jasotzen du, zero marka morfologikoa ( $\emptyset$ ); aldiz, *ikusi* edo halako beste aditz trantsitibo (iragankor) bat izanez gero, orduan subjektuak ergatiboa erakusten du, *-k* marka. Labur esanda, ergatiboa den hizkuntza batean, subjektuak bi kasu erakusten ditu, nolakoa den aditza. Baina ez da hori bakarrik gertatzen: bi kasu horietatik bat, hots, absolutiboa, aditz trantsitiboetako osagarriari ere ezartzen zaio: *Nik zu ikusi zaitut*.

Horrenbestez, absolutiboa (*zu*), batzuetan, osagarri zuzena da, eta, beste batzuetan, subjektua: bietan kasu absolutiboa. Beraz, hitz gutxitan esateko, subjektuak bi marka har ditzake, aditzaren arabera,  $\emptyset$  (absolutiboa) edo *-k* (ergatiboa), eta aditz trantsitiboetako osagarri zuzenak eta aditz intrantsitiboetako

subjektuak marka bera hartzen dute:  $\emptyset$ . Bi funtzio, subjektua eta osagarri zuzena, marka berarekin ( $\emptyset$ ), batetik; eta funtzio bera, subjektua, bi marka desberdinekin ( $-k$  eta  $\emptyset$ ), bestetik:

*Ikusi*  $\rightarrow$  NIK<sub>erg</sub> ZU<sub>abs</sub> ikusi zaitut

*Etorri*  $\rightarrow$  ZU<sub>abs</sub> etorri zara

Halako kasu sistema duen hizkuntzari ergatiboa deritza. Euskararekin alderatzen baditugu, tipologikoki bestelako kasu sistema dute gaztelaniaren edo frantsesaren tankerako hizkuntzek, kasu marka berarekin markatzen baitituzte subjektuak beti, *nominatibo* kasua deritzanarekin, eta osagarria beste batekin, *akusatibo* deritzanarekin. Egia da hizkuntza hauek galdu dituztela neurri handi batean kasua adierazten duten marka morfologikoak, baina batzuetan, pertsona izenordainetan bereziki, geratzen dira aztarna batzuk: *yo he venido / je suis venu; yo te he visto / je t'ai vu*. Bietan subjektua (batean intrantsitiboa, bestean trantsitiboa) berdin markatua: *yo* eta *je*. Aldiz, *(tu) me has visto / tu m'as vu* esaten dugu, eta hor ageri da akusatiboaren seinale zaharra: *me* (izan ditzakeen aldaera fonologikoekin, jakina).

Beste ohar bat egitea ere komeni da hemen: deskribatzen ari garen fenomeno honen aditzean ere badu isla. Dakigunez, aditz laguntzaileak kasu ergatibo, absolutibo eta datiboarekin (azken hau ez beti) egiten dituen komunztadura markak biltzen ditu morfologian. Hala, *eman dizkiet* entzuten badugu, badakigu *dizkiet* horrek perpausaren gaineko informazio handia ematen digula: badakigu subjektua lehen pertsona singularrekoa dela (*dizkie-t*); badakigu, orobat, pluraleko hirugarren pertsona ageri dela datiboan, zehar-osagarri gisa (*dizki-e-t*); eta badakigu osagarri zuzena pluralekoa dela (*di-zki-et*). Informazio hori guztia aditz laguntzailearen morfologian bildua da. Horregatik diogu deskribatzen ari garen fenomenoak baduela isla aditzean: *ni etorri naiz; nik egin dut*. Baina zuk *ni ikusi nauzu*. Hor ere deskribatu dugun paralelismo bera ageri da, aditzaren morfologian.

**1.5b** Hala ere, konfigurazio hori (intrantsitiboa = subjektu absolutiboa; trantsitiboa = subjektu ergatiboa - objektu absolutiboa) ez da beti horrela gertatzen euskal syntaxian. Batzuetan hautsi egiten da, eta euskarak, zenbait agerralditan, ez du konfigurazio ergatibo kanonikoa erakusten. Jo ditzagun adibide

hauek: *Zu Pirinioetan egon zara / Zuk Pirinioetan eskiatzen duzu*. Argumentu kopuruaren aldetik (§ 23.2.2), biak pareko dira. Alta, *eskiatu* aditzak duen argumentu bakarrean ergatiboa eskatzen du, eta ez absolutiboa. Aditz hori (*eskiatu*) berria da, baina aditz klasiko batzuekin ere gertatzen da zenbaitetan holako zerbait: *Mota guztietako lanetan jardun zen Aitziber / Mota guztietako lanetan jardun zuen Aitziberrek*.

**1.5c** *Egon* eta *eskiatu* aditzek argumentu bana dute, intrantsitiboekin gertatzen den gisan, eta hortaz, biak intrantsitibotzat hartu behar ditugu. § 23.2.2 atalean xehekiago azalduko bada ere, aditzen “argumentu” deitzen diegu aditzek duten sare semantikoan ageri diren osagaiei. Sare semantiko horiek eredu jakin bati jarraiki eratzen dira arruntean. Esate baterako, *etorri* aditzak *norbait* etortzea eskatzen du, bestela ez luke zentzurik: *Izeba etorri da*. Argumentu hori beharrezkoa du. *Ikusi* aditzak *norbaitek zerbait* ikustea eskatzen du eta, beraz, aditz horren sare tematikoan (edo semantikoan, esanahi bera dute bi terminoek azalpen honetan) bi argumentu daudela esaten dugu: *norbait* eta *zerbait*<sup>6</sup>, adibidez, *Alabak aita ikusi du*. Era berean, *eman* aditzak bi argumentu eska ditzake, esanahia nolakoa duen: *Ikertzaileak hitzaldia eman zuen*. Edo hiru, ezinbestean: *Itziarrek musu eman dio alabari*. Horiek dira, esan dezagun, aditzen sare arruntenak, sare horietan parekotasuna baitago, gainera, kasu markekin: argumentu bakarra bada, kasu absolutiboa ageri da (*izeba*); bi badira, kasu ergatiboan eta absolutiboan doaz (*alabak, aita*).

Baina aditz guztiek ez dute eredu hori segitzen, eta argumentuen eta kasuen arteko parekotasun hori hautsia gelditzen da zenbaitetan. Batzuetan, aditz batzuk eskatzen dituen bi argumentuak ez ditugu kasu ergatiboan eta absolutiboan ikusten: *Txokolatea gustatzen zait* esaldian bi argumentu ageri dira (*gustatu* aditzak *zerbait* eta *norbait* gustatzea eskatzen du ezinbestean)<sup>7</sup>, baina bi argu-

---

<sup>6</sup> Egia da batzuetan *ikusi* aditzak beste esanahi bat izan dezakeela: *Itsua operatu zuten eta ondoko egunean ikusten hasi zen*. Hemen eztabaidagarria izan daiteke argumentu bat edo bi dituen.

<sup>7</sup> *Dastatu* esanahiarekin ez bada, jakina: *Zu gustatzen zaituenak gustatzen ditu zure baitan gauza guztiak*.

mentu horiek ez daude kasu ergatiboan eta absolutiboan, espero genezakeen gisan, baizik absolutiboan eta datiboan. *Iritzi* eta *eutsi* modukoek ergatiboa eta datiboa eskatzen dute, nahiz aditz laguntzailea *dio* sailekoa duten (§ 23.2.2.4g). Bada, goian aipatu *eskiatu* eta *jardun* ere sail horretakoak dira, argumentu bakarra izanik ez baitoa argumentu hori kasu absolutiboan, baizik ergatiboan (*jardun* aditzaren kasuan, aukeran, ergatiboan nahiz absolutiboan). Inoiz “deponente” ere deitu izan zaie holako aditzei euskal gramatikan. *Dimititu* eta *iraun* ere tankera berekoak dira: *Jonek aspaldi dimititu zuen; Erauntsiak lau ordu iraun du*<sup>8</sup>. Ageri den argumentu bakar hori batzuetan agentea da (*eskiatu*), beste batzuetan esperimentatzailea (*sufritu, pairatu*) eta beste zenbaitetan ikusmena, usaimena edo entzumena estimulatzeko duen gertakari batekin lotzen da (Rappaport & Levin 2000: 269-304): *Ezkilak jo du; Eguzkiak dirdiratzten du; Gehien distiratzten duen izarra da; Goiz argitu du gaur; Atzo hamarretan ilundu zuen...* Holako asko euskaraz *egin* aditzaz baliaturik ematen ditugu: *ulu egin, intziri egin...*

**1.5d** Horregatik diogu aditz horiek ez dutela eredu arrunta segitzen eta, goian aipatu konfigurazio hedatuenekin erkatuz gero, oso konfigurazio diferenteak eratzen dituztela. Hori gertatzea ezustekoa da hizkuntza ergatibo batean. Izan ere, euskara hizkuntza ergatiboa izanik, printzipioz espero genezake lehen perpausean dagoen konfigurazio bera egotea baita bigarreanean ere, hots, \**Zu Pirinioetan eskiatu zara* bezalako zerbait gramatikala izatea, baina, jakina denez, perpaus hori ez-gramatikala da. Eta horren antzeko zerbait gertatzen da *jardun* aditzarekin, nahiz egia den aditz horrek bi konfigurazioak onartzen dituela: *Hamaikak arte jardun zuten/ziren lanean*. Badira, hortaz, *intrantsitibo absolutibodunak* (gehienak) eta *intrantsitibo ergatibodunak* (gutxiago). Hola deituko ditugu (§ 1.5.f).

Beharbada horregatik sortu dira ohitura eta erabilera desberdinak zenbait aditzen inguruan: *dantzatu*, esate baterako. Aditz hori *Zu Pirinioetan egon zara*

---

<sup>8</sup> *lau ordu*, hemen, absolutiboa da, baina ez da objektu zuzena (hiztun batzuek komuntadura egiteko joera badute ere: *lau ordu iraun ditu*). Horren orde *erauntsiak luze iraun du* esan dezakegu, eta hor hobeki ikusten da esan duguna.

esaldiko eredu berarekin erabili izan da gehien bat tradizioan: *Dantzatu naiz* eredukoa da, intrantsitibo arrunta, alegia. Hola erabili izan da euskalki guztietan. Nahiz badiren *eskiatu*-ren eredia segitzen duten idazleen adibideak ere: *Jaunaren aurrean dantzatuko dut; Ez duela dantzatzen zortzikoan gaizki; Dantza ezazu* eta horien pareko zenbait ageri dira literatura klasikoan. Eta gaurkoan ez dira falta: *Denek dantzatu dugu musika horretan...* Baina adibide gehienak laguntzaile gisa *izan* hartzen dutenen eredukoak dira, edo bestela konfigurazio trantsitibo arruntekoak, subjektua eta osagarri esplizituarekin: *Aurrekoa dantzatu zuen*. Horren antzekoa da *borrokatu* aditza ere. Literaturako adibide gehienak *egon* eredukoak dira: *Arratsalde osoan borrokatu da, baina ezin izan du konpondu; Etsaien kontra borrokatzen ziren* eta abar. Gaurko literaturan *borrokatzen dute, borrokatzen zutenek ez zekiten...* bezalakoak nahiko arruntak dira. Hor *eskiatu*-ren eredia segitzen dute. Ikus honetaz segidan datorren atala.

**1.5e** Itzul gaitzen berriz ere *egon* eta *eskiatu* aditzetara eta ikus dezagun diferentziak zertan diren. Lehenean, *egon* aditzaren argumentu bakarrak (*zu*) kasu absolutiboa du. Oso bestela, bigarreanean, *eskiatu* aditzaren subjektuak kasu ergatiboa erakusten baitu, perpausean osagarri zuzenik ez dagoen arren. Diferentziak ez dira kasu absolutibo eta ergatiboen banaketara mugatzen, eta dagokien komunztadurara ere zabaltzen dira, adizkiaren morfologiara. Izan ere, lehen perpausean, subjektu komunztadura *z-* aurrizkiaren bitartez gauzaten da (*zu ... egon zara*) eta bigarreanean, *-zu* atzizkiaren bidez (*zuk ... eskiatzen duzu*). Horretaz gain, *izan* eta *\*edun* aditz laguntzaileen arteko banaketa dago bi perpausen artean, eta bigarren perpausean ageri den laguntzailea da aditz trantsitibo arrunt batekin, *ikusi* aditzarekin adibidez, hautatzen dugun bera. Beraz, argumentu bakarra (hortaz, intrantsitiboa), baina kasu desberdina (absolutiboa batean, ergatiboa bestean). Horregatik esan dugu lehenago konfigurazioa hausten dela holakoetan. Intrantsitiboen eta trantsitiboen subjektuak berdín markatzen dituzten hizkuntzak *akusatiboak* dira: *yo* (subj.)... intrantsitiboa; *yo* (subj.) / *me* (obj.) trantsitiboa. Aldiz, hizkuntza ergatiboen ezaugarria da subjektuaren marka desberdina izatea aditz intrantsitiboetan eta aditz trantsitiboetan: *Mikel etorri da* / *Mikelek Jone agurtu du*. Baina ikusten ari garen adibide hauetan intrantsitiboen subjektua da aldatzen dena: *Jone etorri da* / *Jonek eskiatu du*.



**1.5f** Aditzen arteko bereizketa mota hauek beste hizkuntza askotan ere gertatzen dira. Hori kontuan izanik, hizkuntzalariek perpaus intrantsitibo mota nagusi bi bereizten dituzte: *inakusatiboak* eta *inergatiboak*. Euskaldunentzat guztiz nahasia gertatzen da terminologia hori, berehala ikusiko den gisan. Intrantsitiboetan ageri den argumentu bakar horrek duen rol tematikoan oinarritzen dute hizkuntzalariek bereizketa. Ikus ditzagun perpaus hauek: *Itziar gaixotu da; Koldo esnatu da; Irakaslea mintzatu da; Gazteak eskiatu du*. Perpaus horiek guztiak intrantsitiboak dira, argumentu bakarra dute. Baina aditzaren esanahia eta aditzak hartzen duen argumentuak aditzarekin duen erlazio semantikoa kontuan hartzen baditugu, berehala ohartuko gara erlazio semantiko desberdinak sortzen direla hor, puntu bati dagokionez. Perpaus horietako batzuetan subjektua ez da ekintzaren borondatezko egilea (*gaixotu, esnatu*), baina beste batzuetan egiazko egilea da (*eskiatu, mintzatu*). Beste adibide honetan argiago ikusiko da kontua: *Edalontzia hautsi da / Mirenek edalontzia hautsi du*. Bietan harreman semantiko antzekoa da *edalontzia*-ren eta *hautsi*-ren artean, batean subjektua eta bestean objektua bada ere. Bietan, nolabait esateko, *edalontzia* argumentua ‘gaia’ edo ‘jasailea’ (pazientea) da. Hori dela eta, aditz intrantsitiboen artean bi mota bereizten dira: ageri den argumentu bakar hori prozesuaren egilea izan daiteke (*Miren mintzatu da*) edo beste zerbait; ez, nolana ere, egilea (*Miren gaixotu da*). Horri deitzen diogu paper tematiko desberdinak ezartzea.

Bada, hizkuntzalariek ikusi dute rol tematiko desberdinak ezartzeaz gain, intrantsitiboetan sortzen diren bi multzo horiek propietate sintaktiko eta morfolo- giko diferentek dituztela, nahiko modu koherentean ageri direnak hainbeste hizkuntzatan. Eta hortik sortu dira bi multzoak: *inakusatiboak* eta *inergati- boak*. Inakusatiboek argumentu bakarra dute; *jasailea* edo *gaia* ere deitzen zaio argumentu bakar horri. Eta hor sartzen dira *Jon gaixotu da* bezalakoak. Aldiz, inergatiboen argumentua egilea da, eta multzo horretakoak dira *Jonek eskiatu du* modukoak. Honek sortzen du lehenbiziko zailtasuna euskaldunentzat, zail egiten baitzaigu ergatiboa agerian duen *Jonek eskiatu du* bezalako bati inerga- tibo deitzea. Egokiago da, hortaz, euskararen kasuan, *intrantsitibo ergatibodu- nak* deitzea inergatibo direlakoei, eta *intrantsitibo absolutibodunak*, berriz, inakusatiboei, gorago proposatu dugun gisan. Hori dela eta, baliokideak dira



gure terminologian, batetik, inakusatiboak eta intrantsitibo absolutibodunak, eta bestetik, inergatibo eta intrantsitibo ergatibodunak.

**1.5g** Esan dezagun, hortaz, laburtuz, euskaraz baditugula perpaus trantsitiboak (*irakasleak eskola eman du*), alde batetik, eta intrantsitiboak (*irakaslea gaixotu da*), bestetik. Orobat, intrantsitiboen artean baditugu intrantsitibo absolutibodunak (*neska esnatu da*), eta intrantsitibo ergatibodunak (*neskak eskiatu du*). Sailkapen hau ez dator bat, ez orain arte euskal gramatikek (EGLU barne) egin duten sailkapenarekin, ez eta hizkuntzalari askok egin duten inakusatiboen eta inergatiboen arteko sailkapenarekin<sup>9</sup>.

## 1.6. Aditz komunztadura

**1.6a** Aditz komunztadura da beste bereizgarri argienetako bat. Izan ere, euskarak oso morfologia aberatsa du aditzean eta hori aditz komunztaduran ikusten da, aditz laguntzaileak subjektu, zehar-osagarri eta osagarri zuzenarekiko komunztadura erakusten baitu: *Nik Joni liburuak ekarri dizkiot*.

Perpaus horretan hiru argumentu ageri dira, *nik* subjektua, *Joni* zehar-osagarria eta *liburuak* osagarri zuzena. Argumentuak orotara hiru dira, *ekarri* aditz trantsitibo *datiboduna/aditz ditransitiboa* delako. Hori esan nahi du, hain zuzen ere, “ditrantsitibo” hitzak, delako aditz horrek osagarri zuzena eta zehar-osagarria eskatzen dituela (gramatikari batzuek “hipertrantsitibo” ere deitu izan diete holako aditzei). Kontuan izan behar dugu, hortaz, aditz intran-

---

<sup>9</sup> Bestelako deitura batzuk erabili izan dira halako hizkuntzetarako tipologia kontuetan: urrunera joan gabe, aipagarriena da ziur aski *hizkuntza aktiboak* izeneko deitura. Hizkuntzalari batzuek diotenez, hizkuntzetan egitura iragankorrek eta iragangaitzak (hauen barnean “inergatiboak” eta “inakusatiboak”) bereizteko arrazoiak baldin badira ere, beharrezko ikusten dute, hala ere, haien parean hizkuntza aktiboak ere bereiztea: hauetan bereizketa ez litzateke perpaus iragankor/iragangaitzen artean egingo, baizik perpaus aktibo/ez-aktiboen artean. Hizkuntza aktiboek propietate sintaktiko desberdinak erakusten dituzte, trantsitibo / intrantsitibo bereizketarekin bat ez datozenak. Bath-ek (1991: 99-100) eskaintzen du kontu honetaz laburpen egokia.

tsitiboek argumentu bakarra dutela (subjektua), aditz trantsitiboek bi (subjektua eta osagarri zuzena) eta aditz ditransitiboek hiru (subjektua, zehar-osagarria eta osagarri zuzena). Hirugarren argumentuak, hots, zehar-osagarriak, *datibo* kasua jasotzen du eta *-(r)i* marka morfologikoa du euskaraz (§ 18.4.1).

**1.6b** Begira diezaiogun orain adibideko adizkiari (*Nik Joni liburuak ekarri dizkiot*). Adizkiak *forma analitikoa* (euskal gramatiketan *perifrastikoa* deitu izan zaie holakoei) erakusten du, hau da, aditz lexikoa (*ekarri*) eta adizki laguntzailea (*dizkiot*) bereizten ditu, eta adizki laguntzaile horrek jasotzen du lehen aipatu ditugun hiru argumentuen gaineko komunztadura, hots, subjektu, zehar-osagarri eta osagarri (zuzen) komunztadura: subjektu komunztadurari dagokio *-t* singularreko lehen pertsonako atzizkia; *-zki-* osagarriaren numero komunztadura marka da, eta azkenik, *-o* singularreko hirugarren pertsona komunztadura marka zehar-osagarriari zor zaio. Ikusten denez, beraz, askotariko komunztadura jasotzen da aditz laguntzailean. Kontuan izan beharra dago hizkuntza asko eta askotan, gaztelaniaz edo frantsesez esaterako, subjektu komunztadura baino ez dagoela, eta oso gutxi direla euskaraz bezalaxe, hiru komunztadura marka jasotzeko gaitasun morfologikoa dutenak. Horien artean aipatu beharrak dira Kaukasoko ipar-mendebaldeko abkhar-adygtar hizkuntzak (abkhaziera, ubikhera, adyghera)<sup>10</sup>. Gaztelaniaz, zenbait kasutan, klitiko batzuekin gertatzen denak euskaraz egiten duguna ere ekartzen digu gogora: *Tú a mí esos papeles, déjamelos bien ordenados*.

**1.6c** Berezi samarra da euskararen aditz komunztadura. Goian esan dugu euskara hizkuntza ergatiboa den edo ez ebazten dugula bere kasu sistemari begiraturik, baina hori bera jakin daiteke komunztadurari begira ere: baldin eta aditz intrantsitiboko eta aditz trantsitiboko subjektuei komunztadura marka diferentiek egozten bazaizkie, eta aditz intrantsitiboko subjektuari ezartzen zaiona osagarriari ezartzen zaion bera bada, orduan, komunztadurak sistema ergatiboa erakutsiko du. Lehen aipatu dugu hau, baina ikus dezagun astiroago: Zu *beran-*

---

<sup>10</sup> Paris (1969). Autore berak eta Anscombek artikulu bat argitaratu zuten euskararen komunztadura sistema eta txerkezierarena konparatuz eta, nolabait, argumentuen komunztadurari dagokionez, elkarren antza dutela agerian emanez (Paris & Anscombe 1980: 227-249).

*du etorri zara; Zuk ni ikusi nauzu; Nik zu ikusi zaitut.* Adizki laguntzaileak biltzen dituen markak hartu ditugu hor kontuan, eta haiei behatu diegu.

*Zu* pertsona izenordainari erreparatu diezaiogun. Lehen perpausean *zu* subjektua da, absolutibo kasua du eta aditz laguntzaileak *z-* aurrizkiaren bitartez egiten du komunztadura harekin. Bigarren perpausean, aldiz, *zuk* subjektua izan arren, ergatibo kasua du eta *-zu* atzizkiaren bitartez ageri da adizki laguntzailean. Ikusten denez, subjektu komunztadura ez da hizki bakar batekin bakarrik adierazten aditzean: komunztadura aurrizkia (*z-*) egozten zaio absolutiboz markatutako subjektuari eta komunztadura atzizkia (*-zu*), berriz, ergatiboz markatutako subjektuari. Horregatik, hizkuntzalaritzan absolutibo komunztaduraz eta ergatibo komunztaduraz hitz egitea egokiago ikusi da, ez horrenbeste subjektu komunztaduraz, subjektu komunztadura bat bera ez delako. Ostean, hirugarren perpausari begiratzen bazaio, *zu* osagarria da eta osagarri horrek predikatu intrantsitiboko subjektuaren kasu bera du, hots, absolutiboa, eta bere *z-* komunztadura aurrizki bera du adizki laguntzailean. Beraz, euskararen komunztadura sistema bera ere ergatiboa da.

**1.6d** Hizkuntza ergatibo batzuetan ergatibotasuna ez da kasuen bitartez azaltzen, komunztaduraren bitartez baino. *Maia* hizkuntzak halakoak dira, hots, komunztadura sistema ergatiboa dute. Argumentuek, euskaraz ez bezala, ez dute kasu marka espliziturik, eta hortaz, ezin daiteke esan kasu sistema ergatiborik edo bestelakorik dutenik. Alabaina, komunztadurak erakusten duenez, aditz intrantsitiboko subjektua eta aditz trantsitibokoa bereizi egiten dira, eta osagarriaren komunztadura marka bera du intrantsitiboko subjektuak. Ergatiboak dira, beraz. Euskarak, nolabait ere esateko, modu bikoitz batean erakusten du bere izaera ergatiboa: kasu sisteman eta aditz komunztaduraren sisteman.

**1.6e** Baina batzuetan komunztaduran haustura bat gertatzen da. Ikus ditzagun perpaus hauek: batetik, *ni berandu etorri naiz* eta *nik Jon ikusi dut*; bestetik, *ni berandu etorri nintzen* eta *nik Jon ikusi nuen*.

Lehen bi perpausetan, espero izatekoa den komunztadura aurkitu dugu: batetik, *n-* absolutibo komunztadura aurrizkia *ni* absolutiboz markatutako subjek-

tuarekin lotzen dugu, eta, bestetik, *-t* ergatibo komunztadura atzizkia *nik* ergatiboz markatutako subjektuarekin. Alabaina, gauzak zertxobait aldatzen dira iraganeko kideko bi perpausetan, bereziki azken perpausuan, *nik* subjektu ergatibodunak adizkian ohiko *-t* komunztadura atzizkia erakutsi beharrean, ezusteko *n-* komunztadura aurrizkia erakusten baitu, orainaldiko perpausaren absolutiboaren marka (eta ez, espero zitekeen gisan, ergatiboarena): *Jon ikusi dut* / *Jon ikusi nuen*.

Horren ondorioz, bi subjektuen arteko komunztadura berdindu egiten da, eta hizkuntza akusatiboetan ere hala izaten denez (pentsa bestela *nosotros venimos* / *nous arrivons* ‘gu gatoz’ eta *nosotros leemos* / *nous lisons* ‘guk irakurtzen dugu’ subjektu komunztaduren batasunean), badirudi ereduak huts egiten duela. Horrelakoak ez dira arrotzak hizkuntza ergatiboetan. *Ergatibotasun hautsia* deritza honi, edo *ergatibotasun erdibitua* (ing. *split ergativity*), eta horrek erakusten du ergatibotasunaren ezaugarrien eredu batzuetan hautsi egiten dela (ikus ergatiboaren hausturaz § 18.3.3). Hala ere, ikusi behar da hori egiazko haustura den ala erdibiketaren itxura baizik ez den. Gure ustez, itxura kontua da gehiago, egiazko erdibiketa baino. Erdibiketa itxura diogu, zeren tipologikoki apur bat desbideratzen baita euskara euren komunztadura sisteman erdibiketak erakusten dituzten beste hizkuntza batzuetatik.

Kontuan izan behar da halako itxuraketa *akusatibo* bat gertatzen dela euskaraz iraganean edota alegiazko adizkietan (*egingo nuke*, *egin nezake*), hau da, nolabait aldiak edota moduak baldintzatzen dutela *nuen* eta abarren agerraldia. Eta betiere absolutiboaren hirugarren pertsonaz ari gara<sup>11</sup>, ez besteez: *hura ikusi nuen* baina *zuk ikusi ninduzun*. Azken hau guztiz erregularra da: *zuk ikusi nauzu*, *zuk ikusi ninduzun*. Alabaina, aditz morfologiaren ergatibotasun erdibitua (*ikusi dut*, *ikusi nuen*) aldiak, aspektuak edo moduak ere baldintza dezaketen arren, hala izanez gero, ez da hizkuntza horietan gertatzen euskaraz gertatzen dena, baizik justu-justu alderantzizkoa: euskaraz ez bezala,

---

<sup>11</sup> Aipatzekoa hemen, zenbait hizkeratan, erdibiketa hau ohartu gabe edo hausteko joerak ageri direla: hola sortu dira *zidazun* eta gisakoak, *zenidan* horren orde; edo *leikezu* bezalakoak, *zeinke* adizkiaren orde.

iragan aldian edo aspektu burutuan gertatzen da itxuraketa ergatiboa, eta akusatiboa, berriz, bestelakoetan. Hindia/urdua dugu honen adibide. Hortaz, antzekotasun tipologikoak beste nonbait aurkitu behar ditugula dirudi, eta ez horrenbeste ergatibotasun erdibituaren eremuan.

**1.6f** *Nik Jon ikusi nuen* perpausean erakutsi dugun fenomenoari *ergatiboaren lekualdatzea* deitzea egokiago litzateke, Laka (1993a) eta beste batzuen ustez. Deitura honen atzean dagoen ustea da ergatibo komunztadura, atzizkia izan ohi dena, lekuz aldatu dela nolabait eta aurrizki baten bidez azaldu dela ( $-t \rightarrow n-$ ). Fenomeno hau azaltzeko, hortaz, bi modu erabil daitezke: bat, ergatibotasun erdibitu klasikoa (beste hizkuntza batzuetan gertatzen dena, baina azalpen horrek baditu eragozpenak, esan bezala); bestea, ergatiboaren lekualdatzea. Hau ere ez da batere gauza berezia euskaraz, syntaxian beti ikusi izan dira lekualdatze fenomenoak: *Norekin esan dizu Maitek bizi dela?* Perpaus arrunt horretan kontua ez da ni norbaitekin nagoela eta Maitek esan didala zerbait, baizik Maite norbaitekin bizi dela (bera edo beste norbait), eta galdera egitean norbait horretaz erabiltzen dugun galdetzailea tokiz mugitu dugula<sup>12</sup>: *Norekin esan dizu Maitek \_\_ bizi dela?* Hutsarte horretatik mugitu da galdetzailea kanpora. Bada, holako zerbait gertatuko litzateke aurrizkiarekin ere:  $-t$  atzizkia (*dut*),  $n-$  aurrizkia bihurtzen da tokiz aldatzean (*nuen*).

**1.6g** Erdibitzea izan, lekualdatzea izan, beste batzuek uste dute, ordea, eta hau litzateke hirugarren azalpen posiblea, hor ez dela benetan lekuz aldatutako ergatibo komunztadura hizkirik, baizik absolutibo komunztadura hizki huts bat. Hemen ere, ikusten denez, kontrako hipotesiez azaldu nahi izan dira datu berberak. Inork ukatuko ez duena da aipatzen ari garen perpausean komunztadura aldetik zerbait *bitxia* gertatzen dela, ingelesez *eccentric agreement* deitzen dutena, zeren euskaraz ez ezik, munduko beste hizkuntza urrun samarretan ere antzeko fenomenoek testigantza jaso baita, txuktxieraren *antipasibo izunean* (*spurious antipassive*, ingelesez), adibidez. Itzuliko gara geroago egitura antipasibo hauen ezaugarrietara (§ 1.8i, § 1.8j).

---

<sup>12</sup> Alde batera utziko ditugu hemen interesik ez duten perpausaren barne egiturako beste gai batzuk.

Aipatzekoa ere bada, neurri batean bitxia, eta orain ez gara azalpen tekniko-koetz ari, euskaltzaleak nola mintzatu diren forma hauezaz ohartu direnean, nola ikusi izan dituzten. Adibidez, *Euzkeltzale Bazkunak* 1933an argitaratu zuen euskara ikasteko testuliburuan, iraganerako *leudan*, *leuguban*, *leuzuban*... formak ematen ditu, eta sarriago erabili arren, forma okertzat hartzen ditu *neban*, *geban*, *zeban*... edota azken bi hauen ordezkotzat *genduban*, *zenduban*... Ikusten denez, ergatiboaren lekualdatzea zuten formak (aditz batuko *nuen*, *genuen*, *zenuen* adizkien kidekoak) okertzat jotzen zituzten, eta forma zuzentzat, aldiz, komunztadura sistemari eusten zioten forma asmatuak. Bitxikeriak bitxikeria, arretarik ez zaio falta izan komunztadura itxuraketa honi, ez euskalarien artean, ez oro har gramatikarien artean ere.

**1.6h** Komunztaduraz ari garela, *komunztadura argumentalaz* hitz egin ohi dugu orain arte, subjektuarekin eta gainerako argumentuekin batera datorrenaz. Hola, *nik zu ikusi zaitut* diogunean, laguntzailean markaturik gelditzen dira subjektua (*nik*..., adizkiaren amaieran *-t* ageri da) eta objektua (*zu*..., adizkiaren hastean *z-*): *zaitut*. Horiek argumentuak dira: *ikusi* aditzak *norbaitek zerbait* ikustea eskatzen du. Komunztadura *argumentala* dela diogu, horregatik. Aldiz, beste batzuetan aditzak beste mota bateko komunztadura egiten du: *ikusi dut* / *ikusi diat* / *ikusi dinat*. Adizki horietan lehenbizikoa bakarrik da *zaitut*-en pareko (ikus § 27.1). Beste bietan beste mota bateko komunztadura egiten da: *diat* erabiltzen dugu gure solaskidea gizona bada, eta *dinat*, berriz, andrea delarik, baldin hizkera *alokutiboa* aukeratzen bada. Baina solaskidea andrea edo gizona izateak ez du deus zerikusirik aditzaren argumentuekin. Holakoetan komunztadura *ez-argumentala* egiten da, eta orduan izatez ez da perpauseko inongo argumenturi dagokion agerpen morfologikoa, ez bada argumentua ez den zerbaiti egotzi beharrekoa. Komunztadura *ez-argumentala* da euskararen alokutiboa, ikusten denez (Oyharçabal 1993). Tipologikoki ezaugarri berezia da hau ere, japonieraren honorifikoekin konpara daitekeena, esaterako. Konpara ditzagun elkarren artean ondoko bi perpausak: *Nik Joni liburuak ekarri dizkiot* eta *nik Joni liburuak ekarri zizkioat/zizkionat*. Lehenbiziko perpausean komunztadura *argumentala* egiten da, beste bietan *argumentala* eta *ez-argumentala* (§ 27.1).

**1.6i** Ez dago desberdintasunik, esanahiaren aldetik, adibide horien artean. Desberdintasun bakarra aditz laguntzailearen formari begira antzeman daiteke: *dizkiot* vs *zizkioat/zizkionat*. *Zizkioat/zizkionat* adizkiek jasotzen dituzte banaka-banaka lehen aipatu ditugun komunztadura morfema guztiak, baina morfema berri bat ere gaineratzen du: *-a/-na* morfemak, hiztunak aurrean duen solaskideari dagozkionak. Hizketa modu hau solaskideari lotua da hertsiki, eta lagunarteko erregistroan bakarrik erabiltzen da, betiere adizki jokatuekin. Beraz, euskaraz, erregistro horretan, generoa sexuarekin lotua da gehienetan: andreari modu batean egiten zaio, eta gizonari bestean. Solaskide gisa animalia bat (izan dadin arra edo emea) edo gauza bat (hiri bat, arbola bat, mendi bat, ibai bat...) hartzen denean, genero markatugabea erabiltzen da (gizonari egiten zaiona bezalakoa, *tokakoa*; andreari egiten zaiona *nokakoa* da), euskalki batzuetan bederen (Lafon 1947: 373-394).

Adizki horiexek dira, hain zuzen, komunztadura ez-argumentaleko morfemek eta alokutibo formek sortzen dituztenak. Komunztadura ez-argumentala diogu morfema horiek ez direlako perpauseko inongo argumenturen adierazpide morfologikoak, perpausetik kanpo dagoen solaskidearenak baizik. Kontuan izan morfema horiek benetako argumentu bati balegozkio, orduan argumentu hori agerian egon litekeela perpausean, baina hori ezinezkoa da: *\*Nik hiri Joni liburuak ekarri zizkioat/nat*. Azken batean, alokutiboa ezinezkoa da baldin eta perpausean (eta adizkian) bigarren pertsonako argumenturen bat bada: *\*Nik zuei esango zizueat*. Adizki hori —holako zerbait eskatzen du aditzaren morfologiak— ez da existitzen euskaraz.

**1.6j** Alokutiboen komunztadura ez-argumentala izan arren, gainerako komunztadura argumentalarekin batera jarritz gero, orduan, lau komunztadura arteko sistema du euskarak (subjektua, osagarri zuzena, zehar-osagarria eta alokutiboa), eta hori oso kasu bakanetan aurki daiteke munduko hizkuntzetan: bat aipatzekotan, eta diferentziak diferentzia, Kaukasoko abazera ekar dezakegu hona, nahiz badiren desberdintasunak. Abazeraren adizkerak aditz ditransitiboetako hiru argumentuekin komunztadura egiten du (euskarak bezala), eta gainera adjuntu zenbaitekin ere komunztatzen da (O’Herin 2001: 477-493). Baina kontua bestelakoa da aipatu hizkuntza horretan, itxurazko parekotasu-

nak badira ere: abazeraren komunztadura jokoak xeheki azaltzen dituen lan horrek ez du aipatzen komunztadura alokutiborik.

## 1.7. Euskara *pro-drop* hizkuntza da

**1.7a** Askotariko komunztadura izan da aipatu dugun azken bereizgarria eta batzuen ustez, bederen, beste ezaugarri tipologiko batekin lot daiteke, hots, *pro-drop* hizkuntza izatearekin, nahiz eta bi ezaugarriak ez diren nahitaez uztartzen. *Pro-drop* deitura *pronoun dropping*-en laburdura da, hots, izenordaina isiltzeko hizkuntza batzuek erakusten duten gaitasuna. Horrela *nik hari liburuak ekarri dizkiot* esaten dugu, baina berdin esan dezakegu, aditz-argumentuen arteko erlazioez informaziorik galdu gabe, *ekarri dizkiot*. Jakina, izenordaina galdegaia baldin bada ezin dugu isildu: norbaitek *nork ekarri dizkio hari liburuak?* galdetzen badu, ezin da erantzun “\*ekarri dizkiot”. Horretaz gain, esan, horrela esaten da gainera, gehienetan, aditza besterik ez, baldin testuingurutik badakigu ekarri ditugun zer horiek liburuak direla.

**1.7b** *Ekarri dizkiot* adizki soileko perpausa dugu hau, eta hor ez daude agerian, ez subjektuari, ez zehar-objektuari, ezta osagarri zuzenari ere dagozkien pertsona izenordainak: *nik, hari* eta *haiak*, hurrenez hurren. Izenordain horiek guztiak isildu egin dira eta isildu arren, gramatikala da perpausa. Izenordainak isiltzeko gaitasuna duten hizkuntzei deritzegu *pro-drop* hizkuntzak: euskara eta japoniera dira bi adibide ezagun. Beste hizkuntza batzuetan, isildu daitekeen izenordain bakarra subjektuarena baino ez da, eta halakoetan, subjektu isileko hizkuntzez hitz egiten dugu. Gaztelania edo katalana dira halako hizkuntzak. Adibidez, *vengo tarde* ‘berandu nator’ esan daiteke *yo* ‘ni’ pertsona izenordaina isilduz eta ez da perpaus ez-gramatikalik sortzen, baina hortik aurrerako osagarri zuzena edo zehar-osagarria ezin daitezke isildu. Adibidez, *\*traigo tarde* ‘berandu dakart’ soila jasotzen duen perpausa ez-gramatikala da gaztelaniaz (berdin *\*J’apporte retard*), hau da, dakardan “hori” agerian adierazi behar dugu pertsona izenordaina isildu gabe: *lo traigo tarde* ‘berandu dakart’.



**1.7c** Beste hizkuntza batzuetan, aldiz, ezin daiteke ezta subjektua ere isildu, eta ez bestelako argumenturik, noski. Hizkuntza erromanikoen artean, hori gertatzen da frantsesez, adibidez, eta hizkuntza familia horretatik kanpo, ingelesez: *\*viens*, *\*come*. *Je viens* eta *I come* esan behar da nahitaez. Hizkuntza hauetan hainbestekoa da subjektu ageriaren (“entzuten” den subjektua esan nahi dugu) premia, non izenordain espletiboen bidez bete behar baita subjektuaren egongune hori. Euskaraz, adibidez, *gaur euria egingo du* esango genukeen lekuan, ingelesez edo frantsesez ezin baita esan *\*today will rain* eta *\*aujourd’hui pleuvra*. Subjektu betegarri bat eman behar da perpaus gramatikala izango bada: *today it will rain* eta *aujourd’hui il pleuvra*.

## 1.8. Aditz laguntzailearen txandakatzea

**1.8a** Ikusten denez, asko dira euskarak dituen bereizgarriak: besteak beste, SOV hizkuntza da, hizkuntza ergatiboa, baita *pro-drop* hizkuntza ere. Horiek guztiak, ikusi dugun gisan, euskararen ezaugarriak dira, eta beste hizkuntza asko guztiz desberdinak dira puntu horietan. Hizkuntzen arteko desberdintasunak parametroen bidez azaltzen ditugu, parametroak baitira hizkuntzen arteko aldakortasun ardatzak: adibidez, hitz hurrenkeraren parametroari zor zaio euskara SOV hizkuntza izatea (buru-parametroa da bere izen teknikoa), ergatibotasunaren parametroari hizkuntza ergatiboa izatea, *pro-drop* parametroari *pro-drop* izatea. Alabaina, aldakortasunaren parametroak ez dira nahikoa izan hizkuntzen alderdi bereizgarriak azaltzeko, eta parametro horietatik kanpo bilatu behar ditugu euskarak eta beste hizkuntza batzuek erakusten dituzten zenbait ezaugarri berezi. Horietako bat da, adibidez, *aditz laguntzailearen txandakatzea*.

**1.8b** Bereizgarri horietaz (eta gainerakoez ere), hiztuna ez da ohartu ere egiten, baina esanguratsua da euskara beste hizkuntza batzuekin alderatzen dugunean. Ikus ondoko perpaus hauek, esate baterako: *Zu berandu etorri zara*; *Zuk trena galdu duzu*.

Izatez, bi perpaus ditugu hor, aditz intrantsitibokoa lehena (*etorri*) eta trantsitibokoa bigarrena (*galdu*), eta aditz mota bakoitzarekin aditz laguntzaile bat edo

bestea darabilgu: *izan* laguntzailea *etorri* aditz intrantsitiboarekin eta *\*edun* laguntzailea *galdu* aditz trantsitiboarekin. Ohartzen garenez, *\*edun* laguntzaileari aurretik izartxoak jartzen zaio ez delako berez dagoen-dagoenean, forma horrekin, ager daitekeen aditza, *izan* ager daitekeen bezala (*etxean izan da / \*arazoa edun du*): datu morfologikoen arabera, berreraikitako forma da. Beraz, *izan*/*\*edun* aditz laguntzaileen artean hautatzen du euskarak, aditz nagusia eta perpausa nolakoa den: *Txakurra etorri da*; *Esan duena entzun dugu*. Kontura gaitezen, zer adierazi nahi dugun argi uzteko, ez dela hori gertatzen gaztelaniaz, adibidez: *Ha venido el perro*; *Hemos oído lo que ha dicho*. Bietan *haber* aditza dugu, ez euskaraz bezala bi aditz.

**1.8c** Datiboa erants dezakegu batzuetan, eta aditz berak erabiltzen ditugu orduan ere: *Txakurra etorri zaigu*; *Esan duena entzun diogu*. Batzuetan aditzek berez eskatzen dute datiboa: *Niri kakaoa gustatzen zait / Nik zuri katilua eman dizut*. Adibidez, *gustatu* aditz psikologikoa dugu lehen perpausean, datibo eta absolutibo argumentuak hautatzen dituenak, eta *zait* adizkian ikus daitekeenez, *izan* bera da aditz laguntzailea, nahiz eta datibo komunztadura ere biltzen duen. *Eman* aditz trantsitibo datibodunarekin (ditrantsitibo ere deituak), berriz, *dizut* adizkia dago. Adizki horretan ez dugu morfologikoki agerian *\*edun*-en aditz erroa, hots, *-u-*, *dut* forma datibo komunztadurarik gabe ez bezala. Alabaina, printzipioz *\*edun* bera dela uste izan dute gramatikari batzuek. Beste batzuek, aldiz, kontuan izanik euskalkien arabera *deutsut*, *dautzut*, *derautzut*, *deizüt*... moduko adizkiak erabiltzen direla, *-i-* horretan (*dizut*) aditz baten erroa ikusi dute. Zernahi gisaz, aditz laguntzailearen hautaketa, hemen ikusten den gisan, zabaldu egiten da datiboa gaineratzen duten egituretara ere. Azkenik, hautaketa hori are konplexuagoa gertatzen da: *izan* eta *\*edun* aditz laguntzaile intrantsitibo eta trantsitiboaz gain, *\*edin* eta *\*ezan* aditz laguntzaileak ere erabiltzen baitira euskaraz, denbora eta modua zein den, geroago (ikus 26. kapitulua) xehetasunez azalduko dugun bezala<sup>13</sup>.

---

<sup>13</sup> Batasunean hartu den ereduaz ari gara, jakina. Esan dugu euskalkietan beste aditz batzuk ere erabiltzen direla laguntzaile gisa. Horien artean daude *eutsi* (*\*edutsi*), *egin*, *\*iro(n)*, *\*eradun* bezalakoak: *esan deutsat*, *esan leike*, *ikus diro*, *erran derautzut*...

**1.8d** Frantsesak edo italierak ere bereizten dituzte aditz laguntzaileak, eta banaketa hori antzematen da baita aditza intrantsitibo absolutiboduna edo intrantsitibo ergatiboduna denean ere (*je suis venu / j'ai skié* edo *sono venuto / ho sciato*), euskararen antzera. Beste hizkuntza batzuek, ordea, aditz laguntzaile bakarra erabiltzen dute forma analitiko batzuetarako (adizki perifrastikoak, esan nahi dugu): gaztelaniak, esaterako, *haber* aditz laguntzailea erabiltzen du predikatu intrantsitibo (*he venido* ‘etorri naiz’) zein trantsitiboekin (*he leído un libro* ‘liburu bat irakurri dut’). Baina egituraz aldatzean posible da beste aditz laguntzaile bat aukeratzea: berriz ere gaztelaniara itzuliz, *ser* aditz laguntzailea ageri da egitura pasiboetan, adizkietan (*fue arrestado* ‘atxilotua izan zen’).

Beste hizkuntza batzuek, ordea, ez dute halako aditz laguntzaile hautaketarik erakusten: hori gertatzen da txekieraz edo bulgarieraz, adibidez, eslaviar hizkuntzen arteko bi aipatzeagatik.

**1.8e** Ondoko bi perpaus hauek dira, orain arte esana kontuan hartzen badugu, euskararen egitura arruntenak: *Jendea etorri da; Jendeak gezurrak esaten ditu*. Intrantsitiboa lehenbizikoa, trantsitiboa bigarrena. Aditz laguntzailea *izan* da lehenbizikoan, eta \**edun* bigarrenean. Aditz laguntzaileez ari garenez, aipa ditzagun beste zenbait kasu, non ikus baitaiteke laguntzailearen aldaketa hori beste egitura batzuetan. Har dezagun, adibidez, *jendeak gezurrak esaten ditu* perpausa. Horren parean jartzen ahal dugu orain *gezurrak esaten dira*. Izatez inpersonala da, baina hemen egitura interesatzen zaigu. Aurrekoarekin erkatuz, han objektu zuzena zena (*gezurrak*) orain subjektu bihurtu da. Ikus daitekeenez, honek pasiboen itxura hartzen du. Pasiboen eredu garbia duten hizkuntzetan (gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez...) gramatikariek aldaera horren berri eman dute. Nolabait esateko, objektu zuzena subjektuaren tokira igo dela esaten da, eta aktiboan subjektu zena orain “por”, “par” edo “by” bezalako preposizioek osatutako sintagma batean biltzen dela: *por el profesor; par le professeur; by the teacher*. Egia da *gezurrak esaten dira* bezalako perpaus batean ez dugula holako postposizio sintagmarik (\**gezurrak esaten dira jendeaz*), eta irakurketa beti inpersonala dela, ez baitute egile gauzaturik onartzen. Argumentuen kopurua murriztu egiten da, eta haien nolakotasuna aldatu.

Bestela, egitura pasiboen aski antzekoa dela esan daiteke. Hor ere laguntzailea aldatu da: \**edun* → *izan*.

**1.8f** Dakigun gisan, hala ere, euskal literaturan, batez ere ipar-ekialdeko idazleen lanetan, badira euskaraz beste hizkuntzetako pasibo “arruntak” bezalakoak: *Jainkoa deabruak tentatu zuen* bezalako baten pasiboa da *Jainkoa deabruaz tentatua izan zen*. Beste hauek ere parekoak dira: *Nehork, tentatzen denean, ezterrala Jainkoaz tentatzen dela; ezen Jainkoa ezin tenta daite gaizkiz, eta nehor eztu tentatzen*, hau da, ‘Inork ere, norbaitek tentatzen duenean ez dezala esan Jainkoak tentatzen duela; ezen Jainkoa ezin tenta dezake gaizkiak, eta berak ez du inor ere tentatzen’.

*Jainkoaz* (edo *deabruaz*, gorago) postposizio sintagma sintaktikoki adjuntu bat da (*deabruak* ez bezala), baina horrek ez ditu gauzak gehiegi aldatzen. Literatura tradizioko adibide gehienak (ez dira gehiegi) tankera horretakoak dira: *deabruaz poseditua, deabruaz tormentatua, deabruaz tentatua...*

Egitura hori duten perpausak ikus daitezke testuetan, batez ere testu klasikoe-tan, esan bezala, baina aise gutxiago hizkera mintzatuan. Ez dute gramatikar-ien artean izen ona izan holako egiturek, eta hizkuntza kalkotzat hartuak izan dira<sup>14</sup>.

**1.8g** Egitura pasiboak haien kideak diren egitura aktiboekin daude harremanetan: *Deabruak Jainkoa tentatu zuen* egitura aktiboak badu parean beste aldaera pasibo bat, *Jainkoa deabruaz tentatua izan zen*. Biek esanahi bera dute. Baina egiturak aztertzen baditugu, egitura aktiboan bi argumentu daude, subjektua eta osagarria; aldiz, egitura pasiboan, lehengo osagarria, *Jainkoa*, orain-go subjektua da, eta lehengo subjektua, *deabruak*, isil daitekeen adjuntu (*deabruaz*) bat izatera igaro da. Kontuan izan behar dugu, esaten dugunaz jabetzeko, argumentuak (subjektua, osagarria eta zehar-osagarria) perpausako partaide nagusiak direla eta adjuntuak, ordea, sintaktikoki periferikoak. Ordea, sare estu horretatik kanpo daude adjuntu deitzen ditugun sintagmak: *gaur*,

---

<sup>14</sup> Bestetik, *Jainkoa deabruagatik tentatua izan zen* gisako perpausak ere, itxuraz pasiboak, aipatu izan dira inoiz.

*adiskidearekin, goizik, hamar eurotan, deabruaz...* Horregatik, azkeneko horiek, muineko partaideak ez direnez, isil daitezke edo besterik gabe ez dute zertan agertu.

**1.8h** Aipa dezagun, pasiboen multzo honetan beste egitura bat ere aski deigarria gerta daitekeena: *Etxe hau deabruak egina da*. Aurrekoak bezalakoa da (*etxe hau deabruaz egina da*), komunztadura eta sintagmen kokapena berdina delako: badugu subjektu bat (*etxe hau*), *izan* aditza (*da*), komunztadura arrunta (*etxe hau handia da* esaten dugunean bezala), baina orain bada argumentu bat ergatiboan, berari legokiokeen laguntzailerik gabe. Ergatiboak *du* laguntzailea eskatzen du, baina hor *da* dugu. Egitura hauek guztiak ikusiko ditugu, baina ohar gaitezen *etxe hau deabruak egina da* edo *etxe hau deabruak egina du*, bietara esaten dugula. Ez gara hemen barneko egituraz ari: segur aski ere, egitura diferenteak daude hor perpausean, egitura konplexuak nolana ere, Trask-ek (1981: 301), Brettschneider-ek (1979: 371-384) eta Wilbur-ek (1979) esan duten gisan. Hemen aditz laguntzailearen aldaketen berri eman nahi dugu, ez besterik. Eta, ikusten denez, aditz laguntzaile desberdinak ditugu.

**1.8i** Ez dira horietan bukatzen eredu hedatuenetik (intrantsitibo/trantsitibo arruntak) urruntzen diren egiturak. Badira *etorri naiz / etorria naiz* bezalakoa, eta *ikusit dut / ikusitak ditut* moduko bereizketak. Baina perpaus horien egitura edozein dela ere, ez da hor aditz laguntzailea aldatzen, eta ez ditugu, hortaz, hemen azalduko. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, beste bikote honekin: (*Nik*) *gauza asko ikusi dut* / (*Ni*) *gauza asko ikusia naiz*. Hor bai gertatu da aditzaren aldaketa. Rebuschi-k (1984: 437-448) antipasibo deitu zituen holako egiturak, 1972an Silverstein-ek<sup>15</sup> proposatutakoari jarraiki. Laguntzailea aldatu da, baina komunztadura ez du abiapuntuko objektu zuzenarekin egiten (pasiboetan: objektu zuzena → subjektu), baizik lehenago ere subjektua zenarekin (subjektu ergatiboa → subjektu absolutiboa). Hor aldaketa bat gertatu da, baina aldaketa hori ez da pasiboetan gertatzen dena bezalakoa. Horregatik deitu zitzaien “antipasibo” egitura hauei, pentsatzekoa da. Gero euskal gramatikariek ere terminologia hori erabili dute (EGLU La-

---

<sup>15</sup> Kontu honetaz Wolfgang Schulze (2010) ere ikus daiteke.

burra 1993: 18, lekuko, edo Zabala 2003: 431). Baina handik urte batzuetara Rudolf de Rijk irakasleak kritika egin zion Rebuschiri, kontzeptu hori beste zerbaitetarako —itxuraz antzekoa, ez ordea edukiaz— proposatu baitzuen Silversteinek. De Rijkke egitura parapasiboak deitzen ditu holakoak: *Gauza asko ikusia naiz*. Egiatzko antipasiboak txuktxieraz eta maia hizkuntzetan aurki daitezke.

**1.8j** Baina *gauza asko ikusia naiz* bezalakoak ez badira antipasiboak, badira, hala ere, egitura antipasiboak euskaraz? Bai, de Rijken ustez (2008: 766-769). De Rijkke dioenez, Ortiz de Urbina (1989: 203, 15. oin-oharra) izan zen lehenbiziko ikertzailea egitura hauek zuzen kokatu zituen. Holako egitura gutxi ditugu, egia da. Segur aski aditz trantsitiboetatik sortuak dira, baina prozesua ez da emankorra. Antipasiboak dira *baliatu* aditzarekin sortutakoak, adibidez: *Liburu horretaz baliatuko dira*. Aditz hori erabili izan da historian, eta gaur ere Iparraldeko euskalkietan, aditz trantsitibo arrunt bezala: *Liburu hori baliatuko dute*. Badirudi egitura trantsitibo arrunt horretatik sortzen dela *liburu horretaz baliatuko dira* egitura antipasiboa. Antipasiboak gertatzen dira beste aditz batzuekin ere: *ahaztu* (*Andoni ahaztu dut / Andoniz ahaztu naiz*), *gogoratu* (*Andoni gogoratu dugu / Andoniz gogoratu gara*), *oroitu* (*oroituko zaitugu / zutaz oroituko gara*), *gozatu* (*film hori gozatu dugu / film horretaz gozatu gara*), eta beste gutxi batzuk. Baina prozesua ez da egun emankorra, eta ezin da esan, hortaz, egungo euskararen egitura antipasibo hauek sistematikoki aditz trantsitiboetatik sortzen direla. Ikusten denez, hauetan guztietan ere gertatzen da aditz laguntzailearen aldaketa.

## 1.9. Euskararen ezaugarrien laburpena

Ahaiderik gabeko hizkuntza dugu euskara. Horregatik nahi izan ditugu kapitulu honetan bildu hizkuntza honen ezaugarri nagusiak. SOV hurrenkerakoa da gure hizkuntza, egitura ergatiboduna (batzuetan “hausten” dena, hala ere). Hizkuntza postpositiboa da, eta burua sintagmaren amaieran ageri da gehiengotan. Ez du deklinabiderik, baina aditz laguntzailearen eta argumentuen arteko

komunztadura biziki aberatsa du. Horregatik isil ditzakegu izenordainak (*pro-drop* hizkuntza da), eta egiturak nolakoak diren, laguntzailearen aldaketak gertatzen dira.

Gauza asko aipatu ditugu hemen, eta batzuk gehiegi azaldu gabe gelditu dira. Baina hau sarrera baizik ez da, egitura kontuetako gai horiek guztiak bere tokian azalduko baitira.





## 2. Perpausak: sintagmak zer diren

---

- 2.1. Gramatika, perpausak sortzeko gailua
  - 2.2. Perpausaren osagaiak
  - 2.3. Hitz klaseak
  - 2.4. Banako lexikoak eta banako funtzionalak
  - 2.5. Sintagmen izaera orokorra
  - 2.6. Kategoria lexikoak, sintagmaburu
  - 2.7. Izena eta ISa
  - 2.8. Adjektiboa, AdjSaren buru
  - 2.9. Adberbioa, AdbSaren buru
  - 2.10. Postposizioa eta PSa
  - 2.11. Aditza eta ASa
  - 2.12. Kategoria funtzionalak, sintagmaburu
  - 2.13. Determinatzailea(k) eta DSa
  - 2.14. Inflexioa, perpausaren (= Inflexio sintagmaren) buru; 2.14.1. Perpaus jokatuetako inflexioa; 2.14.2. Perpaus jokatugabeetako inflexioa
  - 2.15. Konplementatzailea, KonpSaren buru
  - 2.16. Juntaduraren arazoak
  - 2.17. Interjekzioak, esaldi mailako elementuak
- 

### 2.1. Gramatika, perpausak sortzeko gailua

**2.1a** Hizkuntza perpaus multzo bat dela pentsa daiteke, mugarik ez duen multzo bat. Gramatika, berriz, perpaus horiek “sortzeko” tresna bat da, multzo az-

kengabe honetako perpausen berri ematea du helburu. Hizkuntza baten gramatikak hizkuntza horretako perpausen, perpaus guztien, berri eman behar du. Perpausen “berri ematea” eta perpausak “sortzea” gauza bera liriateke. Azken batean, gramatika hizkuntzaren modeloa dela esan dezakegu. Horrela, euskal gramatikak esango digu, adibidez, *noiz erositako arraina duzu hau?* euskara dela, euskal gramatikak sortutako perpausa baita, honako hau ez bezala: *\*noiz arraina erositakoa duzu hau?* Gaztelaniazko gramatikak, adibidez, perpaus honen tankera berekorik ez du onartzen. Ezin esan daiteke gaztelaniaz *\*pescado cuándo comprado es éste?* edo *\*el pescado que quién compró es éste?* Euskaraz, berriz, honako hau ere zuzena da: *nork erosi zuen arraina da hau?* Euskal perpaus erlatiboen barnean erraz sartzen dira galde hitzak. Gaztelaniaz ezina da. Gaztelaniak beste itzuli batera jo beharra du. Gure kasuan: *quién compró este pescado?* Euskaraz, modu honetan ere eman daiteke: *nork erosi zuen arrain hau?* Bide beretik, euskaraz *noizko arraina da hau?* nahiz *noizkoa da arrain hau?* galde daiteke. Gaztelaniaz aukera bakarra da: *de cuándo es este pescado?* Eta ez *\*pescado de cuándo es éste?* Horregatik, hizkuntza bakoitzak bere gramatika duela esan daiteke, dagokion hizkuntzako perpausak sortzen dituen.

**2.1b** Horrenbestez, gramatikak sor dezakeen eraikin nagusia perpausa da eta perpaus honen berri eman behar du. Perpausa zerbait bada, gramatika kontzeptu bat da, gramatikari dagokion eraikuntza teoriko bat, abstraktua. Gramatikatik kanpo ez dago perpausik. Gramatikariek asmatu zuten, aspaldi, kontzeptu hau, errealitatean diren zenbait gertakari esplikatzeke asmoz sortu ere. Hizkuntza errealitatea da, gizakiok errealitatean dugun gaitasun bat. Gramatikak aipatu dugun hizkuntza gaitasun horren berri eman nahi du. Berriemate horren ondorioz sortu da *perpaus* kontzeptua, beste kontzeptu asko ere asmatu diren bezalaxe, adibidez, *aditza*, *izena*, *artikulua*, *modua*, *adberbioa*, *adjektiboa*, *subjuntiboa*, *infinitiboa*, *aditz izena*, etab. Perpausa gramatikaren oinarri-oinarrizko kontzeptua da, dena dela. Perpausa adizki batez (*erosiko nuke*, *etorriko naiz*, *goazen*, *etortzeko*, *esanik*...) eta honen inguruan doazen zenbait osagaiz osatua dagoela kontsidera dezakegu: DSak, AdbSak, mendeko perpausak, izen predikatuak...

Hizkuntza, azken batean, gizakiak duen *jakite* bat dela esan ohi da. Eta hiztunak hizkuntza dakienean, hitz egiten dakienean, alegia, zer dakien galdetuz

gero, erantzun beharko genuke azken finean esaldiak osatzen dakiela. Esaldi gehienen azpian perpausak ditugu. Adibidez, *adio!* edo *di-da* esaldiak izan daitezke, baina ez perpausak. Horrenbestez, hiztuna bere hizkuntzako perpausak direnak ez direnetatik bereizteko gai dela esan behar. Perpaus zuzenak eta zuzenak ez direnak bereizteko gai dela eta abar.

**2.1c** Perpausa da gramatikaren banako nagusia. Esan nahi da, gramatikarentzat ez da perpausa baino goragoko banakorik, perpausa baino nagusiago izango litzatekeen bestelako unitaterik. Alegia, nolabait esateko, hotsek hitzak osatzen dituzte (*kale* < k+a+l+e, *eder* < e+d+e+r eta abar); hitzek, berriz, sintagmak (*kale eder hauek* < kale + eder + hau-e-k; *herri maite honetan* < herri + maite + hon-e-ta-n...); eta sintagmek beste sintagma nagusiago batzuk (*gure herri maite honetako kale ederrak* < gure + herri + maite + honetako + kale ederrak). Eta azkenik, perpausa deitzen duguna: *Gure herri maite honetako kale ederrak zaborraz bete dituzte*. Jakina, perpausa bera ere, sintagma bat izango da, sintagma nagusia, hain zuzen.

Gramatika, hortaz, perpausak osatzeko gailu bat da. Sukaldaritzak hainbat jaki prestatzeko errezetak ematen dizkigun bezala, gramatikak ere hainbat perpaus osatzeko bidea ematen digu. Hainbat perpaus ez ezik, perpaus kopuru azkengabea. Kopuru azkengabea, betiere beste perpaus bat gehiago eranstekeo gai izango baikinake, perpaus ustez luzeena baino beste bat luzeagoa erraz asma baitaiteke beti: *hori badakigu* > *hori badakigula uste du* > *hori badakigula uste duen orok gauza bera esango dizu* > *hori badakigula uste duen orok gauza bera esango dizulako ustea okerra da* > *hori badakigula uste duen orok gauza bera esango dizulako ustea okerra den bitartean...* Hortaz, perpausak sortzeko ahalak ez du mugarik, teoriarik behintzat. Eta gainera, elementu kopuru mugatu bat erabiliz mugarik ez duen perpaus kopurua osatzeko bidea ematen digu. Gramatikak hizkuntza gaitasun honen berri emateko gauza izan behar du.

Asmatu dugun azken perpaus hori berori ez da oso erraz prozesatzeko modukoa eta, horrenbestez, hizketa arruntean ere nekez osatuko ditugu holakoak. Baina gramatikak nahi adina perpaus osatzeko bidea eskaintzen die hiztunenentzulei.

## 2.2. Perpausaren osagaiak

**2.2a** Gramatikak esaten badigu zer den perpaus eta zer ez, gramatikak esango digu, halaber, zein diren perpausa osatzen duten atalak. Atal horiek bata bestearen segidan lerrokatuak egon behar dute nahitaez, eta, gainera, egitura-tuak. Gramatikan jasoak egon daitezke egitura horiek taxutzeko jarraitu beharreko arauak.

Hitz egiten dugunean hotsak kateatzen ditugu. Hots horiek esanahi jakin bat izan ohi dute. Asmo horrekin kateatzen ditugu, hain zuzen. Gramatikaren eginkizuna hotsen eta esanahien arteko erlazio horren berri ematea da. Baina nola gertatzen da bien arteko lotura? Hotsak ez dira nolanaahi elkartzten. Hitzak ere ez dira edozein eratan osatzen. Adibidez, *maltzurkeria*, *elebitasun*, *gorrotatzen* euskal hitzak dira, ondo eratuak daude edozein euskaldunen iritziz, beste honako hauek ez bezala: *\*keriamaltzur*, *\*bieletasun* edo *\*tze gorrotan*. Hitzak ez dira hotsak nolanahika elkartzuz osatzen, edo hitz atalak edozein modutan antolatuz. Hitzok ere ez dira nolanaahi elkartzten. Edozein euskaldunek badaki hitz segida batzuk zilegi direla (*emakume guztiak*, *etxeko lan batzuk*, *elebitasun ofiziala...*), eta beste batzuk ez (*\*guztiak emakume*, *\*batzuk lan etxeko*, *\*ofizial elebitasuna...*).

**2.2b** Bestalde, hitz segida bera modu batera edo bestera interpreta daiteke, nolako egitura esleitzen diegun. Adibidez, *gure etxeko lanak* bi modutara interpreta daiteke: *[[gure etxeko] lanak]* edo *[[gure [etxeko lanak]]]*. Seinale, itxuraz berdinak diren hitz segida horiek era desberdinean *egituratuak* daudela. Berdin, adibide konplikatuagoa ematearren, *nork esan dizu egingo duela?* bi eratara ulertzen ahal da: *[nork esan dizu [egingo duela]]* nahiz *[[nork egingo duela] esan dizu]*. Hemen, hitz hurrenkeraz harago, bada egiturari dagokion konturen bat. Hortaz, *egitura* kontzeptua funtsezkoa gertatzen da gramatikan ere. Hain zuzen, hizketan sortzen diren hots horiek (eta hauen irudikapen idatzian beste horrenbeste) erakusten duten hurrenkeraz gainera, egitura abstraktu bat osatzen dutela pentsatu behar da. Alegia, ez daudela nolanaahi bata besteari itsatsiak. Beraz, esanahi bat baino gehiago izan dezake, axalean itxura bakarrean agertzen bada ere. Horrek esan nahi du hotsen eta esanahien arteko

lotura hori aski konplexua dela. Hau ere hiztunaren jakite baten parte da, hizkuntza jakitearen parte eta, hortaz, gramatikaren parte ere bai. Horren berri ere eman behar du gramatikak, horrenbestez.

### 2.3. Hitz klaseak

**2.3a** Gramatikaz hitz egiten hasteko, hitzak datozkigu berehala gogora. Hitz guztiak, ordea, ez dira klase berekoak. Adibidez, *emakume, etxe, hiri...* moduko hitzak klase batekoak direla esan ohi dugu, izen klasekoak, hain zuzen, eta *polit, amorragarri, gorri, handi...* beste batekoak, adjektiboak. Badira, halaber, batzuetan klase bateko eta beste batzuetan beste bateko jokatzen dutenak: *busti, eraso, eragin...* zenbaitetan aditz dira, baina izen edo adjektibo gisa ere lan egin dezakete.

Hortaz, hitzak dituzten ezaugarrien arabera (beste hitzekin konbinatzeko aukeren arabera, edo erakuts dezaketen morfologiaren arabera), klaseka bana daitezke, kategoriaka (§ 11.1). Gramatika tradizioan hala banatu izan dira. Horrela, bereizi ohi dira: izenak (*etxe, asto, nagusitasun, lotsagabekeria...*), aditzak (*etorri, joan, gorrotatu, irakurri...*), adjektiboak (*aldapatsu, gorri, handi, nazkagarri, polit...*), adberbioak (*atzo, beti, gero, nekez, ongi...*), determinatzaileak (*bera, edozein, hauek...*), kuantifikatzaileak (*bost, bakoitz, oro...*), juntagailuak (*ala, baina, edo, eta, nahiz...*), postposizioak (*-gatik, -kin, -n, -tik, -ra...*).

Hortaz, hitzak kategoria desberdinetan koka ditzakegu.

**2.3b** Hitzak sailkatzeak tradizio luzea du, eta arazo bat baino gehiago sortzen zaizkio gramatikariari nahiz hiztegiileari sailkatze honetan. Adibidez, aurreko zerrendatxo horretan sartu ditugu postposizioak ere, baina halakotzat eman ditugun *-n, -tik, -ra*, etab. hitzak direla onartzea ez da hain erraza. Beste hizkuntza batzuetan preposizioek bere lekua dute hiztegian (gazt.: *a, de, desde, para, por...*; lat.: *ad, in, inter, pro...*; ing.: *for, in, into, to...*). Hauen kideko lirarteke euskaraz: *-(r)en, -(r)i, -n, alde, artean...* Hauek denak ez dira euskal hiztegietan aurkitzen, *alde* eta *artean* izan ezik. Helburu gisa, nolana ere,

inork ez dio uko egiten sailkatze lan honi. Hiztegieta hitzak biltzen dira eta postposiziotzat eman ditugun elementu horiek ez dira jasotzen, morfema itsatsiak baitira. Aldiz, gaztelaniazko edo gure inguruko beste hizkuntzetako hiztegieta gure postposizio horien pareko bide diren preposizioak argiro jasoak ageri dira, eta zein kategoriatakoak diren ere esaten da. Euskal hiztegieta osagai morfologikoen berri ematen ezin hasiko gara. Gramatika, ordea, ezinbestekoa da. Gramatika hitz klaseez baino areago morfema klaseez mintzatu beharko genuke edo gramatika kategoriez, oro har. Hitzen edo morfemen kategoria zein den esateari ez diogu uko egin nahi izaten, nahiz eta askotan egin kizun hori zaila gertatzen den. Hiztegieta hitzak soilik jasotzen dira, eta batzuetan samurra da hitz jakin bati zein kategoria dagokion erabakitzea, baina beste batzuetan arazo gehiago izan daitezke, hiztegieta beretan agerian jartzen den bezala. Esaterako, *beste* edo *bera* moduko sarreretan, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ez du hitz hauen kategoria zehazten<sup>1</sup>.

**2.3c** Dena dela, morfemak edo hitzak banatzerakoan jakin behar dugu zenbat klase bereiziko ditugun eta zein irizpideren arabera sartzen dugun hitz jakin bat klase batean edo bestean.

Sintaxiari dagokionez, ohikoa da gure inguruko hizkuntzen gramatiketa, eta gurean ere bai hein handi batean, honako hitz klase hauek bereiztea: artikulua, izena, adjektiboa, izenordaina, aditza, adberbioa, preposizioa eta interjekzioa. Gure artean, jakina, preposiziorik ez da aipatzen, baina bai postposizioa. *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren izenlagun* hitz klasearen ondoan, *izenondo* ere bereizten da: *on*, adibidez, izenondoa da, baina *ondo*, *ongi*, adizlaguntzat ematen dira.

Beraz, bi arazo ditugu: 1) zenbat kategoria bereizi behar diren, eta 2) zein irizpideren arabera kokatuko dugun hitz edo morfema jakin bat kategoria batean ala bestean (§ 11.2). Kategorien zerrenda aldatuz joan da denboraren arabera, eta baita hitz batzuen kategoria esleipena ere. Zenbait hitzen kategoria zein

---

<sup>1</sup> Biak kategoria bereko dira, determinatzaileak, egituraz konplexuak: *bera* < *ber* -*a* (cf. *Ber gizon-a*) eta bigarrena kontrakoa, *beste* < *ber* *ze* (*ber* -*ez* *gizon* -*a* > *bertze* *gizona*).

datekeen ere ilun dago. Adibidez, *bider* hitza (cf. *zenbat bider*) zein kategoriatakoa den zalantzak izan ditzakegu. Zenbatzailez lagundurik agertzen denez, izen kategoriakoa dela pentsa liteke (*zenbat bider / zenbat egun*), baina *zenbat egunetan* esan daitekeen bezala, \**zenbat biderretan* ez da esaten. Horrenbestez, postposizioa izan daiteke edo adberbioa. *Aldiz* ere hala izango da? Alegia, *bi aldiz* [[*bi aldi*] -z] gisa analizatu behar dugu ala [*bi aldiz*] adberbio gisa, *behin* bezala? Galderak nonahi.

## 2.4. Banako lexikoak eta banako funtzionalak

**2.4a** Gramatikaren eginkizuna, arestian esan bezala, perpausak “sortzea” bada, eginkizun horretarako zer motatako elementuez baliatzen garen jakitea nahitaezkoa da, denak ez baitira mota berekoak. Nolanahi ere, bi mota nagusi bereiz daitezke: *banako lexikoak* eta *banako funtzionalak* (§ 11.3). Gramatikagintza, eta sintaxia bereziki, arkitekturarekin konpara daiteke, batak etxeak zer diren eta nola eraikitzen diren esaten digu, eta besteak, berriz, perpausak zer diren eta nola eratzen diren. Etxe bat egiteko modu askotako gaiak behar ditugu, ez bakarrik adreiluak, habeak, oholak, teilak, leihoak, ateak eta hola-koak, zementua, burdina, iltzeak, ura, karea, etab. ere beharko dira. Hizkuntzan ere berdin, badira osagai “nagusiak” dei genitzakeenak eta badira, nahi-taez, beste elementu batzuk.

**2.4b** Izen kategoriakoak dira munduko izaki fisikoei edo gure gogoan sortzen ditugun kontzeptu abstraktuei erreferentzia egiteko baliatzen ditugunak (*etxe, herri, txakur, mutil, irakasle, teoria, askatasun, eskubide, definizio, kontraste*, etab.).

Badira, halaber, beste banako lexiko batzuk, aipatu ditugun izaki horien propietateak adierazten dituztenak (*apal, fidagarri, gorri, handi, jakintsu, polit, zaunkari*, etab.). Hauek adjektiboak dira (§ 2.4g).

**2.4c** Badira aditzak ere. Perpausean gertaerak, ekintzak, egoerak, prozesuak deskribatzen dira. Horretarako, aditzak nahitaezko dira (*joan, mintzatu, egon, erosi, ekarri, gustatu, nahi izan, gosaldu, eskiatu...*). Aditzak munduko iza-

kiek parte hartzen duten egoerak (*bizi izan, egon, jakin...*) edo ekintzak (*erosi, edan, eskatu, joan...*) denotatzeko erabiltzen ditugun hitzak dira. Aditz jakin batek adierazten duen ekintzan edo egoeran parte hartzaile batzuk izango dira, batzuetan gehiago, beste batzuetan gutxiago. Aditz bakoitzak esango digu zenbat parte hartzaile “behar” dituen asebetetzeko eta, horrela, perpausa osatzeko. Parte hartzaile hauek munduko izaki edo entitateak izango dira, eta hauen oinarrian izenak daude (*txakur, esne, etxe, gizon...*). Adibidez, *edan* aditzak, gutxienez, bi entitate eskatzen ditu, edaria (gaia) eta edalea (egilea): [*astoak*]<sub>egilea</sub> [*ura*]<sub>gaia</sub> [*edan zuen*].

**2.4d** Aditza predikatu bat da, eta entitateen egoerak edo ekintzak predikatze-ko erabiltzen dugu. Izenak, berriz, *argumentuak* osatzeko baliatzen ditugu. Hala ere, izen arruntak, berez, eta besterik gabe, ezin dira argumentu izan. Horretarako, determinatzailearen bat behar dute: *txakurra, esnea, liburu hauek...*; *etxe guztiak, etxe oro, zenbait etxe...*; *hamar euro, bost mutiko, hiru ikasle hauek...* Izan ere, *etxe* edo *txakur, gizon...* eta antzeko izenek ez diote izaki jakin bati erreferentzia egiten, ez dute izaki jakinik denotatzen, izaki batzuen propietate bat baizik, gure kasuan *etxe, txakur* edo *gizon* izatea, alegia. Predikatu baten argumentu izango badira, determinatzailearen bat behar dute: *-a, hauek, guzti-ak, oro, zenbait, hamar...* Determinatzaile hauek markatzen digute erreferentzia. Horregatik, ezin dugu benetan perpausik sortu izen soilekin, determinatu edo kuantifikatu gabekoekin: *\*Etxe guraso gustatu da* ez da perpausa; aldiz, beste honako hau bai: *Etxe hau gurasoei gustatu zaie*. Aditz deitzen diogu, predikazioaren euskarri izan ohi den hitz klase bati.

**2.4e** Eta nola dakigu hitz bat aditza dela, aditz kategoriakoa, alegia? Nolako banaketa duen ikusi behar. Aditzaren banaketa badu, aditza izango da. Eta zein da banaketa hori? Predikazioaren gunean egotea, lehenbizi: *Mikel berandu etorri zen* diogunean, Mikeli buruz berandu etorri zela predikatzen dugu. Predikazio honen gunean *etorri* aditza dugu. Holakorik gabe nekez gauzatuko da perpaus bat.

Morfologiari begiratuz gero, berriz, aditz klaseko hitzak “jokatu” egin ohi dira: *josi, jostea, josiko / ekarri, ekartze, ekarriko...* baina baita *josi diot, esan genezake, ekar ditzagun* eta abar.



Bestalde, aditz klasekoei itsasten zaizkie konplementatzaileak ere (§ 2.15), *ba-*, *bait-*, *-(e)la*, *-(e)n*, adibidez: *Josiko diodala uste dut* (*josiko diot -(e)la*); *Ez da zaila, denok egin baikenezake* (*egin bait-genezake*); *Josi diodan botoia* (*josi diot -(e)n*); *Hori da egin genezakeen bakarra* (*egin genezake -(e)n*)...

**2.4f** Esana dugun bezala, gramatikak hizkuntzaren antolamenduaz dihardu: hitzen egituraz arduratzen da, hitzok nola elkartzen diren, gero eta egitura konplexuagoak sortuz, eta egitura hauek zer-nolako esanahia duten esanaz. Eginkizun hori modu egokian betetzeko, atal berezietan banatzen da gramatika: morfologia hitzen egituraz eta osaez arduratzen da (*eman-go n-i-e-ke*, *ema-te-ko-rik ez dut*, *egin-kizun*, *egi-le*, *egin behar*, *des-egin*...). Sintaxiak, berriz, hitzok nola elkartzen diren, zein hurrenkeratan ezartzen diren eta batak besterekin zer-nolako erlazioa duten esaten digu: *\*Eginkizun horrek emango nizkioke egileei vs Eginkizun hori emango nieke egileei*, adibidez. Hots, morfema eta hitz horiek ez dute multzo desordenatu bat osatzen. Anabasa ikaragarria litzateke hori. Hizkuntzaren errealitatea bestelakoa da: mailak daude, elementu guztiak ez dira berdinak, egiturak daude, osagaien artean erlazio bereziak daude... Hitzak zer diren eztabaidan hasi gabe ere, argi dago hitz guztiak ez direla klase berekoak. Adibidez, izen klaseko hitzak eta aditz klasekoak bereiz daitezke. *Sormen, etxe, bide*... hitzak izen klasekoak direla esaten du gramatikak, eta, aldiz, *sortu, etxeratu, bideratu*... aditz klasekoak. Eta hori ez da apeta. Izan ere, multzo edo klase bateko hitzak testuinguru jakin batean ager daitezke eta beste klasekoak beste testuinguru batean. Esaterako, *sormen ikaragarria, etxe ikaragarria, bide ikaragarria* esan daiteke euskaraz, baina *\*sortu ikaragarria, \*etxeratu zen ikaragarria da* edo *\*bideratu berandu zen* ezinezkoak dira normalean. Eta alderantziz, {*etxeratu/sortzen/bideratuko*} *dira* edo *etxeratze / sortuz gero*... zilegi diren bezala, *\*sormendu/\*sormeten/\*sormengo* ez dira ezer. Honetaz konturatzea, izen klaseko hitzak eta aditz klaseko hitzak badirela bezainbat da. Klase bereko hitzak kategoria bat osatzen dutela esango dugu. Adibidez, aditz kategoriako hitzak klase berekoak dira, aditzak. Izen kategoriakoek izenen klasea osatzen dute (§ 11.5).

**2.4g** Adjektibo klaseko hitzak ere bereizten direla esan dugu goian (§ 2.3a). Adjektiboek ere beren banaketa dute. Hauen testuingurua ere argia da, zeren

izen klasekoen eskuinaldean kokatu ohi dira, oro har: [<sub>IS</sub> gizon [<sub>Adj</sub> jator]] hura / \*[[<sub>IS</sub> [<sub>Adj</sub> jator] [<sub>I</sub> gizon]] hura; [<sub>IS</sub> talde [<sub>Adj</sub> gazte]] -a vs [<sub>I</sub> [<sub>I</sub> gazte]-talde] -a. *Gizon jator hura* sintagma bidezkoa da, baina ez, \**jator gizon hura*. Horren arrazoia da, *jator* adjektiboa izanik, ezin dela joan izenaren ezker aldean. *Talde gaztea* sintagma ere gramatikala da. Izan ere, adjektiboa (*gazte*) dagokion lekuan ageri da. Baina, orduan, nolatan da zuzena *gazte taldea* (edo *zahar etxe*), *gazte* adjektiboa *talde* izenaren ezkerrean badoa? Garbi dago: *gazte* kasu honetan ez da adjektiboa, izen elkartu baten lehen osagaia baizik ([<sub>I</sub> [<sub>I</sub> gazte] [<sub>I</sub> talde]]). Eta norbaitek zalantzarik baldin badu, adjektiboek *oso*, *hain*, *-egi*, *-ago* moduko kuantifikatzaileak onartzen dituzte; izenek holakorik ez: \*{*hain/oso...*} *gazte taldea* vs {*oso/hain*} *talde gaztea*; \**gazteegi taldea* vs *talde gazteegia*.

**2.4h** Adberbioak/postposizioak ere kategoria lexikotzat hartzen dira, hizkuntzalarien artean eztabaidagarri gertatzen bada ere (§ 11.3b). Azken batean, pentsa liteke adjektiboek izenarekin duten erlazio bertsua dutela adberbioek aditzarekin edo perpausarekin: *Berri tamalgarria izan dugu; Tamalez, ez dakigu ezer. Tamalgarri, berri* izenaren eskuinaldean baitoa, adjektiboa da. Aldiz, *tamalez* adberbioa da, perpaus mailan kokatua, ez IS mailan.

## 2.5. Sintagmen izaera orokorra

**2.5a** Hitzak elkartzeko arauak aski hertsia dira. Egiturak osatzen dituzte, eta egitura hauek nolakoak diren jakin beharko dugu beste ezer baino lehen. Alde honetatik, sintagma kontzeptua ezinbestekoa gertatzen da sintaxian. Fonologian fonema eta morfologian morfema dugun bezala, sintaxian sintagma izango dugu erabiliko dugun banako nagusia.


Gramatika perpausaz aritzen da eta perpausok nola eratzen diren esaten digu. Perpausak sintagmaka zati ditzakegu. Zatiketa hori, hala ere, irizpide zehatz batzuen arabera egin behar da, ezin da osagai kate bat nolana izan zatikatu, zein eragiketatan edo prozesu gramatikaletan parte hartzen duten begiratu behar

da: pronominalizazio prozesuetan, leku aldaketetan, juntaduran, elipsian eta holakoetan nola lan egiten duten ikusi behar. Atalak beste atal nagusiago batzuen atal izan daitezke, gainera.

**2.5b** Har dezagun, adibidez, honako perpaus hau: *Nire aitaren etxeko morroiek ugari daukate ogia*. Zazpi hitzez osatua dago perpaus hau. Eman dezagun lau ataletan banatzen dugula. Adibidez: *Nire / aitaren etxeko / morroiek ugari / daukate ogia*. Atal hauek nahierara bereizi ditugu. Beste modu askotara ere bana genitzakeen. Askoz zentzuzkoagoa da, adibidez, beste honako hau: *Nire aitaren etxeko morroiek / ugari daukate ogia*. Hain zuzen, perpaus honen bi atal nagusiak horiexek izan daitezke. Eta atal hauetako lehenbizikoari erreparatzen badiogu, honen atalkatze zuzena hau izan liteke: *[[nire aitaren etxeko] morroiek]*. Alegia, *hango morroiek* sintagmaren bidez ordezkari daitezke: *hango* eta *nire aitaren etxeko* baliokide dira. Eta atalkatzearekin jarraituz: *[[nire aitaren etxe] -ko]* eta ondoren *[[nire aitaren] etxe]* eta *[[nire aita] -ren]* eta, azkenik, *[[nire] aita]* eta *[[ni] -re]*. Horrenbestez, sintagma osoak, mailaz maila, barnean dituen beste sintagmak kontuan hartuta, honako egitura hau proposa genezake:  $[_{11} [_{10} [_{9} [_{8} [_{7} [_{6} [_{5} [_{4} [_{3} [_{2} [_{1} ni ]_{1} ] -re ]_{2} ] aita ]_{3} -a ]_{4} ] -ren ]_{5} ] etxe ]_{6} ] -a ]_{7} ] -ko ]_{8} ] morroi ]_{9} ] -ak ]_{10} ] -k ]_{11} ]$ .

Atalkatze hau zuzena bada, osagai bakoitzari, zenbakien ordezkari, dagokion etiketa ezarri beharko genioke. Atal horietako bakoitza sintagma bat da. Hauek buru bat dute, eta buru honen arabera ezarriko diogu sintagma bakoitzari dagokion etiketa. Arbola bidez irudikatu ahal dugu argiago<sup>2</sup>:

<sup>2</sup> -KO postposizioaren osagarria DS dela ezarri dugu. Alegia: *[nire aitaren etxe (-a)] -KO]*, baina zehazki mintzatuz, *nire aitaren etxeko-ren* azpian dagoena [... *etxe-an-ko*] dugula esan beharko litzateke. Gauzak soilte aldera egin dugu horrela. (Ikus § 21.8).



**2.5c** Arbola honek zerbait erakusten digu goiko perpausaren lehenengo atalaren egituraz. Ez gaude egitura lau eta lerrotatze soil baten aurrean. Bestalde, arbolaren adarrak batzen diren guneei etiketa bat jarri diegu zenbakien ordean, hortik beherakoa zein motatako osagaiak den esaten diguna: DSerg; DS; IS; PS... Izan ere, ez da aski atalak eta atalen azpiatalak behar bezala bereiztea. Horietako bakoitzak bere izaera du, eta zein kategoriatakoa den ere esan behar du gramatikak. Atalkatzeari buruz, goiko zuhaitz horretan argi ikusten da sintagmen osagaiak binaka biltzen direla (gehienez ere): ni-re > nire aita > nire aita-ren eta abar, bata bestearen osagai direla. Adabegi bakoitzetik, hortaz, goia jota, bi adar aterako dira.

**2.5d** Sintagmen egituraren beste ezaugarri nagusi bat ere islatzen du goiko arbolak: sintagmek buru bat dute, eta buru horren islapen gisa ulertzen dira sintagmak. Endozentrikoak direla esan ohi da. Honek esan nahi du sintagma orok buru bat eta bakarria izango duela eta buru horren kategoria bereko izan-

go dela sintagma ere. Hori esan nahi da sintagmak endozentrikoak direla diogunean. AdbS, adibidez, adberbioa buru duen sintagma da ( $[_{AdbS} [_{PS} atzo -z] [_{Adb} gero]]$ ); IS, izena buru duen sintagma ( $[_{IS} [zure] [_1 etorrera]]$ ); PS, postposizioa buru duen sintagma ( $[_{PS} [_{IS} zu] [_p -gatik]]$ ) eta abar.

Beste hirugarren baldintza bat ere bete behar dute sintagmek, alegia, kategoria lexiko orok sintagma gisa garatu behar du. Hots, izen bat (*erosketa*, esaterako) IS gisa gauzatuko da nahitaez, osagarria izan nahiz izan ez. Hortaz,  $[_{IS} [_1 erosketa]]$  burua besterik ez duen sintagma izango da, baina *etxearen erosketa* edo *etxearen erosketa harrigarri* ere buru beraren (*erosketa*) gainean eraikitako sintagmak izango dira:  $[_{DS} [_{IS} etxearen [_1 erosketa] harrigarri] hura]$  nahiz  $[_{DS} [_{IS} [_1 erosketa]] hura]$ .

## 2.6. Kategoria lexikoak, sintagmaburu

Kategoria lexiko deitzen ditugu eduki lexikoa duten hitzak. Izenek eduki lexikoa dute, aditz gehienek ere bai. Orobat, adjektiboek eta adberbio gehienek; izan ere, badira adberbio kuantifikatzaileak (*hain, oso, guztiz...*) determinatzaileen pareko direnak, eta beste batzuk (*ongi, buruz, poliki...*), berriz, eduki lexiko garbia dutenak, eta adjektiboen pare direnak. Beraz, eztabaida liteke multzo batekoak ala besteakoak ote diren. Postposizioak ere kategoria lexikotzat hartu izan dira, eztabaidak eztabaida. Determinatzaileak eta kuantifikatzaileak, aldiz, ez dira halakotzat hartzen (§ 11.3b).

## 2.7. Izena eta ISa

**2.7a** Izenaren inguruan biltzen den sintagmari izen sintagma (IS) deitzen zaio (§ 12.2). *Etxe, gizon, ur, zalantza, gezur, errespetu* moduko hitzak euskal hitzak dira eta, gainera, izen kategoriakoak direla onartzen dugu. Hala markatuak etorri ohi dira sarrera horiek hiztegiatan. Baina hitz horiek, bere kasa, ez dute balio perpausaren zuzeneko osagai izateko: \**Etxe ikusi dugu*; \**Gizon etorri dira*; \**Ur edan dugu* eta abar. Gutxienez, mugatzailea edo kuantifikatzaile

bat behar dute. Horrela, beste honako hauek perpaus zuzenak dira, eta lehengo izenen gainean eraikitako egiturak bidezkoak gertatzen dira: *Etxe bat ikusi dugu*; *Gizon hauek etorri dira*; *Ura edan dugu*... Hauek, ordea, ISak baino zerbait gehiago dira. DSak (determinatzaile sintagmak) dira, hain zuzen, determinatzailea buru duten sintagmak direla diote hizkuntzalariek.

**2.7b** Badira, ordea, izen kategoriakotzat eman ohi diren beste batzuk ere, izen bereziak edo propioak. Leku edo pertsona izenak izan ohi dira maiz, adibidez: *Jon*, *Maddi*, *Haritz*... edo *Bilbo*, *Ataun*, *Donibane*... (§ 12.3.2). Hauek, diren bezalakoak direlako, inolako mugatzailerik edo kuantifikatzailerik izan ez arren, lan egin dezakete perpaus osagai gisa, *etxe*, *gizon* eta holako izen arruntek ez bezala: *Jon ikusi dugu*; *Maddi berandu etorri da*; *Bilbo hiri ederra da*...

Baina guri hemen axola diguna da *Jon*, *Maddi* eta *Bilbo* egituren pareko sintagmak *etxe bat*, *gizon hauek* eta *ura* direla, eta ez *etxe*, *gizon* edo *ur* soilak. Izen batek, bere kabuz, ez du balio perpaus baten osagai izateko. Hiztegioko hitz arruntek ez dute kontzeptu abstraktu bat baizik adierazten, ez dute balio bitzita errealeko izakiak aipatzeko. Alde horretatik, [*ur*] eta [*ur-a*] eraikin sintaktiko desberdinak dira: *\*Ur bota du lurrera* vs *Ura bota du lurrera*. *Jon* edo *Maddi* izenak, berriz, *ur-a* sintagmaren pareko direla onartuko dugu: *Jon bota du lurrera*; *Maddi agurtu dugu*, baina ez *\*Jona bota du lurrera*; *\*Maddia agurtu dugu*. *Ur* izen arrunta dela esango dugu, eta erreferentziazko adierazpen bat osatzeko determinatzailea behar du, *Jon* eta *Maddi* izenek ez bezala, hain zuzen. Izan ere, azken hauek determinatzailerik gabe erreferentziazkoak dira; beraz, DSa osatzeko gai dira beren kabuz.

**2.7c** Gaurko ohiko gramatiketan, ISa eta DSa bereizi ohi dira. ISa da barnean izen kategoriako hitza daraman sintagma. Baina arestian ikusi dugun moduan, izen soilak ez du bermatzen DS bat eraikitzea. Izen propioekin bai, baina izen arruntekin nekez. DSan mugatzaileak eta kuantifikatzaileak joko garrantzitsua dute. Hitz egiten dugunean, mundu errealeko izakiei buruz hitz egin behar izaten dugu, izaki horiek zein diren, zenbat diren, nolakoak diren eta holako informazioa eman beharra izaten dugu. Erreferente jakinaz aritzeko nahitaezko dugu IS hori kuantifikatua izatea. Norbaitek esango baligu *\*Etxe bisitatu*

*dut*, espero izatekoa litzateke gure aldetik honako edo antzeko galdera hauek egitea: *zein etxe?*, *zenbat etxe?*, *nolakoa?* Eta galdera horien erantzuna ez litzateke izango goian eman duguna, beste honako hau, *Etxe-a bisitatu dut*, edo hauen antzekoak baizik: *Bost etxe hauek bisitatu ditut*; *Etxe horiek bisitatu ditut*; *Bi etxe bisitatu ditut*; *Bi etxe-ak bisitatu ditut*; *Etxe gorri horiek bisitatu ditut*; *Etxe guztiak bisitatu ditut*...

Izen propioak ditugunean, gauzak alderantziz gertatzen dira: *Beñat ikusi dut*, ez *\*Beñat-a ikusi dut*. Bestalde, *Beñat hau ikusi dut* edo *Bi Beñat ezagutzen ditut* zuzenak dira, nahiz eta oraingoan izen arrunt gisa-edo lan egiten duen *Beñat* izenak; *Beñat hau zoratuta dago* edo *Zer Beñat ikusi duzu?* galdera egiten dugunean, *Gure Beñat ikusi dut* diogunean bezala (ikus § 12.3.2c).

**2.7d** Izenordainek ere izen propioen ezaugarriak dituzte, antza. Pertsona izenordainek bestelako gehigarririk gabe osa ditzakete perpaus osagaiak, DSak zehazki: *Ni ikusi nauzu*; *Geu joango gara lehenbizi*... Hemen osagai horien erreferentzia zehatza da, eta goian egin ditugun moduko galderak egitea (*zer/nor ikusi duzu?*) ez litzateke normala izango, esaldia ongi ulertu duenarentzat behintzat. *\*Zenbat geu joango gara lehenbizi?* ere ez litzaioke inori onargarria irudituko.

Kontua da, izen propioek eta izenordainek ISaren erreferentzia aski zehatza ematen digutela. Izen arruntek, aldiz, zenbait determinatzaile jokoan sartzen ez bada, nekez gauzatuko dute perpausaren osagai izan daitekeen sintagma bat, erreferentzia duen osagai bat.

Sintagmaren erreferentzia aipatu dugu behin eta berriro. *Liburu hauek, bi liburu, bi liburu hauek, ni, gu, norbait*... bezalakoek erreferentzia jakin bat dute eta orduan predikatu baten argumentu izan daitezke, adibidez: *{Liburu hauek / Bi liburu / Bi liburu hauek} idatzi ditu* edo *Ni agurtu nau*; *Gu etorri gara*; *Norbait aterako zaigu*...

**2.7e** Baina izenak predikatuen argumentu ez ezik, predikatu ere izan daitezke: *Edozein burutazio liburu bihurtzen du*; *Joxepa neskame joan zen Donostiara*... *Liburu* eta *neskame* izen kategoriako elementuak dira. Hortaz, hauek ere ISak izango dira, baina goian ikusi ditugunak ez bezalakoak dira. Hauetan,

goian egin ditugun galderentzako lekurik nekez izango dugu: \**Edozein burutazio zer bihurtzen du?*; \**Joxepa zer joan zen Donostiara?*... Hau nahikoa ez eta oraingoan mugatzaileak eta kuantifikatzaileak ez dute lekurik: \**Edozein burutazio {bi liburu / liburua / liburu hau...} bihurtzen du*; \**Joxe eta Antton {morroiak / bi morroi} joan ziren Asteasura*. Arazoa zein den argi dago: denetan izena dugu (*liburu, neskame, morroi*), baina izenaren islapena ISa bada, nahaste pittin bat sortzen da goian aipatu ditugunak (*liburu hauek; bi liburu...*) eta besteak (*liburu; neskame; morroi...*) zaku berean sartu nahi baditugu. Nola askatu korapiloa? Ez da hain zaila. Saia gaitezen.

**2.7f** Sintagmak buru baten islapenak badira, hots, buru baten babespean garatzen badira, aipatu ditugun ustezko bi IS horiek, beharbada, ez dira mota bereko sintagmak. Orobat pentsa liteke determinatzailearik edo kuantifikatzailearik onartzen ez duten izen arruntek benetan ISak garatzen dituztela. Sintagma hauekin hastea komeni zaigu, hortaz, gauzak argiago jartzearren. Aldiz, determinatzaileak eskatzen dituzten izenek ISa baino zabalagoko beste sintagma batzuk garatzen dituztela pentsa liteke. Garai batean, *gizon, gizon-a, bi gizon, bi gizon haiek*, denak ISak zirela onartzen zen, baina ikusi dugu *Asteasura joan zen morroi* eta *Asteasura joan zen morroia* desberdinak direla. Lehenbizikoan *morroi* predikatua da, eta, horrenbestez, ez du erreferenterik; bigarreanean bai: *Nor joan zen Asteasura?* galderari erantzuten dio. *Morroia* pertsona jakin bat da hemen, baina lehenbizikoan beste zerbait. Gaur, gure ISa egiazki DSa dela aldarrikatzen duen hipotesia aski onartua dago. Xehetasun handietan sartu gabe, ideia litzateke *neska alaia* DSa dela. Beraz, sintagmaren burua ez dela *neska* izena, baizik *-a* determinatzailea, eta, horrenbestez, sintagma hori DSa dela, eta ez ISa, hots:  $[_{DS} [_{IS} \textit{neska alai}] [_D \textit{-a}]]$ . *Mikel morroi ibili zen* perpausean, berriz, *morroi* izena predikatu bat litzateke eta garatuko lukeen sintagma, IS bat:  $\textit{Mikel} [_{IS} [_1 \textit{morroi}]] \textit{ibili zen}$ .

Hortaz, ISa baino “gorago” DSa egongo litzateke, eta “beherago” AdjSa edo perpaus erlatiboa, adibidez.

Izen propioen kasuan, ISa izen soilaz osatua egongo da:  $[_{IS} [_1 \textit{Jon}]]$ . Kasu hone-tan, gainerik  $\emptyset$  determinatzailea izango genuke, hots:  $[_{DS} [_{IS} [_1 \textit{Jon}]] [_D \emptyset]]$ .



Pertsona izenordainen kasuan ere, izen propioen parekoak direla proposatu izan da, baina agian zuzenago litzateke pentsatzea determinatzaileak besterik ez direla, osagarri gabeko determinatzaileak, hain zuzen: [<sub>DS</sub> [<sub>D</sub> *ni/gu/norbait...*]].

**2.7g** Horrela, [<sub>DS</sub> [<sub>IS</sub> *gizon*] [<sub>D</sub> -a]], [<sub>DS</sub> [<sub>IS</sub> *Andoni*] [<sub>D</sub> ∅]], baina [<sub>DS</sub> [<sub>D</sub> {*ni/gu/norbait...*}]] izango lirateke. Honek esplikatuko luke, adibidez, -*tzat* postposizioak ezartzen duen eskakizun bat. Alegia, goiko sintagma horiek denak ezinezkoak gertatzen dira -*tzat* postposizioa erantsita. Antza, horren arrazoia da sintagma horiek denak DS mugatuak direla. Hortaz: \**gizon-a-tzat*, \**Andoni-tzat*, \**ni-tzat*. Baina IS soila badugu, balio erreferentzialik gabeko predikatu bat azken batean, orduan perpausa zilegi gertatzen da: *Morroitzat hartu zuten* nahiz *Morroi hartu zuten*.

Horrenbestez, ISaren burua izena izango da, eta adjuntu gisa edo osagarri gisa genitiboa edo bestelako sintagma bat izan dezake:

[<sub>DS</sub> [<sub>IS</sub> *gure lagun*] -a]  
 [<sub>DS</sub> [<sub>IS</sub> *lagun*] [<sub>AdjS</sub> *berri*] -a]]  
 [<sub>DS</sub> [<sub>IS</sub> [<sub>IS</sub> *gure lagun*] *berri*] -a]  
 [<sub>DS</sub> [<sub>IS</sub> [<sub>P<sub>erlat</sub></sub> *agurtu dudan*] *lagun*] -a].

## 2.8. Adjektiboa, AdjSaren buru

**2.8a** Adjektiboa ere kategoria lexikoa dela esaten da. Eta honek ere bere sintagma islatzen du, adjektibo sintagma (AdjS), alegia. AdjSa izenaren ingurura biltzen da adjuntu gisa, ez osagarri gisa. Izenaren eskuinean kokatzen da: *kantu* [<sub>AdjS</sub> *alai*] *bat*; *mila olerki* [<sub>AdjS</sub> *eder*]; *edozein zoko* [<sub>AdjS</sub> *ezkutu*]; *bost sagar* [<sub>AdjS</sub> *gazi*] *horiek...*

**2.8b** AdjSaren kokagune hau dela eta, gramatikari batzuek iradokitzen dute AdjSa izenaren adjuntutzat hartu eta, horrenbestez, ISaren barneko osagai dela: [<sub>DS</sub> [<sub>IS</sub> *zoko*] [<sub>AdjS</sub> *ezkutu*] -a], alegia. Alderantziz, badira bestelako propo-

samenak ere: AdjSa goian eta honen barneko osagaia litzateke ISa. Hots: [<sub>DS</sub> [<sub>AdjS</sub> [<sub>IS</sub> *zoko*] *ezkutu*] -a]. Honen aldeko argudio bat izan liteke, hain zuzen, honako hau: euskaraz sintagmen burua eskuinaldean kokatzen dela onartzen da, eta adjektiboa izenaren eskuinean ageri denez, sintagma horren burua adjektiboa izan liteke, ezkerrean osagarria daramala. Alegia, [<sub>DS</sub> [*kantu alai*] *horiek*] *nongoak dira?* ikuspegi honetatik, DS horren egitura honako honen antzekoa litzateke: [<sub>DS</sub> [<sub>AdjS</sub> [<sub>IS</sub> *kantu*] *alai*] *horiek*], eta ez [<sub>DS</sub> [<sub>IS</sub> *kantu*] [<sub>AdjS</sub> *alai*]] *horiek*].

**2.8c** DSaren barneko osagaia den AdjSaren pareko litzateke perpaus erlatiboa, eta baita erlaziozko postposizio sintagma ([... -ko]) ere: [<sub>DS</sub> [<sub>IS</sub> [<sub>KonpS</sub> *zuk atzo aurkeztu zenidan*] [<sub>PS</sub> *Bilboko*] *mutil*] [<sub>AdjS</sub> *argal*] *hura*]. Horra, ISaren barnean, izen beraren lagun gisa, erlatiboa eta PSa ezkerrean, eta AdjSa eskuinaldean.

**2.8d** Bestalde, DStik kanpo, AdjSa (edo ISa/DSa) bestelako osagai ere izan daiteke, predikatu gisa lan egiten duenean: *Oso hunkigarria izan da dena*. AdjStzat hartu ohi dugu *oso hunkigarria*, determinatzailea gorabehera. Horrenbestez, hau dugu AdjSaren beste kokagune bat. Gainera, adberbioak bezalaxe, adjektiboak kuantifikatzaile batekin joan daitezke: [<sub>AdjS</sub> {*oso/hain/izugarri...*} *hunkigarria*]. Perpaus konparatiboak ere ager daitezke AdjSaren hedapen gisa: [<sub>AdjS</sub> *ikustea bezain garrantzitsua*] *da entzutea*. Hemen ere maila kuantifikatzailea dugu: [[<sub>QS</sub> *hain*] [<sub>AdjS</sub> *hunkigarri*]] -a] bezala [[<sub>QS</sub> [<sub>KonpS</sub> *atzokoa* (izan zen)] *bezain*] [<sub>AdjS</sub> *hunkigarri*] -a]. Alegia, *hain hunkigarria* eta *atzokoa bezain hunkigarria* taxu bereko sintagmak dira, AdjS kuantifikatu bat edo, agian, barnean AdjS bat gordetzen duen kuantifikazio sintagma (QS deitu duguna oraingoz, deitura hoberik ezean).

## 2.9. Adberbioa, AdbSaren buru

**2.9a** Adberbioak ere sintagmak islatzen ditu. Ohiko adberbioekin (*beti, gaur, ongi, pozik, honela, horrela...*) AdbSa adberbioaz bakarrik osatua egon daiteke, osagai bakarra burua delarik, besterik gabe: *Beti dabil horre-*

*la; Pozik dabil orain...* Hots: [<sub>AdbS</sub> [<sub>Adb</sub> *beti/gaur/ongi/pozik/honela...*]]. Adberbio hauek, nolabait, intransitiboak direla esan liteke, ez baitute osagarri-rik. Aditzentzat kontzeptu hori baliagarri bada, adberbioentzat eta beste kategoria batzuentzat ere, agian, baliagarri izan liteke. Badira hori proposatzen duten hizkuntzalariak.

**2.9b** *Mendian gora* edo *basoan zehar* moduko sintagmak ere badira. AdbS-ak direla onartzen badugu, burua adberbio bat izango litzateke. *Gora* hala da, eta, seguru asko, *zehar* ere bai. *Zehar* nahitaez osagarri bat ondoan duela agertuko da. Horrenbestez, oraingoan, trantsitiboa dela esan ahalko dugu, zenbait hizkuntzalarik dioten moduan. Aldiz, *mendian gora* sintagmaren burua *gora* dela pentsa daiteke, eta kasu honetan osagarriarekin edo gabe erabil daiteke: *Mendian gora joango gara* vs *Gora joango gara*. Nolanahi ere, sintagma hauen burua adberbio kategoriakoa da.

Eta, AdjSak bezalaxe, kuantifikatzaile bat ere {*hain/oso/biziki...*} izan daiteke tartean: *Ez dabil [hain pozik]; [Biziki arin] gidatzen du...*

Kuantifikazio hau perpaus konparatiboaren bidez ere gauza daiteke: [*Inork baino hobeto*] *daki berak*; [*Maitek bezain ongi*] *pintatzen du...*

**2.9c** Postposizio sintagmen burua ere maiz adberbio bat izan ohi da, eta buru horrekin batera osagarri bat ere agertuko da. Adibidez: *Hemen gaudenez gero, hitz egin dezagun*; *Etxeaz gainera lana ere galdu du...* *Gero, gainera* eta beste hainbat adberbiok postposizio gisa lan egin dezakete, adibideek erakusten duten moduan. Baina holako gehienek burujabe gisa ere lan egin dezakete: *Gero hitz egingo dugu*; *Lana ere galdu du, gainera* eta abar.

**2.9d** Adberbio hauen ezkerretara osagarria ager daitekeela esan dugu: [<sub>AdbS</sub> [<sub>PS</sub> *hemen gaudenez*] *gero*]; [<sub>AdbS</sub> [<sub>PS</sub> *etxeaz*] *gainera*]. Baina badira adberbio erlatibo deitzen direnak ere: *arte, bitartean...* Hauek ageri diren egiturek erlatiboan taxu bera dute: [<sub>PS</sub> [<sub>Perlat</sub> *hemen gauden*] *bitartean*] (hots, ‘bitartean hemen gaude eta bitarte horretan’). Honako hauetan bezalaxe, hain zuzen: [<sub>DS</sub> [<sub>Perlat</sub> *hemen erosi dugun*] *etxea*] (‘hemen etxea erosi dugu eta etxe hori’). Betiere, AdbSen aurrean gaude, *bitartean, arte(an)* eta holakoak adberbio-entzat har baititzakegu, inesibo batetik eratorriak izan arren (*bitarte-an, ar-*

*te-an*). Dena dela, oraingoan ere burua sintagma osoaren eskuinaldean ikusiko dugu gehienbat.

## 2.10. Postposizioa eta PSa

**2.10a** Gramatika honetan bereiziko ditugu, batetik, postposizioak (*-n* inesibo; *-tik* ablatibo; *-ra* adlatibo; *-z* instrumentala, etab.: ikus 20. kapitulua eta § 21.6), eta bestetik, egiturazko kasu markak ( $\emptyset$  absolutibo; *-k* ergatibo; *-i* datibo; ikus 18. kapitulua). Morfologiatik begiratuta, denak postposizioak direla esan liteke. Hortaz, galde liteke ea zergatik bereiz tratatzen ditugun egiturazko kasu direlakoak eta postposizio sintagmak. Bereizketa egin behar da, dudarik gabe. Izan ere, egiturazko kasua erakusten duten sintagmek zeregin berezia dute perpausean. Adibidez, subjektua, egiturazko kasu horietako baten bidez markatua egon ohi da, absolutiboaz batzuetan eta ergatiboaz besteetan. Aditzaren komuntaduran ere hiru kasu horiek hartzen dute parte, ez inesiboak edo adlatiboak, adibidez. Bestalde, egiturazko kasu direlako horiek ez dira *-ko* postposizioarekin elkartzen: \**gizonariko gutuna* (cf. *gizonari eman diodan gutuna / gizonaren gutuna*); \**trenako bidea* (cf. *trena doan bidea / trenaren bidea*). Aldiz, besteak bai: *etxera-ko bidea*; *urrez-ko lepokoa*; *elkarreki(n)-ko errespetua*... Hortaz, denak postposizio izanik ere, arrazoi sendoak badira multzo berean ez sartzeko. Horregatik, zenbaitek proposatzen duen moduan, *kasuzko postposizioak* ( $\emptyset$  absolutiboaz gainera, *-k* ergatibo, *-(r)i* datibo eta *-(r)en* genitibo) eta *adberbiozko postposizioak* (*-n*, *-tik*, *-ra*, *-z*...) bereiz litezke. Nolanahi ere, gramatika honetan, azken hauei deituko diegu postposizio edo postposizio sintagma. Lehenbizikoei zuzeneko deitura emango diegu: DS absolutibo, DS ergatibo, DS datibo eta DS genitibo.

**2.10b.** Esanak esan, postposizioek beren sintagma osatzen dutela onartuko dugu, postposizio sintagma (PS), alegia, postposizioa buru duen sintagma: *etxe eder hartan*, *menditik*, *Gernikara*, *zutaz*... PSak dira. Sintagma hauen burua eskuin muturrean itsatsia ageri den postposizioa izango da, eta ezkerraldean, berriz, buru horren osagarria den DSa edo beste PSa egongo da. Buru

horiek postposizio itsatsiak (§ 19.2) ez ezik, postposizio askeak (§ 19.3) ere izan daitezke. Adibidez:

<i>etxe eder hartan</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> etxe eder har-][ <sub>P</sub> ta-n]]
<i>menditik</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> mendi-][ <sub>P</sub> -tik]]
<i>Gernikara</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> Gernika-][ <sub>P</sub> -ra]]
<i>bost herri haietara</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> bost herri haiek][ <sub>P</sub> ta-ra]]
<i>zutaz</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> zu-][ <sub>P</sub> ta-z]]
<i>zein etxetan</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> zein etxe][ <sub>P</sub> ta-n]]
<i>jendearengan</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> jendea-ren][ <sub>P</sub> ga-n]]
<i>elkarrengan</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> elkar-en][ <sub>P</sub> ga-n]]
<i>zuregatik</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> zu-re][ <sub>P</sub> ga-tik]]
<i>zuretzat</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> zu-re][ <sub>P</sub> -tzat]]
<i>gurekin</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> gu-re][ <sub>P</sub> ki-n]]
<i>zure barruan</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> zu-re][ <sub>P</sub> barru-(a)-n]]
<i>gure ondotik</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> gu-re][ <sub>P</sub> ondo-tik]]
<i>horri buruz</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>DS</sub> hor- -i][ <sub>P</sub> buru-z]]
<i>etorri zarenez gero</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>PS</sub> [ <sub>KonpS</sub> etorri zara -en] -(e)z][ <sub>P</sub> gero]]
<i>etorri zaren bezala</i>	[ <sub>PS</sub> [ <sub>KonpS</sub> $\emptyset_i$ etorri zara -en][ <sub>P</sub> bezala <sub>i</sub> ]]

## 2.11. Aditza eta ASa

**2.11a** Aditzak ere, izenak bezala, bere sintagma garatzen du, bera delarik buru. Horrenbestez, aditza buru duen sintagma aditz sintagma (AS) dela esango dugu. «A» honen ondora biltzen dira DSak, elkarrekin AS deitzen duguna sortzeko. DSeK marka gramatikal bereziak erakutsi behar dituzte (postposizioak, hain zuzen), aditzarekin batera lan egingo badute. Har dezagun hiztegi-ko aditz bat, *erosi*, esaterako. Honen definizio gisa honako hau esaten zaigu

*Euskaltzaindiaren Hiztegia*: “zerbait ordainketaren bidez eskuratu”. Predikatu honen esanahiak iradokitzen dizkigun izen eta adjektibo kategoriako hitz batzuk jaso ditzakegu hiztegitik. Adibidez, *etxe, polit, banku, bat, gizon, herri...* Hemendik [*bankuak*] [*herriko gizon bati*] [*etxe polita*] *erosi* bezalako kate egituratua osatzeko, zenbait elementu erantsi behar izan dizkiogu hiztegi-ko hitz multzo horri: izenen gainean ISak osatu behar izan ditugu, hauen gainean DSak eta hauek *erosi* aditzari erantsi. Baina IS edo DS horiek ere zenbait marka behar izan dituzte: *banku-a-k, herri-ko gizon bat-i*. Ondoren, hauek denak aditzari itsatsi zaizkio, taxu bat gordeaz betiere, eta horrela lortu dugu AS dei genezakeen sintagma bat. Edo nahi bada, *bankuak* DS ergatiboari, subjektua denez, leku berezia eskain dakioke perpausean. Hau ohikoa da gramatiketan. Baina subjektuaren gune berezi horretara “iristeko” bidea zein den ere eztabaidatzen da hizkuntzalarien artean. Teoria zenbait badira. Gu horietan ez gara murgilduko. Aski dugu onartzea aditzarekin erlazio berezia dutela sintagma hauek guztiek. Aditzarekin bat eginda ageri den baina egiazki perpausaren buru den inflexioak, eta komunztadurak bereziki, agintzen du azkenean zein leku ematen zaien egituran absolutiboari, ergatiboari eta datiboari, *egiturazko kasu* deitzen direnei, hain zuzen. Dena dela, aditzaren inguruan biltzen diren osagai horiek ASa osatzen dutela onartuko dugu, aditza betiere buru dela. Adibidez: [<sub>AS</sub> [<sub>DSerg</sub> *bankuak*] [<sub>AS</sub> [<sub>DSdat</sub> *herriko gizon bati*] [<sub>AS</sub> [<sub>DSabs</sub> *etxe polita*] [<sub>A</sub> *erosi*]]]]].

**2.11b** Aditzak mota askotakoak dira, eta bakoitzak bere osagarriak hautatzen ditu. Gure kasuan, *erosi* predikatuak hiru argumentu eskatzen ditu: eroslea (*bankua*), salerosketaren gaia (*etxe polita*) eta salmentaren onuraduna edo jomuga (*herriko gizon bat*). Badira, ordea, hainbeste argumentu behar ez dituzten aditzak. *Erori-k*, esate baterako, aski du argumentu bakarrekin: *etxe polit bat erori*, adibidez. Argumentu bakar hau absolutiboz “jantzia” agertuko da eta beste argumenturik ezean, berau izango da subjektua: [<sub>AS</sub> [<sub>DSabs</sub> *etxe polita*] [<sub>A</sub> *erori*]]. Badira *irakin* edo *bazkaldu* bezalako aditzak ere, argumentu bakarrekoak, baina oraingoan argumentu bakar hori ergatiboz markatuta gauzatuko da: *Urak ez du oraindik irakin; Hementxe bazkalduko dugu (guk)*. Kasu horretan, berau izango da perpausaren subjektu.

ASaren barne egitura zein den eztabaidagai da aspalditik. Sintagmaburua aditza dela argi dago. Hortik kanpo, osagai batzuk burutik hurbilago egongo dira beste batzuk baino; adibidez, osagarriak hurbilago egongo dira adjuntu soilak direnak baino. Egiturazko kasua erakusten duten osagaiak leku nabarmena izango dute ASaren barnean (hauek dira komuntaduran markatuak agertuko direnak), baina argumentu ez diren sintagmei zein leku esleitu behar zaien eztabaidagai da. Horrela, ASaren egitura biziki korapila liteke. Hitzunak ez dira korapilatzen, hizkuntzaren teoriaz ari direnak bai. Nolanahi ere, ASaren barnean beste sintagma mordo bat aurki daiteke, teoriarik behintzat; horrela, ASaren egitura eta osagai hierarkia zein den ikustea zailago gertatzen da.

**2.11c** ASa aditz baten inguruan antolatzen da, hortaz. Aditz bakoitzak, ordea, bere eskakizunak ditu. *Erori* aditzak, arestian ikusi dugunez, aski du argumentu bakarrarekin, erori dena zer/zein den esango diguna: *teila bat erori*; *huri tantak erori*. Euskaraz *absolutibo* deitzen den kasuaren bidez markatua eman ohi dugu.

Baina *erori* predikatu horrek inguruan bestelako osagaiak ere izan ditzake, ablatiboa (nondik), adlatiboa (nora) eta holakoak bereziki, mugimendu aditz batez ari baikara: [*Teila bat*]<sub>ZER</sub> *erori da* [*teilatutik*]<sub>NONDIK</sub> [*gure etxeko patio-  
ra*]<sub>NORA</sub>.

*Erosi* aditzak, berriz, absolutiboaz gainera, ergatiboa (*nork*) ere eskatuko du, eta beste hainbat adjuntu inesiboan, destinatiboan... Adibidez: [*Gure lagunek*]<sub>NORK</sub> [*etxe berria*]<sub>ZER</sub> *erosi dute* [*Gernikan*]<sub>NON</sub> [*ударako*]<sub>NOIZKO</sub>. Eta horrela, aditz guztiak.

**2.11d** Esan ohi da aditz bakoitzak bere *argumentu egitura* duela (§ 23.3). Argumentu egitura honek esaten digu aditz jakin baten inguruan zer-nolako osagaiak joan behar duten. Argumentu horiek, perpausuan, sintagma gisa gauzatuko dira. Eta sintagma bakoitzak berari dagokion rola beteko du: bata *egile* izango da, bestea *gaia*, bestea *instrumentala*, bestea *lekua*, etab. Adibidez, honako hitz segida hau, *Jonek amari zazpi jostunek jositako gona zuria ekarri dio Bilbotik* edozein euskal hiztunentzat euskarazko perpaus gramatikal bat da. Euskal hiztun horrek, gramatika pixka bat baldin badaki, perpaus hori zein

osagaiz osatua dagoen ere esan dezake. Adibidez, badugu adizki nagusi bat: *ekarri*. Eta adizki nagusi honen inguruan zenbait osagai. Hauetako osagai batek ekartzeko ekintza hori nork gauzatu duen esaten digu, nor izan den ekarlea: *Jonek*, ergatiboa (§ 18.3). Bada ekarritako objektua zein den adierazten diguna ere: *zazpi jostunek jositako gona zuria*. Hau absolutiboan doala esan ohi digu (§ 18.2). Gure kasuan, atal luze xamarra eta konplexua da *zazpi jostunek jositako gona zuria*, baina askoz elementu gutxiagorekin ere osa liteke: *gona* edo *gona bat*, besterik gabe. Beste batek, berriz, ekintza horren hartzailea zein den esaten digu: *amari*. Datiboan doa (§ 18.4). Eta azkenik, *ekarri dio* aditzaren inguruan doazenen artean, badugu beste atal bat ekartze hori nondik egin den esaten diguna: *Bilbotik*.

Aditzaren argumentuak sintagma gisa gauzatuak ageri zaizkigu perpausean. Horretarako, sintagmak determinatzaileak, etab. izango ditu, eta azkenean kasuari dagokion informazioa ere behar izango da.

**2.11e** Hitzunak hau dena badaki, nahiz eta gehienetan ez den jakite horren jakitun. Badaki, adibidez, *zazpi jostunek jositako gona zuria* osagaia *ekarri dio* aditzaren objektua dela, hau da, badaki “*zer ekarri dio?*” galderari erantzuten diola. Halaber, badaki sintagma hori ere egituratua dagoela, modu berezi batean egituratua, hain zuzen. Hor ere bada adizki bat, *jositako*, eta honen inguruan ere sintagma batzuk badira. Sintagma horietako bat *zazpi jostunek* dugu, subjektua. Honek *josi* aditzaren *egile* rola betetzen du, *nork* josi duen esaten digu. *Gona* sintagma ere hor dugu. Beraz, hemen ere aditza bere bi argumentuez inguratua dago, nahiz eta *gona* sintagma ez den ageri (*zazpi jostunek gona josi*). *Gona* hau, berez, *Jonek* ekarritakoa bera da. *Ekarri*-ren objektua dela esan dugu eta hala da. *Ekarri*-k, *josi*-k bezalaxe, bi argumentu behar ditu. Kasu honetan, perpaus erlatibo mota baten aurrean gaudela esango du gramatikak. Eta *josi* aditzaren objektu izango litzatekeen argumentua beste perpauseko aditzaren argumentua bera denez gero, isilpean gelditzen da, nahiz eta, perpausa interpretatuko bada, isilpean geratu den argumentu hori ere nonbait badela pentsatu behar den. Hala ulertzen dugu, behintzat. Hori dena diosku gramatikak. Modu eskematiko batean azaltzeko: [*Zazpi jostunek*<sub>nork</sub> *gona zuria*<sub>i,nork</sub> *josi*<sub>a</sub> *-tako*]<sub>P. Erl.</sub> *gona zuria*<sub>i</sub> *ekarri*.



Baina aditza eta honen inguruko osagai hauek ere ez daude nolana elkar-tuak. Hemen ere hierarkia bada, eta, horrenbestez, perpausoko osagai horien artean mota desberdinetako loturak eta erlazioak gertatzen dira. Adibidez, esan ohi da aditzaren inguruko horien artean badela bat besteen gainetik narbarmentzen dena, *subjektu* deitzen dena, hain zuzen. Eta bai izen sintagma bera, bai aditz sintagma bakoitza bere aldetik modu jakin batean egituratua egongo da. Adibidez, aditz sintagma hori  $[DS_1 + DS_2 + DS_3 \dots + \text{aditza}]$  izango da. Baina honek ere bere egitura, bere hierarkia izango du: objektu zuzena deitzen duguna aditzetik hurbilago dago zehar-objektua baino, eta hauek baino gorago eta urrunago egongo da sintagmaren egituraren beste edozein adjuntu. Hots:  $[[_{DS} \text{Mikelek}] [_{AS} [guri [_{AS} \text{gezurra esan}] zigun] [_{PS} \text{lehengoan}]]]$ .

## 2.12. Kategoria funtzionalak, sintagmaburu

Kategoria funtzionalek informazio gramatikala ematen dute, gramatikak berak finkatzen dituen adiera abstraktuak, alegia. Batetik, erreferentzia finkatzen duten elementuak ditugu: determinatzailea eta inflexioa lirateke adibide argienak, eta azken hauen barnean, denbora, modua, aspektua, komunztadura... Zenbatzaileak eta kuantifikatzaileak determinatzaile mota bat izan daitezke, izenordainak bezalaxe. Nolanahi ere, zenbaitetan zalantza eta eztabaida sortzen da, postposizioen eta adberbioen kasuan, esaterako.

Kategoria funtzionala da, halaber, konplementatzailea eta beste hainbat, azken urteotan proposatuak eta eztabaidagai direnak oraindik: numeroa, generoa...

## 2.13. Determinatzailea(k) eta DSa

**2.13a** Arestian ikusi dugunez (§ 2.7), ISaren gainetik daukagu DSa (determinatzaile sintagma), determinatzailea buru duen sintagma. Perpausoko argumentu izateko, ISak ezinbestekoa du determinatzaile batera biltzea, IS biluziak, determinatzaile gabe, ez baitu balio predikatuaren argumentu izateko:  $*[_{IS} \text{asto}] \text{ ikusi nuen}$  vs  $[_{DS} [_{IS} \text{asto}] \text{ -a}] \text{ ikusi nuen}$ ;  $*[_{IS} \text{geltoki berri}] \text{ eraikiko}$

*dute* vs [<sub>DS</sub> [<sub>IS</sub> *geltoki berri*] *bat*] *eraikiko dute*... Gauza bera, postposizioa dela eta, zeren postposizio askok osagarritzat DSa hartzen dute. Determinatzailea burua dela onartzen ez bada, ISaren osagai dela esan beharko da gutxienez. Gauzak horrela direla onartuta, deskribapen ohikoa da esatea perpausak ISa eta ASa osagai nagusiak dituela. Honek deskribapen maila soilean balioko luke, baina sintagmak buru baten gainean eraikiak direla onartzen bada, eta, horrenbestez, ISaren burua Izena bada, ikusi egin beharko litzateke gainerako osagaiek, edo gure kasuan determinatzaileak zer lan egiten duen eta zein den egituran duen kokagunea. Errazago da ustezko IS horiek determinatzaileak direla onartzea, eta determinatzaile hau sintagmaren buru dela. DSak direla, alegia, barnean determinatzailearen osagarri delarik ISa. Adibidez, *Paraje ederrak aurkitu ditugu* perpausako *paraje ederrak* DSa izango litzateke, -ak determinatzailea buru, eta sintagmaren barnean, buruaren osagarri *paraje eder* ISa: [<sub>DS</sub> [<sub>IS</sub> *paraje eder*] [<sub>D</sub> -ak]].

**2.13b** Bi eratako determinatzaileak ditugu (ikus § 15.1): batetik, mugatzailea (-*a/-ak/-ok*, -*ik*) eta erakuslea (*hau/hori/hura* eta hauen pluralak eta indartuak); bestetik, kuantifikatzaileak (*bost*, *asko*, *zenbat*, *ezer*, *zer*...). Mugatzailea eta erakuslea sintagmaren eskuin muturrean kokatzen dira. Partitibo delakoa ere (-*ik*) mugatzaile berezi bat dugu (ikus § 15.5). Mugatzaile kuantifikatzaileak, edo zenbatzaileak nahiago bada, gehienak ISaren ezker aldean kokatzen dira: *bost etxe polit*; *hiru leiho berriak*; *edozein mukizu*; *zenbat diru*.

Determinatzaileen artean bateraezintasuna ere gerta daiteke. Horrela, *\*edozein arrain-ak* okerra da, baina *arrain hauek*, *bost arrain*, *bost arrain hauek* akatsik gabeak ditugu. Badira, halaber, batera joan behar dutenak ere: *Herri bakoitz-a begiratu behar da (\*herri bakoitz)*; *Liburu guzti-ak irakurri ditugu (\*liburu guzti)*, esaterako. Hau dena kontuan hartu beharrekoa da gramatika.


**2.13c** Izen propioak ere hor daude. Pertsona izenek, esaterako, mugatzaileak ez dute izango agerian, normalki (ikus § 15.2.2a): *Pello, Itziar*... izan daitezke DSak, nahiz eta agerian determinatzaileak agertu ez. Eta mugatzailearekin nahiz zenbatzaile batekin ager daitezkeenean, pentsatu behar dugu, neurri ba-

tean behintzat, izen arrunt gisa erabiliak direla: *Nondik agertu da Pello hau?* Adjektibo baten laguntzaz doazenean ere mugatzaile eta guzti erabiliko dugu: *Antso Azkarra*. Dena dela, kasuistika guztia argitzea ez da erraza. Determinatzaileek lan handia egiten dute sintaxian, eta hiztunak bere barnean dituen arauak modu esplizitu batean ematea ez da lan samurra.

## 2.14. Inflexioa, perpausaren (= Inflexio sintagmaren) buru

**2.14a** Izen arrunta buru duen ISa, bere kasa, erreferentzia seinalatzeko gai ez den bezala, AS soila, edo nahi bada, subjektua eta ASa, besterik gabe, ez dira gauza perpausa osatzeko: \**Peruk mahaspasak jan*; \**Niri asko gusta gozokiak...* ASak zerbait behar du perpausa osatutzat eman ahal izateko. Inflexioa deituko diogu osagai honi, edo laguntzailea. Honi esker, gure adibide “herrenak” perpaus oso bihurtzen zaizkigu: *Peruk mahaspasak jaten ditu*; *Niri asko gustatzen zaizkit gozokiak*. *Laguntzaile* terminoak badirudi adizkiari egiten diola erreferentzia batez ere, adizki laguntzaileari: *etorriko litzateke*; *esan diogu*; *konta geniezaieke...* Gainera, adizki sintetiko deitzen direnen kasuan (*natorkizu*, *lekarke*, *dihardu...*), ez da erraz ikusten zer datekeen laguntzaile hori, adizki bakarrean integratua baitago. Gauzak horrela, egoikiago dirudi *inflexio* deiturak, gaurko sintaxilari askok egiten duten moduan. Horrek aditz guztientzako balio du, sintetiko nahiz analitikoentzat, jokatu nahiz jokatugabeentzat. Eta are garrantzitsuago dena: *inflexioa* perpausaren osagai bat da, ez aditzarena, nahiz eta adizkiaren morfologiaren parte gisa agertzen den. Morfologiak hala agintzen baitu. Morfologiak agintzen du, DSen kasuan ere, artikulua eta postposizioa sintagmako azken elementuari itsatsiak joatea, nahiz eta egiazki sintagma osoari dagozkion: *borondate oneko hiritar libreekin* / *borondate oneko hiritarrekin* / *borondate onekoekin*. Adizkiarekin bat egina agertu arren, *inflexioa* ere perpaus osoari dagokio. Horregatik, bera dela perpausaren buru aldarrikatzen da gaur egun. Eta perpausaren burua *inflexioa* bada, horrek esan nahi du perpausa, azken batean, *inflexio* sintagma (InflS) dela. Berau da, hain zuzen, gramatika egitura nagusia, sintagma nagusia, alegia.

**2.14b** Horrenbestez, perpaus oro Infi buru baten gainean eraikia egongo da. Xehetasun guztietan sartu gabe, honelatsu izan litezke gauzak:



### 2.14.1. Perpaus jokatuetao inflexioa


**2.14.1a** Inflexio delako horretan informazio ugari biltzen da. Adibidez, denbora markatzen da, *Etxera noa* eta *Etxera nindoan* perpausen artean dagoen denbora aldea inflexioan jasoa dago: *noa* (orainaldia) / *nindoan* (iragana) edo *dakigu* (oraina) / *genekien* (iragana). Aspektua ere inflexioan markatua dago, modua bezalaxe: *Etxera joan naiz* / *Etxera joaten naiz* / *Etxera joango naiz* / *Etxera noa* / *Etxera joan naiteke*... aspektu marka desberdinez agertzen zaizkigu. Eta *Etxera joan naiteke* eta *Joan nadin etxera* perpausetan modu desberdina adierazten du inflexioak: batean ahalera eta bestean subjuntiboa.

Inflexioan jasotzen den beste informazio nagusia pertsona eta numero komuntadura da: *Pozik joango naiz* (ni) / *Pozik joango gara* (gu) / *Pozik joan haiteke* (hi) / *Pozik ikusten zaituztet* (nik-zuek)...

**2.14.1b** Morfologiaren ikuspegitik, goian esan bezala, inflexioa adizkian jasotzen da, baina perpaus osoari dagokiola erraz ikus daiteke. Denbora, adibidez, perpausari dagokio, perpausaren aditzera ematen den gertaera edo ekin-tzaren denborari egiten zaio erreferentzia, betiere hizketa unea abiapuntu dugula: *Zure ilobekin ikusi zintudan* badiot, iraganeko gertakizun batez ari naizelako da, atzoko edo joan den asteko gertakizun bati buruz, esate baterako, *Atzo zure ilobekin ikusi zintudan* (\**Gaur zure ilobekin ikusi zintudan*).

**2.14.1c** Perpausaren burua inflexioa dela kontsideratzeak baditu alde on asko, teoriari dagokionez ere. Alde on horietako beste bat ere bada, garrantzi handikoa. Izan ere, sintagma guztiak endozentrikoak direla esaten da eta hala behar duela, gainera. Garai batean, perpausa IS batez eta AS batez osatua zegoela esaten zenean, edo, onenean ere, IS batez, AS batez eta Aux batez osatutzat ematen zenean, perpausa sintagmen endozentrikotasunetik kanpo gelditzen zen. Horregatik, perpausa InflSa dela aldarrikatzeak esan nahi du perpausa sintagma bat dela eta sintagma honek buru bat duela, inflexioa. Inflexio horrek bere barnean hainbat informazio biltzen duenez, egitura ere berezia izango du. Badira hizkuntzalariak inflexio sintagma hori zenbait sintagmatan bereizteko aukera eskaintzen dutenak. Ur sakonetan murgildu gabe, aski dugu onartzea gramatikak sortzen duen sintagma nagusia, perpausa, InflSa dela. Eta Infl horretan biltzen direla, nolabait, aldia, aspektua, modua eta pertsona eta numero komunztadura.

**2.14.1d** Hortaz, perpausa inflexio sintagma (InflS) dela onartuta, inflexioa jarri beharko dugu perpausaren buru. *Haur batek ordua galdetu zigun* perpausak, adibidez, honako egitura hau izango luke, gutxi gorabehera, ikuspegi honetatik:



### 2.14.2. Perpaus jokatu gabeetako inflexioa

**2.14.2a** Perpaus jokatu gabeetan inflexioa ez da hain konplexua gertatzen. Izan ere, komunztadurarik ez da, ez eta denbora markarik ere. Adibidez, *Zuk egitea nahi dut* eta *Zuk egitea nahi nuen*: hauetan ageri diren mendeko perpausetan ez da



denbora diferentziarik egiten; perpaus nagusietan bai, noski, (*nahi dut* vs *nahi nuen*), adizki jokatuak baititugu. Perpaus hauen baliokide diren beste hauetan (*Zuk egin dezazun nahi dut* vs *Zuk egin zenezan nahi nuen*), aldiz, bai. Subjuntiboa aditz jokatu da eta aldia markatzeko aukera ematen du. Perpaus jokatugabeak, ez.

**2.14.2b** Aspektuari dagokionez, *zu agurtzearren* eta *zu agurtu arren* adiera desberdinekoak dira. Kasu honetan, *agurtze* / *agurtu* kontraktotasuna aspektuzkoa dela dirudi. Beste batzuetan, ordea, aspektu hori neutralizatua gertatzen da: *Eskerrik asko deitzeagatik* diogunean, aspektu burutua edo burutugabea izan daiteke. Aldiz, aspektua gorabehera, *Zu agurtzeagatik kritikatu naute* esaten da. *Zu agurtu (izan)agatik kritikatu naute* perpausak aspektu marka desberdina du, baina formalki hala izanik ere, marka horrek ez du aspektu baliorik, perpaus kontzesiboak osatzeko modu bat da.

**2.14.2c** Horrenbestez, perpausa InfISa dela onartuta, inflexioa jarri beharko dugu buru perpaus jokatugabeetan ere. *Nik kontu hori {jakitea / jakin izana} harrigarri egin zitzaion* perpausko inflexioan zer biltzen den garbi ez badago ere, *-t(z)e/-tu* atzizkiak izango lirateke inflexio horren adierazpenak (aspektu diferentziaren bat adierazteko edo):

(a) *nik kontu hori jakitea*

(b) *nik kontu hori jakin izana*



## 2.15. Konplementatzailea, KonpSaren buru

**2.15a** DSak perpaus barnean kasu markaz edo postposizioz hornituak doazen bezala (*gizona-k*, *gizona-ri*, *gizon haue-ta-z*, *gu-re-kin*, *zu-en-gan-a* eta

abar), perpausak ere (InflSak) modu jakinean markaturik agertuko dira beste perpaus baten mendeko direnean: [*Etorriko nintze-la*] *esan nion*; [*Erosi du-zu-n*] *arraina garestia da*; *Ez dakit* [*zenbat balio du-en*]... Mendeko perpaus hauek *-(e)n/-(e)la* markaz hornituak ageri dira. Marka hauei deitzen diegu konplementatzaile. Perpaus jokatuari erantsita ageri diren *-(e)n*, *-(e)la*, *bait* dira nagusiak (§ 30.6). Beste hizkuntzetarako proposatu izan diren konplementatzaileen pareko direla onartzen da: [<sub>InflS</sub> [<sub>KompS</sub> [<sub>InflS</sub> *bihar jai egingo dute*]-*(e)la*] *erabaki dute*]. Marka hauek perpaus osoari dagozkio, kasu postposizioak DS osoari dagozkion bezala.


Adibidez, *Zu hain pozik ikustearekin denok poztu ginen* perpausean txertaturiko perpaus mendekoa, xehetasun askotan sartu gabe, honelatsu analizatu ahalko litzateke: [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> [<sub>InflS</sub> *Zu hain pozik ikuste*]-*a*]-*re-kin*] *denok poztu ginen*.

Maiz perpaus berek ere postposizio bat izan ohi dute ondoren: [<sub>PS</sub> [<sub>InflS</sub> *etorriko naiz*]-*ela*] *uste dut*; [<sub>PS</sub> [<sub>InflS</sub> *gonbidatu naute*]-*n-ez*] *gero*].


**2.15b** *-(e)la* forma bera oinarrian (*-en*) konplementatzaileaz eta *-la* postposizioaz osatua dagoela dirudi. Baina erabileraren eraginez, forma biak batu eta *-(e)la* forma konplexua eratu da, nonbait. “Gramatikalizazioa” izan dela pentsa daiteke, zeinetan *-en* “konplementatzailea + *-ela* postposizioa “konplementatzaile konplexu” gisa erabiltzera pasatu den. Ondorioz, honela azter daiteke aurreko adibideko sintagma: [<sub>KompS</sub> [<sub>InflS</sub> *etorriko naiz*]-*(e)la*], honako hau bezalaxe: *ez dakit* [<sub>KompS</sub> [<sub>InflS</sub> *joango naiz*]-*en*].

**2.15c** Adizki jokatu gabea duten mendeko perpausetan *-(e)n/-(e)la/bait*-en orde, ohiko DSetan agertzen diren kasu markak edo postposizioak agertuko dira: [*Zu han ikustea-k*] *poztu ninduen*; [*Zu agurtze-ra*] *etorri naiz*; [*Hori ikusi-rik*], *kezkatu nintzen*... Hemen ikusten ditugun markak DS arruntetan ikusten diren berberak dira. Eta hauek ere konplementatzailetzat har litezke, edo agian zuzenago, esan beharko genuke konplementatzaileak eta gainerako postposizioak, direla kasu postposizioak, direla adberbio postposizioak, funtsean gauza bera direla. Gauza bera dira, kategoria bera, deitzen ditugun bezala deitzen ditugula. Nolanahi ere, ikuspegi honetatik perpausaren egitura eta egitura horren osagaiak nola taxutzen diren argiago ikus daiteke.

a. [Denak agurtuko nituela] esan nion.



b. [Zuek agurtze-ra] nator.



## 2.16. Juntaduraren arazoak

**2.16a** Arestian “konplementatzaile(ak)” izena erabili dugu, baina horiei “menderagailu” ere deitu izan zaie euskal gramatikan. Beste hizkuntza batzuetan, berriz, “menderakuntza-juntagailu” deitura ere erabili izan da. Guk hemen “juntagailu” kategoria juntadurarako gordeko dugu (ikus 28. kapitulua). Juntagailuak euskaraz ere badira, baina koordinaziozkoak dira, koordinazio juntadura gauzatzen dutenak. Hauetan juntagaiak sintaktikoki maila bereko izan ohi dira ([<sub>InfIS</sub> [<sub>InfIS</sub> *etorri da*] [<sub>junt</sub> [*eta*] [<sub>InfIS</sub> *berehala alde egin behar izan du*]]), eta ez bata bestearen mendeko ([[<sub>KonpS</sub> [<sub>InfIS</sub> *berehala alde egin behar izan du*] [<sub>Konp</sub> *-ela*]] *uste dut*) perpausean gertatzen den bezala). Konplementatzaileak, izan ere, postposizioen edo kasu marken pareko lirateke, eta ez juntagai-luen pareko<sup>3</sup>.

**2.16b** *Joango naiz eta zerbait esango diot* moduko perpaus juntatuak bereziak dira sintagmen kontu honetan. Hauetan ez dugu buru baten gainean garatutako sintagmarik. Burua eta osagarriaren artean hierarkia dago, mendekotasuna. Juntadura bestelako egitura bat da: [<sub>InfIS</sub> [<sub>InfIS</sub> *Joango naiz*] *eta* [<sub>InfIS</sub> *zerbait esango diot*]]. Bai juntadura eta bai menderakuntza DSen artean ere gertatzen da: [<sub>DS</sub> [<sub>DS</sub> *haurraren*] *guraso -ak*] vs [<sub>DS</sub> [<sub>DS</sub> *haurra*] *eta* [<sub>DS</sub> *gurasoak*]]. Zenbakien egituran ere bi eratako erlazioak ikusten ditugu: [*hamar* [*mila*]] vs [[*mila*] *eta* [*hamar*]]. Bietan zenbatekoa adierazten dugu, baina batean 10.000 (*hamar*


<sup>3</sup> Hala ere, baditugu euskaraz juntagailu sortu eta menderagailu edo bihurtu direnak: *garestia da baina erosiko dizut* > *erosiko dizut*, *garestia da baina*. Bigarren aldaeran, *garestia da baina* PSTik hurbil dago.




*bider mila*) dena, bestean 1.010 da (mila *gehi* hamar). Juntaduran bururik ez dagoenez, juntagaiak eta juntadura bera kategoria bereko izan ohi dira. Aldiz, mendekotasun erlazioa dagoenean, buruak agintzen du sintagmaren kategoria zein den.

Hortaz:

a)




b)




Baina

c)



d)



## 2.17. Interjekzioak, esaldi mailako elementuak

Interjekzioak eta heiagorak perpausetik kanpoko osagaiak dira. Esaldian maiz tartekatzen dira, baina betiere perpausaren egituratik at geratzen dira: *adio, agur, aupa, ene!, ai, ai ama...*

Interjekzioek hizketa ekintzak gauzatzen dituzte. Ez dituzte ekintzak edo gertaerak deskribatzen, *loreak gustuko ditut* moduko perpaus batek egin dezakeen moduan, ekintzok gauzatu egiten dituzte. Jendea agurtzeko (*agur, hepa...*), harridura edo samina azaltzeko (*ai!, ai ene!*), zin egiteko (*alajainkoa, alafede...*) erabiltzen ditugu. Hitz klase bat dira, bistan da, eta hiztegi-tan ager daitezke, baina interjekzioek ez dute sintagmarik islatzen. Bestelako

sintagmak interjekzio edo heiagora izan daitezke, nolabait: perpaus bat adibidez (*on egin dizula!, burutik pasatzea ere!, ez eta pentsatu ere, tira!...*), edo determinatzaile sintagma bat (*nolako lanak!, zer lotsa!*), adjektibo sintagma bat (*lotsagarria*), baina interjekzio batek ez du perpaus bat osatzen, ez eta interjekzio sintagmarik ere. Horregatik, nekez eman ahalko dugu interjekzio bat zehar-estiloan. Aldiz, galderak, aginduak eta adierazpenak erraz eman daitezke.

2. partea

## **MORFOLOGIA**

---



## 3. Morfologia lexikoa: sarrera

---

3.1. Sarrera: definizioak eta atalak

3.2. Eratorpena: atzizkiak, aurrizkiak eta artizkiak

3.3. Hitz elkarketa: izenak, adjektiboak, aditzak eta adberbioak

---

### 3.1. Sarrera: definizioak eta atalak

**3.1a** Hitzen egitura aztertzen duen atalari esaten zaio Morfologia. Euskarari dagokionez, garrantzi handikoa da atal hori, Gramatika honetan zehar determinatzaile sintagmak, aditzaren jokabidea, mendeko perpausak emateko modua eta abar aztertzean ikusiko dugunez. Gramatika honetako bigarren kapituluaren esan dugu hizkuntza bateko hotsak kateatuaz osatzen ditugula hitzak (§ 2.1c), eta hala da. Baina gogoan izan behar dugu hotsak hizketako unitateak direla, entzuten ditugunak, eta horien atzean unitate abstraktuak daudela, fonemak, esanahiak bereizteko balio dituzten elementurik txikienak. Azken hauek hizkuntzako unitateak dira, egiaz entzuten ez ditugunak, entzuten ditugun hots horien abstrakzio sortuak. Adibide bat emateko, euskaraz /p/ eta /k/ edo /s/ eta /z/ fonemak ditugula esaten dugu. Lehen biei esker bereizten ditugu *katu* eta *patu*; bigarrenei esker, *jazo* eta *jaso*. Baina gero, hitz baten hasieran, edo bokal artean, edo amaieran gertatu, ez ditugu beti berdin-berdin ahoskatzen /p/ edo /k/; hala ere, ahoskera aldaera horiek ez ditu kontuan hartzen gure belarriak. Euskaldun askok, bestalde, antzera ahoskatzen dituzte /s/ eta /z/, baina badakite euskarak bi fonema horiek bereizten dituela. Fonetika esaten dio-

gu hotsen azterketaz arduratzen den gramatikaren atalari; fonologia, aldiz, fonemak aztergai dituenari.

Fonemen eta hitzen artean, ordea, baditugu beste osagai batzuk ere, morfema deitzen ditugunak. Morfemek lagunduko digute hitzen egituraren berri ematen. Bigarren kapituluaren esan dugu (§ 2.2a) hitzak ez direla nolana osatzen: *maltzurkeria*, *elebitasuna* edo *gorrotatzen* euskal hitzak direla, baina ez *\*keriamaltzur*, *\*tasunbiele* edo *\*tzegorrotan*. Hau da, fonemak ezin ditugu nolana nahika elkartu hitzak osatzeko. Baina adibide horiek erakusten digute hitz horien barruan badirela “hitz atalak” ere. Izan ere, zaila da “hitz” zer den definitzea. Hala ere, *Semeak nota onak ekarri ditu* perpausean, adibidez, bost hitz bereizten ditugu: *semeak*, *nota*, *onak*, *ekarri* eta *ditu*. Badirudi, intuizioz, bi zuriuneren artean doan elementuari deitzen diogula “hitz”.

Baina euskaldunak badaki bost hitz horietako batzuk, aldi berean, elementu batez baino gehiagoz daudela osatuak; beste batzuk, ostera, ez. *Nota* hitzak ez du barne egiturarik, ezin dugu hor beheragoko elementurik bereizi; gainerakoetan, berriz, elementu bat baino gehiago bereizten ditugu. *Semeak* hitzak honako egitura hau du: *seme-a-k*; *onak* hitzak *on* eta *a-k* elementuak ditu; eta beste biak ere honela zatituko ditugu: *ekarr-i*, *d-it-u* (agerian, behintzat, ez baitago bestelako elementurik, nahiz adizki laguntzailea aztertzean ikusiko dugun amaieran badela ikusten ez den elementu bat, morfologian gauzatzen ez den elementu bat, *semeak* subjektuari dagokiona). Era berean, goraxeago aipatu ditugun *maltzurkeria* edo *elebitasun* hitzetan, gai gara osagai txikiagoak bereizteko: *maltzur* eta *keria*, lehen hitzean, *ele*, *bi* eta *tasun*, bigarrean. Morfema esaten zaie hitzen eta fonemen arteko osagai horiei. Morfemak dira esanahia duten unitate txikiak, gehiago zati ezin daitezkeenak. Fonemak dira morfema baino txikiagoak, baina fonemek ez dute berez esanahirik. Morfologia da morfemen berri ematen digun gramatikaren atala, bai eta hitzak sortzeko morfemak nola antolatzen diren aztertzen duena ere (zergatik *maltzurkeria* bai, baina *\*keriamaltzur* ez). Hau da, Morfologia hitzen egituraz eta osakeraz arduratzen da.

Morfema guztiak, ordea, ez dira mota berekoak. Bakarrik ager daitezkeen ala ez kontuan hartuta, morfema askeak, beregainak, eta morfema lotuak, hizkiak,

bereizten dira; ematen duten informazioaren arabera, morfema lexikoak eta morfema gramatikalak ere bereiz daitezke. Lehen ere aipatu ditugu, bigarren kapituluhan, “banako lexikoak” eta “banako funtzionalak” (§ 2.4) eta aurrerago ere izango ditugu aztergai kategoria lexiko eta funtzionalen arteko desberdintasunak (§ 11.3). Laburbilduz, morfemak dira unitate txikienak (esanahia edo funtzio gramatikala dutenak), eta hitzak unitate gorenak (heine batean autonomia sintaktikoa duten morfema-elkartzeak), hala nola *nota*, *semeak*, *ekarri*, *ditu*... Morfema lexikoak eta hitzak bat etor daitezke; goiko adibideetan, *nota* morfema da eta hitza, aldi berean. Ondorengo lerroetan aztertuko ditugu morfema batzuen eta besteen arteko berezitasunak.

**3.1b** Begi bistakoa da adibide gisa eman dugun perpaus horretako elementuak ez direla guztiak modu berekoak. Batzuk beregainak dira, independenteak —*seme*, *nota*, *on*, *ekar*—, kategoria lexiko jakin bat dute, dela izena (*seme*, *nota*), dela adjektiboa (*on*), dela aditzoina (*ekar*); informazio lexikoa ematen dute; morfema lexiko beregainak dira. Kapitulu bana eskainiko diogu gramatika honetan kategoria hauetako bakoitzari, eta han aztertuko ditugu xeheki izen kategoriako, adjektibo kategoriako edo aditz kategoriako hitzen ezauzgarriak. Beste osagai batzuk, aldiz, hizkiak dira, beste elementu bati loturik erabili behar dira nahitaez; askotan informazio gramatikala ematen dute hizki horiek. Hasieran eman dugun perpausean (*semeak nota onak ekarri ditu*) honako hauek dira morfema gramatikalak edo funtzionalak: *-a*, *-k* (bi ditugu gure perpausean), *d-*, *-it-*, *u*. Areago, badakigu bi *k* horiek ez direla berdinak, lehenak ‘nork’, subjektua, markatzeko balio duela eta bigarrenak, aldiz, plurala markatzeko. Informazio gramatikala ematen dute horiek guztiek: sintagmak osatzeko beharrezko diren elementu gramatikalak adierazten dituzte —artikulu, numeroa, kasu marka—, edo, aditzen kasuan, aspektua, aldia, pertsona, numeroa... Kategoria funtzionalak dira horiek guztiak. Dagokien lekuan ikusiko ditugu banan-banan hauek guztiak gramatika honetan. Dena den, kategoria lexiko eta funtzionalen arteko banaketa ere ez da beti hain argia euskaraz (§ 11.4).

Informazio gramatikala ematen dute, era berean, adizki laguntzaileari loturik mendeko perpausa zer motatakoa den, perpaus nagusian zer funtzio sintaktiko

betetzen duen adierazten duten hizkiek: *-ela, -en, ba-...* Beste hauek ere, *eta, baina, hala ere, ezen...* informazio gramatikala ematen dute, nahiz hitz beregainak izan. Flexio Morfologia esaten zaio informazio gramatikala ematen duten hitz eta hizkiak aztertzen dituen morfologiaren atalari, kategoria funtzionalak aztertzen dituen morfologiaren atalari. Morfema gramatikalak ditu aztergai flexio morfologiak, horietatik gehienak morfema lotuak, hizkiak, dira. Nolanahi ere, badira morfema gramatikal beregainak ere, goraxeago ikusi dugun moduan; hor aipatuez gain, *-z gain, -en gainean, -i buruz* motako postposizioek ere funtzio gramatikalak adierazten dituzte.

**3.1c** Baina badira bestelako hizkiak ere. *Leku menditsuak atsegin ditut* perpausean, baditugu goiko perpauseko (*semeak nota onak ekarri ditu*) elementuen parekoak: *leku, atsegin, a, k, d, it, u, t. Menditsu, ordea, beste bi elementutan zati dezakegu: mendi eta tsu.* Berdin gertatzen da beste perpaus honetan ere: *Edertasuna pasakorra da;* horko *edertasun* eta *pasakor* hitzek honako egitura hau dute: *eder + tasun* eta *pasa + kor*, hurrenez hurren. Horko *-tasun* eta *-kor* ere ez dira beregainak, beste elementu bati loturik ageriko zaizkigu beti; baina ez dute funtzio gramatikalik adierazten, kategoria lexiko bateko oinarri bati loturik, beste kategoria lexiko bat osatzen dute. Gure adibideetan, *mendi* (izena) + *-tsu* > *menditsu* (adjektiboa); *eder* (adjektiboa) + *-tasun* > *edertasun* (izena); *pasa* (aditzoina) + *-kor* > *pasakor* (adjektiboa). Eta esanahi lexikoa dutela esan daiteke, ‘nolakotasuna’, ‘ugaritasuna’, ‘joera, erraztasuna’ adiera gehitzen diotela lotzen zaien izenari, adjektiboari edo aditzoinari. Beraz, *menditsu, pasakor, edertasun...* hitzen egitura ere azter daiteke, baina egitura horretan ez dago flexio hizkirik; bestelakoa da hitz horien egitura.

**3.1d** Azkenik, beste mota bateko egitura duten hitzak ere badira euskaraz, adibidez *sagar tarta, neska-mutilak, bizartzuri, edo odolustu*. Izena da *sagar tarta*, baina, aldi berean, beste bi izenez osatua dago, *sagar* eta *tarta*. *Neska-mutilak* hitzaren egitura aztertzean, bi izen aurkituko ditugu, *neska* eta *mutil*, gehi *-a* (artikulua) eta *-k* (plural marka). *Bizartzuri* adjektiboa ere beste bi elementuz osatua dago, *bizar* izena eta *zuri* adjektiboa; orobat *odolustu* aditza, *odol* + *hustu* egitura duena. Kategoria lexikoak dira guztiak, beste kategoria lexiko batzuez osatuak.



Morfologia lexikoa deitzen zaio *edertasun*, *pasakor*, *menditsu*, *sagar tarta*, *bizarzuri*, *odolustu* eta horien antzeko hitzen egitura aztertzen duen morfologiaren atalari. Morfologia lexikoak kategoria lexiko bati hizkiak erantsirik beste kategoria lexiko bat sortzeko erregelak edo bi kategoria lexiko elkartzuz beste kategoria lexiko bat sortzeko erregelak aztertzen ditu.

**3.1e** Informazio lexikoa ematen duten hitzen egitura du aztergai Morfologia lexikoak, hitzen egitura aztertzeko eta hitz berriak sortzeko hizkuntza jakin batek duen erregela-multzoa. Bi azpiataletan banatzen da: eratorpena eta hitz elkarketa. Bi elementu aske, beregainez osatzen dira *hitz elkartuak*, bi kategoria lexiko elkartzuz beste kategoria lexiko bat sortzen da: *sagar tarta*, *seme-alabak*, *kale-garbitzaille*, *mihiluze*, *zuri-gorri*... Zer motatako hitz elkartuak dituen euskarak, zein erregela multzo baliatzen dugun horiek sortzeko, horixe du aztergai hitz elkarketak. *Hitz eratorrietan*, aldiz, elementuetako bat da askea, beregaina; eta oinarri horri hizki bat erantsiaz sortuko dugu hitz berri bat: *des-egin*, *mendi-tsu*, *zuri-tasun*, *liburu-tegi*, *barre-garri*, *iraun-kor*... Hitz eratorriak nola sortzen ditugun, zein erregelaz baliatzen garen aztertuko du eratorpenak. Nolanahi ere, hitz elkarketaren eta eratorpenaren arteko muga ez da beti hain argia; batzuetan zaila da esaten hitz jakin bat eratorria ala hitz elkartua den. Halakoak dira, esaterako, *aldi*, *bide* edo *gune* bigarren osagai dituztenak: *lanaldi*, *ikasbide* edo *ikergune* (§ 7.2.2.3f).

**3.1f** Morfologia lexikoak hitzen egitura aztertzen duela esan dugu; sintaxiak, aldiz, perpausen egitura aztertzen du. Baina hizkuntzalariek azpimarratu dute badirela parekotasunak morfologia lexikoaren eta sintaxiaren artean. Zehazkiago esanda, perpausetan eta perpausetako osagaietan, sintagmetan, buru den elementu bat izaten da, zer motatako sintagma den markatzen duena: *-a* artikulua, esaterako, determinatzaile sintagma osatzen du; *-k* ergatibo morfemak kasu-sintagma markatzen du eta abar (§ 1.4, § 2.5).

Modu berean, hitz eratorri eta elkartuetan ere osagaietako bat buru izango da; hau da, zer motatako kategoria lexikoa sortzen den erabakiko du. Adibidez, *mendi* izenari *-tsu* atzizkia erantsirik *menditsu* adjektiboa sortu da euskaraz; argi dago atzizkia dela adjektibo kategoria eman diona oinarrian dagoen izenari. Halaber, *ikus* aditzoinari *-garri* erantsi eta *ikusgarri* adjektiboa sortu da; atzizkia da hor ere hitz berriaren kategoria lexikoa erabakitzen duena. Berdin gertatzen

da beste hauetan ere: *zuri* (adjektiboa) > *zuritasun* (izena), *urdin* (adjektiboa) > *urdinu* (aditza), *eros* (aditzoina) > *erosketa* (izena), edo *oilo* (izen biziduna) > *oilategi* (izen bizigabea), *pilota* (izen bizigabea) > *pilotari* (izen biziduna). Orobat hitz elkarketan, elkartzen ditugun bi osagaietatik batek erabakitzen baitu hitz elkartuaren kategoria eta azpikategoriazioa: *egunkari* (izen bizigabea) + *saltzaile* (izen biziduna) > *egunkari-saltzaile* (izen biziduna), *odol* (izena) + *hustu* (aditza) > *odolustu* (aditza), *hanka* (izena) + *motz* (adjektiboa) > *hankamotz* (adjektiboa). Horregatik esango dugu euskaraz, oro har, burua eskuinean dutela hitz eratorri eta elkartuek (aurrerago zehaztuko ditugu salbuespenak).

**3.1g** Kategoria lexiko batzuek argumentu egitura dutela esan dugu, hau da, osagarri deitzen ditugun elementuak behar dituzte inguruan, eta osagarri horiek aseko dute argumentu egitura hori. Aditzek eta postposizioek ere (*buruz*, *gainean*, *barru*, *gain*, *kontra*...) izan ohi dute argumentu egitura, eta baita zenbait adjektibo eta izenek ere, argumentudun izenek, hain zuzen ere (§ 2.11b-2.11d, § 7.2.5-7.2.7, § 8.2.3, § 14.7e, § 14.9.3a, § 23.3). Beste hitz batzuetan esanda, osagarriak eskatzen dituzte. Ikuspegi honetatik, argi dago eratorpen bidez izenetik edo adjektibotik aditza sortzen dugunean, argumentudun kategoria lexikoa sortzen dugula.

Baina zer gertatzen da argumentu egitura duen kategoria horietako bat hitz eratorri bateko oinarri denean, edo hitz elkartu bateko osagai denean? Batzuetan argumentu egitura hori deuseztatu egiten dela esan dezakegu, ez duela inolako eraginik, sortzen den hitz berrian: *irakurri* aditzak, esaterako, nork (egilea) eta zer (gaia) zehaztea eskatzen du, baina *irakurgela* izena sortzean ezabaturik geratzen dira bi osagarriak. Oro har hala gertatzen da hitz elkartuko lehen osagaia aditza denean: *erakustoki*, *jangela*, *ikastetxe*... Izen kategoriako hitza sortzen denez, hor ez dugu argumentu egiturarik. Beste batzuetan, aldiz, atzizkiak hartzen du bere gain argumentuetako bat: *saldu* aditzak ere nork (egilea) eta zer (gaia) eskatzen du, eta egilea hartzen du bere gain *-tzaile* atzizkiak *saltzaile* izenean; beste argumentua modu batean zein bestean gauza daiteke, *liburuen saltzailea*, *liburu-saltzailea*... Agian ez da *saltzaile* izenaren ondoan agertuko, baina orduan testuinguruak argituko digu zer saltzen duen *saltzaile* horrek; *entziklopedia bat erosi dut eta saltzaileak esan dit ez naizela*

*sekula damutuko* perpausean, esaterako, argi dago zer *saldu* didaten. Batez ere aditz kategoria oinarri duten atzizkiak aztertzean (§ 4.2.4, § 4.4.1, § 4.5.1, § 5.4.6, § 5.5) eta hitz elkartu sintetikoak aztertzean arduratuko gara argumetu egituraz (§ 7.2.7, § 8.2.3).

**3.1h** Zenbait hitz elkartu eta eratorri aztertzean ohartzen gara aldaketak gertatu direla bi kategoria lexikoen elkargunean (hitz elkartuetan) edo oinarriaren eta atzizkiaren artean (eratorrien kasuan); hots lege deitu die Euskaltzaindiak aldaketa horiei. Hala, *artasoro*, *otalur*, *artile*, *itsasgizon*, *besamotz*, *iturburu*, *arnas aparatu*, *Euskal Herri*, *atalburu*, *artadi*, *iturgin*, *harakin*, *euskalgintza*, *itsaski* eta beste hainbatetan, beste itxura bat hartu dute *arto*, *ote*, *ardi*, *itsaso*, *beso*, *iturri*, *arnasa*, *euskara*, *atari* eta *haragi* izenek. *Arto*, *ote* eta *beso* bi silabakoak dira eta *-e/-o* bokala dute amaieran, baina azken bokal hori *-a* bihurtu da *artasoro*, *artadi*, *otalur*, *besamotz* hitzetan.

Hiru silabako izenak dira *itsaso*, *iturri* eta *arnasa*, bokalez amaitzen direnak; bokal hori galdu egin da *iturburu*, *iturgin*, *itsasgizon*, *itsaski* eta *arnas aparatu* izen elkartu zein eratorrietan.

Beste kasu batzuetan zerbait konplexuagoak dira aldaketak, azken bokala erori ondoren kontsonanteek ere zenbait aldaketa izan ditzaketelako. *Euskara*, edo *atari* izenek azken bokala galdu ondoren amaierako posizioan geratu den *-r > -l* bihurtu da; horrela sortu dira *Euskal Herri*, *euskalgintza* edo *atalburu*. *Haragi* edo *ardi* izenetan, osteraz, azken bokala erortzean geratu den kontsonante herskaria ahoskabe bihurtzen da *artile* hitz elkartuan; eta *-gin* atzizkiko herskaria ere ahoskabetu egiten da *harakin* edo *okin* hitz eratorrietan (*haragi + -gin > harakin*, *ogi + -gin > okin*).

Baina, batetik, aldaketa horiek ez dira beti gertatu hitzak sortzean; hortxe ditugu *arto irin*, *arto bizar*, *arto makila*, *besobakar*, *beso-buru* (*besabururen* ondoan), *besomotz*, *atari aurre* (*atalaurreren* ondoan), *iturri-bide*, *iturri aska*, *iturri txorrot*, *haragi gihar*, *haragi salda*, *haragi pusketa* eta abar. Bestalde, Euskaltzaindiak esana du “Hitz elkartuen osaera eta idazkera” 25. arauan, “Orain eratzekoak diren elkarteetan ez da komeni behinolako hots-aldatze legeak, aspaldixko galdurik daudenak, berpizten jardutea”. Beraz, hiztegietan aurkituko

ditugu hots aldaketa horiek izan dituzten hitz elkartu eta eratorriak; baina hots lege horiek ez daude gaur euskaraz bizirik hitz berriak sortzeko orduan.

**3.1i** Bi motatako hizkiak bereizi ditugu morfema lotuen artean: flexio morfemak eta morfema lexikoak edo eratorpen morfemak (hitz eratorriak osatzen dituztenak). Lehen motakoek informazio gramatikala ematen dutela esan dugu; bigarrenek, aldiz, informazio lexikoa, kategoria lexiko bati erantsirik beste kategoria lexiko bat sortzeko baliatzen ditugula.

**3.1j** Hizkuntzalariek honako bereizketak azpimarratu dituzte flexio morfemen eta eratorpen morfemen artean:

- 1) Flexio morfemek ez dute hitzaren kategoria aldatzen; morfema lexikoek, aldiz, bai. *Mendi* izena da eta izen izaten jarraitzen du *mendia*, *mendiak*, *mendiari*... sintagmak osatzean. Adjektibo bihurtzen da, ordea, *-tsu* morfema erantsi eta *menditsu* osatzean. Egia da behin baino gehiagotan morfema lexikoak ez duela kategoria lexikoa aldatzen, baina bai, behintzat, azpikategoriazioa: *pilota* izena da, eta baita *pilotari* ere; *-ari* atzizkiak ez du kategoria aldatu. Baina *pilota* izen bizigabea da eta *pilotari* izen biziduna. *Liburu* izen bizigabea da, eta halakoa da *liburutegi* ere; baina ez dituzte osagai berak onartzen inguruan batak eta besteak: *Hamar liburu irakurri ditut* / *\*Hamar liburutegi irakurri ditut*; *Hirurehun orrialdeko liburu* / *\*Hirurehun orrialdeko liburutegia*; *Donostiako udal liburutegi nagusia* / *\*Donostiako udal liburu nagusia* eta abar. Hala ere, hizkuntzalariek azpimarratu dute aurrizkiek ez dutela oinarriaren kategoria aldatzen: *egin/desegin*, *egin/berregin*; egia da, baina aurrizkiek ere informazio lexikoa ematen duten heinean, oinarriaren esanahia aldatzen dute.
- 2) Eratorpen morfemak flexio morfemen aurretik doaz, ezin dira eratorpen morfemen artean tartekatu: *zuritasunaz*, baina *\*zuriztasuna* edo *\*zuriaztasun*. Egitura zuzena hauxe da: *zuri - tasun* (eratorpen morfema) - *a - z* (flexio morfemak azken biak).
- 3) Flexio morfemak nahitaezkoak dira kategoria lexikoak —izena, adjektiboa edo aditza— perpausean erabiltzeko (§ 2.4d, § 2.14a), baina eratorpen morfemak ez. *Liburu* izenak ezinbestekoa du artikulua eta kasu marka edo

postposizio marka: *Liburua irakurri dut, Liburuak harritu nau* edo *Liburuetan gauza interesgarri asko aurki daitezke*. Ez du, esaterako, *-tegi* eratorpen atzizkiaren beharrik.

- 4) Eratorpena (eta baita hitz elkarketa ere) errekurtsiboa da; hau da, eratorpen morfema baten bidez kategoria lexiko bat sortu, eta kategoria honi beste eratorpen morfema bat erants diezaiokegu beste kategoria bat sortzeko: *ikus(i) > ikusgarri > ikusgarritasun*. Flexioa, aldiz, ez.
- 5) Eratorpen morfemek klase zabala osatzen dute, elementu berriak sar daitezke. Klase itxiak osatzen dituztenak, eta horrenbestez morfema berririk sarean onartzen ez dutenak, flexio hizkiak dira. Euskaraz, aurrizki bihurtzen ari zaizkigun *aurre-*, *gain-* eta horien antzekoak aipa ditzakegu eratorpenaren eta hitz elkarketaren artean gertatzen diren aldaketen lekuko (ikus § 7.2.2.4a). Eta flexioaren iraunkortasunaren lekuko dugu, berriz, aditzaren morfologian *zu* bigarren pertsona singularrari dagokion adizki forma oraindik ere pluralgileekin agertzea, halako balioa zuen garaien erakusgarri: *ikusi zaitut*.
- 6) Flexioa erregularra da, eratorpena ez; informazio gramatikal bera ematen dute beti flexio morfemek (plurala *-k* morfemak, pluralgilea *-it-* morfemak adizki laguntzailean, datiboa *-i* kasu markak...). Eratorpenean, berriz, maiz samar aurki ditzakegu esanahi aldaketak atzizki jakin baten bidez eratorritako hitzean; *-era* atzizkiak, aditzari erantsirik, ‘gertaera’, aditzari dagokion ekintza gertatzea adierazten du oro har (*igoera, jaitsiera, hasiera, amaiera...*), baina *sarrera* ez da ‘sartzea’ bakarrik, sartzeko lekua ere bada, eta baita sartzeko txartela ere (*sarrerak erosi ditut*).
- 7) Flexio morfemak eranstea ez da inoiz aplikatzen eratorpenean edo hitz elkarketan ikusi dugun moduko hots legerik (ikus § 3.1h): *ardi* ez da inoiz *art-* bihurtuko artikulua edo kasu marka hartzean. Eta, alderantziz, eratorpen morfema bat eranstea, edo hitz elkartu bat osatzean, ez dugu aurkituko flexio morfemak eranstea aurki dezakegun lotura hizkirik: *hezur* ize-nak *-e-* lotura bokala behar du *-k* kasu marka eranstea, *zenbait hezurrek*; ez du, ordea, inolako lotura bokalik behar kontsonantez hasten den eratorpen morfema bat hartzeko, *hezurtsu*.

Flexio hizkiak eranstea gertatzen dira bestelako aldaketak ere. Pluraleko artikuluari kasu markak edo postposizio atzizkiak eranstea gertatzen direnak, esaterako: *semeak + -k > semeek*, *semeak + -i > semeei*, *gizonak + -i > gizonei*; *mendia + -ra > mendira*, *lurra + -n > lurrean...* Halaber, aditzari menderagailuak eranstea: *nekarren + -la > nekarrela*, *zuen + -la > zuela*. Badira, azkenik, aldaketa nabarmenagoak ere, bereziki erakusleen flexioan: *hura/hari/han*, *hau/honi/hemen* eta abar. Morfologia diakronikoak ematen du aldaketa horien berri.

**3.1k** Dena dela, Hualdek (1991), Baztan, Arbizu eta Ondarroako azpieskalakiaz aztertzean, bokal asimilazioa eta bustikuntza dela-eta, flexio hizkiek bezalako jokabidea duten eratorpen atzizkiak eta jokabide desberdinekoak bereizi ditu. Mitxelenarengan (1977b) ere aurki daitezke hainbat aipamen eratorrien bokal asimilazioaz.

## 3.2. Eratorpena: atzizkiak, aurrizkiak eta artizkiak

**3.2a** Kategoria lexiko jakin bateko oinarriari hizki bat, beregaina ez den morfema bat erantsirik beste kategoria lexiko bat sortzeari deitzen diogu eratorpena. Hizkiak posizioaren arabera bereizten ditugu: aurrizkiak, oinarriaren aurrean, ezkerrean txertatzen direnak; atzizkiak, oinarriari eskuinean gehitzen dizkiogunak. Artizkiak edo infijoak ere aipatu dituzte euskal gramatikariek, bereziki *-ra-* aditz arazle zaharretan ikus dezakeguna: *eragin*, *eraman*, *erakarri*, *irakatsi* eta abar. Baina aspaldi utzi zion emankor izateari; artizki hori daramaten aditzei ere ez diegu gaur balio arazlerik ikusten, oro har: *irakatsi* ez da *ikasarazi*, *eraman* ez da *emanarazi...* (§ 23.2.1.2). Horregatik bi azpiatal nagusi egingo ditugu eratorpena aztertzean, aurrizkiei dagokiena eta atzizkiei dagokiena. Azken hauek aztertuko ditugu lehenik, ugarienak baitira eta baita emankorrenak ere.

**3.2b** Orain arte esandakotik erraz atera daiteke ondorioa zein informazio mota eman behar den atzizkiak aztertzean. Lehenik, atzizkiaren beraren oinarrizko forma zein den erabaki beharko dugu; izan ere, behin baino gehiagotan

gertatuko zaigu atzizki batek forma bat baino gehiago erakustea, adibidez, *bertsolari*, *aurrelari*, *pilotari*, *kazetari* edo *ardandegi*, *liburutegi*.

Alomorfo deitzen zaie aldaera horiei, eta, esan bezala, atzizkiaren oinarritzko forma zein den eta gainerako aldaerak zein ingurunetan ageri diren zehazten saiatu beharko dugu. Ondoren, atzizki bakoitzak zein motatako kategoria lexikoa sortzen duen zehaztu beharko da. Irizpide hau kontuan hartuz, izenak, adjektiboak eta aditzak sortzen dituzten atzizkiak bereiziko ditugu, batik bat. Atzizki adberbio sortzaileak ere aipatu ditugu, baina gutxi dira eta badituzte ezaugarri bereziak. Hirugarrenik, esanahi lexikoa duten heinean, zein motatako izenak, adjektiboak edo aditzak sortzen dituzten. Laugarren, zein kategoria lexikori eransten zaizkion; hau da, oinarriaren kategoria lexikoa zein den. Eta, azkenik, beste eratorpen morfema baten ondoren edo aurretik ager daitezkeen ala ez. Informazio hori guztia izango dugu kontuan forma bereko bi atzizkiren aurrean gauden ala ez erabakitzeko: *-arik*, esaterako, itxuraz forma bakarra izan arren, batzuetan izen bizidunak, lanbidea adierazten dutenak sortzen ditu (*pilotari*, *dendari*), eta beste batzuetan izen bizigabeak (*janari*, *edari*). Beraz, *-ari<sub>1</sub>* eta *-ari<sub>2</sub>* ditugula ondorioztatu beharko dugu.

**3.2c** Gramatika gehienetan egiten den modura, sortu den hitzaren kategoria lexikoa hartuko dugu irizpide nagusizat atzizkien sailkapena egitean. Eta kategoria bakoitzaren barruan, azpisailak egingo ditugu, gure artean Azkuek (1923-1925) egin bezala, zein motatako izena, adjektiboa... sortzen den bereiziaz. Atzizkirik emankorrenak, hitz berriak sortzeko oraindik ere baliatzen ditugunak baino ez ditugu aztertuko; gainerakoez, euskal lexikoaren ondarean antzeman ditzakegunez, baina hitz berririk sortzeko balio ez digutenez, aipamen orokor bat baino ez dugu egingo.

### 3.3. Hitz elkarketa: izenak, adjektiboak, aditzak eta adberbioak

**3.3a** Definizioa. *Hitz-elkarketa/4* lanean honela definitzen da hitz elkarketa: “Bi hitz elkartzuz adierazle berri bat sortzeko bidea dela esan ohi da hitz-elkar-

keta”. Beste modu batera, esan dezakegu kategoria lexiko jakin bateko osagaiak edo lexemak elkartzen ditugula kategoria lexiko jakin bat izango duen beste lexema bat sortzeko. Kapitulu honen hasieran emandako adibideak berriro hartuz, *sagar* izena da eta kategoria berekoa da *tarta* ere. Bi horiek elkartuz, beste izen bat sortu dugu: *sagar tarta*. Izenak dira *neska* eta *mutil* ere, eta bi horiek elkartuz beste izen bat sortuko dugu, *neska-mutilak* (pluralen erabili beharrekoa, edo, behintzat ez singularrean (§ 7.1.2). Aditzoina da *eser* eta izena *leku*, eta bi horiek elkartetik sortzen da *eserleku* izena. Izena da *odol* eta aditza, berriz, *hustu*; hortik sortu dugu *odolustu* aditza. Adjektiboak dira *zuri* eta *gorri*, eta adjektibo kategoriakoa da biak elkartuz sortu dugun *zuri-gorri* ere. Izen kategoriako osagaia, *bizar* esaterako, eta adjektibo kategoriakoa, *zuri* adibidez, elkar ditzakegu *bizarzuri* moduko adjektiboak sortzeko. Edo izena, *ate*, eta adberbioa, *joka*, uztartuz, *ate-joka* adberbio elkartua sortuko da eta abar. Esan bezala, kategoria lexikoak dira guztiak, beste kategoria lexiko bat sortzeko elkartu ditugunak.

Hitz elkartuek, bestalde, balio generikoa izaten dute, ez dute erreferentzia konkretu, jakinik izaten. *Txori kaiola* izen elkartuak kaiola mota bat adierazten du, ez kaiola jakin bat. Berdin gertatzen da beste edozein izen, adjektibo, aditz edo adberbio elkarturekin ere. Horrexegatik dira osaeraz zalantzarakoak azken urteetan ugaritu zaizkigun *artzain eguna*, *euskara eguna*, *odolki eguna* eta horien kidekoak. Urteko egun jakin batez ari garen heinean, egokiago litzateke *artzainen eguna*, *euskararen eguna* eta abar esatea.

**3.3b** Burua eta modifikatzaile/osagarri egitura. Kapitulu honen hasieran esan dugu sintaxi egituretan bezala, morfologia egituretan ere, hau da, hitz elkartu eta eratorrietan, badela osagai bat buru dena. Hitz elkartuei dagokienez, elkartzen ditugun bi osagaietatik batek erabakitzen du hitz elkartuaren kategoria eta azpikategorizazioa (§ 3.1f): *egunkari* (izen bizigabea) + *saltzaile* (izen biziduna) > *egunkari-saltzaile* (izen biziduna), *odol* (izena) + *hustu* (aditza) > *odolustu* (aditza), *hanka* (izena) + *motz* (adjektiboa) > *hankamotz* (adjektiboa). Horregatik esaten dugu euskaraz, oro har, burua eskuinean dutela hitz elkartuek, nahiz aurrerago ikusiko ditugun bestelako egiturak ere (esaterako, dvan-dva motako elkartuak edo atributu eta koordinazio egiturakoak, § 7.1, § 8.1).



Esanahi orokorra ere bigarren osagaiak ematen du: *behi esne* esatean *esneaz* ari gara, *esne-mota* jakin batez. Berdin gertatzen da *burdin barra* izen elkartuan ere; *barra* batez ari gara, baina ez edozein motatako barraz, baizik *burdinaz* egindakoaz. Horregatik deitzen diogu euskaraz “mugakizun” buru den bigarren osagai horri, esanahia mugatzen diolako ezkerreko osagaiak. Eta ezkerreko osagaiari, berriz, “mugatzaile”, bigarrenaren esanahia mugatzen duelako.

Esan bezala, badira bestelako egiturak ere, bi osagaiak buru diren egiturak, alegia (*senar-emazteak*, *makina-erreminta...*), dagokion lekuan aztertuko ditugunak. Hitz elkartu endozentriko deitu izan zaie horiei guztiei, burua, osagai nagusia, egitura elkartuaren barruan dutelako. Badira bestelakoak ere, burua ‘kanpoan’ dutenak eta horregatik exozentriko deitzen zaienak. Horrelakoetan, elkartuaren ezaugarri gramatikal eta semantikoak ez datoz bat osagaien ezaugarriekin. Hitz elkartu exozentrikotzat hartuko ditugu irakurketa metaforikoa duten *artaburu*, *astaputz*, *baba-lore*, *txoriburu* eta abar; jatorriz mendekotasunezko izen elkartu izanik, bigarren adiera bat hartu dutenak, ‘argi gutxiko pertsona’, ‘ergela, sineskorra’, ‘buru gutxiko pertsona’... Zazpigarren kapituluaren jardungo dugu hitz elkartu exozentrikoez (§ 7.2.10).

Mendekotasunezko elkartu endozentrikoetan, mugatzailearen eta mugakizunaren arteko erlazioa bi modutakoa izan daiteke: modifikatzaile-buru harremana, edo osagarri-buru harremana. Lehen motako harremana izango dugu mendekotasunezko izen elkartu gehienetan. Mugakizuna, eskuineko osagaia, bera bakarrik ager daiteke, eta hala agertzen da sarri askotan; alegia, ez dago inolako arazorik *sagar tarta* izen elkartuko *tarta* izena bakarrik erabiltzeko, ez du behar ezkerrean bestelako elementurik. Berdin gertatzen da *burdin barra*, *metal ur*, *patata lur*, *telefono kabina*, *trumoi laino* edo *olio argi* izen elkartuetako mugakizunekin ere (*barra*, *ur*, *lur*, *kabina*, *laino*, *argi* izenekin). Ezkerreko osagaiak modifikatzaile zeregina duen heinean, mugatu egiten du eskuinekoaren esanahia, baina mugakizunak ez du ezkerreko modifikatzaile horren beharrik.

Baina badira izenak osagarria hautatzen dutenak. Horrelakoak dira erlaziozko izenak —adibidez, senidetan izenak, irudi izenak (*argazki*, *erretratu*, *irudi...*),

beste izen batzuk (*etsai, arerio, jabe, lagun, nagusi...*), izen abstraktuak (*arazo, ardura, asmo, aukera, antz, baldintza, behar, berri, defentsa, eite, erruki, eztabaida, hipotesi, ideia, itxura, kontu, kritika, kezka, lege, maitasun/gorroto, nahi, premia, susmo, teoria, uste*)— eta aditzetik eratorritako izenak (Artiagoitia 2011). Erlaziozko izenetan, *aita* edo *izeba* esatean beharrezkoa zaigu noren aita edo izeba den zehaztea; informazio hori askotan izenlagunak emango digu, edo aditz komunztadurak (*izebak eman dit* esaten badut, argi dago nire izebaz ari naizela)... Berdin gertatzen da *jabe, etsai* edo *arerio* izenekin nahiz *erretratu, argazki* eta antzekoekin. Erlaziozko izenak mugakizun direnean, osagarri funtzioa betetzen du askotan mugatzaileak: *etxe jabe, emakume irudi*; baina modifikatzaile ere izan daiteke *gatz irudi* ‘gatzeko irudi’ (eta ez ‘zeren irudi’). Aditzetik eratorritako izena edo adjektiboa mugakizun denean, aditz horren argumentu egitura izan behar dugu kontuan, argumentu egitura horrekin zer gertatzen den ere aztertu beharko dugu. Argumentuetako bat hitz elkartuko lehen osagaiak bete dezake, *liburu-saltzaile* eta *ohe-bigungarri* izenetan, esaterako, gertatzen den bezala (§ 7.2.7, § 8.2.3). Oro har, aditzetik eratorritako izen, adjektibo eta adberbioak dira argumentu egitura dutenak. Kategoría horietako elkartuak aztertzean, edo aditz elkartuez jardutean kontuan hartuko dugu, beraz, argumentu egitura.

**3.3c Sailkapena.** Euskaltzaindiak sailkapen zehatza eskaini zuen hamazazpi multzotan banatuaz hitz elkartuak, eta xeheki aztertu zuen multzo edo hitz elkartu mota horietako bakoitza lau liburukitan (ikus bere webgunean *Hitz-elkarketa/1, Hitz-elkarketa/2, Hitz-elkarketa/3* eta *Hitz-elkarketa/4*). Horien guztien berri emango dugu ondoren, baina irizpide nagusi batzuen barruan txertatuko ditugu azpimultzo horiek. Izan ere, hitz eratorriak sailkatzean egin bezala, hitz elkarketan ere ohikoa izaten da hitz elkartuaren kategoría hartzea irizpide nagusizat. Beraz, izen elkartu, adjektibo elkartu, aditz elkartu eta adberbio elkartuen artekoa da lehen bereizketa. Horietako bakoitzean, osagaien kategoriaren araberrako azpisailak egiten dira. Izen elkartuetan, esaterako, izen+izen motakoak, aditzoin+izen motakoak eta abar. Adjektibo elkartuetan, adjektibo+adjektibo egiturakoak, izen+adjektibo egiturakoak...

Irizpide gehiago ere hartu dira kontuan, ordea, hitz elkartuak sailkatzean. Esaterako, bi osagaiak maila berean dauden, ala osagaietako bat bestearen mendeko

den; irizpide horren arabera, bereiziko ditugu *izeba-osabak*, *afari-merienda* batetik, eta *txori kaiola*, *sagar tarta* bestetik. Lehenek, ‘izeba eta osaba’, ‘afari eta merienda’ (aldi berean den otordua) adierazten dute; bigarrenek, ‘txorientzako kaiola’, ‘sagarrez eginiko tarta’... Irizpide hori baliatu da *Dvandva elkartuak*, *Atributu eta koordinazio elkartuak* eta *Mendekotasunezko elkartuak* bereizteko. Azken hauetan, mendekotasunezko elkartuetan, eta zehazkiago izen+izen egiturakoetan, bi osagaien arteko harreman semantikoari ere erreparatu izan zaio. Hau da, gorago esan dugunaren arabera (§ 3.3b), ezkerreko osagaiak eskuinekoaren esanahia mugatzen badu, mugatze motak bereizi dira; *burdin barra* izenean, barra ‘zertaz’ egina dagoen zehazten du mugatzailerak (ezkerreko osagaiak); *txori kaiola* izenean, aldiz, kaiola ‘zertarako’ den ematen du aditzera lehen osagaiak. Dagokion kapituluan jardungo dugu erlazio semantiko hauetaz (§ 7.2.2.2).

Eta, bestalde, osagaien kategoriaz gain, morfologia egiturari ere erreparatu izan zaio, aditzetik eratorririko izen eta adjektiboak bigarren osagai (mugakizun) dituzten elkartuen azpimultzoa egiteko: hitz elkartu sintetiko deitu zaie *bertso-jartzaille* edo *begi-mingarri* egiturakoei (ikus § 7.2.7, § 8.2.3).

**3.3d Berrelkarketa.** Behin eta berriro errepika daitekeen baliabidea da hitz elkarketa. Gramatikaren ikuspegitik ez dago horretarako mugarik, ez euskaraz eta ez beste hizkuntzetan ere; alegia, bi osagaik eratutako elkartua, aldi berean, beste elkartu bateko osagai bihur daiteke; eta hau, aldi berean, hirugarren elkartu bateko osagai eta abar. Euskaltzaindiak adierazi bezala, *lan-bilera mahaia*, *bide-laguntza elkartea*, *dantza-talde mota*, *harri-jasotze txapelketa*, *landare-izen zerrenda*, *lansari-igoera*, *mendi-portu izenak*, *pinu-adar muturrak*, *udal musika-eskola*, *gurdi-ardatz aldaketa*, *administrazio-hiztegi batzordea*, *ganadu lehiaketa-erakusketa*, *esne-hauts saltzailea*, *euskal aldizkari-zuzendari-bilera* edo *soinu-uhin-hedapen-abiadura* moduko izen elkartuak ez dira ezinezko euskaraz. Berrelkarketa deitu zaio euskaraz prozedura horri. Hitz elkartuen azterketari eskainitako liburukietan sailez sail aipatzen dira berrelkarketak; bi motatako egiturak ikusiko ditugu, edo osagaietako bat (edo biak) egitura koordinatuak dituztenak, hala nola *ardi eta abere talde*, *hitz ugaritasun eta edertasun*, *mendetasun eta zintzotasun hitz eta agindu*. Horrela

ulertzen ditugu izen elkartu horiek: ‘ardi talde + abere talde’, ‘hitz ugaritasun eta hitz edertasun’, ‘mendetasun hitz + mendetasun agindu + zintzotasun hitz + zintzotasun agindu’. Ugariak dira euskaraz mugatzaile koordinatua dutenak; gutxiago dira mugakizun koordinatudunak, eta guztiz bakanak bi osagaiak koordinatuak dituztenak. Ugariak dira [[iz + iz] + iz] egiturakoak ere: *aizko-ra-joko egun, azahar-ur tanto, bertsopaper txapelketa, eliza kantari talde, es-ne-zopa katilu, herri-hitz hiztegi, kamioi-motor hotsak* eta abar.

Euskaltzaindiak “Hitz elkartuen osaera eta idazkera” arauan esanaren arabera, beharrik ez dagoenean ez guke hirutik gorako hitz elkartuetara jo behar: hobe *euskal aldizkarietako zuzendarien bilera, soinu-uhinen hedapen-bidea* edo *Mendibilgo Udalaren kirol-patronatua*, ezen ez *euskal aldizkari-zuzendari-bilera, soinu-uhin-hedapen-bidea* eta *Mendibilgo udal-kirol-patronatua*. Baina, eransten zuen Euskaltzaindiak, “aitortu behar da hor ez dagoela gramatika-debekurik; pragmatika nagusitzen da, zer den ulergarriago, zenbat osagaiko elkarte prozesa dezakeen gure burmuinak”. Kasuistika zehatzagoa aurkituko du irakurleak *Hitz-elkarketa/4* liburukian, noiz den errazago berrelkarketa.

**3.3e** Hots legeak eta idazkera. Kapitulu honen hasieran aipatu ditugu hots legeak, hitz eratorriak eta hitz elkartuak sortzean bi osagaien artean gertatzen diren aldaketak, alegia (§ 3.1h). Han esandakoaz gain, beharrezkoa da zenbait xehetasun ematea hitz elkartuei dagokienez. Lehenik, gogoan izan behar da hots lege horiek ez direla betetzen hitz elkartu mota guztietan: mendekotasunezko elkartuetan bakarrik aurki ditzakegu hasieran aipatu moduko aldaketak. Esan nahi da *gari-artoak* izen elkartuan, esaterako, ez dugula inoiz *gal* aldaera aurkituko, hor bi osagaiak maila berean ditugulako; bai, ordea, *galso-ro*, hor *gari* izenak *soro* mugatzen duelako, zein soro motaz ari garen zehazten duelako. Baina mendekotasunezko elkartuetan ere, lehen osagaia (mugatzaila) eratorria bada, nekez gertatuko da aldaketarik (*\*bertsolal elkarte, \*txistular talde*).

Hots aldaketa guztiek ere ez dute hedadura bera izan (-i askoz maizago erori izan da -u baino, esaterako). Hedadura handiagoa izan duten aldaketak ere zenbait hitzetan gertatu dira, eta horietan ere ez beti: *begi, ardi, argi, idi, arta,*

*beso, etxe* edo *iturri* mugatzaile direnean, aurki ditzakegu *bet-, art-, art-, it-, arta-, besa-, etxa-, itur-* forman: *betile, artile, artizar, iteuli, artaburu, besa-motz, etxalde, iturburu...* Baina beste askotan inolako aldaketarik gabe aurkituko ditugu, *Hitz-Elkarketa/2* liburukiko adibideek erakusten dutenez: *begi-keinu, begi-kolpe, begi-azal, ardi-larru, ardi-esne, ardi-gazta, ardi-txabola, ardi-txakur, argi-txinta, argi-izpi, arto-erregutada, arto-jale, arto-alor, beso-lan, beso-gihar, etxe-erretze, etxe-abere, iturri-belar, iturri-ertz, iturri-lats, iturri-leku, iturri-txori...* Ildo beretik, *haragi* izenak, eratorriak sortzean eman ditu *harakin* eta *harategi*; hitz elkarketan, ordea, gure adibideteak *haragi-xerra, haragi-trontzo* edo *haragi-puxka* bildu ditu. Hori guztia kontuan izanik eman zuen Euskaltzaindiak gomendioa “orain eratzekoak diren elkartetan ez da komeni behinolako hots-aldatze legeak, aspaldixko galdurik daudenak, berpizten jardutea” (25. araua).

Hitz amaierako *-a* bokala —*a* itsatsia— erortzeari dagokionez, bost izenetan onartu du Euskaltzaindiak azken bokal hori galtzea izen elkartua osatzera koan: *burdin(a), eliz(a), hizkuntz(a), kultur(a), literatur(a), natur(a)*. Eta *-ia* amaierako izenetan, hasieran libre utzi bazuen ere azken bokala galtzea, *Euskaltzaindiaren Hiztegian historialari, zientzialari, zientzia-ikasketak* eta abar hobetsi dira. Hau da, *-ia* amaiera bere horretan gordetzea.



## 4. Morfologia lexikoa: eratorpena (I)

- 
- 4.1. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (I). Nolakotasuna, izaera edo lanbidea adierako izenak (-*tasun*, -*keria*, -*go*, -*tza*<sub>1</sub>, -*gintza*, -*era*<sub>1</sub>); 4.1.1. Sarrera; 4.1.2. -*tasun*; 4.1.3. -*keria*; 4.1.4. -*go*; 4.1.5. -*tza*<sub>1</sub>; 4.1.6. -*gintza*; 4.1.7. -*era*<sub>1</sub>; 4.1.8. Beste atzizki batzuk: -*ezia*, -*tate*, -*tzia*
- 4.2. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (II). Izen bizidunak sortzen dituzten atzizkiak (-*ari*, -*gin*, -*gile*, -*le*, -*tzaile*, -*ko*<sub>1</sub>, -*zale*, -*sa*); 4.2.1. Sarrera; 4.2.2. -*ari* (-*lari*); 4.2.3. -*gin*, -*gile*; 4.2.4. -*le*, -*tzaile*; 4.2.5. -*ko*<sub>1</sub>; 4.2.6. -*zale*; 4.2.7. -*sa*
- 4.3. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (III). Izen multzokarien sortzaileak (-*di*, -*eria*, -*tza*<sub>2</sub>, -*keta*<sub>1</sub>, -*kada*<sub>1</sub>, -*te*); 4.3.1. Sarrera; 4.3.2. -*di*; 4.3.3. -*eria* (-*teria*); 4.3.4. -*tza*<sub>2</sub>; 4.3.5. -*keta*<sub>1</sub>; 4.3.6. -*kada*<sub>1</sub>/-*tara*; 4.3.7. -*te*; 4.3.8. Beste atzizki batzuk: -*kote*, -*tegi*, -*keta*<sub>2</sub>
- 4.4. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (IV). Objektua, tresna, lekua adierazten duten izenen sortzaileak (-*gailu*, -*garri*, -*ki*<sub>1</sub>, -*kada*<sub>2</sub>, -*kari*<sub>1</sub>, -*ki*<sub>2</sub>, -*kin*<sub>1</sub>, -*kizun*<sub>1</sub>, -*ko*<sub>2</sub>, -*gia*, -*tegi*); 4.4.1. Sarrera; 4.4.2. Tresna adierako izenen sortzaileak; 4.4.2.1. -*gailu*; 4.4.2.2. -*garri* (-*karri*); 4.4.2.3. -*ki*<sub>1</sub>; 4.4.3. Objektu adierako izenen sortzaileak; 4.4.3.1. -*kada*<sub>2</sub> (-*ada*); 4.4.3.2. -*kari*<sub>1</sub>; 4.4.3.3. -*ki*<sub>2</sub>; 4.4.3.4. -*kin*<sub>1</sub>; 4.4.3.5. -*kizun*<sub>1</sub>; 4.4.3.6. -*ko*<sub>2</sub>; 4.4.4. Leku adierako izenen sortzaileak; 4.4.4.1. -*gia*; 4.4.4.2. -*tegi* (-*degi*)
- 4.5. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (V). Gertaera, egoera edo ondorio izenen sortzaileak (-*dura*, -*era*<sub>2</sub>, -*keta*<sub>3</sub>, -*kunde*, -*kuntza*, -*men/pen*, -*tza*<sub>3</sub>/-*tze*, -*tze/te*, -*zio*, -*ginan*); 4.5.1. Sarrera; 4.5.2. -*dura* (-*tura*); 4.5.3. -*era*<sub>2</sub> (-*keria*); 4.5.4. -*keta*<sub>3</sub>; 4.5.5. -*kunde*; 4.5.6. -*kuntza*; 4.5.7. -*men/pen*; 4.5.8. -*tza*<sub>3</sub>/-*tze*; 4.5.9. -*tze/te*; 4.5.10. -*zio* (-*zino*, -*ziona*, -*ziño*); 4.5.11. -*ginan*, -*ginean*; 4.5.12. Beste atzizki batzuk: -*ada*, -*antza/antzia*; 4.5.12.1. -*ada*; 4.5.12.2. -*antza/antzia*
- 4.6. Zero atzizkia
-

## 4.1. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (I). Nolakotasuna, izaera edo lanbidea adierako izenak (-tasun, -keria, -go, -tza<sub>1</sub>, -gintza, -era<sub>1</sub>)

### 4.1.1. Sarrera

**4.1.1a** Ondoren aztertuko ditugun atzizki guztiek izen kategoriako hitzak sortzen dituzte. Izen horiek zein motatakoak diren aztertzerakoan, izenei dagokien kapituluan eginiko sailkapena hartuko dugu kontuan (§ 12. kapitulu). Modu askotako sailkapenak ikusiko ditugu Izenari dagokion kapituluan: izen arruntak eta bereziak; izen banakariak eta izen multzokariak; izen abstraktuak eta izen konkretuak; izen zenbakarriak eta zenbakaitzak; izen zenbakaitz neurgarriak eta neurgaitzak; izen bizidunak eta bizigabeak; argumentu izenak, gertaera izenak, kuantifikazio izenak eta sailkapen izenak. Baina gurutzatu egiten dira horietako asko: izen abstraktuak, esaterako, bizigabeak eta neurgaitzak dira; izen zenbakarriak eta zenbakaitz neurgarriak, guztiak, izen konkretuak dira eta abar. Irizpide semantikoak kontuan hartuta, izen askok eta askok entitateei egiten diete erreferentzia, baina badira egoerak adierazten dituztenak ere (*maitasun*, *adore*, *gorroto*), bai eta emaitzak (*suntsiketa*) eta prozesuak (*dantza*) adierazten dituztenak ere (§ 11.2d). Horregatik komeni da begiratzea nola sailkatu dituzten atzizki izen sortzaileak inguruko hizkuntzetan.

**4.1.1b** Lau azpisail nagusi egiten ditu Espainiako Akademiaren gramatikak (*Manual* 2010): nolakotasuna eta egoera adierazten duten izenen sortzaile diren atzizkiak; pertsona, tresna eta lekua adierazten duten izenak sortzen dituztenak; izen multzokariak, leku eta denbora adierako sortzaileak; ekintza edo gertaera eta ondorioa adierazten duten izenen sortzaileak. Itxuraz sailkapenean errepikapenak gertatzen direla dirudi, bi tokitan ageri baitira leku adierako izenak; azpisail batean eta bestean aztertzen diren atzizkiak ikusirik, ordea, jabetzen gara ‘pertsona, tresna eta lekua’ azpisailean *-dor* atzizkia dela nagusia, gehienetan pertsona izenak sortzen dituenak, beste batzuetan tresna izenak eta, gutxi batzuetan, lekua adierazten dutenak (*comedor*). Ingelesezt, ostera, hiru azpisail bereizi dituzte Bauer-ek, Lieber-ek eta Plag-ek (2013):



gertaera, egoera eta ondorioa adierazten duten izenak sortzen dituzten atzizkiak biltzen dira azpisail batean; pertsona adierakoak beste batean, eta multzokariak, nolakotasuna adierazten dutenak eta bestelako izen abstraktuen sortzaileak hirugarren azpisail batean. Azkuek askoz sailkapen zehatzagoa egin zuen, zortzi azpisail guztira: izen abstraktuak; egile izenak; izen multzokariak; tresna adierakoak; objektua, produktua adierazten dutenak; leku adierakoak; denbora edo garaia adierazten dutenak, eta ekintza zein ondorioa adierazten dutenak bereizi zituen. Izenaren kapituluan eginiko sailkapena eta inguruko hizkuntzetakoak ikusirik, honako azpisail hauek egingo ditugu gramatika honetan izenak sortzen dituzten atzizkiak aztertzeko: 1) nolakotasuna, izaera edo lanbidea adierako izenak sortzen dituztenak; 2) izen bizidunen sortzaileak; 3) izen multzokariak sortzen dituztenak; 4) objektua, tresna, lekua adierazten duten izenen sortzaileak; 5) gertaera, egoera eta ondorio izenak sortzen dituzten atzizkiak. Izenaren kapituluko argumentu, gertaera, kuantifikazio eta sailkapen izenei dagokienez (§ 12.3.5), proposatu ditugun bost azpisail horietako bakoitzean zehaztuko dugu zein atzizkiak sortzen dituzten horrelako izenak.

**4.1.1c** Nolakotasun, izaera edo lanbidea adierako izenak sortzeko erabiltzen ditugu atzizki batzuk. Horien artean, *-tasun*, *-keria*, *-go*, *-tza*, eta *-gintza* dira gaurko estandarrean emankorrenak: *gorritasun*, *zikinkeria*, *adiskidego*, *belartzza* eta *eztigintza* bezalako izenak sortzen dituztenak, alegia. Ondoko ataletan ikusiko ditugu guztiak.

#### 4.1.2. *-tasun*

**4.1.2a** Atzizkiaren lehari dagokionez, *-tasun* da forma hedatuena aspaldidanik; *-tarzun* ekialdeko euskalkietarako, behe-nafarreraz eta zubereraz erabiltzen da batik bat; *-asun* (eta *-arzun*) ikus ditzakegu zenbait hitzetan (*maitasun*, *osasun*), baina ez dira erabiltzen izen berriak sortzeko.

Edozein motatako adjektiboetara erantsen zaie *-tasun*, nolakotasuna, adjektibo horiei dagokien izaera adierazteko. Beraz, izen abstraktuak sortzen dituela

esan daiteke. Esan bezala, mota guztietako adjektibo kalifikatzaileek hartzen dute *-tasun*: kolore adjektiboek (*zuritasun, gorritasun, belztasun, berdetasun*), neurri adierakoek (*handitasun, txikitasun, estutasun, luzetasun*), izaera adierazten dutenek (*eskuzabaltasun, maitagarritasun, nagitasun, santutasun, trebetasun, zuhurtasun*), izenaren bestelako ezaugarriak adierazten dituzten adjektiboek (*edertasun, erraztasun, garraztasun, hezetasun, lehortasun, lizuntasun, zailtasun*), kopuru edo kantitatea adierazten duten adjektiboek (*bikoiztasun, bakuntasun, hirukoiztasun*); maileguez ere hartzen dute *-tasun* (*liberaltasun, normaltasun, praktikotasun*). Hona hemen beste adibide batzuk:

aberastasun, aisetasun, alfertasun, arraitasun, askatasun, beratasun, berotasun, bortiztasun, erosotasun, erotasun, eskastasun, eztitasun, fintasun, flakotasun, gaitasun, gaixotasun, gaiztotasun, garbitasun, gogortasun, hoztasun, itsutasun, justutasun, lazatasun, laxotasun, maitasun, mehartasun, mintasun, nagusitasun, onestasun, ontasun, osasun, pisutasun, sendotasun, sinpletasun, ttipitasun, uhertasun, umiltasun, usteltasun, zabaltasun...

**4.1.2b** Gogoan izan behar dugu nolakotasuna adierazten duten izen hauek ere heredatu egiten dutela oinarrian den adjektiboaren argumentua<sup>1</sup>. Izenaren kapituluan esana hitzez hitz hona ekarriaz (§ 12.3.5a): “Parekoak dira, argumentuei dagokienez, *mutil hori goxoa da eta mutil horren goxotasuna; kalea garbia da eta kalearen garbitasuna, edo argazkia ederra da eta argazkiaren edertasuna*”. Beraz, modu batean edo bestean, noren edo zeren *eskastasun, eztitasun, garbitasun, garraztasun, santutasun, sendotasun, trebetasun* edo *umiltasun*az ari garen esan beharko dugu.

Hona zenbait adibide, testuetan nolakotasun izenaren argumentua nola ageri den erakusten dutenak: *Ezezaguna begira geratu zen eta, zuhaitzen berdetasuna ikusirik, laudorioka hasi* (Aristi); *Ahotsaren garraztasuna printzipioen*

---

<sup>1</sup> Izen jakin bati buruz predikatzen dira adjektiboak eta izen hori hartzen da adjektiboaren argumentutzat (ikus honetaz Baker 2003): *mutil handi* esatean, *mutil* izenaz predikatzen dugu *handi* nolakotasuna. Beraz, *handitasun* izena ere zerbaiten edo norbaiten “handitasuna” izango da.

*garraztasunetik dator eta leuntasuna ere haien leuntasunetik* (X. Amuriza); *Arantxak astiro hitz egiten du, umiltasunez, geldiune luzeak eginez* (Sarriolandia); *Damu dut ohoinen trebetasuna ez izana* (Jon Muñoz). Badira, hala ere, balio orokorrean ageri direnak, noren edo zeren nolakotasunaz ari garen zehaztu gabe: *Orain mehartasuna dago modan* (Zubizarreta).

Hemen *-tasun* atzizkiaren bidez sorturiko izenez diogunak berdin-berdin baliu du, jakina, *-keria* atzizkiaz sorturikoentzat (edo *-eziaz* sortutako izenentzat —*abilezia, dotorezia*— eta abarrentzat ere).

*-dun* eta *-tar* atzizkiez osatutako adjektiboek ere har dezakete *-tasun* (*donostiartasun, euskalduntasun*); bai eta zenbait erreferentzia adjektibok ere (*nazionaltasun, industrialtasun, ekonomikotasun, politikotasun*).

**4.1.2c** Adjektiboaren kapituluan, adjektiboen eta izenlagunen arteko bereizketa egitean (§ 14.1), besteak beste aipatzen da adjektiboek har ditzaketela atzizkiak (hemen aztertzen ari garen *-tasun* lekuko, edo *-ki, handiki* eta abar), baina izenlagunek nekez hartzen dutela horrelakorik (§ 14.1h); eta, oro har, hala da. Baina *-ko* daramaten izenlagunetako batzuek onartzen dute ondoren *-tasun* (*betikotasun, egunerokotasun, egurrez-kotasun, etxekotasun, gauekotasun, gaurkotasun, urterokotasun, zerukotasun*). Eta horrek berak adierazten du, nolabait esateko, “adjektiboago” direla, adjektiboetatik gertuago daudela *-ko* atzizkiaren bidez osatzen ditugun izenlagunak, *-(r)en* atzizkiaren bidez osatuak baino.

Gizakia adierazten duten izenei, pertsonen erreferentzia duten izen arruntei ere erants dakieke *-tasun* (*adiskidetasun, ahaidetasun, aitatasun, aitzindari-tasun, amatasun, bertsolaritasun, erregetasun, esklabotasun, gatibutasun, gizatasun, haurtasun, idazletasun, jainkotasun, umetasun*). Adjektibo gisa erabil daitezkeen izenak dira, oro har (§ 14.1e), predikatu osagarri modura erabil daitezkeenak (§ 2.7e).

**4.1.2d** Azken urteetan sortu diren izen batzuetan, hala nola *kiroiltasun* edo *lurraldetasun* izenetan, izen konkretu bat ageri da oinarri gisa. Nola ulertu behar ditugu? ‘Kirolari dagokion nolakotasuna’, ‘lurrari dagokion nolakota-

suna’? Ez, noski. Bi adibide horietan erdal *deportividad* eta *territorialidad* ordezkatzeko modua aurkitu dugu; euskaraz berez erreferentzia izenondorik ez dugunez, *deportivo* eta *territorial* izenondoak mailegatu beste erremedio-rik ez genuke *deportibotasun* eta *territorialtasun* esanez (hala egin dugu *ekonomikotasunekin*, esaterako). Baina erdal erreferentzia adjektibodun sintagma askotan izen elkartuen bidez ematen ditugu, *problema laboral = lan arazo* eta abar (§ 7.2.2.2a), eta hemen ere *deportivo* adjektiboari dagokion euskal *kirol* eta *territorialidad*-en oinarriko izenaren pareko den *lurralde* izenak hartu ditugu, eta, izen elkartuekiko mimetismoz jokatzuz, gazt. *-(i)dad* atzizkiaren kide den *-tasun* erantsi. Izenlaguna ere izan daiteke erreferentzia adjektiboaren ordaina, *-tasun* atzizkiaren oinarria: *gauekotasun = nocturnidad*.

**4.1.2e** Baditu, azkenik, *-tasun* atzizkiak beste hainbat oinarri ere, emankortasun aldetik askoz marjinalagoak direnak, adibide bat edo beste eman dute-nak, baina hitz berriak sortzeko eredutzat erabiltzen ez ditugunak: *batasun*, *hirutasun*; *bikoiztasun*, *hirukoiztasun*. Baina ez *\*seitasun* edo *\*seikoiztasun*. Zenbatzaile mugagabe bat: *aniztasun*. Zenbatzaile ordinala: *lehentasun*. Eta zenbatzailedun sintagma: *elebitasun*, agian *elebiduntasun*-en ordezkaria. Aditzondoa du oinarri *maiztasun* izenak.

Adibideetan ikusi dugunez, beste hainbat eratorpen atzizkiren ondoren aurki daiteke *-tasun* (*bertsolaritasun*, *emankortasun*, *euskalduntasun*...). Bereziki aipagarria da azken urteetan erdal *-bilidad* itzultzeko erabili izan den *garritasun* segida (§ 5.5.2).

Bestalde, izen beregain moduan ere ageri da literaturan. Hala erabili dute Mendiburuk, Ubillosek, Zaitetik, Villasantek, Gandiagak edo Mitxelenak. Erabilera beregain hori areagotu egin da euskara estandarrean. Horren adierazgarri da *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* sarrera eman izana, izen kategoria eta ‘ezaugarria, nolakotasuna’ adiera duela esanez. Honako adibide hauetan ikus daiteke *tasunen* izen erabilera: *Fedeak edo siniste onak agertzen digu Jesusen gizatasuna, ta Jesus beraren Jainkotasuna, eta, tasun oriei dagozten, gauza guztiak* (Ubillos); *Gizakumearen tasun, doai edo propietate bat* (Villasante). Gramatikaren alorrean ere erabiltzen da.

### 4.1.3. -keria

**4.1.3a** -keria hartzen dugu gaur lematzat, nahiz hitz zaharretan -eria ere aurkitu (*arloteria, lukureria, urgulleria*). Hala ere, *arloteria* forma zaharraren ondoan, askoz gehiagotan ageri da *arlotekeria* gaur egungo corpusetan.

Adjektibo kalifikatzaileei eransten zaie -keria, baina ez edozein ezaugarri adierazten dutenei, baizik eta pertsonen predikatzen direnei eta gaitzesten dugun, begi onez ikusten ez dugun ezaugarriren bat adierazten dutenei (*alferkeria, arlotekeria, bortizkeria, doilorkeria, ergelkeria, erokeria, esnobkeria, gaitzakeria, lelokeria, lizunkeria, zurikeria*...). Oro har ona iruditzen zaigun ezaugarria adierazten duen adjektiboari eransten diogunean ere, sortzen den izenak beti izango du gaitzespen kutsua, kutsu peioratiboa: *maitakeria* ‘maitasun gaitzesgarria’ (EH); *santukeria* ‘itxura hutseko santutatuna’ (EH). Oinarriaren egitura kontuan hartuz gero, adjektibo eratorri zein elkartuei erants dakieke -keria (*ardozalekeria, izugarrikeria, berekoikeria, lotsagabekeria, ahoberokeria*...).

**4.1.3b** Izen bizidunak ere izan daitezke -keria atzizkiaren oinarri. Batetik, animalia izenak (*astakeria, azerikeria, oilokeria, txakurkeria, zerrikeria*); bestetik, pertsona adierako izenak (*aztikeria, deabrukeria, sorginkeria, ume-keria*). Horrelako izenei buruz, adjektibo gisa erabiltzen direla esan dugu adjektiboari eskainitako kapituluan (§ 14.1e). Izan ere, astoen, azerien, oiloen edo aztien jokabidean antzematen dugu gaitzesteko moduko ezaugarriren bat eta ezaugarri hori (edo jokabide hori) egozten diogu ondoan ageri den izenari (*mutiko astoa, pertsona zakurra, gizon oiloa* eta abar). Erabilera horrek argitzen du zergatik hartzen duten -keria aipatu berri ditugun izenek.

Azken urteetan sortu dira bestelako izenak oinarri dituzten -keriadun eratorriak ere (*bortxakeria, indarkeria*), baita aditza oinarri dutenak ere (*bazterkeria, bereizkeria*); *baztertu* edo *bereizi*, gizartekideez ari garela, gaitzesten ditugun jokabideak diren heinean, -keria erantsi zaie jokabide gaitzesgarria dela adierazteko. Mailegua eta -keria atzizkiaz sortutako izena, bata bestearen ondoan ere aurkitzen ditugu behin baino gehiagotan: *bereizkeria* eta *diskriminazioa*, *bazterkeria* eta *esklusioa* eta abar.

**4.1.3c** Atzizkiaren adierari dagokionez, beraz, argi ikusten da gizarteak gaitzesten dituen kualitateak, jokabideak adierazten dituzten izenak sortzen dituela. Villasantek (1974: 93-94) dioen bezala, atzizki markatua da; *-tasun*, al-diz, markatugabetzat hartu dute gramatikariek. Adibidez, *alfer* adjektiboak adierazten duen ezaugarria ez dugu oso begi onez ikusten, baina oinarri horretatik bi modutako izenak sor ditzakegu, *alfertasuna* eta *alferkeria*. Lehen kasuan, *alfer* ezaugarriari dagokion izaera, nolakotasuna, adieraziko dugu, inolako baloraziorik egin gabe; *alferkeria* diogunean, berriz, gaitzesten dugun zerbait adierazten dugu. Edo *zuritasun* ‘zuria denaren nolakotasuna’ / *zurikeria* ‘losintxa; faltsukeria, bertuteen itxurakeria’ (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*). Bada, ordea, *-tasun* eta *-keria* atzizkiak bereizten dituen beste zerbait ere. Biak hartu izan dira izen abstraktuen sortzailatzat, baina jokabide desberdina dute *-tasun* atzizkiaz sortutako izenek eta *-keria* atzizkiak sortutakoek. Izen abstraktuak zenbakaitzak dira, dagokien izen sintagmak ez du plural markarik edo kuantifikatzailearik hartzen. Eta hala jokutzen dute *-tasun* atzizkidunek: \**Maitasun handiak dizkiot Joni; Zenbat alfer dagoen mundu honetan* / \**Zenbat alfertasun dagoen mundu honetan*. Bestelako jokabidea dute, ordea, *-keriadun* izenek: *Zenbat gaiztakeria dagoen mundu honetan; Astakeria handiak egin ditu bere bizitzan*. Azken adibide honetan ikusten dugunez, gainera, *-keria* atzizkia erantsiz sortu diren izen asko egin aditzaren objektu izan daitezke: *Ohartzen naiz nolako gaiztakeriak egin ditudan* (*Elizen arteko Biblia*); *Gero eta zerrikeria handiagoak eginda ere* (X. Mendiguren Elizegi); edo *esan* aditzaren objektu: *Aneri lizunkeriak esaten* (U. Iturriaga). Beraz, hein batean zalantzan ere jar daiteke egiaz izen abstraktuak sortzen dituen atzizkia den; edo zenbateraino diren *lapurreta*, *azterketa*, *erosketa* eta mota horretako izenen antzekoak; ikus, esaterako, nola definitzen duen *Euskaltzaindiaren Hiztegiak haurkeria*: ‘haurrari dagokion egintza gaitzesgarria’.

#### **4.1.4. -go**

Ekialdeko testuetan ageri den atzizki honek bi motatako erabilerak izan ditu tradizioan. Batetik, gizaki adierako izenei eransten zaien *-tasun* atzizkiaren

baliokide da *ahaidego*, *etsaigo*, *adiskidego* edo *euskaldungo* adibideetan. Erabilera nagusia, ordea, lanbide adierakoa du: gizakia adierazten duten izenei erantsi eta lanbide edo estatus izena sortu (*abeltzaingo*, *alkatego*, *apezgo*, *berrettergo*, *buruzagigo*, *hargingo*, *zurgingo*...). Ondoren ikusiko dugun mendealdeko *-tza<sub>1</sub>* atzizkiaren baliokide da (§ 4.1.5). Badira bestelako adibideak ere, baina zaharkiturik daudenak eta eratorri berriak sortzeko eredutzat hartzen ez ditugunak (*bekaizgo*, *gaitzerizko*, *hegigo*, *onerizko*...).

Euskara estandarrean, ordea, beste eredu hau gertatu da emankorra, hitz berriak sortzeko bide eman duena (*biztanlego*, *entzulego*, *irakaslego*, *ikuslego*...), hots, izen multzokaria sortzeko baliatzea, baina tradizioan oinarririk ez duena. Erabilera oker horri, eta multzokariaren gehiegizko erabilerari aurre egin nahi izan dio Euskaltzaindiak (73. araua). Euskaltzaindiak oroitarazi du, batetik, gehienetan ez dugula izen multzokariaren beharrik, nahikoa dugula plurala erabiltzea (*ikastetxe honetako ikasle eta irakasleak*; *herri bateko biztanleak*); bestetik, izen multzokaria beharrezko denean, *-eria* atzizkiaz baliatzea (§ 4.3.3) gomendatu du Euskaltzaindiak (*langileria*, *biztanleria*, *bezeria*). Eta *-go* atzizkia erabil dadila ofizioa edo lanbidea adierazteko (*artzaingo*, *zurgingo*...), nahiz *-tasun* atzizkiaren baliokide (*euskaldungo*, *ahaidego*...).

Ikus honetaz 73. araua: “ <i>-go</i> atzizkia eta izen multzokariak”, Donostian, 1997ko maiatzaren 30ean onartua.
---

#### 4.1.5. *-tza<sub>1</sub>*

Eratorpenaren sarreran esan dugunaren harira, mota bateko baino gehiagoko izenak sortzen ditu *-tza* atzizkiak: gizakien lanbidea edo estatusa adierazten dutenak (*artzaingoa*, *ikazkintza*), multzo adierakoak (*belartza*, *sasitza*) eta gertaera edo ondorio adierakoak (*ezkontza*, *jaiotza*). Oinarriak ere desberdinak dira: izen bizidunak, izen bizigabeak eta aditzak, hurrenez hurren. Beraz, itxura bereko hiru *-tza* atzizki ditugula esan dezakegu: hemen aztertuko dugun *-tza<sub>1</sub>*, izen multzokariaren azpisailean ikusiko dugun *-tza<sub>2</sub>* (§ 4.3.4) eta gertaera, egoera eta ondorio izenen azpisaileko *-tza<sub>3</sub>* (§ 4.5.8).

-go atzizkiaren pareko dugu *-tza*; lanbide edo estatus jakin bat duen pertsona adierazten duen izena oinarri hartu eta lanbide izena sortzen du (*aitzurlaritzea, alkatetzea, artzaintza, bertsolaritzea, erregetza, ikazkintza, neskametzea, soldadutza...*). Euskara estandarrean lanbide izen asko sortzeko baliatu dugu (*erizaintza, hizkuntzalaritzea, ingeniarietzea, merkataritzea, zirujautza...*). Ohikoa du *-ari, -le* edo *-tzaile* atzizkien ondoren agertzea (§ 4.2); hau da, atzizki horien bidez eratorritako izenak hartzea oinarri.

#### 4.1.6. *-gintza*

*-gin + -tza* atzizkien elkarketaz sortua izanik ere, badira arrazoiak batez ere mendebaldean erabiltzen den *-gintza* atzizkiari bere lekua emateko. Izan ere, *-gin* ez dugu euskara estandarrean baliatzen ‘zerbait egiten duen pertsona’ izendatzeko (tradizio handiagoa izan du eta du gaur ere bizkaieraz, baina ahulduz joan da euskara estandarrean); *-gile* darabilgu horren ordeztan (*etxegile, liburugile, oinetakogile / ?etxegin, ?liburugin, ?oinetakogin*) (ikus *-gin, -gile* § 4.2.3). Baina etxeak, oinetakoak edo liburuak egiteari dagokion lanbidea izendatzeko, ez diogu *-tza*<sub>1</sub> gehitzen *-gile* atzizkiari; ez dugu sortu *etxegiletza, liburugiletza* edo *oinetakogiletza*. *Bertsolari* edo *idazle* oinarrietatik sortu dugu horrelako jarduna duten pertsonen lanbidea adierazteko *bertsolaritzea* edo *idazletza*; baina, bide beretik, ez dugu egiten *etxegile > etxegiletza*. Horren ordeztan, *-gintza* aukeratzen dugu mota bateko objektuak, gauzak... egiteari dagokion lanbidea edo jarduna izendatzeko (*araugintza, armagintza, eztigintza, izozkigintza, jantzigintza, legegintza, liburugintza, oihalgintza, teilagintza, testugintza...*). Irudizko adiera ere badu batzuetan, oinarrian objektu konkretu bat adierazten duen izena ez dugunean (*apaizgintza, ezkontzagintza, haurgintza...*).

Euskaltzaindiak (1991) hitz elkartu sintetikotzat (§ 7.2.7) hartu zituen *-gintza* atzizkiaren sortutako izenak *Hitz-Elkarketa/3* liburuan, *egin* aditzaren oihartzuna dagoelako. Hala ere, elementu beregaina ez den heinean, eratorpenean sailkatu dugu Gramatika honetan, Azkuek edo Villasantek egin bezala.



#### 4.1.7. *-era*<sub>1</sub>

Dimentsioa, neurria adierazten duen heinean, atzizki hau izen abstraktuak sortzen dituztenen artean sailkatu zuen Azkuek. Neurriarekin zerikusia duten adjektiboak hartzen ditu oinarri (*altu, garai, lodi, luze, sakon, zabal*) eta ‘zerbait behetik gora duen neurria’, edo ‘luzetasunaren, sakontasunaren neurria, zabaltasunaren neurria’ adierako izenak sortzen ditu (*Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko definizioak): *altuera, garaiera, lodiera, luzera, sakonera, zabalera*. ‘Loditasunaren neurria’, ‘luzetasunaren neurria’, ‘sakontasunaren neurria’ edo ‘zabaltasunaren neurria’ definizioa eman die *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ak izen horiei.

#### 4.1.8. Beste atzizki batzuk: *-ezia, -tate, -tzia*

Beste atzizki batzuk ikusten ditugu *-ezia, -tate, -tzia...* izen abstraktuen sortzaile eta, beraz, hein handi batean *-tasun* atzizkiaren baliokide; hain zuzen ere, euskarak askotan izango du *-tasundun* eratorria (*ahuldade/ahulezia/ahultasun, gabezia/gabetasun* eta abar) beste atzizki hauekin sortutako izenaren ondoan. Baina hemen aipatuko ditugun atzizkiok ez dute emankortasun handiegirik izan euskararen ondare lexikoan, eta ihartutzat eman ditzakegu euskara estandarrean hitz berriak sortzeko. Horien artean adibide gehien utzi dizkiguna *-ezia* da (ikus Villasante 1974: 75), adjektibo kalifikatzaileei erantsirik nolakotasuna adierazten duten izenak sortzen dituena (*abilezia, ahulezia, artezia, finezia, gabezia, pobrezia, trebezia*). Gehienetan mailegu egokituen amaieran aurkituko dugu *-tate* atzizkia (besterik da euskal ondare lexikoko mailegu horiek zer leku duten gaur euskara estandarrean), eta, horrenbestez, ez guke euskal eratorpen atzizkitzat hartuko (*birjinitate, karitate, libertate, sinzeritate*); baina latinezko *-tate(m)* atzizki horren aldaerak ere antzematen ditugu euskal adjektiboetatik eratorritako izenetan (*ahuldade, bakardade, gogortade, ondare, ondade...*)<sup>2</sup>. Gramatikarien artean *-tzia* atzizkiaren formak zalantzak

---

<sup>2</sup> Aditzoinari erantsirik sorturikoak dira *egitate, ikustate, jakitate* eta besteren bat. Ihartutzat eman ditzakegu, hurrenez hurren, *ekintza, begirune* edo *jakituria* izenen baliokide diren hauek ere.

sorrarazi ditu; Azkuek (1923-1925) eta Lafittek (1944) forma horretako atzizkia hartu dute kontuan, izen abstraktuak edo egoera izenak sortzeko baliatzen ditugun atzizkiak aztertzean. Villasantek (1974: 135), berriz, *-tza* atzizkiaren aldaeratzat jo zuen. Nolanahi ere, oso izen gutxitan antzemango dugu *-tzia* literatura ondarean (*ausartzia, nabarbentzia, zuhurtzia...*).

## 4.2. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (II). Izen bizidunak sortzen dituzten atzizkiak (*-ari, -gin, -gile, -le, -tzaile, -ko<sub>1</sub>, -zale, -sa*)

### 4.2.1. Sarrera

**4.2.1a** Jarduera jakin bat duten gizakien izenak sortzen dituzte, oro har, *-ari, -gin, -gile, -le* eta *-tzaile* atzizkiek. Beste hitzetan esanda, duten jardueraren edo lanbidearen arabera izendatzen dituzte pertsonak, *dendari, pilotari, harakin, etxegile, langile, idazle, saltzaile* eta abarrek. Hala ere, begi bistakoa da erraz erabil ditzakegula predikatu osagarri modura: *Nire ahizpa bertsolaria da; Gure gurasoak harakinak dira; Horko gazte hori idazlea da...* Areago, literaturan erraz aurki ditzakegu *-ari, -le* edo *-tzaile* atzizkien bidez sorturiko hitzak izen baten ondoren, hau da, adjektibo posizioan: *esku trabailari, hitz jokolari, tximeleta hegalaria, zezen ibiltari, hegazti harrapatzaile, mutil emaile...* Izen horiek, gainera, zenbaitetan bizigabeak dira; baina eskuen edo hitzen jarduera gaitasuna, zerbait egiteko gaitasuna nabarmentzen da *-ari* atzizkia duen bigarren osagai bat ondoan emanaz. Eta bada adibideren bat adjektiboek bezalako jokabidea duena, kuantifikazioa onartzen duena: *Oso langilea da; Ez nuen uste hain langilea zenik; Mikel Arantxa baino askoz langileagoa da.*

**4.2.1b** Zalantza sor dakiguke, beraz, zein kategoriatako hitzak sortzen dituzten *-ari, -le* edo *-tzaile* atzizkiek, izenak ala izenondoak. Gramatika honetan bertan ere, adjektibo substantibatuen adibidetzat ematen dira *zientzialari, ekonomialari, ikertzaile, kimikari, aurrelari* eta *atzelari* (§ 14.1e). Hala ere, Adjektiboaren kapituluan, aurrerago, hauxe esaten da: “Egia da *kantari* edo *saltzaile* gisako hitzek adjektiboan funtzioa izan dezaketela euskaraz (*neska*

*kantari, gizon saltzaile...*) baina, nolana ere, horiek, adjektibo balira, adjektibo arruntan artean sartuko lirateke. Egokiagoa da, zernahi gisaz, izentzat hartzea, batzuetan adjektibo gisa erabiltzen ahal badira ere, beste izen batzuekin gertatzen den bezala: *gizon umea da hori* edo *mutiko astoa* esaten dugu, edo *neska oiloa*, nahiz *ume, asto* eta *oilo* izen hutsak diren, batzuetan adjektibo bezala erabiltzen ahal direnak. Hortaz, horiek ere ez ditugu adjektiboan artean sailkatuko” (§ 14.2.1). Izan ere, zalantzak zalantza, atzizki hauek guztiak baliatzen ditugu euskaraz zerbaitetan diharduen, zerbait egiten duen gizakia izendatzeko; horregatik aztertuko ditugu azpisail honetan, eta atzizkiz atzizki emango ditugu beharrezko iruditzen zaizkigun xeheetasunak.

#### 4.2.2. -ari (-lari)

**4.2.2a** Bi forma horiek dira maizen aurkituko ditugunak, baina gramatikari guztiek *-ari* eman dute lematzat, eta *-lari* oinarritzko lemaren aldaeratzat; *-kari* eta *-tari* aldaerak ere ageri dira literatura ondarean (*aitzindari, ehiztari, ehuntari*), eta, oro har, ihartutzat jo ditzakegun arren, badirudi oraindik ere txistukariaren ondoren *-kari* hauta dezakegula (*idazkari*). *-ari* eta *-lari* aldaeren banaketari dagokionez, oro har:

- *-ari* aurkituko dugu *-u* amaierako oinarria dugunean (*arnegari, bekatari, ezkutari, gobernari, mandatari, merkatari, predikari, zerbitzari*), nahiz bi silabako oinarria dugunean *-lari* alomorfoa izan ohikoago (*txistulari*);
- *-ari* da, orobat, ohikoena *-a* amaierako oinarriak ditugunean (*abarketari, botikari, dendari, errementari, errotari, ezpatari, kazetari, kimikari, pilotari, postari, teknikari*), nahiz badiren salbuespenak (*borrokalari, hizkuntzalari, korrikalari*);
- amaieran *-i* bokala duten oinarriek *-lari* aldaera hartzen dute (*antzerkilari, argazkilari, auzilari, ertilari, trikitalari*);
- amaieran *-e/-o* bokalak ditugunean, berriz, bi alomorfoak aurkituko ditugu. Oinariaren silaba kopuruak eragina izan dezake bata edo bestea aukeratzean: bi sila-

bako oinarriek *-lari* hartzeko joera erakusten dute, eta hiru silabakoek *-ari* (*agintari, bertsolari, bulegari, eskelari, goldelari, laborari, misiolari, sukaldari*);

– kontsonantez amaitzen diren oinarriei *-lari* eransten zaie (*aitzurlari, ameslari, arraunlari, hizlari, otoizlari*).

**4.2.2b** Euskaltzaindiak honako arau hau eman zuen *-ari/-lari* aldaeren banaketari dagokionez: “Erabil bedi *-ari* forma, *a* bokalaz amaitzen diren izen oinarriei eransteko, batez ere bi silabatik gorakoak direnean. Beraz, *gramatikari* edo *politikari* erabil bitez batasunerako (eta ez *gramatikolari* edo *politikolari*). *-ia* amaierako izenekin, *ialari* hobesten da: *historialari, zientzialari*”.

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 49. araua: “*-ari (-lari)* atzizkiak”, Bilbon, 1995eko abenduaren 29an onartua.

**4.2.2c** Zenbait hizkuntzalarik, Schuchardten lanetatik hasita, latinezko *-arius* atzizkitik datorrela esan dute (Yrizar 1971). Azkuek kontrako iritzia azaltzen du. Villasantek, bestalde, Mitxelenaren oharrean oinarri harturik, erdibidekoa proposatzen du: euskal jatorrizkoa izan daiteke atzizkia, eta latinekoak indartu, ondoren, beronen erabilera.

Hain atzizki emankorra izanik, ez da harritzekoa oinarri mota bat baino gehiago aurkitzea, nahiz izen konkretu bizigabeei eranstea izan ohikoena: *aizkolari, arraunlari, bertsolari, botikari, dendari, fisikari, futbolari, kazetari, kimikari, pilotari, tabernari, txistulari*. Gizakiek zer lanbide duten adierazten duten izen sorta eratu dugu bide honetatik; aipatu berri ditugun horietako askoren ondoan, *historialari, hizkuntzalari, matematikari, zientzialari* eta abar. Areago, erdal *-ario* ere atzizki honen bidez moldatu dute idazle batzuek zenbait urtetan: *notari, bikari, sekretari...* (*ministrari* ere erabili izan da azken boladan). Joera hau, ordea, erdal mailegua ‘mozorrotzeko’ ahalegina baino ez denez, eta inolako oinarririk ez luketen *funtzionario* edo *unibertsitari* bezalako ustezko eratorriak sortzen dituenek, gaitzetsi egin du Euskaltzaindiak eta izenak *-ario* forman mailegatu behar direla arautu (*funtzionario, komisario, merzenario, unibertsitario*). *Euskaltzaindiaren Hiztegian* horiek guztiak baztertu dira azkenean eta *notario, bikario, ministro* eta abar onartu.

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 50. araua: “-ari -ario”, Bilbon, 1995eko abenduaren 29an onartua.

**4.2.2d** *-keta* jarduera atzizkiaren (§ 4.5.4) ondoren ere aurki dezakegu, jarduera horretan ari dena izendatzeko (*berriketari, eleketari, esneketari, urketari*): *Orduan zakur ohararen ingurura zakur arrak biltzen diren bezala trumilka, berriketariak, mundu guzitik, 25 gau-egunez hurbildu ziren* (Larzabal); *Moxolo ta Martin dakustaz maiburuan! Lenbiziko berriketaria, bizar biko gizon igar tentea, eztakit nongoa dan* (Agirre); *Alkate jaunak erran du: esneketari bat gogorki zigortu duela esne tzarra saltzen zuelakoz* (Larreko).

*-ka* daramaten aditzondoei (§ 6.2.3) erantsirik ere aurki dezakegu (*gudukari, mailukari, mokokari, muturkari, zaunkari*): *Erromanoek bakea laster utzi zaketan orduan! Gudukariak multzoka dire geroztik hunat agertu* (Oxobi); *Ordea oztu ezker, gogortzen da, ta mallukariak ezin du besterik, ezpada nekatu alperrik burua* (Mogel); *Laguntzat dituztela eiza-zaunkariak billatu ta iltzeko eper ta erbiak* (Mogel). Mota honetako eratorrietan adjektibo balioa ere har dezake *-ari* atzizkiaz sortutako hitzak; izen baten ondoan aurkituko dugu, eta izen horrek adierazten duena ‘mokoka’, ‘muturka’, ‘zaunka(z)’ aritzen dela ematen dugu aditzera: *Batek asmatzen du formula mailukari bat eta denak formularekin mailuka gure buruon gainean* (Azurmendi); *Senar-emazte mokokariak hainitz haur izaiten omen dituzte* (Larzabal); *Geldi ago zoro ori! -oiu dagio zakur zaunkari ta jauzkariari* (Barrenso).

**4.2.2e** Zenbait adibidetan aditzoina ikusiko dugu oinarri (*azterlari, esatari*<sup>3</sup>, *ikerlari, pentsalari, salatari, zaindari, zuzendari*). Horietako batzuen kasuan, bikoteak ditugu (*idazkari/idazle, salatari/salatzaile, zaindari/zaintzaile, zuzendari/zuzentzaile*); aditzak adiera bat baino gehiago dituzenez, horietako baten *-tzaile* hartu du eta besteak *-ari*. Goian aipaturiko 49. arauan, hauxe erabaki zuen Euskaltzaindiak: “erants bekio *-ari* atzizkia izenari, eta *-le* edo *-tzaile* atzizkiak, berriz, aditzei. Hortaz, *hezle, hezitzaile* edo *ikertzaile* dira batasuneko

<sup>3</sup> Oinarria *esan* aditzoina izan daiteke (cf. *esaten*) nahiz *esate* aditz izena (Mixelena 1977b).

formak, *hezi* eta *iker(tu)* aditzak baitira. Aditz batek adiera bat baino gehiago izan dezakeenean, zilegi izan daiteke adiera batean *-le* edo *-tzaile* eranstea, eta *-ari* beste adieran: *idazle/idazkari, zuzentzaile/zuzendari*”.

Areago, azken urteotan entzuten ditugun *interpretari, nabigari, tripulari* eta abarrek erakusten dute lanbidea adierazten duen edozein mailegu ‘egokitu’ nahi izan dugula, maileguak duen atzizkiaren ordez *-ari* ezarrita. Horietatik, *interpretatzaile* eta *nabigatzaile* (*interprete* maileguarekin batera) hobetsi ditu Euskaltzaindiak bere *Hiztegian*, oinarria aditzoina delako. Eta *tripulatzaile* eta *tripulante* dabilta gaurko testuetan.

**4.2.2f** Goraxeago aipatu dugun (§ 4.2.2c) latinezko *-arius* atzizkiak *-ero* forma eman du gaztelaniaz eta *-er* frantsesez. Horiexek dira lanbide izen askotan ikusten ditugun atzizkiak (*arquero, fontanero, panadero; aumônier, boulanger, patissier...*). Euskaraz ere ikus ditzakegu bi atzizki horiek zenbait hitz eratorritan. Batetik, hor ditugu Hegoaldeko *dultzainero, igeltsero, gezurtero, kuxkuxero, parrandero, zalapartero* edo *zurruetero*. Gehienak adjektibo kategoriakoak ere badira (edo nagusiki adjektibo kategoriakoak dira) eta lagunarteko erregistroetakoak. Ez dute lanbidea adierazten (*dultzainero* eta *igeltsero* kenduta), baizik ‘gezurretan, parrandan, zurrutean... ari dena’. Alegia, oso begi onez ikusten ez ditugun jardueran ari dena.

Iparraldean, *-er* atzizkia erabiltzen da lanbide izen askotan: adibidez, *omonier, ostaler, koziner, bulanjer...* Horietatik lehen biak bakarrik jaso ditu Euskaltzaindiak bere *Hiztegian*. Hauetan denetan, *-er* atzizkiak ez dakar gaitzespen kutsurik. Alabaina, kontuan hartu behar da guztiak maileguak direla; bestela esanda, *-er* atzizkia duten hitzen artean, ez dago euskal ondareko hitz bat oinarri duen eratorririk. Hegoaldean, aldiz, euskal oinarria dutenek dute gaitzespen kutsua.

### 4.2.3. *-gin, -gile*

**4.2.3a** *Egin* aditza dute oinarrian bi atzizki hauek. Lehenak ez du formalki inolako atzizkirik egilea adierazteko; bigarrenak, ordea, garbi asko ageri du *-le* aditzoinari erantsia; horregatik ez da hain harrigarria *gerragin/gerra-egile*,

*bertsogile/bertso-egile, ongigile/ongi-egile* bikoteak aurkitzea. Euskal Herri osoan erabiltzen diren hainbat izenetan ageri da *-gin* (*egurgin, hargin, legegin, upagin...*). Gaur izen berriak sortzeko *-gile* baliatzen dugu. Ondare lexikoko izenetan *-kin* eta *-kile* aldaerak ikusiko ditugu, hots aldaketak gertatu direnean (*okin, harakin, ikazkin, gaizkile...*).

**4.2.3b** Izen bizigabeei, konkretu zein abstraktuei, eransten zaie *-gile* eta baita *-gin* ere, nahiz azken atzizki honen bidez sorturiko izen batzuk oso erabilera urrikoak izan. Hona hemen literatura tradizioko zenbait adibide:

alpargatagile, amesgile, bertsogile, biraogile, egurgile, eltzegile, erlojugile, erremusinagile, gaizkile, iltzegile, iruzurgile, juramentugile, labanagile, legegile, liburugile, limosnagile, liskargile, mirarigile, nobelagile, penitentziagile, talogile, usuragile, zilargile, zinemagile

behargin, bekatugin, bitxigin, bizargin, gaiztagin, gerragin, papergin, sugin, uztargin

Izen bizigabe eratorriek, eratorpen atzizki bat dutenek ere har dezakete ondoren *-gile* (*gozokigile, hiztegitile, izozkigile*). Inoiz edo behin aditzoina ere aurki dezakegu oinarri gisa (*osagile, sendagile, sendagin/sendakin*), baina salbuespenak dira.

**4.2.3c** Askotan lanbide modura, oinarriak adierazten duen hori egiten duen gizakia izendatzeko baliatzen ditugu *-gin* eta *-gile*. Oinarrian *amets, birao, iruzur, usura* eta horien antzeko izenak ditugunean, ordea, nekez aurkituko dugu 'lanbide' adiera; horrelakoetan, ametsak, biraoak, iruzurra edo usura egiten duen norbaitez ari gara. Goraxego esan bezala, atzizkiak aditzaren oihartzun garbia gordetzen duelako har daitezke, hain zuzen, *zapatagin* edo *bertsogile* izenak, objektua, aditza eta subjektua biltzen duten elkartu sintetikotzat (Euskaltzaindia 1991).

#### 4.2.4. *-le, -tzaile*

**4.2.4a** Bi atzizkiak batera aztertuko ditugu, *-gin/-gile* atzizkiak bezala hauek ere erabilera eta balio berekoak direlako. Aditzoinei erantsi eta 'egile' adierako

izena sortzen dute bi atzizkiek (nahiz beheraxeago zehaztuko dugun nola uler-tu behar den ‘egile’ adiera hori). Azkuek aditzoinaren amaieraren arabera ba-natu zituen bi atzizkiok: *-le* eransten zaie *-n* motako partizipioei eta *-i* amaie-rakoei, baldin eta aditzoina *-r* edo kontsonante txistukari amaierakoa bada; bestelako partizipioei, *-tzaile*. Egia da, oro har, Azkuek esan bezala banatzen direla *-le* eta *-tzaile*: *arazle, edale, egile, egozle, ehule, ekarle, emaile/emale, entzule, eragile, errule, hausle, idazle, igarle, igorle, ikusle, irakurle, irule, jale, jakile / aitzinatzaile, bustitzaile, defendatzaile, engainatzaile, erretzaile, hiltzaile, iraultzaile, kreatzaile, salbatzaile, saltzaile, zaintzaile, zuzentzaile*. Baina ez da salbuespenik falta: *aitorle, ikerle, iratzartzzaile*. Hala ere, batasune-rako forma erregularrak hobetsi dira (*ikertzaile*, eta ez *ikerle*). Eta *-ari* eta *-le/-tzaile* atzizkien arteko aukeran ere, *-ari* izen kategoriako oinarrirei erans-tea hautatu du Euskaltzaindiak batasunerako, eta *-le* nahiz *-tzaile*, berriz, aditz kategoriakoei.

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 49. araua: “*-ari (-lari)* atzizkiak”, Bilbon, 1995eko abenduaren 29an onartua.

**4.2.4b** Aditz kategoriako oinarriek hartzen dituzte *-le* eta *-tzaile* atzizkiak, baina ez edozein motatako aditzoinek. Aditzek trantsitiboak izan behar dutela zehaztu zuen Azkuek. Mitxelenak, ordea, azpimarratu zuen Azkuek emanda-ko aditzoinaren subkategorizazioak mendebalderako balio duela (Villasanteri [1974: 108] eginiko oin-oharra), ekialdean behintzat *joale* eta abar erabiltzen direlako. Baina Azkaratek (1995) defendatu du horrelako formak ihartuak daudela eta ez dutela emankortasunik, *joale*-ren ondoan *\*etorle* ezinezkoa bai-ta, orobat *\*ibiltzaile* ere, *egoile* izan arren; hau da, aditz intrantsitiboetan sal-buespenak dira *-le/-tzaile* har dezaketenak. *Bustitzaile, erretzaile, gibelatzaile, hiltzaile, sendatzaile* edo *zuritzaile* eratorrien oinarri den aditza ez da intran-tsitiboa (*busti da, erre da, gibelatu da, hil da, sendatu da* edo *zuritu da*), baizik *busti du, erre du* edo *hil du* laguntzailea eskatzen duen aditza (aditz trantsiti-boa, alegia): *Giro esnetsu eta bustitzaile horretan beste isla batzuk agertuko dira* (Sarrionandia); *Beraz etzara zu ere, zeure aitzinekoen giristinotasunaren gibelatzaile izatu* (Axular).



**4.2.4c** Dena den, ez da nahikoa *du* motako aditza behar duela esatea, *iraun* edo *irakin* badirelako *du* laguntzailea hartzen dutenak, eta, hala ere, ezin ditugu *\*iraule* eta *\*irakile* sortu; bai, ordea, *eskiatzaile*. Aditz moten auzi honetan argi egiten lagunduko digu aditzen argumentu egiturari begiratzeak (§ 23.3). Batetik, Azkueren baieztapena dugu, aditz trantsitiboak behar dute izan *-le/-tzaile* hartzeko; eta horrek gutxienez bi argumentuko aditzoina esan nahi du. Argumentuetako batek ‘egile’ (‘agente’) paper tematikoa hartuko du, eta besteak ‘gaia’ (edo ‘tema’). Horiek dira aditz trantsitiboak (§ 23.2.2.5). Horrelakoak dira goiko adibideetan ikusi ditugun asko eta asko (*egin, ekarri, eman, eragin, erakutsi, hil, igorri, ikertu, inprimatu, kreatu, pintatu, salbatu, saldu, sendatu* eta abar). Bestetik, ordea, *eskiatzaile* ere sortu dugu, oinarrian *eskiatu* duena, *du* motako aditza izan arren, egiaz trantsitibotzat hartu ezin duguna, argumentu bakarra baitu; baina argumentu hori bai, bada ‘agentea’. Aditz intrantsitibo ergatibodun esaten diegu halakoei (§ 23.2.2.4). Hortaz, orain arteko adibideen arabera, esan daiteke *du* motako laguntzailea hartzen duten aditz agentiboei, ‘agente’ paper tematikoa dutenei, eransten zaiela *-le* edo *-tzaile*, direla aditz trantsitiboak, direla intrantsitibo ergatibodunak.

**4.2.4d** Badira, baina, bestelako adibideak ere —*ikusle, jasaile, sinesle, sufri-tzaile*...—; hauek ere *du* motako aditzak dira guztiak, baina horien argumentu egituran ez dugu ‘agente’rik, ‘esperimentatzailea’ baizik, ‘esperimentatzailea’ eta ‘gaia’ edo ‘tema’ baitira aditz horien argumentuek hartzen dituzten paper tematikoak. Ondorio gisa, *-le* edo *-tzaile* hartzen duten aditz motak ikusita, laburbilduz esan dezakegu *du* motako aditzak direla, edo bi argumentu dituztenak, edo argumentu bakarra izanik aditz agentibo direnak; hau da, argumentu bakar horrek ‘agente’ paper tematikoa hartuko du.

**4.2.4e** Bada, ordea, aztertu beharreko beste zerbait, alegia, zer gertatzen zaion *-le* edo *-tzaile* hartzen duten aditzoinen argumentu egiturari (§ 3.1g). Aztergai ditugun atzizkiok kanpo argumentua xurgatzen dute, dela ‘agentea’, dela ‘esperimentatzailea’: (x (y aditzoina)), (x (aditzoina)) egituretan, x kanpo argumentua, egituran kanpoan dagoena xurgatzen dute, hartzen dute bere gain *-le* nahiz *-tzaile* atzizkiek. Ikus dezagun polikiago zer esan nahi duen kanpo argumentua xurgatzeak. *Idatzi* aditzak, esaterako, bi argumentu eskatzen ditu,

*nork* ‘agentea’ eta *zer* ‘gaia’; aditzoinari *-le* erantsi eta *idazle* izena sortzean, *nork* ‘agentea’ dago jasoa atzizkian, ‘idazten duen pertsona’ adierazten baitu izen eratorriak. Berdin gertatzen da *jasan* aditza hartuz gero: *nork* ‘esperimentatzailea’ eta *zer* ‘gaia’ argumentuak eskatzen ditu aditz horrek; *jasaille* sortzen dugunean, ‘jasaten duen pertsona’ adierako izena sortzen dugu.

**4.2.4f** Eta zer gertatzen da beste argumentuarekin, ‘gaia’ (edo ‘tema’) barne argumentuarekin? Berez ez dago barne argumentua adierazi beharrik; *entzule*, *idazle*, *ikusle*, *itzultzaile*, *saltzaile*, *sinesle*, bakarrik erabil ditzakegu *zer* entzuten, idazten, ikusten, itzultzen, saltzen edo sinesten duten zehaztu gabe. Baina barne argumentua ere ager daiteke izen eratorrien ondoan, bi modutara: edo izenlagun moduan (*liburuaren eroslea*, *bekatuaren barkatzailea*, *Eusko Gogoaren irakurleak*...), edo izen elkartu bateko lehen osagai modura (*liburu-saltzaile*, *kale-garbitzaile*, *ipuin-idazle*, § 7.2.7). Hala ere, beste batzuetan, *-le* edo *-zaile* atzizkien bidez eratorritako izenek, une jakin batean zerbait egin duen pertsona adierazten duten heinean, ohikoago izango da ‘gaia’, *zer* argumentua gauzatzea, dela izenaren ondoan, dela alde zurretik testuan zehar; *bultzatzaile*, *uxatzaile*, *salatzaile*, *gibelatzaile*, *engainatzaile* eta abarretan beharrezkoago da *zer* adieraztea. *Futbolaren aipamen soila* gogoeta beltzen *uxatzaile hutsezintzat hartuko balute bezala* (Zaldua); *Beraz etzara zu ere zeure aitzinekoen* giristinotasunaren *gibelatzaile izatu* (Axular); Muthiko gazten *enganatzaile* (J. Etxepare).

Baina gogoan izan behar dugu zer esan dugun azpisail honetan bildu ditugun atzizkiez, alegia, izen nahiz adjektibo jokabidea dutela. Hala ikusi dugu *-ari* bidezko eratorriak aztertzean. Eta hala gertatzen da *-le/-zaile* duten eratorriekin ere, bizigabea ere izan daitekeen beste izen baten eskuinera ager daitezke izen horren ezaugarri bat adierazteko, adjektiboek egin ohi duten modura (*seme hondatzaile*, *asmo eragile*, *mihi enganatzaile*, *emakume saltzaile*...) (§ 7.1.3c). Ohart gaitezun *asmo eragile* edo *mihi enganatzaile* diogunean ‘eragiten duen asmoaz’ eta ‘engainatzen duen mihiaz’ ari garela; hots, *-zaile* atzizkiak bat egiten du ezkerrean ageri den izenarekin, biek biltzen baitute ‘agentea’. Halakoak dira beste hauek ere: *ahots limurtzaile*, *krema garbitzaile* edo *hatz salatzaile*.

**4.2.4g** Beste batzuetan, ordea, ez da hala gertatzen; ondoko adibidean, esaterako, *ildo salatzaile* multzoan nekez uler dezakegu ‘ildoak salatu egiten du’

(“Filmak Good night, and good luck-en ildo salatzaileari jarraitzen dio”, *Berria*); zuzenagoa dirudi *salaketa-ildo* esatea. Beste horrenbeste esan dezakegu *tresna deskribatzaile, ahalegin iraultzaile* edo *txartel hori zigortzaile* multzoez; tresnak ez du deskribatzen, ahaleginak ez du iraultzen eta txartel horiak ere ez du zigortzen. Ahal den neurrian, gogoan izan beharko genuke ‘agente’ baliorik badagoen ala ez, eta, ezkerreko izena agentetzat hartu ezin denean, gaztelaniazko *expediente sancionador* terminoari euskaraz *zehapen-espiediente* ordaina ematera eraman gaituen bidea hartu eredu. Hau da, izenaren eskuinean *-le* edo *-tzaile* atzizkiaren bidez eratorririko osagaia baliatu ordez, aditzetik eratorritako izena (edo *-tzeko*) ezarri izenaren ezkerrean: *zigor txartel hori, iraultza ahalegin* edo *deskribatzeko tresna/deskribapen tresna*, adibidez.

Ondoren ager daitezkeen atzizkiei dagokienez, *-le/-tzaile*dun eratorriek onartzen dituzte ondoren nolakotasuna (*eskaletasun*), lanbidea edo jarduera (*idazletza*) edo multzoa (*ikusleria, irakasleria*) adierako atzizkiak<sup>4</sup>.

#### 4.2.5. *-ko*<sub>1</sub>

**4.2.5a** Berez ‘egile’ zentzurik izan ez arren, azpisail hau izan daiteke lekurik egokiena [+gizakia] motako izenak sortzen dituen *-ko* atzizkiarentzat. Azkuek eratorpen atzizki honen balio guztiak batera aztertzen baditu ere, mota desberdinetako izenak sortzen dituztenez (*oinezko, lekuko/oinetako, gerriko; belarrondoko, ipurdiko*), bi *-ko* bereiziko ditugu. Funtsean, berehala ikusiko dugunez, *-ko* bakarra dugu, baina batzuetan izen bizidunak adierazten ditu eta beste batzuetan, ostera, bizigabeak, beste azpisail batean aztertuko ditugunak (§ 4.4.3.6).

**4.2.5b** Dena den *-ko* ez da gainerako eratorpen atzizkiak bezalakoa. Berez izenlagunen flexio marka da *-ko*, askotan postposizio sintagma bati eransten zaiona (§ 5.6.3, § 14.1, § 21.7, § 21.8). Bestalde, flexio hizkien eta eratorpen hizkien arteko desberdintasunak aipatzean esan dugu lehenik eratorpen hizkiak ageri zaizkigula eta ondoren flexio hizkiak (ikus § 3.1j). *-ko* atzizkiaren

---

<sup>4</sup> Atzizki hauei buruzko informazio zabalagoa nahi duenak ikus ditzake Azkarate 1995 eta Gràcia et al. 2000.

adibideen artean, ordea, *oinezko* dugu, aurretik *-z* flexio hizkia, postposizio marka daramana. Antzera gertatzen da beste izen bizigabe hauetan ere: *oine-tako*, *belarritako*, argi asko antzematen baita pluraleko sintagmek leku postposizioak hartzean berezkoa duten *-ta-*. Datu hauek badira nahikoa argudio esateko berez *-ko* ez dela eratorpen atzizki, izenlagunen flexio marka baizik, eta izenlagun horietako batzuk izen balioa hartzen dutela.

Hemen izen bizidunen balioa hartzen dutenak bilduko ditugu: *ararteko*, *etxe-ko*, *lekuko*, *oinezko*, *oinordeko*, *ondorengo*, *zaldizko*. Izen kategoria betea dutela erakusten du, bestalde, ondoren beste eratorpen atzizki batzuk hartu ahal izateak (*arartekotza*, *aurkakotasun*, *lekukotasun*, *lekukotza*), edo hitz elkartu bateko lehen osagai izateak (*oinordeko-mota*, *zaldizko-talde*).

#### 4.2.6. *-zale*

Berez adjektibo kategoriakoa da *zale*. Bakarrik oso gutxitan erabiltzen delako, atzizkietatik gertu dagoen osagaitzat hartu dute gramatikariek; baina, hala ere, adjektibo beregaina, autonomoa da, *zaletu* aditzaren edo *zaletasun* izen abstraktuen oinarri den heinean, edo *ez naiz batere zalea* moduko perpausetan erabiltzen dugun heinean. Hortaz, adjektibo elkartuak dira *x+zale* egiturak: *apustuzale*, *bakezale*, *liskarzale*... (§ 8.2). Baditugu, ordea, *zale* bigarren osagai duten izenak, norbaiten lanbidea adierazten dutenak —*argizale*, *bizikletazale*, *esnezale*, *kamioizale*, *taxizale*—. *Uhaitzaren eskuin aldetik: Pettarra kurritzen zūan mezūlari, argizale lanetan (Herria); Hala ere, nire ustez, hori baino garrantzitsuagoa da auto gidariak bizikletazaleak errespetatzea (Berria)*. Ez da oso bide emankorra, euskalki bateko erabilera da, baina lanbidea adierazten duten atzizkien artean jasotzekoa da *-zale* hau.

#### 4.2.7. *-sa*

Izen bizidunak hartzen ditu oinarri ipar-ekialdeko testuetan erabili den atzizki honek; zehazkiago esateko, pertsona adierako izenak: *alarguntsa*, *artzaintsa*, *laborarisa*, *medikusa*... Atzizkiak badu alomorfo bat, *-tsa*, sudurkariaren ondoren

ageri zaiguna. *Baditugu euskal iparralde huntan laborarisak, artzaintsak ere bai, gizonkiari zorrik ez dutenak* (Larre); *Damaseko alharguntsa aberats batekin ezkondu* (Zerbitzari); *Soldado amerikano bati agradatu zaio medikusa bat* (Herria). Laborari, artzain, mediku, alargun... emakumeak adierazteko baliatu da *-(t)sa*. Horrelakoa da *jainkosa* ere. Euskarak oro har genero markarik ez duen arren, halako eginkizuna du *-sa* atzizkiak. Azken urteetan *alkatesa* hedatu da euskara batuan ‘alkate andrea’ adierazteko. Horietako gutxi jaso ditu *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*. Izan ere, batasunerako hedatuagoak diren *andre artzain, dekanore andre / andre dekanore* hobetsi dira lanbide jakin bat duena emakumea ala gizonetzkoa den zehaztu nahi denerako (*Hitz Elkarketan*, “Aposizio egiturako elkartuak” aztertzean ari gara horrelako egiturez: § 7.2.8).

### 4.3. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (III). Izen multzokarien sortzaileak (*-di, -eria, -tza<sub>2</sub>, -keta<sub>1</sub>, -kada<sub>1</sub>, -te*)

#### 4.3.1. Sarrera

Azpisail honetako atzizkiek sortzen dituzten izenek multzoa, kolektiboa, kantitatea... adierazten dute. Euskara estandarri begira, *-di* eta *-eria* dira batez ere bata bestearekin lehian hitz berriak sortzeko baliatu direnak; azpisail honetako gainerako eratorpen atzizkien eremua nahikoa mugatua geratzen ari da. Euskara estandarrean asko hedatu da *-go* atzizkiaren bidez multzokari balioko izen eratorriak sortzeko joera (*biztanlego, entzulego, irakaslego* eta abar), baina *-go* atzizkiak ez du halako baliorik izan literatura tradizioan (§ 4.1.4). Horren ordez, azpisail honetako *-eria* atzizkia gomendatu du Euskaltzaindiak multzokaria adierazi behar denerako. Nolanahi ere, oro har, euskaraz literatura tradizioan askotan plurala erabili izan da izen multzokariaren ordez.

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 73. araua: “ <i>-go</i> atzizkia eta izen multzokariak”, Donostian, 1997ko maiatzaren 30ean onartua.
---

### 4.3.2. -di

**4.3.2a** Euskara estandarrerako *-di* hartuko genuke lematzat, berau delako hedatuena eta hitz berriak sortzeko gehien erabili dena. Euskalki mailako desberdintasuna dute *-di* baino zaharragoak diruditen (eta askotan toponimo zein deitura gisa geratu zaizkigun) *-doi* (nafarrera, *elordui*, *ezpeldoi*) eta *-dui* (bizkaiera, *Ezpeldui*, *otadui*, *sagardui*) formek (ikus Mitxelena 1977b: 108). Bestalde, txistukariaren ondotik herskaria ahoskabetu egiten da eta, beraz, *-ti* alomorfoa aurkituko dugu (*harizti*, *mahasti*, *urrizti*, *zuhaizti*).

Literatura tradizioko adibideetan arbola edo landare izenek hartzen dute *-di* atzizkia, arbola edo landare multzoa adierazten duen izena sortzeko: *artadi*, *belardi*, *elordi*, *ezkurdi*, *gorostidi*, *lertxundi*, *lizardi*, *loredi*, *mahasti*, *makaldi*, *pagadi*, *pinudi*, *zuhaizti*, *zumardi*... Esan bezala, horietako asko toponimo eta deitura gisa geratu zaizkigu. Baina balio bereko izen berriak ere sortu ditugu euskara estandarrean: *landaredi*, *mangladi*, *esaterako*.

**4.3.2b** *Euskaltzaindiaren Hiztegiko* definizioak hartzen baditugu, pentsa dezakegu ‘tokia’ edo ‘lekua’ adierazten duela *-di* atzizkiak: *lizardi* ‘lizar asko dagoen tokia’, *mahasti* ‘mahatsondoak landaturik dauden saila’, *pinudi* ‘pinuz landaturiko lekua’ eta abar. Egia da ez dela erraza bi adiera horien artean bereiztea, ‘multzoa’, ‘saila’ batetik, eta sail horrek hartzen duen lekua, bestetik.

Berriagoak dira izen bizidunei erantsirik horien multzoa adierazten duten *aberedi*, *Euskadi*, *Euskaltzaindi*, *gizadi*, *gaztedi*, edo *umedi*. Villasantek dioenez, *-di* atzizkia jatorriz landare multzo adieran toponimiara mugatua zegoen, eta gizakien multzoa adierazteko herriak *-eria* erabiltzen omen zuen. Baina izen bizidunez gainera, bizigabeak ere hartu zituzten oinarri xx. mendearen hasieran Hegoaldean: *abesti*, (*aho-eres* + *-ti*), *antzerti*, *elerti* (*ele eder* + *-ti*), *ludi*, *olerti*<sup>5</sup>... Azken urteotan sortuak ditugu, berriz, *araudi* edo *legedi*.

---

<sup>5</sup> Ikus Lopez Mendizabal 1962 eta Pagola 2005.

### 4.3.3. -eria (-teria)

**4.3.3a** Bi aldaerak, *-eria* eta *-teria*, ageri dira adibideetan, baina badirudi ingurune fonetikoaren arabera azal daitekeela herskaridun forma: bokala + *-teria* (baina *tresneria*) / kontsonantea + *-eria*; oinarriaren azken bokala *-e* denean, noski, bi bokalen bilkura gertatzen da. Villasantek berariaz sarrerarik eman ez arren, *-di* atzizkia aztertzean aipatzen du *-teria*, bere iritziz erromantze jatorrikoa dirudiena. Azkuek berariazko sarrera ematen dio *-eri* lemapean, *-a* itsatsirik gabekoa, beraz. Egia da bai ahoz eta bai idatziz, aurki ditzakegula *-eri* formako adibideak (OEHko corpusa ikusi baino ez dago). Literaturako adibide hauek argi erakusten dute, ordea, *-a* berezkoa duela: *Eta horrela gure gazteria guzia herritik norapait...* (J. P. Arbelbide); *Gazteria* ederra *eztogu beti Ondarroan ezautu* (Azkue); *Bostak aldian sekulako umeterixia izaten da ikastola aurrian* (Elexpuru). *Euskaltzaindiaren Hiztegian -a* itsatsidun formak dira, beraz, hobetsi direnak: *biztanleria, entzuleria, gazteria, gizateria, haurreria, irakasleria, langileria, umeteria* eta abar.

**4.3.3b** Oinarriari dagokionez, gizakia adierako izenak aurkituko ditugu askotan, *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko adibide horietan ikusten dugunez. Izen bizigabeak ere izan daitezke, ordea, oinarri: *ontziteria, papereria, tresneria, zamauteria...* Eta baita izen balioa hartzen duten adjektiboak ere, hala nola *txikiteria* ‘gauza txikien multzoa’ edo *zaharrerria* eratorrietan; azken honek bi balioak izan ditzake, ‘pertsona zaharren multzoa’ zein ‘gauza zaharren multzoa’.

Adierari dagokionez, oinarriak adierazten duen horren kolektiboa edo multzoa izendatzen du *-eria* atzizkiaren bidez sorturiko izen eratorriak.

Azkenik, aurreko lerroetako adibideetan ikusi ahal izan dugun bezala, *-le* atzizkiaz eratorriko izen bizidunek erraz har dezakete ondoren *-eria*: *biztanleria, entzuleria, idazleria, irakasleria* eta abar.

### 4.3.4. -tza<sub>2</sub>

Lehen ikusi dugu *-tza*<sub>2</sub>, izen bizidunei erantsirik ‘lanbidea’ adierako izenak sortzen dituen atzizkia (§ 4.1.5). Bestelakoa da hemen aztergai duguna, izen

bizidun zein bizigabeei erantsita multzo edo kopuru handia adierazten baitu (horietako batzuk toponimo eta deitura bihurtuak ditugu): *artotza*, *basatza*, *belartza*, *dirutza*, *Elortza*, *Gorostitza*, *harritza*, *jendetza*, *lizartza*...

Berehala ohartuko gara baditugula *belardi/belartza*, *lizardi/lizartza*... moduko bikoteak, izen arrunt gisa erabiltzen badira esanahian alde handirik ez dutenak; baina goraxeago esan bezala, Lizartza eta Belartza toponimo ere badira. Bestalde, kontuan izan behar dugu ‘multzo handia’, ‘andana’, adierazteko, aukeran dugula hitz elkartua sortzea, bigarren osagai *multzo*, *mordo*, *pila*, *sail*... duten izen elkartuak (§ 7.2.2.3b); ez da harritzekoa, beraz, *-tza*<sub>2</sub> atzikia oso emankorra ez izatea.

#### 4.3.5. *-keta*<sub>1</sub>

**4.3.5a** Bizkaieraz eta gipuzkeraz izan ezik, gainerako euskalkietan multzoa adierazteko erabiltzen da, izen konkretuei, bizidun zein bizigabeei erantsirik:

arrainketa, bihiketa, egurketa, euriketa, jendeketa, lurketa, mandoketa, mendiketa, ogiketa, zaldiketa

Hona hemen adibide batzuk: *Laborantzako ministro ohia galdez zabilen, bertzeei erosi behar dugun ogiketa handia diezaiegula har Australia edo Argentina gure arnoen erosleei (Gure Herria); Han baitzen harat bildua jendeketa handia (Joanategi); Bota zuen [sarea] eta horra non ateratzen duen arrainketa bat milagrosoa (Lizarraga); Eta gero hain segura ote da berrizat dauzkagun hitz batzuk arras berriak direla? Behinik behin «aingiraketa», *quantité d'anguilles*, ez! Ez-eta ere, «egurketa», «bihiketa», eta bertze holako hameka! Bainan utz dezagun hortan Hiztegia, lan bat gaitza dela erranik, arratoin eta saguentzat egina etzena segur... (Zerbitzari); Ez bide du, *lur-keta* guzua Frantziatik heldu zaiola ikustearekin, gaizki irri egin (Hiriart-Urruti).*

**4.3.5b** Multzoa —gehienetan handia— adierazten duen atzizki honek ez du ia hitz berririk sortu euskara estandarrean. Bestalde, Azkuek ematen dituen



adibideak OEHko corpusekoekin alderatuaz, ohartzen gara bat baino gehiago (*behiketa*, *behorketa*, *mandoketa*, *zaldiketa* edo *ardiketa*) ez daudela testuetan dokumentatuak, nahiz horrek ez duen esan nahi ahoz erabiltzen ez direnik.

Dena den, *ardiketa*, *egurketa*, *ogiketa* eta abarrek ‘mordo’, ‘pila’ adieraz gain, beste askotan jarduera balioa hartzen dute (§ 4.5.4e).

#### 4.3.6. *-kada*/*-tara*

Euskalki mailako aldaerak dira: *-kada* (*-tada*), oro har, mendebaldekoa; *-tara* ekialdekoa (batetik, eratorpenean ohikoak diren *k-* eta *t-* lotura kontsonanteek bereizten dituzte bi aldaera horiek eta, bestetik, bokalarteko /d/ eta /r/ txandakatzeak). Zaila da, beraz, bi aldaera nagusien artean bakarra hautatzea lema gisa. *Euskaltzaindiaren Hiztegiko* sarreretan ere mendebalde/ekialde aldaerak aurkituko ditugu: *basokada*, *eskutada*, *gurdikada*, *katilukada*, *labekada*, *otzarakada* (bizk.), *platerkada*, *saskitara* (Ipar.).

Adibide horietan honela ulertu behar da multzo adiera: oinarriak adierazten duen zera horrek hartzen duen kantitatea. *-kada* atzizkiaz sortutako izenak maiz kuantifikatzaile gisa ageri zaizkigu, eta *neurri sintagmak* osatzen dituzte: *kolkokada sagarra*, *bi katilukada esne*, *gurdikada egurra*, *hiru koilarakada gurin...* (§ 12.3.5d).

#### 4.3.7. *-te*

Izen konkretu bizigabeei eransten zaie *-te*, eguratsarekin loturiko zerbait adierazten duten izenei; eta ‘fenomeno horrek irauten duen aldia, tartea’ adiera gehitzen dio atzizkiak oinarriari: *ekaizte*, *elurte*, *eurite*, *haizete*, *izozte*, *lehor-te...* Nolabait esateko, gertakariren bat adierazten duten izenek ere har dezakete *-te*; gertakari horrek irauten duen aldia, tartea, adierazten dute horrela sorturiko izenek: *gaitzete* (*Baña jaunak kastigatu zuen Faraon, eta bere etxea*

*gaitzete txit handiakin*, Uriarte), *gerrate*, *gosete*, *izurrite*... Historiako aldi bat, garai bat, adierazten dute, berriz, *antzinate* edo *frantsese* izenek.

Bestalde, ‘kantitate (handi)’ adiera ere antzematen da *elurte handi*, *elurte gaitz* motako sintagmetan. Azken batean, adierari dagokionez, *-di* atzizkiaren pareko jokabidea ikus dezakegu: multzo edo kantitate handia bai, baina, aldi berean, horrek hartzen duen lekua zein denbora. Ez da oso emankorra gertatu, besteak beste, *aldi*, *aro* edo *garai* bigarren osagai duten hitz elkartuak dituelako lehian (§ 7.2.2.2i).

#### 4.3.8. Beste atzizki batzuk: *-kote*, *-tegi*, *-keta*<sub>2</sub>

**4.3.8a** Zenbatzaileei, zehazki bitik hamarrera arteko zenbakiei erantsirik, zenbakiak adierazten duen pertsona kopuruz osaturiko taldea (esaterako, musika jotzen duena) adierazten du *-kote* atzizkiak: *bikote*, *hirukote*, *laukote*, *boskote*, *seikote*, *zortzikote*, *bederatzikote*, *hamarkote*. Hona hemen zenbait adibide: *Satchmo Jazz disketxeak David Mengual Mosaic zuzenean ikusteko eta entzuteko aukera eskainiko du*, *hirukote moduan zein bederatzikote gisa* (Egunkaria); *Rajaton seikote finlandiarrak egunotan Tolosan entzun ez diren doinuekin harrituko du ikuslea* (Egunkaria). *Bikote* eta *hirukote* izenek gauza multzoa ere adierazten dute: *erdatatiko hitzetan maiz ditugu etorki bereko bikote eta are hirukoteak* (Euskaltzaindiaren Hiztegia); *murritu/murritztu bikotea*.

Azken urteetan maiz erabiltzen da *bikote* izena pertsona bakarra adierazteko: *Nire bikotea Alemaniara joan da*. Ez da erabilera egokia, *bikotek* ‘bi lagunez osatutako taldea’ esan nahi baitu. *Bikote lagun* edo *bikotekide* dira adibide horretarako forma egokiak.

**4.3.8b** Nagusiki balio multzokaririk izan ez arren, halako balioa hartzen dute *-tegi* atzizkiaren bidez sortu ditugun izenetako batzuek: *arautegi*, *izendegi*, *ordutegi*. Hala ere, hurrengo azpisailean (§ 4.4.4.2) aztertuko dugun ‘leku’ adierako izenak sortzen ditu, batez ere, *-tegi*k.

Zenbait euskalkitan, Iparraldekoetan eta ekialdekoetan, bereziki, *-keta* atzizkia aurkituko dugu *-te* atzizkiaren baliokide: *elurketa*, *ostosketa*. Ikus ondoko adibideak: *Elhurketa handia erori da*, *il est tombé une grande quantité de neige* (Duvoisin); *Martxoko ostosketak*, *berrogei eguneko ekaitzek* (Inza).

#### 4.4. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (IV). Objektua, tresna, lekua adierazten duten izenen sortzaileak (*-gailu*, *-garri*, *-ki<sub>1</sub>*, *-kada<sub>2</sub>*, *-kari<sub>1</sub>*, *-ki<sub>2</sub>*, *-kin<sub>1</sub>*, *-kizun<sub>1</sub>*, *-ko<sub>2</sub>*, *-gia*, *-tegi*)<sup>6</sup>

##### 4.4.1. Sarrera

**4.4.1a** Oinarriaren kategoria kontuan hartuta, bi atal nagusitan bana ditzakegu azpisail honetako eratorpen atzizkiak: aditzoinari eransten zaizkionak; izenari eransten zaizkionak. Sortzen duten izenari dagokionez, berriz, guztiak dira izen konkretu, bizigabe, zenbakarriak. Adierari dagokionez, hiru motatakoak aurkituko ditugu: ‘tresna, baliabidea’ izendatzeko baliatzen ditugunak (aditzoina oinarri izan ohi dutenak, oro har); ‘objektua’, ‘zera konkretua’ adierazten dutenak (izena zein aditzoina oinarri dutenak), eta ‘lekua’ adierazten dutenak (oro har, batzuk izenari eransten zaizkionak, eta beste batzuk aditzoinari).

Emankortasunaren aldetik, berriz, badira aldeak azpiatal honetan aztertuko ditugun atzizkien artean. Baina argi dago euskal lexikoa gaurkotzeko baliatu ditugula atzizki hauetako bat baino gehiago, ondoren ikusiko dugun bezala.

**4.4.1b** Aditzoinari erantsirik, ekintza horretarako ‘baliabidea’ edo ‘tresna’ adierazten duten atzizkiak ikusiko ditugu lehenik. Oinarrian aditzoina izanik, nolako argumentu egitura duen, eta atzizkiak argumentu horietakoren bat xurgatzen duen ala ez aztertu beharko dugu. Berehala ikusiko ditugun izen eratorri horietako batzuen definizioak lagundu diezaguke horretan.

---

<sup>6</sup> Azkuek eta Villasantek *gai* azpiatal honetan sartzen duten arren, hitz elkarketan aztertzen da Gramatika honetan, Euskaltzaindiaren sailkapenari jarraiki (§ 7.2.2.3f).

*Euskaltzaindiaren Hiztegi*ra jotzen badugu, lehenik zer motatako aditzoinak ditugun kontsulta dezakegu. *Berotu*, esaterako, *da/du* motako aditza da, hau da, *berotu da* zein *berotu du* moduan erabil daiteke; zerbait berez berotzen da, edo zerbaitek edo norbaitek berotzen (beroarazten) du. Aditz *inkoatibo* esaten zaie *berotu da* motakoei, eta *kausatibo* (edo *arazle*) *berotu du* motakoei (§ 23.2.2.1). Horrelakoak dira *-garri*, *-gailu* edo *-ki*, hartzen duten aditz gehienak: *bigundu*, *edertu*, *gorde*, *gogortu*, *indartu*, *luzatu*, *ondu*, *sendatu*, edo *tapatu*. Beste gutxi batzuk *du* motakoak (*gantzutu*) edo *da* motakoak dira, hala nola *bizi*, *jostatu*, *oroitu* (nahiz bi argumentu izan, *zertaz/zerekin* postposizio sintagmaren bidez adierazten dugu *oroitu* aditzaren barne argumentua, ‘gaia’, eta sintagma absolutiboaren bidez esperimantatzailea). *Estekatu*, berriz, *du/zaio* motakoa da.

**4.4.1c** Begira diezaiegun orain hiztegietao definizioei, bereziki *Euskaltzaindiaren Hiztegi*koei eta *Egungo Euskararen Hiztegi*koei. Berehala ohartuko gara askotan adiera bereko izenak sortu direla aditzoin bati *-gailu* zein *-garri* erantsiz: *berogailu*, *berogarri* ‘berotzen duena; berotzeko erabiltzen dena’; *bizigailu*, *bizigarri* ‘bizigaia, janaria’; *edergailu*, *edergarri* ‘edertzen edo apaintzen duen gauza’; *gogorgailu*, *gogorgarri* ‘gogortzen duen gauza’; *lokailu*, *lokarri* ‘zerbait lotzeko erabiltzen den gauza’; *ongailu*, *ongarri* ‘janariak ontzeko gaia; lurrak emankorrako bihurtzeko erabiltzen den gaia’; *oroigailu/oroigarri* ‘zerbait oroitarazten duen gauza’; *sendagarri*, *sendagailu* ‘sendagaia, eritasun edo gaitz bat sendatzeko erabiltzen den gaia’. Hiztegiek jaso ez arren, corpusetan ageri da bikote hauetako *-gailu* atzizkidun izena ere: *euskailu/euskarri*, *indargailu/indargarri*, *luzagailu/luzagarri*.

**4.4.1d** Beste batzuetan *-gailu* atzizkidun izena bakarrik aurkituko dugu: *estekailu* ‘zerbait estekatzen duen zera’; *gantzugailu* ‘gantzua, ukendua; gantzutzeko erabiltzen den gaia’; *gordailu* ‘gauzak gordetzen diren lekua’; *jostailu* ‘jostetan aritzeko gauza’; *itxigailu* ‘zerbait ixten duen zera’; *tapagailu* ‘tapatzeko gailua’ (EEH), ‘tapa, estalkia’ (EH).

**4.4.1e** Aditzoina zein motatakoa den ikusi ondoren, azter dezagun, izen eratorrien adieren argitan, aditzoinaren zein argumenturi dagokion atzizkia (zein argumentu hartzen duen bere gain). Pausoka joango gara gauzak argitzen:

- Aditzoin asko inkoatibo/kausatibo oposizioa era dezaketenak, hots, *da* zein *da/du* motakoak izan daitezkeela esan dugu (*berotu, bigundu, edertu, gogortu, indartu, luzatu* eta abar). Definizioek erakusten dute *du* balioan hartu behar ditugula: ‘berotzen duena’, ‘edertzen edo apaintzen duen gauza’, ‘gogortzen duen gauza’...
- Definizioei erreparatuta, argi dago, halaber, atzizkia ez dagokiola barne argumentuari, ‘gaia’, ‘zer’ adierazten duenari. Pentsa dezakegu, beraz, kanpoko argumentua hartzen duela bere gain. Hala iradokitzen dute ‘berotzen duena’, ‘edertzen edo apaintzen duen gauza’, ‘gogortzen duen gauza’ definizioek. Baina, hala bada, zergatik sailkatu dituzte atzizki hauek ‘baliabidea’, ‘tresna’ adierazten duten atzizki gisa?
- Galdera horri erantzuteko kontuan hartu behar dugu, batetik, guztiak izen bizigabeak direla; oso argi nabarmentzen dute hori zenbait definizio (‘edertzen edo apaintzen duen gauza’ eta abar). Bestetik, euskaraz (beste hainbat hizkuntzatan bezala) ‘tresna’, ‘baliabidea’ adjuntua (§ 23.3.1h) gauza daitezkeela syntaxian sintagma ergatibo moduan: *Giltza honek ixten du atariko atea, eta beste honek, berriz, etxekoa*. Argi dago giltzak berak ez duela ixten, guk baliatzen dugula giltza atariko atea eta etxekoa ixteko; baina euskaraz horrela adieraz dezakegu. Baita beste modu honetara ere, jakina: *Giltza honekin irekitzen da atariko atea eta beste honekin, berriz, etxekoa*. Funtsean *giltza* zerbaitetarako baliabidea da, eta berdin dio sintagma ergatiboaren bidez gauzatzen dugun perpausean, edo postposizio sintagma baten bitartez.  
Hori bera esan dezakegu hemengo izen eratorrien adieraz ere. *Gogorgarri* uler daiteke ‘zerbait gogortzen duen zera’ dela, baina baita beste modu honetan ere: ‘zera horren bidez zerbait gogortzen dugu’, ‘zerbait gogortzeko zera’. Alegia, ‘tresna, baliabidea’ adieran. Orobat *estekailu*, ‘zerbait estekatzen duen zera’ nahiz ‘zerbait estekatzeko zera’.
- Argiago ikusiko dugu aurreko puntuan esandakoa hiztegietatik hartutako beste definizio hauetan: *itsasgarri* ‘itsasteko erabiltzen den gaia’; *ongailu, ongarri* ‘janariak ontzeko gaia; lurrak emankorrago bihurtzeko erabiltzen den gaia’; *sendagarri, sendagailu* ‘sendagaia, eritasun edo gaitz bat sendatzeko erabiltzen den gaia’; *tapagailu* ‘zerbait tapatzeko gailua’.

- Funtsean, beraz, mota bateko zein besteko aditzoinei *-gailu*, *-garri* (nahiz *-ki*) erantsirik ‘ekintza edo jarduera horretarako gaia, baliabidea’ adiera hartuko du, oro har, sortzen dugun izenak. Hori da adibide guztiak besarkatzen dituen adiera, eta *jostatu* aditzetik abiatuta *jostailu* izenak har dezakeen barkarra (‘jostetan aritzeko gauza’, eta ez ‘jostarazten duen gauza’). Balio hori bera dute aurrerago hitz elkarketan aztertuko ditugun *bizigai*, *elikagai*, edo *sendagai* izenek (§ 7.2.2.3f).
- Bada azken puntu bat ere aipatzea merezi duena. Oinarrian dagoen aditzoinaren barne argumentua galdu egiten da, oro har; baina ager daiteke hitz elkartu bateko lehen osagai gisa: *irudi-indargailu* edo *ohe-bigungarri*.

**4.4.1f** Beste batzuetan, atzizkiak barne argumentua edo objektua biltzen du. Horrelakoak dira *-ki<sub>2</sub> —jaki, erreki—*; *-kizun —emankizun, igarkizun—*; *-(k)ari<sub>1</sub> —janari, eskari, emari—*; *-kin<sub>1</sub> —eranskin—*. Balio bera adieraz dezakegu *gai* bigarren osagai duten elkartu batzuekin *ere —aztergai, erregai, ikasgai, ikergai, irakasgai—* (“Mugakizun bereziko izen elkartuetan”, *Andregai* moduko elkartuak: § 7.2.2.3f). Objektu adierako izenak sortzen dira atzizkiak barne argumentua biltzen duenean: aditzoina *du* (edo *dio*) motakoa izan ohi da, trantsitiboa edo ditransitiboa (§ 23.2.2.6): *jaki, erreki, emankizun, igarkizun, eskari, janari, eranskin...* Oinarrian dagoen aditzaren objektuarekin du zerikusia izen horien esanahiak.

Objektu adierako izenak sortzen dituzten atzizki batzuk aditzoinari eransten zaizkio eta beste batzuk, ostera, izenari (*-kada<sub>2</sub>* edo *-ko<sub>2</sub>*). Badira bi motatako oinarriak onartzen dituztenak ere (*-kari<sub>1</sub>* edo *-ki<sub>2</sub>*). Emankortasunari dagokionez ere, azpisail honetako atzizki guztiak baliatu izan dira euskara estandarrean hitz berriak sortzeko.

**4.4.1g** Leku adierako izenak sortzen dituzten *-gia* eta *-tegi* (*-degi*) atzizkiek osatzen dute azken azpiatala. Bien artean, *-tegi* da hedatuena eta emankorra, euskara estandarrean behar izan ditugun hainbat eta hainbat izen sortzeko baliatu duguna: *artxibategi, biltegi, hondakindegi, laborategi, ustiategi, zabortegi...*

Adieraren araberako azpiatalak egin —tresna, objektu eta leku adierako izenak sortzen dituzten atzizkiak—, eta banan-banan aztertuko ditugu ondoren bakoitzari dagozkionak.

## 4.4.2. Tresna adierako izenen sortzaileak

### 4.4.2.1. *-gailu*

**4.4.2.1a** Badirudi ez dagoela zalantzarik *-ailu* zela forma zaharra; hala diote Azkuek eta Mitxelenak, eta hala jasotzen du Villasantek ere<sup>7</sup>. Nolanahi ere, gaurko euskaran *-gailu* baliatu dugu izen berriak sortzeko; eta, herskari edo txistukariaren ondoren *-kailu* (*euskailu*, *herskailu*, *hoz-kailu*).

Aditzoin kategoriako oinarriari erantzen zaie atzizkia, eta sortzen den izena konkretua izan ohi da, aditzoinak adierazten duen ekintza horretarako ‘balia-bide’ edo ‘tresna’ esanahikoa. Euskal lexikoaren historian, batez ere Iparraldeko testuetan ageri da (Hegoaldean balio berarekin *-garri* edo *-ki*, erabiltzen ziren): *bizigailu*, *estekailu*, *gantzugailu*, *gordailu*, *gozagailu*, *herskailu*, *itxi-gailu*, *jostailu*, *ongailu*, *oroigailu*, *sendagailu*, *tapagailu*.

Adibide hauetan ikus dezakegu nola erabili diren horietako zenbait gure literatura tradizioan: *Diote zenbaitek baietz: gero-ta gehiago argi, ongi, edergailu eta gozagailu dugula lurraren gainean* (Hiriart-Urruti); *Eta eginen dituzu berrogoi eta hamar hersegailu kobrezkoak* (Duvoisin); *Orduan ixildu zen enbaxadorea eta ez ziren Iruñen gelditu, bizigailuen hartzeko denbora baizik* (Laphitz); *Mariak aldiz, hartu zuen nardo hoberenetikako gantzugailu batetik libera bat; Jesusen oinak gantzutu zituen eta bere ileez xukatu; eta gantzugailuaren usainaz bethe zen etxea* (Duvoisin); *Gathez estekaturik eta burdiñak oiñetan emanik gorda zezaten arren, estekaillu guziak hautsirik eramaten zuen deabruak deserturat* (Haraneder).

**4.4.2.1b** Dena den, ipar-ekialdeko testuetan erabili izan den arren, atzizki honen bidez sortutako izen bat baino gehiago darabilgu gaurko euskara estan-

---

<sup>7</sup> Mitxelenaren ohar gisa ematen du Villasantek ondokoa: “Parece claro, y es lo que siempre se ha sostenido entre lingüistas, que *-ailu* (forma secundaria *-gailu*) es románico de origen (lat. *aculum*), romance no castellano *allo*, *all*, en *mirail*, por ejemplo, castellano *ajo*, como *oc(u)lu*, castellano *ojo*; *lotailu* supone claramente *lot-ailu*, no *-gailu*” (Villasante 1974: 78).

darrean; aipatu berri ditugun horiek guztiak, eta baita besteren bat ere (*atxiki-gailu*, adibidez), aurki ditzakegu *Egungo Testuen Corpusean*, *Egungo Euskararen Hiztegian* edo *Lexikoaren Behatokiaren Corpusean*.

Bestalde, leku sendoa hartu du estandarrean, batez ere ‘zerbaitetarako aparatua edo tresna’ adieran: *berogailu*, *bozgorailu*, *entzungailu*, *euskailu*, *hai-zagailu*, *hondeagailu*, *hozkailu*, *ibilgailu*, *ikuzgailu*, *igerigailu*, *igogailu*, *igorgailu*, *induskailu*, *lehorgailu*, *zapalgailu*, *zulagailu*... Gramatikan ere baliatu dugu, *juntagailu* eredu harturik, *lokailu* eta *menderagailu* ere sortuaz; zehazkiago esanda, *lokailu* izenaren kasuan, tradizioko ‘lotura, benda’ adierari beste bat gehitu diogu, ‘diskurtso mailako lotura’ moduan defini dezakeguna.

**4.4.2.1c** Hona azken urteetako zenbait adibide: *Halako batean, bozgorailuetatik, abisua iritsiko zaio (Goenkale); Istorio bat idazteko zein euskailu baliatzen den bost axola dit (Consumer); Laster agertuko da hondeagailu horietako bat eta kolpe batean desagerraraziko ditu etxe horretako arima guztiak (Jaió); Baina ez hargatik igerigailu zuri-beltzaz ur gaina zaplastatzen dudanean (Borda); Traktorearen indargailuan arropa katigatuta edo atzituta gertzea (Euskal Lexikoaren Behatokia); Ilunabarrean edo ilargiaren azpian, baina irudi-indargailu bat behar izaten da (ETC).*

Oso atzizki emankorra da, beraz, euskara estandarrean. Esan bezala, mendebaldean, oro har, *-garri* edo *-ki*, erabili izan dira bere ordean, nahiz gaur egun estandarrean *-gailu* guztiz hedatua egon. Horrenbesteraino gertatu da emankor, izen beregain gisa ere erabiltzen baita gaurko euskaran ‘tresna’ adieran: *Motor elektrikoek, pila nuklearrek eta beste zenbait gailu mekanikok (Aldasoro); Hegazkinetan zapatak sartzeko ematen dizuten gailu txiki horietako bat (K. Zabala); Telebista, irratia, CD gailua, liburuak (O. Arana).*

Izen konkretu, zenbakarri, ‘baliabide, tresna’ adierakoak sortzen dituenek, ondoren beste atzizki batzuk ere ager daitezke. Hauek dira, adibidez, corpusetan aurkituak: *berogailudun, hozkailugile*.



#### 4.4.2.2. -garri (-karri)

**4.4.2.2a** Atzizki hau adjektiboak sortzekoen artean zehazkiago aztertzen den arren (§ 5.5.2), sartu egin dugu —Azkue eta Villasanteri jarraiki— atzizki izen sortzaileen artean. Atzizkiaren lemaz ez dago zalantza handiegirik; aldaera bakarra, txistukariaren ondotik ager daitekeen (baina nahitaezkoa ez den) herskari ahoskabeduna da, *-karri* (*euskarri*).

*Du* motako aditzari eransten zaio (§ 4.4.1b), eta ‘baliabidea’, aditzoinak adierazten duen jarduera horretarako ‘zera’ balioa ematen dio sortzen duen izenari: *altxagarri*, *babesgarri*, *berogarri*, *bigungarri*, *estalgarri*, *euskarri*, *freskagarri*, *gogorgarri*, *indargarri*, *itsasgarri*, *leungarri*, *lokarri*, *luzagarri*, *ongarri*, *oroigarri*, *pizgarri*. Honetan *-gailu* atzizkiaren baliokide dela esan dugu (§ 4.4.1c). *-garri* atzizkiak aditzaren bi argumentuetatik kanpoko xurgatzen du; argumentu hori, askotan, ‘tresna’ izan daiteke (ergatibo sintagma baten bidez gauzatzen dena), baina ‘kausa’ ere izan daiteke (§ 5.5.2, §23.3.1b), esaterako, *oroigarri* edo *bizigarri* izenetakoa (‘zerbait oroitarazten duen gauza’, ‘zerbaiti bizirik iraunarazten diona’). Barne argumentua, ‘gaia’, hitz elkartu bateko lehen osagarri gisa ager daiteke, *ohe-bigungarri*.

**4.4.2.2b** Beraz, izen eratorri hauek guztiak bizigabeak diren neurrian, erraz har daiteke kanpo argumentu hori ‘tresna, baliabide’ gisa: ‘zerbait luzarazten, biguntzen... duen tresna edo baliabidea’; edo, beste hitzetan esanda, ‘norbaitek zerbait luzarazten, biguntzen... du baliabide horren bidez’ (§ 4.4.1e). Horixe da, hain zuzen, Artiagoitiak (2003) *-garri* aktiboaren oinarri diren *du* motako aditzez dioena: subjektu instrumentala duten aditzak direla.

Hona hemen zenbait adibide: *Ara hemen sei ohe-bigungarri, ondo beteak; sei buruazpiko, sei berogarri, bi berriak eta lau zarrak, danetara beharda ta* (Agi-rrre); *Bestalde guk debekatzen ditugu altxagarri kimikoak, naturalak izan behar dutelako* (Herria); *Ziklismo mundu tradiziozaleak barre egin zion Greg Lemon-di, Luxenburgoko aitzin etapan heldulekuan halako luzagarri berezi bat ipinita aurkeztu zelako* (Berria); *Inguru likidoak gel bihurtzeko gogorgarri bat gehitzen zaie, agarra, ohiz* (Mikroorganismoen biologia, EHU); *Izadiak berak ipiñi ditu, bada, indargarri edo laguntza sendoak* (Villasante); *Margolan bat zahartzen*

denean, ehun berri bat jartzen diote atzean. Baina horretarako erabili diren itsasgarriek analisisetan eragina dutela topatu du (J. Gallego, Berria).

Oinarri gisa izen bizigabe konkretuak hartzen dituzten atzizkiak aurki ditza-  
kegu -garri honen ondoren: *euskarridun, lokarrikada, ongarrigintza...*

**4.4.2.2c** Izen kategoriako -garri eratorrietan oinarriko aditzaren kanpo argu-  
mentua xurgatzen du ia beti atzizkiak. Hori da eredu emankorra. Baina Iparral-  
dean *ikusgarri* izenak bestelako ereduak erakusten du; *ikuskitzen*en baliokide  
izanik, -garrik barne argumentua xurgatzen du, ‘ikusten dena’ (eta ez ‘ikusteko  
balio duena’). *Hala nola Ainhize-Monjoloseko “Hiru zitxun” ikusgarria, askok  
ezpainak milikatuz igurikatzen dutena (Herria)*. Erabilera honetan, beraz, ob-  
jektu adierako izenak sortzen dituzten atzizkien pareko da (§ 4.4.3).

#### 4.4.2.3. -ki<sub>1</sub>

Beste hainbat atzizkiren kasuan bezala, -ki bat baino gehiago bereiziko dugu,  
oinarriaren kategoria eta atzizkiaren adiera kontuan hartuta. Hala egin zuen  
Azkuek ere. Hemen aztergai dugun -ki<sub>1</sub> hau aditzoinari eransten zaio, goraxea-  
go esan bezala, *du* motako aditzoinari, eta ‘baliabidea’ adierako izenak sortzen  
ditu: *beroki, estalki, iragarki, iragazki, tapaki*. Eta mota horietako izenei erants  
dakizkiekeen atzizkiak ager daitezke ondoren, hala nola *iragarkigile* edo *ira-  
garkigintza*. (Ikus -ki<sub>2</sub> § 4.4.3.2, -ki<sub>3</sub> § 6.2.4).

### 4.4.3. Objektu adierako izenen sortzaileak

#### 4.4.3.1. -kada<sub>2</sub> (-ada)

Adibide gehienetan oro har -kada aldaera aurkituko dugu, eta -ada zaharkitua  
geratu da. Hor dago, adibidez, OEHko datua, Larramendiren 1745eko *aizkora-  
da* sarrerari, *aizkorakada* nagusitu zaio testuetan. Eta azken forma horri eman  
diote sarrera hiztegiek.

Izen konkretua, bizigabea du oinarri atzizki honek, eta sortzen duen izenak 'kolpea' (oinarriko izenak adierazten duen zeraren bidez emandako 'kolpea') adiera hartzen du: *aizkorakada, egurkada, harrikada, makilakada, ostikada...*

#### 4.4.3.2. *-kari*<sub>1</sub>

**4.4.3.2a** Atzizkiaren lehari (oinarrizko formari) dagokionez, [+gizakia] motako izenak sortzen dituen *-ari*, eta izen bizigabeak, konkretuak sortzen dituen *-kari* bereizten dituzte Azkuek eta Villasantek. Bigarren atzizki honen lematzat biek herskaridun forma ematen dute. Egia da aspaldi sorturiko izenetan *-ari* aldaera ageri dela, *edari, egosari, hobari, janari, opari...* Baina *-kari* da nagusitu den aldaera. Horren erakusgarri dira, esaterako, *egosari* vs *egoskari, eltzari* vs *eltzekari* bikoteak; bietan *-karidun* izena da euskara estandarrerako aukeratua.

**4.4.3.2b** Mota bateko baino gehiagoko oinarriak har ditzake atzizki honek, nahiz atzizkiak esanahi bertsua ematen dien sortzen diren izenei, 'objektua, zera', alegia:

- Aditzoinei erants dakieke, *da* zein *du* motako aditzoinei. Kasu batean zein bestean, *-kari*, atzizkiak aditzoinaren barne argumentua biltzen du (§ 4.4.1f): *edari, eginkari, egoskari, eskari, gertakari, helkari, opari, salkari*.
- Denbora erreferentzia duten izenei erantsirik, maiztasun horrekin gertatzen den, idazten den, argitaratzen den... zera adierazten du: *astekari, egunkari, hilabetekari, urtekari*. Adiera kontuan harturik, hemen sar ditzakegu *hamaboskari, hiruhilabetekari, sei hilabetekari* zein *biurtekari* ere, nahiz oinarrian zenbatzailea edo zenbatzaile sintagma izan (*hiru hilabete, sei hilabete*)<sup>8</sup>.

---

<sup>8</sup> Villasantek dioenez, ekialdean *larunbatkari* eta abarrek zuten adberbio baliotik abiatuz (*larunbatero*-ren parekoa) sortu diren izenak, oro har 'urtean behin argitaratzen dena', 'astean behin argitaratzen dena'... adierazteko baliatu ditugunak. Bide batez, aipagarriak dira zenbatzaile sintagma egiturako oinarriak dituzten *hiruhilabetekari, sei hilabetekari, biurtekari...* izenak lexikoan sortzen baitira, oro har. Hau da, kategoria lexikoak dira oinarriak (ez sintagma) eta atzizkiak erantsirik, kategoria lexikoak sortzen dira.

- Fonologiaren arloko terminoak sortzeko baliatu dugu azken urteetan, batzuetan ahoko parterren bat adierazten duten izenei erantsirik: *ezpainkari*, *sabaikari*, *sudurkari*, *zintzurkari*; hemen sar dezakegu *txistukari* ere. Beste batzuetan, ostera, artikulazio modua adierazten duen oinarria dugu, aditzoin kategoriakotzat har dezakeguna: *herskari*, *igurzakari*, *trabari*.
- Baditugu, azkenik, otordua adierazten duten *afari*, *bazkari*, *gosari* eta berriagoa den *askari* ere, ihartutzat jo ditzakegunak.

Ondoren ager daitezke beste atzizki batzuk: *aldizkarigile*, *aldizkarigintza*, *oparidun*, *oparigile*, *oparigintza*...

#### 4.4.3.3. *-ki*<sub>2</sub>

Mota bateko baino gehiagoko izenak har ditzake oinarri atzizki honek, baita aditzoinak ere (§ 4.4.2.3). Baina sortzen diren izenak, ñabardurak ñabardura, oro har, izen konkretuak, bizigabeak direnez, egoki ikusi dugu guztiak hemen biltzea.

Oinarri eta adierei dagokienez, izen oinarria dutenak bilduko ditugu lehenik, eta aditzoina oinarri dutenak ondoren:

- a) Batzuetan, animaliak adierazten dituzten izenak aurkituko ditugu oinarrian, eta izen eratorriak animalia horien ‘haragia’ hartzen du esanahi: *ahateki*, *ardiki*, *bildoski*, *eperki*, *zerriki*. Edo animalien gorputzeko atalak adierazten dituzten izenak: *odolki*, *saiheski*.
- b) Beste batzuetan, ‘jateko zerbait’ adierazten du izen eratorriak, eta oinarriko izenak, berriz, nondik sortzen den, zertaz egiten den jateko hori: *barazki*, *esneki*, *gozoki*, *izozki*.
- c) Izen konkretua ere, biziduna zein bizigabea, izan daiteke oinarri, eta izenak adierazten duen multzo, klase horretako bat/banakoa izendatzen du eratorriak: *aingeruki*, *emazteki*, *gauzaki*, *gizaki*, *liburuki*.
- d) Zenbatzailei erantsirik, batetik adieraz dezake erditze batean sorturiko haurretako bakoitza: *biki*, *hiruki* (*zazpiki*, *aldiz*, *zazpi* hilabeteko haurdu-

naldiaren ondoren sortua da). Bestetik, hiru nahiz lau alde dituen figura geometrikoa ere adierazten du: *hiruki*, *lauki*.

- e) Aditzoinari erantsirik sortzen diren izenek aditzoin horren objektuari egiten diote erreferentzia: *erreki* ‘okela errea’, *inprimaki* ‘orri inprimatua’, *janzki*... (ikus § 4.4.1e).

*-ki*<sub>2</sub> atzizkia daramaten izenek ondoren har ditzakete beste batzuk, hala nola *gozokigile*, *izozkigintza*, *izozkitegi*, *laukidun* eta abar.

#### 4.4.3.4. *-kin*<sub>1</sub>

Aditzoin kategoriako oinarriari eransten zaio *-kin*<sub>1</sub>; aditzoina *da* (inkoatiboak, egoera aldaketa adierazten duten *hondatu*, *zahartu* modukoak batzuk) edo *du* (*emendatu*, *eraiki*, *erantsi*) motakoa izan ohi da, eta, aditzoinari eransten zaizkion sail honetako gainerako atzizkiek bezala, barne argumentua biltzen du eratorpen atzizki honek (ikus § 4.4.1e): *emendakin* (‘gehigarria, eranskina’ adierazten duena, eta ez gaur askotan ematen zaion ‘zuzenketa’ adiera; erdal *enmienda* izenaren baliokidearena, alegia), *eraikin*, *eranskin*, *errekin*, *hondakin*, *zaharkin*. Beste batzuetan, adiera ez da guztiz gardena, ezin da asmatu aditzoinaren esanahitik abiatuz; halakoak dira: *etekin*, *mozkin*.

Aditz intrantsitiboa dute oinarri *etorkin* (izen biziduna, salbuespentzat hartzekoa), *izakin* izenek. Atzizkiak argumentu bakar hori hartzen du bere gain.

Adberbio kategoriako *haboro* eta *sobera* ikus ditzakegu *haborokin* eta *soberrakin* izenetan, nahiz zuzenagoa izan daitekeen *haboro izan*, *sobera izan* aditzak hartzea oinarri; izen eratorriaren esanahia bat etorriko da, hartara, gainerakoekin, ‘haboro dena’, ‘sobera dena’. Eta atzizkiak aditzaren argumentu bakarra, barne argumentua, hartuko luke bere gain.

xx. mendearen hasieran aparatuak izendatzeko ere erabili zen: *hegazkin*, *urrutizkin*, *urrutikuskin*. Oinarriren kategoria ezin da eredu emankortzat hartu (*hegaz* (egin), *urruti hitz* (egin), *urruti ikus*), kategoria lexikoa izan ordez, aditz

sintagmak baititugu. Atzizkiaren erabilerari dagokionez ere, zuzenagoa izango zen *-garri*, *-gailu* edo *-ki*<sub>1</sub> baliatzea.

#### 4.4.3.5. *-kizun*<sub>1</sub>

Garai batean euskarak bi aldaerak zituen, herskariduna (*-kizun*) eta herskarigabea (*-izun*); baina beste hainbat atzizkiren kasuan bezala (*-asun/-tasun*, *-ari/-kari*, *-erial/-keria*, *-oi/-koi*, *-or/-kor*...), herskariduna nagusitu da.

Aditzoina hartzen du oinarri atzizki honek, *du* edo *dio* motakoa gehienetan (*asmatu*, *eman*, *erantzun*, *eskatu*, *galdetu*, *igarri*, *ikusi*, *irakurri*, *jasan*, *kontatu*, *ospatu*) nahiz *da* motakoa (*agertu*, *etorri*, *gertatu*). Atzizkiak barne argumentua, ‘gaia’ hartzen du bere gain eta, beraz, izen eratorriak ‘igartzen dena, eskatzen dena, asmatzen dena, kontatzen dena, ospatzen dena’ eta abar adierazten du: *asmakizun*, *eginkizun*, *emankizun*, *eskakizun*, *etorkizun*, *galdekizun*, *gertakizun*, *ikaskizun*, *irakurkizun*, *jasankizun*, *kontakizun*, *ospakizun*...

Predikatu sintagmak osatzen dituzten adjektiboak ere sortzen ditu atzizki honek (§ 5.5.3).

#### 4.4.3.6. *-ko*<sub>2</sub>

Askotan postposizio sintagmari erantsirik izenlaguna sortzeko funtzioa duen atzizki hau zenbaitetan eratorpen atzizki bihurtu dela esan daiteke (§ 4.2.5, § 5.6.3). Halere, jatorria kontuan izanik edo, Villasantek ez du eratorpen atzizkien zerrendan aipatzen. Atzizkiak, bestalde, ez du aldaerarik; baina ezin da ahaztu eratorpen atzizkietan ez bezala, *e* lotura-bokala agertzen dela oinarria kontsonantez amaitzen denean (*muturreko* eta abar), eta *belarritako*, *oinetako* izenetan oso argi ikusten da pluraleko sintagmek leku postposizioak hartzen dituzteneko *-eta-* (ikus § 21.7, § 21.8).

Sortzen diren izenak konkretuak eta bizigabeak izan arren, adiera ez da beti bera:

- Gorputz atalen bati erreferentzia egiten dion izenari erantsirik, ‘janzkia’ adierako izenak sortzen dira: *belarritako, buruko, gerriko, lepoko, oinetako, soineko...*
- Beste batzuetan, gorputz atalei erantsirik, ‘kolpea’ adiera hartzen du izen eratorriak (gorputzeko gune horretan hartzen dena edo ematen dena): *betondoko, ipurdiko, kokotseko, matraileko, muturreko...*

Erraz aurki dezakegu beste atzizkiren bat, bereziki a) puntuko izenen ondoren: *oinetakogile, oinetakogintza, soinekodun, soinekogintza, gerrikogin, gerrikogintza...*

#### 4.4.4. Leku adierako izenen sortaileak

##### 4.4.4.1. -gia

**4.4.4.1a** Hainbat aldaera edo alomorfo izan ditu atzizki honek gramatikariek diotenez<sup>9</sup>, baina -gia da bereziki Zuberoako euskaran erabili den atzizki honen lema; hala ematen dute Salaberryk (1856) eta Lafittek (1944). Eta hauxe da, hain zuzen, Iparraldean hedatuena. Leku batzuetan gertatutako -a itsatsiaren galera goiztiarrak azalduko luke zubereraren -gü aldaera (*bazkagü, egongü, dagoeneko Maisterrek*) eta gainerakoak, Hegoaldekoak direnak (aipagarria da mende honetako Hegoaldeko autoreak izatea batik bat -gu aldaera darabiltenak). *Euskaltzaindiaren Hiztegian* -gia hobetsi da. OEHko corpuseko adibideek ere argi erakusten digute -gia dela lema egokia.

**4.4.4.1b** Aditzoinari eransten zaio -gia; atzizkiak ‘lekua’ adiera ematen duen heinean, berdin dio zein motatako aditzoineri eransten zaian, ez baitu eraginik aditzaren argumentu egituran: *bilgia, egongia, gordagia, hazgia, igarangia, jangia, jargia, langia, sargia...*

---

<sup>9</sup> Azkuek euskalkien arabera banatzen ditu: -gu ematen du lematzat, Erronkarin eta Zuberoan erabiltzen dela adieraziaz; horren aldaeratzat hartzen ditu -gio, Erronkarin eta Aezkoan erabiltzen dena, eta -go, Nafarroa Beherean. Lhandek (1926) -gi (-gu atzizkiaren aldaeratzat hartzen duena) eta -gia ematen ditu sarreratzat.

Ikus ditzagun euskal literaturako adibide batzuk: *Bilgia nagusia izan arren Chinon, ibilia naiz ere ikuska Idahon* (Xalbador); *Kamelua eta Mikaela heldu dira ezkerretik, aintzineko aldetik, gordagiatik hurbil* (Barbier); *Haren arima gaixoa, nahi gabez bere lekhotik, eta egongiatik ialki* (Tartas); *Badakit non zaudian, Satanen jargia den lekhian* (Intxauspe).

#### 4.4.4.2. -tegi (-degi)

**4.4.4.2a** Lemari dagokionez, hemen ere -egi forma zaharrari (*jauregi*)<sup>10</sup>, herskaridun -tegi nagusitu zaio; hauxe da forma nagusia, hitz berriak sortzeko erabili dena. Hasierako herskari ahoskabea, sudurkariaren edo albokariaren ondoan ahostun bihurtuko litzateke (-degi).

Izen konkretu bizigabeak zein bizidunak izaten ditu oinarri eta atzizkiak ‘lekua’ adiera gehitzen die. Beraz, oinarriak adierazten dituen ‘zera’ horiek dauden lekuari egiten dio erreferentzia izen eratorriak: *apaiztegi, apezpikutegi, arandegi, arrandegi, artegi, bizartegi, epaitegi, erlategi, eritegi, errementaldegi*<sup>11</sup>, *itegi, jauregi, liburutegi, lorategi, oilategi, okindegi, santutegi, zerritegi* eta abar.

**4.4.4.2b** Euskal literatura ondareko izenak dira aipatu berri ditugunak. Azken urteetan sortuak, berriz, beste hauek: *auzitegi, aztarnategi, barnategi, berrotegi, euskaltegi, filmategi, frutategi, gasolindegi, kafetegi, kontsultategi, negutegi, urdaitegi, zabortegi*... Hauen artean sar dezakegu *laborategi* ere, gaztelaniazko *laboratorio* eratorriaren egokitzapentzat har dezakeguna.

Eredu nagusia izenari gehitzea izan arren, badira aditzoinari erantsirik sortu diren izenen adibideak ere: *amildegi, apaindegi, biltegi, entzutegi, haurtzaindegi*<sup>12</sup>, *hornitegi, ustiategi, zaindegi*.

---

<sup>10</sup> Beste batzuetan ez dago jakiterik -egi ala -tegi den atzizkiaren forma: *artegi, itegi*... oinarriaren amaieran herskaria dagoenez, hitz berrian beti herskari ahoskabea genuke, atzizkia bokalez nahiz kontsonante herskariz hasi (Mitzelena 1977b: 250).

<sup>11</sup> *Errementari* izenak azken bokala galdu eta -r > -l aldaketa gertatu da, oinarriari atzizkia gehitzean (ikus § 3.1h “hots legeak”).

<sup>12</sup> Berez hitz elkartua, *haur* + *zaindegi* (ikus § 7.2.7 “hitza elkartu sintetikoak”).



Toponimian ere ugari aurki dezakegu *-tegi*, baina, jakina, *Alonsotegi*, *Antsotegi*, *Baltzategi* edo *Gomistegi* aspaldi ihartu zen eredu baten lekuko dira.

#### 4.5. Eratorpena. Atzizki izen-sortzaileak (V).

**Gertaera, egoera edo ondorio izenen sortzaileak**  
**(-dura, -era<sub>2</sub>, -keta<sub>3</sub>, -kunde, -kuntza, -men/-pen,**  
**-tza<sub>3</sub>/-tze, -tze/-te, -zio, -ginan)**

##### 4.5.1. Sarrera

**4.5.1a** Oro har euskal gramatikarien artean gutxi aztertu izan dira ‘nominalizazio’ deituriko atzizkiak. Aditzoinari eransten zaizkion atzizkiez ari gara, jakina. Atzizkiak gehitzen duen esanahiari dagokionez, bat datoz hizkuntzalariak bi motatako adiera bereiztean: aditzoinak adierazten duen gertaera edo ekintza hori gauzatzea, batetik, eta ekintza horren ondorioa, bestetik. Baina askotan bi adierak nahasten dira; ez da erraza bereiztea noiz den gertaera eta noiz ondorioa. Areago, izen eratorri berak bi adierak har ditzake. Gaztelaniaz, esaterako, *compra* izenak ‘ekintza’ balioa du *la compra me ocupó toda la mañana* diogunean; ‘ondorio’ balioa, berriz, *la compra de hoy está sobre la mesa* perpausean. Bestalde, ‘ekintza’ terminoaren egokitasunaz ere badira zalantzak; ‘ekintza’, ‘gertaera’, ‘prozesua’... guztiak erabili dira zerbait gertatzea, gauzatzea, egitea, adierazteko. Nolanahi ere, ‘ekintza’ eta ‘ondorioa’ dira oraindik ere termino erabilienak.

**4.5.1b** Euskaraz, Azkuek “denota acto” dio oro har, nahiz bi azpisailetan banatzen dituen ondoren aztertu ditugun atzizkiak: “derivados operativos” izeneko azpisailean biltzen ditu *-era* eta *-keta*; “derivados nominales efectos” azpisailekoak dira, berriz, *-ada* eta *-dura*. Ekialdeko gramatikariek ere (Lafittek 1944 eta Arotçarenak 1951, adibidez) “action” eta “résultat” sailak bereizi izan dituzte. Lafitteren sailkapenean, “action” adierazten dute *-keta*, *-kunde*, *-kuntza*, *-men* (*-mendu*), *-pen*, *-tza*, *-tze* eta *-tate* atzizkiek; “résultat”, ondorioa, berriz, *-men* (*-mendu*), *-pen* eta *-dura* atzizkiek. Hualdek (2003b) atal bakarrean bildu zituen guztiak, ‘ekintza’ edo ‘ondorioa’ adieraz dezaketen atziz-

kien atalean; dena den, xehetasunen bat ematen du dioenean atzizki batzuek gehienbat ‘ekintza’ adierazten dutela (-*pen*, -*keta* edo -*menduk*) eta beste batzuek ‘ondorioa’ (-*dura*), nahiz bereizketa ez izan oso zorrotza.

**4.5.1c** ‘Ekintza’ (gertaera) eta ‘ondorioa’ bereizten lagun dezaketen irizpideak eman dituzte zenbait hizkuntzalarik, hala nola Grimshaw-k (1990) edo Artiagoitiak (2000):

- Gertaera izenek ez dute pluralik onartzen.
- Gertaera izenek nekez onartzen dute erakuslea.
- Gertaera izenak ez dira predikatu gisa agertzen.
- Gertaera izenek erraz onartzen dituzte iraupena adierazten duten modifikatzaileak; ondorio izenek, ez.
- Gertaera izenek nekez onartzen dituzte adjektiboak.
- Gertaera izenek ez dute *bat* zenbatzailea onartzen.

**4.5.1d** Bestalde, kontuan hartu behar da atzizki berak adiera bat baino gehiago har ditzakeela (goraxeago eman dugu gaztelaniazko adibide bat), Lafitterren sailkapenean ikusi berri dugun bezala; areago, izen berak ere, erabileraren arabera, balio bat edo bestea izan dezake. *Sarrera* izenak ‘ekintza’ adieraz dezake (*zure sarrera ustekabekoa izan da*); zinemara joateko *sarrerak* erosten ditugunean, oster, ‘gauza’ bat erosten dugu; eta zinean bertan *sarrera* eta *irteera* leku ñabardura hartzen duten izenak dira, ekintza zein lekutan edo zein lekutatik egin behar den adierazten digutenak. Ez da harrizkekoa, beraz, atzizki bat aztertzean adiera bat baino gehiago ikustea; arestian aipatutako Lafitterren (1944) sailkapenean ere -*men*/-*mendu* bi sailetan ageri da.

**4.5.1e** Azkenik, kontuan izan behar dugu ‘ekintza’ edo ‘gertaera’ adierazten duten neurrian, ondoren aztertuko ditugun atzizkien bidez sortzen ditugun izenak argumentudunak direla (§ 12.3.5). Horrek esan nahi du aditzoina zein motatakoa den eta nolako argumentu egitura duen ere aztertu beharko dela, argumentu egitura hori ‘heredatu’ egingo baitu izen eratorriak. Adibideetan ikusiko dugu argumentu horiek nola ageri diren. Hala ere, salbuespenak beti

izango dira, hala gertatzen baita ‘ekintza/ondorio’ motako izen hauekin inguruko hizkuntzetan ere.

#### 4.5.2. -dura (-tura)

**4.5.2a** Lemari eta aldaerei (alomorfoei) dagokienez, *-tural/-ture* atzizki erro-mantzearekin lotu den atzizki honek *-tura* aldaera har dezake txistukariaren ondoan (*aztura, herstura; egitura* partizipioaren azken sudurkaria erori ondoan); eta *-kura* ere ageri da *bilkura* izenean.

Batez ere ekialdekoa da atzizki hau, eta gehienbat *da/du* motako aditzei erantsirik aurkitzen dugu; zehazkiago esateko, inkoatibo/kausatibo motakoei (§ 23.2.2.2c): *apaindu, beztitu, elikatu, gaizkoatu, garbitu, gogortu, harritu, hedatu, kilikatu, kutsatu, laztu, uhertu, zimurtu...* Baina *du* motakoak ere ez dira falta (*deitu, egin, josi, lotu...*), ez eta *da* motakoak ere (*hozitu, kexatu*):

abiadura, apaindura, azpildura, aztura, beztidura, deitura, egitura, elikadura, etendura, gantzadura, garbidura, gaizkoadura, gogordura, hanpadura, harridura, hedadura, herstura, kexadura, kilikadura, kutsadura, jostura, laztura, ñabardura, uherdura, umidura, zimurdura

**4.5.2b** Euskal gramatikariek, oro har, ‘ondorioa’, ‘emaitza’ balioa eman diote atzizki honi (eta, beraz, sortzen dituen izen eratorriei, § 4.5.1b). Hau da, *apaindura* izenak ez du ‘apaintzea’ adierazten, horren ondorioa baizik. Berdin esan daiteke *gogordura, harridura, laztura* eta beste hainbat izenez. Beraz, izen eratorriak ez ditu heredatuko aditzaren argumentuak (hauek ez dute zertan azaldu perpausean), eta, aldi berean, izen horiek har ditzakete plural markak, adjektiboak, zenbatzaileak...

Hona hemen zenbait adibide: *Izadiaren edo gizonen ankerkeria bortitzek laztura eta sumindura eragin dezakete, baina ez dizute eragiten gauzatxo etsigarri batzuk ikustean bizkarrean eragiten dizun hozkirri hori* (J. Zabaleta); *Hedadura lau eta grisetan ez zen bizitza aztarnarik ikusten* (Otsoa); *Bihotz taupaden erritmoa bizkortu zitzaion, garondoko kilikadura areagotu, ner-*

*bioak dantzan jarri* (M. A. Mintegi); *Kaleko Gabon apaindurak seinalaturik* (Goenkale); *Beren alkandorak, jaietako beztidurak, Madrilen enkargatzen dituzte* (Azurmendi); *Datuek ñabardurak behar dituztela, alegia* (Heras).

**4.5.2c** Baina ez dago beti hain argi ‘ondorioa’ ala ‘gertaera’ adierazten duen (eta orduan aditzaren argumentua agertuko zaigu izenaren inguruan). *Gogordura* izenari, esaterako, bi adiera ematen dizkio *Egungo Euskararen Hiztegiak*: ‘ariketa fisikoa eginda gero gorputzean sentitzen den mina; gorputz atalen bat gogortzea’. Eta *hanpadura* izenean lehen adiera ‘hanpatzea’ ematen du *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* (*zauriaren hanpadura*), eta bigarren adiera, hizkuntzalaritzakoa, ‘enfasia’.

Hitz berri mordoxka sortu da, gainera, euskara estandarrean, besteak beste hizkuntzalaritzan, edo matematiketan: *batura*, *berretura*, *biderkadura*, *hanpadura*, *kendura*, *komunztadura* (Etxeberri Sarakoak erabilia), *zatidura*... Matematika arloko terminoetan argi adierazten da ‘ondorioa’ adiera: ‘batuketaren emaitza’, ‘berreketaren emaitza’, ‘biderketaren emaitza’ eta abar.

### 4.5.3. *-era<sub>2</sub> (-kera)*

**4.5.3a** Mendebaldeko atzizki honen lematzat *-era* hartu izan da, *-kera* batik bat txistukari (afrikatu)aren ondoren ageri delako. Azkuek aitatzten duen banaketa, *-era* = ‘ekintza’ / *-kera* = ‘modua’ ez da, beraz, askotan betetzen.

**4.5.3b** Oinarrian *da* motako aditzoina du askotan<sup>13</sup>; argumentu bakarrekoa, beraz (nahiz hor ditugun *erabilera* edo *ezaguera* ere)<sup>14</sup>. Askotan atzizkiak mugimendua edo egoera aldaketa adierazten du. Adierari dagokionez, sortzen

---

<sup>13</sup> *Da* motakoa dela diogu, horietako bat baino gehiago *du* motakoak ere izan daitezkeen arren, hau da, inkoatibo/kausatibo motakoak, *-era* atzizkia da motakoari, inkoatiboari gehitzen zaiolako: ‘piztu da’ baliotik sortzen da *piztuera* (ez ‘piztu du’ baliotik); ‘sortu da’ > *sorrera* (ez ‘sortu du’) eta abar.

<sup>14</sup> *-era*, *-keta* edo *-men/-pen* atzizkien oinarri diren aditzoinen sailkapen xeheagorako, ikus Azkarate 2008.

dituen izenak ‘gertaera’ izenak dira, aditzoinari dagokion gertaera hori gauzatzeari adierazten dutenak: *agerrera*, *amaiera*, *bukaera*, *etorrera*, *hasiera*, *ibile-ra*, *igoera*, *irteera*, *jaitsiera*, *piztuera*, *sarrera*, *sorrera* eta abar. Argumentudun izenak dira, beraz, *-era* atzizkiaren bidez sortzen ditugunak; argumentu hori behin baino gehiagotan izenlagun gisa agertuko da testuan: *Bat-batean edan dudan esne beroak Alto de Portillorako patarraren igoera erraztu dit* (Aintziart); *Ontzien sarrera eta deskarga ikusi nahi nuen* (Sarrionandia); *Tolosako trenaren irteera* (Zaldua); *Ikerlariak bidali zituen Saulen etorrera ziurtatzera* (Elizen arteko Biblia).

Hala ere, izenondo, plural markaz... lagundurik ere ikus ditzakegu izen eratorri hauek literatura testuetan. Horrek pentsarazten digu ‘ondorio’ balioa ere badutela; ez, behintzat, ‘gertaera’ balio soila (§ 4.5.1c): *Aste osoan hura zen irteera bakarra, festa-gune bakarra* (Aristi); *Galduak ditut hainbat eta hainbat orri ere hara-hona egindako ibileretan* (Lertxundi).

**4.5.3c** Bestalde, *-era* atzizkiak eman diezaioke ‘modua’ adiera ere izen eratorriari; halakoetan, bai *da* eta bai *du* motako aditzoinak aurkituko ditugu: *egoera*, *erabilera*, *ibilera*, *hizkera*, *idazkera*, *janzkera*.

**4.5.3d** Zenbait izen eratorri har ditzakete beste adiera batzuk ere; esaterako, ‘gunea’, ‘lekua’, *irteera* eta *sarrera* izenen kasuan. Edo izen konkretu, zenbatarria, ‘tiketa’, *sarrera* izenak.

Bestalde, batez ere mendebaldeko testuetan erabili den atzizki honen parekoa da ipar-ekialdeko euskaretan *-tze* (§ 4.5.9).

#### 4.5.4. *-keta*<sub>3</sub>

**4.5.4a** Literatura tradizioan, *du* motako aditzak hartu ditu, gehienbat, oinarri atzizki honek; euskara estandarrean ere *-keta* atzizkiak sortutako izen asko *du* motako aditza dute oinarrian. Aditz horiek askotan ‘egilea-gaia’ (*garbitu*, *hil*...) argumentu egitura dute, ekintza bat adierazten dute. Garrantzitsua da argumentu egitura nabarmentzea, *du* motakoak izan arren, ‘esperimentatzai-

lea'-'gaia' egiturakoek, hau da, aditz psikologiko deitu zaienek (*desiratu, deitoratu, mespretxatu, pairatu, sentitu, sufritu...*), oro har, ez baitute *-keta* hartzen. Sortzen den izenak bi adierak har ditzake, bai 'ekintza' (edo 'gertaera'), bai 'ondorioa':

araketa, ardazketa, azterketa, bahiketa, bozketa, erosketa, galdeketa, garbiketa, harilketa, heziketa, hilketa, irakurketa, ikasketa, ikerketa, mozketa, salaketa, sendaketa, soilketa, zainketa, zapalketa, zorrozketa, zuriketa, zuzenketa

**4.5.4b** Euskara estandarrean *da* motako aditzei ere erantsi zaie *-keta*, 'gertaera' adierako izenak sortzeko. Gure corpusetan aurki daitezke *biraketa* (*Lurraren eta ilargiaren biraketa-ardatzen ezberdintasuna*), *erorketa*, *susperketa* (*Sektorearen susperketa itsas garraioaren hazkundetik dator*) eta abar. Euskaltzaindiak tradizioko *eroriko* arautu du, eta *suspertze*; *biraketa*, aldiz, onartu du euskara estandarerako (oso erabilia da, besteak beste Fisikaren arloan).

**4.5.4c** 'Ekintza' adierako izenak erraz har dezake barne argumentua, 'gaia' (edo objektua) biltzen duen izenlaguna<sup>15</sup>; edo hitz elkartu batean ageri bada, lehen osagaiak adieraziko du objektua. Orobat, iraupena adierazten duen modifikatzailea (izenlaguna) ere har dezake: *Lehen ekintza publikoa Aramburu jeneral eta presidente ohiaren bahiketa eta hilketa izan zen, 1970eko maiatzean* (*Berria*); *Diru-zuriketa*; *tortura-salaketa*; *emazteen kontrako bortizkeriaren salaketa* (*Herria*); *Egoitza eder eta lasaiak ziren, gaixo larrien zainketarako prestatuak* (*Otsoa*); *Era guztietako labanen zorrozketa* (*Goienkaria*); *Atentatuaren ikerketari dagokionez* (*Berria*).

'Ekintza' adierakoak dira Matematikaren arloan sortu diren hauek ere: *batuketa, biderketa, kenketa, zatiketa*.

**4.5.4d** 'Ondorio' adierakoa denean, oster, plural marka, adjektiboak, erakusleak, kuantifikazioa... onartuko ditu (§ 4.5.1c): *Mexikoko beste edozein*

---

<sup>15</sup> Gogoan izan behar da, ordea, sarritan izenlagunak 'egilea' adierazten duela, eta ez 'gaia': *maltzur haren salaketa*.

hiri handitan 100 mila biztanleko 12 hilketa eta 18 bahiketa izaten dira, eta Ciudad Juarez-en, berriz, 66 hilketa eta 133 bahiketa izaten dira (Berria); Artea berezia erakutsi duela inguruko herrien ikerketak praktiko guztiak bereganatzen (Pérez Iglesias); Ez egin salaketa faltsurik (Elizen arteko Biblia); Ikerketa historikoan aspalditik egiten zen galdera horrek ez du erantzun errazik (Navarro).

**4.5.4e** Adiera ‘ekintza’ (‘jarduera’) izanik ere, oinarritzat aditza ez duten adibideak ere baditugu: zuketa, noketa, zezenketa... Baita oinarrian izena ala aditza duten oso argi ez dauden lehiaketa, sariketa, txapelketa adibideak ere.

‘Jarduera’ balioa nabarmentzen da oinarrian izena izanik, ‘bila joan’ adierazten duten ondoko izen hauetan ere: andraketa, ardiketa, arrainketa, egurketa, lurketa, ogiketa, ongarriketa, sagarketa, urketa... Batez ere ipar-ekialdeko euskaretakoa da balio hau. Eta zaila da hitz eratorria izen kategoriakoa den esatea, askotan predikatu egituran ageri baita bildu, ibili, joan... aditzez lagundurik (ikus 23.2.1.3.5), baina ez beti; horrek eraman zuen, hain zuzen ere, Lafitte -keta atzizkiaren balio hau atzizki adberbio-sortzaileen artean sailkatzera: Ni bihotz-keta nabila, eta ez ogi edo arroltze-keta (Joanategi); Lehenago ere ardiketa ibilia zen, frangotan, alderdi heetan, bortu zoko guzietan bezala (J. Etxepare); Izraeldarrek gizon bat larunbatarekin egurketa zabilala hatzeman zuten eta Moisi eraman (Arbelbide); Guazen ogiketa Versaillarat (M. Elizanburu); Hain xuxen, tenore hartan herriko neskatxa gazteak harat biltzen ohi ziren urketa (Zerbitzari); Edo mahasti aitzurre, mendian harri-zerratzte [...] mendiko ongarriketa<sup>16</sup> (Larre). Maiz ageri da -ketan (‘zertan’) forman ere: Lau egunez aritu ginen lurketan (Duvoisin).

Jarduera balioa nabarmena da -keta atzizkiaz sortu eta -n inesibo postposizioaz lagundurik erabiltzen ditugun hizketan, berriketan, jostaketan, igeriketan eta abarretan. Baina izen hauek (eta sail berekoak diren igerian, aitzurrean, musean, ehizan edo jolasean) ezin ditugu aditzetik eratorritako izentzat hartu (§ 11.5e).

---

<sup>16</sup> OEhk ‘acarreo de abono’ itzultzen duena.

#### 4.5.5. -kunde

**4.5.5a** Atzizki honek ez du gaur egun emankortasun handirik. Literaturako testuei begiratzuz gero, erabilera modu bat baino gehiago ikusiko dugu, betiere aditzoina oinarri duela. Batetik, izen zaharrak ditugu, oro har ekialdekoak, eta ‘gertaera’ zein ‘ondorioa’ adierazten dutenak: *aiherkunde*, *bahikunde*, *desirkunde*, *egikunde*, *nahikunde*. *Elkhargana erakusten dute aiherkundea* (Etxeberri Ziburukoa); *Noizik behin ethortzen zeizkidan [...] Iainkoa baithan phentsatzeko desirkunde batzuk* (Axular); *Zure nahikunde balinbada nik ohorerik ez izatea, zure gogara egin bedi* (Duvoisin). Gehienak bildu ditu *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* eta gaurko corpusetan ere ageri dira.

**4.5.5b** Bestetik, baditugu XIX. mendearen amaierakoak eta XX. mendearen hasierakoak, batez ere, erlijioari lotuak: *agerkunde*, *berpizkunde*, *deikunde*, *Igokunde*, *Jasokunde*, *sorkunde*; baina baita *oldarkunde* ere; guztiek ‘gertaera’ adiera dutela esan daiteke: *Jaunaren zerura igokunde* (Vitoria-Eleizbarrutirako Kristiñau-Ikasbidea); *Jaunaren agerkunde* (Kerexeta).

**4.5.5c** Eta baditugu izen berriagoak ere, gehienak euskara estandarrekoak, *-kunde/-kuntza* (§ 4.5.6) bikotean aurki ditzakegunak; adierari dagokionez, bikote horretako izen bakoitzak du bere ñabardura: *aurkikunde*, *erakunde*, *federakunde*, *hauteskunde*, *hazkunde*, *zabalkunde*... Xehekiago aztertzen baditugu, *aurkikunde* izenak bi adiera ditu: lehena, goiko *agerkunde* edo *igokunde*-ren sailekoa (*Gurutze Deunaren Aurkikunde*); bestea, ‘aurkikuntza’ definitzen du *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*: *Aurkikunde horiek psikologian eta medikuntzan erabil daitezke* (Goienkaria); *Gaur egun edozein egiaztapen, aurkikunde edo teknikak [...] berekin nahi du zientziaren bedeinkapena* (Lertxundi). *Erakunde* ihartua dago; *erakuntza* izenak ‘eratzeta’ adierazten du, baina ez *erakunde*-k. *Federakunde* eta *federakuntza* erdal *federación*en ordain erabili dira (eta badute lekua gaurko corpusetan), baina *federazio* da estandarrerako arautua. *Hazkunde* eta *hazkuntza* sinonimotzat ematen ditu *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* adiera batean; baina *hazkuntza* izen eratorrian, ‘(animaliak) hazi’ adiera da oinarritzat aukeratua (*abere hazkuntza*). *Zabalkunde* eta *zabalkuntza*, biak erabiltzen dira euskara estandarrean (nahiz *zabalkunde*



izan erabiliena, ia hiru bider agerraldi gehiago baititu *zabalkuntza*-k baino (*Egungo Testuen Corpusean*). Bien arteko aldeari dagokionez, ez da askotan erraza ñabardurak antzematea; hala ere, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arabera, badirudi *zabalkunde* ‘zerbaiti buruzko ezagutza edo norbaiten ideiak haien berri ez dutenengana helaraztea’ dela: *Isilpeko informazioaren zabalkundea kontrolatu* (*Euskadiko Museoei buruzko Legea*); *zabalkuntza* izenak, aldiz, *zabaldu* aditzaren beste adiera bat du oinarri batzuetan: *Zirkonia purua polimorfikoa da eta [...] 1.170 °C lortzen direnean, bolumen-zabalkuntza bat gertatzen da* (Monasterio). Baina gehienetan zaila da *zabalkunde* / *zabalkuntza* bikotean aldeak ikustea.

**4.5.5d** Bada azkenik beste erabilera bat ere: pertsona adierazten duen izenari erantsi eta pertsona horien bilera-edo esan nahi duen izen eratorria sortzen duen *-kunde*, alegia. Egia da pentsa dezakegula beste atzizki bat dela, forma berekoa, baina beste balio batekoa, oinarrian den izenaren eta izen eratorriaren adiera ere azpisail honetan aztertzen ari garen izenen ‘ekintza’ (‘gertaera’), ‘ondorioa’ adieratik aldentzen den heinean. Dena den, oso adibide gutxi ditugunez hemen aipatzea iruditu zaigu egokiena; *Emakunde* da euskara estandarrean bide horretatik sortu den bakarra (erakunde baten izen propioa): *aitakunde*, *Emakunde*, *gizakunde*; Azkuek jaso zituen bere hiztegian, baina ez dute ia lekukotasunik testuetan.

#### 4.5.6. *-kuntza*

**4.5.6a** Batez ere *da/du* motako aditzak ditu oinarrian atzizki honek: *aldakuntza*, *asmakuntza*, *aurrerakuntza*, *bahikuntza*, *banakuntza*, *behakuntza*, *bereizkuntza*, *bustikuntza* (Fonetika eta Fonologiaren arlokoa), *eraikuntza*, *hez-kuntza*, *hobekuntza*, *ikerkuntza*, *salakuntza*, *zapalkuntza*. Askotan aditzoin berari *-keta* (§ 4.5.4) eta *-kuntza* erantsirik sorturiko bikoteak ikusiko ditugu, baina bietako bat da bestea baino askoz erabiliagoa (gehienetan *-keta* atzizkiduna: *aldaketa* / *aldakuntza*; *asmaketa* / *asmakuntza*; *bahiketa* / *bahikuntza*; *banaketa* / *banakuntza*; *behaketa* / *behakuntza*; *bereizketa* / *bereizkuntza*, *sorketa* / *sorkuntza*); edo aditzaren adiera jakin bat hartzen du oinarri batek

(*aurreraketa*, esaterako, lasterketetan edo auto batek bestea aurreratzeari dagokio). Bestalde, *-kunde* atzizkia ere izan dezake ondoan (§ 4.5.5c).

**4.5.6b** Maiztasuna, agerraldi kopurua alde batera utzirik, ez da erraza bikote horietan zer alde dagoen zehaztea. Ikus, adibidez, ondorengo adibidea, ez dirudi ia alderik dagoenik *ikerketa* eta *ikerkuntza* eratorrien artean: *Unibertsitatean ikerkuntza egiteko diru kopuruak atzera egin du, bistan denez, bederatzirente horietan, diru gehiena unibertsitateari ez dagokion ikerketa militarretan erabili baita* (Pérez Iglesias); *Asmakuntza horrek, beste batzuekin batera, hala nola buztin-gilearen gurpila edo biribilak marrazteko konpasa, egundoko ospea eman zion* (Juan Garzia); *Transmisio mota horrek beste bereizkuntza bat ekarri zuen* (Jon Muñoz); *Ondoko salakuntza hauek egozten zaizkizue* (Navarro). Adibide horietan ‘ondorioa’ balioa dute izen eratorriek, erakuslez, adjektiboz, *bat* zenbatzaileaz... lagundurik baitoaz. Beste hauetan, aldiz, ‘gertaera’ adierazten du: *CIAk lagundu egin zuen, bestela CIArentzat berarentzat ere lan egiten zuen gizonaren bahikuntzan* (Jimenez); *Argindar ekoizpen zein erregai banakuntza sareez azken urteotan jabetu izanak* (Sokarros).

Aditzoaren argumentu egitura ‘esperimentatzailea’-‘gaia’ denean, ez du ondoan *-keta* atzizkiare sorturiko izena izango: *pairakuntza* (izatekotan, *pairamen*); ez eta oinarria *da* motako aditza denean ere: *azarkuntza* (‘ausardia’).

### 4.5.7. *-men/-pen*

**4.5.7a** Lemari dagokionez, zaila zaigu alomorfo bakarra oinarritzotzat hartzea. Jatorriari begiratuz (Mitxelenak 1977b: 346), Azkuek eta Villasantek *-men* ematen dute lematzat eta gainerakoak aldaeratzat. Baina gaur egun *-pen* dela hedatuena esango genuke eta ingurune fonetikoak ez duela gehiegi laguntzen, nahiz herskariaren ondoko ahoskabetzeaz sortua izan *-pen* (\**oroitmen* > *oroi-pen*, cf. *orhitmen*, Tartas); *itzulpen*, *laburpen* edo *eratorpen* eratorrietako *-pen* aldaera ez du ingurune fonetikoak azaltzen. Areago, aldaera bakoitzak ñabardura jakin bat hartu duela ere esan dezakegu, beheaxeago ikusiko ditugun bikoiteak aintzat hartzen baditugu —*aitormen* eta *aitorpen*, *hedamen* eta *hedapen*,

*irudimen* eta *irudipen*, *ukimen* eta *ukipen* eta abar—. Aldaera huts zirenak atzizki beregain bihurtzeko bidean egon daitezke. Bada beste aldaera bat ere, *-mendu*, latinezko *-mentumekin* lotura garbia duena. Ekialdeko erabilera zaharrearantz askotan maileguei lotzen zaien forma dirudi eta oro har *-tu* partizipiodunei.

**4.5.7b** Oinarria *du* motako aditza izan daiteke, halakoak dira gehienak: *adierazi*, *aipa(tu)*, *aitor(tu)*, *barka(tu)*, *bedeinkatu*, *ebatzi*, *ekarri*, *ekoitzi*, *eratorri*, *gaitzetsi*, *goretsi*, *irakatsi*, *itxaron*, *luzatu(tu)*, *labur(tu)*, *lor(tu)*, *onetsi*, *salbatu(tu)*, *senti(tu)*... Beste hauek, berriz, *du* motakoak izan arren, argumentu bakarrekokoak dira (intrantsitibo ergatibodunak, ikus § 23.2.2.1): *etsi*, *iraun*. Eta badira *da* edo *zai*o motako aditzoinak ere, nahiz askoz bakanagoak izan; *atzeratu (da/du)*, *galdu (da/du)*, *gibelatu (da/du)*, *hasi*, *iruditu*, *urrikaldu*... Aditz horietatik eratorriak dira ondorengo izenak:

adierazpen, aitorpen/aitorpen, aipamen, atzerapen, aurrerapen, barkamen, bedeinkapen, burutapen, ebazpen, ekarpen, ekoizpen, eratorpen, etsipen, gaitzespen, galmen, goresmen/gorespen, irakaspen, irudipen, itxaropen, itzulpen, laburpen, lorpen, luzapen, onespen, salbamen, ukipen, urrikalmen

Beste eratorri hauek, berriz, *-mendu* aldaeradunak dira:

aitzinamendu, barkamendu, deliberamendu, gibelamendu, liluramendu, luzamendu, manamendu, pagamendu, salbamendu, urrikalmendu

**4.5.7c** Adierari dagokionez, de Rijken (1991) iritziz, *-penek* ez du ‘ekintza’ adierarik, ‘burututako’ zerbait adierazten du, eta hala da askotan, *adierazpen*, *aitorpen*, *ekarpen*, *ekoizpen*, *itzulpen*, *laburpen*, *lorpen*... ez baititugu ulertzen gehienetan ‘adieraztea’, ‘aitortzea’, ‘ekartzea’... gisa, baizik ‘adierazi dena’, ‘ekarri dena’, ‘loritu dena’ eta abar. Baina nahikoa da *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* edo *Egungo Euskararen Hiztegiak* ematen dituzten definizioak ikustea oharretarako ‘gertaera, gauzatzea’ ere adieraz dezakeela *-men/-pen* atzizkiak eratorririko izenak: *bedeinkapen* ‘bedeinkatzea’; *iraupen* 1. ‘irautea’, 2. ‘zerbaitek bere hartan dirauen denbora’; *hastapen* 1. ‘hastea, hasiera’, 2. ‘ikasi behar den zerbaiten hasierako gaiak’ (pluralean); *ekoizpen* ‘ekoiztea; ekoiztearen ondorioa’; *galmen*

‘galtzea, hondatzea’, Dena den, testuinguruan ikusi behar da ‘ondorioa’ ala ‘gertaera’, zein balio duen eratorriak. Horretarako azpisail honen hasieran aipatu ditugun irizpideak har ditzakegu kontuan (§ 4.5.1c).

Honako adibide hauetan ‘gertaera’ balioa erakusten dute izen eratorriek: *Te-basko gerratearen eta Troiako galmenaren aurretik* (X. Amuriza); *Unibertoaren hastapeneko beroaldian* (Segurola); *Peruko limoi eta mango ekoizpenaren %40 Tambogrande eta San Lorenzo bailaretan ekoizten da* (Berria); *San Diegoko eliza berriaren bedeinkapena egin zenean ere, 1781eko abuztuan* (A. Garikano); *Joan den igandean, aldiz, Ortzaitzen, lau herritar gaztek dute Fedearen Aitormenaren besta ospatu* (Herria); *Norbanakoak bere burua sakrifikatu beharra du kolektibitate baten salbamenerako, baina hau ez da aritmetika ergel bat* (J. Zabaleta).

**4.5.7d** ‘Ondorioa, emaitza’ adierakoak dira, berriz, beste hauek, zenbatzailez, adjektiboz, plural markaz... lagundurik doazenak: *Itzulpen batek itzultzailearen garaira ekartzen du testua* (Lertxundi); *Ikastetxeei dagokie orain aztertu eta ekarpenak egitea* (Argia); *Hainbeste ekoizpenen hutsaltasunaren aurrean* (Berria); *Irakaspen ona izan liteke izurria* (Garate); *Lau gai hauek, euskal foraltasuna ezagutzeko funtsezkoak, modu trebe eta errazean jorratzen ditu, baita irakurleari orri gutxitan laburpen bikainean eskaini ere* (Jimeno).

**4.5.7e** Goraxeago esan bezala, *-men* aldaerak ‘ahalmen’ adiera hartu du, batetik, gorputzaren zentzumenak adierazten dituzten *dastamen, entzumen, ikusmen, ukimen, usaimen* izenetan; bestetik, hizkuntza batean bereizten ditugun gaitasun motak adierazten dituzten *entzumen, idazmen, irakurmen, mintzamen, ulermen* eratorrietan. Baina baita beste hauetan ere: *irudimen* ‘gizakiak, gogoan irudi edo ideia berriak sortzeko duen ahalmena’; *asmamen* ‘asmatzeko ahalmena’; *maitamen* ‘maitatzeko ahalmena’...

#### **4.5.8. -tza<sub>3</sub>/-tze**

Lemari dagokionez, zaila da mendebaldeko eta ekialdeko forma desberdinen artean bat hautatzea oinarritzotzat; areago, Mitxelenaren (1977b) iritzia

kontuan izanik, bi atzizki desberdin izan daitezke, eta ez euskalki mailako aldaera hutsak<sup>17</sup>. Nolanahi ere, atzizki bakartzat har dezakegu ekialdeko *-tze* hau eta hurrengo puntuan aztertuko duguna.

Aditzoinak *da* nahiz *du* motakoak izan daitezke, eta sortzen den izenak maizenik ‘ondorioa’ balioa du, baina ‘gertaera, egitea’ ere adieraz dezake: *aitortza/aitortze, bizitza/bizitze, egoitza, ekintza, emaitza, ezagutza, ezkontza, higuintza, iraultza, jaiotza/jaiotze, jakintza/jakite, laguntza, sendotza* eta abar.

#### 4.5.9. *-tze/-te*

**4.5.9a** Lafittek *-tze* ematen du lematzat; Azkuek, berriz, *-te*. Garbi dago forma baten edo bestearen aukera aditzoinaren inguruneak baldintzatzen duela, neurri batean. Badira euskalki mailako desberdintasunak ere, bizkaieraz askotan *-te* aurkitzen baita gainerako euskalkietan *-tze* erabiltzen den izenetan (*ekarte/ekartze, errete/erretze, hilde/hiltze, jote/jotze...*), baina euskara estandarreko aldaerei lotuko gatzaizkie.

Txistukariaren eta sudurkariaren ondotik, oro har *-te* aurkitzen da euskalki guztietan (*edate, haste, ikaste, ikuste, iraute, jakite* eta abar). Dena den, Mitxelena (1977b) hitzen aurrean zaila da lematzat forma bakarra aukeratzea<sup>18</sup>.

**4.5.9b** Edozein aditzoinek onartzen du *-tze* atzizkia. Berau da, hain zuzen, ‘ekintza’ edo ‘gertaera’ adierazteko markatugabea dena, beste edozeinen orde zager daitekeena. Kontuan izan behar da, dena den, izenak sortzen dituen atzizkiaz ari garela, eta ez perpaus jokatugabeek duten nominalizazio moduz

---

<sup>17</sup> “Es para mí dudoso si *-tza/-tze*, que en algún caso (cf. *bizitza/-tze* ‘vida’, *eriotza/heriotze*) son variantes de un mismo sufijo, occidental y oriental, respectivamente, lo son siempre. Tal vez haya que contar, en parte, con sufijos de origen distinto” (Mitzelena 1977b: 500).

<sup>18</sup> “En algunos dialectos *-te* y *-tze* alternan en el sustantivo verbal [...]. No debe pensarse, sin embargo, que *-tze* sea el resultado de *t + t*: se trata probablemente de sufijos de distinto origen” (Mitzelena 1977b: 346).

(ikus § 30.6.3.1)<sup>19</sup>. Alde honetatik, askoz maizago aurkituko ditugu *-tze* atzizkiaz sorturiko izenak Iparraldeko testuetan (azken batean, aurreko puntuan ikusi dugun *-tze* bera da), gertaera izen balioan (erakusleaz lagundurik ere bai, inoiz edo behin): *Mariaren sortzeak bozkariotan ezarri du Zerua (Andre-dena)*; *Bihotz onez oroitze utsak atsegin ta gustoz urturik bezala uzten du bihotza (Mendiburu)*; *Euskaraz mugagabeak ere aurrera daitezke [...] aurreratze horrek, azkenik galdegaia altxa dezake (Mitxelena)*; *Arabako [euskararen] atzeratzearen kezka argi azaltzen du, esate baterako, Aita Kardaberatzek (Mitxelena)*; *Elkarren ondo-ondoan zeuden neskak, urre eta beltz, eguzkiaren sartzea interesik gabe miresten, lepoko zapiak ukituz, irribarreak zuzenduz elkarri (Navarro)*; *Goiz batez Boris Klotz medikua, haste hartan ezagutu nuen, jin zitzaidan (Etxehandi)*; *Larunbatean, abendoak 18, Olentzeroren jiteak airostuko ditu Baionako karririk (Herria)*.

**4.5.9c** Gertaera izenak osatzen dituen heinean, aditzoinaren argumentu egi-tura heredatu egiten du izen eratorriak, eta horrek esan nahi du argumentu horiez lagundurik azaldu behar duela: dela hitz elkartu baten bidez (*eguzki-ilkite, eguzki-sartze*)<sup>20</sup>, dela izenlagunaren bidez (*eguzkiaren sartzea, Olentzeroren jitea*). Gerta daiteke argumentua testuan lehenago aipatua delako berriro ez ematea: goraxeago eman dugun Mitxelenaren adibidean, *Euskaraz mugagabeak ere aurrera daitezke* dio lehenik; argi dago, beraz, zer den aurreratzen dena (edo duguna). Horregatik da errazago ondoren erakuslea erabiltzea eta argumentua isilpean uztea: *aurreratze horrek...*

**4.5.9d** Mendebaldeko *-era* atzizkiaren (§ 4.5.3) baliokide dela esan daiteke (*hasiera/haste, etorrera/jite, sarrera/sartze* eta abar).

Baina behin baino gehiagotan, adjektiboz, erakuslez edo ‘ondorio’ adierako izenekin ohikoak diren beste elementu batzuez lagundurik ere aurkituko ditugu *-tze* atzizkidun izenak. Hona hemen adibide batzuk: *Heriotze bakarra esaltzen dute lau sortzek (J. Etxepare)*; *Oroitze onek aita naigabez bete, eta*

---

<sup>19</sup> Gai honetan sakondu nahi duenak jo dezake, besteak beste, Goenagaren (1984) lanera.

<sup>20</sup> Horrelako adibide asko ikusiko ditugu hitz elkarketa aztertzean; zehazki, izen elkartu sintetikoaren zer-nolakoen berri ematean (§ 7.2.7).

*alabari negar eragiten zion* (Lardizabal); *Bainan izan da halere joaite baino aise jite gehiago* (Herria). Hala ere, ez dirudi ‘ondorio’ balioa beste atzizki batzuekin bezain argi ikusten denik.

**4.5.9e** Bada gure artean beste auzi bat ere, zenbateraino den egoki euskara estandarrean *-tze* atzizkiaz baliatzea izenak sortzeko. Mitxelenaren iritzia ekar dezakegu hona: “norbaitek esan omen du hizkuntza landuetan *-te -tze* bezalako gramatika-atzizki arrunt batek ordezkari hoberik eta berezirik izan ohi duela. Tira, ingelesa aski landua eta ikasia da eta *-ing* ez dabil hain urrun gure atzizkitik. Hala guztiz, ordezkari barra-barra erabiltzen dute *-ing*” (1988a [1984]: 45)<sup>21</sup>.

#### 4.5.10. *-zio* (*-zino*, *-zione*, *-ziño*)

**4.5.10a** Atzizki erromantze hau oro har maileguei eransten zaiela dio Villasantek, baina euskal oinarriari erantsirik ere aurki daitekeela. Euskalkien arabera aldaerak ditu: *-ziño*, bizkaieraz (*-zinoe* ere ageri da bizkaierazko tes-tuetan); *-zino*, zenbait autore lapurtarrek ere badarabilte; *-zio*, batik bat gipuzkeraz; *-zione*, Iparraldeko euskalkietan. Villasantek berak *-zio* gomendatzen du literatur hizkuntzarako, bokalarteko sudurkaria erortzea oso fenomeno ezaguna delako, eta, gainera, *-zio* delako literatur hizkuntzan azken urteetan hedatuena. Gomendio hau, eta aldaeren hedadura gogoan izanik eman zuen Euskaltzaindiak batasunerako 9. araua, *-zio* aldaera hobesten duena.

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 9. araua: “ <i>-zio</i> ”, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua.
---

Oro har, *-tu* motako partizipioa hartzen duten aditsoinei eransten zaie atzizki hau, eta sortzen diren izenek ‘ondorioa’ adiera hartzen dutela esan daiteke: *amorrazio*, *asmazio*, *begitazio*, *burutazio*, *deizio*, *gogorazio*, *harrizio*, *kantsazio*, *segizio*.

---

<sup>21</sup> Gai honetaz gehiago jakin nahi duenak irakur dezake Azkarate 2009.

**4.5.10b** Ondorengo adibideetan ikus dezakegu *-zio* atzizkiaren bidez sorturiko izenek onartzen dutela ondoan adjektiboa, plural marka... (ikus § 4.5.1c): *Burutazio illun oien artean urari bere burua emateko tentazio gogor batek eman zion* (Kardaberaz); *Orduan bai amorrazio ederra artu nuala!* (Uztapide); *Lamiak eta sorginak, eta gizonen asmazio eta imintzio guztien nahasketa bat* (Aresti); *Desegñ ziran baña alako amesak, / begitanziño areek gaur jataz garratzak* (Arrese Beitia).

**4.5.10c** Baina badira adibideak gertaera izentzat har ditzakegunak: *Txorakeriarik eta alferrikako buru-kantsaziorik gabe* (Seguroła). Nolanahi ere, ez du ia emankortasunik gaur egun hitz berriak sortzeko.

#### 4.5.11. *-ginan, -ginean*

Beti *zertan* adierazten du; ez da, beraz, izena. Baina nonbait sartzekotan, gertukoena ekintza, gertaera izenen saila da. Testuetan adibide gutxi daude, eta formari dagokionez ere biak ageri dira, *-ginan* eta *-ginean*: *bertsoginan, txorixoginan, kakaginan, txixaginan...* *Bost idazleok bertsogiñan maixu handien trebetasuna erakutsi eben* (Akesolo); *Bai Plaentxian ta bai Eibar-en, bertsoגיñan asten diranian, Gipuzkoako euzkerarako joera dabe* (San Martin).

#### 4.5.12. Beste atzizki batzuk: *-ada, -antza/-antzia*

Beste bi atzizki aztertuko ditugu hemen, labur, euskal lexikoan hainbat hitz sortzeko baliatu diren arren, nahiko ihartutzat eman ditzakegunak.

##### 4.5.12.1. *-ada*

Aditz esapidea, onomatopeia + *egin* egitura izan ohi duena, aurkituko dugu oinarrian: *irrist egin, purrust egin, tarrat egin, txirrista egin, zizt egin, zurrut egin...* Izena + *egin* egiturako aditz lokuzioa dugu *bultzada* izenaren kasuan.



Batzuetan aditzoin kategoriako oinarria ere ikus daiteke: *bultza(tu)*, *irrista(tu)*, *zizta(tu)*.

Sortzen den izenak ez du ‘gertaera’ adierarik, ‘ondorioa’ baizik. Hala erakutsiko lukete gertaera izenak ondorio izenetatik bereizteko aipatu ditugun ezaugarriek (§ 4.5.1c): plural marka har dezakete, baita erakusleak ere; *bat* zenbatzailearekin ager daitezke, baita adjektiboekin ere... *Bultzada*, *irristada*, *purrustada*, *tarratada*, *taupada*, *zaplada*, *zarrastada*...

Hona hemen zenbait adibide: *Sirenen ondoren oso baxu zihozen helikopteroen harrabotsak eta tankeen burrunbadak zerbait gogorra jazoko zela adierazi ziguten* (B. Bilbao); *Zotza purrustada batez ahotik lurrera botaz* (Goenkale); *Zarrastada bortitz batek goitik behera inarrosi ninduen* (Ladron Arana).

Azkuek eta Villasantek izen bizidunei —batzuetan izen propio ere badirenei— erantsirik sortutako *Zamakolada*, *Matxinada* edo *Karlistada* eta horien antzekoak aipatzen dituzte, aspaldi honetan izen berririk sortu ez duen bide baten adierazgarri. Villasantek dioenez, Mitxelenak erdal *sanrocada*, *gamazada* eta abarren hurbiltasuna ere aipatu zuen.

#### 4.5.12.2. -antza/-antzia

Atzizki erromantze honen lematzat Villasantek -antza aldaera ematen du, nahiz Mitxelenak berak esan bi formak, -antza (erdal -anča zaharra) eta -antzia (erdal -ançia), latinezko atzizki beretik eratorriak direla.

Oinarrian mailegu bidez hartutako aditzak aurkituko ditugu; eta behin baino gehiagotan zalantza ere sor dakiguke benetan euskaraz eratorria ote den, ala izen osoa den maileguz hartua (*esperantza*, *perseberantzia*, *usantza*...). Nolanahi ere, emankortasun urrikoa izan da euskal lexikoaren ondarean: *akabantza*, *alegrantzia*, *eskudantzia*, *fidantza*, *frogantza*, *obligantza*, *salutantzia*, *signifikantzia*.

Adjektiboa, *bat* zenbatzailea, erakuslea... ondoan har dezaketenez, ‘ondorioa’ adierako izenak direla esan daiteke: *Eskudantzia* *hek bere* [neskatxen] *arinta-*

*sunagatik gerthatu zaizkotela* (Duhalde); *Ordukoa zen oraikoaren seinale bat, figura bat, pintura bat, eta signifikantza bat* (Axular); *Guzieri salutzantzia eder bat egin ondoan, hurbildu zen nereganat* (J. B. Elizanburu).

#### **4.6. Zero atzizkia**

Hizkuntzalari askok erabili duten kontzeptua da (beste askoren artean, Varelak 1990 edo Spencerrek 1991), inolako atzizkirik gabe, hau da, marka formalik gabe, aditzetik eratorzen den izenaren berri emateko. Beste batzuek, Cabrék eta Rigauk (Cabré y Rigau 1985), esaterako, ‘aldaketa sintaktikoa’ terminoa erabili dute honetarako. Halako aldaketen auzia zertan datzan ere aipatzen dute azken hizkuntzalari horiek: nola jakin zein den oinarria eta zein eratorria? Euskaraz *irabazi*, *eduki*, *ukitu*, *isuri* eta abarren kasuan, izena da aditzetik eratorria ala alderantziz? Beste batzuetan *amai-amaitu*, *jorra-jorratu*, *aipu-aipatu* bezalako bikoteak ditugu, non ezin den besterik gabe onartu aditza dela izenetik eratorria (Mitxelena 1977d: 252). Ikus, halaber, § 6.1. Euskaltzaindiaren lanean (EGLU-II 1987b: 84): “partizipioaren forma ukanik ere, izen hutsak dira” esaten da *itzuli*, *bizi* edo *erauntsi* modukoez, beste hau gehituaz: “izen izaera hori zer gisaz lotua den itxura bereko aditzarekin, hemen aipatzerik ez dugun arazoa da”. (§ 25.2.3).

Berez adjektiboa substantibatzen denean, izen balioan erabiltzen denean, edota partizipioak adjektibo balioa hartzen duenean ere, modu honetako aldaketak genituzke (§ 25.2.2).

## 5. Morfologia lexikoa: eratorpena (II)

---

- 5.1. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak; 5.1.1 Sarrera
  - 5.2. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (I). ‘Ugaritasuna’ adierakoak (-*tsu*, -*os/-oso*); 5.2.1. -*tsu*; 5.2.2. -*os/-oso*
  - 5.3. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (II). ‘Jatorria’ adierakoak edo gentilizioak (-(*t*)*ar*); 5.3.1. -(*t*)*ar* (-*dar*)
  - 5.4. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (III). ‘Joera, izaera’ adierakoak (-*bera*, -*kari*<sub>2</sub>, -*kin*<sub>2</sub>, -*koi*, -*kor*, -*tiar/-liar*, -*ti*); 5.4.1. Sarrera; 5.4.2. -*bera*; 5.4.3. -*kari*<sub>2</sub>; 5.4.4. -*kin*<sub>2</sub>; 5.4.5. -*koi* (-*oi*); 5.4.6. -*kor* (-*or*); 5.4.7. -*tiar/-liar*; 5.4.8. -*ti*
  - 5.5. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (IV). ‘Gaitasuna’ adierakoak (-*garri*, -*kizun*<sub>2</sub>); 5.5.1. Sarrera; 5.5.2. -*garri*; 5.5.3. -*kizun*<sub>2</sub>
  - 5.6. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (V). ‘Jabegoa’ adierakoak (-*dun*, -*ko*<sub>3</sub>); 5.6.1. Sarrera; 5.6.2. -*dun* (-*tun*); 5.6.3. -*ko*<sub>3</sub>
- 

### 5.1. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak

#### 5.1.1. Sarrera

**5.1.1a** Ondoren aztertuko ditugun atzizki guztiek adjektibo kategoriako elementuak, lexemak, sortzen dituzten heinean, adjektibo eratorri hauen ezkerrean doan izenaren kualitate bat adierazten dutela esan dezakegu (§ 14.1), hau da, adjektibo kalifikatzailetzat hartuko ditugu. Beraz, ondoren aztertuko ditugun eratorriak, adjektibo kalifikatzaile bakun (*zuri*, *handi*, *txiro*, *zabal*...)

eta elkartuak (*eskuzabal, burusoil, ilegorri...*) bezalakoak dira: izaera adieraz dezakete (*negarti, egiati, burutsu, maitagarri, adoredun*), kopurua edo kantitate (*menditsu, harritsu*), joera (*galkor, ustelkor*), zerbait e(ra)giteko gaitasuna, edo zerbait hartzekoa (*beldurgarri, ulergarri*) eta abar (§ 14.2). Beste batzuek, ordea, erreferentzia adjektiboak osatuko dituzte; horrelakoak dira *-dun* eta *-(t) ar* atzizkien bidez sortzen ditugunak (§ 14.2.6).

**5.1.1b** Adjektibo eratorrien oinarria aditz kategoriakoa denean, argumentu egitura aztertu beharko dugu, eta ikusi adjektiboaren ezkerreko izenak zein argumentu betetzen duen. Esaterako, *film beldurgarri* ‘beldurra sorrarazten duen filma’ da; hau da, *film* izena *beldur(tu)* aditzaren kanpoko argumentuari, subjektu agenteari dagokio. *Liburu irakurgarri* sintagman, aldiz, *liburu* izenak *irakurri* aditzaren gaia argumentua, objektua, betetzen du.

**5.1.1c** Atzizki adjektibo-sortzaileak sailkatzean ohartzen gara ez direla bat etorri euskal gramatikariak. Azkuek, esaterako, ‘ugaritasuna, maiztasuna’ adierakoen azpisailean sartu zituen *-ti* eta *-tsu*. Lafittek, ostera, ‘joera’ adierakoan artean sailkatu zuen *-ti*, eta ‘ugaritasuna’ adierakoen artean *-dun* eta *-tsu*. Izen eratorriekin egin bezala, atzizkiak oinarriari eransten dion esanahiaren arabera sailkatu ditugu. Zehazki, honako azpisailak bereiziko ditugu: 1. ‘ugaritasuna’ adierakoak; 2. ‘jatorria’ adierakoak (gentilizioak); 3. ‘joera, izaera’ adierakoak; 4. ‘gaitasuna’ adierakoak; 5. ‘jabetza, edukia’ adierakoak.

## 5.2. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (I). ‘Ugaritasuna’ adierakoak (*-tsu, -os/-oso*)

### 5.2.1. *-tsu*

Lemari dagokionez, aldaerarik zaharrena *-zu* izan arren (Mitzelena 1977b), zailtzarrik gabe izenondo berriak sortzeko aspaldidanik *-tsu* da baliatzen duguna.

Mota askotako izenei erants diezaiokegu *-tsu* atzizkia, izen abstraktuei (*adore, borondate, kemen...*), izen zenbakaitzei (*ke, koipe, ur*), izen zenbakarriei

(*harri, mendi, zorri...*); baina nekez izango dira oinarri izen multzokariak (?*armadatsu, ?familiatsu*, § 12.3.3). Adjektibo eratorriei ‘ugari’ esanahia ematen die *-tsu* atzizkiak; hau da, oinarri den izenak adierazten duena ugari duen izenaz predikatzen diren adjektiboak sortzen ditu. *Paraje menditsu* ‘mendi ugari dagoen parajea’ da, *pertsona adoretzu* ‘adore handiko pertsona’, *udare urtsu* ‘ur ugari duen udarea’, *gai garrantzitsu* ‘garrantzi handiko gaia’, etab.

abegitsu, adimentsu, adoretzu, ahaltzu, aldapatsu, arantzatsu, Arantzazu, arduratsu, arriskutsu, behartsu, berritsu, bizartsu, borondatetsu, boteretsu, bulartsu, burutsu, egitekotsu, euritsu, ezkitsu, garrantzitsu, haizetsu, harritsu, herratsu, iletsu, indartsu, itzaltsu, kementsu, ketsu, koipetsu, koleratsu, menditsu, mukizu, odoltsu, osasuntsu, ospetsu, pozoitsu, sutsu, zaporetzu, zorritsu...

### 5.2.2. -os/-oso

Iparraldeko testuetan aurkituko ditugu jatorriz erromantzea den atzizki honekin sorturiko adjektiboak; zalantza egin dezakegu egiazko eratorriak ote diren, ala mailegu egokituak. Nolanahi ere, Villasantek (1974) edo Lafittek (1944) jaso duten atzizkia da: *abarizios, apetitos, balios, biktorios, desiros, golos, gutizios, hiros, lorios, malizios, mendekos, miserikordios, nekos, penos, perilos...* *Baldin desiros bazarete ohorearen zelai eder eta zabaletan pasaie-tan ibiltzera* (Etxeberri Sarakoa); *Presuna hirosak, erreak eta haserrekorrak* (Axular); *Eta auzoko jende abarizios zikoitz batzuek* (Barbier). Ez ditu horiek guztiak jaso *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* (oraingoz behintzat) eta, jaso dituenetatik batzuek (*abarizios, miserikordios*) *Zah.* marka daramate.

-oso aldaera ere badugu, Hegoaldeko testuetan: *apetoso, bakeoso, galanioso, lainezoso, malizioso, nekoso. Mutil malizioso deabruz betia* (Txirrita); *Ume lainezoso, galanioso, apetoso patetiko batzuk, besterik ez* (J. A. Arrieta). Adjektibo horietatik hiru baino ez ditu bildu *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* —*bakeoso, lainezoso, nekoso*—; *Beh.* marka eman die lehen biei, eta lagunarteko formatzat (*Lgart.*) hartu du hirugarrena.

### 5.3. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (II). 'Jatorria' adierakoak edo gentilizioak *-(t)ar*

#### 5.3.1. *-(t)ar (-dar)*

**5.3.1a** Lemari dagokionez, argi dago *-dar* kontsonante ozenaren, bereziki sudurkariaren ondoko alomorfoa dela (*beasaindar, madrildar*). Ez dago hain argi, ordea, lematzat edo oinarrizko alomorfotzat zein hartu behar den; Azkuek *-ar* ematen du oinarrizkotzat, *-t-* herskaria zenbait ingurunetako lotura kontsonantetzat hartuaz. Auzi hau alde batera utzita, aldaeren banaketa zehaztea ere arazo korapilatsua da. Joera batzuk ikus daitezke, baina kontrako adibideak ere badira. Euskaltzaindiak Onomastikaren alorrean emandako arauak hartzen baditugu, badira batetik euskal herritarren izenak ematen dizkigutena, bai eta kanpoko eskualde eta hirietakoena ere; dinastia izenak edo munduko herriak eta etniak arautzean ere hainbat forma ageri dira *-tar* atzizkiaz osatuak (38., 57., 99., 108., 142., 147., 178., 182., 187. eta 190. arauak). Bereziki interesgarria da 178. araua, “Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak” ematen baititu.

**5.3.1b** Azken arau honetan aurkituko ditugu irizpideak noiz erabili aldaera edo alomorfo bakoitza. Honela labur dezakegu bokalez zein kontsonantez amaitzen diren kanpoko leku-izenen kasuistika (xehetasun gehiagotarako ikus 178. araua, eta begiratu *Euskaltzaindiaren Hiztegia*):

- a) *-a + -ar > -ar* (bi silabatik gorako oinarriekin) / *-a + -tar* (bi silabako oinarriekin)
  - antiguar, angolar, argentinarr, canberrar, belgikar, bruselar, bolikostar, bostwanar, guatemalar, vienar / rigatar, suvatar, dakartar, bernatar, pragatar, vilatar erromatar, andorratar (salbuespenak)
- b) *-e + -tar*
  - eiretar, librevilletar, porteauprincetar, kopenhagetar, belizetar, caboverdetar, sanjosestar, lilongwetar, maletar, valletar, komoretar / kanputxear
- c) *-i + -ar*
  - abudhabiar, aragoiar, bangiar, burundiar, djibutiar, fijiarr, helsinkiarr, haitiarr, kigaliarr, maliarr, malawiarr, nairobiarr, newdelhiarr, tripoliarr (baina bruneitar, hanoitar, paraguaitar, taipeitar, uruguaitar, zeelandaberritar)

d) -o + -ar

antananarivoar, burkinafasoar, damaskoar, egiptoar, kongoar, lesothoar, libanoar, marokoar, monakoar, montevideoar, osloar, portonovoar, quitoar, sanmarinoar, santodomingoar, sarajevoar (baina kairotar, luxenburgotar, santiagotar, tokiotar)

e) -u + -ar

chisinauar, emirerribatuar, estatubatuar, korfuar, nauruar, timbuktuar, vanuatuar (baina, katmandutar, moskutar, perutar, uagadugutar...)

f) -l, -m, -n + -dar

afganistandar, berlindar, brasildar, dublindar, erevandar, kabuldar, kirzigistandar, washingtondar

g) -f, -g, -j, -p, -q, -r, -s, -x, -z + -tar

aljertar, barbadostar, beneluxtar, buenosairestar, burgostar, cherbourgtar, danzigtar, ekuadortar, göteborgtar, londrestar, marrakextar, paristar, wessextar

h) -d, -t + -ar

beirutar, belgradar, budapestar, bukarestar, islamabadar, nazaretar, rabatar

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 38. araua: “Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak”, Donostian, 2007ko martxoaren 30ean onartua; 57. araua: “Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak”, Zarautzen, 1996ko apirilaren 26an onartua; 99. araua: “Zuberoako herri eta herritarren izenak”, Etxarri-Aranatzen, 1999ko ekainaren 24an onartua; 108. araua: “Lapurdikoko udal izendegia”, Bilbon, 2000ko martxoaren 30ean onartua; 142. araua: “Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak”, Bilbon, 2004ko abenduaren 16an onartua; 147. araua: “Antzinateko hirien euskarazko izenak”, Donostian, 2006ko urtarrilaren 27an onartua; 178. araua: “Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak. Euskaltzaindiaren gomendioa”, Baionan, 2015eko ekainaren 26an, Elizondon, irailaren 25ean eta Bilbon, azaroaren 27an onartua; 182. araua: “Dinastien izenak”, Donostian, 2017ko urtarrilaren 27an onartua; 187. araua: “Munduko zenbait gizarte- eta erlijio-talderen jarraitzaileen izenak eta ordena militar eta ospitalario nagusien izenak”, Donostian, 2017ko azaroaren 24an onartua; 190. araua: “Munduko herriak eta etniak”, Donostian, 2018ko ekainaren 29an onartua.

**5.3.1c** Atzizki honen inguruan sortu den bigarren galdera, *-tiar*, *-liar* atzizkiarekiko lotura da. Villasantek guztiak atzizki bakarraren alomorfoztat ematen dituen arren, Azkuek bi sail desberdinetan kokatzen ditu, bi atzizki desberdin bezala hartuaz. Uhlenbeck-ek (1909) eta Lafittek ere hala jokutzen dute. Oinarriaren kategoria eta atzizkiaren adiera kontuan hartuaz, bi atzizkiren aurrean gaudela ohartzen gara; nahiz agian bien arteko nahasketa gertatu izan *goiztar/goiztiar*, *zerutar/zerutiar* eta abarren kasuan. Jatorri adierako *-(t)ar* aztertuko dugu hemen eta aurrerago *-tiar/-liar* (§ 5.4.7).

Oinarriari dagokionez, mota bateko baino gehiagoko eratorriak aurkituko ditugu. Batetik, goiko adibide guztietan ikusi dugu leku izen propioei eransten zaiela *-(t)ar* leku horretako pertsona adierazteko; pertsonaren jatorria, alegia. Halakoak dira beste adibide hauek ere:

albaniar, alexandriar, amezketar, andaluziar, andoaindar, arabiar, ataundar, azpeitiar, babiloniar, bergarar, donostiar, egiptoar, errenteriar, erromatar, eskoziar, feniziar, gipuzkoar, holandar, indiar, iparramerikar, irlandar, italiar, lekeitiar, madrildar, oñatiar, otxandiar, palestinar, suediar, tolosar, zarauztar, zornotzar, zuberotar...

Baina pertsona izen propioek ere har dezakete *-(t)ar* pertsona horien, edo horien doktrinen jarraitzailea adierazteko, edo erlijio ordena jakin bateko kidea: *axulartar*, *chomskytar*, *frantziskotar*, *karmeldar*, *karlostar*, *luterotar*, *mahometar*, *sabindar*.

Herri edo etnia izenek har dezakete *-(t)ar* horietako bateko kidea adierazteko: *assamdar*, *bengalar*, *kareliar* edo *mordoviar*. Bai eta dinastia izenek ere: *akemenestar*, *artsazestar*, *makabear*, *mauryatar*, *orontestar*, *ptolomeotar* edo *seleukotar*. Oinarrian pertsona izen propioa dutenetatik oso gertu daude Erromatar edo Bizantziar Inperioetako dinastiak adierazten dituzten *antoninotar*, *flaviotar*, *julio-klaudiotar*, *justinianotar*, *komnenotar*, *teodosiotar*... Dinastia izenen oinarrian badira leku izen propioak ere, hala nola *hannovertarrak*, *hohenstaufendarrak*, *lancastertarrak* eta abar.

Deitura izenei ere gehitu zaie xx. mendeko testuetan: *Olaizolatar*, *Zapiraindar*... eta abar ere baditugu, deitura horretakoak osatzen duten familiakoa



adierazteko. Hemen sar ditzakegu *grimalditarrak* edo *bonapartetarrik* (dinastia horretakoak) ere. Izen arrunt bizigabeei ere erants dakieke *-(t)ar*: *atzeritar, baserritar, basotar, gautar, itsastar, kaletar, kanpotar, menditar, mundutar, zerutar...* (§ 14.2.3). Bestelako oinarriak dituzten adjektiboak ere sortu dira azken urteetan: *bitar, hamartar, kartesiar, nepertar* (Zabala 2013). Beraz, ‘jatorri adjektibo’ deitu arren, egiazko erabilera ez da jatorria adieraztera mugatzen (ikus Artiagoitia 2002a).

**5.3.1d** Modifikatzen duten izenari dagokionez, askotan pertsona adierako izenen ondoan aurkituko ditugu: *ondarrutar maisu, bertsolari herritar, emakume atzeritar* eta abar. Euskaltzaindiak zehaztu bezala, [-gizaki] motako izenekin ere erabiltzen ditugu gaur egun *-(t)ar* adjektiboak: *frantziar legeak, errusiar ikonoak, norvegiar baleontziak, irlandar folklorea...* Mota bateko zein besteko adibide gehiago eman ditugu beheraxeago § 5.3.1g.

Atzizki honen bidez sorturiko adjektiboak askotan substantibatu egiten ditugu; hau da, ezkerrean inolako izenik gabe ageri dira, beraiek bakarrik izen funtzioan (§ 14.2.3h), batez ere izen biziduna, gizakia, adierazten dutenean: *atzeritar, baserritar, eskuindar, frantziskotar, herritar, irlandar, kaletar, karmeldar...*

**5.3.1e** Adierari dagokionez, berriz, erreferentzia adjektibo hauek ez dagozkio nahitaez lekuari; “leku horretako kultura edo eragin-eremua, edo jatorriz leku horretakoa den hizkuntza ere izan daiteke erreferentzia” (ikus Euskaltzaindiaren 178. araua). Euskaltzaindiak ohartarazten du, ordea, behin baino gehiagotan beharrik gabe erabiltzen ditugula izen bizigabearen ondoren doazen *-(t)ar* adjektiboak, bereziki *auzo, herri, probintzia* gisako izenekin. Ez dago *\*auzo bilbotarra, \*probintzia espainiarra* edo *\*laranja valentziarrak* esan beharrik, nahikoa da *Bilboko auzoa, Espainiako probintzia* edo *Valentziako laranjak* esatea.

**5.3.1f** Goiko adibide horiek argi erakusten dute *-tar* atzizkiak erreferentzia adjektiboak sortzen dituela (§ 14.2.6), ez adjektibo kalifikatzaileak. Euskaraz erreferentzia adjektiboak sortzeko dugun atzizki bakarretakoa da. Erreferentzia adjektiboek ere modifikatzen duten izenaren ezaugarriren bat adierazten dute, baina horretarako kanpoko zerbaitekin (entitate edo eremu batekin) erla-

zionatzen dute izen hori (*egoera ekonomiko*) edo izenaren argumentu bat adierazten dute (*Txetxeniaren aurkako eraso errusiarra*). Lehen adibidean *ekonomia* izenari egiten zaio erreferentzia *egoera* izena modifikatzeko; bigarrean, *erasoa* nork egin duen adierazten du *errusiar* adjektiboak. Erreferentzia adjektibo ‘sailkatzaile’ esaten zaie lehen motakoei, ‘tematiko’ bigarrenei. Dena den erreferentzia adjektiboak bilaka daitezke kalifikatzaile ere: *jokabide hori oso eskoziarra da*.

Bereizkuntza hori gogoan izanik, bi motatako erreferentzia adjektiboak sortzen ditu *-tar* atzizkiak (Zabala 1997; Artiagoitia 2002a). Sailkatzaileak dira gehienak: *testu-liburu ingeles, almeja itsastar, mugimendu newtondar, zentral nuklear, hegazti gautar, alderdi eskuindar, neska ondarrutar...* Gutxi batzuek argumentu harremana dute modifikatzen duten izenarekin, tematikoak dira: *eraso errusiarra*. Zabalak (2013) dio argumentu harremanak ezin eman daitezkeela *-tar* adjektiboen bidez, salbu oinarrian leku izena dagoenean. Argumentu harremanzat hartzen du ‘jabego besterenezin’ deritzan osoa-zatia harremana (*zelula (-ren) mintza*), bai eta magnitude baten eta horrek neurtzen duen objektuaren artekoa ere (*itsasoaren sakonera*). Beraz, ‘izenlagun+izen’ egitura edo izen elkartua erabili behar genuke horrelakoetan, eta ez *-tar* adjektiboa: *Newtonen legeak* (\**lege newtondarrak*), *itsasoaren sakonera* (\**sakonera itsastarra*), *zelula-mintz* (\**mintz zelular*) edo *zelula-heriotza* (\**heriotza zelularra*)... Arrazoi du Zabalak, argumentu harremanak hitz elkarketaren bidez edo ‘izenlagun+izen’ egituraren bidez ematen baititugu euskaraz. Hala ere, aitortzen du gaurko corpusetan eta terminologia bankuetan aurki daitezkeela bere ustez zuzenak ez diren adibideak.

**5.3.1g** Sintagma barruko kokapenari dagokionez, adjektibo hauek izenaren eskuinean nahiz ezkerrean ezar daitezke (§ 14.2.3g, § 14.2.3i), baina oinarria izen propioa edo izen arrunta izateak badu zerikusia kokapenean. Izen berezia oinarri duen *-tar* adjektiboa modifikatzen duen izenaren ezkerrean zein eskuinean ager daiteke, *Ereduzko Prosa Gaur* corpuseko adibide hauek erakusten duten bezala: *irlandar bandera, irlandar basati, irlandar baso, irlandar diru, irlandar doinu, irlandar gerlari, irlandar pub, irlandar sendi, irlandar whisky / epaile irlandar, gerlari irlandar, ikastetxe irlandar, neska*

*irlandar, osaba irlandar*. Sarasolak (1997: 88) dioenez sarriago ageri da literatura tradizioan *irlandar gerlari* eredu, *gerlari irlandar* hurrenkera baino. Artiagoitiak (2002a: 443) dioenaren arabera, baina, badirudi aldaketa gertatu dela horretan “nire inguruko euskaldun ia guztiek bigarrena nahiago dute”. Dena dela, merezi luke gaurko corpusetako erabilerak xehekiago aztertzea bigarren moldea lehenari nagusitu zaion ikusteko. Izen arrunta oinarri duen *-tar* adjektiboa, oster, beti izenaren eskuinean ematen omen dugu, bai orain eta bai tradizioan ere (Odriozola eta Cantero 1992; Artiagoitia 2002a: 446): *midizina eskuar* (Axular), *jendaki barbaro eta basotarrak* (Etxeberri Sarakoa), *agintari menditar* (Agirre), *bide-lapur atzerritar* (Zaitegi), *irribarre zerutar* (Mirande), *retorika goitar* (Mitxelena), *teilatu zerutar* (Villasante). Halakoak dira *Ereduzko Prosa Gaur* edo *Egungo Testuen Corpusetako* adibideak ere: *ilargi gautar* (P. Zabala), *ibilaldi gautar, paseo gautar* (Borda), *autoritate goitar* (Olarra), *teknikari goitar* (Segurola), *landaredi goitar* (P. Zabala), *inspirazio zerutar* (X. Amuriza), *hierarkia zerutar* (Gorrotxategi), *txertaketa “basotar”* (Jakin). Azken urteetako adibideetan, dena den, aurkituko ditugu *zerutar meditazio*, *zerutar gorputz* edo *basotar katu* modukoek, gutxienak izan arren.

**5.3.1h** Modifikatzen duen izenaren eskuinean edo ezkerrean azaldu ahal izatea esplikatzen nahian, Artiagoitiak (2002a: 448, 455-459) dio izenaren eskuineko *-tar* horiek adjektiboak direla; horretan ez dagoela zalantzarik. Izenaren ezkerrean ageri zaizkigun *-tar* horiek, oster, ez lirateke adjektibo kategoriakoak izango, izen kategoriakoak baino. Beraz, *ondarrutar neska* [izen+izen] egiturako izen elkartua genuke eta berdin aurreko puntuan *irlandar* lehen osagai zutela eman ditugun adibideak. Proposamen erakargarria da, batetik, *\*ondarrutar Simon* modukoak zergatik ez diren gramatikalak (baina bai *Simon ondarrutarra*) esplikatuko lukeelako (izen bereziak ez dira izen elkartuko mugakizunak) eta, bestetik, corpusetatik atera ditugun ondorengo adibideok oso ondo koka ditzakegulako hitz elkartu mota batean edo bestean (dela mendekotasunezkoetan *atzerritar-multzo*, *irlandar talde*, *irlandar gudaroste*, dela atributu eta koordinazio egiturako elkartuetan). Artiagoitiaren proposamen honi indarra ematen dio, gainera, *atzerritar-multzo*, *irlandar talde* bikoteak. Izen balio argia du *atzerritar* osagaiak eta horren

pare-parekoa izango luke *irlandar* osagaiak ere. Nolanahi ere, Artiagoitiak (2002a: 459) berak dioen bezala, “datozen ikerketek emango digute argi gehiago”. Horregatik nahiago izan dugu, orain arte gramatikariek egin bezala, *-tar* atzizkiaren bidez sortutako eratorri guztiak adjektibo kategoriaren azpian eman.

**5.3.1i** Adjektiboak sortzen diren heinean, adjektiboei erants dakizkiekeen atzizkiak ager daitezke ondoren, bereziki *-tasun*: *donostiartasun, frantzisko-tartasun, kaletartu, kaletartasun...*

## **5.4. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (III). ‘Joera, izaera’ adierakoak (*-bera, -kari<sub>2</sub>, -kin<sub>2</sub>, -koi, -kor, -tiar/-liar, -ti*)**

### **5.4.1. Sarrera**

Sail honetako atzizkiek oro har oinarriak adierazten duenerako joera, erraztasuna edo zaletasuna adierazten duten heinean, izaera ere adierazten dutela esan dezakegu (agian horregatik eman zien Azkuek ‘derivados pasionales’ deitura).

### **5.4.2. *-bera***

*Bera* izenondo beregainetik, *beratu* aditzaren oinarri denetik, sortutako atzizkia dela onartzen dute euskal gramatikariek. Baina ondoren ikusiko ditugun adibideetan ‘bigun’ adiera galdu eta ‘joera, erraztasun’ adierako adjektiboak sortzen ditu, aditzoin kategoriako oinarria duela. Mota batekoak baino gehiagokoak izan daitezke aditzoinok: *da* motako inkoatiboak (*egosi, izerditu, hoztu, mindu*, § 23.2.2.2c); *du* motakoak, esperimentatzailerak eta gaia argumentu dituztenak (*ikus, sinetsi*, § 23.2.2.5e). Horrela sortuak ditugu *egarbera, egosbera, hozbera, ikusbera, izerbera, minbera, sinespera*, etab. *Ixabel izerbera zen* (Sagastizabal); *Gizaki egarberarentzat, putzua oasis bat da* (Linazasoro); *Ez naiz oso sinespera; oraintxe*

*bertan ere, dudak dauzkat* (K. Navarro); *Minbera neuzkan oinak oso* (J. A. Arrieta).

Adjektibo kategoriako eratorri hauek izan daitezke beste izen eratorri baten oinarri (*sinesberatasun*) zein aditz baten oinarri (*minberatu*).

### 5.4.3. *-kari*<sub>2</sub>

Iparraldeko testuetan ageri zaigu, batez ere, atzizki hau. Izen konkretuei erantsen zaie, bizidun zein bizigabeei, eta zaletasuna edo joera adierako adjektiboak sortzen ditu: *andrekari, bizikari, emaztekari, gibelkari, handikari, lagunkari, mutikokari, zurrupakari*... Ondoko adibideetan ikus dezakegu nola erabili diren adjektibo hauek testuetan: *Haien ideologia osoki gibelkaria* (Herria); *Izpirik ez zen ohore gosea, ez handikaria* (Hiriart-Urruti); *Ez dinat mutikokari fama bildu nahi* (Herria); *Tartean gu geu, bitartekari zurrupakariaren kafea erosten dugunean* (Goienkaria).

### 5.4.4. *-kin*<sub>2</sub>

Aurreko bi atzizkien pareko dugu hau ere, nahiz emankortasun urrikoa izan. Iparraldeko testuetan adibide gutxi batzuk besterik ez dugu aurkituko: *haurkin, jendekin, lagunkin. Haurkina zen, goxoa* (Garate); *Jendekina eta omore onekoa baitzen, anitz lagun bazituen* (Herria).

### 5.4.5. *-koi (-oi)*

Bi aldaera horien artean, Azkuek *-oi* ematen du lematzat; Villasantek *-koi*, adjektibo berriak sortzeko aspalditik herskaridun forma osoa, *-koi* erabiltzen baita. Azken batean herskaridun aldaerak nagusitu dira euskaraz historian zehar (*-asun/-tasun, -egil/-tegi, -oi/-koi, -or/-kor, etab*).

Oinarria izen konkretua izan ohi da, biziduna zein bizigabea, eta izen horrek adierazten duen objektu zein bizidun horretarako (horrenganako) joera, zale-tasuna adierazten du adjektiboak: *aberkoi, amakoi, ardankoi, emakoi, elizkoi, etxekoi, gizakoi, haragikoi, herrikoi, lurkoi, ohekoi, sabelkoi, sukoi, zintzurkoi*. Ikus ditzagun adibide batzuk: *Arimaren ilunpea, gogo-nahastea, gai purtzil eta lurkoietarako lera* (P. Altuna); *Osaba Kamil ez zuten jatun aseezintzat, nahiz eta gozokietarako sabelkoia izan* (Zubizarreta); *Almadiaren inguruko gai sukoi hura* (K. Zabala). Adibideek erakusten digute adjektibo eratorri hauek izen bizidunez zein bizigabeez predika daitezkeela. Izen balioan ere ageri zaigu horietako adjektiboren bat: *Errepublikak ez zuela etxekoi nostalgiko horien beharrik errepikatzen nuen* (Borda).

-ra postposizio atzizkiaren ondoren ere ager daiteke, *aurrerakoi, atzerakoi, barnerakoi, eskurakoi, kanporakoi*. *Aita maisua zuen, bera bezala, maisu aurrerakoia, errepublikazalea* (Igerabide); *Aho-sabaiko gustuak, barnerakoi kokatuko zaitu, eta hatz-mutturretako ukittuak gozamen zabalaren alderdi lokartuak iratzarriko dizkizu* (P. Zabala). Kasu horietan aditzoin kategoriako oinarria dugula pentsa genezake, eratorpenean eta hitz elkarketan, oro har, kategoria lexikoak izaten baitira osagaiak, eta ez postposizio sintagmak. Badi-tugu, azkenik, *berekoi, geurekoi, heurekoi, nirekoi/neurekoi, zeurekoi* pertsona izenordainari dagokion izenlaguna oinarri dutenak. *Oilo busti alaena, kolabo, heurekoi, herria hilduran eta hi potrojorran* (Zapiain); *Izan ere, gizakiak berekoi, diruzale, harro eta handiputz izango dira* (Elizen arteko Biblia).

Atzizki honen bidez sorturiko adjektiboak izan daitezke,aldi berean, izen baten oinarri (*nirekoikeria, sabelkoikeria, herrikoitasun*) edo aditz baten oinarri (*herrikoitu*).

#### **5.4.6. -kor (-or)**

**5.4.6a** Lemari dagokionez, beste hainbatetan bezala, herskaridun alomorfoa nagusitu zaio herskarigabeari.

Aditzoin kategoriako oinarriek hartzen dute atzizki hau; beraz, zer motatako aditzoinak diren, nolako argumentu egitura duten aztertu beharko dugu. Ikus dezagun, ordea, lehenik, nolako eratorriak sortzen ditugun *-kor* atzizkiaren bidez:

ahazkor, aldakor, apurkor, barkakor, betakor, baikor<sup>1</sup>, damukor, emankor, errukior, ezkor, galkor, geldikor, haserrekor, higikor, hilkor, ikarakor, iragankor, iraunkor, irriskor, itsaskor, jasangor, jauskor, kutsakor, lotsakor, oldarkor, sarkor, sentikor, sineskor, suminkor, ugalkor, ulerkor, urrakor, ustelkor...

**5.4.6b** Adjektibo horien oinarrian ditugun aditzoinetako asko *da/du* motakoak dira, hau da, inkoatibo/kausatibo (arazlea) alternantzia dutenak laguntzailearen arabera (*sumindu da / sumindu du* § 23.2.2.2c). Horrelako oinarriak ditugunean, *da* balioa, argumentu bakarrekoa, inkoatiboa, *da -kor* hartzen duena. Argumentu bakar hori “lotzen” du atzizkiak eta adjektiboaren argumentua (§ 4.1.2b), ezkerreko izena, ere argumentu horri dagokio: *gizon suminkorra* edo *pertsona haserrekorra* diogunean, *gizona* edo *pertsona* erraz sumintzen eta haserretzen direla esan nahi dugu. Hau da, *sumindu* eta *haserretu* aditz inkoatiboen barne argumentu dira *gizon* eta *pertsona*. Mota horretakoak dira aditz gehienak, *aldatu*, *apurtu*, *bete*, *damutu*, *errukitu*, *galdu*, *gelditu*, *haserretu*, *higitu*, *hil*, *ikaratu*, *itsatsi*, *kutsatu*, *lotsatu*, *sartu*, *ugaltu*, *urratu* edo *usteldu*. Ondorengo adibideetan ikusiko dugu aditzaren barne argumentuari dagokion izenez predikatzen direla *-kor* adjektiboak: *Ekosistema apurkor horien garrantzia ulertzeko aukera izan eta gero, autorako buelta egitea besterik ez dugu (Argia)*; *Astronomoek 30.000 izar aldakor dituzte katalogatuta; horiez gain beste milaka batzuk ere aldakorrak diren susmoa dute (Egunkaria)*; *Denbora joanak eta egun infinituek jadanik ahitua behar baitzuten gorputz hilkorra daukan dena (X. Amuriza)*; *Hooliganen entusiasmoa kutsakorra suertatzen zen orain (Atxaga)*; *Beharrezko estalkia, baina urrakorra eta gauzaren salneurria gutxitu beharrean handitzen duena (Elexpuru)*; *Debagoienez zabor poltsetan iaz, jaso ziren 18.000 toneta-*

---

<sup>1</sup> Berez ez dago aditzoinik *baikor* eta *ezkor* adjektiboetan, baina, adiera kontuan hartuz (“gauzen alderik onena ikusteko edo hartzeko joera duena”) hauetan ere badago aditz balioa oinarrian.

*tik, 7.500 tona materia organiko ustelkorra zen (Goienkaria). Aurreraxeago ikusiko dugu aditz horietako du balioa, kausatiboa edo arazlea, dela -garri atzizkiak oinarri hartzen duena (§ 5.5.2).*

**5.4.6c** Beste batzuetan *du* motako aditza izango dugu oinarrian, baina argumentu bakarrekoa, hau da, intrantsitibo ergatiboduna (*iraun* § 23.2.2.4); argumentu bakar hori ez da ‘agentea’, ‘gaia’ baino. Argumentu hori lotzen du atzizkiak eta argumentu horri dagokio ezkerreko izena; bi argumentukoa denean, ‘esperimentatzailea’ da kanpo argumentua (*barkatu, sentitu, sinetsi*), *-kor* atzizkiak lotzen duena eta horixe da adjektiboaren ezkerreko izenak adierazten duena: [*Tigranozerta*] *kiskaltzen bazuen, etsaia gehiago beldurtuko zen, eta errukitzen bazen, barkakor-fama hartuko zuen* (X. Amuriza); *Apaiz zahar sineskor bat zen* (J. Zabaleta); *Liburu honetako heroiak sentikorrak dira, eta nobela osoa malkoz josia dago* (Jon Muñoz).

*-kor* adjektiboak izan daitezke,aldi berean, izenen edo aditzen oinarri: *aldakortasun, baikorkeria, iraunkortasun, itsaskortasun, sentikortu...*

### 5.4.7. *-tiar/-liar*

**5.4.7a** Aldaerei dagokienez, Azkuek morfema beraren bi alomorfotzat hartzen ditu; *-tiar* hedatuago litzateke, goi nafarreraz ere erabiltzen da eta. *-liar*, Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdikoa omen da. Lafittek *-tiar* baino ez du aipatzen. Bestalde, gorago aipatu dugu *-(t)ar* atzizkiarekin sortzen den gurutzamendua (§ 5.3).

**5.4.7b** Izen kategoriako oinarriei eransten zaie: *baketiar, elizatiar, erregetiar, etxetiar, goiztiar, jainkotiar, lurtiar, zerutiar*; *-(t)ar* atzizkia aztertzean esan bezala, ez da harrigarria atzizki bata (*-tiar*) zein bestea (*-(t)ar*) daramaten eratorriak aurkitzea oinarria izen arrunta denean: *eliztar/elizatiar, goiztar/goiztiar, ihestiar, jainkotar/jainkotiar, lurtar/lurtiar, zerutar/zerutiar...* Aldekoa, zalea, jarraitzailea, adierazten dute adjektibo hauek, adibideetan ikus dezakegun moduan: *Bakea nahi delarik, baketiar guziek baikorki hartu behar lituzkete bakearen aldeko urrats guziak, non nahitik jin diten (Herria); “Xuriak”*



*erregetiarrak ziren eta apezan sostengu osoa bazeukaten (Landart); Oinezko goiztiar baten oin-hots bakana (Olarra); Gertakari baliagarriak eta kaltegarriak berdin erortzen direla, bereizkuntzarik gabe, jainkotiarren eta jainkoga-been gainera (Xarriton); Bilduren ditu Israelgo ihestiarrak (Barbier)... Azpimultzo berezia egin dezakegu 'otordua' adierazten duten izenekin, otordu horretara gonbidatuak, otordu horretako partaideak adierazten baititu: *afaltiar, bazkaltiar, ezteiliar/ezteitiar, gosaltiar*. Hara jiratu zuten *afaltiarrek burua* (Lertxundi); *Bazkaltiarren artean Mateoren lehengusu bat zegoen* (Iri-goien); *Bi gosaltiarren aulkien artean, agiriz betetako eskumaleta marroi bat zegoen ongi zaindurik* (A. Arana). Adibideetan ikus dezakegunez, askotan izen balioan erabiltzen dira *-tiar* atzizkiaz sorturiko adjektiboak.*

**5.4.7c** Kasu gutxi batzuetan aditzoin kategoriako oinarria dugu (*egoiliar, garaitiar, ikusliar*); halakoetan zaila da adiera ikustea, bai baitirudi *-le* atzizkiarekin ez duela desberdintasun handiegirik batzuetan behintzat: *garaitiar / garaile*. Horrenbestez, sortzen den lexema izena ala adjektiboa den ere eztabaidatu beharko litzateke; adibideak ikusita, izenen distribuzioa dute atzizki hauen bidez sorturiko hitzek: *Etxe hunek badauzkake egoiliarrak* (J. Etxepare); *Zeren garaituek ordinariozki garaitiarren hizkuntza [...] onhesten baitute* (Etxeberri Sarakoa); *Ikusliarrik ez da haizu sartzera* (J. Etxepare). Edo predikatu sintagmak osatzen dituzte (*-le* atzizkiaren sorturiko hitzek bezala): *garaitiar atera, garaitiar gelditu*.

Izenondoari erants dakizkiokkeen atzizkiak aurkitu ditzakegu ondoren: *erregetiartasun, erregetiartu, etxetiartasun, etxetiartu, goiztiartasun, goiztiartu*.

#### 5.4.8. *-ti*

Izen bizigabeek, abstraktutzat jo ditzakegunek, hartzen dute *-ti*: *ahalketi, bakar-ti, baketi, basati, bekaizti, egiati, gerlati, gezurti, izuti, justiziati, kezkati, liskarti, loti, lotsati, maliziati, negarti, setati...* Sortzen den adjektiboa gehienetan izen bizidunez (askotan pertsona adierazten dutenez) predikatzen da, ondoko adibideek erakusten dutenez: *Anarik atmosfera bakartia eta malenkoniatsua sortzen daki* (Goienkaria); *Zeren are miserikordiosago da Iainkoa, iustiziati baiño*

(Axular); *Ni lotsatia nintzen neskekin* (Navarro); *Gizon gaitzak eta ondiko<sup>z</sup>koak, gerlatiak eta maliziatiak, okasinotsuak eta inkontru gaixtokoak* (Irigoien); *Ume negarti baten esnelapiko huts sentiarazten nautenean* (Iturbe).

Batzuetan *-ti/-tsu* bikoteak aurkituko ditugu: *baketi/baketsu, maliziat/maliziatsu, liskarti/liskartsu...*

## 5.5. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (IV). 'Gaitasuna' adierakoak (*-garri, -kizun<sub>2</sub>*)

### 5.5.1. Sarrera

Aditzoin kategoriako oinarriak hartzen dituzte azpiatal honetan aztertuko ditugun atzizkiek. Beraz, orain arte egin bezala, aztertuko dugu aditzoinak zein motatakoak diren, zein argumentu egitura duten, atzizkiak zein argumentu lotzen duen eta, adjektiboaren argumentua, izena, ere zein argumenturi dagokion. Hauek izan dira, gainera, azken urteetan gehientsuen aztertu diren atzizkiak (Artiagoitia 1995, 2003; Azkarate 1990a; Azkarate & Gràcia 1995; Gràcia *et al.* 2000).

### 5.5.2. *-garri*

**5.5.2a** Atzizki izen sortzaileen artean ere aztertu dugu *-garri* (§ 4.4.2.2). Han esan bezala, *-karri* alomorfoa ager daiteke herskariaren ondoren (*gogaikarri*), bai eta txistukariaren ondoren ere, nahiz ez den nahitaezkoa azken ingurune fonetiko honetan (*miresgarri*).

**5.5.2b** Bi balio eman dizkiote euskal gramatikariek *-garri* adjektibo-sortzaileari; balio aktiboa bata, balio pasiboa bestea (ikus, esaterako, Azkue edo Villasante). Ikus dezagun zeri deitu dioten gramatikariek balio aktibo eta zeri balio pasibo, zer ezaugarri dituen bata eta zein besteak. Balio aktiboari, balio arazle edo kausatibo ere deitu diote gramatikariek; balio honetakoak dira ondorengo adjektiboak:

adierazgarri, aringarri, aspergarri, astungarri, aztoragarri, babesgarri, barrekarri, behaztopagarri, bereizgarri, desohoragarri, dibertigarri, edergarri, erabakigarri, erakusgarri, errukarri, estalgarri, freskagarri, galgarri, gazigarri, gogaikarri, harrigarri, higuingarri, hilgarri, hunkigarri, ikaragarri, interesgarri, iraingarri, isolagarri, itogarri, itsugarri, izugarri, kaltegarri, kontsolagarri, kutsagarri, labaingarri, lagungarri, laidogarri, leungarri, lotsagarri, mehatxagarri, mingarri, nazkagarri, negargarri, nekagarri, oroigarri, osagarri, penagarri, pizgarri, pozgarri, sendagarri, sendogarri, sumingarri, tamalgarri, tentagarri, txikigarri, zirrargarri, zoragarri, zulagarri...

**5.5.2c** Bi motatako aditzak aurkituko ditugu goiko adjektibo horien oinarri. Batetik, *da/du* motakoak, inkoatibo/kausatibo (arazle) motakoak (§ 23.2.2.2c, § 23.2.2.2f). Halakoak dira *aspertu*, *aztoratu*, *dibertitu*, *galdu*, *gogaitu*, *gozatu*, *harritu*, *higuindu*, *hil*, *hunkitu*, *ikaratu*, *itsutu*, *izutu*, *kontsolatu*, *lotsatu*, *nekatu*, *poztu*, *sendatu*, *sumindu* eta abar. *Du* motako aditza da kasu horretan *-garri* atzizkiak oinarri hartzen duena, balio arazle edo kausatiboa duena, alegia. Aditzaren argumentuetatik, kanpoko da atzizkiak lotzen duena, bere gain hartzen duena.

Beste aditz batzuk *du* (*dio*) motakoak dira: *erabaki*, *erakarri*, *iraindu*, *lagundu*, *tentatu*, *zulatu*. Hauetan ere kanpo argumentua lotzen du *-garrik*.

Beraz, *du* motako aditza izango du beti oinarri *-garri* atzizkiak. Bi sail nagusitan biltzen ditu Artiagoitiak (2003) *-garriren* oinarri diren aditzak: *kezkatu* motako aditz psikologikoak, batetik, eta aditz trantsitiboak, bestetik. *Kezkatu* motako aditz psikologikoetan ‘gaia’ edo ‘estimulua’ argumentuak ergatiboa hartzen du eta ‘esperimentatzailea’k, absolutiboa (*berriak sumindu nau*); ‘estimulua’ da, beraz, *-garri* atzizkiak xurgatzen duena eta *-garri* adjektiboaren ezkerreko izenarekin bat datorrena, adibideetan ikusi ahal izan dugun bezala. Aditz trantsitiboei dagokienez, sintagma ergatiboaren bidez adierazten den argumentua ezin da ‘agentea’ izan. Tresna edo instrumentua adierazten du askotan sintagma ergatiboak (Artiagoitia 2003: 158). Guztiz bat dator irakurketa hau izen kategoriako *-garri* eratorrien esanahia kontuan hartzen badugu (§ 4.4.2.2).

Ondoko adibideetan, adjektiboaren ezkerreko izenaren eta adjektiboaren oinarri den aditzaren arteko harremanari erreparatuz, argi dago nola ulertu behar

dugun harreman hori: zangoek erakarri egiten dute (norbait), begiradak tentatu egiten dute (norbait), aurkikuntzak nahiz faktoreak (aurkikuntza horren bidez, faktore horren bidez) erabaki egiten da, azterketak nekatu (nekarazi) egiten du norbait, giroak negar eragiten dio norbaiti, eta abar, eta abar. *Rosekiko jakin-minak, baina, ez zion galarazi zango erakargarriak edota begirada tentagarriak estimatzeko aukera* (Larrañaga); *1970ko hasieran, aurkikuntza erabakigarria egin zuen* (Olarra); *Programa horren faktore erabakigarrietako bat zera izan da, gobernuko zein gobernuz kanpoko eragileen [...] arteko eztabaida, garapen iraunkorrari buruzkoa, instituzionalizatu izana* (I. Eizagurre eta A. Lizarralde); *Dakienak daki —eta ez dakienak ez dakike azterketa nekagarrien buruan baizik— nolako giro negargarria genuen nagusi zenbait “Euskaltzaleen biltzar” zirelakotan* (Mitxelena); *Une saminak eta une pozgarriak, betiere bizi-indarrez eta itxaropenez gainezka, borborka* (Igerabide); *Neuri ere kezkarri iruditzen zaizkit euskararen kontrako kanpoko eraso horiek* (Joxerra Garzia); *Letraren bidez manifestatzen zaion mundu liluragarri eta exotikoa* (Lertxundi); *Bizitza mingarria baita, baina ez dago ihesbiderik* (Zapiain); *Begi bistakoa zen [...] ez zela gertaera dibertigarria* (Saizarbitoria); *Lehendik ere bazekiena esan zion gero, tratamendu gozagarria, ezez ez sendagarria, hilabete luzeetan senarraren burmuinean oihartzuna izango zuen egia mingarri hura* (Zurutuza).

**5.5.2d** Atzizkiak kanpo argumentua, subjektu ergatiboari dagokiona xurgatu arren, barne argumentua ere ager daiteke adjektiboaren inguruan, dela *-en* izenlagun gisa, dela hitz elkartuko lehen osagarri gisa (hau da, *-garri* izen sortzailean ikusi dugun jokabide bera). Ikus ditzagun zenbait adibide: a) *Nire belarrien pozgarri baita haien dardara* (J. Zabaleta); *Etxearen lotsagarria zara!* (Zubizarreta); *Bere kalitateeri esker, ikusliarrentzat da abusamendu aberatsgarri, gogoen altxagarri, eta... diru biltzeko molde* (Larzabal); *Hori egizu neretzat ere, zure Gorputza giristinoen altxagarritzat sakramendu hortan utzi daukuzunaz geroz* (Leon); *Desiratu z Jainkoak bete dezala bere aintza eta goralmena bere esku utzitako jendeen ongarri eta kontsolagarri* (J. M. Lekuona). b) *Baina horren orde z, bihotz hunkigarri izanen zuelakoan, poema japoniar bat errezitatu nion* (Linazasoro); *Gutziz gogo-mingarri zaidak atze-*

*matea nola morrosko ileordedun nabarmen batek jo eta txiki-txiki egina uzten duen pasarte zirrargarri bat, belarriak zartatuz beheko mailakoei (Juan Garzia); Ordubetez egon ziran mendi-galurrean ikusgai biotz-erdiragarriari begira erdi-toteldurik, eta, bein begiak naiko ase ziranean, eguerdiburuan, aldapa beera asi ziran (Barrenso).*

Adibide horietan guztietan ere atzeman dezakegu balio arazlea, kausatiboa; aditz psikologikoetan, estimulua da arazlea, eta bestelako aditz trantsitiboetan, instrumentua. Horretaz gain, *-en* izenlagunaren bidez ageri da barne argumentua a) multzoko adibideetan; eta hitz elkartu sintetiko baten bidez b) multzokoetan (§ 8.2.3): belarriak poztea, etxea lotsatzea, gogoa altxatzea, gogoa mintzea, bihotza hunkitzea... eragiten dute adibide horietan dardarak, zure Gorputzak, poema japoniarrak, (zerbait) atzematetik, (mendi gailurreko) ikusgaiak eta abarrek.

**5.5.2e** Oinarri den aditzaren nolakotasuna eta atzizkiak lotzen duen argumentua aztertzean argi ikusten da *-kor* (§ 5.4.6) eta *-garri* atzizkien arteko desberdintasuna (zehazkiago esanda, *-kor* eta *-garri* aktibo edo arazlearen artekoa). Biak eransten zaizkie *da/du* motako aditzei; lehena, ordea, *da* baliokoari, inkoatiboari eta bigarrena *du* motakoari, arazleari. Ez da, beraz, harritzekoa, horrelako bikoteak aurkitzea: *gizaki hilkorra* (gizakia hil egiten da) / *pestizida hilgarria* (pestizidak hil egiten du), *ume lotsakorra* (umea erraz lotsatzen da) / *gertaera lotsagarria* (gertaerak lotsarazi egiten gaitu), *pertsona haserrekorra* (pertsona erraz haserretzen da) / *zoroa da bere aita-ren haserregarri* (Duvoisin), *bihotz pozkorra* (bihotza erraz pozten da) / *berri pozgarria*.

**5.5.2f** Bada, ordea, *-garri* atzizkiaren beste erabilera bat, goraxeago esan bezala, balio pasibo deitu zaiona. Balio honetakok dira ondorengo eratorriak:

aipagarri, azpimarragarri, barkagarri, beneragarri, defendagarri, desiragarri, diskutigarri, edifikagarri, egingarri, entzungarri, eramangarri, esangarri, eztabaidagarri, fidagarri, gogoragarri, irakurgarri, jakingarri, kontagarri, laudagarri, maitagarri, miragarri, miresgarri, ulergarri, urrikgarri, zenbakarri

Oinarri diren aditzak *du* motakoak dira guztiak. Artiagoitiak (2003: 157-158) hiru multzotan biltzen ditu: aditz trantsitiboak (*aipatu, agurtu, aztertu, begiratu, edan, egin, erabili, entzun, eskuratu, eztabaidatu, garbitu, gomendatu, irakurri, jan, kontatu, laudatu...*), *gorrotatu* motako aditz psikologikoak, esperimentatzailea subjektu ergatibo dutenak (*adoratu, arbuaitu, deitoratu, desiratu, eraman* ‘jasan’, *erdeinatu, estimatu, gaitzetsi, gorrotatu, jasan, maitatu, miretsi, pairatu*) eta *da* motako aditz psikologikoak (*baliatu, errukitu, fidatu, ohartu, urrikaldu* § 23.2.2.5f); azken hauek ere bi argumentu dituzte, baina barne argumentua, gaia, postposizio sintagma baten bidez gauzatzen da (*ez naiz zutaz fidatzen*). Argumentuek hartzen dituzten rol tematikoak, berriz, ‘egilea/gaia’ zein ‘esperimentatzailea/jasailea-gaia’ izan ohi dira. Nolanahi ere, balio pasiboko *-garri* atzizkiak barne argumentua lotzen du, ‘jasailea’ edo ‘gaia’ (objektua). Atzizkiak gehitzen duen esanahiari dagokionez, bi adiera har ditzake adjektibo eratorriak ‘x izatea merezi duena’, diakronikoki zaharrena, (*ikusgarri, jakingarri, maitagarri, miresgarri...*) eta ‘x daitekeena’, berriagoa, gaur egun gailentzen ari dena. Halakoetan izenondoaren ezkerreko izenak aditzoinaren objektua, barne argumentua biltzen du. Ondoko adibideak ditugu horren erakusgarri: *Lagunaren eleketa firfira jasangarri baten gisara egokitzen zen ene belarrietara* (Epaltza); *Itzulpen ‘literala’ egitea baino areago, testu irakurgarriak idaztea izan dugu helburu* (J. A. Mujika); *Hitz ulergarriak ez badituzue adierazten, nola jakin zer ari zareten esaten?* (*Elizen arteko Biblia*); *Toki-administrazioak, gutxienez, orube baten edo partzela eraikigarri baten jabetza betea eskuratzen ez duenean* (*Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea*, Eusko Legebiltzarra); *Handik pixka batera, abarrots askorik gabe, korroka-hots xume baina entzungarri batez, sumendiaren ahoak gizon bat bota zuen kanpora* (Juaristi). Adibide horietan, *firfira, testu, hitz* edo *korroka-hots*, hurrenez hurren, *jasan, irakurri, ulertu* edo *entzun* aditzen sintagma absolutiboei dagozkiela esan dezakegu, *zer jasan, irakurri, ulertu* edo *entzun*.

**5.5.2g** Balio pasiboa duen *-garri* eta *-kor* ere aurki ditzakegu bikoteak osatuz, nahiz oso ugariak ez izan (adibide gutxi dira *du* motako aditza oinarri duten *-kor* adjektiboak). Kasu horietan, *du* motako aditzak dituzte biek oinarri,

-*garr*ik barne argumentua, objektua lotzen du, eta -*korek*, berriz, kanpo argumentua, ‘esperimentatzailea’ paper tematikoa hartzen duena. Horrelako bikoteak ditugu *sineskor* (erraz sinesten duena) / *sinesgarri* (sinestekoa, sinesteko modukoa); *irakasle ulerkor* (ulertzeko joera duen irakaslea) / *testu ulergarri* (uler daitekeen testua, ulertzeko modukoa).

**5.5.2h** Literatura tradizioan balio nagusia lehena izan den arren, balio aktiboa (ikus Salaberry 1856; Arrigarai 1919; Azkue 1923-1925; Villasante 1974; Azkarate 1990a; Artiagoitia 1995, 2003), indar handia hartu du azken urteetan bigarrenak, ‘x daitekeena’ edo balio pasiboak, berau hartu baitugu erdal -*bledun* izenondoak itzultzeko. Joera hau, bestalde, Urteren eta Larramendiren hiztegi-tan ere (1715 eta 1745, hurrenez hurren) atzeman daiteke.

Adjektiboak oinarri hartzen dituzten atzizkiak aurki ditzakegu -*garr*iren ondoren: *erakargarritasun*, *harrigarritasun*, *izugarrikeria*...

### 5.5.3. -*kizun*<sub>2</sub>

**5.5.3a** Atzizki izen-sortzaileen artean ere aztertu dugu -*kizun*<sub>1</sub> (ikus § 4.4.3.5). Funtsean atzizki bera dela esan daitekeen arren, ondoren ikusiko ditugun adibideek ez dute izen baliorik. Baina ez dute adjektibo erabilera beterik ere; ez dira izen baten ezkerrean azaltzen, predikatu sintagma osatzen dute. Ez dugu, esaterako, *bekatu barkakizunak* esaten, baizik *barkakizun zai-zikizun bekatu horiek*. Oinarri diren aditzak mota batekoak baino gehiagokoak izan daitezke: *da* motakoak (*etorri*, *urrikaldu*), *du* motakoak (*barkatu*, *egin*, *eman*, *erremediatu*, *ikusi*), nahiz *da/du* motakoak (*hil*, *sendatu*).

**5.5.3b** Atzizki izen-sortzaileetako -*kizun*<sub>1</sub>-ek bezala, adjektibo-sortzaileak ere aditzaren barne argumentua lotzen du. Horrek esan nahi du bi argumentuko aditzetan, *du* motakoetan, ‘gaia’ argumentua lotzen duela. *Barkakizun*, *eginkizun*, *emankizun*, *erremediakizun*, *ikuskizun*, dagokien aditzen objektuei dagozkie. Adierari dagokionez, *egin* daitekeen, gerta daitekeen zerbait adierazten du eratorriak; beraz, goraxeago aztertu dugun -*garri* atzizkiaren balio-kidetzat har dezakegu, ‘balio pasiboa’ duen -*garri* atzizkiarena, alegia. Hauek

dira *-kizun*<sub>2</sub> atzizkiak sorturiko eratorri zenbait: *barkakizun*, *eginkizun*, *emankizun*, *erremediakizun*, *etorkizun*, *gertakizun*, *hilkizun*, *ikuskiizun*, *sendakizun*, *urrikalkizun*... Hauetako askok (*eginkizun*, *emankizun*, *etorkizun*, *ikuskiizun*, *jasankizun*) izen balioa ere badute. Eta, hasieran esan bezala, adjektibo hauek ez ditugu izen sintagmaren barruan, izenaren eskuinean kokatzen; hala erakusten digute ondoko adibideek: *Hala ostinatuaren*, *gogortuaren*, *itsutuaren*, *eta ezansiatuaren bekhatua*, *eta eritasuna ere hain da handia*, *non berenez ezpaita sendakizun*, *eta ez barkhakizun* (Axular); *Zeren ez baitiotegu ikhuskiizun diren gauzei begiratzin*, *bainan-bai ikhuskiizun ez direnei* (Duvoisin); *Etorkizun zeuden trabaju gogorren berri osoa eman da Santuak esan zion* (Kardaberaz); *Emanak*, *emateko baleude gaur*, *emankizun geldituko lirake*, *bai segurki*, *nere aldetik behintzat* (Mendiburu); *Eta oxala gathibutzat salduak bagindedi!* *jasankizun lizate zorigaitza* (Duvoisin).

## 5.6. Eratorpena. Atzizki adjektibo-sortzaileak (V). 'Jabegoa' adierakoak (-*dun*, -*ko*<sub>3</sub>)

### 5.6.1. Sarrera

Oinarriari eransten dioten adieraz gain, badute beste berezitasun bat ondoren aztertuko ditugun bi atzizkiek: biek har ditzakete sintagma egiturako oinarriak. Oro har, eratorpenean (eta hitz elkarketan ere) kategoria lexikoak izaten dira oinarri eta kategoria lexikoak sortzen dira. Berehala ikusiko dugunez, ordea, salbuespen dira *-dun* eta *-ko*<sub>3</sub>; ziurrenik, lehena erlatibo laburtua baino ez delako eta, beraz, aditzen osagarri zuzenak izan ditzaketen egitura berak har ditzakeelako. *-ko* atzizkiaren kasuan, berriz, hau ere berez flexioaren alorrekoa delako; beheraxeago ikusiko dugu zergatik esaten dugun hemen aztertuko dugun *-ko*<sub>3</sub> hau adjektibo-sortzailea dela, hau da, eratorpenaren eremukoa.

Oinarriaren kategoriak markatzen du, hein batean, bien arteko banaketa: izen kategoriako oinarriek, oro har, *-dun* hartzen dute (oso urriak dira izena oinarri duten *-ko*<sub>3</sub> eratorriak). Zenbatzaile sintagmek, oro har, *-ko*<sub>3</sub> hartzen dute. Izen sintagma edo adjektibo sintagma (*bihotz on*) kategoriako oinarriek, berriz,



atzizki bata zein bestea onartzen dute. Adierari dagokionez, biek adierazten dute jabegoa, eutea (posesioa), eta posesioaren nolakotasunean dago, hain zuzen ere, aztergai ditugun bi atzizkien arteko desberdintasuna zenbait gramatikariren iritziz, nahiz *-koren* kasuan adiera zabalagoa izan, berehala ikusiko dugunez (*epe luzeko inbertsiogile*).

### 5.6.2. *-dun (-tun)*<sup>2</sup>

**5.6.2a** Txistukariaren ondotik ager daiteke *-tun*, batez ere mendebaldean (*bihoztun*); edo aditz izeneko (*ikaste, joste*) azken bokala erori ondorengo herskariaren atzetik (*ikastun, jostun...*).

Adjektiboaren kapituluan esan dugunez (§ 14.2.3), *-dun* atzizkiaz eratorririko hitz horiek perpaus erlatiboetan dute oinarria: *dirua duen neska* perpausa izanik oinarrian ez da hortik zail pentsatzea perpaus horrek *dirudun neska* eman dezakeela. Horrek azalduko luke nola geratu diren *-dun* hitz horiek gramatikaren izenaren ezkerrean, perpaus erlatiboak arruntean ezkerrean ematen ditugunez. Baina, aldi berean, egia da *-dun* hitz horiek eskuinean ere ager daitezkeela. Aldaketa gertatu da horretan, literatura tradizioan askoz maizago ageri da *-dun* adjektiboa izenaren ezkerrean; gaurko idazleen erabilerari erreparatuz, nagusituz doa *-dun* adjektiboa eskuinean ematea (§ 14.2.3e).

**5.6.2b** Emankortasunari dagokionez, ez dira horrenbeste atzizki honen bidez sorturiko adjektiboak, kontrakoa ematen badu ere. Gaurko euskaran, *-dun* hitz horien artean, maizen ageri dena *euskaldun* da, eta ondotik datoz, erabilerari

---

<sup>2</sup> *Hitz-Elkarketa*/3 liburuan Euskaltzaindiak (1991) hitz elkartutzat hartu zituen *dirudun*, *bizardun* edo *alkandora gorridun* eta elkartu sintetikoaren artean sailkatu, *dirudun pertsona* edo *bizardun mutila* sintagmetan objektu-aditz-subjektu erlazioa antzeman daitekeelako, *liburu-saltzaile* edo *kale-garbitzaile* izen elkartuetan bezalaxe. Baina *-dun* ez da morfema beregaina eta horregatik egokiago iritzi diogu eratorpenean aztertzeari, Azkuek, Villasantek edo Lafittek egin bezala.

dagokionez, *ugaztun*, *arduradun*, *zaldun*, *txapeldun*, *haurdun*, *errudun*, *eledun*, *ahaldun*, *bizidun* eta *fededun*.

Emankortasunean badu zerikusia izen balioan erabiltzeak. *Euskaldun*, *ugaztun*, *errudun*, *txapeldun*... corpusetan maiztasun handia duten eratorriak dira; horiek guztiek (eta beste batzuek ere) izen balioa hartzen dute sarri (baina, bestalde, izen balioan ageri den *zergadunek* oso agerraldi gutxi ditu). Halako baliorik ez dutenak bakanago ageri dira: *Buruan loredun kapela* (Lopez de Arana); *Blusa loreduna* (Navarro); *Bitxi-loredun kapelak* (Larrañaga); *Gona laburreko trajea zeraman eta takoidun zapatak* (Joxean Agirre); *Galtzerdi koloredunak* (Saizarbitoria); *Jende koloreduna* (Oñederra); *Top beltza eta antezko takoidun botak daramatzen prostitua batek sua eskatu dizu* (Gonzalez); *Atorra loreduna jantzirik* (Epaltza); *Koadrodun gona itsusi bat zeraman* (N. Zubillaga); *Koadrodun alkandorarekin ibiltzen zen* (Atxaga). Dena den, *betaurrekodun*, *bibotedun*, *esperientziadun*, *koloredun*, *loredun*, *marradun*, *takoidun*, *tirantedun* edo *txanodun* adjektiboek ehunetik gora (batzuetan ondotox gora) agerraldi dituzte gaurko corpusetan. Bidenabar, ohart gaitezten *-dun* adjektiboaren kokapenez goraxeago esan dugunaz, izenaren ezkerrean baino sarriago ageri dela gaur egun eskuinean, alegia.

**5.6.2c** Nolanahi ere, kokapenez ari garelarik, ezkerrean edo eskuinean agertze horretan badu zerikusirik oinarriaren kategoriak. Goraxeago esan dugu egitura sintagmatikoak ere har ditzakeela oinarri *-dunek*; mota horretako oinarriekin nabarmenagoa da erlatibo jatorria eta ohikoa izaten da izenaren ezkerrean kokatzea adjektibo eratorria: *Bufanda gorridun ijitoa* (Osoro); *Ertz gorridun liburuxka* (Urrutikoetxea); *Tomen aita [...] alkandora gorridun hura zen* (K. Izagirre); *Bizar gorridun arrotza* (Agirre); *Bista onak betaurreko beltzdunarentzat* (Cano). Egitura berekoak dira beste hauek ere, *atorra dotoredun*, *azal ederdun*, *estalki zuridun*... Oinarri konplexuagoak ere aurki ditzakegu, zenbatzaile sintagma egiturakoak, *edozein irabazpidedun* (Lizardi), *kare gutxidun* (*Nekazaritzako irakurraldiak*). Determinatzaile sintagmak, aldiz, ezin daitezke oinarri izan.

**5.6.2d** Eratorpen-atzizki honen bidez sorturiko adjektiboek nekez onartzen dute gradu-mailarik eta horrek erakusten du erreferentzia adjektiboak direla:

\*zapata hauek takoidunagoak dira beste horiek baino; \*haur hori ez da hain betaurrekoduna... Hala ere, batzuek kalifikatzaile balioa ere hartu dute, esan baitaiteke *ni ez naiz zu bezain fededuna, ni zu baino erredunago naiz horretan.*

**5.6.2e** Atzizki izenondo-sortzailea bada, izenondoa oinarri duten atzizkiak ager litezke ondoren, baina oso bakanak dira halakoak (*euskalduntasun* eta besteren bat). Aurretik, aldiz, izenak (batez ere bizigabeak) sortzen dituzten atzizkiak aurkitzea ez da bat ere zaila: *betaurrekodun, berokidun, osasundun, maitasundun, ongarridun, berogailudun, barazkidun...*

### 5.6.3. -ko<sub>3</sub>

**5.6.3a** Lemari dagokionez, formaz berdina izan arren, *-ko* izen-sortzailea (§ 4.2.5, § 4.4.3.6) eta hau bereizi beharko genituzke beste batzuetan egin dugun bezala (*-era<sub>1</sub>* eta *-era<sub>2</sub>*, *-tza<sub>1</sub>*, *-tza<sub>2</sub>* eta *-tza<sub>3</sub>* eta abar). Kategoría desberdineko eratorriak sortzen dituzte batzuek eta besteak (*lekuko, oinetako / bihotz oneko*); kategoría desberdineko oinarriak hartzen dituzte, eta adiera ere desberdina dute.

Bestalde, adjektibo kategoriako unitateak sortzen dituen *-ko<sub>3</sub>* honek bi aldaera erakusten ditu *-ko* eta *-tako*, euskalkien araberako banaketa dutenak. Oro har, *-ko* izan da Hegoaldean nagusi eta *-tako* Iparraldean, nahiz azken mendean *-ko* nagusitu euskalki guztietan (Azkarate eta Altuna 1992). Euskaltzaindiak, nagusitasun horretaz jabeturik, *-ko* hobetsi zuen batasunerako.

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 34. araua: “Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia”, Bilbon, 1995eko ekainaren 30ean onartua.

**5.6.3b** Oinarriaren kategoriari dagokionez, ohikoa du *-ko* adjektibo-sortzaile honek sintagma kategoriako oinarriak hartzea, hau da, izen+adjektibo multzoa (edo, agian zehazkiago, AdjS): *azal zuriko, jenio txarreko, bihotz oneko, buru argiko, gerri estuko, iraupen laburreko, sudur handiko...* Baita zenbatzaile

sintagmak ere: *kainoi biko*, *hiru urteko (haurra)*, *hiru kilometroko (bidea)*, *zenbat kilometroko (bidea)*, *zazpi eguneko (epea)*, *hiru orduko (emanaldia)*... Neurria, adina, pisua, prezioa, tamaina edo denbora adierazten dute, oro har, horrelako egiturek. Izen soila ere izan daiteke oinarri, nahiz gutxi izan horrelako adibideak (*antzeko*, *edadeko*, *esaneke*, *itxurako*...). Beste batzuetan (-en) *itxurako*, (-en) *antzeko* hartuko ditugu oinarri. Baita ‘partizipioa + behar’ egiturak ere, izen sintagmatzat har ditzakegunak (*egin beharreko*, *esan beharreko*, *hartu beharreko*...). Euskaltzaindiaren 34. arauan aurki daitezke zehaztuak oinarri-mota hauek eta dagozkien adibideak.

**5.6.3c** Lehen ere esan dugu *-ko* berez flexio morfema dela (postposizio atzizkia § 21.7, § 21.8), eta hala erakusten dute goiko adibideek: *bihotz oneko*, *iraupen laburreko*, *jenio txarreko*, *zazpi eguneko*. Azkuek azpimarratu bezala, flexio morfemekin bakarrik ageri dira horrelako lotura-bokalak, ez eratorpen morfemekin. Baina postposizio sintagma bati lotzen zaio *-ko* flexio morfema denean (kategoria funtzionala denean), izenlagunak sortzeko (*etxerako*, *egurrezko*, *aitarenaganako*, *zerutiko*...). Eta *-ko* flexio morfemaren aurretik postposizio morfemarik ageri ez denean ere, *-n* postposizioa dagoela esaten dugu; hau da, *mendiko*, *zenbait menditako* eta *Gipuzkoako mendietako* izenlagunak, *mendian*, *zenbait menditan* eta *Gipuzkoako mendietan* postposizio sintagmak dituzte oinarri. Eratorpenean aztertzen dugun *-ko*<sub>3</sub> honek, aldiz, izen sintagma, adjektibo sintagma edo zenbatzaile sintagma ditu oinarri, baina ez postposizio sintagma. Eta adierari dagokionez ere, ‘eutea’, posesioa adierazten du *-ko* eratorpen morfemak; flexio morfemek, ostera, ez dute esanahi lexikorik, erlazio gramatikalak baino ez dituzte adierazten (ikus “*-koren* lana morfologian” § 21.8). Bestalde, ohikoa ez bada ere, *-ko*<sub>3</sub> atzizkiaz eratorritako adjektibo hauek izan daitezke, aldi berean, beste eratorpen atzizki baten oinarri: *buru bikotasun (hemen jokoia da buru bikotasun horretan elkarrekin ondo aritzea*, (Berria)).

**5.6.3d** Literatura tradizioan askotan *-ko* eta *-dun* lehian ikusten ditugu, oinarria sintagma kategoriakoa denean<sup>3</sup>. Zenbait gramatikalaren iritiz (Altube

---

<sup>3</sup> Ikus bereziki honetaz Altube (1929), Gramatika Batzordea (1987a), Azkarate eta Altuna (1992), Zabala (1999).

1929) *-ko* baliatzen dugu berezkoak zaizkigun ezaugarriak adierazteko, bereziki kualitate abstraktu edo immaterialak, eta *-dun*, ostera,aldi batekoak baino ez direnak adierazteko, edo pertsonaren atalak. Horrek azaltzen du zergatik izaerari dagozkion *jenio txarreko*, *azal leuneko* edo *bihotz oneko* adjektiboek *-ko* hartzen duten, eta erraz alda daitezkeen ezaugarriak adierazteko, aldiz, *-dun* aukeratzen den (*bizar gorridun*, *ile zuridun*, edo *begi belzdun...*). Baina kontuak ez daude hain argi. Esaterako, traje ederra izatea ezin har daiteke berezko ezaugarritzat, eta, hala ere *traje ederreko* sortu dugu; begiak badira pertsonen gorputzeko atal, baina *begi ederreko* ere aurki dezakegu literaturan.

Ikus ditzagun adibide batzuk: *Jendeak zioen ile luzeko gizon bat zela, mamu antzekoa* (A. Arana); *Txima luzedun hippyen aroak kalitatezko ekoizpen apartak ezagutu zituen* (Bidetxea); *Iparra hormatuak hemen nonahi ikusten diren zango luzedun lore ubel delikatuak bortizki mugiarazten ditu* (Arkotxa); *Historia luzeko museoa* (Egunkaria); *Bakarkako gairako neurri luzeko doinuak hautatu zituzten* (Egunkaria); *Takoi luzeko kanperak oinetan* (Arretxe); *Kaxa blindatuan zeukan guztia emateko agindu zion traje ederreko gazteak* (Hernandez Abaitua); *Pentsamentu ederreko liburu batetik neure egiten ditut bi pasarte ttipi* (Perurena); *Begi ederreko neskarenganaino iristeko bidea ireki zuen jende artean* (Rey); *Ile belzdun neskaren ondoan* (X. Aranburu); *Ehun bat lagunek lortu zuten tartean xingola belzdun ikurrinekin korridore bat egitea* (Hermosilla). Bestalde, oro har, Euskaltzaindiaren arauak dioen bezala, *-ko*<sub>3</sub> baliatzen dugu tamaina, iraupena eta abar adierazteko: *epe luzeko gaixotasun*, *epe luzeko helburu*, *iraupen luzeko bidaia*.

**5.6.3e** Zenbatzaile sintagmak oinarri dituzten eratorrietan, terminologia beharrei erantzuteko, mota bateko eta besteko eratorriak aurkituko ditugu hasiera batean: *hiru-buruko* / *hiru-burudun* ‘tricéfalo’, *hiru-loreko* / *hiru-loredun* ‘trifloro’, *hiru-gurpileko* ‘triciclo’, *hiru-margoko* / *hiru-margodun* ‘tricolor’, *hiru-aldizko* / *hiru-faseko* ‘trifásico’... Gaur, ordea, *-ko* nagusitu da erdal *bi-*, *tri-*... aurrizkien bidez sorturiko terminoei ordainak emateko: *letra biko*, *zati biko* ‘bimembre’, *bi motorreko* / *motor biko* ‘bimotor’, *gingil biko* ‘bilobulado’, *ardatz biko* ‘biaxial’, *buru biko* ‘bicéfalo’, *hirurteko* ‘trienio’, *hiru faseko* ‘trifásico’, *hiru hilabeteko* ‘trimestral’...



## 6. Morfologia lexikoa: eratorpena (III)

---

- 6.1. Eratorpena. Atzizki aditz-sortzaileak (-tu)
  - 6.2. Eratorpena. Atzizki adberbio-sortzaileak (-ero, -ka, -ki<sub>3</sub>, -ro, -to); 6.2.1. Sarrera; 6.2.2. -ero; 6.2.3. -ka; 6.2.4 -ki<sub>3</sub>; 6.2.5 -ro; 6.2.6 -to
  - 6.3. Eratorpena. Irizpen-atzizkiak: atzizki handigarriak eta txikigarriak (-kote, -ño, -tsu, -txo, -tzar, -xe, -xka, -xko); 6.3.1. Sarrera; 6.3.2. -kote; 6.3.3. -ño; 6.3.4. -tsu; 6.3.5. -txo; 6.3.6. -tzar; 6.3.7. -xe; 6.3.8. -xka, -xko (-ska, -sko, -zka); 6.3.9. Beste atzizki batzuk (-kila/-kilo, -xkila, -tila, -ko; -ail, -antz, -ats, -kara, -zta)
  - 6.4. Eratorpena. Atzizki zenbatzaile-sortzaileak; 6.4.1. -kun, -koitz, -na, -garren
  - 6.5. Eratorpena. Aurrizkiak (ber-/bir-, des-, erdi-, ez-); 6.5.1. Sarrera; 6.5.2. ber-/bir-; 6.5.3. des-; 6.5.4. erdi-; 6.5.5. ez-; 6.5.6. Beste aurrizki batzuk: erre-, (arra-), anti-
- 

### 6.1. Eratorpena. Atzizki aditz-sortzaileak (-tu)

**6.1a** Euskal eratorpenaz orain arte esan denaren arabera, sail honetako atzizki bakarra latinezko partizipioari dagokion *-tu* da, emankortasun handikoa. Berez lema kontuan ez genuke arazorik izan beharko, kontsonante ozenaren (sudurkari eta albokariaren) ondoan herskaria ahostunduz *-du* aldaera aurki daitekeela bereiziaz. Arazoa, ordea, *-katu*, *-(z)tatu* formek aurkezten digute. Atzizki bakarraren alomorfoak ote guztiak? Intuizioz baietz esango genuke; kontua distribuzioa finkatzea da. Villasantek hiru atzizki balira bezala ematen ditu. Ahalegin txiki bat egingo dugu bakoitzaren eremua ezartzeko adierak aztertzen ditugunean.

Bada, dena den, lema eta aldaeren banaketa baino auzi garrantzitsuagoa, Azkueren (1923-1925) lanean dagoeneko ikus dezakeguna. Batetik, euskal gramatikariak zalantzarik gabe *-tu* (*-du*) aditz kategoriako hitzak sortzeko atzizkitzat hartu dute. Ez, ordea, atzizki hau bakarrik. Lafittek, aditz bakunak sortzeko eratorpen atzizkien artean sartzen ditu *-tu*, *-i* (*ikus* > *ikusì*) eta *-n* (*egi* > *egin*), inolako azalpenik eman gabe. Azkuek *-tu*, *-ra* eta *-i* ere zaku berean sartzen ditu, aditz kategoriako unitateak sor ditzaketelako. Egia da hizkuntzaren ikuspegi diakronikoa darabilela azken bi horiek sartzean, aitortzen duela biak ihartuak daudela. Nolanahi ere, deigarria da partizipio burutua adierazten duten atzizkiak eta gramatikari hauek eratorpen atzizkitzat hartzen dituztenak forma berekoak izatea. Zer esan nahi du horrek, itxuraz berdinak izan arren egiaz bi atzizki desberdin ditugula, bata deribazioan sartzekoa, eta bestea flexioan? Intuizioaren kontrako analisia da hori. Ez hori bakarrik, *handi* izenondori *-tu* atzizki aditz-sortzailea eransten badiogu eta *handitu*, aditz kategoriako hitza sortu, nola hartzen ditu aditz horrek aspektu markak? Edo bestela esan, zergatik portatzen da ustez eratorpen atzizki den *-tu* hori aspektu marka balitz bezala? Ez baitirudi alderik dagoenik *handi-tu*, *handi-tzen*, *handi-tuko* eta eratorritzat hartzen ez dugun *har-tu*, *har-tzen*, *har-tuko* formen artean.

**6.1b** Jokabide honetaz oharturik, gaurko azterketetan (Gràcia et al. 2000; Hualde 2003b) flexioarekin duen gertutasuna azpimarratzen da. Hala ere, eratorpen atzizkitzat hartzen da<sup>1</sup> Gràcia eta besteren lanean. Hualdek (2003b) urrats bat gehiago egiten du esatean aditzak aski libreki erator daitezkeela izen eta adjektiboetatik. Eta aditz hauek guztiak *-tu* motako partizipio burutua duten aditzen sailekoak izaten direla. Honek esan nahi du ez dela *-tu* aditzak

---

<sup>1</sup> Baina zehaztopen hau egiten da: “Sin embargo, hay una serie de características que le podrían acercar a la condición de sufijo flexivo, ya que una vez formado el verbo derivado, el sufijo *-tu* se comporta exactamente como el sufijo “flexivo” *-tu*: por una parte es la forma empleada para nombrar el verbo y, por otra, se utiliza en las formas perifrásticas perfectivas” (448). Jarrera bera hartu zuen Azkuek ere *-i* atzizkiari izaera bikoitza aitortu zionean: “En muchos verbos figura este elemento como meramente terminativo. En calidad de derivado interviene ya en muy contados vocablos”.



sortzeko baliabidea, -Ø baino. Iritzi berekoa da de Rijk (2008: 150-154), atzizki magikotzat hartzen baitu *-tu*: adjektiboak eta izenak, adberbio batzuk, *-ra* postposizio sintagma asko aditzoin gisa aurkituko ditugu maiz, inolako aldatetarik izan gabe. Aditzoin hauek guztiek *-tu* atzizkiaren bidez osatzen dute partizipio burutua.

**6.1c** Oinarriaren kategoria izen zein adjektiboa izan daiteke. Izenak dira ondorengo adibideetan oinarriak:

adiskidetu, ahalegindu, aholkatu, akuilatu, aldatu, alfabetatu, amorratu, arduratu, azaldu, aukeratu, azaldu, azpimarratu, babestu, baketu, baztertu, bekaiztu, beldurtu, damutu, dantzatu, drogatu, dudatu, egarritu, egurtu, eratu, etsaitu, fosildu, giltzatu, gizondu, gosetu, haragitu, haserretu, higuindu, hondartu, ikaratu, indartu, inguratu, irrikatu, izoztu, jabetu, kristaldu, lagundu, laiatu, lehiatu, lotsatu, lumatu, loratu, lurrindu, mamitu, metatu, mindu, mugatu, neurtu, orraztu, ozpindu, pozoitu, poztu, puskatu, saiatu, saihestu, sutu, txandatu, umetu, zatitu, zauritu, zigortu, zoriondu...

Aditzaren oinarri izan daitezkeen izenen sailkapena askotarikoa da (Odriozola 2003). Batzuk izen ‘psikologikoak dira, hala nola *ardura, beldur, damu, ikara, irrika, lotsa* edo *poz* (aditz psikologikoak edo [izen+izan] egiturako predikatu konplexuak —*beldurtu, beldur izan*— eratorriko dira horrelako izen oinarrietatik, § 23.2.1.3.4). Beste batzuk pertsona edo materia adierazten duten izenak dira: *adiskide, ahaide, apaiz, gizon, ikatz, izotz, lurrun, ozpin, senide, ur*. Hirugarren multzo bat osatzen dute osotasun bateko zatia adierazten duten izenak: *adar, puska, zati*. Leku adierako izenak dira, *ostera, alde, azal, bazter, hondar, inguru*, edo *saihets*. Tresna edo baliabidea ematen dute aditzera *akuilu, giltza* edo *orrazi* izenek; eguraldia edo urte sasoa, berriz, *ateri, negu, sargori* edo *udaberri* izenek. Gertaera nahiz ondorio izenek ere har dezakete *-tu*; [izen+egin, eman, hartu] lokuzioetako izenak ere multzo honetan sar daitezke: *arnas* (hartu), *barau* (egin), *behaztopa* (egin), *borroka* (egin), *irrista* (egin), *lehia, ol-dar, saio*...

Adjektiboak ere erraz bihur daitezke aditz *-tu* hartuta; ia edozein adjektibo (ondorengo zerrendan bat baino gehiago izentzat ere har daiteke) izan daite-

ke oinarri, bai izaki mailako predikatu direnak, bai eta egoera mailakoak ere (§ 24.3.1):

ahuldu, aberastu, agortu, ahuldu, alaitu, alargundu, antzutu, apaindu, argaldu, arindu, arrostu, ausartu, azkartu, bakandu, berdindu, berotu, berritu, bigundu, bihurritu, biribildu, bizkortu, bortiztu, edertu, egokitu, epeldu, erraztu, eskastu, estutu, freskatu, gaitu, garbitu, gardendu, geldotu, gizendu, gogortu, gorritu, gotortu, handitu, harrotu, haserretu, hoztu, ilundu, isildu, jelostu, joritu, laburtu, laztu, loditu, makaldu, malgotu, mututu, nabaritu, nabarmendu, okertu, ondu, orokortu, pobretu, sakondu, sendotu, sikatu, soildu, trunkildu, trebatu, tristatu, txirotu, txukundu, urritu, usteldu, xehatu, zabaldu, zahartu, zehaztu, zikindu, zoratu, zorroztu, zurbildu, zuritu

Adjektibo<sup>2</sup> eratorri nahiz elkartuak ere izan daitezke oinarri: *axolagabetu, bi-koiztu, burusoildu, desberdindu, erdaldundu, etxetiartu, euskaldundu, ezgaitu, hiritartu, hirukoiztu, sentikortu*; baita graduatzaileak ere (*biziagotu, handiagotu, txikiagotu*). *Napoleon garaitua eta gerrekin aspertua, Europa berriro ordenan jarria, Iraultza etxetiartuaren bakea gozatzen da* (Azurmen-  
di); *Herri karguak betetzeko ezgaitu eta Biztanle kopuruaren galerak dakar-  
tzan ondorio larriez informatu eta jendea sentikortu nahi dute kanpainarekin* (Berria); *Hiritartu zaigu dena, baserri zokoraino, bereziki komunikabide berriei esker* (Herria); *Garunaren endekapen batek kalte handia eragin zion Raveli azken urteetan, eta afasia arina eragiteaz gainera, erabat ezgaitu zuen konposatzen zuen musika idazteko* (Yetano). Harrigarriagoa da, baina gardena aldi berean, *bizargorritzuritu* ‘bizar gorri zuri bihurtu dena, bizargorri bizarzu-  
ri bihurtu dena’: *Gerta liteke, ordea, nire lagun bizargorritzurituak arrazoi-  
izatea horretan ere* (Joxerra Garzia). Areago, adjektiboarekin batera izenaren modifikatzaile den izenlaguna ere izan daiteke oinarri: *bertakotu, gaurkotu, hemengotu, berendu, guretu...*

**6.1d** Esanahiari dagokionez, adjektiboa oinarri dutenek, ‘oinarriak adieraz-  
ten duen izaerako bihurtu, izaera hori areagotu’ ematen dute aditzera. Oinarria

---

<sup>2</sup> Gogoan izan behar da euskaraz askotan izen nahiz adjektibo balioa izan dezaketela eratorri horietako batek baino gehiagok. Eta berdin esan daiteke *alargun, arrotz, etsai* eta beste hainbat lexemari buruz ere.

izen kategoriakoa denean, ostera, zaila da adiera bakarraz hitz egitea; kasuistika zabala dugu (Gràcia et al. 2000). Batzuetan ‘bihurtu’ adiera dugu (*alargundu, haragitu, izoztu, santutu, umetu*); beste batzuetan ‘egoera jakin bat, sentimendu bat sortu’ (*amorratu, beldurtu, damutu, izutu, ikaratu, mindu, sutu*). Horietako asko [izena +*egin/eman/hartu*] aditz lokuzioen baliokide dira; baita beste hauek ere: *dantzatu, egurtu, lagundu, zoriondu*... Izenak adierazten duen hori kendu, hori gabeko egoerara iritsi adierazten dute *larrutu* edo *lumatu* aditzek. Eta alderantzizkoa, izenak adierazten duenaz bete, hornitu, beste hauek: *loratu, lumatu*. Oinarriak adierazten duen horretarantz joan izan daiteke *babestu, baztertu, saihestu* edo *zigortu* gisakoen esanahia.

**6.1e** Erregimena, balentzia, aztertuz gero, adjektiboetatik nahiz izenetatik eratorritako aditz gehienak *da/du* motakoak dira, inkoatibo/kausatibo sailekoak (§ 23.2.1.3.4g). Trantsitiboan, *du* motakoen, argumentu egitura honelakoa izan ohi da: egilea/kausa (erg.) – gaia/esperimentatzailea (abs.). Aditz psikologikoak dira *alaitu, arduratu, harrotu, haserretu, ikaratu, lotsatu, poztu, tristatu* edo *zoratu*. Beste batzuek, ostera, ‘esperimentatzailea’ (erg.) – ‘estimulua, gaia’ (abs.) motako argumentu egitura dute: *damutu, deitoratu, errespetatu, irrikatu* (§ 23.2.2.5e).

Izenetatik eratorritako asko ere inkoatibo/kausatibo sailekoak dira (*beldurtu, damutu, gosetu, ikaratu, izoztu, kristaldu, urtu, zatitu*...). Badira *du* motakoak ere, trantsitiboak, egilea-gaia argumentu egitura dutenak, *akuilatu, behaztopatu, giltzatu, laiatu, larrutu, zigortu, zoriondu*... Beste batzuk intrantsitiboak dira, *da* laguntzailea hartzen dutenak: *ahalegindu, barautu, mintzatu, saiatu*.

**6.1f** Aspektu lexikoari dagokionez lorpenak (burutzapenak) edo erdiespenak adierazten dituzten neurrian, aditz hauetatik gehienak telikoak dira (Gràcia et al. 2000), amaiera jakina duen prozesua edo gertaera adierazten dute. Baina badira atelikoak ere (*aholkatu, babestu, zigortu*). Aditz horien sailkapen zehatzagoa egiten du Odriozolak (2003) aspektu lexikoari dagokionez. Izenetatik eratorri aditzen artean batzuek lorpenak edo burutzapenak adierazten dituzte (*izoztu, lurrundu, ozpindu, urtu*); beste batzuek, erdiespenak (*adiskidetu, gizondu, jabetu, umetu* § 26.1.4.1a). Adjektiboetatik eratorrien artean, batzuek burutzapen ‘abiakaria’ adierazten dute, hau da, guztiz burutu gabea dena,

gehiagora doana; horrelakoak dira, bereziki, graduatzailea hartzen dutenak edo har dezaketenak (*biziagotu, handiagotu, larriagotu, luzeagotu, sendoagotu, txikiagotu; ahuldu, bigundu, loditu, txukundu, zurbildu...*). Beste batzuek, berriz, lorpen ‘puntukaria’ adierazten dute: *antzutu, bikoiztu, isildu, okertu*. Eta badira amaierarainoko burutzapena edo lorpena adierazten dutenak ere: *agortu, berritu, gaitu, xahutu*.

**6.1g** Postposizio sintagmak ere izan daitezke oinarri. Batetik, *-ra, -gana* postposizioak: *ahoratu, aineratu, alboratu*<sup>3</sup>, *argitaratu, atzeratu, aurreratu, azaleratu, azpiratu, barneratu, beheratu, bereganatu, bideratu, bururatu, elkarrenganatu, elkarretaratu, erdiratu, eskuratu, espetxeratu, etxeratu, gaineratu, gogoratu, goratu, hondoratu, itsasoratu, kaleratu, kanporatu, kartzelaratu, konturatu, lehorreratu, lurreratu, oheratu, zeruratu...* Oinarriak adierazten duen horretara joan, sartu... adiera izan daiteke guztietan ageri dena, nahiz aditz psikologikoen kasuan (*bururatu, gogoratu, konturatu*) mugimendua metaforikoa izan. Aditz psikologiko horietan ‘esperimentatzailea’ izan daiteke sintagma ergatiboa (*gogoratu du*), absolutiboa (*konturatu da*) zein datiboa (*bururatu zaio, gogoratu zaio*). Gainerako aditz gehienak *da/du* motakoak dira, trantsitiboak ‘agente/kausa’ (erg.) – ‘gaia’ (abs.) eredukoak izanik. Beste aditz batzuek ez dute mugimendu adierarik, lexikalizatu egin baitira: *argitaratu, begiratu, eguneratu, plazaratu*.

**6.1h** *-pe* atzizkidun oinarriek ere har dezakete *-tu*: *araupepetu, auzipetu, giltzapepetu*. Mugimendua adierazten dute horrelakoek ere: ‘araupean sartu/jarri’ (‘arau jakinen pean ezarri’ *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, ‘auzipean jarri, auzitarera eraman’). Horregatik ez da harritzekoa *-pera(tu)* formak ere aurkitzea: *auziperatu, giltzaperatu, lurperatu. Lanpetu*, berriz, ez da gaur aditz balioan erabiltzen, partizipio/adjektibo balioan baino. Aditz trantsitiboak dira ‘egilea (agentea)’ (erg.) – ‘gaia’ (abs.) egiturakoak.

**6.1i** Beste batzuetan, *-z* postposizio sintagma izango da oinarri: *aireztatu, altzairuztatu, azalez tatu, azukreztatu, balioztatu, begiztatu, berriztatu, berunez-*

---

<sup>3</sup> *Albo, azpi, erdi* edo *gain* erlaziozko leku izenak dira eta *-ra* postposizioa hartzean lexikalizatu eta adberbio bihurtu dira (Odriozola 2003).

*tatu, egiaztatu, eguzkiztatu, erroztatu, eskuztatu, idoiztatu, keztatu, koipeztatu, legeztatu, mugarriztatu, oholeztatu, oinazeztatu, ongarriztatu, papereztatu, sariztatu, ureztatu, urreztatu, zilarreztatu...* Goraxeago aipatu dugun *-tatu* aldaera dugu aditz hauetan (§ 6.1a). Aditz horietatik bat baino gehiago azken urteetan sortutako neologismoak dira. Adierari dagokionez, Salaberryk (1856) aipatzen duena, ‘-z hornitu/estali’ alegia, zenbaitetan betetzen dela ikusten dugu, baina ez beti. Bestetik, instrumental marka gabeak dira ondokoak, *auhendatu, gezurtatu, hegaldatu, izendatu, segurtatu, tolestatu, ziurtatu*. Ez dirudi gainera ñabardura semantiko bereziei zor zaizkienik forma hauek. Balentziari dagokionez, aditz trantsitiboak dira, ‘egilea/kausa’ (erg.) – ‘gaia’ (abs.) egiturakoak.

**6.1j** Ingeleseztatik *kokapen aditz* deitu zaie euskarazko *etxeratu* edo *mahaigaineratu* aditzen pareko direnei, eta *kokagai aditz*, ostera, *ureztaturen* parekoei. Oinarriak postposizio sintagma izateak argi adierazten du ez dela beti erraza kategoria lexikal / kategoria funtzional bereizketa. Edo, beste modu batera esanda, ez direla beti kategoria lexikoak eratorpenaren oinarri direnak (§ 3.1j, § 11.4).

**6.1k** Adberbioetatik eratorriak. Adberbio soila izan daiteke oinarri, oso ugariak ez izan arren eredu honen arabera eratorritako aditzak: *berandutu, hurbildu, urrundu*. Edo leku adberbioa: *beheititu, gainditu, goititu; atzeratu, aurreratu, beheratu, goratu, kanporatu* (-ra postposizioa oinarri duten heinean aurreko multzoan ere eman daitezke, § 6.1g). Leku adberbioetatik eratorriak *da/du* motakoak edo *du* motakoak izan daitezke. Trantsitiboak direnean, ‘egilea/kausa’ (erg.) – ‘gaia’ (abs.) edo egiturakoak dira eta amaieraranzko mugimendua adierazten dute (Odriozola 2003).

Askotan *-ka* atzizkiaz (§ 6.2.3) sorturiko adberbioak izango dira oinarri, *adarkatu, aldarrikatu, aztalkatu, harrikatu, horzkatu, lerrokatu, mailukatu, moko-katu, multzokatu, musukatu, oihukatu, sailkatu, txandakatu, zatikatu*. Aditz ez-telikoak dira *-ka* adberbioa oinarri dutenak, *du* motakoak, egilea-gaia argumentu egitura dutenak. Aditzak, berriz, errepikapen-balioa, iterazioa adierazten du, oinarri duen adberbioak duena, alegia.

Baina beste batzuetan ez dago *-ka* oinarririk; beraz, *-katu* osorik hartu behar da atzizkitzat (de Rijk 2008). Hala gertatzen denean, oinarria izan daiteke aditz kategoriakoa, postposizioa, zein adjektiboa: *berdinkatu, ibilkatu, ikuskatu, iraulkatu, irudikatu, ordezkatu, parekatu*.

**6.1I** Baditugu, azkenik, kalko hutsez sortuak ere; gaztelaniazko eredua kontuan izanik eratu ditugunak. Zaila da horrelakoetan esanahi lexikoa zein den zehaztea. Horien artean ditugu *ezaugarritu, harremandu/harremanatu, lagindu, sukaldatu, txarangatu* eta horien gisakoak: *Musikari gazte hauek etxean, tabernetan, txosnetan zein gaztetxean urteetan entzundako rock kantu ezagunenen artean aukeraketa egin eta “txarangatu” egin dituzte* (I. Barandiaran); *Esaldi bakar batean ezaugarritu beharko balitz sozialismoa egokiago izango litzateke giza askapeneko mugimendu bat bezala deskribatzea* (X. Mendiguren Bereziartu). Badirudi horien ondoan erraz erabil genitzakeela aditz predikatu konplexuak: *harremanak izan, laginak hartu, ezaugarri izan* eta abar.

## 6.2. Eratorpena. Atzizki adberbio-sortzaileak (*-ero, -ka, -ki<sub>3</sub>, -ro, -to*)

### 6.2.1. Sarrera

Euskal gramatikariek jaso dituzten atzizki adberbio-sortzaileak bildu ditugu atal honetan. Baina ez dute guztiek hedadura eta emankortasun bera. *-ka* eta *-ki<sub>3</sub>* dira orokorrenak, literatura tradizioan eta gaur egun ere maizten aurki ditzakegunak. Askoz mugatuagoak dira beste biak, *-ro* eta *-to*; gaur ihartutzat ere eman ditzakegu (§ 22.2.2).

### 6.2.2. *-ero*

Denbora adierazten duten izenei erantsirik ‘maiztasuna’ adierazten du: *arratsalde-  
ro, astelehenero, astero, egunero, gauero, goizero, hilero, igandero, iluntzero, or-  
duero, urtero*. Hori da literaturan eta ahozko erabileran tradizioa duen moldea.

Tradiziokoen ondoan, ordea, hedatuz joan da azken urteotan zenbatzaile sintagma ere oinarri hartzeko joera: *hamabost egunero, hiru urtero* edo *hiru hilabetero*. Azken egitura hauen ordez, beste hauek dira euskaraz tradizioa dutenak: *hamabost egunetik behin, hamabost egunean behin, hiru urterik behin, hiru urtetik hiru urtera, lau urtetatik lau urtetara, lau urtez behin, lau urtetarik behin* eta abar.

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 110. araua: “Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzaile-dunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen”, Iturenen, 2000ko maiatzaren 26an onartua.

### 6.2.3. -ka

**6.2.3a** Oinarriaren gramatika kategoriari erreparatuz, erraz ohartuko gara kategoria bateko baino gehiagoko oinarriak har ditzakeela, baina bereziki izenei lotzen zaiela (izen konkretuei, bizidun zein bizigabeei). Oinarriaren kategoria kontuan hartuz, zazpi multzo bereizten ditu de Rijk (2008):

- a) *Egin* aditzarekin (edo beste aditz arin batekin) aditz lokuzioa osatzen duten izenetatik sortu ditugu *aharrausika, aitarenska, arnaska, arrantzaka, barreka, bultzaka, deiadarka, doministikuka, garrasika, hasperenska, hazka, hoska, iheska, indarka, irrika, keinuka, lasterka, musuka, oihuka, ostikoka, txioka, zotinka* edo *zurrungaka*. Gertaera izentzat har daitezke horietako gehienak.
- b) ‘Baliabidea’ edo ‘tresna’ adierako izenak ere izan daitezke oinarri: *aizkoraka, arraunka, atzaparka, eztenka, haginka, hozka, makilaka, ukabilka, zirika* eta abar.
- c) ‘Lekua’ adierazten duten izenak dituzte oinarri beste adberbio hauek: *albo-ka, aldamenka, atzeka, aurreka, gibelka, han-hemenka, saiheska*.
- d) ‘Esateari’ lotua dagoen esanahia hartzen du adberbioak honako adibide hauetan: *baiezka, ezezka, berorika, hika, ongi etorrika, otoika, zuka*. Askotariko oinarriak ditugu adberbio horietan: adberbioak (*baietz, ezetz*), ize-

nondoak (*berori, hi, zu*), aditz sintagma (*ongi etorri*)... Hemen sartzekoa da *omenka* ere, *omen* izena oinarri duena (§ 23.5.3.2e).

- e) Zenbatzaile kategoriako oinarria —banatzaileak barne direla— dute *bana-ka, binaka, bosnaka, ehunka, hirunaka, milaka* eta abarrek.
- f) ‘Kantitatea’ adierazten dute *-karen* oinarri diren beste izen batzuek: *aldra-ka, apurka, bihika, izpika, pilaka, pitinka, sailka, saldoka, taldeka, tanta-ka, zatika*... Kuantifikazio izenak (§ 12.3.5d) dira hor oinarri ditugunak, direla hesitzaileak (*aleka, izpika, xerraka, zatika*), direla neurri izenak (*ki-loka, litroka, metroka*) edo multzo izenak (*multzoka, pilaka, taldeka*).
- g) Denbora tartea adierazten duten *aldi, arte, aste, egun, epe, hilabete, ordu, urte* eta horrelakoak ere izan daitezke *-ka* atzizkiaren oinarri: *asteka, egun-ka, urteka*...

**6.2.3b** ‘Leku’ adierakoak dira postposizio sintagma hauek ere: *atzera(ka), aurrera(ka), behera(ka), gora(ka)*. Erdialdeko euskalkietan ezagunak dira *unibertsitateraka* edo *etxeraka* modukoak ere.

Salbuespenak izan arren, adjektiboekin (*herrenka, isilka*) eta aditzekin ere ager daiteke *-ka* (*esaka, joka*, bereziki hitz elkartu sintetikoetan *aho zabalka* eta abar, § 9.4.3). Modu adierako adberbioak sortzen dira.

**6.2.3c** Oinarriaren arabera, *-ka* hitzek ere askotariko kategoria izan dezakete: zenbatzailea (*milaka lagun, dozenaka liburu*), aditza (*musukatu, harrika egin*), adberbioa (*bultzaka sartu, saldoka atera, tantaka erori*) eta erdialdeko euskalkietan, postposizio sintagma (*etxeraka, unibertsitateraka*). Ezaugarri horrek eraman gaitzake pentsatzera *-ka* ez dela egiaz adberbio kategoriako hitzak eratoritzeko atzizkia, bestelako balioa duela: atzizki horrek esanahi jakin bat gehitzen duela, alegia (iterazioa, errepika, gehienetan). Baina Ø morfema batek (adierazpide morfonologikorik gabeko morfema batek) ezartzen duela kategoria (§ 11.10).

**6.2.3d** Esanahia. Atzizkiak adberbioari ematen dion esanahiari dagokionez, izen bizigabeei erantsirik bi modutako balioak har ditzake sortzen den adberbioak: batetik, oinarriak adierazten duen eginez (*bultzaka, burlaka, doministika, eztulka, garrasika, indarka, irrika, jauzika, keinuka, tiroka, zirika, zo-*



*tinka, zurrungaka*); *egin* aditzarekin aditz lokuzioak osatzen dituzte izen horiek eta ‘jarduera’ adierazten dute askok eta askok (§ 6.2.3a). *Egon, ari, ibili* eta *hasi* aspektu aditzen osagarriak izan daitezke adverbio horiek. Errepikatze, iterazio balioa, behin eta berriz gertatzea nabarmendu dute gramatikariek (de Rijk 2008; Etxepare 2003; Hualde 2003b). Iterazio balioa dute aditza oinarri duten *ekainka, jaurtika, joka* eta abarrek ere.

Bestetik, oinarriak adierazten duenaz kolpea emanez adierazten dute *-ka* formek (*harrika, mazoka, ostikoka, ukabilka...*). Baliabidea (tresna) edo modua adierazten dute adverbio hauek; baina,aldi berean, tresna edo baliabide horren bidezko jarduera ere bai (Hualde 2003b).

**6.2.3e** Iterazioa markatzen duen atzizki den heinean, *-ka* atzizkia gertakari izen telikoei bakarrik erants dakiekeela dirudi: *saltoka, oihuka, kolpeka*, baina *\*lanka, \*jolaska* edo *\*loka* (Etxepare 2010: 105). Izan ere, iterazioa gertatzeko, amaiera-puntu naturala duen gertakari bat adierazi behar du izenak. ‘Denbora’ adierako izenak eta zenbatzaileak ere izan daitezke oinarri adiera honetan: *binaka, bosnaka, ehunka, epeka, hamarnaka, hilabeteka* ‘hilabetez hilabete’, *hirunaka, milaka, taldeka, urteka*. Horiek ez dira gertakari izen telikoak, baina bai izen zenbakarriak, eta *-ka* atzizkiak “zenbatuak diren entitateak ere har ditzake argumentu bezala: *milaka lagun elkartu dira*” (Etxepare 2010: 105).

**6.2.3f** ‘Bila ibili/joan’... adierako adverbioa sortzen du batzuetan *-ka* atzizkiak: *arrainka, egurka, urzoka...* *Gure Pelo Hasi zen arrainka, Sakekin miaka* (Oxobi); *Urzoka joan zen eta ostiraliaz geroz etzen ageri* (Herria). Nolanahi ere oso adibide gutxi ditugu eredu honetakoak, Iparraldekoak guztiak. Iterazio balioa ageri da erabilera honetan ere.

#### 6.2.4. *-ki*<sub>3</sub>

Lemari dagokionez, kasuren batean sudurkariaren ondotik *-gi* aldaera ageri da (*ongi*), baina ez da hori jokabide orokorra (*gizonki, ozenki...*).

Ia edozein adjektibok onartzen du atzizki hau adverbioa sortzeko, maileguez nahiz euskal izenondoek, izenondo bakunek nahiz eratorriek, kalitate adie-

razten duten neurrian, noski. Adjektibo balioa har dezaketen izenek ere onar-  
tzen dute *-ki* (*gizonki*). Kualitate hutsaz gain beste ñabarduraren bat duten ad-  
jektibo eratorriak ez dirudi adberbio bihur daitezkeenik: \**lotsatiki*,  
\**bizardunki*, \**donostiarki*. Nolanahi ere, OEHko corpusean badago *euskal-*  
*dunki*; baita *miragarriki*, *ikaragarriki* ere. Badira bestelako debekuak ere, esa-  
terako kolore izenondoek ez dute *-ki*<sub>3</sub> onartzen, ez eta ezaugarri fisikoak adie-  
razten dituztenek ere (*argal*, *gizen...*):

ahalkegabeki, aiseki, airoski, alegeraki, apalki, arinki, ausarki, beregainki, bereziki,  
bidegabeki, bigunki, biziki, bortizki, deblauki, dohatsuki, dorpeki, ederki, epelki, ga-  
lanki, garrazki, itsuski, laburzki, leunki, liberalki, libreki, oneski, ongi, ozenki, poliki,  
serioski, trebeki, umilki, zorrozki, zuhurki...

*-z* postposizio sintagma ere izan daiteke oinarri (*artezki*, *bidezki*, *desohorezki*,  
*dolorezki*, *egiazki*, *mirakuiluzki*, *ohorezki*...); baina emankortasun mugatua du  
eredu honek, oro har *-z* bera aski izaten da-eta aditzondo balioa emateko: *hi-*  
*tzez*, *eskuz*... (ez \**hitzezki*, \**eskuzki*...).

EGLU-I liburukian esan bezala, *-ki* adberbio batzuk inesibo sintagma dute  
ondoan (*itsuki* eta *itsuan*, *ezkutuki* eta *ezkutuan*). Ez da harritzekoa txandaka-  
tze hau, bi kategoriak dira-eta aditzekin bateragarriak.

Hegoaldean ohikoa da adjektibo soila erabiltzea adberbio funtzioan (§ 11.9b);  
hau da, aditzak adierazten duen gertaeraren modua adierazteko: *Bizkor jiratu*  
*eta sukaldeko leihotik adi-adi begira geratu zen* (I. Mendiguren); *Azkar sartu*  
*zen gelan* (Lopez de Arana); *Tarjeta gorria ateratzen zaio oso erraz* (P. Zabala);  
*Beti modan eta dotore jantzita* (Iturralde). De Rijkek (2008) dio Iparraldeko  
euskalkietan ohitura handiagoa dagoela *-ki* erabiltzeko: *Dotoreki jantzia zen*  
*gaztea* (R. Etxeberri); *Jendea azkarki mugitzen da uda heldu denean* (Herria).

### 6.2.5. *-ro*

Mitxelenaren iritziz orokorra zatekeen atzizki hau aditzondo berriak sortzeko  
nahikoa ihartua dagoela esango genuke. Aspaldi samar sortutako *astiro*, *berriro*,

*dongaro, geldiro, luzaro, oparo, osoro, zeharo...* erabiltzen ditugu oraindik ere, baina ez dugu berririk sortu. Askotan *-ki<sub>3</sub>*-rekin batera ageri zaigu (nahiz bi atzizkien arteko hurrenkera aldakorra izan): *egiazkiro, emekiro, gaingiroki, handikiro/handiroki, maitakiro/maitaroki, zorrozkiro*.

### 6.2.6. -to

Bizkaieraz (nahiz aditzondoren batek edo bestek askoz eremu zabalagoa izan) askotan *-ki<sub>3</sub>*-ren ordeaz erabili da atzizki hau. Sudurkariaren ondotik herskaria ahostun bihurtu eta *-do* alomorfoa aurkituko dugu *ondo* adberbioan. Ez dirudi halere *-ki*-k adinako emankortasunik duenik: *ederto, errazto, galanto, hobeto, ondo, polito, zatarto*.

## 6.3. Eratorpena. Irizpen-atzizkiak: atzizki handigarriak eta txikigarriak (*-kote, -ño, -tsu, -txo, -tzar, -xe, -xka, -xko*)<sup>4</sup>

### 6.3.1. Sarrera

Atal berezia osatzen dute pertsoneri edo gauzei buruzko ikuspuntu edo iritzi subjektiboa adierazteko baliatzen ditugun atzizkiek. *Sufijos apreciativos* deitu zaie horrelakoei gaztelaniaz eta hiru azpiataletan banatu dituzte: handigarriak, txikigarriak eta gutxiespenezkoak (*poblacho, villorrio, niñato...*). Oinarriari erantzen dioten ñabardura semantikoaz gain, badituzte bestelako ezaugarriak ere: ez dute oinarriaren kategoria aldatzen, eta kategoria bateko baino gehiagoko oinarriari erants dakizkieke (*umetxo, txikitxo, berandutxo*), nahiz ñabardura semantikoa ez beti berbera izan. Emankortasunean ere badi-ra aldeak berehala ikusiko dugunez; batzuk ia edozein izeni edo izenondori

---

<sup>4</sup> Azkuek (1923-1925) askoz atzizki gehiago aipatzen ditu, baina emankorrenak bakarrik jaso ditugu.

erants dakizkieke, beste batzuk ez. Atzizki hauen beste ezaugarri bat flexio hizkien aurre-aurrean agertzea da; beraz, gainerako eratorpen-atzizkien ondoren: *bertsolaritxo* (\**bertsotxolari*). Ezaugarri horiek kontuan izanik, flexio hizkietatik gertu daudela esan izan da; euskaraz, esaterako, EGLUn eta Gramatika honetan ere, adjektiboaren mailakatzeaz ari garela aipatu ditugu adjektiboa oinarri duten mota honetako eratorriak; mailakatze horretarako marka morfologikotzat hartu ditugu. Hala ere, ondoren aztertu ditugun atzizkiek badute esanahi lexikoa, ez dira marka gramatikal hutsak. Eta flexio-morfemen aurretik kokatzen ditugu (artikuluaren, kasu markaren... aurretik). Horrek guztiak eraman gaitu *-txo*, *-ño*, *-kote* eta horien antzeko atzizkiei Eratorpenean atal bat eskaintzera. Beste gramatika batzuetan ere, RAEn *Nueva gramática de la lengua españolan* edo Bosque eta Demontek argitaraturiko *Gramática descriptiva de la lengua españolan*, atal berezi bat eginaz, baina Eratorpenaren barruan aztertu dituzte horrelako atzizkiak. Euskaraz sail honetako atzizkiak horrenbeste ere ez direnez, alfabetoaren arabera zerrendaturik aztertuko ditugu; goraxeago esan bezala, gaztelaniaz hiru azpisail bereizi dituzten arren, euskaraz oro har handigarriak eta txikigarriak baino ez dituzte aipatu gramatikariek. Hala ere, ez da zaila zenbait eratorriren kasuan gutxiespenezko kutsua antzematea.

### 6.3.2. *-kote*

**6.3.2a** Izenari eransten zaion atzizki handigarria, *begikote*, *gizonkote*, *lagunkote*, *liburukote*, *mutikote*, *xexenkote*<sup>5</sup>: *Esaterako, ez dakit gizontxo txiki bat ote den ala gizonkote handia* (Azkargorta); *Hala direlako gauzak: gizonkote handiak direlako, hain zuzen, gauza txiki-txikietarako eginak daudenak* (Elorriaga); *Anaren gurasoen etxera aldatu nintzen umea jaio zenean; mutikote bat, hiru kilo eta zortziehun gramo, pentsa!* (Zaldua); *Neskaren begikote ilun eta sorgindu itxurako haiek une batez nire aurpegian pausatu ziren* (Berrizbeitia); *Xexenkote! Ez adi horrela jarri!* (Goenkale).

---

<sup>5</sup> Balio txikigarria duen palatalizazio adierazkorra eta atzizki handigarria biltzen dituena.

**6.3.2b** Adjektiboek ere hartzen dute *-kote*: *baldarkote, gizenkote, gorrikote, handikote, lasaikote, lodikote, mardulkote, mozkote, onkote, puztukote, sendokote, tontokote, zozokote*. Oro har, adjektiboei eransten zaizkien gainerako irizpen atzizkiek bezala, eratorri hauek ere ‘aski’ ñabardura hartzen dute, ‘aski ona’, ‘aski lodia’... Eta batzuek gutxiespen kutsua ere izan dezakete. Ikus ditzagun adibide batzuk: *Beltzarana zen, mozkote samarra, isil, (Egunkaria); Hortaz –ari zen mutiko sendokote bat–, esan diot Justini gure logelan ezkutatzeko (I. Mendiguren); Zure izaera baldarkote horrek galtzen zaitu (Goenkale); Koadrilako bat da handia. Gizenkote askoa (Goenkale); Atzamar mozkote, horitu haiek luzatu (Goti); Nire sudur gorri puztukote hau eta nire aurpegiko ubeldurak (Lertxundi); Tipo meharra da, ile-horia, betaurrekodu-na, beste zozokote bat Jan korrikalaria bezala (Rey).*

**6.3.2c** Zenbatzaileei ere erants dakieke *-kote*, baina izen multzokaria da sortzen den eratorria (*bikote, hirukote, zortzikote*, § 4.3.8a).

### 6.3.3. *-ño*

**6.3.3a** Hegoaldean *-txo* bezala, Iparraldeko testuetan bereziki emankorra da atzizki txikigarri hau. Zuberioan *-ñi* aldaera ageri da: *amañi, aitañi, maiteñi, urzoñi*. Izenei eransten zaie, bizidunei zein bizigabeei, zenbakarriei eta zenbakaitzei, baita izen elkartuei ere:

agurño, andanaño, andereño, arbolaño, argazkiño, arranguraño, artikuluaño, ateraldiño, basoño, behakoño, bilkuraño, biltokiño, bisitaño, elgarretaratzeño, emazteño, erakusketaño, etxolaño, gazteño, gauzaño, gelaño, geldialdiño, haurño, hilabeteño, hitzaldiño, indarño, irriño, itzuliño, istorioño, jatetxeño, jauziño, karrikaño, kolpeño, laguntzaño, liburuño, mezaño, mende erdiño, musika zatiño, omenaldiño, ostatuño, otoizño, paradaño, solasño, tokiño, trufaño, urteño, xokoño, txoriño, xuhur aireño, zintzur bustitzeño

**6.3.3b** Aurkitu dugu beste atzizki txikigarri baten ondotik doan *-ñoren* adibide bat ere, *herrixkaño*. Ikus ditzagun adibide batzuk. *Nire haurtzaroan fama txarra zuen Lanbarak gure xaharren mihietan, huntza entzutean erraten bai-*

*tzuten, halako trufaño batekin: “Lanbarako üliin-zeinüa!” (iluñabarreko ez-kila) (Argia); Egun, berriz itzuliño bat eginez delako estreinaldirat, argazkiño batzu ager-araziz egun xoragarri horren lekuko eta oroigarri, hauxe dugu azpimarratu nahi (Herria); Diapo-irudien bidez, arras arrotza ginuen Afriko ugarte ttipi horren doi bat ezagutzeko paradaño bat ukan dugu (Herria); Mende erdiño batek zonbat egun ditu (Herria); Badira ere Hendaian bildu direnak eta andanaño bat Daniel Poulou deputatuaren etxe aintzineraino itzuliño bat egin duena... (Herria); Hori da, eta hor Eñaut Etxemendi erakasle erneak ere egin zituen zenbait urteño (Herria); Deneri, Guy Poulou auza-pezak egin daizkiote konplimenduak eta zintzur bustitzeño batekin segitu da elgarretaratze hori (Herria).*

**6.3.3c** Adjektiboei ere erants diezaiekegu *-ño*, kolore adjektiboei (*gorriño, horriño, xuriño*). Aurki ditzakegu beste adibide bakan batzuk ere, baina ez da oso emankorra: *berezino, besteño, handino, ttipino*. Toki berezino bat egina zaio Frederic Lafitte mendigoizale gazteari (Herria); Ateak zerratuko dituela iheslarieri edo doi-doia arteka ttipino bat utziko idekirik (Herria); Erromanoek egin zubi zahar beregizkoaren muthurretik etxe xuriño batzu, eslaian, harra-patzera bezala badoazkio petik gora (J. Etxepare); *Eta orai horra nun besteño bat plazaratu duen, berdin aberatsa, “Euskal-Herriko etxeak”* (Herria). Dena den, ez dago argi adibide horietan atzizki txikigarria izenondoari bakarrik dago-kion ala [izen+adjektibo] adjektibo sintagma osoari; adierari erreparatuaz, badirudi sintagma osoa dela atzizki txikigarriak besarkatzen duena.

#### 6.3.4. *-tsu*

Bereziki ekialdean izenei erantsirik ‘gutxi gorabehera’ adiera gehitzen die oinarriari: *orentsu, artetsu, erditsu... Bi oihanen artetsuan bada ur erreka bat* (Duvoisin); *Iragan mendearen erditsuan, mila zortzi ehun eta berrogoi’ta zortziko Erreboluzione-egunetan* (Barbier). Adjektiboek ere hartzen dute *-tsu*: *azkentsu, berdintsu, igualtsu, lehentsu*. 1528an Otsailaren azkentsuan, gizon gazte hetarik bat, bertziak eskolan direlarik, sartzen da ganbara hartan (Laphitz); *Urriaren lehentsu hartan zen* (Larre).

Adberbioei eta izenordainei erantsirik ageri zaigun *-tsu* ere sail honetan (txikigarrien sailean) sar dezakegu, izenei erantsirik hartzen duen ‘gutxi gorabehera’ adiera berean: *bezalatsu, halatsu, nolatsu, nortsu, nontsu, zenbatsu...* *Teofilo Mariak arrazoi du alde batetik, aita, zeren a), b) eta c), baina bestetik ez du, zeren d), e) eta f); baina, Domingoren arrazoiei bagagozkie, halatsu, zeren hiru arrazoi gutxienez baditu alde [...], baina beste hiru ere aurka* (Irigoién); *Eta ertzainek esan digute denbora kontua dela. Orain badakite nontsu dabilen Gaizka. Eta patruila mordo bat ibiliko da haren atzetik* (Goenkale); *Luzexko ez bada, zubiak zer nolako neurriak zituen, eta nolatsu egiten zen, irudipen bat egiteak ere, ez dut uste kalterik eginen dienik zure zentzu argizale jostari horiei* (Perurena). Adberbio horiek ondoren postposizio atzizkiak har ditzakete: *bezalatsuko, nontsutik, nolatsuko...* *Ez naiz oroitzen nolatsuko aurpegia zuen* (Rey); *Edo, Joanito Errandonea jetziz, ez al digu Moralaren Genealogia berritu, edo Zaratustragana nontsutik jo erakutsi?* (Perurena).

### 6.3.5. *-txo*

**6.3.5a** Emankortasun handikoa da batez ere Hegoaldeko testuetan aurkituko dugun atzizki txikigarri hau. Edozein motatako izenek har dezakete:

aguretxo, aitatxo, aldapatxo, amatxo, amonatxo, arraintxo, asmotxo, baratzetxo, bekatutxo, elizatxo, etxetxo, ezkilatxo, gauzatxo, gaztetxo, gelatxo, geldialditxo, gizontxo, gorrototxo, haurtxo, herritxo, hilabetetxo, hitzalditxo, iruditxo, iturritxo, kaletxo, katutxo, kolpetxo, laguntzatxo, liburutxo, maitasuntxo, menditxo, mutiltxo, ordu erditxo, otoiztxo, saltotxo, txakurtxo, txerritxo, txoritxo, umetxo, urtetxo, zaratatxo...

**6.3.5b** Adjektiboek ere hartzen dute *-txo*: *berdetxo, gaiztotxo, gaztetxo, gorritxo, handitxo, luzetxo, loditxo, txikitxo, urdintxo, zahartxo*. Adibide hauetan, adjektiboek eransten zaizkien gainerako atzizki txikigarrien pareko balioa aurkituko dugu, ‘aski gaztea’, ‘aski handia’, ‘lodi samarra’ (§ 14.10.3b)... *Gortinak jartzera joan den neska loditxo hori* (Atxaga); *Horregatik gustatzen zaie horrenbeste zahartxo, bizitza ia agortu zaienei, hitz egitea, kontatzea, esatea* (Oñederra). Batez ere bizkaieraz, *-egi* graduatzailearen pareko dira horrelako zenbait adjekti-

bo, ‘aukeran gazteegi, txikiegi...’ *Oraindik txikitxo da baina ilusioa egingo lidake gure zaharrarekin ibiliko balitz, hark basoez asko daki eta* (M. Amuriza). Adberbio batzuk ere hartzen dute *-txo*: *berandutxo, goiztxo, urrutitxo*.

**6.3.5c** Estandarrerako *-xe* indartzailea hobetsi den arren (ikus § 6.3.7), Hegoaldean, eta bereziki mendebaldean, ahozko erabileran *-ago* konparazio markaren aurretik ere ezar daiteke: *atzeratxoago, aurreratxoago, beheratxoago, berandutxoago, goiztxoago, goratxoago...*

### 6.3.6. *-tzar*

*Tzar* adj. kategoriako sarrera da hiztegietan, adiera hauek dituen: ‘gaiztoa, txarra; erraldoia’. Azken adiera honetan izenari loturik aurkituko dugu gehienetan eta, beraz, badirudi atzizki bihurtua dela:

ahotzar, atetzar, autotzar, dunatzar, eskutzar, etxetzar, eulitzar, ezpatatzar, gurdi tzar, hankatzar, harritzar, harresi tzar, hodeitzar, karabatanzar, karpatar, katutzar, liburutzar, listu-bola tzar, maletatzar, makinatzar, mamutzar, menditzar, nabetzar, piztitzar, plater-tzar, purutzar, sugetzar, sutzar, tititzar, tripa tzar, txoritzar, zakiltzar, zakurtzar, zalditzar

Adierari dagokionez, ez dago zalantzarik atzizki handigarrien artean sailkatzeko; hiztegiek ere ‘handi’ darabilte askotan definizioa ematerakoan, ‘katu handia’, ‘piztia handia’, ‘suge handia’. Baina ‘handia’ baino zerbait gehiago ere bada: balio adierazkorra duen atzizki den neurrian, bereziki handia, deigarri izateraino handia, edo horrelako zerbait adierazten duela esan daiteke. Hona zenbait adibide: *Erregaiak arriskutsu bihurtzen ditu hegazkinak, su hartzen baitute, eta berehala sutzar bihurtzen baitira* (Egunkaria); *Itxi ezak hire ahotzar hori, baboa!* (Goenkale); *Purutzar bat ezpainetan duela dator* (Goenkale); *Luxuzko hotel batean ostatatu ninduten eta autotzar dirdiratsu bat eman zidaten bazterrak kurritzeko* (Berrizbeitia); *Mundu guztia egon izanen da noizbait - une batez badere - jenderik gabeko eliza baten barrenean, eta jakin du nolako sentsazioa sortzen duten gogoan nabetzar isil horiek* (Rey); *Izugarrizko dunatzar batzuen erdian zeuden* (X. Aranburu).



### 6.3.7. -xe

Azkuek (1923-1925) dioen bezala, adjektiboei erantsirik ‘gehiegi’ adiera ematen dio oinarriak adierazten duen kualitateari (§ 14.10.3b), ekialdeko euskalkietan: *gazixe*, *handixe*, *ttipixe*. Erabilera orokorragoa da *-ago* konparazio markaren aurretik kokatzea bai adjektiboekin eta bai adberbioekin, ‘pitin bat’ adiera emanaz: *berrixeago*, *gaztexeago*, *handixeago*, *laburxeago*, *luzexeago*, *txikixeago*, *zaharxeago*; *aurreraxeago*, *atzeraxeago*, *beheraxeago*, *goraxeago*... Partizipio burutuek ere har dezakete *-xe*, ‘aski, nahikoa’ balioa emanik: *ahaztuxe*, *garatuxe*, *landuxe*, *utzixe*. *Eskual-herri betean, asko etxetarik haitzatu eskuara; utzia edo utzixea* (Hiriart-Urruti); *Ahaztuxe nituen lerrook, eta hala jarraituko zuten ez bagintuzte britainiarrek kolpetik iratzarri* (Berria).

Zalantza handiagoak sortzen ditu erakusleei eransten zaien *-xek* (*orduantxe*, *oraintxe* adberbioetan ageri denak). Eratorpen atzizkitzat hartu behar ote dugu? Batetik, balio indargarria ematen dio erakusleari, *hauxe*, *horixe*, *hone-xek*, eta, alde horretatik, defenda dezakegu marka gramatikal huts baino zerbait gehiago badela. Baina kokaguneari erreparatzen badiogu ikusiko dugu batzuetan postposizio atzizkiaren aurretik doala, baina beste batzuetan atzetik (*honetaraxe*, *honekintxe*, *horretarakoxe*, *holakoxe*...). Eta kapitulu honen hasieran flexio morfemen eta eratorpen morfemen arteko aldeak aztertzean esan dugunez, eratorpena beti doa flexioaren aurretik (§ 3.1j). Eta horrek esan nahi du nekez har dezakegula *-xe* benetako eratorpen atzizkitzat.

### 6.3.8. -xka, -xko (-ska, -sko, -zka)

Alomorfo edo aldaerei dagokienez, hiru txistukariak aurki ditzakegu: *horizka*, *horiska*, *horixka*. *Euskaltzaindiaren Hiztegiko* formak kontuan hartuaz, batasunerako *-xka* aukeratu da, oro har, forma adierazkorrak izaten direlako txikitasuna adierazten dutenak.

Balioari dagokionez, atzizki txikigarritzat hartuko dugu izenei eransten dieguen: *adaxka*, *arrainxko*, *bidexka*, *buruxka*, *gelaxka*, *herrixka*, *idisko*, *liburux-*

*ka, ligaxka, mendixka, mordoxka, ontzixka, sardexka, zuhaixka*. Adjektiboekin, bereziki kolore eta tamaina adierakoekin, goraxeago esan dugunaren arabera, ‘aski’, ‘samar’ esanahia eransten dio oinarriari, ‘aski luzea’, ‘lodi samarra’. Kolore adjektiboei ‘gorriaren antzekoa, gorrira jotzen duena’, ‘horiaren antzekoa, horirantz jotzen duena’... esanahia eransten die *-xka, -xko* atzizkiak (§ 14.10.3a): *berdexka, gaiztoxko, gaztexko, gorrixka, horixka, ilunxko, lodixka/lodixko, luzexka/luzexko, urdinxka, zurixka*. Testuetan hainbat aldaera aurkituko ditugu: *luzezka, luzeska, berdeska, horixka, horizka, zurizka*... Adberbio batzuk ere har dezakete *-xka, -xko*: *beranduxko* ‘berandu samar’, *urrunxko* ‘urrun samar’.

### 6.3.9. Beste atzizki batzuk (*-kila/-kilo, -xkila, -tila, -ko; -ail, -antz, -ats, -kara, -zta*)

**6.3.9a** Badira atzizki gehiago ere literatura tradizioan, baina adibide gutxi aurkitu ditugu gaur egun; eta, oro har, ihartutzat eman ditzakegu. Batetik, *-ko*, animalia izenei eransten zaiena, *astoko, azeriko, mandoko, otsoko, zozoko*... eta balio txikigarria duena. Izenei eransten zaie Lafittek jasotzen duen *-xkila* ere, *buruxkila, jaunxkila* (gutxiespenezkotzat ere har daitekeena, ‘señorzuelo, señoritingo’ ematen du ordain OEHK), *lanxkila, puxkila*. *Otsail azken arte, lanxkila batzuk baiarik ez nituen egiteko, baina laster denentzat izan zen lan* (Etxehandi); *Orduko nextak etziren Paueko, Tolosako edo Pariseko jaunxkilen ondotik ibiltzen* (Zerbitzari). Izen kategoriako oinarria hartzen du balio txikigarria erans-ten dien *-tila* atzizkiak ere, *kutxatila, lehiatila, neskatila*. Adjektiboa oinarri duela, *harroskilo* (*On Camillo bezalako harroskiloen panparroikeriek ez gaituzte inondik ere beldurtzen*, Biguri). Izenek eta adjektiboek har dezakete *-kilo/-kila* izen kategoriako eratorriak sortzeko: *aberaskilo, andrakila, astakilo, gizonkilo, potrokilo* (sagar mota bat). Adierari dagokionez, askotan gutxiespenezko kutsua hartzen dute eratorri hauek. Ikus ditzagun adibide batzuk: *Proserpine andereñoa: ezin duzu egunik aurkitu nabarmenkilo horientzat?* (Jon Agirre); *Sinesgaitza da baina Abramovich bezalako aberaskilo batek markatu dezake artearen irizpidea* (Argia); *Ez dago lehengo kemenik, gizonkilo potroga-beak dira gaurko heroi guztiak* (Linazasoro).

**6.3.9b** Badira kolore adjektiboei eransten zaizkien irizpen atzizkiak ere, ondoan dituzten izenek adierazten dutena erabat kolore horretakoa ez dela aditzera emateko; bestelako izenondoak direnean oinarri, ‘samarra’, ‘nahikoa’ gradua adierazten du atzizkiak. Horrelakoak ditugu *-ail* (*berdail, gorrail, xurail*), *-antz* (*gaziantz, gorriantz, hotzantz...*), *-ats* (*gorrats*), *-kara* (*gorrikara, horikara, luzekara, nabarkara, zabalkara, zurikara*), *-zta* (*gorrizta, horizta...*), *-xka* txikigarriaren aldaeratzat ere har daitekeena.

## 6.4. Eratorpena. Atzizki zenbatzaile-sortzaileak

### 6.4.1. *-kun, -koitz, -na, -garren*

**6.4.1a** Hala sailkatzen ditu Azkuek (1923-1925) atzizki hauek, zenbatzaile-sortzaile gisa, alegia: *-kun, -koitz, -na (-ra), -garren*. Ez dira, ordea, guztiak sail berekoak: lehen biek, zenbatzaile ‘adjektiboak’ sortzen dituzte; bigarrenak, zenbatzaile ‘banatzaileak’ eta, azkenak, zenbatzaile ordinalak. Hirurak batzen dituenak, zenbatzaile kategoriako oina hartzea litzateke.

EGLU-I liburukiak, determinatzaileen artean zenbatzaileak aztertzean, ‘adjektibo biderkatzaile’ gisa aurkezten ditu *-kun* edo *-koitz* atzizkiez sortuak, bi atzizki hauen arteko mugak zein diren zedarritzea erraza ez dela ohartaraziaz. ‘Distributiboak’ dira *-na* atzizkia erantsiz sortzen direnak, “edozein zenbaki-rekin” sor daitezkeenak. Eta zenbatzaile ‘ordinalak’, zenbatzaile hutsari *-garren* erantsiaz osatuak. Trask-ek (2003) ere ‘zenbatzaile banatzaile’, eta ‘zenbatzaile ordinal’ terminoak darabiltza azken biak definitzeko. Hala ere, zenbatzaile banatzaileak determinatzaileak dira hizkuntzalari hauen ustez, dagokien kardinalaren leku bera hartzen dutelako<sup>6</sup>. Zenbatzaile ordinalak, al-diz, adjektibo lirateke Trasken iritziz.

**6.4.1b** Nolanahi ere, hemen axola zaigun auzia hauxe da: zer dira flexio morfema ala eratorpen morfema? Lehenik, bada desberdintasun nabarmen bat

---

<sup>6</sup> Baina zenbatzaile banatzailea duen sintagma ezin da subjektu posizioan ageri.

*-kun*, *-koitz* eta gainerakoen artean. Bi hauen emankortasuna oso mugatua da: baditugu *bakoitz*, *bikoitz*, *hirukoitz*, baina, *zortzikoitz*? edo *hamaboskun*? Bestalde, badirudi determinatzaileen sailean baino hobeto sailkatuak leudekeela adjektiboen artean, ondoren *-tasun* har baitezakete gainerako izenondoak bezala (*bikoitzasun* edo *hirukoitzasun*), bai eta aditz kategorია eratorri ere horietatik (*bikoiztu*, *hirukoiztu*...).

*-na* atzizkiarekin sortzen diren zenbatzaileek ere ondoren *-ka* aditzondo sortzailea har dezakete, gorago ikusi dugun bezala (§ 6.2.3). Honek, *-na* eratorpen atzizkien artean sailkatzera eramango gintuzke. Azken batean, zenbatzaile kategoriari erantsiaz, kategoría bereko elementuak sortuko lituzke, “baina aurrekaria pluralez eskatzen du” (EGLU-I: 138). *-garren* atzizkiari dagokionez, *-ko* (*-go*) har dezake ondoren (*bigarrenko*, *hirugarrenko*...), baita *-ik* adverbio-sortzailea ere (*bigarrenik*). Areago, *-tto*, *-txo* txikigarria ere ager daiteke *-garrenen* ondoren (*bigarrentxo*).

**6.4.1c** Hitz batean, bai *-na* eta bai *-garren* edozein zenbatzaileri erants dakizkioke (emankortasun osoa dute), eta, alde horretatik, flexioaren pareko dira. Baina ez da nahitaezkoa zenbatzaileak atzizki horiek hartzea (eta ‘nahitaezkotasuna’ da flexio hizkien ezaugarrietako bat) eta, bestalde, hitz eratorrien oinarri izan daitezke.

## 6.5. Eratorpena. Aurrizkiak (*ber-/bir-*, *des-*, *erdi-*, *ez-*)

### 6.5.1. Sarrera

**6.5.1a** Atzizkiek ez bezala, aurrizkiek ez dute oinarriaren kategoría aldatzen: *birrarto*, *desegin*, *desberdin*. Arto izena da eta *birrarto* ere bai; *egin* aditza da eta *desegin* ere bai; *berdin* adjektiboa da eta kategoría berekoa da *desberdin* ere. Hizkuntzalariek bigarren ezaugarri bat ere nabarmendu dute, kategoría bateko baino gehiagoko oinarriari lotzen zaizkie aurrizkiak; beheraxeago ikusiko dugu izenek eta aditzek har dezaketela *bir-* eta aditzek zein adjektiboek *des-*.

**6.5.1b** Bestalde, gauza jakina da euskal aurrizkien urritasuna, bai eta urritasun honen aurrean euskal gramatikariek izan duten kezka ere (hor daude adibidez Mitxelenak Arantzazuko biltzarrerako eginiko txostenean esandakoak). Areago, euskal aurrizki deitzen ditugun horietatik batzuk latinetik edo erromantzetik hartuak ditugu. Aurrizkien ordain asko hitz elkarketan aztertuko ditugu (§ 7.2.2.3g, § 7.2.2.4). Izan ere, bi motatako aurrizkiak bereiz ditzakegu, oinarriarekin duten harremanaren arabera: oinarriaren modifikatzaile huts direnak, eta argumentu egitura dutela esan daitekeenak (Gràcia & Azkarate 2000). *Prefijo* eta *prehistoria* eratorriak dira, hurrenez hurren, bi balio horien adierazle. *Prefijo* bada *pre-* (aurretik) doan hizkia; baina *prehistoria* ez da aurreko historia, baizik ‘historiaren aurreko garaia’; horregatik esan dezakegu *pre-* argumentu egituradun preposizioen pareko dela, *prehistoria* izeneko burua, eta *historia* osagarria. Euskarak burua eskuinean duenez (§ 1.4), eskuineko osagaien bidez ordezkatzeko ditugu erdal argumentudun aurrizkiak (*pre-*, *post-*, *contra-*, etab.). Modifikatzaile direnak, berriz, ezkerreko osagaien bidez. Hurrenez hurren, *historiaurre*, *gerraoste* / *aurrizki*, *gainzama*. Esan bezala, hitz elkarketan aztertuko ditugu egitura hauek (ikus “Mugakizun bereziko izen elkartuak” § 7.2.2.3g eta “Mugatzaile bereziko izen elkartuak” § 7.2.2.4). Hemen aztertuko ditugun aurrizki guztiak, jakina, dagozkien oinarrien modifikatzaileak dira.

### 6.5.2. *ber-/bir-*

**6.5.2a** Lema aukeratzea ez da erraza. Villasantek *bir-* hautatu du; Lafittek *bir-* eta *ber-* aurrizkiak (pluralean) aipatzen ditu; Mitxelenak (1977b) ere “prefijo *ber-*, *bir-*” dio. Azkuek morfema bakar baten alomorfozat hartzen dituela esan daiteke, *bir-* askoz emankorragoa dela zehaztuaz. Izenari erantsitako hitz zaharretan, bestalde, *bir-* da ageri den alomorfoa; zenbatzailearekin, oster, *ber-* (berrogei, berrehun). Larramendiren hiztegian (1745) *biak* ageri dira, nahiz badirudien *bir-* dela maizen erabilia; gainera, *ber-* formaren ondoan askotan *bir-* aurrizkiak osatutako aditza aurki daiteke. Lhandek (1926) ere bi alomorfoei ematen die sarrera. Zalantzak izanez gero, hiztegian begiratzea da gomendagarriena euskara estandarretako zein forma den egokiena jakiteko.

Aditzei lotzen zaie *ber-/bir-*, baina ez du edozein aditzek onartzen *ber-/bir-* aurrizkia, telikoak izan behar dute aditzok (Gràcia et al. 2000); hau da, amaiera jakina duen gertaera adierazten dutenek bakarrik har dezakete *bir-*. Horrek esplikatzen du *\*berregon* edo *\*berribili* modukorik sortu ezina.

**6.5.2b** Hiztegiak *ber-/bir-* aurrizkidun aditz askori eman diote sarrera, gaztelaniazko *re-* aurrizkidunen ordain gisa. Euskaltzaindiak, ordea, literatura tradizioan ageri direnak arautu ditu estandarerako: *berraztertu*, *berregin*, *berreraiki*, *berrerosi*, *berresan*, *berreskuratu*, *berrezarri*, *berrikusi*, *berpiztu*, *berretsi*, *birjaio*, *birlandatu*, *birlandu*, *birloratu*, *birmoldatu*, *birsaldu*, *birsortu*. Aditzak adierazten duen ekintza edo gertaera errepikatzea, berriro gertatzea, hori da aurrizkiak gehitzen dion balioa.

**6.5.2c** Euskararen ondare lexikoan aurki ditzakegu izenari *bir-* erantsirik sorturiko izen eratorriak ere: *birrarto*, *birrazi*, *birgari*, *birrin*, *birloba*, *birlo-  
ra*, *birzahi*... ‘Bigarren aldiz lortzen dena’ izan daiteke oro har izen hauen adiera. Eratorbide ihartutzat eman daiteke. Mota honetakoak ditugu *birraitona* edo *birramona* ere.

**6.5.2d** Bi aurrizki ezin dira metatu, baina bai hitz berean aurrizkia eta atzizkia azaldu; zehazkiago esateko, aurrizkidun aditzak, beste edozein aditzek har ditzakeen atzizkiak hartzen ditu: *berrikusle*, *berronespen*, *berpizgarri*, *berpizkunde*...

### 6.5.3. *des-*

**6.5.3a** Euskarak bere egin du aurrizki erromantze hau eta euskal jatorriko oinarriari erantsi. Kategoria batekoak baino gehiagokoak izan daitezke oinarri hauek.

**6.5.3b** Aditz telikoek har dezakete *des-*, amaiera jakina duen prozesua edo gertaera adierazten dutenek. Aurrizkiak, berriz, ‘kontrakoa’ balioa ematen dio oinarriari; aditzoinak adierazten duen ekintzaren kontrakoa, alegia. Oraingoan ere ugariak dira hiztegiak hiztegi elebidunetan emandako ordainak, baina literatura tradizioan erabili gabeak. *Ber-/bir-* aurrizkia aztertzean esan bezala,

tradizioa dutenak edo azken urteetan sortu eta erabiliak hartu ditu kontuan Euskaltzaindiak; corpusetan ageri diren batzuk ere gehitu ditugu ondorengo artean: *desagertu*, *desarmatu*, *desberdindu*, *desbideratu*, *desegin*, *desitxuratu*, *desobeditu*. Maiztasun handiegirik gabe, baina beste hauek ere aurki ditzakegu corpusetan: *desadoretu*, *desadostu*, *deseman* (Zuz. arloan), *deseraiki* eta abar.

Ez da beti erraza euskal eratorria dugun ala mailegu egokitu hutsa den erabakitzea; hala gertatzen da, esaterako, *desamortizatu*, *desanexionatu*, *desinfektatu* edo *desordenatu* aditzen kasuan. Berez interpreta daitezke *amortizatu*, *anexionatu*, *infektatu* eta *ordenatu* oinarri hartu eta aurrizki bidez eratorririko aditz gisa; baina baita *desamortizar*, *desanexionar*, *desinfectar* edo *desordenar* gaztelaniazkoen egokitzapen gisa ere.

**6.5.3c** Hain emankorrak ez izan arren, adjektiboak ere izen daitezke oinarri: *desatsegin*, *desberdin*, *desegoki*, *deseroso*, *desleial*, *desonest*. Baita izenak ere: *deserri*, *desohore*, *desordu*, *desoreka*, *destenore*, *desplazer*. Hemen ere badira zalantza sortzen dutenak, eratorritzat hartu ala mailegu egokituztat: *desondra*, *desordena*.

**6.5.3d** *Des-* aurrizkia daramaten aditzek ondoren *-le*, *-tzaile*, *-pen*, *-garri* eta abar har ditzakete. Eta aurrizki honen bidez eratorririko adjektiboek, berriz, adjektibo oinarriak eskatzen dituzten atzizkiak har ditzakete, *-tasun*, edo *-tu*, esaterako. Izenek ere har dezakete *-tu* (*desohoratu*).

#### 6.5.4. *erdi*-<sup>7</sup>

Ez da erraza *erdibide*, *erdi-ase* edo *erdikusi* non sailkatu asmatzea. Izan ere, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* bi kategoria ematen dizkio *erdi* lexemari. Izena da batetik, beste izen baten eskuinean ageri dena, eta “mutur edo ertzetatik distantzia berera dagoen puntu edo aldea” adierazten duena: *erdi prezioan* (*saldu*), *erdi-lanak*, *erdibide*. Izen elkartu dira adibide horiek, zalantzarik

---

<sup>7</sup> Ikus *Hitz-Elkarketa/3* (1991: 163-170).

gabe; gehienez ere mugatzaile bereziko elkartutzat hartuko genituzke (hala egiten du *Hitz-Elkarketa/3* lanak ere). Adberbio kategoria ematen dio EHK, bestetik, “erdizka” adierarekin; balio honetako *erdi-* da izenondoan, adberbioen edo aditzen aurretik ageri dena (gaztelaniazko edo frantsesezko *semi-*aurrizkiaren parekoa): *erdi biluzik, erdi hilik, erdi hutsa, erdi hutsik, erdi-ikusi, erdi negarrez, erdi txantxetan, erdi zabalik*. *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ‘erdizka’ adiera honetan sartzen ditu *erdi gizon eta erdi emakume* ere, ‘erdizka’ balioa duelakoan. Beraz, kategoria bati baino gehiagori eransten zaion heinean, bat dator aurrizkien ezaugarriekin. Horrek eraman gaitu hemen sartzera erdal *semi-* aurrizkiaren baliokide den *erdi-*.

Adjektibo, aditz, adberbio eta izenei erantsirik doan *erdi-*ren adibideak dira, hurrenez hurren, ondorengoak. Guztietan ‘erdizka’ adiera du *erdik* (nahiz *Hitz-Elkarketa/3* lanean aitortu askotan ez dela erraza jakitea zein adierakoa den izenaren ezkerrean ageri den *erdi*, “erdizka” ala “mutur edo ertzetatik distantzia berera dagoen puntu edo aldea”, alegia):

erdi ahalke, erdi ase, erdi basati, erdi elbarri, erdi eri, erdi ezagun, erdi gorritua, erdi itxia, erdi liberal, erdi lo, erdi sendatua, erdi zuri

erdi iratzarri, erdi lagundu, erdi entzun, erdi ikusi... (emankortasun urrikoa)

erdi beztiturik, erdi biluzik, erdi edanik, erdi erotuta, erdi errenka, erdi ezkutatuta, erdi gaixorik, erdi galduta, erdi hutsik, erdi itxirik, erdi jantzita, erdi larrugorritan, erdi lotan, erdi makinalki, erdi negarrez, erdi txantxetan...

erdi arrain, erdi bertsolari, erdi emakume, erdi erdara, erdi eskale, erdi etorkin, erdi euskaldun, erdi gizon, erdi ilunpe, erdi sorgin, erdi uharte

Adjektiboekin eta adberbioekin da bereziki emankorra; askoz gutxiago aditzekin.

### 6.5.5. *ez-*

Azkuek, Villasantek eta Lafittek aurrizkien artean aztertzen dute, ukatzeko erabiltzen dugun elementu bera dela esanez. Nolabaiteko beregaintasuna



duenez, esan al daiteke aurrizki dela? Baietz uste dugu, beregaina denean perpaus mailako elementua delako, bereziki aditzaren inguruan ageri dena (§ 22.9.3.7). Ondoko adibideetan, berriz, izenari edo adjektiboari erantsirik aurkituko dugu: *ezaldi, ezbehar, ezezagun, ezgarai, ezgauza, ezizen, ezleku, ezordu, ezoren, ezuste; ezatsegin, ezaxola, ezberdin, ezdeus, ezezagun, ezgai, ezikasi, ezjakin...* Berehala ohartzen gara askotan ez dagoela alde handirik *des-* eta *ez-* aurrizkien artean eta bikoteak aurki ditzakegula, batez ere adjektiboak oinarri ditugunean: *desordu/ezordu, desatsegin/ezatsegin, desberdin/ezberdin...*

Batez ere izenondoari eransten zaizkion atzizkientzat izan daitezke oinarri aurrizkidun forma hauek: *ezdeustasun, ezjakintasun, ezdeustu, ezdeuskeria...*

### 6.5.6. Beste aurrizki batzuk: *erre-* (*arra-*), *anti-*

#### 6.5.6.1. *erre-* (*arra-*)

Villasantek (1974) aurrizkien artean sartzen du aurrizki hau, berez erdal *re*-aurrizkiaren euskarazko egokitzea baino ez dena. Ematen dituen adibide gehienak mailegu egokitzat hartuko genituzke, hala nola *erredoblatu, errekeritu, erremediatu, errendatu, errepartitu, errepika* edo *errezuzitatu*. Mailegu egokituak dira, halaber, OEhtik hartu ditugun *erreforma, errekalatu, errekontatu, errematxatu* eta beste asko. Euskal oinarria dute, ordea, beste hauek, *erreberritu, errebidatu, erregaldu*. Ipar-ekialdeko *arra-* aldaera ageri da *arrailoba, arramaiatz* edo *arraseme* izenetan, eta *arrabizi, arraerori, arragoratu, arraikusi, arrajin, arramoldatu* edo *arra-oritarazi* aditzetan. *Arra-* aldaera bizirik dago gaur ere ipar-ekialdean, honako adibide hauek erakusten dutenez: *Hitzeman du bestalde erien asurantzak kutxa arramoldatuko dela eta sei hilabete barne ezagunko dela hori nolatsu eginen den (Herria); Lehenagoko aldi batez aipatü badeitzüegü ere, arra-oritaraz dezagün, halaber, Domingo Garat trajeria hontan ariko direnetan kargü nausien etxekizaleak zoin diratekean (Herria).*

#### 6.5.6.2. *anti-*

Bada beste erdal aurrizki bat ere, *anti-*, tarteka euskal oinarriei erantsirik aurrizki dezakeguna; ez da emankorra, baina zenbait hitz eratorri sortu ditu: *antibertzale*, *antiamatasun*, *antimendekotasun*, *antisorgailu*...

## 7. Morfologia lexikoa: hitz elkarketa (I)

- 
- 7.1. Hitz elkarketa. Izen elkartuak (I). Dvandva motako elkartuak, atributu eta koordinazio egiturako elkartuak, tautologiazko elkartuak; 7.1.1. Sarrera; 7.1.2. Dvandva elkartuak; 7.1.3. Atributu eta koordinazio egiturako izen elkartuak; 7.1.4. Tautologiazko elkartuak
- 7.2. Hitz elkarketa. Izen elkartuak (II). Mendekotasunezko elkartuak; 7.2.1. Sarrera; 7.2.2. Izen+izen kategoriako elkartuak. *Eguzki-lore*: mendekotasunezko izen elkartuak; 7.2.2.1. Sarrera; 7.2.2.2. *Behi-esne* moduko izen elkartu arruntak; 7.2.2.3. Mugakizun bereziko izen elkartuak; 7.2.2.4. Mugatzaile bereziko izen elkartuak; 7.2.3. Aditzoin+izen kategoriako elkartuak. *Jarleku* mota; 7.2.4. 'Osagarri-buru' egiturako izen elkartuak; 7.2.5. *Lo falta*; 7.2.6. *Asmo, behar, gogo, gura, nahi, beldur, larri, min, egarri, gose, uste* mugakizun dutenak; 7.2.7. Izen elkartu sintetikoak; 7.2.7.1. Sarrera; 7.2.7.2. Egile adierako elkartu sintetikoak; 7.2.7.3. Ekintza adierako elkartu sintetikoak; 7.2.8. Aposizio egiturako hitz elkartuak; 7.2.8.1. Sarrera; 7.2.8.2. Izen propioa + izen arrunt bizigabea; 7.2.8.3. Izen arrunta + izen arrunta; 7.2.8.4. Izen propioa + izen arrunt biziduna / izen arrunt biziduna + izen propioa; 7.2.8.5. *Jaun/andre* osagaitzat dutenak; 7.2.8.6. Aposizio egiturako elkartuak eta atribuzio egiturakoak; 7.2.9. Izengoiti adierako izen elkartuak; 7.2.10. Izen elkartu exozentrikoak: *astaputz, artaburu, babalore, txoriburu, artabero, oilobusti...*; 7.2.11. Hitz-andana ihartuak: *udaberri, mutilzahar, frantses porru, etxeakoandre, erromako zubi, aitoren seme*
-

## 7.1. Hitz elkarketa. Izen elkartuak (I).

### Dvandva motako elkartuak, atributu eta koordinazio egiturako elkartuak, tautologiazko elkartuak

#### 7.1.1. Sarrera

Bi osagai beregain elkartuz sortzen dugun kategoria lexikoari esaten diogu hitz elkartu. Hitz elkartuak, beraz, izenak, adjektiboak edo aditzak izan daitezke. Hitz elkartuko osagaien kategoria ere hartu beharko dugu kontuan:  $_{iz}[izen+izen]_{iz}$ ,  $_{iz}[aditzoin+izen]_{iz}$ ,  $_{adj}[izen+adj]_{adj}$ ,  $_{ad}[izen+aditz]_{ad}$ ... Osagaien kategoriaz gain, bien arteko erlazioa nolakoa den ere aztertu behar da; bi osagaiak maila berean dauden, ala bat den nagusi (§ 3.3).

Lehenik izen kategoriako hitz elkartuak aztertuko ditugu, eta, horien artean, maila berean dauden bi izenez osatuak. Maila berean egoteak esan nahi du ez duela osagai batek esanahi nagusia ematen eta besteak haren esanahia mugatu edo zehazten. Biek adierazten dutena hartuko du, maila berean, izen elkartuaren esanahiak. Esaterako, *izeba-osabak*, *seme-alabak*, *goi-beheak*, *ate-leihoak* edo *errege-erreginak* izen elkartuek osagai bakoitzaren esanahia biltzen dute; beraz, izen elkartu horiek bikotea (edo elementu gehiagoko multzoa) adierazten dute: *izeba(k)* eta *osaba(k)*, *semea(k)* eta *alaba(k)*, *goia(k)* eta *behea(k)*, *atea(k)* eta *leioa(k)* eta abar.

Badira horien antzeko beste izen elkartu batzuk, baina ez guztiz modu berekoak: *afari-merienda*, *errege-profeta*, *hego-ekialde*, *hego-mendebalde*, *hargin-meatzari*, *bertsolari-poeta* motakoak. Hauetan ez dugu bikotea, edo bitik gorako multzoa izendatzen; pertsona, otordu, puntu kardinal... bakarraz ari gara; osagaiek adierazten dutena bateratzen duen 'zera' bakarraz. Afaría eta merienda batera egiten dugu *afari-merienda* egitean; errege izatea eta profeta izatea, biak uztartzen zituen pertsonaz ari gara *errege-profeta* diogunean eta abar. Horixe da, beraz, atal honetan bereiziko ditugun hitz elkartuen arteko desberdintasun nagusia, bikoa (edo hortik gorako multzoa) adieraztea edo pertsona, leku, otordu... bakarra.

### 7.1.2. Dvandva elkartuak

**7.1.2a** Inguruko hizkuntzekin alderatuta, hitz elkartu mota hau da euskararen bereizgarrietako bat; alegia, euskarak bizi-bizirik gorde ditu mota honetako elkartuak, baina inguruko hizkuntzetan ez dugu aurkituko horrelakorik. Sanskritoari buruzko gramatikak idatzi zituztenek eman zioten izena elkartu mota honi, dvandva ‘bikotea’. Ondoren Uhlenbeck-ek (1911) ekarri zuen deitura eta sailkapena euskarara eta Azkuek eman zion jarraibidea, *kopulatibo* izenaz bataiatuak. Hemen izen dvandvak aztertuko ditugu, izen kategoriako osagaiak dituztenak; baina harreman mota bera aurki dezakegu adjektiboen, aditzen eta adberbioen kasuan ere (§ 8.1, § 9.2, § 9.4.1). Askoz emankortasun urriagokoak dira bi zenbatzaile elkartuaz osatzen ditugunak —*gutxi-asko*, *zortzi-hamar*, *hirurehun-laurehun...*— edo galde hitzekin osatuak —*noiz-nongo*, *zer-nolako*—<sup>1</sup>.

Bi izenez osatuak aztertuko ditugu ondoren; hots, izen elkartu dvandvak.

**7.1.2b** Dvandva elkartuko izenak maila berekoak direla esan dugu. Eta horrek eskatzen du biak azpikategorizazio berekoak izatea: pertsona adierazten dutenak, animalia izenak, izen bizigabeak, izen propioak... Lehen bereizketa, beraz, irizpide honen arabera izango da.

Izen bizidunez osatuak dira *aita-amak*, *aita-semeak*, *aitona-amonak*, *ama-alabak*, *ama-semeak*, *amona-ilobak*, *anai-arrebak*, *andre-gizonak*, *dama-galaiak*, *duke-dukesak*, *errege-erreginak*, *gizon-emakumeak*, *izeba-osabak*, *jaun-andreak*, *lehengusu-lehengusinak*, *maisua-maistrak*, *marinel-merkatariak*, *nagusi-etxeandreak*, *neska-mutilak*, *osaba-ilobak*, *seme-alabak*, *senar-emazteak*. Baita beste hauek ere: *bildots-ardiak*, *idi-behiak*, *zozo-birigarroak*...

Izen bizigabeak —konkretuak zein abstraktuak— dituzte, ostera, osagai ondorengo dvandva elkartuek: *ate-leihoak*, *ardo-ogiak*, *arto-babarrunak*, *atabal-danbolinak*, *begi-bekokiak*, *begi-belarriak*, *begi-bihotzak*, *bihotz-gogoak*,

---

<sup>1</sup> Argibide zehatzagoak edo hemen ematen ditugun adibideen testuingurua ikusi nahi dituenak jo dezake *Hitz-Elkarketa/1* (1987: 151-175) argitalpena.

*beso-mihiak, buru-buztanak, buru-belarriak, belar-landareak, esku-oinak, ezpain-masailak, gatz-ozpinak, gogo-bihotzak, goiz-arratsak, gose-egarriak, hanka-lepoak, hotz-beroak, janari-edariak, kezka-nekeak, landa-baratzak, lepo-belarriak, mendi-zelaiak, neke-oinazeak, on-gaitzak, ogi-ardoak, pata-ta-ilarrak, porru-patatak, zeru-lurrak, zoko-bazterrak...*

Badira itxuraz aditzointzat hartuko genituzkeen osagaiez eratuak ere, edo aditzetik eratorritako izenez: *esan-eginak, harremanak, itaun-erantzunak, jan-edanak, joan-etorriak, sal-erosketak...* Baina bi aditzoin elkartuz ezingo genuke izen kategoriako elkaturik sortu; beraz, nahitaez ondorioztatu behar dugu izen balioa hartzen dutela horrelako hitz elkartuetan. Izan ere, *esan(a), egin(a), itaun(a), erantzun(a), jan(a), edan(a)...* izen balioan ere erabiltzen ditugu; eta hala jaso ditu *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*.

Askoz emankortasun urriagokoak izanik ere, baditugu gure literatura tradizioan izen propioez osatutako dvandvak: *Afrika-Asiak, Axular-Etxepareak, Azpeiti-Azkoitiak, Bilbo-Iruñeak, Bizkai-Gipuzkoak, Oria-Bidasoak, Sakana-Burundak, Unamuno-Barojak*.

**7.1.2c** Azkueren ‘compuesto copulativo’ deituratik erraz ondoriozta daitekeen bezala, *eta* juntagailuaz loturik ere eman ditzakegu goiko hitz elkartu horietako asko eta asko: *seme(a) eta alaba(k), aita eta ama, begiak eta belarriak, errege eta erregina(k), izeba eta osaba(k), lepoa eta belarriak, ogia eta ardoa* eta abar.

Horrek dakar, esan bezala, izen elkartuak (gutxienik) biko multzoa izendatzea. Eta horrek dakar, aldi berean, dvandva elkartuak pluralean erabili beharra, edo ez, behintzat, singularrean. Hau da, artikulua plurala, erakusle plurala, edo zenbatzailea hartu behar du dvandva motako hitz elkartu bat buru duen sintagmak. Alde horretatik ezin dira zuzentzat jo azken boladan maiz irakurtzen ditugun mota honetako erabilerak: *zure seme-alaba udalekuetara bidali nahi baduzu... Seme-alaba* euskaraz ‘semea(k) eta alaba(k)’ adierazteko erabili izan da, eta komeni da erabilera horri eustea. ‘Semea edo alaba’ esan nahi bada, zehar-marra (*/*) izan daiteke hori adierazteko bide laburra: *zure seme/alaba udalekuetara bidali nahi baduzu...*

Nolanahi ere, plural markaren derrigortasun hori dvandva elkartuak hartzen duen kasu markaren araberakoa ere bada. Nor, nork eta nori kasu markekin, hots, egiturazko kasuekin da nahitaezko plural marka; postposizioekin, errazago ager daiteke mugagabea: *Hemen ordea ez gabiltza hezur-haragizko gizakien artean* (Mitxelena); *Aho-mihitan kurritu zuen Aldudeko jaun mirikuaren famak* (J. Etxepare); *Gizon ospetsuak hezur-mamitan ikustea* (Lizardi). Partitibo ere har dezakete, jakina: *Iñork ez dit haren izen-deiturarik eman* (A. Zavala); *Ez aita-amarik, ez nausirik* (J. Etxepare); *Inork nahi al du porru-patatarik?*

**7.1.2d** Bi osagaiak azpikategorizazio berekoak izatea baino zerbait gehiago behar dugu, dena den, dvandva motako hitz elkartua osatzeko. *Mahai* eta *zeru* izen bizigabeak dira, baina nekez osatuko dugu *mahai-zeruak* (edo *zeru-mahaiak*) elkartua. Zergatik? Osagaiak bateragarriak izatea eskatzen delako erlazio mota honek. Eta bateragarritasun hori etor daiteke esanahi kidetasunetik (Azkuek ‘relación de afinidad’ deitu zuena) zein antonimiatik. Izen bizidunen kasuan, esanahi kidetasuna, ahaidetasun harremana izan daiteke (*izeba-ilobak*), edo ahaidetasun harreman batean, edo oro har multzo batean, sexu batekoak eta bestekoak izatea (*aita-amak, izeba-osabak, neska-mutilak*), edo gizarte estatus batean sexu batekoak eta bestekoak, edo maila batekoak eta bestekoak izatea (*duke-dukesak, errege-erreginak, ikasle-irakasleak, uga-zaba-langileak*).

Izen bizigabeen kasuan ere arlo semantiko berekoak behar dute izan, edo, behintzat, esanahiaren aldetik bateragarriak: dela txoriak (*zozo-birigarroak*), animaliak<sup>2</sup> (*behi-idiak, zakur-katuak*), barazkiak (*aza-porruak, porru-patatak*), gorputz-atalak (*aho-mihiak, esku-oinak, hanka-lepoak, lepo-belarriak*), soinu-tresnak (*atabal-danbolinak*) zein erakunde izenak (*aldundi-udaletxeak*).

Antonimia harremana ere indartsua da dvandva elkartuak eratzeke: *atze-aurreak, estutze-lasatzeak, galde-erantzunak, gau-egunak, goi-beheak, goiz-arratsak, hezur-mamiak, zeru-lurrak*... Egia da, bestalde, antonimia harremanean

---

<sup>2</sup> Ohart gaitezen, hala ere, ‘animalia’ kategoria zabala baino bikote estuagoak ageri direla adibideetan: animalia mota berekoak (*ardi-bildotsak*), etxeko animaliak (*zakur-katuak*), ukuilukoak (*behi-idiak*) eta abar.

ere badagoela esanahi kidetasuna, esan baitaiteke arlo bereko bi muturrak direla elkartzen ditugunak.

**7.1.2e** Dvandva motako hitz elkartuen tradizioko erabilera kontuan izanik eman zuen Euskaltzaindiak araua, mota honetako elkartuak direla egokienak bikoteak izendatzeko: “erdarazko *los hijos / les enfants, los reyes / les rois* edo *los padres / les parents* esamoldeen (hau da, bikotea izendatzen duten sintagmen) ordain jatorrak *seme-alabak, errege-erreginak* eta *aita-amak* (edo *gurasoak*) dira euskaraz; inoiz horien lekuan agertzen diren *erregeak, aitak* bezalakoak ez dira onargarriak. *Nombre y apellidos* esateko *izen-deiturak* edo *izen-abizenak* dugu, orobat, azalbide arteza: han-hemen ugaritzen hasi zaizkigun *izena eta abizenak* gisako koordinazio sintagmak alferrikakoak dira, sarri, horrelakoetan”.

Ikus Euskaltzaindiaren 25. araua: “Hitz elkartuen osiera eta idazkera”, Donostian, 1995eko urtarrilaren 27an onartua.

**7.1.2f** Berrelkarketa. Gehien-gehienetan bi izen elkartzen ditugu izen elkartu dvandva sortzeko. Baina hitz elkarketa baliabide errekurtsiboa da, behin eta berriz erabil daiteke (§ 3.3d). Baita hitz elkartu mota honetan ere. Bi osagai baino gehiago izan ditzakegu: a) hiru izen (edo gehiago), guztiak maila berean daudenak (*ama-seme-alabak, hezur-haragi-muinak, neke-trabaju-penaz, nahigabe-pena-nekeak, pago-haritz-pinudiak*); b) dvandva elkartua beste izen elkartu bateko mugatzaile (*gargar-gari sortak, Sakana-Burunda haranetan, Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea*); c) dvandva elkartua beste izen elkartu bateko mugakizun (*eper aita-amak, marrajo hortz-haginez, Euskal Irrati-Telebista*).

Azken urteetan sortu dira *Behobia-Donostia lasterketa, izar triangelu konexio* edo *ama-alaba harremana* moduko hitz elkartuak ere. Ez dira aurreko paragrafoan aipatuen guztiz parekoak, egitura hauek ez baitute ‘Behobia eta Donostia lasterketa’, ‘ama eta alaba harremana’ adierazten; ez dira, beraz, *gargar-gari sortak* (garagar eta gari sortak) bezalakoak. Dvandva itxurako lehen osagaia izan arren, Behobia eta Donostia arteko lasterketa, ama eta ala-



ba(ren) arteko harremana, izar eta triangelu erako konexioak... moduan ulertu behar ditugu elkartu horiek.

**7.1.2g** Eratorpenean oinarri ere izan daitezke dvandva elkartuak aditz eratorriak sortzeko, *aitamatu*, *gatz-ozpindu*, *izu-ikaratu*, *senar-emaztetu*. Beste batzuetan, bigarren osagaien bakarrik ageri den atzizkia badagokio lehenengoari ere: *seme-alabatxo* esan arren, argi dago *seme(txo)* ulertu behar dugula. Beste horrenbeste gertatzen da aurrerago aztertuko ditugun *aldi* eta *gai* izenei dagokionez honako adibide hauetan: *poz-negarraldi*, *senar-emaztegai*. Bietan ulertzen dugu ‘pozaldiak eta negarraldiak’, ‘senargai eta emaztegai’.

**7.1.2h** Dvandva elkartuak buru bikoak direla esan dugu; hau da, bi osagaiak daude maila berean, biak dira buru. Nola jakin, beraz, zein hurrenkeratan eman behar ditugun? Ez dago arau zorrotzik honetan; adibidez, *ogi-ardoak* eta *ardo-ogiak*, biak aurki ditzakegu. Hala ere, Euskaltzaindiak bi arau aipatu zituen: a) osagaien luzerari dagokionez, silaba gutxienekoa jartzen dugu lehen lekuan gehienetan; b) generoari dagokionez, ar/eme ordena erabiliago da kontrakoa baino (*jaun-andreak*, *senar-emazteak*, *seme-alabak*, etab.). Baina ez dira arau zorrotzak, hortxe ditugu *izeba-osabak*, *neska-mutilak*... Beste irizpide hauek ere aipatu dituzte gramatikariek: gizartean goragoko estatusa duena, edo familia-harremantant zaharrena dena lehenik: *aita-semeak*, *ama-alabak*, *osaba-ilobak*, *nagusi-lan-gileak*... Espazioan, goian dagoena lehenik: *zeru-lurrak*, *goi-beheak*<sup>3</sup>...

Idazkerari dagokionez, marrarekin idaztekoak dira dvandva motako hitz elkartuak.

### 7.1.3. Atributu eta koordinazio egiturako izen elkartuak<sup>4</sup>

**7.1.3a** Maila bereko bi izenez osaturik, bikotea (edo bitik gorako multzoa) adierazten dute aztertu berri ditugun dvandva elkartuek. Horretantxe bereiz-

---

<sup>3</sup> Ikus Jacobsen (1982).

<sup>4</sup> Argibide gehiagotarako ikus Azkarate (1990b: 174-190); *Hitz-Elkarketa/3* (1991: 77-99); Perez Gaztelu, Zabala eta Gràcia (2004).

ten dira, hain zuzen, batetik, hemen aztertuko ditugun *afari-merienda*, *bertsolari-poeta*, *errege profeta*, *erretor bikario* edo *irribarre* moduko egituretatik, eta, bestetik, *hegazkin tramankulu*, *Jainko haur*, *neskatila zerbitzari* edo *harri zilindro* gisakoetatik. Bi izenez osaturik egon arren, elkartu hauetan pertsona, otordu, objektu... bakarra izendatzen dugu; ez da ‘afaria eta merienda’, baizik aldi berean afari eta meriendatzat hartzen dugun otordua. *David errege-profeta* diogunean, ez gara ari errege batek eta profeta batek osatzen duten bikoteaz, baizik pertsona bakarraz, bere baitan errege izaera eta profeta izaera biltzen dituenaz. Bide beretik, pertsona edota objektu bakarra izendatzen dugu *neskatila zerbitzari* zein *harri zilindro* diogunean.

Baina pertsona edo objektu bakarra izendatu arren, desberdina da goian eman ditugun hitz elkartu horietako bi izenen arteko harremana. Lehen motakoetan, bi izenak maila berean daudela esan dugu, ‘errege eta profeta’, ‘afari eta merienda’ bietatik duela, maila berean, sortzen dugun izen elkartuak. Horrexegatik esaten zaie ‘koordinazio egiturako izen elkartu’. *Neskatila zerbitzari* elkartua darabilgunean, aldiz, ez gara ari aldi berean neskatala eta zerbitzari den gizakiaz, baizik neskatala batez; ezaugarri gisa zerbitzari izatea duen neskatalaz<sup>5</sup>. Hala gertatzen da *harri zilindro* elkartuan ere; harria da adierazten duena zer objektu motaz ari garen, eta *zilindro* osagaiak beste harri-mota batzuetatik bereizten du. Ezin da esan, beraz, bi osagaiak guztiz maila berean daudenik; bietatik bat da zer izendatzen dugun adierazten duena, eta besteak ezaugarri edo bereizgarri bat gehitzen dio, gutxi gorabehera adjektiboak izen bati gehitzen dion modura. Horrexegatik hartu dute euskaraz ‘atributu egiturako elkartu’ izena. Xehekiago aztertuko dugu ondoren bi egitura mota hauetako bakoitza.

**7.1.3b** Koordinazio egiturako izen elkartuak. Esan berri dugunez, maila berean dauden bi izenez osatuak daude koordinazio egiturako elkartuak, baina bi izen horien baturak pertsona, objektu, leku... bakarra adierazten du. Horrelakoak dira: *afari-merienda*, *Ama Birjina*, *apostolu ebanjelista*, *bertso kanta*, *bertsolari-poeta*, *erretor bikario*, *irribarre*, *kapitan pilotu*... Hemen sartu zi-

---

<sup>5</sup> Alderantziz ere uler daiteke, *zerbitzaria* da izendatu nahi duguna, eta zerbitzari horri *neskatila* ezaugarria gehitzen diogu.

tuen Euskaltzaindiak *nafar-euskaldun* modukoak ere, izentzat hartu zituelako biak eta ulertu izen elkartuak aldi berean nafar eta euskaldun dena izendatzen duela. Azken urteetan sortuak dira gaztelaniako koordinazio egiturako zenbait hitz elkarturi emandako ordainak: *galtza-gona*, *garbigailu-lehorgailu*, *jan-egongela* (jangela + egongela), *kafe antzoki*, *igorgailu-hargailu*, *irradi-iratzargailu*, *sukalde-egongela*. Gaztelaniaz koordinazio elkartutzat hartu dituzte *marxismo-leninismo* edo *udaberri-uda* modukoak ere (Val Álvaro 1999).

**7.1.3c** Atributu egiturako izen elkartuak. Bi izenez osatuak egonik ere, hitz elkartu mota honetan bietatik batek adierazten du zertaz ari garen (osagai nagusi dei diezaiokegu, beraz), eta besteak adjektiboaren pareko zeregina du; osagai nagusiaren ezaugarri edo bereizgarri bat adierazten du. Horrexegatik ez da harritzekoa askotan *osaba bertsolari* edo *neskatila zerbitzari* moduko egiturak aurkitzea; hau da, izen kategoriako lexemak ala adjektibo kategoriakoak sortzen dituzten eztabaidagai diren *-ari* edo *-tzaille* atzizkia daramaten osagaiak dituztenak (§ 4.2). ‘Osaba bertsolaria da’, ‘neskatila zerbitzaria da’ irakurketa ematen diegu halakoei. Bestalde, bi osagaietatik bat nagusi delako, Mendekotasunezko elkartutzat ere hartu dira hitz elkartu hauek (Perez Gaztelu, Zabala eta Gràcia 2004; Val Álvaro 1999).

Osagaietako bat adjektiboaren pareko dela esaten badugu, esperoko genuke halako funtzioa duen osagaia bigarrena izatea, osagai nagusiaren eskuinean agertzea, horixe delako euskaraz adjektiboaren kokagunea, izenaren eskuinekoa. Ez da, baina, beti horrela. Batzuetan bai, lehen osagaia da esanahia nagusia adierazten duena eta bigarrena izenondo kutsua hartzen duena. *B den A* moduan definitu zuen Euskaltzaindiak *Hitz-Elkarketa/3* lanean (1991) elkartu mota hauen egitura. Halako egitura dute ondorengo adibideak:

alkate asto, Ama Birjina, Ama Neskuts, ardi-lagun, armario-biblioteca, artzipreste pintore, asto-eme, diru-urre, etxe bizitza, gizon ale, harri zilindro, haur seme, hiri buruzagi, Ilargi Amandre, kanon-eredu, Kapitain pilotu, langile gizon, mutil saltari, neskatala zerbitzari, okilama, pago lizar, ume azeri, zakur galgo, zeinu seinale, zerrama...

*Sardiña jaten ari diren mahaia, bi aulki eta armario-biblioteca bat* (Saizarbitoria); *diru-urhe faltsu bat kurri-arazi nahi izanik* (Lafitte); *Muxikako olerkari*

*aundiaren antz aundia atera eutsan lauко onetan artzipreste-pintoreak* (Bitaño); *Yainkoak mundua egin ebanetik ez ebala alako ume azeririk egin* (Orixe).

**7.1.3d** Izenondo kutsua hartzen duen bigarren osagai horretan modu batekoak baino gehiagokoak aurki ditzakegu. Batzuetan animalien eta landareen sexua adierazten dugu, *ar* eta *eme* osagaien bidez; eta, konparazioz, bi atalez osatutako gauzetan, atal zulodunaren barruan sartzen dena ere bai (*astar, as-to-eme, iratze ar, iratze eme, lehoi eme, lore eme, molde ar, palmondo eme, tigreme...*). Pertsonen sexua ere adieraz dezakegu *gizon, mutil, andre* edo *neska* izenen bidez (*langile gizon*). Beste batzuetan ahaidetasuna adierazten du (*haur seme, okilama, zerrama...*). *Zakur galgo* izen elkartuan, berriz, zakur klasea adierazten du bigarren osagaiak (kontrako hurrenkera ikusiko dugu *sumpsuntive* motako elkartuetan (§ 7.2.2.3h)).

Beste batzuetan, ordea, bigarren osagaia da nagusia, eta lehena da adjektibo kutsua hartzen duena. *A* den *B* egitura dute mota honetako izen elkartuek (*Hitz-Elkarketa*3). Mota honetakotzat hartu zituen Euskaltzaindiak honakoak:

aita Jaungoiko, Ama Lur, anai apez, aurpegi-orri, dorre-etxe, Eliza Ama, eskola etxe, giltza hitz, hegazkin-tramankulu, Jainko aita, Jainko haur, makina-tresna, neskatilla zerbitzari, ostatu etxe, otso-zakur, patruila-kotxe, Seme Jainko, taberna-etxe, trator-makina...

Adibideei arretaz erreparatuz gero, berehala ohartuko gara mota berean sartu ditugula *aita Jaungoiko* eta *Jainko aita*. Biek onartzen dute sailkapen honi dagokion irakurketa; lehen izenak Jainkoa izendatzen du, aita den Jainkoa. Bigarrenak, ostera, ‘aita’, Jainkoa dena. Ikus dezagun nola ageri diren literaturan horietako izen elkartu batzuk: *Midikua dator bere otso-zakurrarekin* (Etxarren); *Koartelerantz zihoazen beren patruila kotxean* (X. Amuriza); *Auxe da Axularren liburu aipatuaren lenengoko arpegi-orrian dinoana* (Bitaño).

**7.1.3e** Mota honetakotzat har ditzakegu *mutil lagun* eta *neska lagun* ere, uler baitaiteke ‘lagun’az ari garela, eta lehen osagaiak sexua adierazten duela. Beraz, sexua adierazteko lehen osagaia zein bigarrena (ikus goiko *langile gizon*) baliatu da literatura tradizioan. Berriagoak diren *bonba-gutun, bonba-pakete*,

*iragarki gizon* eta abar ere hemen sailkatzekoak dira. Hizkuntzalari batzuek *apozizio* egiturako elkartutzat hartzen dituzte (§ 7.2.8).

Hirugarren mota bat ere bereiz daiteke, Euskaltzaindiak egin bezala: *A* nolako *B*, konparazio kutsua ematen diolako osagai batek besteari. *Begi gaztainak* diogunean, esaterako, norbaiten begiez ari gara, eta gaztainekin alderatzen ditugu begi horiek. Horrelakoak dira *etxe-orratz* edo *gaizkin deabru* ere; etxea eta gaizkina, orratzarekin edo deabruarekin alderatzen ditugu, hurrenez hurren. Eta horrela uler daitezke, neurri batean, goraxeago ikusi ditugun *alkate asto* edo *ume azeri* ere, astoarekin edo azeriarekin alderatuko bagenitu bezala alkatea eta umea.

**7.1.3f** Ez da zaila zehaztea zein irizpideren arabera bereizten ditugun koordinazio elkartuak eta atributu elkartuak. Besterik da adibide jakin bat bi sail horietatik zeini dagokion esatea. *Gizotso*, esaterako, zer da? Aldi berean gizona eta otsoa den biziduna? Gizona, tarteka otso bihurtzen dena? Edo *armairu-biblioteca*? Armairua da, biblioteca izateak, liburuak edukitzeko izateak bereizten duena beste armairu mota batzuetatik, ala altzari jakin bat, aldi berean armairu eta biblioteca dena? *Hitz-Elkarketa/3* lanean atributu elkartutzat hartu zen, eta hala egin dugu guk ere; baina erraz onartuko luke beste irakurketa ere: hau da, koordinazio elkartutzat hartzea. Nolanahi ere, hizkuntzan sailkapenak egitean askotan gertatzen dira zalantzak elementu jakin bat non kokatu behar den.

Idazkerari dagokionez, gehienetan marratxo bidez elkaturik ematen ditugu koordinazio elkartuak; atributu elkartuetan, ostera, modu bateko eta besteko idazkerak aurki ditzakegu, marratxodunak nahiz bi osagaiak bereiz ematen direnak.

#### 7.1.4. Tautologiazko elkartuak

**7.1.4a** Hitz elkartu mota honetan biltzen ditugun bi izenak ere maila berean daude; buru biko egituratzat hartuko genituzke, beraz, tautologiazko elkartuak. Hain zuzen ere, Euskaltzaindiak *Hitz-Elkarketa/I* lanean (1987) dvardva

elkartuetako azpimultzo gisa aztertu zituen; baina, aldi berean aitortzen zuen atributu edo koordinaziozko elkartuekin ere ahaidetasun nabarmena dutela, eta badirela arrazoiak izen elkartu moduok dvandva elkartuetatik kanpora tratatzeko. Ondoren, multzo berezia eskaini zien 1992ko sailkapenean (*Hitz-Elkarketa/4*). Horixe egin dugu guk ere; hirugarren multzo gisa aztertu.

**7.1.4b** Zein da, ordea, hitz elkartu mota honen berezitasuna? Tovarrek (1959) ‘geminados semánticos’ deitu zien, osagai biek esanahi bertsua dutelako. Literatura tradizioan jasotakoak dira honakoak:

abere-animaliak, agiri-paperak, atsegin-kontentuak, atsegin-gusto, alor-zelai, ebaluazio-neurketa, gogorantz-oroitza, gorro-txapela, izelonbre, katadera-sila, itsaso ozeano, lan-neke, poema-olerki, sasoi-edade, sermoi-prediku, udatiar turista, usatortola, usocolumba...

**7.1.4c** Tautologiazko elkartuek ez dute bikotea adierazten; izaki edo ‘zera’ bakarra da, sinonimo biz izendatzen dena (alde honetatik, beraz, gertuago daude koordinazio elkartuetatik). Bestalde, Euskaltzaindiak dioenez, ez dirudi euskaraz tautologiazko hitz elkartu hauek oso zaharrak direnik, gehienak XVIII. mendean gerozkoak baitira. Idazleen arabera ere bada mota honetako elkartuen ugaritasun edo urritasuna; Mendiburuk, esaterako, ia beste inork baino askoz gehiagotan darabiltza *neke-tormentu*, *neke-oinazeak*, *katadera-sila*, *sermoi-prediku*...

**7.1.4d** Bi izenez osatutako tautologia elkartuak dira gehien-gehienak, baina bada bat edo beste bi adjektiboz osatua dagoenik, *busti-palatal*, esaterako; edo bi aditzez, *onetsi-maitatu*, *ordain-kitatu*.

Leku izen propioetan, euskarazko eta gaztelaniazko izenak parez pare emateko sortu ditugun *Arrasate / Mondragón*, *Donostia / San Sebastián*, *Lizarrar / Estella* modukoak, edo erakunde izenenak ere —*Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascongados*, UPV/EHU (*Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea*)...—, tautologiazko elkartutzat har ditzakegu. Horrelako hitz elkartuetan zehar-marra (/) erabiltzea gomendatzen da euskarazko eta gaztelaniazko forma bereizteko.

**7.1.4e** Hitz elkartu hauek sortzeko arrazoia zein izan daitekeen azaltzen ere saiatu zen Euskaltzaindia (*Hitz-Elkarketa/I*: 160): “esanahi beretsuko hitz bietarik bat, bestea baino hagiz ezagunagoa izan arren, maileguzkoa izateagatik edo beste zenbait arrazoiengatik, sinonimo «jatorrago» edo «egokiago» batez plazaratu nahi izaten da maiz”. Euskararen kasuan, euskalkien arteko lexiko desberdintasunak errazteko ere baliatu izan dira tautologiazko elkartuak, euskalki bateko izena eta adiera bereko beste euskalki batekoa batera jarriaz.

## 7.2. Hitz elkarketa. Izen elkartuak (II). Mendekotasunezko elkartuak

### 7.2.1. Sarrera

**7.2.1a** Hemendik aurrera aztertuko diren izen kategoriako elkartuak mendekotasunezko elkartuak dira; hau da, osagaietako bat da nagusia, izen elkartuaren kategoria, azpikategoria eta oinarrizko esanahia ematen duena. Bestek modifikatu, mugatu egiten du osagai nagusi hori; edo, osagai nagusi horren osagarria adierazten du. *Mugakizun* deitu diogu euskaraz eskuinean ematen dugun osagai nagusiari, eta *mugatzaile* ezkerrekoari. Bi motatako harremana izan daiteke mugakizunaren eta mugatzailearen artekoa: modifikatzaile-buru harremana izango da gehienetan, baina zenbaitetan osagarri-buru harremana izango dugu, mugakizuna osagarri egitura duen izena denean (§ 3.3b).

**7.2.1b** Hitz elkarketa baliabide indartsua bada, are indartsuago da mendekotasunezko izen elkartuak sortzeko baliabidea; Euskaltzaindiak esan bezala (25. araua), horrelako ehunka eta ehunka sortu ditu euskarak azken hamarkadetan, terminologia beharrei erantzuteko askotan: “Erdal izen-konplementazio askoren ordaina, esate baterako, horrela ematen du euskarak: *guraso-elkarte*, *telefono-zenbaki*, *garapen-maila*, *zerga-biltzaile*”. Izan ere, ‘etiketak’ jartzeko baliatu ohi dira izen elkartuak, objektu, leku, baliabide, garai, gaixotasun, sentimendu... eta abarri izena emateko.

Zehazkiago esanda, hizkuntza gehienek ez dituzte berek sortzen terminoak, besteren batek sortutako terminoa egokitu baino ez du egiten. Baina horretan ere indar handiko baliabidea da hitz elkarketa. Eta ez orain bakarrik. BERPizkunde garaiko testuak hartuko bagenitu, *Eguna* egunkariko testuak hustu, lehen Eusko Jaurlaritzaren Aldizkari Ofizialeko terminoak aztertu, edo *Orotariko Euskal Hiztegia* eta horren atzean dagoen corpusa osatzera etorri diren administrazio- eta lege-testuak arakatu, berehala jabetuko ginatke zenbat eta zenbat izen elkartu dagoen hor, hemen aztertuko ditugunen egitura dutenak; adibide gutxi batzuk ematearren: *auzi-sari*, *diru-etxe*, *diru-sarrera*, *herri-ogasun*, *lan-bazkide*, *lan-legedi*, *lege-hausle*, *lege-adin*, *ogasun-paper* edo *zigortze-legedi*.

**7.2.1c** Hain ugariak izanik mendekotasunezko izen elkartuak, azpisailak egin dituzte gramatikariek bai euskaraz eta bai beste hizkuntza askotan ere. Horretarako, osagaien morfologia izan dute kontuan eta, horren arabera, hiru azpisail bereizi ditugu euskaraz: izen + izen egiturako hitz elkartuak, aditzoin + izen egiturakoak, eta izen + aditzetik eratorritako izen egiturakoak (hau da, <sub>iz</sub>[aditzoina + *-le*, *-tzaile*, *-era*, *-keta*, *-kuntza*, *-pen*, *-tze*]<sub>iz</sub> mugakizun dutenak). Hiru horiek dira, funtsean, azpisail nagusiak. Horien inguruan emango ditugu Euskaltzaindiaren *Hitz-Elkarketa/4* (1992) sailkapeneko hainbat eta hainbat hitz elkartu.

## **7.2.2. Izen+izen kategoriako hitz elkartuak.**

### ***Eguzki-lore*: mendekotasunezko izen elkartuak**

#### **7.2.2.1. Sarrera**

Bi izenez osaturiko elkartuak dira ondoren aztertuko ditugunak<sup>6</sup>. Horrelakoak dira *behi-esne*, *bizkar-hezur*, *burdin barra*, *ezpata-dantza*, *limoi-ur*, *txori-kaio-la* edo *zakar-ontzi*; baina baita beste hauek ere: *aurreiritzi*, *barne-lotura*,

---

<sup>6</sup> Ikus Azkarate eta Perez Gaztelu (2014).



*bertso-mota, bertsolari-fama, beso-azpi, gaztaina-kolore, gizon-sail, goikargu, hizkera-modu, lizar-ARBOLA, lore-sorta, mendi-gain* eta abar. Azken multzo honetako mugakizunek edo mugatzaileek badituzte zenbait berezitasun eta horregatik *Hitz-Elkarketa/4* lanean (1992) hiru azpimultzo bereizten dira sail honetan: a) *behi-esne* moduko izen elkartu arruntak; b) mugakizun bereziko izen elkartuak (eta hemen ere beste sei mugakizun-mota atzeman daitezke); c) mugatzaile bereziko izen elkartuak. Banan-banan ikusiko ditugu ondoren eta bakoitzaren xehetasunak aztertu.

Idazkerari dagokionez, oro har, bi modutara eman daitezke mendekotasunezko izen elkartuetako osagaiak: marratxoz loturik edo bereiz idatzirik. Salbuespenak daudenean azpisail bakoitzean adieraziko dugu zein den Euskaltzaindiak gomendaturiko idazkera.

#### 7.2.2.2. *Behi-esne* moduko izen elkartu arruntak

**7.2.2.2a** Ehunka eta ehunka dira mota honetako izen elkartuak; estandarizazioarekin batean asko ugaltu dira horrelako elkartuak. Areago, Euskaltzaindiak (25. araua) esan bezala, elkartu mota honek “Aukera paregabea eskaintzen du, orobat, erdal «izen + adjektibo erreferentzial» egiturak ordezkatzeko: *eskulan* (*trabajo manual / travail manuel*), *aho-literatura* (*literatura oral / littérature orale*), *ekonomia teoria* (*teoría económica / théorie économique*), etab. Bide honi eutsi behar litzaioke orain ere, ahal den guztian, erdal hitz-moldaera arrotzen menpekoegi bihurtu nahi ez badugu”. Egia da izen elkartua hautatu dela askotan lexiko-beharrak sortu direnean (izenlagun + izen egiturak ere bai), baina ez dira falta adjektiboa maileguz hartu dugun kasuak ere, corpusek erakusten digutenez: *amatasun baja, banku-partzuergo, eguzki-argi, hipoteka-kreditu* (baina baita *kreditu hipotekario* ere), *konstituzio-erreferendum* (eta *erreferendum konstituzional*), *industria-jarduera* (eta *jarduera industrial*), *lan-istripu, lehen sektore* (eta *sektore primario*), *planeta-sistema*, baina *atlas historiko, batzorde zientifiko, politika unibertsitario, sistema parlamentario...*

Badirudi erdal adjektiboaren esanahia zenbat eta urrunago egon oinarrian duen izenaren adieratik, orduan eta zailagoa egiten zaigula euskaraz elkarretara jotzea (*kutxazain automatiko, jogurt natural, markagailu elektronikoko*) eta, kontrara, zenbat eta “erreferentzialagoa” izan, oinarrian duen izenarekiko lotura zenbat eta gardenagoa eta zuzenagoa izan, orduan eta aiseago egin ditzakegula izen elkartuak. Bi adjektibo erreferentzial edo gehiago zerrendatzen direnean ere ohikoa da guztiak mailegatzea: *krisi ekonomikoa, industrialak eta laborala*, baina ez nahitaezkoa.

Bestalde, adjektiboaren oinarrian dagoen izenak adiera bat baino gehiago izan ditzake eta, beraz, ez dugu euskaraz beti modu berean zertan eman: *rural*, esaterako, *baserri-* (*baserri-giro*) *herri-* (*herri-kirolak*), *landa-* (*landa-lan*) edo *nekazaritza-* (*nekazaritza-produkzio*) mugatzaileen bidez ordezkatu dezakegu euskaraz.

Kontuan izan behar dugu, azkenik, erdal erreferentzia adjektiboaren eta modifikatzen duen izenaren arteko harremana izan daitekeela modifikatzailearen eta izenaren artean gertatzen dena edo osagarriaren (argumentuaren) eta buruaren artean dagoenaren parekoa (Zabala 1997, 2013; Azkarate 2019). Erreferentzia adjektibo sailkatzaileak dira *ekonomiko* (*teoria ekonomikoa*), *politiko* (*arazo politikoak*), *industrial* (*hondakin industrialak*). Eta erreferentzia adjektibo sailkatzaileak dira euskarazko izen elkartu (edo izenlagun + izen) hauen ordain diren erdal sintagmetakoak ere: *haur literatura* (*literatura infantil*), *hortzetako pasta* (*pasta dentífrica*), *eskulan* (*trabajo manual*)... Erreferentzia adjektibo tematikoak dira, osterak, *elektroi garraio*, *birus infekzio* edo *zelula zatiketa* izen elkartuen erdal ordainetakoak (*infección viral*, *división celular*). Hor *garraio* eta *zatiketa* gertaera izenen osagarri dira *elektroi* eta *zelula* mugatzaileak, barne argumentua, ‘gaia’ adierazten dutenak. *Birus infekzio* izen elkartuan, aldiz, infekzioa *zirk* sortzen duen ematen du aditzera *birus* mugatzaileak; ‘egile’ edo ‘agente’ paper tematikoa hartzen du (§ 23.3.1). Euskaraz nekez mailegatzen ditugu erreferentzia adjektibo tematikoak.

Argibide horiek guztiak hartu behar dira kontuan Euskaltzaindiaren gomendioa osatu ahal izateko. Eta, hala ere, erreferentzia adjektiboak aztertu dituztenek (Ensunza 1989; Loinaz 1995; Zabala 1997, 2013) aitortu dute mota horretako

ehunka eta ehunka adjektibo hartu beharko ditugula mailegu bidez, terminologia beharrak asetzeko euskara prestatu nahi badugu. Hala ari gara egiten azken urteotan (Azkarate 2019).

Euskarak badu, ordea, adjektibo erreferentzialak sortzeko atzizkia, *-tar* (§ 5.3). Atzizki horren bidez sorturiko izenondoak izan daitezke sailkatzaileak, honako sintagma hauetan ikus ditzakegunen parekoak, alegia: *hegazti gautar*, *bertsolari kaletar*, *testu liburu ingeles*. Baina beste batzuetan tematikoak ere bai: *eraso errusiarra* (errusiarrek eginiko eraso). Auzitan jarri da, ordea, egokiak ote diren *-tar* adjektibo tematikoak, leku izenetatik eratorriak ez badira. Hau da, *eraso errusiarra* bai, adjektiboak *Errusia* izen propioa oinarri duen neurrian; baina *lege newtondarrak* ez (Newtonek asmatutako edo ezarritako legeak). Harreman tematikoa dagoenean, izen elkartua edo izenlagun+izen egitura baliatu beharko genuke: *Newtonen legeak* (Zabala 2013). Zientzia komunitatearekin batera aztertu beharko da *erradio nuklear*, *apurketa nuklear* eta mota horretako *-tar* tematikoak zenbateraino diren onargarri. Eta, behar balitz, atzizki horren erabilerari buruzko araua eman.

**7.2.2.2b** *Behi-esne* motako izen elkartuetan osagaien kategoriak ez du aukearik ematen areagoko bereizketarik egiteko. Horregatik jo dute hizkuntzalariek bi izenen arteko erlazio semantikoetara. Azken batean izen elkartuak sortzeko arrazoia, askotan sortu berri den zerbaiti izena ematea da, etiketa jartzea. Eta ohikoa da kontuan hartzea zerk sortu duen/nondik datorren ‘zera’ hori, edo zertako den, zein baliabidez sortu den, noiz edo non sortu den... Horrelako erlazio semantikoak izan daitezke, beraz, ohikoenak mugatzailearen eta mugakizunaren artean.

**7.2.2.2c** Inguruko hizkuntzetako izen elkartuak aztertzeke kontuan hartu dituztenak jarraitu ditugu euskaraz azpisailak egiteko: ‘iturburua’, ‘jabegoa’, ‘osoa-zatia’, ‘edukia’, ‘ondorioa’, ‘baliabidea’, ‘gaia’, ‘garaia’, ‘lekua’, ‘helburua’, ‘ariketa’. Baina gogoan izan behar dugu horiek ez direla gramatikako, edo sintaxiko arauak. Mugatzaileak mugakizuna nola modifikatzen duen, zein alderdi semantikotatik zehazten duen aztertzea, eta *du* motako aditzen subjektuak ergatibo kasu marka hartu behar duela esatea, ez dira maila berekoak inondik ere. Erlazio semantikoa, egitura bereko ehunka eta ehunka izenetan

multzoak proposatzeko modu bat baino ez da eta, horrexegatik, ez da harritze-koa askotan modu batera baino gehiagotara ulertu ahal izatea bi izenen arteko erlazioa. *Sagar-tarta* sagarrez egiten dena bada, tarta horrek sagar [zati]ak izango ditu. Antzera gertatzen da ‘helburua’ eta ‘edukia’ erlazio semantikoe-kin ere; *txori-kaiola* txorientzako kaiola bada, askotan txoriak izango ditu barruan (nahiz hutsik dagoenean ere *txori-kaiola* esaten diogun)<sup>7</sup>. *Marinel-txapel* marinelek daramaten txapela, ‘jabegoa’ moduan uler daiteke, edo marinelentzako dena, ‘helburua, norentzako’ erlazio semantikoa, alegia. Halaber, *umetoki* ‘umeentzako tokia’ edo ‘umeak dauden/sortzen diren tokia’ dela pentsa dezakegu; hau da, ‘helburua’ erlazio semantikoaren adibidetzat har dezakegu, edo ‘edukia’ (zer non) erlazioarena. *Autobus ilara* izen elkartuak ere izan dezake ‘ilaran autobusak daude’ irakurketa (‘edukia’); baina baita beste hau ere, ‘autobusek sortu duten ilara’, kausa edo jatorria. ‘Ondorioa’ eta ‘helburua’ ere: *argi-zuzi* ‘zuziak argia ematen du’, ‘zuzia argia emateko da’.

**7.2.2.2d** ‘Iturburua, egilea, kausa, jatorria’. Bi izenen artean halako erlazio semantikoa dagoenean, mugakizuna nondik/norengandik datorren, edo nork edo zerk sortzen/egiten duen, zehazten du mugatzaileak: *apez-hitz*, *ardi-esne*, *asto-gorotz*, *damu-malko*, *gerezi-lore*, *ipar-haize*, *kandela-argi*, *maitasun-arazo*, *ontzi-zarata*, *pandero-soinu*, *piper-hauts*, *poz-malko*, *trumoi-danbarrada*, *trumoi-hots*, *zigarro-ke*... Mugatzailea koordinatua ere izan daiteke: *giltza ta sarraila-zarata*, *automobil edo beribil-zarrastada*. Eta mugatzailea izan daiteke aldi berean izen elkartua, *olatu-hots zantzuz*. Deigarriak dira *porru berde usain*, *jantzi busti usain* edo *goma erre usain*, mugatzailea ez baita kategoria lexikoa, [izen + adjektibo] sintagma baino (eta kategoria lexikoak dira hitz elkartuak sortzen dituztenak (§ 3.1d)).

**7.2.2.2e** ‘Jabegoa’. Mugatzailea, mugakizunak adierazten duenaren jabea dela ulertzen dugu erlazio-mota hau antzematen dugun hitz elkartuetan; ‘jabe’, jakina, zentzu zabalean hartuta, ‘elizak dituen agintariak’, ‘txalupak duen patrioia’... Askotan izen elkartuaren parekoa da izenlagun + izen egitura, txalu-

---

<sup>7</sup> Azkaratek eta Perez Gazteluk (2014) corpus zabala sailkatu zuten eta adibidetegia osorik eman. Xehetasun ugari aurkituko ditu han informazio gehiagoren bila dabilenak.

paren patroia eta txalupa-patroia, elizaren agintariak eta eliz agintariak, jakitunen hizkera eta jakitun-hizkera... Horrelakotzat har daitezke ondoko hitz elkartuak: *aditz-forma, alkate-makila, emazte-izen, errege-alaba, giza adimen, gizon-janzkera, herri-baso, herri-gogo, herri-nortasun, hizkuntza-lege, jakitun-hizkera, jentil-sinesmen, karlista-fede, leku-izen, txalupa-patroi, urre-kolore...* Bestalde, elkartu hauetako mugakizun batzuek —*alaba, patroi...*— osagarri-buru erlazioa dute ezkerreko osagaiarekin (§ 3.3b). Erlazio modu bera ikus daiteke beherago aztertuko ditugun konparazio eta irizpen adierako elkartuetan ere (§ 7.2.2.3e).

**7.2.2.2f** ‘Osoa-zatia’. Ezkerreko osagaiak, mugatzaileak, osotasuna adierazten du eta mugakizunak, berriz, horren zati bat. *Abarka-zola, abeto-adar, aho-sabai, aitzur-kirten, alkandora-beso, antzara-gibel, arrain-hezur, arrautza-gorringo, bildots-saihets, eihera-borta, erbi-buztan, esku-ahur, etxe-pareta, igande-eguerdi, limoi-azal, marrazo-hegats, oilo-luma, ortzira-le-goiz, otso-larru, zartagin-ipurdi...* Koordinazio bidez elkarturiko mugatzaileak dituzte izen elkartu hauek: *elorri ta lizar adar, platano eta kakaues azal...* Eta mugatzailea ere, aldi berean izen elkartua da *txahal-haragi xerra* izenean.

**7.2.2.2g** ‘Edukia’ erlazio semantikoari dagokionez, hiru modutara uler daiteke ‘zer-zerk’, ‘zer-non’ eta ‘zer-noiz’. Hau da, leku baten, denbora baten edo ‘jabe’ baten edukia adieraz dezake mugatzaileak. Modu batean zein bestean ere uler daiteke izen jakin bat: *bertso-bilduma* har daiteke ‘bildumak bertsoak ditu’ gisa, nahiz ‘bilduman bertsoak daude’ gisa. Erlazio honen azpian bildutako izen elkartu askoren parafrasia ‘-ri buruzko, -en gaineko’ izenlagunaren bidez eman daiteke: *nazionalismo teoria* edo ‘nazionalismoari buruzko teoria’, *lege auzi* ‘legeari buruzko auzi’, *turismo-biltzar* ‘turismoaren gaineko biltzar’ eta abar; ‘zer-zerk’ (edo ‘zer-nork’), goraxeagoko ‘jabegoa’ erlazioaren ifrentzua da: *azukre-bola, baratxuri-korda, bataio-agiri, bertso-bilduma, elebitasun-dekretu, heriotza-agiri, kare-harri, laudorio-hitza, maite-poesia, metal-ur, sorgin-istorio...* Mugatzaile elkartua du *herri-hitza hiztegi* izenak, eta mugatzailea eta mugakizuna, biak, egitura koordinatuak dira ondoko izen elkartuan, *mendetasun eta zintzotasun hitz eta agindu*.

**7.2.2.2h** ‘Edukia’: ‘zer-non’ erlazioaren adibidetzat har ditzakegu *alpargata-denda, arrain-merkatu, arrain-otzara, artasoro, atun-lata, autobus-ilara, elur-toki, erle-kaiola, folklore-arlo, kaputxino-komentu, komunista-etxe, koinak-botila, lore-toki, patata lur, pospolo-kaxa, sardina-lata, telefono-kabina, zerri-toki...* Mugatzailea koordinatua izan daiteke: *burdin ta berun zama, tximista eta trumoi leku, xaboi eta lustre kutxa, erlijio- arte eta jakite-liburu*. Bai eta mendekotasunezko izen elkartua ere: *jostorraz-ontzi*.

**7.2.2.2i** ‘Edukia’: ‘zer-noiz’ (‘garaia’ erlazioaren alderantzizkoa, § 7.2.2.2m). *Alkatetza-garai, arto-urte, bakardade-memento, elur-urte, errepublika-denbora, erromeria-egun, gazte-denbora, heriotza-ordu, ilargi-gau, negu-parte, opor-egun...* Berrelkarketaren adibide ditugu *aizkora-joko egun, karlista-gerra denbora, sorgin-batzar garai*, mugatzailea bera ere izen elkartua dutenak. Bai eta mugatzaile koordinatua duten *barkamen edo pekamen egun* nahiz *mehe eta baraur egun*. Azpimultzo honetan, ohikoak dira era batera edo bestera ‘denbora’ adiera daramaten mugakizunak (*denbora, egun, garai, gau, urte...*).

**7.2.2.2j** ‘Ondorioa’. Goiko ‘iturburua’ erlazio semantikoaren ifrentzua da. *X* mugatzailea eta *y* mugakizun izanik, ‘iturburua’  $x > y$  moduan irudika dezakegu; ‘ondorioa’, berriz,  $x < y$ . Horrelako erlazioa ikus daiteke izen elkartu hauetan: *arbi-hazi, argi-zuzi, beldur-amets, burdina-meatzte, esne-behi, esne-iturri, euri-seinale, hileta-hots, indar-etxe, intxaur-arbola, irin-fabrika, liho-hazi, olio-aran, su-mendi, trumoi-laino, txakolin-iturri...* Berrelkarketaren adibide da beste hau: *poz- eta negar-iturri*.

**7.2.2.2k** ‘Baliabidea’. Mugakizuna zein baliabidez, zerez baliatuta, zeren bidez gauzatzen den, lortzen den, adierazten du mugatzaileak: *ahari-apustu, aho-hizkera, aitzur-kolpe, aizkora-ukaldi, begi-keinu, bertso-festa, burruntzali-kolpe, danbolin-dantza, esku-aldaba, esku-arrantza, esku-bonba, eskulana, ezten-kolpe, haize-oihal, hitz-joko, karta-joko, lurrin-makina, olio-argi, pilota-jolas...* Mugakizunek askotan mugimendu edo kolpe bortitza adierazten dute, eta mugatzaileak zerez eman den kolpe hori. Modu batean baino gehiagotan egin daitezkeen jarduerak (*dantza, jolas...*) adieraz ditzakete mugakizunek. Hemen sar daitezke, bestalde, *euskal* edo *erdal* mugatzaile dituzten hainbat izen elkartu, ‘euskara’/‘erdara’ baliatuz egiten/sortzen diren ‘zera’k

adierazten dituztelakoan: *euskal aldizkari, euskal artikulua, euskal bertso, erdal idazle, euskal idazle, euskal kultura, erdal olerki, erdal testu...*

**7.2.2.2i** ‘Gaiia’. Mugakizunak adierazten duen hori, zertaz, zein gaiz egiten den esaten digu mugatzaileak: *argizari-kandela, arto-opil, baba-salda, bakailao-kroketa, belar-olatu, berakatz-zopa, burdina-kutxa, egur-gabila, elur-maindire, elur-maluta, gerezi-marmelada, izotz-kapa, kimika-abonu, kotoi-laino, luma-jantzi, magurio-krema, oilo-salda, piper-saltsa, porru-salda, su-ziri...*

**7.2.2.2m** ‘Garaia’. Mugatzaileak adierazten du mugakizuna noiz gertatzen den, zein garaitan: *arrats-dei, bataio-festa, bukaera-bertso, ezkontza-kantu, eztei-bazkari, gau-amets, gau-klub, Gabon afari, goiz-haize, hileta-eresi, ilun-ezkila, jai-soineko, su-kanpai, uda euri, uda-ikastaro, udaberri-arrosa, urte-sari...* Azpimultzo honetan sar ditzakegu izen propioa mugatzaile duten *Donibane su, Olentzero enbor, San Joan su* eta horien antzekoak, hitz elkartu hauetan ez baitira pertsona izen propioak, edo santu izenak, baizik urteko egun edo garai jakin bat adierazten dutenak.

**7.2.2.2n** ‘Lekua’. Mugakizuna non, zein tokitan ‘zertzen’ den adierazten du mugatzaileak: *atzerri-hizkuntza, baserri-bizitza, eliz hobi, esku-makila, etxe-tresna, ezker-esku, harri-idazki, horma-erloju, ibai-ur, itsas bainu, itsas herri, itsas lapurreta, kale-borroka, kale-janzkera, kokots-bizar, kosta-herri, lepo-ile, lur-paradisua, matrail-hagin, mendi-ermita, mendi-gurutze, plaza-festa, sabel-zorri, sepultura-harri, zingira-ur...* Berrelkarketaren adibide da *baso ta solo belar*.

**7.2.2.2o** ‘Helburua’, ‘norentzakoa’, ‘onuraduna’. Adibide ugarian antzeman dezakegu erlazio semantiko hau; besteak beste, ‘aditzoin+izen’ egiturako izen elkartuetan (§ 7.2.3). *Azeri-janari, bataio-harri, batzar-toki, bidaia-kutxa, bizar-laban, dantza-leku, dantza-orkestra, diru-zorro, ejertzizio-etxe, elur-zulo, erbi-zakur, eskularru, guda-ontzi, haur-ipuina, haur-kanta, hauts-zapi, jainko-edari, jakintza-hizkuntza, koktel-ontzi, kultura-hizkuntza, mendi-bota, meza-dei, moko-painelu, ohe-atorra, oin-ohol, ortografia-arau, otoitz-dei, pixa-oihal, su-egur, talo-ohol...*



**7.2.2.2p** ‘Ariketa’. Ezkerreko osagaiak, mugatzaileak, ariketa, jarduna, ekin-tza... adierazten du eta mugakizunak, askotan, ariketa edo jardun horren egi-lea, edo jardun horretako lekua. *Hitz-toki, jolas egun, laborantza-gizarte, lan-gela, liturgia komisio, otoitz-gizon, pilotaleku, pilota-txapeldun, politika-erakunde, prediku-aulki, sega-leku...* Laborantzan aritzen den gizar-tea, liturgiari ari den komisioa, politikan ari den erakundea... horrela uler di-tzakegu goiko izen elkartuak.

### 7.2.2.3. Mugakizun bereziko izen elkartuak

**7.2.2.3a** Ondoren aztertzen diren egiturak ere izen elkartuak dira, bi izenez osatuak<sup>8</sup>. Baina horietako mugakizunek, guztiak berdinak izan ez arren, badi-tuzte zenbait ezaugarri aurreko puntuan aztertu ditugun elkartuetatik berezi-tera garamatzatenak. Maiztasuna da lehen ezaugarria: ugariak dira *aldi, atze, aurre, bide, buru, gai, gain, molde, mota, multzo, puska, sail, talde, zati...* mugakizun dituzten izen elkartuak. Orain arteko adibideetan ikusi dugun bes-te edozein izen baino sarriago baliatzen ditugu izen elkarketan “mugakizun berezi” atalean sartu ditugunak.

Bestetik, berezia da mugatzailearen eta mugakizunaren arteko erlazioa. *Behi-esne, lepo-ile, oilo-salda* edo aurreko puntuan eman ditugun izen elkar-tuetan oro har, eskuineko osagaia, mugakizuna, bada berezko ‘zera’, badu be-rezko esanahia; nahikoa da horretarako hiztegi-tara jo eta definizioak begira-tzea. Mugatzaileak murriztu egiten du mugakizunaren erreferentzia esparrua, sintaxian modifikatzaileek egiten dutenaren antzera. Aztergai ditugun muga-kizun berezietan, ostera, nekez hitz egin dezakegu ‘multzoaz’, ‘zati-az’, ‘aldiaz’, ‘usainaz’, ‘aurreaz’ edo ‘atzeaz’ ez bada zehazten zeren multzoa, zatia, usaina, aurrea... den. Mugatzaileak, ezkerreko osagaiak, egiten du zehazte-lan hori. “Harreman honi «osagarri-buru» harremana esaten zaio, sintaxian gertatzen denaren ildotik: eskuineko osagaia den buruak (adib. *zati*) osagarri bat hartzen

---

<sup>8</sup> Adibide eta xehetasun gehiago nahi dituenak *Hitz-Elkarketa/2* liburura jo dezake.



du (*ogi*), sintaxian, demagun [...] *aurka* postposizioak genitibodun IS hartzen duen bezala. Bada, hemengo berezi gehienak horrelakoak ditugu «osagarri-buru» egitura-harremanekoak, alegia” (Azkarate eta Perez Gaztelu 2014: 38).

Maiztasuna eta osagarri-buru harremana, bi berezitasun horiek dituzten mugakizun hauek hainbat azpisailetan banatzen ditu *Hitz-Elkarketa/4* liburuak. Banan-banan aztertuko ditugu, labur bada ere, bakoitzaren ezaugarri nagusiak emateko.

**7.2.2.3b** ‘*Multzo*’ adierako izen elkartuak. Hala deitu zaie euskaraz bigarren osagai, hau da mugakizun, izen hauetakoren bat duten izen elkartuei: *aldra*, *andana*, *biko*, *buket*, *eli*, *meta*, *mordo(xka)*, *mulko*, *multzo*, *oste*, *pare*, *parrasta*, *parrastada*, *pila/pilo*, *sail*, *saldo*, *samalda*, *sorta*, *talde*, *tanda*, *tropa*, *tropel*...

abere mutu tropel, ardi pilo, arrain-oste, arrautza-pare, artalde, behi-pare, diru-meta, emakume-aldra, erantzun-andana, erle-mulko, errezero sorta, galdera-sorta, gazte-tanda, haur-andana, idazle-eli, idazle-saldo, inurri-multzo, jende-oste, jende-talde, kaio-aldra, kanoikada-pila, liburu-mordo, limoi sail, lur sail, mahomatar-talde, mutil pila, oilo meta, perrexil-buket, soldadu tropa, ur bedeinkatu parrasta, uso biko, zomorro samalda

Mugakizun horiek guztiek konpartitzen dute ezaugarri semantiko bertsua, ‘ugaritasuna’, ‘kopurua’, ‘aniztasuna’. Hala ere, badira desberdintasunak mugakizun batzuen eta besteen artean, hiztegi-tako definizioak alderatuz gero erraz antzeman daitezkeenak. *Multzo* da gutxien markatua, gainerakoen definizioetan ageri dena. Baina beste batzuk ere nahikoa zabalak dira erreferentziaren aldetik, mugatzaile bizidun zein bizigabeak har ditzaketenak (*andana*, *mordo*, *multzo*, *pare*, *pila*, *sail*...). Beste batzuek, oster, mugatzaile bizidunak eskatzen dituzte: *aldra*, *eli*, *oste*, *saldo*, *talde* edo *tropel*. Azkenik, *sorta* (eta *buket*) mugakizunek izen bizigabea, gehienetan landare adierakoa, eskatzen dute.

**7.2.2.3c** ‘*Zati*’ adierako izen elkartuak. Izen elkartu hauetako mugakizunak *apur*, *atal*, *erdi*, *hondar*, *izpi*, *kozkor*, *laurden*, *lipits*, *mutur*, *pixka*, *pitin*, *poxi*, *puska*, *pusketa*, *tanta*, *xorta*, *zati*... izan ohi dira.

ahaidetasun-izpi, ardo tanta, arno xorta, azukre-koskor, belar-izpi, belar-lipits, eri-mutur, esperantza-poxi, ezti-tanta, gazta-pusketa, haragi-hondar, hitz-atal, karisma apur, limoi zati, lukainka-mutur, antxoa, sardina edo lantzoi zati (berrelkarketa)...

Mugakizun hauek zer duten batean jakiteko hiztegiara jotzen badugu, ohartuko gara ‘zati izen’ edo zati mugakizun hauek bi azpiataletan banatzen direla: a) definizioetan ‘zati’ edo ‘zatiki’ daramatenak (*atal, hondar, izpi, mutur, punta, puska/pusketa, zati...*) eta mugatzailea zebakarria edo, behintzat, zebakarria izatea eskatzen dutenak, oro har; b) ‘kopuru txiki’ adiera dutenak (*apur, pixka, pitin, poxi, puxka...*) eta mugatzaile gisa izen zebakarri eta zebakaitzak, neurgarri eta neurgaitzak onartzen dituztenak (*esperantza poxi bat, fama puxka bat, gatz puxka bat...*). Egitura hauetan zenbatzailatzat har daitezke horko *poxi bat, puxka bat* eta abar (§ 16.3.9); c) *tanta, xorta*, isurkaria adierako mugatzailea eskatzen dutenak.

‘Zati’ adierako elkartuetan sar daitezke ‘frakzio adierako elkartuak’ ere, hau da, *erdi* edo *laurden* mugakizun dutenak: *baxoerdi, kilo erdi, metro erdi, mende laurden, ordu-laurden...*

**7.2.2.3d** ‘Modu’ adierako izen elkartuak. Horrela deitu zaie (baita ‘mota’ adierako izen elkartu ere) mugakizuntzat *era, giro, gisa, klase, manera, modu, molde, mota, suerte, tailu...* izenak dituztenei:

abantaila suerte, ahosabai-modu, amodio mota, arma-modu, apostolutza-era, arbolaklase, arrain mota, autoritate-modu, baserri molde, bekatu-gisa, benerazio mota, bentura molde, bizio suerte, bizitze-manera, dolu-gisa, eguraldi modu, gerla-manera, jende-giro, jende-tailu, joko-tailu, liturgia-era

Izen kategoriako mugatzaileak ageri dira ezkerrean, baina aditz kategoriakoak ere aurki daitezke (*bizimodu, erran-molde, idatz-molde*, § 7.2.3b). Erraz aurki daitezke mugatzaile koordinatuak ere (*donu, dohain eta abantaila suerte; formazio edo produkzio modu; manamendu eta zeremoni suerte*) edo mendekotasunezko izen elkartu direnak (*ahosabai-modu, baso-zuhaitz mota, etxe-abere mota, eskola-etxe mota, luma-abere mota...*).

Bereziak dira hizkuntzak adierazteko *era* mugakizun harturik sortu ditugun *albaniera, arabiera, armeniera, bengalera, bulgariera, errusiera, estoniera,*

*georgiera, islandiera, japoniera, suomiera* eta abar (Euskaltzaindiaren 38. arauan ikus daitezke egitura hauetako hizkuntza izen asko).

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 38. araua: “Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak”, Donostian, 2007ko martxoaren 30ean onartua.

Hiztegiek argitzen dute zer duten batean mugakizun hauek: a) ‘modu’ har daiteke guztien adierak duen sema edo ezaugarri semantikotzat; beraz, ‘modu izen’ dei diezaiekegu mugakizun hauei guztiei. Hala ere, badirudi mugakizun batzuen erabilera-esparrua zabalagoa dela beste batzuen bano; *mota*, esaterako, euskalki guztietako literatura tradizioan ageri da; *gisa*, *manera*, *suerte*, *tailu*, aldiz, ipar-ekialdeko testuetakoak dira, batik bat, eta *modu* Hegoaldeko testuetan ageri da. b) Mugakizun hauetako batzuk (*giro*, *klase*, *molde*, *mota* edo *tailuk*), ‘modu’ adiera izateaz gain, badituzte bestelako adierak ere; beste batzuek, aldiz, ‘modu’ adiera baino ez dute, adiera bakarrekoak dira. c) Mugatzaileei dagokienez, batzuek era guztietako izenak onartzen dituzte, bizidunak, bizigabeak, konkretuak, abstraktuak...; horrelakoak dira *klase*, *mota*, *suerte* edo *tailu*. Beste batzuek, *gisa*, *manera*, *modu*, *molde* mugakizunek, gehienbat izen bizigabeak hartzen dituzte mugatzaile.

**7.2.2.3e** Konparazio eta irizpen adierako izen elkartuak. Azpiatal honi emandako izenak berak ematen du aditzera zein den arrazoia *aire*, *antz*, *aurpegi*, *fama*, *haize*, *hots*, *irudi*, *itxura*, *kolore*, *kutsu*, *planta*, *tankera* edo *usain* moduko mugakizunak azpiatal honetan batzeko: erkatzearen, konparazioaren balioa ematen digutelako, alegia. Norbaitek *integrata airea* duela esatean, adierazten dugu integratzen duten bezalako airea, itxura, tankera, duela. Edo norbaiti buruz *kokolo aurpegia* duela diogunean, haren aurpegia kokoloena bezalakoa dela ematen dugu aditzera.

aberats-itxura, administrazio-kutsu, aingeru-antz, antzinate kutsu, artobero-usain, baserri-antz, bertsolari-fama, bihurriantz, desafio-kutsu, diru-usain, dotore-antz, epel antx, festa-usain, garaje-itxura, gartzaina-kolore, gordin kutsu, harro haize, hase-

re-itxura, inozo planta, integrista-aire, itzulpen-kutsu, jainko-itxura, kokolo aurpegi, liberal fama, lur-kolore, maitasun itxura, olerki kutsu, osasun kolore, tonto-planta, txotxolo-aurpegi, zikin-fama, zeru kolore...

Adibide horietako batek baino gehiagok adjektibo kategoriako mugatzailea du (*bihurri, dotore, epel, gordin, harro, tonto, txotxolo...*). Hori da azpiatal honen beste ezaugarrietako bat. Bestalde, zenbait mugakizunek (*fama, itxura, kolore, usain...*) sintaxi egiturako mugatzaileak onartzen dituzte: *bizkaitar nahiz beste edozein eskualde usaina, goma erre usain, haur lerdan itxura, jantzi busti usaina, liberalen biltoki fama, usteldutako hosto usaina*. Mugakizunei dago-kienez, batzuk erlaziozko izenak dira (*antz, aurpegi, fama, irudi, itxura, planta* edo *tankera*), beraz, osagarria eskatzen dutenak (Artiagoitia 2011). Beste batzuei, berriz, jatorrizko adieraz gain, bigarren adiera metaforiko batek ematen die erlaziozkotasuna (*aire, haize, hots...* ‘itxura’, ‘antz’, ‘ospe’ balioa dutenean). Bigarren multzo honetan sartzekoak dira *kolore* eta *usain* ere, berez kolorerik edo usainik ez duten mugatzaileekin elkartzan ditugunean (*masoi-usain, udaberri-kolore...*).

Mota honetako hitz elkartuak askotan norbaiti edo zerbaiti buruz predikatzen ditugu; norbaiti buruz esango dugu *liberal fama* duela edo lekuren batek izango du *garaje-itxura*, esaterako. Horrexegatik, ez da harritzekoa *-ko* atzizkia hartu eta izenlagun bihurtzea izen elkartuok: *arrosa koloreko masailak, gaztaina koloreko pitxarra, morokil usaineko dantza, kabyla irudiko leinu, zaunka haserre usainekoa...*

**7.2.2.3f** Andregai moduko izen elkartuak<sup>9</sup>. Azpiatal honetako mugakizunak ia-ia atzizkitzat ere hartu dituzte euskal gramatikariek (Azkuek, Lafittek edo Villasantek), hain dira ugariak horien bidez sortzen diren hitz elkartuak. *Aldi*, adibidez, edozein aditzoinekin elkar dezakegu. *Bide, buru, gai...* ere izen eta aditzoin ugarirekin elkar ditzakegu. Elkartetaren eta eratorpenaren arteko muga egotea dute ezaugarri *Hitz-Elkarketa/4* lanean azpiatal honetan sailkatzan diren mugakizunek: *aldi, bide, buru, gai, gizon, (g)une, jende, kide,*

---

<sup>9</sup> Ikus Perez Gaztelu (2004); Azkarate eta Perez Gaztelu (2014).

(*k)ume, lagun, orde*. Zergatik sailkatu ditugu, baina, izen elkartuen barruan? Egia da maiztasuna badela atzizki izaeraren ezaugarrietako bat (atzizkiek, emankorrek badira behintzat, serie luzeagoak osatzen dituzte izen edo adjektibo elkartuetako mugakizunek baino). Baina, horren ondoan, bada beste ezaugarri bat, erabakigarria: beregaintasuna. Atzizkiek ez dute beregaintasunik (ezin dira bakarrik erabili), ez eta hiztegietan sarrerarik ere; hemen aztergai ditugun mugakizunak, aldiz, izenak dira. Izen diren neurrian, bakarrik erabil daitezke, beregainak dira, —*aldi hartan, bi buru ditu batzorde honek*—, nahiz, berehala esango dugunez, beregaintasun hori asko mugatzen duen mugakizun hauetako askoren esanahi ahulak. Azkenik, kategoria lexiko diren heinean, atzizkiak ez bezala, hitz eratorrien oinarri izan daitezke: *burutza, gaitasun, gaitu, kidegasun, kide*...

Semantikoki ere esanahi lausoa izatea da mugakizun horiek guztiek batean duten ezaugarria; horrexegatik behar dute osagarria, esanahia zehaztuko duena. Alde honetatik goian ikusi ditugun ‘modu adierako elkartuen’ edo ‘zati adierako izen elkartuen’ pareko dira.

Mugatzaileen kategoriari dagokionez, izenak dira ugarrienak, bizidunak nahiz bizigabeak, ekintza eta gertaera izenak eta abar; baina badira adjektibo nahiz aditzointzat har daitezkeenak ere (*erraz, estu, goibel, haserre, jator, on, umil, zahar, zoro*...). Beste batzuetan argiago dago mugatzailearen adjektibo kategoria; adjektibo hauek egoera mailako predikatuak dira, ez izaki mailako predikatuak<sup>10</sup> (§ 24.3.1): *haurdun(aldi), hits(aldi), isil(une), zakar(aldi)*.

Mugakizunetako askok adiera bat baino gehiago dute; *Euskaltzaindiaren Hiztegiari* begiratu bat ematea nahikoa da horretaz jabetzeko. Baina horrek ez du esan nahi adiera guztiak direnik azpiatal honetan sartzekoak.

Atzizki izaeratik gertu egoteagatik-edo, bi osagaiak elkaturik idazteko gomendioa eman zuen Euskaltzaindiak (25. araua). Baina lehen osagaia luzea

<sup>10</sup> Bereizketa argi ikusten da, adibidez, *gaixo* hartuta. *Gaixo* adjektiboak badu ‘eri’ adiera (egoe-ra predikatua), eta baita ‘gajo, errukarri’ (izaki predikatua) adiera ere. *Gaioxaldi* elkartuan lehen adiera hartzen da kontuan, ‘osasunik gabe egoten den aldia’; ez ‘errukarri edo gajo zaren aldia’.

edo hitz juntura bihurria duten elkartu berrietan marratxo bidez elkarturik edo bereiz idatz daitezke: *kapitalismo (-) aldi, erredakzio-buru, administrazio (-) gune* eta abar.

## *Aldi*

Izen bizigabeak dira, oro har, mugatzaileak, nahiz badiren bizidun batzuk ere (*erregealdi, erromesaldi, karlistaldi, morroialdi, presoaldi* edo *gizaldi*):

agintaldi, antzinaldi, arnasaldi, astialdi, atsedenaldi, atseginaldi, bakealdi, barrealdi, belaunaldi, berbaldi, bozaldi, dantzaldi, deialdi, denboraldi, erbestealdi, eztulaldi, geroaldi, gerraldi, goibelaldi, gorputzaldi, haizealdi, hitzaldi, inflazioaldi, itsasaldi, jaialdi, jolasaldi, kantaldi, kasketaldi, krisialdi, labealdi, lanaldi, loaldi, mundualdi, oinazealdi, oporraldi, orainaldi, pozaldi, solasaldi, sozialismo-aldi, transizioaldi, udaldi, urtealdi, zakarraldi, zinemaldi...

Izen propioak dituzte oinarri *Neolitosaldi, Pazkoaldi* edo *Pizkunde-aldi* izenek. Adjektiboa / aditzoina da, ostera, lehen osagaia beste hauetan: *gaixoaldi, elbarri-aldi, estualdi, goibelaldi, gozoaldi, haserrealdi, mozkorraldi, saminaldi, zakarraldi, zaputzaldi, zoroaldi...* Adjektiboak, esan bezala, egoera mailako predikatuak dira; eta egoera mailako predikatuak dira, halaber, *erromes, morroi* edo *preso* izenak (*morroi egon, preso egon, erromes ibili...*). Ohi-koak dira aditz kategoriako mugatzaileak ere:

agerraldi, argitaraldi, astinaldi, ateraldi, edanaldi, egonaldi, ekinaldi, emanaldi, erakustaldi, erorialdi, eserialdi, etorraldi, etsialdi, geldialdi, gertaldi, ibilaldi, ikastaldi, ikustaldi<sup>11</sup>, irakinaldi, irakurraldi, irtenaldi, itxaronaldi, itzulaldi, jaikialdi, janaldi, jardunaldi, jarrialdi, jasoaldi, jazarraldi, joanaldi, omenaldi, puztuali, tentaldi, zirikaldi...

*Hamabostaldi, berrogeialdi* edo *zortzialdi* (zortzi eguneko denbora bitartea), batasuna duten denbora unitatetzat hartzen dira.

---

<sup>11</sup> *Ikaste+aldi, ikuste+aldi* ere izan daitezkeenak, bai eta *erakuste+aldi* ere.

*Aldi* izenak elkartuari ematen dion esanahiari dagokionez, batetik, ‘garaia’ edo mugatzaileak adierazten duenaren denbora hedadura adieraz dezake. Horrek eskatzen du mugatzaileak iraupena adieraztea; horrelakoak dira goiko adibideetako mugatzaileak.

Bestetik, ‘gertaera edo ekintza baten gauzatze bakoitza’ ere adieraz dezake *aldi* izenak. Adiera hau hartuko du bereziki aditzoinei nahiz gertaera edo ekintza izenei (*arnasa, dardara, eztul, hitz, kasketa, jai...*) elkaturik doanean. *Gorputzaldi* izenean, berriz, ‘aldartea’ adiera du *aldi* mugakizunak.

### Aro, zaro

Bi aldaeretatik *aro* bakarrik da beregaina. Izena bizidunak nahiz bizigabeak (adjektibo eta partizipioak ere izen balioan hartzekoak dira) izan daitezke mugatzaile, baita izen propioak ere. *Berrogeizaro* izenean, berriz, ‘berrogei eguneko aro’ ulertu behar dugu; *berrogeialdiren* baliokide da:

bakearo, barauzaro, berrogeizaro, garagarzaro, gaztaina aro, gaztaro, gizaro, Harri Aro, haurtzaro, helduaro, kristau aro, nobizio aro, ume aro, zahartzaro, Noeltzaro, Pizkunde aro

*Elizak agindutako barau eta barauzaroetan izan ezik, haiek beti bete behar baitira, eragozpen zuzenik ez balitz* (P. Altuna); *Garagarzaroan eta garilean ez duk urik edanen* (Satrustegi); *Gaztaiñarora, ikazkintzara, irauli dute jarduna* (Orixe); *Nobizi-aroa asteko oraindik gaztetxo ta misiotaratzeko zaletua dagoanez, gaixo-zaintza-ikasketak egingo ditu lenbizi* (Bordari); *Olentzaro, metatesis baten bidez Noel-tzaro-tik omen dator* (San Martin).

Aditzoin batzuk (edo aditz izenak, *ikaste, sortze*) ere izan daitezke mugatzaile: *biziaro, ikastaro, sortzaro*. *Joseforen iskribuetan ba dira milla notizi eta xehe-tasun jatorrak, Jesukristoren bizi-aroaz zer ikusi dutenak* (Villasante); *Kristoren sortzaroaren inguruko mendeetan* (Mirande).

‘Denbora’, ‘sasoa’, ‘garaia’, ‘eguraldia’... adierak ditu *aro* izenak, baina betiere iraupen kutsua duela.

## *Bide*

Izen eta aditzoin kategoriako mugatzaileekin elkartzen da *bide*. Izen bizigabeak dira ugarietak, konkretuak zein abstraktuak, gertaera izenak nahiz jarduera adierakoak; baina izen bizidun batzuk ere badira mugatzaile (*errege, Jainko, mando, zamari...*):

aberastasun bide, amets-bide, arrazoibide, askatasun bide, auzibide, bakebide, batasun bide, bekatu bide, burubide, damubide, dirubide, formazio eta informazio bide, gogoeta bide, gurdibide, hizpide, hobekuntza-bide, jakintza bide, kultura bide, lanbide, mistika bide, ogibide, osasunbide, salbamen bide, solasbide, soluziobide, transmisio bide, zalantza bide, zehaztasun eta aberastasun bide, zorion bide...

Iharturik dauden neurrian, ez da gardena *adibide, burubide, errepide, eskubide, lanbide* edo *ogibide* izenen esanahia. Aditzoinari erantsirik ageri da *bide* beste izen hauetan:

agerbide, aitzinabide, argibide, aterabide, aurkibide, aurrerabide, azterbide, baterabide, bizibide, egiaztabide, eginbide, erakusbide, erorbide, eskabide, etorbide, ezaupide, ezkonbide, galbide, hazibide, helbide, ibilbide, igarobide, ihesbide, ikasbide, ikusbide, irabazpide, irtenbide, jakinbide, jokabide, konponbide, kontsolabide, mintzabide, okerbide, orientabide, osabide, pasabide, salbabide, sarbide, sendabide, sorbide, tratubide, ulerbide, zuzenbide

*Jarleku* motako izen elkartuen egitura berekoak dira horiek guztiak (§ 7.2.3). Batzuetan zalantza egin daiteke mugatzailea izena ala aditzoina den (*aberaspide, irizpide, kezkabide, pozbide* eta abarretan). Ez dago alde handirik izen horiek ulertzeko moduan: ‘aberats izateko bide’. ‘aberasteko bide’, ‘kezkarako bide’ nahiz ‘kezkatzeko bide’, ‘pozerako bide’ nahiz ‘pozteko bide’.

Adiera bat baino gehiago du *bide* izenak (ikus *Euskaltzaindiaren Hiztegia*): benetako bide fisikoa (‘lur zerrenda, bertatik ibiltzeko prestatua dena’), ‘bitartekoa’, ‘aukera, abagunea’... Esanahi horiek guztiak ikus daitezke *bide* mugakizun duten izen elkartuetan ere. Lehen adierakoa izan ohi da izen konkretuen ondorengo *bide* (*ardandegi bide, astobide, baso bide, burdinbide, elizbide,*



*gurdibide*, *harri bide*, *mandobide*); *behi-esne* moduko izen elkartuetan sar daitezke horrelako elkartuak. Mugatzaileak izen abstraktuak, gertaera izenak edo aditzoinak direnean, bestelako adierak (zerbait lortzeko era edo moldea, aukera edo abagunea) dituen *bide* izaten da mugakizun; baina izen konkretuei ere elkartzen zaie *bide* ‘metaforikoa’ (*dirubide*, *gizabide*, *jainkobide*...).

## Buru

Izen bizidunak nahiz bizigabeak izan daitezke mugatzaile:

arriburu, asteburu, atalburu, batzarburu, batzordeburu, belaunburu, besaburu, dia-konoburu, epaimahaiburu, erredakzioburu, ertzainburu, eskaileraburu, etxeburu, euskaltzainburu, galburu, gobernuburu, goiburu, gualburu (gudari buru), hiriburu, iturburu, kalonje buru, mahaiburu, oheburu, sailburu, sintagma-buru, soka buru, taldeburu, udalburu, urteburu, zerbitzuburu

*Buru* izenak adiera bat baino gehiago ditu; horietako batzuek (‘gorputzaren goiko edo aurreko zatia’ edo ‘burua adimenaren eta oroimenaren iturburutzat hartuta’) *behi-esne* moduko izen elkartuak osatuko dituzte, ‘jabegoa’ edo ‘osoa-zatia’ erlazio semantikoen pean aztertu direnen parekoak (*arrain buru*, *legatz buru*, *txerri buru*, § 7.2.2.2e, § 7.2.2.2f). Beste adiera batzuetan, aldiz, ‘muturra’, ‘buruzagia’ adieretan, maiztasun handia du *buru* izenak bigarren osagai gisa. Adiera horretako elkartuak dira hemen jasotzen direnak.

## Gai

Izen kategoriako mugatzaileei elkartzen zaie *gai*, izen arrunt bizidun nahiz bizigabeei:

abadegai, alkohol gai, andregai, apaizgai, auzigai, aztigai, bertso gai, burdingai, diputatu-gai, doktoregai, emaztegai, erlijio gai, erregegai, erreginagai, euskaltzain gai, eztabaidagai, fisika gai, gonagai, jakintza-gai, kontsumo-gai, kultura gai, lehendaka-

rigai, mediku gai, meditazio gai, musika gai, olerki gai, otoitz-gai, polemika gai, senargai, sugai, suhigai, teknika gai...

Baita aditsoinei ere: *apaingai, aztergai, bizigai, elikagai, erregai, ezkongai, ikasgai, ikusgai, irakurgai, itzulgai, jangai, konkistagai, kontagai, luzagai, mintzagai, oroigai, osagai, salgai, sendagai, sinesgai*.

Hainbat adiera ditu *gai* izenak ere ('gauzak osatzen dituzten materia motetako bakoitza'; 'zerbait egiteko edo osatzeko behar diren gauzetako bakoitza'; 'jarduera edo gogoeta bateko edukia; elkarrizketa, hitzaldi, idazlan eta kidekoen mamia'... *Euskaltzaindiaren Hiztegia*). Predikatu konplexuak ere osa ditzake: *gai egin (gaitu), gai egon, gai izan*. Mugatzaile motaren arabera, adiera bat edo bestea hartzen du *gai* izenak. Mugatzaile bizidunen eskuinean, mugatzaileak adierazten duena izateko bidean dena, *gai* dena, balioa ikusten da: *andregai, doktoregai, erregegai, lehendakarigai, senargai*... Mugatzaile bizigabeei elkartzen zaie, oro har, lehen bi adieretako *gai*: *afari gai, bizkotxo gai, burdingai, gonagai, liburu gai, sugai*... *Behi-esne* motako izen elkartutzat har ditzakegu hauek. Beste izen elkartu hauetan, berriz, 'jarduera edo gogoeta bateko edukia' adiera hartzen du *gai*: *arte gai, elerti gai, erlijio gai, jakintza gai, kultura gai*... Aditzoin + *gai* egiturako izenetan, bi motatako erlazioa dago izenaren eta aditzaren artean: batzuetan aditzaren objektua da *gai* (*ikasgai, irakurgai, itzulgai, jangai, kontagai, sinesgai*); objektu adierako izenak sortzen dituzten atzizkien balioa ez dago oso urrun *gairen* erabilera honetatik (§ 4.4.3). Beste batzuetan, aditzak adierazten duen horretarako baliabidea adierazten du *gai* izenak (*oroigai, sendagai, osagai*); tresna edo baliabide adierako izenak sortzen dituzten atzizkien parekotzat har daiteke *gai* hau (§ 4.4.2).

### *Gizon, mutil*

*Hitz-Elkarketa/2* lanean egin bezala, batera ematen dira hemen ere bi mugakizunak, aski antzeko jokamolde eta adiera dituzte-eta. Izen kategoriako mugatzaileak hartzen dituzte:

armagizon, baso gizon, elizgizon, gerragizon, herri gizon, itsasgizon, kultur gizon, legegizon, letragizon, mendi gizon, olagizon, plazagizon; artzain mutil, baso mutil, guda mutil, itsasmutil, itsumutil, mendi mutil, meza mutil, muga mutil

Mugatzaileak bizigabeak direnean, adinak edo lan egoerak bereizten ditu *gizon* eta *mutil* mugakizun duten izenak: *baso gizon* / *basomutil*, *gudagizon* / *gudamutil*, *itsasgizon* / *itsasmutil*, *mendi gizon* / *mendi mutil*... Beste batzuetan ezin da horrelako bikoterik aurkitu, izen + *gizon* egiturak dira bakarrak (*eliz gizon*, *kultur gizon*, *lege gizon*, *letra gizon*...); lanbidea edo pertsona baten jarduera adierazten dute. Mugatzaile bizidunekin ikusten da bi mugakizunen arteko alderik handiena: *arotz* edo *artzain* lanbidea adierazten duten izenak dira, ez dute *gizon* izenaren beharrik (ez bada, behintzat, adierazi nahi arotz hori edo artzain hori gizonezkoak direla, eta orduan atribuzio egiturako elkartua izango litzateke, § 7.1.3c). *Artzain mutil* edo *arotz mutil* elkartuek, ostera, ‘laguntzailea’, ‘ofizioa ikasten ari dena’, adierazten dute.

Gaur egun, bestalde, zehazki lanbide jakin bat duen gizonezkoa adierazteko ez bada, gizonezko nahiz emakumezkoak izenda ditzaketen formak hobesten dira, *legelari* modukoak.

### Gune/une

Jatorriz forma beraren bi aldaera dira (Mixelena 1977b), baina egungo erabileran *une* ‘denbora-bitarte aski laburra’ eta *gune* ‘lekua’ bereiztera jo da (ikus EH), baina ondare lexikoko adibideetan (eta gaurkoetan ere, batzuetan) ez dago mugakizunaren aldaeraren eta adieraren artean banan-banako egokitasunik. Mugatzaile bera ere aurki daiteke ondoren *une* eta *gune*, biak dituela. Oro har, izen bizigabe eta adjektibo kategoriako mugatzaileak hartzen ditu, baita aditzoinak ere; baina zalantza sor daiteke behin baino gehiagotan mugatzailea adjektibo kategoriakoa ala aditz kategoriakoa den (*bihurgune*):

administrazio-gune, aldiune, argigune, argiune, astiune, aterruna, auzune, bakegune, bakeune, babesgune, beltzune, beteune, bihurgune, bilgune, bustigune, egongune, er-

tzaingune, estalgune, garaigune, hutsune, ibilgune, ikusgune, ilungune, ilunune, ingurune, isilgune, isilune, itzalgune, liluragune, lodigune, sakonune, tontorgune, zelai-une, zerbitzugune, zokogune

Deigarri gertatzen da adjektibo kategoriako mugatzaileen kopurua, OEHko datuak ikusita XI. mendean dagoeneko ageri dena (*soilgune*). Azter ditzagun zenbait adibide, bereziki mugatzaile bera eta mugakizun bai *une* eta bai *gune* duten izenenak, esanahi alderik dagoen ala ez ikusteko: *Printzipioz, dirudienez, jende gehienak bat egiten du proiektu honetan, estatu bakarra, bi komunitateren errespetoan artean halako bakegune bat sortze (Berria); Eskola Bakegune proiektua (Berria); Historialariek betidanik hiru ataletan zatitu dute guda. Haien tartean bakegune txikiak egon ziren (Wikipedia); Nekagarria da hau, bai —alargunak irribarre egin zuen, bakeune bat eskainiz (Navarro). Adibide horietako azken *bakeguneak* ‘unea’ adierazten du, zalantzarik gabe. *Ilungune* eta *ilunune* izenen adibideak dira honako hauek, nahiz *ilungune* forma izan nagusi, alde handiz, gaurko corpusetan; *gune* edo *une* mugakizuna gorabehera, ‘tokia, aldea’ adierakoak dira adibideak: *Izan ere, obra honetan ez naiz behin ere edonola mintzatu, zehaztasun osoaz eta egokitasun handiz baidiz, eta ardura handia ukan dut ilunune bat bera ere argitu gabe gera ez dadin (Kintana); Xakuto batetik makillaje lapitzak eta hautsak atera zituen eta begiak margotzen, masailetan ilununeak ezartzen hasi zen (I. Zabaleta); Argi distiratsuarekin batera kezkatzeko ilununeak ere badirela ikusten dugu-eta (Zuazo); Hortxe aparkatu behar diat —esan nuen—, sarrera pasatuxe eta hortxe, ilungune horretan (Berrizbeitia); Ispilurik ez da ikusten, bitartean ilungune handi bat dagoelako (X. Amuriza). *Isilune* da forma nagusia corpusetan (ez dago alderik *isilune* eta *isilgune* formen artean bakoitzaren agerraldiari erreparatuz gero. Izan ere, *isilgune* izenaren adibide urrietan ez dago beti argi ‘toki’ adiera): *Beldurra izango zien seguru asko bikote hasberrietan [...] ia-ia amildegi bihurtzen diren isilgune dramatikoei (Joxean Agirre); Isilgune horretan sartzen saiatu naiz, hortik zer entzuten zen antzematearren (Garde); Eta isilgune baten ondoren (Goenkale); Gune batetik bestera joateko, igarobide, harrera-leku eta isilguneak egingo dira, “natura, historia eta bizitzaren elkargune bihurtuz” (Egunkaria). Bi formak batera ere ageri dira adibide ho-***

netan: *Zeren, dudarik gabe, geroaldian datozen horiek nire isiluneak eta isilguneak aurkituko dituzte nik hutsunetzat ematen ditudan oroimenaren ezkultalekuetan* (Garde). ‘Toki’ adierako *une* elkartuak ere badaude, bereziki mugatzailea adjektibo kategoriakoa denean: *beltzune, hutsune, sakonune...* Nolanahi ere, arruntena formen eta adieren banaketa da.

## Jende

Izenak dira, bizidunak gehienak (baita animalia izenak ere), *jenderen* mugatzaile gisa ageri direnak; adjektibo kategoriako diruditen mugatzaileak ere izentzat har daitezke erraz asko:

apaiz jende, ardi jende, andre jende, arrantzale jende, arrautza eta esne jende, baserri-tar jende, behartsu jende, behi jende, buruzagi jende, erromes jende, esne-jende, gazte-jende, gerra-jende, erle jende, haragi jende, herri jende, irakasle jende, judu jende, kristau jende, langile jende, liberal jende, marinel jende, nafar jende, ontzi jende, plater jende, txerri jende

OEHn badira mugatzaile bizigabea duten adibideak (eta izena bera ere bizigabea da); nafarrerazko testuetan ageri dira batik bat. Baina ez da horrelakorik ageri gaurko corpusetan; bai, ordea, animalia adierako mugatzailea dutenen adibideak: *Harriz zamatutako kamioi horien joan-etorrietara ohitu den behi jendea larrean* (Aranbarri); *Ardi jendea eta, erle jendea eta...* (Sastre); *Ardi jendearen milaka litro odol isuriko da, Erresuma Batuan urtero, hiltegietao isurbideetan barrena* (Errekondo); *Esan nahi duguna da lizuna, onddoak eta dauden ingurunean gutxieneko oreka bat izango bada, beharrezkoak direla saguak, arratoiak, tximitxak eta gainerako txiki-jendea* (Urain).

Adibide horietan *jende* izenak duen esanahi “ahula” ikusirik, erreferentziaren ikuspegitik ez dirudi alde handirik legokeenik pluraleko artikulua erabilia: *behartsuak, buruzagiak, gazteak, langileak, liberalak* eta abar.

*Jende* adieraz plurala den arren, ia adibide guztietan singularrean ageri da. Izen elkartu hauek ez daude oso urruti multzo adierako izen elkartuetatik

(§ 7.2.2.3b). Bestalde, *sumpsuntiboen* (§ 7.2.2.3h) artean ere sar zitezkeen *langile jendea*, *arrantzale jendea* eta, oro har, mugatzailea mugakizunaren azpimultzotzat har daitezkeen adibideak.

## Kide

*Kide* eta *ide*, bi aldaerak ditugu (*ahaide* ihartua, *gogaide*, *haurride*, *mugaide...*), baina *kide* da nagusitu dena, herskariduna (*-(k)eria*, *-(k)izun* edo *-(k)or* atzizkietan gertatu den bezalaxe). Mugatzaileak izenak dira (salbuespen dira aditzoin kategoriako mugatzailea dutenak, *ezkontide* edo *ikaskide*):

aberkide, alderdikide, apaiz kide, ardazkide, asmokide, baliokide, batzordekide, bizikide, elkartekide, fidantzakide, garaikide, gogaide, haurride, herri kide, hoskide, iritzi kide, izenkide, jabekide, lankide, lehiakide, mahaikide, mirabe kide, mugakide, oinordekide, solaskide, sustraikide

Mugatzaileak izen bizidunak direnean, oro har, ahaidego eta predikazio izaerako izenak dira (Zabala 1993); “haurrak, apaizak, oinordeak, mirabeak... kide dira” atribuziozko parafraziak eman daitezke: *Eta, seme-alaba bagara, bai eta oinordeko ere, Jainkoaren oinordeko eta Kristoren oinordekide: zeren, nekeetan Kristoren kideko garenez gero, aintzan ere beraren kideko izango baikara (Elizen arteko Biblia); Eskubide hori jabekide batek baino gehiagok egikaritzen badute, ondorengo lau egunetan enkantea egingen da jabekide guztien artean (HAEE/IZO); Mirabea atera zanean, eun denario zor zizkion mirabe-kide bat aurkitu zuen (Iraizoz). Esanahiaren ikuspegitik subjektu plurala eskatzen du; hau da, izaki hori (jabea, mirabea, apaiza...) beste batzuekin harremanetan egotea. Mugatzailea izen bizigabea denean ere aurki daiteke atribuziozko predikazioa: *Hala, hemendik aurrera 47 izango dira UEMAKO herri kideak (Argia).**

Mugatzailea izen bizigabea denean, ‘nongo kide’ edo ‘zertan kide’ izan daitezke parafraziak: *Zordun beraren fidatzaileak bat baino gehiago direnean zor berberaren ondorioz, horietatik zorra ordaintzen duenak beste fidantzakideei erreklama diezaieke bakoitzak proportzioz ordaindu behar duen zatia (HAEE/IZO);*

*Kasualitatez, moja hura azpeitiarra zen, eta herrikide zuen mutil gaztea laguntzeko prest azaldu zen* (N. Lujanbio). Beste batzuetan ‘X bera dutenetako bakoi-tza’ izan daiteke parafraasi egokia: (beste batzuen) iritzi bera duena, izen bera duena, muga bera(k), sustrai bera duena... *Nere izenkide orrek* (J. R. Zubillaga); *Sustraiakideak: biak ala biak Europar jatorriko etorkinen oinordekoak, biak ala biak arrotzak paradisuan* (Berria). Parafraasiak parafraasi, ‘kideak direla’ predikatzen den subjektuek zerbait izan behar dute batean, *kideren ezkerreko mugatzaileak* adierazten duen hori —tokia, jarduera, iritzia, garaia...—, baina mugatzailearen eta mugakizunaren artean ez dago atribuziozko harremanik.

*Kide* mugakizun duten elkartuen kategorია bera ere ez dago beti argi. Batzuetan izenak dira: *alderdikide, lankide, mahaikide*. Beste batzuek predikatu sintagma funtzioa dute ia beti (*mugakide*, esaterako): *Eskola opor guztiak Saint-Germain-en-Layen ematen ditugu anaiak eta biok [...] basoa mugakide duen urbanizazio batean* (Erro). Eta badira izen baten eskuinean ageri direnak ere, adjektiboari dagokion kokapenean: *Bera ez zen inoiz Lurretik atera, ez zuen inoiz aukerarik izan planeta mugakide batean zer bizitza mota eramán zitekeen egiaztatzeko* (Gorrotxategi). Adjektibo balioko *kide* hauek izen bizigabeen modifikatzaileak dira ia beti; azken adibide horretakoaz gain, *kable ardazkidea, multzo balioki-deak, arte garaikidea, kultura garaikidea* edo *hitz-amaiera hoskideak*.

Erdal *con-* aurrizkiaz eratorritako izenen parekoak dira *kide* mugakizun dutenak: *consuegra/amaginarrebakide, consuegro/aitaginarrebakide, comensal/mahaikide, conciudadano/herrikide* eta abar. Erdal erreferentzia adjektiboen ordainak ere eman daitezke *kideren* bidez (*coaxial/ardazkide, contemporáneo/garaikide*). Baina *kidek* izen kategoriako mugatzailea eskatzen duenez, *ofizialkide(tasun)* ez da ordain egokia erdal *cooficial(idad)* entzat (*koofizial(tasun)* da hor forma zuzena).

### *Kume, ume*

Hemen ere bi aldaera ditugu: *ume* eta *kume*. Azken honek ‘animalien umea’ adiera hartzen du, eta, gizaki adierako izenei askotan gutxiespenezko ñabar-

dura ematen die; gehienetan beste izen baten eskuinean ageri da. *Ume*, ostera, askoz maizago erabiltzen da izen beregain gisa, bai ‘haurra’ esanahiarekin eta bai ‘hazteko adinean dagoen animalia’ adierarekin ere. Oro har, badirudi giza-kiez aritzeko *kume* markatuago dela *ume* baino:

aberaskume, alargun ume, andrakume, aingerukume, antxume, apaizkume, azkonarkume, baserrikume, behargin ume, behikume, burgeskume, erregekume, erreginakume, eskolaume, euskal ume, handikikume, idazlekume, kalekume, katakume, listokume, markeskume, putakume, sasikume, saskigilekume, txakurkume, usakume, zaldikume

Ikus ditzagun adibide batzuk: *Horrelakorik ez zian listokume horrek espero* (X. Amuriza “Larraun”); *Nundik ibiliko ote gera, ba, markeskume onek aizea ar dezan* (Etxaniz); *Txahala esaten jako edozein beikumeri* (Mogel); *Ta orra, ordun, ez soilki idazle bat galdua, baizik aren ikasbide ona ere, idazlekumerik sortzeko bideak langatu* (Lizardi); *Saskigilekume izan arren, izketa atsegiña du, esan zion amari* (Orixe).

Mugatzailea gizaki edo animalia izena izan ohi da, *burges* edo *listo* ere izen balioan hartzekoak baitira goiko adibideetan. Baina badira izen bizigabeak ere: *eskolaume*, *kalekume*, *baserrikume*, *sasikume*... Azpikategorizazioaren arabera, modu batekoa edo bestekoa izango da mugatzailearen eta mugakizunaren arteko erlazioa: izen bizidun denean, oro har, ‘noren umea edo kumea’ adierazten du mugatzaileak; izen bizigabea denean, ‘non’ (non sortua den, non bizi den...). Hala ere, mugatzailea gizaki izena izan arren, *idazlekume* edo *apaizkume* izenetan bestelako harremana antzematen da bi osagaien artean; gertuago daude *idazlegai* edo *apaizgai* izenetatik: ‘idazle izateko bidea dena’, ‘apaiz izateko bidean dena’, alegia.

## *Lagun*

Izen kategoriako mugatzaileak dira *lagun* izenaren ezkerrean ageri direnak; asko bizigabeak, baina baita bizidunak ere:



auzo lagun, baso lagun, behar lagun, bertso lagun, bertsolari lagun, bidelagun, biltzar-lagun, bizilagun, dantza-lagun, dantzari lagun, ehiza-lagun, eskola-lagun, espos-lagun, gazte lagun, gerra lagun, gudari lagun, hargin lagun, hurko lagun, irakasle-lagun, kontrabando lagun, jesulagun, josulagun, mahai lagun, mutil lagun, neskalgun, ohelagun, ontzi lagun, txalupa lagun...

Mugatzaile diren izen bizidunen adiera ohikoenak honako hauek dira: ‘ofizioduna, jarduera jakin batean ari dena’ (*bertsolari, dantzari, gudari, hargin, irakasle*), ‘egoera’ (*espos*), ‘sexua’ (*mutil lagun, neska lagun*). Azken hauek ‘atribuzio egiturako izen elkartuetan’ sailka daitezke erraz asko. Beste batzuetan, ostera, jarduera edo lekua (askotan jarduera jakin bateko lekua) adierazten dute mugatzaileek (*baso, bide, dantza, ehiza, kontrabando, ohe, ontzi, txalupa*); erabilera honetan ez dago oso urrun *kide* izenaren adieratik (*auzo lagun/ auzokide, bidelagun/bidaide, ohelagun/ohaide*).

## Orde

Mugatzaileak izen kategoriakoak dira, izen konkretuak, bai bizidunak eta bai bizigabeak. Batzuetan *ordeko* izena ageri da:

aitaorde, alabaorde, amaorde, begiorde, buruorde, dekanorde, erregeorde, errektoreorde, eskuorde(ko), etxeorde(ko), izenorde, jainko orde, jaun orde, lehendakariorde, oinorde, sailburuorde, semeorde(ko), zuzendariorde...

Mugakizunaren kategoria ere izena da, baina elkartuaren azpikategoriazioa aldatu egiten da mugatzailearen arabera: mugatzaile bizidunekin elkartu osoa biziduna da (*buruorde*), baina mugatzaile bizigabeekin elkartu osoa bizigabea da (*begi orde, izenorde*): *Parisko Saint-Jacques karrikan, Italiatik etorritako beringile suerte batzuek begiordeak eskaintzen dizkiete pagatzeko diru aski dutenei* (Epaltza); *Niretzat, amaorde baten antzekoa zen Greta* (Osoro). Beraz, *ordek* ‘ordezkoa’ adiera baino ez du, eta mugatzaileak ematen du zeren ordezkoa den, izen bizidun baten edo bizigabe baten ordezkoa. Aditz lokuzioetako aditz arinekin gertatzen denaren antzera (§ 23.2.1.3.1h), mugatzaileak ematen

dio [±bizidun] tasuna elkartu osoari. Badira salbuespenak, nolana ere: *eskuorde* edo *oinorde*, esaterako. *Arduradunak emango du aipatu abisuaren jaso-agiria, eta ezkontzara azalduko da, bera zuzenean edo eskuorde bidez* (HAEE/IZO); *Euskaldunen oinorde batek idatzia* (Argia). Kargua adierazten duten mugatzaileekin elkartzean, burua, errektorea, lehendakaria, zuzendaria... denaren bigarrena-edo adierazten du. *Jainko orde* izenean, berriz, *sasiren* parekotzat har daiteke.

**7.2.2.3g** *Hitzaurre* moduko hitz elkartuak. Euskaltzaindiaren sailkapenari jarraiki, leku-denborazko adiera duten mugakizunak bilduko ditugu azpisail honetan: *aitzin, albo, alde, atze, aurre, azpi, barnel/barren/barru, bazter, be(pe)*<sup>12</sup>, *bitarte, ertz, gain, gibel, inguru, oste, (t)arte*... Adieraz gain, beste ezaugarri bat ere badute batean mugakizun hauek guztiek: erlaziozko izenak dira, puntu honetan aztergai ditugun gainerakoak bezala; hau da, osagarria eskatzen dute. Horretaz gain, esanahia ere aski lausoa dute (aurreko puntuko *andregai* motako elkartuetako mugakizunak bezala, hauek ere askotan adiera bat baino gehiago dute). Baina erlaziozko izenen artean, multzo berezia osatzen dute, kokapen izenak dira (Artiagoitia 2011). Mugatzaileak izen kategoriakoak dira:

aditzondo, afalondo, aldare aitzin, aldare-aurre, arima-barru, asto-gain, aterpe, barrunbe, baso-tarte, bazkalondo, pazko-inguru, begi-bazter, begitarte, belarri-oste, belarrondo, bertso-ondo, beso-azpi, bihotz-barne, bular-gain, bular-inguru, dantzaurre, eliza-barne, eliza-bazter, eskugain, esne-gain, etxe-aitzin, etxe-atze, etxe-aurre, etxe-barne, etxe-ondo, ezkeralde, bestondo, gerraurre, gerraondo, giltzape, guda-oste, hitzaurre, hutsarte, ilunpe, izenondo, kale bazter, lagunarte, lanarte, lur-azpi, mahai-ondo, mendi-gain, mendi-gibel, ogi-ertz, oin-azpi, pago-atze, praka-barren, sasi-arte, solairuarte, tripa-barru, zeru-azpi, zeru-barru, zubi-gain, zubipe

Izen elkartu hauetako batzuek, esaterako, *bazkalondo, bazkaloste, gerra-aurre, gerra-oste*, aurrikidun izena dute gaztelaniaz ordain ('sobre-

---

<sup>12</sup> Euskaltzaindiaren sailkapenean leku-denborazko mugakizunen artean ageri den arren, eta izen kategoriako lexemetan ageri den arren (*barrunbe, errape, estalpe, giltzape, ilunbe, kerizpe*...), nekez aurkituko dugu bera bakarrik izen balioan. Gainera, izen propioekin ere aurki dezakegu toponimian eta onomastikan: *Loretape, Altube, Haizpe, Ospitale-Pea, Sarrikota Pea*...

sa', 'preguerra', 'posguerra'). Horien arabera sortu ditugu azken urteetan *atikogaineko*, *erditzeondo*, *historiaurre*, *idazki-ondoko*, *kanpainaurre* (*hauteskunde-kanpainaurre*), gaztelaniazko *sobre-*, *pre-*, *post...* aurrizkidun izenei ordaina emateko. Beste batzuetan, ostera, izen elkartuko lehen osagaia izaten da erdal aurrizkien ordain (*azpiatal*, *gainzama...*); mugatzaile bereziko izen elkartuetan aztertuko ditugu horiek (§ 7.2.2.4). Erdal aurrizkien izaeran aurkitu behar dugu azalpena zergatik ematen dugun batzuetan mugakizuna ordain (*gerra-aurre*) eta beste batzuetan, berriz, mugatzailea (*aurre-iritzi*). Izan ere, erdal aurrizkiak batzuetan eratorriaren buru semantikotzat hartu behar ditugu: *preguerra* ez da 'gerra', baizik gerraren aurreko garaia; bide beretik, *precampaña* eta *prehistoria* ez dira ez kanpaina eta ez historia, baizik horien aurreko garaia; *postparto* ez da erditzea, baizik erditu ondoko garaia; *sobreático* ez da atikoa, baizik haren gaineko etxebizitza eta abar. Horietan guztietan, buru-osagarri erlazioa dugula esan dezakegu, aurrizkia izanik buru eta izena osagarri. Euskarak burua eskuinean duenez, osagarri-buru hurrenkera dagokie; hau da, *aurre*, *gain*, *ondo*, *oste* eta abar bigarren osagai, mugakizun izatea. Askotan *-ko* atzizkiaren bidez izenlagun bihurturik erdal erreferentzia adjektiboan ordaina ematen dute: *hauteskunde aurreko* ('preelectoral'), *urpeko* ('subacuático'), *nazioarteko* ('internacional') eta abar.

Beste batzuetan, aldiz, erdal aurrizkia modifikatzailea da, eta ondoren datoren izena da burua, zertaz ari garen adierazten duena; euskaraz, 'atze, *aurre*, *gain...* + izen' hurrenkera dagokie, *eguzki-lore*, *behi-esne*, *goiz-argi*, *burdin barra* eta 'modifikatzaile-izen' erlazioa duten beste hamaika mendekotasunezko izen elkarturi bezalaxe. *Aurreiritzi* 'aldez aurretik dugun iritzia' da, *gainzama* '[ohikoa denaren] gaineko zama', *azpiatal* '[beste atal baten] azpiko atala'. (Gràcia & Azkarate 2000).

Leku-denborazko adiera horrek, bestalde, postposizioaren eremura hurbiltzen gaitu. Areago, mugakizun horietako batzuk maizago erabiltzen ditugu gaur postposizio moduan, izen balioan baino: sarri ikusiko ditugu *albo*, *alde*, *atze*, *aurre*, *barru*, *gain*, *inguru*, *oste...* izenak *-n*, *-ra* edo *-tik* postposizio-atzizkiekin *etxe aurrean*, *mahai gainetik*, *hiri barnera*, *ate ostean* moduko egiture-

tan<sup>13</sup>. Izen elkartua osatzen dutenean, jakina, adjektiboa har dezakete, sintagma singularreko edo pluraleko buru izan daitezke, erakuslea har dezakete determinatzaile gisa, eta sintagma ergatibo edo absolutibo baten buru izan daitezke: *Egal-atzea lepezamarreruntz etzin* (Lizardi); *Lur azpia, guk lanera-ko lurra esan deguna, beste lur baten gañian egoten da* (Nekazaritzako irakurraldiak); *Nik uste Donapaleu alderdiko etxalde handi batetako andregai bat zen* (J. Etxepare); *Bisitari arrotza, ongi etorri gure mendialdeetara, esan zion* (Satrustegi). Postposizio hauek ere *-ko* atzizkia hartu eta izenlagun bihurtzen ditugunean erdal adjektibo aurrizkidunak ordezkatzeko baliatzen ditugu: *jaio aurreko* ('prenatal'), *graduatu ondoko* ('posgraduado').

Ez dira leku-denborazko mugakizun hauek bakarrik postposizioetan aurki ditzakegunak, gorago ikusi ditugun zenbait mugakizunek ere (modu adierakoek), hala nola *maila* edo *moduk* postposizioak osa ditzakete: *mundu mailan, komediantre moduan*. Berrero ere, lexikoaren eta sintaxiaren arteko muga ibiliko ginateke.

**7.2.2.3h** *Sumpsumtive motakoak*. Bestelako ezaugarria dute azken azpimultzo honetan sartuko ditugunak: mugakizuna, mugatzailearen gain-multzoa da. *Pinu-arbola* edo *porru-landare* izen elkartuetan 'pinua' bada arbola, eta 'porrua' bada landarea. Beraz, mugakizunaren esanahia zabalagoa da, eta esanahi horrek hartzen du bere barruan mugatzailearena ere. Beste modu batera esanda, mugakizuna *genus proximus* eta mugatzailea *differentia specifica* izan ohi dira; hau da, 'espezie-genero' erlazioa dago bi osagaien artean. Horrek bereizten ditu gorago ikusi ditugun *atributu* egiturako elkartuetatik (§ 7.1.3c); 'artzipretea pintorea da' edo 'osaba bertsolaria da' gisa ulertzen ditugun *artzipreste pintore* eta *osaba bertsolari* elkartuetan, kalifikatu egiten du bigarren osagaiak lehena. Hemen aztergai ditugun elkartuetan, ostera, esan bezala, 'espezie-genero' erlazioa dago, mugakizunaren 'barruan' dago mugatzailea. Natur Zientzietako terminologian, landareak, animaliak, mineralak, etab. izendatzeko baliatzen dira sarri mota honetako izen elkartuak, taxonomia egiteko, alegia.

---

<sup>13</sup> Izen elkartuen eta postposizioen arteko aldeaz, ikus Azkarate eta Perez Gaztelu (2014); Odriozola (2004b).

abeto arbola, almitz belar, altzifre zuhaitz, arrosa lore, arto landare, lis-lore, lizar arbola, porru landare, udare arbola<sup>14</sup>, urritx perretxiko

Nolanahi ere, ezin esan daiteke sumpsumtibotzat hartu diren izen elkartu guztietan inklusio harremana dagoenik, mugatzailearen erreferentea mugakizunaren barruan dagoenik: *armiarma-tximino*, *ezpata-arrain*, *ilargi-arrain*, *koral arrain*, *mailu-arrain*, *mihi-arrain*, *ortzadar boa* izen elkartuetan, ‘armiarma’ ez da ‘tximinoa’, ‘ezpata’ ez da ‘arraina’, ez eta ‘ilargia’ ere, etab. Bi izakiren arteko konparazioa dute oinarri hitz elkartu horiek; espeziearen barruan azpiespezieak egiteko mugakizunaren kolorea, itxura, forma, hartzen dira kontuan (Val Álvaro 1999). Bestelako hurrenkera ere aurki daiteke batzuetan, *amuarraín ortzadar*, *suge koral*, *perloi lira*. Beste batzuetan, jatorria edo bizilekua, habitata da mugatzaileak adierazten duena; horren arabera izendatzen da azpiespezia: *indi oilar*, *itsas antzara*, *itsas hartz*, *itsas oilar*, *itsas zapo*, *pinu perretxiko*. Mugatzaile, izen propioa duten elkartuak ere baditugu, hala nola, *San Joan lore*, *San Joan sagar*; santu izenak urteko garai jakin bat adierazten du hor, *San Joan eguna*, alegia. Garaia da azpiespezia egiteko erabili den irizpidea (eta, horrexegatik, gorago erlazio semantikoak ikustean aipatu dugun ‘garaia’ erlazioaren azpian ere izan dezakete lekua).

Mugakizuna, mugatzailearen gain-multzoa dela esan dugu, baina gain-multzo hori izan daiteke logiko-abstraktua ere, *gauza*, *lan* edo *kontu* mugakizun direnean: *aberaste lan*, *ebaluazio-lan*, *erle gauza*, *gizarteratze lan*, *afari kontu*, *definizio kontu*, *elebitasun kontu*, *lege gauza*, *paper gauza*... Ez da hain erraz hemen espezie baten barruko azpiespezieak bereiztea, esanahi zabal, abstraktuko mugakizunak dituzten egitura hauetan. Uler daitezke ‘kontua elebitasuna da’, ‘kontua afaria da’, ‘lana gizarteratzea’ da moduan. Baina bestelako harreman semantikoa ere ikus dezakegu mugatzailearen eta mugakizunaren artean; esaterako, ‘edukia’ edo ‘helburua’. Hitz batean, zalantza egin dezakegu mugakizun logiko-abstraktua duten izen elkartu hauek ez ote diren, besterik gabe,

---

<sup>14</sup> Erraz uler daiteke ‘udareak ematen dituen arbola’, ‘ondorioa’ edo ‘emaitza’ erlazio semantikoaren adibidetzat.

*behi-esne* motako izen elkartu arruntak (Azkarate eta Perez Gaztelu 2014: II.6.2.4).

#### 7.2.2.4. Mugatzaile bereziko izen elkartuak

##### 7.2.2.4a Leku-denborazko mugatzaileak

Leku-denborazko mugatzailea duten izen elkartuak aztertuko ditugu hemen: *aitzin*, *albo*, *atze*, *aurre*, *azpi*, *barne*, *bazter*, *barne*, *behe*, *gain*, *gibel*, *goi*, *kanpo*.

aitzinasmo, aitzinsolas, albo-emaizta, albo-hizkuntza, aurrekontu, aurreikuspen, aurreiritzi, aurrelan, aurrebaldintza, azpiatal, azpiegitura, azpimarra, azpimultzo, azpioihal, barne-araudi, barne-bizitza, barne-lotura, barne-migrazio, barne-muin, barne-oreka, behe-laino, gainazal, gainbalio, gainegitura, gainkarga, gain-presio, gainsoldata, goi-agintaritza, goi-kargu, goi-maila, goi-nafarrera, kanpo-ekintza, kanpo-irizpide, kanpo-mugarri

Gorago aztertzen dira leku-denborazko mugakizuna duten izen elkartuak, *hitzaurre* motakoak (§ 7.2.2.3g); osagarri-buru egitura dute (eta gaztelaniaz semantikoki buru diren aurrizkiak ordezkatzeko baliatzen ditugu: *prehistorial/historiaurre*, *preguerra/gerraurre*, *posguerra/gerraoste*). Leku-denborazko izena mugatzaile duten elkartuetan, aldiz, modifikatzaile-buru erlazioa dugu: *azpimarra* ‘azpian jartzen dugun marra, azpiko marra’ da, *gainsoldata* soldata da, soldata gehigarria, *gainkarga* karga da, gehiegizko karga. Modifikatzaile balioa duten *pre-*, *sobre-*, *sub-*, *supra-*... aurrizkia daramaten izenei ordainak emateko sortu ditugu horrelako elkartu asko azken urteetan (Villasantek ere [1974: 52] “algunas palabras que pueden servir de prefijos” izenburupean biltzen ditu *aurre-*, *azpi-*, *gain-* eta abar). Emankortasunari dagokionez, mugatzaile batzuek —*aurre*, *azpi*, *barne*, *behe*, *gain*, *goi*— askoz izen elkartu gehiagori ematen diote bide, beste batzuek baino —*aitzin*, *albo*, *barru*, *barren*, *bazter*, *gibel*—. Idazkerari dagokionez, bi osagaiak elkarturik eman behar direla arautu zuen Euskaltzaindiak.

### 7.2.2.4b *Elkar, kontra mugatzaile*

Mugatzaile bereziko izen elkartutzat hartzen dira *Hitz-Elkarketa/4* lanean *elkarlan* eta *kontradantza*; hau da, *elkar* eta *kontra* lehen osagai dituztenak. Egia da baditugula gaurko euskaran horrelako izenak. Batetik, *elkarbide*, *elkarbizitza*, *elkarrekintza*, *elkargiro*, *elkarrizketa*, *elkartruke*, *elkar-maitasun*, *elkar-konfiantza*, *elkar-jarrera*, *elkar-istimu*. Bestetik, *kontradantza*, *kontradibide*, *kontrazal*, *kontraegitura*, *kontrakarga*, *kontrapisu*, *kontrapozoi*...

*Elkar* mugatzaileari dagokionez, ez da zalantzarik izenordain kategoriakoa dela, izenordain elkarkaria, hain zuzen ere (§ 13.8.4). Izen, adjektibo, aditz edo adberbio kategoriako osagaiak dira hitz elkartuak eratzen dituztenak; ez izenordainak. Are gutxiago, dagokion kasu marka edo postposizio atzizkia eskatzen duen *elkar*: *elkar ikusi*, *elkar maitatu*, *elkarrekin joan*, *elkarri eman*... Guztiz onargarriak dira *elkargune* edo *elkarbide*, mugatzailea, ezkerreko osagaia, *elkar(tu)* aditzoina izan baitaiteke; eta adibide horiek goraxeago aztertu ditugun mugakizun bereziko izen elkartuen sartuko genituzke (§ 7.2.2.3f). Hala ere, hainbat izen sortu ditugu euskaraz azken urteetan gaztelaniazko *inter-* zein *con-* aurrizkiei ordaina emateko. Diogunaren adibide argia da, esaterako, *elkarrekintza* sarrera *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n: “bi pertsonak edo gauzak elkarrekiko duten eragina” (ikus *interakzio*). Edo *elkarbizitza* “elkarrekin bizitzea” (ikus *bizikidetasun*). Baina aditzekin ere aurki dezakegu, *elkarbanatu*, baita adjektiboekin ere, *elkarneurgaitz*, *elkarneurgarri*. Honek ere, kategoria bateko baino gehiagoko mugakizunekin agertzeak, aurrizkien ezaugarria dakarkigu gogora.

*Kontra*, berriz, adberbio kategoriakoa da, eta postposizio ere izan daiteke aurretik genitiboa hartzen duela, *-en kontra*, instrumentala, *-z kontra*, edo datiboa Iparraldean, *-i kontra*. Bada *kontra egin* aditz lokuzioa ere, *kontrako* izenlaguna (*kontrako eztarritik joan*), *kontrakotasun* izena. Badu, beraz, autonomia lexikoa. Goraxeago aipatu ditugun izenek, hala ere, pareko erdal ordainak dituzte, *contra-* aurrizkiaz osatuak. Hots, erdal aurrizkiei ordaina emateko sortuak dirudite.

### 7.2.3. Aditzoin+izen kategoriako elkartuak: *Jarleku mota*

**7.2.3a** Hauek ere mendekotasunezko izen elkartuak dira, baina, mugatzailearen, ezkerreko osagaiaren kategoriak bereizten ditu orain arte aztertu ditugun elkartuetatik<sup>15</sup>. Emankortasun handiko egitura da; ohikoak dira garaia edo lekua adierako mugakizunak, hala nola, *egun, leku, toki*:

abialeku, abiapuntu, agerleku, agertoihal, aitorleku, agertoki, amiltoki, amil-leku, aril-toki, aztersaio, azterpuntu, biltoki, bildu-orri, bizigiro, bizkor-belar, borragoma, edanontzi<sup>16</sup>, egonleku, ehomakina, elikatoki, eragin-indar, erakustoki, eraman-indar, eraso-leku, erne-indar, erne leku, erosi-txartel, erre-burdin, errebelar, esar leku, esertoki, etzan-leku, etzan-toki, ezkonbidaia, ezkon-otordu, ezkon-urte, ezkon-egun, finkaleku, ezkonsari, gal-leku, garbileku, garbitoki, geldileku, geltoki, gertaleku, gordeleku, hazama, haz-pentsione, helduleku, igi-ahalmen, hiltoki, hil-xede, ibil-leku, ibil-egun, idatz-hizkera, idazkola, idazmakina, idaz-tankera, ihesleku, ikas-ahalegin, ikasliburu, ikastordu, ikastoki, ikus-muga, ikustoki, irabaz-lege, irakur-lan, irar-huts, irarkola, irartoker, iratzar-dei, irten-muga, itxarongela, itxi-garai, jaiotegun, jaioterri, jaioteuskalki, oroitarri, senda-indar, senda-etxe, sorleku, sor-marka, sor-herriño, sorterri, zorrotzarri...

*Noemi Moab-en bizi izan zan, Israel-era itzuli gabe, semeak ezkon-urtietara igo arteraño* (Lardizabal); *Tribunaletako paperek erakusten dute, Etxahun maiz ibiltzen zela jujetan, bere haurren ganik gero eta haz-pentsione joriagoak beharrez* (Lafitte); *Irar-huts askoz Azpiazuk 1926ko Donestebeko Euskal Jaietan ezaguterazita* (Goikoetxea Maiza); *Lau zango luzedun ehomakina ugarretzatu batek babesturik* (X. Amuriza “Larraun”). Egia da zalantza sor daitekeela mugakizuna aditzoin kategorikoa den ala izena nahiz adjektiboa: *aberats/aberas(tu), bazkari/bazkal(du), jolas/jolas(tu), kezka/kezka(tu)*... Beste batzuetan izena eta aditzoina forma berekoak dira: *argi, atsedan, dantza, erantzun* edo *eraso*. Baina adiera kontuan izanik, badirudi erraz egin daitekeela guztietan aditzoinaren aldeko irakurketa; edo, behintzat, esan daiteke ekin-

---

<sup>15</sup> Ikus *Hitz-Elkarketa*/3 (1991: 63-74), Perez Gaztelu, Zabala eta Gràcia (2004).

<sup>16</sup> Hitz elkarketa lantzeko sortu zen corpusean bildutako forma da. *Euskaltzaindiaren Hiztegian* arautu den *edalontzi* izenak *edari* + *ontzi* osagaiak ditu (*Behi-esne* motakoa da, beraz). (*Edari* > *edal*- aldaketa argitzen duten hots legeetarako, § 3.3e).



tza edo jarduera baterako lekua, tokia, ordua, eguna, gela... ematen dutela aditzera izen elkartu hauek. Beraz, orokortuz, esan dezakegu aditzoina edo jarduera izena izango dela mugatzailea.

**7.2.3b** Ohikoak dira aditzoin kategoriako mugatzaileak *aldi*, *bide*, *gai*, *kide*, *une*... moduko mugakizunekin (§ 7.2.2.3f) bai eta *modu*, *molde*, *mota* mugakizunekin ere (§ 7.2.2.3d):

aberasbide, adibide, agerbide, aginpide, argibide, aterabide, aurkibide, aurrerabide, azalbide, azterbide, baterabide, bilgune, bizigune, egiaztabide, egongune, erakustaldi<sup>17</sup>, etsialdi, geldialdi, geldiune, higialdi, ihesaldi, bizimodu, erramolde, idazmolde, ikusmolde, jokamolde, pentsamolde...

Bi osagaien arteko erlazio semantiko ohikoena, esan berri dugunez, ‘xedea’, ‘zertarakoa’ da. Baina ez da bakarra, *ezkonsari* ‘ezkontzean ematen den sari’ moduan uler daiteke, (eta ez ‘ezkontzeko sari’); *jaiotegun* ‘nor bait jaio den eguna’, *ezkon-bidaia* ‘ezkontzean egiten den bidaia’ eta abar. Adiera bat baino gehiago ere har dezakete izen elkartu hauetako batzuk; *hiltoki* bada ‘hil(dako) en tokia’, bana baita ‘animaliak hiltzen dituzten tokia’ ere.

**7.2.3c** Lehen osagaia aditzoina, argumentu egitura duena izan arren, gehienetan argumentu horiek ez dira azaleratzen. *Ikasliburu* elkartuan, adibidez, ez da ageri nor ikasten duen edo zer ikasten duen. Eta hala gertatzen da gainerako adibide gehien-gehienetan ere. Dena den, aditzoinaren objektua, barne argumentua, gauza daiteke izenlagunaren bidez, *altzarietarako gordelekua* nahiz bi osagaitik gorako izen elkartuan, *altzari-gordeleku* (Perez Gaztelu, Zabala eta Gràcia 2004). Azken adibide honek erakusten digu [aditzoin+izen] egiturako elkartu hauek izan daitezkeela beste elkartu bateko mugatzaile nahiz mugakizun, edo dvandva motako elkartu bateko osagai (§ 7.1.2), berrelkarketari bide emanez: *banakola-leiho zulo*, *egur-errauts*, *euskal hitz jostaldi*, *hitz-eratorbide*, *jostorraz-ontzi*, *kris-tau-ikasbide*, *sorgin-biltoki*; *jostorraz-hariak*, *sortalde*, *sartaldeak*... Gorago aztertu ditugun multzo elkartuetako mugakizunekin (§ 7.2.2.3b) ere aurki ditzakegu, izenondo batez lagundurik: *ezkongai gazte pilo*, *jesarleku txiki pilo*.

---

<sup>17</sup> Osagaiak *erakuts* + *aldi* izan daitezke, baina baita aditz izena ere: *erakuste* + *aldi*.

Idazkerari dagokionez, gehienetan elkaturik aurkituko ditugu bi osagaiak, edo, bestela, marratxoz loturik.

#### **7.2.4. ‘Osagarri-buru’ egiturako izen elkartuak**

Gorago esan dugu bi modutako harremana egon daitekeela mugakizunaren eta mugatzailearen artean: modifikatzaile-buru harremana nahiz osagarri-buru harremana. Modifikatze edo zehazte hori nolakoa izan daitekeen aztertu dugu mugatzailearen eta mugakizunaren arteko harreman semantikoen harira (§ 7.2.2.2). Beste batzuetan, ordea, mugakizuna, osagarria eskatzen duen izena da. Horrelako izen elkartuak ikusiko ditugu ondoren.

Bi multzo handitan bil daitezke osagarri-buru harremana duten izen elkartuak. Batetik, *izan* aditzarekin predikatu konplexua osa dezaketen *falta*, *asmo*, *behar*, *gogo*, *gura*, *nahi*, *beldur*, *egarri*, *gose*, *uste* (§ 23.2.1.3.4) mugakizun dutenak. Bi osagaien arteko harremanari ez, baina mugakizunak elkartu osoari ematen dion esanahiari erreparaturik, bi sailetan banatu ziren horrelako elkartuak *Hitz-Elkarketa/3* eta *Hitz-Elkarketa/4* lanetan: *lotsa-gabe*, *lo-falta* izenaren pean biltzen dira gabezia, eza adierako mugakizuna duten elkartuak batetik, eta bestetik, *asmo-elkarteak*; izan ere, ‘asmoa’ adieraztea dute batean *asmo*, *behar*, *gogo*, *gura* eta sail horretako gainerako mugakizunek. Gramatika honetan baliaturiko irizpideen arabera, ‘osagarri-buru’ harremanari eman zaio lehentasuna.

Osagarri-buru harremana dute aditzetik eratorritako izena mugakizun duten elkartuek ere: egilea adierazten duten *-le* edo *-tzaile* atzizkien bidez eratorriak, edo gertaera, ekintza adierazten duten atzizkien bidez eratorriak (*-era*, *-keta*, *-pen*...).

#### **7.2.5. *Lo falta***

**7.2.5a** ‘Gabezia, eza’ adierako elkartuak biltzen ditu *Hitz-Elkarketa/4* lanak (1992) azpisail berean, adieraz gain beste ezaugarri bat dutenak, ‘osagarri-buru’

egitura, alegia; hau da, *falta* eta *gabe*, biak dira osagarria eskatzen dutenak. Baina elkartuaren kategoria kontuan hartuaz, batzuk izen elkartuak dira, izen+*falta* motakoak; besteak, adjektiboak, izen+*gabe* egiturakoak. Hemen, beraz, izen kategoriakoak aztertzen dira, *falta* izena mugakizun dutenak (izen horrek dituen adieretatik, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ematen dion 3. adiera, ‘gabezia, eza’ da horrelako elkartuetan aurkituko duguna). Izen horren osagarria bi modutara ager daiteke, *zeren* izenlagun gisa edo izen elkartu bateko lehen osagai gisa: *adierazpen askatasunaren falta / kontzientzia falta*. Bestalde, *asmo* adierako elkartuetan bezala, hemen ere mugakizunak *izan* aditza harturik, aditz egitura osa dezake, *falta izan* (§ 23.2.1.3.4).

**7.2.5b** Adibide ugari aurkituko ditugu bai literatura tradizioan eta bai gaurko testuetan ere: *batasun falta, borobiltasun falta, dokumentazio falta, egur falta, estilo falta, garapen falta, harreman falta, lo falta, kontzientzia falta, praktika falta...* *Gaurko sensibilitateari hain atsegin zaion arkaismo eta borobiltasun falta hartaz* (Sarasola); *Bigarrenik, batasun falta* (Saizarbitoria); *Mendi aietan, gaur ere noski egur-faltarik ez da izango* (I. Alkain eta A. Zavala). Aurretik aditz partizipioa nahiz aditz sintagma ere ager daiteke, baina, halakoetan mugakizunak -z postposizio atzizkia hartzen du: *ez jakin faltaz, adinetara heldu faltaz, eskuaraz izkiriatu faltaz, arta hori izan faltaz...* *Ebanjelioan zer dion aditzen ez-tuenak, latinik ez jakin faltas, otoitz egin brazo Iesu Kristori* (Beriain); *Hau heldu da, Eskualdunek [...] eskuaraz iskiribatu faltaz* (Etxeberri Sarakoa). Oso egitura emankorra da. Bereiz idazten dira bi osagaiak.

### **7.2.6. *Asmo, behar, gogo, gura, nahi, beldur, larri*<sup>18</sup>, *min*<sup>19</sup>, *egarri, gose, uste* mugakizun dutenak**

**7.2.6a** *Asmo-elkarte* izena eman zitzaizen *Hitz-Elkarketa/4* (1992) lanean ‘zerbaitetarako asmoa, gogo, joera...’ adierazten dutelako (eta hemen sartu

---

<sup>18</sup> Izen kategoriakoa.

<sup>19</sup> ‘Gogo’ adierakoa.

ziren *zale* mugakizun dutenak ere; gramatika honetan adjektibo elkartuetan aztertzen dira). Artiagoitiak (2011) osagarria eskatzen duten erlaziozko izenen artean bereizten dituen bost motetatik, izen abstraktuak dira, oro har, hemen aztergai ditugunak, semantikoki, egoera psikologikoak edo behar fisiologikoak adierazten dituztenak. Mugakizun horietako gehienek predikatu konplexua osa dezakete *izan* (*da/du*) laguntzaile hartuta (*behar izan, beldur izan, egarri izan, gose izan, gura izan, nahi izan, uste izan*). Batzuk, gainera, beste aditzen ondoan ere ager daitezke aditz modal gisa (*esan asmo dut, etorri behar dut, nahi dut, gura dut, ikusi uste du*<sup>20</sup>, § 23.4). Mugatzailea izen kategoriakoa denean, ‘zeren’ nahia, beharra, gura, egarria, gosea... adieraziko du; hots, mugakizunaren osagarria izango da:

barregura, bizigura, esangura, ezkongura, handikigura, jolasgura, senargura; batasun-nahi, bizi-nahi, borroka-nahi, onginahi, zorion-nahi; aginte-gose, diru-gose, espantu-gose, Jainko-gose, jakin-gose, jan-gose, zuzen-gose; diru-egarri, egia-egarri, fama-egarri; herio-larri, kakalarri, txizalarri; afari-min, ele-min, etxemin, listu-min, maitemin, ohemin; diru behar, herio behar; berriketa-gogo; andre-beldur, egia-beldur; amorru-asmo, batasun-asmo; noble-uste, ogi-uste, zorion uste

*Behintzat ez dau itxutuko hau diru gosiak odola aterateko agindubaz* (Mogel); *Hori ez du aginte goseak ekarri, jakin goseak baizik* (Mitxelena); *Mike-lak, aldiz, afari-min du* (Orixe); *Garbi ikusi da Euskaltzaindiak eskainitako batasun asmo eta arauak izan duten baietza eta eragina* (Euskaltzaindia); *Nola ez baitzuten kanporako traturik, diru beharrik etzuten* (Duvoisin); *Bazter dezagun ordea haur uste hori atso ipuinen ondoan* (Jon Muñoz). *Handi* adjektiboa dute mugatzaile *handinahi, handimin*, elkartuek. *Uste* mugakizunak erraz onartzen du adjektibo kategoriako mugatzailea: *eder-uste, handi-ustel/hantuste, on-uste, zintzo-uste*; ‘handi delako ustea’, ‘eder delako ustea’ adieran ulertu behar ditugu. *Gure artzain on-uste osoduna* (Kirikiño). *Gora, behera* adberbioak ere ager daitezke mugakizun hauetako batzuen ezkerrean:

---

<sup>20</sup> *Behar izan, nahi/gura izan* eta *uste izan* aditzek, gainera, onartzen dute *-ko* prospektiboa zuzenean lotzea (*beharko, gurako, nahiko, usteko*); gainerakoetan *izan* laguntzaileak hartzen du marka hori: *asmo izango du, beldur izango da* eta abar (§ 23.4.1a).

*behera behar, gora nahi, gora behar.* Mota honetako izen batzuk nahiko ihar-tuak daude eta gaurko hiztun askok ez dute mugatzailea eta mugakizuna be-reizten jakingo: *azkura*.

**7.2.6b** Ezkerreko osagaia aditz partizipioa (batzuetan aditzoina ere bai), edo aditz-lokuzioa ere izan daiteke:

alda nahi, apurtu-min, atera-nahi, atsegin hartu nahi, aukeratu behar, bizi behar, egin-nahi, erdi behar, erantzun behar, esanahi, ezkongura, hil-beldur, hilgura, jakingura, jakin-gose, itolarri, jakinlarri, jakin-min, joan nahi...

*Gure alda-nahiak aurkitu du non ase* (Mitxelena); *Egondu zen nekerik ekusi ezpalu bezala, ta atera-nai bat erakusten etzuela* (Mendiburu); *Bizi bearrak agintzen dik emen* (Etxaniz); *Horrela jakinenezake egunkaria egin diteken ala ez ta orra, jakinlarri orretzek eraso gaitu oraingo aldian* (Lizardi); *Nola alabaña ez da debekatua izango gauza baten gura, edo egin-naia, egitea gaitz-toa bada?* (Agirre Asteasukoa); *Erdi bearra... erditu bearra... Orra zein izurrik io gaituan* (Lizardi); *Jaiotze hutsagatik -justiziaz- hiltzea zor duenaren hil-beharrak edo hil-nahiak hartzen dituen hamaika mila izenekilako gaitzek obratzen dutena* (Seguroła).

‘Partizipioa + *beharra dago*’ egituran, berriz (*adierazi beharra dago, esan beharra dago, etab.*), formalki *behar* mugatzailearekin azaldu arren, balioan ez du alde handirik ‘partizipioa + *behar da*’ aditz egiturarekin. Beste horrenbeste esan daiteke *Euskal Herritik kanpora bizi beharra du* eta antzeko egiturez. -z, -n postposizio-atzizkiak ere har ditzakete: *hil beldurrez, erori beldurrez, (bere izen ona) garbi-beharrez, ito beharrez, iraungi ustean, han eta hemen eranskin batzuk egin asmotan, apaingarriz edo osagarriz hornitu asmotan...* Horrelako egiturak eredu hartuta, batez ere ‘partizipioa + *asmotan*’ moldea, hedatu da ‘partizipioa + *asmoz*’, literaturan tradizioz ez duena. Euskaltzaindiak, horren ordeztzeko *asmoz* arautu zuen batasunerako.

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 41. araua: “Egiteko asmoz”, Usurbilen, 1995eko irailaren 29an onartua.

**7.2.6c** Aditz sintagma ere izan daiteke lehen osagai, goiko adibideko *Ameriketara joan-behar hori, aurrera sartu nahia, edari mingots hori edan-beharra, gaitzari bideak ebaki beharra, jokabide bateratu batetara bultzatu beharra, ogia ikusi nahia, oro jakin nahi, santu izan nahi. Santutasun edo behintzat santu izan-naia* (S. Mitxelena); *Ameriketara joan-behar ori Euskal-erriarentzat kalte aundia izan dala* (J. R. Zubillaga). Esan daiteke aurretik partizipioa zein aditz sintagma osoagoa daramatenean, bi modutako jokabideak erakusten dutela *behar, gura* eta *nahik*: izen balioa gorde dezakete eta izen sintagma osatu (*garaiz iritsi beharrak bultzatu nau autoa hartzera*) edo *du* laguntzailea hartu eta aditz modal gisa jokatu (*garaiz iritsi beharko dut kanpoan utz ez nazaten*). Beraz, lexikoaren eta sintaxiaren arteko eremu-koak dira egitura hauek.

Ondoko adibideek, bestalde, erakusten dute ‘partizipioa + *nahi*’ egiturek adjektibo balioa ere har dezaketela: *Erle joan naia, ez ezti, ez breska* (Mogel); *Haurra ernea zen, deneri ohartua, oro jakin-nahia* (J. Etxepare). *Nahia*, adibide horietan, ‘nahi duena’ren baliokide da. Baita beste adibide honetako *beharra* ere, ‘behar duena’: *Hemen nauzu orain ni hil beharra, errugabe izanik* (J. A. Mujika).

**7.2.6d** Bestalde, predikatu sintagma balioan ere ageri zaizkigu mugakizun abstraktua duten elkartu hauek: *Ez izan noski egi-beldur ta bai osoki gizon* (Lizardi); *Gazte dena jostagura baita beti* (J. Etxepare); *Alta ez ziren ez espantu gose* (Erdozaintzi-Etxart); *Leitzarrak ez ditugu berriketa-gogo* (Orixe).

Berrelkarketa adibideak baditugu, *barru-ikara gose, handimin-hazi. Orrelako barru-ikara-gose bai-nazu* (Etxaniz). Eta izen elkartu hauek eratorpeneko oinarri ere izan daitezke: *handinahikeria, txixaguratu, handi-usteko, zintzo-usteko, jakin-nahiko, on-uste osodun*.

*Nahi* edo *gura* izenen pareko da gaur bera bakarrik erabiltzen ez den *gale*, besteek bezala izena, aditz partizipioa edo aditz sintagma ezkerrean har dezakeena (baita adberbioa ere *goragale* elkartuan): *jolasgale, logale, negargale, jangale, bere lana egin gale* (Orixe).

## 7.2.7. Izen elkartu sintetikoak

### 7.2.7.1. Sarrera

**7.2.7.1a** Aditzetik eratorritako mugakizuna duten elkartuak izendatzeko erabili da ‘sintetiko’ deitura, beste hainbat hizkuntzatako hitz elkartuak aztertzean ere aurkituko duguna. Hortaz, eratorpenean aztertzen diren *-le*, *-tzaile*, *-gailu*, *-garri*, *-ki*, *-era*, *-keta*, *-kuntza*, *-pen*, edo *-tze* atzizki izen sortzaileak ikusiko ditugu eskuineko osagaiari (§ 4.2.4, § 4.5). Elkartu sintetikoak ez dira, bestalde, izen kategoriakoak bakarrik, baditugulako aditzoina oinarri harturik, adjektiboak edo adberbioak sortzen dituzten atzizkiak ere, hala nola *-garri* edo *-ka*. Hau da, hemen izen elkartu sintetikoak aztertuko ditugun arren, adjektibo elkartu sintetikoez (§ 8.2.3g) eta adberbio elkartu sintetikoez (§ 9.4.3) ere jardungo dugu.

Morfologikoki duten ezaugarriaz gain —aditzoinetik eratorririko mugakizuna izatea, alegia—, elkartu sintetikoek badituzte bestelako ezaugarriak ere esanahiari begiratzen badiogu. Izan ere, *kale-garbitzaile* elkartuan ez da zalan-tzarik bi osagaiak, mugatzailea eta mugakizuna, zein diren: *kale* + *garbitzaile*; berdin gertatzen da *huri-neurgailu* izen-elkartuan ere. Izen horien adierak, ostera, [kalea(k) garbitu] + *-tzaile* eta [euria neurtu] + *gailu* egiturak iradokitzen dizkigute, hurrenez hurren; hau da, ‘kaleak garbitu’ ekintza egiten duen pertsona, ‘euria neurtu’ egiten duen aparatua. Baina badakigu euskaraz ez dugula ez *\*kale-garbitu* eta ez *\*huri-neurtu* aditzik. Beste hitz batzuetan esanda, *parte-hartzaile* bada *parte har(tu)* + *-tzaile*, baina *kale-garbitzaile* ez da *\*kale-garbi(tu)* + *-tzaile*, edo *huri-neurgailu*, *\*huri-neurtu* + *-gailu*. Ingelesez *bracketing paradoxes* terminoa erabili dute morfologiaren eta esanahiaren arteko bat ez etortze hori adierazteko.

**7.2.7.1b** Mugakizunak, bestalde, aditzetik eratorriak diren heinean, osagarria hartzen duten elementuak dira; hots, bi osagaien arteko erlazioa osagarri-buru motakoa da (Artiagoitia 2011). Ezkerreko osagaia, mugatzailea, aditzoinaren barne argumentuari dagokio. Antzeko erlazioa dago, azken batean, oinarriaren eta *-dun*, *-gin*, edo *-gile* atzizkien artean ere (*dirudun*,

*etxegile, okin, talogile*). Horregatik sailkatu ziren *Hitz-Elkarketa/4* (1992) lanean izen elkartu sintetikoen artean aipatu berri ditugun adibideak (eta horien parekoak). Nolanahi ere, eratorpenaren eta hitz elkarketaren arteko bereizgarriak zein diren aztertzean (§ 3.2a, § 3.3a) esan dugu osagaien beregaintasuna dela hitz elkarketaren ezaugarriarik nabarmenetakoa. Eta, jatorria jatorri, euskaraz aspaldian ez ditugu izen beregain gisa erabiltzen *-gin* edo *-gile*.

Atzizkiak aztertzean, izen bizidunak sortzen dituzten atzizkiak bereizten ditugu, batetik, eta horien artean sartzen *-le* eta *-tzaile* (§ 4.2.4); bestetik, ‘gertaera-, egoera- edo ondorio-izenen sortzaileak’, *-era*, *-kera*, *-keta*, *-kuntza* eta abar (§ 4.5). Horren arabera, bi azpimultzo egingo ditugu izen elkartu sintetikoetan ere: ‘egile adierako elkartu sintetikoak’ eta ‘ekintza adierako elkartu sintetikoak’.

### 7.2.7.2. Egile adierako elkartu sintetikoak

**7.2.7.2a** Ugariak dira euskaraz [izena + <sub>iz</sub>[aditzoina + *-le/-tzaile*]<sub>iz</sub>] nahiz [izena + <sub>iz</sub>[aditzoina + *-gailu*, *-garri*, *-ki*]<sub>iz</sub>] egiturako elkartuak, bai literatura tradiziokoak eta bai azken urteetan sortuak ere. Eredu emankorra da, beraz, euskaraz, adibidez, lanbide izenak, objektu eta aparatu izenak edo beste modu bateko terminoak sortzeko<sup>21</sup>:

argi-emaile, aterki-saltzaile, berri-ekarle, bertso-biltzaile, bide-erakusle, bide-urra-tzaile, bizi-emaile, boto-emaile, bozeramaile, diru-jasotzaile, esne-saltzaile, fede-uka-tzaile, fruitu-emaile, gai-jartzaile, gezur-irensle, giro-sortzaile, harri-jasotzaile, harri-pikatzaile, irrati-entzule, jai-antolatzaile, kale-garbitzaile, lege-ekarle, lege-hausle, liburu-idazle, liburu-saltzaile, matematika-irakasle, meza-emaile, meza-laguntzaile, mezu-igorle, musika-ikasle, musika-jotzaile, pronostiko-egile, sardina-saltzaile, telebista-konpontzaile, zaldi-erosle, zerga-biltzaile, zezen-hiltzaile, zinema-ikusle, zuzen-egile...

---

<sup>21</sup> *Hitz-Elkarketa/3* eta *Hitz-Elkarketa/4* liburuetatik hartuak dira adibideak.



Erorpenari eskainitako partean, *-le/-tzaile* atzizkiak aztertzean esan dugu (§ 4.2.4) atzizki horrek aditzoinaren kanpo argumentua (egilea zein esperimentzailea) xurgatzen duela, eta barne argumentua izen elkartuko lehen osagai gisa gauza daitekeela. Horixe da, hain zuzen, goiko izen elkartuetan ikus dezakeguna. *Aterki, bertso, bide, bizi, boto, diru, esne...* mugatzaileek dagokion aditzoinaren (*sal, bil, erakuts, eman, jaso, sal, hurrenez hurren*) barne argumentua adierazten dute.

**7.2.7.2b** Bestalde, ohikoena ez izan arren, *-ari* atzizkia ere erants dakioke aditzoinari (§ 4.2.2). Beraz, ez da harritzeko *behor-gidari, bulego-zaindari, erbi-ehiztari, film-kritikari, ontzi-gidari* moduko elkartuak aurkitzea; horietan ere, barne argumentua adierazten du ezkerreko osagaiak.

Egile elkartu sintetikotzat har daitezke, halaber, *zain* bigarren osagai dutenak eta, literatura tradizioko adibide ugarietz gain, azken urteetan lanbide bateko edo besteko pertsonak izendatzeko baliatu ditugunak: *aberezain/abeltzain, arimazain, artxibozain, artzain, atezain, baratzezain, bidezain, diruzain, erizain, erlezain, ertzain, etxezain, euskaltzain, ganaduzain, haurtzain, itzain, labezain, liburuzain, mahaiatzain, sabeltzain, txerrizain, udaltzain*. Egia da gehienetan bigarren osagai gisa ageri dela *zain*; baina gaur gutxi erabilia dela esan arren, sarrera eman dio *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*, izen kategoriakoa dela esanaz. Badu, beraz, beregaintasuna. Horregatik sartu dugu izen elkartuetan, *zinemaldi, erredakzioburu, babesgune, errektoreorde* eta abar bezalaxe (§ 7.2.2.3f).

**7.2.7.2c** Hemen sar daitezke *-gailu, garri* edo *-ki*, atzizkiaz eratorritako izenak mugakizun dituztenak ere. Eratorpenean esan bezala (§ 4.4.1), atzizki hauek ‘baliabidea, tresna’ adiera ematen diote sortzen den izenari eta, aldi berean, badakigu ‘baliabidea’ adieraz daitekeela *-z* (edo *-kin*) postposizio sintagma baten bidez, baina baita sintagma ergatiboaren bidez ere: *objektu horrek beroa neurtzen du, aparatu horrek boza goratzen du, aparatu horrek euria neurtzen du / objektu horrekin, horren bidez grapak kentzen ditugu, aparatu horren bidez (horrekin) kilometroak kontatzen ditugu...* eta abar. Berriro ere, aditzoinaren barne argumentua adierazten du ezkerreko osagaiak, mugatzaileak:

ardo-dastagailu, bero-neurgailu, bozgorailu, euri-neurgailu, grapa-kengailu, kilometro kontagailu, orri-zulagailu, plater-ikuzgailu, su-itzalgailu, tantakontagailu, uztabilgailu, zoru-garbigailu; intsektu-hilgarri, ohe-bigungarri; aho-estalki, buru-estalki, gorputz-estalki

### 7.2.7.3. Ekintza adierako elkartu sintetikoak

**7.2.7.3a** ‘Gertaera, ekintza’ adierako mugakizunak dituzte mota honetako izen elkartuek. *-dura, -era, -keta-, -kuntza, -pen...* atzizkiek, aditzoinari erantsirik, sortzen duten izenak ‘gertaera’, ‘ekintza’ adieraz dezake, baina baita ‘emaitza’ edo ‘ondorioa’ ere (§ 4.5). ‘Gertaera’ izenek bakarrik bidera dezakete, ordea, osagarri-buru erlazioa, ez ‘ondorio’ izenek. Hau da, *erosketa* izan daiteke ‘erostea’, nahiz ‘erosi d(ir)ena(k)’, lehena da ‘gertaera’, ‘ekintza’ adierakoa, ez bigarrena. Lehen adierakoa da, beraz, *liburu-erosketa* izen elkartuko mugakizuna; eta *liburu* mugatzailea, ekintza horretan ‘zer’ erosi den adierazten duena. Eratorpenari eskaintako atalean aztertzen da zer motatako aditzoinen eranstean zaien, batez ere, atzizki bakoitza. Batzuek *da* motako oinarria hartzen dute; beste batzuek, ostera, *du* edo *da/du* motakoa.

Kasu guztietan, osagarriak, ezkerreko osagaiak, barne argumentua biltzen du. Aldea honetan datza: *da* motako aditzetan, argumentu hori subjektu gisa agertuko da sintaxian; *du* motako aditzetan, berriz, objektu gisa. *Aldatu, amaitu, hasi, sartu...* *da* motakoak izanik, ‘ikastaroa amaitu’, ‘demografia aldatu’, ‘gizartea aldatu’, ‘mendea hasi’, ‘nobizioa(k) sartu’... irakurketa dute beheko izen elkartuek. Beste askotan, ordea, ‘norbaitek adarra jo, bertsoak paratu, botoa eman, denbora galdu, hazia eroin, lana utzi, adimena aztertu, bidea aldatu, datuak bildu, jantzia(k) garbitu, hitzak josi, txostena(k) prestatu, berria(k) laburtu, erlijioa irakatsi, etxea(k) eraiki, industria irauli, lana eskaini, ura kutsatu’ eta abar gisa ulertzen ditugu:

adar-jotze, auzi-garbitze, behi-umatze, bertso-paratze, boto-emate, denbora-galtze, giro-berotze, gogo-galtze, hazi-ereite, indar-neurtze, lan-uzte, odol-isurtze, oroimen-galtze, patata-zuritze, pauso-kontatze, prezio-altxatze, soineko-urratze,

txerri-hiltze, zikiro-jate; adimen-azterketa, ardi-lapurreta, bide-aldaketa, datu-bilketa, demografia-aldaketa, diru-bilketa, emaitza-bilketa, gizarte-aldaketa, jantzi-garbiketa, maiztasun-azterketa, olerki-sariketa, sari-banaketa; ikastaro-amaiera, hitz-joskera, jatordu-amaiera, mende-hasiera, nobizio-sarrera, txosten-prestaera; berri-laburpen, diru-ugalpen, fede-ukapen; erlijio irakaskuntza, etxe eraikuntza, pedagogia berrikuntza, teknologia ikaskuntza; industria iraultza, lan-eskaintza, odol-eskaintza; ur-kutsadura

**7.2.7.3b** Gerta daiteke atzizki berezirik ez izatea ‘gertaera, ekintza’ adierako izenak (§ 4.6); baina *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* argi erakusten du horixe dela, hain zuzen, izen hauen adiera (edo adieretako bat, behintzat): *jorra* ‘jorrratzea’, *erakutsi* (izen kategoriakoa) ‘erakustea’, *eske* ‘eskaria, eskatzea’, *jan* (izen kategoriakoa) ‘jatea’, *ehiza* ‘animaliak harrapatzea edo hiltzea helburu duen jarduera’... Mota honetakoak dira ondoko izen elkartuak: *artajorra*, *barkamen-eskea*, *behaztopa*, *diru-eske(a)*, *egun-pasa*, *esku-erakutsi*, *ezkontza-eskea*, *gau-pasa*, *hitz-etorri*, *hitz-jario*, *muxar-ehiza*, *txuleta-jan*, edo *uso-pasa*.

Berrelkarketaren adibide dira honako izen elkartuak: *ardo- eta kafe-saltzaile*, *ate eta jantzi-kutxa apurtzaile*, *txistu- eta danbolin-jotzaile*, *ile- eta bizar-moztaile*, *paper-langile ugaltze*, *toki-izen bilatzaile*, *zurgin-lantegi garbiketa*. Horietan mugatzailea da, aldi berean, izen elkartua. Beste hauetan, berriz, mugakizuna (nahiz oso urriak izan horrelako adibideak): *barku betetze eta hustutze*, *begi itxi-ireki*, *abere-salerosle*.

Idazkerari dagokionez, marrarekin zein bereiz idatz daitezke elkartu sintetikoetako osagaiak. Hala ere, bereiz idatziz gero, zalantza sor daiteke batzuetan nola ulertu behar den begien aurrean dugun elkartua, izen elkartu sintetikotzat ala atributu egiturako elkartutzat (§ 7.1.3c); *intsektu hilgarri*, esaterako, izan daiteke ‘norbait hiltzeko ahalmena duen intsektua’ (ziztada da hilgarria), baina izan daiteke ‘intsektuak hiltzeko substantzia edo gaia’. Nahasketarik sor ez dadin, atributu egiturako elkartuaren irakurketa duena bereiz idaztea gomentatzen da, eta elkartu sintetikoa, aldiz, marratxoz: *intsektu hilgarri / intsektu-hilgarri* (bide beretik *molekula hartzaile / molekula-hartzaile*, etab.). Zain bigarren osagai dutenak, aldiz, elkarturik ematen dira.

## 7.2.8. Aposizio egiturako hitz elkartuak

### 7.2.8.1. Sarrera

Bi motatako aposizioak<sup>22</sup> bereizi izan dira gramatiketan, aposizio ez-murrizgarriak (*esplikatibo* ere esan ohi zaie, aurrekoari buruz azalpen gehigarria ematen dutenak) eta murrizgarriak (*murriztaile* ere esaten zaie halakoei, aurretik aipatutakoa mugatzen dutenak). Aposizio ez-murrizgarriak dira honakoak: *Gasteizen, Euskadiko hiriburuan, taberna gehiegi dago; Pellok, atzo aipatu nizun lagunak, andregaia utzi egin du*. Erreferentzia bera duten bi sintagma ezartzen ditugu bata bestearen ondoan. Mota berekoak dira beste hauek ere *Druso neure aita, Axular Sarako erretorea*; hauetan ere erreferentzia bera dute *Druso* izen propioak eta *neure aita* sintagmak zein *Axular* eta *Sarako erretorea* osagaiek<sup>23</sup>. Beste batzuetan, berriz, aposizioan doan izenak konkretatu egiten du ondokoa. Horixe egiten dute izen propioek, objektu, leku, pertsona... baten erreferentzia konkretatu, sailkatu (*Itziar andereñoa, Gipuzkoa plaza, Arrantzaleak taberna*); predikazio erlazioa inklusiboa da aposizio mota honetan, izen propioak adierazten duen objektua edo pertsona, izen arruntak adierazten duen klase edo motaren barruan geratzen baita. Batzuetan utz daiteke isilpean izen arrunta; *Aizkorrira igo gara* esan daiteke, *Aizkorri mendira igo gara* esan beharrik gabe. Aposizio elkartu hauek, beraz, zerbait bakarra adierazten dute, eta horretan bereizten dira landare, animalia, mineral eta abarren barruan taxonomia, sailkapena egiteko baliatzen ditugun *sumpsuntive* motako elkartuetatik (§ 7.2.2.3h, § 28.9.2).

Badira itxuraz aposizio elkartuen egitura dutenak, *Sabin Etxea, euskara eguna, antxoa eguna* modukoak; baina horietan ez dago predikazio erlazio inklusiborik. *Sabin* ez da etxe baten izena (*Aizkorri* mendi batena bai, ordea). Beste horrenbeste esan daiteke *antxoa* edo *euskara* lehen osagaien eta *egun* bigarren

---

<sup>22</sup> Ikus *Hitz-Elkarketa/3* (1991: 89-99); Odriozola eta Perez Gaztelu (2002).

<sup>23</sup> Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 109. araua: “Komunztadura aposizioetan”, Bilbon, 2001eko ekainaren 29an onartua.

arteko harremanaz. Itxura izan arren, ezin ditugu egiazko aposizio elkartutzat hartu. Eta ez dute lekurik izen elkartuen artean ere, balio generikoa izatea delako izen elkarketaren ezaugarrietako bat (§ 3.3a). *Euskararen eguna, antxoaren eguna...* determinatzaile sintagma dagokie, berez.

Osagaien kategoria kontuan harturik, honako konbinazioak aurkituko ditugu aposizio elkartuetan:

#### 7.2.8.2. Izen propioa + izen arrunt bizigabea

Leku izenak (mendi, ibai, itsaso... izenak), kale izenak, eraikuntza izenak, ikastegi eta merkatari etxeenak, komunikabide izenak, kultura ekoizpenak, elkarte eta erakunde izenak, jaiegunen izenak, arlo tekniko-esperimentaleko izenak eratzten ditugu izen propioa eta izen arrunt bizigabea aposizioan jarriaz:

Altzarrate baserria, Anitz loradenda, Aralar mendia, Arriaga antzokia, Auspoa liburutegia, Axular liburutegia, Auñamendi argitaldaria, Balear irlak, Bidasoa ibaia, Celsius eskala, Dato kalea, Eiffel dorrea, Garibai kalea, Garoa eleberria, Genio y Lengua saiakera, Gerediaga elkarte, Golgi aparatua, Insalus ura, Iraurgi ikastetxea, Joule efektua, Jumay sumendia, Kanin penintsula, Kelvin tenperatura, Magallanes itsasartea, Maria Cristina hotela, Mari Galant karabela, Muga ardoa, Nobel saria, Repsol konpainia, San Inazio eguna, San Juan jaiak, San Martin auzoa, Titanic bidaiantzia, Unesco erakundea, Uriarte jauregia, Urruzuno lehiaketa, Usandizaga institutua, Zumalakarregi parkea

Perpau oso bat ere bihur daiteke deitura, *Que sais-je argitaletxea*, *The cultural background of personality liburua* eta abar. Horrelako egiturek artikulua eskatzen dute beti, eta hurrenkera ere izen propioa + izen arrunta izaten da; beraz, *San Migel gozotegia*, *Aloña jatetxea*, eta ez *\*Aloña jatetxe*, *\*gozotegi San Migel*. Bestalde, zenbaitetan izen propioak *-ko* edo *-en* atzizkia ere har dezake: *Garaziko herria*, *Antso Jakitunaren hiribidea*. Batez ere izen propioa pertsona deitura denean (askotan ikertzailearen izena) gertatzen dira horrelako zalantzak: *Magallanes-en estua*, *Gibbs-en printzipioa*, *Ampere-ren legea*, *Coulomb-en legea*, *Helmutz-en energia*, *Joule-ren esperimentua* / *Joule efektua*, *Beaufort eskala*, *Celsius eskala*, *Geiger kontagailua*, *Helmutz energia*,

*Winkler metodoa, Golgi aparatua, Leydig zelula...* Inguruko hizkuntzetan ere erraz aurkituko ditugu horrelako bitasunak.

*Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoko* ‘izen propioa (+ -en) + izen arrunta’ egiturako terminoak aztertu ondoren, hauxe izan zen ondorioa: “Agerikoa dirudien lehen ondorioa da teknologia-arlo gehienetan (*Tekno.*, *Metal.*, *Elektron.*) aposizioa erabide erabiliagoa dela zientzietan baino. Oso litekeena da horrek zerikusia izatea terminoaren bigarren osagaiaren izaerarekin”<sup>24</sup>. Euskarazko, ingelesezko, frantsesezko eta gaztelaniazko mota honetako terminoak aztertu ondoren, berriz, ondorio hauek aipatzen ditu txostenak:

- “Aztertu ditugun lau hizkuntzetan GEN egituraren bidez eratu diren terminoek hitz jakin batzuk dituzte bigarren osagaitzat, eta dagokion pertsona-izenak emandako edo haren izenean bataiatutako “esakune” motakoak dira. Argi eta garbi, *lege*, *printzipio* eta *teorema* dira multzo horretakoak (mota bereko batzuk: *postulatu*, *aieru*, *hipotesi*, *paradoxa*...)”<sup>25</sup>. Aztertu dugun laginean ageri diren beste batzuk, ustez mota honetakoak, baina ingelesez aposizio bidez (edo aposizioz ere) eratu ohi direnak: *ekuazio*, *konstante*. Euskarazko erabilera-datuak argiak dira: GEN egitura da nagusia.
- Naturako fenomenoak adierazten dituzten hitz batzuek aposizioz eratzen dituzte terminoak (kasu ugariena: *efektu*), baina, beste batzuetan, bi egiturak aurkitu ditugu hiztegian edo testuetan: *indar*, *difrakzio*, *ziklo*, *energia*, *hedapen*...
- Neurketa-sistemekin erlazionaturako 2. osagaiak aposizioz eratu ohi dituzte terminoak: *eskala*, *gradu*, *gogortasun*...
- Teknologia: tresneria esperimentalak, prozesuak, metodoak... Ez dago erabateko uniformetasuna, baina erregularitasun batzuk atzeman ditugu, eta hauetaz garbiak dira aposizioa aukera lehenetsia izateko.

---

<sup>24</sup> Antton Gurrutzagaren txostena, “Izen berezia + (-en) izen(a) egiturako terminoak”, Euskaltzaindiaren 2013/05/25eko osoko bilkuran onartua.

<sup>25</sup> *Euklidesen postulatuak, Goldbachen aierua, Riemannen hipotesia, Russellen paradoxa*...

– Biziaren eta osasunaren zientziak: sakonago aztertu behar da, batez ere saio xume honetan ez dugulako aukerarik izan corpusetako erabilera aztertzeko. Hiztegiko sarreretan, *-en* atzizkiaren erabilera aski zabaldua dago, baina datu hori ez da nahikoa, eta aurrerago proposamen landuagoa egin behar genuke. Oraingoz, beraz, ezin da arlo horietarako proposamen landurik egin.

Txosten honetan, fisika-arloko terminoetarako proposamena egingo dugu, seguru aski beste zientzia batzuetarako ere baliagarria izan daitekeena (Matematika, Kimika, Astronomia, Geologia...).

Argi dago, beraz, aztertzen jarraitu beharreko alorra dela aposizio egiturako terminoena.

#### 7.2.8.3. Izen arrunta + izen arrunta

Izen arrunta ere erabil daiteke eskuineko izenak adierazten duen multzotik bakarra bereizteko; hau da, ondoko izen arruntaren deitura gisa. Testu tekni-koetan ere aurki daitezke mota honetako aposizioak. Letrek eta sinboloek ere bete dezakete funtzio hori:

analfabeto hitza, “apartheid” politika, borroka hitza, “cuarta” gaitzizena, “ghetto” espi-ritua, katoliko izena, kultura hitza, “politika” hitza, “marxismo” hitza, sozialista izena; Feed-back mekanismoa, Geotematika hitza, deriba-teoria, solido zurrun kontzeptua; A puntua, B eta C behatokiak, X izpia, D bitamina, f zenbakia, A multzoa, K aldagaia...

#### 7.2.8.4. Izen propioa + izen arrunt biziduna / izen arrunt biziduna + izen propioa

Gehienetan izen arruntak pertsonaren lanbidea, gizartean duen maila, edo ahaidetasuna adierazten du:

Barrueta tabernaria, Elizalde apaiza, Elosu medikua, Esaias profeta, J. Hurren geologoa, Jean Etxepare mirikua, Jeremias profeta, Jonas profeta, Jose Mari Lertxundi

bertsolaria, Juan Huarte idazlea, Koldo Mitxelena irakaslea, Moris ertzainburua, Nabukodonosor erregea, Oseas profeta, Rodrigo artzaina, San Lukas ebanjelista, Simbad marinela, Zabaleta anaiak, Zubillaga adiskidea

Osagaien hurrenkerari dagokionez, izen propioa bigarren posizioan ere aurki daiteke literatura tradizioan. Batez ere ahaidetasuna adierazten duten izen arruntekin baliatzen dugu hurrenkera hori. Gainerakoetan, izen propioa + izen arrunta hurrenkera hobetsi da estandarrean:

adiskide Aitzol, aita Salvatore Mitxelena, aita santu Gregorio hamargarrena, anai Faustino, arreba Begoña, emazte Klara, errege David, iloba Endrike

#### 7.2.8.5. *Jaun/andre osagaitzat dutenak*

Izen propioa eta izen arrunt biziduna biltzen dituen aposizio elkartuaren kasu berezitzat hartu izan da egitura hau, izen arrunta begirunezko deitura edo antzeko zerbait delakoan. Baina *jaun* eta *andre* ez ditugu izen propioen ondoan bakarrik erabiltzen, baita pertsona batek gizartean zer estatus duen adierazten duten izen arruntekin ere:

abade jauna, alkate jauna, Aingeru Irigarai jauna, Balerdi jauna, erretore jauna, Nekane Etxegoien andrea, Ruth Benedict andrea, biltzarburu andrea, sekretario jauna, ugazaba andrea

Iparraldeko testuetan, aldiz, lehen posizioan ikus ditzakegu *jaun* eta *andere*: *jaun erretora, jaun bikarioa, jaun auzapeza, jaun Bertrand de Echaus...*

#### 7.2.8.6. *Aposizio egiturako elkartuak eta atribuzio egiturakoak*

Aipatu berri ditugun egiturak hartu dira aposizio elkartutzat euskaraz (ikus *Hitz-Elkarketa/3*), baina beste hizkuntza batzuetan aposizio murriztailetzat hartu dira *bebé probeta, buque escuela, cena tertulia, coche bomba, hombre*



*rana, mujer objeto, mujer soldado, visita relámpago* edo *oferta estrella*. Izen sintagmaren barruan gertatzen den predikazio erlazioa baldin bada aposizioa, bi izen aposizioan ematean morfologiaren eta sintaxiaren mugan gabiltza eta aposizio erlazioa lexikoan ere gerta daiteke (Suñer 1999). Lexikoan sortuak, izen elkartuak dira *bebé probeta* eta abar. Horien baliokide diren *probeta-ume, eskola ontzi, afari-tertulia, bonba auto, gizon igel, emakume objektu, emakume soldado, bidaia tximista* edo *produktu izar*<sup>26</sup>. *Hitz-elkarketa/4* liburukiko hitz elkartuen sailkapenari jarraiki, “atributu eta koordinazio egiturako elkartuetan” aztertu ditugu gaztelaniaz aposiziotzat hartu dituzten egiturak (§ 7.1.3), hau da, ‘ontzia, aldi berean eskola dena’, ‘afaria, tertulia izateko propietatea ere baduena’... gisa ulertzen ditugunak. Han ikusi ditugu balio metaforikoa duten *gizon igel* modukoak. Aposizioan ematen den izenak jatorrizko esanahia galdu eta kuantifikazioaren pareko balioa ere har dezakeela dio Suñer-ek (1999): *vida padre, oferta estrella, momento cumbre, noticia bomba, situación límite, momento clave, hora punta, ciudad monstruo*. Azken honen baliokide den *hiri munstro*, atributu elkartutzat hartu dugu euskaraz, A nolako B, konparazio-kutsua duen atributu elkartutzat (§ 7.1.3e).

Beste batzuetan, ordea, aposizioan doan izenak sailkatu egiten du ondoko izena Suñer-ek dioenez: *la letra f, el símbolo +, el número 9* edo izen propioa duten egiturak. Horiek dira, hain zuzen, guk aposizio elkartutzat hartu ditugunak. Aposizioan doazen bi izenen artean inklusiozko erlazioa dakartenak eta ‘zera’ bakarra (pertsonea, mendi, kale, argitaletxe, zenbaki, letra...) izendatzen dutenak.

### 7.2.9. Izengoiti adierako izen elkartuak

**7.2.9a** Bi izen elkarren ondoan emanik osatzen ditugu askotan euskaraz pertsonen izengoitiak; lehena, pertsona horren izen propioa izan ohi da eta

---

<sup>26</sup> Azken urteetan sortuak dira horrelako asko, publizitatearen harira, besteak beste. Ikus *postaria*-n izandako iritzi-trukea *proyecto estrella* euskaraz nola eman. (<https://postaria.com/>).

bigarrenak, berriz, pertsona horren ezaugarri nabarmenen bat ematen du aditzera. Izen propioaren ondoan adjektibo bat ezarririk ere era daitezke izengoiti elkartuak. Modu bateko baino gehiagoko ezaugarriak aukera daitezke pertsona bat nabarmentzeko: objektuak izan daitezke —*abarka, txintxarri, txilibitu, anpolai...*—, nortasun-marka hori anatomikoa ere izan daiteke, edo zaletasun edo izaeraren berri ematen duena. Beste batzuetan, lanbidearen edo jatorriaren aipamena egiten du bigarren osagaiak. Sei azpiataletan bana ditza-kegu euskal izengoiti elkartuak<sup>27</sup>:

- a) Anton Berakatz, Anton Kaiku, Domingo Kanpaña, Joane Talotxu, Josepa Koipe, Madalen Bonbila, Manu Txurrut, Mateo Txistu, Martin Txilibitu, Mikela Txintxarri, Patxi Guzur, Patxiko Txerren, Pello Errota, Pello Kirten, Pepa Negar, Peru Abarka, Santi Anpolai, Txanton Piperri.
- b) Etxahun Barkoxe, Etxahun Iruri, Joxe Larraburu, Joxe Lezo, Pello Tolosa.
- c) Altza-Haundi, Altza-Txiki, Lazkao-Txiki, Teileri-txiki; Inazio-motz, Joan Manuel Haundi, Joanagorri, Joanito Zapparro, Juanito Koju(a), Katalingorri, Manuel zahar, Tomasa Handi, Txomin Zatar; frantses-txiki, hargin-txiki.
- d) Anton Bekozko, Anton Guzurretxe, Garazi Gerrieder, Gaxuxa Mokobipil, Liño Ankabakar, Mari Begiluze, Mikel Eleder, Peru Ilegorri, Tomas Txorimalo, Teresa Kaskazuri.
- e) Mari-apain, mari-atso, mari-bandera, mari-bihurri, mari-gorri, mari-matraka, mari-mutil, mari-sorgin, mari-sukalde, mari-zikin.
- f) Artobero, Begi-txiki, Esnepel; Ardauzuri, Sardinzar; Lapikotxu; Moldagaitz.

**7.2.9b** Morfologia osaerari dagokionez, pertsona izen propioa dute lehen osagai horietako gehienek; azken-aurreko azpisaileko *Mari* ere izen arrunt bihurtu den izen propio orokortutzat har daiteke. Bigarren osagaia da goiko

---

<sup>27</sup> *Hitz-Elkarketa*/I lanetik hartuak dira adibideak (1987: 209-216, 445-450). Lan horretan *Peru Abarka* izena eman zitzaion elkartu mota honi.

bost azpisail egiteko bide ematen duena. Lehenengo atalekoek izen arrunta dute bigarren osagai, nahiz izengoitiaren barruan egonik letra larriz eman; bereiz idazten dira mota honetako izengoitiak. Bigarrengoek, eskuineko osagaia leku izen propioa izanik, pertsonaren jatorria adierazten dute; hauek ere bereiz idaztekoak dira. Hirugarren azpiatalekoek, bigarren osagaia adjektiboa izatea dute ezaugarri; lehen osagaia, berriz, izen propioa da gehienetan, baina batzuetan leku izena aurkituko dugu (hau da, pertsonari izengoitia ematerakoan jatorrizko herria hartzen da hura izendatzeko), beste batzuetan pertsona izena.

**7.2.9c** Badira adibide gutxi batzuk izen arrunta edo adjektiboa dutenak lehen osagai, dela lanbidea adierazten duena, dela jatorria, gentilizioa. Laugarren atalekoak “izen propio + adjektibo” modukoak dira batzuetan (adjektiboa *bahuvrihi* moduko elkartua da ia beti, § 8.2.2), eta “izen propio + izen” modukoak besteetan. *Mari* lehen osagai dutenak bereizi ditugu beste azpisail batean; esan bezala izen arrunt bihurtu dela esan daiteke (hala erakusten du *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ematen duen definizioak, “zenbait izenen edo izenondoren aurrean ezarririk, emakumeak erdeinuz izendatzeko erabiltzen den hitza”). Horregatik idazten da letra xehez eta hitz elkartua bera oro har marraz loturik, edo bi osagaiak elkaturik (*marizikin*).

**7.2.9d** Eta azken azpisail bat egin dugu izen elkartu arrunt edo izenondo elkartu egiturako izengoitiek. Batzuek adjektibo “bahuvrihi”en parekoak dira<sup>28</sup>, hots, [izen+izenondo] elkartuak, berez adjektibo kategoriako behar luketenak (§ 8.2.2), baina izen propio gisa erabili direnak: *Ni oker ez banago, bi orduko lanean Ondartzak Begi-Txikiren doble belar ebaki bear zin* (Tx. Garmendia); *Nik eztot ezer ikusi —erantzun eban Lapikotxu, Esnepelen txalopa-koak—* (Agirre). Beste batzuetan izen kategoriako ‘hitz-andana ihartua’ (§ 7.2.11) da goitizena emateko baliatu dena, izen propio gisa: *Gizadi ona, gazteri indartsua: Ardauzuri, Gatzbako, Moldakatx, Artobero, Kaiua, bere*

<sup>28</sup> *Hitz-Elkarketa/I* lanean *astaputz* moduko elkartuetan aztertu ziren, hau da hemen elkartu exozentrikotzat hartu ditugunekin batera (§ 7.2.10). Baina adibideetan argi ikusten da izen propio balioa dutela eta horregatik ikusi dugu egokiago izengoitiek batera ematea.

*seme Anjel* (Agirre); *Sardinzarrek, ardantegian, bere semea laster da ondo ezkonduko zala esan ei eban* (Agirre). Badira, besterik gabe, izen arrunt soilak ere goitzen moduan ageri direnak, aurreko adibideko *Lapikotxu* nahiz *Kaiua* esaterako. Edo adjektibo elkartuak, *Gatzbako* ‘gatzgabe’, *Moldakatx* ‘moldagaitz’ (§ 8.2.4).

**7.2.9e** Izen propioak direnez, *Peru Abarka, Etxahun Iruri* eta *Garazi Gerrieder* modukoak mugagabeen joan ohi dira normalean: “Martin Txilibituk esan du”, “Garazi Gerriederren irribarrea”. Izengoiti elkartu hauen emankortasuna aztertzean, ikusten dugu bizi-indarrak ez zaiela falta, gaur egun<sup>29</sup>: *Matxin Burdin* (*Martin Fierro-ren* itzulpen ezaguna), *Antonino Apreta, Kandido Txapuza, Simon Besaluze, Santi Nonzebarri, Satan Bihotz-txiki*. Emankorrak gertatzen ari dira, gainera, pareko erdal izengoiti ezagunak euskaraz emateko orduan, Euskaltzaindiak arautu dituen pertsona-izenak aztertzean ikus daitekeen bezala<sup>30</sup>: *Adalberto Garailea, Alberto Artz(a), Alberto Handia, Alfontso Ausarta, Alfontso Konkistatzailea, Alfontso Mendakaria, Alfredo Handia, Antso Azkarra, Dionisio Nekazaria, Eduardo Ele-ederra, Eduardo Zaharra, Erik Aizkora Odoldua, Erik Gorria, Karlos Gaztea, Rikardo Lehoi bihotz(a) (erregea), Federiko I Bizargorri(a) (enperadorea), Filipe Zuhurra, Fernando Zuzena, Artaxerxes Eskuluze(a), Karlos II Burusoil(a), Enrike Txori-ehiztari(a), Juan Lurgabe(a), Walter Landerra*. Erdi Aroan ere baziren euskaraz hauen parekoak: *Domingo de Behorburu, Garzia Hartzburu*. Izen elkartu arrunt edo adjektibo elkartu egiturakoak dira, berriz, amerindiar buruzagien izenak emateko arautu diren beste hauek: *Adar Berde, Belatz Beltz, Bele Txiki* edo *Bufo-lo-konkor*.

---

<sup>29</sup> Gaur egun bakarrik ez. Aspaldiko ohitura izan da izengoiti elkartuaz baliatzea, Erdi Aroko nafar dokumentuak lekuko. *Peru Abarka* modukoak dira garai horretako *Garindo Aketza* (grafia euskara batura egokitu dugu), *Eneko Behia, Garzia Erlea, Tota Zerria, Semen Zapata, Juan Orti Sudurra*... Beste hauek, berriz, *Mikel Eleder* elkartuaren egiturakoak dira: *Domingo Burugorri, Berasko ahozabala, Elbira Mutil Ederra, Domenka begi urdina*...

<sup>30</sup> Aipatu egituretako izengoitien zerrenda luzea aurki daiteke ondoren aipatzen diren arauetan.

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 180. araua: “Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Germaniar jatorriko pertsona-izenak”, Azkoitian 2015eko martxoaren 27an, eta Baionan 2015eko ekainaren 26an onartua. Euskaltzaindiaren 181. araua: “Erdi Aroko pertsona-izenak”, Iruñean 2016ko irailaren 30ean eta Donostian 2016ko azaroaren 25ean onartua. Euskaltzaindiaren 186. araua: “Atzerriko pertsona-izenak. Grafia-irizpideak. Errege-erreginen eta kidekoen kasua”, Gasteizen, 2017ko urriaren 27an onartua. Euskaltzaindiaren 189. araua: “Amerindiar buruzagien izenak”, Gasteizen, 2018ko martxoaren 22an onartua.

**7.2.9f** Hala ere, hauxe irakur daiteke *Hitz-Elkarketa/I* liburuan: “beren burua euskalduntzat duten askok eta askok (bizigunez, lanbidez edo adinez erdararen erasana gogorrago jasaten dutenek bereziki) nekez sortzen dituztela era honetako esaerak: *Pipi calzaslargas* bat mingain-puntanago sentitzen badute *Periko Metxala* edo *Olentzero Begigorri* baino, ez da euskal eraikuntza sintagmatiko hori erdarazkoa baino korapilatuagoa delako, hiztun horiek erdal kontzeptu-sareak eta irudi-munduak kolpatuago daudelako baizik: Ramos Azkarate «Galtzaundi»-ren garaian baino agitz kolpatuago, nolnahi ere” (215).

### 7.2.10. Izen elkartu exozentrikoak: *astaputz, artaburu, babalore, txoriburu; artabero, oilobusti...*

**7.2.10a** Lehen begiratuan, bi izenez osatutako mendekotasunezko izen elkartzat hartuko genituzke *astaputz, artaburu, babalore, txoriburu* eta abar (§ 7.2.2.2) eta badute irakurketa hori ‘astoaren putza’, ‘artoaren burua’, ‘baba-ren lorea’..., baina bada beste irakurketa bat ere, batzuetan gainera lehenengoari nagusitu zaiona: *artaburu* adj. ‘argi gutxiko pertsonaz esaten den irain hitza’, *txoriburu* ‘buruarina, zentzu gutxikoa’, *babalore* ‘ergela’ eta abar. Bigarren irakurketa honek erakusten digu burua ez dagoela bi osagai hauetatik batean, kanpoan baizik; mendekotasunezko izen elkartuetan ez bezala, ez da bigarren osagaia izen elkartuaren ezaugarri gramatikal eta semantikoak ematen

dituena. *Astaputz* ez da ‘putz’ mota bat, perretxiko mota bat baino; *artaburu* ez da ‘artoaren burua’, ez eta *babalore* ‘babaren lorea’ edo *txoriburu* ‘txoriaren burua’, hiztegiko definizioek erakusten duten moduan. Mota honetakoak dira, aipatu ditugun adibideez gain, *astapetro*, *astapistola*, *astazakil*, *astolerdo*, *el-tze-kirten*, *gezur-hitz*, *golde-mutur*, *hitzontzi*, *kakanarru*, *oliontzi*, *pitxilore*, *tipulaburu*, edo *zerriburu*. Bestalde, hitz elkartu hauetako osagaiak izenak dira, baina elkartu osoaren kategoriatzat adjektiboa ematen dute hiztegiek, eta hala erabiltzen ditugu ahoz eta idatziz ere<sup>31</sup>. “*Artaburu, morokil, borono, arlote*” ta *holako lora mingarriak bota deutsaluzala* (Zarate); *Gu beste guztiok astakir-tenak garela* (Kirikiño); *Hau mutil hitzontzia!* (Etxaniz); *Eta hik tipula buru horrek jakin dezaan, harena duk edozein lehendakari ganorazkok beretzat apartatzen duen birjina sail bat* (X. Amuriza “Larraun”).

**7.2.10b** Izen + izenondo egiturakoak dira, berriz, beste hauek: *artabero*, *oi-lobusti*. Osagaien kategoria kontuan hartuz gero, batetik ondoren aztertuko ditugun *hitz-andana ihartuen* (§ 7.2.11) egitura berekoak direla esango genuke; baina hitz-andana ihartuak izen kategoriakoak dira (*udaberri*, *artelatz*, *zorion...*), eta hemen jaso ditugunak izenondo balioan erabiltzen dira. *Oakit emendik, artabero!* (Etxaniz); *Oilo busti eta zainik ez odol gorri xortik ez duten batzuek* (Hiriart-Urruti).

**7.2.10c** Azkenik, badira izenondo kategoriako lehen osagaia dutenak ere, *eder-ispilu*, *handiputz*, *harroputz...* *Orra gure eder-ispillu* (Etxaniz); *Sinisten det andiputztxoa da ta* (Urruzuno).

Nekez esan daiteke, ordea, hitz elkartuak sortzeko eredu emankor bat dagoenik hemen. Zehatzagoa da esatea jatorriz mendekotasunezko izen elkartu direnak, inoiz bestelako egiturak ere bai, bigarren irakurketa metaforiko bat-edo izan eta pertsoneri buruz predikatzen diren izenondo bihurtzen direla.

---

<sup>31</sup> Perez Gazteluk, Zabalak eta Gràciak (2004: 152) ere adjektibo elkartu exozentrikotzat hartu dituzte *txoriburu* edo *hitzontzi*. Bi izenez osatuak egon arren, hortik sortzen den elkartua adjektibo kategoriakoa izatea da, hain zuzen ere, izaera exozentrikoaren frogatzat hartzen dena.

**7.2.10d** Autore batzuek (Perez Gaztelu, Zabala eta Gràcia 2004) exozentrikotzat hartu dituzte sintaxian jatorria duten beste hauek ere: *bostortz*, *ehunzango*, *lauburu*... Zenbatzaile + izen segida sintagmei dagokie (zenbatzaile sintagmak izan ohi dira), baina adibide horiek izenak dira; hau da, funtsean, hurrengo puntuan aztertzen diren “hitz-andana ihartuak” dira (§ 7.2.11). Haue-tan, ordea, burua ez da ‘hortz’, ‘zango’ edo ‘buru’; burua bi osagaietatik kanpo dago. Horregatik har ditzakegu exozentrikotzat.

### **7.2.11. Hitz-andana ihartuak: *udaberri*, *mutilzahar*, *frantses porru*, *etxeoandre*, *Erromako zubi*, *aitoren seme***

**7.2.11a** Bi modutako egiturak aztertuko ditugu, nagusiki, ‘hitz-andana ihartu’ deiturapean<sup>32</sup>: batetik, ‘izen + adjektibo’ segidak —*frantses porru*, *mutil zahar*, *udaberri*...—; bestetik, ‘izenlagun + izen’ segidak —*Erromako zubi*, *etxeoandre*, *aitoren seme*—. Biak ala biak dira, funtsean, sintagma egiturak; ez dira egitura lexikoak, ez dira berez hitz elkartuak. Izan ere, hitz elkarketa definitzean esan dugu bi kategoria lexiko elkartzen ditugula beste kategoria lexiko bat sortzeko. Baina *etxeo*, *Erromako* edo *aitonen* ez dira kategoria lexikoak. Egiturari dagokionez, parekoak dira *etxeoandre* eta *etxeo gela*, *Erromako zubi* eta *Erromako basilika*. Berdin gertatzen da ‘izen + adjektibo’ egiturekin ere; sintagmak dira jatorriz (adjektibo sintagmak), *uda bero* edo *mutil gazte* bezalaxe. Horrexegatik deitu zaie “compuestos sintagmáticos” edo “compuestos improprios” ere (Perez Gaztelu, Zabala eta Gràcia 2004); izenak berak argi adierazten du zalantzan jar daitekeela morfologian sortuak direla, aitzitik, izen elkartuekin zenbait ezaugarri partekatu arren, sintaxian dute jatorria.

**7.2.11b** Zergatik aztertu, orduan, izen elkartuen artean? Sintaxian sorturiko egitura horiek ihartu eta izen moduan funtzionatzen dutelako. Ihartze-bidearen norainokoa neurtzeko, hainbat irizpide hartzen dira gidari:

---

<sup>32</sup> Elkartu hauetan sakontzeko, ikus *Hitz-Elkarketa/3* lana, edo Perez Gaztelu, Zabala eta Gràcia (2004).

- Lehenik, argi dago izen moduan funtzionatu ahal izateko, jatorrizko sintagma horietako osagaiak iharturik geratzen direla, ezin dutela, bakoitzak bere aldetik, modifikatzailerik hartu<sup>33</sup>. *Etxeko andre* eta *etxeko ate* itxuraz parekoak izan arren, bigarrenak onartzen du *etxeko hiru arte*; ez, ordea, *\*etxeko hiru andre* (ez, behintzat, ‘etxea zuzentzen duen emakumea, gehienetan familiako ama’ adieran). Argi ikusten da aldea beste perpaus honetan ere: *herriko etxe guztiak erre ziren azken gerratean, Herriko Etxea izan ezik*. Beste horrenbeste gertatzen da ‘izen + adjektibo’ egituretan: *uda bero eta sargoria* / *\*udaberri eta sargoria* (lehenean koordina daitezke adjektiboak, baina ez bigarreanean).
- Hitz-andana ihartuetako esanahia ere ez da konposizionala, ez dagokio bi osagaien esanahien baturari: *aitoren seme, abelgorri, buzingorri, hitz neurtu, minbizi...*
- Bi osagaien amalgama morfologikoa (*Gabon, abelgorri*) edo fonologikoa ere gerta daiteke, eta hitz-andana ihartu hori azentu bakarraz ahoskatu.
- Badira, azkenik, zeharo iharturiko formak (*zipotz < ziri+motz, izotz < ihintz+hotz...*); filologoak bakarrik jabetzen dira zein den jatorria<sup>34</sup>.

**7.2.11c** Esan bezala, bi egitura-mota ditugu hitz-andana ihartu hauen iturri. Izenlagun+izen (batzuetan izen+izenlagun) motakoak dira honakoak: *etxe-koandre, herriko etxe, aita ponteko, aingeru guardako, Erromako zubi, aitoren seme, Gernikako arbola...* Gehienak, ordea, izen+adjektibo (batzuetan adjektibo+izen) egiturakoak dira:

abelgorri, ardanberri, bidezidor, buzingorri, eleberri, emagaldu (partizipio/adjektibo kategoriako bigarren osagaia duena), galtza motz, gaztanbera, gerra hotz, gosari txiki, ilbeltz, hitz neurtu, minbizi, mutil zahar, neska zahar, udaberri, umegorri, urre-bizi,

---

<sup>33</sup> Lexikalizazio bidez ikus Contreras eta Suñer (2004).

<sup>34</sup> Orain arte aztertu ditugun ereduaren arabera sorturiko hitz elkartuak (morfologian sortu direnak) ere lexikaliza daitezke: *oilarite, okin, harakin, zaldun, hazkura, hantuste...* Ikus *Hitz-Elkarketa/3* (183-185).



urregorri, urrezuri, Urte Berri, Urte Zahar, zorigaitz, zorion, zoritxar; frantses porru, frantses arbi, nafarrerri, zehar-haga

**7.2.11d** Beste hizkuntza batzuetan ere badira halakoak; hain zuzen ere, beste hizkuntza batzuetako hitz-andana ihartuak hitzez hitz harturik osatu ditugu hor goiko *galtza motz*, *gerra hotz*, eta baita beste hauek ere: *basati ona*, *Gurutze Gorria*, *Ostiral Santua*, *Pantera Beltzak*, *Etxe Zuria*, *Errege-erregina katolikoak*, *Estatu Batuak*, *Itsas Gorria*, *Ekialde Hurbila*, *Herbehereak*, *Lehen Ministro*. Zaharragoak ere badira euskaraz: *Testamentu zahar*, *Testamentu berri*, *txakurtxiki*, *txakurrandi*... Egitura honetako izengoitiak ere ikusi ditugu (§ 7.2.9).

**7.2.11e** Sintagma egitura dute zenbatzaileaz gehi izenaz osatuta dauden beste izen hauek ere: *bostortz*, *ehunzango*, *hamalauzango*, *hiruadar*, *hiruhortz*, *lauburu*... Buru morfologikoa eta esanahia kanpoan dituztenez —‘bost hortz dituen tresna’, ‘lau buru dituen gurutzea edo ikurra’, etab.—, exozentrikotzat hartu dituzte gramatikari batzuek (Perez Gaztelu, Zabala eta Gràcia 2004); *Hitz-Elkarketa/3* lanean, berriz, *bahuvrihi* elkartutzat hartzen dira, duten adieragatik. Baina *bahuvrihiak*, azken batean adjektibo elkartuak dira, adjektiboa buru duten elkartu endozentrikoak (§ 8.2.2); beraz, nekez sailka daitezke *hiruadar* edo *hiruhortz* izenak *bahuvrihi* motako elkartuen artean.



## 8. Morfologia lexikoa: hitz elkarketa (II)

---

8.1. Hitz elkarketa. Adjektibo elkartuak (I). Adjektibo dvandvak

8.2. Hitz elkarketa. Adjektibo elkartuak (II). Mendekotasunezko adjektibo elkartuak; 8.2.1. Sarrera; 8.2.2. *Bahuvrihi* motako adjektibo elkartuak; 8.2.3. Osagarri + buru egiturakoak: *lotsagabe, bakezale, begi-mingarri, lotsagald(a)*; 8.2.4. Aditzoin + adjektibo egiturakoak: *asmaezin, ulergaitz, ulerterraz, sinesgogor, sinesbera*; 8.2.5. Partizipioa + *arin*, partizipioa + *berri*, partizipioa + *zahar* egiturakoak

---

### 8.1. Hitz elkarketa. Adjektibo elkartuak (I). Adjektibo dvandvak

**8.1a** Izen elkartuetan bezala, bi multzo handi bereiz ditzakegu adjektibo kategoriako hitz elkartuetan ere osagaien arteko erlazioaren arabera: adjektibo dvandvak —maila berean dauden bi adjektibo elkartzetik sortzen direnak—, eta mendekotasunezko adjektibo elkartuak, hau da, burua eskuinean dutenak. Ezkerreko osagaia izan daiteke izena nahiz aditzoina, eta bi osagaien arteko erlazioa, berriz, ‘modifikatzaile-buru’ zein ‘osagarri-buru’ motakoa (§ 3.3b). Azter ditzagun banan-banan adjektibo elkartu motak.

Izen elkartu dvandvetan maila berean dauden bi izen elkartzen ditugun modu berean (§ 7.1.2), adjektibo dvandvetan bi adjektibo elkartzen ditugu beste adjektibo bat sortzeko. Elkartu dvandvetan, ordea, ez da nahikoa osagaiak kate-

goria berekoak izatea, nolabaiteko zerikusia, lotura, ere behar dute. Nekez osatuko dugu *zuri-lodi* adjektibo elkartua, eremu semantiko desberdinetakoak baitira *zuri* eta *lodi*. Euskaraz, eta beste hizkuntza batzuetan ere, atal berezia osatzen dute kolore-dvandvek, koloreen erdi-bideko nahas-formak edo izendatzen dituztenak. Antonimia erlazioa atzemango dugu, ostera, zapore-dastamenari buruzko adjektiboek osatzen dituzten dvandva egiturako elkartuetan: *ezti-mingots*, *gazi-geza*, *gozo-mikatz*, *garratz-min*. Baina, adierari dagokionez, bestelako esanahiaz hornituriko adjektibo dvandvak ere aurki ditzakegu (*txiki-borobil*, *estu-mehar*). Multzo berezia osatzen dute, hala ere, *nafar-euskaldun*, *frantses-euskaldun* moduko elkartuek, ez baita erraza adiera zehaztea, ‘nafar eta euskaldun’, ‘frantses eta euskaldun’ moduan ulertu behar diren, ala ‘nafarra den euskalduna’, edo ‘frantsesa den euskalduna’ adierazten duten. Horrexegatik esaten zen *Hitz-Elkarketa/1* lanean (1987: 169) pentsa daitekeela dvandva egiturako elkartuak baino areago mendekotasunezko elkartu modu (bereziren) bat ez ote diren<sup>1</sup>.

**8.1b** Koordinazio mailako harremana dute adjektibo dvandvetako osagaiak, nahiz tarteka tautologiak ere aurki daitezkeen, *busti-palatal*, *lohi-deshonesto*... Bestalde, izen dvandvek bikotea (edo bitik gorako multzoa) adierazten dutela esan dugu (§ 7.1.2c); adjektibo dvandva hauek, berriz, izaki bakar baten ezaugarri bi (edo gehiago) adierazten dituzte. Argazki zuri-beltz bat argazki bat da, izaki bakarra hortaz, “kolorez” zuria eta beltza dena.

Emankortasunari dagokionez, ugariak dira horrelako adjektibo elkartuak euskal literaturan:

alfer-nagi, bero-indartsu, busti-palatal, estu-mehar, elkor-aspergarri, eder-garbi, eder-galant, ezti-mingots, galdu-galgarri, garratz-min, gazi-geza, geza-mingor-mutu, gorri-beltz, gozo-mikatz, hori-berde, hori-beltz, hotz-gogor, latz-min, leun-arin, more-beltz, nag-i-epel, samur-bigun, txiki-borobil, txuri-urdin, zehatz-garbi, zindo-fin, zuri-beltz, zuri-gorri

---

<sup>1</sup> Hau da, *frantses* eta *euskaldun*, *nafar* eta *euskaldun* moduan ulertu ordez, ez ote den zuzenago pentsatzea *euskaldunez* ari garela, osagai hori dela burua, eta ezkerrekoak mugatu egiten duela eskuinekoa; ez gara ari edozein *euskaldunez*, baizik frantsesak direnez, edo nafarrak direnez.

*Zerk aratza hor alfer-nagia?* (Axular); *Ez dio geroz ibiltzen utzi nai, aragi be-ro-indartsuak eragin oi ziozkan urratsetan* (Mendiburu); *Kontsonante busti-palatalen grafiaz Euskaltzaindiaren erabakia* (Erdozaintzi-Etxart); *Keinuka, gor-mutuen [izen balioan] antzera* (Mitxelena); *Zirrara ezti-mingotsa zabaltzen digute bihotzean* (Mitxelena); *Bide latz-gogor honetarako* (Mendiburu); *Sudur zuloetatik “kandela” hori-berdeak dariola* (Zarate); *Erreboilloarentzat lagun-garririk onenak, lusagar txiki-borobillak dira noski* (G. Arrue); *Bere sujetaren berri zeatz-garbia jakiteko ordua pasatu zaiolako* (Villasante). Bi adjektibotik gorako elkartuak ere era ditzakegu: *Txapel txuri gorri urdiñak* (J. R. Zubillaga).

**8.1c** Erdaratiko adjektiboekin ere maiz sortzen dira, gaur egun, bikote adierako adjektibo elkartu berriak. Horrelakoak dira, adibidez: (*helburu*) *didaktiko-pedagogikoak*, (*filosofo*) *ateo-materialistak*, (*teoria*) *sortzaile-transformatzai-lea*, (*garapen*) *logiko-matematika*, (*kultura*) *greko-erromatarra*, (*teoria*) *atomiko-molekularra*, (*hizkuntza*) *fino-hungariarrak*, (*Inperio*) *austrohungaroa* eta abar. Terminologia beharrek eraman gaituzte *ahur-ganbil* (gaztelaniazko “cóncavo-convexo”ren ordaina), *laun-ahur* edo *laun-ganbil* (hurrenez hurren “plano-cóncavo”, “plano-convexo”ren ordainak) sortzera.

Behin baino gehiagotan izen balioan aurkituko ditugu: *Obraren luze-labur osoan* (Bozas Urrutia); *Luze-zabalean handitu ez ezik, loditu ere egin omen dira* (Mitxelena). Ia beti izen balioan erabiltzen da *gor-mutu* elkartua ere.

Askotan zaila da egiazko adjektibo dvandva den antzematea, edo enumerazio soila: *Amaigabeko eztabaida elkor aspergarriak izan dira* (Villasante); *Izotza galazten du ta izotzak lore samur biguñetan egin lezazkiken kalteak* (Nekazaritzako Irakurraldiak).

## 8.2. Hitz elkarketa. Adjektibo elkartuak (II). Mendekotasunezko adjektibo elkartuak

### 8.2.1. Sarrera

Hemendik aurrera aztertuko ditugun adjektibo elkartuetan, mendekotasunezko erlazioa izango da bi osagaien artekoa. Eskuineko osagaia, adjektiboa, izan-

go da burua (hitz elkartu osoari kategoria ematen diona) eta ezkerreko osagaia, berriz, harekin modifikatzaile edo osagarri harremana izango duena. Izen elkartuekin egin bezala, osagaien kategoria eta bien arteko harremana hartuko ditugu kontuan azpisailak egiteko.

### **8.2.2. Bahuvrihi motako adjektibo elkartuak**

**8.2.2a** Hitz elkartu posesibo ere deitu izan zaie elkartu hauei<sup>2</sup>, adjektibo elkartuak adierazten duen ezaugarria ‘duen’ izenaz predikatzen direlako — *mutil sudur-luzea* ‘sudur luzea duen mutila’ da, etab.— eta maiz egitura exozentrikotzat hartu dituzte hizkuntzalariek<sup>3</sup>. Hitz elkartua adjektibo kategoriakoa den heinean izen batez predikatzen da, eta horrexek ekarri zuen exozentrikotzat hartzea; ustez burua elkartutik kanpo zegoen izena zela. Gaur, ordea, mendekotasunezko elkartu endozentrikotzat hartzen dituzte gramatikari gehienek: eskuineko osagaia da burua eta horregatik da elkartu osoa adjektibo kategoriakoa. Ezkerreko osagaia, berriz, izen kategoriakoa, batetik buruaren modifikatzailea da; baina bestetik, adjektibo elkartuak modifikatzen duen izenarekin ere badu erlazioa, maiz ‘ezin besterenduzko jabekuntza’ motakoa dena (Perez Gaztelu, Zabala eta Gràcia 2004: 144). *Sudur-luze* ‘sudurra luzea duen’ norbaitez predikatzen da; beste modu batean esanda, ‘sudurrez luze den’ norbaitez. *Besamotz* ‘besoa motza duen’ norbaitez esango dugu, edo ‘besoz motz den’ norbaitez eta abar. Aldi berean, sudurra luzea izatea, besoa motza edo begi bakarra izatea pertsona batek betiko dituen ezaugarriak dira, ez dira aldi batekoak. Horixe esan nahi du ‘ezin besterenduzko jabekuntza’ terminoak.

**8.2.2b** *Bahuvrihi* elkartuak gehien-gehienetan pertsona edo animalia adierazten duten izenak kalifikatzeko erabiltzen dira; eta horrexegatik adjektibo

---

<sup>2</sup> Ikus *Hitz-Elkarketa/3* (1991) edo Perez Gaztelu, Zabala eta Gràcia (2004).

<sup>3</sup> Ikus Azkarate (1990b: 321-324).

elkartuko izenak askotan pertsona edo animalien gorputz atalak izendatzen ditu<sup>4</sup>, horien berezko ezaugarri direnak, alegia; ken edo alda ezinezkoak.

Adibide ugari aurkituko ditugu euskaraz, bai testu idatzietan eta bai ahozko tradizioan ere<sup>5</sup>:

adarbakar, adar-motz, aho-mehar, aho-zabal, aitzin-xuri, albo-zabal, aurpegi-luze, begibakar, begi-beltz, begi-gorri, begi-ilun, belarri-luze, besamotz, bizar-gorri, bu-ruarin, buru-soil, buru-zuri, eskuzabal, gerri-eder, grauzkio-motz, hankabakar, hanka-luze, hanka-motz, hankarin, ile-harro, ile-kizkur, ipurlodi, ipurtarin, kaskazuri, kirten-motz, kopetilun, lepagorri, lepamehe, lepo-zikin, magal-harro, mingain-luze, moko-fier, moko-fin, musu-gorri, mutur-beltz, mutur-zikin, mutxurdin, odol-bero, papar-gorri, prakerre, sudurmotz, titi-handi, tripaundi, tripa-zikin, txapel-gorri, zain-gorri, zango-makur, zapata-handi

Goraxeago esan dugu pertsona zein animalia adierazten dituzten izenez predikatzen direla horrelako adjektiboak gehienetan. Hala da, baina badira bestelako adibideak ere gure literatura tradizioan, nahiko bakanak izan arren: *Leze aho-meharra* (Etxeberri Ziburukoa); *Pillota-toki albo-zabalean* (Lizardi); [etxe txikitxo] *aintzin xuri bat* (Etxemendi, Lafitte); *Erabili dudan eta darabil-dan hizkuntza, honen bestez, ez da grauzkio-motza grauzkio-gabea baino* (Mitxelena). Gaur egun ere emankortasun handikoak dira *bahuvrihi* egiturak geometrian eta bereziki botanikan, anatomian zein zoologian (*triangelu angelu-zuzen, leka hostozabal, gartxu hostozabal, organismo zelulabakar*).

**8.2.2c** Pertsoenez predikatzen diren adjektibo diren heinean, erraz onartzen dute izen erabilera (ez, ordea, izen bizigabeez predikatzen direnek): *Txapelgorri(ak), txapeloker(ak), belarrimotx(ak)*. *Etzait oraindik azten begibakarren patua* (Orixe); *Gure begi-alai, buru-zuri txikia* (Lizardi). Izen bihurtu dira hauetako batzuk: *gibel-urdin, barrengorri* (perretxiko motak), *papargorri*

<sup>4</sup> “Horrexegatik da askotan Bahuvrîhiaren barneko izena bizidunari bakarrik dagokiona, bizidunek bakarrik duten zerbait adierazten duena” (*Hitz-Elkarketa/3* 1991: 150).

<sup>5</sup> Adberbio kategoriako *bahuvrihiak* ere aipatzen ditu *Hitz-Elkarketa/3* lanak, [izena + *huts(ik)*] egiturakoak. Adberbio elkartuetan jasoko ditugu horrelakoak.

(txori mota)... Askotan horrela sortzen dira izengoitiak (§ 7.2.9): *Hankamakur, Prakerre, Sardinzar*, edo aipatu berri ditugun *txapelgorri, txapeloker*...

Adjektibo elkartu diren heinean, erraz onartzen dituzte ondoren kategoria horretako oinarria eskatzen duten eratorpen-atzizkiak, *-keria*, *-ki*, edo *-tasun*: *bihozberakeria, buruberokeria, eskuzabalki, bihozberatasun, buru-arintasun, gogo-zabaltasun, gogo-zindotasun, hitz-ugaritasun*<sup>6</sup>.

Idazkerari dagokionez, hots aldaketaren bat gertatu denean, elkarturik idazten dira bi osagaiak —*besamotz, ipurterre, kaskazuri*—. Gehienetan bi modutara eman daitezke, marraz loturik edo elkarturik —*gona-motz/gonamotz, gogo-arin/gogoarin*...—. Lehen osagaia txistukari afrikatuz amaitzen denean eta bigarrena ere kontsonantez hasi, ohikoa izaten da bi osagaiak marratxoaz loturik ematea; berdin gertatzen da lehen osagaia kontsonantez amaitu eta bigarrena *h-z* hasten denean (edo bestelako kontsonante multzo bereziren bat gertatzen denean bi osagaiak elkartzean): *behatz-lodi, bihotz-txiki, kirten-motz, gibel-handi*.

### 8.2.3. Osagarri + buru egiturakoak: *lotsagabe, bakezale, begi-mingarri, lotsagaldu(a)*

**8.2.3a** Azpiatal honetan aztertuko ditugu bigarren osagaitzat argumentu egitura duen adjektiboa dutenak; hau da, osagarria eskatzen duten mugakizuna dutenak. Bi egitura-mota bereiz daitezke: *zale* nahiz *gabe* adjektiboa bigarren osagai dutenak; adjektibo elkartu sintetikoak (aditzetik eratorritako adjektiboa mugakizun dutenak).

#### 8.2.3b *Zale, gabe* mugakizun duten elkarketak

Biak dira osagarria eskatzen duten adjektiboak, baina badituzte alde nabarmenak bata eta besteak. Banan-banan aztertuko ditugu, beraz.

---

<sup>6</sup> Egia da, bestalde, beste irakurketa bat ere egin daitekeela: [*buruarin*] + *-tasun* / *buru* + *arintasun* eta abar.



### 8.2.3c *Zale* mugakizun duten adjektibo elkartuak<sup>7</sup>

*Zale* adjektiboak<sup>8</sup> eskatzen duen osagarria da ezkerreko osagaia, mugatzailea, kategoriatu bateko baino gehiagokoa izan daitekeena<sup>9</sup>. Askotan izen kategoriako mugatzailea da *zaleren* ezkerrean ikusiko duguna; oso emankorra da egitura hau:

aberezale, abertzale, anekdotazale, apustuzale, ardozale, bakezale, bertsozale, biraozale, dantzazale, diruzale, dotrinazale, edarizale, egiazale, elizazale, emakumezale, ematezale, errepublikazale, euskaltzale, fuerozale, gerrazale, gizonzale, guduzale, haragizale, idolozale, industriazale, jakintzazale, jainkozale, kondairazale, liburuzale, literaturzale, mutilzale, neskazale, odolzale, okelazale, ospezale, pinuzale, sagardoza-le, soinuazale, tradiziozale, umezale, zerbeza zale...

Erraz izan daitezke mugatzaile izen elkartuak, hitz-andana ihartuak (§ 7.2.11), edo *eta* juntagailuaz elkaturiko izenak: *ahari-apustu zale*, *ahari-talka zale*, *ahuntz-euskara zale*, *aita santu-zale*, *aker-euskara zale*, *kontzeptu eta arrazoi zale*, *bertso eta bertsolari-zale*, *betekada eta ordikeria zale*, *mendigoi-zale*... *Esan dezatela nai dutena aker-euskera zaleak* (Onaindia). Gaurko literaturan ere erraz aurki daitezke mota horietako adibideak: *tomate-zopa zale*, *Nafar-prehistoria zale*, *ipuin heroiko zale*, *UPN zale*<sup>10</sup>...

Adjektibo kategoriako osagaiak ere ageri dira tarteka *zaleren* ezkerrean: *erdi-koizale*, *garbizale*, *ixilzale*, *txukun zale*, *zehatz zale*. Baina badirudi izen balioan agertzen direla adjektibo horiek ('ixilaren zale', 'garbiaren zale'). *Ain da euskaldun jatorra ta garbizalea* (Kirikiño); *Bere formazioz, beraz, erdikoizale*

<sup>7</sup> Badu *zalek* beste adiera bat 'lanbidea, ofizioa' adierazten duena, eta horrenbestez izen kategoriako lexemak sortzen dituena, *esnezale*, *taxizale* (§ 4.2.6). Hemen ez dugu aztergai 'lanbidea' adierakoa.

<sup>8</sup> Sarri beste osagai baten eskuinean ikusiko dugun arren, izen balioan ere erabiltzen da 'zale dena' adieran: *Pistatxo koloreak ere gero eta zale gehiago zituen* (Cano); *Aditu eta zale askok [...] arazoza saihestu eta prozedurak zerrendatzeari ekin diote* (Arranz).

<sup>9</sup> Genitiboaren bidez ere eman daiteke *zaleren* osagarria: *Buru-talka deitzen genion jolasaren oso zaleak ginen* (Lertxundi); *Giza banakoa ez da trukearen zale izaten* (Navarro).

<sup>10</sup> EEHtik hartu dira adibideak.

*eta zentralista da* (R. Arregi); *Nixonen bidetik dabilen euskaldun mordo ixil-zale zaratatsuari* (Mitxelena).

Adberbioa ere izan daiteke mugatzaile, *aurrerazale*; edo aditz partizipioa, *eginzale*, *jakinzale*, *jan-edan zale*, *kiskalizale*: *Ni ez naiz kixkali-zalea*, *egin-zalea baizik* (I. Alkain eta A. Zavala); *Ikazgina, jan-edan zalea, inoiz tximiniatik sartuta sutondoan berotzen dena* (San Martin). Areago, sintagma osoa —determinatzaile sintagma nahiz aditz sintagma— ere izan daiteke mugakizun: *astirola ibilizale*; *bere burua erakustezale*; *kontuak garbi, txukun eta egunean berean eramanzale*; *guztiak galdu-zale*; *esaldiari hitz alferrak inausi-zale*; *izen handi bat irabazi-zale*; *bidera zitzazkion nahaste guztietan murgilduzale*; *ondo bizizale*; *arraultza jarri zale*; *gogaiak etorri ahala jaulkitzezale*. *Moneten inpresionismoko lauko-zale* (Bitaño); *Alkandora eder, samur edo bigun zale* (Mogel); *Teoria handi eta solemne zale* (Azurmendi); *Joko zuzena egin zale* (Berria); *Ahariei adarrak kendu zale* (Aristi); *Barbuilaz barbuila ibili zale* (Lertxundi); *Beti azkena ibili zale* (J. A. Arrieta).

Ez da zaila izen balioan erabiltzea *zale* bigarren osagai duten elkartu hauek, beste adjektibo asko eta asko bezala: *abertzale*, *euskaltzale*, *mendigoizale*...

Loturik idazten dira oro har bi osagaiak, salbu bi txistukari elkartzen direnean (edo osagaien juntura ilunen bat gertatzen denean): *ardozale*, *bertsozale*, *hargizale*; *arrotz-zale*, *jolas-zale*, *marketing-zale*, *txurrut-zale*.

### 8.2.3d *Gabe* mugakizun duten adjektibo elkartuak

Adjektiboaren kapituluan diogun bezala (§ 14.9.3), *gabe* adjektibo berezien artean sailkatu izan da zenbaitetan. Baina gutxitan ageri da bakarrik; gehiengotan badu aurretik sintagma osagarri bat. Nolakoa den testuingurua, postposizioa, izena, adjektiboa edo adberbioa ere izan daiteke *gabe*, nahiz gaurko euskararen gutxiago erabili *gabe* hori izen gisa. Ohikoa da, aldiz, postposizio balioan aurkitzea, aurretik izen sintagma mugagabea nahiz mugatua (hots, determinatzaile sintagma) har dezakeena, baita partizipioa zein aditz sintagma osoa ere (*diru(rik) gabe*, *zure laguntza berezia gabe*, *ikusi gabe*, *inori ezer esan gabe*). Adjektibo kategoriako *gabe* da, ordea, hemen aztergai duguna, “ez duena”, “zerbaiten faltan dena” adierakoa, alegia; osagarriak partitiboa har de-

zake —*dirurik gabea, lanik gabea*—, edo hitz elkartu bateko lehen osagaia izan daiteke. *Gabe* adjektiboa mugakizun duten elkartuetan mugatzailea (osagarria) izen kategoriakoa izaten da, inoiz behin aditza ere bai. Oso egitura emankorra da; bi osagaiak loturik idazten dira, nahiz, salbuespenez marra ere erabil daitekeen (*robot-gabea*):

adargabe, amagabe, antsikabe, arduragabe, atsekabe, axolagabe, babesgabe, balio-gabe, baztergabe, beldurgabe, bidegabe, bihozgabe, burugabe, dirugabe, ditxagabe, dohakabe, erlijio-gabe, errugabe, eskergabe, eskolagabe, fedegabe, gogogabe, hobengabe, indargabe, kordegabe, lurgabe, lotsagabe, odolgabe, ondragabe, paregabe, prezio-gabe, tolesgabe, zentzugabe, zorigabe, zuzengabe

**8.2.3e** Batzuk izen bihurtu dira, *atsekabe, nahigabe, ustekabe*. Aditza da lehen osagai ondoko adibideetan: *ezkongabe, hezigabe, kutsagabe, osagabe, sinesgabe*. Ohikoak dira partizipioa gehi *gabe(a)* egiturak ere (aurrekoak ere hemen sartzekoak lirateke ziurrenik), *esan gabea, ikasi gabea, irakurri gabea, jorratu gabea, landu gabea...* Alde honetatik eratorpenaren eta sintaxiaren arteko egituratzat hartzekoak dira, aurreraxeago aztertzen diren ‘partizipioa + *berri*, partizipioa + *arin*, partizipioa + *zahar*’ egiturak bezalaxe. Zenbaitetan guztiz lexikalizatuak diren hitz elkartu adjektibaletan bigarren osagai gisa arrunta da (ikus OEH): *artega, donga, eskerga, egoska, inauska, axolagabe* eta abar. Ohart gaitezen hizkera doinuak bereizten duela *beldurgabe* (adjektiboa) eta *beldur gabe* (izena + postposizioa, § 21.10.2).

Nolanahi ere, *gabe* adjektiboa nekez ageri da bera bakarrik eta horrek eraman zituen Azkue, Lafitte edo Villasante atzizkitzat hartzera. Askotan, *sin-* (*sinfín, sinúmero, sinvergüenza...*), *sans-* (*sans-coeur, sans-culotte, sans-gene, sans-souci...*) aurritzien edo ingelesezko *-less* (*motherless, endless, headless, legless, needless...*) atzizkiaren pareko egiturak sortzen dira *gabe* mugakizunaren bidez (*Hitz-Elkarketa*3: 133).

**8.2.3f** Izena + aditzetik eratorririko adjektiboa: *bihotz-altxagarri, lotsagaldu(a)*

Adjektibo elkartu sintetiko ere deitzen zaie halako egiturei; izen elkartuetan ere ikusi ditugu hauen pareko egiturak eta han esan dugu bigarren osagaia

aditzetik eratorritakoa duten adjektibo eta adberbio elkartuak ere baditugula (§ 7.2.7.1a). Bi mota bereiziko ditugu adjektibo elkartu sintetikoetan: *-garri* atzizkiaz eratorritako izenondoa bigarren osagai dutenak, eta partizipio/adjektiboa bigarren osagai edo mugakizun dutenak.

### 8.2.3g Izena + <sub>adj</sub>[aditzoina+*-garri*]<sub>adj</sub>

Balio arazlea duen *-garri* izango da adjektibo elkartu hauetako mugakizuna osatuko duena; *beldurgarri*, *mingarri*, *izugarri*, edo *lotsagarri* adjektiboak sortzen dituenak, alegia. Atzizkiaren oinarriak *inkoatibo/kausatibo* oposizioa era dezaketen aditzak izango dira (*da/du* motakoak, alegia) nahiz [izena+egin] egiturako lokuzioa (§ 5.5.2). Osagarri-buru egiturako elkartuak direnez, mugatzailea, ezkerreko izena, adjektiboaren osagarria izango da. Beste hitz batzuetan esanda, aditzetik eratorririko adjektiboa den heinean, aditz horren barne argumentua da ezkerreko izena. Eta adjektibo elkartuak kalifikatzen duen izena, ostera, aditzoinaren subjektua. Mota honetakoak dira:

aho-gozagarri, arima-galgarri, belarri-mingarri, bihotz-altxagarri, bihotz-berogarri, bihotz-erdiragarri, bihotz-sendagarri, buru-aringarri, buru-hausgarri, etxe-galgarri, herri-kaltegarri, neke-aringarri, osasun-galgarri, plazer egingarri

*Etxahunen sentipena zirrargarri, biotz-urragarri, kordokagarri da benaz* (Etxaide); *Emengo gureari darion xarmadura! Ikuskari biotz-erdiragarria benetan!* (Bordari); *Hutsetik eta ezjakinetik, tarte-lan eta buru-aringarri hartu zuela berrogei eta areago urteko diruzainak bertsogintza* (Goikoetxea Maiza); *Neronek ere egiten âl ditut nere motzean zenbait oartxo neke-aringarri alba litz!* (Lizardi); *Kastigu latzaguak emoteutsezanak, erri-kaltegarrijak zirriainai* (Mogel); *Barabako eguraldi osasun-galgarriaren ihesi* (K. Zabala).

Adibide horietan ‘sentipenak bihotza urratzen du’, ‘bertsogintzak burua arintzen du’ edo ‘ohartxoek nekea arintzen dute’ moduan ulertzen ditugu *sentipen bihotz-urragarri*, *bertsogintza buru-aringarri* edo *ohartxo neke-aringarri*.

Marraz elkarturik nahiz bereiz idatz daitezke bi osagaiak mota honetako elkartuetan.

### 8.2.3h Izena + partizipioa/adjektiboa

Adjektibo elkartu hauetan adjektibo balioko partizipio burutua izaten da bigarren osagaia. Izan ere, Adjektiboari dagokion kapituluan esaten den bezala (§ 14.5), partizipioak eta adjektiboak badituzte ezaugarri komunak: mugatzailea har dezakete biek, izenaren ondoan erabil daitezke eta baita predikatu gisa ere. Baina esan dugu partizipioak aditzak ere badirela, “partizipioak, nolabait, aditz adjektiboak dira”. Horrexegatik dute, hain zuzen, bi osagaiak ‘osagarri-buru’ erlazioa, aditzek osagarria eskatzen dutelako.

Mota honetako adjektibo elkartuak dira *adrenalina jario*, *asko-jakin*, *begi-busti*, *bekoki-zimurtu*, *beldur-jario*, *bihotz-zimurtu*, *buru-jantzi*, *buru-makurtu*, *ele-erasan*, *erdal-jario*, *etxe-maite*, *gezur-jario*, *gogo-landu*, *gose-pasatu*, *hitz-jario*, *lerde-jario*, *lotsagaldu*, *muki-jario*, *uste-galdu*: *Gure arteko buru-yantzienak* (Lizardi); *Neskazar uste-galduak orain billa dute* (Orixe); *Azpeiti Azkoitiko boluntarioak ez dira falso eta gezur jarioak* (F. Apalategi); *Zaharrago eta hitz-jarioago izaten omen gara, gainera* (Mitxelena). Aditzaren barne argumentua biltzen du ezkerreko izenak, mugatzaileak, ‘burua jantzia duena’, ‘erdara jario zaiona’, ‘gogoia landua duena’, ‘gosea pasatu duena’ eta abar. Adiera hori dela eta, ‘bizar gorria duena’, ‘beso motza duena’ adierako *bahuvrihi* elkartuetatik oso gertu daude (eta, hain zuzen ere, *bahuvrihi* elkartutat hartzen ditu *Hitz-Elkarketa/4* lanak). Behin baino gehiagotan izen baliolan ere erabiltzen dira: *Emen zegok ezpain-autsi* (Azkue); *Lotsagaldurik balitz andik aizatzeko* (Orixe).

Beste batzuetan, norik argumentua biltzen du ezkerreko osagaiak (adibide horietan *kausa* —edo ‘baliabidea, tresna’— paper tematikoa hartzen duenak, § 23.3.1b), *lehoi gose-minduak*, *naiko lan bait-zizun gizagaixo erdal-kutsatuak* (Lizardi); edo adjuntua, *ausardi honi esker onik atera zuen bere “Diario de la Expulsión de los Jesuitas de España” egunkari esku-izkribatua* (Goi-koetxea Maiza).

Idazkerari dagokionez, bi osagaiak elkarturik, marraz elkarturik eta bereiz ere ageri dira literaturan. Gomendioa marraz elkarturik idaztea da.

### 8.2.4. Aditzoin + adjektibo egiturakoak: *asmaezin, ulergaitz, ulerterraz, sinesgogor, sinesbera*

**8.2.4a** Aditzoinari *ezin, gaitz, erraz, bera, gogor* adjektiboak elkarturik osatzen diren adjektibo elkartu hauetan bi azpisail bereiz ditzakegu adjektiboaren esanahia kontuan harturik: ezintasuna edo traba adierazten duten *ezin* eta *gaitz*<sup>11</sup> batetik (emankortasunik gabeko *gogor* ere hemen sartzekoa litzateke); erraztasuna adierazten duten *erraz* eta *bera* bestetik. Adiera dela eta, ‘izaera elkarte’ deitu zaie *Hitz-Elkarketa/4* liburuan<sup>12</sup>. Adjektibo elkartu hauetakoren bat izen bihurtua da, *egonezin*. ‘Modifikatzaile-buru’ erlazioa dugu horrelako adjektibo elkartuetan:

aldaezin, asmaezin, aseezin, bateraezin, hilezin, integraezin, konformaezin, kontaezin, nekaezin, pasaezin, pentsaezin, sendaezin, ukaezin; aldagaitz, ezagugaitz, gozakaitz, izukaitz, konformagaitz, kontentagaitz, landugaitz, moldakaitz, pairagaitz, sinesgaitz, uxagaitz; entzungor, sinesgogor

adierraz, hautsi-erraz, etenerraz, igaro erraz, irakurterraz, landu erraz, mintzaerraz, moldaerraz, sinesterraz, ulerterraz; isurbera, lizunbera, minbera, samurbera

**8.2.4b** Inoiz behin lehen osagaia partizipioa ere izan daiteke, *saldugaitz, hautsi-erraz*, baina salbuespenak dira. Aditzoinak zein motatakoak diren aztertuz gero, ohartuko gara gehienak bi argumentuko aditzak direla, *du* laguntzailea hartzen dutenak, eta adjektibo elkartuak kalifikatzen duen izena aditzaren barne argumentua dela, ondoko adibideek erakusten duten bezala. *Euskara jator eta adierraz bat* (A. Arrue); *Lanaren kontrola da sindikatuen harmarik gogorrena eta arma hau aldagaitza eta mugatua da* (Zehatz); *Ari eten erraza badaruake* (Mogel); *Hauen obrak, edizio kontaezinen bitartez, euskal etxe zahar guztietan aurki daitezke* (Sarasola); *Arropa berriak jasan-gaitz ditugun bezala* (J. Etxepare). Badira, ordea, argumentu bakarreko aditzak ere, *da* motakoak: *aseezin, hilezin, pasaezin, izukaitz, konformagaitz...*

---

<sup>11</sup> Batzuetan hasierako herskari ahostuna ahoskabe bihurtzen da, *moldakaitz...*

<sup>12</sup> Xehetasun gehiago nahi duenak ikus dezake *Hitz-Elkarketa/3* (121-126).

*Aldagaitz* bera ere horrela har daiteke ('nekez aldatzen da'). Bereziki *bera* adjektiboaren mugakizuna izaten da argumentu bakarreko aditzoina.

Emankortasunari dagokionez, [aditzoina + *ezin*] eta [aditzoina + *erraz*] egiturak dira adjektibo berri gehien sortzen dituztenak. Bereziki emankorra gertatu da lehena lexikoan gaztelaniazko [*in-* + aditzoina + *-ble*] egiturako adjektiboen ordain gisa (*inolvidable/ahaztezin*, *incalculable/kalkulaezin* eta abar). *Gogor* eta *bera* bigarren osagai dituztenak, ostera, ez dute gaur egun bizi-indar handirik. Bi osagaiak elkaturik ematen ditugu idaztean.

### 8.2.5. Partizipioa + *arin*, partizipioa + *berri*, partizipioa + *zahar* egiturakoak

**8.2.5a** Adjektibo kategoriakoak dira ondoren aztertuko ditugun egiturak<sup>13</sup>, baina lehen elementua partizipioa da, ez aditzoina; beste hitz batzuetan esanda, ez da kategoria lexikoa. Horrexegatik hartu dira elkarketaren eta sintaxiaren arteko mugako egituratzat (Odriozola 2004a); *Hitz-Elkarketa/3* lanean ere sail berezitzat hartzen dira *egin berri(a)*, *irakurri berri(a)*, *hil zahar* eta horien antzekoak.

*Euskaltzaindiaren Hiztegia*n begiratzuz gero, ohartuko gara *berri* izen eta adjektibo kategoriakoa izan daitekeela. Horretaz gain, aditzaren era burutuaren ondoren ere erabil daitekeela, 'duela oso gutxi' esanahia gehitzen diola. Aditz jokatuaren barruan aurki daiteke azken adiera honetako *berri* —*etorri berri da*, *irakurri berri dut*—, edo adjektibo sintagmak osatuaz —*liburu irakurri berria*, *eskuizkribu aurkitu berriak*—. Partizipio / adjektibotzat hartzekoak dira, beraz, *etorri berri(a)*, *entzun berri(a)*, *irakurri berri(a)* eta abar. Honako hauek dira *Hitz-Elkarketa/3*ko zenbait adibide:

amaitu berri, atera berri, aurkitu berri, bazkaldu berri, bilatu berri, bota berri, bukatu berri, egin berri, ekarri berri, erre berri, esan berri, etorri berri, galdu berri, hasi berri, haur egin berri, hil berri, iragan berri, irakin berri, irten berri, jaio berri, jakin berri,

<sup>13</sup> Ikus *Hitz-Elkarketa/3* (141-145) eta *Hitz-Elkarketa/4* (72-73).

jausi berri, mintzatu berri, ordaindu berri, sartu berri, sortu berri, zozkatu berri, zualatu berri...

*Sardina bizi bizia, Ondarrabitik ekarri-berriaaaaa (Azkue); Afrika-Asietako herri askatu berri edo askatasun bidean direnen marmar hotsa (Mitzelena); Emakume aurregin berriak utzi dezakee meza denbora puska batean (Agirre Asteasukoa); Dabillanak alaxe oinez urratuko elur jausi-berria, oraino mei deno (Orixe).*

**8.2.5b** Predikatu funtzioa ere bete dezakete, beste edozein adjektibok bezala (*oraintxe dago amaitu berri hogeita hamar pisuko eraikin ederra*). Izen baliolan erabiltzen ditugu *jaioberri* edo *ezkonberri* (aditzoina mugatzaile duena eta, horrenbestez, egiazko adjektibo elkartzat har daitekeena). Oso antzeko esanahia du *hurrenek* ere, *hilurren (egon)*. Adjektibo elkartuz gain, postposizio sintagmak ere osa ditzake [partizipioa + *berri*] segidak: *abiatu berri hartan, bekatu egin berrian, errebelatu berrian, hasi berri hartan, jaiu berri-tan...* Bereiz idaztekoak dira *berri* bigarren osagai duten egitura hauek.

*Berriren* kontrako adiera ematen du egitura hauetan *zahar* adjektiboak, inola ere hain emankorra ez denak: *hil zahar, ibili zahar, jan zahar*. Eta badira *arin* adjektiboa duten bakan batzuk ere: *egin-arin, erre-arin, jan-arin, landu-arin*. *Hitz-Elkarketa/4* lanak erdi-ihartutzat ematen ditu [partizipioa + *zahar*] eta [partizipioa + *arin*] egiturak. *Haragi erre-arina ari dira jaten* (Olarra); *Egin arina zagon oraindik* (Lertxundi); *Baina "hilda dagoela", gertuko norbait "hilda dagoela", badirudi ez dagoela sekula hola-ta-hola sinesterik, ez hil-berritan eta ez hil-zaharretan; bizi denaz bai, lasai esaten dugu hori, baina bizia galdu duenaz ez* (Segurola).



## 9. Morfologia: hitz elkarketa (III)

---

- 9.1. Sarrera
  - 9.2. Aditz dvandvak
  - 9.3. Mendekotasunezko aditz elkartuak: izena + aditza; 9.3.1. *Antzaldatu, gurutz-iltzatu, odolustu*; 9.3.2. Mendekotasunezko aditz elkartuak: leku-denborazko mugatzailedunak; 9.3.3. Sintagma egiturako aditzak
  - 9.4. Hitz elkarketa. Adberbio elkartuak; 9.4.1. Adberbio dvandvak; 9.4.2. Mendekotasunezko adberbio elkartuak; 9.4.3. Jarduera adierako elkartu sintetikoak
  - 9.5. Modifikatzaile-buru erlazio dutenak
  - 9.6. Sinbolismo fonetiko eta hots uztardurak
  - 9.7. Zenbatzaile elkartuak, galde hitz elkartuak
  - 9.8. Exoelkartuak
  - 9.9. Bikoiztapenak
  - 9.10. Galde hitzaren gain osatutako morfema konplexuak
- 

### 9.1. Sarrera

Aditz kategoriako elkartuak dira ondoren aztertuko ditugunak, aurrekoetan bezala, osagaien kategoria eta bi osagaien arteko harremana kontuan hartuaz. Horren arabera, eta izen elkartuekin edo adjektibo elkartuekin bezala, bi sail nagusi bereziko ditugu: aditz dvandvak, bi osagaiak maila berean baitaude eta mendekotasunezko aditz elkartuak.

## 9.2. Aditz dvandvak

Gehienetan izen kategoriako lexema sortzen da bi aditzoin elkartzetik —*esan-eginak, joan-etorriak, harremanak...*— (§ 7.1.2), baina aditz kategoriak ere sor daitezke, beste edozein aditz bezala jokaturik aurkituko ditugunak literaturako testuetan (kontuan izan behar dugu Hegoaldeko testuetan aditz partizipioa ikusiko dugula aditzoinaren ordezt): *eraman-ekarri, jan-edan, joan-etorri, salerosi...* *Deus ordaindu barik ziuertasun osoz eraman-ekarri baitditezke* (Euskadiko Agintaritzaren Egunerokoa); *Bere odol-gorputz, ta arima ederra jan edan egizuz* (Añibarro); *Jan-edan artean solasta gintezke* (Lafitte); *Mozkorrekin jan-edaten asi badadi* (Iraizoz); *Zeren Jaunaren gorputza dela kontuan izan gabe jan-edaten duenak bere gaitzespena baitu jaten eta edaten* (Elizen arteko Biblia); *Zer bidez ioan-etorri ditekeen ez iakiñik ere* (Orixe); *Akzio horiek salerosi ahal izateko kapital merkatu jakin bat antolatzen da* (Heras). Baina ez da eredu emankorra, inondik inora ez izen elkartu dvandven parekoa; adibide gutxi dira eta horiek ere gutxi erabiliak; *jan-edan* eta *salerosi* dira tradizioan zehar eta gaur ere erabiliak.

## 9.3. Mendekotasunezko aditz elkartuak: izena + aditza

### 9.3.1. Antzaldatu, gurutziltzatu, odolustu

**9.3.1a** Mendekotasunezko aditz elkartuak eskatzen du bigarren osagaia, mugakizuna, aditz kategoriakoa izatea, horrek emango baitio aditz kategoria hitz elkartu osoari. Lehen osagaia izen kategoriakoa izaten da maizenik: *antzaldatu, bideberritu, bihotz-aldatu, esku-etendu, gurutziltzatu, herrialdatu, hostoberritu, hotzildu, itxuraldatu, larririki, lepomoztu, letraldatu, lokartu, maite-mindu, odol hoztu, odolustu, uhanditu* (*ur + handitu*).

**9.3.1b** Hitz elkartuen ezaugarriak betetzen dituzte goiko aditzok: bi osagaiak hurrenkera berean aurkituko ditugu beti (*\*arbola ez da berritu ostu, \*gure laguna ez mindu maite*), osagaiak ez dute modifikatzaile onartzen (*\*antz*

*handi aldatu*, \**herri txiki aldatu*...), azentu bakarraz ahoskatzen dugu aditz elkartua... Aditz elkartu hauetatik batzuk *da* motakoak dira; edo, agian zehatzagoa da *da/du* motakoak direla esatea, inkoatibo/kausatibo bikotea osa dezaketenak (berezia da *lokartu*, *da* motakoa izanik ere, *lo* mugatzaileak oraindik ere ergatibo marka gordetzen baitu § 23.2.2.2f). Beste batzuk, berriz, *du* motakoak dira: *esku-etendu*, *gurutziltzatu*, *larririki* (larru + ireki), *lepomoztu*. Argi ikusten da aditzaren kategoria ondorengo adibideetan: *Baratz ori bezela, euskera ere antzaldatuko da* (Orixe); *Europako hizkuntza landuek joskera ere, batzuek besteen antzera eta guztiok latinaren arabera, antzaldatu dute* (Mixelena); *Bere buruak odol-oztu ta onezkoak egiten dituzte* (Zaitegi); *Gauza guztiak itxuraldatu ziren* (Mixelena); *Eta bakea bilha zazue hiriarentzat, zeintara nik herraldatu baitzaituztet* (Duvoisin); *Gero garija erne onduan, biar da jorratu, esku-etendu, zalgia ta bedar txar guztija aterateko* (Mogel); *Okin-nagusiari esan zion; iru egunen buruan Erregeak lepomoztuko zaitu* (Lardizabal); *Baña Kristauak etziran batere bildurtzen: orregatik etsaiak aek kastigatzeko, [...] larririkitzen zituen, ta ateratzen zitzen sabelak* (Ubillos).

**9.3.1c** Izenak aditzarekin zer motatako harremana duen aztertzean, ohartzen gara perpaus batean postposizio sintagmaren eta aditzaren artean dagoenaren parekoa dela gehienetan: ‘herriz aldatu’, ‘odolez hustu’, ‘gurutzean hiltzatu’, ‘itxuraz aldatu’, ‘eskuz etendu’... Lardizabalen eta Ubillosen adibideetan, ostera, izen mugatzailea aditzaren barne argumentuari (§ 23.3.1), objektuari, dagokio. Izen horrek, bestalde, aditz elkartuko (gizaki) objektuaren gorputzeko zatia adierazten du: (*zure*) *lepoa*, (*kristauen larrua*). Balio bertsua dute *Erregeak lepomoztuko zaitu* edo *etsaiak kristauak larririkitzen zituen* eta beste egitura hauek: *erregeak lepoa moztuko dizu*, *etsaiak kristauei larrua irekitzen zien*. Idazkerari dagokionez, ikusi dugu bi osagaiak elkaturik ematen direla, edo marratxo loturik.

### 9.3.2. Mendekotasunezko aditz elkartuak: leku-denborazko mugatzailedunak

Azpiatal berezi batean bildu zituen Euskaltzaindiak *Hitz-Elkarketa/3* lanean (1991) *aurre*, *azpi*, *gain*, motako izena lehen osagai duten aditzak edo

gora adberbioa mugatzaile dutenak. Azken batean, mendekotasunezko izen elkartuetan ikusi ditugun mugatzaile bereziak ditugu hemen ere, han esan bezala *pre-*, *sub-*, *supra-*... erdal aurritzien ordainak emateko baliatu ditugunak (§ 7.2.2.4a): *aurreikusi*, *azpikontratatu*, *azpimarratu*, *gainbegiratu*, *gainbihurritu*, *gainelikatu*, *gainezarri*, *gainzuritu*, *goraipatu*, *goraltxatu*. Gaztelaniazko *sub-*, *sobre-* aurritzidun aditzen ordainak eratu ditugu euskaraz leku-denborazko mugatzaile hauen bidez. Bi osagaien arteko erlazioa ‘modifikatzaile-buru’ motakoa da: ‘gainean ezarri’, ‘aurrez ikusi’, ‘gainetik begiratu’ edo ‘behar baino gehiago elikatu’. Hona zenbait adibide: *Leku horretan aurreikusi diren egitekoetako bakar bat ere bete gabe* (Heras); *Laster ikasi zuten antzara gainelikatzen* (Errekondo); *Produktzio prozesu guztia azpikontratatu egiten dute* (Goenkale); *Haietarik bat nihonek ere lehen behin goraipatu nuen zeren bereizten baitzituen eginbidea eta boterea* (Xarriton).

### 9.3.3. Sintagma egiturako aditzak

#### 9.3.3.1. Sarrera

Aditz elkartuak aztertzean aipatzen dira askotan gramatiketan *onetsi*, *lan egin*, *min eman* edo *maite izan*, *gorroto izan* modukoak. *Hitz-Elkarketa/3* lanean ere aditz elkartuen artean aipatzen dira horiek guztiak. Hala ere, dituzten ezaugarrien arabera, bi ataletan banatzen dira goiko aditzak aipatu lanean: egiazko aditz elkartutzat hartzen dira *gaitzetsi*, *miretsi* edo *onetsi* modukoak; beraz, goian ikusi ditugun *odolustu* edo *gainezarri* egiturakoen ondoan aztertzen dira (§ 9.3.1, § 9.3.2).

Bigarren atal zabal bat osatzen dute *aditz-esapide* deitzen zaienak eta hor sailkatzen dira honako egiturak dituzten aditzak: [izena + *egin/eman/hartu*] *lan egin*, *min eman*, *kontu hartu*; [aditzoina + *arazi*] *etorrarazi*, *ikusarazi*, *sendarazi*; [aditza + *behar/nahi/gogo/uste (izan)*] *etorri behar (du)*, *esan nahi (du)*, *esan gogo (dute)*, *ikusi uste (dut)*. Hortaz, bigarren hauei aitortzen

zaie sintagma egitura. Labur azalduko ditugu hemen egitura mota bakoitzaren ezaugarriak, baina, ezaugarri horiek erakutsiko digute sintagma egitura-koak diren heinean ezin direla egiazko aditz elkartutzat hartu. Sintagma egiturakotzat hartuko ditugu guk *etsi* bigarren osagai duten aditzak, aurreraxeago ikusiko ditugun ezaugarriak kontuan hartuta (§ 9.3.3.2). Aditzari eskainitako kapituluan aztertuko ditugu gainerakoak: aditz kausatibo gisa *arazle* bigarren osagai dutenak (§ 23.2.1.2, § 23.2.2.5c) eta *aditz predikatu konplexuen* artean gainerakoak (§ 23.2.1.3, § 23.2.2.2l, § 23.2.2.4b, § 23.2.2.4e, § 23.2.2.4f).

*Preso hartu, soldadu joan, gizon egin, idolo bilakatu, ikasle egon nahiz kantari etorri, konforme gelditu* edo *lodi jarri* predikazioari eskainitako kapituluan aztertuko ditugu (§ 24.2c).

### 9.3.3.2. Arazi

Aditz esapideen artean aztertu izan dira ‘aditz arazle edo kausatiboak, aditzoina + *arazi*’ motakoak, alegia: *abiarazi, eginarazi, esanarazi, etorrarazi, gordearazi, ikusarazi, jakinarazi, mintzarazi*, edo *sarrarazi*. Egia da elementu lexikoa dela *arazi*, baina elementu lexiko horren eginkizuna ez da, aditzoinari loturik, aditz elkartua sortzea. Hala balitz, adiera lexiko jakin bat eman behar lioke elkartu osoari. Ez da horrela, ordea; balio kausatiboa, arazlea, eransten du *arazik*; areago, ez dugu sarrera gisa aurkituko *Euskaltzaindiaren Hiztegian*, baizik aditz bakoitzaren forma kausatibo gisa. Beste hitz batzuetan esanda, atzizkien pareko trataera eman dio *Euskaltzaindiaren Hiztegiak arazi* osagaiari. Hala ere, ezin esan guztiz atzizki denik, *arazle* eratorria sortu baitugu aditzoin horretatik; badu, beraz, autonomia lexikoa, hein batean bederen. Datu horiek guztiak kontuan harturik —aditz guztiei erants diezaiekegu, balio kausatibo edo *arazlea* eransten dio aditzoinari (hau da, balio gramatikala), badu hein batean autonomia lexikala—, aditzari eskainitako kapituluan aztertuko dugu, zehazkiago aditz kausatiboak aztertzean, mota horretako aditzak sortzeko baliabide lexikal gisa (§ 23.2.1.2, § 23.2.2.5c).

### 9.3.3.3. Adjektiboa + *etsi*, *iritzi*

Egitura honetakoak dira *asketsi*, *askietsi*, *baietsi*, *berantetsi*, *ederrets*, *erdietsi*, *ezetsi*, *gaitzetsi*, *gaitziritzi*, *goretsi*, *gupidetsi*, *gutxietsi*, *handietsi*, *hautesi*, *hobetsi*, *lehenetsi*, *luzetsi*, *miretsi*, *onetsi*, *salbuetsi*, *zilegi etsi*. Lehen osagaiaren kategoriari dagokionez, gehienetan adjektiboa da, baina inoiz behin izena ere aurkituko dugu (*gupida + etsi*), adberbioa (*berantetsi*, *goretsi*, *salbuetsi*), nahiz zenbatzailea (*askietsi*, *gutxietsi*, *lehenetsi*). Kategoriak kategoria, mugatzaile guztiak predikatu sintagmatzat har ditzakegu (§ 14.6 eta 24. kapitulua), horixe dute bateratzen dituen ezaugarria. Izan ere, aditz hauetako *etsi* ‘iritzi’ adierakoa da, ez gaur beregaina den *etsi* aditzaren esanahia duena (‘itxaropena galdu, amore eman...’). XVII. eta XVIII. mendeetako testuetan, Axularrengan edo Duhalderrengan, aurki dezakegu *etsi* beregaina ‘iritzi’ balioan: *Eta nere ariman uste izan dezaket Jainkoak aski etsiko duela egin dudalako penitentzia egin ditudan hanbat bekhaturen aldera?* (Duhalde); *Gutiago ets nezake sekulako nekea Eta doloretan nuke konsolazione* (Etxeberri Ziburukoa). Predikatu sintagma eta aditza dira hor *aski*, *gutiago* eta *etsi*; sintaxiko egitura, ez lexikoa. Hurrenkera ere bestelakoa dute Axularren beste adibide honetan: *iakin dezagun ea zergatik daritzten Iainkoak hain gaitz hirur bekhatu suerte hauri* (Axular). Areago, *gaitz* osagaiak modifikatzailea hartu du *hain gaitz* predikatu sintagman. Beraz, ez dira betetzen hitz elkarketan ohikoak diren ezaugarriak, hurrenkera finkoa, osagaiak bakarka modifikatu ezina... Sintaxi egitura ihartuak dira, hortaz, *etsi* mugakizun dutenak. Azken urteetan ere sortu dira euskaraz modu horretako aditzak: *Hautu bakoitzaren arrazoiak aintzatetsi ditut* (Meabe); *Erabaki hori erabat ezeztatzen bada, behin-behineko betearazpena largetsi egingo da* (HAEE); *Ondasunak ezin direnean itzuli, zenbatetsi egingo dira dohaintza-unean zuten balioaren arabera* (Kode Zibila).

Modu bereko egiturak dira *iritzi* aditzarekin osatuak ere: *Etzion gaitziritzi Konfesore aren kontu artzeari, ta bai egiñ Toledako Arzobispo, ain begiratua zalako animak zuzentzen, ta itzegiten beldurgabe* (Mogel); *Orain artean eder eretxi deutzazuen pekatuari gorroto gogorra artuteko* (J. M. Zabala).

### 9.3.3.4. Aditz predikatu konplexuak

#### 9.3.3.4.1. Sarrera

Ondoren aztertuko ditugun egiturak ere aditz elkartuen harira eman dira zenbait gramatika eta lanetan (ikus Azkue edo Lafitte): [izena + *egin/eman/hartu*] aditz lokuzioak, [izena + *izan*] motako aditzak, [aditza + *behar, nahi (izan)*] eta [partizipioa + *gogo, uste (izan)*]. Goraxeago esan bezala, hala aurkitzen dira *Hitz-Elkarketa/3* lanean ere. Baina ez dira egiazko aditz elkartutzat hartzen, aditz esapidetzat baizik. Izan ere, osagai batez baino gehiagoz eratuak daude, askotan izena dute lehen osagai (horrek hurbiltzen ditu aditz elkartuetara); ezkerreko osagaiaren jokabidea edo izaera, ostera, aditz elkartuetakoa ez bezalakoa da. Hemen labur aipatuko ditugu egitura horiek guztiak, baina aditzaren aurkezpen kapituluan aztertuko ditugu *aditz predikatu konplexuei* eta aditz modalei eskainitako ataletan (§ 23.2.1.3, § 23.4).

#### 9.3.3.4.2. Izena + *egin, eman, hartu* aditz lokuzioak

Ugariak dira euskaraz mota honetako egiturak, batez ere *egin* aditzarekin osatuak<sup>1</sup>:

agur egin, alde egin, bekatu egin, barre egin, bekatu egin, bultza egin, burla egin, dantza egin, dei egin, doministiku egin, gogoeta egin, huts egin, irri egin, juramentu egin, kalte egin, lan egin, lo egin, negar egin, oihu egin, orro egin, otoitz egin, porrot egin, poto egin, salto egin, topo egin, zin egin, txalo egin, zintz egin, zurrut egin... Barre eragin, doministiku eragin, kalte eragin, negar eragin<sup>2</sup>...

---

<sup>1</sup> Informazio gehiago nahi duenak ikus dezake Azkarate (1990b: 409-415); *Hitz-Elkarketa/3* (1991: 8-14); Martínez (2015); Oyharçabal (2006a); de Rijk (2008: 298-306); Rodríguez eta García Murga (2003); Zabala (2004).

<sup>2</sup> *Hitz-Elkarketa/3* lanean aditz esapidetzat hartu ziren ‘izena + *eragin*’ motakoak ere; berez, ‘izena + *egin*’ aditz esapideen kausatiboak baino ez dira, aspaldi ihartua dugun *-ra-* artizki kausatiboaz sortutako *eragin* (*egin* > *e-ra-gin*) bigarren osagai dutenak.

amore eman, aurpegi eman, beldur eman, hats eman, hitzeman, kontseilu eman, laztan eman, leku eman, musu eman, parte eman, poz eman, su eman...

atsegin hartu, esku hartu, etsenplu hartu, gorroto hartu, hats hartu, kontu hartu, lur hartu, min hartu, neurri hartu, parte hartu, plazer hartu, poz hartu, su hartu

Itxuraz, izenaz eta aditzaz osatutako aditz elkartuak dirudite, goraxeago ikusi ditugun *hostoberritu* edo *gurutziltzaturen* parekoak. Horixe dute, hain zuzen ere, lehen ezaugarri morfologikoa, izen soila (determinatzailerik gabea) izatea ezkerreko osagaia. Meteorologiako gertakariak adierazten dituzten *euria egin*, *elurra egin*, *izotza egin*... aditzetan lehen osagaiak badu mugatzailea, baina hori da har dezaketen determinatzaile bakarra; ezin dute, adibidez, erakuslerik hartu (*\*elur hori egin*, *\*izotz hau egin*). Mugatzailerik hartzen ez duen lehen osagaia izateak berarekin dakar aditz hauek ez erreferentzialak izatea; hau da, erreferentzia jakina baino areago, erreferentzia generikoa dute (*lan egin / agindu dizuten lana egin*). Honetan ere bat letozke hitz elkartuen erreferentzia generikoarekin. Esapide hauetako aditzak ere, *egin* batez ere, aditz arinak direla esaten da, berezko esanahi sendorik gabeak; izenari aditz balioa ematea dute eginkizun nagusi. Izenarekin elkartuaz osatzen da aditz esapide hauen esanahia (§ 23.2.1.3h, § 23.2.1.3i).

Baina beste zenbait ezaugarri aztertzen hasi orduko ohartuko gara ez direla goraxeagoko *gurutziltzatu*, *lekualdatu* edo *odolustu* aditz elkartuak bezalakoak. Bi ezaugarri nabarmendu dituzte gramatikariek:

- a) Partitiboa onartzen du lehen osagaiak, *ez du lanik egin*, *ez du minik hartu*, *ez du negarrik egin*... Egia da aditz esapide hauetako batzuetan izenak ez duela partitiboa hartzeko aukerarik, *ez*, behintzat, bestelako ñabardura semantikoren bat erantsi gabe (*ez du hitz egin / ez du hitzik egin*, *ez du inoiz hutsegin / ez du inoiz hutsik egin*). Baina gutxi batzuk dira horrelakoak; gehien-gehienek onartzen dute partitiboa, Martinezek (2015) erakutsi bezala.
- b) Izena lekuz alda daiteke galdegai/mintzagai jokoaren arabera (§ 41.4.2): *gauak ematen dit beldur*, *zuk egin diozu burla*, *egizu kontu*...



“Bi arrazoi hauek direla eta, zuzenago dirudi ‘Izena + *egin/eman/hartu*’ egiturak aditz elkartutzat ez hartzea. Jatorriz sintaxi egiturak direla esan daiteke, erabileraren poderioz ihartzera jotzen dutenak, aditz esapide bihurtuaz” (*Hitz-Elkarketa/3*: 11). Martinezek (2015) beste test batzuk ere aplikatu zituen, hala nola elipsiarena koordinazio egituretan (*iseka eta irain egiten zieten / \*leku eta herrialdatu* egiazko aditz elkartuetan; *otoitz eta barau egin ondoren, baina umeak ez du lo egiten, negar baizik* eta abar), edo lokailuekikoa (*batzuetan barre ere egiten du*). Horiek guztiek indartu baino ez dute egiten *Hitz-Elkarketa/3* liburuan esana. Horregatik aztertuko ditugu aditz predikatu konplexuen artean (§ 23.2.1.3.1).

#### 9.3.3.4.3. Izena + *izan*

Bi motatako aditzak bereiz ditzakegu *izan* aditzaren balioen arabera (*izan naiz / izan dut*). Lehen motakoak dira *beldur izan, egarri izan, gose izan, lotsa izan...* Bigarren motakoak, *balio izan, behar izan, damu izan, ezagun izan, gorroto izan, gura izan, higuin izan, maite izan, merezi izan, nahi izan...* Predikatu hauetan ere osagaiak lekuz alda daitezke, *bihotz-bihotzez zaitut maite, zu zara horren beldur, ez naiz ezeren damu...* Eta ‘*izena + egin*’ lokuzioetako aditzaz esan dugunaren haritik, aditz arinak direla alegia, hauetan ere *izan* ia laguntzaile soila dela esan daiteke, aditzaren aspektu balio desberdinak adierazteko bidea (*maite izan dut, maite izaten dut, maite izango dut*). Emankortasunari dagokionez, *Hitz-Elkarketa/3* lanean esaten den bezala, adibideek zerrenda dagoeneko osatua eratzen dutela dirudi; aspalditxoan ez da berririk sortu. Beste modu batera esanda, egitura hauek ez dira gaur emankorrak. Predikatu konplexuei eskainitako atalean aztertzen ditugu xehekiago [*izena + izan*] egiturak (§ 23.2.1.3.4).

Predikatu horiek osatzen dituzten izenetako batzuk izen elkartuetako mugakizun izan daitezke: *diru gosea, erlijio beldurra, odol egarria, bihotz damua, batasun nahia* (§ 7.2.6).

#### 9.3.3.4.4. Partizipioa + *behar, gura/nahi (izan)*

Nekez har daitezke aditz elkartutzat ‘partizipioa + *nahi, behar*’ egiturak, ez eta predikatu konplexutzat ere. Izan ere, modalitatea adierazten dute aditz partizipioaren ondoren ezartzen ditugun *behar, gura, nahi* osagaiak. Jatorriz izenak dira, baina *ahal* eta *ezin* izenekin batera partizipioen ondotik modalitatea adieraztea beste eginkizunik ez dute. Horregatik aztertuko ditugu aditz modalei eskainitako atalean (§ 23.4).

#### 9.3.3.4.5. Partizipioa + *asmo, gogo, uste (izan)*

Modalitatea adierazten dute partizipioaren ondoren *asmo, gogo* edo *uste (izan)*ek: *edan gogo, egin gogo, esan uste, garaitu uste, hil uste...* Beti partizipio burutua behar dute eskuinean *gogok* eta *asmok*; ezinezkoa da *gogo dut* edo *asmo dut* bakarrik erabiltzea. *Uste izan* bada aditz predikatua, perpau osagarria eskatzen duena; baina hemen aztergai ditugun egituretan, partizipioak adierazten duen gertaeraren egiazkotasunari ‘uste’aren ñabardura eransten dio. Hortaz, aditz modaltzat hartuko ditugu egitura hauek guztiak ere (§ 23.4.1d).

Bestalde, *gogo* eta *uste* izenak izen elkartuetako mugakizun ere izan daitezke: *berriketa-gogoa, iseka gogoa, dotorezia-ustea, porrot ustea* (§ 7.2.6).

### 9.4. Hitz elkarketa. Adberbio elkartuak

Izen eta adjektibo elkartuetan bezala, hemen ere bi osagaien arteko erlazioa hartuko dugu kontuan sailkapena egiteko.

#### 9.4.1. Adberbio *dvandvak*

Maila berean dauden bi adberbio elkartzetik sortzen dira adberbio *dvandvak*: *dela* bi erakusle, bi moduzko adberbio, edo bi denborazko... *Han-hemen, han-*

*hor, hala-nola, harat-honat, gaur-biharretan, bihar-etzi(etan), luze-laburrean, goien-barren, ezker-eskuin, atzera-aurrera, goiti-beheiti.* Hemendik erator ditzakegu adjektibo dvandvak ere: *luze-zabaleko (programazioa), leku-denborazko atzizkiak, ikus-entzunezko (ikasmateriala).* Bigarren osagaiak *-ka* atzizkia (§ 6.2.3) daramala, *laztan-musuka, irri-barreka, izkuta-agirika, negar-zotinka...* Hona zenbait adibide: *Izatekotan, han-hemen, pattar tantaren batzuk* (Jon Muñoz); *O! zer pozakin laztan-musuka zaitun artuko besora!* (López Alén); *Burdiñak gora, txatarrak atzera-aurrera* (Erkiaga); *Afrikan sortu zen, orain dela 140.000 urte, urte bat goiti-beheiti* (Salaburu).

#### 9.4.2. Mendekotasunezko adverbio elkartuak

Ondoren ikusiko ditugun adverbio elkartuetan, bigarren osagaia da burua, adverbio kategoriakoa. Lehen osagaia izena izaten da. Izen eta adjektibo elkartuetan bezala, hemen ere elkartu sintetikoak eta *bahuvrihi* elkartuak bereiz ditzakegu.

#### 9.4.3. Jarduera adierako elkartu sintetikoak

**9.4.3a** Osagarri-buru erlazioa dugu bi osagaien artean jarduera elkartu sintetikoetan (§ 7.2.7, § 8.2.3). Egitura mota bat baino gehiago hartzen ditu kontuan *Hitz-Elkarketa/3* lanak. Batetik, [aditzoina + *-ka*] adverbio eratorriak mugakizun dutenak, *aho-zabalka, ate-joka, begi-zabalka, arrosario esaka, esku-zartaka, gaizki esaka, hitz-etenka, isats-eraginka, mamu-atzemanka, mutur-joka, ostatu-galdezka. Besoak tirahala luzatuz, ahozabalka hasi zen Otsoko* (Sastrustegi); *Malkotan blai, itz-etenka, oi u egiten omen zioten* (S. Mitxelena).

**9.4.3b** *Bila, eske* bigarren osagai dutenak; lehen osagaiak, ‘zeren’ bila, ‘zeren’ eske adierazten du, osagarria, alegia:

abaro bila, ardi bila, ardo bila, argi bila, argitasun bila, asto bila, ataka bila, atun bila, baimen bila, bake bila, egia bila, haragi bila, hari bila, inozente bila, jan bila, lore bila, ogi bila, sagu bila, segurantza bila, sosegu bila, sustrai bila, ur bila

ardo eske, argitasun eske, bai eske, barka eske, barkamen eske, bertso eske, bizitza eske, euri eske, gupida eske, jaramon eske, kafesne eske, leialtasun eske, liburu eske, monopolio eske, ogi eske, olio eske, osasun eske, salbazio eske, seme eske, ur eske, lan-sari eske...

*Joan, egon, etorri, ibili...* aditzen predikatu sintagma funtzioa betetzen dute horrelako elkartuek; horregatik esaten zaie ‘jarduera elkartu’ (izen kategoriako elkartu sintetikoetan ikusi ditugu izen kategoriako *eskerekin* osatutako *diru-eske(a)* eta abar § 7.2.7.3b). *Bai eske natorkizu inola al baleite* (Orixe); *Itxaso delako norbaitekin dabiltza beti zirika, atun-bila* (Mitxelena); *Begira begira egon ondoan haragi bila joatea erabaki zuen* (Satrustegi); *Landareak beti ur eske daude* (*Nekazaritzako irakurraldiak*). Lehen osagaia sintagma ere izan daiteke, *Baztango gai bila urte askoan ibilia* (Bitaño); *Batzuek gu gorde naiez, besteak gure diru ta iskillu billa* (J. M. Lertxundi).

**9.4.3c** *Zain (egon)* bigarren osagai duten *eguna zabaldu zain, mutil kaiku horiei burura etorri zain egon...* Nabarmena da lehen osagaia aditz sintagma dela, ez kategoria lexiko soila. Bestetik, izen kategoriako elkartu sintetikoetan (§ 7.2.7.2b) ikusi ditugun *aberezain, artzain, behizain, errentazain, ganaduzain, haurtzain edo ontzizain* izenek predikatu sintagma funtzioa betetzen dute askotan *egin, egon, ibili, joan...* aditzekin doazenean (35 urte *ganadu-zain egin; artzain joan Amerikara* eta abar).

**9.4.3d** Beste modu batera ere azter daitezke, ordea, aurreko puntuetako adibideak: *bila ibili, zain egon, eske ibili* predikatu konplexutzat har daitezke, jarduera zein egoera adierazten dutenak (Zabala 2004). Predikatu horien osagarria hainbat kategoriatakoa izan daiteke: izena (*ardo, diru, sustrai* edo *ur*), [izenlagun+izen] sintagma (*Baztango gai, gure diru eta iskillu*) edo aditz sintagma (perpaus jokatu gabea): *eguna zabaldu, mutil kaiku horiei burura etorri*. Aditzaren aurkezpeneko kapituluan aditz predikatu konplexuen artean jasotzen dira *egon* eta *ibili* aditzekin eratzen direnak (§ 23.2.1.3.5).

**9.4.3e** *Pasa* mugakizun dutenak, berez aditzoin izan arren, izen batekin elkarturik ‘nola’ adierazten duena, *denbora-pasa, egun-pasa, gau-pasa* (izen kategoriakoak ere izan daitezke § 7.2.7.3b): *Josefina nire alaba Salinasera*

*eraman zuen egun pasa (Aristi); Edo gau pasa joaten diren zenbait autobuse-tako gazteei (Salaburu).*

**9.4.3f** Antzekoak dira berez bizidunen jarduna adierazten duten *kantari* edo *kontari* mugakizunekin osatzen ditugun *kontu-kantari*, *kantu-kantari* (*aritu*, *jardun*, *egon*...): *Bazkalosteko barealdian kontu kantari jarduten ziren (Maia); Mahaian geratuko dira, patxaran gehiagoren eta gitarraren konpainian kantu kantari (X. Mendiguren Elizegi).*

## 9.5. Modifikatzaile-buru erlazioa dutenak

Hemen bilduko ditugu bigarren osagai *gorririk*, *hutsik*, *makurrik* edo *zabalik* mugakizun dutenak: *esku-hutsik*, *galtzontzilo-hutsik*, *larru-hutsik*, *buru-makurrik*, *aho-zabalik*, *beso-zabalik*, *hanka gorririk*. *Jantziak emeki-emeki erantzi eta galtzontzilo-hutsik geratu ginen laster (A. Arana); Negu gorria buru-makurrik airoso zen aldegina (Olarra); Sarritan gizon bat ikusi, eta haren besoetara joko nuen beso zabalik (Zubizarreta). Huts bigarren osagai duten elkartuak ere adberbio elkartzat har ditzakegu, predikatu sintagma funtzioa betetzen duten heinean (*musu huts geratu*, *mutur-huts agertu*). Beste forma batzuk ere har ditzake mugakizunak, *gorrian* (*larrugorrian*, *ikara-gorrian*).*

## 9.6. Sinbolismo fonetiko eta hots uztardurak

Hitza baino areago hotsa da, era honetako elkartu askotan, funtsezko osagai eta adiera-sortzaile<sup>3</sup>. Elkartu hauetako osagaiak ez dira kategoria jakin bateko lexemak, ez dira hiztegi-tako sarrerak; nolabait esateko, ez dute izaerarik ba-koitza bere aldetik. Hots jokatik sortzen diren elkartuak, aldiz, adberbio izaten dira gehienetan; izenak noiz behinka, bereziki hots errepiketan (*zirimiri*, *esamesa(k)*, *dardara*, *zurrumurru*, *dirdira*, *marmarra*, *tirabira*...). Bi hots-joko

---

<sup>3</sup> Ikus *Hitzez-Elkarketa/1* (1987: 179-197).

mota bereiz ditzakegu: hots errepikak (hau da, lehen osagaia errepikatzean datza jokoa), eta errima-bikoteak. Azken hauetan, aldi berean, bi motatako bikoteak bereiz ditzakegu: bokal aldaketa oinarri dutenak *-i* bokala duela lehen osagaiak / *o* edo *a* bigarrenak; bigarren osagaiaren hasieran *m* sudurkari ez-painkaria edo *b* herskari ezpainkaria daramatenak:

barra-barra, bor-bor, dar-dar, kili-kili, mara-mara, ñir-ñir, parra-parra, pil-pil, tapa-tapa, txintxin, txio-txio(ka), txor-txor, xirri-xirri, kuku(a), ttuntun(a), kirkirra, dardara, dizdiza, marmarra

binbili-bonbolo, bristi-brasta, dilin-dalan, firi-fara, hinki-hanka, iji-aja, kili-kolo, kris-ki-kraska, piri-para, plisti-plasta, tiki-taka, tirriki-tarraka, zingulu-zangulu, zirti-zarta

aitzaki-maitzaki, auzi-mauzi, duda-muda, erran-merran, handi-mandi, hasi-masi, hautsi-mautsi, hizka-mizka, ika-mika, ikusi-makusi, isil(ka)-misil(ka), jira-bira, nahas-mahas, nahaste-borraste, saski-naski, tarteka-marteka, total-motel, txirula-mirula, zehatz-mehatz, zizka-mizka, zurrumurru

Hona zenbait adibide (bai adberbio eta bai izen kategoriakoak): *Zenbait urteren buruan, hautsi-mautsi bat egin ondoan elizarekin* (Xarriton); *Binbili-bonbolo, kili-kolo, tikili-tokolo* (Arranz); *Txoriak txio-txioka ari ziren* (Navarro); *Jantokitik irten zen tirriki-tarraka* (Lopez de Arana); *Han aurretik firfira ezti eta txintxin-hotsa zetorrela ematen zuen* (I. Mendiguren). Emankortasun ahulekotzat jotzen ditu *Hitz-Elkarketa/4* lanak horrelako elkartuak; hala ere, izen kategoriakoak izan daitezke beste izen elkartu bateko mugatzaile, eman dugun azken adibideak erakusten duen bezala (*txintxin-hotsa*).

## 9.7. Zenbatzaile elkartuak, galde hitz elkartuak

**9.7a** Zenbatzaile elkartuen ditugun adibide apurrak dvandva egiturakoak dira: *sei-zazpi, zortzi-hamar, hamar-hamaika, hamar-hamabi, hogeit-hogeita bost (urte), hirurehun-laurehun (ardi), gutxi-asko*. Ikus dezakegunez, gertuko zenbakiak adierazten dituzte elkartzen ditugun zenbatzaileek; nekez esango genuke *bi-hamar* (???) edo *hogeit-laurogei* (???). Bi osagaien arteko harrema-

nari dagokionez, *edo* juntagailu hautakariaren bidez eman dezakegu bi elementuen arteko berri, “bi edo hiru”, “hamar edo hamabi”. Horixe berresten dute beste egitura hauek ere: *bizpahiru, hiruzpalau, lauzpabost, bospasei*.

**9.7b** *Non-zer* moduko galde hitz dvandvak ere baditugu gure literatura tradizioan eta gramatikako terminologian, *noiz-nongo, zer-nola(ko), nor-nori, nor-nori-nork*. Hauetan, aldiz, *eta* juntagailuak irudikatuko luke galde hitz hauen arteko harremana. Nolanahi ere, emankortasun urrikoak dira bai bata (*bi-hiru*) eta bai bestea (*noiz-nongo*). *Aitak zer-nola lantzen zuen* (J. R. Zubillaga); *Bi gorputz aiek gutxi gora-bera non zeuden galdezka, zer nolatan atera bear genitun asmatzarren* (I. Alkain eta A. Zavala).

Ez zenbatzaileak eta ez galde hitzak dira ohiko kategoriak hitz elkarketan. Ez dira, beraz, eredu emankorrak.

## 9.8. Exoelkartuak

Osagaietako bat kultur erroa edo, azken ordukoetan, ingelesezko hitza edo hizkia izaten da; beste osagaia, aldiz, euskal hitza. Halako osaera dutenei deitzen zaie *Exoelkartu* (*Hitz-Elkarketa/4*). Unean uneko sorkariak dira horietako asko, baina exohizki batzuk aurrizki moduko izaera eskuratzen ari dira apurka-apurka: *extra-*, *infra-*, *hiper-*, *mini-*, *tele-* eta batez ere *ultra-* halako neurri batean bertakotzen ari dira.

Exohizkia mugatzaile izan daiteke. Izen arruntak dira elkartu horietako asko, baina izen propioak ere izan daitezke:

antioinak (antipodak), antisorgailu, antizatiki, autobehaketa, autoitsaskor, bideolan, bideo-saio, ekoetxe, elektroeragile, elektrotresneria, euroagintari, extra fin, (altzairu) extragozo, extraofizial(ki), fotoeroale, hiperbizkaiera, hipergizon, infragizatar, infragizon, infragorri, infrasoinu, metahizkuntza, mikrouhin, minietxe, minigona, morfojoskera, para(a)tzizki, para(a)urrizki, polikiroldegi, polinahaste, protoeuskara, protoirudi, supergizon, superni, superreroale, telebista, tele(e)gunkari, telegidatu, teleikusle, telekutxa, telemezu, telesaio, termoeгонkor, ultrabatu, ultraeskuin(dar), ultraezker(tiar), ultragor, ultramore, ultramundutar, ultrasoinu, ultrazuzenketa. Etniker, Fotokai, Hiper Eroski

Exohizkia mugakizun da beste hauetan (askoz gutxiago ditugu horrelako adibideak): *adinlekto, argiteknia, astokrazia, berrimetro, enbormobil, euskarologo, jainkofago*. Anglo-euskarazko elkartuak ere sortu ditugu: *euskara light, copyright-agiria, softwaregintza, Arrasate Press, Etxekit, Euskalsoft, Eusko-card visa, Euskophoto...*

Berri samarrak izan arren, beharrezkoak zaizkigu gaurko euskaran mota honetako egiturak ere.

## 9.9. Bikoiztapenak

Hitz bera errepikatuz sortzen diren egiturei eman zaie izen hori. Egiturok, ordea, askotan ez dira kategoria lexikoak, sintagmatikoak baizik, postposizio sintagma / adberbio sintagma, alegia. Edo, kategoria lexikoak izanik ere, adjektiboak esaterako, esanahia ez da lexikoa, gramatikala baino, aurreraxeago ikusiko dugunez. Horrexegatik eztabaidagarria izan daiteke hitz elkarketaren barruan aztertzea; hain zuzen ere, bai etxeko eta bai kanpoko gramatikarien artean izan dira horrelako egiturak hitz elkarketaren barnean aztertu dituztenak, eta baita sintaxian aztertu beharrekoak direla defendatu dutenak ere. Azkuek, adibidez, graduazio edo maila-adberbioez ari dela aipatzen ditu *on-on-ona* moduko egiturak (beheraxeago —c) azpiatalean— aztertuko ditugunak); *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-I* lanean ere izenondoak errepikatzea goren maila adierazteko baliabidetzat hartzen da, eta *herriz herri* eta horien antzekoak esapide gisa ematen dira. De Rijkek (2008) ere bereizi egiten ditu hitz elkarketa eta bikoiztapenak. Lafitte da gramatikari bakarra hitz elkarketa ari dela *bihotz-bihotzetik* motako egiturak kontuan hartzen dituena<sup>4</sup>. Nolanahi ere, *Hitz-Elkarketa/1* eta *Hitz-Elkarketa/4* lanetan kontuan hartu ziren bikoiztapenak. Guk ere hemen emango ditugu, nahiz, ondoren aipatuko ditugun *edozein, zernahi* eta abar bezala, ezin esan daitekeen egiazko hitz elkartuak direla: bikoiztapena ez da kategoria lexiko bat sortzeko bi kategoria lexiko elkartzen dituen prozedura.

---

<sup>4</sup> Ikus *Hitz-Elkarketa/1* (1987: 117-147).



Hiru azpiatal nagusitan banatu ziren bikoiztapenak *Hitz-Elkarketa/4* lanean:

- a) Amredita elkartuak. Formalki, *-z* edo *-(r)ik* postposizioa nahiz genitibo marka hartzen du lehen osagaiak; bigarrenean, berriz, soilik, inolako markarik gabe ageri da osagai hori bera (gehienetan izen kategoriakoa izan ohi dena). Adierari dagokionez, lekua edo denbora adierazten dute adberbio sintagma hauek “behin eta berriroko gertaeren nondik norakoa adierazten dute sarri. [...]. Errepikatze-lan hori banakakoa, ‘aldian bat’ekoa izan ohi da” (*Hitz-Elkarketa/4*: 48). Emankortasunari dagokionez, erraz sortzen dira egiturako horietako bikoiztapenak: *bulegoz bulego*, *euskaltegiz euskaltegi* edo *belodromorik belodromo*. Badira, bestalde, ihartu, eta lokailu bihurturiko batzuk ere horrelako egitura dutenak: *batik bat*, *behinik behin*... Bereiz idazten dira mota honetako bikoiztapenak:

aurrez aurre, bidez bide, erdiz erdi, eskuz esku, etxez etxe, gainez gain, gizaldiz gizaldi, herriz herri, hitzez hitz, hurrenez hurren (diskurtso markatzaile bihurtua), kalez kale, larrez larre, mailaz maila, mendez mende, mendiz mendi, orpoz orpo, parez pare, pausoz pauso, puntuz puntu

adarrik adar, batik bat (lokailu bihurtua), bazterrik bazter, behinik behin (lokailu bihurtua), belaunik belau, erromeriarik erromeria, festarik festa, kalerik kale, sasi-rik sasi

alderen alde, bururen buru, menderen mende, puntaren punta

Bestelakoak: goizean goiz, bisean bis; doian doika; oraindik orain<sup>5</sup>

- b) Atzizkiren bat duen osagaia bi aldiz errepikaturik duten egiturak. Atzizki hori izan daiteke eratorpen atzizkia (*apurka-apurka*, *aldiro-aldiro*) edo postposizio atzizkia (*aldian-aldian*). “Antzutu samarrrik dago euskal sorbide hau” irakur dezakegu *Hitz-Elkarketa/4* lanean, baina hala ere azpima-

---

<sup>5</sup> *Hitz-Elkarketa/1* liburuak ‘amredita nahasi’ deitzen die beste hauei (eta, beraz, bikoiztapenetan sartzen ditu): *onez onean*, *pozaren pozez*, *egunetik egunera*. Lexema bera da bi osagaietakoa —hemen legoke bikoiztapenetan sartzeko arrazoia—, baina osagai bakoitzak hartzen du postposizio atzizkiren bat. Are zailagoa da horrelako egiturak hitz elkartuzat hartzea.

rratzen da badirela aski bizirik dauden sorbideak, hala nola, *zikloka-zikloka*, edo *fasean-fasean* modukoak. Denbora eta neurria dira, oro har, bikoiztapen mota honen bidez aditzera ematen ditugunak; eta marraz elkaturik ematen ditugu bi osagaiak.

apurka-apurka, arrastaka-arrastaka, banaka-banaka, bazterka-bazterka, tarteka-tarteka, txandaka-txandaka; launaka-launaka

aldian-aldian, arian-arian, egunean-egunean, ekinean-ekinean, ezarian-ezarian, lekuan-lekuan, onean-onean, unean-unean; banan-banan

aldiro-aldiro, egunero-egunero, jaiero-jaiero

- c) Indargarriak. Morfologiaren ikuspegitik egitura bat baino gehiago aurkituko dugu ondoko adibideetan, baina esanahiak ematen die bateratasuna guztiei. Izan ere, *Hitz-Elkarketa/4* liburuan esaten den bezala, horrelako bikoiztapenek “oinarri-hitzaren esanahia indartu [egiten dute], inoiz superlatibo mailaraino”. Batzuetan adjektibo kategoriako osagaia da errepikatzen dena, baina hortik ez da beste esanahi bat duen adjektiboa sortzen (adjektibo elkartuetan ikusi dugun moduan); indarra emateko modua baino ez da (§ 14.10.3c). Errepikatze-estrategia hau adberbioekin ere egiten dugu, ondoko adibideetan ikus dezakegun bezala; direla predikatu sintagma osatzen dutenak (*adi-adi egon*), direla eratorpen atzizkien bidez sortuak (*poliki-poliki*, *astiro-astiro*); beste batzuetan, *egin* aditzarekin osatzen ditugun aditz lokuzioetako lehen osagai gisa ageri dira (*asper-asper egin*). Zenbaitzaile eta graduatzaileak ere errepika ditzakegu (*guzti-guztiak*) eta, gaur emankortasunik gabeak izan arren, izenordainak ere aurki ditzakegu errepikatuak (*bere-bere(a)*). Beste batzuetan bigarren osagaiak postposizio atzizkia hartzen du, a) azpiatalean ikusi dugun strategiaren aurkakoa, beraz; bikoiztapen egitura adberbio sintagma da, jakina: *azken-azkeneraino*, *bihotz-bihotzez*, *barru-barrutik*, *gain-gainera*... Askiz emankorrak dira bikoiztapen indargarriak, hauetako batzuk behintzat (bereziki izenondo eta adberbio errepikatzeak). Marratxo elkaturik ematen ditugu, oro har, bi osagaiak.

“Zailtasunak zailtasun, bidezkoa dirudi oro har indargarrien semantikazko giltzarria intentsitatean, eta amreditena behin eta berriro-tasunean dagoela esatea” (*Hitz-Elkarketa/1*: 142). Eta, ondorioz, esanahi bat ala bestea gailendu, horrela sailkatu daitezke elkartu moduok [sasi-amreditak]:

adi-adi (egon), erne-erne (gidatu), erraz-erraz (asmatu), harro-harro (agertu), justu-justu (iritsi), labur-labur (azaldu), lasai-lasai (itxaron), oker-oker (egin), ozta-ozta (entzun), samur-samur (esan), ziur-ziur (jakin), zoro-zoro (egon)

alfer-alferrik, apal-apalik, aurren-aurrenik, bakar-bakarrik, bete-beterik, bizi-bizirik, gazte-gazterik, geldi-geldirik, goiz-goizik, huts-hutsik, ilun-ilunik, isil-isilik, lehen-lehenik, oso-osorik, poz-pozik, soil-soilik, zabal-zabalik, zuzen-zuzenik

argi-argi(a), arin-arin(a), berde-berde(a), berdin-berdin(a), berezi-berezi(a), bero-bero(a), berri-berri(a), eder-ederr(a), fin-fin(a), garbi-garbi(a), gordin-gordin(a), gorri-gorri(a), ilun-ilun(a), lodi-lodi(a), lehor-lehor(a), luze-luze(a), maite-maite(a), on-on(a), txiki-txiki(a), zabal-zabal(a), zuzen-zuzen(a)

ageri-agerian, albo-alboan, aurre-aurrean, azpi-azpian, barren-barrenean, bene-benetan, erdi-erdian, hotz-hotzean, mendi-mendian, ondo-ondoan, pare-parean, sakon-sakonean, zuzen-zuzenean; bat-batean; hamabi-hamabietan; barru-barrutik, bihotz-bihotzetik, hasiera-hasieratik, txiki-txikitatik; zin-zinez, behar-beharrezko, oinarri-oinarrizko; alde-aldera, gain-gainera, azken-azkeneraino, ondo-ondoraino

ederki-ederki, emeki-emeki, poliki-poliki; ederto-ederto, polito-polito; astiro-astiro, emaro-emaro

asper-asper egin, astin-astin egin, neka-neka egin, txiki-txiki egin, zuri-zuri egin; dabilen-dabilen, dagoen-dagoen(ean)<sup>6</sup>

den-den(ak), gehien-gehien(ak), guzti-guzti(ak); bi-biak, arras-arras, oso-oso(a); bere-bere(a), geure-geure(a)

---

<sup>6</sup> Azken bi hauek aditz jokatuaren errepikapena dute oinarri.

## 9.10. Galde hitzaren gain osatutako morfema konplexuak

Euskarak baditu morfema konplexuak galde hitz batez eta beste elementu batez osatuak; beste elementu hori *edo*, *nahi* edo *bait*- izan daiteke. Hau da, honako morfema konplexuez ari gara: *norbait*, *nornahi*, *edonor*; *zernahi*, *zerbait*, *edozer*; *edozein*; *nonahi*, *nonbait*, *edonon*, *noranahi*, *norabait*, *edonora*... Galde hitza nolako, zein kategoriatako, morfema konplexua ere kategoria berekoa izango da; izenordainak dira *norbait*, *nornahi*, *edonor*, *zernahi*, *zerbait*, *edozer* (§ 13.10); determinatzaileak dira *edozein*, *zein-nahi* (§ 17.2); adberbioak dira, ostera, *non-nahi*, *nonbait*, *edonon*, *noranahi*, *norabait*, *edonora*, *non-nahitik* / *nondik-nahi* eta abar. (§ 22.3.3.2). Nekez esan daiteke, hala ere, hitz elkarketaren emaitza direnik aipatu berri ditugun egiturek. Egia da morfema konplexuak direla, hau da, osagai bat baino gehiago dutela; eta egia da, halaber, hitz elkarketan gertatzen den bezala, osagai batek ematen diola kategoria egitura osoari. Baina, batetik, galde hitzak ez dira izaten hitz elkarketako osagai; kategoria lexikoak bai (izenak, adjektiboak, aditzoinak...), baina ez galde hitzak edo izenordainak. Bestetik, are zailagoa da beste osagaiaren kategoria zein den zehaztea: *edo* lokailua dela esango genuke? *Bait* partikula? Eta *nahi*? Zein kategoria emango genioke hor ageri den *nahi* horri? Izena dela esaten badugu, egitura osoak izen kategoria behar luke (ikus “osagarri-buru egiturako izen elkartuak” § 7.2.4). Badirudi beste osagai horrek balio indefinitua, zehaztugabea ematen diola morfema osoari, dela izenordain, determinatzaile edo adberbio; hori dela eginkizun nagusia. Hirugarrenik, zenbatzaileak ematen badio kategoria morfema osoari, bigarren osagai izan behar luke, buru alegia. Beraz, ez gaude hitz elkarketaren eremuan.

3. partea

**PERPAUS BAKUNA**

---



## 10. Perpausak zer diren

---

10.1. Sintagma nagusia eta perpausa

10.2. Perpaus (beregain) motak

10.3. Perpaus *tipoak*, indar ilokutiboa eta modalitatea; 10.3.1. Perpaus *tipoak*; 10.3.2. Adierazpenezko, galdezko, agintezko eta harridurazko perpausak; 10.3.2.1. Adierazpen perpausak; 10.3.2.2. Galde perpausak; 10.3.2.3. Aginte perpausak; 10.3.2.4. Harridura perpausak; 10.3.2.5. Baiezko eta ezezko perpausak; 10.3.3. Tipo formala eta indar ilokutiboa

10.4. Perpausen modalitatea; 10.4.1. Definizioa eta sailkapena; 10.4.2. Modalitatea adierazteko bideak

---

### 10.1. Sintagma nagusia eta perpausa

**10.1a** Sintagmak, oro har, sintagma nagusiago, goragoko baten osagai ditugu. Bigarren kapituluan (“Sintagmak zer diren”) ikusi denez, sintagmak bata bestearen barruan sarturik gertatzen dira sintaxi egiturari dagokionez. Perpausa da betiere goiko sintagma, eta horrek markatzen ditu mugak, perpausak baitira predikazio-unitate txikienak. Perpausak aditza behar duenez, aditz hori jokatua nahiz jokatugabea izan daiteke. Jokatugabea denean (*etortze*) beti egongo da sintagma zabalago batean bildua: [X-i [<sub>p</sub> X etortzeko] esan diogu]. Jokatua denean ere, hala izango da aditzak menderagailu bat daramanean (*dela*): [ X-k [[<sub>p</sub> X etorriko da] ela] esan du].

Guztien buru, nolana ere, egitura beregain bat osatzen da, nagusiagorik edo goragokorik ez duen sintagma bat. Egitura horren muin eta ardatza aditz jokatu bat da, bere horretan, menderagailurik gabe. Egitura osatuz, aditz (sintagma) horrek eskatzen/hartzen dituen zenbait sintagma agertuko dira (agerian nahiz isildurik): gutxienez, subjektu den izen sintagma; aditz predikatuaren arabera, objektu zuzena edota hura eta zehar-objektua, eta, hala badagokio, postposizio sintagmazko beste *argumentu* batzuk edo bestelako izaera eta osaerako batzuk, hala nola atributua nahiz predikatu-osagarria. Aditzak berez eskatzen ez dituen osagai batzuk ere ager daitezke, *adjuntu* deritzenak, egitura nagusi hori hedatuz: *zirkunstantzialez* gainera, baldintzazkoak, kontzesiozkoak, ondoriozkoak. (Ikus § 2.11, § 23.3.1).

Egitura nagusi hori perpaua beregaina da: aditz jokatu baten inguruan antolaturiko unitate osoa, enuntziatu gisa erabil daitekeena. Egitura sintaktiko oso eta beregain hori (perpaua den abstrakzioa osatzera eta gauzatzera datorren material foniko, morfologiko, lexiko eta semantikoa hartan integraturik) bere horretan erabil daiteke diskurtsoko unitate gisa, hots, esaldi gisa. Diskurtsua, hala, esaldi-sekuentziaz osatua da, kasuan kasuko testua osatzeraino.

Hala ere, esaldi guztiak ez dira perpausez osatuak, hots, aditza dutenak: *egun on; ados; alajaina; ongi etorri...* Halako esaldi adizki-ardatz gabeentzat erabiltzen den termino tekniko *frase* da (hitz horrek, jakina, bestelako adiera izan dezake erabilera arruntean).

Bestelako kasua da, aurreko paragrafoan aipatu dugun moduan, dagokiokeen adizkia —zehatz nahiz lausoa— isildurik etortzea perpausean: hori da, besteak beste eta bereziki, harridura perpaua askoren kasua (*Ederra [da] ateraldia! Nolako nekea [dudan [harritzekoa da]]!*). Harridura perpauak, izan ere, emozio bizien adierazle berezi dira, eta badirudi emozio hori gaindu egiten zaiola askotan perpaua oso-oso erabiltzeari; horrekin lortzen den laburtasuna egoki ezkontzen da, bidenabar, emozioen *kolpeko* adierazpenarekin, interjekzioetan nabari den moduan; alegia, ahalik eta hitz gutxien eskatzen dituela hor hizkuntza-ekonomiak: *Alajaina! Hamaika holako! Ederra (gero)!*



**10.1b** Perpaus beregainak, hura definitzeko erabili dugun izaera sintaktiko horrekin batera (eta harekin loturik), baditu bestelako ezaugarri batzuk beste-lako egituretatik bereizten dutenak.

- a) Intonazioaren aldetik, *tonema* berezi batez adierazten da perpaus beregainaren amaiera: adierazpenen kasuan, tonuak, gora egin ondoren, behearena egiten du azken silaban (*kadentzia* deritzo tonema horri). Puntuazioak ere horren arabera nabarmentzen du muga hori, oro har koma (*semikadentziari* dagokiona) baino goragoko markaz (puntu nahiz puntu eta koma edo bi puntu).
- b) Esanahiaren aldetik ere, nolabaiteko *osotasun* bat —edota *askitasun* edo *asetasun* bat— du perpaus beregainak, esan bezala, enuntziatu-unitate izateko gaitzen duena. Ezaugarri hori aipatu izan dute bereziki gramatika tradizionalak beren definizioetan.

Perpaus beregaina da, hala (esaldi aditz gabearrekin batera), aldi berean intonazio-, sintaxi- eta esanahi-unitate nagusia.

Garrantzizkoa da hor “beregain” adjektiboa, eta aipatua dugu zerk egiten duen perpausa beregain: *menderagailurik* ez eramateak. Euskaraz, nabarmena da kontua, adizkiak eraman behar baitu erantsia menderagailua: *bait-*, *-la*, *-lako*, *-n...*

**10.1c** Menderagailuz markatuak diren perpausak ez dira beregainak, *menderatuak* baizik, hots, perpaus zabalago baten osagaietariko bat, berarekin doan menderagailurik gabeko perpausaren *mendekoa* (§ 28.3, § 29.1). Alde horretatik, bada, mendeko perpausez osaturiko sintagmak perpausezkoak ez diren sintagmen kideko dira funtzioz (perpaus baten osagai), eta ez perpaus beregainen kideko. Hori perpauson *funtzioari* dagokio. Formaz, berriz, menderagailua eramateak bereizten ditu. Mendeko perpausen sail guztia hartzen badugu, bada beste bereizgarri bat beregainekiko: perpaus beregainak, aipatu bezala (§ 10.1a), aditz jokatzekoak dira ezinbestean; mendekoak, berriz, jokatu-gabeak ere izan daitezke (aditz jokatu bat agertuko da, jakina, egituran gorago: mendekoaren nagusi beregainarena).

**10.1d** Perpaus beregainen eta perpaus menderatuen arteko alde guztiz funtsezkoak ikusi ondoren, prestatu gaude adjektiboak kenduta definitzeko zer

den perpaus bat edonolakoa: aditz baten inguruan antolaturiko sintaxi-unitatea. Aditzak menderagailurik ez badarama, bere horretan izan daiteke perpau-sa (beregaina, ez-menderatua) enuntziatu-unitate bat. Menderagailua badarama, halako perpau-sa (menderatua, ez-beregaina) perpau-s nagusi(ago) baten osagaietariko bat baino ez da. Mendeko perpau-s jokatuen forma perpau-s beregain bati menderagailua erantsiz lortzen da: *Urrea aurkitu dute* → *urrea aurkitu duten/dutela*. Perpau-s menderatuak (jokatuak eta jokatugabeak) zein bere atalean aztertuko ditugu (ikus 29. kapitulua eta ondokoak).

## 10.2. Perpau-s (beregain) motak


**10.2a** Gramatika tradizioaletan, perpau-s bakar batez eta perpau-s bat baino gehiagoz osaturiko egiturak bereizi ohi dira, eta egoki dirudi, baina bigarren sailaren barnean ere komeni da bi egitura mota bereiztea, juntadura/menderakuntza prozeduren arabera (§ 28.3). Horregatik, honako sailkapena dakargu:

- perpau-s (beregain) bakarra  
perpau-s *bakuna*
- perpau-s (beregain) bat baino gehiago  
perpau-s (beregain) *konplexua*  
[menderakuntzaz: perpau-s *nagusia* + perpau-s *menderatua(k)*  
  
perpau-s (beregain) *konposatua*  
[juntaduraz: perpau-s *beregaina*<sub>1</sub> + perpau-s *beregaina*<sub>2</sub> (+ perpau-s *beregaina*<sub>3...</sub>)]


Perpau-s beregainen artean, bada, bereiz daitezke perpau-s (ez-menderatu) bakar batez osatuak (perpau-s bakunak):




**10.2b** eta perpaus bat baino gehiagoz osatuak. Perpaus menderatu gabe batek eta haren mendeko perpaus guztira osatzen duten perpaus beregainari perpaus konplexu deritzo:



**10.2c** Elkartzen direnak perpaus menderatu gabeak badira, perpaus juntatu horiek perpaus konposatu bat osatzen dutela esaten da. Juntaturak (ikus § 28.1) bi aukera ditu: aurrekoari juntatzen zaion perpausak juntagailu bat eramatea hasieran (koordinazioa):



edo zuzenean lotzea perpausak, juntagailurik gabe (alborakuntza):




**10.2d** Perpaus konposatuaren barnean, perpaus konplexuak ager daitezke; perpaus konplexuaren barnean, perpaus konposatuak (bigarren kasu horretan,




juntatzen direnak ez dira perpaus beregainak, menderatuak baizik). Guztira, honelako konbinazioak ditugu:

- bakuna *Etxea erre da.*
- konplexua *Suhiltzaileak berehala iritsi arren, etxe guztia erre da, zurezkoa baitzen.*
- konposatua (+juntagailu: koordinazioa)  
*Suhiltzaileak berandu/berehala iritsi dira, eta/baina etxe guztia erre da.*
- konposatua (-juntagailu: alborakuntza)  
*Etxe guztia erre da;/: zurezkoa zen.*
- konposatu-konplexua *Suhiltzaileak berandu iritsi dira, eta etxe guztia erre da, zurezkoa baitzen.*  
*Suhiltzaileak berehala iritsi arren, etxe guztia erre da;/: zurezkoa zen.*

[<sub>P\_konposatu-konplexua</sub> [<sub>P\_konposatu</sub> [<sub>P\_bakun</sub> *Suhiltzaileak berandu iritsi dira,*] [<sub>Junt</sub> *eta*] [<sub>P\_konplexu</sub> [<sub>P</sub> *etxe guztia erre da,*] [<sub>bait-P\_menderatu</sub> *zurezkoa baitzen*]]]]



$[_{P\_konposatu-komplexua} [_{P\_konposatu} [_{P\_komplexu} [_{arrenP\_menderatu} \textit{Suhiltzaileak berehala iritsi arren,}] [_{P} \textit{etxe guztia erre da;/:}] [_{P\_bakun} \textit{zurezkoa zen}]]]]]$



Perpaus beregainez ari garela, aipatu dugu jada, zeharka bada ere (intonazioa hizpide § 10.1b), ez direla denak adierazpenezkoak. Badira, izan ere, bestelako perpaus beregain (enuntziatu-unitate) batzuk, desberdintasun nabarmenak

dituztenak adierazpenezkoekiko, aipatu ditugun maila guztietan: esanahiz, syntaxiz eta intonazioz.

### 10.3. Perpaus *tipoak*, indar ilokutiboa eta modalitatea<sup>1</sup>

#### 10.3.1. Perpaus *tipoak*

**10.3.1a** Konbentzionalki, adierazpenezko perpaus (beregain) baiezkoak hartzen dira gramatiketan azalpenen oinarri edo abiapuntutzat. Hala, alde batera uzten dira askotan forma (itxuraz) *kanoniko* horretatik aldentzen diren beste perpaus molde funtsezko batzuk, esan bezala zeinek bere izaera berezia dutenak. Alde batetik, bai/ez polaritatearen kontua dugu, edonolako perpausetan ageri dena. Hemen azaldu nahi dugun sailkapena, berriz, perpaus *tipoari* dagokio.

**10.3.1b** Esan dugun gisan, adierazpen perpausak aipatu ohi dira guztien oinarri gisa gramatiketan, baina badira beste perpaus tipo batzuk, denek ere beren leku ez nolana hikoak dutenak hizkuntzan, eta esanahiz eta formaz bereizten direnak adierazpenezkoetatik. Aurreraxeago ikusiko dugunez, baiezkoa ez ezik, ezezko aukera ere badu tipo bakoitzak. Hona hemen bereiziko ditugun tipoak:

Adierazpenezkoak	<i>dena irakurri duzu</i>
Galdera itxizkoak (bai/ez)	<i>irakurri (al) duzu dena?</i>
Galdera irekizkoak	<i>zer irakurri duzu?</i>
Harridurazkoak	<i>irakurri duzu (-eta) dena!</i>
Agintezkoak	<i>irakur(ri) (ezazu[beza-dezala, dezagun]) dena</i>
(Desirazkoak	<i>irakur dezazula dena / irakurriko ahal duzu dena)</i>

---

<sup>1</sup> Terminologia ez dago inola ere bateratua pragmatikari dagozkion honelako kontuetan. Izenburuko termino horien ordez, badabilta, adibidez, beste honelatsuko batzuk: *enuntziatzenaren modalitatea, solas-ekintzak, enuntziatuaren modalitatea*. Modu batera edo bestera, kontua da bereiztea: a) enuntziatuaren forma hutsa; b) ematen zaion zinezko esanahia, eta horrekin zer lortu nahi den.

### 10.3.2. Adierazpenezko, galdezko, agintezko eta harridurazko perpausak

Adierazpen perpausak informazio bat emateko baliatu ohi dira: *Mendian ibili gara gaur*. Galde perpausak, berriz, informazio bat eskatzeko: *Busti (al) zarete?* Aginte perpausak agindu, eske, otoi edo gisakoren bat adierazteko baliatu ohi dira: *Esadazu egia(, mesedez)*. Harridura perpausak nola edo halako ustekabea, miresmena, harridura adierazteko erabili ohi dira: *Hau bai (dela) ederra!*

#### 10.3.2.1. Adierazpen perpausak

Esan bezala, halakoak jo ditzakegu tipoz markatu gabetzat, eta aldaeratzat gainerakoak. Bestelakorik adierazten ez den bitartean, bada, halako perpausaz ari gara eskuarki: *Banoa; Itzuli zara azkenean; Bihar ekarriko dizut liburua; Irakasleari eskatu dizkio Anek argibideak*.

#### 10.3.2.2. Galde perpausak

Galde perpausen artean hiru sail bereiziko ditugu:

##### 10.3.2.2a Bai/ez galderak

*Bai/ez* galde itxizko perpausak baiezko erantzuna edo ezezkoa eskatzen dute, eta ez besterik: *Busti zarete?* (erantzun posibleak: *bai/ez*).

Adibide horretan bezala, perpaus lokabe hauek inolako marka sintaktikorik gabe egin daitezke.

Galderak solasean intonazioari esker bereiz daitezke. Idazketan, berriz, galdera marka erabiltzen dugu. Hala ere, *bai/ez* galdera hauek sintaktikoki ere seinala daitezke hizkera batzuetan, eta estandarrean ere berdin, dela *-a* galdera

marka erantsiz adizkiari (Iparraldean): *Busti zaretea?*, dela *al* partikula erabiliz (gipuzkeraz<sup>2</sup>): *Busti al zarete?*

### 10.3.2.2b Aukera galderak

Aukera galderetan, aukera bat baino gehiagoren artetik bat zehaztu behar du erantzunak (juntagailu hautakaria baliatuz): *Ardoa hartuko duzue, ala/edo sagardoa?*; *Bizkaian, Gipuzkoan edo/ala beste herrialde batean bizi zara?*

### 10.3.2.2c Zati galderak (irekiak)

Zati galderetan, galde hitz edo galde sintagma bat erabiliz zehazten da zer informazio eskatzen den: *zer, nor, nork, zein, non, noiz, nola, zenbat, zer ordutan, zein ardo, nolako lagunak, zenbat herritatik...*: *Zer hartuko duzu?*; *Zein ardo da onena?*; *Zenbat herritatik bidali dizkigute eskutitzak?*

Lehen galderari, *ardoa, jateko zerbait, dirua...* erantzun dakiok, baina ezin erantzun *atzo* edo *zurekin* edo *bai*. Halako galderetan, galde hitza aski da galdera dela seinatzeko, eta ez da, beraz, beste marka sintaktikorik erabiltzen horretarako.

### 10.3.2.3. Aginte perpausak

**10.3.2.3a** Aditzaren formak berak seinatzaten du (adizkiaren *modu gramatikalak*) aginte perpausa<sup>3</sup>: *Joan zaitez hemendik.*

---

<sup>2</sup> Alegia, halako esaldiak erabiliz, solas-ekintza horrekin, zer bilatzen den solaskideen arteko interakzioan.

<sup>3</sup> Bazen antzina, arruntarekin batera, *geroaldiko agintera* deritzona, bai analitikoa eta bai sintetikoa, *-ke-* morfema gehituz eratua: *ezer egiterakoan, esan e[ɡ]ikezu zeure artean* (vs *esan e[ɡ]izu orain*); *negar egikezu egunen batean*. Ez dago garbi ahalerarekiko lotura (*zaitz-ke*), baina bada halako zantzurik adizki sintetikoetan; adibidez, (*ba*)*zoazke* hor dabil



Aditz intrantsitiboen adizki sintetikoek forma bera dute indikatiboan eta aginteran. Aditza perpausaren hasieran jartzeko joerak laguntzen du (intonazioarekin batera) aginte perpausa bereizten adierazpen perpausetik: *Zoaz hemendik* (aginte); *Hemendik zoaz* (adierazpen).

Aginte perpaus peto-petoak, arrazoi semantiko-pragmatiko nabarmenak tartean, bigarren pertsona gramatikalari dagozkio. Horregatik eta beste arrazoi batzuegatik (denbora-aspektu arazorik ez, ekonomia...), guztiz arrunta da aditz lexikoa bakarrik erabiltzea, adizkia isildurik. Halakoetan ere, bestelakoetan bezala, ez dugu berdina erabilera Iparraldean eta Hegoaldean: *Sar* (zaitetz) *zu orain* (Ipar.: aditz erroa); *Sartu* (zaitetz) *zu orain* (Hego.: partizipioa).

**10.3.2.3b** Aginteraren kasuan kasuko indar ilokutiboa —agindu hutsa, eskaera, gonbita, mehatxua...— zehazten laguntzeko, hitzen bat erants daiteke perpausaren indar ilokutiboa modulatu; hala nola *mesedez*, *bestela*, *gero*. Adibide hauetan ikus daiteke: *Eser(i)* (zaitetz) *hemen*, *mesedez* (eskaera); *Alde* (egizu) *hemendik*; *bestela*... (mehatxua); *Ez* (ezazue) *ahantz(i)*, *gero!* (abisua).

Bigarren pertsonatik kanpo, beste forma bat hartzen dute, eta beste esanahi berezi bat, aginte perpaustzat jo daitezkeen beste honelako hauek: *Abia nadin/gaitezen garaiz* (1. pertsona; subjuntibozko perpaus beregaina); *Aitor dezadan egia*; *Ager bedil/bitez lehenbailehen* (3. pertsona; aginterazko adizki bereziak)<sup>4</sup>; *Betoz/bihoaz* (= *etor bitez*) *lehenbailehen*; *Hala biz* (= *izan bedi*); *Bekar(te)* (= *ekar beza(te)*).

**10.3.2.3c** Hirugarren pertsonakoek badute aldaera bat, subjuntiboari *-la* atzizkia erantsiz<sup>5</sup>: *Ager dadila/daitezela lehenbailehen*.

---

esanahiz ustearen (*zoaz nonbait*), geroaldiaren (*joango zara*) eta ahaleratik gertuko zerbaiten artean (*joan zaitetzke*).

<sup>4</sup> Aginterazko adizki sintetikoek badute, guztiek ere, besteek ez bezalako debeku bat, ez baitute onartzen forma sintetikoan berean ezeztapena: #*ez zoaz*, \**ez betoz/bekarte*; #*ez gauden*; #*ez daramatela*. Analitikoetara jo behar: *ez zaitetz joan*; *ez bitez etor*; *ez bezate ekar*; *ez gaitezen egon*; *ez dezatela eraman*.

<sup>5</sup> Adizki sintetikoek berez dute, indikatibozkoaz gainera, subjuntibozko balioa ere, forma beren: *Datorrela oraintxe*; *Dabilela erne*; *Gauden isilik*; *Daramala deabruak*; *Dagigun otoitz*;

Hirugarren pertsonari agindu bat ematea ezinezkoa da, izatez, zeharka ez bada. Horregatik, desira-edo baten esanahia hartzen dute halako perpausak. Hain zuzen ere, esanahi horretaz janzten dira forma horretakoak beste bi pertsona gramatikaletan ere: *Gogora gaitzazu(e)la!*; *Gogora nadila/dezadala, otoi!*; *Gogora zaitzela/zaitzatela, arren!*

Halako formak dira aukera bakarra hirugarren pertsonan bestelako morfemak tartean daudenean: *\*Gogora naza-gaitza/zaitza(te)*; *Gogora naza-gaitza/zaitza(te)la*.

Guztira, beraz, sail berezi bat osatzen dute halako [subjuntibo + *-la*] perpaus beregainek, besteetatik bereiz daitekeen tipo bat, formaz ez ezik semantikaz ere: desira-edo adierazten dutenez, *desirazko* (edo *desideratibo*) izena emango diegu.

**10.3.2.3d** Izan da antzina euskaraz sistema konplexuago bat eremu semantiko horretakoak adierazteko, baina arkaismo gisa baino ez zaizkigu heldu *ai-* eta *albait-* aurrizkiz eraturikoak: *Aineza gal bizia gau batez* (Mirande); *Ainu neure / gal beldur naizen hori* (Juan Garzia); *Gehiago / albaitzazu preza* (Etxeberri Ziburukoa); *Otsoa lagun duanean, albaihu hora saihetsean* (Oihenart).

Oraingo euskara arruntean, bestelakoak erabili ohi ditugu: *Nahi nuke galduko banu*; *Nahi nuke, ai, (izango) banu neure(a)*; *Prezatuko ahal duzu*; *Ai alboan (izango) bazenu*.

#### 10.3.2.4. Harridura perpausak

**10.3.2.4a** Harridura perpausetan, zerbait gehiago eransten dio hitzunik adierazpen bati, adierazten duenak sortzen dion emozioa markatzen baitu. Ez da beti erraza bereizten perpaus bat harridurazko denetz, esateko moduak erakusten baitigu (prosodiak/puntuazioak) hala dela. Maizkara, hala ere, egitura bereziak ere erabiltzen ditugu horrelako kasuetan. Honako hauek ditugu aipagarrienak:

---

*Ongi etorri zarela*; *Zarela zintzo*; *Laudatu dela*; *Duzula kuraia*. Inoiz, laguntzailearen lekuan ere erabili izan da: *Dugun maita/lauda/ikus/edan*.

- a) Hitz ordena aldatu edo predikazioa aditzik gabe utzi: *Hau gizon zikoitza da* (adierazpen perpausa); *Hau da gizon zikoitza* (harridura perpausa); *Gizon zikoitza!*; *Harrigarria, honek esaten duena!*; *Polita, zure lana!*
- b) Zenbait markatzaile erabili (erakusleak, *bai*, galde hitzez eraturiko graduatzaile enfatikoak...): *Hauxe andrea!*; *Bai ederra!*; *Nolako aukera!*; *Zer/nolako gizona den!*; *Zer/nolako gizon handia den!*; *Zer/nolako handia den!*; *Zer/nolako laster egin duzun!*

Ohartu halakoetan *-n* daramala adizkiak (zehar-galderazko perpaus menderatuei dagokien moduan, haren adizki gobernatzailea —[*harritzen naiz*] edo— isildurik doala), eta artikulua hartzen duela atributu sintagmak<sup>6</sup>: *Zein (gizon) handia zaren!*; *Zein ederki egina den!*

Kasu honetan, aditzondo edo izenondoak erabiltzen dira (\**zein liburua den!* ez legoke ongi). *Zein* soilaren aldaera (harridurazkoetarako) espezializatu gisa, *zeinen* ere erabiltzen da: *Zeinen zozoa den mutil hori!*

*Zenbat* adberbioa ere maiz baliatzen da harridura-enfasirako, bai kopuru-adiera arruntean: *Zenbat gezur esan dituen horrek!*; *Zenbat aldiz esan diodan!*; *Eta (hara) zenbat diren!* Eta bai *nola*-rekiko sinonimian ere, neurria adieraziz: *Nola/zenbat gustatzen zaidan hori!*

**10.3.2.4b** Badira beste hainbat esapide espezializatu ere: *Alafede!* *Alajainkoa!*; *Ala dohatsua (bainaiz)!*; *Zer zara zu eskuzabala!*; *Ez dakizue zuek gutxi, gero!*; *Arraio alua!*

### 10.3.2.5. Baiezko eta ezezko perpausak

Aipatu ditugun perpaus tipo guztiak, baiezkoak nahiz ezezkoak izan daitezke. Ezezkoak markatuagoak dira, eta horietatik abiatuko gara.

---

<sup>6</sup> Hizkeraren batean, arruntak dira artikulurik gabeak: *zer/zein polit!*

### Ezezkoak

Adierazpenezkoak	<i>ez duzu irakurri dena</i>
Galdera itxizkoak (bai/ez)	<i>ez (al/ote) duzu irakurri dena?</i>
Galdera irekizkoak	<i>zer ez duzu irakurri?</i>
Harridurazkoak	<i>ez duzu (-eta) irakurri dena! (irakurriko ez zenuen ba(da)!) </i>
Agintezkoak	<i>ez (ezazu [beza-dezala, dezagun]) irakur(ri) dena</i>
(Desirazkoak	<i>ez dezazula irakur dena / ez ahal duzu irakurriko dena)</i>

Ezezko perpaus guztietan *ez* (edo *ezin*) agertzen da: *Autobusa ez dator; Autobusa ez da etorriko; Ez dator; Ez da etorriko; Autobusa ezin da etorri.*

Bistan denez, sintetikoan kasuan, aski da *ez* jartzea adizkiaren aurrean. Analitikoetan, aldiz, ezezko perpaus beregainen kasuan, nahitaezkoa da egungo joseran, horrez gainera, adizki nagusia adizki laguntzailearen atzera aldatzea: *(Ba)dator / Ez dator; Etorriko da / Ez da etorriko.*

Perpaus menderatuen artean, batzuk, askeenak, beregainen eredu berera biltzen dira: *Ez baita etorriko; Ez dela etorriko.*

Beste muturrean daude mendeko perpaus joskeraz zurrunago batzuk: *Etorriko ez den [hori]; \*ez den etorriko [hori].*

Tartean, berriz, bietara berdintsu erabiltzen direnak: *Ez delako(tz) etortzen; Etortzen ez delako(tz).* Edota joera bat nagusi bai, baina bestea debeku ez den perpaus menderatu motak: *Etorri ez (baldin) bada* (kanokikoa, ohikoena); *Ez (baldin) bada etorri* (aukerakoa).

### Baiezkoak

Baiezko perpaus askok, gehienek (analitikoek), ez dute seinale berezirik. Jaki-na, baiezkoak dira, nabarmen, *ba-* aurrizkia daramaten perpausak (adizki sin-

tetikoetan)<sup>7</sup>: *Etorriko da autobusa* (baiezkoa, *ba-* markarik gabe); *Autobusa etorriko da* (baiezkoa, *ba-* markarik gabe); *Badator autobusa*.

### 10.3.3. Tipo formal eta indar ilokutiboa

**10.3.3a** Perpaus tipo bakoitzak sintaxi (eta morfologia) jakin bat ageri du, eta funtzio semantiko jakin batekin loturik dago *prototipikoki*: asertzioa (*Heldu naiz*), informazio-eskea (*Bazoz?*), erreakzio psikologikoa (*Irabazi duzu (eta)!*), agindua (*Ireki (ezazu) atea*), exhortazioa (*Ez dezagula (behintzat) etsi*). Tipoen izenak hori islatzen du, baina gauzak ez dira hain sinpleak sintaxi eta semantika hutsetik erabilerara gatozenez, askotarikoak baitira perpaus tipo bakoitzak pragmatikoki har ditzakeen esanahiak (eta, alderantzizko ikuspegitik gauza bera, esanahi bakoitza bideratzeko aukeratu daitezkeen perpaus tipoak).

Jardunean darabilgun esaldi jakin baten esanahi-asmoak ez du zertan bat etorri horretarako aukeratu dugun perpaus tipoa erabiliz *defektuz* lotzen dugunarekin (hots, haren funtzio semantiko prototipikoarekin). Esate baterako, pragmatikoki, sinonimo izan daitezke esaldi hauek, eskaera-esanahiz: *Idatziezadazu pasahitza, mesedez* (tipoz agintezkoa); *Idatziko (al) didazu pasahitza, mesedez?* (tipoz galdera itxizkoa).

Alderantziz ere berdin, agindu-esanahiz: *Geldi(tu) (zaitetz) hemen, beraz, nik esan arte* (tipoz agintezkoa); *Ea isiltzen zaren!* (tipoz harridurazkoa).

Eta antzeko kasu asko. Besteak beste, galderazkoetan oinarritzen dira harridurazko asko: *Nola esan dezakezu halakorik?!*; *Nori bururatzen zaio hori?!*; *Zertarako ahalegindu?!*

Komunikazio-egoerari edo markoari zor zaio halako *zeharkako* interpretazio kasuan kasukoari. Erabakigarria da, bereziki, zein den abiatua den *solas-ekintza* (gizarte-konbentzioz arautua). Solas-ekintzak, bestalde, testuinguruak eta

---

<sup>7</sup> Erne: baldintzazko perpausen menderagailuak forma bera du —(*baldin*) *ba*—, baina besterik da.

konbentzioek gobernaturiko komunikazio-*marko* jakin batean gertatzen dira, hitzunak solaskidearekin inplizituki adostu behar duen *programa* baten baitan, *xede* batek gidaturik.

Pragmatikak hizpide dituen halako programetarik bakoitzean, solas-ekintza bat baino gehiago bil daitezke. Kasurik sinpleenak eta nabarmenenak *pare jarraitu* direlakoak ditugu: galde/erantzun, eskaintza/eskertza, kargu hartze/desenkusate, diosala/ordaina... Esan bezala, programa pragmatiko orokorrak ezarriko du markoa, eta hartan gauzatuko dira kasuan kasuko markoak; marko horien arabera antolatuko dira adierazpide lexiko-morfosintaktiko zehatzak (beren presuposizio eta inplikaturekin), eta horren guztiaren arabera hartuko dute esaldiek zeinek bere indar ilokutibo jakina.

Ugariak dira halakoak, besteak beste, *kortesia* kontzeptu zabalari dagozkionetan (eta, oro har, zuzeneko elkarrizketetan), agindu/eskaeraren gordinetia ez-titu beharrez: *Zera nahi nuen* (< *dut*)...; *Emango didazu/zenidake* (< *emadazu, arren*); *Baduzu modurik laguntzeko?*; *Egon zintezke hemen pixka batean?*

**10.3.3b** Bereizi behar dira, beraz, perpaus tipoa (formari dagokion kontua) eta perpausak testuinguru jakin batean hartzen duen esanahi edo *indar ilokutiboa* (pragmatikari dagokiona). Tipoari izena eman diona adiera ohikoen edo nagusia da, baina, esan bezala, askotariko joko semantiko/pragmatikoak bidera ditzake tipo bakoitzak. Kasuan kasuko *solas-ekintza* gauzatzeko tresna moldakor gisa baliatzen dira enuntziatuak.

## 10.4. Perpausen modalitatea

### 10.4.1. Definizioa eta sailkapena

**10.4.1a** Indar ilokutiboa (hots, esanarekin zer *esan nahi* den) oso loturik dago *modalitate* delakoarekin. Hizkuntzalaritzan, modalitate terminoak zera adierazten du: ea nola markaturik dagoen hitzunak zer jarrera duen enuntziatuak modalizazio hori gabe adierazten duenarekiko (esate baterako, adieraziarri egozten dion ziurtasun-maila).

Pentsatzekoa denez, oso eremu zabala hartzen du horrek, askotariko xehetasun eta ñabardurak izan baititzake hiztunaren ikuspegiak berak, batetik, eta, bestetik, hura markatzeko erak (*modu gramatikal* delakoa ez da era horietariko bat baino: modalitate gramatikalizatua).

**10.4.1b** Guk, hemen, kontu orokor batzuk baino ez ditugu aipatuko. Bada banaketa nagusi bat enuntziatuen artean: *errealak* (*pobre jaio nintzen*) eta *irrealak* (*ai aberats jaio banintz!*). Latinezko terminoak erabiltzen dira bi modalitateok izendatzeko: *realis* eta *irrealis*.

Bestetik, bi modalitate-sail bereizten dira: *epistemikoa* eta *deontikoa*. (Esan daiteke modalitate horiek markatuak direla modalitate markatu gabe edo *neutro* batekiko).

*Modalitate epistemikoaz* ari gara hiztunak adierazpen baten egiari buruz duen ziurtasun mailaren markatzaileei begiratzen diegunean: *Etxean omen dago; Baliteke (hala izatea)*.

*Modalitate deontikoaz* ari gara hiztunak mundua (ingurua) bere egiten duen egokitasun- edo asmo-erreferentzia baten arabera, zertara ekarriko lukeen adierazten duten markatzaileei begiratzen diegunean: *Ospitalean, isildu beharra dago; Ez duzu hilko*.

**10.4.1c** Modalitatearen gorabehera oso loturik dago zirkunstantzia pragmatikoekin (bestelako joko semantikoez gainera). Hori dela eta, ez da aski izaten forma jakin bat agertzea ziur egoteko hura *kasu horretan* modalitate jakin baten adierazle den<sup>8</sup>: *Harria altxa dezake* [= *gai da altxatzeko* (modalizatu gabea)]; *Harria altxa dezake* [= *baliteke altxatzea* (modalitate epistemikoa)].

Inoiz, forma berean adierazirik etor daitezke, ambiguitasun formalez, modalitate deontikoa eta epistemikoa: *Etxean egon behar dute* [= *egotea dagokie*,

---

<sup>8</sup> Izan ere, bereiztekoak direla *modu gramatikala* (indikatio, subjuntio, ahalera eta abar: kontu formala) eta *modalitatea* (kontu pragmatikoa). Antzeko bereizkuntza egin dugu arestian *perpaus tipo* formalaren eta kasuan kasuko haren *indar ilokutiboaren* artean.

*egoteko agindua dute* (deontikoa); *Etxean egon behar dute* [= *daude, ustez* (epistemikoa)].

## 10.4.2. Modalitatea adierazteko bideak

**10.4.2a** Modalitatea adierazteko (aspektua adierazteko bezalatsu), hainbat bide baliatzen ditu hizkuntza bakoitzak, lexikoak, morfosintaktikoak zein prosodikoak. Ziurtasunik eza markatzeko, adibidez: *Badaki, behar-bada/noski/ziurrenik/ustez/diotenez/ezta?* (predikazio estraorazionala); *Ba bide/omen/ote daki* (aditzarekin bateraturiko partikula: ikus § 23.5.3); *Jakingo du honezkero* (denbora-aspektua); *Jakin behar/uste du dagoeneko* (aditz modala; ikus § 23.4)<sup>9</sup>; *Badakike* (adizkiko *-ke* morfema berezia); *Jakin dezake* (ahalera, *-ke* morfema barne); *Baliteke / litekeena da / ez litzateke harrizkeko* (*hark*) *jakitea / jakin dezan* (fraseologia espezializatua, perpaus konplexuz).

**10.4.2b** Molde horietariko batzuk ez daude eksklusiboki espezializaturik adiera (epistemiko) horretan: *Jakingo du / badakike egunen batean* (geroaldia); *Jakin dezake, saiatzen bada* (ahala).

Bestalde, ziurtasunik ezak bere graduak eta taxuak ditu, ez baitira sinonimo honelako bikoteak: *Irabazi(ko) dute, beharbada/ustez; Irabazi(ko) bide/omen dute* (*bide*: nonbait; *omen*: diotenez).

Eta ziurtasunik eza bera ere ziurtasun positiboaren alboan ulertzekoa da. Izan ere, defektuz, aurrekoen moduko prozedura tartean izan ezean, ziurtasuna

---

<sup>9</sup> Modalitatea adierazteko bideetariko bat baino ez dira, bistan da, aditz (lokuzio) modalak: *behar izan, nahi/gura/gogo izan*. Halakoek perifrasiak osatzen dituzte partizipio-perpauekin: *Isilik hurbildu nahi/behar dut haiengana*. Komunztadura-aldaerak: zubereraz arauzkoa (eta beste euskalkietako tradizioan, tarteka, hautazkoa), *hüllantü nahi niz* (*hurbildu nahi naitz*); hizkera batzuetan, hautazkoa, *hurbildu behar naitz*. Euskalki guztietan, *zaio* motako partizipioekin, aukera bakarra da haren komunztadurari eustea: *hurbildu behar/nahi natzaie* (*ni haiei*) vs *hurbildu behar/nahi diet* (*nik haiei zerbait*).



adierazten dute adierazpen perpaus arruntek, nahiz eta oker egon daitekeen dena delakoa ziurtzat jo duena: *Irabazi dute*.

Geroaldia ere berdin ziurtzat jotzen da perpausa erabiltzean, nahiz eta etorkizunak gero iragarpena gezurta dezakeen<sup>10</sup>: *Irabaziko dute*.

Ziurtasun positiboa ere modula daiteke, predikazio estraorazionalerik: *Irabaziko dute, inolako zalantzarik gabe / zalantza handirik gabe / zorte pixka batekin / ondo bidean*.

**10.4.2c** Modalitate deontikoak ere askotariko adierazpideak ditu: *Ikas ezazu* [*ikas beza/dezala, ikas dezagun*] (agintera); *Ikasi behar/nahi dugu/genuke* (aditz modala); *Lagunduko dizut ikasten* (geroaldia promes edo eskaintza gisa); *Ikasiko duzu(, arren)?* (galdera geroaldian [eskaera-adberbioa aukeran]); *Ez (al) duzu ikasiko (behingoan)?* (galdera geroaldian ezezka); *Ez ikastea ere!* (harridurazko esapidea).

---

<sup>10</sup> Izan ere, asertzioaren “egia” *enuntziazioaren subjektuari* dagokio, eta ez proposizioari berari, ustel gerta bailiteke betiere baieztapen ziur horren objektua, ezen ez baieztatzea bera: *Irabazi(ko) du* = [*Nik baieztatzen dut*]<sub>asertzio</sub> : [*irabazi(ko) du*]<sub>proposizio</sub>.



## 11. Gramatika kategoriak

---

- 11.1. Zer diren kategoriak
  - 11.2. Kategoriak sailkatzeko zailtasunak
  - 11.3. Kategoria lexikoak eta funtzionalak. Ohiko sailkapena
  - 11.4. Kategoria lexikoak eta funtzionalak. Sailkapenaren arazoak
  - 11.5. Izenak eta aditzak
  - 11.6. Izenak, adjektiboak eta postposizioak
  - 11.7. Izenordainak
  - 11.8. Aditzak eta adjektiboak
  - 11.9. Adberbioak, adjektiboak eta postposizioak
  - 11.10. *-ka* formak: zenbatzaileak, aditzak, postposizio sintagmak eta adberbioak
- 

### 11.1. Zer diren kategoriak

**11.1a** Gramatika kategoriak hizkuntzetako ale lexikoak sailkatzeko erabiltzen diren klase formalak dira, esate baterako, *izenak*, *aditzak*, *adjektiboak*, *postposizioak* eta abar. Sail horietan sartzen ditugun aleek ezaugarri morfosintaktiko eta, hein batean, semantiko berberak izaten dituzte. Adibidez, *mahai* eta *erle* ale lexikoak izenak direla esaten dugu, biek banaketa morfosintaktiko bertsua dutelako eta biek egiten diotelako erreferentzia munduan edo gure gogoan existitzen den entitate bati. Dena dela, aurrerago ikusiko dugun bezala, sarritan ale lexikoak kategorietan sailkatzeko erabiltzen diren irizpideak ez dira oso argiak; izan ere, kategoria berberei egozten zaizkien aleek ez dituzte

beti ezaugarri berberak izaten, eta alderantziz, kategoria desberdinetako aleek berdintsu jokatzen dute zenbait testuingurutan.

**11.1b** Kategoria kopuruari dagokionez, ez dago hizkuntzalaritzan erabateko adostasunik. Askotarikoak dira kopurua ezartzeko ezintasun horren arrazoiak. Arestian aipatu dugun irizpide garbien urritasunari gaineratzen zaio hizkuntzen arteko aldakortasuna. Izan ere, normalean zerrendatzen diren kategoria guztiak ez daude hizkuntza guztietan. Ezaguna da, esaterako, hizkuntza askotan guretzat hain oinarritzkoa den adjektibo kategoria ez dela existitzen. Adjektiboen ordez, izenak edota aditzak erabiltzen dituzte hizkuntza horietan. Bestetik, hizkuntza batean kategoria bati egozten zaizkion ezaugarriak, beste hizkuntza batzuetan ez dira beti kategoria bereko aleetan aurkitzen. Bestalde, hizkuntza batean oinarritzkoa dirudien kategoria batek, beste batetik eratorria irudi lezake beste hizkuntza batean. Laburbilduz, kategoria gramatikalen zerrenda unibertsal bat egitea lan zaila (edo ezinezkoa) dirudi. Hala eta guztiz ere, gramatika honetan ditugun helburuak betetzeko asmoz, guk hemen oinarritzko hamar kategoria zerrendatuko ditugu, euskararen gramatika kategoriak ulertzeko eta deskribatzeko lagungarri izango zaigulakoan: izena, aditza, adjektiboa, postposizioa, adberbioa, determinatzailea, flexioa, mailakatzailak, menderagailuak eta juntagailuak.

## 11.2. Kategoriak sailkatzeko zailtasunak

**11.2a** Hizkuntzetako ale lexikoak gramatika kategorietan sailkatzeko, irizpide mota batzuk erabiltzen dira. Batetik, aleen formarekin edo testuinguru formalarekin zerikusia duten irizpideak daude, hemen *morfosintaktikoak* deituko ditugunak. Bestetik, hizkuntza unitateen esanahiari lotzen zaizkion irizpideak ere proposatu izan dira —irizpide *semantikoak*, hain zuzen—, nahiz eta gaur egun nahiko argi dagoen azken horietan oinarritzeak arazo handiak sortzen dituela. Has gaitezen, bada, irizpide morfosintaktikoekin.

Irizpide morfosintaktikoek ale lexikoen banaketa morfologikoari eta sintaktikoari egiten diete erreferentzia, hau da, ale horiek aldamenean izaten dituzten hizkiei edota hitzei erreparatzen diete. Pentsatzen da kategoria bereko aleek

modu berean jokatzen dutela ondoan izan ditzaketen hizkiak eta hitzak onartzerakoan. Esate baterako, goian (§ 11.1a) aipatu ditugun *mahai* eta *erle* hitzak *-a* edo *bat* determinatzaileekin ager daitezke (*mahai-a*, *erle-a* eta *mahai bat*, *erle bat*), eta onartzen dute adjektibo batek modifikatzea, adibidez, *handi-k* (*mahai handia*, *erle handia*). Hortaz, esan genezake *mahai* eta *erle* multzo bereko ale lexikoak direla eta ondorioztatu genezake, gainera, determinatzaileen eta adjektiboen ezkerretara agertzea izen kategoriaren ezaugarria dela, euskaraz bederen. Alabaina, norbaitek pentsa lezake izenak ez direla testuinguru horietan ager daitezkeen bakarrak; izan ere, adjektiboak euskaraz determinatzaileekin azaltzen dira: *txiki-a*, *txiki bat*; *gorri-a*, *gorri bat* eta abar. Kasu horietan, baina, isilpeko izen bat dagoela esango genuke, hau da, *txiki bat* diogunean, benetan  $[[_{izen}]]$  *txiki bat* adierazten ari garela, hots, hartzaileak aurreko diskurtsoagatik edo testuinguru komunikatiboagatik nolabait ezagutzen duen izen bati erreferentzia egiten zaiola. Beraz, salbuespena dirudien egoera hori sintaktikoki azaltzeko gai gara eta determinatzaileekin agertzeko irizpidea bere horretan mantentzeko genezake izen kategoria ezaugarritzeko.

**11.2b** Beste batzuetan, aldiz, eragozpenak gaindiezinak dira. Xabier Artiagoitiak *Sareko Euskal Gramatikan* erakutsi zuen adibide batez baliatuko gara horrelako kasu bat azaltzeko. Adjektibo kategoriaren ezaugarri bat da mailakatzailerik (-*ago*, -*egi*, -*en*) agertu ahal izatea: *argalago*, *argalegi*, *argalen*; *estuago*, *estuegi*, *estuen*; *zabalago*, *zabalegi*, *zabalen*; *haserreago*, *haserreegi*, *haserre*; *gaiztoago*, *gaiztoegi*, *gaiztoen*.

Adjektiboen entitateen ezaugarriak zehazten dituzte, eta mailakatzailerik ezaugarri horien maila edo gradua zehazten dute, batzuetan, besteekiko alderaketa eginez. Mailakatzailerik agertzeko gaitasuna adjektiboen kategoria ezaugarritzeko irizpidetzat har dezakegu, beraz. Baina bide horretatik jotzen badugu, bi arazo aurkituko ditugu: a) adjektibo guztiek ez dute mailakatzailerik onartzen, eta b) adjektiboak ez diren ale lexikoak ere bateragarriak dira horrelako modifikatzaileekin. Lehenengo arazoari dagokionez, Xabier Artiagoitiak azaldu du erlaziozkoak diren adjektiboak (adibidez, *laborala*) ezin ager daitezkeela mailakatzailerik (ikus Bosque 1996 gaztelaniarako): *kontratu* ?*laboralagoa*, ?*laboralegia*, ?*laboralena*, ?*oso laborala*. Antza, ezaugarri bat adierazten duten adjektiboak bakarrik ager

daitezke mailakatzaileekin. Hona hemen beste adibide batzuk: *sententzia judiziala*, *judizialagoa*, *judizialegia*, *judizialena*; *zuzenbide penala*, *penalagoa*, *penalegia*, *penalena*; *gerra zibila*, *zibilagoa*, *zibilegia*, *zibilena*; *analisi soziologikoa*, *soziologikoagoa*, *soziologikogea*, *soziologikoena*.

**11.2c** Erlaziozko adjektiboek (edo erreferentzia adjektiboek § 7.2 eta § 14.2.6) ez dituzte ezaugarriak adierazten, ez bada modifikatzen dituzten izenen argumentuak (izenak argumentuak baditu) edo izen horiekin lotura duten entitateak edo eremuak (*gerra zibila* = *biztanleria zibilaren gerra*). Goiko adibideak onargarriak edo ulergarriak izan daitezzen, adjektiboan ohiko esanahia egokitu beharko genuke eta nolabait ulertu *laborala*, *judiziala*, *penala*, *zibila* eta *soziologikoa* ezaugarriak direla eta graduatu daitezkeela. Testuinguru morfosintaktikoaren eraginez egiten dugun esanahi moldaketa horri *koertzioa* esaten zaio hizkuntzalaritzan.

Mailakatzaileekin agertzeko gaitasuna adjektiboen ezaugarritzat hartzeak badu beste eragozpen bat, goian aipatu dugun moduan (§ 11.2b). Adjektiboak ez diren beste ale batzuk ere onargarriak dira modifikatzaileekin. Artiagoitiak moduzko adberbio baten adibideak erakutsi ditu (*egokiro-ago*, *egokiro-egi*, *egokiro-en*). EGLU-I liburukian ere *berandu* (*beranduago*, *beranduegi*, *beranduen*) eta *ederki* (*ederkiago*, *ederkiegi*, *ederkien*) adberbioak aipatzen dira. *Egokiro*, *berandu* eta *ederki* adberbioak dira: aditzak modifikatzen dituzte (eta ez adjektiboak, zeinek izenak modifikatzen dituzten). Hala eta guztiz ere, *egokiro*, *berandu* eta *ederki* bateragarriak dira mailakatzaileekin, eta horrek erakusten du mailakatzaileekin agertzeko ahalmena ez dela adjektiboetara bakarrik mugatzen. Are gehiago, adlatibo postposizio sintagma batzuek ere onartzen dituzte mailakatzaileak, esate baterako, *aurrera*-k eta *gora*-k (*aurrera-ago*, *aurreregi*, *aurreren* eta *gora-ago*, *goregi*, *goren*)<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> *Hara* adlatibo postposizioak ere onartzen du mailakatzaile konparatiboa (*harago*), baina ez superlatiboa (*\*haren*), ezta gehiegizko maila ere (*\*haregi*) (ikus § 20.3). Kontuan izan behar dugu adlatibo postposizio sintagma oro har ez direla onargarriak mailakatzaileekin, eta, beraz, pentsa liteke goian aipatutako *aurrera* eta *gora* ez direla benetan postposizio sintagma, adberbio sintagma baizik.

**11.2d** Irizpide morfosintaktikoak alde batera utzita eta semantikoetara etorrita, onartu samarra dago gaur egun kasu askotan ezin genezakeela ale lexiko bat gramatika kategoriatan sailkatu, ale horren adierari bakarrik begiratu. Adibidez, lehen esan dugu izenek munduan edo gure gogoan existitzen diren entitateei erreferentzia egiten dietela. Baina hori ez da beti horrela izaten. Izan ere, *maitasun*, *adore*, *gorroto*, *suntsiketa*, *dantza*... bezalako izenek ez dituzte entitateak adierazten, ezpada egoerak (*maitasun*, *adore*, *gorroto*), emaitzak (*suntsiketa*) eta prozesuak (*dantza*). Nahiz eta emaitzak eta prozesuak normalean aditzen bidez azaleratzen diren, aipatu ditugun kasuetan izen kategoria dute.

Pentsa genezake, hortaz, irizpide semantikoak ez direla benetan lagungarriak gramatika kategoriak sailkatzeko. Dena dela, bestelako ezaugarri semantiko batzuk erabilgarriagoak gerta daitezke. Bosquek (1996), esaterako, onartzen du izenek ez dituztela beti “substantziak” adierazten. Orobat, adjektiboek ez dituzte beti “ezaugarriak” aditzera ematen, ezta aditzek “egoerak” edo “prozesuak” ere. Azkenik, preposizioak edo juntagailuak ez dira kasu guztietan “erlazioak”. Baina badira adierarekin loturiko beste irizpide batzuk kategorien artean bereizketak egiten lagun diezaguketenak, adibidez, “erreferentzia egiteko gaitasuna” izenen kasuan, “zenbatzeko ahalmena” determinatzaileen kasuan, “argumentuak izatea” aditzen kasuan eta abar. Horrelako esanahi ezaugarriek harreman estua dute hurrengo atalean aipatuko ditugun funtzioekin.

**11.2e** Ale lexikoen gramatika kategoriatan definitzeko, sarritan iradoki den beste ezaugarri bat da aleek perpausetan betetzen duten funtzioa. Funtzioa esaten zaio ale batek perpausoko beste elementu batzuekin harremanetan duen zeregin erlatiboari. Adibidez, *suteak urduritasuna piztu* du adibidean, *sute* izenak subjektu funtzioa dauka eta *urduritasunak* osagarri zuzenarena. Ikus daitekeenez, ez dago harreman zuzenik funtzioaren eta kategoriatan gramatikaren artean, izenak (goian *sute* eta *urduritasun*) izan baitaitezke subjektuak edota osagarri zuzenak. Alabaina, baten batek pentsa lezake izentasuna definitzeko, bi funtzio horiek barnean bilduko lituzkeen funtzio orokorrago bat proposa daitekeela, adibidez, “aditzaren argumentua” izatea. Funtzio zabalago horrekin,

izenek goiko adibidean dituzten funtzioak zehaztuko genituzke, biak —subjektuak eta osagarri zuzenak— baitira aditzaren argumentu (§ 23.3)<sup>2</sup>.

**11.2f** Kasu horretan ere, arazoak izango ditugu; izan ere, izenek funtzio gehiago izan ditzakete. Esate baterako, izenak postposizioen osagarriak izan daitezke (*sutean, sutera, sutetik; urduritasunean, urduritasunera, urduritasunetik...*). Postposizioen eta aditzen arteko antzekotasunak asko azertu dira hizkuntzalaritzan. Postposizioek bi entitateren arteko harremana ezartzen dute: *Irudiaren* (ingelesez *Figure*) eta *Eremuaren* (ingelesez *Ground*) artekoa. Postposizioek Irudiaren kokapenaren edo ibilbidearen berri ematen dute Eremua erreferentziatzat hartuta. Bada, pentsa liteke Irudia postposizioaren subjektua dela nolabait, eta Eremua, aldiz, osagarri zuzena. Hortaz, badirudi bai aditzek, bai postposizioek ere argumentuak hartzeko gaitasuna daukatela, eta horrela, argumentu horiek izenak izan behar dutela. Argumentu izateko gaitasuna izango litzateke, beraz, izentasuna definitzeko modu bat. Baina beste arazo batekin egingo genuke topo orduan. Izenak, argumentuak izateaz gain, predikatuak ere izan daitezke: *Emakume hura irakaslea da*. *Irakasle* izena ez da adibide horretan aditzaren (edo postposizio baten) subjektua, ezta osagarri zuzena ere, kopula aditzaren subjektuarekin (hau da, *emakume hura* sintagmarekin) berdintzen den predikatu baizik. Beraz, izen kategoria ezin dugu norabide bakarrean lotu argumentu funtzioarekin, izenak predikatuak ere izan daitezkeelako. Orobat, kontrakoa egitea ere arazotsua izango litzateke, argumentu eta predikatu guztiak ez baitira izenak (*Mikel etortzea / Mikel etor dadin nahi dut; Ogia erostera joan da; Emakume hura oso azkarra da*). Adibide horietan ikus daiteke, batetik, perpausak aditzen eta postposizioen argumentuak izan daitezkeela, eta bestetik, predikatu funtzioa adjektiboek ere bete dezaketela. Ondorioz, ezin daiteke ezarri funtzioaren eta kategoriaren arteko harreman zuzenik. Lehenengo kasuetan, baina, aditzek *-te* atzikia daramate,

---

<sup>2</sup> Lan honetarako ez dugu kontuan hartuko gaur egungo hizkuntzalaritzan ontzat hartzen den analisi bat, Marantz-ek (1984) eta Kratzer-ek (1996) proposatutakoa hain zuzen, non esaten den subjektua ez dela aditzaren argumentua, baizik eta bestelako funtzio buru batek gaineratutakoa.



eta horrek adierazten du aditzok nominalizatzeko prozesua jasan dutela. Kategoria aldatzeko horrelako prozesuez § 11.2b eta § 14.8 ataletan jardungo dugu.

**11.2g** Atal hau amaitu aurretik, garrantzitsua da ohar bat egitea kategorien eta ale lexiko batek izan dezakeen egituraren arteko bereizketaren inguruan. Orain arte, funtzioez aritu gara kategorietatik abiatuta; izenak argumentu eta predikatu funtzioekin lotu ditugu atal honetan. Argi izan behar dugu, ordea, argumentua izatea ez dagokiola izenari, hots, izen kategoria duen ale lexikoari, ez bada izenaren inguruan sortzen den sintagmari. Demagun aditz baten argumentua izen sintagma konplexu bat dela: *Mikeli asko gustatzen zaizkio egun-sentiko kolore arroseko lore usaintsuak*. *Gustatu* aditzaren argumentua ez da *lore* izena, baizik eta *lore* izenaren inguruan eratu den izen sintagma osoa: [*egun-sentiko* [*kolore arroseko* [[*lore*] *usaintsu* ]]] -ak. Egitura hori izenaren islapena da eta barruan biltzen ditu -ko erlaziozko postposizioarekin sortutako izenlagunak (*egun-sentiko* eta *kolore arroseko*) eta adjektibo bat (*usaintsu*). -Ko postposizioak eta adjektiboek ere beren islapena dute, kategoria guztietako kideek beren egitura zabaltzen baitute (ikus 2. kapitulua), baina kasu honetan egitura horiek izen sintagmaren barruan daude, eta guztien artean eratutako izen sintagma *gustatu* aditzaren argumentua da.

### 11.3. Kategoria lexikoak eta funtzionalak. Ohiko sailkapena

**11.3a** Kategoria guztiak ez dira berdintzat edo parekotzat hartzen. Sailkapen bat baino gehiago egin daitekeen arren, kategoria lexikoen eta funtzionalen arteko banaketa da hizkuntzalaritzan zabalduen dagoena eta gehien erabiltzen dena (ikus § 2.4). Atal honetan, bereizketa honetaz jardungo dugu, eta ikusiko dugu kasu batzuetan ez dela erabat mantentzen, batez ere azken urteetan hizkuntzalaritzan garatu diren analisi bideei jarraitzen badiegu eta euskarara ekartzen baditugu. Honetaz gain, atal honetan kategoria aldatetaz ere arituko gara, euskaraz prozesu horien erakusgarri asko baititugu.

**11.3b** Kategoria lexikoen artean izenak (*emakume*, *sute*, *urduritasun*, *lore*), adjektiboak (*handi*, *argal*, *estu*, *haserre*, *penal*), aditzak (*joan*, *apurtu*, *dantzatu*,

*alde egin, parte hartu*) eta adberbioak (*gaizki, azkar, egokiro, hemen*) sailkatzen dira; kategoria funtzionalen artean, berriz, determinatzaileak (*-a, bat, hauek, gutxi*), flexioa (*-tzen, -tu(ko), n-, z-, -t, -ke-, -n*), mailakatzaileak (*-ago, -egi, -en*), postposizioak (*-ra, -n, -tik, -(r)en azpian, -(r)i buruz*), menderagailuak (*-en, -ela, bait-*) eta juntagailuak (*eta, edo, ala, baina*). Ikus gai honi buruz § 2.4.

Tradiziozko hizkuntzalaritzan, kategoria lexikoak hiztegiarekin lotzen dira, eta kategoria funtzionalak sintaxiarekin. Horrela, bi multzo horietan sailkatzen diren kategorien ezaugarriak azaltzen dira. Ezaugarri horietako bat da kategoria lexikoek zerrenda mugagabeak edo irekiak dituztela, sarritan aipatzen denez; aldiz, kategoria funtzionalak zerrenda mugatuak edo itxiak lirateke.

Horrekin esan nahi dugu kategoria lexikoen barruan dauden hizkuntza ale guztiak zerrendatzea ia ezinezkoa izango litzaigukeela, zerrenda amaigabea baita. Hiztegitan ere ez dira jasotzen hizkuntza bateko hiztun guztiek balia-tzen dituzten hitz guztiak. Gainera, kategoria lexikoa duten hitzak oso aldako-rrak izaten dira: historian zehar batzuk galdu egiten dira, beste batzuk sortu, eta askotan beste hizkuntzatatik mailegutzen dira.

Kategoria funtzionalak, ordea, oso bestelakoak dira. Erraz zerrendatu daitez-ke, kopuru mugatua baitute, eta hizkuntzaren garapenean egonkorragoak iza-ten dira. Kopurua txikiagoa izanagatik ere, perpaus eta hizkuntza esapide mu-gagabeak eraikitzeke baliatzen ditugu. Izan ere, kategoria funtzionaletan sailkatzen ditugun aleak hizkuntzaren makineriaren torlojuak eta engranajeak dira. Kategoria lexikoak adreiluak balira, kategoria funtzionalak porlana izan-go lirateke, adreiluak bata bestearekin lotzeko eta horrela eraikin handiak egi-teko. Beheko perpausean, porlanaren funtzioa betetzen duten hizkiak azpima-rratu ditugu: *Nafarroako Gobernuak udako baso suteen aurkako kanpainaren hasiera bi astez aurreratu<sup>3</sup> du*. Ikus daitekeen bezala, markatu gabeko hitzak bata bestearekin lotzeko eta egituretan konbinatzeko erabiltzen dira.

---

<sup>3</sup> *-tu* atzizkiaren izaera lexikoa edo funtzionala eztabaidagarria izan daiteke. Aditz sortzaile-tzat hartuz gero, lexikoa litzateke (§ 6.1b). Partizipio atzizkitzat badugu, ordea, funtzionala izango litzateke.

**11.3c** Kategoria lexikoak eta funtzionalak bereizteko maiz baliatzen den beste irizpide batek esanahiarekin dauka zerikusia. Sarritan esaten da kategoria lexikoek esanahi argiagoa dutela funtzionalek baino. Askoz errazago definituko ditugu *mahaia* edo *maitasuna* izenak, edota *apurtu* edo *desagertu* moduko aditzak, *-ela* menderagailua edota *-a* determinatzailea baino. Hori gertatzen da kategoria lexikoa duten hitzek munduan edo gogoan existitzen diren entitateak edo kontzeptuak adierazten dituztelako eta funtzionalak, berriz, esanahi gramatikala izaten dutelako. Nolabait esateko, kategoria funtzionala duten hitzek gramatikari bereziki lotzen zaion esanahia dute; oro har, ez dituzte izendatzen hizkuntzatik kanpo existitzen diren kontzeptuak. Horrekin lotuta, erraz gerta lekioko euskaldun bati kategoria lexikoa duen hitz baten esanahia ez jakitea, besterik gabe, kontzeptua ezagutzen ez duelako edota sinonimo bat erabiltzen duelako haren orde. Oso bestela, kategoria funtzionalen esanahia hitzuntz guztiek ezagutzen dute, ale funtzionalak hizkuntzaren beraren muinarekin zuzenean lotuta daudelako eta beharrezkoak direlako hizkuntza egunerokotasunean erabiltzeko.

**11.3d** Ezaugarri zehatzagoetara etorrira, kategoria lexikoak funtzionaletatik bereizteko beste irizpide bat da hitz elkarketan parte hartzeko gaitasuna. Hitz elkartuetan lexemak bata bestearekin elkartzeko dira eta hitz konplexuagoak sortzen dira (ikus 7. kapitulua). Ale funtzionalek prozesu horretan sartzea debekatua izaten dute, euskaraz zein munduko bestelako hizkuntzetan. Euskarazko izenak, adjektiboak eta aditzak erraz asko aurki daitezke hitz elkartuetan, batez ere mendekotasunezkoetan: izen-izen (*kale garbitzaile, eguzki lore, diru bilketa, odol hodi*), aditz-izen (*idazmahai, jangela, jolastoki, garbigailu*), izen-aditz (*eraberritu, lekualdatu, gurutziltzatu*), adjektibo-aditz (*zaharberritu, luzetsi, onartu, onetsi*), aditz-adjektibo (*ateraberri, ulerterraz, ulergaitz*). Adberbioei dagokienez, ez dira horren ohikoak, baina zenbait ager daitezke: adberbio-aditz (*berantetsi, gaizki-ulertu, askietsi*).

**11.3e** Azkenik, kategoria lexikoak eta funtzionalak desberdintzeko irizpide fonologikoak ere aipatzen dira. Ale lexikoak fonologikoki beregainak izaten dira, oro har; funtzionalek, ordea, ez dute azenturik izaten eta beste ale lexikoekin elkartu behar izaten dira ahoskatzeko.

**11.3f** Laburbilduz, orain arte kategoria lexikoak eta funtzionalak bereizteko zenbait irizpide azaldu ditugu, hala nola kategoria lexikoen mugagabetasuna eta ezegonkortasuna, hizkuntzaz kanpoko esanahia, hitz elkartuetan parte hartzeko gaitasuna eta beregaintasun fonologikoa. Kategoria funtzionalek kontrako ezaugarriak erakusten dituzte testuinguru horietan guztietan: zerrenda askoz mugatuagoa dute, egonkorragoak dira, esanahi gramatikala dute, ezin dira hitz elkartuetan sartu eta fonologikoki ez dira beregainak. Alabaina, lehenago ere aipatu dugun bezala, kategoriekin gauzak ez dira diruditen bezain sinpleak: datozen ataletan ikusiko dugu kategoria lexikoen eta funtzionalen arteko bereizketa, orain arte aipatu ditugun terminoetan, ez dela horren argia.

## **11.4. Kategoria lexikoak eta funtzionalak. Sailkapenaren arazoak**

**11.4a** Aurrerapen modura, aditzekin sortzen den zalantzazko kasu bat azalduko dugu. Tradiziozko hizkuntzalaritzan, aditzak beti sailkatzen dira kategoria lexikoen barruan. Goian esan dugun bezala (§ 11.3f), zerrenda mugagabea osatzen dute eta hizkuntzazkoak ez diren kontzeptuei erreferentzia egiten diete, besteak beste. Baina ezaugarri horiek ez dira hizkuntza guztietan betetzen, eta euskaraz ere badauzkagu arrazoi batzuk baieztapen hori zalantzan jartzeko. Munduko hizkuntza batzuetan, hala nola japonieraz eta persieraz, aditz gutxi daude. Australiako jinguluera, esate baterako, oso adierazgarria da zentzu horretan.

Jingulueraz hiru aditz besterik ez dago: *joan*, *etorri* eta *izan/egin*. Hiru aditz horiek bakarrik ager daitezke denbora eta pertsona komunztadurarekin. Gainerako aditezko kontzeptu guztiak oinarritzko hiru aditz horiekin eraikitzen dira, horiei bestelako elementu batzuk gaineratuz. Adibidez, *gidatu* eta *murgildu* aditzak adierazteko *gidatu-joan* eta *murgil-joan* edo *murgil-egin* esango lukete hurrenez hurren. Datu horien aurrean, zaila izango litzateke esatea aditz kategoria “lexikoa” dela jingulueraz; izan ere, aditz kopurua oso mugatua da. Gainera, *murgil-joan* bezalako predikatu konposatu batean, eduki semantikoa *joan* aditzean baino gehiago, aditezkoa ez den beste elementuan dagoela

dirudi, alegia, *murgil* ale lexikoan. Beraz, jinguluerako aditzek ez dituzte goian aipatu ditugun bi ezaugarriak betetzen: ez dute zerrenda mugagabea eta gainera ez dute esanahi lexikorik. Mugagabetasuna eta esanahi lexikoa *joan*, *etorri* eta *izan/egin* aditzen osagarriek gaineratzen dute, ez aditzek eurek, eta beraz, bi ezaugarri horiek ez daude zuzenean lotuta “adiztasunarekin”.

**11.4b** Euskarazko aditzen irudia ez da jinguluerarena bezain muturrekoa, baina ziurrenik irakurle askori euskarazko zenbait aditz etorri zaizkio gogora jingulueraren aditzen berri izatean. Euskaraz, ondoko hizkuntzetan ez bezala, aditzeko esanahi asko *egin*, *hartu* eta *eman* aditz arinekin eraikitzen dira. Hona hemen adibide gutxi batzuk: *egin* aditzak (*amets egin*, *alde egin*, *dantza egin*, *elurra egin*, *huts egin*, *jauzi egin*, *kasu egin*, *korrika egin*, *lo egin*, *oihu egin*, *negar egin*, *txalo egin*, *zin egin*), *hartu* eta *eman* aditzak (*amore eman*, *atseden hartu*, *damu hartu*, *esku hartu*, *lur hartu*, *min eman*, *min hartu*, *parte hartu*, *su eman*).

Adibide horietan guztietan, badirudi *egin*, *hartu* eta *eman*-ek “adiztasuna” gaineratzen dutela eta euren osagarriak, aldiz, aditzon eduki semantikoa edo lexikoa (§ 23.1). Pentsa genezake, hortaz, aditz horien kasuan, bi alderdi daudela banatuta: bat, lexikoa, osagarriaren bidez txertatu dena; bestea, funtzionala, *egin*, *hartu* eta *eman*-ek emana, funtzio sintaktikoari lotua eta hizkuntzaren barrukoa. Hori da, hain zuzen, Morfologia Banatuan egiten den analisia. Hizkuntzalaritzako eremu teoriko honetan, kategoria guztiei egozten dizkiete alderdi funtzionala eta lexikoa. Aditzak eta izenak ez lirateke, hortaz, kategoria lexikoak oso-osorik. Beherago ikusiko dugunez (§ 11.4g), postposizioetan ere horrelako zerbaitek badagoela pentsa daiteke.

**11.4c** Kategoria lexikoen barruan sailkatzen ditugun hizkuntza aleek badute beste ezaugarri berezi bat: eratorpenean parte hartu ahal izatea. Eratorpenaren bidez, lexema berriak sortzen dira lexema txikiagoetatik edo oinarritzkoagoetatik abiatuta (ikus zehatzago 4, 5 eta 6 kapituluetan). Hona hemen adibide batzuk: *adieraz-pen*, *argital-pen*, *xeda-pen*; *maitagarri-tasun*, *handi-tasun*, *nagusi-tasun*; *ikus-garri*, *hil-garri*, *adieraz-garri*.

Adibide horietan, zenbait atzizki gaineratu zaizkie lexema batzuei (-*pen*, -*tasun* eta -*garri*) eta lexema berriak sortu dira. Prozesu honetan, hitzaren

kategoria lexikoa alda daiteke, eta goiko adibide guztiak dira horren erakusle. Horrela, *-pen* eta *-tasun* amaierako adibideetan izenak sortu ditugu aditzetatik eta adjektiboetatik, hurrenez hurren. Eta *-garri* amaierako adibideetan, bestetik, adjektiboak sortu ditugu aditzetatik abiatuta. Prozesu morfologiko hau behin eta berriz errepika daiteke. Adibideetako batean, esaterako, *-tasun* atzizkia gaineratu diogun lexema, oinarrizkoagoa den beste lexema batean eta atzizki batean bana daiteke: *maita* eta *garri*.

Hortaz, lexemei bezalaxe, eratorpen atzizkiei kategoria lexiko bat egozten diegu, eta kategoria horren araberakoa izango da, hain zuzen, sortzen den lexema berria<sup>4</sup>. Goiko *-pen* eta *-tasun* atzizkiek izen kategoria dute, eta *-garri* atzizkiak adjektibo kategoria<sup>5</sup>.

**11.4d** Eratorpenaren bidez hitz (edo lexema) berriak sortzen direnez, prozesu morfologiko hori hiztegiarekin lotzen da tradiziozko hizkuntzalaritzan, eta horrela flexiotik bereizten da. Flexioa prozesu morfologiko eta sintaktikoa da, eratorpena bezalaxe, baina bere funtzioa ez da lexema berriak sortzea, baizik eta lexema baten gramatika funtzioak gauzatzea. Horregatik, eratorpena hiztegiarekin lotzen den bezala, flexioa sintaxiarekin berarekin harreman estuagoa daukala pentsatzen da. Flexio-morfemak dira kasu marka guztiak, denbora, aspektu, modu, pertsona eta numero komunztadura morfemak eta lexema baten funtzio sintaktikoarekin zerikusia duen morfema oro.

**11.4e** Eratorpena eta flexioa gramatikaren eremu desberdinetan gertatzen dira ontzat hartuz gero, bien arteko hainbat desberdintasun azal daitezke. Desberdintasun horietako batzuk aipatuko ditugu hemen. Batetik, eratorpen atzizkiek lexemaren errotik hurbilago egoteko joera dute flexio atzizkiek baino, eta flexio atzizki bat lotuz gero lexemari ez dago eratorpen atzizki gehiago erantserik. Ondoko adibideetan, lexemak eta eratorpen atzizkiak azpimarratu ditugu: *adieraz-pen-ek* [[[aditza] iz.] erg.pl.], *ahal-dun-tzen* [[[izena] adj.] aspek-

---

<sup>4</sup> Kategoria lexikoa duten ale guztiek ez dute, beraz, beregaintasun fonologikorik. Kasu honetan, eratorpen-atzizkiak, lexikoak izanagatik ere, atzizki forma dute.

<sup>5</sup> *-garri* atzizkia izen kategoriakoa ere izan liteke (§ 4.4.2.2).

tua], *margo-tu-ko* [[[izena] aditza] aspektua], baina \**mutil-ek-tu* [[[izena] erg. pl.] aditza] (vs *mutil-du*), \**margo-ak-tu* [[[izena] pl.] aditza] (vs *margo-tu*).

Ikus daitekeenez, flexio morfemak ezin dira sartu eratorpen prozesuetan, edo bestela esanda, flexioz markatutako lexema batek ezin dezake jasan eratorpen prozesu bat. Ezintasun hori erraz azal daiteke pentsatzen badugu eratorpena hiztegian gertatzen dela eta flexioa syntaxian, eta flexioa gertatzen denerako, ezin gaitzkeela berriz atzera itzuli hiztegiaren eremura.

**11.4f** Flexioaren eta eratorpenaren beste desberdintasun batek erregulartasunarekin dauka zerikusia. Formalki eta semantikoki eratorpena ez da flexioa bezain sistematikoa, eta salbuespen eta berezitasun ugari izaten ditu. Flexioa, aldiz, askoz ere sistematikoagoa eta erregularragoa da. Adibide bat emateko, pentsa euskaraz ditugun atzizki izengile guztietan (ikus 4. kapitulua). Hauek dira horietako batzuk: *-tasun* (*edertasun*, *adierazgarritasun*, *inpartzialtasun*), *-(k)era* (*ibilera*, *idazkera*, *hizkera*, *irteera*, *igoera*), *-keta* (*idazketa*, *azterketa*, *irakurketa*, *ekarketa*), *-kuntza* (*hizkuntza*, *hezuntza*, *eraikuntza*, *antolakuntza*).

Badira izengileen arteko desberdintasun erregular batzuk. Adibidez, *-tasun* izengilea lexema osagarria adjektiboa denean hautatzen da, oro har, eta izen abstraktuak sortzen ditu (§ 4.1.2). Bestetik, *-(k)era*, *-keta* eta *-kuntza* atzizkiek gertaera-, egoera- edo ondorio-izenak sortzeko erabiltzen dira, oinarrian harturik gertaera bat adierazten duen aditz bat (§ 4.5). Alabaina, azken atzizki izen-sortzaileen artean, irregulartasunak ere aurkitzen ditugu. Esate baterako, zergatik esaten da *idaz-keta*, *azter-keta* eta *ekar-keta*, baina ez \**erama(n)-keta* edo \**erai-keta*? Azken horren ordez, *eraikuntza* esango genuke. Esanahiari dagokionez ere, horrelako irregulartasunak topatzen ditugu. Adibidez, *-(k)era* atzizkiak gehienetan gertaera- eta ondorio-izenak sortzen baditu ere (*etorrera*, *igoera*), batzuetan ‘modua’ adieraz dezake (*idazkera*, *hizkera*). Hiztunok daukagun euskararen hiztegiaren jakintzagatik dakigu [*hiz + kera*] hitzak modua adierazten duela, eta, aldiz, [*igo + era*] hitzak ez. Hiztegia horrelako idiosinkrasiak gordetzeko tokia da. Horregatik, eratorpenean aurkitzen ditugun horrelako banaketak hiztegiari egozten dizkiogu. Syntaxian gertatzen diren prozesu morfologikoetan ez dugu horrelakorik gertatzea espero. Bada, flexio-morfemak askoz erregularragoak dira, bai formari dagokionez, bai esanahiari dagokionez.

**11.4g** Postposizioak kategoria funtzionaletan sailkatu ditugu (§ 11.3b. Ikus § 2.4h: kategoria lexikotzat hartzen direla, eztabaidagarria bada ere) tradiziozko hizkuntzalaritzan horrela egiten baita. Hala ere, atal honetan ikusiko dugu euskarazko postposizio batzuek kategoria lexikoen ezaugarriak ere badituztela.

Eratorpenaz aritu garenean, ikusi dugu kategoria lexikoa duten hizkuntza aleek bakarrik parte har dezaketela horrelako prozesuetan, hau da, aditzek, izenek, adjektiboek eta adberbioek. Kategoria funtzionala duten aleek ezin dute, oro har, horrelako prozesuetan agertu. Azter dezagun orain euskal aditzen eratorpena. Ikusiko dugunez, euskal aditzen eratorpenak erakusten du kategoria funtzionalen eta lexikoen arteko bereizketa ez dela horren argia, eta postposizioek badituztela ezaugarri lexikoak.

**11.4h** Euskarazko aditzak askotariko kategorietatik sortzen dira (§ 6.1). Inguruko hizkuntzetan bezala, baditugu izenetatik, adjektiboetatik eta adberbioetatik eratortzen diren aditzak. Izenetatik eratortzen direnen artean, badaude entitate bati erreferentzia egiten diotenak (*amatu, mutildu, apaiztu, alargundu, atxilotu, ahitu, adiskidetu, amorostu, gizondu* eta abar), egoera psikologiko edo fisiologiko bat adierazten dutenak (*arduratu, atsekabetu, aspertu, beldurtu, damutu, dolutu, egarritu, gosetu* eta abar) eta gertaera baten prozesua edo emaitza adierazten dutenak (*dantzatu, aitortu, argudiatu, arbuaiatu, abestu, aholkatu, amestu, arrazoitu, arnastu, arrantzatu, bidaiatu* eta abar).

Adjektiboetatik eratortzen diren aditzen artean ere bi sail bereiz ditzakegu: adjektibo bakunetan eraikitzen direnak (*argitu, apaldu, arindu, agortu, aberastu, ahuldu, alaitu, azkartu, apaindu, argaldu, astundu, esnatu, gorritu, moteldu, zuritu, garbitu, zikindu* eta abar) eta adjektibo konposatuetan eraikitzen direnak (*ahaldundu, areagotu, betikotu, etxekotu, euskaldundu, etxegabetu, gutxiagotu, lotsagabetu, itxuragabetu, zordundu* eta abar).

Bestetik, adberbioetatik eratorritako aditzak ditugu (*belaunikatu, berandutu, urrundu, hurbildu, gelditu, prestatu, adostu, zutitu, zintzilikatu* eta abar). Talde honen barruan *-ka* amaierako adberbioak ere sar genitzake, baina horiek § 11.10 atalean aztertuko ditugu (ikus § 6.2.3 atala ere). Adberbioetatik aditzak



sortzea ez da beharbada horren ohikoa munduko hizkuntzetan, baina izenetatik eta adjektiboetatik aditzak eratortzea oso normala da.

Azkenik, badira ere postposizio sintagmetatik eratorritako aditzak: postposizio adlatibotik eratorritakoak (*etxeratu*, *mahaigaineratu*, *kaleratu*, *aurreratu*, *giltzape(ra)tu*, *munduratu*, *eskuratu*, *lehorreratu* eta abar) eta postposizio instrumentaletik eratorritakoak (*ondorioztatu*, *legezatu*, *argizatu*, *balioztatu*, *ureztatu*, *koloreztatu*, *olioztatu* eta abar). *-ratu* amaieradun aditzen oinarrian adlatibo postposizio sintagma daude: *etxeratu* aditzak adierazten du *etxera joan/eraman*. *-ztatu* bukaeradunetan, bestetik, sintagma instrumentalak: *ureztatu*-k esan nahi du *urez bete*.

Horrelako adiera duten aditzak ezagunak dira munduko hizkuntzetan eta hizkuntzalaritzan aztertu izan dira. Ingelesez, adibidez, *etxeratu* edo *mahaigaineratu*-ren antzekoa den *shelve* ‘apaleratu’ aditza dago, eta *ureztatu*-ren parekoa den *saddle* ‘zelatu’. Hale eta Keyser-ek (1993a) lehenengo aditz sailari *kokapen aditzak* (ingelesez *location verbs*) deitu zioten, eta bigarrenari *kokagai aditzak* (*locatum verbs*).

**11.4i** Ikus daitekeenez, euskaraz aditzak sor daitezke postposizioetatik. Eta gainera, prozesu hori oso emankorra da; zerrenda ia amaigabea daukagu, batez ere adlatibo postposiziotik eratorritako kokapen aditzen kasuan. Ez gaude, hortaz, lexikalizatutako eta ihartutako kasu batzuen aurrean. Kokapen aditzetan nabarmentzekoa da adlatiboaren osagarriak numero marka ere izan dezakeela, adibidez, corpusetan diren *begietaratu* eta *belarrietaratu* aditzetan. Hor, *-raren* ordezkari numero pluralaren marka daraman *-etara* forma daukagu. Aditz horiek, beraz, zalantza ugari sortzen dituzte goian emandako kategoria funtzionalen eta eratorpenaren inguruko azalpenaren aurrean.

**11.4j** Izan ere, goian postposizioak kategoria funtzionalak direla esan dugu, eta kategoria funtzionalek ezin dutela eratorpenean parte hartu (§ 11.3b, § 11.3d). Bestetik, esan dugu flexio morfologia ezin daitekeela eratorpen prozesuen tartean sartu (§ 11.4e), baina *begietaratu* edo *belarrietaratu* bezalako aditzetan ikus daiteke posible dela. Beraz, badirudi batzuetan kategoria lexiko gisa jokatzeko dutela.

Nolanahi ere, postposizioak hein batean lexikoak direla proposatzeak ere arazo batzuk sortuko lituzke. Izan ere, postposizioek zerrenda mugatua dute, eta euretako askok esanahi erabat sintaktikoa dute. Aipatzekoak dira, zentzu horretan, erlaziozko *-ko* postposizioa, *-en* genitiboa eta beharbada *-n* inesiboa ere. Genitiboa eta inesiboa bereziki adierazgarriak dira: morfema hauen postposizio erabileraz gain, bestelako funtzio sintaktikoak betetzeko erabiltzen dira. Inesiboak, esate baterako, lekuzko esanahiarekin batera, denbora adiera ere izan dezake aditzekin agertuz gero. Kasu horietan, aspektu progresiboa edo burutugabea adierazteko erabiltzen da: *Mikel dantza egiten ari da*; *Mikel astelehenetan joaten da Gasteiza*.

Hainbat lanetan jasotzen den bezala, progresiboko aditzei lotzen zaien *-tzen* morfema, *-tze* izengilean eta *-n* inesiboan dekonposa daiteke (Azkue 1925; EGLU-I; Mateu & Amadas 1999; Demirdache & Uribe-Etxebarria 2000; Laka 2004, 2006). Ildo beretik, aspektu burutugabea adierazteko erabiltzen den *-tzen* atzizkiak perifrasi progresibo bat izango luke jatorri (Mounole 2011).

Genitiboa ere sintaxiari dagozkion funtzioak betetzen aurki dezakegu. Bate-tik, aspektu prospektiboa adierazteko erabiltzen da ekialdeko hizkeretan (esaterako, *joanen naiz*), batez ere aditzaren partizipioak *-n* amaiera duenean. Aipatzekoa da, testuinguru horretan, mendebaldeko eta erdialdeko hizkeretan postposizio bat baliatzen dela, alegia, erlaziozko *-ko* atzizkia. Bestetik, erlatibozko esaldiak markatzeko erabiltzen den *-(e)n* atzizkia genitiboa dela pentsa liteke, are gehiago kontuan hartzen baldin badugu genitiboa izenlagunak sortzeko erabiltzen dela. Kasu horretan, genitiboak menderagailu baten funtzioa beteko luke: *mahaia apurtu duen neska*.

**11.4k** Laburbilduz, atal honetan erakutsi dugu postposizioek kategoria nahasia dutela. Alde batetik, kategoria lexikoen antzera jokatzen dute testuinguru batzuetan: kategoria lexikoek bezala eratorpena jasan dezakete eta lexema berriak sortzeko oinarri moduan erabil daitezke. Bestalde, kategoria funtzionalei egozten dizkiegun ezaugarri batzuk dituzte: zerrenda mugatua osatzen dute eta zenbaitetan funtzio sintaktiko garbia izaten dute. Azken kasu horietan, pentsa liteke menderagailu edo aspektu morfema moduan erabiltzen diren atzizkiak ez direla postposizioak eurak, ez bada postposizioekiko isomorfi-

koak diren atzizkiak. Hala ere, postposizioen eta morfema funtzional horien artean badaude antzekotasun semantiko eta sintaktikoak, eta horregatik, haien artean nolabaiteko harreman sintaktikoa badagoela pentsa genezake.

## 11.5. Izenak eta aditzak

**11.5a** Lehenengo atalean, kategoriak bereizteko eta ezaugarritzeko irizpide morfosintaktikoak erabili ditugu. Adibidez, aditzak ezaugarritzeko, alde batetik, irizpide sintaktikoak erabil daitezke. Horien artean aipatuko genituzke osagarri zuzenak hartzeko gaitasuna eta adberbioek modifikatu ahal izatea. Beste alde batetik, aditzen kategoria definitzeko irizpide morfologikoetara ere jo daiteke. Esate baterako, munduko hizkuntza askotan, hizkuntza erromantzeetan adibidez, aditzak denbora eta pertsona flexioarekin agertzen dira (esaterako, lehenaldiko lehen pertsonako *caminé* forma gaztelaniaz). Horrelako flexiorik ez dutenean, adizki jokatu gabeak direla esaten da (*caminar*). Azkenengo kasuan, aditzok izenei egozten zaizkien ezaugarriak izaten dituzte, adibidez, argumentuen funtzioa bete dezakete (gaztelaniaz, *caminar 30 minutos al día es bueno para la salud*; frantsesez, *marcher 30 minutes par jour est bon pour la santé*), determinatzaileekin batera ager daitezke (gazt. *el caminar por la ciudad es muy agradable*), adjektiboek modifikatu ditzakete (gazt. *el continuo caminar por la ciudad me puso dolor de cabeza*) eta batzuetan kasu markak eraman (gazt. *no le veo ninguna gracia al caminar durante todo el día*; fr. *je ne vois aucun plaisir à marcher pendant tout le jour*).

Aditzen eta izenen arteko alde hori euskarara ekartzea interesgarria da. Izan ere, euskal adizki jokatu gehien-gehienak analitikoak dira halabeharrez, eta aditzak ez du denbora, pertsona eta numero flexiorik eramaten.

**11.5b** Hizkuntzalaritzan asko aztertu dira izenen ezaugarriak hartzen dituzten aditzak. Goian aipatu dugun bezala (§ 11.5a), aditzek izenei egozten zaizkien banaketa ezaugarriak erakuts ditzakete denbora eta pertsona komunztadurarik ez daukatenean, hau da, jokatu gabeak direnean. Alabaina, aldi berean, aditzenak diren ezaugarri sintaktikoak gordetzen dituztela dirudi, behintzat

kasu batzuetan. Euskaraz antzera gertatzen dela ikusiko dugu atal honetan. Horretaz gain, euskarazko aditzek izen ezaugarriak dituztela erakutsiko dugu, baita *a priori* jokatuak diren aditz egituretan ere; izan ere, aditz gehien-gehien forma jokatua analitikoa da. Azken kasu hori aztertuko dugu lehenik.

**11.5c** Hamabost bat aditzen kasuan izan ezik, beste guztiak forma analitikoa dute euskaraz. Forma analitikoan, adizki nagusiek forma jokatugabea izaten dute. EGLU-II liburukian, hiru forma jokatugabe bereizten dira: aditzoina, partizipioa eta aditz izena (ikus 25. kapitulua). Hemen partizipioaz eta aditz izenaz arituko gara bakarrik. Forma burutua edo perfektiboa dutenean, *-tu/-i/-n* edo *-ø* amaierako partizipioak erabiltzen dira (*atzo Gasteiza joan nintzen*). Aspektu burutugabea, aldiz, adizki nagusiek *-t(z)en* aspektu marka izaten dute (*egunero joaten naiz Gasteiza*), lehen aipatu dugun bezala, morfema izengile batean eta inesibo postposizioan dekonposa daitekeena (§ 11.4j, § 20.1.3d, § 26.3.2.2a). Azkenik, aspektu prospektiboan (edo ‘geroa’ adierazten duen aspektuan), partizipioari *-ko* eransten zaio (*-en* ekialdean *-n* amaieradun partizipioetan) (*bihar Gasteiza joango/joanen naiz*). Denbora eta modu flexioa, eta pertsona, numero eta kasu komunztadura adizki laguntzailean agertzen dira, beste osagaitik, aditz lexikotik, bereizirik<sup>6</sup>. Ikus daitekeenez, aditzek forma jokatugabea dute, nahiz eta perpauseko aditz nagusiak izan. Beraz, morfologiari dagokionez behintzat, euskarazko aditzek ez dute “aditzasunarekin” lotzen den ezaugarria betetzen, hots, ez dira denbora eta pertsona flexioarekin agertzen.

Testuinguru jokatugabeetan ere, aditz forma berberak aurkitzen ditugu: *etxera joan ostean; ez diot zentzurik ikusten Gasteiza joateari; Gasteiza joateak ez dauka zentzurik*. Lehen adibidean, *joan* partizipioa *oste* postposizioaren osagarria da. Bigarren eta hirugarren adibideetan, bestetik, *-t(z)e* amaieradun aditz izenak *-a* determinatzailearekin eta datibo/ergatibo kasu markekin agertzen dira (*joteari/joateak*). Hala ere, lehen esan dugun bezala, nahiz eta

---

<sup>6</sup> Aditz laguntzailea *izan* edo *\*edun* izan daiteke. Hautua aditzaren araberakoa izango da nagusiki (trantsitiboak eta iragangaitz ergatibodunak *\*edun*-ekin agertzen dira eta intrantsitiboak *izan*-ekin), baina alokutibo komunztadurak ere eragina dauka.

aditzok izen gisa jokutzen duten hein batean, aditzen ezaugarriak gordetzen dituzte. Esate baterako, osagarri zuzenak hartzeko gai dira (*Miren eraman ostein*) eta adberbioek modifikatzen dituzte (*ikasleei zorrotz hitz egiteak ez du ezertarako balio; manifestua bat-batean aldarrikatzea ideia ona izan zen*). Izenek ez dute berez osagarriak hartzeko gaitasunik eta ez dira adberbioekin bateragarriak. *-pen* atzizki izengilearekin eratorritako izenek, adibidez, osagarriak hartu ahal izateko, genitiboaren beharra dute (*\*manifestua / manifestua-ren aldarrikapena*) eta adberbioen ordez, adjektiboek edo izenlagunek modifikatzen dituzte (*\*bat-batean / bat-bateko aldarrikapena*).

Beraz, partizipioek eta aditz izenek izenen antzera jokutzen dute azaleko banaketari dagokionez (*etxera joan ostein*), baina aditzak izaten jarraitzen dute, eta horregatik, aditzen ezaugarriak ere gordetzen dituzte (*Miren eraman ostein*).

**11.5d** Izenen eta aditzen arteko bereizketa kolokan jartzen duen beste datu sorta bat predikatu moduan erabiltzen diren izen eta adjektibo biluzietatik datorrigu. Izan ere, euskaraz hainbat aditezko esanahi izen edo adjektibo biluzien bidez adierazten dira. Hauek dira, esaterako, izen biluziez sortuak: *arrazoi izan, ardura izan, aitor izan, aiher izan, arta izan, axola izan, amets izan, balio izan, behar izan, beldur izan, damu izan, gorroto izan, merezi izan, uste izan* eta abar; eta adjektibo biluziek sortuak: *ageri izan, aski izan, ezagun izan, gogoko izan, gustuko izan, maite izan, nahiago izan, nabari izan* eta abar (§ 23.2.1.3.4).

Perpaseko predikatu nagusiak direnean, izen eta adjektibo horiek ez dute aspektu markarik eta beti izaten dute adiera burutugabea. Gehienetan egoerak adierazten dituztenez, aspektu interpretazioa mugagabea izaten da. Adizki nagusiekin ikusi dugun bezala, predikatu hauetan ere denbora eta pertsona flexioa aditz laguntzailean agertzen da: *Aitorrek Miren gorroto/maite du; Mirenek hondartzara joatea gogoko du*.

Predikatu horiek izen eta adjektibo biluziak dirudite formaren aldetik, baina aditzen banaketa sintaktikoa dute: absolutiboz markatutako osagarri zuzenak hartzen dituzte, eta ergatiboz markatutako subjektuekin agertzen dira, gaine-

rako aditzak bezala. Beraz, ez dugu pentsatu behar aditz laguntzailea kasu honetan aditz nagusia edo kopula denik eta izena haren osagarri zuzena. Horrelako analisi batean ezingo genuke azaldu *Miren* argumentuak absolutibo kasua edukitzea goiko adibidean. Ildo berean, perifrasi horietan \**edun* aditz nagusia balitz, *ba-* baieztapen aurrizkia onartuko litzateke (\**Mirenek badu hori ondo dagoela uste*)<sup>7</sup>, \**edun* kopula denean onartzen baitu: *Aitorrek badu diru nahiko; Mirenek badu hori ondo dagoelako ustea*. Aurreko \**Mirenek badu hori ondo dagoela uste* adibidean, *uste* da predikatu nagusia eta \**edun* aditz laguntzailea. Ondorioz, \**edun*-ek ezin du baieztapen interpretazioa izan *ba-* aurrizkiarekin agertzen denean. *Mirenek badu hori ondo dagoelako ustea* adibidean, aldiz, *ustea* determinatzaile sintagma \**edun*-en osagarri zuzena da. Kasu horretan, *ba-* aurrizkiak baieztapen esanahia dauka.

**11.5e** Aditzen eta izenen alderaketa bukatzeko, jarduerak adierazten dituzten zenbait izenez arituko gara (EGLU-I: 244-245). Izen horiek inesibo postposizioaz lagundurik agertzen dira, eta burutzat izaten dute aspektu aditz bat, adibidez, *egon*, *ari* eta *ibili*. Beste zenbaitetan, *egin* aditz arina ere har dezakete. Hona hemen adibide batzuk: *igerian*, *aitzurrean*, *musean*, *ehizan*, *jolasean*, *beharrean*, *marmarrean*, *ametsetan*, *lotan*, *mezatan*, *txoritan*, *neskatan* eta abar.

Jarduera izen batzuek gertaera bera izendatzen dute (adibidez, *jolasean*, *ehizan*, *ametsetan*), eta beste batzuek gertaeran parte hartzen duen instrumentua edo entitatea (esaterako, *aitzurrean*, *pilotan*, *neskatan*). Inesibo postposizioari dagokionez, batzuk DS singularrari lotzen zaizkio (*jolasean*, *ehizan* eta abar) eta beste batzuk sintagma mugagabeari (*neskatan*, *ametsetan* eta abar). Azkenik, jarduera izen batzuek *-(k)eta* izengileaz eratorriak dira: *hizketan*, *berriketan*, *jostaketan*, *igeriketan* eta abar.

Jarduera izen horiek ez dira aditz nominalizatuak, hau da, ez dira aditz izenak. Horrenbestez, ezin daitezke beste hizkuntzatako gerundioekin parekatu. Inesiboa daramaten aditz izenak (adibidez, *amets egiten*, *jolasten* eta abar) aditzak

---

<sup>7</sup> Ekialdeko euskalki batzuetan onartzen dira horrelako adibideak, hala nola *Aitorrek Miren badu maite* eta *Mirenek badu uste hori ongi dagoen*. Kasu horietan, \**edun*-ek aditz nagusi gisa jokatzeko du, eta ez aditz laguntzaile moduan.

dira sakonean, eta ondoren izengile batekin nominalizatzen dira. Horregatik aditzei dagozkien ezaugarriak gordetzen dituzte (ikus § 11.3). Atal honetan aztertzen ari garen jarduera izenak, ordea, izenak dira sakonean, hots, ez dute kategoria aldaketarik jasan. Hori dela eta, jarduera izenetan ez daukagu balizko nominalizazio baten ebidentzia morfoloikorik (*-tze* atzizkia ez da ageri), eta ez dira bateragarriak osagarri zuzen batekin: *gauza ikaragarri bat amesten ari nintzen* vs \**gauza ikaragarri bat ametsetan nengoen/ari nintzen* eta *dantza polit bat dantzatzen ari gara* vs \**dantza polit bat dantzan ari gara*.

Nolanahi ere den, jarduera izenek adberbioak onartzen dituzte, eta hori izatez izenetatik espero ez dugun ezaugarria da: *Igerian ari da gelditu gabe / arin-arin*; *Haurrak ikas zazue euskaraz mintzatzen, ongi pilotan eta oneski dantzatzen*. Badirudi, beraz, jarduera izenek izaera nahasia dutela. Izenak dira berez, baina adberbioek modifikatzea onartzen dute, aditzek bezala.

## 11.6. Izenak, adjektiboak eta postposizioak

**11.6a** Hizkuntzalaritzaren historian, adjektiboei oso berandu egokitu zitzaizen kategoria beregaina, besteetatik berezia. Tradizio askotan izenenekin edota aditzekin batera sailkatzen zituzten. Izan ere, adjektiboek izenekin ezaugarri batzuk partekatzen dituzte, bai morfoloikoa, bai sintaktikoa. Esate baterako, biak izan daitezke predikatuak, *izan* kopula aditzaz lagundurik. Gainera, adjektiboek numero flexioa eramaten dute, izenek bezalaxe: izen predikazioa (*Miren eta Mikel irakasleak dira*) eta adjektibo predikazioa (*Miren eta Mikel azkarrak dira*).

Baina badira, jakina, izena eta adjektiboak bereizten dituzten irizpideak. Adibidez, izenak bakarrik izan daitezke aditzen argumentuak<sup>8</sup>. Eta eramaten dituzten

---

<sup>8</sup> Horrekin lotuta, esan dugu (§ 11.2c) erlaziozko adjektiboek (edo erreferentzia adjektiboek) modifikatzen dituzten izenen argumentuak adieraz ditzaketela, esaterako, *erreforma konstituzionala* adibidean. Argumentuak adierazteko gaitasuna, beraz, adjektiboek badute, baina izenei bakarrik dagozkienak, eta ez aditzenak.

flexio morfemak eurekin komunztadura harremanean dagoen izenari dagozkio, eta ez adjektiboari berari. *Ikasleak azkarrak dira* diogunean, *azkarrak* adjektiboak daraman pluraleko morfema interpretagarria da *ikasleak* izenean (izenak dauka berezkotzat), baina ez adjektiboan. Hortaz, adjektiboek erakusten duten numero flexioa ez da berezkoa, komunztadura harremanean jasotakoa baizik.

**11.6b** Adjektibo asko morfologikoki sinpleak dira, bakunak (*eder, handi, txiki, polit, altu* eta abar), eta beste batzuk konposatuak (*gogotsu, garrantzitsu, adeitsu, beldurti, gezurti, gorridun, zordun* eta abar). Euskarazko adjektibo batzuk bereziki interesgarriak dira, izenez eta postposizioez osaturik baitirudite. Kasu horren erakusle dira *-ko* amaiera dutenak (ikus § 21.7), esate baterako: *etxeko, betiko, gaurko, bertako, nazioarteko* eta abar. Horrelakoetan argi eta garbi bereiz daitezke adjektiboaren barne osagaiak.

## 11.7. Izenordainak

**11.7a** Izenordainak kategoria mota bateko hitzak dira, baina gramatikarien artean gogoeta puntua izan da gai hau, ez baita erraza zehaztea zein den kategoria hori. Batetik, pertsona izenen ordaintzat hartu izan dira, baina bestetik berez dira determinatzaileak, esan nahi baita, ez dutela besterik deus determinatzen (artikuluak, adibidez, izena determinatzen du: *etxe-a*), izenordainak berak baitira determinatzaileak (*ni/\*nia*) (§ 15.2.2a, § 2.7).

**11.7b** Izenordainak elkarrizketa batean ageri diren pertsonen ordeztu erabiltzen ditugu (§ 13.1). Pertsona izenordainak, hola deitzen ditugu, diskurtsoan parte hartzen duten pertsonak izendatzeko erabiltzen ditugu, hortaz, eta badute isla zuzena adizki jokatuaren morfologian.

**11.7c** Euskararen historian lau izenordain ageri dira: *ni* eta *hi* singularrean, eta *gu* eta *zu* pluralean. Hori ongi ikus daiteke aditzaren morfologian. Denboraren indarrak, *hi* izenordainak leku markatuagoa hartu du (§ 13.3.2), eta *zu* esanahiz aldatu da, singularraren balioa hartuz; ondorioz, *zuek* sortu da pluralean, *zu* izenordainak utzitako tokia betetzeko. Beraz, hau gertatu da: *ni/hi* (sing.); *gu/zu* (pl.) → *ni/hi/zu* (sing.); *gu/zuek* (pl.).



## 11.8. Aditzak eta adjektiboak

**11.8a** Aditzak adjektibo modura azaleratu daitezke zenbait kasutan (ikus § 14.5). Lehen (§ 11.5b, § 11.5c) azaldu dugu euskarazko aditz gehien-gehienak forma jokatugabeen agertzen direla, nahiz eta perpauseko predikatu nagusiak izan: gehienetan partizipio modura edo aditz izen modura. Bada, partizipiozko aditzak numero flexioarekin ager daitezke testuinguru batzuetan, izenak eta adjektiboak bezala: *Ikasleak haserretuak daude; Aulkiak erreserbatuak dauzkat.*

Numero flexioa duten partizipioek *-a* atzizkia eramaten dute. Horrelako partizipioak adjektibotzat hartu izan dira euskalaritzan, izan ere, adjektiboen banaketa sintaktiko antzekoa dute. Lehenik, *-ago*, *-egi*, *-en* mailakatzailerekin ager daitezke (*haserretuago*, *haserretuegi*, *haserretuen*)<sup>9</sup>. Goian (§ 11.2c) ikusi dugu hori ez dela adjektiboen ezaugarria bakar-bakarrik, zenbait adberbio eta postposizio sintagma ere modifikatu baitaitezke mailakatzailerekin. Argi dago, hala ere, aditzak ez direla horrelako testuinguruetan aurkitzen; beraz, goiko partizipioak ezin dira aditzak izan. Bigarrenik, *-a* partizipioek izen bat modifikatzen dute, adjektiboek bezalaxe, eta izen horren numero tasunak erakusten dituzten morfemekin agertzen dira. Adjektiboen moduan, atribuziozko gunean (*gutun bidaliak ikusi nahi ditut*) edo predikatuen gunean (*gutunak bidaliak daude*) ager daitezke.

Hirugarrenik eta azkenik, *-a* partizipioak adjektibozko osagarriak hartzen dituzten aditzen osagarriak izan daitezke, esate baterako, *irudi* eta *eman* aditzek: *Haserretua dirudi/ematen du.*

**11.8b** Goiko testuinguru horietan *-a* partizipioen eta adjektiboen jokaera antzekoa izan arren, *-a* partizipioak adjektiboetatik bereizten dira beste hainbat eremutan. Aditz izenekin ikusi dugun moduan, *-a* partizipioek aditzen ezaugarri asko gordetzen dituzte. Ikus dezagun orain, zertan jokatzen duten *-a* partizipioek eta adjektiboek berdintsu eta zertan ez.

<sup>9</sup> Kasu horretan, *-a* atzizkia ez da agertzen *-tu* partizipioaren eta mailakatzailerearen artean. Agertzekotan, mailakatzailerearen eskuinean egongo litzateke (adibidez, *haserretuagoa*).

**11.8c** Adjektiboek bezala, *-a* partizipioek egoera bat adierazten dute. Adibidez, *Mahaia apurtua dago* diogunean, enuntziatuaren denbora tartean mahaia *apurtua* egoeran dagoela baieztatzen ari gara. Berdin gertatzen da adjektiboekin. *Mahaia zikin dago* esaten dugunean, mahaia *zikin* egoeran dagoela baieztatzen ari gara. Alabaina, *apurtua* eta *zikin* ez dira guztiz berdinak. Adjektibozko partizipioak aurretik gertatuko gertaera baten ondorioz indarrean dagoen egoera bat adierazten du; egoera-mailako adjektibo batek, berriz, *zikin*-ek, adibidez, egoera bat deskribatzen du, besterik gabe. *Mahaia zikin* baldin badago, baten batek zikinduko zuen beharbada, baina gertaera hori ez dago syntaxian kodifikatua. Bereizketa horrek berebiziko garrantzia du bi adjektiboen banaketa sintaktikoan. Adjektibozko partizipioak bateragarriak dira gertaera modifikatzen duten moduzko, denborazko eta lekuzko adberbioekin: *Mahaia kontu handiz garbitua dago*; *Pastela atzo goizean amamaren etxean prestatua dago*. Adjektibo soilak, edota adberbio soilak, aldiz, ez: \**Mahaia kontu handiz garbi dago*; \**Pastela atzo goizean amamaren etxean prest dago*.

Adjektibo eta adberbio soilek, hala nola *garbi*-k edo *prest*-ek, ez dute gramatikalki aurrez gertatutako gertaera bat adierazten, eta ondorioz, ez dituzte onartzen balizko gertaera bat deskribatuko luketen moduzko, denborazko eta lekuzko modifikatzaileak. Adjektibozko partizipioek, berriz, gertaera baten emaitza adierazten dute, eta gertaera bera modifikatzea onartzen dute. Horrelako adjektiboei *partizipio erresultatiboak* deritze hizkuntzalaritzan. Adjektiboen eta aditzen ezaugarriak biltzen dituztenez, adjektibozko partizipioak kategoria hibridotzat edo nahasizat hartu izan dira. Aditz izenen eratorpen-bideari jarraituz, esango genuke adjektibozko partizipioak aditzak direla eratorpen sintaktikoaren hasieran, eta ondoren, egitura funtzionaleko puntu batean adjektibo bihurtu direla.

## 11.9. Adberbioak, adjektiboak eta postposizioak

**11.9a** Adberbioa aditzaren inguruko elementuak biltzen dituen kategoria da (ikus 22. kapitulua); aditzak adierazten duen gertaera edo egoera denboran edo espazioan kokatzen dute, edota gertaera edo egoera gauzatzen den modua deskribatzen dute. Kategoria horren barruan askotariko modifikatzaileak sartu

ohi dira: denborazkoak, lekuzkoak, moduzkoak, deitikoak eta abar. Hori eta dela, adberbioak ezaugarritzea zaila izaten da, hein handi batean adberbio kategoriarekin definitzen ditugun hitzen aniztasunagatik.

Adberbioak euskaraz bakunak izan daitezke (*atzo*, *gaur*, *bihar* eta abar) edo konposatuak (*ederki*, *ondo*, *txarto* eta abar). Munduko hainbat hizkuntzatan bezala, adberbio konposatuak adjektiboetatik eratortzen dira oro har, eta eratorpen-atzizki adberbiogileekin eraikitzen dira. Euskaraz, honako atzizki hauekin erabiltzen dira (§ 6.2): *-to*, *-ro*, *-ki*, *-ka* (§ 6.2, § 22.2.2, § 22.4.6I), *-(r)ik*<sup>10</sup> eta *-(e)la*. *-to* eta *-ro* atzizkiak dira gaur egun gutxien erabiltzen direnak. *-ro* Hegoaldean baliatzen da gehienbat, baina *-kirekin* ordezkatzeko hasi da; izan ere, *-ki* da, *-karekin* batera, adberbiogile emankorrena euskal hizkeretan.

**11.9b** Munduko beste hizkuntza batzuetako atzizki adberbio-sortzaileak, adibidez, gaztelaniazko *-mente* eta ingelesezko *-ly*, izenetatik eratortzen dira. Euskarazko atzizki adberbiogile batzuek, aldiz, postposizioetan dute beren jatorria. Esate baterako, *-(r)ik* atzizkia (partizipio erresultatiboetan ere erabiltzen dena) ablatibo zaharrari dagokio (Krajewska 2013), eta *-(e)la* adlatibo zaharrari (de Rijk 2008). *-ki* atzizkia ere postposiziotzat hartu izan da lan batzuetan, adberbioen testuinguruan bertan (Uribe-Etxebarria 2014) eta aditz laguntzaileen eremuan (Fernández 2015)<sup>11</sup>. Horrekin lotuta, aipagarria da *-ki* adberbio batzuk inesibo sintagmekin txandakatzeko direla: *itsuki* vs *itsuan*, *normalki* vs *normalean*, *ezkutuki* vs *ezkutuan* (EGLU-I: 316). Postposizio sintagmen eta adberbioen arteko txandakatzeko ez da oso harritzekoa; izan ere, bi kategoriak dira aditzekin bateragarriak.

Bestetik, Hegoaldeko euskalkietan —gaztelaniaz, latinez eta alemanez bezala—, oso zabalduta dago adjektibo itxura duten hitzak erabiltzea adberbio

<sup>10</sup> Zalantzarik da *-(r)ik* amaieradunak adberbioak ote diren benetan. Izan ere, askotan egoera-mailako predikatuak dirudite (alderatu, esate baterako, *isil* adjektiboa eta *isilik* predikatua, *Jon isila da* vs *Jon isilik dago*). Aditz batekin agertzen diren kasuetan (adibidez, *isilik etorri da*), bigarren mailako predikatutzat har litezke.

<sup>11</sup> *-ki* atzizkia izengilea ere izan daiteke batzuetan, adibidez, *estalki*, *izozki*, *euskalki*, *liburuki* izenetan (§ 4.4.2.3, § 4.4.3.3).

funtzioarekin, zehazki, aditzak adierazten duen gertaeraren modua adberbioak deskribatzen duenean: *aldrebes*, *alfer*, *arin*, *apropos*, *argi*, *artez*, *bikain*, *doto-re*, *erraz*, *garbi* eta abar (§ 14.8). De Rijken (2008) arabera, Iparraldeko euskalkietan *-ki* erabiltzeko ohitura handiagoa da horrelako kasuetan: *aldrebeski*, *alferki*, *arinki*, *aproposki*, *argiki*, *artezki*, *bikainki*, *dotoreki*, *errazki*, *garbiki* eta abar. Hauek dira adibide batzuk de Rijken lanetik (2008: 238) hartuak: *Ene bihotza azkar zebilen* (L. Haranburu); *Oso zintzo portatu gara* (Atxaga); *Dena garbi zekusan* (Olabide).

**11.9c** Nahiz eta forma aldetik berdinak izan, adjektibo itxurako adberbioak darabiltzaten hiztunek garbi bereizten dituzte adjektiboak eta adberbioak. Desberdintasun horren atzean adjektibo itxurako adberbioetan morfema adberbiogile isil bat egon liteke (Agirre Ibarra 2017) edo beharbada gaztelaniako kasuetarako proposatu den izen isil bat (Fábregas & Alexeyenko 2016). Nolanahi ere, banaketa sintaktikoak berak bereizketa egiten laguntzen digu; izan ere, adjektiboak beti agertuko dira izen bat modifikatzen edo predikatu gunean, eta adberbioak, aldiz, aditzak modifikatuz agertzen dira.

## 11.10. *-ka* formak: zenbatzaileak, aditzak, postposizio sintagmak eta adberbioak

**11.10a** Gramatika askotan, *-ka* atzizki adberbiogileen artean zerrendatzen da (ikus hemen § 11.9a, 22. kapitulua eta § 6.2.3), baina batzuetan *-ka* daramaten hitzen kategoria estatusa ez da oso argia<sup>12</sup>. Bada, *-ka* atzizkia askotariko kategoria duten hitzetan aurki dezakegu: zenbait zenbatzaile altutan (*dozena*, *mila*, *ehun*, *milioi*... *dozenaka ikasle*, *milaka pertsona*...), aditz batzuetan (*musukatu*, *harrika egin*...), adberbioetan (*bultzaka sartu*, *saldoka atera*...),

---

<sup>12</sup> Bada beste desberdintasun bat *-ka* adberbioen eta *-ki* adberbioen artean. 11.9b atalean azaldu dugun bezala, *-ki* atzizkiak adjektiboak hartzen ditu osagarri moduan, munduko hizkuntzetan atzizki adberbiogileek egiten duten antzera; *-kak*, ordea, izenak hartzen ditu gehien-gehienetan. Salbuespen gisa, *-ka* adjektiboekin ere ager daiteke, hala nola *herrenka* eta *isil-isilka* kasuetan.

eta erdialdeko euskalkietan, baita postposizio sintagmetan ere (*etxeraka*, *unibertsitateraka*...).

Hainbat lanetan, *-kak* esanahi iteratiboa edo errepikakorra daukala adierazi da (Etxepare 2003; de Rijk 2008), zehazki aditzen eremuan. Berro-k (2017) *-ka* atzizkiaren erabilera guztiak azaltzeko ahalegin batean, *-kak* esanahi metagarria (Krifka 1998; Zwarts 2005, 2008; Rothstein 2004) duela proposatu du.

**11.10b** *-ka* daramaten hitzek askotariko kategoria izan dezaketenez, zaila da *-ka* kategoria zehatz bateko hitzen eratorpen-atzizki gisa irudikatzea (nolanahi ere, ikus § 6.2.3). Horren ordean, pentsa liteke *-ka* atzizkiak esanahi jakin bat gaineratzen duela, baina kategoria adierazpide morfofonologikorik gabeko morfema batek ezartzen duela, hau da, buru isil batek.

**11.10c** Goitiko adibideetan aipatu ez dugun *-ka* atzizkiaren beste erabilera bat da aspektu aditzen osagarriak sortzearena. *-ka* amaiera duten jarduera<sup>13</sup> izenak *egon*, *ari*, *ibili* eta *hasi* aspektu aditzen osagarriak izan daitezke: *Miren saltoka hasi da*; *Miren Joni deika ari zaiol/dabil/dago*. Zentzu horretan, inesibodun aditz izenen antzera jokutzen dute. *-tzen* amaieradun aditzak aspektu aditzen osagarriak izan daitezke: *Miren salto egiten ari da*; *Miren Jon/Joni deitzen ari zaiol/dabil/dago*.

Gune berean agertzeagatik ere, inesibodun aditz izenek eta *-ka* formek ez dituzte ezaugarri berberak. Inesibodun aditz izenak bateragarriak dira absolutiboan edo datiboan markatutako osagarri batekin: *Miren Jon/Joni musukatzen ari da/zaio*; *Miren Jon/Joni deitzen ari da/zaio*. Datiboaren edo absolutiboaren arteko hautua euskalkiaren arabera da (ikus Fernández & Ortiz de Urbina 2010, 2012). *-ka* formak, aldiz, datibo osagarriekin bakarrik dira bateragarriak: *Miren \*Jon/Joni musuka ari da/zaio*; *Miren \*Jon/Joni deika ari da/zaio*.

<sup>13</sup> Instrumentuen edo gorputz atalen izenak ere erabil daitezke *-ka* hitzak sortzeko (*aizkorka*, *harrika*, *ukabilka* eta abar). Nolanahi ere, hitz horiek jardueri egiten diete erreferentzia; instrumentua edo gorputz atala jarduera gauzatzeko erabiltzen dela ulertzen da. Instrumentuen edo gorputz atalen eta jardueren arteko asoziazioa lexikoa litzateke, hots, hitzunek daukaten euskararen jakintzan oinarrituko litzateke.

**11.10d** Goiko atalean (§ 11.5e) ikusi dugun bezala, inesibodun jarduera ize-  
nek ere ezin dute absolutiboz markatutako osagarri zuzenik hartu. Gauza bera  
gertatzen da kategoria nahasiko beste forma batzuetan ere (*eske, adi, so, begi-  
ra*): (\**Gauza ikaragarri bat*) *ametsetan nengoen/ari nintzen*; *Jon (\*mesede  
bat) eske zebilen*; *Jon (\*laguna) adi zegoen*; *Jon (\*laguna) so zegoen*; *Jon (\*la-  
gun) begira zegoen*.

Predikatu horietan absolutibo osagarriaren ordezt, postposizio sintagmak, dati-  
bo osagarriak edo izen biluziak (determinatzailezik gabekoak) erabiltzen dira:  
*Gauza ikaragarri batekin ametsetan nengoen/ari nintzen*; *Jon mesede eske  
zebilen*; *Jon lagunari adi zegoen*; *Jon lagunari so zegoen*; *Jon lagunari begira  
zegoen*.

Absolutibo osagarriak hartzeko ezintasunak aditz kategoriaren faltarekin  
izango du zerikusia ziurrenik, bai *-ka* forma biluzietan (*-tzen* atzizkirik gabe-  
koetan), inesibodun jarduera izenetan zein kategoria nahasiko *eske, adi, so* eta  
*begira* formetan.

## 12. Izena

---

12.1. Hitzak eta kategoriak. **Kategoria motak**

12.2. Izen sintagmaren ardatza

12.3. Izenen sailkapena; 12.3.1. Sarrera; 12.3.2. Izen arruntak eta izen bereziak; 12.3.3. Izen banakariak eta multzokariak; 12.3.4. Izen abstraktuak eta konkretuak; 12.3.5. Argumentu, gertaera, kuantifikazio eta sailkapen izenak; 12.3.6. Izen zenbakarriak eta izen zenbakaitzak; 12.3.7. Izen zenbakaitz neurgarriak eta neurgaitzak; 12.3.8. Izen bizidunak eta izen bizigabeak; 12.3.9. Izen bakunak, eratorriak eta elkartuak; 12.3.10. Izena eta aditza

12.4. Generoa

---

### 12.1. Hitzak eta kategoriak. **Kategoria motak**

**12.1a** Esaldiak hitzekin osatzen ditugu. Hitz horiek hiztegiko hitzak izan daitezke, hiztegi batean zerrendatzen diren modukoak: *etxe*, *esne*, *adiskide*, *izan*... Baina gehienetan, kateaturik ageri direnean, beste hizki batzuk ere izaten dituzte: artikulua, kasu markak, adizkietako markak eta abar: *etxean*, *esnearekin*, *adiskidearentzat*, *ziren*... Hiztegiko hitzei *lexema* esaten diegu, eta *morfema*, berriz, hizkiei<sup>1</sup>. Hitz bakoitzak bere ezaugarri bereziak ditu.

---

<sup>1</sup> Hau ez da beti hola. Batzuetan, hiztegietan lexema bat baino gehiagoz osatutako hitzak ere ageri dira: *etxe* (lexema bat), *burdinbide* (bi lexema); beste batzuetan, lexema eta morfema bat: *burdinketa*, *ariketa*, *dantzari* eta abar. Bestetik, *hizki* hitza “letra” hitzaren ordeko

Badakigu hitz guztiak ez direla parekoak, eta perpaus batean eratzeko orduan jokabide desberdinak dituzte. Hala, *Jonek leiho ondoan telebista ikusten du* esaten baldin badugu, hor ageri diren hitzek beren ezaugarriak dituzte, eta horiei esker badakigu sailetan bana ditzakegula: *Jon*, *leiho* eta *telebista* izenak dira. Aldiz, *ikusten* hitza *ikusi* aditzaren aldaera bat da, ez da izena. Eta *ondoan* hitzean ageri den *-n* hori, demagun, postposizioa da, izena ez den beste elementu bat. Elementu horiek perpausaren barnean duten izaeraren eta jokaeraren arabera, kategoria sintaktikoak bereizten ditugu (ikus 11. kapitulua).

**12.1b** Hizkuntzalarien artean bi kategoria mota bereizi izan dira, ez eztabaidarik gabe, zernahi gisaz, anitzetan ez baita batere erraza batzuen eta besteen arteko mugak bereiztea: lexikoak (izena, adjektiboa, aditza...) eta funtzionalak (postposizioak, menderagailuak, determinatzailea, komuntzadura, denbora...) (ikus § 11.3). Lehenbizikoen propietate lexikoak hartzen dituzte kontuan, eta morfologia aldetik askeak dira (oro har, esan dezagun hiztegiatan ageri diren hitzak direla horiek); bigarrenen propietate sintaktikoak hartzen dituzte, eta gehienetan ez dira, morfologia aldetik, askeak, baizik beste zerbaiti atxikiak. Izena, hortaz, kategoria lexiko bat da. Baina kategoria lexikoen propietate semantikoak bereiztea ez da hain erraza eta gardena izaten batzuetan: ikusiko dugunez, perpausaren ageri den elementu bat izena den edo beste zerbait den jakiteko, argudiobide semantikoak, morfologikoak edo sintaktikoak erabiltzen ditugu. Adibidez, *morfologiari* dagokionez, hitz batzuek, baina ez beste batzuek, determinatzailea hartzen dute eta numeroa ere determinatzailearen ondoan (*ikaslea*, *ikasleak*; *aurka*, *\*aurkak*), hau da, singularra eta plurala bereizteko bidea ematen digute. Izenek, besteak beste, hartzen dute determinatzailea eta numeroa, baina ez adberbioek edo aditsoinek, esaterako. *Sintaxiari* dagokionez, izenak sintagma batzuen oinarrian ageri dira, eta izen sintagmak osatzen dituzte. Sintagma horiek propietate sintaktikoak dituzte, perpausaren barnean funtzio sintaktiko jakin bat betetzen baitute: subjektua, osagarri zuzena...

---

gisa ere erabili da: gure ustez, *letra* zuzenean esatea egokiagoa da, eta *hizki* hitza “hitz zatiak” (ez nahitaez *letrak*) deitzeko erabiltzea egokiagoa litzateke.



Ez da holakorik gertatzen adberbioekin, edo ez, behintzat, modu berean. Azkenik, *semantikari* dagokionez, izenez baliatzen gara pertsonak, gauzak, taldeak, materiak, gertaerak edo bestelako kontzeptu abstraktuak nahiz zehatzak adierazteko.

**12.1c** Ez dira izen guztiak berdinak. Hasteko, *Jone* edo *Elgoibar* izen bereziak dira, baina *mahai* eta *errepide* izen arruntak. Izen bereziak norbait edo zerbait identifikatzeko erabiltzen ditugu: *Maite*, *Lukas*, *Aitziber*, *Auza* edo *Bidasoa*; izen arruntek, berriz, esaten digute zer diren pertsonak edo gauzak: *andre*, *gizon*, *ume*, *mendi* edo *ibai*. Bestetik, izen batzuk soilak dira: *aulki*, *esne*, *mendi*, *herri* eta abar, baina beste batzuk elkartuak edo eratorriak direla esaten dugu: *artzain*, *testuliburu*, *batzar-agiri*, *harpidetza*, *maitasun*, *erosketa*, *elurte*, *gezurti* eta abar. Ez dira, hortaz, hitz bakunak. Elkarketa edo eratorpen horren egitura batzuetan argia da (*testuliburu*, *arnasbide...*), osagaiak aski erraz bereizten ahal baitira, gardenak dira. Aldiz, beste hitz batzuetan —batez ere hitz zahar batzuetan gertatzen da hori—, osaera ez da hain gardenak suertatzen: *errepide* (*errege* + *bide*), *ertzain* (*herri* + *zain*) bezalakoetan, esate baterako.

**12.1d** Izen horiek guztiek, bakarrik nahiz beste elementuren batek lagundurik, izen sintagmak (ISak) osatzen dituzte. Hori dela eta, ISak era askotakoak izan daitezke<sup>2</sup>: *Andoni*; *gizona*; *bost andre*; *bost andreak*; *bost gizon txiki*; *Andoni txikia*; *gure Andoni*; *gure Andoni hori*; *gure bost gizon*; *gure gizon txikia*; *txiki hori*; *bost txiki*; *norbait*; *edonor*; *Euskal Herriko norbait*; *Andoni hura*; *ezagutu dudan lagun bat...*

## 12.2. Izen sintagmaren ardatza

**12.2a** Adibideetan ageri diren sintagma horiek guztiak ISak dira, hots, izena da sintagma horien ardatza. Hortaz, beti agertzen da hor, hitz lerro horretan, izena gutxienez: *Andoni*, *gizon*, *andre* eta abar. Sail horretan sartzen ditugu

<sup>2</sup> Ikus § 2.7, § 2.13 izen sintagmaz (ISaz) eta determinatzaile sintagmaz (DSaz) dioguna.

*edonor* bezalako izenordainak ere. Eta ardatza den izen horrek izan ditzake inguruan beste elementu batzuk: *-a, gure, txiki* edo *bost*, esate baterako.

Hala ere, ohartuko gara izen hori ez dagoela beti agerian: *txiki hori, bost txiki*. Non da, izan ere, adibide horietan ardatza delako izen hori? Kasu horietan izena isilean dagoela esaten dugu, testuinguruak berak erakusten baitu aldi bakoitzean zeri buruz ari garen: *bost (gizon) txiki, bost (andre) txiki, (ume) txiki hori* eta abar. *Gurea* esaten duenak ere, nolabait, *gure den zerbait* edo *gure den norbait* edo holako zerbait ulertzen duela pentsatu behar dugu. Hortaz, ISa elementu desberdinez osatzen bada ere, denetan bada beti, agerian edo ezkutuan, elementu nagusi gisan ageri den bat: izena. ISrik ez da, berez, izenik gabe. Agerian ez bada, ezkutuan egongo da.

**12.2b** ISan agertzen diren elementuak, funtsean, sail bat baino gehiagokoak ditugu: ardatz elementuak (*sagarra*); elementu atributiboak, hau da, adjektibo edo izenondoak (*sagar gorri*); izenlagunak (*arbolako sagar*); determinatzaileak (*arbolako sagar gorria; arbolako sagar gorri hori*), eta zenbatzaileak (*arbolako hainbeste sagar gorri*).

Konturatu behar dugu, zernahi gisaz, hitzak aski erraz aldatzen direla batzuetan kategoriaz. Hola, hitz bera (*hotz* hitza, adibidez) izen gisa agertzen ahal zaigu batzuetan (*hotz handia egiten du*), eta beste batzuetan izenondo gisa (*esne hotza*). Ikusten den moduan, batean eta bestean testuinguru desberdinean ageri da. ISaren ardatza, batean, *hotz* hitza da, izena: *hotz handia* diogunean, *handi* izenondoak kalifikatzen du *hotz* izena, eta izen hori da sintagma-  
ren ardatza. Baina *esne hotza* esaten badugu, IS horren ardatza ez da *hotz*, baizik *esne*, eta *hotz* izenondoak esaten digu zerbait *esne* izenari buruz. Bigarren kasu horretan, bada, *hotz* ez da izena, izenondoa baizik.

**12.2c** Ez da hori izen eta izenondoekin (adjektiboekin) bakarrik gertatzen, hitzen kategoria bikoiztu hauek bestela ere gertatzen baitira. Hola, *gero etorriko da* edo *geroak argituko du kontua* esaten badugu, *gero* hitza ageri zaigu bi perpau-setan, baina batean adberbioa da (*gero etorriko da*) eta bestean IS baten ardatza, izena (*geroak argituko du kontua*), bere mugatzaile eta guzti, hortaz. Hori esatea edo *Koldok argituko du kontua* esatea, testuinguruari dagokionez, gauza bera da.

## 12.3. Izenen sailkapena

### 12.3.1. Sarrera

**12.3.1a** Izenak era askotakoak dira, eta kategoria horren azpian sail bat baino gehiago bereiz daiteke. Hala ere, berehala ikusiko denez, bereizketa hauek egiteko gramatikariek erabiltzen dituzten irizpideak nahiko lausoak dira batzuetan, eta maiz elkarren artean gurutzatzen dira, ezaugarriek ez baitute beti norabide bakarra markatzen. Hizkuntza guztietan gertatzen da hori, eta horregatik beragatik gramatikak ez datoz bat sailkapena hauek egiteko orduan. Batzuetan kasu marken morfologia hartzen da kontuan sailkapena egiteko orduan, (hala, latinak, adibidez, lehen, bigarren edo hirugarren deklinabideko izenak dituela esaten da), edo plurala eta singularra adierazteko sistemak, edo generoa ere. Baina deklinabiderik (ikus § 1.3) ez duten edo izenean generorik markatzen ez duten euskara bezalako hizkuntzatan, bereizketa horiek ez dute zentzu gehiegi. Eta pluralaren erabilera ere gardena da, nahiz, horretaz ari garela, ñabardura batzuk agerian utziko ditugun. Hemen, zernahi gisaz, gure sailkapena egiteko orduan, erdiko bidea hartu dugu, eta kontuan izan ditugu gramatiketan gehien erabiltzen diren irizpideak.

**12.3.1b** Irizpide morfologikoak, semantikoak eta sintaktikoak erabiliko ditugu izenen arteko bereizketak egiteko, baina irizpide horiek ez dira beti gardanak eta balio zuzenekoak, askotan elkarren artean gurutzatu egiten baitira, berehala ikusiko denez. Hasteko, goian esan bezala (§ 12.1c), izenak arruntak (*etxe, arima, min*) edo bereziak (*Baztan, Lekeitio, Eider*) izaten ahal dira (§ 12.3.2). Izen arrunten artean, bestetik, bi multzo bereiz daitezke (§ 12.3.6): zenbakarriak (*sagar, liburu, kale*) eta zenbakaitzak (*ohore, edertasun, ke*), eta badira hor ere bietara erabiltzen ahal direnak. Izen arrunt zenbakarrien artean badira bizidunak<sup>3</sup> (*seme, jende, andre*) eta bizigabeak (*mendi, herri, mahai*)

<sup>3</sup> Ohikoa denez, *bizidun* terminoa erabiltzen dugu hemen, ez zalantzarik gabe (kontuan izan, adibidez, landareak ere bizidunak direla). Izan da *animatu* proposatu izan duenik ere. Biak baliokideak dira gure erabileran.

(§ 12.3.8). Betiere, gero ikusiko denez, bizidun/bizigabe bereizketa hau hitz egiteko modua da, sailkapen mota bat egiteko modua, kontua ez baita hain sinplea, hori baino pixka bat nahasiagoa da. Besteak beste, bizidun marka hori pertsonen izen bereziek (*Eider, Mari, Patxi*) ere badute, eta ez bakarrik, hortaz, izen arrunt batzuek. Esan dezagun, bestetik, izen zenbakaitzen artean badirela neurgarriak (*irin*) eta neurgaitzak (*maitasun*) (§ 12.3.7).

**12.3.1c** Bereizketa gehiago egin behar da, zernahi gisaz: semantikarekin lotura handiagoa duten irizpideei jarraituz, gramatiketan izen banakoen (*alkate*) eta multzokarien (*familia*) arteko bereizketa ere egin izan da (§ 12.3.3); baita izen konkretu (*leiho*) eta abstraktuen (*zailtasun*) artekoa ere (§ 12.3.4).

**12.3.1d** Horrez gain, jokabidearen arabera, argumentudun (*laburpen*), gertae-radun (*istripu*), kuantifikaziodun (*baso*) eta sailkapendun (*mota*) izenak bereizten dira gramatiketan (§ 12.3.5). Eta morfologiaren ikuspegitik, berriz, izen bakunak (*liburu*), eratorriak (*liburugintza*) eta elkartuak (*eskuliburua*) (§ 12.3.9).

Horiek guztiak ikusiko ditugu segidan banaka-banaka.

## 12.3.2. Izen arruntak eta izen bereziak

**12.3.2a** Izen sintagma osatzeko, zenbait izenek nahitaezkoa dute, arruntean, mugatzaile deitzen den elementuren baten laguntzan agertzea (*emakumea ibili da gure bila* / \**emakume ibili da gure bila*), zenbatzaile baten (*bost emakume ikusi ditugu*), edo bien —mugatzailearen eta zenbatzailearen— laguntzan agertzea (*bost emakumeak ikusi ditugu*).

Izen sintagma osatzeko determinatzailearen beharra (eta gehienetan mugatzaile deitzen dugunaren beharra) duten izenak izen arruntak direla esaten dugu. Hortaz, *leku, zuhaitz, txakur* edo *liburu* izen arruntak dira, eta determinatzailea behar dute.

Izen sintagma osatzeko mugatzailearen beharrik ez duten izenak izen bereziak direla diogu: *Joxe, Paris, Ines* eta abar<sup>4</sup>.

---

<sup>4</sup> Gaurko euskaran hau da erabilera bakarra, pertsona izenei dagokienez, testu klasikoetan *Aita San Franziskua* edo *Jesusa* (*Jesus*-en ordezt) bezalako adibide bakan batzuk ageri badira ere.

**12.3.2b** Izen bereziek erreferentzia zehatza dute, ez dagozkie espezie bereko izaki guztiei, izaki jakin bati baizik. Alde horretatik, *Axular*, *Koldo*, *Itziar* pertsona izenak, edo *Ataun*, *Gasteiz*, *Matxinbenta*, *Paris*, *Londres*... leku izenak, edo *Jakin*, *Erein* edo antzeko izenak erreferentzia bakarrekoak ditugu. Ez dute berezko esanahirik, zuzenean izaki bati egiten baitiote erreferentzia. Horregatik dira izen bereziak. Eta, ikusten denez, ez dute mugatzailerik ere. *Haritz* norbaiten izen berezia edo zuhaitz mota bat ere izan daiteke. Lehenbiziko kasuan, bere gainean izen hori daraman pertsonak edo izakiak berez dituen ezaugarriekin lotzen dugu “Haritz”. Eta gerta daiteke bi *Haritz* aurkitzea eta biak oso desberdinak izatea elkarren artean. Aldiz, *haritz* izen arruntak sail bat osatzen duten zuhaitz batzuei egiten die erreferentzia, eta, alde horretatik, klase horretako izaki guztiek, zuhaitz guztiek, propietate eta ezaugarri komun asko dituzte, hain zuzen ere, izen horrek bildu nahi dituen guztiak. Badu hitz horrek berezko erreferentzia, ezaugarri horiek guztiek ematen diotena. Hortik, ezaugarri multzo horretatik, ateratzen da *haritz* hitza. Beraz, printzipioz, izen bereziek ez dute determinatzaile hartzen, eta arruntek bai. Hori da haien arteko bereizketa egiteko erabil dezakegun lehenbiziko irizpidea. Irizpide morfoloikoa da.

**12.3.2c** Gauzak ez dira, ordea, hain sinpleak: zenbait esamoldetan izen bereziek erakuslea har dezakete, eta baita mugatzailea ere, testuinguru egokia ageri bada: *Ines honek zer uste du!*; *Peru gurea Londresen bizi da* eta abar. Baina, ikusten denez, artikulua ez du izenak berak zuzenean hartzen, baizik izen berezia ardatz duen sintagmak, esaterako, adjektiboak, izenaren ondotik adjektiboa jartzen bada: *Jean handiak egin zuen hori*; *Axular jakintsuak idatzi zuen liburua*. Hauetan badirudi dagoeneko erreferentzia garbia delarik (*Axular*), igorleak erreferentzia horren ezaugarri bat nabarmentzeko lizentzia hartzen duela. Horiez gain, badira *toki izena + oso/guzti/gehiena*... eta horien antzeko esapideak, erreferentzia zehazteko balio digutenak (*Mosku osoa ongi ezagutzen dugu*; *Frantzia guztia/gehiena bere menpe hartu zuen*) eta abar.

Izen sintagman perpaus erlatibo bat ere agertzen bada, orduan izen bereziak, zerbait hartzekotan, erakuslea hartzen du, baina ez mugatzailea: *Hau ez da nik ezagutu nuen Joxe* (edo *Joxe hura* / \**Joxea*). Izen berezi batzuek, dena dela,

mugatzailea hartzen dute: *Bizkai* baina *Donostia* (ikus § 12.3.2l). Zernahi gisaz, eta salbuespenak salbuespen, determinatzailea hartu ahal izatea edo ez, horrek bereizten ditu formalki izen bereziak eta arruntak, ikusten den gisan.

**12.3.2d** Semantika aldetik ere bereizten dira izen bereziak eta izen arruntak, eta hori da erabil dezakegun bigarren irizpidea. Izen arruntak sail edo espezie bateko gauzak edo izakiak (pertsonek, gauzak, taldeak, materiak, gertaerak, kontzeptu abstraktuak) aditzera emateko erabiltzen dira: *gizon*, esate baterako, izen arrunta da, eta *gizon* diren izaki guztiei aplikatzen zaie; *etxe* ere arrunta da, eta *etxe* guztiei aplikatzen zaie. Izen arruntak sail edo mota batean biltzen diren izakiei aplikatzen zaizkie, ikusten denez. Baina *Andoni* edo *Paris* izaki jakin bati bakarrik aplikatzen diogu, ez kategoriatan, eta izen bereziak direla esaten dugu, hortaz. Nolabait ere esateko, izaki bakarrak dira. Balio denotatiboak dute, ez dute esanahirik: *gerezi* bat zer den badakigu, hiztegi batean behatu dezakegu, baina ez dakigu, ordea, zer izan daitekeen *Andoni* bat. Ez dugu hiztegian aurkituko. Horregatik, izen bereziak, arruntak ez bezala, ezin dira beste hizkuntzatarara itzuli, jatorri bereko baliokideak aurkitu behar dira.

**12.3.2e** Hori da erabili izan den irizpide klasikoa. Badira arazoak, zernahi gisaz: Euskal Herrian bertan baditugu bi herri *Getaria* izenekoak, bat Iparraldean eta bestea Hegoaldean. Era horretako kasu asko dago: *Durango* bat bada Bizkaian, eta beste bat Estatu Batuetan; Euskal Herrian bada *Bizkaia* bat, baina baita Filipinetan ere. Eta *Andoni* asko dago munduan. Baina ez dute izen horiek kanpotik identifikatzeko moduko kategoriarik osatzen: munduko *etxeek*, elkarren artean desberdinak badira ere, badituzte ezaugarri komun batzuk, gutxienekoak badira ere; aldiz, munduan izan daitezkeen *Andoni* horiek ez dute, *gizonak* izateaz aparte, ezaugarri komunik, kasualitatez ez bada. Izen bereziak berez daude determinatuak, baina izen arruntek determinatzailea behar dute. Izen arruntak bakarrik ageri dira hiztegiatan. Izen bereziak ezin, ez baitute inolako esanahirik. *Axularri* buruz ari baldin bagara, *Axular* izeneko norbaitek zituen propietate eta ezaugarriekin lotzen dugu.

Munduari buruz dugun informazioak erakusten digu, azken batean, zein den izen berezia eta zein arrunta. Geografia izenak, herri eta hirienak, pertsonen izenak, marken izenak eta abar izen bereziak dira askotan (*Londres*, *Elizondo*,

*Miren, Volvo* eta abar). Kanpoko izenak gureganatzen ditugunean, artikulua kentzeko joera dugu (*Kairo*).

**12.3.2f** Zenbait kasutan, ordea, bi irizpide horiek (determinatzailea izatea edo ez; erreferentzia bakarra izatea edo ez) gurutzatu egiten dira edo, beste hitzetan esateko, bereizketa egiteko baliatzen ditugun irizpideek ez dute beti emaitza bera ematen. Adibidez, *Volvo* izen berezia da, dakigun gisan, konpainia baten izena, baina *Volvo bat erosi dute etxean* esaten badugu, izen berezi horri determinatzaile bat erantsi diogu: '*Volvo markako auto bat*' adierazi nahian erabiltzen da. Eta prozesu bera gertatzen da beste izen berezi batzuekin ere: *Haren mintzaldia entzun nuenean Demostenes baten aitzinean nintzela pentsatu nuen*. Hitz horiek hitzunak, holakoetan, izen arrunt gisan erabiltzen baditu ere (*Zenbat Axular uste duzue dagoela gela honetan?*; *Donjuanak agertu dira orain herri hartan*), ez du kontzientzia galdu izen horien jatorriaz, eta badaki hasieran izen berezi bat dagoela hor<sup>5</sup>. Eta gainera, izen berezi horiek nolabaiteko ezaugarri berdinak dituzten izakien kategoria baten adiera eman nahian erabili dira. Beste batzuetan, gerta daiteke jatorrian izen berezia zena izen arrunt izatera pasatzea: mukiak kentzeko *klinexak* maite dituzte batzuek, zapi baten marka izen arruntera oharkabean pasaturik; *mentore* erabil dezakegu, baina segur aski ez gara ohartzen Odisean ageri den Telemakoren aholkularia zela Mentor. Azkenik, hitzun askok *bikak* erabiltzen dituzte idazteko, Bic bolalumetatik hartu ondoren izena.

**12.3.2g** Badira, bestetik, alderantzizko bidea eginez orain, itxuraz bederen, izen arruntak izanik ere, erreferentzia jakin eta bakarra dutenak. Kasu argia da *Jaungoikoa*-rena, adibidez. Baina gauza bera gertatzen da *errege* (literatura klasikoan bederen, nahiz artikuludun adibideak ere ez diren falta), *amabitxi*, *aita*, *aitatxo*, *ama*, *amatxo*, *osaba* eta abarrekin. Munduan *errege*, *aitatxo* eta *amabitxi* asko dago, eta alde horretatik izen arruntak dira; baina erreferentzia bakarra eta zuzena adierazi nahian erabiltzen direnean, determinatzailerik gabe erabiltzen ditugu: *amabitxi Begoña*.

<sup>5</sup> Ikusten denez, *Volvo*, *Demostenes*, *Axular*... izenen hasierako letra, larria erabili da adibideetan, nahiz holakoetan zalantzak izan daitezkeen.

**12.3.2h** Gauza bertsua gertatzen da, neurri batean, berezia den zerbaiti izen arrunta jartzen diogunean (bide batez, izenondoa ere izan daiteke), adibidez, erakundeekin (*Eusko Ikaskuntza*), aldizkari-egunkari izenekin (*Berria*, *Deia*, *Argia*) edo etxe izenekin (*Ametsa*, *Etxeberria*, *Apezetxea*...). Baina horietan sortutako izen berezia artikulua eta guzti azaltzen da. Kasu horietan egokiena eta argiena *Herria*-tik, *Deia*-tik edo *Argia*-tik idaztea da. Berdin gertatzen da elkarte batzuen izenekin ere: *Gure etxea*-tik, *Arrano Beltza*-tik... (nahiz *Arrano Beltzetik* ere idazten duten batzuek), *Mutiko alaiak*-era, *Lagun onak*-ekin eta abar. Batzuek “taldea”, “elkartea” edo antzeko izena gaineratzeko joera dute (*Mutiko alaiak elkartera*), naturalago bihurtuz sintagma. Zaila da gero hor arau estuak eta zehatzak ematea: *Deiara bidali dut*; *Argiakoe hori uste dute*; *Herriatik jakin dugu* eta abar arruntak dira, batez ere ulertze arazorik sortzen ez badute. Sintagmak hartzen ditugu izen berezizat, artikulua bereganatu izan balute bezala. Berdin gertatzen da elkarte batzuen izenekin, edo alderdien izenekin ere: *Gure etxea*-tik, *Arrano Beltza*-tik, *Eusko Alderdi Jeltzalea*, *Alderdi Komunista*, *Herri Batasuna*, *Euskadiko Alderdi Sozialista*... Badira izen berezi batzuk pluralez (*Euskaldunak*) edo postposizio bidez (*Lagunekin*) eratuak. Ez da falta *San Joseren* bezalakoren bat ere, afixek Getxon erakusten duten gisan. Holakoetan egokiena da sintagmatzat hartzea eta beti marra erabiltzea sintagmari zerbait eransten bazaio.

**12.3.2i** Baina artikulua berekin duten izen bereziekin ari garelarik, badira bestelako jokabidea agertzen dutenak ere, postposizioak eranstean artikulua galtzen dutenak. *Euskaltzaindia* bera ere izen berezia da, elkarte bakarra dago munduan izen horrekin, baina hor ere mugatzailea ageri da, eta izen arruntekin bezala erabiltzen dugu: *Euskaltzaindiak esan du*; *Euskaltzainditik etorri da berri hori*... Ez dira gutxi, hala ere, *Euskaltzainditik* esan beharrean \**Euskaltzaindiatik* esaten dutenak, mugatzailea izenaren parte hartuz. Baina ez da kasua, *-a* hori ez da izenaren parte, mugatzaile arrunta baizik. Eta mugatzaile guztiakin gertatzen den gisan, batzuetan ez da jarri behar (ikus 15. kapitulua): *mendian/Euskaltzaindian* bai, baina *mendiko/Euskaltzaindiko*, *mendirako/Euskaltzaindira*, *menditik/Euskaltzainditik* eta abar. *Euskal Herria* izenarekin gertatzen den bezal-bezala, horrek ere galtzen baitu artikulua zenbait kasutan: *Euskal Herrira*, *Euskal Herritik*.



**12.3.2j** Arazo bat gertatzen da asteko egunen, hilabeteen eta urtaroen izenekin ere. Horiek guztiek erreferentzia zuzena izan arren, artikuluekin ematen ditugu beti: *astelehena, azaroa, udaberria...* Horren arrazoia izan daiteke, beharbada, jatorriz horiek hitz arruntak direla (*lehen, aro, aste, uda, berri...*). Egun izen arruntak dira, nahiz beste hizkuntza batzuetan letra larriz idazten diren, euskaraz ez bezala, eta mugatzaile gabe ere agertzen dira: *today is Sunday; agosto llegaba a su fin; en avril ne te découvre pas d'un fil* eta abar. Euskaraz ez da halakorik, eta mugatzailea behar du. *Gauerdi* eta *eguerdi* hitzak bietara ageri dira, artikulua gabe edo artikuluekin, euskalkien arabera. Hau lotuago dago, hain segur ere, beste jokaera zabalago batekin: badirudi euskal sintaxiak ezinbestean eskatzen duela, izenen edo izenondoan kasuan, hauek beti determinatzailearekin agertzea. Hola, etxe bat irudikatzen duen margolan baten azpiko aldean *maison, house* edo *casa* jarri badaiteke ere, euskaraz nahitaez *etxea* behar dugu, mugatzailearekin, beste hizkuntzetan ez bezala. Beste hitzetan esanda, euskaraz aipu-forma mugatzaile eta guztikoa da. Artikuluak ez ditu bereizten, hortaz, argi eta garbi izen bereziak eta arruntak (§ 12.3.2l), baina badirudi, zernahi gisaz, nahiko irizpide bidezkoa dela.

**12.3.2k** Dena den, egia izanik ere izen bereziak artikulurik gabe ditugula euskaraz, eta alde horretatik beste hizkuntza batzuetan baino muga itxia-goak ditugula (*Antton* / baina *el Antonio*), zenbait hizkuntzatan izen bereziek badute beste ezaugarri bat: ezin dute adjektiborik hartu; euskaraz, aldiz, ez da arazorik, betiere determinatzailea ageri bada, lehentxoago esandakoaren arabera: *Axular handia; Andoni txikia; Mikel gizona; Paris ederra; Erroma ikusgarria* eta abar. Kasu bakan batzuetan izen berezi horiek izen arrunt gisan erabil ditzakegu: *Lau picasso erosi zituen; Baditut etxean txillida batzuk* eta abar. Beste testuinguru batzuetan ere berdin gertatzen da: *Herri horretan batek daki zenbat Aramendi dagoen*. Zenbait kasutan, *bat* zenbaitzailea ere erabiltzen da adierazgarriak izan daitezkeen adibide mota batzuen berri emateko: *Musikari horrek badu Mozart baten indarra, baina ez da Mahler bat bezain merke-itsaskorra*. Hizkera arruntean posible da ponte izenarekin posesiboa erabiltzea ere: *Peru gurea Londresen; Non dabil zuen Andoni?; Bai alferra zuen Maite!* Edo erakuslea: *Hara Peru horrek zer egin duen azkenean*.

**12.3.21** Leku izenekin sortzen dira anitzetan zalantzak. Leku izen bereziak izanik (beraz, mugatzaile gabekoak behar lukete), izen horietako batzuk *-a* bokalez bukatzen dira, eta letra hori, zenbait kasutan, mugatzailea da (*Azpeitia*, *Azkoitia*, *Bizkaia* eta abar). Ez, ordea, beste kasu batzuetan (*Donostia*). Eta kasu markak eransten direnean kontuan izan behar da hori: *Donostia* izenak berezkoa du *-a* hori, hitzaren zatia da (berez *Donostia*, *Donostiatik*, *Donostiara*, *Donostiako* eta abar), baina *Azpeitia* hitzean ageri dena ez da hitzaren zatia, artikulua baizik (eta, hortaz, *Azpeitia*, *Azpeititik*, *Azpeitira*, *Azpeitiko* eta abar).

*Azpeitia* bezalakoek postposizioak hartzen dituztenean (ikus 19. eta 20. kapituluak), artikulua galtzen dute, ez baitugu, nonbait, izenaren parte sentitzen determinatzaile hori: *Azpeitian bizi da*, eta *Azpeititik etortzen da egunero* esaldian, adibidez, argi ikusten da artikulua *mendian / menditik* bikotean bezala erabiltzen dela, edo galdu<sup>6</sup>. Modu paraleloan erabiltzen dira biak, biek mugatzailea dutela. Gauza bera gertatzen da lehentxoago aipatutako izen batzuekin.

*Donostia* izenaren eredia (berezko *-a* dutela, orduan) segitzen dute *Abaltzisketa*, *Aduna*, *Antzuola*, *Astigarraga* eta gisa horretakoek, pentsatzekoa denez. Baina sail berekoak dira *Gabiria*, *Getaria*, *Ibarra*, *Lasarte-Oria*, *Ordizia* eta *Zestoa* (Gipuzkoa), baita *Gipuzkoa* bera ere; *Leioa*, *Lemoa* eta *Ondarroa* (Bizkaia); *Burundia*, *Guardia*, *Zigoitia*, *Zuia*, *Arrastaria* (Araba); *Aria*, *Artaxoa*, *Atarrabia*, *Donamaria*, *Legaria*, *Mendabia* (Nafarroa) eta *Nafarroa* bera ere; *Ainhua*, *Getaria*, *Hendaia*, *Makea* (Lapurdi); *Arberoa* (Nafarroa Beherea). Horietan guztietan izena bere osotasunean errespetatu behar da.

*Azpeitia* izenaren eredukoak (*-a* mugatzailea dutenak) dira *Azkoitia*, *Hondarribia*, *Olaberria* (Gipuzkoa); *Berriatua*, *Busturia*, *Ermua*, *Etxebarria*, *Forua*, *Mallabia*, *Mañaria* (Bizkaia) eta *Bizkaia* bera ere; *Arratzua-Ubarrundia*, *Asparrena*, *Erriberabeitia*, *Erriberagoitia*, *Harana*, *Urizaharra* (Araba); *Abaurregaina*, *Aburrepea*, *Ameskoabarrena*, *Basaburua*, *Elizagorria*, *Ergoiena*,

---

<sup>6</sup> Ez da atal honetan lantzeko kontua. Baina gramatikari askok uste dute hor ageri den *-a* hori ez dela artikulua, postposizioa baizik: nola esplika bestela *lanean* esaten dela, eta ez *\*lanan*?

*Erromantzatua, Iruñea, Itzagaondoa, Mendigorria, Olatzagutia, Otsagabia* (Nafarroa). Horietan guztietan artikulua kentzen da zenbait kasutan (ikus Euskaltzaindia, Onomastika arauak).

*Iruñea* hitza guztiz berezia da. Euskaraz *Iruñea* onartu zuen Euskaltzaindiak, azkeneko *-a* hori artikulua zuela. Hortaz, azken sailekoa litzateke: *Iruñeko, Iruñetik, Iruñera...* Baina Iruñeko udalak erabaki zuen<sup>7</sup> euskal izena *Iruña* dela, eta ez *Iruñea*, eta gero ontzat eman *Iruñeko, Iruñetik, Iruñera...*, Euskaltzaindiak erabakitakoa segituz. Kasu bakarra litzateke hori euskaraz, *Iruña* izanik izena, horrek *Iruñako, Iruñara*, edo *Iruñatik* eman behar bailuke. Kasu honetan, Euskaltzaindiaren erabakia eta udalarena ez datoz bat. Guk hemen *Iruñea* erabiliko dugu beti, Euskaltzaindiak onartu zuen gisan, azkeneko *-a* hori artikulua duela.

Arlo honi dagozkion Euskaltzaindiaren arauak honako hauek dira: 92, 108, 122, 140, 141, 145, 150 eta 155.

**12.3.2m** Izen bereziak direla eta, beti izan da gure artean etxearen izena eta jabearena batera emateko ohitura: norbait izendatzeko, etxearen izena gehiago erabili izan da deitura baino. Baina tradizioa ez da berdina izan mendebaldean eta ekialdean. Badirudi etxeen izenetan ekialdean maizago erabiltzen dela artikulua mendebaldean baino. Hala ere, nekez aurki daitezke hemen lege zorrotzak leku batean eta bestean nola esaten den, non eta ez den ikerketa sakonagorik egiten arlo horretan. Hala, etxe baten izena *Haranburua* izaten da ekialdean, edo *Etxeberria*, baina usuago entzuten dira *Kaminburu* edo *Etxeberri* eta gisakoak mendebaldean. Etxeko nagusiei, zernahi gisaz, *Haranburu* edo *Kaminburu* deitzen zaie, ekialdean: kasu honetan artikulua kentzen zaio, ikusten den gisan.

Izen berezien artean badira pertsona izenak (*antroponimoak*), animalien izenak (*zoonimoak*), leku izenak (*toponimoak*), ibaien izenak (*hidronimoak*) eta

<sup>7</sup> Ezin da ahaztu udalerrien izen ofiziala udalek erabakitzen dutela, haiena dela eskumena.

abar. Pertsona izenetan *ponte izenak* (*Miren, Ibai*) eta *deiturak* bereizten dira. Pertsona batzuek badituzte *ezizenak* (*Hankamotz, Sudurluze...*). Beste batzuek *izengoitiak* erabiltzen dituzte (*Larresoro, Txillardegi...*). Jendeen artean izen *hipokoristikoak* ere ez dira falta: *Maitetxo, Josetxo, Pello, Mattin* edo *Bettiri* gisakoak. Badira izen *patronimikoak* ere, *ponte izenetik* eratorriak: *Antsorena, Hernandorena, Domintxenea, Tomasenea* eta abar.

**12.3.2n** Gauzak horrela, esan dezagun, orain arte aipatutakoa bilduz, izen batzuek determinatzailea hartzen dutela, eta beste batzuek ez. Determinatzailea hartzen duten izenen artean daude izen arruntak (*mendi, etxe, kale, ume, andre, eskola...*), astegun, hilabete eta urtaroen izenak (*ostegun, larunbat, urtarril, irail, udaberri...*) eta zenbait herri eta lurralderen izenak (*Azpeitia, Bizkaia, Otsagabia...*, nahastu gabe *Donostia, Zumaia* modukoekin, artikulua itxura izanik ere ez baita azkeneko *-a* hori artikulua). Beste izen batzuek, ordea, ez dute mugatzailerik hartzen: pertsona eta leku deiturak (*Andoni, Eider, Agirre, Ataun, Anboto, Luzaide, Ainharbe...*). Mugatzailea hartzea edo ez hartzea da marka morfologiko argiena izen arruntak eta bereziak elkarren artean bereizteko, baina batzuetan ez da betetzen arau hori, ikusi dugunez. Aipua forma, beste hizkuntza batzuetan ez bezala, artikuluduna da euskaraz.

### 12.3.3. Izen banakariak eta multzokariak

**12.3.3a** Izen arruntak ez dira denak berdinak. Gure gramatiketan izen arrunt zenbakarriak (*ate, gezur, auto*) eta zenbakaitzak (*gorroto, maitasun, beldur*) eta horien gisakoak bereizi izan dira. Horiek berehala ikusiko ditugu (§ 12.3.6), baina horietaz gain badira beste bereizketa batzuk ere.

Gramatika batzuetan, semantikan oinarrituz eta askotan bereizketa argia ez izanik ere, izen arrunt banakariak eta multzokariak bereizten dira. Banakoak dira, adibidez, *alkate, liburu* edo *leiho* izenen gisakoak. Eta multzokariak dira *artalde, armada, familia, batzorde, barride* edo *biztanleria* bezalakoak, izaki berdinek osatutako multzoak baitira. Euskaraz, holakoetan, eratorpena jotzen dugu anitzetan: *gazteria, jendetza, arautegi* eta abar.

**12.3.3b** Nolanahi ere, multzokarizat har daitezkeen izenak aztertzen hasita-koan, laster oharitzen gara irizpide semantikoak lausoak gertatzen direla (*egun-kari* bat, esaterako, artikulu edo bestelako lan idatzien bilduma baizik ez da), eta sintaxiak ere ez du askotan argitzen. Esan daiteke izen multzokariak, plura-leko adiera izanik, singularreko determinatzailea eta komunztadura hartzen dutela (*gure familiak bazkaria du*) eta askotan predikatu simetrikoak eta kolektiboak... (*armada bidegurutzearan bildu zen...*) eta abar. Horrek ez du esan nahi, jakina, beti singularrean erabili behar direnik: *Bi familiak elkartu ziren*.

**12.3.3c** Bestalde, sintaxiari begiratu, hitz batzuk banakariak izan daitezke batzuetan, eta multzokariak besteetan. Horrelakoa da *jende* izena, honako adibide hauek erakusten duten gisan: *Anitz jende sartu zen han; Jendea ez dator bat horrekin*. Banako erabilerak Iparraldean pisu handiagoa izan du, eta *persona* hitzaren baliokidetzat ere erabili izan da; Hegoaldean maizago, berriz, multzokari gisa. Hola, esate baterako, *Jende baten ohorearen kontra; Nork daki beste zenbat mila jenderekin; Hiru jenderen izenak ditut galdo; Etxe bakarretik hiru, lau jendetaraino eraman zituena...* ageri dira idazle klasikoe-tan<sup>8</sup>. Gaur egun multzokari gisa gehiago erabiltzen<sup>9</sup> bada ere, ez dira falta bako moduko adibideak, eta ez bakarrik Iparraldeko idazleen artean: *Hogeita bost mila jende Iruñako Aberri egunean; Euskadiko jende askok ez du igarri ere egiten daukagun euskal sentimendua; Hogeit mila jende pasatu ziren...* Esan dezagun, hortaz, *jende* izena multzokaria izanik ere, zenbaitetan *perso-naren* ordaina dela, nahiz ez den aurrekoa bezain hedatua.

#### 12.3.4. Izen abstraktuak eta konkretuak

**12.3.4a** Gramatiketan izen abstraktuak eta izen konkretuak ere bereizi izan dira. Materialak ez diren prozesu edo ezaugarriak izendatzen dituzte lehenbi-

<sup>8</sup> OEH: *Jente baten ohoriaren kontre* (Bp I 102); *Nork daki beste zenbat mil jenderekin* (Mb Iarg I 368); *Hirur jenderen izenak dütüt galtho* (Egiat 238); *Etxe bakarretik hiru, lau jendetaraino eraman zituena* (HU Aurp 161).

<sup>9</sup> *Jende* hitzaren erabileraz Montoya (2006: 163-174) ikus daiteke.

zikoek (*maitasun, handitasun, edertasun, gogoeta, sustapen, bizitza, desira*), bigarrenak ez bezala (*neska, katu, olio*), baina ez da ikusten gramatika aldetik horiek baduten ezaugarri berezirik. Gramatikariek filosofiatik bildu dituzte bereizketa horiek.

**12.3.4b** Morfologia hartzen bada kontuan, ikusten dugu gehienetan izen eratorri edo elkartuak direla izen abstraktuak, eta askotan oinarritzat izenondo edo aditz bat hartzen dutela: *bakardade, handitasun, ugalketa, bortizkeria* eta abar. Zenbaitetan, gainera, ez da erraza izaten mugak ongi bereiztea. Esaterako, *eragin* hitza abstraktua da, baina *aurpegian ikusten duzu eman diozun muturrekoaren eragina* perpausean badirudi zehatza den zerbaiten aurrean gaudela (berez, *eragina* abstraktua izanik, aldi berean *ikusi* aditzaren objektu zuzen konkretua da). Edo *bortizkeria* hitza: abstraktua izanik ere, *estatuaren bortizkeriak* aipatzen baditugu badirudi konkretua den zerbaitez ari garela.

**12.3.4c** Badira, bestetik, nahiz aski gutxi diren, pluralean bakarrik ageri diren izenak: *galtzak*, esate baterako. *Pluralia Tantum* esaten zaie holakoei. Sail horretakoak dira *aizturak, guraiizeak, hiletak* (singularrean ere erabiltzen da), *prakak* eta, gehienetan bederen, *betaurrekoak* bezalakoak.

### **12.3.5. Argumentu, gertaera, kuantifikazio eta sailkapen izenak**

**12.3.5a** Badira beste bereizketa batzuk ere izenen artean. Izenak argumentudunak, gertaerazkoak, kuantifikatzaileak eta klasifikatzaileak izaten ahal dira. “Argumentu” hitza hemen anbigua gertatzen da. Oro har, gramatikan “predikatu” nozioari lotua ageri da (*hartu* aditzak ‘zerbait’ hartzea eskatzen du, argumentu bat eskatzen du), baina hemen argumentuak eskatzen dituzten izenei buruz ari gara. Hori dela eta, esan dezakegu izen argumentudunek parte hartzaileak eskatzen dituztela, osagarri argumentalak, duten esanahia-gatik. Hala, *irakurketa* edo *irakurtze* (besterik gabe) izenek ‘norbaitek zerbait irakurtzea’ eskatzen dute. Gauza bera gertatzen da *sakontasun* izenarekin, horrek beti eskatzen du beste zerbait inguruan, eta agerian ez bada ere, bada-kigu hor dela testuingurutik: ‘zerbaiten sakontasunaz’ aritu behar dugu beti.

Horrela, esaterako, *leihoa handia da* diogunean *leihoa* bakarrik doa, ez du ezer ere eskatzen aldamenean, baina *sakontasuna handia da* esaten badugu, badakigu ‘zerbaiten sakontasuna’ dela, itsasoarena, adibidez. Izen horiek, bada, inguruan beste parte hartzaile batzuk eskatzen dituzte. Sail horretakoak dira *sarrera* (adiera batean), *laburpen*, *aitzindari*, *hasiera* edo *argazki* moduko izenak. Eta aditz izen guztiak: *sartze*, *hartze*, *ikuste*, *etortze* edo *jate* gisakoak, alegia. Izen horiek aditzak berak hartzen dituen argumentuak behar dituzte, nolabait ere esateko, aditzak dituen argumentu berak heredatzen dituzte: ‘nor bait sartzea’, ‘norbaitek zer bait sartzea’, ‘norbaitek zer bait ikustea’, ‘nor bait etortzea’, ‘norbaitek zer bait jatea’ eta abar. Nolakotasuna adierazten duten izenak ere sail berean sartzen ditugu: *goxotasun*, *garbitasun*, *edertasun*... Parekoak dira, argumentuei dagokienez, *mutil hori goxoa da* eta *mutil horren goxotasuna*, *kalea garbia da* eta *kalearen garbitasuna*, edo *argazkia ederra da* eta *argazkiaren edertasuna*. Ohartzen gara, bada, argumentu izen gehienak aditz baten edo izenondo baten gainean eraikiak daudela, edo bestela *argazki* izenen motakoak (*argazki*, *koadro*...) edo erlazioa adierazten dutenak (*lagun*...) direla.

**12.3.5b** Izenaren inguruko osagai guztiak ez dira, jakina, argumentuak: *mendiko harria* esan dezakegu, baina hor *mendiko* hori aukerakoa da. Berdin gertatzen da *gaurko egunkaria* esaten badugu ere. *Egunkari* izenak ez du ezinbestean beste osagarririk eskatzen, baina *gaurko egunkaria* diogunean, izen hori *gaurko* osagaia inguruan duela ageri da. Euskaraz *-ko* marka erabiltzen dugu holakoetan, ez dugu bestelako biderik sintagma osatzeko: *zurekiko konfiantza*, *etxeko lanak* (‘etxean egiteko lanak’) edo *Mirenendako liburua* sintagmetan ageri diren *konfiantza*, *lan* eta *liburu* hitzek ez dute ezinbestean ‘norekin den konfiantza’, ‘non egiteko den lana’ edo ‘norentzat den liburua’ hautatzen, horiek guztiz aukerakoak dira. Baina ez da hori gertatzen izen argumentudunekin: *laburpena* diogunean, beti ‘zerbaiten laburpenaz’ ari gara. *Laburpen* izenak erlazio argumentala eskatzen du, baina *egunkari* izenak ez: *gaur* eta *egunkari* hitzen arteko erlazioa adjuntuen mailako erlazioa da. Beste izen batzuek ere argumentudun erlazioa eskatzen dute: *aita*, *ama*, *seme*, *alaba*... *gain*, *azpi*, *albo* eta abar. Paralelotasun handia dago, puntu honi dagokienez, aditzen eta izenen artean: “noiz”, “norako” eta holakoak arruntean auke-

rako osagarriak dira, adjuntuak, ez baitira zuzenean sartzen aditzek edo izenek ezinbestekoa duten argumentuen sarean.

**12.3.5c** Izen batzuk gertaera izenak direla diogu, ebentiboak: *Istripua herri sarreran gertatu da*. Perpaus horretan *istripua* eta *herri sarrera*, biak izan daitezke ebentiboak.

**12.3.5d** Kuantifikazio izenen artean ere bereizketa zenbait egin daitezke. Kuantifikazio izenak dira *belar izpia*, *laranja atala* edo *laranja ziztorra* gisa-koak. Ez dute multzo bakarra osatzen, eta batzuetan ez da argi izen bera ez ote daitekeen sail batean baino gehiagotan sar. Kuantifikazio izen hauen artean badira izen hesitzaileak (*belar izpi*), neurri izenak (*kilo bat haragi*, *baso bat esne*) eta multzo hitzak (*jende pila bat*).

- Izen hesitzaileak zerbaiten neurriaren berri ematen dute: *ogi zati bat*, *belar izpia*... Zernahi gisaz, izen hauek ez dira edozein modutara erabiltzen, eta erabilera mugatukoak dira: *haragi xerra* esaten da, baina ez *\*haragi izpia*; *elur maluta*, eta ez *\*gari maluta*; *arto pikorra* edo *arto alea*, baina ez *\*arto xerra*. *Zati* bezalako izen bat, ordea, hesitzaile zabalagoa da: *errepide zatia*, *sagar zatia* eta abar.
- Bigarren multzoko izenak, neurri izenak, ontzat eman diren neurri estandar arautuekin lotzen ditugu askotan: *tona bat egur*, *bost litro ardo*, *sei metro oihal*... Baina sail horretakoak dira, halaber, *koilarakada bat kafe*, *eskutada bat irin*, *bi ahokada ale*, *altzokada sagar jan dute*, *saskitara bat barazki* eta abar. Hemen ere badira mugak: *hogei metro luze zen* esaten dugu (magnitude aukerak baditugu: luzera, zabalera, sakontasuna...), baina ez da arrunta jorkabide hori bestelako hitzekin. Batzuetan izenlagun gisa bakarrik erabil daitezke, eta hori arruntagoa da: *hamar metroko zabalera*, *bi metroko sakontasuna*, *hamar hilabeteko eztabaida*, *bi urteko iraupena* eta abar.
- Multzo hitzak ere baditugu azkenekoz: *adiskide talde bat*, *bi liburu multzo*, *gezur korda bat*, *perla hari bat*, *mahats okoa* eta abar. Batzuetan ez da beharrezkoa izaten izen kuantifikatua agerian ematea: *kopa bat hartu zuen*, *talde txiki batekin bildu zen*, *izpia sudurretik sartu zuen* eta abar, bai baita-kigu, testuinguruaren arabera, zeri buruz ari garen, zeren kopa den, zeri



dagokion taldea, edo zeren izpia den sudurretik sartu duguna. Nolabait ere esateko, izen hauek guztiak neurriaren kontzeptuarekin lotzen ditugu. Horrela, *eguzki izpia*, *poztasun uholdea*, *tiro parrasta*, *ogi pixka*, edo *ur zurrusta* eta holakoak ere horien parekoak direla esan daiteke. Ohart gaitezen, zernahi gisaz, badirela arrazoiak kuantifikazio izenen multzo honen barnean beste sail batzuk ere egiteko edo, nahi bada, badirela murriztaperen semantikoak: *laranja atala*, *laranja ziztor*, *baratxuri ale* esaten bada ere, ez dugu *mahats ziztor*, *mahats atal* edo *banana ziztor* esaten. Kuantifikazio hitzak dira gauza batzuk multzoka loturik daudela adierazten dutenak ere: *lore sorta bat*, esaterako, nahiz gero hori beste erabileretara ere hedatu den: *gezur sorta*. Gero, irudizko adiera hau urrunago ere eraman da: *argumentu oihan batean galdu zen*.

**12.3.5e** Testuinguruen arabera izen hauek beti izan daitezke kuantifikazio izenak, edo ez. Bistan da *kilo*, *litro*, *tona* eta horien gisakoak beti, edo gehiengotan, kuantifikazio izenak direla. Baina *kopa*, *zaku*, *orga*, *saski*, *botila* edo *edaltontzi* moduko izenekin ez da holakorik gertatzen. *Edaltontzi bat esne hartu zuen ohera joan aurretik* perpausean, esaterako, kuantifikazio izena da *edaltontzi* hitza: esnea kuantifikatzen du, eta beti artikulurik gabe doa kuantifikazioaren itzala hartzen duen hitza (*\*edaltontzi bat esnea*). Aldiz, *Mirenek mailu batekin hautsi zuen edalontzia* esaldian, *edaltontzi* hitza ez da kuantifikatzailea, izen arrunta baizik. Gauza bera gertatzen da *katilu*, *botila*, *gurdi*, *zaku* eta holakoekin: *katilu bat esne* vs *plastikozko katilua*; *botila bat ardo* vs *kristalezko botila*; *gurdi bat egur* vs *zurezko gurdia*; *zaku bat patata* vs *telazko zakua*. Horietan bereizketa egin behar da, esaterako, *koñak botila* eta *botila bat koñak* sintagmen artean, gaur egun zenbait hiztunek nahasteko joera badute ere. Lehenbiziko sintagman *botila* ez da, nahitaez, kuantifikatzailea, sintagmaren gunea izan baitaiteke (*nolako/zer botila?*), *botila* hutsik egon daitekeena, eta osa dezake, halaber, “neurri sintagma bat” (*zenbat koñak* adierazten duena, eta koñaka kuantifikatzen du). Bigarrean, bai, kuantifikatzailea besterik ezin izan daiteke, neurria adierazten duena (*zenbat koñak?*). Era berean, desberdinak dira *katilu bat kafe* eta *kafe katilua* sintagmak, edo *baso bat ardo* eta *ardo basoa*. Lehenbizikoak bakarrik du zerikusia kantitate edo neurriarekin. Bigarrenak, aldiz, maiz, zenbait izenekin (*botila*-rekin, adibidez) bi

esanahiak adieraz ditzake. Edan, *katilu bat kafe, botila bat koñak* edo *baso bat ardo* edaten da. Hautsi, berriz, *kafe katilua, koñak botila* edo *ardo basoa* hausten da. Bestalde, *pare bat zapata* eta *zapata pare bat* ez dira berdinak: lehenbizikoan bi zapataz ari gara, desberdinak badira ere, *bi* da hor garrantzizkoa, kantitatea; bigarrean zapata-parez ari gara, izen (elkartu) batez.

**12.3.5f** Sintaxi aldetik, izen kuantifikatzaileek gainerako izenek baino erabilerera mugatuagoa dute. Txikigarriak onartzen dituzte, *kopatxo bat koñak*, baina ez dute erraz hartzen izenondorik, esaterako: *?kopa urdin bat koñak*. Batzuetan arrunta izan daiteke, euskaraz eta beste hizkuntza zenbaitetan, halako egituretan izenondo berezi batzuk erabiltzea, neurria adierazten duten heinean: *edalontzi handi bat esne, kopa txiki bat patxaran*, (gazt.) *un plato grande de lentejas*, edo (ing.) *a big glass of water*, esaterako. Horrelakoetan, hala ere, aposizioa erabiltzeko joera ere bada: *katilu bat kafe, handia* edo izen elkartzeko esamoldea erabiltzen da: *koñak kopa txiki bat, ?kopa txiki bat koñak*.

**12.3.5g** Bi esamoldeak nahaste erabiltzen badira ere, garrantzizkoa da behatzea nolako aditzekin ageri diren horrelako kuantifikazio hitzak. Aditz horiek nolakoak diren, *katilu bat kafe* edo *kafe katilu bat* aukeratzen da. Hiru multzo bereiz daitezke orduan. 1) Aditz batzuek ezinbestean eskatzen dute *kafe katilu bat*-ek markatzen duen erdua: *Haserretu zen eta mahaian zegoen kafe katilu bat (\*kafe bat katilu) hautsi zuen*. Jakina, hautsi katilua hauts daiteke, ez kafea. Edukiontziaz ari gara hor. Beraz, aditz batzuk *hautsi* ereduak dira (*apurtu, pintatu, bete, puskatu...*). 2) Beste aditz batzuekin *katilu bat kafe* erabili behar da: *Mahaian eseri eta katilu bat kafe (\*kafe katilu bat) edan zuen*. Beraz, esan dezagun *edan* ereduak direla aditz horiek. 3) Azkenik, beste hirugarren sail batean sartzen dira anbiguoak direnak, eta bi esanahiak izan ditzaketenak: *erosi, ekarri, eduki, atera* eta gisa horietakoak. Horiekin, zeri egiten diozun erreferentzia, bata nahiz bestea erabil daitezke: *Katilu bat kafe ekarri zuen* (beraz, kafearen kantitateaz ari da) edo *Kafe katilu bat ekarri zuen* (ontziaz ari da oraingoan, eta ez kantitateaz). Apalategitik, arruntean, *koñak botila* hartzen da. Badakigu, bigarren kasuan, botilaz ari bagara ere, espero izatekoa dela botila hori koñakez betea izatea. Kontua pixka bat bortxatu nahi bada: *Kafe katilu bat ekarri zuen, urez betea* esan daiteke, baina ez *\*Katilu bat kafe*

*ekarri zuen, urez betea*. Euskal tradizioan hori ongi bereizi izan da, eta erabilerera hori errespetatu da gehienetan.

**12.3.5h** Kasu anbiguoetan ere, egungo idazleen lanak ikusirik, eta bi aukerak izanik, idazleek nahiago dute, oro har, *botila bat ardo* egitura erabili, *ardo botila bat* moldea baino. Hola, gaurko literaturan holakoak ikusten dira: *botila bat pattar ireki, botila bat xanpain eskuan eduki, botila bat ardo atera, kopa bat ardo atera, kopa bat ardo merezi, kopa bat likore ekarri, kopa bat jerez hartu, botila bat ardo klikatu, botila bat ardo erosi, botila bat ardo zabaldu, katilu bat kafe zerbitzatu, katilu bat kafe eman, katilu bat arroz egosi, botila bat ur erosi, botila bat ur ekarri, botila bat xanpain ireki, katilu bat esne (bero) hartu, kopa bat xanpain hartu, kopa bat xanpain jaurti, kopa bat ur edan, katilu bat arrain zopa ekarri, katilu bat esne ekarri, katilu bat esne edan, botila bat koñak hartu, botila bat ardo eskatu, botila bat patxaran ireki, kopa bat armagnac eskatu, kopa bat cava kobratu...* Horiek guztiak aski arruntak dira, eta horrelako adibide asko aurkitzen ahal dira literaturan. Eredu horren aldaerak dira: *botila ardoa; botila esnea* eta abar.

**12.3.5i** Horiekin batera badira, hala ere, nahiz gutxiago izan, beste eredua segitzen dutenak: *jerez botila bat atera, ardo botila bat oparitu, Erremelluri botila bat atera, garagardo botila bat hartu, whisky kopa bat jarri, ardo botila bat zabaldu, kirsch kopa bat eskatu...* Beharbada, horrelako erabileretan, kantitateari edo kuantifikazioari baino garrantzi handiagoa ematen zaio botilaren edukari, zer oparitu edo atera den zehazteari: *jereza atera dio*, edo *ardo doa oparitu nahi zion* edo zehazkiago *Erremelluri etxeko ardoa*, eta eduki hori botila baten barnean ateratzen edo oparitzen da.

Norbaitek pentsa lezake, hortaz, gaur egungo idazleen artean bi erabilerak nahasten direla, eta hori gerta daiteke batzuetan, baina ez beti: arruntean aditzaren arabera egiten da aukera, zeri behatzen diogun, ontziari edo edukari: *botila bat esne* diogunean ontziari behatzen diogu, eta *esne botila bat* diogunean, berriz, edukari.

**12.3.5j** Egiazko kuantifikazio izenekin (*kilo, litro, dozena...*) ez da hori gertatzen, noski, eta horien eredua *kilo bat haragi, litro bat esne* eta gisakoak

dira, beste aukerarik gabe (*mertxika kilo bat* ere ageri da, baina oso bakanak dira holakoak). Sail berekoak dira *orga*, *gurdi* edo *saski* izenekin osatuak (*gurdi bat sagar*), baina gaurko literaturan gutxiago ageri dira.

Halaber, batzuetan *bete* ere erabiltzen da: *kolkoa bete diru*, *pitxer bete ardo*. Horietan denetan, galdera hauei erantzuten zaie: “zenbat olio/harri/ardo/diru?” Berdintsu gertatzen da beste hauetan ere: *urte bat*, *urtebete*, *hilabete egon zen*, *hilabete bat egon zen*, *aste bat*, *astebete pasatuko dut* eta abar.

**12.3.5k** Sailkapen izenak (edo izen klasifikatzaileak) deitzen ditugu *mota*, *klase*, *sail* eta holakoak: *Bada jende mota bat aski astuna*; *Mendi sail horretan ez duzu zuhaitzik ikusiko*; *Saguzar aldra bat etorri zen*; *Hegazkin klase horrek asko arintzen du bidaiia bezalako esaldietan ageri dira izen horiek*.

### 12.3.6. Izen zenbakarriak eta izen zenbakaitzak

**12.3.6a** Izen arrunten artean beste sail batzuk ere bereizten ahal dira. Izen batzuk era guztietako zenbatzaileekin ager daitezke, baina beste batzuk ez (ez, behintzat, erabileran aldaketarik gertatu gabe). Lehenbiziko sailekoak dira *liburu*, *etxe*, *aulki*, *ohe*, *argazki* eta holako izen arruntak. Izen zenbakarriak dira horiek. Alegia, izaki diskretuak aipatzen dituztenak, banaka-banaka konta daitezkeenak, baina zatitu ezin direnak banako izateari utzi gabe. Bigarren sailekoak dira *olio*, *gari*, *kutsadura*, *gorroto* edo *ke* izenak. Hori dela eta, *bi aulki*, *hainbeste etxe* edo *liburuak* esan dezakegu, baina ez dugu esaten *\*bi ke*, *\*kutsadurak* edo *\*kirats asko*. Izen zenbakaitzak dira, eta arazoak dituzte pluralerako mugatzaileak eta zenbait zenbatzaile hartzeko (azkeneko adibide horretan, zerbait esatekotan, *kirats handia* esan beharko genuke, izen zenbakaitza eta neurgaitza baita, *aurten gari asko erein da* ez bezala).

Izen zenbakaitzak jarraituak diren gaiei dagozkie edo, egokiago nahi bada, hizkuntza bateko hiztunak jarraitu modura ikusten ditueni, hizkuntza batetik bestera aldaerak gertatzen baitira. Jarraituak dira hizkuntza horretan banakoetan ezin bereiz daitezkeenak: *ur*, *olio*, *gari*, *su*, *maitasun* edo *gorroto* ez ditugu banakoetan bereizten eta masa gisa, edo izen abstraktu gisa, hartzen ditugu,

zerbait jarraitua bezala. Horregatik ez dute zenbatzaile zehazturik hartzen: \**hiru maitasun*. Egia da, zernahi gisaz, molde batzuetan, adiera aldatzen dutenean, zenbatzailea ere hartzen dutela: *Bi ur hauek burdin urak dira; Uharte hori lau uren artean dago; Hamalau idiren saiheskiak bost su handitan paratu zituzten erretzen*. Hizkuntzalari eta gramatikari batzuek eztabaidatu izan dute puntu hau: haien ustez, zenbakarritasuna edo zenbakaiztasuna ez dagokie izenei berei, baizik izen hauek izendatzen dituzten izakiei. Beraz, zenbakarritasunaren ezaugarria ez legokioke, esaterako, *ate* izenari (izen zenbakarria), baizik hitz horrek izendatzen duen gauzari: badakigu ateak kontatzen ahal direla. Baina ondoko pasartean ikusiko dugunez, hori gehienetan hala bada ere, ez da beti hola gertatzen.

**12.3.6b** Esan dugu hizkuntza batetik bestera gauzak aldatu egiten direla puntu honetan, eta hala da. Euskaraz, esaterako, ez dugu \**hamabi mahats* esaten (bai, ordea, *hamabi mahats ale*), baina gaztelaniaz *doce uvas* arrunta da. Euskaraz *berri txar bat eman behar dizut* esaten ahal da, arazorik gabe, edo *hiru berri txar*, baina ingelesak ez du onartzen hor *news* baizik, plurala adierazten duen *-s* marka eta guzti, berria bakarra bada ere, hitz hori ingelesez zenbakaitza baita eta itxura horrekin bakarrik erabiltzen ahal baita: *two pieces of news*, adibidez, edo *that is good news*.

**12.3.6c** Badira, zernahi gisaz, tarteko zalantza batzuk ere: *kafe* izena ez da zenbakarria, eta *ardo* hitza ere ez, baina euskaraz ez dira arrotzak *bi kafe* edo *bost ardo* bezalakoak. Horiek arruntak dira gure artean, eta literaturan ere ez dira falta adibideak: *bi ardo beltzen artean; bi kafe hartu ondoren; bi kafe prestatu ditu...* Horrelakoak erabiltzearen beharra egunerokoa denez, bistan da hor hiztunak laburturik ematen duela sintagma. Berez, hor, *bi edalontzi ardo, bi kikarakada kafe, bi kafe mota...* edo horrelako zerbait dugu, testuinguruaren arabera. Esapide horiek maiz erabiltzeak eramaten gaitu, segur aski ere, sintagma laburtzera. Erostera joan eta *bi esne* edo *bi olio* eska ditzakegu (esne poltsaz ari gara edo oliontziaz), berez jarraituak diren izenak diskretu modura, zenbakarri modura, erabiliz. Nahiko arau orokorra da hori, ardoarekin edo kafearekin gertatzen den gisan. *Bi salda* edo *bi arrain zopa eskatu ditugu* modukoak ere esaten ditugu. Esan dezagun, hortaz, zenbatu ezin diren

izenek ez dutela zenbatzaile zehazturik hartzen, aipatu kasu berezi horietan ez bada. Jakina, hitz horiek anbiguoak ere izan daitezke zenbait kasutan: hola, *argi* hitza, nolakoa den testuingurua, bonbilla bat izan daiteke, edo kandela bat, ez bakarrik leihotik sartzen zaigun hori. Eta kasu horietan, noski, ez da eragozpenik *bost argi horiek piztu!* bezalako zerbait esateko. Eta sanjoanetan, adibidez, sua pizten dugu, eta su hori *su handia* izan daiteke, baina karrikatan ohitura da *su asko* ikusteko. Holakoetan unitate diskretuez ari gara, konta daitezkeen unitateez. Nekez aurkituko ditugu egoera egokiak, hala ere, *\*bost gorroto* edo *\*hamar maitasun* esateko.

Beste batzuetan, izen bera zenbakarria izan daiteke, edo zenbakaitza: goizean *ogia* edo *baratxuria* erostera joan gaitezke, eta *ogi batekin* edo *baratxuri (buru) batekin* itzultzen gara. Holakoetan bietara jokutzen dute.

### 12.3.7. Izen zenbakaitz neurgarriak eta neurgaitzak

**12.3.7a** Izen zenbakaitzek izaki jarraituak aipatzen dituzte (*irina, esnea, maitasuna, edertasuna*, adibidez), banaka konta ezin daitezkeenak. Hala ere, izaki hauetako batzuk, nola edo hala, neur litezke (*irina* eta *esnea*, adibidez); beste batzuk ez (*maitasuna, edertasuna, samina...*). Lehenbizikoak izen zenbakaitz neurgarriak dira. Neurtu ezin direnak, edo neurtzea ohiko ez direnak, izen zenbakaitz neurgaitzak deituko ditugu: *samin, edertasun...*

**12.3.7b** Nabarmen agertzen da hori zenbatzaile zehaztugabeen erabilerari dagokionez. *Irin asko daukagu* edo *hainbeste ardo ez dugu edan nahi* esan daitezke, baina izen zenbakaitz neurgaitzak ditugunean, izenondoak edo izenlagunak erabiltzen ditugu gehienetan: *hotz/ke handia dago, hainbesteko beldurra* edo *izugarrizko gogo*a erabili ohi dira. Horrelako kasuetan zenbait hitz-tunek, gaztelaniaren eraginez, *\*hotz asko, \*beldur asko, \*gogo asko* moduko forma okerrak erabiltzen dituzte. Erabilera oker horiek saihestu behar dira, kasurik nabarmenenetan behintzat, beste zenbait izen zenbakaitz neurgaitzeekin erabilera hedatuagoa badago ere (*denbora asko beharko du; asko maite zintudan*).

**12.3.7c** Jakina, hemen ere badira salbuespen moduko batzuk, izenak anbiguoak gertatzen baitira batzuetan: *harri* hitza bide bazterrean aurkitzen dugun zerbaiti izena emateko erabiltzen ahal dugu (*buruan harri batekin eman zion Caineek Abeli*), edo harrobitik ateratzen den zerari izena emateko ere erabiltzen dugu (*kamioi bat harri bota dute mendiko zulo horretan*). Lehenbiziko kasuan izen zenbakarria da, eta bigarreanean, berriz, zenbakaitza, masa zerbaiti buruz ari baikara, baina neurgarria da, ikusten denez.

### 12.3.8. Izen bizidunak eta izen bizigabeak

**12.3.8a** Semantikak esaten digu *paper*, *bide*, *ate* eta *harri ez-animatuak* di-rela, baina *asto*, *haur*, *Mikel* edo *ardi*, ostera, *animatuak*, bizidunak. Hizkuntza batean adibide jakin bateko izena biziduntzat edo bizigabetzat hartzea, ordea, ez da semantikarekin edo biologiarekin bakarrik lotzen, eta baditu beste eragin batzuk morfologian ere, euskaraz batzuek eta besteek kasu marka desberdinak hartzen baitituzte. Hala, *bidean* esaten dugu, *non?* galderari erantzuten diogunean, baina *Andoni(ren)gan*. Alderantzizkoa ez da zuzena: *\*bidea(ren)gan* edo *\*Andonin*. Hor ikusten da garbi semantikak morfologian duen eragin zuzena. Leku postposizioekin gertatzen da hori (ikus 20. kapitulua), baina hemen ere badugu argitu beharreko kontu bat: ez da *\*arbola(ren)gan* esaten, *arbolan* baizik, hau da, landareak bizigabetzat hartzen dira, nahiz hor ere *pago hori bere baitatik sortu da* modukoak baditugun (§ 12.3.8b). Pertsonekin ez da dudarik, eta beti *-ga-* moldea erabiltzen da euskaraz, *laguna(ren)gan*, baina gorputzaren atalekin *non* soila (*buruan*, *besoan*...). Kontuan izan, zernahi gisaz, pertsona izenordainetan aski arruntak direla *nitan*, *zutan*, *gutana*... Eta, jakina, *ni(re)gan*, *zu(re)gan*, *gu(re)gan* modukoak ere bai. Orobat, *ni(re) baitan* gisakoak ere erabiltzen dira (§ 12.3.8b).

**12.3.8b** Animatutzat edo biziduntzat hartzen ditugunekin, hortaz, *-(en)ga-n* erabiltzen da, baina *-en baitan* ere bai (eta berdin *-en baitarik*, *-en baitatik* edo *-en baitara*). Postposizio horren erabilera izugarri hedatzen ari da azkenaldiotan, baina literatura klasikoan ikus daitezkeen adibideetan eta *baitan* betitik berezkoa izan duten euskalkietako hiztunen artean ere mugatuagoa da erabilera



gaur egun baino, zalantza gabe. Literatura klasikoan batez ere honela erabili izan da: izenordainekin (*ene baitan, zure baitan, gure baitan, norbaiten baitan, zeinaren baitan, bere baitan*; *-en* marka gabe ere anitzetan: *zu baitan, ni baitarik*); *bere* izenordainak errazten du erabilera (*landare hori bere baitarik sortu da; nola diren gauzak beren baitan; substantzia dei lezakete bere baitan existitzen den...; substantzia bakoitzak bere baitan behar du*); izen bereziekin (*Jainkoaren baitan / Jainkoa baitan; Anttonen baitan / Antton baitan; Israelgo erregearen baitan*) edo haiei egiten zaien erreferentzietan (*bekatorea garbitzen duenaren baitan; guztien baitan*); erakusleekin, betiere haien erreferentzia pertsona baldin bada (*honen baitan*); pertsona erreferentzia duten izenekin, jakina (*apez handien baitarik; suprefetaren baitarik*).

Horiek izan dira erabilera nagusiak. Idazle modernoen artean, egitura hori eremu gehiagotan erabiltzeko joera ikusten da. Xarritonek, esaterako, baditu holakoak<sup>10</sup>: *Substantzia deitzen dut, bere baitan den eta bere baitarik ulertzen den zerbait; erran nahi baita, beste gauza baten kontzeptuaren beharrik gabe, haren kontzeptua moldatzen duen zerbait. Atributua deitzen dut, substantziaren zerizana osatzen duena, adimenak hala hautematen duena. Modua deitzen ditut, substantziaren efektuak, hots, beste gauza baten baitan den zerbait, gauza haren bitartez baita ulertzen; Honelako eta halako gizakiren ideia kontsideratuz haren egintza guztiak eta bakoitza (“propietateak”) deduzi litezke, zeren horiek baitira ideia egokien korrelatuak, zeinak deduzitzen edo jarraitzen diren arimaren ideia bakarretik, zeinak Jainkoaren adimen infinituaren baitan dagoelarik, sistema egoki horien sistema eratzen duen. Adimenak sorturiko ideia “bakartzat eta besteei batu gabe” kontsideratzen den guztietan.*

Baina beste hiltun batzuen artean urrunago eraman da kontua, eta ez dira falta, Hegoaldean batez ere, *elkarrizketa politikoaren baitan; hitzarmen bereziaren baitan; RPS Federazioak... biltzen ditu bere baitan; egituren baitan; hiriarteko egitura bakoitzaren baitan; UMP taldearen baitan; jardunaldiaren baitan; anorexiaren baitan; ondarearen baitan; Europaren baitan; autonomia parlamentarioaren baitan... bezalakoak. Sukaldaritza irakastaldi magis-*

---

<sup>10</sup> Ez dakigu, halere, berak idatzitako zuzenak diren, edo editoreren batek sartuak.



*trala Gizataldeen Gauaren baitan* ere irakurri ahal izan dugu. Horiek oso hedatuak daude prentsan. Erabilera berria da hori, eta ez du tradizioirik: apaingarri hutsa da batzuetan (*hiriarteko egitura bakoitzaren baitan / hiriarteko egitura bakoitzean; jardunaldiaren baitan / jardunaldian...*); beste batzuetan egokiagoa da *barruan* edo antzeko zerbait esatea (*RPS Federazioak... biltzen ditu bere baitan / RPS Federazioak... biltzen ditu bere barnean*), edo kontu hitzaren pareko bat erabiltzea (*anorexiaren baitan / anorexian / anorexia kontuetan...*). Ekialdean askoz ere zorrotzagoa da erabilera, eta holakoak aise bakanagoak dira, prentsa idatzian ere. Hobeki eusten diote erabilera klasikoari, eta betitik hiztunek izan duten senari.

**12.3.8c** Nolanahi ere, batzuetan hitza bera izan daiteke anbigua: *herriaren baitan* eta *herrian* aski desberdinak dira. Lehenengoak pertsona multzoaren erreferentea du, eta bigarrenak etxe edo eraikin multzoarena. Horregatik erabiltzen da lehenengoan *baitan*, eta *-n* marka bakarrik (*herrian*) bigarrenean. Gauza bera gertatzen da *eliza(ren) baitan* eta *elizan* bikotean. Hor *herriarengan* eta *eliza(ren)gan* ere erabiltzen ahal dira: *Zareten eskandalu gabe eta juduetara eta grekoetara eta Jainkoaren elizagana* (Leizarraga); *Nork ere jaten baitu haragirik egun debekatu batez, hura beharrean daudenei libro uzten dien Elizaganikako eskurik gabe, bekatu mortal egiten du, zenbatetan ere jaten baitu* (Pouvreau); *Hasidismoak, hala ere, oso harrera ona izan zuen herriarengan, giza alderdi barrukoenei eta berezkoenei ematen baitie lehentasuna* (Navarro). Ez da, ordea, hori beti betetzen: *populuan* gehiago erabiltzen da *populu baitan* baino, eta *jendeetan* ere maizago ageri da *jendeen baitan* baino. Baina hor ditugu *populuagan*-dik sortutakoak: *Eta etorri zirenean populuagana, etor zedin* ('etorri zen') *harengana gizon bat* (Leizarraga).

Bizigabeen eta bizidunen (ez-animatu/animatu) arteko sistema hau, hala ere, ez da hain erraza behar bezala zedarritzea: jakina denez, *ardietara(t)* edo *behietara(t)* joan da moldekoak arruntak dira. *Nesketara* edo *neskatara* ere ageri dira testuetan, edo *gizonetara(t)*, maizago, azken hori, literatura klasikoan gaur egungoan baino. Bestetik, *zalditik astora* esaten dugu (ikus § 12.3.8d), edo *liburu horiek elkarrengandik* banatu behar dira. Literaturan ere honelakoak ageri dira: *Multzo bateko elementuak elkarrengandik bereiz-*

*teko* (Jon Muñoz); *Elkarrengandik hurbil diren elementuak* (J. Zabaleta); *Ahoskordak elkarrengandik urrun egoten dira* (Oñederra). Erabilera honek baditu lekukoak, Orixe, Mirande, Polikarpo Iraizoz edo Labaien idazleekin, esaterako. Baina *elkarretarik* ere erabiltzen da, bizidunekin ere bai: *Deus aurkitzen ahal gauza batzuen elkarretarik bereizteko* (Xarriton); *Bi adiskidek behar izatu zuten berriz ere urrundu elkarretarik* (Joanategi); *Ez dukezu menturaz hetan ikusi nola elkarretarik berezi ziren lar-abereak eta etxe abereak* (Duvoisin). Baliteke, zernahi gisaz, *elkar* izenordainak bere jokabidea izatea, eta ez nahitaez aurrekariarekin lotua: ezin dugu ahaztu Iparraldean *zutan*, *zutarik*, *zutara*... aski arruntak direla. Salbuespenez ari garela, ohart gaitezten goiko hirugarren adibidean Duvoisinek *hetan* darabilela, bizidunetz ari bada ere. Hor ‘haien artean’ esan nahi du, eta arrunta da holako formak erabiltzea hori adierazteko: *idazleetan*, *ikasleetan* eta holakoek *idazleen artean*, *ikasleen artean* esan nahi dute. Nahiko sistematikoa da hau euskaraz, eta bereziki taldea, generoa, espeziea, edo oro har, izaera kolektiboa adierazten duten izenekin gertatzen da.

Kontuan izan behar dugu, ordea, biziduntzat hartzerik ez dauden izenak ez direla bizidunen moduan jokatu izan, eta ez dagoela honako hauen ildoko tradizioirik: *Gaztearen pentsaeran/\*pentsaerarengan eragin handia izan zuen; Europako \*legeengandik/legeetatik ez dut ezer onik espero.*

**12.3.8d** Hona hemen berriz ere bereizketa hori zalantzan jartzen duen beste adibide bat: ezaguna da *zalditik astora* joate hura. Parekoak dira *zebratik zaldira* edo *izurdetik mazopara* bezalako adibideak, denak literaturatik bilduak. Ez dugu esaten euskaraz *\*Anttonitik* edo antzeko zerbait, baina *zalditik* jaisteko beharra dugu denok lehenik *zaldira* igotzen bagara (egungo literaturan *zaldira igoligan* ageri da, edo *zaldira pasatu*; holako adibide asko dira). Eta gripeak hartuz gero, *medikura* edo *medikuarenera* joaten gara, nahiz ez den lehenbiziko aldia umea *medikuarengana* eraman dugula. Zail da hemen arau zehatzik ematea, euskalkien artean desberdintasunak baitaude. Gaur egun, idazleen artean gehiago erabiltzen da *medikuarengana*, baina hiztun askorentzat bi gauza aski desberdinak dira *medikuarengana* eta *medikura/medikuarenera*. Holakoetan mugak non jartzen diren ez da aise jakitea: *zaldira/zaldi*

*gainera* igo bai, baina norbait *zaldia*rengana *hurbildu*, *abiatu* edo *joan* egin daiteke, gaurko literaturak erakusten duenez. Berdin gertatzen da *eulian zenbat kromosoma daude?* galdetzen badugu ere.

### 12.3.9. Izen bakunak, eratorriak eta elkartuak

Izen bat bere osagaien arabera ere azter daiteke: *liburu*, *eskuliburu*, *liburugintza*. Hiru izen ditugu hor. Lehenbizikoa izen soila edo bakuna da (*liburu*), elkartua bigarrena (*esku* + *liburu*), eratorria hirugarrena (*liburu* + *gintza*). Lehenbizikoa bakuna dela diogu, ezin baita izen horren azpian semantika aldetik esanahia izan dezakeen zati txikiagorik egin. Izen elkartuetan bi izen bereizten ditugu, biak beregainak direnak: *eskuarekin hartu du liburua*. Holarakoak ditugu *fabrika-langile*, *etxetresna*, *herri-eskola* edo *itsasgizon* gisakoak. Azkenik, eratorrietan ere bi elementu ditugu, baina elementuetako bat da beregaina. Goiko adibidean: izena (*liburu*) alde batetik; bestetik, atzizkia (*-gintza*), bereiz erabili ezin dena, autonomiarik ez duena. Berdin gertatzen da, esaterako, beste hauetan ere, *argazkilari*, *azterketa*, *zuritasun*; horko *-lari*, *-keta* eta *-tasun* ez dira beregainak, eta izenari, aditzoinari edo adjektiboari loturik ageriko zaizkigu beti (ikus 4., 5. eta 6. kapituluak).

### 12.3.10. Izena eta aditza

**12.3.10a** Hitz batzuk izenak izanik ere aditz lokuzioak osa ditzakete. Hala, *nahi*, *gogo*, *behar* edo *ahal* izenak, aski izen arruntak dira hainbeste testuingurutan: *nire nahia agertu nahi izaten nien noizbehinka*; *gogo handia zuen margolan famatu hori ikusteko*; *badu beharra medikura/medikuarengana joateko*; *ahal handiko andrea zen hura*. Baina hitz horiek aditz multzoak edo perifrasiak osatzeko ere erabiltzen dira: *joan nahi zuen*; *ekarri gogo genuen*; *ikusi behar zenuten*; *joaten ahal ziren* eta abar. Hor ikusten da nola izen horiek erabiltzen ahal diren aditz perifrasiak osatzeko nahiz aditzen modalitatea agerian uzteko. Kontuan izan, dena dela, formen banaketa ez dela guztiz askea:

*nahi/\*nahitzen/nahiko; behar/behartzen/beharko; gogo/\*gogotzen/\*gogoko; ahal/\*ahaltzen/ahalko.*

**12.3.10b** Beste batzuetan, hitz bera, itxura aldatu gabe, izen edo aditz gisan erabil daiteke zuzenean. Hori gertatzen da *mintzo, balio, bizi, iritzi, iduri* eta beste batzuekin: *mintzo ederra du andre horrek / ederki mintzo da; balio handiko zientzialaria da / zientzialari horrek asko balio du; ez du iritzi onik gizon hartaz / egoki iritzi dio eta papera sinatu du; bazuen Mikelekin iduri handia / iduri du euria eginen duela*. Zenbaitetan adjektiboekin ere gertatzen da hori: *lagun maiteak etorri zitzaizkion / maite ote du bere semea?* Eta hemen ere gauza bera gertatzen da, banaketari dagokionez: *uste/\*ustetzen/usteko; balio/\*baliotzen/balioko; bizi/bizitzen/biziko; mintzo-ren kasuan, mintzatzen eta mintzatuko* esaten dira, baina horiek *mintzatu* aditzari dagozkio, ez *mintzo* izenari, horrek ez baitu beste aldaerarik hartzen. *Ezagun* adjektiboa da, baina horrekin ere sortzen dira aditzak: *ezagun du eri zarella; ezagun da mendi horiek aski garaiak direla*.

**12.3.10c** Izenetatik aditzak sortzen ditugu: *neke* → *nekatu*; *indar* → *indartu*; *larru* → *larrutu* eta abar. Oso arrunta da fenomeno hori euskaraz: *Mikel gizondu da, aski da ikustea nola hazi den*. Hor, *gizondu* aditzak norbait ‘gizon bihurtu’ dela esan nahi du. Baina aditzak sortzeko bide hau arrunta izanik ere, ohar pare bat egin beharra dago. Batetik, ezin da izen guztietatik aditza sortu: *gizon* izenak *gizondu* ematen du, eta *andre* izenak *andretu (anderetu)* eman du historian, nahiz gaur egun aski erabilera murrizta duen. Baina *mahai* izenak ez du *?mahaitu* ematen, ez *liburu-k ?liburutu*, zur zati batzuk ‘mahai bihurtzea’ edo orri batzuk ‘liburu bihurtzea’ posible baldin bada ere. Aldiz, egur zati bat *ezpaldu* dezakegu, *ezpalak* eginez, *ume* izenak *umetu* eman dezake, eta *haur* izenetik *haurtu* sortzen da. *Aitondu* eta *aitamatu* ere erabiltzen dira.

Bestetik, aditzek hedatzen dituzten argumentu sareak, nolakoa den aditza, era askotakoak dira: *gizondu, nekatu, harritu, ospatu* edo *eskolatu* (batzuk bakarrik aipatzeagatik) aski desberdinak dira alde horretatik, denak izen batetik sortu baditugu ere. Horietan ‘norbait gizon bihurtu da’, edo ‘ume egin da’, edo ‘haur egoerara bihurtu da’, baina ez da inor *neke*, *harri*, *ospe* edo *eskola* ‘bihurtu’.

**12.3.10d** Aditz horiek guztiak eraldatze aditzen parekoak dira: *Mikel gizon-du da* eta *Mikel gizon bihurtu da* aski parekoak dira. Egiturari dagokionez, bestetik, *gizondu*, *atsotu*, *umetu* edo *haurtu* bezalakoak aski hurbil daude aditz kopulatibo bidezko izen predikatuetatik: *Mikel gizona da* eta *Mikel gizondu da* perpausak ezaugarri komun asko dituzte, sare tematikoari dagokionez. Eta sail berekoa litzateke *astotu* aditza (*Jon astotu zen arras*), betiere izena (*asto*) izenondo gisan erabilia oraingoan<sup>11</sup>.

Aditz horiek guztiak, bide batez, konfigurazioari dagokionez, egitura inakusatiboetan bakarrik ageri dira, esan nahi baita, aditz intrantsitiboak direla (laguntzailea *izan* sailekoa), eta duten argumentu bakarra absolutiboan (*nor*) dutela. Hau da erabilera arrunt eta hedatuena, baina ez du nahitaez hola izan behar: *Denen artean umetu dugu*; *Haurra nahi baduzu gizondu*, *altxa zazu gizonki* (OEH). Hori guztia fenomeno orokorrago eta zabalago baten ondorioa da: inakusatibo aditz anitz, gehienak ez badira, kausatibo gisan ere erabiltzen ditugu (ikus § 23.2.1.2). Hala, *nekatu naiz* inakusatiboak badu bere parekoa kausatiboa dena: *lan horrek nekatu nau*. Ber gauza gertatzen da adjektiboetatik eratorri aditzekin: *zuritu*, *bigundu*, *zabaldu*, *estutu*, *gorritu*, *tristatu*... Konfigurazio inakusatiboa du *tristatu naiz* bezalako batek, eta kausatiboa, berriz, *berri horrek tristatu nau*. *Burutu* aditza ez da holakoa, itxuraz *nekatu*-ren pareko ikusten badugu ere. Berez bi *burutu* ditugu euskaraz: bat trantsitibo arrunta (*lana burutu du*), eta bestea intrantsitiboa (*artoa burutu da*).

**12.3.10e** Izenetatik eratorritako beste aditz askotan, ordea, ez du ‘zerbait bihurtu’ bezalako zentzurik, esan bezala (§ 12.3.10c), eta osatzen dituzten konfigurazio sintaktikoak ere diferenteak izan daitezke: *harritu* bezalako aditz batean oraindik gordetzen da, nahi bada, irudizko adieran baldin bada ere, ‘harri bihurtzearen’ esanahia. Norbaitek edo zerbaitek harritzen gaituenean ez gara harri bihurtzen, baina geldirik utz gaitzake, mugi ezinik, harri baten gisa.

**12.3.10f** Hortaz, esan dezakegu aski gutxi direla konfigurazio inakusatibo bakarra duten aditzak: *izerditu*, *gosetu*, *egarritu* bezalako batzuk sar daitezke

<sup>11</sup> Gai hau dela eta, ikus Creissels 2008; Aldezabal 2004; Zabala 1993.

multzo horretan. Baina, bestela, aditz inakusatibo gehienak trantsitibo arrunt gisa ere ikusiko ditugu, egitura kausatiboetan. Orain arte aipatu direnak kendurik, sail horretakoak dira: *lekutu, beldurtu, indartu, lerratu, larrutu, argitu* (hau izenondotik eratorria ere izan daiteke, *hoztu, berotu, freskatu, ahuldu* edo *edertu* bezala), *eskolatu, penatu* (*penatu zara, penetarik ene ateratzea-gatik; hagin bateko minak penatzen zaitu*), *margotu* (*ohera joan aitzinetik gauero margotzen ziren; alaba margotu zuen*), *elkartu* eta abar. Horiek guztiak bi konfigurazioetan agertzen ahal dira. *Loratu* aditza inakusatibo da gehienetan, baina kasu berezi batzuetan konfigurazio trantsitiboarekin ageri da, kausatibo gisa: *ez zuen irribartxorik ere loratu; ezin izan zuten ametsa loratu*.

**12.3.10g** Badira konfigurazio trantsitiboetan bakarrik ageri diren aditz batzuk: *ospatu, landu, ardaztu, giltzatu, eskertu, amestu...* modukoak. Egia da *amestu*-rekin *nik uste lotarik ere erdaraz amesten diren* bezalakoren bat ageri dela literaturan. Bide batez, kontura gaitezen hemen *lan* izenetik *landu* eta *lan egin* sortzen direla, eta *amets*-etik *amestu* eta *amets egin*, aski desberdinak, bai konfigurazioan, bai esanahian. Gauza bera *giltzatu* eta *giltza eman* (*itxi* adierarekin, *jakina*) bezalakoen artean.

**12.3.10h** Beste aditz batzuk intrantsitibo ergatibodunak dira (intrantsitibo inergatiboak deitu dituzte gramatikariek, baina terminologia hori biziki nahasgarria da euskararen kasuan), esan nahi baita, argumentu bat bakarrik hartzen dutela, eta argumentu hori ergatiboaren markarekin ageri dela (§ 23.2.2.4d). Holakoak dira honako hauek: *telefonatu, eskiatu, eskertu...* Batzuetan zalantzak dituzte hiztunek: *borrokatu naiz/dut, dantzatu naiz/dugu*, nahiz intrantsitibo absolutibodun gisa erabiltzeak tradizio handiagoa duen, non ez den osagarria espresuki aipatzen: *aurreskua ederki dantzatu zuen*, orduan ez baita zalantzarik, *jakina*. *Makinatu* aditzaren adibideak ere badira: egitura berezi samarra du, argumentu gisa *zerbait* edo *zer*, edo antzeko *zerbait* eskatzen baitu, baina ez esanahi osoa duen hitzik (*zerbait/\*arazoa makinatu zuen*)<sup>12</sup>.

---

<sup>12</sup> Zalantzak argitzeko *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n begiratu daiteke, edo EHUko Euskara Institutuaren corpusetan, egungo idazleek aditzak nola erabiltzen dituzten ikusteko.

**12.3.10i** Azken multzo batean sartu behar ditugu, jakina, aditz elkartuak eta aditz lokuzioak. Aditz elkartuetan izena ager daiteke: *bihotz-ukitu* (Orixe), *esku-etendu* (Mogel), *gogobete*, *indarberritu*, *itxuraldatu*, *odolustu*, *antzaldatu*, *lokartu* eta horien gisakoak. *Egin* aditzaz baliatuz osatzen ditugu aditz lokuzio asko euskaraz. Holako aditzen ezaugarriak gramatikek (EGLU-II 1987b, EGLU Laburra 1993) eta hainbeste autorek aipatu izan dituzte: Mitxelena (1977d), Azkarate (1990b), Perez Gaztelu (1995), Hualde & Ortiz de Urbina (2003), Zabala (2004), de Rijk (2008), Martinez (2015) eta abar. Batzuetan fenomeno meteorologikoekin dute zerikusia: *euria egin*, *elurra egin*, *haizea egin*, *txingorra egin*... Lokuzioa osatzen duten osagaien (izena + *egin*) askatasuna, maila askotakoa izan daiteke. *Listu egin* edo *leher egin* aditzetan, ez da modurik bi osagaiak bereizteko, eta beti elkarturik ageri dira. Lotura handia da *hitx egin*, *alde egin*, *hanka egin*, *ospa egin* edo *hots egin* gisako aditzetan ere. Ez horrenbeste, ordea, *lo egin*, *eztanda egin*, *kalte egin*, *aurre egin*, *solas egin*, *bekatu egin*, *min egin*, *hasperen egin*, *laztan egin* edo *garrasi egin* bezalakoetan. Autoreek osagaien arteko lotura horren ezaugarriak zedarrizteko azterketak egiten dituzte. Badira berezitasun sintaktikoak, batzuetan determinatzailea ezinbestekoa da (*euria egin*); beste batzuetan ezinezkoa (*\*loa egin*); zenbaitetan determinatzaileak esanahia aldatzen du (gauza desberdinak dira *lan egin* eta *lana egin*); desberdintasun sintaktikoak (*ez du lanik egin* / *\*ez du hankarik egin*); *egin* aditzaren eta izenaren arteko harreman semantikoak aski desberdinak dira, eta zenbait kasutan *egin* aditzak ez du “pisurik”, galdua du esanahia: *lan egin*, *irri egin*, *negar egin* edo *barre egin* alde batean daude, baina *hanka egin* edo *piper egin* bezalakoak beste batean. Lehenbizikoak hurbil daude esanahitik, baina ez bigarrenak. *Kontu eman*, *parte hartu* eta horien gisakoak ere aditz lokuziotzat har daitezke.

**12.3.10j** Baina, esan bezala, izena aditz bihurtze hau aski emankorra izanik euskaraz, eta tradizio luzekoa izanik, gainera, baditu mugak, eta ezin da nolahi erabili. Hala, *apez* hitzak *apeztu* aditza ematen du, *serora* hitzak *seroratu*, *apezpiku* hitzak *apezpikutu*, *fraide* hitzak *fraidetu*, eta *artzain* izenak *artzaindu* (adibide gutxirekin, zernahi gisaz). Ordea, *moja* izenak ez du *\*mojatu* ematen, edo *ertzain* izenak *\*ertzaindu* aditza. Horregatik, biziki bitxiak gertatzen



dira inolako tradizioz gabeko sortu berri diren aditz batzuk: *harremandu*, *sukaldata*, *arrantzatu* (adibide pare bat aurkitu dugu tradizioan), *ehizatu* (gaur egun badira adibideak, baina tradizioan batere ez), *aintzatetsi*, *ahaldundu*... Zail bada ere kontua ongi zedarritzea, bistan da ezin dela prozesua izen guztietara orokortu.

**12.3.10k** Euskararen gramatika dela eta, ezinbestekoa da hemen aipatzea euskarak baduela aditzetatik izenak sortzeko bide bat aski erraza: *jate*, *edate*, *jakite*, *asmatze* eta abar. Horrela, aski erabiliak ditugu: *haragi jate handia egin zuten* (batzuetan hitz elkartu lexikalizatuak eta guzti: *zikiro jate*, esaterako); *hori asmatze hutsa da*; *sabelean hori sentitzeak bakarrik*; *jakite handiko irakaslea*; *jakite hori alegiazkoa da*... Horixe da, hain zuzen, euskarak aditzetatik izenak sortzeko duen bide emankorrenetako bat, ingelesezko *-ing* ezagunaren parekoa, esaterako. Nolanahi ere, badirudi batzuetan idazleek gogokoak dituztela beste mota bateko hitz eratorriak: *jakitura*, *asmaketa*, *sentipen*, *ikuspen* eta abar.

Ez da bide bakarra, partizipio burutuzkoan oinarriturik ere sortzen baitira aski erraz izen eratorriak: *etorri-a*, *jan-a*, *idatzi-a*, *jardun-a* eta abar.

## 12.4. Generoa

**12.4a** Euskarak ez du generorik bereizten gramatikan. Ez, bederen, izenaren edo adjektiboaren morfologian. Inguruko hizkuntzetan (gazt.) *venido* eta *venida* ikusirik, edo (fr.) *venu* eta *venue*, badakigu zeinetan gizonaz ari den, eta zeinetan emakumeaz. Hobeki zehaztuz, gauzak puntu honetan nahasirik baitaude, generoaz ari garela esan behar dugu, eta ez sexuaz: *mesa* edo *table* femeninoak dira, baina *libro* eta *livre*, ordea, maskulinoak. Badute generoa, ez dute sexurik. *Hombre* eta *homme*, genero aldetik, maskulinoak dira, eta *mujer* edo *femme* femeninoak. Sexuaz ere bereizten dira, jakina, baina sexua biologiari dagokio, eta generoa gramatikari. Hizkuntza horietan, gehienetan, baina ez beti, aski izaten da izen formari behatzea zein genero duen jakiteko: hola, esaterako, badakigu *panadero* maskulinoa dela (hori gertatzen da *-o*



letraz bukatzen diren izen edo adjektiboekin) eta *panadera*, berriz, femeninoa (eta hori gertatzen da arruntean *-a* letrarekin bukatzen diren izen edo adjektiboekin). Bereizketa morfologikoa da. Berdin frantsesez ere: *boulangier* eta *boulangère*. Batzuetan, ordea, ez da bereizketa hori betetzen: *periodista* eta *víctima* maskulinoak nahiz femeninoak izan daitezke. Areago, lehenbizikoa zenbatzailearekin edo adjektiboarekin bereiz daiteke nori dagokion: *un periodista bueno / una periodista buena*. Bigarreanean, berriz, *una víctima* esanez gero, femeninoa da generoz, baina gizona edo andrea izan daiteke. Eta adjektiboa ere femeninoan hartzen du beti: *Agustín fue una víctima desgraciada*. Inguruko hizkuntzek badute eragina, hala ere, euskaran, puntu honetan: *tonta, maistra, panadera, katolika, konpletiba...* eta tankera horretakoekin osatutako adibideak ez dira falta. Ordea, hizkuntza gehienek ez dute generorik markatzen. Markatzen dutenen artean, generoa sexuarekin lotua da, esan bezala, salbuespen batzuekin: arrak maskulinoarekin lotzen dira, eta emeak femeninoarekin.

**12.4b** Euskarak ere ez du generorik markatzen, eta hitz diferenteak ditugu gauzei izenak emateko, maskulinoa eta femeninoa morfologikoki bereizi gabe: *okina* esaten dugu (edo *panaderua*), andrea izan nahiz gizona izan. Eta *seme-alabez* mintzo gara, edo *aita-amez*, edo *senar-emazteez*. Desberdintasunak ez dira morfologikoak, ikusten denez, lexikoak baizik.

Badira, hala ere, hitz batzuk, ez gehiegi, non itxurazko bereizketa morfologikoak ere atzematen diren: *lehengusu-lehengusina*, *alargun-alarguntsa*, *errient-errientsa* eta abar. Oso gutxi dira, eta ez dira batere produktiboak. Gutxi izateaz gain, ez dira euskalki guztietan bereizten: batzuetan *alargun* esaten zaio andreaki ere, edo *lehengusu* hitzak berdin balio du sexu baterako eta besterako. Bereizketa morfologiko hori ezin da orokortu: ez ditugu *irakasle* eta *irakaslesak* bereizten, esaterako, edo *alkateak* eta *alkatesak*, denak baitira irakasleak edo alkateak, gizonak nahiz andreak izan. Hortaz, horietan ere onartuko dugu bereizketa horiek, azken batean, bereizketa lexikoak direla, hiztegikoak, eta ez morfologikoak. Egia da, batzuetan *alkatesa*, *medikusa* bezalakoak erabili izan direla, baina esanahia desberdina dute. Ez dira alkate edo mediku diren andreak: alkatearen edo medikuaren andreaki deitu izan zaio hola.

**12.4c** Hitz berriekin, ordea, arazoak sortzen dira batzuetan, eta hiztun batzuek badute joera *katoliko* eta *katolika* bereizteko, edo *tonto* eta *tonta* bereizteko. *Eliza ama santa* bezalakoak ere badira gure tradiziozko testuetan. Behin baino gehiagotan entzun ditugu *perpaus konpletiba* bezalakoak. Holakoak ez dira zuzenak gramatikaren ikuspuntutik. Beti *-a* formakoak mailegatu behar ditugu euskaraz: *perpaus konpletiboak*, *krisi ekonomikoa* eta abar. Euskaltzaindiak *lesbiana* erabaki du *Hiztegian* (izenondo eta izen gisa), nahiz horrek *lesbiano* behar lukeen. Egia da erabilera kontuan hartzen badugu, euskal idazleek *lesbiana* erabili dutela askoz ere gehiago, *lesbiano* baino. Baina, dena den, *triptiko lesbiano* edo *feminismo lesbiano* bezalakoak ere ageri dira, eta hor gogortxoegi dirudi *feminismo lesbiana* erabiltzea, euskarak *feminismo lesbiano* eskatzen baitu.

Beste kontu bat da, desberdina, adizki alokutiboekin gertatzen dena. Esan *diat* eta esan *dinat* bezalakoak bereizten ditugu, nori zuzentzen gatzaizkion elkarriketan, gizonari (*diat*) edo andreari (*dinat*). Hemen aipatzen dugu kontua, nahiz ez dagokion izenaren atalari, baizik aditzarenari (ikus 27. kapitulua). Zernahi gisaz, adizki horiek ere ez dute generoa bereizten, baizik sexua, batez ere andrearen kasuan: euskal literaturan toka (*diat*) erabili izan da gizon, gauza eta animaliekin.

## 13. Izenordainak

---

- 13.1. Zer den izenordaina
  - 13.2. Izenordain motak
  - 13.3. Pertsona izenordain arruntak; 13.3.1. *Ni*; 13.3.2. *Hj*; 13.3.3. *Zu*; 13.3.4. *Be-rori*; 13.3.5. *Gu*; 13.3.6. *Zuek*; 13.3.7. *Beroriek*; 13.3.8. *Bera*
  - 13.4. Pertsona izenordain indartuak; 13.4.1. Aldaerak; 13.4.2. Erabilera
  - 13.5. Forma indartuen genitiboaren forma
  - 13.6. *Han, bertan, berean*
  - 13.7. Linschmann-Aresti legea; 13.7.1. Legearen formulazioa; 13.7.2. Linschmann-Aresti legeak sortzen dituen zalantzak; 13.7.3. Linschmann-Aresti legea hausten delarik
  - 13.8. Bihurkariak eta elkarkariak; 13.8.1. Zertaz ari garen; 13.8.2. *X-en burua* bihurkaria; 13.8.3. *X-en burua* eta aditz intrantsitiboa; 13.8.4. *Elkar* elkar-karia; 13.8.5. *Elkar* eta *bata beste* egitura
  - 13.9. Ezabaketa dela eta; 13.9.1. Izena ageri ez; 13.9.2. Izenordainen eta beste zenbait sintagmaren ezabaketa
  - 13.10. Izenordain zehaztugabeak; 13.10.1. Zer diren izenordain zehaztugabeak; 13.10.2. Izenordain zehaztugabeak: galdetzailleak; 13.10.3. *Nor* izenordaina; 13.10.4. *Zein* izenordaina; 13.10.5. *Zer* izenordaina; 13.10.6. Galdetzailen gainean beste ohar batzuk; 13.10.7. Galdetzailleetatik eratorritako izenordainak; 13.10.7.1. *Norbait, zerbait*; 13.10.7.2. *Nor edo nor, zer edo zer*; 13.10.7.3. *Edonor, edozein, nornahi, zeinahi*; 13.10.7.4. *Edozer, zernahi*; 13.10.7.5. *Nor (ere), zer (ere)*; 13.10.7.6. *Inor/nehor, ezer (deus, batere)*; 13.10.7.7. *Norbera eta norbere*; 13.10.7.8. *Nor bere, zein bere*
  - 13.11. *Batbedera*
  - 13.12. *Beste*
-

### 13.1. Zer den izenordaina

**13.1a** Izenordain terminoa anbigua da, eta nahasgarria ere gerta daiteke, bai baitirudi izenaren ordeztu erabiltzen dugun zerbait dela. Baina hori ez da guztiz hola. Gramatikek pertsona izenordainez dihardute, eta hala deitzen ditugu, *pertsona izenordain*, pertsonen gramatika ezaugarriak erakusten dituztelako. Pertsona ezaugarri horiek euskal aditzean ere ikusten dira. Pertsona izenordainek diskurtsoan parte hartzen duten pertsonak izendatzeko, nornahi direla ere, erabiltzen dira. Ezaugarri hori dela eta, izenordainek ez dute eduki lexiko garbirik, eta propietate deiktikoak dituzte. Nola esaten dugun *han*, adibidez, eta *han* adberbioak toki jakin bati egiten dion erreferentzia, hala *zu* izenordainak ere nirekin edo gurekin elkarrizketan ari den pertsonari egiten dio erreferentzia. Beraz, pertsona izenordainak lehenbiziko eta bigarren pertsonarekin lotzen ditugu. Hirugarren pertsonaren beharra erakusleekin betetzen da.

**13.1b** Historikoki euskarak lau izenordain hauek erabili izan ditu lehenbiziko eta bigarren pertsonen ordainetan: *ni* (1. perts./sing.), *hi* (2. perts./sing.), *gu* (1. perts./pl.) eta *zu* (2. perts./pl.). Horrela, izenordainen eskema, aditz baten laguntzan, hau litzateke: *ni nator*, *hi hator*, *gu gatoz*, *zu zatoz*. Ez da hori gertatzen, ordea, gaurko euskaran: batetik, *hi* nahiko markatua da —ezin da noiznahi eta nolannahi erabili— eta erabileran alokutiboaren adizkiekin lotzen dugu ezinbestean; bestetik, *zu* bigarren pertsona singularra bezala erabiltzen dugu, eta *zuek*, berriz, bigarren pertsona plurala. Baina *zuek* hori berriagoa da, eta euskal morfologiak, batez ere aditzak, garbi erakusten du geroago sortu den zerbait dela, nahiz euskaraz argitaratutako lehenbiziko liburuan (Etxepare 1545) ageri den dagoeneko. Beraz, aldaketa hau gertatu da historian zehar euskal izenordainekin: *ni*, *hi*, *gu*, *zu* → *ni*, *hi/zu*, *gu*, *zuek*. Edo, beste hitzetan esateko, gaurko *zu zatoz* hori lehenago plurala zen, pertsona bat baino gehiagori egiten zion erreferentzia, baina gaur egun singularra da. Horrek asimetria sortu du aditzaren morfologian (ikus § 18.1c). Pluralerako, berriagoa den *zuek zatozte* sortu du hizkuntzak. Bigarren pertsonakoa da *berori* ere, gero ikusiko dugunez.

**13.1c** Pertsona kontzeptuak, gramatikan, bi interpretazio nagusi ditu: batetik, diskurtso mailako hizketariak deitzeko erabiltzen dugu, lehentxoago esan

gisan, eta, bestetik, aditz flexioaren marka morfologiko batzuk ere seinalatzen ditu. Hola, diskurtsoan parte hartzen dutenen artean hitz egiten duena (lehenbiziko pertsona) nori hitz egiten dion (bigarren pertsona) eta noren gainean edo zertaz hitz egiten den (hirugarren pertsona) bereizten dira euskal aditzean. Aditz morfologiak ezaugarri horiek islatzen ditu, pertsonak diskurtsoan zuzenean agertu edo ez: *ni nator* esaten badugu, edo *nator* bakarrik, aditz morfologiak azpimarratu dugun *n* batekin islatzen du pertsona, hitz egilea. Berdin gertatzen da *diozu* edo *zaio* bezalako adizkiekin ere. Lehenbiziko eta bigarren pertsona, hortaz, hizketan parte hartzea dela eta definitzen dira (elkarrizketariak dira). Hirugarrena, berriz, izenei esleitzen zaie.

**13.1d** Esan dezagun, zernahi gisaz, diskurtsoko pertsonak (*ni*) eta aditz morfologia (*nator*) batera ageri badira gehienetan, ez dela beti-beti hori hola gertatzen. Bigarren pertsona seinaltzeko erabiltzen dugu gaur egun baztertuxe dagoen *berori*, baina aditzean hirugarren pertsonaren markak erabiltzen ditugu (*berori dator*), hau da, esanahiaz bigarren pertsona da, baina formaz hirugarrena. Izen sintagmei (*gaztea, itsasoa, adarrak...*), oro har, hirugarren pertsona dagokie bi zentzutan: diskurtsoan zertaz ari garen adierazten dute, eta aditzean ere hirugarren pertsonaren markekin bat egiten dute. Baina badira, zentzu paralelo hauei —“diskurtsoko erreferentzia” eta “aditz morfologia”— dagokienez, salbuespenak: adibidez, *ikasleok uste dugu* esaten badugu diskurtsoko hirugarren pertsona erabiltzen dugu (*ikasleak/ikasleok*), baina aditzean lehenbizikoa (*dugu*). Zer esan ez, badira ingurune nahasiagoak, eta batzuetan zalantzak sortzen dira gurutzaketa hauetan: *ni naiz goizean deitu dizuna/dizudana*. Edo, adibidez, *zergatik oihu egiten diozu amari?* galdetzen badio norbaitek bere alabari benetan *zergatik egiten didazu oihu?* ari da galdetzen, hirugarren pertsona jarritz lehenbizikoaren tokian. Edo *begira ze alua den hau!* esaten badiogu norbaiti zuzenean, berez *begira ze alua zaren zu!* ari gara esaten.

## 13.2. Izenordain motak

Izenordainen artean, pertsona izenordainak eta izenordain zehaztugabeak bereizten ditugu. Pertsona izenordainak dira oraintxe aipatu ditugunak: *ni, hi/zu/*

*berori, gu* eta *zuek*. Horiek guztiak pertsona izenordain arruntak deituko ditugu, berehala ikusiko denez (§ 13.3), forma indartuak ere bai baitituzte aldameanean: *nihaur, zuhaur* eta abar. Hirugarren pertsonarako erakusle indartua erabiltzen dugu: *bera*, edo izenordain zehaztugabeak: *nor, norbait, edonor, zerbait, norbera, inor...* Beste ere batzuetan izenordaina izan daiteke, zehaztugabea, betiere. Esan dezagun baditugula, azkenik, bihurkariak eta elkarkariak ere: *-en burua* eta *elkar*.

Hirugarren pertsonaren kasuan, zalantzak erakusten dituzte beti gramatikariek, ez baita argi benetan hirugarren pertsonarik baden. EGLU-I liburukian (70) esaten da ez dagoela zinez hirugarren pertsonari dagokion izenordainik, ez baita, berez, pertsonarik hor: *ni* edo *zuek* diogunean pertsonez ari gara, ez dugu hor deusik isiltzen, baina hirugarrenean, *hura* esanez gero, adibidez, gauza bat ere izan daiteke. Gainera, izen batekin ager daiteke, edo izena isildurik, izenordain funtzioarekin: *hura etorri da / [andre] hura etorri da*. Badirudi *bera* dugula euskaraz pertsona izenordainetatik hurbilen gertatzen den hirugarren graduko erakuslea, geroago ikusiko denez.

### 13.3. Pertsona izenordain arruntak

Multzo honetan sartzen ditugu lehenbiziko (*ni, gu*) bigarren (*hi, zu, berori*) eta hirugarren pertsonen izenordainak (*bera*): *nik* *egingo dut*; *guk* *egingo dugu*; *hik* *egingo duk/dun*; *zuk* *egingo duzu*; *zuek* *egingo duzue*; *berorrek* *egingo du*; *berak* *egingo du*.

#### 13.3.1. Ni

**13.3.1a** *Ni* da lehenbiziko pertsona singularraren izenordaina. Beti hiztunari dagokio: *ni* *Azpeitian jaiotzen; niri asko gustatzen zaizkit goxokiak; hori ez da nirekin etorriko*. Geroago ikusiko ditugun forma indartuak alde batera utzita, izenordain honen genitiboak, eta genitiboan oinarria hartzen duten gainerako postposizioek forma bat baino gehiago erakusten dute.

**13.3.1b** Eredu estandarrean *nire* (eta *niregana*, *nirekin*, *niretzat...*) aldaera hautatu da, eta hori da zabaldu dena, bizkaierazko aldaera onarturik. Euskara-ren historian maizen dokumentatzen den aldaera, hala ere, *nere-* da, hori baita XIX. mende hasieratik gehien hedatu dena (zuberera, bizkaiera eta Pirinioetako mintzairak kenduta). Lehenagotik ageri da Iparraldean, eta autore nafarren artean. Idazle zaharrenek *ene* erabiltzen dute. Gaur egun batez ere esapide batzuetan (*ene!*), eta Iparraldean, erabiltzen da. Izenaren ondoan ageri denean (*ama nere!*) zentzu amultsua hartzen du.

**13.3.1c** *Neri* forma berriagoa ere (*nere*-n oinarritua) baztertu da, eta *niri* onartu da estandarrean datiborako. Forma hori, *niri*, euskalki guztietan erabili izan da eta Etxepareren liburuan ageri da. Baina *eni* ere ongi dokumentatua da: XVIII. mende erditik aurrera behe-nafarreraz eta zubereraz ageri da. Eta gaur egungo literaturan ere adibide asko badira, batez ere, baina ez bakarrik, Iparraldeko idazleen artean.

Ikusi hemen Euskaltzaindiaren 5. araua: “Ene/nire, niri”, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua.

Instrumentalean *nitaz* da forma erabiliena (eta *niri buruz* itzulia, jakina): *erruki nitaz*; *ez luke uste onik nitaz!*; *arduratu nitaz!*; *ez kezkatu nitaz*.

**13.3.1d** Batzuetan *biderkaturik* erabili izan da literaturan, indarra emateko: *Absalon, nire nire seme maitea...* (Mendiburu); *Oi Jesus nirea eta osoki nirea eta nire-nireagoa...* (Duvoisin); *Giza-familia osoaren interesak, nire-nireak bezala hartu behar ditut* (Villasante) eta abar. Gaur egungo testuetan, zernahi gisaz, ez da holako adibiderik ageri.

**13.3.1e** Zenbaitetan *izen gisa* erabiltzen dugu, substantibaturik: *Gure benetakoa nortasuna da eta gure egiazko “ni”a* (Mirande); *Eta maiz egingo dugu topo horrelakoekin, “ni” hori ez baita ez laburra ez meharra* (Mitxelena). Gaurko literaturan ere badira adibide franko: *Nire “ni”a ez ezkutatzeko eskubidea* (Urkiza); *Legareen hitzarekin baten egiten duen nia...* (Zulaika); *Nia puzteko aukera ematen duela...* (Zaldúa); *Nire ni ausartak barre egiten zion nire ni beldurtiari* (J. Zabaleta).

### 13.3.2. *Hi*

**13.3.2a** *Hi* da bigarren pertsona singularrari dagozkion izenordainetako bat. Hiztunak aurrean duen entzuleari egiten dio erreferentzia. Izenordain honen erabilera oso markatua da, ez baita neutroa. *Hi* aukeratuz gero bigarren pertsona singularrekoaren erreferentziatzat ezinbestekoa da hitanoa erabiltzea, alokutiboa, aditz sistema osoan (ikus 27. kapitulua). Hurbiltasun handia, edo egoera jakin bat eta ez edozein, adierazten du hitanoaren erabilerak: elkar eza-gutzeak ematen duen hurbiltasuna, adinak izatea, lankidetzak, familia loturak eta abar. Beste hitzetan esateko, ezin da nolana (*ni* bezala, adibidez) erabili. Eta erabilera onartzen bada ere, toki batetik bestera erraz aldatzen dira erabilerak horrek bete behar dituen baldintzak: toki batzuetan lagunartean erabiltzen da, bereizketa gehiegi egin gabe; beste batzuetan mutilen artean bakarrik bai, baina nesken artean ez, edo mutilek neskei bai eta alderantziz ez; toki batzuetan anai-arreben artean bai, beste batzuetan ez; senar-emazteen artean bai, edo ez, tokiaren arabera eta abar<sup>1</sup>. Nolanahi ere, nekez egin dakioke hika adeitasuna eta “distantzia” zor zaion norbaiti<sup>2</sup>. Hori dela eta, erabilera baztertuago den tokietan desegokitzat, “ijito hizkeratzat” (Azkuek ematen du horren berri) hartu izan dute batzuek. Zernahi gisaz, eta zenbait girotan, badirudi gaur berriro berpizten ari dela galdua zuten zenbaiten artean.

**13.3.2b** Beraz, *hiri deitu diat* esanez gero, horrek ezinbestean eskatzen du *elkarrekin joango gaituk* edo holako zerbait, baina ez *\*elkarrekin joango gara*. Hori esan nahi dugu aditz sistema osoaren erabilera eskatzen duela diogularik: *\*hiri deitu diat eta elkarrekin joango gara* esaldiak ez du tokirik euskaraz. Gainera, nor den aurrean dagoena, sexua ere bereizten da. Mutila bada aurrekoa, hitz egiten ari dena mutila nahiz neska izan, aukera hau egin beharko du: *hiri deitu diat eta elkarrekin joango gaituk*. Aldiz, aurrekoa neska baldin bada,

---

<sup>1</sup> Gai hau (hitanoaren erabilera) Alberdik (1994, 1996) aztertu du xeheki.

<sup>2</sup> Ez da esan beharrik erabilera honen ohiturak, gaur egun ez badatoz bat, historian ere aldatuz joan direla. Aipatu behar da hemen Leizarragak *hi* erabiltzen duela Jaungoikoari zuzentzen zaionean, eta *zu*, berriz, erreginarekin bakarrik erabiltzen du.



berdin dela hitz egiten ari dena mutila nahiz neska izan, beste hau aukeratu beharko du: *hiri deitu dinat eta elkarrekin joango gaitun*. Garibaik bere garaian ere erabilera honen berri ematen zuen.

Ikusi hemen Euskaltzaindiaren 14. araua: “Adizki alokutiboak (hikako moldea)”, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua.

**13.3.2c** Duen izaeragatik maiz erabiltzen da bokatiboetan: *hi, hator hona!; hi heu!; hi haiz gaizki erraile bat!* Tradizioan mintzo guztietan ageri da, nahiz bizkaierazko adibideak urriagoak diren: XIX. mende hasierako autore gehienetan ez da ikusten. Mendearen bigarren aldian, ordea, gehienek erabiltzen dute. Batzuetan *hi* horren ordeztan *motel* edo beste izenen bat ere erabiltzen da, antzeko balioarekin: *Hago isilik, motel, esan zidan anaiak; Asko sentitzen diat, motel* eta abar. Berdin gertatzen da *neska, andre, ume...* eta holakoekin. Eta horrek *zu*-ren kasuan ere balio du.

Lekuzko postposizioak direla-eta gramatika klasikoetan (Ithurry 1895; Lafitte 1944) *hitan, hitara, hitarik...* gomendatzen da. Baina testuetan maizago ageri da *hiregana(t), hireganatu*, eta zaharretan *hire baitan* arrunta da. Leizarragak *hireganik* erabiltzen du. Zernahi gisaz, *hi baitan, hitan* edo *hiregan* ere erabiliak izan dira, egileen arabera. Instrumentalean *hitaz* da maizen agertzen den aldaera.

### 13.3.3. Zu

**13.3.3a** *Zu* da bigarren pertsona singularrari dagokion izenordain erabiliena. Hau da, gaur egun, bigarren pertsona singularraren erabilera neutroa, ez-markatua. Hasieran plurala baldin bazen ere, gaur egun singularraren balioarekin erabiltzen dugu. Pluraltasun horren aztarnak aditzean ageri dira: *gu gabiltza / zu zabilta*. Singularrean, ordea: *ni nabil / hi habil*. Aski garbi ikusten dira hor pertsonen markak: *ni* → *n*; *hi* → *h*; *gu* → *g*; *zu* → *z*. Baina plural marka ere ageri da *gu* eta *zuren* kasuan: *-tza*. Beraz, simetria handia dago *ni/hi* eta *gu/zu*

izenordainen artean: *nabil/habil*; *gabiltza/zabiltza*. Baina behin *zu* singularre-  
ra pasaturik hark utzi tokia *zuek* izenordain berriak bete behar izan duenean,  
asimetria handiak sortzen dira. Batetik, adibidean ikusten den gisan *-tza* plu-  
ralgilea ageri da orain singularrean (*zabiltza*), eta bestetik, *zuek* izenordaina-  
ren marka berriak gaineratu behar dira: *nabil/zabiltza*; *gabiltza/zabiltzate*.  
Gauza bera *haiek zuek ikusi zaituztete* perpausean, non hasierako *z-* baita per-  
tsona, tarteko *-z-* pluralgilea, eta lehenbiziko *-te-* hori sistemari gaineratu behar  
izan den hala moduzko pluralgilea, azkeneko hirugarren pertsonaren *-te* ho-  
rren aurrean jarri dena.

**13.3.3b** Instrumentalean *zutaz* da formarik erabiliena tradizioan; *zugana* ad-  
latiboan da tradizioan ageri dena, eta Iparraldean gehiago *zuregana* (gaurko  
idazleek ere *zuregana* forma maiteago dute; *zure baitara* aise gutxiago erabil-  
tzen da). Ablatiboan *zureganik* (Iparraldean) eta *zugandik* (Hegoaldean). Ho-  
riek baino gutxiago *zutarik* eta *zure baitarik*.

Jende gehienentzat bigarren pertsona singularreko izenordain bakarra da egun  
*zu* hori. Batez ere *hi* urrun ikusten dutenentzat. *Hi* eta *zu*, biak erabiltzen ditue-  
nak, ordea, bata aldi edo parada batzuetarako gorde dute, eta bestea beste ba-  
tzuetarako. Adibidez, aitari edo amari *zu* esango diote, baina adiskideari edo  
anaiari, beharbada, *hi*.

**13.3.3c** *Zu* alokutiboa ere badugu (edo *xu* alokutiboa). Lehenago *hi* alokuti-  
boa aipatu da: *joan da* esan beharrean, hiztunak *joan duk* edo *joan dun* hauta  
dezake, alokutiboari bide emanez hola. Baina badugu *duzu/duxu* alokutiboa  
ere. Beraz: *joan da* (neutroa) → *joan duk/n* edo *joan duzu/xu*. Ekialdean baka-  
rrik erabiltzen da, batez ere Zuberoa inguruan. Baina erabileraren nondik no-  
rakoak nahiko nahasiak dira<sup>3</sup>, zernahi gisaz.

**13.3.3d** Badu *zu* izenordainak beste erabilera bat ere: batzuetan modu inper-  
tsonalean edo generikoan erabiltzen da. Jo dezagun norbaitek galdetzen duela  
holako zerbait talde baten aurrean: *Nola joaten da Gasteiztik Lezora?* Erantzun

---

<sup>3</sup> Honetaz Alberdi 1994, 1996; Bonaparte 1869; Yrizar 1981 (II) eta Allières 1960-1961 ikus  
daitezke.

mota asko izan ditzake galdera horrek, eta horietako bat holako zerbait izan daiteke: *Errazena hau da: hartzen duzu Iruñeko irteera, eta bide nagusitik joan behar duzu Altsasu aldera...* Hor ageri diren bi *duzu* horiek *duzu* arruntak izan daitezke, nolabait ere esateko, elkarrizketa batean hiztunaren aurrean dagoen pertsonari erreferentzia egiten diotenak, edo inpertsonalak ere izan daitezke, *da* aditzaren ordainak (*hartzen da... joan behar da...*). Iruzkina batean norbaitek esan dezake, inori ere zuzendu gabe: *bizitza gero eta laburragoa duzu*. Edo *batzuetan ohartu gabe sartzen zara espero ez duzun saltsetan bezalakoetan* ere inpertsonala izan daiteke. Kasu horretan ere inpertsonala da.

#### 13.3.4. Berori

**13.3.4a** *Berori* ere bigarren pertsona singularreko izenordaina da esanahiaz, forma aldetik hirugarren pertsonarena hartzen badu ere: *berori joango da, berorrek erabakiko du* (*zu joango zara, zuk egingo duzu*). Errespetuzko izenordain pertsonala. Gaur egun baztertu eta ahaztuxea dugu. Pluralean *beroriek* egiten du. Erakusleen sailekoa, hortaz. *Jaungoikoak egun onak eman dagiozala* esaten dio Peruk Maisu Juani eta aurreraxeago honela segitzen du testuak: *Berori bezain jaun apaindu batek oinak ipini ardan-etxe honetan? Goizean berori, eguerdian zu, arrastian hi eta gauean lepora*, dio esaera zaharrak.

**13.3.4b** Formari dagokionez, bi morfemak osatzen dute: *hori* erakusleak eta *ber* partikulak. Kategoria garbikoa ez den partikula hori izenen edo aditzen aurrean (edo atzean) erabiltzen da: *ber gizona; ber adina; zure ber adinekoa; ber gisan* eta abar. *Bera* hirugarren pertsonako izenordainean ere ageri da (*ber + a*). Eta aditz batzuen aurrean, ‘bakarrik’ esan nahi duela: *Ala juduen ber da Jainkoa?* Batzuetan ‘hain zuzen ere’, ‘... neurrian’, ‘ba- ... ere’ eta abar esan nahi du: *Honetakotz ber suszitatatu haut, erakuts dezadantzat hitan neure boterea* (Leizarraga); ... *mugagabea eta betierekoa dela onartzen den ber* (Xarriton); *Ez dut inporta eskualdun diren ber* (Oxandabaratx).

**13.3.4c** Autore batzuek *hori* forma hutsa erabili izan dute, *berori* adierazi nahi duela: OEhk *Hori izan da* eta *Horrek erran du* (= *zu izan zara; zuk erran*

duzu) biltzen ditu; *Berrogeita sei urte kostatu da tenplo honen egitea, eta horrek (= zuk) goratuko du hiru egunez?* (Leizarraga); *O Jesus, hori nirea, eta ni horrena betikoz* (Leizarraga); *Honetan oiltan dut errespuesta, horrek (zuk) azken kartan erraiten didanean gaitzena* (Mendigatxa). Gaiarrek hainbeste maite zuen tia Juanari egiten dion gutunean ere ageri da: ... *ta ori, nola dago? Naidia xin ona ichasoaren eustra? Anizko andi da (... eta hori, nola dago? Nahi dua jin hona itsasoaren ikustera? Anizko handi da).*

**13.3.4d** Eguneroko hizkuntza arrunterako agian balio ez duen forma dugu *berori* hau, baina hizkuntza maila formalagoetan erabilgarria gerta dakiguke beharbada (eskabide ofizialak, instantziak... egiteko orduan, esate baterako).

**13.3.4e** Tradizioan badu indarra eta Lazarragandik (*Berorren zerbitzaria naiz eta*) hasita baditu lekukoak Hegoaldean, salbu absolutiboan (*berorri*), hau xx. mendeko kontua baita. Erdarazko *Su Eminencia, Su Ilustrísima, Su Excelencia...* eta holakoen ordezkero erabili izan da. Gaurko literaturan ere badira franko adibide.

### 13.3.5. *Gu*

**13.3.5a** *Gu* da lehenbiziko pertsona pluraleko izenordaina. Pertsona bati baino gehiagori egiten dio erreferentzia, baina pertsona horien artean hiztuna bera ere sartzen da, hau da *ni* + beste zenbait pertsona da *gu* hori. Beste pertsona horiek agerian egon daitezke edo ez: batzuetan elkarrizketatik kanpoan direnak ordezkutzen ditu. Hiztunei egiten die erreferentzia, baina beste batzuetan hiztunari gehi entzuten dutenei ere.

Ergatiboan *guk* egiten du, baina Lazarragak *guk* erabiltzen du (absolutiboan eta ergatiboan) *gu* eta *guk* aldaerekin txandakatuz. San Millango glosetan ere *guk* ageri da ergatiboan. Genitiboan “etxeakoak” izendatzeko erabili izan da tradizioan: *gurekoak* (‘gure etxeakoak’). Esanahia dela eta, batzuetan badu jeneralizazio kutsu handiagoa: *Krisia gu ari gara ordaintzen; Gu hemen hobeki bizi gara; Zer egingen dugu errepidean poliziak geldiarazten bagaitu?;*

*Hondartzan joan-etorrika ibiltzen garelarik...* Holakoetan *gu* hori gazteak, kontinente batean bizi direnak eta abar izan daiteke.

**13.3.5b** Batzuetan gure buruarekin (sing.) ari gabela erabiltzen ahal dugu *gu* (pl.) ere: *Lasai, Patxi, baretu gaitezen behingoan!*; *Berriz ere sartu dugu hanka* eta abar. Egiletasunaren plural gisa ere erabiltzen dugu zenbaitetan: *Lan honetan adierazi nahi dugu...* (nahiz lana batek bakarrik sinatu); *Liburua amaitzea asko kostatu zitzaigun*; *Ez dugu beldurrik onartzeko...* Plural mota hau “apaltasunezko plurala” deitu izan dute batzuek. “Plural sozietatiboa” izenekoan nori zuzentzen diozun mezua, hura ere sartzen duzu plural horretan, jendetasuna adieraziz: *Zer moduz gaude gaur?*; *Zer, gaur ere ezin dugu lo egin?*; *Eta, nola goaz ingelesarekin?*... Horren aldaera batean testu irakurlea ere sartzen dugu plural horretan: *Aurreko pasarteetan ikusi dugun bezala...*; *Halako orrialdean azpimarratu dugunez...*

### 13.3.6. Zuek

*Zuek* aldaera bigarren pertsona pluralari dagokio. Forma berriagoa da, esan bezala. Pertsona bat baino gehiago aipatzen da, baina horien artean dago bigarren pertsona (*hi*, edo *zu*, zeren *berori* izenordainak badu bere plurala) ere, hots, hiztunaren aurrean dagoen entzulea. Plural hurbilean *zuok* ere erabiltzen da, batez ere bizkaieraz, hizkeran, nahiz literaturan badiren bizkaieraz kanpoko idazle zenbaiten adibideak ere. Euskalkien arabera, aldaera asko ditu izenordain honek: *zubek*, *zuik*, *zek*, *ziek* (Tartas, J. Etxepare, Larzabal, Larre...) eta abar.

### 13.3.7. Beroriek

*Beroriek* da *berori* izenordainaren plurala, eta errespetuzko tratamendua adierazten du: ...*baina etorriko da garaia, beroriek agindu eta nik obedituko dudana.*

### 13.3.8. Bera

**13.3.8a** Hirugarren pertsonari dagokionez beti izaten dira arazoak eta ez da batasunik ikusten gramatiketan. Ez da hau euskararen kontua bakarrik. Hizkuntza askotan gertatzen dira zalantzak hirugarren pertsonako izenordainak sailkatzeko orduan. Batetik, badirudi, egiazko pertsonak (erreferentzia zuzen, zehatz eta bakarrekoak) lehenbizikoa eta bigarrena direla. Hirugarren pertsonako izenordaintzat hartzen dira gaztelaniaz, lehen eta bigarrenarekin batera, *él, ellos, los, ella, ellas, la, las, ello* eta abar. Frantsesez ere *il, elle, on, ils, elles* eta abar sartzen dira. Ingeleseaz ere gauza bera: *he, she, it* eta abar.

Euskaraz, oro har, artikulua erabiltzen dugu: *etxea*. Edo erakuslea: *etxe hori*. Bizkaieraz *ha etorri da* eta holakoak arruntak dira, estandarrean *hura etorri da* perpausaren parekoa. Hor ikusten da berez *a* artikulua erakusle ahuldua besterik ez dela: *etxe hura* → *etxea*. Plural hurbila deitzen dugun *-ok* ere bakarrik ager daiteke zenbait euskalkitan, eta hor ere erakuslea da: *Hok izan ziren mediku zaharraren azken hitzak* (J. Etxepare); *Hok arduratzen du elkarretarat biltzea plazaren erdirat* (J. Etxepare); *Bertzeentzat ari da, uste duela hok ordaina edo zerbait gehixeago emanen diotela* (Leon); *Hok dira gure Printzesaren laur andereak edo neskatok* (Tartas); *Alabainan ez baitira hok oro berak egiten* (Hiriart-Urruti). Kasu horietan guztietan izenordain gisa erabiltako erakusleak dira.

Berdin *hek* (= *haiek*) determinatzailearekin ere, aski arrunta Iparraldeko idazleetan, izenordain gisa erabilia: *Orduan hek mehatxurekin utzi zituzten joaitera* (Leizarraga, oso arrunta da eta etengabe erabiltzen du); *Iragaiten baitziren hek ziren bidetik* (Larregi); *Eta orduandantik hek maite zituen* (Pouvreau); *Erran izan zioten hek* (Haraneder). Jakina, determinatzaile gisa ere arrunta da: *Begietan sukar bat bazuten gizon hek* (Barbier).

**13.3.8b** Determinatzailearen aztarna garbia *hura*-ren kasu marka batzuetan mantentzen da: *haren, hari, harekin...* Baina *hura*, absolutiboan, erakuslea da (*este, cet* edo *this*-en pareko), *etxe hura ederra da*, zenbait kasutan izenordain gisa erabilia: *hura etorri da*. Pentsa daiteke, hala ere, horietan guztietan izena isildu dugula, nahiz beste batzuetan zalantzak sor daitezkeen hori hala dela

pentsatzeko: *Mikelekin egon naiz eta harekin nintzela etorri da Itziar*. Zernahi gisaz, gramatika honetan ez ditugu holakoak izenordaintzat hartuko, baizik erakusle determinatzailetzat, batzuetan aurreko izena isildurik geratzen dela. Gainera, holakoetan joera handia dugu hor ez *harekin* baizik *berarekin* esateko: *Mikelekin egon naiz eta berarekin nintzela etorri da Itziar*. Beraz, nekez esan dezakegu, salbuespen horiek kendurik, euskaraz ere badugula egun hirugarren graduko izenordain arruntik. Badirudi egokiagoa dela esatea berez erakusle determinatzaileak ditugula euskaraz, zenbaitetan pertsona izenordain gisa ere erabiltzen ditugunak.

**13.3.8c** Hirugarren graduko erakuslea da *bera* ere. Askotan erabiltzen dugu-na pertsona izenordain gisa. De Rijkek (2008: 114) ere “Quasi Pronoun” deitzen du. Berez erakusle izanik, izenordainaren zeregina hartzen duenean *bere* egiten du genitiboan: *Berak esana da jaiotza, koittoa eta heriotza direla bere gaiak*. Aldiz, izenordain papera hartu ez eta determinatzaile gisa ageri denean (*mutil bera, mutila bera*) *beraren* erabiltzen dugu: *mutil beraren* (\**mutil bere*), *mutilaren beraren* (\**mutilaren bere*). Geroago itzuliko gara berriz ere gai honetara. Erakusle indartutzat hartu izan da gramatiketan (EGLU-I: 90), baina benetan hirugarren graduko erakusle indartua *huraxe* da. *Bera* gehiago da lehen aipatutako zerbaiti erreferentzia egiteko modua.

**13.3.8d** *Bera*-ren plurala *berak/berek* izan daiteke, edo *beraiek*: *Trufa haiek berak ordea probetxu handitakoak dira* (Mihura); *Hitzok berak ezarri nituen Eskualdunean duela bi urte* (J. Etxepare); *Eta ardi haiek berak zaintzen zituen udan, bortuan* (J. B. Etxepare); [...] *munduan ibili zenean predikatu eta erran zituen gauzak berak* [...] (Berriain); *Xede berak, osoki berak, izanik ere* (Hiriart-Urruti); *Eliza bertan Jaungoiko berari otoi egin eta lehenengo Jauna hartu, jolas berak elkarrekin egin, gose eta ase berak elkarrekin igaro, soinu berarekin poz-dantzak beheko eta goiko plazan egin* (Ugalde); *Eta erreboteko harriek berek baitituzte beren zulo eta zizkak* (J. Etxepare).

*Beraiek* maizago ikusten dugu izenordain gisa erabilia. Zubererazko testuetan ageri da XVIII. mendean eta gero Hegoaldean, batez ere XX. mendean: *Esan dezakegu, bada, guk ere beraiekin Kredoa edo Sineskuntza apostoluek erakutsia dela* (Inza); *Bai gorde ere eramaten zizkietenak, beraiek ere sumatuko ez*

*zuten tokian* (Orixe); *Aitaren tesorotik dirua nik baitut harturen, eta gero ihe-si beraiekin bainaiz eskapaturen* (Xarlem pastoral); *Negatibotasun hau da beren egiletasunaren ezaugarria, baita beraien ezarpen eta iraupenerako funtsezko baldintza ere* (I. Mendiguren). Guztiz hedatua izanik ere, eta gaur nagusia zalantza gabe testu idatzietan, ez dago, ordea, ofizialki onartua Euskaltzaindiak emandako paradigmetan.

Dena den, determinatzaile gisa ere (OEhk “adjektibo gisa” aipatzen du) erabiltzen dugu, baina aise gutxiago: *Pietatezko eta debozionezko sentimendu beraien inspiratzez beste kristau orori* (Mercy); *Bazter beraietan baziren zenbait artzain, gauzez basoan beren artaldearen zain zeudenak* (Iraizoz). Aposizioan, ordea, arruntago: *Indioen beraien ustez, ordea, irakaspen ona izan liteke izurria* (Garate); *Indioak beraiek ere eritu egiten dira maiz axolagabekeriagatik* (Garate).

**13.3.8e** *Eurak* ere hirugarren gradu pluraleko izenordaina da. Lazarragak erabiltzen du dagoeneko, eta oso arrunta da bizkaierazko testuetan. Gipuzkeraz *erak* ageri da batez ere: *Eurak biak ohi zebiltzan* (Lazarraga); [...] *eta euren ez dakitela hartu die urak inguru guztia* (Etxeita); *Militarrak sublebatu ziren, gobernu batetik eta eurak bestetik* (F. Etxebarria); *Gezurretan ari gara euren aita naizela, ezta?* (Gabiria).

Eta aposizioan: *Ezta lapurrak eurak ere* (Bitaño); *Gibela, baserritarrek eurek hartu zuten, ohi zen legez, eta baita bihotza ere* (Erkiaga); *Hain izaki ahaltsuak ez ote du jainkoek eurek baino izu handiagoa eragingo?* (X. Amuriza); *Alemanak eurak, osaba Vilisen arabera, “jabetu dira itxaropenik gabeko egoeran daudela fronte guztietan”* (Urrutikoetxea).

## 13.4. Pertsona izenordain indartuak

### 13.4.1. Aldaerak

**13.4.1a** Lehenbiziko eta bigarren pertsonen izenordain horiek badituzte forma indartuak ere. Izenordain indartu horiek direla eta, bi arazorekin



egiten dugu topo: izenordainen forma aldatu egiten da euskalki batetik bestera, eta forma horien erabilerak ere muga sintaktiko batzuk ditu.

**13.4.1b** Formari dagokionez, aldaera hauek guztiak aurkitzen ditugu tradi-zioko testuetan:

– singularrean: 1) *ni* → neu (*neur*), nihaur (*nihau*, *nihauri*, *nehaur*, *niñaur*, *nihor*, *ñaur*), nerau, neroni (*neoni*, *neror*, *nerone*, *nedoni*, *negoni*, *nagoni*, *neuni*, *neone*, *neune*, *neroi*); 2) *hi* → heu, hihaur (*hiaur*, *ihaur*, *ihau*, *hihau*, *hiau*, *yaur*), hihaurori, hioroni, heroni, herori (*heori*, *hehori*, *heror*); 3) *zu* → zeu (*zeur*), zuhaur, zerori; 3) *berori* berez da forma indartua eta horregatik aldaerak baizik ez ditu (*bedori*, *beroi*, *bere-beroi*);

– pluralean: 1) *gu* → geu (*geur*), guhaur (*guhau*, *gihaur*, *ginhaur*, *gaur*, *gihau*, *guhar*), gerok, geroni (*guhoni*, *gehori*); 2) *zuek* → zeuek (*zeubek*, *zebek*, *zeurek*, *zaurek*), zuhauek (*zuihauk*, *zuihauek*), zeurok (*zeuok*, *zebok*), zerok (*zeok*).

Hirugarren pertsonan *bera* erakuslea erabiltzen da, izenordain gisan. Ikusten denez, aldaera asko dira horiek. Horrek ez du esan nahi, hala ere, desberdintasuna euskalki kontua bakarrik denik. Euskalkien arabera aldaera bat edo bestea ikusiko dugu (bat baino gehiago, batzuetan), baina ikerketak egin behar lirateke noiz eta nola erabiltzen den aldaera bakoitza.

**13.4.1c** Aldaera horien artean, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ontzat ematen ditu *neu*, *nihaur*, *nerau*; *heu*, *hihaur*, *herori*; *zeu*, *zuhaur*, *zerori*; *geu*, *guhaur*, *gerok*; *zeuek*, *zuhauek* eta *zerok* (horregatik azpimarra testuan). Eta espresuki baztertzen du \**geroni*. Beste aldaera guztiei buruz ez du ezer ere esaten. Beraz, aske geratzen dira egilearen esku, nahiz batasunak eskatzen duen onartutako aldaeren aldeko erabilera bultzatzea.

## 13.4.2. Erabilera

**13.4.2a** Noiz erabiltzen dira forma arruntak, eta noiz forma indartuak? Galdera horrek ez du erantzun errazik es sinplerik, besteak beste, erabilera desber-

dinak ditugulako euskalkien arabera. Hasteko, mendebaleko euskaldunek ekialdekoek baino joera nabarmenagoa dute forma indartuak erabiltzeko.

Sebero Altubek (1929: 99) *neu, zeu, geu* sailekoei “formas reproductivo-intensivas” deitzen die (eta oro har, *-xe* amaiera dutenei) eta, dioenez, galdegaiaren tokian erabili behar dira: *Zeuk daukazu errua* (Mogel); *Zeuk mankatu duzu atzo gaixoa* (Mogel); *Neu naiz barberurik asko* (Mogel); *Azken buruan, ez ninduten bulkatu, nerau sartu nintzen neure baitarik* (Mitxelena); *Badira hemen guraso diren irakasleak eta irakasle diren gurasoak: nerau nauzu bat* (Mitxelena); *Ez nauk hola mintzo segurki, neroni Saratarra naizelakotz* (J. B. Elizanburu). Adibide horietan denetan izenordain indartuak galdegaiaren lekua betetzen du.

**13.4.2b** Hala ere, horrek ez du esan nahi galdegaiaren tokian beti forma indartua erabili behar dugunik. Honako perpaus hauen tankerakoak ere aski arruntak dira gure eguneroko hizkuntzan, eta hor, galdegaia izanik ere, forma ez-indartuak ageri dira: *Zuk duzu errua; Ez da zer ekarri barberurik: ni naiz barberurik asko; Badira guraso diren irakasleak eta irakasle diren gurasoak: ni nauzu bat*. Ez bakarrik dira perpaus arruntak: erabilera hori da, hain zuzen ere, ekialdeko euskaldunen joera nagusia. Mendebalekoentzat, aldiz, aldaera indartuak erabiliagoak dira aldaera arrunt horiek baino. Horren arrazoia hau izan daiteke, izenordain indartuek nolabaiteko kontrakotasuna edo, adierazten dutela dirudi: *Zeuk daukazu errua (eta ez beste inork); Zeuk mankatu duzu atzo gaixoa (eta ez bestek)*. Bistan denez, kontrakotasun hau berez dago lotua galdegaiarekin ere<sup>4</sup>.

Baina kontrakotasun hori markatu gabe ere, mendebalean erraz aurkitzen dira forma indartuak (Barrutia 1997): *Nor da hor? —Neu; jaikitzeke ordua da* (Mogel); *Oraintxe esan duzu bat, eta hona neuk antzina entzun nuena* (Mogel); *Bata Anjelen amak ipini du, erantzun zuen Josepak —Eta bestea? —Bestea neuk —Zeuk?* (Mogel).

---

<sup>4</sup> Altubek kontrakoa dio (1929: 75), “opositiboak” aipatzen dituenan: *Ni zuretzako naiz ta zu niretzako*.

Laburtuz, hortaz: ez da beharrezkoa forma indartuak erabiltzea, euskalkien kontua da; forma indartuak galdegaiaren gunean errazago erabiltzen dira, eta kontrakotasun mota bat ere uzten du perpausak agerian. Baina bestelako adibideak ere, kontrakotasunik gabeko inguruneetan, ez dira falta.

**13.4.2c** Galdegai ez izan arren, beste ingurune batzuetan ere erabiltzen dira forma indartuak. Tradizioan arruntak dira *neu* bezalako izenordainak ere partikularen aurrean: *Neuk ere banekien* (Agirre); *Nahi nitek neurorrek ere gizona entzun* (Leizarraga); *Neuk ere Frantziako Burgosen ikusia daukat bai* (Labaian); *Nik neuk ere dirua banu...* (Barrutia); [...] *ta nerau ere izanik hain txarra* (Lizarraga); *Nihaur ere ibili naiz anitzetan...* (Etxepare); *Nihauri ere, ez banintz saildu izan...* (J. Etxepare); *Erran behar dut, nihaurek ere huts horietarik asko egin ditudala* (Lafitte). Antzeko zerbait gertatzen da *behintzat*-ekin, erabilera mugatuago den arren: *Neu behintzat baietzean nago* (Kiri-kiño); *Neu behintzat pozik nago* (Lauaxeta) eta abar. Ezin da hitz egin forma indartuez, denak erabilera berdintsua balute bezala. Bistan da oinarri *neu* hartzen dutenak direla erabilienak tradizioan. Eta, bestetik, *ere* partikula dela gehien ageri dena (*behintzat* eta *behinik behin* baino aise gehiago). Literatura modernoan ere gauza berbera gertatzen da, testuetan ikusten denez. Aski adibide gutxi ditugu *ere*-z bestelako adberbioekin. Jakina, hori ez da galdegaiaren tokia. Baina badirudi hor ere kontrakotasun mota bat badela. Adibidez, ikus dezagun hurrengo perpaus hau: *1929an euskalzaletu nintzen [...] neuk ere nola ez dakidala* (Mitxelena). Hori beste modu honetara eman daiteke: *1929an euskalzaletu nintzen, nola izan zen bestek ez dakiela, eta neuk ere ez*.

**13.4.2d** Batzuetan izenordain arrunta eta izenordain indartua elkarren segidan ematen ditugu. Hori batez ere *neu* sailekoekin gertatzen da: *Ni neu joango naiz*. Dozenaka adibide aurkitzen dira tradizioan, eta gaur egun ere indar handia du. Kasu gramatikalekin (absolutiboa, ergatiboa eta datiboa) gertatzen da hori, ez besteekin: *Nik neuk lehen esaten nuen moduan...*; *Nik neuk argitaratu nuen hori*; *Niri neuri ez didate holakorik kontatu*; *Hori niri neuri ez dagokit* eta abar. Forma horiek maiz erabiltzen ditugun *gizonak berak* eta antzekoen parekoak direla esan daiteke: *nik neuk esango nioke / haurrak berak esango lioke*.

Gainerako saileko izenordain indartuekin aurkitzen diren adibideak aise urriagoak dira, nahiz badiren batzuk: *Eni nihauri idokitzen du* (Maister). Badira beste hibrido batzuk ere: *Nik nihaur baitan ezagutzen dut* (Maister). Gaurko literaturan ez da ia holakorik ageri.

Konturatzen garenez izenordain indartua apozizioan doa, eta aurretik duen izenordain arruntaren kasu marka bera hartzen du. Molde hori da gehien erabiltzen dena. Bada, zernahi gisaz, salbuespenik ere. Izenordain indartua ergatiboan baldin badoa, arazorik gabe onartzen du izenordain arrunta absolutiboan. Hola, gehien erabiltzen dena *nik neuk* moldea izanik ere, badira bai literatura klasikoan eta gaurko idazleen artean ere *ni neuk* moldekoak: *Ni neuk ez dausat gitarra horri soinu gehiagorik aterako* (Otxolua); [...] *neskak ni neuk maite* (Orixe); *Egon naiz ni neuk maite dudanaren erantzuna noiz helduko* (Azkue); *Ni neuk nere burua* (Webster); [...] *ze ni neuk irentsi egin nuen* (Jimenez); *Eta ni neuk etortzeko erabili dudana* (I. Mendiguren).

**13.4.2e** Horien ordeztan *nik pertsonalki* gisako itzuliak entzuten dira batzuetan elkarriketetan, baina ez dute horiek inolako lekukotasunik gaurko literaturan. Bai, ordea, tradizio klasikoan, Leizarragak, Haranburuk, Mirandek eta Etxaidek erabili izan baitute: *Errege handi honen trono judizialaren aitzinean konparitu behar ukanen dute on eta gaixto guzietan pertsonalki* (Leizarraga); [esaiozu] *bera pertsonalki lehenago bezala estimatzen dudala ene baitan* (Etxaide).

EGLUn (I: 44) esaten da *nik neuk* eta holakoen ondotik eten bat egin behar dela, eta horregatik ezin dela izan hori galdegaia. Galdegai izateko aski dela *neu* bakarrik erabiltzea (azken hau ez da hola esaten, hitzez hitz, baina badirudi han esaten denetik hori ondorioztatu daitekeela). Egia da hori askotan hala dela, eta arrunta dela, gainera, ez bakarrik etenaldia baizik *ere*, *behintzat* eta horien aurrean jartzea (seinale, hortaz, ez dela galdegaia, ikus § 41.4): *Nik neuk, berriz, ez dut oraindino horrelako buruhausterik hartu nahi* (Erkiaga); *Nik neuk ere eskolarik ez nuen ikasi eta* (Erkiaga); *Nik neuk, egia-egia, gurago nuke [...]* (Azkue). Baina beste batzuetan argi ikusten da galdegaia dela: *Nik neuk adieraziko diot laster [...]* (Erkiaga); *Nik neuk egin dut neurea* (Zamarripa); *Nor jabilk on-bila, mutil, ez txar-bila ere? —Nik neuk (sic, Azkue); Eta egingo dut nik neuk egin behar dudana* (Otxolua).

**13.4.2f** *Nik neuk esango nioke eta haurrak berak esango lioke* parean jarri ditugu. Honek *bera* quasi-izenordainari buruz zerbait esatera garamatza. Berez, erakusle indartua da izenordain gisa erabiltzen duguna maizkara: *Bera etorriko da; Berak ez du holakorik esan; Hantxe ikusi genuen bera* eta abar. Aise gutxiago gertatzen da hori forma arrunekin (*hau, hori, hura*), horiek ageri diren gehienetan izena isildutzat ematen baitugu. Lehen aipatua izan dena berriz aipatu beharrean erabiltzen da *bera*, bai mendebalean bai ekialdean<sup>5</sup>. Horrek esan nahi du itxuraz forma indartua izanik, berez forma erreproduktibo-boa ere badela, Altuberen hitzetan: *Eleizalde zenaren izen maiteak baditu zenbait kutsu, berak ez baitzuen bere usteak [...] izkutuan gorde sekula* (Mitxelena). Adibide horren parean, hala dio EGLUk (I: 45), *beraren orde*z, ez genuke *neu* edo *zeu* edo horrelakorik erabiliko. Galdegaia balitz bakarrik<sup>6</sup>.

**13.4.2g** Ekialdeko euskalkietan izenordain gisako erakusle indartu hauek badute beste balio bat ere. Alegia, *berak egin du* edo *nihaurk esan diot* diotenean, *berak eta berak bakarrik* edo *nik eta neuk bakarrik* esango balute bezala da.

**13.4.2h** Zernahi gisaz, alde batera utzirik forma indartu hauek guztiak noiz eta non erabiltzen ditugun, forma arruntak nonahi erabil daitezke, arazorik gabe. Hona hemen Mogelen adibide batzuk: *Goazen laster ikustera txerri hila, eta nik esango dizkizut izenak; Zuk esan duzuna egia bada...; Hala jazotzen da nik ezagutu ditudan zure behargintzakoekin; Hala esaten diogu guk*.

Bokatiboetan, ordea, genitiboan doazenak kendurik, ez da tokirik forma indartuentzat: *Zu/\*zeu, adiskide, zatoz hona; Hi/\*heu, Joxe, nola habil?* Hala ere, gure literaturan adibideak aurkitu daitezke, betiere genitiboan: *Suplikatzen dizut, neure jauna* (Arzadun); *O, neure anaia!* (Mogel); *O, neure Jaungoiko handia* (Agirre); *Neure jaun maitea, joan zatzazkit lurretik, baina ez*

<sup>5</sup> EGLUn (I: 45) erabilera hau mendebaldeko euskaldunentzat mugatzen da, baina jeneralagoa da.

<sup>6</sup> Oro har, hori hala da, nahiz ez den beti betetzen: *nik neuk ez bainuen neure burua serioski aintzakotzat hartzen* (J. A. Arrieta).

*gogotik* (Axular); *Neure jaun maitea, eta ohoratua* (Tartas). Baina genitiboaz gain, ez dugu bestelako adibiderik aurkitu.

Harridura kutsua duten perpaus batzuetan ere aurkitzen dira izenordain indartuak (Barrutia 1997: 171): *Jolaserako gogo handia daukazu, zeuk, baina erruki gutxi* (Agirre); *Horiek gauzok aurpegiaren ikusten dira. Ondo sinesgaiztoa zaude zeu* (Agirre).

Perpaua ezezkoa denean nekezago ikusten dira forma indartuak. EGLUK espresuki baztertzen zituen ingurune horretan (I: 45-47). Baina tradizioan badira lekukotasun batzuk: *Zeuk ez dakizu bada?* (Agirre); *Bai da... Neusk ez dut ezagutzen?* (Agirre); *Ikusten da zeuk ez dituzula irakurtzen Unamunoren idaztiak* (Lauaxeta); *Zeuk ez dituzu bada guztiak musuan* (Arrese Beitia); *Zeuk ez duzu piztu goian eder-eder eguzkia?* (Manterola); [...] *Zeuk ez ikusirik zeure begiko ajea?* (Añibarro). Gaurko literaturan ere badira adibide batzuk, nahiz ez asko. Joera aise handiagoa da baiezkoko perpausetan. Behar bada, argi pixka bat eman dezake kontu honetan hurrengo adibide honek: *Ez dut nik ixil-eraziko; bere kontzientzian eraman behar duen harrak ixil-eraziko du* (Mitxelena). Adibide horretan *nik* erabili du Mitxelenak ez horren ondotik. Baina bere idazkera ezaguturik badirudi baiezkak emanik errazago aurki lezakeela leku aldaera indartuak: *Neuk isilaraziko dut, ez bere kontzientzian eraman behar duen harrak*. Baina hor, dena esan behar da, galdegaia ere bada.

Bestalde, zati galderetan normala da izenordain indarturik ez agertzea, galde-tzailea bera izan ohi baita galdegai. Horregatik, izenordaina, galdegai ezin izan daitekeenez, forma soilean agertuko zaigu, ez forma indartuan. Baina hori, nolana ere, joera da, tradizioan aurkitzen ahal baitira joera hedatuen horren kontrako adibideak ere: *Nor zara zeu?* (Etxeita); *Nora zoaz zeu, Santi?* (Azkue); *Gainera nora zatoz zeu don Bernardorekin?* (Lauaxeta); *Zeuk zergatik ez didazu esan zeurea?* (Agirre).

Galderazko perpaua *bai*-ez erakoa denean errazago ikusten dira aldaera indartuak: *Zeuk egin duzu edo besteri eman diozu egiteko?*; *Beldur zer neronek esango ote nion eta abar.*

**13.4.2i** Esan dezagun hortaz aldaera arrunten eta indartuen artean hola bereizten dela, grosso modo (joera nagusiak dira hauek, ez modu batera erabiltzeko arauak edo bestera ez erabiltzeko debekuak): forma indartuak galdegaiaren tokian (*neuk egingo dut*) eta, galdegaia ez bada, *ere*, *behintzat...* eta holakoen ondotik (*neuk ere ikusiko dut*) eta *ni neu*, *zu zeu* eta holako itzulietan (*ni neu joango naiz*); forma arruntak, berriz, ezezkakoetan (*ni ez naiz hurbilduko*), zati galderetan (*noiz joango zara zu?*) eta bokatioetan (*zu, Maria, etorri hona!*).

### 13.5. Forma indartuen genitiboaren forma

**13.5a** EGLUK dio arazo berezia gertatzen dela genitiboan forma indartu hauekin. *Neronen* daukagula alde batetik eta *neure* bestetik. Eta ba ote den bien artean diferentziarik galdetzen du. Eta erantzun ere: “Badirudi euskaldunek ez dituztela bereizten —agian jatorriz desberdinak baziren ere— eta batzuk forma bata erabiltzen dutela eta besteek bestea, baina zeharo baliokideak dirudite” (EGLU-I: 47).

Eta hori hala da: *neronen* da *neroni*-ren genitiboa, eta *neure*, berriz, *neu*-ren genitiboa. Tradizioari dagokionez, *neure* eta *neronen* bai ekialdean eta bai mendebaldean ageri dira. Uriartek, esaterako, biak erabiltzen ditu (*neure*, aise gehiago), eta ez da batere erraza bereiztea zergatik aukeratzen duen bata edo bestea, non eta ez den estilo kontua, besterik gabe. Baina *neu* eta *neroni* absolutibo kasuen bereizketa markatuagoa da, *neu* ez baita ageri ekialdean (Mirande da salbuespena, baditu *zeu* batzuk).

**13.5b** *Bera* izenordain gisakoarekin baditugu arazo batzuk. Hasteko, lehen esan dugunez, *bera* hori ez da beti izenordaina. Batzuetan determinatzailea da (edo adjektibo gisa erabilia, nahiago bada): *Mahai beraren lau izkinetan*. Aposizioan ere ager daiteke: *Gazteluaren beraren azpian dago*. Beste batzuetan izenordain gisa erabiltzen dugu (*bera etorri da*). Bada, determinatzailearen genitiboa *beraren* da, eta izenordain gisakoarena, berriz, *beraren* batzuetan, eta *bere* beste batzuetan, nolakoa den testuingurua. Inguruaren arabera,

bereizketa hau gertatzen da: *Miren, beraren etxera joan da* (Mirenena ez den etxera joan da), *Miren bere etxera joan da* (Mirenena den etxera joan da).

Ohart gaitezten, *bera*-k banaketa markatua duela perpausean. Ez da kontua *hura* eta *bera*-ren artean aukeran dugula arrunta nahiz indartua erabiltzea, noiz zer nahi dugun. Hasteko, *bera*-k, *hura*-k ez bezala, gehien-gehienetan pertsona bati egiten dio erreferentzia: *hura etorriko da, hura ikusi dugu...* bezalako perpausetan *hura* hori pertsona, animalia edo gauza izan daiteke. Baina *bera etorriko da, bera ikusiko dugu...* gisakoetan, *bera* hori pertsonari dago-kio. Aldi berean, *oraintxe bertan* edo *oraintxe berean* bezalakoak erabiltzen ditugu, baina ez dugu esango *\*oraintxe han* edo holako zerbait. Hau ere nahiko arrunta da beste hizkuntza batzuetan. Testuinguru batzuetan, hala ere, *bera* horrek pertsona ez den zerbaiten erreferentzia har dezake: *Utzi ordenagailua mahai gainean, bera bakarrik itzaliko da minutu batzuk pasatu ondoren.*

### 13.6. *Han, bertan, berean*

**13.6a** Erakuslea inesiboan erabiltzen dugularik determinatzailea izan daiteke, izenordain gisa erabili erakuslea, edo adberbio hutsa: “mendi hartan” → “hartan, han”: *Mendi hartan bada borda bat; Zeintan? Hartan; Non? Han.* Adibide horietan ikusten ditugu hiru kasuak: *Mendi hartan* (sintagma determinatua); *Hartan* (izenordain gisa erabilitako erakuslea); *Han* (adberbioa).

Forma indartua erabiliz gero, hau gertatzen da: *mendi berean*. Ez dirudi *\*mendi bertan* erabiltzen denik, ordea. Eta alderantziz gauza bera: *bertan bizi da* bai, baina ez *\*berean bizi da*. Hortaz, *bertan* beti adberbio gisa erabiltzen dela esan daiteke. Ez da arazorik aposizioan erabiltzeko, ordea: *mendian bertan / mendian berean*. Hegoaldeko euskalki batzuetan *baten* ere erabiltzen da *berean* horren ordez, baina badirudi erabilera murriztago eta mugatuagoa duela: *etxe baten bizi dira* (‘etxe berean bizi dira’).

**13.6b** Gaur egun *bertan* formak tokia hartzen dio *han* aldaera soilari, eta askoz ere gehiago erabiltzen da. Berdin *bertatik*, *bertara* aldaerak maizago ikusiko ditugu *handik* eta *hara* baino.



**13.6c** Esan dezagun, oro har, *berean* (eta kideak) Iparraldean dituztela leku-koak tradizioan, eta *bertan* (eta kideak) Hegoaldekoak direla. Hala ere, Leizarragak hainbeste adibide ditu *bertanekin* (*bertan* bakarrik, ez *bertatik*, *bertara...*): *Eta bertan eror zedin haren oinetara eta renda zezan espiritua* (Leizarraga); *Eta bertan oraino hura mintzo zela, lo zezan oilarrak* (Leizarraga). Baten batean *bertatik* eskatuko lukeenaren ordeztu, *bertan* darabil: *Zergatik haren sortzetik bertan, heriora etortzen haiz haren bizitzaren historia guzia utzirik?* (Leizarraga). Lapurdiko beste autore batzuek ere maiz erabiltzen dute aldaera hau, oso arrunta da: *Baina Zokoako elizara biltzen direnak ez dira baitezpada Zokoa bertakoak: asko etortzen dira bazter herrietatik* (Larzabal); *Hemen bertan egon, baina serora bezalatsu biziz, ama obedituz, isiltasun eta otoitzari jarraikiz, lanari ere bai* (Larzabal); *Laugarrenaren hartzera nihor atrebitzen bada, zuetarik, jakina da bertan ithoko dudala* (Goihetxe); [...] *Sudurrak minar ez zezan, baina bertan senti nezan bihotza suharturik* (Oihernart); *Zeren ezin bat da niri atxeki diezadazun eta bertan iragaiten diuren plazerei zarfraizten* (Pouvreau); *Onak berriz hodeietan gora alegerarik aingeruen konpainian joanen dira bertarik* (Etxeberri Ziburukoa); *Bertan eskaintzen zitzaizkion laguntzat, eta abiatzen lanerat* (J. Etxepare); *Indar guziak bertan ezarriz nork erranen du gure ahala?* (J. B. Elizanburu); *Eta ez nuen bertan tenplurik ikusi* (Duvoisin).

## 13.7. Linschmann-Aresti legea

### 13.7.1. Legearen formulazioa

**13.7.1a** Pertsona izenordainen bikoizketa, arruntak/indartuak, bereziki interresgarria gertatzen da izenordain horien genitiboan, zeren orduan forma indartuak izateaz gainera, bihurkari ere badirela dirudi: *ni...neure...*; *zu...zeure...*; *bera...bere* eta abar. Hortaz, *neure*, *heure*, *zeure*, *geure*, *bere* (eta *neronen*, *herorren*, *zerorren*, *geron...*) izenordain bihurkariak ditugu. Baina noiz erabili behar dira forma arruntak eta noiz forma bihurkariak?

Lege zorrotzegirik ez dagoela esan daiteke edo erabat betetzen den legerik behintzat ez. Hala ere, hona hemen eman ohi den araua:

Erabil bedi genitibo bihurkaria baldin eta izenordain horrek aipatzen duen pertsona edo izakia perpaus berean aurkitzen bada *nor*, *nori* edo *nork* sintagma bezala.

*Nor*, *nori* eta *nork* sintagma hauek, aditza jokatua bada aditzean agertuko dira eta, orduan, aditzari begiratzea komeni da sintagma horiek ageri diren ala ez jakiteko. Hola, *ni neure etxera joango naiz eta zu zeurera* perpausean, *ni* eta *zu* (hauek dira *neure* eta *zeure* genitiboek aipatzen dituzten pertsonak perpaus barruan) *nor* sintagma bezala ageri dira perpausean: *ni joango naiz* eta *zu joango zara*. Horrenbestez, forma bihurkariak erabil bitez. Gauza bera izango genuke baldin eta perpauseko aditza jokatugabea balitz: *nik badakit neure etxera joaten* (= *nik badakit [ni neure etxera joaten]*). Perpaus horretan ere, perpaus txertatua *nor* sintagmarik ageri ez bada ere, *ni* dela badakigu, perpaus nagusiko subjektua bera baita perpaus txertatu horren subjektu. Horregatik, hemen ere izenordain bihurkaria agertuko da.

**13.7.1b** Adibide horietan “Linschmann-en lege”, edo “Linschmann-Arestiren lege” bezala bataiatu zen zurruntasun sintaktikoa<sup>7</sup> betetzen da: bihurkaria biltzen duen perpaus txikienak bildu behar du, agerian izan nahiz ez, aurrekaria ere, absolutiboan, ergatiboan edo datiboan. Lapurtar idazle klasikoetan ongi betetzen da legea: *ene*, *hire*, *zure*, *gure*, *zuen* eta *neure*, *heure*, *zeure*, *geure*, *zeuen* eskema izango genuke. Bigarrenak dira bihurkariak, eta aipatu testuinguruan bakarrik erabiltzen dira. Hala, *Ene ardiek ene boza entzuten dute* (Leizarraga), non bi *ene* horiek lehenbiziko pertsona singularrari baitagozkio, baina aditza *dute* baita,

---

<sup>7</sup> Izen hori Schuchardtek 1900ean Leizarragaren 1571ko lana berrargitaratu zuenean, sarrreran idatzi zuenektatik hartu zuen, han esaten baitzuen Linschmann ohartu zela *ene*, eta *nire* bezalakoak ez-bihurkari gisa erabiltzen zirela, izenordain arrunt gisa, eta *neure*, *heure*, aldiz, bihurkari gisa (Linschmann & Schuchardt 1900). Handik 50 urtera Arestik ere gauza bera ikusi zuen, Kintanak (1971) dioenez, eta Sarasolak eman zion formulazio zehatzagoa 1980an: “Linschmann-Aresti legea” deitzen du. Hemen, neurri batean, Sarasolaren ekarpena laburtzen dugu.

hirugarren pertsonaren formanteekin. Beraz, ez da hor legea betetzeko eskatzen den baldintzarik. Aldiz, *Ene ardiek neure etxean ikusten naute*, adibidez, edo *Ezagutzen ditut neure ardiak* (Leizarraga) da legearen aplikaziotik espero daitekeen aldaera, *neure* lehen pertsona singularrari dagokion genitiboa izanik, aditzaren formantean ere lehen pertsona singularra ageri baita (*ditut*, alegia).

Legeak ez du balio alokutiboen kasuan: *Emazte, handi dun hire fedea!* (Leizarraga). Kasu horretan *dun* hori alokutiboa da, eta hortaz, *da* ez-alokutiboaren ordaina da (*handi da fedea*), hirugarren pertsona singularra. Baina *hire* bigarren pertsona da, ez hirugarrena. Horregatik ez du tokirik aldaera indartuak. Baina *Heure Jainko jauna adoraturen duk* (Leizarraga) esaten bada, koherentea da, aditzak bigarren pertsonako formantea baitu, eta posesiboa ere bigarren pertsona baita.

Hemen biak batera ikusten ahal ditugu: *Hik heure buruaz testifikatzen duk, hire testimoniajea ez duk sinesteko* (Leizarraga). Perpaus horretan *hik heure... duk* katea osatzen da lehenik, formanteek bat eginez, eta ondoren *hire... duk* katea, baina bigarren *duk* horrek *da* esan nahi du, alokutiboa delako, eta beraz, formanteek ez dute bat egiten: *hire* (bigarren pertsona), *da* (hirugarren pertsona). Ez da lekurik bihurkariarentzat.

Zukako alokutiboarekin ere betetzen da: *Jaungoikoa, egin dizut zure kontra bekatu* (Etxepare). Kasu horretan *dizut* horrek *dut* adierazi nahi du. Alokutiboa ez balitz, ez litzateke arazorik bihurkaria erabiltzeko: *Adiskide, zeure kontra jokatu duzu*. Azken adibide horretan katea *zeure... duzu* horrek osatzen du, eta erabilera koherentea da. Aurrekoan, aldiz, *dizut... zure* horretan ez luke tokirik *zeure* bihurkariak, *dizut* hori *da* + zukako alokutiboa baita. Alokutiboak ez du baimentzen erabilera hori.

Genitibotik sortutako kasuek ere (*enegan, enetzat, enegatik, enekin...*) ongi gorde dute legea: *Ez genuke geuretzat aski* (Axular); *Neuretako ez dazagut zu nolako amarik* (Etxepare) eta abar.

Bokatiboen kasuan ez du legeak balio: *Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zeren abandonatu nauk?* (Leizarraga); *Gaiztoa, ene nekagarria, ala nik gaizki enplegatu baitut hirekiko denbora?* (Axular).

*Hi eta hire etxea* gisako moldeetan ageri dira klasikoan lanetan. Zergatik? Sarasolak dioenez (1980: 436), *Salbaturen haiz hi eta hire etxea* (Leizarraga) perpausean bi perpaus ditugu sakonean, batean bildurik azaleratzen badira ere: *Salbaturen haiz hi eta salbaturen da/duk hire etxea*. Jakina, hor ezin jarri *heure* (katea *da/duk... hire etxea* baita). Besterik litzateke, bistan da, *Salbatuko duk (hik) heure etxea*.

**13.7.1c** Linschmann-Arestiren legea oso modu sistematikoan betetzen dute lapurtar idazle klasikoek, nahiz ez dituzten aukera guztiak baliatzen. Etxepare, Leizarraga eta Tartasek *ene* eta *hire*-rekin bakarrik betetzen dute legea. *Geure*, *zeure* eta *zeuen* ez ditugu aurkitu autore hauetan. Leizarragak ez du hutsik egiten, nahiz mila eta bostehun aldiz baino gehiagotan erabili bihurkaria. Tartasek noiz edo noiz huts egiten du (hiru aldiz, dio Sarasolak): *Ene puntura joan nadin; Inguratu naute herioaren penek eta ene [...] grabitateak nahasi naute*. Eta bokatiboarekin ere batzuetan: *Bekatorea, neure bihotza, izan zara Parisen*. Leizarragak *zeuron* erabiltzen du itxuraz legez kanpo, baina badirudi ez dela hori *zuon* sailekoa, baizik gradu hurbilekoa (*neuror* → *neurorren*, *euror* → *eurorren*, *zeurok* → *zueron* eta abar). Axular ere sistematikoa da, salbuespenik gabea. Etxeberri Ziburukoak behin huts egiten du. Legea ongi betetzen ez denean ere (Harizmendi eta Argainaratz) sistematikoa da *gure* erabiltzea *geureren* ordez, baina ez alderantziz. *Pouvreauk* eta *Urtek* ere ez dute betetzen askotan. Etxeberri Sarakoak betetzen du, baina hutsak eginez. Beriainek eta Elizaldeek zuzen betetzen dute legea, beren sisteman. Mendiburuk eta Ubillosek *neren/neren*; *guren/geren*; eta *zure/zere* sistema darabilte, lehen pertsonari dagokiona neutralizaturik ageri dela (*neren/neren*): *Gaitz berera bulkatzen gaituzte gu geren etsaiek* (Mendiburu). Ekialdetik mendebalerako bidetan, bizkaierazko datuak gertatzen dira zailenak ondorioak ateratzeko, araua malguago gertatzen baita.

**13.7.1d** Bihurkariaren aurrekariak perpaus berean agertu behar du: *Esan dizut zeure etxera joango zarela*. Perpaus horretan aurrekaria eta bihurkaria perpaus berean daude: *Esan dizut [(zu) zeure etxera joango zara]*. Ikus dezagun honako hau: *Esan didazu ni zure etxera joango naizela*. Arauaren arabera, hor ez da *zeure* jartzeko tokirik: *Esan didazu ni zure/\*zeure etxera joango naiz*.

Horrek azaltzen du deigarria gerta dakigukeen perpaus batzuen itxura: *Deituren dut ene populu ez zena, neure populu* (Leizarraga). Azpian ditugun perpausak honakook dira: (*nik*) (*zerbait*) *deituren dut neure populu*, batetik (katea: *nik... neure*), eta (*zerbait hori*) *ene populu da* (katea: *hori... ene/\*neure*). Idazle klasikoan testu batzuen barne egitura hobeki desanbiguatzeke balio du behin baino gehiagotan aipatzen ari garen arauak: *Hona ene zerbitzari elegitu dudana* (Leizarraga). Badirudi hor *neure* behar lukeela (*nik hori ene zerbitzari elegitu dut*, izango luke azpian). Ez da kasua, ordea: *Hona (hemen da) ene zerbitzaria, elegitu dudana*. Erlatibozko perpausa adjektiboa da kasu honetan. Nola interpretatu *Erran nahi dut, zuen eta ene elkarrekilako fedez kontsola nadintzat* (Leizarraga, *nadintzat hori nadin* izango genuke gaurko euskaran). Hor ez da tokirik *neure* jartzeko: azpian *zuek eta nik elkarrekin fede bat dugu* baita azpian, eta *neure* ezin da bat etorri *dugu* horrekin, *dut* beharko genuke hor, *neure* sartzekotan.

Esan dezagun, hortaz, laburtzeko, lege hau ongi bete dela idazle klasikoetan, gorabehera batzuekin: badira salbuespenak. Legea betetzen zintzoenak lapurtar idazle klasikoak dira.

### 13.7.2. Linschmann-Aresti legeak sortzen dituen zalantzak

**13.7.2a** EGLUn esaten da (I: 67) izenordain indartuaren genitiboaren aurreko izango litzatekeen sintagmak eta genitibodun sintagmak elkarrekin beste sintagma bat osatzen badute, ez dela aplikatzen delako erregela hori. Ikusi dugu legearen interpretazioaren zurrunean hori hala gertatzen dela. Eta adibideak ematen dira han: *Ni eta nire lagunak ez gara ongi konpontzen; Aita eta haren problemek ez digute lasai egoten uzten*. Esaten da hor ezin dela bihurkaririk erabili, bihurkari horren aurrekoa, *ni* edo *aita* gure adibideetan, *nor* sintagmak badira ere, aurrekoak (*ni*, *aita*) eta genitibodun sintagmak (*nire lagunak*, *haren problemak*) elkaturik beste *nor* sintagma bat osatzen baitute. Hortaz, *Andoni eta biok nire (edo ene, nere?) etxera joango gara lo egitera*, esan behar omen, eta ez *\*neure etxera*, izenlagun horrek aipatzen duen pertsona *ni* baita eta *ni* hau ez da (*joango*) *da* adizkian ageri. Beraz, hor ez dago

forma bihurkariarentzat lekurik. Beste hauetan bai: *Nik neure lanak egingo ditut*; *Zuei ez dizkizute zuen lanak ordaindu*; *Ezagutzen ditut neure ardiak* (Leizarraga); *Gozatu nahi dut nik ere neure denboran* (Axular); *Ez diot [...] ukorik egin neure herriari* (Mitxelena).

Esan dugu, hala ere, hori ez dela beti hola betetzen, badirela idazle klasikoetan ere arauaren salbuespenak: *Nik emanen dudan ogia, neure haragia da munduaren bizitzeagatik* (Pouvreau). Eta hala da, tradizioetik urrunduz gero, egungo idazleen testuetan *neure... da* eredukoak aski arruntak baitira: *Neure senargai da, jauna* (Etxeita); *Berori neure ugazaba da* (Zamarripa); *Hori, neure sakelaren kaltean da* (Erkiaga); *Neure adiskidea da* (Agirre); *Neure arazoa da, Neurea bakarrik* (Sarrionandia); *Neure sineste intimoa da* (Borda); *Neure alda ateratzen da* (Garate) eta abar. Horietan ez da *dut*, *zait*, edo holako aditzik, hau da, *ni* izenordaina biltzen duen aditzik eta, hala ere, *neure* ageri da.

*Ni eta neure* gisako adibideak ere ez dira falta: *Ni eta neure bihotzaren artean* (J. Zabaleta); *Ni eta neure buruaren artekoa* (Morillo); *Bere distiraz inguratu gintuen ni eta neure bidelagunak* (Elizen arteko Biblia); *Gu eta geure ahizpak* (Mirande), dira, esaterako, gaurko erabileraren lekukoak.

**13.7.2b** Hirugarren pertsona dugunean ere gauza bera gertatzen da, EGLUK biltzen duen arauak dioenez (I: 68). Oraingoan bihurkaria *bere* dugu, aurreko atalean paratu ditugun adibideek erakusten duten bezala: ontzat emanez izenordain pertsonal gisako erakuslea dugula *bera* eta forma horrek badutela aldaera arrunta (*beraren*) eta bihurkaria (*bere*) hau izango genuke, legearen arabera, eskema nagusia: *Miren<sub>i</sub> bere<sub>i</sub> etxera joango da*; *Mirenek lagunari<sub>i</sub> bere<sub>i</sub> etxea erre dio*; *Mirenek<sub>i</sub> bere<sub>i</sub> ama agurtu du*. Horren arabera, bigarren perpausean, zein den testuingurua, *bere* horrek *Mireni* ere egin diezaioke erreferentzia: *Mirenek lagunari bere etxea oparitu dio*. Baina “lapurtu dio” esaten bada erreferentea laguna da, ezin baitio Mirenek bere buruari lapurretarik egin. Hemen ere *bere* horrek aipatzen duen pertsona edo dena delakoa aurretik agertzen bada perpausean *nor*, *nori* edo *nork* bezala, orduan *bere* izango dugu erabili beharreko izenordaina: *Andoni bere etxera eraman nuen*; *Andonik bere etxera eraman ninduen*; *Andoniri bere etxea erosi nion*. Baina beste norbaiten etxea baldin bada, Mikelena edo, orduan honako hau litzateke eredia: *Andoni*

*haren etxera eraman nuen; Andonik haren etxera eraman ninduen; Andoniri haren etxea erosi nion.* Esan dezagun, zernahi gisaz, *bere* horren aurrekaria perpaus berean aurkitu behar dela esatea ez dela agian nahiko: *Andoniren anaiak bere etxea erre du* esaten badugu, noren etxea erre du, Andonirena edo anaiarena? Segur aski, gaurko euskaran guztiz anbigua da hori, nahiz, berez, “anaiari” dagokion *bere* hori<sup>8</sup>. Jakina, *Andoniren anaiak bere etxea erre dio* esanez gero, anbiguotasuna galtzen da, eta badakigu Andoniri erre diola anaiak etxea.

Hala ere, azken adibidea kendurik, esandakoa funtsean betetzen da: perpaus berean egon behar du izenordain bihurkariaren aurrekoak. Hori ageri da orain arteko adibideetan. Horregatik, *bere*-ren aurrekoa *Andoni* da goiko perpausetan, baina *haren*-ena ezin izan daiteke *Andoni*, beste norbait baizik. Zeren, bestela, *bere* aurkituko genuke.

Batzuetan anbiguotasuna gerta daiteke, aurrekotzat har daitekeena izen sintagma bat baino gehiago dugunean. Adibidez: *Andonik Jose bere etxera eraman nahi zuen*. Perpaus horretan *bere*-ren aurrekoa *Andoni* nahiz *Jose* izan daiteke. Ekialdeko idazle zaharrek lehentasuna subjektuari ematen diote beste argumentuen aurretik.

### 13.7.3. Linschmann-Aresti legea hausten delarik

**13.7.3a** Zernahi gisaz, hirugarren pertsonan esan daiteke arauak aise indar ahulagoa duela oro har: *Gauza gutia da hura eta bere mintzoan mespretxagarrri dena* (Haraneder); *Baina utzi zituzten gizon hura eta bere ahaidego guzia* (Duvoisin); *Jonen lanetik jan beharrean gara ni eta bere arreatxoak* (Lizardi); *Claudet jauna eta bere menpekoek ere Gabon eguna ongi ospatzeko asmoa zuten* (Izeta); *Iruñeko alkate jauna eta bere lagun Arribillaga* (Larreko); *Domingo de Okariz, eta bere anaia Don Rodrigo de Okariz izan ziren Ministro*

<sup>8</sup> Ohart gaitezen perpausa beste modu honetara molda dezakegula: *Andoniren anaiak bere burua hil du*. Hor ez da zalantzarik anaiak hil duela bere burua, eta ez Andonik.



(Iztueta); *Zure aita eta bere etxe guzia baino lehenago* (Uriarte); *Eta galduak izateko bilatzen zituzten Daniel eta bere lagunak* (Duvoisin); *Esperantzarik gabe jaitsi ginen bere etxerantz* (Atxaga) eta abar.

Linchmannen legea, ikusten denez, ez da ongi betetzen. Horrek baztertuko litzuke *ni eta neure* edo *x eta bere* itzuliek osatzen dituzten adibide guztiak. Arrazoa hau da: kasu horietan izenordain indartua beste sintagma baten barnean bildua da ([*ni eta [neure..]*]<sub>s</sub>), eta horregatik ezin du erreferentziarik hartu perpauseko izen sintagma batekin, eta ezin du islarik izan aditzean ere: kasu horietan, *neure* singularra izanik ere, aditza pluralean doa. Gauza bera gertatzen da *bere*-rekin ere.

Iparraldeko tradizioan legea hegoaldean baino aise hobeki bete da, egia da: *Babiloniara eramana zerbitzatu zituen errege eta haren semeak* (Duvoisin); *Ikusi zituen errege eta haren zerbitzariak heldu zitzaizkiola* (Duvoisin); *Zure Jauna eta haren misericordia baitan* (Duvoisin) eta abar. Baina, horiekin batera, *Abiatu ziren bera eta bere armada* (Duvoisin); *Bila ezazue Jauna eta haren indarra* (Duvoisin). Bizkaierazko testuetan, esate baterako, hasieratik baztertzen dira bihurkari balio horretatik. Gipuzkoarren artean xx. mendean gertatzen da hori. Nafarren artean berdintsu, hoberenean ere badira txandakatzek balio bihurkari eta ez-bihurkarien artean.

**13.7.3b** Linschmann-Arestiren legearen haustura dela eta, EGLUk esaten du mendebaleko euskalkietan honako perpausak “guztiz normalak eta hedatuak” direla (I: 69): *Itziar eta bere lagunak etorri zaizkigu etxera; Ezagutzen al duzu Peru Arrieta? Bai horixe! Sarritan izan naiz bere etxean.* Eta, segitzen du, bistan dela *bere* izenlagunaren aurrekoa ez dela aditzaren *partaide*. Horregatik, ekialdeko euskaldunek *bere* hauen ordeztu, *haren* erabiltzen bide dute: *Itziar eta haren lagunak etorri zaizkigu etxera; Sarritan izan naiz haren etxean.* EGLUk ondorio bat ateratzen du hortik: bi *bere* ditugu euskaraz. Bat bihurkaria da eta, beraz, aurrekaria aditzaren formanteetan izatea eskatzen du. Hori da orain arte aztertu dugun *bere* hori. Baina bada beste *bere* bat ere euskaraz, *bera* izenordain indartuaren genitiboa edo izango litzatekeena. Esan nahi baita, *bera* izenordaina (izenordaina, zeren determinatzailearen kasuan ez du balio honek) erabiliko dugun egoera beretan erabiliko dugu *bere* kasu horretan.



Hortaz, bigarren *bere* hau *beraren* parekoa litzateke. Eta horrek eskatzen duen baldintza bakarra da noizbait aurretik aipatua izatea aurrekoa. Hots: *bere*-ren (*bere* = *beraren*) aurrekoa ez da nahitaez perpausean agertuko eta aditzaren partaide izango. Aski da lehenago noizbait aipatua izatea, perpaus berean ez bada ere. *Bera* izenordain gisa erabilitakoaren genitiboak, hartara, bi aldaera izango lituzke: *beraren* eta *bere*. Eta azkena izan daiteke *beraren* aldaeraren pare-parekoa (*beraren* agertzen den testuinguruetan aurkituko dugu), edo bihurkaria (orain arte ikusitakoa).

Ez da arrazoirik, ordea, hori hala dela pentsatzeko. Zerbait sinpleagoa gertatzen da: *bere* izanik *bera* izenordain gisakoaren genitibo bihurkaria, beste eremu batzuk hartuz joan da, eta aldi berean, eta neurri batean, *bere* bihurkaritasuna galdu egin du. Neurri batean, diogu, esan nahi baita, bihurkariaren gunean aldaera horrek bakarrik duela tokia (*Mikelek<sub>i</sub> bere<sub>i</sub> etxea erre du* / \**Mikelek<sub>i</sub> haren<sub>i</sub> etxea erre du*), baina beste toki batzuetan ere agertzen ahal dela (*Mikelek<sub>i</sub> bere<sub>i</sub> / <sub>j</sub> etxea erre du*). Hau da, bihurkaria (*bere*) toki bat baino gehiagotan agertzen ahal da, baina bihurkaria ez dena (*haren*) ezin da bihurkariaren tokian agertu.

**13.7.3c** Bihurkaritasunaren ahultze hori, nolabait ere, lehen eta bigarren pertsonan ere gertatzen da. Adibidez, Mitxelenarenak dira adibide hauek: *Besteri geure gogoetuz sinetsarazi nahi dioguna adierazteko baizik; Noraezekoa dut hitzen aukeramena neure gain hartzea*. Azpimarratutako hitzetan ikusten da legearen arabera erabili direla hor aldaera bihurkariak: [*geure... diogu*] eta [*dut... neure*]. Kontua da, ordea, bihurkaria agertuko dela espero dugularik, izenordain arrunta agertzen dela, legea zorrozki bete gabe utziz (adibideak Mitxelenarenak berriz ere): *Gure herrian eta gure hizkuntzan somatuko ez bagenitu; Gure oroitzapenetan bateratsu gatoz*. Eta alderantziz ere: sarritan *neure* eta antzekoek ez dute bihurkari balioa. Adibide hauetan, esaterako (adibideak Mitxelenarenak): *Neure izena [...] gora eta behera erabilia izan denez gero; Neure herriak [...] hutsik eta tatxarik badu ugari*. Hortaz, oso zail dela dirudi lege zorrotz eta salbuespenik gabea ematea. Hiztunek behintzat ez dirudi erabat betetzen dutenik. Eta horren arrazoa izan liteke, EGLUK dioen gisan (I: 70), forma hauek bikoitzak direla pentsatzea: bihurkariak alde batetik,

eta indartuak, indartu soilak, bestetik. Edo, besterik gabe, bihurkarien erabile-  
ra beste eremuetara ere hedatu dela, eta aldaera arruntak, hirugarren pertso-  
nan, ez duela bihurkariaren tokirik hartu oraingoz.

## 13.8. Bihurkariak eta elkarkariak

### 13.8.1. Zertaz ari garen

Perpaus baten barruan bi izen sintagma erreferentziakideak direnean (hots, izaki bera aipatzen duten bi izen sintagma ditugunean) bigarren izen sintag-  
mak izenordain bihurkarien forma hartzen du. Ez ditugu bi izen sintagmak errepikatzen, eta bigarrena agertu behar lukeen tokian *neure* (edo *heure*, *bere...*) *burua* ezartzen dugu: *Itzietzek ez du ongi ezagutzen bere burua*. Egi-  
tura hori bihurkaria dela esaten dugu.

Ber gauza gertatzen da beste egitura hauetan ere: *Jonek eta Itzietzek elkar maite dute*. Kasu honetan egitura elkarkari baten aurrean gaude.

### 13.8.2. *X-en burua* bihurkaria

**13.8.2a** Holako zerbait esan nahi badugu, hau da, Itzietzek Itzietz ezagutzen due-  
la, bihurkariaren bidez adierazten dugu hori: *Itzietzek<sub>i</sub> Itzietz<sub>i</sub> ezagutzen du* → *Itzietzek bere burua ezagutzen du*. Eta horren gisan beste hauek ere: *Kargu egio-  
zu zure buruari, gizona!* edo *Ez dun ongi ezagutzen heure burua!* bezalakoetan. Bihurkaria deitzen dugu egitura hori. Aditz komunztadura beti hirugarren pertso-  
nak egiten du, objektuari dagokion komunztadura: *Ezagutzen duzu zeure burua?*; *Zergatik bota ote zuen sura bere burua?*

Horrek ez du esan nahi, jakina, *x-en burua* itzulia beti bihurkaria dela: *Neure buruan txapela janzten dut etxetik atera aurretik* perpausuan, esaterako, ez da bihurkari mota hori eta, kasu horretan, *neure burua* sintagma arrunta bai-  
zik ez da.

Aipatzen ari garen egitura hori osatzeko *burua* sintagma izenlagun bati erans-ten diogu, adibideetan ikusten denez. Izenlaguna arrunta izan daiteke (*nire*), edo bihurkaria (*neure*): aurrekoa *ni* baldin bada *ene, nire, nere, neure*; *hi* baldin bada, *hire, heure*; hirugarren pertsonakoa bada, *bere* (baina ez *haren*); *gu* baldin bada, *gure, geure*; *zu* baldin bada aurrekoa, *zure, zeure*, eta *zuek* bada *zuen, zeuen, zeron*... Aldaera indartu horiek deitzen ditugu bihurkari<sup>9</sup>.

**13.8.2b** Aurrekaria plurala baldin bada, edo erreferentzia aniztuna baldin badu, orduan ere *burua* singularrean joan ohi da, gehienetan. Hala ageri da tradizioan eta batez ere gaurko idazleen artean ere: *Bi gizon haiek bere burua hil nahi zuten*; *Guk geure burua maite dugu gehien*.

Joera nagusia hori izanik ere, bai tradizioan bai gaurko literaturan badira adibide asko non *burua* pluralean ere ageri den: *Zer gauza espantagarria siriar haien-tzat aurkitzeaz, ustekaberik, bere buruak etsaien artean!* (Larregi); *Eta espiritu satsuek hura ikusten zutenean, haren aitzinera bere buruak egozten zituzten* (Leizarraga); *Bere buruak anitz doloretan nahaspilatuta ukan baitituzte* (Leizarraga); *Bainan deus ez dute egiten bere buruak libratzeko* (Haraneder); *Bekato-reek ez badituzte denboran punitzen bere buruak, Jainkoak...* (Duhalde); *Anitzek anitz gauza badakitela, eta bere buruak ez dituztela ezagutzen* (Etxeberri Sarakoa); *Eta handik berek kondena bailitzakete bere buruak* (Axular); *Gure buruak besteen menpean jarri izana* (Antxustegi); *Baina ez dute burkoek gure buruen itxura hartzen, gure buruek burkoarena baizik* (Cano); *Gure buruetan beguarekiko dugun txip hori ezin da eroso sentitu* (P. Zabala); *Beren buruak besteak baino handiagotzat...* (Asisko Frantzisko, Asisko Klara); *Beren buruei uko egin dietenak eta beren bizitzak eskaini dituztenak* (J. M. Lekuona) eta abar.

**13.8.2c** Bihurkari horren aurrekariak (erreferentziak) bihurkaria biltzen duen perpaus berean agertu behar du: *Koldok eta Mirenek uste dute [Patxi eta Itziarrek bere burua maite dutela]* perpausean, esaterako, *bere burua* horren aurrekaria *Patxi eta Itziar* sintagma da, perpaus txertatuan dagoena, eta ez *Koldo eta Miren* sintagma.

<sup>9</sup> Etxeparek *burua* soilik ere erabili zuen: *Ohart gaitezen buruari denbora den artean*.

**13.8.2d** Batzuetan adjektiboa ere hartzen du sintagma bihurkariak: *Ez daki zer egin bere buru gaixoarekin; Neure buru triste honek ez dit onik ematen.* Bide batez, kontura gaitezen hemen ergatiboan doala *neure buru* esamoldea. Geroago itzuliko gara kontu honetara.

**13.8.2e** Zenbait kasutan bihurkari indartsuak (*neure/bere ... buruaren*) eta ahulak (*neure/bere*, besterik gabe) bereizten ahal dira, genitiboan ageri direnean. Nolabaiteko justifikazio semantikoa behar dugu bihurkari indartsu hori erabili ahal izateko (de Rijk 2008: 366). *Jon da bere buruaren etsairik handiena* izango genuke bihurkari indartsua eta *Jon da bere etsairik handiena*, berriz, ahula. Holakoak ageri dira, indartsuak, *neure buruaren jabe, bere buruaren hondamena, zeure buruaren ardura* eta abarretan. Justifikazio semantikorik ez denean, ahulak bakarrik du tokia: *Hau du bere etxea*. De Rijkek *bere buruaren argazkia* (Jonek, demagun, bere buruaz atera argazkia) eta *bere argazkia* (beste norbaitek Joni, demagun, ateratako argazkia) bereizten ditu, nahiz, gure ustez, bereizketa hori ez den hain argia. Leku postposizioetan, benetan lekuarekin zerikusik ez dutenean ere erabiltzen dira bihurkari indartsuak: *bere buruaren gainean / bere gainean* (lehenbizikoak ez du tokia markatzen, baina bai bigarrenak); *bere buruaren alde / bere aldean*; *bere kontra / bere buruaren kontra*; *bere atzean / bere buruaren atzean* eta abar<sup>10</sup>.

**13.8.2f** Arruntean, aurrekaria maila goragoko tokian dago perpausean, subjektuaren lekuan, gehienetan, dela agerian (*Jonek gezurra esan dio bere buruari*), dela sakonean (*Jon<sub>i</sub> ikusi dut [Jon<sub>i</sub> bere buruarekin solasean]*). Esandakoaren arabera ez luke tokirik *X-en buruak* ergatiboan, ergatiboa izanik perpaus egituran maila gorenean dagoen sintagma, ez bailuke izanen tokirik erreferentziarik “gorago” aurkitzeko. Baina hori ez da hola: *Neure buruak egunetik egunera kezkatzen nau; Zure buruak zorutzen zaitu; Oihanean sartu eta galdu naiz, baina azkenean neure buruak gidatu nau...* Tradizio idatzian ez dugu holako adibiderik aurkitu, baina perpaus horiek gramatikalak dira, eta ez

---

<sup>10</sup> Euskara ez da zerbait berezia kontu hauetan. König & Gast-ek (2006) diotenez, hizkuntzetan arrunta da bihurkari indartuak gorputz ataletan oinarritutako adierazpenetik sortzea; indartuak eta bihurkariak askotan berdinak dira, eta elkarren artean nahasten dira.

dira halakoak falta egungo testuetan: *Neure buruak erantzun zidan* (Aristi); *Pena ematen dit neure buruak* (Segurola); *Harritzen nau neure buruak* (X. Mendiguren Elizegi); *Neure buruak egiten zidan Jeneralak ez zidala heriotza militarra eman...* (K. Izagirre); *Zeure buruak sortzen dizun higuina* (Linazasoro) eta abar. Zail da hemen mugak zuzen zedarritzea. De Rijkek hori emozio aditzekin gertatzen dela esaten du, subjektua esperimendatzaile denean: *kezkatu, zoratu...* Baina bistan da ez dela beti hola: *erantzun, egin* eta abar ere ageri dira. Berak ere aipatzen du holakoa ez den aditzen bat: *Zeure buruak egin zaitu esklabo, ez beste inork*. Zernahi gisaz, holako kasuetan *X-en buruak* perpausean beste nonbait aurkitu behar du erreferentzia hori, egituran “apalago” baldin bada ere (*neure buruak, erantzun zidan niri*).

Aditz gehienekin, ordea, ezinezkoa da holakoak sortzea: *\*neure buruak gorrotatzen nau*; *\*neure buruak ez du idazten*; *\*neure buruak ez du inoiz ere ikusiko hori* eta abar. Zalantzazko perpausak ere sortzen dira batzuetan, hiztun zenbaitentzat onak, baina gaitzesgarriak besteentzat: *Zure amets haiek zeure buruari kalte egingo diote* (Saltarelli 1988: 110).

### 13.8.3. *X-en burua* eta aditz intrantsitiboa

**13.8.3a** Dena den, bada hemen istilu bat, egiatan azterketa sakonagoa merezi lukeena. Alegia, gero eta zabaltzenago ari dira *ikusten naiz* eta antzeko formak *neure burua ikusten dut*-en ordeaz. Askotan, jakina, bi egiturak dira zilegi eta biek esanahi desberdina dute. Adibidez, *Jonek bere burua hil du* ≠ *Jon hil da* ez dira inolaz ere baliokide. Baina *bere burua gorrotatzen du* bezalako esapide jatorraren ordeaz, *gorrotatzen da* eta antzekoak ugaltzen ari dira.

**13.8.3b** Beste batzuetan, ordea, ezinbestekoa da hola egitea: *Jantzi naiz* esan behar da, eta ez *Neure burua jantzi dut*. Non ez den figuratiboa, jakina: *Askok ikasi dut azken urteotan eta neure burua biziki ongi jantzi dut*. Holakoak aurkitzen dira noizbehinka: *Basarrik bere burua jantzi izan ez balu ez baitzuen bertsolaritza janzteaz lortuko* (Lertxundi); [...] *geure burua jantzi ahala deboziogai horien ezerezaz jabetzen garenean* (Elexpuru). Baina *Goizetan, ohetik*

*jaikitzen garelarik janzten gara* esaten dugu, eta ez dugu esaten *gure burua janzten* dugula. Zernahi gisaz, batzuetan anbiguo samarrak dira itzuli hauek: *Jonek bere burua garbitu du* esaten badugu Jon hil dela uler dezakegu, edo burua xaboiarekin garbitu duela, baina nekez esan dezakegu hori Jon dutxatik ateratzen ikusten badugu: *Jon garbitu da* esango genuke halakoetan.

**13.8.3c** Dena den, azterketak esan beharko digu zein aditzekin diren zilegi erabilera horiek guztiak, noiz ... *n burua... du* eta noiz ...*da*, eta noiz *jantzi naiz / jantzi dut, hil da / hil du* eta antzeko bikoteak. Euskal gramatikan ikerketa gehiago egin behar dira mugak non dauden, zer aditzek zer egitura irekitzen duen, nolako esanahia duen, nolako debekuak dauden eta abar zuzen zehaztu arte.

#### 13.8.4. *Elkar elkarkaria*

**13.8.4a** *Elkar* izenordain elkarkari edo erreziprokoa dugu. Uhlenbeck-ek (1927) *hark-har* esapidean duela oinarri proposatu zuen. Eta izenordain dela esaten dugunean berak bakarrik izen sintagma osa dezakeela diogu, hots: inolako laguntzailerik gabe. Beraz, mugatzailerik ere ez du onartzen. Baina izen sintagma osatzen duen neurrian, kasu markak eta postposizioak har ditzake: *elkar, elkarri, elkarren, elkarrekin...*: *Gizakiok elkar maite dugu; Etxean elkarrekin bizi gara; Elkarren etsaiak dira horiek* eta abar. Perpaus horietan *elkar* izen sintagma dugu, ondoko perpausetan *Andoni...* ere izen sintagma den bezala: *Gizakiok Andoni maite dugu; Andonirekin bizi gara; Andoniren etsaiak dira horiek* eta abar. Orobat, honako perpaus pareetan ere paralelotasuna ongi ikusten ahal dugu: *Gu elkarren ondoan gaude / Gu Andoniren ondoan gaude; Zuek elkarrekin joango zarete / Zuek Andonirekin joango zarete. Elkar*-ek hartzen dituen kasu markak, edo postposizio markak, beti mugagabea doaz, esan bezala, eta bizidunen markekin: *elkarri/\*elkarrari/\*elkarrei esan diogu; elkarrengandik/\*elkarretatik bereizi ditugu* eta abar: *Hazi ona eta txarra elkarrengandik bereizi behar da; Liburu horiek bereizi behar dira elkarrengandik*. Baina *elkarretarik* eta *elkarretara* ere erabiltzen dira.

Arrunta da egitura hau erlazio mota zerbait markatzen duten toki postposizioetan (*elkarren ondoan, elkarren inguruan, elkarren gainka, elkarren artean*), pertsonen arteko erlazioa adierazten duten zenbait adberbiorekin (*elkarren kontra*), zenbait izenekin (*elkarren adiskideak, elkarren konpainian, elkarren anai-arrebak, elkarren kontsentimenduz, elkarren batasuna, elkarren lagunak, elkarren maitasuna, elkarren lehia, elkarren iduriko*) eta abarretan.

**13.8.4b** *Elkar* izenordain anaforikoa dugu eta, horrenbestez, aurrekari edo antezedente bat bilatu behar zaio perpausentz: *Gizakiok elkar maite behar genuke*. Honetan, bihurkariak bezala da. Hortaz, goiko perpausentz *elkar*-en aurrekoa *gizakiok* da. Esan nahi baita, *elkar*-ek bere aurreko den izen sintagma horrek aipatzen duen gauza bera aipatzen duela, erreferentzia bera dutela biek.

Dena den, *elkar*-en aurrekariak beti plurala izan behar du, edo izen sintagma koordinatua bestela. Horrela, ez dute inolako zentzurik honako perpaus hauek: *\*Nik elkar maite dut; \*Andoni elkarren ondoan eseri zen*. Aurrekari horrek, *X-en burua* aztertu dugunean ere esan dugun gisan, *elkar* biltzen duen perpaus berean (perpausik hurbilenean, nahi bada) egon behar du: *Koldok eta Mirenek elkar maite dute* diogunean badakigu *elkar* horren erreferentzia *Koldo de Mirenek* sintagma dela. Ikus dezagun orain ondoko perpaus hau: *Jon eta Arantxak Koldo eta Mirenek elkar maite dutela pentsatzen dute*. Ez dago hor arrazoi semantikorik interpretatzeko *elkar maite* dutenak *Jon eta Arantxa* direla. Hori hola ez interpretatzeko arrazoia sintaktikoa da, sintaxiak jartzen ditu mugak: *Jon eta Arantxa* sintagma ez dago *elkar* biltzen duen perpausaren barnean, baizik urrunago: *Jon eta Arantxak [Koldo eta Mirenek elkar maite dute] la pentsatzen dute*. Perpaus txikien horretan aurkitu behar du, hortaz, erreferentzia. Gauza bera gertatzen da *X-en buruarekin* ere. Izan ere, *elkar* izenordain elkarkaria dela esaten dugunean *batak bestea* eta *beste honek bat hura* edo antzeko zerbait esan nahi izaten dugu. Horregatik, bat baino gehiago ez dagoen lekuan ezina da elkarkaria erabiltzea: *Andonik eta Joxepak elkar maite dute* (= *Andonik Joxepa maite du eta Joxepak Andoni maite du*).

**13.8.4c** Bestalde, *elkar*-ek eskatzen duen aurrekariak, perpaus egituran *elkar* bera baino gorago egon behar du. Hori dela eta, kasu edo postposizio atzizkiak har baditzake ere, ezingo du hartu ergatiboaren atzizkirik, zeren orduan aurre-



korik gabe geldituko bailitzateke eta, beraz, inolako interpretazio biderik gabe. Alegia, aurrekoa bera, noski, ergatiboa izan daiteke, baino *elkar* inola ere ez. Beraz, *elkar*-ek ergatiboaren kasu marka izan ezik, beste guztiak onar ditzake. Horretan bereizten da *X-en burua* bihurkaritik, *X-en buruarekin* salbuespen batzuk ikusi baititugu, non bihurkaria ergatiboan ere agertzen den (*neure buruak kezkatzen nau*): \**Elkarrek kezkatzen gaitu* ezina da, baina bai: *Guk elkar ikusi dugu*; *Andoni eta Edurne beti elkarren ondoan esertzen dira*; *Zuek elkarri hitz politikak esaten dizkiozue*; *Elkarren konpainian egin zuten*; *Biak dira elkarren lagun*; *Gurasoek elkarrekin ikusi gaituzte*.

Azken adibide horretan *elkarrekin* horren aurrekoa zein den erabakitzen datza arazoa, zeren kasu honetan aurreko hori ez baita *gurasoak*, *gu* baizik. Arrazoa lehen aipatu bera da, hots, aurrekariak perpaus txikienean egon behar duela: *Gurasoek ikusi gaituzte* [*gu elkarrekin (egon)*].

**13.8.4d** *Elkar* izenordaina bada eta, horrenbestez, izen sintagmak osatzen baditu, izen sintagmak perpaus barnean betetzen duen funtzioaren arabera hartzen duen kasu marka edo postposizio atzizkia hartu beharko du. Horregatik *Guk Lehendakariarekin bazkalduko dugu* esaten dugun bezala, *Guk elkarrekin bazkalduko dugu* esan beharko dugu. Beraz, gaizki esana dago zenbaiten artean zabaltzen ari den modu trakets hau: \**Guk elkar bazkalduko dugu* edo \**elkarrik bazkalduko dugu*, \**elkar bizi gara* eta abar. Perpaus hauetako lehenak, izatekotan ere, honako esanahia izango luke, gutxi gorabehera: ‘Guk elkar jango dugu’, hots, ‘nik zu jango zaituk eta zuk ni’.

Era berean, \**elkar jango gara* perpausa ez da zuzena. Izan ere, *elkar*, kasu markarik ez duenez, edo nahiago bada, absolutuaren kasu marka daramanez (Ø), *joan* aditzaren subjektu izango litzateke, aditz hau intrantsitiboa denez gero. Baina *joango gara* esaten dugunean, nahitaez subjektuak *gu* izan behar du. Hortaz, *elkar* ezin izan daiteke subjektu. Horregatik, goiko perpaus hori okerra da. Horren orde, *elkarrekin joango gara* esan beharko dugu, *zurekin joango gara* esaten dugun bezala, eta ez \**zu joango gara*. Dena den, ez dezagun pentsa erabilera hau kontu berria denik. Hegoaldean, Larramendiren garaitik aurkitzen ahal dira holako adibideak euskaraz idatzitako testuetan: *Elkar eraso zioten* (Larramendi); *Elkar juntatu diren atomoekin egina*



(Villasante); *Bostekoa alkar emanda* (Ugalde); *Elkar konponduko bagina* (Etxaide); *Ez dira elkar ikusten* (Mogel); *Geron otoitzetan elkar oroitu gaitezela* (J. I. Arana); *Laztandu ginen elkar Kepa ta Sabin* (K. Enbeita) eta abar.

Zalantzak ere sor daitezke batzuetan. Lizarragaren *guztiak dira partizipante elkarren obra honetan* perpausak mugakoa ematen du. Badirudi *elkarren arteko*, edo *elkarren artean egin obra dela*, *elkarren obra* baino gehiago. Hitzun batzuek ez dute argi ikusiko *elkarren etxeetan bizi gara* perpausa (zu nire etxean eta zu nirean), baina Duvoisinek ez du arazorik *elkarren bihotzetara sar ezazue apalguratasuna* idazteko, adibidez, edo *elkarren edifikazionetako direnei*. Orixek behin baino gehiagotan erabiltzen du *elkarren besoetan*, esate baterako. Mugak jartzea ez da erraza, segur aski debeku semantikoak bai baitira.

**13.8.4e** Dena dela, bihurkariez egin dugun bezala, *elkar*-en erabileraz beste oharño bat ere egin daiteke, gauzak dauden baino nahasiago egin ez ditzagun. Euskaldun zenbaitek *nork-elkar-aditz trantsitiboa* egitura jatorra erabili ordez, nahiago du, erdarak horretara bultzaturik ziur asko, beste honako egitura hau: *nor-aditza intrantsitiboa*. Adibidez, *elkar ikusiko dugu gero* esan beharrean, *ikusiko gara* edo *elkar maite dugu* esan beharrean *maite gara* bezalakoak hedatuak daude. Batzuetan ez daude batere argi mugak. Ikus, bestela, Azkueren adibide hau, non bi joerak ageri baitira: *Lurrean elkar gehiago ikusten ez badugu ere, dudagabe zeruan ikusiko gara*.

Beste batzuetan bistan da perpausak ez direla gramatikalak (nahiz gogoan izan goian aipatu adibideak): \**Elkar ikusiko gara*. Aditzak berez intrantsitiboak direnekin esana dugun bezala, ez dago lekurik *elkar* objektu gisa erabiltzeko. Baina aditza trantsitiboa bada, erreprozitate adierazi nahi bada, bistan da *elkar*-ez baliatu behar dugula: *Guk elkar jo genuen*; *Zuek elkar gorrotatzen duzue*. Aditz batek bi erabilera baditu, bata trantsitiboa eta bestea intrantsitiboa (*hil, jantzi, erre* eta antzekoak, non bata arazlea den) orduan *elkar*-dun esapidea eta aditz intrantsitiboaz baliatzen dena ez dira, inolaz ere, zentzukide. Adibidez: *Guk elkar jantziko dugu* ≠ *Gu jantzi egingo gara*; *Gizon horiek elkar hil behar dute* ≠ *Gizon horiek hilgo dira*; *Horiek elkar erretzen dute* ≠ *Horiek erretzen dira*.

**13.8.4f** Esan dezagun, azkenekorik, *elkar* hitza egokia dela izen, aditz edo adberbio elkartuak sortzeko: *elkarbanatu*, *elkarbide*, *elkargainka*, *elkarbildu*, *elkarganatu*, *elkargo*, *elkargune*, *elkarkidetza*, *elkarkidetasun*, *elkarkuntza*, *elkarlan*, *elkarleku*, *elkarlotu*, *elkarlotura*, *elkarneurgarritasun*, *elkarretaratu*, *elkarriketa*, *elkarriketatu*, *elkartasun*, *elkarteburu* eta abar ageri dira egungo testuetan. Hizkuntzak holako hitzen beharra du, baina batzuetan ez dirudi modu egokian eratuak direnik.

### 13.8.5. *Elkar eta bata beste egitura*

**13.8.5a** Esan dugunez, *elkar* genitiboan joan daiteke *ondoan*, *gainean* eta antzekoekin (ikus azken adibideetako bat: *Andoni eta Edurne beti elkarren ondoan esertzen dira*), baina batzuetan badirudi *elkarren*-en ordez *bata bestearen* edo antzeko itzulia nahiago izaten dugula. Kontura gaitezen aurrekari-erreferentzia bi lagunena izan daitekeela (hori iradokitzen du *bata bestea* esapideak), edo gehiagorena, nolana ere beti plurala da: *Peruk eta Mirenek bata bestea maite dute; talde horretako jokalariek bata bestea maite dute*. Hala ere, *elkar* bera singularizat hartzen dugu komuntadurari dagokionez: *Guk elkar ikusiko dugu / \*Guk elkar ikusiko ditugu*.

**13.8.5b** Hala ere, *elkar* eta *bata beste* esapidearen parekotasuna ez da beti zuzena: *Peruk eta Inixik elkarren ondoan egin zuten lo* esan badaiteke ere, bitxi samarra gertatzen da beste honako hau: *Peru eta Inixik elkarren ohean/oheetan egin zuten lo*. Horren ordez, baina, beste honako hau zeharo normala dela dirudi: *Peruk eta Inixik batak bestearen ohean egin zuten lo*. Beste kasu batzuetan ez dago desberdintasun handiegirik: *Bi oilarrek elkar hil zuten = Bi oilarrek bata bestea hil zuten; Gu elkarren ondolik pasatu ginen = Gu bata bestearen ondolik pasatu ginen*.

Badirudi hemen hiztunen artean, genitiboari dagokionez, bi joera daudela. Joera itxia dute batzuek, eta *elkar* erlazio izenekin bakarrik onartzen dute: *elkarren anaiak*, *elkarren adiskideak* eta abar. Edo toki postposizio batekin: *elkarren ondoan*, *elkarren artean*, *elkarren atzean* eta abar. Badira esapide batzuk ere:

*elkarren berri*, esaterako. Hortik kanpo *bata bestearen* esapidera jotzen dute. Beste hiztun batzuek, ordea, joera irekiagoa dute, eta *elkarren* eta *bata bestearen* esapideak ingurune berdinetan edo berdintsuetan erabiltzen dituzte.

**13.8.5c** *Bata bestea* esapidea, batetik, eta *bata... bestea*, bestetik, ongi bereizi behar dira. Lehenbizikoa sintagma bakarra da (konplexua, baina bakarra, banatu ezin dena) eta bigarreanean bi sintagma ditugu. Gauza bat baita *Batak bestea maite du* eta beste zerbait *Gurasoek bata(k) bestea maite dute*. Bigarren kasu horretan *bata bestea* unitate bat da, eta ezin da hautsi. *Quasi reziprokoa* deitzen du de Rijkek (2008: 371).

## 13.9. Ezabaketa dela eta

### 13.9.1. Izena ageri ez

**13.9.1a** Aurreko orrialdeetan *bera* hirugarren pertsonako izenordaintzat hartu dugu. Determinatzailea izan daiteke (*andre bera etorriko da*), edo izenordaina (*bera etorriko da*), nolakoa den testuingurua. Edo, beste ikuspuntu batetik, esan dezakegu, besterik gabe, izena isiltzearen ondorioa dela (*\_\_ bera etorriko da*), azterketa nola egiten den. Izen sintagma zenbait elementu desberdinez osatua agertzen da anitzetan, baina izena hartzen du beti ardaztat. Izen sintagmaren ardatz den izen hori izen berezia ez bada (hots, izen berezi nahiz izenordain: *norbait*, *ni*, *zuek...*) sintagma behar bezala osatua egoteko izenaz gainera beste elementuren batzuk ere behar ditugu. Baina izen sintagmaren ardatza izena bada ere, askotan izen hori, ezaguna delako, edo jakintzat ematen delako, edo lehenago aipatua delako edo hitz egiteko momentuan seinalatu egiten dugulako, ezaba daiteke. Eta horrela, honako adibideetan erakusten den bezala, ezkerreko egituratik eskuinekora pasa gaitezke arazorik gabe: *liburu gorria* →  $\emptyset$  *gorria*; *liburu hau* →  $\emptyset$  *hau*; *zenbait etxe* → *Zenbait*  $\emptyset$ ; *edozein makila* → *Edozein*  $\emptyset$ .

**13.9.1b** Oso fenomeno zabala dugu hori euskaraz, eta ez da erraza horren berri modu egokian ematea, hau da, holakoetan izenordaina dugun aurrean

edo izenaren ezabaketaren ondorioko zerbait: pentsa daiteke bi *hau* ditugula, bata izenordaina eta bestea determinatzailea (eta holako kasuetan analisi hori egiten da, hain preseski, hizkuntza askotan). Edo bi *zenbait* ditugula, edo bi *edozein* eta horrela gertatzen dela *-a* mugatzailearekin izan ezik, beste determinatzaile guztiakin. Baina beste ikuspuntu batetik egiten bada analisisia, pentsa daiteke ez ditugula bi *hau*, esaterako, baizik *hau* bakarra, batzuetan izenarekin batera ageri dena, eta bakarrik besteetan, behin izena ezabaturik. Kasu horretan, beti izango litzateke determinatzailea. Analisi mota hori egiten da EGLUn (I: 70-71). Egia esan, badira arrazoi franko bide bat nahiz bestea auke-ratzeko. Guk hemen uste izan dugu hobe dela bi *bera* ditugula aipatzea, bat determinatzailea eta izenordaina bestea. Ohart gaitezen, gainera, zenbait testuingurutan ezinezkoa dela izena ezabatzea: *etxe berean bizi gara*; \**berean bizi gara*. Ez da salbuespen kontua: hiztegiko sarrera askorekin gertatzen da kategoria bat baino gehiagotan sailkatzen ditugula: *beste*, *hurbil* eta abar. Ez da, gainera, *berarekin* bakarrik gertatzen. EGLUn *edozein* ere izenordain zehaztugabetzat hartzen da (hemen ere hartuko dugun gisan), baina testuinguruaren arabera izenordain gisa (*edozeinek daki hori*) edo determinatzaile gisa (*edozein pertsonak daki hori*) ere ager dakiguke.

**13.9.1c** Zernahi gisaz, ezabatze kontua bada, esan dezagun zerbait horren gainean: hain zuzen, ezabatze hori posible izaten da denok ulertzen dugunean zein den azpian dagoen izena, nahiz eta axalean agertu ez. Esate baterako, *zein liburu nahi duzu?* galdetzen dugu baldin eta testuinguruak ez badu aldez aurretik erakusten liburuez ari garela. Adibidez, liburu denda batean bagaude eta eskuaz seinalatzen badituzu liburuak ez daukagu zertan *zein liburu?* galdetu, *zein?* esatea aski bailitzateke. Baina bazar batean aurkitzen bagara adibidez, zeinetan liburuak eta buztinezko ontziak eta kobrezko bitxiak eta horrelako asko dauden, *liburu* izena ezingo dugu ezabatu, entzuleak zuzen ulertzea nahi badugu behintzat.

Behin gogoko galdera hori egin ondoren (hots: *zein liburu nahi duzu?*), erantzun normalena liburu aipatzen ez duena izango litzateke, bai baitakigu liburuez ari garela: *gorria*, edo *gorri hau*, edo *hango gorri hura*, edo *hau* soil soilik izango litzateke. Hemen izena ez, beste elementuak gelditzen dira.

Beraz, sintagma bat izen batez eta erakusle batez osatua bada (adibidez, *liburu hau*) izena ezabatu ondoren erakuslea geldituko zaigu, baina horrek ez du esan nahi berez erakusle hori izenordain denik. Izenordain izatea, izatekotan, ezabatze prozesu baten ondorio besterik ez bailitzateke izango.

Egoera horretan aurkitzen dira determinatzaile guztiak, mugatzailea izan ezik: *Hau etorri zitzaidan; Andonik bi eta bi bost direla esan zuen: Horrek ez du inolako zentzurik* (alegia, *baieztapen horrek*). *Bakoitza* ere, berez, determinatzaileen sailekoa dela dirudi, nahiz eta mugatzaile eta guztiko forma izan. Baina hemen azaldu dugun joko honetan ere gertatzen da. Hortaz, batzuetan nolabaiteko izenordain gisa ere agertzen da. Baina ez dugu horrelakorik ekialdeko euskalkietan erabiltzen duten *bakoitza*-ren baliokidearekin, *batbedera*-rekin alegia (§ 13.11). Hau beti izenordaina dugu eta beti singularrean doa: *batbederak* esan zuen = *bakoitzak* esan zuen; *batbederak* daki = *norberak* daki.

### 13.9.2. Izenordainen eta beste zenbait sintagmaren ezabaketa

**13.9.2a** Komuntadura dela eta, aditzak ematen duen informazioa sarritan erredundantea gertatzen dela gauza jakina da. Aditzak perpausean jadanik jasoa dagoen informazioa, *nor*, *nori* eta *nork* sintagmei dagokienez, errepikatu egiten du. Horrenbestez, askotan, *nor*, *nori* eta *nork* sintagma horiek ezabatzea zilegi gertatzen da. Ezabatze horrek ez dakar, arruntean, inongo informazio galtzerik. Adibidez, ondoko perpaus hauek informazio bera ematen digute: *Nik zuri liburu hori eskatu dizut; Nik liburu hori eskatu dizut; Zuri liburu hori eskatu dizut; Liburu hori eskatu dizut*. Eta *liburu hori* sintagma ere ezabatua gerta daiteke, baldin eta testuinguruari esker edo, zertaz ari garen (hots: *liburu horretaz* ari garela) badakigu. Orduan, beste perpaus hau ere zilegi gertatuko litzaiguke: *Eskatu dizut*. Perpaus horiek guztiek zeharo zuzenak eta gramatikalak izaki, zenbait testuingurutuan azkena esatea aski dugu, eta perpaus hori entzuten duenak badaki *nork* eskatu duen, eta *nori* eskatu dion. Zerbait eskatu duela ere badaki. Jadanik ulertutzat ematen badute esan beharrik ez da. Dena den, izenordain pertsonalak ez diren sintagmen ezabaketa testuinguruaren

mende gelditzen bada ere, pertsona izenordainak ezabatzea zeri dagokio? Alegia, azkena entzuten duenak badaki garbi nork eta nori eskatu dion, *nik zuri*, alegia. Baina, besterik ezean, ez daki *zer* eskatu dion. Beraz, aditzean jasoak dauden neurrian lehenengo eta bigarren pertsonako izenordainak agertzea edo ez agertzea hiztunaren esku gelditzen da. Hots: hiztunak askatasuna du izenordain horiek ezkutarazteko.

**13.9.2b** Hala ere, bi kasutan behintzat ezina da ezabaketa hori: a) izenordaina galdegaia denean, eta b) izenordaina perpausaren aurrera eraman den mintzagaia denean. Eta ezina gertatzen da kasu horietan ezabaketa, informazioa galduko litzatekeelako. Galdegai den izenordaina ezabatzea zilegi balitz ez genuke jakingo zein den galdegaia, edo galdegaitzat beste osagairen bat hartuko genuke. Gauza bera gertatuko litzateke, aurreratutako mintzagai ezabatua balego. Bi leku horietan doan izen sintagma nolabaiteko kontrastean jartzen dugu. Adibidez, ondoko perpaus hau dioenak: *Nik esango dizut zer den ona*, ez du modu neutroan esaten. Hor, *nik eta ez bestek* esan nahi du. Eta horrelakoe-tan, noski, beharrezko gertatzen da *nik* jartzea. Zeren perpaus hori ez baita ondoko honen baliokide, galdegai desberdina dutelako nahitaez: *Esango dizut zer den ona*. Hemen, galdegaia *bai* edo *zer den ona* perpaus txertatua da. Inola ere ez, *nik*, ezabatua izan den momentutik. Hona hemen beste zenbait adibide: *Zergatik ez dute egin apaiz horiek beroriek nik egin dudana?* (Orixe); *Pilipe, ni ikusten nauena, Aita ikusten ari da* (Orixe).

**13.9.2c** Mintzagaia ere, aurreratua baldin badago behintzat, nolabaiteko kontraste lekua dugu: *Nik, esango nizuke baina...*; *Zuri, kontatuko nizuke baina...*; *Gu ere lilura gaitzke*; *Gu, berriz, barrura sartzeko irrikitzen gaude* (Orixe); *Nik, behintzat, ez diet ondorio segururik atera* (Orixe); *Nik, ordea, ez det neregan gauza onik* (Orixe) eta abar. Eta hona hemen, azkenik, perpaus bat, non bi *gu* ditugun: bata mintzagaia, bestea galdegaia. Jakina, aditzak jasoak duen bakararra lehenbiziko *gu*-a da, mintzagaia izateaz gainera subjektua baita: *Gu, geren kaxkarrean gu gelditzen gara* (Orixe).

**13.9.2d** Bi kasu horietatik aparte, badirudi nahikoa libre gelditzen dela izenordaina agertzea edo ez agertzea: *Haren arraza gara gu* (Orixe); *Hori egiten*

*diogu guk askotan Jainkoari* (Orixe); *Ezagutu nuen nik orain hogeitahamar urte norbait lau ordu otoitzean ari zena* (Orixe).

Perpaus horiek izenordainik gabe emango bagenitu ez dirudi asko aldatuko liratekeenik: *Haren arraza gara; Hori egiten diogu askotan Jainkoari; Ezagutu nuen orain hogeitahamar urte norbait lau ordu otoitzean ari zena*. Dena den, enfasi apur bat gehiago edo, ematen zaiola dirudi izenordainak horrela agerrazten ditugunean. Baina izenordain horiek ezabatuz gero, ez dirudi informazio gehiegirik galtzen dugunik. Horregatik, hiztunaren esku gelditzen da izenordain horiek bere hartan uztea edo ezabatzea.

**13.9.2e** Beste ezabaketa kasu bat ere aipatu behar da: perpausean lehen pertsona singularrarekin (*ni*-rekin) edo bigarren pertsona singularrarekin (*hi* edo *zurekin*) beste norbait ere agertzen bada, ... *eta ni* edo ... *eta zu* esan beharrean ... *eta biok* edota ... *hirurok* esaten dugu. Hori izan da beti modu naturalenik euskaraz: *Zu eta ni joango gara* → *Zu eta biok joango gara; Edurne eta ni iritsi ginen* → *Edurne eta biok iritsi ginen; Joxe eta hi etorriko zarete* → *Joxe eta biok etorriko zarete; Andoni, zu eta ni ibiliko gara* → *Andoni, zu eta hirurok ibiliko gara*.

**13.9.2f** Zenbait kasutan, izen sintagma bati dagokion izenlaguna ez da agertzen nahiz eta denok ulertu hor badela izenlagunen bat. Ikus dezagun zenbait adibide: *Etxera noa; Etxera joan nintzaion; Aitari esango diot; Amak eman zidan; Alabari eska iezaiozu; Etxeraino eraman genuen*. Hor agertzen diren izen sintagmetan ez dago, agerian behintzat, inolako izenlagunik. Badirudi, hala ere, etxeak asko direnez gero, zein etxeri buruz ari garen aditzera eman behar genukeela. *Aita, ama* eta *alaba*-rekin ere gauza bera gertatzen da.

Jakina, askotan, ezinezkoa gertatzen da izenlagun hori ezabatzea. Esate baterako, enumerazio batean izenlagun desberdinak kontrastean jarri nahi ditugunean. Adibidez: *Joxeren aitari, gureari, Andresenari...* Baina izenlagun hori, izenordaina izan nahiz ez izan, agertzen ez denean, interpretazio arazoa gertatzen da. Agertzen ez den izenordainen bat badela pentsa daiteke. Arazoa da zein den jakitea. Adibidez, ondoko adibideak ez du arazorik sortzen: *Etxera noa* (= Neure etxera noa). Izan ere, perpaus horretan ez da nitaz gain beste inor

ere ageri. Baina nor eta nori agertzen badira, ondoko adibidean bezala, galde liteke ea ez den sortzen interpretazio kontuan: *Etxera joan nintzaion* (= Neure etxera joan nintzaion; Bere etxera joan nintzaion). Alegia, noren etxera? Euskaldunak badaki, ordea, interpretazio zuzen bakarra bigarrena dela eta ez lehenbizikoa.

Dena den, hau interesatzen zaigu guri: badira berez izenlagun bat eskatzen duten izenak (ahaidegoa adierazten dutenak, adibidez: hemen sartuko genituzke *maisuu*, *andereño*, *buruzagi* eta antzekoak ere; baita *etxe*, *herri* eta antzekoak ere), baina sarritan ez dugu esaten *zein etxez* edo *noren aitaz* ari garen, hori ulertutzat ematen delako. Askotan, hala ere, anbiguotasuna gertatzen da. Jakina, anbiguotasuna hausteko bideak baditu hiztunak. Elkarrizketa batean, adibidez, aski da galdera bat egitea: *noren aita?* esate baterako.

Beste batzuetan aditzean doan datiboak esango digu zein den ezkutuan dagoen genitibo horren erreferentzia. Adibidez: *Andoniri aita gazterik hil zitzaion* esanda ere, Andoniren aitaz ari garela ulertzen dugu, nahitaez. Eta hori, *bere* izenlaguna sartu gabe.

Genitiboan doan izenordaina askotan ezabatu egiten dugula esan dugu. Hala ere, jartzea komeni zaigu, baina zein? Euskaldun jatorra, bere familiaz edo etxeaz ari delarik, plurala erabiltzearen aldeko agertzen da anitzetan. Honek lehen eta bigarren pertsonarako balio du. Horrela, *gure aita*, *gure haurra*, *gure semea*, *gure andrea*, *gure ardiak*... esateko joera handia dago.

## 13.10. Izenordain zehaztugabeak

### 13.10.1. Zer diren izenordain zehaztugabeak

Izenordain zehaztugabe deitzen ditugu pertsoneri erreferentzia zuzenik egiten ez dieten izenordainak. Hirugarren gradukoak dira, hortaz. Sail horretan sartzen dira galdetzaileak (*nor*, *zein* eta *zer*), galdetzaileetatik eratorritako izenordain mugagabeak (*norbait*, *zerbait*, *nor edo nor*, *zer*, *edonor*, *nornahi*, *zeinahi*, *ezer*, *inor/nehor*...), eta *beste* eta *batbedera*.



### 13.10.2. Izenordain zehaztugabeak: galdetzaileak

*Nor, zein*, eta *zer* dira galdetzaileak, eta hemen lehenik ikusiko ditugun tanke-ra honetako izenordainak. *Zenbat*-ek ere izan dezake batzuetan izenordain kutsua.

### 13.10.3. *Nor* izenordaina

**13.10.3a** Mugagabeen artean lehenbizi galdetzaileak aipatu beharko ditugu. Horietan beti izenordain gisa *nor* agertzen da. Izenordain galdetzaile horrek pertsonaz galdetzeko bakarrik balio du: *Nor etorri da?* (—*Gu etorri gara*; —*Ni etorri naiz*; —*Andoni etorri da*); *Norekin joango zara?* (—*Lagunekin joango naiz*). *Nor* galdetzaileaz baliatuz galdera bat egiten duenak, adibidez, perpaus horien antzekoak erabiliz, *etorri dena* edo *joango dena* pertsona izango dela presuposatzen du. Horregatik dira izenordainak.

Zubereraz *nur* da erabilera arrunta, eta *nok* da ergatiboa bizkaieraz. Badira tradizioan *nogaitik*, *nuen* (*noren*, Lazarragak erabilia), *nogaz* eta *norei* ere, egileen arabera.

Gauza jakina da *al* erabiltzen dela *baiez* erako galderetan (ikus § 10.3.2.2): *Etorriko al zara?* Eta erantzuna bai edo ez da, noski. Tradizioan baditugu adibideak, hala ere, nahiz gutxi izan, *nor* eta *al* biak batera ikusten diren: *Zueta-riko nork al daki non diren Poke-ko atzerritarrak?* (Zaitegi).

**13.10.3b** Galderazko balio gabe ere erabiltzen ahal dugu *nor* zenbait esapidetan. Esapide erabilienak honakook dira:

– *Nor edo nor*. Ikus aitzinago (§ 13.10.7.2).

– *Nor ere*. Erlatibozko perpausetan erabiltzen da: *Nork ere ikusi baitu hori, zitalez blaituriko mihiz Fortunaren aurka duke traizio-epaia emango* (Juan Garzia); *Nori ere dakizunez gutzizko onginahia baitiot* (Jon Muñoz); *Nor ere ahalegintzen baita besteak Arrazoiaren arabera gidatzen* (Xarriton).

- Nor izan. Adibidez: *Ni ez naiz nor hori egiteko; Nor naiz ni zurekin mentura nadin mintzatzera?* (Maister). Horrelakoetan *nor*-en ordeaz *inor* erabil daiteke. Azken batean, *nor izan* = *duin izan*: *Zu nor bazara...* (Mendiburu). Hona hemen beste esapide bat ere *nor*-ez baliatzen dena: *Jendea, nor zaldiz, nor oinez, etorri zen*. Alegia, batzuk zaldiz eta beste batzuk oinez etorri ziren. Ez da beharrezkoa, hala ere, *izan* aditza: *Ez dut nor maite* (Txillardegi).
- Nor... nor... *Lurrean bertan lo egin zuten, nork sukaldean, nork korridoreetan* (J. Zabaleta); *Nork famari, nork diruari, nork errazkeriari, nork aurreko hirua batuz sortutako burrundarari* (Lertxundi).
- Nor baino nor. Hona hemen adibide batzuk: *Berrogei bat lagun bai, nor baino distirant eta harroputzago* (Txillardegi); *Epaileak bost ziren, nor baino nor portatu zitzaizkidanak* (Joxerra Garzia).
- Izen gisa ere: *Hortxe dago gako!* –*esan eta, nor baino nor hartan bere nagusitasuna azaltzeko...* (M. A. Mintegi).
- Lehenbiziko eta bigarren pertsonaren erreferentzia gisa ere erabiltzen da: *Nor zarete zuek?; Nor gara gu?*
- Harridurazko perpausetan: *Beha, beha, nor dugun hor!; Nor aspertu dateke dantza hauei begira?* (M. Atxaga).
- Zuetarik edo horren antzeko hitzekin: *Nork zuetarik reprenditzen nau ni bekatuz?* (Leizarraga); *Nor da gutarik hori egiten ez duenik?*
- Beste edo Besterik-ekin: *Nork bestek hartuko du sarrera?; Nor besterik etorriko da?; Nor dago besterik etxe honetan?; Ez zegoen besterik nor izendatu eta abar.*
- Gehiago-ekin: *Nor gehiago etorriko da?; Nork gehiago pentsatzen du hori?; Nori gehiago esan diozu?* Kasu marka ere har dezake *gehiago*-k: *Nor gehiagok pentsatzen du hori?; Nor gehiagori esan diozu?*
- Beste sintagma baten aurretik, *eta* juntagailua tartean dutela: *Nori eta hari esan behar hori!; Nork, eta horrek egin zuen azkenean; Nork eta zure anaiak ikusi omen zuen...*

#### 13.10.4. Zein izenordaina

**13.10.4a** Zenbait euskaldunek *nor* ez dute erabiltzen pertsona izenordain galdetzaile bezala eta nahiago dute *zein*-ez baliatu: *Zein etorri da?*; *Zeinekin joango zara zainera?*; *Zein ez litzateke tristatuko hori entzunik?* (AstLas). Erabilera hedatuenak esaten du *nor* erabili behar dugula termino ez-markatu gisa (*nor etorri da?*) eta *zein*, berriz, multzo batean aukera egin nahi denean (*horien artean zein da zure anaia?*, adibidez). Baina arau nagusia hori izanik ere, bietara hausten da: *zein* erabiliz *nor*-en tokian (*zein zara zu?*) eta *nor* ere *zein*-en tokian (*zuetatik nor da Peru?*). Iparraldean *zoin* da gehien erabiltzen den aldaera, batzuetan *zuin* ere ageri bada ere.

**13.10.4b** Esapide batzuetan erabiltzen dugu:

- *-tik zein*: Bietatik zein da zaharrena?; Horietatik zein da jokalaria hoberena?
- *zeinek... zeinek... zeinek*: Aritu dira, zeinek hartu, zeinek eraman, zeinek ordaindu, zeinek ireki...
- *zein...-ago*: Hango herriak ikusi genituen, zein ederrago;
- *zein eta*: Honela esaten zunan: Zein-eta dira gorputzen lau doaiak? (Orixe);
- *zein besterik*: Zein besterik maite duzu?
- *zeinek jakin/ikusi/entzun...*: Zeinek jakin nor geldituko den azkenean hemen; Horrenbeste euro, zeinek aurki lezakeen!
- *zein izan*: Zein naiz ni, nerez, berriz diot, erdian jartzeko? (Txillardegi);
- *zeinek ez*: Zeinek ez du maiteko holako gizona; Zeinek ez zuen txakolin freskoaren laguntzaz amets egiten? (P. Rekalde);
- *zein bere*: Zein bere txandan; Noelen Kutxatik irtendako animaliek areago dirudite Artistaren batek zein bere aldetik irudikatuak (Juan Garzia);
- *zein baino zein*: Amondarrek gaiztakeriarik asko egin dute, zein baino zein handiago (Elizen arteko Biblia); Zein baino zein nabarmenagoak ziren aitarren arreta bereganatzen zuten bideko lagun haiek (Lertxundi);

- *zein ere...* ‘orobat’ zentzuarekin: *Kontu honetan zein ere besteetan aitzindaria izan zen Etxahun-Iruri (Berria); Sirian zein ere mundu zabaleko beste hamahiru herrialdetan, dena den, segurtasun neurri zorrotzak indarrean jarri zituzten bozketa hauen kariatara (Berria);*
- ‘norbait izan’ adierazi nahi duela: *Barneko jantzia zeinek garbiturik ez duela (Agirre); Prezio horretan bada zeinek erosia (Uztapide) eta abar;*
- *zein ere den* ere erabiltzen da: *Baina bertze anitzek zein ere den ez ezagutu eginen diote (Mendiburu); Baina zein ere den egiazko istorioa, badago aski ziurgabetasun, negozio honetarako, eskuizkribua sekula ez zela galdu uste izateko (O. Arana); Zein ere den txiki objektu bat, bada beti argi bat hura handiarazten duena (Jon Muñoz).*

**13.10.4c** Erlatibozko perpausetan, perpaus buru gisa, mugagabea eta aditz laguntzaileak *bait-* hartzen duela: *Aingerua da hitz greko bat, zein erran nahi baita enbaxadore edo mandatari (Leizarraga); Lokamuts torturatzailerak, non behin eta berriz azaltzen baitzitzazkion lapur multzoak eta ebasle andana, denak ere bere perla beltza ostu nahian, eta zeinetan [...] azken finean beti eramaten baitzioten perla gutiziatua begien aurretik (X. Mendiguren Elizegi); Bere ama bera, zeinen sabeletik sortu baitzen...*

Erlatibozko perpausetan, perpaus buru gisa, mugagabea eta aditz laguntzaileak *-n* hartzen duela: *Eta zeinek bere ontasuna gehiago maite duen, harengana doa Jesus (Frai Bartolome); [...] eleberri bat, Rayuela, Julio Cortázarrek hogeita hamabi urte geroago argitaratua, zeinek bizitza bera laburtzen duen esaldi bat baitu bere baitan (Zurutuza).*

Erlatibozko perpausetan, perpaus buru gisa, mugatua eta aditz laguntzaileak *bait-* hartzen duela: *Nazioarteko ekonomia- espazioaren zatiketa hirukoitzak, zeina aipatu baita jada merkataritza-trukeen fluxuari dagokionez, guztiz egokia izaten jarraitzen du inbertsioetan eta ekoizpen-sareetan (Navarro); Badut batez ere akats bat, zeina baita uste izatea ezen Danceny eskolume, melenga hori, nitaz baizik ez arduratua, [...] (Jon Muñoz); Zeinak profeta bat, profeta delakoz baitu hartzen, hainak saria izanen du (Duvoisin); Erakusten dute haren burdinazko ohea, zeina baita Errabathen, Amonen semeen hirian (Duvoisin);*

*Maria bere esposarekin batean, zeina baitzen izorra (Haraneder); Halaxe bildu ahal izan dut, hitzez hitz, neure trabailuaren ondoko uzta, zeina baita eskuan daukazuna (Irigoién); Askatasuna, bai, baina askotasuna da hor berez axola duena, askotasunaren produkzioa, gizabanako eta gauzabanako askoren askotasun entretenigarria, zeinarekin baita txit alaikiro jostatzen Euskal Hiriko hiritarren ixspritu anizkoia (Seguroia).*

Erlatibozko perpausetan, perpaus buru gisa, mugatua eta aditz laguntzaileak -n hartzen duela: *Gaitz bat txit handia, zeinari deitzen dioten izurria (Iztueta); Determinazio orokorrak ere finkatu beharra dago, zeinek ematen duten banako bat eratzen deneko planoan sarraraztea (Xarriton); Hoteleko gela batean gertatzen den eszena arrunta, zeinean bera zetazko izaretan zegokeen eta ni botila hotz bat xanpain eta sakeletan kristalezko kopa bi nituela azalduko bainintzen (Saizarbitoria).*

Erlatibozko perpausetan, perpaus buru gisa, zein ere bezala eta aditz laguntzaileak bait- hartzen duela: *Ene begiak lurreko gizon fidelen alderat itzultzen ziren, haiek enekin jarrarazteko; zein-ere baitzebilen notagabeko bidean, hainak zerbitzatzen ninduen (Duvoisin); Ura deitzen da gauza baten fina, zeinengatik eta zeintako ere baita Gauza gura (Duvoisin); Delacour andereñoa, zein ere pertsona sendokote jator bat baitzen, irribarre zabala egiten hasi zen (Aldasoro); Ségouini ez zitzaion beharbada kopuru handia irudituko, baina Jimmyk —zein ere, behin edo behingo hutsegiteak gora-behera, barru-barruan sen sendoen oinordeko baitzen—, ondotxo zekien zenbat kostata bildua izan zen (Aldasoro).*

**13.10.4d** Batzuetan harridura adierazten du (§ 14.10.5.7): *zein ederra!* Edo, besterik gabe, *ze ederra!* izan da aldaera aski erabilia.

### 13.10.5. Zer izenordaina

**13.10.5a** Pertsona ez direnez galdetu nahi denean, zer galdetzailea erabiltzen dugu: *Zer erosiko duzu? —Etxe eder bat; Zertaz mintzatu zineten? —Ekonomiaz mintzatu ginen; Zertan ari zineten hor ezkutuan? —Zigarro bat*

erretzen...; *Zeren bila zabilta?*; *Zertan dihardu?*; *Zertara doa?*; *Zer dakar beronek?*...

Hala ere, *nor* beti izenordain den bezala, hots, besteren laguntzarik gabe, berak bakarrik, izen sintagma osa dezakeena, *zer* izenaren determinatzaile gisa ere erabiltzen dugu. Adibidez: *Zer ordu da?*; *Zer moduz zabilta?*

Kasu absolutiboan *ze* da beste aldaera bat aski erabilia, bai hitz egitean eta bai tradizioan (betiere *zer* aise gehiago) edo egungo literaturan ere: *Ze esan duzu?* Bizkaierazko idazle zaharrek, adibidez, *zer* izenordaina (*zer da hori?*) eta *ze* determinatzailea (*ze gauza*) bereizten zuten. xx. mendean erabilerak gutxiagorara egin zuen mendebaleko idazleen artean. Gipuzkeraz gehiago idatzi izan da *zer*, osorik. Ekialdean ere *zer* da gehien erabili izan dena. Gaurko idazleek ere arruntean erabiltzen dute *ze*.

Ergatiboan *zerk* egiten da, salbu bizkaierazko tradizioan, non *zek* den maizen ageri dena. Instrumentalean *zertaz*, *zertas*, *zetas*, *zertzaz* eta *zerez* aldaerak erabili dira. Ablatiboan *zertarik*, *zertaik*, *zerteik* aldaerak. Soziatiboan *zerekin*, *zerkin*, *zegaz*, *zergaz*, *zer edo zerkin* bezalakoak. Datiboan *zeri* (nagusia), baina *zerei* ere. Genitiboan, *zeren* orokorraren ondoan *zeen* eta *zen*. *Zertzat* ageri da inoiz.

**13.10.5b** *Zer* determinatzaile gisa ageri delarik ondoko sintagma mugagabea ageri da arruntean: *Badakizue zer manamendu eman dizuedan?*; *Zer ordu da?*; *Zer liburu zaude irakurtzen?*; *Zer esker, zer pagamendu emanen die?* eta abar. Baina badira adibide anitz non sintagma hori mugatua den: *Zer arpegiaz zure begietan jarriko naiz?*; *Ikusten duzu zer kalteak datozen gure zabarkeria eta aitzakietatik?*; *Kontatu zidaten gau triste hartan zer gauzak esan zizkioten?*; *Eman dute erakustera nolako bakea eta zer xedeak zituzten gogoan...* Holakoetan *nolako*-ren baliokide gisa erabiltzen dugu *zer*, askotan, baina ez beti, harridurazko perpausetan: *Ha zer bidea eta moldea, zer lausengua eta bala-kua...* (Axular).

**13.10.5c** Lagunarteko hizkeran batez ere, komodin gisa erabiltzen dugu *zer* hau (edo *zera*, beste hiztun batzuek). Horrelakoetan ez gaude jadanik galde-tzaile baten aurrean, izen baten, adjektibo baten edo aditz baten aurrean

baizik, zeren izen gisa (bere mugatzaile eta guzti), nahiz adjektibo gisa (hots: adjektiboa agertzen den testuinguru berean) nahiz aditz gisa erabil baitaiteke. Hortaz, edozeren ordeztan erabil daiteke: *Zera esan dit; Bai zera! Nola esango zizun hori, bada?; Zerako zerak zerako zera zeratu omen zuen zerean; Oso neska zera da.*

Ahozkoan maiz erabiltzen da, askotan gogoratzen ez garen izena ordezkatzeko balio baitu. Hizkera bizirako markatuegia delakoan edo, EGLUK dio ez diruditela oso dotoreak honako esapide hauen antzekoek (I: 49-50): “Industria Sailburuak zera adierazi du kazetarien aurrean: 15.000 lanpostu berri sortuko direla datorren urtean Urola aldean”. Baina egia da egungo idazleek ere asko erabiltzen dutela: *Konturatu zen lehen ez zela hain antiklerikala, errespetuzko zer bat gordetzen ziola elizari* (Linazasoro); *Bere tokitik mugitu gabe zer beltz bat jaurti zidan, airez aire* (Epaltza); *Ez dakidana, zera da: guk geure burua ukatzeko beste maite izan ditugun zerok ote diren geure seme-alabek nahi dutena* (Joxerra Garzia).

### 13.10.5d Beste erabilera batzuk ere baditu zer honek:

- Ezezkako espletiboa: *Zer ez ote zuen esan?; Zer ez zen izan ene bihotz mina!* (Duvoisin); *Zer ez nuke eginen eta zer ez dut egin honelako mesedeengatik?* (J. Haranburu); *Mende honek zer ez du ekarri!* (Larre) eta abar.
- Zinez, galdera denaren aurrean: *Zer, hori bazeneki, zer nahi zenuke egin?* (Pouvreau); *Eta zer? Aditurik hau guztia, ez ote gara ohituko...?* (Agirre Asteasukoa); *Zer, zer? Medikuari beldur?* (Etxaniz); *Zer, ez duzu ezagutzen “Herria”?* (Larre).
- *Zer garrantzi du? Zer gertatzen da?* adierarekin: *Bai... eta zer?* (Apaolaza); *Badaukat behar nuena. Eta zer?* (Txillardegia); *Eta orain zer?* (Labaien).
- Datiboarekin: *Nahiz goiz nahiz berandu, niri zer?* (Azkue); *-Erorian dauka-zu gerrikoa. -Eta zuri zer?* (Anabitarte); *Zer neri, inork hau buruz asma ez baleza?* (Orixe); *-Noren aginduz jantzi duk hori? -Hiri zer?* (Orixe).
- *Beste-rekin: Zer bertze probetxurik etortzen zaigu?* (Leizarraga); *Zer bertzerik mundu honetan desira genezake?* (Leizarraga); [...] *baina zer besterik*

- egin nezakeen (J. A. Arrieta); *Zer beste asmo izango du...?* (Urkixo); *Nik dakita zer besterik* (Txillardegi).
- Zein eta zer pareko direnean: *Ezen ez dakizue zer orduz zuen Jauna etortzeko den* (Leizarraga. Beste itzulpen batzuetan: *zer orduz, zer ordutan, zoin orenez, zein orduz eta abar*); *Baina non edo gorputzaren zer lekutan gantzutu behar ote da eria?* (Agirre Asteasukoa); *Ez dut esanen zer herritan, orain Gerrieder izengoitia duen etxe batek...* (Orixe); *Ezin pentsatu zuten zer al zitekeen kausa* (Lazarraga); *Aski zaigu jakitea zer tokitan den* (J. Etxepare); *Zer ordutan etorriko da erloju bila?* (Izeta).
  - Partizipio aurretik, etorkizuneko atzizkiarekin: *Jo batera eta jo bestera dabilta bazterrik bazter [...], txosnarik txosna, gauza guztiei begira, non jarriko, zer jango, zer erosiko* (Agirre); *Atzetik zer etorriko beldur direla* (Orixe); *Zain daude atea noiz irekiko, atean zer ikusiko* (Mitxelena).
  - Erlatibozkoetan, aurrekaria gauzatu gabea dela. Aditz jokatugabeekin: *Ez du zer egin; Bada zerekin ordaindu; Nik horretan ez daukat zer galdurik; Ez daukagu zerekin estalirik; Bada zer pentsatu; Edirenen dutela zertaz kontenta* (Leizarraga); *Ez dutela izango hemen zer ikasirik* (J. J. Mogel); *Ez da zertaz harri* (Duvoisin); *Zuk bakarrik daukazula zer galdua uste al duzu?* (Agirre); *Nik badut zer kontatua horretaz* (K. Izagirre); *Bada, beraz, etorkizunari begira zer hausnartua eta zer aldatua* (Zuazo). Eta aditz jokatuekin: *Honezaz zer segurik eskriba diezaiadan jaunari ez dut* (Leizarraga); *Eta ez baitzuten zer jan lezaten, dei zitzan beregana Jesusek bere dizipuluak* (Leizarraga. Duvoisinek, pasarte horretan: *zer jan*); *Ezen ordu hartan berean emanen zaizue zer mintza zaitzeketen* (Leizarraga. Duvoisin: *emanen zaizue zer erran*).
  - Ezezko perpausetan, absolutiboan: *Ez dugu beraz hetaz zer banagloriatu* (Axular); *Ez da zer fida ez zeru izartsuan, ez emazte nigartsuan* (Oihenart); *Ez da zuk zer erantzun, ikusten dugun gauza da* (Mendiburu); *Baina ez da zer ikaratu!* (Iztueta); *Oinazeak, asturugaitzak ematen badizkit, ez dut zer kexatu* (Duvoisin); *Orain Margotek pairatu behar du, edo, hobeto esateko, ez du zer pairaturik* (J. Zabaleta); *Inork aukera behar bezala eta zuzenik egin*



- badu [...], ez du zer egin berriro aukera* (P. Altuna); *Ez du zer kezkatu-rik egiazkoa izateaz* (Juan Garzia).
- *Harriduretan: Ai! Zer gaua! Zer gaua hura!* (J. Zabaleta); *Zer ez ote dudan nik Gotaineko etxe hartan ikasi!* (Txillardegi); *Baheki zer astokeriak erraiten dituzten* (Dirassar); *Begira zer nolako antzara lerdena* (Lertxundi); *Baina zer arraio, Mikel!* (U. Iturriaga); *Zer aideko eta zer aidekondo! Itxura badaukak, zer demontre!* (Jimenez).
  - *Zerbait-en parekoa, izenordaina: Badut zer edo zer esku artean* (O. Arana); *Euren helburua edozein dela, zer edo zer egin beharra daukagula uste dut* (Landa); *Bortxazko lan hark, batzuetan, zer edo zer irensteko ahala eskaintzen zion* (Bidegain); *Ezin zen igarri lasai zegoen ala izugarri urduri, zer edo zertan pentsatzen ari zen ala isileko poliziek epaileen aurrean ematen zituzten azalpenak entzuten* (Morales); *Zalapartak entzuten dira tanpez, eroriko baldar eta urrunen antzekoak, zer edo zerk lur joko balu bezala* (K. Izagirre); *[Txantxangorria] hasten da txioka, salto alde batera eta salto beste aldera, txioka eta txioka, makilatxo bat zirudien zer edo zertxo baten aldamenean...* (P. Zabala).
  - *Izenondo mugatuaren ezkerrean: Ea zer edo zer bitxia sumatu zuen egun hartako bazkarian* (Zaldua); *Besteak bezalakoa zen gutun hura, baina bazuen zer edo zer berria, edo, nola esango nuke, biziberritua* (X. Mendiguren Elizegi); *Zer edo zer inportantea esan behar zidan* (Rey).
  - *Badaezpada adierazi nahi duela: Eta orduan gauza asko erakutsi behar zaizkio, zer gerta ere; gauzak nola diren eta zergatik* (Seguroola); *Betidanik, zer gerta ere, lau intxaur eskura nahiago, urrutiko hamalauak baino* (Epal-tza); *Zer gerta ere giltzatua beharko zukeen polizi pistola bat zeraman eskuetan* (Borda); *Urratsak labur eta zuhur beraz, zer gerta ere* (Aintziart).
  - *Partitiboarekin: zeozer onik, [...] zeozer txarrik [...]* (F. Bilbao).
  - *Zer-nola, galde perpausetan, nola adierazi nahi duela: Aita isileko arrantzan edo ehizan aritutakoa zen inoiz, eta Charliek bazekien zer-nola moldatu* (Larrañaga); *Hasitako gertakizuna zer-nola amaituko itxaron gabe, beren bi-*

- deari jarraitu zioten (Ezkiaga); Zuk, apeza izanez, badakikezu zer nola egin egunero, fededun eta ere sinesgabeen erdian izanez eta ibiliz (Aintziart).*
- *Zer-nolako (zernolako) izenlaguna, nolakoa esan nahi duela: Zer nolako zintzotasuna! (Jon Muñoz); Ez dakizu zer-nolako gozatuak ematen dizkiguzun! (Olarra); Ez zuten asmatu zer nolako gaitza zen, ez ziren, beraz, emakumea sendatzeko gauza izan (Juaristi); Esplikatu nion Ximuni zer-nolako momentu goxoak pasatzen genituen han, haurrak ginelarik (Landart); Hori guztia finantzatzeko zer-nolako bideak erabili behar diren (Pérez Iglesias, Salaburu); A zer-nolako hipotesia, Virgilio: heriotza kendu (Igerabide). Zer-nolako predikatu gisa: Zer nolakoa izan da esperientzia? (Urkiza); Hitzegin zuten gero Jacky Vicedos Oihantzainak eta Pierre Salaberry Oihantzainburuak azaltzeko zernolakoa den xedea (Herria); Batere axola ez digun pertsona bat zer-nolakoa den adierazteko pare bat hitz aski eta gehiegi izan daitezke (Segurola). Zer-nolako izen gisa: Orain arte ez dut inoren eskubiderik ukitu, ezta inorengandik eskupekorik jaso ere, baina zer-nolako honi ez diot antzik ematen (Ezkiaga); Ondoretasunaren kimikaren zer-nolakoa zehaztea, zelularen funtzio oinarrikoak aztertzea (Juan Garzia).*
- *Zer(en)gatik esan nahi duela, Iparraldean: Ez da zeren deus handirik erra holakoei (Hiribarren); Ez da zeren egin errenkurarik Mariaz (Larregi); Ez da zeren dudatu (Duvoisin).*
- *Eskerrik asko-ren erantzunean: Ez da zeri; Ez da zeren; –Bego gure gain, eta milesker! –Ez da zeren! (Larzabal); –Eskerrik asko, eta agur! –Ez da zeri. Agur, agur (M. Lekuona).*

### 13.10.6. Galdetzaileen gainean beste ohar batzuk

**13.10.6a** Galdetzaileak singularrez nahiz pluralez eman ditzakegu: *Zein da hori?; Zein dira horiek?; Zer da hori?; Zer dira horiek?* Badakigu, bestetik, *-tzuk* atzizki kolektiboa batez ere *bat* zenbatzaileari erantsirik ageri zaigula: *batzuk*. Baina zenbait euskalkitan bere alorra hedatu egin du eta, horrela, *nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk, zerbait/zerbaitzuk, zenbat/zenbatzuk* aurka-

kotasuna ezagutzen dute eta bata singularraz galdetzeko erabiliko dute eta beste plurala den zerbaitez: *Zertzuk esan zizkioten gizajoari!*; *Nortzuek egingo dute lan hori?*; *Errespetatu beharreko mugak zeintzuk eta zertzuk ziren?* (Urkiza); *Imajinatu, gau argi eta epela suertatuz gero zertzuk egin* (Arretxe). Batzuetan, hala ere, *-tzuk* plural markatzailea, *zein* eta *zer* determinatzaileak direnean, ondoko izenak hartzen du: *Ze bidetzuk hartu zeure asmo galdurako?* (Mogel); *Zer gauzatzu ikusi dituk hirian?* (Otxolua).

Jakina, bereizkuntza hori egiten ez dutenentzat, *zer*, *nor*, *zein* eta abar ez dira ez singular ez plural: [...] *eta zeinek odolaren osagairik meheenarekin bat egiten duten* (Irigoien); *Tabernan oihuka esaten zuen bazekiela zeinek jo zuten* (Igerabide); [...] *zeinek bere izena zuten: Hipokrates, Teodoro Zirenekoa [...]* (Jon Muñoz). Hala ere, hiztunak pluraltzat har ditzake izenordain hauek, horrek aditz komunztaduraren aldetik dakartzan ondorioekin. Hortaz, *zein aukeratu dituzu?*, eta, batez ere, *zer* determinatzailea denean: *zer liburu irakurri dituzu?* Nahiz *zer liburutzu irakurri dituzu?* Idazleen artean: *Zer argumentu erabiliko ditu aitak [...]*? (Lertxundi); *Zer onura ekarri ditu?* (Elberdin). Batzuetan plural marka sintagma osoak hartzen du: *Zer emaitzak eman ditu politika honek?* (Salaburu); *Zer ixtorioak ez ditu asmatzen haur baten irudimenak gutiagorekin?* (Ornoz).

Ikus Euskaltzaindiaren 11. araua: “Nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk”, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua.

**13.10.6b** Batzuetan, guti gorabeherakotasuna adierazteko *-tsu* eransten zaio galdetzaileari (*zertsu da?* adberbioetan eta, *nontsu* esaten dugun modu berean): *Postura egingo nuke zakurrak zertsu ari nintzaion ulertu duela* (Txillardeggi); *Legezko zikaneria guztiak oro bazterrerat utzirik, hoina zertsu erran duen* (Hiriart-Urruti).

**13.10.6c** Aipatu berri ditugun bi galdetzaile horiez gainera, jakina, badira beste galdetzaile batzuk ere, baina horiek berez ez dira izenordainak, determinatzaileak baizik. *Zein*-en kasua aipatua dugu. *Zenbat* ere horietakoa

izango litzateke eta baita *zer* bera ere. Baina hauen *izenordaintasuna* nolabait erakarria edo dugu: izen sintagmaren buru den izena ezabatua delako. Alegia, honako perpaus hauek: *Zein aukeratu duzu, gorria ala berdea?*; *Zenbatek galdetu dizute?* Beste hauen laburpen direla pentsa genezake: *Zein soineko aukeratu duzu, gorria ala berdea?*; *Zenbat pertsonak galdetu dizute?*

### **13.10.7. Galdetzaileetatik eratorritako izenordainak**

Galdetzaileak (*nor, zein...*) oinarri harturik, euskaraz beste izenordain zehaztugabe batzuk (*edonor, edozein...*) sortzen ditu. Horietako asko izenordain nahiz determinatzaile izan daitezke eta, berehala ikusiko dugun gisan, kasuistika handia dago haien artean, ez bakarrik kopuruari dagokionez, baizik erakusten duten erabileragatik ere.

#### **13.10.7.1. *Norbait, zerbait***

**13.10.7.1a** Galdetzaileetatik eratorritako izenordainak dira *norbait* eta *zerbait*.

*Norbait* beti izenordain dugu, izenordain mugagabe, erreferentzia zehatzik ez baitu. Eta *nor* bezala, *norbait* ere pertsonentzat erabiltzen da: *Norbait sartu da gelan*; *Norbaiti eskatu behar zenioke laguntza*.

*Norbait*-en erabilera nagusiak hauek dira:

- *Norbait* izan esapidea, *nor* izan-en tankerara erabiltzen dugu: *Bada norbait gizon hori*; *Euskal Herri honetan norbait garenak*; *Ailegatu eta berehala norbait nintzen gotorleku setiatuan* (Epaltza).
- Batzuetan, pluraleko lehenbiziko pertsona gisa ere erabili izan da: *Sendiak ez osorik irautea betikoa da*; *norbaitek hil beharko dugu eta orduantxe puskatuko da* (J. A. Irazusta).

- *Beste* duela aurretik: *Beste norbaitek oihu eta oihu eginagatik* (Mendiburu); *Beste norbaiten zintzotasuna* (Inza); *Beti izango da beste norbait bera baino trebeago* (Mihura).
- *Ere*-rekin batera: *Norbaitek ere egin dit malizia handia*<sup>11</sup> (Etxepare); *Esan zion norbaitek ere ea zertako zebilen txorakeria haietan* (Goñi).
- Aurretik *-tik* edo *-rik* marka duen izen sintagma duela: *Halako jendetarik norbaitek pizten dizkion...* (Duhalde); *Eri edo gaixo aurkitzen da zuetatik norbait?* (Agirre Asteasukoa).
- Aurretik *-ko* marka duen izen sintagma duela: *Zeruko norbait* (Hiribarren); *Lurdesen nahi eta nahiez beste munduko norbait azaldu dela* (Goñi); *Enauteneko otto Nane edo auzoko norbait* (Larre).
- Ezezko perpausetan: *Zeren norbaitek ez badauka bere etxetiarrez [...] arta eta kontu* (Pouvreau); *Orain ere deusik ez ninteke, norbaitek ez banindu egin* (Duhalde); *Zerk ibilarazten du izadia aurrerantz, han ez baldin bada Norbait?* (Villasante).
- Erakusleekin: *Norbait hura erregeren odoleko andre bat zen* (Laphitz); *Banekien norbait hilen zela, norbait horrek hura hiltzen ez bazuen lehenago* (Larzabal); *Norbait hau zu baino boteretsuago edota ahulago izan daiteke* (Unzurrunzaga).
- Adjektiboekin, mugagabeen: *Norbait handirekin* (Lafitte); *Haiengandik ikasi nuen, ahaleginean, Zu norbait handi zinela sumatzen* (Orixe).
- *Nor edo nor*. Ikus aitzinago (§ 13.10.7.2).

**13.10.7.1b** *Zerbait* ere gehienetan izenordain gisa ageri zaigu, baina pertsona ez direnentzat: *Zerbait gustatzen zait* (-perts.); *Norbait gustatzen zait* (+perts.). Batzuetan pertsonari dagokion predikatuaren erreferentzia duela ere erabiltzen dugu: *Lur baizen ez garela / kanpotik iduri arren / zerbait bertze garela* (Tartas); *Ezkongaietan zerbait banintzen / ezkondu eta ezer ez* (Iparragirre); *Zerbait*

<sup>11</sup> *Norkbait* jatorrizkoan.

*bazelakoan / ta azkenean hutsa / horrek ez dik balio / zakurraren putza* (Txirrita); *Jakina! Gaur hamazazpi urte, ni ere zerbait banintzen* (Etxaniz).

Anitz aldaera izan ditu tradizio idatzian, formari dagokionez: *zerbeit*, *zerbaitz*, *zerbaita*, *zerpeit*. Iparraldean *zerbaitetan*, *zerbaitetara*, *zerbaitetarik* ageri dira. Hegoaldean, berriz, *zerbaitetan* eta *zerbaitetara* horiekin batera *zerbaitean*, *zerbaitera*, *zerbaitetik*, *zerbaiten*, *zerbaiteren*, *zerbaitetz* (gehien erabilia Ipar nahiz Hegoaldean) eta *zerbaitetaz*. Gaur egun nahiko galdua den moldea ere erabili izan da tradizioan: *bait*-ek hartu beharrean, *zer*-ek hartzen dituela postposizioak. Holako hauetan bezala: *zertanbait*, *zertazbait* eta abar. *Makilkada ederrak ematen zizkiela zertanbait huts egiten zutenean?* (Orixe); *Ez da ongi soineko harroarekin [...] elizara etortzea [...]. Zergatik bait agindu zuen elizak ez dakiela sakramenturik eman honelako* (Agirre Asteasukoa); *Zertanbait minkiro zesaion Titirori Melibeok* (J. M. Tolosa, *Euskal Esnalea*).

Adjektibo eta adberbioekin ‘pixka bat, apur bat’ esan nahi duela erabiltzen da, eta, ondoko adibideek erakusten dutenez ere, adjektibo batez lagunduta doanean, adjektiboa mugatua nahiz mugagabea ager daiteke: *Zerbait hobeto ezagutzeko* (Kardaberaz); *Zerbait epelak eta nagiak Jaungoikoaren zerbitzuan* (Mogel); *Europa dioenak zerbait gehiago dio, nahi eta ez* (Mitxelena); *Pitin bat bizitxo*, *zerbait barekorra...* (Agirre); *Sasoi honetan zerbait goizago jaiki liteke bai* (Soroa); *Beste aldean, zerbait atzeratxoago, mahai txiki bat* (Etxaniz); *Zuhur nenbilen, zerbait berezi esan nahi zidala sumatzen nuen* (Atxaga).

Aditz batekin, ‘neurri batean’ adierazi nahi duela: *Ezen, baldin are gehiago zerbait loriatu nahi banaiz gure puisantzaz, ez naiz ahalketuren* (Leizarraga); *Galdu dut zerbait neure pazientzia* (Mogel); *Ona da haurrak, zerbait gogortuak edo haziak direnean ekartzea* Elizara (Agirre Asteasukoa); *Arintzen ziren zerbait haren neke eta nahigabe handiak* (Mendiburu); *Ikasia zuen honek, zerbait bederen, klarineta jotzen* (Larre).

Garrantzi handikotzat hartu, kontuan izatekoa: *Gure tokietan ere, teilerietan egiten dituzte labe batzuk zerbait iduri dutenak* (Duvoisin); *Orduko tratuetan*

*zerbait zen gero zazpi mila liberakoa* (Oxobi); *Hau zerbait zen* (Oskillaso); *Orduan izan ginen haurrentzat bederen zerbait bazen* Bestaberri (Larre).

Aditz jakin batzuen laguntzan. *Izan* aditza 3. perts. sing. eta perpaus menderatuarekin: *Noizbait iraungitzen balira berretzen nauten suak, zerbait liteke, kontsola nintzeke* (Mihura); *Hainbertze eta hain ondorio minezko egitekoei buru eginez, irautea bera zerbait duzu* (Hiriart-Urruti); *Haren haztea bera bada zerbait. Bazenekin zein huts egin errazak diren eta minberak* (J. Etxepare); *Erran gabe doa Azkaineko sasi-mirikuak ez zekizkiela landare horien izen ez frantses ez latinak: zerbait da euskarazkoen jakitea bera* (Zerbitzari). Jakin, ikusi, kostatza... aditzekin: *Zerk izutzen gaitu? Duda-gabe zerbait kostatza behar da bizitzaz aldatzeko* (Duhalde); *Bertsotan zerbait jakina zen Etxetako Joxe Mari* (Tx. Garmendia); *Ordu arte, zerbait ikusirik bazuen Frantsesek [...] baina zer ziren [...] horko itsuskerien ondoan?* (Narbaitz); *Gain haietan egunak luze eta bortitz dituk gero...* *Zerbait dakiena mintzo zaik* (Larzabal); *Ipar Ameriketako zinemaz zerbait dakitenek...* (Mitxelena).

Erakusleekin ere erabiltzen da. Tradizioan ikusten ahal dira adibideak: *Ezin derrakete zerbait hura zer den* (Haraneder); *Zerbait horri, nahi dutenek, Arima esan diezaiokete* (Mirande); *Orduan bera presentatu zen latineko zerbaitera, eta latineko zerbait hori Salamankan zegoen* (Mitxelena).

Ezekako perpausetan: *Erakarri egiten ninduen aurpegiaren ikuskariak, ordu arte ikusi ez nuen zerbait nabaritu niolako* (Saizarbitoria); *Holako zerbait ez ote didazu jadanik ere errana?* (Dirassar).

*Zer edo zer.* Ikus beherago (§ 13.10.7.2).

Izen bati dagokiola, ezkerrean nahiz eskuinean: *Bestetik, bidean zerbait erre-medio ematen dizkio lagunak Tobiasi...* (J. A. Mujika); *Baina nehor ez hilik ere, oro kutsatuak, orok zerbait min eta kalte* (X. Arbelbide); *Laguntza zerbait nahi bazenu edo...* (Landart); *Nahi nuen beste min zerbait ahantzi* (Aintziart); *Zerbait obra egitera* (Etxepare, Hitzaurrea); *Atsekabe handi zerbait* (Joanategi); *Zerbait gauza* (Joanategi); *Koleraren iraungitzeko on da zerbait lani*



*lotzea* (Axular); *Zerbait berri txar ote zuen?* (Laphitz); *Zerbait berri baldin bada gaztigatuko dizuet* (Izeta); *Halarik ere, bazen nitaz zerbait fama hedaturik, eta gerla ondoan...* (Xalbador).

**13.10.7.1c** *Zerbait* eta *norbait*, izenordain izanik ere, adjektibo baten laguntzan ager daitezke eta horrelakoetan izen sintagma eta guzti erabili ohi dugu. Alegia: *Zerbait ona aurkitu du = Ona den zerbait aurkitu du*; *Norbait jakintsua behar dugu = Jakintsua den norbait*. Lekukotasun anitz badira: *Halaz guztiz, guretzat zerbait ikusgarria badu* (J. A. Irazusta); *Zerbait behar dut, ikusten ez den zerbait eder eta jaso* (Gandiaga); *Eguneroko hizkuntza zerbait bizia da* (Mitxelena). Ikusten denez, adjektibo mugatua izan dezake eskuinean: *Gizon edo emakume batek zerbait berezia sentitzen duenean...* (Aristi); *Atzoko izumenaren ondoren, zerbait ona, azkenik* (J. Zabaleta). Edo adjektibo mugagabea (hau da gehien erabiltzen dena: holakoetan, OEHren arabera, gehienetan mugagabea edo partizipioa ageri da): *Zuhur nenbilen, zerbait berezi esan nahi zidala sumatzen nuen* (Atxaga); *Zerbait berok on egingo dizu* (Borda); *Zerbait txar gertatu bide da* (Bidegain); *Nahi du kanpora zerbait handi iruditu* (Pouvreau). Batzuetan adjektiboa aurretik ere: *Iduritu zitzaidan garbiki, xuri-xuri zerbait, tximista bezala heldu zitzaidala gainera* (Barbier).

### 13.10.7.2. *Nor edo nor, zer edo zer*

**13.10.7.2a** *Nor edo nor* eta *zer edo zer* ere galdetzailleetatik eratorriak dira. Horietan ere (+perts.) / (-perts.) bereizketa baliagarri gertatzen da, neurri batean bederen. *Nor edo nor* horrek *norbait* adierazi nahi du: *Beti bada nor edo nor irakurtzen duena; Ate joka sumatu genuen nor edo nor*.

**13.10.7.2b** Horien zentzukidea dugu, bestalde, baten bat ere: *Baten batek lagunduko digu = Norbaitek lagunduko digu*. Arrunta da tradizioan, batez ere Hegoaldeko testuetan: *Gure adineko eta gazteagoen artean baten bati suertatu zaionez sarri aski* (Mitxelena); *Burugabekeria hori ere entzun behar al genuen? Esan lezake baten batek* (Munita). Eta baita bat edo bat ere, hau ere



Hegoaldean erabiltzen dena (oso adibide gutxi Iparraldean): *Bat edo baten irudimen hegalaria, aldietan hegan eginez* (Orixe); *Bat edo batek pentsatzen badu...* (Txirrita)<sup>12</sup>.

Horrelakoetan, *baten bat* edo *bat edo bat...*, inongo izenik gabe agertzen zaizkigunez, izenordain gisa agertzen dira perpausean, baina *bat* zenbatzaitetik erakarriak ditugunez, determinatzaile zeregina ere bete dezakete izen sintagmaren barnean: *Ekar iezadazu liburu baten bat*. Honen ordeztan agian usuago ikusiko badugu ere *libururen bat*. *-en bat* izen sintagma mugagabeari erantsirik erabiltzen dugu: *Zer ote da zarata hori? —Saguren bat izango da; Nola joango gara Baionara? —Aurkituko dugu autoreen bat*.

**13.10.7.2c** Dena dela, mugagabetasuna markatzeko modu bat ematen digute itzuli horiek. Adibidez *ume bat* esaten badut, ziur dakit *umea* izan dela ateko txirrina jo duena, adibidez; baina *umeren bat* esaten badut, gauza ez dago hain garbi: nik *ume bat* izan dela uste izan nezake, baina beharbada beste norbait izan da. Dena den, partitibo mota bat dela dirudi. Eta askotan ustezko perpausetan erabiltzen da. Zenbatzaileekin ere gauza bera gertatzen da: *Bost(en) bat urte zituen, aita hil zitzaionean; Hogei(ren) bat neska izango ziren inguratu zitzaizkionak*.

### 13.10.7.3. *Edonor, edozein, nornahi, zeinahi*

**13.10.7.3a** Hurrengo sailean *edonor* eta *nornahi* sartzen ditugu. Hauek ere (+pertsona) ezaugarria dute. Bestalde, askoren artean aukera uzten denean erabiltzen dira (*edo* eta *nahi* ere aukera adierazten dutenak baitira): *Edonor joan daiteke Donostiara = Nornahi joan daiteke Donostiara*. Perpaus hau esaten duenak, esan nahi du berdin zaiola nor joango den Donostiara, bata nahiz bestea, nahiz denak.

<sup>12</sup> Gutxiago erabiltzen da *bat edonoren bat*: *Bat edonoren batek esango zion*. Tradizio urrikoa da. Badira *bat edon bat, bateon bat...* bezalakoak, baina zail da jakitea horren oinarria *bat edonoren bat* den.

*Edonor*-ek aldaera bat baino gehiago erakutsi du tradizioan: *eronor* eta *edonok* (*edonork*) ageri dira. Batez ere xx. mendean hedatu ziren. *Edonor*-en parekoa da *edozein*.

**13.10.7.3b** *Edozein*, euskalki guztietan —salbu zubereraz— erabili izan da. Izenordain gisa batzuetan: *Judas ez beste edozeinen bihotza bigunduko zuten* (Lardizabal); *Oraintxe bertan jokatu nioke Olaetako jantziurdindun edozeini* (M. Lekuona); *Ene alaba ez duzu gero edozeinetarik* (Larzabal). Edo izenkiaren ondoan, determinatzaile gisa, aurretik nahiz atzetik: *Zuhaitza, edozein mota dela, beti da apaina* (Munita); *Edozein herritan* (Larre); *Edozein hizkuntzaren dialektuak bezala* (Mitxelena); *Nahi zuen mendi edozeinek Potosi bezala izan* (Larramendi); *Presondegi edozein presondegi da* (Mendiburu); *Ezartzu laborari edozein, apezaren jaunzturaz apaindurik* (J. Etxepare); *Urri-nari gizonki edozein jarria zaioke zortzi egunik barne* (J. Etxepare).

**13.10.7.3c** *Nornahi* euskalki guztietan erabili izan da. Kasu marka eta postposizioak hartzean bi aldaera erakusten ditu tradizioan: *nornahik* / *nork nahi*; *nornahiri* / *nori nahi*; *nornahirekin* / *norekin nahi* eta abar. Bigarren aldaera da zaharrena, hau da, lehenbiziko atalean marka jartzen duena. Hola ageri da egun *nonahi* forman, edo *nondik nahi* edo *nondinahi* (*nonahitik* ere, jakina, eta *nondinahitik*), esate baterako: *Fite du garaitzen / noren nahi konbata* (Harizmendi); *Gorputz duzula galant nornahik badaki* (Gamiz); *Nork nahi daki Jesukristok dirauela hostia kontsagratuan* (Mogel).

Ingurune jakin batzuetan ageri da:

- *Hori ez da nornahi bezalakoetan, esaterako. Ez pentsatu hori nornahi denik* (Elexpuru); *Horretarik egin zuen gizon hori ez zela nornahi* (J. Etxepare).
- Erlatibozko perpausen ondotik: *Gelan dagoen nornahik ikusiko du* (Mirande).
- Subjuntibozko perpausekin: *Nornahi etor dadi, ez ireki atea* (Duvoisin); *Jende agrados, laino eta maitagarria beti zuretzat, nornahi izan dadin* (Larre).
- Izen baten eskuinean edo ezkerrean: *Aita Sainduak berak larderiatzan ahal duela laiko nornahi* (Xarriton); *Azken batean, nornahi emakume delarik ere, hemendik at dago* (Larrañaga).

– *Nornahi + ere* (+ *dela* edo kideko adizkiren bat tartekaturik, edo horren ezkerrean): *Kalte gaitzak beraz, elkartasun mugimendu handi bat sustatu duten kalteak egia erran, halakoetan nornahik ere bere bihotz aiseagoa erakusten baitu (Herria); Beraz, Ministro jeneralak, nornahi dela ere, ni neu bezalaxe maita eta benera dezala nahi dut (Navarro); Nornahi eta nonahi zela ere, kontent egoten ahal zen bere arrakastaz (Epaltza); Segur bainaiz bakoitzaren esperientzia pertsonala, nornahi ere den hau, ezin dela beste-rengana hedatu (Salaburu).*

Ikusi Euskaltzaindiaren 10. araua: “Nornahi, nonahi, non-nahi”, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua.

**13.10.7.3d** *Zeinahi* dokumentatuago ekialdean. Eta R. M. Azkuek ere erabiltzen du: *Puntu horietarik zeintzan nahi erreflexione seriozik egitea aski dugu (Alf. Rodriguez); Alde batean ehun milioi gizonen buru den Mac-Kinley eta bestean berrehun bat Leaburuarren agintari Juan Joxe, zeinahi hautatzeko (Azkue).*

#### 13.10.7.4. *Edozer, zernahi*

**13.10.7.4a** *Edozer* eta *zernahi*, berriz, izenordain gisa nahiz determinatzaile gisa erabiltzen ahal ditugu, betiere ezaugarritzat (-pertsona) tasuna dutelarik: *Orain edozer (gauza) jango nuke; Batzuk, edandakoan, zernahi (astakeria) esaten dizute.*

Bigarrenak, *zernahi*-k alegia, tradizio luzea du eta ongi dokumentatua da Iparraldean, XVII. mendearen erdi aldetik.

**13.10.7.4b** Bakarrik ageri da: *Egoera ikaragarri hau baino bertze zernahi hobe dela (Oronoz); Zernahi gertatzen ahal da baketzera etorri omen zaretan lurralde dorpe honetan (Montoia).*

**13.10.7.4c** Izen baten edo aditz baten ezkerrean (orduan ‘edozer gauza’ adierazi nahi du): *Opor sainduetan gaudelako, eta opor sainduetan, itxuraz,*

*zernahi diru xahutzea libro delako* (Epaltza); *Zeren eta ene desohoreak, ni hain ezaguna naizen aldetik, eskandalua ekar liezaioke zernahi jenderi* (Xarriton); *Nornahik zernahi obra zezakeen lurralde* (Borda); *Erotu ginen biak orduan, eta zernahi erran genion zaintzaileari* (Bidart).

**13.10.7.4d** ‘Asko, izugarri’ adierazi nahi du batzuetan: *Zernahi sufrituz desmozkortzen ari nintzen bitartean...* (Landart); *Palestinago jendeak zernahi jasaten duela salatzeagatik...* (Herria); *Zernahi dela, gain haietan euskaldunak aipatzen gaituzten ber, oraino bizi garelako seinale da* (Xarriton).

**13.10.7.4e** “... dela” esamoldeak lagundurik ‘dena dela’ esan nahi duela: *Zernahi dela ere, handik gutxira, nigandik aldaratzera behartzen zuen afera batez oroitze irudi bat egin zuen* (Jon Muñoz); *Garbi ikusten da, bada, zernahi dela ere* (Aldasoro); *Zernahi gisaz, inon izatekotan, goiko jangela txiki horietan izan behar zuten biltokia* (Epaltza); *Goxoa bezain samina, baina zernahi gisaz ezin ahantzia* (Dirassar).

**13.10.7.4f** Batzuetan instrumentalean hartzen du osagarria: *Eramaten bazuen Apanizera, diruz zernahi emanen ziola* (Barbier); *Eta bazen eri eta kolpatuz zernahi bai etxeetan bai karriketetan* (Narbaitz). *Badira zernahi pairatu, jasan, sufritu bezalakoak ere: Etsai batenganik zernahi sofritu nukeen; baina adiskideetarik...* (Etxeberri Sarakoa).

**13.10.7.4g** Eta ‘gaizki pasatzea’ hola adieraz daiteke: *Artzainek artaldeak nahastera utzi zituztela: zernahi ikusi zutela zein zeinena ezin bereiziz* (J. Etxepare); *Hantxet zortzi egunez eritua egon ere zen, medikuak zernahi ikusi baitzuen hura ezin sendatuz* (Barbier).

**13.10.7.4h** Kontzesiozko perpausetan (ikus 39. kapitulua): *Esperantzarekin zernahi eskasia, huts, eta falta ene aldetik izan dadin, haiek guztiak hauen karitate handiak estaliko dituela* (Etxeberri Sarakoa); *Gauzak [...] eta direlako gauzen irudi-gogoetak dira adierazle horiek gogorazten dizkigutenak: zernahi diren, oroimen-irudimenetan ditugu* (Mixelena).

Kontzesiboak *ere*-rekin ere arruntak dira, eta *arren*-ekin: *Hitza eman diot, eni zernahi kostarik ere, Benjamin etxerat itzuliko dela* (Zerbitzari); *Zernahi ere*

*dela, abokatu batek erranen lizuke hatsapen hori ez dagokiola auziari* (Jon Muñoz); *Zernahi ere zen, zalapartaka jatetxe barrura oldartu zenean...* (O. Arana); *Marianak zernahi derran arren, mintzo delarikan euskaldunaz gisa honetan* (Etxeberri Sarakoa).

### 13.10.7.5. *Nor (ere), zer (ere)*

**13.10.7.5a** *Nor (ere), zer (ere)* erabiltzen dira ekialdeko euskalkietan: *Nork ere utziko baitu enegatik [...] aitarik edo amarik errezeituko du [...] ehun gehiago* (itzultzen du Axularrek). *Horrek enegatik aita edo ama uzten duenak adierazi nahi du. Gauza bera zer ere-rekin: Zer ere esan zuen, nik ez nion sinetsi.*

Aurrekaririk gabeko erlatiboazko perpausetan aurkitzen dugu *nor ere*: *Nork ere salbatuko baitu, hari ez zaio barkatua izanen* (Lafitte); *Nork ere bere burua puntu honetarik idoki nahi bailuke, hark kristinoen konpainia renuntziazten luke* (Leizarraga); *Nori ere gogoratu baitzaio euskararen alderako atxikimendu seinale hori [...] eskerrak hari!* (J. Etxepare); *Mundakara norekin ere etorri zen, Lucia Reginak kontaturiko hori...* (Jimenez).

Batzuetan aurrekariarekin ere: *Beste ardiak, erlijiosoari eman zizkion, nork ere, ziren guztiak apurtu eta putzura bota zituen* (G. Arrue).

Beste zenbaitetan *bait*-ekin: *Nor ere baita, ez da sartuko* (Duvoisin). Horrek ‘berdin da nor den, ez da sartuko’ esan nahi du. Tankera berekoak: *Milesker, arima onak, nor ere baitzarete* (Barbier); *Zuek altaratzten zaituztenak ekarriko du horren pena, nor ere baita hura* (Haraneder); *Kuku zaharra hola galdu nuen, nor ere baitzen!* (Dirassar).

**13.10.7.5b** *Zer ere*. Tradizioan Iparraldeko testuetan ageri da hau ere. Arruntean *bait*- aurrizkia eskatzen du laguntzaileak, baina batzuetan, gutxitan, *-n* hartzen du.

Izen batekin, *hura, oro, hala...* eskatzen duela korrelazioan: *Ezen zer ere ereinen baitu gizonak, hura bilduren ere du* (Leizarraga); *Eta zer ere manatu baituzu, hura egin da* (Pouvreau); *Ezen zer ere ereiten baitu gizonak bizian,*

*hura bera bilduko du herioan* (Gazteluzar). Gaurko idazleek ere erabiltzen dute: *Gizonak zer ere ereiten baitu, hura biltzen ere du* (Olano); *Zer ere esango zuen, hura ondo mamurtu behar zuela begitandu zitzaidan* (Jimenez); *Baina nola deus nere ez denak zer ere nahi lukeen, hala betetzen nuen neure ezdeustasuna [...] amets handi haiekin* (Irigoien).

*Eta juntagailua eta erakuslearekin: Zer ere erranen baitu gizonak, eta hura bilduko du* (Jauretze); *Bi begiez behatu diozue orok itsasoari, baina ez da zuetarik bat, ohartu denik zer ere baitzuen espantagarrienik eta hari* (J. Etxepare).

Agerian ez den erakusle, adberbio... anaforikoekin: *Eta zer ere galdeginen baituzue orazionean sinesten duzuela, errezeituren duzue* (Leizarraga); *Zer ere erran baitiezazu, egizue* (Leizarraga. Duvoisinek parekoan: ... *hura egizue*); *Zer ere emanen baitu, luzatzen badu, ez du irekitzen* (Tartas).

Bestelako perpausekin: *Badakigu ezen hark entzuten gaituela, zer ere eska bagaitz* (Leizarraga); *Zeren ere bila baitzabiltza [...] sekulan ez duzu Jainkoaren borondatea hain seguratu aurkituko nola [...]* (Pouvreau); *Gogoan zer bazuen ere, han erran dituenak ez dira gaizki* (Hiriart-Urruti).

### 13.10.7.6. *Inor/nehor, ezer (deus, batere)*

**13.10.7.6a** *Inor/nehor, ezer (deus, batere)* eta holakoak ere izenordain muga-gabeak dira. Baina *zerbait* eta *norbait*-ek ez bezalako distribuzioa dute. Fun-tsean, izen sintagma absolutuaren eta partitiboaren artean dagokeen diferen-tzia bera dago *norbait* eta *inor*, eta *zerbait* eta *ezer*-en artean. Esan nahi baita, *inor* eta *ezer* partitiboa erabil daitekeen testuinguru beretan erabili ohi direla, hots, ezezkako perpausetan, *bailez* erako galderetan, baldintzazkoetan, ezezko balioa duten zenbait elementuren lagun doazenean (*gabe*-rekin, *nekez*-ekin eta abarrekin). Laburbilduz, ezeztapen balioa duen elementuren bat perpausuan agertzen denean: *Ezer ez dakigu*; *Inor ez zaigu etorri*; *Ezer jakiten duzunean esan iezadazu, mesedez*; *Erleak nehor autsikitzen duenean...* (Axular); *Ezer entzun duzu nitaz?*; *Inorekin mintzatu zara zeure gaixotasunaz?*; *Inork jakite-kotan, erretoreak jakingo du*; *Ezertan hasi baino lehen*; *Inork baino gehiago*

*dakit nik; Inori eman baino nahiago du erre; Ezer baldin badakizu, esan eza-zu eta abar.*

Tradizioari dagokionez, aldaera asko erakusten ditu: *inor, nehor, nihor, ehor, ihor, nihur, inhur, igor, nigor* eta abar. Euskalki eta garai guztietan erabilia izan da.

**13.10.7.6b** Ezezkoetan eta baiezkoetan erabiltzen da, baina esanahi desberdina du batzuetan eta besteetan: *Hola, ‘norbait’ esan nahi du baiezkoetan eta baldintzazkoekin: Inor ikusten baduzu... (‘Norbait ikusten baduzu’). Ezezko perpausetan ‘bat (ere), ‘baten bat (ere)’ edo holako zerbait: Inork ez dauka inor hiltzeko eskubiderik (Agirre, ‘batek ere ez dauka [beste] norbait hiltzeko eskubiderik’); Inork inor maite izan badu, maite dut nik Iriondo apaiza (Azkue, ‘baten batek norbait maite izan badu...’). Hona beste adibide batzuk: Nehork ez zuen nehoi nehoren izenik galdatzen (J. B. Etxepare); Inorena ez den euskara baturik ez nuke nahi (Mitxelena); Ez Azkuek ez inork ez ditu euskal hitzen aldaera guztiak sartu (Mitxelena).*

Serie baten amaieran: *Ez Aranak, ez Lojendiok, ez inork ez zuen harrapatzen ehiza hura (Orixe).*

Errepikatua, indarra emateko: *Gauean gaude, eta agian inork, inork ez ditu entzungo nire bertsoak (Jautarkol).*

Zerbait esleitzen zaion pertsona: *Hori ez da inor gu horrela mintzatzeko (Azkue); Ikastolara doazen ume guztiek ikasi beharko dute folio bat niri buruz, baina gero, kolean, ez zara inor (Montoia); Madrilgo merkatura ateratzen bazara letretako heroi bihurtzen zara komunikabideentzat, orduan zara norbait Galizia, bestela ez zara inor (Berria).*

Ezekotasuna ulertzen dela: *Nork nahi du hil? Nihork (Duvoisin); Harroka inguruak ikertu zituzten. Deus, nehor (J. B. Etxepare).*

Baiezko testuingurutan: *Bizi zara inoren gaitzaz, inori min emanez, inori odolala atereaz (Mogel); Txominek eta emazteak maite zuten, baina inoren etxean bizi zen (Etxeita); Inoren hizkuntza, gainera, geurea baino begi hotzagoz ikus*



*dezakegu* (Mitxelena). Batzuetan esanahi inbertsonala du: *Etxeak su duenean nihor urketan abiatzen da* (Duvoisin).

Sintagma baten laguntzan ageri da batzuetan, aurretik nahiz atzetik, partitiboan sarritan: *Nehor bada munduan hain justurik, non barkamendu eskatze hau egin behar ez duen?* (Leizarraga); *Maitagarriagorik inor ezin izan delako* (Inza); *Askatasun oso bat behar zuen, inor jakile gabe, inor so egile gabe* (Mirande); *Toki horretan ez zeukan inor ezagunik* (Agirre).

Perpaus baten laguntzan (partitibo markarekin batzuetan): *[Gaizki] egin duenik nihor zure eskuei ezin itzur daitekeela* (Etxeberri Ziburukoa); *Bai al da, noski, Gipuzkoa osoan nik ezagutuko ez nukeenik inor?* (Barrensorero).

Ablatiboan, *beste* (*besterik*) nahiz *-ko* izenlagun baten ondoren: *Beretarik nehor hiltzen zenean* (Pouvreau); *Gutarik nehor ez zuen ezagutzen* (Hiriart-Urruti); *Bere antzeko inor gabe zegoen* (Lardizabal); *Ez dudala berriz ikusi nahi etxe honetan bertze munduko inor* (Lafitte); *Leturiaren nahigabea ere ez da beste inork sumatu ez duenekoa* (Mitxelena); *Besterik inor ohartu baino lehenago* (Iztueta).

**13.10.7.6c** *Besterik* edo *beste*-ren aitzinetik (orduan horrek *inor*-en kasu edo postposizio marka bera hartzen du zenbaitetan): *Gauza orobat premiazkoa da nehor bertzerik ez iuiatzea, eta bere burua bera iuiatzea* (Pouvreau); *Ote da inor besterik etxean?* (Illarramendi); *Baldin haien artean nehork bertzek egin ez dituen obrak egin ez banitu* (Leizarraga); *Inork bestek ez bezala* (Kardaberaz).

*Gehiago*-ren laguntzan (baiezko eta ezezkoetan), nahiz *kasi(k)* adberbioaren ondotik, nahiz lehenbiziko pertsonaren erreferentzia (pl. edo sing.) egiten duela: *Ez da haien erranetan nehor gehiago fidatuko* (Axular); *Nehor gehiago zeruan sartzeko [..] Jainko-Semea igor ezazu munduaren salbatzera* (Barbier); *Kasik nehor ohartu gabe* (Hiriart-Urruti); *Inork ez dugu gezurrik erabili behar* (Munita); *Ni ez nauk inor bertso lanean hirekin jarraitzeko* (San Martin).

Eta erakusleekin ere: *Inor hori gutarra edo ingurukoa bada, orduan mingainak gauza bigunak esaten ditu* (Agirre).



Sarritan, izenordain mugagabe hauek *ere* partikularekin batera erabiltzen ditugu, enfasi handiagoa emanaz: *Ezer ere ez dut entzun*; *Hori inork ere ez daki*. Dena den, *ere*-dun itzuli hau batez ere ezezkako perpausetan ageri ohi da, ez baldintza eta konparatibo eta horietan.

**13.10.7.6d** *Ezer* bizkaieraz eta gipuzkeraz erabili izan da tradizioan, Lazarragandik hasita (nahiz Etxeberri Ziburukoak eta Axularrek *ezertan eduki* gisako moldeetan erabiltzen duten). xx. mendean hedatu da beste euskalki eta mintzoetara. Azken *-r* hori bakuna da (*ezeren*, testuetan *ezerren* eta *ezerri* bezalakoak ere noizbehinka ageri diren arren).

Izenordain zehaztugabea da: ezezko perpausetan ‘*deus*’ esan nahi du, eta ‘*zerbait*’ galde perpausetan, baldintzazkoetan eta beste ingurune batzuetan: *Ezer esan gabe* (Lazarraga); *Ez zaio ajolarik ezerengatik* (Xenpelar); *Ez dugu ezertarako astirik izan* (Agirre); *Ez da ezer horregatik* (Izeta); *Alferrik da orain ezer esatea* (Agirre); *Esplikazio horrek, ezer argitu beharrean, ez ote digu koropiloa nahasiago bihurtzen?* (Villasante); *Zeinek esan dizu ezer?* (Etxaniz); *Jakintza-gizona zen izatez, ezer bazen* (Mitxelena).

Batzuetan adjektiboaren aurretik erabiltzen da: *Eta pentsatzen zuten bazuela ezer isilen bat, halako indarrak ematen zizkiona* (Lardizabal).

‘Balioko zerbait’ adierazi nahi du batzuetan: *Urte osoetan ezer denik egin gabe bizi direnak* (Larramendi); *Beti bezala, orain ere, buruz ezer dezaketen gizonak, gaztelarrak* (Lizardi).

Subjekturik gabeko aditz batekin: *Gorputza ezer gozatzeke eta arima gaixoa oherakoan baino larri eta gaziago zuela jaiki ohi zen* (Agirre); *Saio latzenak eginagatik ezer nekatzen ez dena* (Basarri).

Partitibo marka duen sintagma duela ondoren: *Ezer gauza onik nigan bada, egiaz, Jauna, zurea da* (Kardaberaz); *Ezer ondorenik edo irabazirik bakoan* (Erkiaga); *Ezer azaldu beharrik baduzu?*; *Hemengo etxe onenari ere ezer zorrik ez diona*; *Ezer lanik bazenu...*

Partitibo marka duen sintagma ondotik duela: *Ikusirik ezer garbirik ateratzen ez zuela* (Lardizabal); *Ez dago ezer txarrik, berriz ere, bere neurrian eginez*

gero (Mitxelena); *Ez dago ezer higigarrik bere baitan* (Uribarri); *Eta handik aurrera ez zen ezer berezirik gertatu* (Iturralde).

Erlatibozko perpausak segitzen diola: *Jaungoikoarentzat ez dago ezer, egina izan ezin litekeenik* (Iturzaeta); *Nork ez du ezer Zure ez denik?* (Orixe).

Aditz izenak (aditz izena + *-ko*) edo partizipioak segiturik, betiere partitiboan: *Bere kontra ezer egiterik ez zegoen* (Lardizabal); *Haurdun ikusita ere, inork ez luke ezer esaterik* (Etxaniz); *Baliteke, ez dut ezer esatekorik* (Villasante); *Inork ezer esatekorik badauka* (Gerrikagoitia); *Gere bizitzaz ez dadukagu / ezer esanik batere* (J. Iantzi); *Ez baita ezer estalirik, agertuko ez danik* (Iraizoz).

*-tarik, -tatic, -tik* postposizioa duten sintagmen atzetik: *Jainkoa eztela guk izakiaren izena ematen diegun gauza oietatik ezer* (Villasante); *Nik ez dizuet zuenetik ezer kendu gura* (Agirre).

XIX. mende erditik aurrera *beste*-ren laguntzan dokumentatzen da: *Ezer besterik nahi al duzu?* (Otxolua); *Horrexek ematen du noski aditzera, beste ezerk baino hobeto* (Mitxelena); *Ez dago ezer besterik erantsi beharrik* (Gaztelu).

‘Besterik ez’ esan nahi duela: *Hauxe badakit, ez ezer gehiago* (Mogel); *Ez naizela ezer gehiagoren jabe* (Otxolua).

**13.10.7.6e** Galderazko edo ezezkako perpaus batean *norbait* eta *inor*, *zerbait* eta *ezer*, biak, ager badaitezke ere, ez dute esanahi bera (ikusitugu adibide batzuk lehenago). Gutxi gorabehera, absolutu mugatuaren *ogia* eta partitiboaren artean *ogirik* izango genukeen diferentzia bera izango dugu, *norbait* eta *inor*-en artean. Horrela, esan daiteke *norbait*, *zerbait* eta sail honetakoek balio positiboagoa dutela *inor* eta *ezer* sailekoak baino. Adibidez: *Zerbait ez dago ongi* ≠ *Ezer ez dago ongi*. Lehena esaten duenak honako hau dio, funtsean: *Bada zerbait ongi ez dagoena*, beste guztia agian ongi badago ere. Baina bigarrena dioenarentzat ezertxo ere ez dago ongi, dena gaizki dago. Hortaz, *ezer*, *inor*, eta antzekoak ezezkako perpaus batean ageri direnean, ezeztapena erabatekoa izan ohi da, *zerbait* eta *norbait*-ekin ez bezala.

Galderazkoetan ere antzeko zerbait gertatzen da. Hemen, jakina, ezeztapenak ez du zerikusirik, baina galdera guztiek zerbait suposatzen dute aurretik

galdera egileak espero izan dezake era bateko edo besteko erantzuna. Adibidez: *Norbait etorri al da? ≠ Inor etorri al da?*

Lehena dioenak egiazki norbait etorri dela suposatzen du eta galderaren helburua uste hori bestek ziurtatzea izango da; bigarrena dioenak, berriz, ez du alde zurretik inor etorri denik suposatzen.

Era berean, eman dezagun lagun bat ikusten dudala ondoezik eta aurpegi txarra duela. Nik pentsa nezake zerbait jan duela eta kalte egin diola janak. Hori horrela bada, galdera egokia honako hau izango da: *Zerbait jan al duzu?*

Baina zerbaitek kalte egin diola pentsatu beharrean lagunaren ondoezaren iturria baraurik egotea dela uste badut, orduan ez dut galdetuko *ezer jan al duzu?* baizik *ezer ez al duzu jan?*

Alderantziz, baiezkako perpausetan ere zilegi litzateke honetarako izenordain mugagabeak erabiltzea, nahiz eta ohitura hau hedatuegia ez egon: *Inork beti errua* (mendebaldean). Horren sinonimoa *beste* izenordainaz baliatuz sortzen da itzulua: *bestek beti errua*. Hona beste adibide batzuk: *Dirua eta indarra, inork berdindu dezala* (Bizkaian jasotako esaera, Goierri-tik ekarria); *Soinean dauzkatzun prakak inorenak dituzu* (Agirre), hor ere *inorenak = besterenak*.

Baina hauetatik aparte, badirudi izenordain honek beste esanahi bat hartzen duela: *Nehork bidegabe bat egiten dizunean* (Axular). Azken horretan ez dirudi *norbait* eta *nehor*-en artean alde handiegirik dagoenik.

Beste honako honetan, berriz, *nehor* horrek *bat* edo *bakoitza* esan nahi duela esan dezakegu: *Gazteko usantzak iarraititzen ohi zaitza nehoi zahartzean ere* (Axular); *Nehori ematen dio merezien pagua* (Etxeberri Ziburukoa); *Ikararik egonen da nehor haren beldurrez* (Etxeberri Ziburukoa); *Finak deklaratu, ohi du nehoren bizia* (Etxeberri Ziburukoa); *Nehork bere barrena du eza-gutzeko gaitzena* (Oihenart).

*Inoiz* adberbioarekin maizago gertatzen da hori, dirudienez: *Inoiz ikusi ditut horiek elkarrekin hizketan.* (§ 22.4).

**13.10.7.6f** *Ezer* honek badu, izan ere, pareko bat: *deus*. Biak kidekoak ditugu. Hala ere, *deus* ez da mendebaldeko euskalkietan ezagunegia: *Ezer entzun duzu?* = *Deus entzun duzu?* Baina *deus*, *ezer* ez bezala, izen tankerakoa dugu. Ikus, bestela, diferentzia: *Ene deus-ak* (Pouvreau). Mugatzaile eta guzti. Baina ezin esan dezakegu *\*Ene ezer-ak; Dagigun hitz hain deus probetxosoaz* (Etxeberri Ziburukoa); *Hain deus izigarria* (Etxeberri Ziburukoa).

*Deus* Iparraldekoa da, eta autore batzuek beti *deus ere* erabiltzen dute. Baditu aldaera batzuk: *jeus*, *jaus*, *daus* eta abar. Mugagabeko postposizioak hartzen ditu: *deusek*, *deusi* (bada *deuseri* ere), *deusen*, *deusez* (eta *deustaz*), *deusetan* (baina *deustako*), *deusengatik* eta abar.

Ezezkako inguruneetan *ezer* esan nahi du, eta galde perpausetan, baldintzakoetan eta ezezkakoak ez diren beste testuinguruetan *zerbait*. Hona hemen adibide batzuk: *Deus ez den lekuan, eskua garbi*; *zerbait den lekuan, begiak garbi* (Azkuek bildua); *Hori deus ez da* (Izeta); *Deus harrapatu al duzue?* Edo *Harrapatu duzu deus?* (Garatek bilduak); *Ez dira asko, ez dira deus harekin konparaturik* (Axular); *Eta buztan hau zertako? Badea deusetarako?* (Goihetxe); *Deus jakin ezik ixilik egotea ez da edozeinek dakien gauza* (Izeta); *Ez zuen deus argitaratu ez Frantzian ez Salamancan; 1542an agertu zen haren lehen liburua; 50 urte zituelarik liburuak* (Xarriton).

Izen batek edo izen sintagma batek segitzen diola: *Deus holako laguntzarik ez du zorigaitzez neskato gazteak* (J. Etxepare); *Deus kontsolamendurik, lur honetan badea?* (M. Etxamendi); *Ez da deus mundu honetan eskubide osoz on dei dezakegun gauzarik, borondate ona izan ezik* (Mitxelena).

Partitiboaren ondotik: *Ez zaretea leporaino aseak, ondoriorik deus ez dakarreten solas lizun alfer horietaz?* (J. Etxepare); *Funtsik deus ez dakit* (Larzabal).

Adjektiboa atzetik edo aurretik: *Deus onik ez duzu* (Zalgize); *Deus onik ene liburuan ediren badezazu* (Tartas); *Ez da deus hoberik* (Zaldubi); *Deus kaltegarririk, are hilgarririk, baldin bada hizkuntzarentzat, antsigabekeria da* (Mitxelena); *Nehork bererik deus ez* (Zaldubi); *Sorailuak aldiz, ez aldareak ere, ez dute aipagarririk deus* (J. Etxepare); *Egia erran, Kattalineak ez du deus zehatzik iragarri heldu den aste bururako* (Bidegain).

Perpaua duela atzean (edo aurrean, gutxiagotan): *Ea ote zenez munduan deus, deusen beldur ez zenik* (Axular); *Ez da deus hanbat segur denik, nola baita herioa* (Tartas); *Behar ez denik deus ikas ez dezaten* (Hiriart-Urruti).

Ezezko, baldintzazko edo galderazko ez diren perpauetan: *Baina goiz hartan, deus; entzuten nuen gauza bakarra, isiltasuna* (Bidart); *Baina horretarik aparte, deus* (Oxandabaratx).

Kasu marka eta postposizioen atzetik: *Deusek ez duela debekutzen euskaren erabilpena auzitegi batean* (Herria); *Ez dio antzik ematen deusi* (Seguroლა); *Besoak uzkurtu zituen, deusen axolarik gabe* (Epaltza); *Deusetako gusturik ez nuen* (Dirassar); *Nehor ez zen deusetaz ohartu* (Etxehandi).

Aditz izena -korik duela atzetik (edo aurretik, zenbaitetan): *Deus ez da jatekorik* (Garate); *Ikertu dituzte eta deus erraitekorik ez dute hatzeman* (Laphitz); *Ez nuen deus azaltzekorik, egia esan* (Mitxelena); *Zenbait orduren buruko, ez baitzaie lili maiteei galtzekorik gelditzen deus* (J. Etxepare).

Bertzelbeste-rekin: *Bertze deusendako ez du balio* (Garate); *Bertzetako deus-tako ez dute balio* (Garate); *Ez dira beste deusez ari* (Villasante); *Eta joera horrek ez zuen zerikusirik ez politikarekin ez hizkuntzaz kanpoko beste deusekin* (Mitxelena); *Deus bertze probetxurik ez zaigu etortzen?* (Leizarraga); *Ez zion hitzegin ez deus besterik galdegin* (Mirande); *Baldin deus bertzerik doktrina sanoaren kontrakorik bada* (Leizarraga).

Gehiago, haboro-rekin: *Manu horretarik bada deus gehiago?* (Leizarraga); *[...] elkarrekin mintzatzea, deus gehiagorik gabe* (J. B. Etxepare); *Nik deus ez dezaket gehiago zuretzat* (Laphitz); *Bainan ez zezakeen gehiago deus irents* (Narbaitz); *Deus haboro ene burua atxikitzen badut* (Maister).

Ezezkoa ulertzen dela: *Zer diozu? Deus, deusik* (Garate); *Deus haboro. Adios D. Resurrección bertze bateraino* (Mendigatxa); *Min gaixtoaren ondoriorik deus* (Hiriart-Urruti); *Deus hori baino zuzenagorik, horretako galdetua den ber* (J. Etxepare).

Izen gisa, batez ere pluralean erabili da tradizioan: *ene deusak*. Hona hemen adibide batzuk: *Izanen dirade deusak / zuk erran bezala bezala* (Casenave-Harigile).

Kontura gaitezen *deus* hori izena dela batzuetan: [Jaungoikoak] *deusetik egin zituen gauza guziak* (Elizalde); *Ontziko deusak [urera] ehortzean* (Etxeberri Ziburukoa); *Bata gure deusen pisatzeko ahal dukegun abantaila handienarekin; bertzea lagunaren ontasunen pisatzeko* (Pouvreau).

Garrantzia duela adierazteko ere erabili izan da: *Ez da arrazoin deusagoak ezdeusagoa zerbitza dezan; eta ttipiagoak bere azpiko erabil dezan* (Axular. Horrek esan nahi du *arrazoi duinenak ezin duela zerbitza ez-duinena*); *Baina arte honetan, ikusten zuen aski deusik ez zela* (Hiribarren).

**13.10.7.6g** Bestalde, hor dugu *batere* adberbioa, ezezkotasuna adierazten duela. Itzuli honen osagaiak zein diren garbi dago: *bat + ere*. Hala ere, nolabait lexikalizatua dagoela esan daiteke eta, horrela, dagoen dagoenean *ezer* edo *deus*-en ordaintzat har daiteke: *Ez dut batere ikasi* (= *Ez dut ezer (ere) ikasi* = *Ez dut deus (ere) ikasi*). Hona hemen adibide batzuk: *Isabel II.a, bestalde, ez zen batere amore ematearen aldekoa* (Txillardegia); *Gogorik batere ez nik hegaldi hartan jarraitzeko, sinpleki* (J. A. Arrieta); *Ez dut batere sinesten, garbiki erraiteko* (Oxandabaratz).

Baina badira, dena den, diferentziak *batere* eta *deusen* artean: *batere* adjektiboaren maila adierazteko erabil daiteke, *ezer* eta *deus* ez bezala: *Lan hori ez da batere erraza*; \**Lan hori ez da ezer erraza*. Bestetik, idazle anitzek, zernahi gisaz, *batere* eta *bat ere* ongi bereizten dituzte: bigarrenak, bereiz idatzia denak, *inor* esan nahi du, “bat bakarrik ere”, betiere ezezko perpausetan: *Ez da bat ere etorri*; *Ez zaukaat zentaborik bat ere* (Lopez de Arana); *Ez diot hitz bat ere esango* (O. Arana); *Borges ez da pertsona bat, ez eta pertsonaia bat ere* (Juan Garzia); *Horixe da dena, eta ez da gertaera bat ere* (M. Etxebarria) eta abar. Baina anitzetan, egia esan, egungo idazle batzuek *bat ere* bien tokian (*batere, bat ere*) erabiltzeko joera dute: *Zama hori, beraz, ez da bat ere pisutsua* (Urkiza); *Ez dut koma bat ere kentzen* (Urkiza); *Ez duk bat ere asmatzen* (P. Zabala); *Eskerrak ez duen zerotxo bat ere galtzen* (P. Zabala).

**13.10.7.6h** Izenordain hauetako zenbaitek *-txo* atzizkia hartzen dute txikigarritasuna adierazteko. *Ezertxo, inortxo, zertxobait (zerbaitto)*... izenordainei *-txo* atzizki txikigarria erantsirik lortuak dira: *Ez dut inortxo ere ikusi nahi*

(Larrañaga); *Eta denbora guztian bakarrik ibiltzen ikusi dut, inortxorekin elkartu gabe* (Zubizarreta); *Ezertxok ere ezin du atsoa salbatu* (Otegi); *Hura ez zuen ezertxok ere esnatuko* (Jon Muñoz); *Hobe hukek zertxobait gosalduko bahu* (Iturralde). Adibideetan ikusten denez, hauek ia beti *ere*-ren laguntasuna eskatzen dutela dirudi: *Inortxok ere ez digu lagundu*; *Ezertxo ere ez daukagu jateko*; *Zertxobait esan beharko dizut gero*.

Horiek guztiek nolabaiteko enfasia edo indarra ematen diote izenordainari.

### 13.10.7.7. *Norbera eta norbere*

**13.10.7.7a** *Norbera*, bistan denez, *nor* izenordainaz baliaturik osatzen da (*nor + bera*). *Nor bere* da izenordain horren genitiboa. *Norbera*, bere horretan, izenordaintzat hartzen ahal dugu, nahiz eta *nor+bera* modura osatua egon, *Andoni bera* esaten dugunean bezala. Horrek esan nahi du, beste inolako elementurik gabe izen sintagma osa dezakeela: *Norberak dituen arazoak nahiko ez balira*; *Arduratuko da gauzak bere lekuan jartzearaz*; *Norberari axola ez badio, zer egingo dut nik?*

Hortaz, *norbera* beste edozein izenordain bezala, izen sintagmak osatuz ager daiteke perpausaren barnean, eta, hain zuen, izen sintagmak ager daitezkeen leku beretan. Euskalki guztietan erabilia izan da, eta XIX. mendetik aurrera Iparraldean ere maizago erabiltzen da. Testu batzuetan, ia guztiak XX. mendea baino lehenagokoak, *nor*-k eta *bera*-k, biek hartzen dituzte kasu markak. Garibaien atsotizetan ageri da *nork berak*, eta Mogelen testuetan ere. Berdin gertatzen da Baratziart, Duvoisin edo Duhalderekin ere. *Nori berari* erabiltzen du Duvoisinek. Bizkaierazko testuetan *nobera* aurki daiteke tradizioan, *norbera*-rekin batera. Hori frogatzen bat gehiago izango genuke *nor bera* eta *Andoni bera* sintagmen arteko erlazioaren alde. Zeren gaur *norberak* esaten dugun arren, *Andonik berak* esaten ahal baitugu. Testuinguru hauetan, *norbera*-ren ordeztuz, *bakoitza* ezar daiteke zentzua aldatu gabe: *Norberak/bakoitzak egin dezala egin behar duena*. Hona hemen adibide batzuk: *Nork berak behar du bere burua ezagutu* (Duvoisin); *Nork berak bere gaztigua eramanez du* (Axular); *Nor-*



*beraren gogokoa ez bada* (Fraibartolome); *Gogoa nabari da norberarentzat; estari, beste nornahirentzat* (Mitxelena).

Hitz egiten ari dena, edo aipatu den hura bera adierazten du: *Batzuetan besteak ez, baina norbera da bere buruarekin harritzen eta haserretzen dena* (Zubizarreta); *Norberak berea dauka* (Cano); *Musika horri lotuta beste mila-ka batzuk daude, norberarekin bat egiten dutenak, norberaren tamainara egokitzen direnak* (Juaristi).

**13.10.7.7b** *Norberak* genitibo mota bat baino gehiago du: *norberaren, norbere* eta *norberen*. Lehenbizikoak (*norberaren*) du genitibo arrunta, eta pertsona bati dagokiona, pertsonala dena, adieraz dezake: *Bakoitzak berak daki norberaren berri* (Arrese Beitia); *Edozeinek ditu bi sorterri: norberarena eta Frantzia* (Azkue); *Inoren begia zorrotzagoa izaten baita bereizketa horietan norberarena baino* (Mitxelena); *Etxebarrietaren garaian norberaren sakrifizioa egitasmo heroikoa zen* (Zulaika).

Hortik sortzen da *norberarena egin* esapidea: *Askori, norberarena eginez gero, besteenak pito bat ardura dio* (Elexpuru); *Berba zantarra norberarena egin eta negrotasunari inoiz egindako banderarik ederrena da Cesairen poema luzea* (Aranbarri); *Bata bestearen hutsaren zain gehiago izan ziren, norberarena egiten baino* (Berria).

Berdin gertatzen da *norberaren kontura* esapidearekin ere: *Ofizioa ikasi ondo eta gero norberaren kontura jarri* (T. Etxebarria); *Oinarrizko ekipamendua, norberaren kontura* (Zaldua).

*Norbere* genitiboa mendabaldeko testuetan ageri da, batez ere (*norberen* ere, eta *noberen* Arrese Beitiak). *Beraren* eta *bere* bereizten ditugun gisan, bat arrunta eta bestea bihurkaria (ikus § 13.3, § 13.8), *norberaren* eta *norbere* ere bereizten dira, baina bereizketa gehiago da formala, esanahiari dagokiona baino. Biek ‘bakoitzarena’ edo adierazi nahi dute: *Poztasuna norbere barruan dago* (Kirikiño); *Zentzuak norbere jabetasuna galdu duenean* (Etxaide); *Norbera ardura bedi norbere buruaz* (Villasante); *Horretan bakoitzak norbere taldeko eta eskolako kontuak esango dizkizu* (Mitxelena); *Ez dago norbere kezka eta pentsamenduak koaderno batean idaztea bezalakorik* (Cano);



*Norbere sinesmenei uko egitea, autokritika, jendeaurren barkamena eskatzea* (O. Arana). Badirudi horietan guztietan *norberaren* aldaera jarriz gero esanahia ez dela batera aldatzen.

*Norberezko* izenlaguna hortik sortzen da: *Norberezko ahalegin zakarrez tematzen dira Jainkoa menperatzean, jakinik Jainkoa ez dela inoren esanera jartzen, baizik eta bete-betean eskaini egiten dela* (J. M. Lekuona).

### 13.10.7.8. *Nor bere, zein bere*

**13.10.7.8a** *Norbera/norberaren* eta *norbere* ez dira nahasi behar beste esapide batekin: *nor bere*. *Norbera* izenordaina *nor+bera* gisara osatua dagoen bezala, *nor bere* esapidea ere bi atalez osatua dago: *nor* batetik eta *bere* bihurkaria bestetik. Bihurkariak aurrekari bat eskatzen dute, esan dugun gisan: *Andoni bere arazoez ez da arduratzen*. Perpaus horretan *bere*-ren erreferentzia zein den jakiteko, *Andoni*-ri begiratu behar diogu. Hots, kasu horretan, *bere* esaten duenak *Andoniren* esango balu bezala da. *Nor bere* esapidearen kasuan *bere*-ren aurrekaria *nor* dugu. Jakina, kasu horretan *nor* ez da jadanik galde-tzailea, *nor bait* edo agian hobeki, *bakoitza*-ren zentzukide den izenordain mugagabea baizik. Adibidez, honako bi perpaus hauek zeharo paraleloak ditugu. Diferentzia bakarra *bere*-ren aurrekoa batean *nor* den bezala bestean *Andoni* izatean datza, eta bata bestearekin aldera daiteke: *Nor bere etxera joan dadila orain!*; *Andoni bere etxera joan dadila orain!*

**13.10.7.8b** Hala ere, *nor bere*, berezirik idatzi arren, osagai bakar modura agertzen zaigu, hautsi ezina baita, *Andoni* eta *bere* ez bezala. Adibidez: *Andoni bere etxera joan zen* (= *bere etxera joan zen Andoni*); *nor bere etxera joan zen*, baina ez *\*bere etxera joan zer nor*. Era berean ulertu behar dira honako adibide hauek ere: *Nori berea da zuzenbidea* (hots: *nori berea ematea*); *Nork bere opilari ikatza*; *Nork bere herriko edo erresumako arauaz diferentki eskribatzen baitituzte* (Axular).

*Nor* aditz-jokoan eragina duten izen sintagmei dagozkien kasuetan bakarrik joan daiteke: ergatiboan, absolutuan edo datiboan. Horregatik, honako honen

antzekoak ezinak dira: *\*norekin bere lagunak joango dira*. Honetan *bere* bihurkariari zor zaion jokabidea errespetatzen dela esan daiteke *nor bere* itzuli honetan.

*Nor*-en ordeztasun ordez, esapide hauetan, *bakoitza* ezar daiteke esanahia aldatu gabe: *Bakoitza bere etxera joan dadila!*; *Bakoitzari berea eman behar zaio*. Hala ere, esamolde jator hauen ordeztasun zenbait euskaldunek bide bihurriago eta trake-  
tsagoak nahiago izan dituzte. Honako hau, adibidez, ez da oso itxurazkoa: *Bakoitzak nor bere opinioa du*; *Norberak bere etxean nahi duena egin dezake*. Egiatan, ez diogu inori azken bide hau gomendatzen.

**13.10.7.8c** *Nor* eta *zein*-en artean gertatzen den gisa berean (§ 13.10.13, § 13.10.14), *nor bere*-ren ondoan dugu *zein bere* ere: *Berdin bilatzen gaituzte gorrotoak eta maitasunak*; *zein bere moduan, biek gaituzte zapaltzen* (K. Izagirre); *Leiho horretatik ikusten den oro hil egiten dun zein bere orduan, haritz sendoenak ere ihartu egiten ditun zein bere aldian* (Lertxundi); *Desagertuak ziren adiskide guztiak, zein bere atseginarean bila* (Navarro).

### 13.11. *Batbedera*

Dena dela, ekialdean *norbera* ez dute horrenbeste erabiltzen. Haren ordeztasun ordez, *batbedera* dokumentatzen da testuetan XVI. mendetik aitzina. XIX. mendearen erdialdetik gutxiago erabiltzen da, eta anitzez gutxiago XX. mendean. Autore moderno batzuek (Villasante, Zaitegi...) berriz ere bereganatu dute. ‘Bakoitza’ esan nahi du, eta izenordaina (*batbederak pentsa beza*) edo determinatzailea (*eliza bat bederak zergatik du...?*) izan daiteke, baina gehienetan izenordaina da: *Batbederak emaiozue zor zaion ohorea* (Etxeberri Ziburukoa); *Badakizu zer behar zaion batbederari eman, eta zergatik honek gutiago horrek gehiago duen* (Pouvreau); *Honetan orotako ona ororen tzat denaz geroz, bat bederarentzat ere baita* (Hiriart-Urruti); *Halaber, hari so egitea aski dela iduritzen zait batbedera edertua izateko* (Jon Muñoz); *Batbederaren patuak ere ez zuen axola* (Juan Garzia).

### 13.12. Beste

**13.12a** Adjektiboaren kapituluan (ikus 14. kapitulua) aipatzen da bereziki zaila dela *beste* hitzaren kategoria zehaztea. Ingurunearen arabera, besteak beste, izenordain gisa erabiltzen dela esan dugu han.

**13.12b** Eta hala da: bere determinatzaile balioarekin erabiltzeaz gainera (*beste etxe eder hori* eta antzekoetan bezala, alegia), izenordain gisa erabiltzen dugu; beraz, inolako mugatzailerik gabe. Hala ere, badirudi ezin dela kasu guztietan erabili. Adibidez, ergatiboan edo datiboan agertuko zaigu, baina nekez absolutuan: *Berak egin nahi ez eta besteri (edo inori) agindu behar; Zuk zikitzen duzuna bestek (edo inork) garbitu beharko du*. Absolutuan, ordea, *bat edo beste*, eta antzeko itzulietan ez bada, nekez aurkituko dugu: *Bat edo beste etorri zen, baina ez denak*.

Absolutuan, hortaz, *bat* edo horrelako zerbaiten lagun modura agertu behar duela dirudi: *bestek egin beza*-ren ondoan ez daukagu *\*beste etor dadila, beste bat etor dadila* baizik<sup>13</sup>.

**13.12c** Hala ere, gehienetan *beste* nolabaiteko determinatzaile gisa erabiltzen dugu, hots, izen sintagmaren barruan beste izen bati edo izenordain bati lagun eginez bezala: *Beste gizon hori ez dut ezagutzen; Beste nork galdetu zizun nitaz?; Beste bat erosi nahi nuke; Bestea nik ekarri nuen*. Horrelakoetan, *beste* izenaren ezkerretara ageri da. Izenlagunik edo zenbatzailerik baldin bada, izenlagunaren ondoren (aurretik ere joan daiteke) eta zenbatzailearen ezkerretara: *beste bost gizon*, eta ez *\*bost beste gizon; herriko beste etxeak ≠ beste herriko etxeak*.

*Beste*, sarritan, *bat*-dun izen sintagmari kontrajartzen zaion izen sintagman agertzen da, honelako itzuliak sortuz: *Gizon batek hau esan zidan; besteak hura*. Era berean *batzuk*-i kontrajartzen zaio askotan *besteak*: *Batzuk oinez etorri dira; besteak bizikletaz*. Baina *batak besteak* ere esaten da: *Batak eta*

<sup>13</sup> Ikus, halere, Etxeberri Ziburukoaren hau: *Bere ordain ecin bidal berce comparitcera, / Berac aguertu behar du Thronuaren oinera*.

*besteak oker dabilza.* Zenbait esapidetan ere *beste* aurkitzen dugu: *Zutaz besterik ez zen etorri* (alegia, *zu bakarrik etorri zinen*); *Zu ez beste guztiak etorri ziren*; *Zu beste jaberik ez dugu nahi* (alegia, *zu bakarrik zara gure jabe; beste inor ez*). Aipa daiteke hemen *besteak beste* esapidea ere: *Besteak beste, hau esan nuen*; *Besteak beste, eraman ezazu hau bere lekura*. Hauek nolabaiteko adberbio esapideak ditugu eta badirudi elipsi baten edo ondorio direla. Esango bagenu bezala: *besteak beste direlarik*.

## 14. Adjektiboa

---

14.1. Zeri deitzen diogun adjektibo

14.2. Adjektibo motak; 14.2.1. Adjektibo kalifikatzaileak; 14.2.2. Funtzio murriztailea duten adjektiboak; 14.2.3. *-dun* eta *-(t)ar* atzizkiak hartzen dituzten hitzen kategoriaz; 14.2.4. Beste gentilizio batzuk; 14.2.5. *Euskal langileria* tankerakoen izaera; 14.2.6. Erreferentzia adjektiboak; 14.2.7. Adjektibo adberbialak; 14.2.8. Adjektiboen bestelako sailkapen batzuk; 14.2.8.1. Adjektibo ebakitzailak; 14.2.8.2. Adjektibo ez-ebakitzailak; 14.2.9. Epitetoak

14.3. Adjektibo bat baino gehiago izen sintagmaren barnean; 14.3.1. Adjektiboen tokia; 14.3.2. Adjektiboen hurrenkera hierarkia

14.4. Izen koordinatuak eta adjektiboak

14.5. Partizipioa eta adjektiboa

14.6. Adjektiboak predikatu gisa

14.7. Lotura aditzak

14.8. Adjektiboa eta kategoria aldaketak

14.9. Adjektibo berezi batzuk; 14.9.1. *Huts*; 14.9.2. Beste hitzaren kategoriaz; 14.9.3. *Gabe* hitzak sortzen dituen arazoak

14.10. Adjektiboen mailakatzea; 14.10.1. Sarrera; 14.10.2. Marka fonetikoak; 14.10.3. Marka morfologikoak; 14.10.4. Mailakatze adberbioak; 14.10.5. Konparazioak eta adjektiboen mailakatzea; 14.10.5.1. Sarrera; 14.10.5.2. *-EN* atzizkia; 14.10.5.3. *-AGO* atzizkia; 14.10.5.4. *On, hobe...*; 14.10.5.5. *Are... -ago*; 14.10.5.6. Berdintasunezko konparazioak; 14.10.5.7. Harridura esaldietan; 14.10.5.8. Zenbait debeku; 14.10.5.9. Aposizioa eta aposizio motak

---

## 14.1. Zeri deitzen diogun adjektibo

**14.1a** Adjektiboa perpausaren osagai bat da, izenaren inguruan ageri dena. Arruntean izenaren kualitate bat adierazten du eta horretarako erabiltzen da, hots, izenaren ezaugarri bat adierazteko: *etxe zuria*, *katu beltza*, *bide zabala*. Adibide horietan adjektiboak artikuluekin ageri dira baina adjektiboak ez du berez, noski, artikulurik behar ezinbestean: *etxe zuri hori*, *katu beltz batzuk*, *bide zabal asko*. Artikulua sintagma osoarena da, ez adjektiboarena bakarrik.

EGLU-I liburukian (157-158) adjektiboen kategorian bi eratako elementuak biltzen dira: izenondoak (*etxe zuri hori*) eta izenlagunak (*plazako etxea*) ere. Lehenbiziko sailekoak dira, nolabait esateko, adjektibo “garbiak”, eta kategoria hori osatzen dute. Holakoak dira *gorri*, *handi*, *ergel*, *polit*, *txiki* eta abar. Ikusten denez, kategoria bat osatzen dute (adjektiboen kategoria) eta hola ageri dira hiztegieta, hiztegi hitzak dira. Batzuetan atzizkiren bat ere har dezakete: *jakintsu*, *ikusgarri* eta abar. Bigarren sailekoek (*plazako*, *alkatearen*...) ez dute, ordea, halako kategoriarik osatzen: *plaza* eta *alkate* izenak dira, kategoria horretakoak dira, eta hola ageri dira hiztegieta. Behin izen horiei *-ko* edo *-en* erantsirik izenlagun direla esaten dugu, eta EGLU-I liburukian, esan bezala, adjektiboen kategorian sailkatzen genituen, izenondoekin batera. Hala ere, bistan da gauza desberdinei buruz ari garela, *plazako* eta *alkatearen* ez baitira hiztegi hitzak, ez dute horiek kategoriarik (izenarena ez bada, baina betiere atzizkia kendurik) osatzen. Gramatikaren ikuspuntutik izenondo garbi horiek (*gorri*, *txiki*) bakarrik jo daitezke adjektibotzat. Gramatika honetan ere horiek bakarrik hartuko ditugu adjektibotzat: bi hitz horiek, *adjektibo* eta *izenondo*, sinonimotzat hartuko ditugu aurrerantzean. Baina hori hala bada ere, egia da batzuek (izenondoek) eta besteek (izenlagunek) betetzen dituzten funtzio sintaktikoek badutela antzekotasun handia. Biak doaz izenarekin. Kontura gaitzen perpaus erlatiboek ere izenlagunen funtzio bera betetzen dutela: [*Mirenen*] *etxea* eta [*Mirenek duen*] *etxea* adibideetan ikusten da hori. Eta gramatika askotan perpaus erlatiboak perpaus adjektibalak direla esan ohi da.

**14.1b** Izenondoak eta adjektiboak neurri batean sinonimotzat hartzen badiugu ere, bai izenlagunek bai izenondoek betetzen duten funtzioa ikusirik,

denak multzo berean sartuko ditugu, baina bereizketa bat eginez. Adjektiboek (izenondoek, beste hitzetan) adjektibo sintagmak osatzen dituzte, adjektibo sintagmetan biltzen dira. Izenlagunak, esan bezala, ez dira adjektiboak, baina dituzten ezaugarriak kontuan hartuz, sintagma adjektibalak osatzen dituztela esanen dugu, sintagma adjektibaletan biltzen direla alegia. Hala, *etxe gorria* adjektibo sintagma litzateke, baina *plazako etxea*, *Maiteren alaba*, *ekarri duzun autoa*... ordea, sintagma adjektibalak direla esanen dugu. Bien arteko erlazioa adibide askotan ikusten ahal da: *asko dakien* gizona (izenlaguna) gizon *jakintsua* (adjektiboa) dela esaten dugu. Izenondoak (*adjektibo* deituko ditugu) hitz kategoriak dira. Izenlagunek ez dute kategoriarik osatzen, baina duten funtzioagatik esan daiteke adjektiboekin pareka daitezkeela, betiere maila batean.

**14.1c** Izenondoek eta izenlagunek toki jakina dute beti izenari dagokionez: izenlagunak ezkerrean ageri dira, eta izenondoak eskuinean. Hori da toki naturala, nolabai esateko, toki ez markatua nahiago bada: izenondoak eskuinean (*mutil garbia*) eta izenlagunak ezkerrean (*herriko plaza*; *Mirenen autoa*; *bigarren lasterkaria*). Beste hitzetan esateko, sintagma adjektibalak ezkerrean beti, eta adjektiboak izenaren ondotik, eskuinean. Horrek ez du esan nahi, ordea, toki kanoniko hori batzuetan hausten ez denik: *Joxe Plazaburukoa* edo *Jaun zerukoa* esaten dugu, arazorik gabe, *frantziar politikaria*. Kasu horietan adjektiboa eta izenlaguna tokiz aldatuak ageri dira, eskuinean izenlaguna (*zerukoa*), eta ezkerrean adjektiboa (*frantziar*). Holako gauzak hizkuntza askotan gertatzen dira. Bai, gure ingurukoetan: *casa grande*, *ventana bonita*, *église baroque* edo *crêpe sucrée* esaten da arruntan, bai frantsesak bai gaztelaniak izenaren eskuinean jartzen baitute adjektiboa (hori da toki naturala). Baina horiekin batera *gran mentira*, *pequeña verdad*, *gentil garçon* edo *bonne note* ere ikusten dira. Esan behar da bigarren hurrenkera hori lehenbizikoa baino markatuagoa dela. Ingelesez adjektiboak izenaren aurretik jartzen dira: *white house*, *big horse*. Baina egitura zaharkitu batzuetan ez dira izenaren ondotik doazen adjektiboak ere falta: *They heard creatures unseen*. Zentzu zaharkitua dute *A Love Supreme*; *The Matrix Reloaded* edo *Paradise Lost* gisakoek. Geroago itzuliko gara berriz ere puntu honetara.

Zerbait holako gertatzen da euskaraz ere: gentilizioak (-ar) eta -*dun* tankerako adjektiboak izenaren ezkerreko aldean agertzen badira ere, batzuetan eskuine-ra eramaten ditugu (§ 14.2.3).

Ez bestela. Gainerako izenondo arruntek ez dute holako askatasunik, eta beti joan behar dute izenaren eskuinean: *mutil koxkorra* (\**koxkor mutila*), *leiho handia* (\**handi leihoa*) eta abar. Egia da batzuetan ikusi izan direla \**sindikal arazoak* edo \**ekonomiko egoera* bezalako adibideak, baina gutxi izateaz gain ez dira batere zuzenak: *arazo sindikal* edo *egoera ekonomiko* eskatzen du euskarak. Berdin *arazo sozial*, eta ez \**sozial arazo*. Hurrenkera hori harridura perpaus batzuetan hauts daiteke eta, hola, *gaixo bekataria!* nahiz *bekatari gaixoa!* bezalakoak erabiltzen dira euskaraz. Baina aski erabiliak dira hurrenkera arrunteko harridura perpausak ere: *hau mendi handia!*, *hau ume txikia!*

**14.1d** Adibideetan ikusten denez, adjektiboek izenaren zer-nolakotasuna adierazten dute: *Liburu handi bat erosi nuen*; *Gizon beldurgarri hark mutikoa izutu zuen*. Hor, bistan da, *handi*-k liburua nolakoa den esaten digu, eta *beldurgarri*-k gizonaren kualitate bat, funtsezko ezaugarri bat, ematen du aditzera. Egia da *lurrezko ontzia*, edo *urrezko eraztuna* esaten badugu, hor ere *lurrezko* eta *urrezko* hitzek izenaren kualitate bat adierazten dutela, baina badira argumentu nahiko onartzeko horiek ez direla benetako adjektiboak. Beste hitzetan esateko: adjektiboek askotan izenaren kualitate bat adierazten badute ere, horrek ez du esan nahi izenaren kualitatea adierazten duten hitz guztiak adjektibo direnik.

**14.1e** Batzuetan esan izan da ez dela modu argirik adjektiboen eta izenen artean bereizketa garbiak egiteko. Mitxelenak (1987: 374-375) berak zioen hori. De Rijkek (2008: 19) ere aipatzen du kontu hori, baina berehala gaineratzen du hori esatea gehiegikeria da. Egon daitezke zenbait antzekotasun, dio, eta adjektiboak, zenbait kasutan, izen gisa ere erabiltzen ditugu, baina alderantzizkoa ez da egia: ez da adjektibo gisa erabiltzen den izenik<sup>1</sup> (“ez bada adjektibo bezala hasten”). Azalpena pixka bat iluna bada ere, ez baitakigu ongi zeri egiten dion erreferentzia, badirudi hori ez dela beti hola betetzen, eta testuin-

---

<sup>1</sup> “unless it starts out as one” dio, nahiz zaila gertatzen den horren zentzua ulertzea.



guru batzuetan bizidunen izen batzuk adjektibo bezala ere erabiltzen ditugu: *Mutiko hau astoa da; Ze zakurra den; Bileran daudenak oiloak dira; Ez izan hain umea!; Begira zerriak direla horiek; Gezurra dirudi hain haurrak izatea eta abar. (§ 14.8).*

Izenen eta adjektiboen arteko berezitasunen berri emateko bi argudiobide erabiltzen dira: alde batetik syntaxian bereizten dira (*irakasle gizona / \*gizen irakaslea*) eta semantikan ere. Hori ez da, ordea, beti betetzen: egia baita batzuetan izenek eta adjektiboek funtzio sintaktiko berdinak dituztela (*Mikel irakaslea da / Mikel handia da*, geroago itzuliko gara predikatu osagarrien kontu honetara), eta badituztela beste batzuetan elkarren arteko propietate semantiko komunak ere. *Jokalari* hitza, esaterako, adjektiboa izan daiteke (*gazte jokalaria ona da*) edo izena (*hamar jokalaria bakarrik ditugu*), eta ez da zalan-tzarik hor ezaugarri semantiko antzekoak dituztela, izena nahiz adjektibo izan. Gradu markak ere har ditzakete batzuek eta besteek (izenek adjektibo modura erabiliak direnean): *bide hau baino maldago / handiago ez duzu erraz aurkituko; horrek dioena egiagoa / gezurragoa da*. Esan dezagun, bestetik, izenek gradu zenbatzailea hartzen dutela, eta adjektiboek ez: *lau ate / \*lau eder*.

Batzuetan adjektiboak substantibatzen ditugu: *andre eria* (adjektiboa), baina *erriak ospitalera eramaten ditugu* (izena); *herriko mutil gazte horiek dantzari onak dira* (adjektiboa), baina *gazteek ez dute lanik* (izena). Hori ezin da adjektibo guztiekin egin, eta badirudi erregularitasun semantiko batzuek agintzen dutela noiz egin eta noiz ez.

Substantibatze prozedura horiek arruntak dira: propietate edo ezaugarri batzuetatik abiatuz, adjektiboak izen bihurtzen ditugu ezaugarri batzuk konpartitzen dituzten multzokide izendatzeko. Multzo horiek badute, nolabait ere esateko, halako nabarmentasun berezi bat gure eguneroko hizkeran. Batzuetan adinarekin dute zerikusia (*gazte, zahar, nerabe*); herritartasunarekin (*hiritar, atzerritar, probintziar, frantziar...*); tokiarekin (*aurrelari, atzelari*); zaletasunarekin (*mendizale, futbolzale, euskaltzale, bekatari, saindu...*); kulturarekin (*jakitun, lizentziadun, autodidakta, unibertsitario*); larruaren edo ilearen kolorearekin (*beltz, zuri, ilegorri*) edo pertsonen ezaugarri fisikoekin (*burusoil, ñimiño, konkordun, begimakur, ezker*); osasunarekin (*gaixo, eri, afasiko, elba-*

*rritu, legenardun*); lanarekin (*zientzialari, ekonomialari, ikertzaile, kimikari*); talde politiko edo artistikoekin (*budista, marxista, peronista*) eta bestelakoekin (*mozkor, alkoholiko, famadun, intelektual, erretzaile*) eta abar. Horiek guztiak substantibatze prozeduren ondorio direla esan daiteke, hau da, jatorriz adjektibo izanik, izen gisa erabiltzen ditugu. Batzuetan ezaugarri negatiboekin lotzen dira: *etxe honetan eri batzuk bizi dira* esaten da, baina nekez *etxe honetan osasuntsu batzuk bizi dira*<sup>2</sup>. Berdin: *badugu itsu bat gelan*, baina ez *\*baditugu buruargi batzuk gelan* (*itsu* eta *buruargi* antonimotzat harturik), edo *nor da zoro hori?*, baina ez *\*nor da zentzudun hori?*<sup>3</sup>

**14.1f** Adjektiboak, oro har, izenaren ondoan jartzen ditugu, izenaren eskui-nean. Baina predikatu osagarri modura ere agertzen ahal dira: *etxe hori ez da oso handia*; *katu hura beltza zen*. Esan dezagun, hortaz, adjektiboa izena aldatzen duten edo izenaz predikatzen diren hitzek osatzen dutela. Greko-latindar tradizioan oinarritzen da izena eta adjektiboaren arteko bereizketa hori: hola, izena benetako zerbait izango litzateke, kendu ezin den zerbait, “substantzia”, nahi bada, eta adjektiboa, berriz, bigarren mailako kontu zerbait, izenaren gaineko ezaugarriren baten berri ematera heldu den zerbait, bigarren mailakoa esan bezala edo, nahi bada, “akzidente” bat. Zentzu horretan diogu adjektiboak izena aldatzen duela.

Izenaren “aldaketa” hori oso zentzu zabalean hartu behar da hemen, batzuetan ez baitute benetan izenaren inolako ezaugarririk adierazten, nola ez den, esan bezala, ezaugarritasun hori aski modu zabalean hartzen. Bistan da *etxe handia*, *auto garestia* edo *gerla izugarria* sintagmetako adjektiboek ezaugarri baten berri ematen digutela. Baina *kafe hutsa nahi dut*, *Miren ingeniari industrial da* edo *bereizketa zehatzak* esaten badugu, nekez sar daitezke azken adjektibo horiek aurrekoen sail berean: *huts* aski izenondo berezia da, ikusiko dugunez; ingeniariak ez dira *industrialak* (hemen kanpoko zerbaitekin

---

<sup>2</sup> Hau ez da beti betetzen, ordea: *etxe honetan jakintsu batzuk bizi dira*.

<sup>3</sup> Arazo hau (adjektiboen substantibatzearena, alegia) nahiko arazo nahasia da azaltzeko. Hizkuntza askotan gertatzen da eta gramatikari batzuek nahiago izaten dute “izen gisa erabilitako adjektiboak” edo “adjektibo gisa erabilitako” esapideez baliatu.

gertatzen den erlazio mota bat adierazten da, izenaren ezaugarri zuzena baino gehiago), eta *zehatzak* ez du benetan izena aldatzen. Horiek ez dute hitzen inolako ezaugarririk adierazten, ez dute zinez maila horretako informaziorik ematen. Zernahi gisaz, adjektibotzat hartuko ditugu hemen, nola egiten baitute gauza bera beste hizkuntza batzuetako gramatika eta hizkuntzalari gehienek.

**14.1g** Izenlagunek eta adjektiboek pareko funtzioak badituzte ere, gorago esan bezala, badira haien artean desberdintasunak. Eta ez bakarrik tokiari dagokionez. Hasteko, izenlagunek ez dituzte hartzen izenondoek (zinezko adjektiboek) hartzen dituzten konparazio atzizkiak: *handiago*, *handiegi*, *handiena*, \**Mirenenago*, \**Mirenenegi*, \**Mirenenena*. Bai, badakigu jakin *Koldo mendi-koago da kalekoago baino* bezalako perpausak era ditzakegula. Baina ez da ia holako adibiderik ageri ez egungo literaturan eta tradizioan. Aski bakanak dira.

**14.1h** Izenondoek beste atzizki batzuk ere hartzen ahal dituzte. Ez dituzte izenondo guztiek atzizki berak hartzen, baina *handi* gisako batek, esate baterako, holakoak har ditzake: *handiki*, *handiketa*, *handigura*, *handinahi*, *handikor*, *handios*, *handiputz*, *handisko*, *handitasun*, *handitzar* eta abar. Nekez hartuko ditu holakoak izenlagun batek: \**etxekoki*, \**etxekoketa*, \**etxekogura*, \**etxekonahi* eta abar. Beraz, bada hor izenlagunen eta izenondoen arteko bereizketa garbi bat.

**14.1i** Izenlagunen barne egitura, izenondoekin gertatzen ez den bezala, konplexua da berez: *mendi-ko*, *Miren-en*. Horiek postposizioen (*Miren-ekin*) egituren pareko zerbait erakusten dute. Aldiz, *handi* edo *gizen* bezalako izenondoak hitz soilak dira, lexemak, *zuhaitz* edo *ohe* bezalakoak. Aurrekoak (*mendiko*) ez bezala, azken horiek hiztegietan ageri dira. Jakina, hiztegiakoak dira lexikalizatu diren hitz batzuk: *gerriko*, *betaurreko*, *belarritako*... Baina horiek ez dira izenlagunak, ez dira arruntean izenekin erabiltzen.

**14.1j** Adjektiboez eta izenlagunez gain izenek har ditzakete beste izen edo izen sintagma batzuk ere modifikatzaile: *Nerbioi ibaia*; *Nelson Mandela presidentea*; *apartheid hitza*. Adibide hauetan izen propio batek, edo izen arrotz batek mugatzen du *ibai*, *presidente* edo *hitz* izenen eremua. Gramatika honetan

morfologian aztertzen dira horrelako egiturak (ikus “Aposizio egiturako hitz elkartuak” § 7.2.8). Bestelako egiturak ere aurki daitezke izena modifikatzen: *Stalin agintari krudel horrek; Koldo Mitxelena hizkuntzalari, idazle eta euskaltzain erreteriar bikainaren omenez*. Sintagma egiturak dira, azken adibide horietan, *Stalin* eta *Koldo Mitxelena* izenak modifikatzen ageri direnak; bi pertsona horien ezaugarriren bat nabarmentzeko funtzioa duten sintagma. Horietan guztietan sintagma bakarraren barruan gertatzen da modifikatze harremana. Bada, azkenik, bi izen sintagma ondoan emanik adierazten den modifikatze harremana ere: *Hillary Clintonek, AEBko presidentetzarako lehiatu zen lehen emakumeak*. Aposizio egitura esaten zaie aipatu ditugun modifikatze mota horiei guztiei (ikus § 28.9.2).

## 14.2. Adjektibo motak

### 14.2.1. Adjektibo kalifikatzaileak

Orain arte eman ditugun adibide gehienetako adjektiboak adjektibo kalifikatzaileak dira. Gramatika batzuetan adjektibo arrunt ere deitzen dira. Esan bezala, izenaren berezko ezaugarriren bat nabarmentzen dute. Adjektibo kalifikatzaileek koloreekin dute zerikusia (*gorri, zuri*), neurriarekin (*handi, txiki, luze*), izaerarekin (*eskuzabal, maitagarri*), formarekin (*makur, zabal*), izenaren bestelako ezaugarriekin (*berri, zahar, ikusgarri*), kopuru edo kantitatearekin (*bikoitz, bakun*) eta abar. Eta esan dugu holako adjektiboak izenaren eskuinean jartzen ditugula. Batzuetan, egiten den kalifikazio hori metaforikoa izan daiteke: *Zure hitz beltz horiek kezkatu utzi naute*. Baina, beste hizkuntza batzuetan ez bezala, euskaran ez du horrek aparteko eragin sintaktikorik sintagma osatzean.

Euskal hitz batzuek, hala ere, arazoak sortzen dituzte. Adjektibotzat jo izan dira gramatiketan (ikus, adibidez, EGLU-I: 159), eta izenaren eskuinean nahiz ezkerrean ageri dira. Harridura perpausetan hurrenkera aldatzen da: *handia, zientzialari hori!* Badira beste bi kasu gehiago: *-dun* atzizkiarekin osatutako hitzekin gertatzen dena, eta gentilizioekin (*-ar* atzizkia erabiltzen dutenekin,

bereziki). Horietan bi hurrenkerak onartzen ditu euskarak: *dirudun neska*, nahiz *neska diruduna*; *frantziar idazlea*, nahiz *idazle frantziarra*. Geroago (§ 14.2.3) itzuliko gara berriz ere puntu honetara, eta erabileraren gorabeherak hobeki zehaztuko ditugu. Adjektiboen arteko sailkapena dela eta, beste hizkuntza batzuetako gramatikek beste hitz mota batzuk ere sartzen dituzte adjektiboen artean: erakusleak (*hauek*, *horiek* eta horien parekoak, delako hizkuntzan), posesiboak (*neure*, *zure*... bezalakoak), galdetzaileak (*zein*, *zer*... bezalakoak), guk “zenbatzaile zehaztugabeak” deitzen ditugunak (*batzuk*, *guztiak* eta horien gisakoak) eta abar. Guk ez ditugu adjektibotzat hartuko. Edo forman oinarriturik, ingelesez, esaterako, gramatika batzuk “-ing bukatutako adjektiboez” mintzo dira. Horiek guztiek osatuko lukete adjektiboen multzoa: azkenekoa, batzuetan, euskararen *-tze*, *-le*, *-ari*... bezalakoak parekoa litzateke. Egia da *kantari* edo *saltzaile* gisako hitzek adjektiboen funtzioa izan dezaketela euskaraz (*neska kantari*, *gizon saltzaile*...) baina, nolana ere, horiek, adjektibo balira, adjektibo arrunten artean sartuko liriateke. Egokiagoa da, zernahi gisaz, izentzat hartzea, batzuetan adjektibo gisa erabiltzen ahal badira ere, beste izen batzuekin gertatzen den bezala: *gizon umea da hori* edo *mutiko astoa* esaten dugu, edo *neska oiloa*, nahiz *ume*, *asto* eta *oilo* izen hutsak diren, batzuetan adjektibo bezala erabiltzen ahal direnak. Hortaz, horiek ere ez ditugu adjektiboen artean sailkatuko.

Esan dezagun izena aldatzen duten hitzak bakarrik joko ditugula adjektibotzat, dela izenaren berezko ezaugarria nabarmentzen duten (*etxe handia*), dela kanpoko beste zerbaitekin erlazionatzen diren (*ingeniari industrial*). Lehenbiziko sailekoak adjektibo kalifikatzaileak dira, eta bigarrenekoak erreferentzia adjektiboak. Alde batera uzten ditugu, oraingoz, *-dun* eta *-(t)ar* atzizkiekin osatzen ditugunak.

### 14.2.2. Funtzio murriztailea duten adjektiboak

Adjektiboek berez funtzio murriztaile bat izan dezakete zenbaitetan. Hori da adjektiboen beste ezaugarri bat. Konpara ditzagun ondoko bi perpaus hauek: *Florentziako monumentu harrigarriek txundituta utzi naute*; *Ordenagailu*

*eramangarriak gero eta erabiliagoak dira.* Pentsatzekoa da Florentzian monumentu harrigarriak eta ez-harrigarriak izango direla, toki guztietan gertatzen den gisan. Baina hiztunak ez du bereizketa hori egin, eta hiri hartako monumentu guztiak jotzen ditu harrigarritzat. Edo, beste modu batera esanik, harrigarriak diren zerak bakarrik jotzen ditu monumentutzat. Gauza bertsua gertatzen da *hortz zuriak, haitz gogorrak, gau ilunak, ezpain gorriak* edo *belai berdea* diogunean, adibidez.

Aldiz, bigarren perpausean, *eramangarri* adjektiboak murriztapen bat ezarri dio *ordenagailu* izenari: hori esaten duenak nahita baztertzen ditu mahaiko ordenagailuak, eta multzo batekoak bakarrik aipatu nahi ditu. Bigarren perpausean, baina ez lehenbizikoan, erakusten du adjektiboak funtzioa murriztaile hori. Eta gauza bera gertatzen zaigu *kale estu, kafe bero* edo *irakasle maitagarri* esaten dugunean ere, adjektibo horiek kale, kafe eta irakasle mota batekin bakarrik lotzen baititugu.

### 14.2.3. *-dun* eta *-(t)ar* atzizkiak hartzen dituzten hitzen kategoriaz

**14.2.3a** Esan dugu gramatika batzuetan, EGLUn ere, *-dun* eta *-(t)ar* atzizkiekin osatutako hitzak adjektibotzat jotzen direla. Jakina denez, *-dun* atzizkiak bukatutako hitz horiek perpaus erlatiboetan dute oinarria: *dirua duen neska* perpausa izanik oinarrian ez da hortik zail pentsatzea perpaus horrek *dirudun neska* eman dezakeela. Horrek azalduko luke nola geratu diren *-dun* hitz horiek gramatikan izenaren ezkerrean, perpaus erlatiboak arruntean ezkerrean ematen ditugunez. Baina, aldi berean, egia da *-dun* hitz horiek eskuinean ere agertzen ahal direla (egungo euskaran arrunta da), perpaus erlatiboekin gertatzen den gisan: *neska dirua duena (neska diruduna)*. Azter dezagun, zernahi gisaz, lasaitasun pixka batekin kontu hau.

Esan dezagun, hasteko, atzizki hori hartzen duten hitzak ez direla gehiegi, kontrakoa ematen badu ere, euskaraz erabiltzen ditugun gainerako hitzen agerrialdi kopuruekin erkatuz gero. Gaurko euskaran, *-dun* hitz horien artean, maizen ageri dena *euskaldun* da, eta ondotik datoz, erabilerari dagokionez,

*arduradun, zaldun, txapeldun, haurdun, errudun, eledun, ahaldun, bizidun* eta *fededun*. Gainerako *-dun* guztiak ez dira gehiegi erabiltzen. Adibidez, *gorridun, koadrodun, loredun, zergadun, koloredun, lizentziadun* edo *esperantzadun* noizbehinka bakarrik ageri dira.

**14.2.3b** Zein da hitz horien kategoria? Esan bezala, Gramatika Batzordeak (EGLU-I: 159) adjektibo gisa sailkatu zituen, eta hurrenkerari dagokionez, *-dun* adjektibo horiek salbuespentzat hartu ziren, izenaren ezkerrean ageri baitira eta ez, euskal adjektiboetara berez dagokien tokian, eskuinean.

Baina badirudi arazoa pixka bat nahasiagoa dela. Hasteko, gehienetan ez bada, sarri askotan bakarrik ere ageri dira, ondoko izenik gabe. Hitz batzuen kasuan ia salbuespenik gabe ageri dira bakarrik, gainera. Horietan izena dela esan daiteke beldurrik gabe: *bost andre etorri dira, bost euskaldun etorri dira, bost zaldi etorri dira...* ez dirudi hor desberdintasun handiegirik dagoen, ez dago hor inolako ezabaketarik. Nekez esan daiteke adibide horietan *euskaldun* adjektiboa dela. *Hainbeste euskaldun bizi da hemen* esaten da, baina *\*hainbeste zuri bizi da*, edo *\*hainbeste gizen bizi da*, edo *\*hainbeste ekonomiko bizi da* ez da esaten euskaraz, testuinguru markatu batean ez bada. Ez da hori *euskaldun* hitzaren kasua, aise askatasun handiagoa baitu<sup>4</sup>.

Ohart gaitzen, gainera, izenek zenbatzaileak har ditzaketela: *Badira hemen bost andre; Badira hemen hamar euskaldun*. Ez, ordea, adjektiboek non ez den elipsia egiten: *Badira hemen kopa zuriak eta beltzak; Zurien artean badira bost estuak eta sei zabalak*. Hor *kopa* hitza isiltzen dugu, testuinguruagatik bai baitakigu zeri buruz ari garen. *Euskaldun* hitzak ez du holako debekurik.

Bestetik, adjektiboek gradu maila hartzen ahal dute: *Etxe hau beste hura baino politagoa da* esaten dugu, adjektiboari gradua emanez (§ 14.10), baina izenek gradurik hartzen ez dutenez, nekez esango dugu *\*gazte hau beste hura baino kaputxadunagoa da*, edo *\*zezen hori arras adarduna da*. Horrek erakusten du *-dun* hitz horiek izenak direla. Egia da, hala ere, *Miren Koldo baino*

<sup>4</sup> Egia da, ordea, beste adjektibo batzuekin ere gertatzen dela hori, izen bihurturik erabiltzen ditugu: *Ospitalea eriak sendatzeko eraiki dute*.



*euskaldunago* da esan daitekeela. Hori *euskaldun* hitzak gaurko erabileran gradu desberdinetako esanahia har dezakeelako gertatzen da. Ez da izen bakarra horretan: *txerriago*, *astoago*, *oiloago*... izen batzuk adjektibo gisa erabil daitezkeelako.

**14.2.3c** *Euskaldun* hitza, esan bezala, hainbestetan bakarrik erabiltzen dugu, beregaineko edozein izen bezala: *euskaldunek hau diote*, *euskaldun gutxi dago herri horretan* eta abar. Beste zenbaitetan, izenekin gertatzen den gisan, adjektibo baten laguntza ere izan dezake: *euskaldun prestua*. Hor ere izena da, izen arrunta. Baina badira *euskaldun herri* bezalakoak ere. Sintagma hori anbigua da: herria bera da euskalduna, txikia edo handia izan daitekeen bezala, eta orduan *euskaldun* adjektiboa litzateke, eta salbuespena, hurrenkerari dagokionez (*herri euskalduna* litzateke arruntena egun, *herri polita* bezala). Hala ere, egitura hori izen elkarketa arrunt gisa ere azter daiteke: *baratxuri herria* (*herri hori baratxurien herria* da) esaten den moduan esan dezakegu *euskaldun herria* (*herri hori euskaldunen herria* da). Adjektiboez ari bagara, eta gaurko euskara idatzia kontuan izanik, ez da dudarik *neska euskaldun* eredu dela idazleek gehien erabiltzen dutena, datuek erakusten dutenez. Dozenaka adibide daude *kazetari euskaldun* eta *ardura euskaldun* bezalako ereduak. Egia bada ere horiekin batera badirela *euskaldun neska* bezalakoak ere, baina aise gutxiago. Horiek dira datuak.

**14.2.3d** Badirudi, zernahi gisaz, *-dun* hitz horiek ez direla berdin erabiltzen orain eta historian zehar. Literatura klasikoan askoz ere sistematikoago gertatzen da *-dun* atzizkia duten hitzak izenaren ezkerrean agertzea: *euskaldun aitona*, *euskaldun herria*, *euskaldun jakintsua*, *euskaldun gizon*, *euskaldun gerlari* eta abar. Hori ikusten da D. Agirre, Arrese Beitia, Kirikiño, Mirande, Larzabal, Iztueta, Lizardi, Zamarripa, Iratzeder, Eizagirre, Otaño, J. A. Mogel, Orixe, Azkue, Mendiburu, Kardaberaz, Etxeita, Labaien, Lhande, Iraizoz, Lafitte, Zerbitzari eta beste idazle batzuetan. Egia da noizbehinka hausten dela araua (*irakurle euskaldun*), baina literaturan salbuespenak dira holakoak. Larrekok, ordea, maiteago ditu *andre euskaldun*, *adiskide euskaldun*, *andre euskaldun edo gaixo euskaldun* tankerako hurrenkerak. Baina *euskaldun gazteria* ere erabiltzen du.



**14.2.3e** Aldaketa bat gertatzen ari da *euskaldun neska* eredutik (maizago erabilia tradizioan) *neska euskaldun* eredura (aise gehiago erabilia gaur egungo testu idatzietan). Esan daiteke, hortaz, aldaketa hau gertatzen ari dela urteen indarrez: perpaus erlatiboa + izena → *-dun* adjektiboa + izena → izena + *-dun* adjektiboa. Eta euskaldunok, *-dun* hori bere toki naturalera eramaten dugula, behin erlatibotasun izaera galdurik: izenaren eskuinera. Kasu horretan, *-dun* adjektiboa dagokion tokian egongo litzateke. Horregatik diogu adjektiboa dela. Besteetan, aurretik doanean, *-dun* atzizkiak osatzen duen hitza izena izan daiteke (*euskaldun herri*) *langile*, *kantari* edo *saltzaile* izenen parekoa. Edo adjektiboa, batez ere erabilera klasikoan (*euskaldun neska*).

Gertatzen ari den aldaketa hori garbiago ikusten da *-dun* duten gainerako hitzen kasuan.

**14.2.3f** Gehienak bakarrik erabiltzen dira aski modu arruntan: *ardura-dun*, *zaldun*, *txapeldun*, *haurdun*, *errudun*, *eledun*, *ahaldun*, *bizidun*, *fededun*, *akziodun*, *elebidun*, *kargudun*, *hobendun*, *zordun*, *erdaldun*, *ahalguztidun*, *zentzudun* eta abar. Edozein izen bezala: *Txapeldunak sartu dira*; *Pentsiodunek dirua galdu dute*; *Bekadun gutxiago aurten* eta abar. Izenak dira holakoetan. Izen elkarketan ere agertzen ahal dira: *txapeldun izaera*; *pilota txapeldun*. Edo adjektibo gisa: *gazte txapeldun*. Hori gertatzen da *-dun* formako gainerako hitzekin ere. Hori gertatzen da *-dun* atzizkia duten hitz gehienekin.

**14.2.3g** Gentilizioak ditugu bigarren sailekoak, *-(t)ar* multzokoak alegia: pertsonak nongoak diren esaten digute adjektibo horiek. Hola, *zarauztar*, *frantziar*, *donostiar*, *bizkaitar*... bezalakoak biltzen ditugu multzo honetan. Ikusten denez, leku izenari *-(t)ar* atzizkia erantsirik osatzen ditugu adjektibo hauek. Izenari dagokionez, zer toki hartzen dute? Bada, arau estuak ematea ezinezkoa da.

Gaurko idazleen artean *jokalari donostiar*, *erdilari donostiar*, *aurrelari donostiar*, *izaera donostiar* tankerakoak arruntak dira. Baina *donostiar egunkari*, *donostiar musikari*, *donostiar izaera*, *donostiar kazetari*, *donostiar bizi-modu*, *donostiar idazle*, *donostiar kronista*, *donostiar poeta*, *donostiar merkatari*, *donostiar eskultore* bezalako adibideak ere anitz dira.

**14.2.3h** Atzizki honekin osatutako hitzen izaeraz Artiagoitia (2002a) arduratu da, besteak beste. Gentilizio deitzen diegu hitz horiei, baina egiazko erabilera ez da gentilizioetara mugatzen. Hor sartzen dira herria edo sorterria adierazten duten aipatu adjektiboak: *lesakar*, *bermeotar*...; izen berezi edo deitura batetik sortuak: *agirretar*, *goenagatar*, *azkaratear*, *garziatar*, *kingtar*, *muxikar*... eta horrekin izendatzen da familia horietako kide dena; hirugarren multzo batean sartzen dira izen arruntetik sortutako batzuk ere: *baserritar*, *herritar*, *eskuindar*, *menditar*, *kaletar*...; eta bada oraindik beste multzo bat ere, izen berezietatik sortzen dena eta beharbada eztabaidagarriago izan daitekeena euskaraz: *domingotar*, *erasmotar*, *freudiar*, *kafkar/kafkatar/kafkiar* (denak erabiltzen dira gaur egun), *orwelldar*, *euklidiar* eta abar. Azken saileko horiek ez dute deus ikustekorik familiakoekin eta jarraitzaileen izaerari egiten diote erreferentzia (*oinaztarrak* eta *ganboatarrak* bezala).

-(t)ar atzizkiak osatutako hitzak, -dun atzizkiarekin osatutakoekin gertatzen den gisan, izen gisa erabiltzen ditugu maiz, bakarrik, baina ez dira falta *auzo herritar* bezalakoak, anizteta ageri direnak, prentsan batez ere. Hor adjektiboak da. Erabilera arrunta da hau, eta hori ongi ikusten da egungo testuetan: *uhin zerutiar*; *eiakulazio goiztiar*; *produktu atzerritar*; *bisitari gautar* eta abar. Literatura klasikoan ere anitz dira holakoak: *jatorri goitar* (Agirre); *matematika goitar* (Labaien); *kide goitar* (Lizardi); *arazo goitar* (Erkiaga); *izar ibiltaun goitar* (Azkue); *medizina eskuar* (Axular); *artzain menditar* (Barren-soro); *pizti gautar* (Loramendi); *nekazari basotar* (B. Mogel) eta abar. Horietan guztietan adjektibo arruntak dira, izenaren eskuinean kokatzen direnak eta ez dute, hortaz, arazorik sortzen.

**14.2.3i** Bada, dena den, beste multzo bat ere: kasu batzuetan izenaren ezkerrean ageri dira gentilizio hauek. Arrunta da hori herri izenetik sortzen diren -(t)ar guztiekin. Adibidez, oso sistematikoa da hori *politikari* hitzarekin: *kirgizistandar politikaria*, *txekoslovariatar politikaria*, *costarricar politikaria* eta abar (ez dugu alderantzizko eredu korrik, hots, *politikari -ar* bezalakorik, aurkitu). Baina ez dira horiek bakarrak: *herritar gerla*, *baserritar esnea*, *atzerritar multzo* bezalako adibideak denak oraingo testuetakoak dira. Tradizioan ere ez dira falta: *goitar handiki* (Agirre); *menditar gizakote* (Agirre); *gautar poeta*

(Mirande); *basotar sagu* (Mogel). Horietako batzuk izentzat har daitezke: zail da esatea zer deberdintasun dagoen *espainiar politikaria* eta *politikari espainiarra* sintagmen artean, inolako desberdintasunik baldin bada ere. Neurri batean, *-(t)ar* atzizkidun hauek *-dun* atzizkidunek dituzten zalantza berak sortzen dizkigute, kategoriari dagokionez. RAEko hiztegiak adjektibotzat jotzen ditu gaztelaniaz dauden horien pareko hitzak, baina frantseseko Robert hiztegiak adjektibo eta izentzat.

**14.2.3j** Hizkuntza batzuetan euskararen *-(t)ar* gentilizioen parekoei adjektibo bereziak deitzen zaie. Izen arruntak (*mahai, neska*) eta bereziak (*Jone, Iker*) bereizten ditugun gisan, hizkuntza batzuek adjektibo arruntak (*handi, eder*) eta bereziak (gentilizioak) bereizten dituzte. Arrazoi horregatik ingelesez, esaterako, adjektibo “berezi” hauek letra larriz idazten dira beti: *Spanish, Basque* eta abar. Frantsesez ere gauza bera gertatzen da.

Nolanahi ere den, hau esan dezakegu: *-dun* eta *-(t)ar* atzizkidun hitzak izenaren ezkerrean erabiltzeko joera izan bada ere, tradizioan ikusten denez, ez dela hori euskarak izan duen joera bakarra, izenaren ondotik ere erabili baitira, edozein adjektibo bezala. Bestetik, oso arrunta dela, bai kasu batean, bai bestean, izen gisa erabiltzea. Eta egungo idazkietan eskuineko aldean jartzeko joera handiagoa dagoela (*Euskal Bilgune Islamiarra*, EBI, da azken aldiotan sortutako elkarte baten izena). Beraz, izen edo adjektibo izan daitezke. Adjektibo direnean, gero eta joera handiagoa dugu eskuinean jartzeko. Batzuetan, hala ere, batez ere tradizioan edo gaur egun hitz zehatz batzuetan, izenaren ezkerrean ere ageri dira.

Batzuetan *-(t)ar* honen erabileraz gehiegikeria egiten da: *Zorrotza auzo bilbotarra; Anoeta herri gipuzkoarra; Eskulangileek kale gasteiztarrak bete dituzte...* Horien ordez beste modu hauek askoz ere egokiagoak dira: *Zorrotza Bilboko auzoa; Anoeta, Gipuzkoako herria; Eskulangileek Gasteizko kaleak bete dituzte...*

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 178. araua: “Kanpo leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak”.

#### 14.2.4. Beste gentilizio batzuk

**14.2.4a** Badira beste gentilizio batzuk ere, kanpoko hizkuntzetatik zuzenean mailegatzen diren adjektiboekin eginak, leku izena kanpotarra denean: *frantses*, *italiano*, *erruso*, *ingeles*... Horiek ere erabiltzen dira euskaraz (jakina, *frantziar*, *italiar*, *errusiar*, baztertu gabe), baina ez dute denek bide bera segitzen, eta erabilera zalantzak sortzen dira zenbaitetan. Iparraldean arrunta da *erruso presidente*, *erruso jakintsu* edo *erruso tropa* bezalakoak ikustea *Herria* aldizkarian, esate baterako. Hegoaldeko hiztunek nahiago dute berez gentilizio mailegatua den *erruso* hitza, edozein adjektibo gisan, izenaren eskuinean jarri: *azentu erruso*, *jatetxe erruso* eta abar. Baina *italiano idazle* bezalakoak ere ikusi ditugu idazkietan. Zalantzak ikusten dira, nolahi ere, egungo erabileran, gauza bera adierazteko: *frantses hiztun* / *hiztun frantses*. Batzuetan, paraleloak diren egitura horietan bereizketak egin daitezke: gauza bat baita *akademia frantses* (Frantzian dagoen edozein akademia) eta *frantses akademia* (frantsesa irakasten den akademia). Berdin gertatzen da *setter ingelesa* (Ingalaterrako setterra) eta *idazle ingelesa* (Ingalaterrako idazlea, beste hizkuntza batean idazten badu ere).

Diogun gisan, *idazle ingelesa* (Ingalaterrako idazlea) batera *ingeles idazlea* sintagmak ere badu lekua (ingeles idazten duena da hori, nonahikoa dela ere). Zer egin, ordea, *setter ingelesa* / *ingeles setterra* bikotearekin, bietara ageri denez gero. Hor nekez balio dezake *ingeles idazlea* / *idazle ingelesa* bikotekideen artean egin dugun bereizketak. Baditugu *ingeles hiztun*, *ingeles itsasgizon* eta *ingeles musikagile*, eta horiekin batera *hiztun ingelesa*, *itsasgizon ingelesa* edo *musikagile ingelesa*. Bietara erabiltzen dira holakoak, *estatu frantsesa* / *frantses estatua* edo *telebista frantses* / *frantses telebista* bezala. Horien esanahietan ez da bereizketarik, eta badirudi adjektiboa eskuinean nahiz ezkerrean ageri dela.

**14.2.4b** Esan dezagun, azkenik, *ingeles filologia*, *frantses estatu* edo *errusiar akademia* bezalakoetan egokiagoa dela, agian, gentilizioa adjektibotzat hartu beharrean izentzat hartzea, eta orduan izen elkartua izango genuke: *ingeles filologia*, beharbada, *euskal filologia* bezala sentitzen dugu, bi izenek osatua.

Sail berekoak dira euskal literaturan ikusten ahal diren *giristino legea*, *giristino herria* bezalakoak. Kasu horietan ere, *giristino*, *ingeles* bezala, ez da adjektiboa, baizik izena: giristinoen legeaz ari gara. De Rijkek ere (2008: 18) *Euskal Herria*, *giristino legea* eta *frantses gizona* izen elkartutzat hartzen ditu<sup>5</sup>. Zernahi gisaz, *lege giristino* (giristinoa den legea) eta *giristino legea* (giristinoek duten legea) bereizi badaitezke ere, ezin da holakorik egin *arazo ekonomiko*, *laguntza sozial*, *hizkuntza nazional* edo *istripu laboral* bezalakoekin. Horien pareko izen elkartuak *ekonomia arazo*, *gizarte laguntza*, *nazio hizkuntza* eta *lan istripua* dira, bi izenek osatzen dituzte. Edo, berehala ikusiko dugunez, *euskal gizartea* bezalakoak.

**14.2.4c** Laburtuz: gentilizio hauen kasuan ere (-*dun* hitzekin gertatzen den gisan) badirudi izenak ditugula (bakarrik ageri direlarik, edo elkarketan) eta adjektibo, bestela, izenaren eskuinean jartzen ditugunean. Eta testu modernoetako joera, hain zuzen, hori dela, eskuinera eramatea.

Beste atal batean (§ 14.1c) aipatu dugu adjektibo kalifikatzaileak izenaren eskuinean ageri direla: *etxe berri*, *idazle apal*. Eta *\*ekonomiko arazoak* bezalako sintagmak ez daudela zuzen eratuak, hurrenkerari dagokionez. Gauza bera, hortaz, *alderdi politikoak* (*\*politiko alderdiak*), *laguntza sozialak* (*\*sozial laguntzak*) eta *hizkuntza nazionala* (*\*nazional hizkuntza*) bezalakoekin. Hori da hurrenkera arrunta.

### 14.2.5. *Euskal langileria* tankerakoen izaera

Zer gertatzen da orduan *euskal langileria*, *euskal gizona* edo *euskal liburua* bezalakoekin? Ez al da *euskal* hori adjektiboa? Ez, ez da hala, izena da: *euskara* dugu hor azpian, eta beste izen batekin elkartzen denean *euskal* ematen du. Hitz elkarketan ezartzen den lege zaharra da hori, bi silaba baino gehiago dituen hitzetan (kasu honetan hiru: *eus-ka-ra*) ezartzen dena. Gaur egun, hala

<sup>5</sup> *Gaixo gizona* ere izen elkartutzat hartzen du hor berean, baina ez dugu arrazoi garbirik ikusten hor *gaixo* izentzat jotzeko.

ere, lege horrek pisua galdu du, nahiz *merkatal gune* (*merkatari-gune*), *merkatal ganbara* (*merkatari ganbera*) bezalakoetan ere ezartzen den. *Unibertsital arazoak* bezalakoek ez dute holako arrakastarik izan.

### 14.2.6. Erreferentzia adjektiboak

**14.2.6a** Orain arte adjektibo kalifikatzaileak (*polit*) eta bestelakoak bereizi ditugu (*euskaldun*, *greziar*). Sailkapen anitz egin izan dira adjektiboen artean. Euskararen kasuan honako hauek proposatzen ditugu.

Badira, batetik, adjektibo kalifikatzaileak, esan bezala: *handi*, *polit*, *eder*, *itsusi* eta abar. Bigarren multzo batean sartzen ditugu erreferentzia adjektiboak. Adjektibo hauek ere, jakina, izena kalifikatzen dute, baina, nolabait esateko, aurrekoak ez bezala, ez dira adjektibo arruntak, izenari ematen dioten kalifikazio hori ez da berezko kalifikazioa, baizik kanpoko beste zerbaitekin erlazionatuz izenak irabazten duen zerbait. Holakoak dira *donostiar*, *gasteiztar*, *dirudun*, *sozial*, *nazional*, *filosofiko* eta abar. Adjektibo kalifikatzaileek abstraktua den ezaugarri batekin (*edertasuna*, *handitasuna*) lotzen dute izena, ezaugarri hori izenak berezkoa balu bezala, baina erreferentzia adjektiboek kanpoan dagoen beste errealitate batekin lotzen dute izena: *nazioa*, *Donostia*, *dirua*, *filosofia* eta abar. *Frantses irakaslea* sail berekoa litzateke. Erreferentzia adjektibo horiek nekez hartzen dute graduatzailearik (*?nahiko donostiarra da*, *?testuliburu hori beste hura baino ingelesagoa da*) edo konparazio atzizkirik (*?Odon Markel baino donostiarragoa da*<sup>6</sup>, *?oso krisi ekonomikoa da*).

**14.2.6b** Erreferentzia adjektiboen sail honetan, dena dela, bi azpisail bereizi izan dira (Zabala 1997: 536): batetik, adjektibo sailkatzaileak (*irakasle inge-*

---

<sup>6</sup> Horiek onartzekoak dira, zernahi gisaz, erreferentziakoak izanik aldatu eta kalifikatzaile izatera pasatu direnean (izenak adjektibo gisa erabiltzen direnean bezala: *asto*, *txerri*...; edo adjektiboak adberbio gisa erabiltzen direnean (§ 14.8)). Ez da gauza bera, baina batzuetan gertatzen dira horrelako aldaketak, *Mikel oso profesionala da* diogunean, adibidez.

*les, arazo politiko*), eta adjektibo tematikoak (*eraso errusiar*: ‘errusiarrek egin duten eraso’), bestetik. Jakina, adjektibo bera, ingurunea nolakoa duen, bata (sailkatzailea: *neska errusiarra*) nahiz bestea (tematikoa: *eraso errusiarra*) izan daiteke.

### 14.2.7. Adjektibo adberbialak

Hirugarren multzo batean sartzen dira adjektibo adberbialak: *negu hurbila, mendi urruna, leiho berria, hiztun argia, kantu arina, egun iluna, zeru goibela* eta abar. Batzuetan, hala ere, sailkapen honetan ageri diren multzoen arteko mugak ongi bereiztea ez da batere kontu erraza, eta horregatik, autore batzuek nahiago dute oroz gain bi multzo bakarrik bereizi: adjektibo kalifikatzaileak eta erreferentzia adjektiboak.

### 14.2.8. Adjektiboen bestelako sailkapen batzuk

#### 14.2.8.1. Adjektibo ebakitzzaileak

Gramatiketan beste sailkapen mota batzuk ere ageri dira, beste mota bateko irizpideak erabiltzen direlarik. Ikus ditzagun bi adibide hauek: *irakasle gizona* eta *irakasle ona*. Bietan ageri da adjektibo kalifikatzaile bat (*gizona, ona*) dagoen izenaren ondotik. Baina kontura gaitezen predikazio erlazioa ez dela berdina batean eta bestean. Lehenbizikoan ari gara esaten norbait irakaslea dela eta, gainera, gizona dela. Baina bigarrenean, ez: bigarrenean ari gara esaten norbait irakasle bezala ona dela. Multzoen arteko ebakidura nola egiten den, horrek markatzen du sintagma hauen esanahia. *Irakasle gizona* diogunean, norbait *irakaslea* eta *gizona* dela diogu, baina *irakasle ona* diogunean ez gara esaten ari norbait *irakaslea* dela eta, gainera, pertsona *ona*: oso ona izan liteke irakasle bezala (eta hori ari gara esaten), baina aski txarra pertsona bezala. Aldiz, *irakasle gizona* baldin badiogu, pertsona hori *irakaslea* dela ari gara esaten, eta pertsona *gizona*, aldi berean. Lehenbizikoei adjektibo ebakitzzaileak esaten zaie, eta ez-ebakitzzaileak, berriz, bigarrenei.

### 14.2.8.2. Adjektibo ez-ebakitzailak

**14.2.8.2a** Adjektibo ez-ebakitzailak ez dute ematen sintagmaren denotazioa ebakidura bidez, hori da haien ezaugarri nagusia: *irakasle ona* ez da sortzen munduko *irakasle* multzoko (zernahi direla ere “irakasleak” norberak eraikitzen duen mundu kulturalan) eta munduko *on* multzoko (zernahi direla ere “onak” norberak eraikitzen duen mundu kulturalan) banakoak elkartuz, baizik irakasle multzokoak hautatuz eta multzo horretan aukeratzen dira *on* izateko baldintzak —norberaren ustean— betetzen dituztenak hartuz. Baina *irakasle gizona*, ordea, ez da hola sortzen: horren denotazioa ebakidura bidez sortzen da (*irakasle* multzokoak, eta *gizen* multzokoak hartuz).

**14.2.8.2b** Adjektiboari buruz egin diren lanetan, holako adjektibo ez-ebakitzailak horiek moduzko adberbioekin lotu izan dira: *irakasle ona*, berez, *ongi irakasten duen norbait* da (*irakasle on – ongi irakatsi*), nahiz erlazio hori ez den beti sistematikoa, eta batzuetan ez da betetzen: *ganibet ona* (*irakasle* izena *irakatsi* aditzarekin erlazionatua da, baina *ganibet* izenak ez du pareko aditzik). Adjektibo ez-ebakitzailak hauek badute beste ezaugarri bat ere aipatzekoa dena: *handi*, *txiki*, *zabal* edo *gizen* adjektiboek propietate erlatiboak adierazten dituzte eta izen batez predikatzen dira, baina aldi berean eta perpaus berean adjektibo horren antonimoa ere predika daiteke izen horretaz, inolako kontraesanik sortu gabe: *kukuso handiena ere beti izango da ttipia* eta *elefante ttipiena beti izango da handia*. Izen ebakidura (*intersección designativa*) esaten zaio honi.

Baina gramatikari batzuek ez dute argi ikusten kontu hau eta uste dute gramatikaren barneko irizpideak eta gramatikaz kanpokoak nahasten ditugula. Hala, esate baterako, *erauntsi ikusgarria* esaten badugu, esan genezake *erauntsi* hitzak duen denotazioa (munduan izen hori daramaten euri zaparradak) eta *ikusgarri* hitzak duen denotazioa (ikustea merezi duten gauzak) ebakiz sortzen dela (*irakasle gizona* bezala). Baina gramatikaren aldetik, ordea, ez dirudi hori horrela den. Esan daiteke *ikusgarri* adjektiboak *erauntsi* hitzaren denotazioa zehazten duela, hitz horri, eta horri bakarrik, nolabaiteko ezaugarria gehituz: ikustea merezi duen erauntsien arteko bat. Beraz, *erauntsi ikusgarria izan zen*



*hura* diogunean, *ikustea merezi izan zuen erauntsia izan zen hura* ari gara esaten. Ez da kontua *erauntsi* multzoa hartzen dugula kontuan eta *ikusgarrien* multzoa (irakasle – gizen), baizik erauntsiak bakarrik, eta hortik *ikusgarri* direnak (irakasle – on).

**14.2.8.2c** Adjektibo ez-ebakitzailen barneko multzo berezi bat osatzen dute espresuki gauzatzen edo adierazten ez den, baina testuingurutik, aditz bat dela eta, interpretatzen ditugun adjektibo batzuek. Beste zenbaitetan, markatzen duten izenaren ezaugarri lexikoeak argitzen dute nolakoa den adjektiboa. Holakoak dira *idazkera erraza*, *liburu zaila*, *etxe eroso* eta abar. *Idazkera erraza* diogunean *erraz idazten duen norbaiti buruz* ari gara, *liburu zaila* esaten dugu *irakurtzeko erraza ez den liburu batez* ari bagara eta *etxe eroso* baldin badiogu, *han bizitzeko eroso den etxe batez* ari gara. Ohart gaitezen *aulki ikusgarri horretan liburu zail hau gogo handiz irakurriko dut* esaten badugu hor ageri diren izen-adjektibo erlazioak aski desberdinak dira: batzuk zuzenean interpreta daitezke (*handi*), baina beste batzuek kanpoko erreferentzia (*zail*) ezinbestekoa dute. Kanpoko erreferentzia hori, jakina, era askotakoa izan daiteke, nolakoa den izena bera: *liburu zaila (irakurtzeko)*, *bide zaila (ibiltzeko)*, *partida zaila (irabazteko)*, *sarrera zaila (aurkitzeko)*, *argudiobide zaila (ulertzeko)*, *baldintza zaila (betetzeko)* eta abar. Betiere inguruneak garrantzi handia du holako adjektiboetan, eta horregatik, gramatikari batzuen artean eztabaidak sortu izan dira. Esaterako, *liburu zaila* diogunean gehienek pentsatuko genuke “irakurtzeko zaila” dela. Baina idazle baten ikuspuntutik liburu “zaila idazteko” izango da, edo marrazkiak egiten dituen baten ikuspuntutik “zaila ilustratzeko”, inprimatzaile baten ikuspuntutik “zaila inprimatzeko”, edo liburu denda baten jabearen ikuspuntutik “zaila saltzeko”. Gauza bera gertatzen da *ganibet ona* baldin badiogu: gehienetan “mozteko ona” dela pentsatuko dugu, baina zirku batean norbait baldin badabil ganibetak zerbaiten kontra distantziazatik botatzen, ganibet hori ona dela pentsatuko du “zerbaiten erdian edo inguruan sartzeko”, adibidez. Kontua da noraino eraman behar den analisi semantikoa: formen eta esanahien arteko erlazio objektiboen berri eman behar du, edo hiztunen kontzientzian dauden formen eta esanahien arteko erlazio nabarmenen berri? Hizkuntzalariak ez datoz bat.

### 14.2.9. Epitetoak

Bada, azkenik, beste azpisail bat adjektiboen artean: epitetoek osatzen dutena. Adjektibo hauek ere, orain arte ikusi ditugun adjektibo kalifikatzaileek bezala, aldatzen duten izenaren berezko propietate bat nabarmentzen dute. Ezaugarri hori berezko propietatea izan daiteke edo, beste batzuen ustetan, hiztunaren uste subjektiboarekin erlazionatzen den propietatea. Euskaraz *zeru urdin*, *uste on*, *uste ustel*, *uste apal*, *elur xuri*, *gaixotasun larri*, *gau ilun*, *gau beltz* bezalakoak sartuko genituzke atal honetan.

## 14.3. Adjektibo bat baino gehiago izen sintagmaren barnean

### 14.3.1. Adjektiboen tokia

**14.3.1a** Adjektiboak izenaren inguruan hartzen duen tokiaz aritu gara aurreko pasarteetan. Eta *-dun*, *-(t)ar* amaiera duten hitzek sortzen dituzten arazoak kendurik (§ 14.2.3), adjektibo arruntak izenaren eskuinean ageri direla esan dugu. Kontua da, ordea, izenek adjektibo bat baino gehiago ere hartzen ahal dutela. Adjektibo horietako bat gentilizioa edo *-dun* amaierakoa bada, jakina, izenaren ezkerrean agertzen ahal da, adjektibo segida arintzeko-edo, eta kalifikatzailea, berriz, eskuinean: *hondarribiar mutil gazte bat*; *dirudun andre zaharra*; *nafar mediku famatua*. Hala ere, biak eskuinean ere ikus ditzakegu: *mutil gazte hondarribiarra*; *andre zahar diruduna*; *mediku nafar famatua*. Hala ere, hurrenkera guztiak berdinak dira? Beste hitzetan esateko, *mutil hondarribiar gaztea*, *andre dirudun zaharra* edo *dirudun andre zaharra* bezalakoak berdin erabiltzen ditugu euskaraz? Berdin ditugu *nafar mediku diruduna*, *mediku nafar diruduna* eta *mediku dirudun nafarra*?

Ikusten den gisan aukera anitz ditugu eskura. Zaila da hor arau estuak ematea, baina, lekukotasunak aztertuz, esan daiteke hurrenkera batzuek aukera handiagoa dutela beste batzuek baino. Kontuan izanik adjektiboak izenari buruzko informazio gehigarria ematen digula (kolore, tamaina, luze/laburreko neurria, adina...), informazio horietatik garrantzitsuen sentitzen duguna izenaren

ondoan jartzeko joera dugu: *herri txiki polita* diogunean tamaina azpimarratu nahi dugu eta *herri polit txikia* diogunean, berriz, gehiago nabarmendu nahi dugu herriaren edertasuna. Tamaina eta kolorea adierazten duten sintagmetan kolorea lehenago aipatzeko joera dugu: *kapela urdin zabal*, *kapela gorri handia*, *pipa beltz motza* bezalakoak errazago ateratzen dira *kapela zabal urdina*, *kapela handi gorria* edo *pipa motz beltza* baino, nahiz azken hau J. B. Elizanburuk erabiltzen duen. Zernahi gisaz, esan bezala, hiztunak zein adjektibo sentitzen duen garrantzizkoago, hura jarriko du izenaren ondoan.

**14.3.1b** Lafittek (1962: 120) aipatzen du hiztunaren asmo pragmatikoak agintzen duela adjektiboen hurrenkera. Hori aurretik esandakoarekin loturik egongo litzateke (zer azpimarratu nahi dugun, hori jarri lehenik, alegia), baina ezaugarri pragmatiko horrekin hitzen “harmonia” ere aipatzen du. Hau da, badirudi hizkuntza aldetik hurrenkera batzuk harmonizatuago leudekeela beste batzuk baino. Harmonia horren barnean kokatuko litzateke lehenik laburra eta gero luzea hurrenkera, EGLUK ere aipatzen duen gisan (EGLU-I: 162). Goenagak (1980) ere gauza bera dio.

### 14.3.2. Adjektiboen hurrenkera hierarkia

**14.3.2a** Gai hau, adjektiboen hurrenkerarena, munduko beste zenbait hizkuntzatan ere aztertu izan da, eta hizkuntzalariek nolabaiteko hierarkiak seinatu izan dituzte adjektiboen erabileran, indar unibertsala izango balute bezala. Hola, Artiagoitia (2002a), Sproat eta Shih (1991) ikertzaileek proposatutakoaz baliatzen da. Adjektibo multzoen ordenak hurrenkera hau segituko luke: kalitatea, neurria, forma, kolorea, jatorria. Beraz, *loreontzi txinatar zuri txikia* egokiago litzateke, hizkuntzetan hedatuago litzateke, *loreontzi zuri txiki txinatarra* baino. Hor izenetik urrunen dagoenetik hurbilen dagoenera irakurri behar da hierarkia. Egokiago, hortaz, *loreontzi zuri txikia* sintagma *loreontzi txiki zuria* baino. Egokiago *irakasle donostiar gizona* sintagman ikusten den hurrenkera *irakasle gizen donostiarra* baino. Pragmatika kontua izan daiteke erabakitzea zer nahi dugun azpimarratu, hurrenkeren artean hautua eginez: *ardo beltz ona*, edo *ardo on beltza*. Oyharçabalek (2006b) ere aztertua du kontu hau eta ondo-

rio hauetara iritsi da, Scott-en (2002) hierarkia segituz: *negu hotz luzea, salda bero ona, zaku pisu lodia, bide zabal lasterra, mutiko gazte ederrak, leiho erronda handia, eskultura fin gora bat* hurrenkerak neutroagoak dira *negu luze hotza, salda on beroa, zaku lodi pisua, bide laster zabala, mutiko eder gazteak, leiho handi erronda, eskultura gora fin bat* hurrenkerak baino. Artiagoitiak (2006: 149) dioenez, itxuraz irmo diren hurrenkera horiek —nahiz aldaketak egin daitezkeen— bat datoz beste zenbait hizkuntzaren kasuan proposatu diren aldaketekin.

**14.3.2b** Scotten hierarkia kontuan izanik, hurrenkera hauek ikusten ditu Artiagoitiak euskal literaturan:

- Jatorria, adina: *Sukaldari frantses gazte bat* (H. Etxeberria); jatorria, tamaina: *Kamioi poloniar handi bat* (H. Etxeberria).
- Jatorria, ebidentziala eta ebaluazioa: *Idazle frantses ospetsu bat* (K. Izagirre).
- Kolorea, forma: *Harri gorri borobil bat* (Atxaga).
- Kolorea, adina: *Zodiac gris berria* (K. Izagirre); kolorea, hezetasuna: *Lur beltz bustia* (Saizarbitoria).
- Kolorea, tenperatura: *Urre dirdiratsu bero bat* (Mirande).
- Kolorea, zabalera: *Euli urdin gizenak* (K. Izagirre).
- Kolorea, tamaina, ebaluazioa (?):<sup>7</sup> *Tximeleta urdin txiki bat* (Atxaga); *Petalo zuri txikia* (Atxaga); *Begi beltz handi biguna* (Agirre); *Iceberg beltz txikerra* (K. Izagirre).
- Kolorea, kopurua (?), ebidentziala (?): *Baso zuri sarria* (K. Izagirre); kolorea, ebaluazioa: *Goiz argi eder hartan* (Erkiaga); *Aurpegi zuri leunak* (Agirre); *Begi beltz ederrak* (Barriola); *Tortura zuri ospetsua* (K. Izagirre); *Ezpain zuri margotu berriak* (H. Etxeberria); *Neska ilegorri ederra* (Saizarbitoria); *Zur ilun garestia* (K. Izagirre); adina, pisua: *Brui gazte armatuak* (K. Izagirre).

---

<sup>7</sup> Galdera marka horiek Artiagoitiarenak dira.

- Adina, ebaluazioa: *Morrosko gazte ederra* (Etxeita); *Arropa zahar zikindua* (K. Izagirre); *Bikote gazte zintzurtu* (K. Izagirre); *Neska gazte guztiz ederra* (Saizarbitoria); *Arropa zahar garbia* (K. Izagirre).
- Hezetasuna, tamaina: *Intsektu idor txiki-txikia* (H. Etxeberria); tenperatura, tamaina: *Dutxa bero azkarra* (H. Etxeberria).
- Zabalera, ebaluazioa: *Bekoki zabal garbiak* (Agirre).
- Goiera, ebaluazioa: *Apaiz altu baldarra* (Saizarbitoria); luzera, kopurua (?): *Oihu urrun bakan batzuk* (K. Izagirre).
- Luzera, ebaluazioa: *Galtza motx hutsetan* (Atxaga); *Mahai luze betea* (K. Izagirre).
- Tamaina, ebaluazioa: *Etxebizitza txiki polita* (K. Izagirre); *Gizon txipi urduria* (K. Izagirre).

**14.3.2c** Erreferentzia adjektiboak eta adjektibo arruntak (kalifikatzaileak) elkartzen ditugunean, haiek hurbilago daude izenetik bigarrenak baino: *Kontzeptu etiko distorsionatua* (K. Izagirre); *Ekintza politiko interesgarria* (K. Izagirre); *Motozerra elektriko txiki* (H. Etxeberria); *Osagai kimiko soila* (H. Etxeberria); *Gai kimiko astun* (H. Etxeberria); *Militante ezkertiar zintzoa* (Saizarbitoria); *Oso adimen politiko laburra* (K. Izagirre). Adibide guztietan, erreferentzia adjektibo sailkatzaileak dira. Adjektibo tematikoak direnean badirudi lehenik adjektibo hori doala, eta gero kalifikatzailea: *eraso islamiar bortitza*; \**eraso bortitz islamiarra*.

## 14.4. Izen koordinatuak eta adjektiboak

Zenbait izen sintagma izenondo bakarra izanik ere, izen bat baino gehiago erakusten dute, askotan *eta* juntagailuaren bidez lotuak. Horrelakoetan izen sintagma osoa hartu behar da kontuan, bi izenek bat egingo balute bezala: *haren samurgo eta haserre* baldin badiogu, esaterako, singularrean doa (\**haren samurgo eta haserreak*) eta aditza ere hola eskatzen du gehienetan:

*haren samurgo eta haserreak kezkatu ninduen/\*ninduten, edo ikusi nuen/\*nituen haren samurgo eta haserrea. Horri adjektibo bat eransten baldin bazaio, singularrean doa: haren samurgo eta haserre handia/\*handiak ikusi nuen. Berdin haren samurgo eta haserre handiak kezkatu ninduen. Aldiz, haren samurgo eta haserre handiek kezkatu ninduten esan daiteke, jakina, baina kasu horretan haserrea bera da plurala: haren haserre handiak ikusi nituen.*

## 14.5. Partizipioa eta adjektiboa

**14.5a** Aditza hiru modutan agertzen zaigu euskaraz: partizipio (*sartu*), aditzoin (*sar*) eta aditz izen (*sartz-*) bezala (ikus 25. kapitulua), nahiz batzuetan aditzoinak eta partizipioak itxura bera duten: *jan, edan, bota* eta abar, aditzoin eta partizipio dira, aldi berean. Hiru forma horietatik partizipioa da adjektibotik gehien hurbiltzen dena. Partizipioaren forma erabiltzen dugu hiztegieta, gainera, aditzak izendatzeko, beste hizkuntza batzuetan ez bezala: *ikusi* (baina *ver/voir/see*, eta horien partizipioak: *visto/vu/seen*).

Partizipioak eta adjektiboak badituzte ezaugarri komunak. Adibidez, mugatzailea hartzen ahal dute biek: *handi-a / egin-a; zabal-a / zabaldu-a; ilun-a / eskertu-a* eta abar. Biak erabiltzen ahal dira izenaren ondoan: *etxe handia / basamortu egina; gela zabal-a / gela zabaldua; karrika iluna / andre eskertua...* Eta predikatu gisa: *Etxe hori handia da; Lana egina da* eta abar. Konparazio atzizkiak ere hartzen dituzte: *Etxe hau handiagoa da; Andre hura eskertuago zen...* Eraiketa postposizionalekin ere berdintsu agertzen ahal dira: *Oinetako zikinekin/zikinduekin etorri zen*. Zaila da batzuetan bien arteko desberdintasunik atzematea: *Barnez hutsik/husturik sentitu zen...*

**14.5b** Baina partizipioak, adjektiboak ez bezala, aditzak ere badira, eta aditz laguntzailea hartzen ahal dute: *egin du, zabaldu dute, eskertu dute* (*\*handi dute, \*zabal dute, \*ilun dute...*). Partizipioek, bestetik, adberbioak onartzen dituzte: *goizik egina, pozik etorria, atzo ikusia*, baina ez adjektiboek: *\*goizik handia, \*atzo zabal-a* eta abar.

**14.5c** Esan dezagun, zernahi gisaz, partizipioak, nolabait, aditz adjektiboak direla. Eta horregatik, neurri batean bederen, gainerako adjektiboen jokabidea dutela. Zeharo lexikalizatuak direnean izenarekin erraz agertzen dira: *Haur ongi ikasiek ez dute horrelakorik esaten*. Holakoetan, ordea, eta euskalkien arabera izenaren ezkerrean ere agertzen ahal dira: *Ongi ikasi haur batzuk bizi dira etxe hartan*. Maiz ageri da hori ekialdeko euskalkietan. Mendebaldean *haur ongi ikasi batzuk* dugu. Pentsa daiteke *fededun gizona, lekeitiar arrantzalea* edo *erruso presidentea* gisako egitura dugula holakoetan. Esan dugu *fededun* horren azpian *fedea duen* perpausa dagoela. Eta aipatu dugu nola ari den erabilera aldatzen, izenaren ezkerretik eskuinera pasatuz. Bistan da *ikasi haur* horren azpian ere *ikasita den haurra* dugula (*ongi ikasitako haurrak* aski arrunta da), eta nola lehenbizikoan ere *fededun gizon* tradiziokotik *gizon fededun* sintagmara aldatzeko joera dela, berdin gertatzen dela bigarrenarekin, *ikasi haur* sintagmatik *haur ikasi* sintagmara aldatuz. Bada tarteko beste esamolde bat ere: *Haur batzuk, ongi ikasiak, bizi dira etxe hartan*. Molde batera nahiz bestera datu horiek guztiek toki berera eramaten gaituzte: adjektiboen joera beti izenaren eskuinean agertzea da gaur egun.

Adibide horietan guztietan beste gauza bat ere ikusten da: partizipioa izenaren eskuinean dagoenean, adjektiboa denean, izen sintagmari zor zaion eskema orokorrean biltzen da. Hortaz, ondoko bi perpaus hauek egitura parekoa dute: *Pertsona nekatuaren itxura du Andonik*; *Pertsona onaren itxura du Andonik*. Eta berdin beste hauetan ere: *Pertsona hori aski nekatua da*; *Gauza hori mila bider esana da*. Komunztadura eginez numeroarekin: *Pertsona horiek nekatuak dira*; *Gauza horiek esanak dira*.

## 14.6. Adjektiboak predikatu gisa

**14.6a** Esan dezagun, nolana ere, adjektiboa bi tokitan erabiltzen dugula: *Etxe handia egin dute*; *Etxe hori handia da*. Lehenbiziko kasuan adjektiboa izenaren ondoan doa. Bigarrenetan predikatu osagarrian. Lotura aditz batekin (§ 14.7 eta, oro har, 24. kapitulua), kasu honetan *izan* aditzaz baliatuz, perpaus

horretan zerbait predikatzen da etxeaz: handia dela, hain zuzen ere. Bada, gauza bera gertatzen da partizipioekin ere: [*pertsona nekatuek*] *ez dute pazientziarik*; *pertsona horiek [nekatuak daude]*. Beraz, partizipioak ere bi tokitan.

Hala ere, bada euskaraz nahasbidea sor dezakeen horren antzeko beste itzuli bat ere. Partizipio adjektibo hori predikatu gisa doanean (*Andoni nekatua dago*), badu parean beste esapide bat, aski hedatua: *Andoni nekaturik dago*. Bistan da *-ik* horrek, gainerako partitibodun sintagmen antzera, predikatu osagarrian bakarrik duela tokia, edo gainerako sintagma partitiboak ageri diren testuinguruetan: *Ez da hemen gizonik / gizon nekaturik*; *Ikusi duzu hor ikaslerik / ikasle kezkatuak?* Holako testuinguruetan (ezezko eta galde perpausetan) *nekaturik* formako hitzak adjektibo arruntak dira, *-ik* amaiera hartzen dutenak. Baina predikatu osagarrian ageri badira, orduan adberbioak direla esan daiteke: *Miren triste/pozik/arduraturik dago*. Holakoetan ezin da izenaren ondoan agertu, sintagma osatuz: *Andoni nekatua da / [gizon nekatua] da*; *Andoni nekaturik dago / \*Andoni [gizon nekaturik] dago*. Horrela, *nekatua* adjektibo arrunta denez, komunztadura egin behar da: *Andoni eta Patxi nekatuak daude*. Baina, *nekaturik* forma bakarra da, eta komunztadurak ez du ukitzen: *Andoni eta Patxi nekaturik daude*. Gauza bera gertatzen da ondoko adibideotan: *Bada irakasle bat, Antton deitua*; *Badira bi irakasle, Miren eta Patxi deitua*.

Beraz, *nekatua/nekatuak* dugu alde batetik, eta *nekaturik* bestetik. Lehenbizikoa adjektiboa da, eta bigarrena adjektiboa izan daiteke testuinguruak partitiboa eskatzen duen toki batzuetan, ezezko eta galde perpausetan, eta adberbioa besteetan (predikatu osagarrian).

**14.6b** Bada, horien ondoan, beste aldaera bat, *nekaturik* (adjektiboa ez denean) formaren parekoa: *nekatuta*. Hau ere nolabaiteko adberbioa da, eta erabilera markatzen duten muga sintaktikoak estuagoak dira, predikatu osagarrian bakarrik agertzen ahal baita. Holakoak adberbio direnez gero, aldakaitzak dira, eta ez du ez batak ez besteak inolako komunztadurarik egiten, berdin dela subjektua singularrean edo pluralean doan: *Andoni nekatua/nekaturik/nekatuta dago*; *Andoni eta Miren nekatuak/nekaturik/nekatuta daude*. Batzuetan entzuten diren *\*nekatutak*, *\*sartutak* eta horien gisakoak guztiz arrotzak dira euskaraz.



Hortaz, bada, *-ik* eta *-ta* bezala amaituak adberbiotzat hartzen ditugu. Izen sintagmen barnean agertzekotan *-ko* atzizkia ezinbestekoa dute (*ikusitako*, *ikusiriko*) gainerako adberbioek (*atzoko*, *ustezko*...) gisan. Horregatik euskaraz ez dute tokirik *\*pertsona nekatutaren itxura* edo *\*langile zapaldutaren* gisako perpausek. Beraz, ez *\*bada irakasle bat*, *Antton deiturik/ta*; *\*badira bi irakasle*, *Miren eta Patxi deiturik/ta*. Kasu horietan argiago ikusten da perpau erlatibo laburtua dela: *Bada irakasle bat*, *Antton deitzen dena / deitua dena / deitutakoa*...

**14.6c** *-ta* hartzen duten itzuliek (*nekatuta*), jatorriz, honako osagai hauek dituzte: *nekatu + eta*. Ikusi, hortaz, zein hurbil dauden elkarren artean perpau hauek: *Hau esan eta alde egin zuen*; *Hau esanda alde egin zuen*; *Hau esanik alde egin zuen*. Esanahiaz berdinak izanik ere, bi egitura ditugu hor: [*Hau esan*], *eta alde egin zuen*, batetik, eta [*Hau esan eta*], *alde egin zuen*, bestetik. Lehenbizikoa juntadura arrunta da eta bigarrena esaera adberbiala. Bada, *esanda/esanik* bigarren egitura horren aldaerak dira, adberbialak horiek ere. Gauza bera ondoko hauekin ere: *Bere zor guztiak ordaindu eta hil zen*; *Bere zor guztiak ordainduta hil zen*; *Bere zor guztiak ordaindurik hil zen*.

Lehenago esan dugu *nekatu* formakoek ez dutela tokirik izen sintagmaren barnean (non ez den testuinguru markatu batzuetan, partitibozko sintagmak posible diren tokietan alegia), adberbioak baitira. Gauza bera esan behar da *nekatuta* formari buruz. Orain esan behar dugu alderantziz ere betetzen dela araua, hau da, adjektibok ez dutela tokirik adberbioaren tokian: *Erabakia harturik/hartuta bilera amaitu zuten*. Baina ez da euskaraz esaten *\*erabakia hartua bilera amaitu zuten*. Zeinahi dela ere *erabakia harturik/hartuta* horren barneko egitura, bistan da egitura horrek adberbioaren papera duela perpau-sean eta *noiz?* galderari erantzuten diola: *goizean / berandu / erabakia harturik amaitu zuten bilera*. Bada, hor ez du tokirik adjektiboak: *\*Erabakia hartua amaitu zuten bilera*. Arrazoi beragatik *gora andre askatua* esan behar da, zerbait esatekotan, eta ez *\*gora andre askatuta*.

**14.6d** Aurreko adibide guztietan ez dira erraz bereizten esanahien arteko desberdintasunak. Esan dezagun *Mikel nekatua da* eta horren tankerako perpau sak maizago entzuten direla ekialdean, eta *Mikel nekatuta dago* perpausaren tankerakoak, berriz, gehiagotan mendebalean. Laburtuz, dena den, esan

dezagun hauek direla predikatu osagarriko egiturak: *Atea irekia/irekirik/irekita da(go)*. Eta adverbio kutsu argia dutenean, berriz, honako hauek: *Atea irekirik, hizketan segitu genuen; Atea irekita, hizketan segitu genuen*.

**14.6e** Azken ohar bat atal honi dagokionez. Partizipioak, zenbait kasutan, adjektibo gabe, *izen* bihurtu dira. Anitzetan, *esan, egin, jan, ekarri, begiratu...* ez dira adjektiboak, baizik izenak: *Aitonaren esanak gogoan ditugu oraindik; Apostoluen eginak; Oiloen jana prestatzen ari da; Zein izan da zure lanaren ekarria?; Emaiozu begiratu bat nire artikulu honi eta abar*.

## 14.7. Lotura aditzak

**14.7a** Predikatua eta izen sintagma lotzen dituen aditzari *lotura aditza* deitzen zaio, edo *aditz kopulatiboa*. Aditz horien artean usuena *izan* dugu, baina ez da bakarra, *egon* ere aski arrunta baita: *Mutil txikia da; Zopa hotza dago*. Egia da *zopa hotza dago* baino maizago erabiltzen dela *zopa hotz dago*. Honek arazo interesgarri bat sortzen du, bigarren kasuan (*hotz dago*) ageri den *hotz* hori adjektibotik baino hurbilago baita adberbiotik: *Jon dotore etorri da* eta horren gisako perpausetan bezala. Berehala itzuliko gara hona (ikus 24. kapitulua).

Badira beste lotura aditz batzuk ere, bigarren mailako predikatu deitzen ditugunak: *bilakatu, bihurtu, egin, iruditu, ukan...* ondoko adibide hauek erakusten duten gisan: *Gure haurrak handi egin dira; Zapata hauek txiki(ak) ditut; Etxe hori hotza iruditzen zait...* Ikusten denez, lotura aditz horiek bi izen lotzen dituzte: *Etxe handi hura hauts bihurtu zuten; Pello alkate egin dute; Mikel soldadu joan zen; Isabel irakasle dago Sorbonan; Itziar serora joan zaie* eta abar. Bigarren mailako predikatuak dira.

**14.7b** Predikatu osagarria dela eta, aurkezten zaigun arazorik nagusiena da jakitea noiz agertu behar duen mugatzaileak eta noiz ez. Ez da batere erraza arau argiak ematea kontu honetan, besteak beste arau zehatzik ez dagoelako ere.

*Joan, egon, bihurtu* eta *hartu* bezalako aditzekin, normalean mugagabea da osagarria, batez ere predikatu osagarriak izen (sintagma) batek osatzen badu:

*Ura ardo bihurtu zuen; Andoni irakasle dago* eta abar. EGLUn espresuki esaten da predikatuak ezin duela holakoetan mugatzailerik hartu: \**Ura ardo bihurtu zuen; \*Andoni irakaslea dago* (EGLU-I: 168). Hala ere, hemen zehaztapen batzuk egin behar ditugu. Egia da euskararen literatura tradizioan joera holakoa dela: *Duguna jan dugu eta arlot gara bihurtu* (RS); *Berehala [...] ez-deus bihurtu balitz* (Axular); *Mahai saindutik urrunduz ez zara perfektoago bihurtu* (Baratziart); *Gatz bihurtu zen* (Añibarro); *Non gehiago edertu zuten, eta bihurtu zuten argiago* (Larramendi) eta abar. Egia da, horrekin batera, gaur egun badela joera holako anitzetan predikatua mugatzeko, batez ere sintagma konplexua denean: *Egin nahi dien erreferentzia multzo gabea bihurtzen da; Afrikak bizi duen egoera politiko eta sozialaren enbaxadore nagusia bihurtu delako; [...] argitaraturik gabeko rock musikaren lanik famatuena bihurtuz...* Gaurko literatura lanetan, egile batzuk aski sistematikoak dira mugagabearen erabileran, baina badira egileak bietara erabiltzen dutenak: *Kontu larria bihurtzen ari zen hura*, eta orrialde berean *Istripuzko hilketara hura istripu huts bihurtzeko*. Dena dela, ez da hau oraingo kontua. Baina badira adibideak literatura klasikoan ere (*plazerak... atsekabea bihurturik* irakur daiteke xv. mendeko testu batean). Zernahi gisaz, tradizioa eta gaurko erabilera ere bat datoz, oro har, predikatu osagarriko sintagma mugatzailerik gabe emateko.

**14.7c** Lotura aditza *izan* denean adjektibo sintagma arruntean mugatuan joaten da: *Aita ona da; Edurne ikaslea da; Hango etxe hura oso polita zen lehen*. Adjektibo sintagman agertu behar duen mugatzailea beti artikulua da, eta ez erakuslea, adibidez. Bestalde, mugatzaile horren zeregina adjektibo sintagmaren eta izen sintagmaren arteko komunztadura markatzea besterik ez dela dirudi. Horrek esan nahi du izen sintagma singularra bada, adjektibo sintagma ere singularra behar duela izan, eta izen sintagma plurala bada, adjektibo sintagma ere plurala izango dela: *Aita ona da / Gurasoak onak dira; Eliza hura oso zaharra da / Eliza haiek oso zaharrak dira*.

**14.7d** Hala ere, badira zenbait adjektibo mugatzailerik gabe agertzeko joera dutenak: *Zoriontsu zara?; Libre ote gara hiritarrak nahi duguna egiteko?; Guztiak gara berdin legearen aitzinean; Jauna, zure grazia handi, azkar eta gozo da* eta abar.

Gauza bera gertatzen da hizkera batzuetan, gehiago Iparraldean, *-ago* eta *-egi* konparazio atzizkiak erabiltzen ditugunean, eta arrunta da mugagabea: *Zer, hori baino ederrago?* Jakina, mugatua ere berdin erabiltzen ahal da holakoe-tan. Berdin bestela ere: *Etxe hori handiegi/handiegia da*. Ez, ordea, superlati-boarekin, hor beti erabiltzen baitugu mugatzailea: *etxe(rik) handiena*.

**14.7e** EGLU-I liburukian (170-171) horien parean ageri dira beste “adjektibo” hauek: *gai, gauza, aiher, haizu, zilegi, sori, bide (komeni, ados, akort...)* beza-lakoak: *Ezkontzaren haustea lege da, baina batzuen ustez ez zilegi; Ez naiz gai zuk diozuna ulertzeko; Ados ginen geure asmo guztietan...* Baina multzo hone-tan sailkatzea ez da oso egokia. Hasteko *gai, gauza, bide, lege* eta abar ez dira adjektiboak, baizik izenak. Bestetik, eta ikusten denez, ez dute komunztadura-rik egiten subjektuarekin: *neska horiek abilak dira* eta *neska horiek gai/gauza/ ados/akort dira*, baina ez *neska horiek \*gaiak/\*gauzak/\*adosak/\*akortak dira...* Askoz ere egokiagoa da pentsatzea aditz esapideak direla.

Eta aditz esapideen sailean sartu behar lirateke *beldur izan, gose izan, ahalke/ lotsa izan* eta holakoak ere: *Gure umea gose da / goseak dago; Haserre da gure izeba; Lotsa naiz eskatzen didazuna egiteko*. Horiek mugatzaile gabe doaz. Gauza bera gertatzen da *on/hobe/zail/gaitz/harrigarri izan* bezalako esapideekin: *Gauza guztiak ongi egitea zail da; On da ume guztiak eskolatzea; Harrigarri da zein nekez ikusten duten hau batzuek; Mendian zein den eder eper zango hori...* Hauetan forma mugatuek ere badute tokia (*zaila da, ona da...*), eta hizkera bizian asko erabiltzen dira, mugagabeak hizkera landurako gehiago utziz.

Aldi berean, esapidetzat hartuko ditugu *egiteko trebe* (*egiteko gai/gauza* esapi-deen parekoa), *jateko on* eta abar.

Adjektiboek osagarriak hartzen ahal dituzte zenbait esapidetan: *Elizari hurbil egin dute etxea; Diruz aberats zen baina osasunez behartsu; Ondoan zabal eta puntan mehar* (Axular); *Ez da apezetako on* (Axular).

**14.7f** Adjektibo sintagma partizipioaz osatua bada, orduan ere mugatzailea ezinbestekoa da: *Liburu hori oso ongi idatzia da*. Hain zuzen ere, mugatzaileak ematen digu predikatu osagarria eta aditzaren lehen osagaia elkarrengandik

bereizteko bidea: *hil da / hila da; bete da / betea da; gaur sortu / sortua da*. Bikote horiek ez dute, bistan da, esanahi bera. Hemen sartu behar dira honako itzuli hauek ere, bigarren mailako predikatuak deituak: *Liburu horiek aitonak erosiak dira; Mutil hori nobela ugari irakurria da*.

**14.7g** Lotura aditza *izan* izanik predikatu osagarria adjektiboz ez, izenez edo izen sintagma batez osatua egon daiteke. Izen sintagma horren erreferentzia zehatza bada ez da dudarik, eta mugatua izanen da: *Andoni gure irakaslea da; Andoni atzo ikusi genuen mutila da*. Baina izen horrek zerbait orokorra adierazten badu, nolabaiteko adjektibo modura edo, interpreta daitekeena, nahiz eta berez izena izan, orduan zilegi da mugatzailerik gabe ematea osagarri predikatibo hori: *Andoni irakasle(a) da; Ni naiz lekuko eta ni nerau naiz epaile; Ez nekien bekatu zirela; Isilik uzten dituen gauza guzrien ordain da ematen dion hori; Zeru horiek Jaunaren bizilekuaren atari besterik ez dira; Bera da jaun eta jabe...* Nahiz ez den hori ere beti betetzen: *Esan zigun gu ginela aberastasun horien jabeak*. Jakina: hor *jabe* ere esango lukete hiztun askok.

## 14.8. Adjektiboa eta kategoria aldaketak

**14.8a** Gorago (§ 14.7a) esan dugu *Jon dotore etorri da* bezalakoetan ageri den *dotore* hitza, berez adjektiboa izanik (*Jon oso dotorea da*), hemen adberbio gisa erabiltzen dugula (*nola etorri da?*). Kategoria aldaketa hau oso arrunta da euskaraz: *Ontzi gogorra, baina gogor ematen badiozu hautsiko da azkenean; Maite zintzoa da, eta aski zintzo jokatzen du beti; Bide luzea egin genuen elkarrekin, eta luze mintzatu ginen hortaz; Liburu horiek merkeak dira eta merke erosi ditugu*. Batzuetan ez da erraz gertatzen horiek zer diren zehaztea, baina mugagabeen doazelarik adberbioak direla esan dezakegu. Ohartzen bagara, denek galdera mota berari erantzuten diote: *nola eman, nola jokatu, nola mintzatu, nola erosi...* Eta horren erantzuna adberbiala da. Nahi bada, kasu hauetan, adberbio gisa erabiltzen den adjektibo baten aurrean gaudela esan daiteke.

Atzizki adberbiala erantsiz gero ez dute esanahirik aldatzen, eta bistan da adberbioa dela: *gogorki, zintzoki, luzeki*. *Merke*-rekin sor daitezke zalantzak (\**merkeki*),

baina garbi dago ez adjektibo guztiek onartzen dutela *-ki* adverbiala (\**zuriki*, \**txikiki*), ez edozein adjektibo erabil daitekeela adberbio gisan: *xarmant*, *eder*..., esaterako, beti adjektiboak dira (\**Xarmant egin du*; \**Eder egin du*) eta atzizkia behar dute adverbializatzeko: *Xarmanki egin du*; *Ederki egin du*.

**14.8b** Esan dezagun, laburtzeko, kategoria aldaketa hauek egiten dutela posible batzuetan adjektibo garbiak direnak (*dotore*, *luze*, *ilun*) adberbio gisa erabiltzea, adberbioak izatea beraz, nolakoa den testuingurua. Kategoria aldaketa prozesu hauek ez dira inoiz ere unibertsalak eta batzuetan ez dira emankorrak, esan nahi baita, adjektibo guztiak ez direla modu automatikoan adberbio gisa erabiltzen ahal. Badira beste mota bateko aldaketak ere: *Ur hotza ez dut gogoko* esaten dugu, baina horren ondoan arrunta da *hotz handia* egiten duela esatea. Adjektibo lehenbizikoan, eta izen bigarreanean. Ondoko adibide honetan *eder* adjektiboan izen gisa erabiltzen du autoreak: *Bazterraren ederrak osagarria emaiten zion, bai eta liburuek hain ardua kentzen duten bihotzeko bakea* (J. Etxepare).

Adjektiboak izen bihurtzeko bide arrunta da *-tasun* eranstea: *eder/edertasun*, *gozo/gozotasun*, *handi/handitasun* edo *bortiz/bortiztasun* bikoteetan (adjektibo/izen) ikusten da hori. Ohart gaitezen, nolana ere, hori ez dela ezinbestekoa, eta batzuetan adjektiboa darabilgu zuzenean izen gisan: *sagardoaren gozoa*, *nekearen handia*, *justiziaren bortitza* eta abar.

**14.8c** Batzuetan, ordea, alderantziz gertatzen da: *adin gara* edo *adinak gara* diogunean *adin* bera dugula, *adin berekoak* garela, adierazi nahi dugu. Kasu honetan izena erabiltzen dugu adjektibo bezala. Ondoko hauetan ere gauza bera: *pertsona oiloa*, *pertsona zorria*, *gizon deabrua*, *emazte zilar hori*, *gizon astoa*, *mutiko zakurra* eta abar.

## 14.9. Adjektibo berezi batzuk

### 14.9.1. *Huts*

Bada adjektibo bat aski berezia dena: *huts*. Horrekin osatzen ditugu *kafe hutsa*, *gezur hutsa da hori* edo *ontzi huts batzuk* bezalako sintagmak. Berez

izena da: *Huts handiak eta txikiak egin ditu; Zeren nola etsaiak beti ere zelan baitaude, zer ere huts edo falta edireten baitute* (Axular); *Hutsetik sortu da mundua; Amaren hutsa sentitzen du* eta abar. Adjektibo bezala izenekin erabiltzen da: *Gezur hutsak esaten ditu; Ardo hutsa da hori; Ogi hutsez nekez elikatuko zara; Nahikunde hutsetan iragaten zaigu denbora; Jenio bizikoa, espiritu hutsa; Erregeek jaiotza hutsez hartzen dute agintea* eta abar.

Batzuetan beste adjektibo bat ere kalifika dezake: *On hutsa da neska hori; Alfer hutsa da Joseba lanerako...* Holakoak predikatu osagarrian erabiltzen ditugu batez ere. Eta aditz izenekin ere maiz: *Zu ikuste hutsak ikaragarritzko poza emanen dio amari; Pentsatze hutsak kezkatzen nau.*

### 14.9.2. Beste hitzaren kategoriaz

**14.9.2a** Bereziki ilunagoa da *beste* hitzaren kategoria. Ingurune bat baino gehiagotan ageri da. Batzuetan konparazio perpausetan erabiltzen da, batez ere bizkaieraz: *Ez dugu inoiz ere eduki orain dugun beste diru; Non etxean beste babes?* eta abar. Beste batzuetan ‘adina’ren esanahiarekin erabiltzen dugu, konparazioetan hori ere: *Ez zen inor bere aita izan zen beste; Gai horretaz zuk dakizun beste ez daki inork ere...* Zenbaitetan ‘baino/baizik’en parekoa da: *Ez du buruko minik beste ematen.* Bistan da horietan guztietan ez dela adjektiboa.

Beste testuinguru batzuetan, ordea, zalantzak sortzen dira: *Beste liburua erosiko dut; Beste etxean bizi da* eta abar. Horien parean *liburu gorria erosiko dut* edo *etxe zaharrean bizi da* esaten badugu, badirudi testuingurua nahiko antzekoa dela kasu batean eta bestean. Badira, hala ere, desberdintasun nabarmenak. Hasteko, kokagunearena. Izenaren aurretik ageri da, ezkerrean, eta hori ez da, azaldu dugunez, adjektiboen toki naturala. Bestetik, ez du graduatzailerik hartzen (*handi/handiago*, baina ez *beste/\*besteago*). Zail dirudi, hortaz, adjektibotzat jotzea. Hala ere, hemen aipatzen dugu beste zenbait hizkuntzatako gramatikariek ere, zailtasun berak izanik, hala



egiten dutelako. RAEren hiztegian adjektibo bezala ageri da *otra vez*, *otro día* edo *otra esquina* bezalakoetan. Baina RAEko gramatikak zalantza gehiago erakusten du<sup>8</sup>. Ingelesez ere adjektibo (*other person*), izen (*each praises the other*), izenordain (*others in the medical profession*) eta adberbio gisa (*we can't collect the rent other than...*) sailkatzen dute. Antzeko arazoak gertatzen dira frantsesez ere. Hizkuntza Akademiak adjektibo (*autre enfant*), izenordain zehaztugabetzat (*cette bague est plus belle que l'autre*), adjektibo kalifikatzailetzat (*depuis son veuvage, c'est un autre homme*) eta konparazioetan agertzen den elementutzat (*je vous considère comme un autre moi-même*) jotzen du.

**14.9.2b** Erabilerari dagokionez, bakarrik ager daiteke, izenordain gisan: *Besteek egingo dute hori*. Izenarekin batera agertuz gero, izenaren ezkerrean ageri dela. Hala da, baina badira tradizioan bestelako adibide batzuk, eskuinaldean. Lazarragak eskuinaldean ematen du: *Banekarren esku bestean...* baina aski adibide gutxi dira holakoak. Determinatzailea behar du (artikulu/erakuslea edo zenbatzailea, batzuetan biak), edo partitiboa: *beste etxea*, *beste etxe bat*, *beste bost etxe*, *beste bost etxeak*, *beste etxerik*, baina *\*beste etxe* (bai, jakina, *beste zein etxe?*, baina hor determinatzailea ageri da). Zenbatzaile zehaztugabeak (oro har kuantifikatzaile zehaztugabeak: *zenbait*, *anitz*, *asko...*) eta izenordain zehaztugabeak (*edozein*, *zernahi*, *zein*, *zer...*) aurretik nahiz atzetik jartzen ahal dira: *beste etxe zenbaitetan* / *beste zenbait etxetan* / *zenbait beste etxetan* (*zenbait bertze lekutan*, Pouvreau); *beste anitz etxetan* / *beste etxe anitzetan* / *anitz beste etxetan* (*anitz beste gauzaz*, Belapeire); *beste eritasun asko* / *beste asko eritasun* / *asko beste eritasun* (*asko bertze eritasun gaizto*, Dassanza). Egia da, hala ere, atzetik ageri diren adibideak tradiziokoak direla eta gaur egun ez direla ia erabiltzen.

**14.9.2c** Izenordain zehaztugabeekin ere erabiltzen da *beste*, eta badira lekukotasun franko: *beste edozein etxetan* / *beste etxe edozeinetan* / *edozein*

---

<sup>8</sup> “Se ha observado que la categorización gramatical de la palabra *otro* [...] es problemática porque se asimila en parte a los adjetivos, pero tiene propiedades que lo identifican como cuantificador o como determinante indefinido” (RAE 2009: 13.101).



*beste etxetan* (edozein beste bidez, Mendiburu); *beste zein etxetan / beste etxe zeinetan / zein beste etxetan* (zein beste herririk dago?, Uriarte) eta abar. Sail honetakoak dira honako hauek ere: *Deus bertze probetxurik* (Leizarraga); *Kontu egiten zion beste inori [...]* (Antia); *Ez du inor beste behar...* edo apozizioan: *Inork bestek ez bezala moldaturik* (Kardaberaz); *Inork bertzek zuzenez ezin galde diezakeguna* (Haraneder); *Ez baitu deusez ere bertzez, konturik egiten* (Axular) eta abar.

Adberbioekin ere erabiltzen da: *beste nonbait, beste inon, beste norabait joango dira* eta abar.

Esan bezala, ez dago argi *beste* hitzaren kategoria zein den. Esan dezagun, nolakoa den erabilera, zer testuingurutan erabiltzen dugun, baduela tokia sailkapen bat baino gehiagotan.

Azken ohartxo bat egokia ez den erabilera bati buruz. Arrunta da gaur egun, beharbada erdararen eraginagatik, *beste argibideak, beste egunkariak, beste berriak* bezalakoak irakurtzea, *otras noticias, otros diarios* eta abarren pare. Horietan ezinbestekoa da *beste argibide batzuk, beste egunkari batzuk, beste berri batzuk* esatea, lehenbiziko moldeak aski ingurune markatua eskatzen duelako: *Egunkari hau gelditzen da, beste egunkariak amaitu dira*.

### 14.9.3. Gabe hitzak sortzen dituen arazoak

**14.9.3a** *Gabe* adjektibo berezien artean sailkatu izan da zenbaitetan. Baina honekin ere *beste*-rekin gertatzen den antzeko zerbait gertatzen da. Gutxitan ageri da bakarrik, eta gehienetan badu aurretik sintagma osagarri bat. Nolakoa den testuingurua, postposizioa, izena, adjektiboa edo adberbioa ere izan daiteke. Jatorriz izen edo adjektibo, gaur egun gehienetan postposizioa da: *uste gabe, eten gabe, duda(rik) gabe...* Gutxitan ageri da bakarrik, gehienetan aurretik behar baitu sintagma osagarri bat, batzuetan isildu daitekeena, nahi izanez gero: *zure baimenarekin edo gabe*. Sintagma osagarri horrek ez du izan behar sail jakin batekoa.

Batzuetan izen sintagma du aurrean. Sintagma hori mugagabea da edo absolutiboa. Kasu batzuetan, gutxienetan, mugatua, *bat* zenbatzailearekin (edo erakusleren bat). Holakoak ditugu *argirik gabe*, *argi gabe* edo *euro bat gabe* bezalakoak. *Paper gabe* / *paperik gabe*; *baimen gabe* / *baimenik gabe*; *babes gabe* / *babesik gabe*; *liburutegi on bat gabe*; *erreferentzia bat gabe*... bezalakoak ere sail berekoak dira. Egungo joeran, sintagma mugagabea (*diru, neke*...) batez ere izen soilekin erabiltzen da. Egitura pixka bat konplexuagoa baldin bada errazago erabiltzen dugu partitiboa. Partitiboaren aurretik *batere* erabiltzen da maizkara: *batere dirurik gabe*; *batere lotsarik gabe*...

**14.9.3b** Aurretik duen izen sintagma mugatua izan daiteke, baina gutxiagotan ageri da, eta tradizioan batez ere Iparraldekoa da, baina badira Hegoaldean ere adibideak: *karitatea gabe* (Pouvreau); [...] *bere behar duena gabe gelditu* (Axular); *eguzkiaren argia gabe* (B. Enbeita); *kanpokoa eta gorputzekoa bakarrik arimako gabe* (Astarloa); *aireak ere ez aski ongarrikoak gabe* (Duvoisin); *liburu hori gabe*; *senar-emazteak gabe* eta abar. Artikuluaren ordean erakusle bat edo *bat* zenbatzailea ere har ditzake sintagmak, esan bezala. Badira adibideak tradizioan eta gaurko idazleen artean ere, baina batzuek ez dute egokia ikusten egitura hori: *urruntasun hori gabe* (Lapeire); *deskantsu hori gabe* (J. P. Arbelbide); *mesprezio hura gabe* (Pouvreau); *haritz bakar bat gabe* (Duvoisin); *oroitzapen bat gabe* (Laphitz); *aldaketa bat gabe* (Xarriton); *istant bat gabe* (Epaltza) eta abar. Postposizioa denean baditu beste ingurune batzuk ere.

**14.9.3c** Beste batzuetan *gabe izena* da: *Emanaz beraren gabeak edo premiak eskatzen duen gauza* (Mendiburu); *Gaizto da bai gabea ontsa bizitzeko* (Laplace); *Ezin hobeagoa, hutsik eta gaberik ez duena* (Ubillos); *Zure gabean aurkitzen naiz* (P. Mujika) eta abar. Osagarria genitiboan erabiltzen da batzuetan, adibideetan ikusten denez. De Rijkek dioenez (2008: 310), gaurko euskaran gutxiago erabiltzen da *gabe* hori izen gisa eta badira beste itzuli batzuk erabiliagoak. Batez ere *falta* (*diru faltan*), *eskas* (*hori jakin eskasean*) edo *ez izena* (*maitasun ezaz, nik ikusi ezean*).

**14.9.3d** Azkenik, esan dezagun adjektiboa ere izan daitekeela ‘ez duena’, ‘zerbaiten faltan dena’ adierazteko: *Ez naiz gabe* (Duvoisin, ‘ez naiz pobre’

adierazteko); *Gabea pairagarri, ukana hondagarri* (Azkue, ‘pobreak sufritu, aberatsa hondoratu’); *Gabeak hatsa kirats* (Oihenart) eta abar. Batzuetan instrumentala du aurretik: [...] *gero eta urrez eta zilarrez gabeago aurkitzen zuten* (Larreko); *Zein karitatez gabeak diren* (Iratzeder). Zenbaitetan guztiz lexikalizatuak diren hitz elkartu adjektibaletan bigarren osagai gisa arrunta da (ikus OEH): *artega, donga, eskerga, egoska, inauska, axolagabe* eta abar. Izen sintagma izan dezake batzuetan aurretik: *ardura gabea, erru gabe, punimendu gabe, beldur gabe, gorputz odol gabe...*; *Ez da dudarik, egiazko “eskual-duna” zen Frantsez; ez, ez zen “eskual-gabea”* (Narbaitz). Holakoetan, aurreko osagarria soila da arruntean. Egitura konplexuagoa denean, joera *gabeko* erabiltzearena da. Hola, *galderatxo bat garrantzi gabea* perpausaren orde, hiztunak errazago erabiltzen du *garrantzi gabeko galderatxo bat*.

**14.9.3e** Batzuetan, hala ere, ez da garbi gelditzen noiz den izen eta noiz adjektibo. Jakina, aurreko izen sintagma partitiboan agertzea arrunta da: *hutsik gabea, bihotzik gabea, baliorik gabea, eskolarik gabea...* Zenbait kasutan *batere*-rekin ageri da: *dudarik batere gabea* (Mihura); *harrokeriarik batere gabea* (Uztapide). Sintagma mugatua izan daiteke, ondoko adibide hauetan bezala: *zimurtxo bat gabea; eranskin hori gabeak*. Edo partizipio ondoan, aski arrunta: *ikusi gabea, entzun gabea, ohartu gabea* eta abar. Ez hainbeste aditzoinarekin bakarrik: *Berria zen, oraino uki-gabea* (Orixe); *Agindu uts-ezin eta idatz-gabeak* (Zaitegi). Ez dira oso erabiliak. Adlatiboarekin erabiltzen du Orixek: *Santa Kruz oraindik Lekunberrira gabea zela*.

**14.9.3f** Badira adjektibo elkartuak *gaber*en ganean eraikiak: *arduragabe, bihozgabe, baztergabe, errugabe, dirugabe, eskolagabe, gogogabe, hobengabe, indargabe, odolgabe, tolesgabe...* Ohart gaitezen hizkera doinuak bereizten duela *beldurgabe* (adjektiboa) eta *beldur gabe* (izena + postposizioa).

*Ura barik ardoa edan du* edo *elizatik gabe tabernatik gatoz* edo *ilundu gabe* bezalakoetan, *gabe* hori adberbioa da. Bizkaieraz erabiltzen da *barik* (*gaberi*k), aski arrunta da. Eredu estandarrean ere onartua da (*eten barik*), baina askotan zuzenean erabiltzen da *gabe* (*eten gabe*).

## 14.10. Adjektiboen mailakatzea

### 14.10.1. Sarrera

Adjektiboen izena kalifikatzen dutenean, edo predikatu osagarrian ageri direnean, kalifikazio hori maila desberdinetan egin dezakete. Hola, ez da gauza bera *etxea garestia* dela esatea eta *etxea oso garestia* dela edo *herriko garestiena* dela esatea. Hiruretan esaten da etxea garestia dela, baina hori ez da txuri edo beltz kontua, graduak baitaude garestitasun horretan.

Adjektibo gehienek, eta zenbaitetan adberbioek ere, onartzen dituzte mailak. *Garesti* adjektiboak kualitate bat adierazten du, baina garestitasun maila hori aldatu egiten da esapide batetik bestera. Hola, zerbait *garestia* izan daiteke, *nahiko garestia*, *aski garestia*, *garestiagoa*, *arras garestia*, *oso garestia*, *garestiegia* eta abar. Adjektibo markatu batzuekin, aski gutxi dira hala ere, ezinezkoa da, duten esanahiagatik, maila horiek bereiztea: *Gizon begibakar bat atera zitzaidan bat-batean*. Ezin esan hor *\*oso begibakarra* edo *\*beibakarregia* eta abar.

### 14.10.2. Marka fonetikoak

**14.10.2a** Mailakatze hori egiteko marka fonetikoak (*handiiiiia*), morfologikoak (*handixea da*), adberbioak (*arrunt handia*) eta konparazio atzizkiak (*handiagoa*) erabiltzen ditugu.

**14.10.2b** Balio bereizlerik ez dutenez, gaitz da arlo honetan zehazki mintzatzeko marka fonetiko hauetaz. Baliabide hauek ahozko hizkerari dagozkio eta, horrenbestez, arruntean, ez dute idatzian (bustidurak salbu) aztarnarik uzten.

Zernahi gisaz, hiru marka mota aipa daitezke: azentua, palatalizazioak eta kontsonanteetan gertatzen diren zenbait ezaugarri fonetiko azkartzea.

Hola, sarritan silabako bokalaren luzapenez lagundurik markatzen dugu azentua, eta anitzetan lehen silaban egiten dugu marka hori: *jáaaaaatorra duk hori*

*gero!*; *sorgin gáaiztoa zen hura*. Baina horrek ez du esan nahi beti hola egin behar denik, anitzetan beste silaba batean ere egin baitaiteke: *edéeeerra da!* Hori da mailakatzeko erabiltzen dugun lehenbiziko bidea.

**14.10.2c** Euskaraz *bustidurak* garrantzi handia du, eta adjektiboekin ere baliatzen dugu anitzetan: nolakoa den testuingurua, *ur hotza* gauza bat da, *ur hotxa* bestea. Edo *gizon zozoa* eta *gizon xoxoa*. Palatalizazioa erabiltzen dugu, hain zuzen ere, forma hipokoristikoak sortzeko. Hortaz, adjektiboekin ezti-garri gisa baliatu ohi dugu, ez goi maila adierazteko. Hala ere, oso neke da kontu horietan arau zehatzik ematea: *gozo/goxo*, *zuhur/xuhur*, *bizi/bixi*, *labur/llabur*, *zintzo/txintxo* eta abar. Dena den, askotan bi formak zeharo lexikalizaturik ageri dira, zeinek bere esanahi propioa duela. Hori da, hortaz, erabiltzen dugun bigarren bidea: *gaizoa* eta *gaixoa* aski diferenteak izan daitezke.

**14.10.2d** Bada, gainera, hirugarren bide bat: kontsonanteetan zenbat ezaugarri fonetiko indartzea, nolabait esateko. Puntu hau beste biei lotua agertzen zaigu anitzetan. Gisa denez, frikarietan nabaritu da hobekienik, txistukarrietan (*asssko*, *hassserre*...) nahiz —hasperena bizi den tokietan— soinu hasperenduetan (*hhandia*, *hhitsa*, *zikhina*..., zeinetan hasperentzea indar handiagoz gertatzen baita). Zenbait lekutan /rr/-rekin ere holako zerbait gertatzen da: *izugarrrria*, *harrroa*...

Marka fonetiko horiek beste mailakabideekin metatzen ahal dira: *goxo-goxoa*, *biziki luxea*, *oso txintxo*... Eta esan behar da, bestetik, adierazkortasun bide hau izenekin ere gertatzen dela, enfasi kontua baita azkenean.

### 14.10.3. Marka morfologikoak

**14.10.3a** Marka morfologiko erabilienak *-sko/-xko* eta *-ska/-xka* dira: *gatzesko*, *harrosko*, *ilunsko*, *gorrisko*, *zozosko* eta abar. Hola ageri dira mintzoen arabera. Euskaltzaindiak ez du arau zehatzik eman aldaera horien artean baten batek lehentasunik duen besteen ginetik, baina praktikan, hiztegi batuan egin diren aukera guztiak *-xko/-xka* aldekoak dira, besteei buruz deusik

esaten ez bada ere: *luzexko, handixko, urrunxko, hurbilxko, horixka, gorrixka* eta abar.

Zer desberdintasun dago *kamioneta berde, zahar eta luze* sintagmaren eta *kamioneta berde, zahar eta luzexka* sintagmaren artean? Edo *aurpegi hori* eta *aurpegi horixka*-ren artean? Gehienetan, holakoetan *nahiko* edo holako zer-bait adierazten du esapide horrek: *nahiko luzea, horikara* eta abar. Batzuetan soberatasuna adierazteko ere erabiltzen da: *Gaztexko zara manera horretan mintzatzeko*.

**14.10.3b** Beste batzuetan *-xe* atzizkia ere erabiltzen da: *finituxe, egintxe, lotsatuxe...* *Euskararen batasuna egintxe zela pentsatu izan dugu; Lotsatuxe nengoen semearen irudia lohituiko ote nion; Atea zabalduxe utzi zuen; Egun horretan akituxe utzi zuen bere burua* eta abar. Horiek ‘ia egina’, ‘pixka bat lotsatua’, ‘pixka bat zabaldua’ eta ‘ia akitua’ esan nahi dute. Konparatiboekin ere ageri da askotan: *handixeago* (‘pixka bat handiago’), *handixeegi* eta abar.

Bizkaia aldean, batez ere, *-tzar* erabiltzen da. Gehienetan izenekin (*harritzar hura eraiki zutenak ez ziren bertakoak; sarrerako atetzarra autoarekin eraitsi zuen*) ageri bada ere, Azkuek zioenez, zenbaitetan adjektiboeki ere lotzen ahal zaie: *handitzar*. Gaurko idazleen artean ere *itsasontzi handitzar horiek* edo *min handitzar batek joa bezalakoak* ageri dira.

Badira beste bi atzizki txikigarri: *-txo* eta *-to*. Hola esaten dugu, adibidez, *neskato beltzarantxo bat ikusi dugu atean*. Hor sartzen dira *txikitxo, pobretxo, gorritxo, luzetxo* eta abar. Bai bata eta bai bestea arrunta da izenekin edo beste kategoria batzuekin ere erabiltzea: *neskato, hobeto, gaizto, polito, ezertxo, ondotoxo, haurtxo, gehitxo* eta abar.

Beste atzizki batzuk (*-ats, -ail, -tsu*) koloreekin erabiltzen ditugu batez ere: *gorrats, gorrail, gorritsu* eta abar. Hemen sartzen ditugu *luzetsu, zoriontsu, distiratsu, irribarretsu, arriskutsu* eta abar. Lehenbiziko bi atzizkiak oso gutxi erabiltzen dira.

**14.10.3c** Indarra emateko edo, batzuetan izenondoa errepikatzen dugu: *polit-polita da hori; gorri-gorriak dira etxean ditugun loreak; liburu eder-ederra*

*da; txiki-txikia sentitu nintzen* eta abar. Errepikatze hau ez da adjektiboekin bakarrik gertatzen, eta adberbioekin ere gauza bera egiten dugu anitzetan: *poz-pozik etorri zen; blai-blai egin ziren, neka-neka eginda etorri dira menditik...*

#### 14.10.4. Mailakatze adberbioak

**14.10.4a** Adjektiboaren mailak adierazteko adberbio berezi batzuk erabiltzen ditugu: *oso, guztiz, biziki, nahiko, aski, samar, batere* eta abar. Ez dute denek maila mota bera adierazten, jakina. Batzuetan goi maila adierazi nahi dugu, beste batzuetan nahikotasuna edo konparazioa, eta ezeztapena ere zenbait kasutan. Horretarako erabiltzen ditugu adberbioak.

Goi maila adierazteko euskarak dituen adberbiorik erabilienak *oso, guztiz, biziki, txit, arrunt, erabat, zeharo, izugarri, gogorki, itsuski, hagitz, ondo, ongi, franko, lar, sobera...* bezalakoak ditugu. Literatura tradizioan *xoil* ere erabili izan da Iparraldean, egun indarrrik ez duena maila adberbio gisa: *Non baitirudi zeruaz xoil benedikatua* (Goihetxe); *Egia da, ordea, ez da ez xoil eta alde guztiz ilun ere izanen* (Axular).

Adberbio hauek adjektiboaren ezkerrean dute tokia: *Neska hura oso polita da; Erabat aspertuak geunden; Franko gaztea da; Biziki neska atsegina zen Edurne*. Adjektiboa izen sintagma baten barnean baldin bada, ordea, bi joera nagusi ditugu adberbioaren kokalekua finkatzeko: a) batzuetan mailakatze hori izenaren eta adjektiboaren artean ezartzen dute (*arazo oso larrietan murgildua dabil*) eta b) beste hiztun batzuek nahiago dute adberbioa izenaren ezkerretan sartu (*oso arazo larrian murgildua dabil*). Tradizioan ere bi eratako adibideak ageri dira: *Oso bihotz txarra duzu* (Apaolaza); *Ez zirudien etxera joateko oso presa handia zuenik* (Txillardeggi); *Oso bikote barregarria* (Uztapide); *Gizon oso ona zen* (Garate); *Sinetsi diet zure liburuei eta hango hitz oso ezkutuei* (Orixe); *Segurak aiuntamentu oso zaharra zeukan* (Insausti).

Gainerako adberbioekin berdin gertatzen da: *biziki kantu ederra / kantu biziki ederra; izugarri liburu polita / liburu izugarri polita* eta abar.

Batzuetan *oso* aditzarekin ere erabiltzen da: *Pena guzietatik, bihotza oso argitu zitzaion* (Lardizabal); *Hilabete honetan gaztetu da oso* (Apaolaza); *Oso zait atsegin hango giroa* (Mitxelena); *Hemengo sagardo-egintzak gutxitu dira oso* (Uztapide). Bestetik, adjektiboa ere izan daiteke: *Liburu osoa irakurri zuen; Gobernu osoa joan zen; Maitasun osoa adierazi dio* eta abar.

Maila adberbio hauek guztiek ez dute zeharo banaketa bera, baina euskalkien araberako erabilera desberdinagatik zaila gertatzen da gauzak xeheki azaltzea.

**14.10.4b** EGLUn esaten da zenbaitek gaizki ikusten duela ingurumen batzuetan “gero eta hedatzenago” ari diren *anitz maite ukan, asko gustatu...* bezalakoak (EGLU-I: 182). Hori bakarrik esaten da, baina testuinguruagatik badirudi *asko maite zaitut* eta horren gisakoak baztertzen direla *oso maite zaitut* gisako egituren alde. Baina hori ez da batere berria. Egia da literatura tradizioan badirela *Oso maite ninduen* (Orixe); *Oso maite nuen* (Urruzuno); *Oso maite izaten zuten* (Salaberria); *Zure semea oso maite du* (Altzaga) bezalako adibideak, ez gehiegi, esateko, baina anitzez ugariagoak dira beste ereduak: *Ez duzu anitz maite Jesus* (Mendiburu); *Beraz lainkoa hagitz maite, baduzu, Filothea* (Pouvreau); *Gutziz maite zuen [...] Dariok* (Mendiburu); *Nagusiak anitz maite zuena* (Duvoisin); *Hainbat maite dudan seme hau* (Duvoisin); *Guziz maite gaituen Aita* (Joanategi); *Guziz maite zuen seme bat* (Ir aizoz); *Zein baitzuen guziz maite* (Leizarraga); *Hau guziz maite baitu* (Haraneder); *Gutziz maite zuela Euskal Herria* (Etxeita); *Gure bihotzak guztiz maite duena* (Otaño); *Euskaldunek anitz maite dute* (Manezaundi); *Anitz maite ere zuelakotz* (Barbier); *Jon asko maite dut* (Lizardi); *Asko maite dudalako* (Barriola); *Asko gustatu zitzaion haren egiteko grazia* (Txirrita); *Elkar arras maite zuten bi haurrek* (Zerbitzari); *Mintzaira polita arras maite dut* (Manezaundi) eta abar. Eta gaurko idazleen artean ere *asko* modukoa maizago ikusten da hola-koetan *oso* modukoa baino.

**14.10.4c** Han berean (EGLU-I: 182) aipatzen da segidan *asko*-rekin gauzak are konplikatuagoak direla. Lapurdiko tradizioan, esaten da, *aski*-ren balioa duela eta batzuetan adjektiboaren ezkerrean eta besteetan eskuinaldean jartzen dela. Adibide hauek ematen dira: *Bera baita bere baitan eder asko* (Axular) eta *Berak dira bere baitan asko klar eta ozen* (Axular). Gauzak, ordea, ez dira hain



sinpleak. Hasteko, bi adibide horietaz aparte nekez aurkituko dira adibide gehiago. Bada bat Duvoisinena: *Asko gazteago hartu izan dituen bezala*. Ez dugu besterik ikusi. Beste kontu bat da izenarekin ageri denean *asko*. Orduan bai, Iparraldeko idazle anitzek Hegoaldekoek bezala erabiltzen dute *asko*, nahiz izenaren ezker aldean paratzea aski arrunta den: *Zuk beraz zigila ezazu ikuspena, asko egunen buruan gertatu beharra delakoz* (Duvoisin); *Euskara-ren ez ikastea, gure auzo gurekin hainbertze egiteko duketenentzat, beren buruen asko erraztasunez gabetzea da* (Hiriart-Urruti); *Bertze asko berri bezala* (Hiriart-Urruti); *Bazen oraino asko lan egiteko* (Larzabal); *Bederen orain asko gelditzen zaigu egiteko* (Duhalde) eta abar. Erabilera hori aski hedatua da.

Axularrek eta Gazteluzarrek badituzte hainbeste adibide *aski*-ren balioarekin, baina horietako oso gutxi dira adjektiboekin. Axularrek ia ez du *aski* inoiz ere erabiltzen (lau agerraldi bakarrik). Gazteluzarrek eta Leizarragak behin ere ez. Horregatik Leizarragak (eta Mirandek ere) erabiltzen du batzuetan *asko* zenbatzailea *aski*-ren balioarekin. Hona hemen adibide batzuk: *Ez ziren bi-deak asko segur* (Axular); *Ez da asko gaizkirik ez egitea* (Axular); *Asko goizik latinen kultura eta hizkuntza ezagutu zituztela* (Mirande); *Egunero Jainkoaren obrak mediatu behar dira, ala astean egun batez asko da?* (Leizarraga); *Asko duzu zuk manatzea, asko hitz bat erratea* (Gazteluzar).

Gaur (hala esaten da EGLU-I liburukian) Gipuzkoan *asko* erabiltzen da goi maila adierazteko, eta izenondoaren eta adberbioaren eskuinaldean jartzen da, mugatzaile eta guzti, zenbaitetan: *Alai askoa zen gure mutila!*; *Iñaki han azaltzen zen lasai asko...* Adibide anitz ageri dira gaurko idazleen artean: *Natural askoa iruditu zitzaion* (M. Mujika); *Erlatibismo horren formulazio egoki askoa Txillardegik eman du* (Azurmendi); *Tipo jator askoa* (J. A. Arrieta); *Gizon zintzo askoa* (Atxaga); *Ilajez harro askoa* (Lertxundi); *Kontu bat harrigarri askoa* (Juan Garzia); *Zuzen askoa zen* (Juaristi).

Baina erabilera hori ez da gaurko kontua, eta xx. mende hasieratik badira adibideak gipuzkoar idazleen artean (Lizardi, Labaien, Iztueta eta abar). Bada Etxeberri Ziburukoaren ondoko adibide hau ere, bitxia gertatzen zaiguna, ez baitu lapurteraz inolako lekukotasunik bestela: *Zure semearen gorputz sakratuaz Jainkoa, Ohore handia duzu guk probetxu askoa* (Etxeberri Ziburukoa).

**14.10.4d** Horren gisako zerbait gertatzen da batzuetan *ondo* eta *ongi*-rekin ere, maila adberbio gisa erabiltzen direnean: *Ondo gazterik hil zen gizajoa!*; *Ongi tristea zen nobela hura*; *Luis izan zen ondo gazterik* (Kardaberaz); *Ondo galanta da zuen mutikoa* (Azkue); *Nere ahala ongi ttikia izanagatik [...]* (Diharasarri) eta abar.

**14.10.4e** Nahikotasuna adierazteko holako elementuak erabiltzen ditugu: *nahiko(a)*, *aski*, *asko*, *dexente*, *samar*... Sail honetan *samar* besteetatik bereizten da, ez baita zenbatzailea: *Lan zail samarra eman digute*... Arrunta da gipuzkerazko literaturan: *Serio samar jarrita* (Lizardi); *Urrun samar geunden* (Iraizoz); *Gogor samar aurpegia eman ziolako [...]* (Agirre); *Merke samar dute saldu* (Orixe); *Haserre samar ikusi behar gaituzte* (Txirrita) eta abar. Neurri batean, *samar* hau hurbil dago, esanahi aldetik *nahiko* adberbiotik, nahiz ez den gauza bera. Hola, *zer moduz egin duzu lo?* galderaren erantzuna *nahiko ongi* edo *ongi samar* izan daiteke, besteak beste. *Nahiko ongi* erantzuten duenak *ongi samar* erantzuten duenak baino zerbait positiboago erantzuten duela dirudi. Era berean, nobela bat *on samarra* dela esatea badirudi *nahiko ona* dela esatea baino zertxobait gutxiago esatea dela.

*Nahiko* eta *aski* balioak direla esan dezakegu: *Nahiko neska polita aurkitu du gure Joxek*; *Aski aberatsak dira Peruren gurasoak*. Ez dirudi, esanahi aldetik, desberdintasunik atzeman daitekeenik adibide horietan *nahiko* eta *aski*-ren artean. Bestetik, *nahiko* eta *nahikoa* erabiltzen dira. Adibide zaharretan, mendebaldekoak beti, izenaren ondotik *nahikoa* ageri da maizago, eta *nahikoa* da *nolanahikoa* esapidean ageri den aldaera bakarra. Iparraldean *nahiko* erabiltzen dute Iratzederrek, Jatsuko Etxeparek eta Xalbadorrek, eta oro har, gaur egun, *nahiko* da forma erabiliena adjektibo edo adberbio/esapide adberbialekin ageri denean: *nahiko luzea*; *nahiko ederra*; *nahiko ergela*; *nahiko ongi*, *nahiko erraz*... Izena eta adjektiboaren artean ere joaten da: *gizon nahiko ergela*; *kapa nahiko handia*; *jangela nahiko handia*... Baina ez da beharrezkoa, eta aurretik ere joan daiteke: *nahiko erren handia*; *nahiko etxe handia*; *nahiko presio handia*... Ez da arraroa idazle berak bietara erabiltzea gaur egun.

*Aski* eta *asko* adberbioaren eskuinean ere ikusiko ditugu esapide batzuetan: *segur aski*; *seguru asko*.

**14.10.4f** Ezezko predikazioetan ukapen osoa *batere*-ren bidez egiten da: *Etxe hau ez da batere polita; Mutil hori ez da batere ikasle ona*. Ikusten denez, *batere* hau adverbio sailekoa da eta izen predikatueta bakarrik ageri da, ez bestelako izen sintagmetan: \**Batere etxe merkeak ez dituzte saltzen*. Forma arautua *batere* izanik ere, aldaera asko ditu mintzoen arabera: *batre, baterere, bapere, bape, batbere, bate* eta abar. *-ik* marka duen izen sintagmetan ageri da: *Ez dute kontzientzia onik batere; Ez dut dirurik batere; Ez genuen asmorik batere zuri esateko eta abar. Gabe* duen izen sintagmekin ere arrunta da arras: *Batere zapore gabekoa da; Batere dirurik gabe gelditu ginen*. Arrunta da ere galde edo baldintza perpausetan: *Probetxurik batere hartu duk hortik?; Batere baldin bada haien artean hola pentsatzen duenik...; Baldin badu batere indarrik...* eta abar. Batzuetan *edozein* esan nahi du: *Herriko bertze neskatxa batere baino gehiago zen*. Adverbio huts gisa ere: *Ez dugu duda egiten batere; Mundu hau ez da bigunago batere; Bere partetik ez zuen batere entsaiatu; Hori onarturik ere ez dute batere garbitzen beren zorra; Kopeta beltza batere argitu gabe sartu zen sukaldean...*

## 14.10.5. Konparazioak eta adjektiboen mailakatzea

### 14.10.5.1. Sarrera

Orain arte aipatu ditugun maila adverbioen bidez adjektiboaren maila bere horretan adierazten dugu, beste batekin konparatu gabe. Alegia, *oso polita* eta *biziki higuigarria* esaten dugunean politasunari edo higuigarritasunari maila ezartzen diogu, baina ez dugu beste ezeren politasunarekin edo higuigarritasunarekin konparatzen.

Adjektiboak mailakatzeko oso bide emankorra osatzen dute konparaketek. Hemen, perpaus bakunaren eremuan gabiltzanez gero, ez ditugu puntu larrienak baizik aipatuko (ikus 32. kapitulua). Adjektiboari zenbait atzizki berezi erantsiz eman daiteke askotan konparazio bidezko mailakatzea.

#### 14.10.5.2. -EN atzizkia

**14.10.5.2a** *-en* atzizkia erabiltzen dugu superlatibo erlatibo deitzen dena osatzeko. Superlatibo mota hau erabiltzen dugu aipatu nahi den kualitatearen (*politasuna*, adibidez) gorentasuna, beste batzuekin erkatuz, markatu nahi dugunean. Adibidez, *oso polita* diogunean, politasunaren goi maila adierazten dugu, baina politasun hori ez dugu beste ezeren politasunarekin erkatzen, bere hartan hartzen baitugu. Baina *hau da politena* esaten badugu, zenbait gauza elkarrekin konparatu ondoren egiten dugu baieztapen hori. Adjektiboari *-en* atzizkia erantsiz osatzen da superlatiboa: *handi-en*, *ederr-en*, *urdin-en* eta abar. Superlatiboen forma oso erregularra da, salbu *gehien* eta *hoberen-en* kasuan (*asko-ren* eta *on* adjektiboaren superlatiboak. Azkeneko honek badu *onen* forma erregular arrunta ere). *Hurrena*, *aurrena*, *lehena*, *azkena*... gisakoak ere superlatibo mota honetakoak dira.

**14.10.5.2b** Adjektiboa predikatuan denean, adjektiboa bakarrik joan daitekeela ikusi dugu (§ 14.6). Superlatiboan dagoenean ere ber gauza gertatzen da: *Edurne da handiena*; *Liburu hori da karioena*... Baina askotan adjektiboa izen sintagma baten barruan dago, izenari lagunduz: *Liburu polit bat erosi dute*; *Mutil galant horrek egingo du lan hori* eta abar. Holako sintagmetan adjektiboa superlatiboan doanean, aurreko izena partitiboan joan daiteke: *Libururik politena erosi dute*. Ez da, hala ere, beharrezkoa hori. Estilo kontua da, eta autore berak bi moduak erabiltzen ditu askatasunean: *bekaturik handiena / aintzindari handiena* (Duvoisin); *gaitzik handiena / egile handiena* (Pouvreau); *balentriarik handiena / erokeria handiena* (Hiriart-Urruti); *Jaunik handiena / gaitz handiena* (Etxeberri Ziburukoa)... literatura klasikoan. Eta gaurko idazleen artean biak erabiltzen badira ere, *-ik* partitibo marka gehiago erabiltzeko joera ikusten da: *oparirik handiena / eragin handiena* (Urkiza); *apaltasunik handiena / segurtasun handiena* (Xarriton) eta abar.

Holakoetan *libururik* edo *mutilik* edo *trabarik* esaten dugunean, liburuen, mutilen edo traben multzo osoa hartzen dugu kontuan, eta multzo horretatik politena, galantena, handiena hartzen dugu. Ideia hau azpimarratzeko, batzuetan beste zenbait esapidez baliatzen gara: *Munduko mendirik garaiena da hori*;

*Inon den neskarik alferrena dugu Itziar; Inoiz ikusi dudan txakurrik beldur-garriena da Txuti.* Ohart gaitezen, zernahi gisaz, beste postposizio batzuk ere erabiltzen ditugula zenbaitetan: *liburuetan/liburuetatik/liburuetarik politena erosi genuen*. Betiere, superlatiboa dagokion izen hori zein multzotik atera den aditzera eman nahi bagenu bezala. Hai zuzen ere, multzo horri dagokiolako deitzen zaio superlatibo *erlatiboa*. Zernahi gisaz, esan bezala, izena marka batekin nahiz inolako markarik gabe erabil daiteke.

**14.10.5.2c** Euskaraz superlatibo hau beti baiezkoa da, ez du forma ezezkorik. Hala, *neska politena* esapidearen parean ez dugu *neska gutxien politena* edo antzekorik. Holakoetan *polit*-en antonimora jo beharrean aurkitzen gara: *neska itsusiena*. Egia da, hala ere, badirela holako adibide bat edo beste. Tradizioan hauek aurkitu ditugu: *Prenda orotarik ez da gutien beharrena* (Goihete); *Gutienik ahulena* (J. Etxepare); *Gutienik freskoenak* (*Eskualdun Kozinera*). Eta oraingo idazleek badituzte holakoak ere: *Arimarik gutxien ustelduena* (Iñurrieta); *Gutxien erabiliaren artean* (Salaburu); *Gutxien maitatuenak* (Elexpuru); *Gutxienik egokiena* (Arrigain). Ez dugu beste adibiderik aurkitu. Egia esateko, zenbait alorretan (zientzietan, esaterako) badirudi *gutxien(ik) be-roen* edo holako esapideak beharrezko gertatzen direla. Kontuan hartu behar dugu horren parekoa izan daitekeen *-ago* atzizkiarekin, adibidez, *ez da guti-ago eder*, *ez da gutiago espantagarri* gisako esapideak ikusten ahal direla: M. Elizanburuk, Duvoisinek eta Mihurak erabiltzen dute. Izenarekin, *ez da gutiago egia...* askoz ere maizago. Eta gaurko idazleen artean ere ez da adibide bat edo beste falta (Garzia, Olano eta abar).

Esan dezagun, azkenik, zenbait esapidek *-en* superlatiboa eskatzen duela: *Ahalik eta sagar(ik) handiena har ezazu; Ahalik gehien ikas ezazu; Albait arinen etor zaitetz; Ahal den oherik zabalena aukeratuko dugu...*

#### 14.10.5.3. -AGO atzizkia

**14.10.5.3a** *-ago* atzizkiaren bidez konparatiboak osatzen ditugu, esan nahi baita bi elementu jartzen ditugula erlazioan, eta bati besteari baino maila

goragokoa baldin badagokio, daraman adjektiboari *-ago* atzizkia eransten diogu. Eta orduan adjektibo hori konparatiboa dela esaten dugu: *handiago*, *politago*, *gorriago*, *zikinago* eta abar. Hemen ere badira salbuespenak: *on*-ek badu bere konparazio forma arrunta, *onago* (Lizarragak, J. M. Zabalak, Aranbillagak, Orixek... erabiltzen dute), baina askoz ere gehiago erabiltzen da *hobe* aldaera, literaturan nola gaurko idazkietan ere. *Ongi* eta *gaizki* adberbioak ere mailaka ditzakegu, eta horrela sortzen dira *hobeki* (eta *hobekiago*, gutxiago erabilia) eta *gaizkiago* aldaerak.

*-ago* atzizkiaz baliaturik sortutako konparazio adjektiboa predikatu osagarrian denean, artikularekin nahiz gabe agertzen da: *Etxe hori handiago(a) da*. Zein elementurekin konparatzen dugun esaten bada, elementu horri *baino* eransten zaio: *Etxe hori beste hura baino txikiagoa da*. Azpimarratutako egitura hori beste egitura baten laburdura besterik ez dela esan daiteke: *beste hura den baino txikiagoa...*

**14.10.5.3b** Konparazioek berek ere maila bat baino gehiago izan dezakete, ondoko adibide hauek erakusten dutenez: *Etxe hau beste hura baino ederragoa da*; *Etxe hau beste hura baino askoz ere ederragoa da*. Holako diferentziak markatzeko, *askoz*, *aise*, *dexente*, *biziki*, *pixka bat*, *apur bat* eta antzekoak erabiltzen ditugu: *Zu baino biziki handiagoa da*; *Zure autoa nirea baino apur bat luzeagoa da*. Era berean, denbora eta kantitatea adierazten duten adberbioak ere baliatzen ahal ditugu. Hauetan *zenbat beranduago*, edo *zenbat gehiago*, edo *zenbat garestiago* galderei era honetara erantzun dakieke: *Bi ordu beranduago etorri zen tren*; *Bi kilo gehiago erosi beharra izan nuen*; *Mila pezeta garestiago jarri dituzte sarrerak*.

**14.10.5.3c** Diferentzia zenbaterainokoa den aditzera emateko ere instrumentalaz baliatzen gara: *Buruaz handiago zen Edurne senarra baino* (senarra Edurneri gehenez kokotseraino iristen zaiola esan nahi du). Beste erabilera batzuk ere baditu instrumentalak, betiere konparazioaz ari garela: *Eztarriaz beherago sartzen zaio ke beltza* (Etxeberri Ziburukoa); *Mereziez gehiago hartu dute saria*; *Zeruaz gorago da, lurraz beherago* (Hiribarren) eta abar (§ 21.6.3k). Horietan ‘eztarria baino beherago’, ‘merezia baino gehiago’ eta ‘zerua baino gorago eta lurra baino beherago’ esan nahi dugu.

Zenbait esapidetan, *-agodun* izenondoa, edo dena delakoa (adberbioa ere izan daiteke) erabiltzen dugu. Esapide hauek egitura bat baino gehiago erakusten dute:

**14.10.5.3d** *Gero eta...* -ago: *Gero eta politago da nobela hau; Gero eta urrunago doa txalupa; Gero eta diru gehiago eskatzen dute; Solasak eta hurbilago entzuten dira.* Batzuetan *gero* soil horren ordez *geroago* ere erabiltzen dugu: *Geroago eta diru gehiago behar dute; Geroago eta liburu zailagoak idazten dituzte; Geroago eta gehiago bermatzen dituzte* eta abar. Lehen esapidea da gehien erabiltzen dena, baina bi moldeek badituzte adibide franko bai gure tradizioan eta bai gure egungo idazleetan.

**14.10.5.3e** *Beti eta...* -ago ere erabiltzen da: *Mendiak beti eta gorago agertuz; Karlisten mehatxuak beti eta azkarrago; Beti eta maila txikiagoak; Beti eta barnago...* Esapide hau ez da aurreko beste biak bezainbat erabiltzen, baina badira adibideak egungo idazleetan eta tradizioan ere, batez ere Iparraldekoen artean: *Beti eta gogorragoak* (Duvoisin); *Beti eta barnago sartzen zituzten* (Barbier); *Beti eta geroago* (Haraneder); *Beti eta gibelago* (J. B. Etxepare); *Beti eta gaitzenago eta errebelatzenago* (Axular).

Adjektiboa izen sintagma batean ageri bada, *gero eta...* esapidea izenaren ezkerretara joan daiteke, baina baita izenaren eta adjektiboaren artean ere: *Gero eta auto garestiagoak erosten ditu Beñatek* edo *Auto gero eta garestiagoak erosten ditu Beñatek*.

**14.10.5.3f** *Zenbat eta...* -ago ere erabiltzen dugu holako esapideak egiteko: *Zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta arinago ikasten du.* Ikusten ahal dugunez, esapide konplexuagoa da. Batetik, *zenbat* horren ondotik heldu den *eta* hori aukerakoa da. Bistan da idazle gehienek hala erabiltzen dutela, baina badira egungo testuetan hori gabeko adibide batzuk, nahiz ez gehiegi: *Dorrea zenbat altuago, orduan eta txikiagoak zirenak* (Otsoa); *Zenbat hurbilago, orduan eta bortitzago* (Alonso). Baina askoz ere arruntago eta unibertsalagoa da beste esamoldea, alegia, *eta* daramana: *Zenbat eta abertzaleago, orduan eta espainolagoa dela izatez* (Segurola); *Zenbat eta euskaldunago, orduan eta bakarrago* (Perurena); *Zenbat eta zaharrago, orduan eta pazientzia gutxiago* eta abar.



Bestetik, adibideetan ikusten denez, esapidea konplexuagoa da, eta badu bigarren atal bat: ... *orduan eta... -ago*. EGLUn esaten da bigarren atal horretako *eta* hori ere aukerakoa dela (EGLU-I: 189): *Zenbat (eta) gehiago irakurri, hainbat arinago ikasten dut; Zenbat (eta) zaharrago, hainbat (eta) petralago; Zenbat (eta) beranduago etorri, gero (eta) okerrago zuretzat*. Hiru adibide horiek ageri dira EGLUn, eta hor ikusten da bai lehenbiziko *eta* nola bigarrena askeak direla. Han esaten denaren arabera, *Zenbat eta beranduago etorri, gero eta okerrago zuretzat* esan daiteke, edo aldaera bat aipatzeagatik (ez baita bakarra) *Zenbat beranduago etorri, gero okerrago zuretzat*. Ez dirudi, ordea, *gero okerrago* hori batere zuzena den. Esapidearen bigarren zatiari dagokionez, zalantza gabe, gure tradizioan *hainbat* erabili da, batez ere Hegoaldean: *hainbat (eta) zaharrago*. Hori da eredu erabiliena: *Zenbat eta gehiago eta handiagoak [...] hainbat handiagoak* (Mendiburu); *Zenbat eta gorago dagoen [...] hainbat eta harroago ikusi ohi da* (Agirre) eta abar. Badira aise gehiago. Hori da, esan bezala, eredia. Badira, hala ere, adibide batzuk, gutxiago, besteetan parean, *orduan eta* edo *orduan* bakarrik erakusten dutenak, eta ez *hainbat*: *Zenbat eta gehiago begiratzan nion emazteari, orduan eta itsusi eta zakarragoa aurkitzen nuen bere senarra* (Barriola); *Zenbat eta denbora gehiago iraun, orduan eta zailago izaten da kentzea* (M. Aranburu); G. Mujikak, Mogelek, Barrensorok, Soroak eta J. I. Urangak ere erabiltzen dute esapide hori. Diferentzia handiarekin, hiruren artean (*hainbat, orduan, gero*), *gero*-rekin osatutako esapideak dira gutxien erabiltzen direnak. Ez da ia adibiderik tradizioan, eta gaurko idazleen artean ere aski gutxi ageri da: *Zenbat eta aurrerago joan, gero eta lausoago zen nire baitan etxe haren oroitzapena* (Igerabide); *Zenbat eta gehiago hurbildu, soinua gero eta zehatzagoa zen* (Gabiria); *Zenbat eta gehiago iraun, gero eta gehiago haziko da* (Berria). Ez da, nolana ere, konparaziorik beste biekin.

Esapide horiek laburturik ere ematen ditugu: *zaharrago eta txarrago* (*zenbat eta zaharrago hainbat txarrago*). Badira tradizioan ere adibideak: *Zenbat eta gehiago egin, barregarriago iduri* (Anabitarte); *Zenbat eta gehiago aritu, errazago asma dezakezue* (Lizardi); *Zenbat eta literatura gehiago irakurri, herriak astoago bihurtzen direla, uste dut* (Lauaxeta); *Zenbat eta ilunago, hobe* (Altzaga) eta abar.



Hala ere, Iparraldeko gure tradizioan pisu handiago izan du beste esamolde honek: *zenbatenaz... hanbatenaz*. Hona hemen adibide batzuk: *Zenbatenaz maizago eta barrenago erabiliko baitugu kontsiderazio hau, [...] hanbatenaz borondatea ariko da berokiago* (Pouvreau); *Zenbatenaz hori eginen baituzu lasterrago, hanbatenaz hobeki kausituko zara* (Xurio); *Zenbatenaz izanen baita [...], hanbatenaz Jainkoak estimatuko duela...* (Haraneder) eta abar. Hurrenkera aldaturik ere badira adibide bat edo beste: *Eta haiek gaitzesten baikaituzte hanbatenaz gehiago, zenbatenaz gure eskasak hurbilagotik ikusten baitituzte* (Xurio); *Eta are hanbatenaz gehiago, zenbatenaz ikusten baituzue hurbiltzen dela eguna* (Haraneder).

Zernahi gisaz, Hegoaldeko tradizioan ez dugu mota honetako adibiderik atzeman. Egungo idazleek ere ez dute ia erabiltzen.

**14.10.5.3g** *Aldian baino aldian... -ago* esapidea ere erabili izan da: *Aldian baino aldian gaitzago iruditzen zait gizon hori*. Hala ere, ez du tradizioan adibide askorik: *Aldian baino aldian grazia eta atsegin gehiago guri...* (Mendiburu); *Aldian baino aldian zeruko indar eta beldur gutiagorekin* (Mendiburu). Batzuetan *baino* hori gabe, edo beste toki batean jarririk ere: *Aldian-aldian hurreragotuz* (Lardizabal); *Aldian-aldian baino umilkiago* (Mendiburu).

**14.10.5.3h** *Zein baino zein... -ago* moldea ere erabiltzen da: *Neska horiek zein baino zein ederragoak dituzu*. Hegoaldeko tradizioan badira adibideak: *Zein baino zein santuago zirelarik* (Lizarraga); *Zein baino zein zitalagoak* (Lizardi); *Zein baino zein gozagoak* (Zamarripa); *Zein baino zein doinu zerrutarragoak* (S. Mitxelena); *Zein baino zein gogorragoak* (Lardizabal); *Zein baino zein naroago* (Agirre) eta abar. Esan bezala, adibideak Hegoaldekoak dira, nahiz Xalbadorrek ere baduen hau: *Zein baino zein hobeak*. Egungo idazleetan aski arrunta da esapide hau.

**14.10.5.3i** *Ezinago + adjektiboa* arrunta da euskaraz (*ezinago maitea, ezinago zalua, ezinago nahasia...*). Horren parekoa da *ezin adjektiboa + -ago* esapidea (*ezin maiteago, ezin zaluago, ezin nahasiago...*). Holako erabilera nahiko arrunta da tradizioan eta egungo idazleen artean ere: *ezinago ederra zen*

*paraje hura / ezin ederrago(a) zen paraje hura; nobela ezin zailagoa idatzi du / nobela ezinago zaila idatzi du.*

**14.10.5.3j** *Adjektiboa + baino + adjektiboa + -ago (edo adberbioa + baino + adberbioa) eta izena + baino + izena + -ago* egituraz ere baliatzen gara zenbait kasutan: *gezur handia baino handiagoa; ederra baino ederragoa; ongi baino hobeki; egia baino egiago...*

**14.10.5.3k** Ordua adierazteko ere *gutxiago* edo *gutxi* erabili behar izaten dugu (§ 16.3.5): *hamaikak laurden gutxiagotan sartu ginen herrian; hamaikiak bost gutxi dira...*

#### 14.10.5.4. *On, hobe...*

**14.10.5.4a** *Hobeto (hobeki) eta hobe.* Honetaz ere ohartxo bat egin behar da, gauzak batzuetan aski nahasiak gertatzen baitira. *Hobe* adjektiboa da, *on-i* dagokion konparatibozko forma, hain zuzen. Baina *ongi/ondo* adberbioei dagozkien konparatibozko formak *hobeki* eta *hobeto* dira. Hortaz, *hobeago* eta *hobetoago* esatea alferrikako zerbait esatea da, *hobe* eta *hobeto* aski baitira. *Hobekiago*-ren kasuan ere berdin gertatzen da, *hobeki* aski bailitzateke. Holarxe esaten du EGLU-I liburukiak (190).

**14.10.5.4b** Kontua da, ordea, idazleek ez dutela gauza bera pentsatzen. Gure literatura tradizioan asko erabili izan da *hobeago*, egile anitzen lumetan: *Ez dut erremedio hobeagorik* (Pouvreau); *Seguruago da anitzez, eta hobeago* (Xurio); *Meta handiago eta hobeago* (Duvoisin); *Ezin ediren dezaket erremedio hobeagorik* (Axular); *Harentzat baita hobeagoa* (Etxeberri Ziburukoa); *Hobeago ere bainuke* (Haraneder); *Promes hobeagoen gainean* (Leizarraga); *Ura baino hobeagorik deus* (Larzabal); *Zer hobeagorik* (Aranbillaga); *Berri hobeagorik* (Barbier); *Bera baino hobeago den bat* (Uriarte); *Non eta hobeagorik ez den* (Kardaberaz) eta abar. Esan daiteke ia idazle gehienek, guztiek ez bada, behin eta berriz erabili dutela. *Hobe* ere, jakina.

Egungo literaturan ere nahiko arrunta da *hobeago* aldaera. Bestetik, *hobetoago* Uriartek, Soroak, Urangak, Lardizabalek, Altzagak... erabiltzen dute eta

badira egungo testuen adibide batzuk, ez anitz. *Hobekiago* honako idazle hauek daude erabiltzaileen artean: Etxeberri Sarakoa, M. Elizanburu, Axular, Mirande, Larzabal, Xurio, Pouvreau, J. Etxepare, Baratzart, Etxeberri Ziburukoa, Haraneder, Materre, Aranbillaga, Arbelbide, Duvoisin, Hiriart-Urruti eta abar. Egungo literaturan arras hedatua da aldaera hau. Hortaz, laburtuz, hau esan daiteke: nahiz eta aldaera erredundanteak izan, asko erabili dira, batez ere *hobeago* eta *hobekiago* (Iparraldean), literatura tradizioan. Eta gaurko idazleen artean ere bi aldaerek badute tokia. Hizkuntzetan gauza erredundante asko ageri dira, eta euskara bera ere zenbait kontutan aski erredundantea da.

**14.10.5.4c** Aipa dezagun hemen, zernahi gisaz, erabilera oker bat: *nola esan?* galderak adberbioa eskatzen du ezinbestean erantzunean, eta ez adjektiboa. Hortaz, horrek *hobeki esan* / *hobeto esan* edo *hobeki erran* eskatzen du, eta inondik ere ez *\*hobe esan*. Egia esateko, tradizioan badira esapide honen adibide batzuk, nahiz ez gehiegi ere, denak adberbioarekin osatuak: *hobeki erran*, *hobeto esateko*, *hobeki esan* eta abar. Ordea, gaurko literaturan holako ehunka adibide badira, baina esan beharra da *\*hobe esan* ere guztiz hedatua dela, nahiz ez-gramatikala izan. Idazle askok erabiltzen dute, corpusek erakusten duten gisan.

#### 14.10.5.5. *Are... -ago*

**14.10.5.5a** *Are... -ago* itzulia ere erabiltzen dugu. Tradizio handia du literaturan (Axular, Kardaberaz, Pouvreau, Leizarraga, Iztueta, Haraneder, Agirre Asteasukoa, Lizardi, Orixe, Lardizabal, Antia, Larramendi, Beobide, Labaien, Arana, Mendiburu, Iraizoz, Anabitarte, S. Mitxelena, Mirande, Barrensorro, Arrue, Arrese...), eta aski arrunta da egungo idazleen artean: *Eta are gehiago printzeak eta erregeak*; *Are distiratsuago egin zuen ospakizuna*; *Are ttikiago zen*; *Are gutiago gainerako langileak*; *Are miresgarriagoa dena*; *Etxe hori beste hura baino handiago(a) da, baina eliza are handiagoa...*

**14.10.5.5b** *Are... -ago* itzuliaz baliatzen garelarik, alde zurretik zerbait suposatzen dugu. Ezin gara, besterik gabe, *ni are aberatsagoa naiz* esaten hasi.

Hau dioenak, aldeztatik *X aberatsa da* edo *X Y baino aberatsagoa da* suposatzen du, esaldia zentzuzkoa izango bada. Konparazio soilak ez bezalako inguramena eskatzen du, beraz, egitura horrek. *Mikel Itziar baino zaharragoa* dela diogunean, esate baterako, Mikelen eta Itziarren arteko adin alde baizik ez dugu adierazten: mundu honetan hark honek baino denbora luzeagoa daramala esaten dugu, ez besterik. Ez dugu, alegia, ezer esaten ez eta suposatzen ere, haien adinari dagokionez: gazteak, helduak nahiz adinean ondotoxartuak izan daitezke. *Mikel Itziar baino are zaharragoa* dela esaten dugunean, berriz, aurretik esana edo ezaguna den beste zerbait ere hartzen dugu gogoan: Itziar bera edo *zaharra* dela edo, bederen, beste hirugarren bat baino *zaharragoa* dela. Eta hori gogoan harturik, *Mikel areago* dela esaten dugu.

**14.10.5.5c** Hortaz, egitura hau testuinguru hauetan erabiltzen dugu:

- Adjektiboa, gradu positiboan, konparazio buruari badagokiola aurretik esan edo, bederen, ezagutzat ematen denean: *Itziar zaharra da. Mikel, berriz, are zaharragoa*. Itziar zaharra *badelako* erabiltzen dugu ondoko perpausean *are* partikula. Hor berariaz aipatzen da Itziar zaharra dela. Gauza ezaguna dela suposatzen denean, berriz, ez da holako aipamenaren beharrik: *Gauza baino are ilunagoa zen*.
- Adjektiboa konparazio-buruari, erabat dagokiona izan zein izan ez, hirugarren bati baino gehiago bederen badagokionean: *Mikel Itziar baino zaharragoa da, Andoni are zaharragoa*. Kasu honetan Mikel benetan zaharra den ala ez den ez zaigu axola. Beharbada hirurak umekondo batzuk baizik ez dira. Baina Mikelen eta Itziarren artean aldea badagoenez, Andoni alde horretatik *areago* dagoela esan dezakegu.

Gauza, beraz, honetara bil daiteke: *are...-ago* egiturak, konparatibo enfatikoaren denez, oinarri jakin bat behar du konparazio-buruan, handik *are gorago* igotzeko. Eta oinarria hau da: konparazio-buruari adjektiboa *badagokiola* edo berez edo, bederen, beste hirugarren batekin konparatuz gero. Hori, noski, edo berariaz lehenik aipatu edo gauza jakintzat suposatu egin daiteke.

Kasu hauetan, *are* bezala, *oraindik* edo *oraino* ere erabil daitezke: *Mikel Itziar baino zaharragoa da. Andoni oraindik zaharragoa*. Askotan, *oraindik* eta

*oraino*-ren parean *ere* ere ageri ohi da: *Andoni oraindik ere zaharragoa da*, nahiz *Andoni zaharragoa da oraindik (ere)*. Adibide hauek erakusten digute-nez, *oraindik* eta *oraino* lekuz alda daitezke, *are* ez bezala: \**Andoni zaharragoa da are*. Batzuetan adjektiboa isildua dago, konparaketaren osagarriak berak adierazten baitu. Orduan, *-ago* atzizkia *are*-ri berari eransten zaio: *Haurrak baino areago zarete*; *Judas baino areago zen*. Horietan esan nahi da, *haurrak baino haurrago* edo *Judas baino Judasago*, hau da, *Judas baino txarrago* edo *gaiztoago*.

**14.10.5.5d** Edo honetatik beretik, nagusitasuna adierazteko, *baino*-ri ere lotzen ahal zaio *-ago* atzizkia, adjektiboa isilduta: *Ni bainoago den bat behar litzateke*. Ikus, adibidez, pasarte bera nola ematen duten itzultzaile desberdinek:

- a) *Baina zeren ikustera ilki için çarete? Propheta baten? Bay diotsuet eta Propheta bainoagoaren* (Leizarraga).
- b) *Zertara atera zerate, bada? Igarle bat ikustera? Bai orixe, ta Igarle bañon areagoa esango dizuet* (Orixe. Kerexeta. Zugasti).
- c) *Zertara atera zineten, bada? Profetaren bat ikustera? Baietz diotsuet; eta profeta baino gehiago den bat* (Elizen arteko Biblia).
- d) *Zeren ikusten izan zirezte beraz? Profeta baten? bai eta nik erraiten dauzuet, profeta bainoago baten* (Leon).

*-ago* atzizki hau *-tzendun* aditz osagaiari ere erants dakioke, Axularrek erakusten digun bezala (gaur egun ere erabiltzen da nafar-lapurteraz): *desiratzenago du*; *erortzenago dira*; *zauriak gordintzenago*. Era berean, *nahiz*-ren parean *nahiago* ere hor dugu. Eta *nahien* ere bai.

**14.10.5.5e** *-egi* atzizkia eransten diogunean adberbio nahiz adjektiboari, gehiegizko maila aditzera ematen dugu: *handi* → *handiegi*; *txukun* → *txukunegi*; *eder* → *ederregi*; *berritsu* → *berritsuegi*; *berant/berandu* → *berantegi*. Baina *asko* + *-egi* elkarketak *gehiegi*, *larregi* edo *sobera* ematen du. Hola erabiltzen dugu esapide hau: *Gizon jakintsuegiak ez ditugu behar*; *Garestiegia da hau zuretzat*; *Lan hau ez da txukunegia*; *Berritsuegia da langile ona izateko*. Hain zuzen, azken adibide honek erakusten duen bezala, sarritan *-egidun*

adjektiboak *-tze*ko formako osagai bat eraman ohi du: *Garestiegia da eroste-ko*; *Urrutiegia dago egun batean joateko* eta abar.

*-egidun* adjektiboa predikatu osagarria denean, batzuetan artikulua agertu beharrik ez dela dirudi: *Berritsuegi da langile ona izateko*. Bizkaieraz *gehiegi*-ren ordez *larregi* erabiltzen da, eta *-egi* atzizkiaren ordez *lar* markatzailea: *Diru gehiegi ematen diote = Diru larregi ematen diote*; *Etxe handiegia erosi zuen = Etxe lar handia erosi diote*; *Lar etxe handia erosi diote*. Ekialdeko euskalkietan, berriz, *-egiren* ordez *sobera* zenbatzailea ere erabiltzen da zenbaitetan: *Handiegia da = Sobera handia da*.

#### 14.10.5.6. Berdintasunezko konparazioak

**14.10.5.6a** Konparazioaren atalean aipatu beharrekoak dira, halaber, nahiz eta adjektiboari atzizkirik erantsi gabekoak izan, *berdintasunezko konparazioak*. Berez, hauek ere perpaus elkartuak dira, nolabait laburtuak agertzen direnak. Aurrerago (§ 32.2) luzexeko mintzatuko bagara ere hauetaz, adjektiboan mailakatzeaz ari garenez gero, hemen ere zerbait aipatu beharrean gara. Eta *-ago* eta *-en* atzizkiak aipatu ditugun bezala, berdintasuna nola adierazten dugun ere esan behar. Ikus ditzagun bi adibide hauek: *Erronkari Basabiürüa bezain ederra da*; *Auto hori ez da nirea bezain zaratatsua*. Adibide horietan ere *eder* eta *zaratatsua* izenondoen maila adierazten dugu, *oso ederra* edo *zaratatsuen*a esaten dugunean bezala. Baina oraingoan bi elementu edo bi izen sintagma konparatzen ditugu, eta adjektiboaren aurrean konparaburua den *izen sintagma + bezain* ezartzen dugu. Era honetako egiturak arruntean predikatuan agertzen zaizkigu: *Telebista hau beste hori bezain garestia da*. Baina izen sintagmaren barruan ere ager daiteke era honetako konparazio perpaus bat (laburtua nahiz laburtu gabea): *Zu bezain neska polit gutxi dira herri honetan*.

**14.10.5.6b** Konparatzen diren bi muturrak aditzera eman gabe, askotan bat suposatu egin ohi dugu. Horrelakoetan, *honen*, *horren*, eta *hain* mailakatzailerak ezartzen ditugu. Horiek, sintaxiari dagokionez, bestelako maila adberbioen jokabidea dute. *Hain* euskalki guztien tradizio idatzian erabili izan da:

*Errege, ezta egundaino lurraren ganean hain emazte ederrik sortu* (Axular); *Hain prestuak* (Kardaberaz); *Ain miragarriak ziren* (Agirre Asteasukoa) eta abar. Horren ondoan ditugu *Gauza hori horren garrantzitsua bada, esan ezazu* bezalako esapideak. Baina batez ere *hain* erabili izan da literaturan, eta *hain* da egun ere gehien erabiltzen dena. Berez, hiru mailatakoak badira ere, eta teoriarik hirurek balukete toki, bai tradizioan eta bai gaur egun *hain* aldaera da maizen ikusten dena.

#### 14.10.5.7. Harridura esaldietan

**14.10.5.7a** *Ondo* eta *asko* adjektiboen ondoan erabiltzen ditugula esan dugu lehenago eta era honetako esamoldeak batez ere *harridura* adierazten duten *perpauzetan* erabiltzen ditugula: *Ondo zapalduak bizi ginen orduan!* Adjektiboak oso normalak dira harridurazko esapideetan. Hain zuzen, harridurazko esapide hauetan dute bere lekua berez galdetzailerak (ikus 17. kapitulua) diren zenbait elementuk ere, *zein*, *ze*, *zer*, *nolako* (*zelako*): *Zein polita zegoen* (Anabitarte); *Zein polita den* (Agirre); *Zein ederra zaren* (Mendiburu); *Zein ederra, garbia...* (Lizarraga); *Zein ederra zaren* (Duvoisin) eta abar. *Zein* mailakatzaileraren parekoa da *zeinen* ere, aise gutxiago erabilia. Erabiliak dira, halaber, *ze* eta *zer* ere: *Ze itsusiak* (Astarloa); *Ze harrigarriko trebetasuna* (Manezaundi); *Zer harrigarria* (Webster); *Eta egun hartan zer polita...* (Leizarraga); *Zer polita den* (Iraola) eta abar. Gaur egun ere *zein* da gehien ageri dena, baina *ze* eta *zer* ere erabiltzen dira, eta ez gutxi, bai literaturan eta bai, batez ere, hizkera bizian. *Nolako* eta *zelako* (bizkaieraz) ere arruntak dira harridura perpauzetan: *Nolako damua* (Mogel); *Nolako mesedea* (Agirre Asteasukoa); *Nolako argi-hastea* (Lizarraga); *Zelako ahotsa* (Lauaxeta); *Zelako bekatua* (Astarloa) eta abar. *Zein* (eta *ze*, *zer*, *zeinen* ere) adjektiboaren maila adierazten duten mailakatzailerat har daiteke. Alegia, *zein polita den itsasoa!*, *itsasoa oso polita da* esateko beste modu bat besterik ez da.

*Zein* nahiz beste aldaera guztiek adjektiboaren maila adierazten dute eta aditzari zehar-galderaren *-en* atzizkia erantsi behar zaio, adibideetan ikusten den gisan.



**14.10.5.7b** Hortaz, ikusten denez, *zer* horrek balio bat baino gehiago bereganatzen ditu: galdetzailea (*zer ordu da?* galdetzen dugunean bezala); mailakatzzailea (*zer polita den zerua*), eta azken honetatik nahikoa hurbil gertatzen dena baina adjektiboarekin gabe izenarekin agertzen denean: *Zer ondasunak ekarri dituen [...] Jaunaren hitzak!* (Agirre Asteasukoa). Hemen *nolako*-ren baliokidea da. Azken *zer* hau ez da egiazko galdetzailea, galdetzaileak izen sintagma mugagabeen joatea eskatzen baitu, baina *nolako* horrek, berriz, izen mugatua: *Zer liburu nahi duzu? = Zein liburu nahi duzu?; Zer ondasunak ekarri ditudan = Nolako ondasunak ekarri ditudan.*

#### 14.10.5.8. Zenbait debeku

**14.10.5.8a** Izen sintagma baten barruan aurkitzen den adjektiboak maila adberbioren bat baldin badarama edo, eskuarki, maila adierazteko erabiltzen dugun itzuli horietakoren bat baldin badarama, konparazio perpaus bat, adibidez, oso kontuan izan behar dira zenbait debeku eta traba.

Horrelakoetan izen sintagma mugaturik joan ohi da, baina mugatzaile modura *-a* edo *-ak* (pluralean) duela: *oso gizon petrala; hain liburu interesgarria; etxerik merkeenak; Andoni bezain gizon ospetsua* eta abar. Holako izen sintagmek nekez onartzen dituzte zenbatzaile numeralak eta bestelakoak. EGLUn esaten da ondoko perpaus hauek bezalakoak ez diruditela oso bidezkoak, eta haien gramatikaltasuna zalantzan jartzen duten galdera marka batekin ageri dira: *?Oso neska polit bat etorri zitzaigun; ?Neska oso polit asko ikusi genituen hondartzan; ?Arazo oso garrantzitsu bat.* Eta horiek baino “askoz jatorragotzat” jotzen dira beste hauek: *Oso neska polita etorri zitzaigun; Oso arazo garrantzitsua; Arazo oso garrantzitsua* (EGLU-I: 197).

**14.10.5.8b** Hala ere, eta egia izanik batzuetan hiztun askorentzat biziki gogor gertatzen direla, ezin dugu ukatu holako adibide batzuk gure tradizioan ere ikusten ahal direla: *Konfesio oso jeneral bat eskatzen dutenak* (Mendiburu); *Kontrizio oso egiazko bat* (Añibarro); *Gizon oso jakitun bat* (Mirande); *Berri oso eder bat* (Urruzuno); *Arrain oso polit bat* (Larzabal); *Jangai oso*



*gozotsu bat* (Lhande); *Saindutasun oso eta perfektu bat* (Mihura). Eta gaurko idazleen artean ere badira: *Oso irudi bakun bat* (J. Zabaleta); *Diseinu oso desberdin bat* (X. Arregi); *Min oso zehatz bat* (Atxaga); *Hots oso fin bat* (Saizarbitoria) eta abar. Adibide guztietan *bat* ageri da: beharbada ez da zenbatzailea, baizik artikulu zehaztugabea.

#### 14.10.5.9. Aposizioa eta aposizio motak

**14.10.5.9a** Arruntean, zenbatzaile hauen beharrea baldin bagara, egokiago da izen sintagma zatitzea eta bi zatiok aposizio modura ematea: *Neska bat etorri zitzaigun, oso polita*; *Neska bat, oso polita, etorri zen*; *Neska asko, biziki politik, etorri ziren guregana*; *Bi liburu erosi nituen, hain merkeak non...*; *Sei sagar aukeratu nituen, handienak*; *Sei sagar, handienak, aukeratu nituen* eta abar.

**14.10.5.9b** Era berean, artikuluekin (-a-rekin alegia) normalago gertatzen dira izen sintagma hauek bestelako erakusleekin baino. Hala, *liburutegian zen libururik handiena hartu zuen* perpausak normalago dela dirudi *liburutegian zen liburu(rik) handien hura hartu zuen* perpausa baino. Hala ere, batez ere, izen sintagma agertu behar lukeen izena isilpean gordea badago, erakuslea agertzeko inongo trabarik ez dugu: *Mesedez, eman iezadazu handien hori!*; *Han goian dagoen zikinen hura zurea da*. Hauetan ere, jakina, aposizio bidea beti dago irekirik: *Liburu hura, liburutegian zen handien hura, hartu zuen*. Hau oraindik nabarmenago gertatzen da *oso, hain, biziki*, eta antzeko maila adberbioak ditugunean. Adibidez, ez dira oso bidezkoak honako perpaus hauek: *?Biziki liburu interesgarri hau gomendatzen dizut*; *?Oso film barregarri hura ikustera joan ginen*. Horien ordean, perpaus erlatiboan itzulingurueta jo genezake inolako oztoporik gabe: *Biziki interesgarria den liburu hau gomendatzen dizut*; *Benetan barregarri zen film hura ikustera joan ginen*.

**14.10.5.9c** Dena den, eztabaidagarri gertatzen da gorago aipatu ditugun itzuli horien *aposiziotasuna*. Ikus, bestela, zer pasatzen den izen sintagma horiek kasu marka edo postposizio atzizkiren bat eraman beharrea aurkitzen

direnean. Adibidez, *bi liburu oso interesgarriak irakurri ditut* edo *hiru haur oso bihurriak dituzte gure lagunak* esango bagenituzke ere, zein da, ondoko perpausetan, egokiena?: *Iritsi naizenean, bi liburu oso interesgarriez ari ziren*, ala, *iritzi naizenean, bi liburu oso interesgarri z ari ziren?*; *Hiru haur oso bihurriei berebiziko zigorra eman die andereñoak*, ala, *hiru haur oso bihurri-ri berebiziko zigorra eman die andereñoak?*

**14.10.5.9d** Adjektiboak lagun daraman izenaren zer-nolakoa adierazten duela badakigu. Hori da, hain zuzen, adjektiboaren zeregina. Baina askotan izen sintagma batean adjektiboak egin behar lukeen papera *apozizioan* doala esan ohi dugun izen batek, edo beste izen sintagma batek egiten du. Adibidez: *Axular, gure idazle handiak, idatzi zuen bezala...*; *Larrañaga irakasleak bes-tela esan omen du*. Aposizio hitzak zentzu bat baino gehiago du gramatiketan. Zentzurik itxienean harturik, aposizio bat dugula esaten dugu izen batek edo izen egitura batek beste izen bati zuzenean eragiten dionean: *irakasle jauna, Larrañaga futbolaria* eta abar. Askotan, erreferentzia bat argitzeko balio dute: *Villasante, euskaltzainburu izan zena...*; *Jon, zure osaba...*

Adibide horiek erakusten dizkigute, hain zuzen, bi aposizio mota nagusienak. Lehenbizikoan, izen sintagma bat dugu: *Axular* eta ondoren, beste izen sintagma bat, aurrekoaren erreferentzia bera duena, baina ezaugarri berriren bat adierazten diguna. Lehenbiziko honi *apozizio ez-murrizgarria* deituko diogu. Hauetan, gehienetan, eten bat gertatzen da bi izen sintagmen artean. Hona hemen beste zenbait adibide: *Gasteizen, Euskadiko hiriburuan, taberna gehiegi dago*; *Pellok, atzo aipatu nizun lagunak, andregaia utzi egin du*. Hauetan, bistan da, *Gasteiz* eta *Pello*-ren ondoren datorren sintagmaren erreferentzia *Gasteiz* eta *Pello* bera dira. Hori, honako hau esatea bezala izango litzateke: *Gasteizen (eta Gasteiz Euskadiko hiruburua da) taberna gehiegi dago*; *Pellok (eta Pello da atzo aipatu nizun laguna) andregaia utzi egin du*. Aposizio ez-murrizgarriak “A, B” tankerakoak dira.

**14.10.5.9e** Bigarren aposizio motari *murrizgarria* deitzen diogu. Arruntean aposizio mota honen egitura honako hau izan ohi da: deitura bat eta gero izen arrunt bat. Orduan deituraren funtzioa da izen horren erreferentzia zehaztea. Adibidez, *Larrañaga irakaslea* edo *Garate medikua* eta antzekoak esaten

ditugunean, irakasleen edo medikuen multzotik bat ateratzen dugu eta bat honi buruz ari garela adierazten dugu. Hau da, hain zuzen, *jaun, andere, andereño, maisu, irakasle* eta antzeko izenekin erabili ohi dugun jokabidea: *Lasa andereak deitu dizu; Itziar andereñoari esan behar diogu*. Kasu horretan *Lasa* eta *andere*, *Itziar* eta *andereño* aposizioan daudela esan ohi dugu: *Lasa* eta *Itziar* izen berezien zeregina da zein andere edo zein andereñoz ari garen zehaztea. Era honetakoak ditugu hauek ere: *Gipuzkoa plazan dago denda hori; Arrantzaleak taberna oso polita da*. Noski, lehenbiziko adibidean, *Gipuzkoako plazan* ere esan daiteke. Honek esan nahi duena da, zein plazatan, alegia plaza guztien artean zehazki zeinetaz ari garen esaten digu. Aposizio murrizgarriak “A B” tankerakoak dira. *Azalpen aposizioak* ere deitzen dira. Kasu batean nahiz bestean (“A, B” zein “A B”) jarraitutasun bat ikusten da izenen artean.

Hala ere, batzuetan ez da erraz jakitea zein motatako aposizioa dugun aurrean. Adibidez, eman dezagun badirela denok ezagutzen ditugun *Garate* izeneko mediku bat, andereño bat eta futbolari bat, eta haien artean bat bereizi nahi dugula egiten ari garen elkarrizketan: *Garate futbolaria*. Hori esaten badut, ez gara ari futbolarien multzotik *Garate* izeneko aipatzen. Alderantziz: *Garatez* ari gara, baina izen horretako bat baino gehiago ezagutzen ditugunez, orduan zehaztu egin behar dugu *Garate* hori zein den: futbolaria, alegia. Dena den, *jaun, andre* eta antzekoak erabiltzen ditugunean bigarren motako aposizioa dugula dirudi, aposizio murrizgarria alegia. Lehen motako aposizioan lehenbiziko izen sintagma erreferentzia zehaztua izan ohi dugu gehienetan. Horregatik, oso normala da izen berezi bat aurkitzea lehenbizi edo izen sintagma mugatua izatea.

**14.10.5.9f** Gaur egun zenbaitek ahaztuxea dutela dirudien afera batez ohartu behar dugu. Gorago jarri ditugun adibideen arabera, euskaraz ordena normala honako hau da: *deitura + izen arrunta*. Esan nahi baita: *IGONE arrandegia*, eta ez *\*Arrandegi IGONE; JAKINTZA liburu denda*, eta ez *\*Liburu denda JAKINTZA*. Bestalde, horrelakoetan, denda edo taberna baten izena, adibidez, nagusiaren izena bera bada, honela ere esan daiteke: *Igoneren arrandegia; Antonen taberna*. Bada beste esamolde bat ere, euskalki batzuetan aski arrunta dena: *taberna* edo *arrandegia* izen arruntak ere ezkutarazi ditzakegu eta honako hauek esan. Hori ikusten da ondoko adibideotan: *Igonerenean oso arrain*

*freskoa izaten dute; Antonenetik atera garenean istripu bat izan dugu.* Noski, honek ez du balio etxe baten (denda, nahiz taberna) izena pertsona izena ez denerako. Ez dugu esaten \**Arrantzaleenean* edo \**Beti alaiarenean*.

**14.10.5.9g** *Saindu* adjektiboa nahiz izena izan daiteke. Horregatik, aposizio modura ere ager daiteke, izena denean. Horrela, *saindu* adjektibo normal bat da kasu honetan: *Pertsona saindua dela diote, baina deabrua dirudi.* Hurrengoetan, berriz, izen bihurtua da: *Ekar ezazu saindu hori; Sainduak lan handia dute zurekin.* Eta ondoko beste hauetan, *saindu* izena beste izen berezi bati lotua ageri denean, aposizioa dugu: *Anton saindua; Loiolako Inazio saindua.* Hor, *saindu*-ren aurretik doan izen bereziak zein sainduz ari garen zehazten digu, *Bidasoa kafetegia* esaten dugunean bezala, hots, zein kafetegiz ari garen esaten digu. Baina *Santa Ines, San Anton, San Pedro, Santa Anastasia* eta horrelakoetan, multzo osoa, *san(ta)* eta guzti, izen berezizat hartu behar da. Hain zuzen, *San Anton*, dagoen-dagoenean, *saindu* baten izena dugu, oso-osoarik, pertsona baten izena *Patxi* edo *Miren* izan daitekeen bezala.

**14.10.5.9h** *Jaun* eta *andere* gisakoak izenaren ezkerretara nahiz eskuinetara ager daitezke (tradizioan izenaren ezkerrean ekialdean, eta eskuinean Hegoaldean, betiere salbuespenekin). Hala ere, izen berezi bat dugunean, izen horren eskuinetara doaz gaur egun: *Lasa jauna; Eduarda andrea; Alberdi anderea.* *Erretore* eta *serora* hitzekin, adibidez, hola erabiltzen da: *jaun erretorea; andere serora.* Hona hemen ekialdeko adibide batzuk: *Jaun erretore xaharra* (Larzabal); *Jaun erretoreak hala galdeturik* (Barbier); *Azkainen prediku aulkitik erran [...] jaun erretoreak* (Zerbitzari); *Galdegiteko bezala jaun erretoreari* (Duvoisin); [...] *bai zuri eta bai andere serorari* (Larzabal); [...] *egungo elizetako andre serorei* (Hiriart-Urruti); *Beharbada andre serorari...*

Izen bereziekin gauzak ez daude, ordea, hain garbi, gure tradizioan denetatik baitago. Hasteko, *andre, andere* eta *andra* hitzak erabiltzen dira, idazle eta euskalkien arabera (askotan *andre* eta *andere* idazle berak). Eta izen bereziaren aurretik jartzea aski arrunta da: *andre Kaxilda* (Altzaga); *andre Kiteri, andre Anjela* (Barriola); *zure andre zahar Isabel, andre Ana, andre Eba* (Mendiburu); *andre Ana Josepa, andre Luzia* (Agirre) eta abar. Batzuetan

artikulua darama. Lizarragak erabiltzen du hola: *andrea Teopiste*, *andrea Marzionilla*, *andrea Damaris*, *andrea Safira*, nahiz artikulua gabe ere inoiz: *andre Klaudia*. Laphitzek ere bai: *Andrea doña Marina Saez de Likona*.

Baina izenaren ondotik jartzea ere ez da hain arrotza, artikuluekin nahiz gabe: *Domini andrea* (Labaien); *Elekta andrea* (Uriarte); *Madalena andre* (Etxeberri Ziburukoa) eta abar.

*Jaun* hitza, arruntean, salbuespenak salbuespen, izenen ondotik ageri da: *Jainko jauna* (Duvoisin); *Iñazio jauna* (Laphitz); *Larzabal jauna* (Larzabal); *Sabarots jauna* (Larre); *Juez jauna*, *Patrakar jauna* (Urruzuno); *epaikari jauna*, *alkate jauna* (G. Mujika); *konde jauna*, *Wolfio jauna* (Arrue) eta abar.

**14.10.5.9i** *Don* eta bere aldaera *On* ere erabiltzen dira aposizioetan, izen bereziaren ezkerrean beti: *On Ramon agurgarria* (Irazusta). Egitura horren antzeko beste bat da ahaidetasuna adierazten duten izen arruntek izen bereziekin osatzen dutena. Horrelakoetan, izen arruntak ezkerretara joaten dira: *amona Mariaxun* (Orixe); *amona Mikela* (Arzak); *amona Inaxi* (Azkue); *amona Pia* (Iraola); *amona Mantagorri* (Larzabal); *amatxi Matiste* (Orixe); *amama Juana* (Arrese Beitia); *aitatxi Ganix* (Larzabal); *izeba Isabel* (Azkue); *izeba Marta* (Erkiaga); *otto Pettan* (J. B. Etxepare). Badira, zernahi gisaz, holako adibide batzuk ere: *Anjel aitona* (Barriola); *Joanes aitona* (Agirre).

Batzuetan bikoizketak ere gertatzen dira: *Narbaitz jaun kalonje*; *Mgr. Tessier Baionako jaun apezpikua*. Dena dela, hainbeste *jaun* eta *andere* beharrezko ote? Ez zuen horrela uste Hiriart-Urrutik: “«Jaun Oihanburu», edo «Jaun Errekarte»? –Ez eta Errakarte edo Oihanburu jauna [...] Oihanburuko jauna, ba; Errekarteko jauna ba; eta etxeko jauna ere ba [...]. Eskuaraz mintzatu nahi direnek erraiten dute eta erranen *Jaun jujea*, *jaun mera*, *jaun axuanta*. Bizipide edo karguaren izenarekin *jauna*” (1972. *Zezenak errepublikan [Eskualduna*, 1908-VII-17]).

**14.10.5.9j** Dena dela, aposizioa oso komenigarri gertatzen da zenbatzaileak eta adjektiboak inguratzaile asko dituztenean: *Bi gizon ezagutzen ditut*, *oso berritsuak*; *Bi gizon*, *oso berritsuak*, *ezagutzen ditut*.

**14.10.5.9k** Beste arazo bat ere bada: aposizioan doazen izen sintagmek, per-pausean betetzen duten funtzioaren arabera, atzizkiren bat izango dute. Baina, bi zatiek eraman behar dute atzizki hori, ala batek eramanda nahikoa da?

Aposizioa murrizgarria denean, dudarik ez da: atzizki bakarra izango du eta bera, jakina, izen sintagma osoaren azkenean: *Urola ibaitik*; *Axular ikastolara*. Baina besteetan gauza ez dago hain garbi. Gehienetan badirudi aski dela kasu marka behin bakarrik ezartzea, izen sintagma osoaren azkenean: *Campion, euskaltzale fin hark*, *sarritan esaten zuen...* Ez da beharrezko hor *Campionek*, *euskaltzale fin hark*, *sarritan esaten zuen...* esatea. Etena handia denean, ordea, eta egiazki aposizio ez-murrizgarria denean, bi sintagmei marka erantsirik askoz ere argiago gelditzen da perpausa: *Canpionek*, *hainbeste aldiz gogoratzen dugun hark...*; *Nik*, *bekatari honek*, *ez nuke honelakorik esango*; *Andoniri*, *nire lehengusuari*, *gauzak gaizki atera zaizkio*. Baina, hori ere, ingurunearen arabera erabaki behar da, nekez eman daitezke arau eztabaidaezina: *Andoni*, *nire lehengusuari*, *gauzak gaizki atera zaizkio*.

## 15. Determinatzaileak (I): mugatzailea

---

15.1. Determinatzaile motak

15.2. Artikulua; 15.2.1. Mugatzailearen beharra; 15.2.2. Mugatzailearik gabeko sintagmak

15.3. Artikulua eta sintagmaren numeroa

15.4. Erakusleak; 15.4.1. Erakusleen funtzioa; 15.4.2. Erakusleen lekua perpau-sean; 15.4.3. Erakusleen erro eta formak; 15.4.4. Erakusleak eta esapideak; 15.4.5. Erakusle indartuak; 15.4.6. *Bera* eta *berdin*; 15.4.7. *Bera* aposizioa; 15.4.8. *Hura* eta *bera*; 15.4.9. Forma berrindartuak; 15.4.10. *Ber* darama-ten forma batzuk

15.5. Partitiboa

---

### 15.1. Determinatzaile motak

**15.1a** Izenaren atalean izen mota desberdinak aztertzen dira (§ 12.3): *arrun-tak* (mahai), *bereziak* (Jone), *abstraktuak* (maitasun), *konkretuak* (etxe) eta abar. Izenak sintagmetan antolatzen dira, eta ISeK beti hartzen dute izena ar-datx. Izen bereziak eta izenordainak kenduta, izenek beti behar dute determi-natzaile bat sintagma osatzeko: *Ume asko iritsi ziren gailurreraino*; *Haur bel-tzarana zigortu du andereñoak*; *Soineko hori erosi nahi nuke*; *Hiru liburu irakurri behar dituzu*.

Adibide horietan guztietan beharrezkoak ditugu *asko*, *-a*, *hori* eta *hiru* gisa-koen determinatzaileak: \**Ume iritsi ziren*; \**Haur beltzaran zigortu du andereñoak*; \**Soineko erosi nahi nuke*; \**Liburu irakurri behar dituzu*. Ikusten denez, azken perpaus horiek ez dira gramatikalak.

Bai, ordea, partitiboaren markarekin: *Ez zen umerik iritsi*; *Ez du haur beltzaranik zigortu andereñoak*; *Ez nuke soinekorik erosi nahi*; *Ez duzu libururik irakurri behar*.

Beraz, *asko*, *-a*, *hori* eta *hiru*, determinatzaileak direla esango dugu. Determinatzaileen sail hauek bereizten ditugu:

- I. Mugatzailea: Mugatzailearen barnean bi multzo bereizten ditugu:
  - a) Artikulua: *-a*; zenbait kasutan *bat* zenbatzailea; eta beste zenbait kasutan *-ik* partitibo marka (§ 15.5).
  - b) Erakuslea: *hau*, *hori*, *hura*...
- II. Zenbatzailea: *bi*, *hiru*, *hamar*, *asko*, *gutxi*, *zenbait*... Zenbatzaile zehaztuak (*bat*, *bi*, *hiru*...) mugatzaileekin batera ager daitezke; beste batzuk, ordea, ez (ikus § 16 *Zenbatzaileak*).
- III. Zehaztugabea: *zein*, *edozein*, *zernahi* eta abar.

**15.1b** Orain arte dioguna kontuan hartuta, esan dezakegu euskaraz [ $\pm$ *mugatzaile*] tasunaz balia gaitzkeela izen sintagmak sailkatzeko. Egoerarik arruntena sintagma [+mugatzaile] markarekin azaltzea da, esan nahi baita izen sintagmak mugatzailea hartuko duela arruntan. Alabaina, [-mugatzaile] azaltzen denean, izen sintagmak ez du mugatzailearik hartuko.

Baina nola jakin noiz dagokion tasun bat eta noiz bestea izen sintagma bati? Printzipioz, esango dugu euskaraz izen sintagmak mugatuak direla (§ 2.7, § 12.2), mugagabe izateko arrazoi sintaktiko markaturik ez bada segurik. Hortaz, izen sintagma noiz izango den [-mugatzaile] ikusiko dugu lehenik: gainerakoetan izen sintagmak artikulua edo erakuslea hartu beharko du. Artikuluaz ariko gara lehenik.



## 15.2. Artikulua

### 15.2.1. Mugatzailearen beharra

**15.2.1a** Mugatzaileen saila osatzen duten lehenbiziko multzoa osatzen du artikulua. Euskal artikulua *-a* da, artikulua zehaztua alegia. Baina zenbait kasutan, ikusiko dugunez, *bat* zenbatzailea ere artikulua da (Leizarragak testuinguru berean *arkumea bezala* eta *ardi bat bezala* erabiltzen ditu, adibidez), artikulua zehaztugabea. Horien pluralak *-ak* eta *batzuk* dira. Bataren eta bestearen balio parekoa *horiek astoak dira* eta *horiek asto batzuk dira* perpausetan ikus daiteke. Esaterako, *jende asko espero genuen, baina azkenean ikasle batzuk bakarrik etorri dira* eta *horiek asto batzuk dira* perpausetan ageri den *batzuk* horrek aski balio desberdinak ditu. Lehenbiziko perpausetan bakarrik da zenbatzailea, eta *ikasle asko, zenbait ikasle...* sintagmen parekoa da. Ez, ordea, bigarrenean, hori parean direnak *-ak* eta *batzuk* baitira. Horregatik diogu artikulua balioa dutela zenbaitetan *bat* eta *batzuk* berez zenbatzaile diren hitzek.

Arruntena da izena beti artikuluaarekin agertzea. Hori da egoera neutroa, ez-markatua. Baina batzuetan ez du ez artikulurik ez erakuslerik. Segidan jarritzen ditugu kasu horiek.

**15.2.1b** Izen sintagman zenbatzailearen bat azaltzen denean (ikus 16. kapituluak): *Gizon askok parte hartu zuen biltzarrean; Ez dakit zergatik egiten duzun horrenbeste lan; Bost liburu irakurri behar dituzue ikastaroan zehar.*

Hala ere, kontuan izan zenbatzaile zehaztuak mugatzailearekin elkar daitezkeela: *Irakurri ditut bost liburuak.*

Kantitatea, neurria, adierazten duten izen sintagmak ere zenbatzailea daramaten, mugagabeak ditugu: *Bost kilo sagar erosteko agindu dit amak; Lau metro oihal beharko duzu soineko hori josteko.*

### 15.2.2. Mugatzailerik gabeko sintagmak

**15.2.2a** Izen sintagma izen bereziak osatzen badu, pertsona nahiz leku izena izan, izen sintagma horrek ez du mugatzailerik izango: *Mirenek eta Iñakik ez diote elkarri jaramonik egiten; Donibanen eta Eibarren oso hizkera desberdina dute, nahiz guztiak euskaraz egin*. Kasurik arruntena hori da, baina badira izan berezi batzuk mugatzailea daramatenak ere: *Bizkaia, Azpeitia* eta abar. Itxura bertsukoa izanik ere, beste batzuetan berezkoa dute izen batzuek azkeneko *-a* hori: *Donostia*, adibidez. Batzuetan izen bereziak gehiago determina daitezke: *Gure Axular handia / handi hura* (§ 12.3.2).

Izen sintagmaren ardatza izenordaina denean ere, izen sintagma [-mugatzaile] motakoa izango da: *Edonork daki horrenbeste; Zu behintzat ez zara gurekin etorriko*. Izenordainak ezin dira determinatu haien izaera baita berez determinatzaile izatea. Horregatik, izen bereziekin ez bezala ezin dugu *\*ni handia / handi hau* edo holako zerbait esan.

**15.2.2b** *Egin, eman, hartu, bihurtu...* aditzekin elkartzen ditugun izenak. Adibide gehienak *egin* aditzarekin osatzen ditugu: *Min egin zion bihotzak: tinko-tinkoa hartu behar izan zuen bihotz hori* (Barbier); *Sarritan, luma erortzen utzi eta amets egiten zuen* (K. Zabala); *Aberriaren alde lan egiteak bere ordaina izaten du* (Jimenez). Baina beste lokuzio hauek ere arruntak dira: *Min hartu arren eutsi dio sendo eta han gelditu da* (Barriola); *Min hartu al duzu?* (Soroa); *Orduan haragiaren arauaz ezin garateke haserretu gabe, min hartu gabe, eta barenean irakin gabe* (Axular); *Ordu hartan manu eman nizuen, nioelarik: Zuen Jainko jaunak [...]* (Duvoisin); *Alde haietako artzain, eta unaiak Isidrori kontu eman, eta andrea gaizki, edo pauso gaiztoetan zebilela salatu zuten* (Kardaberaz); *Behar du beraz fraidearen izpiritua kontu eman, zer darasaten haren ezpaineak* (Joanategi); *Jaungoikoari kontu eman zion* (Soroa); *Sakristaua itxura hartan ikusteak beldur eman dit* (Labaien); *Jauna, zure urrikalmenduak asti eman dit* (Duvoisin); *Nahikoa lan egin du hark bere urteetan* (Agirre); *Alde askotara lan egin behar dugula, jakina* (Larreko); *Zuetarik bat bederak hil araz beza bere ahaide idoloei ohore bihurtu diotenak* (Larregi).

**15.2.2c** Perpaus batean bi izen sintagma *nor* kasuan ditugunean, bietatik bat bigarren mailako predikatua delarik (§ 24.4): *Hona hemen Ameriketara artzain joandakoren batek egindakoa* (Arranz); *Zortzi urterekin artzain joan zela bere anaiarekin Extremadura aldera [...]* (Atxaga); *Beraz, aurtengo San Joan gauean ere, une batez, harriak ogi eta urak ardo bihurtuko dira* (Anso); *Aita izan ote zuen “Hor konpon, Mari Anton” lehenbiziko aldiz esan ziona medikuaren etxera neskame bidali zuen egunean?* (Lertxundi); *Jaunak apaiz izendatu zaitu Joiadaren ordezt (Elizen arteko Biblia)*; *Ondorioz kanpaina bat izan zen honen kontra apezpiku izendatu zutelarik* (Arbelbide); *Alkate izendatu zutenean, berriz, Azpilgo ehorzlea eroetxera bidaltzea izan zen bere lehen neurria* (Irigoién); *Juan Pedro Aguirre, edo oraino Etxezuri, Luzaiden alkate egon zen denboran, bere indar eta eragin haundiaz baliatu zen herriaren alde jokatzeko* (Aintziburu eta Etxarren); *Gero, 1936ko otsaileko bozetan herriaren gehiengoak berriro alkate hautatu zuen* (Jimenez).

Adibide horietan, pertsonaren egoera, estatusa, edota materia aldaketa adierazten duten izen sintagmak mugagabeaz azaltzen zaizkigu (euskaraz perpaus bakoitzean kasu bakoitzeko sintagma bakarra dugulako erregelaren salbuespena).

Ikus Euskaltzaindiaren 40. araua: “Topiko(a) bihurtu”, Donostian, 1995eko uztailaren 28an onartua.

Aditzei dagokienez, berriz, *joan*, *egon*, *bidali*, *bihurtu*, *hautatu*, *aukeratu*, *egin*, *izendatu* eta abar aurkituko dugu.

**15.2.2d** Izenondoa, atributu (predikatua) funtzioa betetzen duenean (ikus § 14.6 eta 24. kapitulua), mugagabe gisa erabil dezakegu. Iparraldean eta ekialdean honetarako joera handiagoa dago; Hegoaldean eta mendebaldean txartzat ematen ez bada ere, askoz maizago eranstean zaio mugatzailea adjektiboari: *Egoki eta bidezko da, zuzen eta osasungarri, Zuri, Jaun guztiz ahaltsu horri...; Ikusteko zen orduan mutiko horren zangoek, patarra gora on baziren, patarra behera zer balio zuten!* (J. B. Elizanburu); *Ezen egoki da guk zuzen den guzia honela bete dezagun* (Duvoisin); *Egoki da irakurleak jakin dezan* (Juan

Garzia); *Egoki da, eta zuzen, senideez oroitzea* (Elizen arteko Biblia); *Zu zaitu jabe, zuzen da ezagut dezazun* (Jon Muñoz); *Zuzen da definitzea erranez hone-la* (Xarriton); *Adiskide zintzoa osasungarri da bizitzan* (Elizen arteko Biblia).

**15.2.2e** *-n* eta *-z* (Iparraldean *-kin* ere) kasu markak hartzen dituzten izen sintagmek, batik bat izen soilez osatuak badaude, badirudi adberbio antzeko balioa hartzen dutela, eta izen sintagma horiek [-mugatzaille] motakoak izan ohi dira (§ 21.6, § 22.2.4.3, § 22.6.7c): *Oinez ibiltzen hasia zagok* (Agirre); *Turutaren durrundak sutan ezartzen du* (Duvoisin); *Elur eta ilunpeak estali du ibarra eta mendia: nire bihotza, elurretan dagoen hilobia* (Jautarkol); *Ilunpetan zegoen lurra* (Agirre); *Ostegun arratsaldeetan Green Point-era joaten da autoz* (O. Arana).

Iparraldean *-kin* kasu marka hartzen duten izen sintagmak ere *nola?* galderari (eta ez *norekin?* galderari) erantzuten dioten neurrian, mugagabeaz azaltzen dira: *Bozkario handirekin hartu zuten eman nien berria*.

Hala ere, kontuz ibili behar dugu, *ilargi*, *eguzki* eta beste batzuekin ere honako bereizketok egiten baititugu: *Aziendetan, aziendetan duk urrea, ez ilargian ez!* (Larzabal); *Egungo Ebanjelioan aipatzen dizkigu Jesukristok seinale izanen direnak eguzkian, ilargian, izarretan, itsasoan eta lurrean azken juizioko egunaren aitzinean* (Lizarraga); *Orduan izanen dira seinaleak eguzkian, ilargian eta izarretan, eta lurraren populu guziak izanen dira hersturetan* (Haraneder); *Eta etxeraino ez zela zabaldu esan zion, etxeko leihorik txikienean gauero ilargitan irakur zezala erreguturik* (E. Bustintza); *Zerua, zein ederra den. Mendiak, horra ilargitan* (Arrese Beitia); *Eta utziko dituzte kanpoan egon daitezten eguzkitan, eta ilargitan, eta zeruko izarren aurrean [...]* (Uriarte).

Lehen hiru adibideetan *ilargi* hitza *etxe*, *baso* edo beste izen baten parekoa dugu. Nafarroan *-n* kasu marka hartzen duten izen sintagmetan, *sutan/suan* bereizketa egiten da, hots, mugagabe/mugatu singular: *Jar ezazu eltzea suan!*; *Etxea sutan dago*; *Etxea ketan dago*; *Suhiltzailea kean sartu da* (ikus § 20.1).

**15.2.2f** Prolatibo deitzen zaion kasua adierazten duen postposizioa beti mugagabeari eransten zaio: *Erregetzat hartu dute, benetan errege itxura baitu*; *Tontotzat daukate, baina edozein egunetan ohartuko gara uste duten baino azkarragoa dela*.

**15.2.2g** Gauza bera gertatzen da *bat* zenbatzailearekin aurkitzen dugun *-en bat* egituran, beti mugagabeen erabiltzen dugu: *Ikasleren bat kopiatzeko harra-patzen baduzu, bidal ezazu kanpora.*

**15.2.2h** Hemen aipatutako egiturez kanpo, izen sintagmek mugatzailea edo erakuslea eraman beharko dute. Mugatzaile (nahiz erakusle) hauei izen sintagmaren eskuineko muturra dagokie: *Zirku horretako elefante zuria zoragarria iruditzen zait; Mutiko hori andereño guztiek maite dute.*

Kontuan har dezagun mugatzaile edo erakuslea izen sintagma osoari dagokio-la, ez ondoan ezkerretara dagoen elementuari bakarrik. Beraz *elefante zuri* multzo osoa da *-aren* bidez mugatzen dena, ez *zuri* bakarrik.

**15.2.2i** Zenbaitetan *-ik* partitiboa ere erabiltzen dugu *-a* artikulua ordez. (§ 18.5).

### 15.3. Artikulua eta sintagmaren numeroa

**15.3a** Izen sintagma osatzerakoan, [ $\pm$ mugatzaile] tasunaz gainera, [ $\pm$ plural] tasuna ere, numeroa seinatzen duena, beharrezkoa zaigu. Berdin gertatzen da erakuslea hartzen badu ere. Tasun bakoitzarekin dugun aukera bikoitza kontuan izanik, honako eskema hau eman dezakegu:

Izen sintagma	{	+ mugatzailea	{	+ plural	-k
			{	- plural	-∅
	{	- mugatzailea	{	+ plural	-∅
			{	- plural	-∅

**15.3b** Izen sintagmak pluralez jartzeko *-k* eranstean zaio artikulua nahiz erakusleari. Jakina denez, singularrak ez du marka berezirik: *Gizon asean-∅*

*zoriontsu izan ohi da; Lapur famatu hura-Ø erori da azkenean; Zakurra-k xaxatu ditu ijitoen kontra; Enbor horie-k txikitzeko agindu diet.*

Adibide horietan *gizon asea* eta *lapur famatu hura* izen sintagma mugatu singularrak direla esango dugu: *-a* edo *erakuslea* + Ø. Aldiz, *zakurrak* eta *enbor horiek*, izen sintagma mugatu pluralak: *-a* edo *erakuslea* + *-k*.

**15.3c** Bestaldetik, mugagabe diren izen sintagmetan ez singularrak ez pluralak ez du marka berezirik. Hala ere, noiz diren [+plural] eta noiz [-plural], aditzaren komunztaduran ikusten da (*nor*, *nork* edo *nori* sintagmetan): *Ander etorri da; Bilbo atsegina da; Gizon asko etorri da; Gizon asko etorri dira; Hiru liburu irakurri dut; Hiru liburu irakurri ditut.*

Determinatzailea zenbatzailea denean, izen sintagmak [+plural] nahiz [-plural] bezala har daitezke, komunztaduran ikus daitekeenez. Hala ere, mendealdeko euskaldunek komunztadura pluralean egiten dute oro har (beraz, zenbatzailedun izen sintagmak [+plural] motakoak dira hauentzat). Ekialdekoek joera handiagoa dute halako izen sintagmak singularizat hartzeko, baina Hegoaldekoek bezala, komunztadura pluralean ere egin dezakete (§ 16.3).

**15.3d** Baina izen sintagma mugatu pluraletan beste forma hauek ere aurkitu ditzakegu: *Guk, irakasleok, geure biziko ixtorioak botatzen dizkiegu ikasle gizajoei; Zuek, apaizok, ez duzue kolperik jotzen.*

Ikusten denez, *-a* + *-k* formaren parean, *-o* + *-k* dugu adibide hauetan. Hau da, mugatzailea *neutroa*, *ez-markatua*, nolabait esatearren, eta mugatzaile hurbila (*-o*), lehen edo bigarren pertsonari dagokiona, hiztun edo entzulearen hurbiltasuna markatzen duena. Gaur egun, mugatzaile hurbil hau ondoren pluralgilea darraikionean bakarrik erabiltzen dugu. Izen sintagma singularrean, aukera bakarra, mugatzaileari dagokionez, *-a* baita.

Bizkaian, hala ere, gordetzen dituzte (*hemen*) *berton* bezalako formak, nahiz singularra izan.

**15.3e** *Bat* zenbatzailearen mugatzaile balioa (*-a* artikuluaaren parekoa) dela eta, ikus § 16.2.2.

## 15.4. Erakusleak

### 15.4.1. Erakusleen funtzioa

**15.4.1a** Mugatzailearen bigarren multzoa osatzen du erakusleak. Erakusleen funtzioa zerbait seinalatzea da, izenak berak dioen bezala. Zerbait erakusten duten elementuak dira. Euskaraz, elementu erakusle hauek ditugu: *hau/hori/hura; hauek/horiek/haiek*.

Beraz, seinalatze horretan hiru gradu bereizten ditugu: hizketan ari denagandik gertu, ez hain gertu eta urrun dagoena. Edota hizketan ari dena (*ni*), entzuten ari dena (*zu*) eta elkarrizketan parte hartzen ez duena (*hura*): *Hainbeste bider zure aldera azaldu naizen honek, oraingoan ere lagunduko dizut; Hainbeste bider nire alde azaldu zaren horrek, oraingoan ere lagunduko didazu, ez al da hala?*

**15.4.1b** Hurbiltasun-urruntasuna espazioan gerta daiteke: *Eltze honetan ego-si ohi ditugu babarrunak esango dugu gertu daukagun eltzeaz ari bagara, eltze hori seinalatu eta bere hurbiltasuna espresuki adieraziz. Aldiz, eltze horretan... esango dugu, eltzea pixka bat urrutixeago badago, eta eltze hartan... urrun dagoenez hitz egiterakoan.*

**15.4.1c** Gradazio bera denboran ere aurki daiteke: *Aste honetan hasiko zaizkigu azterketak esatean, hitz egiten ari garen uneari dagokion astea seinalatzen dugu; edota *Azken ehun urte honetan adina aurrerapen ez du inoiz ezagutu gizadiak* perpausean *azken-ek* eta aditza orainaldian erabiltzeak hurbiltzen baitizkigu *ehun urte horiek*. Baina, *Ni 1955ean jaiotzen eta, diotenez, urte hartan sekulako izozteak izan ziren*, aipatzen dugun garaia urruti gelditzen zaigulako.*

**15.4.1d** Azkenik, maila edo gradu hauek balio *nozionala* ere izan dezakete, hots, leku/denboratik at dagoen urruntasun-hurbiltasun maila. Hala gertatzen da, esaterako, kontaktetan, aipatu berria den zerbait seinalatu nahi dugunean: *Etxe txiro batean neska eder bat bizi zen. Eta neska honek...*

*Hau*, lehen graduko erakuslea, kontaktetan ondoren datorrena aipatzeko, iragartzeko ere erabili ohi da: *Hauxe esan nahi nuen, enkargua egingo dudala, baina ez neure gustuz, agindu didatelako baizik.*

### 15.4.2. Erakusleen lekua perpausean

**15.4.2a** Erakusle hauen lekua, adibideetan zehar ikus dezakegunez, izen sintagmaren azken muturra da. Beraz, mugatzaileak hartzen duen leku bera hartzen du: *Atzo ikastolarakoan kontatu nizuen ipuin polita*; *Atzo ikastolarakoan kontatu nizuen ipuin polit hura.*

**15.4.2b** Baina askotan erakusle hauek berez bakarrik osa dezakete izen sintagma. Horregatik esan ohi da hirugarren pertsonako izenordain bezala ere funtziona dezaketela (ikus 13. kapitulua). Hala ere, hurbiltasun-urruntasun ideia gordetzen denez, balio seinalatzailea ez dute galtzen: *Horri gozokiak eman dizkiozu eta niri ez*. Gure ondoan dagoen batez ari bagara (*horri gozokiak eman dizkiozu edo **hari** gozokiak eman dizkiozu...*).

### 15.4.3. Erakusleen erro eta formak

**15.4.3a** Erakusleen formari dagokionez, berriz, erakusle bakoitzak, singularran, bi erro itxuraz desberdin ditu: *hau, hori, hura* absolutibo kasuan; *hon-, hor-, har-* gainerako forma guztietan. Horrela, *mutil hau etorri da eta mutil honi eman dizkiot nituen intxaur guztiak* esaten dugu.

**15.4.3b** Bestalde, balio erakuslea duten adberbio kategoriako formak ere badiugu. Lekuzko adberbioak ditugu honako hauek (§ 22.5): *hemen, hor, han; hona, horra, hara*. Adberbio hauek aurkezpen balioa ere izan dezakete. Hala nola: *Horra! Horra! Gure Olentzero...* Alde honetatik beheraxeago aipatzen ditugun *hona hemen* eta gainerakoen pareko direla esan daiteke.

**15.4.3c** Hurrengoek modua adierazten dute (§ 22.6): *honela, horrela, hala*. Eta hortik sortzen den izenlaguna: *honelako, horrelako, halako*.



**15.4.3d** Gradu bakoitzeko *nora* kasua eta adberbioa (edo postposizio sintagma zirkunstantziala) ere elkar ditzakegu: *hona hemen; horra hor; hara han...* Tradizioan badira lekukoak: *Eta horra nondik heldu den Beltzuntzeko izena* (Webster); *Horra nola hemendik aintzina dudan eginen* (Duvoisin); *Jainkoak azkenean hara nola berari berean kendu dizkion* (Amundarain); *Hona hemen lanperna* (Barriola); *Begira ezazu, horra hor non dauden* (Barriola).

Baina hiru graduen arteko bereizketa ez da beti gordetzen, eta, ondorioz, gradu desberdinetako erakusleak elkartzen ditugu, batez ere *hara* hirugarren gradukoarekin. Badirudi hori dela neutroena: *Hara hemen apaiz jauna, aita* (Garitaonandia); *Hara hor xehe-xehea aipatua gertakari burutik joangarria, hara hor begien aitzinean* (J. B. Etxepare).

**15.4.3e** Honako hauek zenbatzaile zehaztugabetzat hartzen ditugu (§ 16.3): *honenbeste, horrenbeste, hainbeste nahiz honenbat, horrenbat, hainbat*. Tradizioan badira adibideak: *Ez fida, zeren munduarekin ibiliagatik horrenbat urtez haragiaren akuiluak, eztenak eta eragintzak ez dituzun sentitu eta sentitzen* (Pouvreau); *Hainbat urte baziren etxe horretan zegoela* (Mirande); *Hel-tzen zen bat eta eskatzen zituen honenbeste metro makarroi* (J. B. Bilbao).

Berez, *honenbeste* lehen pertsonari loturik erabili behar omen genuke, *horrenbeste* bigarrenari, eta *hainbeste* hirugarrenari, horren alde egin izan dute batzuek: Kutxan *honenbeste* diru *nuenik* ez *nuen* uste; Aurrezki kutxan *horrenbeste* diru *zenuenik...*; Aurrezki kutxan *hainbeste* diru *zuenik...*

Baina hori ez da hala izan: *Emanen didazu zure alabetarikan bat eta nik emanen dizut horrenbeste diru* (Webster); *Beste hainbeste eginen nion mutil hari* (Larzabal); *Hil al da zuk hainbeste maite zenuen laguna?* (Altzaga); *Gizonak horrenbeste bizi ahal izatea* (Lizardi). Eta gaur egun *hainbeste* (zein *hainbat*) beste biei nagusitu zaie eta forma hori da gehienetan erabiltzen duguna. Alde horretatik esan dezakegu erakusle balioa galdu duela, eta kantitate mugagabea, konparazio absolutuaren esanahiaz, adierazteko balio duela: *Baina nik hainbeste jaso dut dagoeneko Idazki Santutik* (Elizen arteko Biblia); *Eta zuk nola dakizu hainbeste* (Iturralde); *Guk paramilitarrei hilean hainbeste ordaintzen diegu eta babestu egiten gaituzte* (Sarrionandia).

**15.4.3f** Horien parean ditugu adjektiboaren maila graduatzeko erabiltzen direnak: *honen, horren, hain*. Aurreko sailekoek bezala, horiek ere balio seinatzailea galdu, eta kalitateari dagokionez, konparazio absolutua adierazteko balio dute: *Ez nuen uste honen eskuzabala nintzenik; Ez nuen uste horren eskuzabala zinenik; Ez nuen uste hain eskuzabala zenik.*

Baina paralelismo hori praktikan ez da betetzen: *Bizitzan lehen aldikoz, kuartelera eraman behar ninduten ni, beti horren zintzo eta zuzen portatua nintzena* (Elosegi); *Ni ez naiz horren doilorra* (J. Zabaleta); *Animatu egiten nintzen, azkenerako elkarriketa hura horren “normala” iruditzen ez zitzaidalako* (J. Zabaleta); *Hiri hau horren bakantzailea, bereizgarria baita* (I. Zabaleta). Praktikan, egun, *hain* da beste biei nagusiturik, gehien erabiltzen dena: *Baina ni ez nengoen hain segur* (Irigoien); *Eta hi nora hoa, hain azkar?* (Morales); *Zu, hain xarmangarria izanik, ez zaitut ikusten horren guztiaren erdian* (Lopez de Arana); *Zuek, hain katolikoak zaretenez, askotan irakurriko duzue Biblia* (Atxaga).

Itxuraz pixka bat desberdinak izan arren, berdintasunezko konparazioa adierazten duten *bezain* eta *bezainbat* (= *adina, beste*) formetan, erakuslea aurkitzen da bigarren atalean, (*h*)*ain*, (*h*)*ainbat* formetan: *Paris Londres bezain hiri ederra da; Madrilek Bartzelonak bezainbat biztanle ditu.* (§ 32.2).

#### 15.4.4. Erakusleak eta esapideak

**15.4.4a** *Hortaz* bi perpaus lotzeko erabiltzen dugu, balio *ilatiboa* duela: *Zu eta biok ez ginateke hizketan ariko une honetan, isiltasuna izango bailitzateke nagusi, batasuna eta isiltasuna. Hortaz, orokorrean, ona da bai gauzen artean hutsune bat egotea, bai zu eta bai ni bi izatea eta ez bakarra* (Gorrotxategi). Badira balio *ilatiboa* duten beste esapide batzuk ere, *horrenbestez, hartara* eta abar (§ 42.22): *Ezkondiak eta aita edo ama ziren gehienak, eta zailxeago zen horrenbestez egiteko hura* (Elosegi); *Horrenbestez, ordea, ez ditugu aipatu film horretan ageri diren zabaldegi eguzkitsiak, jostailuzko etxeokak* (Mitxelena); *Hartara, hiri merkatari batean epaile gutxiago dago,*

*eta lege gehiago (Iñurrieta); Hartara, sekula ez dut jakin nolako zirrara sorrarazi zioten erregeren hitzek, zirrarak sorrarazi bazioten (Epaltza).*

**15.4.4b** *Hala-hala* Etxepareren garaitik dokumentatzen da, eta gaur egun ere erabiltzen da Iparraldeko hizkeretan: *Baldin luzaro bekatun egoteaz [...] egiten badiogu bidegabe Jainkoari eta Aingeruei, segur da hala-hala egiten diogula gure buruari ere (Axular); Hala-hala Baigorri aldekoek edo Hazparne inguruko batzuek eginen zuten beste hainbeste (Larzabal).* Beste batzuetan ‘erdizka’ edo esan nahi du, eta Hegoaldean ere erabiltzen da esanahi horrekin: —*Eta?... —Hala-hala... bihotzak ez du ongi erantzuten eta egunetan bakarrik hartu nahi ez duela, asko ahuldu da (Etxaniz).*

*Nola hala* ere sail berekoa da: *Nola-hala dutxatu, kolonia pixka bat sartu eta gidariarengana biratu nintzen (I. Araque).*

Bestetik, *hala nola* ere aipatu behar da. Tradizioan Iparraldean eta Nafarroan ageri da gehien bat. Esanahiari dagokionez ‘... bezala’ esan nahi du batzuetan: *Libra gaitzazu peril honetarik, hala nola libratu baitzenuen Abraham Kaldeanoen eskuetarik (Materre); Xuxen joan dituzu karguko urratsak, hala nola orenak erlojuko orratzak (Xalbador).* Beste batzuetan ‘hots, adibidez, alegia...’ esan nahi du: *Ur gehienak hormatuak ziren, hala nola Biebreko ura (Laphitz); Euskalaririk gehienek ukitu behintzat egin dute, hala nola Stempfek [...] eta, inork baino barrenkiago, Rene Lafonek (Mitxelena).* Azken kasu honetan aditzak menderagailua hartzen du batzuetan: *Bekatu arinak direnean behintzat, hala nola baita emazte zuzenezkoa hiltzea (Mirande).*

Horiek guztiak adberbioak dira.

**15.4.4c** Erakusle hauek absolutiboan doazenean harriduretan ere erabil daitezke: *Hau duk egarria! (Lopez de Arana); Hori duk eta, adiskidea! (Morales).* Askotan erakuslea errepikatzen da: *Hura zen gizona, hura! (Agirre); Hura zen, hura, tonto-Pilatus! (Dibarrart); Hura zen hura penitentzia (Larzabal); Hau duk hau, beroa eta itomena (O. Arana); Hori duk hori segurantz (Olano); Horiek dituk, horiek, barrenak! (Jokin Muñoz); Larunbata, jaieguna!? Hauek dituk, hauek! (A. Elduaien, Berria).*

Erakusleak artikulua modura ere erabil daitezke. Erlatiboazko perpausetan, lehen edo bigarren pertsona singularrari badagozkio: *Zertan pentsatzen ote duzu zuk, orainokoan ere, buruan ile duzun baino bekatu gehiago egin duzun orrek?* (Axular). Erlatiboaren pareko egituretan, erlatiboaren aditza azaltzen ez bada ere: *Nik bekatarionek* (nik, bekatari naizen honek); *Zuk zerriorrek*. Hala ere, izen bizigabeari loturik ere azal daiteke, baina aurretik gradu bereko erakuslean doan neurrian: *Hau etxeau benetan polita da*. Horrietan goian aipatu paralelismoa ez da hausten: *nik... -onek*; *zuk... -orrek* eta abar.

Ikus beste adibide ezagun hau: *Maritxu nora zoaz, eder galantori?* Kantu horretan, *-ori* elementuak ez du ezer seinalatzen, nahiz aditz komunztaduran ageri den *zu* horri dagoen lotua. Izen sintagma horrek eskatzen duen artikulua baizik ez da. Alde honetatik esan dezakegu erakusle bakoitza bilaka daitekeela (eta bilakatu dela) artikulua: *Nik bekatarionek aitortzen diot...* Hor ere gauza bera gertatzen da, eta *bekatarionek* subjektua ere *ni* izenordainari dago lotua. Erakusle bakoitzak dagokion artikulua hartzen du. Badira beste adibide batzuk ere: *Zorionak polittori!*; *Begixen bistatik kendu zaittez, gaiztuori* (T. Etxebarria); *Tontuori, hago isilik*. Bizkaieraz arrunta da ahozko hizkeran.

Azken batean, *-a* bera ere hirugarren graduako erakusle artikulua bilakatua baizik ez da. Gaur egun, *-au* eta *-ori*, lehen eta bigarren pertsonari loturik erabil ditzakegu forma markatu bezala; *-a*, berriz, edozein kasutan erabil daiteke. Hain zuzen, *-au*, *-ori* oraindik ere maiz erabiltzen ditugu erlatiboazko perpausen ondoren: *Zeure bizitzan dirua barra-barra erabili duzunorrek, proba eza zu orain nolakoa den miseria*; *Bekatu gehiago egin duzun horrek* (Axular); *Nekez uxa ditzaket, beraz, inoren ezpaiak, neronek ditudanak garbitzeko gauza ez naizenonek* (Mitxelena); *Hutsa naizenau huts geldi nadin* (Orixe).

**15.4.4d** Norbaiti errespetuz zuzentzean eta gutunen hasieretan ere erabil daiteke *hori*: *Hamabigarren urteko kanpaina amaitutakoan, jaun agurgarri hori —hasi zen postaburua...* (Morales); *Ongi etorria, aba agurgarri hori* (Lizardi); *Potter jaun agurgarri hori* (I. Mendiguren); *Andre agurgarri hori* (gutunetan).

### 15.4.5. Erakusle indartuak

**15.4.5a** Erakusleei indarra emateko bi bide nagusi ditugu: *-xe* atzizkia eta *ber-* aurrizkia: *hau<sub>xe</sub>*, *berau* eta abar. Horiek aztertuko ditugu ondoren.

**15.4.5b** Hasieran esan dugu *hau/hori/hura* saileko elementuek seinalatzaile, erakusle funtzio dutela. Seinalatze horri indar handiagoa eman diezaiokegu *-xe* erantsiz orain arte ikusi ditugun formei: *Izen horrexekin egin zen ospetsu mendebaldeko aurreneko matematika-liburua idazteagatik* (Jon Muñoz); *Kontu horrexekin etortzen zait larunbatero, ez dakit zenbat denboraz geroztik* (Epaltza).

Erakusleetatik sortzen diren adberbioek ere bide bera hartzen dute: *Jauna balia dakidala! Horrelaxe nire gogoeta, hitz eta egintzek izan behar dute* (Duvosin); *Halakoxe salda ederra egin zen! Baina nire andreak ez zuen tanta bat ere hartu* (Barriola); *Bai errege hura halaxe holaxekoa zen; hargatik, gizon serioek zen bezala atxikiko zuten* (M. Elizanburu).

Bigarren graduko erakuslea honako esapideetan ere erabil daiteke, *bai horixe!* edo *horixe baietz!* *noski*-ren baliokide direnak: *Ez al gara bada hiltzen Jaungoikoak nahi duenean? Apaiz jauna: Bai horixe* (Barriola); *Ekarriko al didazu etxerakoan kafea? Bai horixe!*

**15.4.5c** Beraz, hauexek ditugu aldaera nagusiak: *hauxe*, *horixe*, *huraxe*; *honexek*, *horrexek*, *harexek*; *honexen*, *horrexen*, *harexen*. Beste zenbait kasutan, *-xe* atzizkia erroari lotu ordez, postposizioaren ondoren ere azal dakiguke: *honexeri/honixe*; *horrexeri/horrix*; *harexeri/harixe*; *honexekin/honekintxe*; *horrexekin/horrekintxe*; *honexetan/honetantxe*; *horrexetan/horretantxe*, baina *\*harxetan* formak ez du lekukorik. Beste aldaera batzuk: *honexetara/honetaraxe*; *horrexetara/horretaraxe*; *honexetatik/honetati(k)xe*; *horrexetatik/horretati(k)xe*. Aurretik nahiz atzetik ager daiteke *-xe* atzizkia, tokian tokiko erabileraren arabera. Zernahi gisaz, azaldu dugunez, *hartantxe* eta *bertantxe* esaten dugu beti, halere; ez *\*hartxetan* edo *\*bertxetan*.

**15.4.5d** Erakusleetatik sortu adberbioak ere hola eratzen dira: *hementxe*, *hortxe*, *hantxe*; *honaxe*, *horraxe*, *haraxe*; *honelaxe*, *horrelaxe*, *halaxe*; *honelakoxe/honelakoxeko/honexelako*; *horrelakoxe/horrelaxeko/horrexelako*...; *honexenbestel/honenbestexe*; *horrexenbestel/horrenbestexe*...

**15.4.5e** Erakusleak indartzeko *ber-* aurrizkiaz ere baliatzen gara. Berez, *ber* horrek badu izaera berez ere, izenaren ezkerrean, eta hala erabili izan tradizioan, Iparraldean, ‘bera’ esan nahi duela: *Apostoluak ere ber gauza dio* (Tartas); *Orok ber gauza erranen didatela* (Hiriart-Urruti); *Ber denboran Michelena Luisi izkiriatzten diot* (Mirande). Hola sortu da *berrehun* ere (*ber ehun*). Beste batzuetan ‘bakarrik, laguntza gabe’ adierazi nahi du: *Eta Jainko bat ber haur, gizonei zaie honelako manifestatzen eta erakusten* (Leizarraga). Edo ‘(e)n unetik, bezain laster’: *Etorri den ber, hasi da berriketan* (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*). Subjuntiboazko *-n* adizkiaren ondoan beharrezkoa eta nahikoa den baldintza adierazten du: *Leku segurura hel nadin ber* (‘Leku segurura heltzen banaiz’). ‘Bakarrik’ ere esan nahi dezake: *Ala juduen ber da Jainkoa? Ala jentilen ere?* (Leizarraga).

Baina, horretaz gain, erakusleen indargarria ere bada: *berau/berori/bera; be-rauek/beroriek/beraiek; beronek/berorrek/berak...*, gainerako postposizioekin ere: *Hau berau eman zuen aditzera gure Salbatzaile berak* (Añibarro); *Ingeniatuko du berorrek nola salbatu ni ere, nahi badu, ez banaiz ere digno* (Leizarraga); *Eta berau ikusirik, Zakarias ikaratu zen, eta beldurra sartu zitzaion* (Añibarro); *Baina euskara maite honi, eta beronen alde gauden euskaldunei heldu zaigu geure eguna* (Kirikiño).

**15.4.5f** *Berori* errespetuzko izenordain gisa erabili izan da, aditza hirugarren pertsonan azaltzen dela (§ 13.3.4): *Beti umore onean berori* (Agirre); *Berak ordainduko du gaur berorrek egiten dion oparia* (Agirre); *Beharko! Inguruko auzotarrek (bere maizterrak batzuk) denak berorika egiten zioten, haserretu ez zedin* (Otaño).

**15.4.5g** *Bera* erakuslea aurreko *berau* eta *berori* baino orokorragoa da, haiek ez bezala, euskalki guztietan atzeman baitaiteke. Hauek dira bi erabilera nagusiak: *andre bera etorri da* vs *andrea bera etorri da*. Lehenbiziko kasuan determinatzaile indartu arrunta da, “andre hura” sintagmaren pareko. Bigarrenean aposizioan dago eta, hori dela eta, bai aurreko sintagmak (*andrea*) bai erakusleak (*bera*) kasu marka edo postposizio berdina hartzen dute. Gauza bat da, hortaz, *alkate berarekin etorriko gara* (lehen aipatu dugun alkate horrekin etorriko gara) eta beste bat *alkatearekin berarekin etorriko gara* (hots, ez edozeine-

kin, baizik alkatearekin). Joera handia dago *bera* hirugarren graduko izenordain gisa erabiltzeko, batez ere postposizioen kasu markak hartzen baditu. Orduan aise maizago ikusiko dugu izenordainaren erabilerarekin (§ 13.3.8): *Berak ordea guziak aterarazi zituen, eta bere hiru ikasleak eta neskatxaren aita-amak bera-ekin harturik neskatxa zetzan tokira sartu zen* (Iraizoz); *Nekazariak alkate, edo nagusi balira, bakoitzak nahiko luke berari hori gordetzea* (Kardaberaz); *Gero eskaintzen dizkiot nire bizitza, eta egun guziko hitz, pentsamendu eta obrak, guziekin eta bakoitzarekin berari agradatu nahiez* (Agirre Asteasukoa); *Belar bakoitzak hartzen du berari doakion gozoa* (Duvoisin).

Ikusten denez, *bera*-k adierazten digu aurretik doan izena bi bider aipatzen dela (nolabait esateko): *Hastapeneko lagun berekin niagok: lau ingeles, hiru norteamerikano, bi indio* (J. Etxepare). Adibide horretan, esaterako, hasieran sendia eta urlia lagunekin nengoen eta orain ere lagun horiexekin nagoela adierazten du *berekin* horrek, eta ez beste batzuekin.

**15.4.5h** Esan bezala, izen sintagmaren muturrean azaldu ordez, ekialdeko mintzoetan izenaren ezkerretara azaltzen da *ber-*: *Ber gauza erran* ('gauza bera erran'). Baina erlatibozko perpaus baten ondoren ere azal daiteke, *-(e)n momentuan, -(e)n bakoitzean...* adierazteko: *Bere atean bat ikusten zuen ber [...], besoak zabalduz altxatzen zizkion* (J. Etxepare); *Ezen, urrunerat haute-maiten nuen ber, isilik jartzen nintzen, erdi ahalke, erdi izutua* (J. Etxepare); *Problemaren edozein askapen ongietorria izango da, Theresa beste jendeetara joaten uzten ez duen ber* (Mirande); *Eskoletan erakusten ez dena, behar-rago baizik ez bakoitzak bereaz egin, ahal duen ber* (Hiriart-Urruti).

#### 15.4.6. *Bera eta berdin*

**15.4.6a** Gaur egun batzuetan nahasian erabiltzen diren *bera* eta *berdin* bereizi behar genituzke, bakoitzak bere balio propioa baitu. Adibidez, erka ditzagun honako bi perpausok: *Nire lehengusuaren ezteietara eraman nuen soineko berarekin joango naiz zureetara ere batetik, eta Zure alabak eta nireak soineko berdina dute bestetik.*



Lehen adibidean soineko *bakar* batez ari gara; soineko bakar hori da bi bider jantziko dudana. Bigarren adibidean, aldiz, *bi* dira eta bi horien arteko erabateko antza, *berdintasuna* predikatzen dugu. Bigarren perpaus hau beste modu batera esan nahi bagenu, honela egin genezake: *Zure alabaren soinekoa, nire alabarena bezalakoa da.*

**15.4.6b** Honako adibide hauetan etxe batez bakarrik ari gara: *Ez da beharrezko koinatu-koinatak etxe berean bizi izatea* (Iñurrieta); *Alarguna eta biak etxe berean bizi zirela okurritu zitzaion* (Elorriaga). Ondoko hauetan, ordea, etxe bat baino gehiago dira: *Erdiguneko kaleetako teilatu gorriak, parkeak, eliza dorrea, kanpoaldean egiten ari ziren bi auzo berri, etxe berdin-berdinez osatutako lau lerroko auzoa [...]* (Maia); *Mai, Frantziako berdintasuna izan da, denentzat gauza bera, mintzaira bakarra, bizitzeko molde bakarra, ikas etxe berdina [...]* (Herria). Gauza bera honako adibideetan ere: *Gu laurak, auto berean joan beharrak ginen Paueko krematoriumera* (Landart); *Eta matrikulak bikoizturik behar duela, beste auto berdin batetik hartua, marka eta kolore berekoa* (L. Garro).

**15.4.6c** Beraz, *bera*-k behin baino gehiagotan errepikatzen den objektu, pertsona... bakarra adierazten du; *berdin*-ek ostera, objektu, pertsona... bat baino gehiago izanik, haien arteko erabateko antza. Honenbestez, ezin genezake esan honako hau: *\*Bi amek haur bera izan dute*. Nork berea izan baitu dudarik gabe; bi haur, beraz, denera. Bai, ordea, beste hau: *Biok plater beretik jan dugu* (plater bakarra da eta biok plater horretatik jan dugu).

Era berean, emakume bakarra bada ezin dezakegu hau esan: *\*Joan den astean harategian aurkitu nuen emakume berdina aurkitu dut gaur kalean*. Beste hau, aldiz, ongi legoke: *Belarritako berdinak erosi dizkiete hiru ahizpei*.

### 15.4.7. *Bera* aposizioa

**15.4.7a** *Bera*-k izen sintagma ere osa dezake, baina beste izen sintagma batekin aposizioan doan izen sintagma, izen sintagma horrek hartzen duen mugaizale eta kasu marka edo postposizio atzizkia hartuaz: *Hanbatena ere*



*zuzenkiago, non haurrak baitzuen han berean, bi urratsetan, erlisionezko irakaspeneren hartzeko bidea* (J. Etxepare); *Edo uste al du inork mesede bat egiten diola Mariari bere alaba izanarekin? Deabruaren beraren soberbiak ez luke gehiago asmatuko* (Agirre); *Bitartean, abadeari berari begira, esku eskolari aldarera eragiten diola [...]* (Zamarripa); *Akusatu zuten bi lekukok abadearen aitzinean, abadearekin berarekin aditurik* (Axular).

Adibide horietan *bera* aurretik doan izena azpimarratzeko erabiltzen da.

**15.4.7b** Leku kasuetan (hots, *-n*, *-ra*, *-tik* kasu marka hartzen duten sintagmekin nahiz leku adberbioekin), *bera* beste izen sintagma batekin aposizioan ageri da askotan: *Bihotza erdiratzen zitzaien zorionaren zorionez! Han berean xoratu ez baitziren! Beharrik da euskalduna kaso onekoa* (Barbier); *Ezagutu zuenean hurbildua zela jadanik bere azken orenera, eramana zuten bere burua elizarat, hartu zituen elizakoak eta, handik beretik, haren arima saindua joan zen hirurogei eta hamabi urtez maitatu eta zerbitzatu zuen Jainko Jaunarengana* (Joanategi); *Ohartzen bazara zure sakelan, sast edo sist, sartzera doakizula esku arrotz bat, ez zara luzaz egoiten zure baitan gogoeta: “Zer ote da hau?” Ez; baina krak berehala zuk ere zure eskua hara berera* (Hiriart-Urruti); *Azken xehetasunendako, igandean, hemen berean, hamaike-tan, elkar ikusiko diagu* (Larzabal); *Lehenik, gaurko elizkizunen ondotik, plaza eginen da beste bat, hor berean, herri guziari eskainiko zaio edatekoa urririk* (Larzabal); *Etxahunek atzeman zuen aterbe herri horretan berean* (Lafitte); *Eurek uste dute ez dagoela inon ez justiziarik ez beste gauza onik hementxe bertan baino* (J. B. Bilbao); *Hemen bertan, datorrela musika hona* (Barriola).

#### 15.4.8. *Hura eta bera*

Esan dugu *bera* bakarrik ere azal daitekeela izen sintagma osatuz. Hirugarren pertsonako izenordain balioa du orduan. Izenordainak (ikus 13. kapitulua) aipatzean ikusi ditugu honako hauek: *ni / nihaur, neu, nerau...; hi / hihaur, heu, herori...*

*Bera* ere, bada, sail horretakoa da: *hau/berau*; *hori/berori*; *hura/bera*. Baina lehen esan bezala, *berau* eta *berori* bizkaieraz izan ezik, oso gutxi azaltzen diren formak dira.

Nola jakin noiz erabili *hura* eta noiz *bera*? Dirudienez puntu honetan lege desberdinak aurki ditzakegu ekialdean eta mendebaldean. Oro har, honako kasuok bereiz ditzakegu:

1. *Hau/hori/hura*, izenordain bezala, hirugarren pertsona (hots, ez hitzun ez entzule ez dena) seinalatzeko erabiltzen ditugu. Hirugarren pertsona hori eta erakuslea perpaus berean aurkitzen badira (kontuan izanik perpaus nagusiak eta bere mendeko perpausak, perpaus bakarra osatzen dutela), *bera* erabili ohi dugu (ez *hura*): *Baina Jesusek deitu zion berarengana, eta erran zion [...] (Hualde)*; *Hark uste du ez dagoela bera legezko Barberurik Bizkaia guztian (Mogel)*; *Hazpandarrak [...] plazaren ezin ezagutuz ari dira [...] Pilota, berek ez dakitelarik nola, bihurtzen dute aldi bakoitx ostatu saihetsari buruz (J. Etxepare)*.
2. Erakusleak seinalatzen duen pertsona eta erakuslea perpaus desberdinetan azaltzen direnean. Kasu honetan bestalde, bi egoera bereiz ditzakegu:
  - a) Ekialdeko euskalkietan *hura* erabiltzeko joera nabari da halakoetan: *Karno bere errotaren barnean bere atzaparrez joka, ez nintekeen ase hari beha egotetik (J. Etxepare)*; *Piarres Adamek niri erran istoriak, hark erran bezain ongi ezin ezarriko ditudala zure begien aitzinean (J. B. Elizanburu)*; *Nire bi lagun lehen bizkaitarrak han zituan jadanik [...] Ohartu ninduan ez zela arbola hori haiek bezperan erran zuten bezain estalia aranez (J. B. Elizanburu)*.
  - b) Mendebaldeko euskalkietan *bera* erabiltzeko joera handiagoa dago, erakusleak seinalatzen duen hirugarren pertsona jadanik aipatua bada: *Eleizaldek bazekien [...] bi alde berezi dituela gure hizkuntza jasotzeko lanak [...]. Berak 1918an Oinatin egin zuen hitzaldi ezagunean (Mitxelena)*; *Ez da zalantzarik Lizardigan [...] Alferrik bilatuko duzue beragan Europa eta mundu guztia dardarazten hasia zen lur-ikararen berririk (Mitxelena)*.

Hala ere, *bera*-ren ordez *hura* erabili ohi dugu honako bi kasuetan:

1. *Bera*-k seinalatzen duen hirugarren pertsona aurreko perpausean aipatua izan arren, *bera*-ren aurrekaria izan daitekeen hirugarren pertsona bat eta *bera* perpaus berean daudenean: *Deabrua sartzeko bere zakuan agindu zion. Sartu zen, eta Juan-soldaduak ikuen eskegita ipini zuen. Eta hari harrika egiteko agindu zien eskola mutilei* (J. M. Barandiaran).

Kasu horretan, *hari* erakusle (izenordain) aurreko perpauseko *deabrua*-ri dagokio. Bestalde, *hari* dagoen perpauseko subjektua *Juan-soldadu* da. *Berari* erakusle (izenordain) indartua erabiliko bagenu, seinalatzen dena *Juan-soldadu* dela pentsatuko genuke. *Deabruari harrika egiteko agindu zien Juan-soldaduk eskola mutilei* da, ordea, hor duguna. Nahasketarik sor ez dadin, erakusle ez-indartua azaltzen da.

2. Erakusleak *erakusten duen* pertsona gehiagoren arteko bat bada: *Eta gau hartan ehiztari haietako beste batek deitu omen zion etxekoandraren bizitokian. Baino hark ere, lehenak bezala, leihoa ezin itxirik gaua pasatu omen zuen* (J. M. Barandiaran).

Ehiztariak bat baino gehiago izanik, haietako bat seinalatzeko, erakusle ez-indartua erabiliko dugu.

#### 15.4.9. Forma berrindartuak

**15.4.9a** *Berau*, *berori*, *bera* forma indartuei oraindik ere indar handiagoa eman nahi badiegu, aski dugu aurretik *ber-* eranstea berriro ere: *Zubia igaro ondoren, berbertan duzu geltokia; Endañetak eta Perurenak iazko apustu berbera egin dute aurten ere.*

Beste hainbat hitzekin, errepikatzen ditugunean, gertatzen den fenomeno beraren aurrean gaude: *azal-azalean*; *sakon-sakonean*; *zuri-zuri*. Errepika horrek indar handiagoa ematen die.

**15.4.9b** Bi aldiz indartua dela ematen du *berbera* aldaerak (*ber-ber-a*). Oso erabilia da tradizioan Iparraldeko eta Hegoaldeko autoreen artean. Bie-

tara hori ere (determinatzaile modura eta aposizioan): *Uste berberekoak izaki / Jaunaren jujamentuak berberak zuritzen*. Hona adibide batzuk: *Seguratu zen Enperadore berberak zirela* (Lizarraga); *Baina usaina, usaina, denak susmo batean egon, uste berberekoak izaki* (Anabitarte); *Eta Nikanorrek berberak hartu berri duen biziera narrats eta guztia beharrekoaz...* (Erkiaga); *Orduan begiak altxatu eta ez zuten ikusi nihor Jesus berbera baizen* (Haraneder); *Bere aita Asaren bide berberaz ibili zen, hartarik ez zen makurtu eta aitaren aitzinean zuzen zena egin zuen* (Duvoisin); *Jaunaren beldur sandua mendez mende iragaiten; Jaunaren egiazko jujamentuak berberak zuritzen* (Artxu).

**15.4.9c** Ez da ezinbestekoa *bera* edo *berbera* horrek hirugarren graduko erreferentzia izatea. Aurretik beste pertsonetako izenordaina badu, orduan erreferentzia ere hartara egokitzen da: *Eri hau nor da? Ni naiz, ni bera* (Duvoisin); *Bai, ni bera* (Larzabal); *Zu ote zara? Zer bada! Zu bera ote zara?* (Duvoisin); *Zu bera Zeruko ateraino jauzika “xirula” soinuaz etorri zara* (Harrispe); *Oi egun dohatsu eta zorionezkoa! Eta ni bainago, ni horren dohatsutasun handiari begira? Bai, ni berbera* (Duvoisin).

#### 15.4.10. *Ber* daramaten forma batzuk

**15.4.10a** Adberbioak eta forma klixetuak sortu ditu euskarak *ber-* honetan oinarrituak. Holakoak ditugu *halaber*, *beraz*, *berez...* eta horien gisakoak.

*Halaber* batez ere Iparraldean erabili izan da, nahiz xx. mendean Hegoaldera ere hedatu zen. Adberbio honi buruzko xehetasunak § 42.19.5 atalean ikus daitezke. *Hala* adberbio modalak eta *ber* morfemak osatua da: ‘gauza bera’, ‘gisa berean’... holako zerbait esan nahi du, eta diskurtsoaren atalak egitura-tzeko erabiltzen dugu: *Halaber hura behar du penen kausaz gaitzetsi* (Etxeberri Ziburukoak); *Bada halaber bere burua bakean daukanik, eta bertzeen baketzera entseiatzen denik* (Pouvreau); *Halaber baldin nehork konbatik egiten badu, ez duk koroatzen baldin bidezki konbatitu ez bada* (Leizarraga). Etxeberri Ziburukoak *halaberki* ere erabiltzen du, sinonimo gisa esanahiaren

aldetik: *Eta guri halaberki egiguzu dohaina, betiere kunplitzeko zure saildu errana*. Gaurko idazleen artean ez du lekukorik.

**15.4.10b** *Berez* formak ere *ber* morfema erakusten du barruan. Batez ere Hegoaldean erabili izan da tradizioan, xvii. mendetik aurrera: Leizarraga (*berre-berez*) eta Pouvreau dira salbuespen ia bakarrak. *Berez bere* lokuzioa, ordea, batez ere Iparraldekoa da: *Lehengoa konfesioak gaizki egin badira aurkitzeko salbazio bide berez bakarra, zeina den konfesio ona* (Mogel); *Gizonari berez edo bere naturalez datorkio gurasoak amatu eta honratzea* (Astarloa); *Hizkuntza hori berez baitzetorren ahora batarekin eta besterekin mintzatzeko* (Mitxelena); *Zeren hazi humanoa bere-berez korronpitua baita* (Leizarraga); *Espaniaren meneko izanagatik, berez bere dabil asko zeretan* (J. Etxepare).

Zenbaitetan lehenbiziko edo bigarren pertsonari dagokio: *Berez zaharrak garen guztiak behar genuke aitortu* (Mendaro); *Berez eztarri txarrekoa banaiz ere* (Zendoia). Ofizioa adierazteko ere balio du: *Zapataria da berez* (Xenpelar).

**15.4.10c** *-xe ber-* segida ere morfema honekin sortzen da: *Horixe bera da pentsatzen dudana* (Larzabal); *Horixe bera gogoan nindoan, apaizarekin arrazoinka ari hintzelarik* (Larzabal); *Horixe berberori egiten du hemengo emakume andaluziar batek* (J. B. Bilbao); *Lo-kuluxka txiki bat egin dut hementxe bertan* (Morillo); *Hantxe berean utzi genuen gizagaizoa bi lagunekin* (Zerbitzari); *Hantxe berean gelditu* (M. Etxamendi).

## 15.5. Partitiboa

Partitiboa adberbioa izan daiteke (§ 22.2.2g), *bakarrak gelditu da, pozik bizi dira* edo *beranduenik lauretan etorriko da* gisako esaldietan. Baina beste batzuetan partitiboa determinatzaile mota bat ere izan daiteke, artikuludun absolutiboaren parekoa: *Etxea ikusten dut* vs *Ez dut etxerik ikusten*. Bi perpausak pare-parekoak dira, baina partitiboak, mugatu singularrak ez bezala, ingurune sintaktiko mugatuagoa eskatzen du: ezezko edo galderazko perpausa, baldintzazkoa, balio enfatikoa markatzeko baieztoketan eta abar (ikus § 18.5.2).

Partitiboan ageri direnak, noski, mugagabeak dira: *Ez dut inoiz hain pertsona traketsik ezagutu; Zure neurriko soinekorik aurkitu al duzu?* Eta aditz komunztadura beti singularrean egin behar du, inoiz ere ez pluralean.

Ikus Euskaltzaindiaren 15. araua: “Partitiboaren erabilerak okerra”, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua; 30. araua: “Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola”, Donostian, 1995eko apirilaren 28an onartua.

## 16. Determinatzaileak (II): zenbatzailea

---

### 16.1. Kuantifikazioa eta zenbatzaileak

- 16.2. Zenbatzaile zehaztuak; 16.2.1. Sarrera 16.2.2. *Bat* zenbatzailea; 16.2.3. Izen bereziak eta zenbatzaileak; 16.2.4. *Bat* eta *batzuk*: kasu markak; 16.2.5. *Bi* eta gainerako zenbatzaileak; 16.2.6. Zenbatzaileak eta kuantifikazio izenak; 16.2.7. Balio enfatikoa duten zenbatzaileak; 16.2.8. Orduak nola eman euskaraz; 16.2.9. Urteak eta data; 16.2.10. Frakzioak eta kalkulu eragiketak; 16.2.11. Zenbatzaile zehaztuak eta komunztadura; 16.2.12. Ordinalak; 16.2.13. Adjektibo biderkatzaileak; 16.2.14. Distributiboak; 16.2.15. Esamolde batzuk
- 16.3. Zenbatzaile zehaztugabeak; 16.3.1. *Batzuk*; 16.3.2. *Zenbait*; 16.3.3. *Asko*; 16.3.4. *Anitz*; 16.3.5. *Gutxi*; 16.3.6. *Honenbeste* eta kideak; 16.3.7. *Franko*; 16.3.8. *Zenbat*, *zenbanahi*; 16.3.9. Beste zenbatzaile batzuk
- 16.4. Zenbatzaile orokorrak; 16.4.1. *Dena*; 16.4.2. *Guzti*; 16.4.3. *Oro*
- 

### 16.1. Kuantifikazioa eta zenbatzaileak

**16.1a** Determinatzaileen artean sartzen ditugu mugatzaileak, zenbatzaileak eta zehaztugabeak. Hola, izen bat emanik, *ate*, esate baterako, arruntan horrek beste zerbait behar du euskaraz sintagma hori behar bezala osatzeko: *ate-a* (artikulua), *bi ate* (zenbatzailea), *edozein ate*. Hemen zenbatzaileak aztertuko ditugu: *bat*, *bost*, *hogei*, *asko*, *zenbait* eta abar. Zenbatzaileak kuantifikadoreak dira. Kuantifikazioaren kontzeptuak mutur eta

korapilo asko ditu, zentzu bat baino gehiagorekin erabiltzen baitugu. Batzuetan logikarekin du zerikusia, beste batzuetan semantika formalarekin eta beste batzuetan hizkuntza arruntean ematen zaion eta hain teknikoa ez den zentzuarekin.

Zentzu ez teknikoan zerbait kuantifikatzea zerbait horren neurriaren berri ematea da. Hori egin daiteke zehatz-mehatz: *Hiru kilo sagar erosi ditut*. Edo zehaztasun itxirik gabe: *Nahiko jende bildu da*. Ez da zalantzarik, hala ere, *Jon Miren baino gehiagotan joan da Ameriketara* esaten badugu, *gehiagotan* horrek ere kuantifikazioa adierazten duela: ez dakigu, egia esan, zenbat aldiz joan den Jon eta zenbat aldiz Miren, baina informazio hori gabe ere kuantifikazio mota bat adierazten dugu hor.

**16.1b** Filosofiak lantzen duen logikan eta semantikan, bi multzoren artean dagoen halako erlazio mota bat ezartzeari deitzen zaio kuantifikazioa. Hala, *Peruk bi auto ditu* esaten badugu harremanetan jartzen ditugu autoen multzoa eta Peruk dituen gainerako gauzen multzoa. Perifrasi batek hobeki ikusarazten du hori: *Peruk dituen autoak bi dira*.

**16.1c** Kuantifikazio adierazpenek hiru mailako egitura dute: kuantifikatzailea (“operadorea” ere deitua), murriztailea eta besarkadura. Hala, *Bachen preludio asko* bezalako sintagma batean, “asko” da kuantifikatzailea, eta “Bachen preludioak”, berriz, murriztailea, kuantifikatzen den nozioa alegia. Aldi berean kuantifikatzailearen besarkadura ere bada. Kuantifikazio adierazpenak ez dira erreferentzia adierazpenak. Azken hauetan, *Euskadi, gure txakurra* edo *agurtu duzun andrea* bezalakoetan, alegia, aldaezintasuna adierazten da (txakur asko eta andre asko egonik ere munduan), kuantifikazioetan ez bezala, hauetan aldakortasun puntu bat baita nagusi. Baina kuantifikatzaileen kontu hau zenbatzaileetatik urrunago doa. Adibidez, *bost aldiz joan da etxera hamarretan* esaten badugu, “bost aldiz” hori dugu esaldiko kuantifikatzailea, eta hor *bost* zenbatzailea ageri da. Baina horren parean *beti joaten da hamarretan etxera* esaten badugu, ez dago hor zenbatzailerik, baina bai *beti* adberbioa, eta hori ere kuantifikatzailea da. Edo *bost lagun etorri dira* esaten badugu, bada hor zenbatzailea, kuantifikatzailea dena aldi berean, baina *ez da inor etorri* badiogu, *inor* da kuantifikatzailea, eta guk gramatika honetan izenordaintzat



hartu dugu. Kuantifikazio egiturak sortzen ditu partitiboak ere, adibidez. Hemen, ordea, zenbatzaileetara mugatuko gara<sup>1</sup>.

**16.1d** Zenbatzaileen artean zenbatzaile zehaztuak, zenbatzaile zehaztuga-beak eta zenbatzaile orokorrak bereiziko ditugu. Lehenbiziko sailean sartzen dira *lau*, *hamar*, *hogeita bat* eta *mila eta hirurogei* bezalako numeralak. Zenbaki kardinalak ere deitzen dira. Funtsezkoak, alegia, “gontzak” (latineko jatorrizko hitzak adierazten duen gisan), eta kantitatea adierazten dute. Horiek dira zenbaki naturalak. Aurrerago ikusiko dugun bezala, zenbatzaileetatik sortzen dira ordinalak (*laugarren*, *hogeigarren*...), euskaraz izenlagun gisa emanak. Serie jakin batean unitate batek hartzen duen toki zehatza adierazten dute ordinalek. Azkenik, baditugu zenbatzaile biderkatzaileak ere: *bikoitz*, *hirukoitz*... Zenbaki natural bat beste kantitate batekin biderkatuz sortzen dira.

Zenbaki naturalak, esan bezala, kuantifikatzaileak dira, baina ez beti. Izen bihurturik ageri dira batzuetan: *Hamabia da gehien maite dudana zenbakia*; *Nire txartelak hiru(a) jartzen du* eta abar. Eta zenbaitetan besarkadura ere ez da argi izaten: *727 baten bigarren matxura aste berean* ikusten badugu egunkariaren izenburu batean, ez dakigu bi hegazkin desberdinez ari garen edo hegazkin bera den. Ondoko hauetan ere izena da: *Zenbaki hau hiruan amaitzen da*; *Aurtengo loteria zazpian bukatu da*; *Eta orain nahi dituzun zero guztiak jar ditzakezu hor*; *Hemen idatzi dudana seia da*; *Bederatzia ez da ongi ikusten*; *Lau horri beste lau bat gaineratuz gero zortzi ematen du*; *Aurten 2016a da* eta abar.

## 16.2. Zenbatzaile zehaztuak

### 16.2.1. Sarrera

**16.2.1a** Honako hauek dira zenbatzaile zehaztuak:

0                      *zero, huts*

---

<sup>1</sup> Gai honetaz, ikus Etxeberria (2012) eta Etxeberria & Etxepare (2012).

1	<i>bat</i>
2	<i>bi</i>
3	<i>hiru</i>
4	<i>lau</i>
5	<i>bost (bortz)</i>
6	<i>sei</i>
7	<i>zazpi</i>
8	<i>zortzi</i>
9	<i>bederatzi</i>
10	<i>hamar</i>
11	<i>hamaika</i>
12	<i>hamabi</i>
13	<i>hamahiru</i>
14	<i>hamalau</i>
15	<i>hamabost (hamabortz)</i>
16	<i>hamasei</i>
17	<i>hamazazpi</i>
18	<i>hemezortzi (hamazortzi)</i>
19	<i>hemeretzi</i>
20	<i>hoge</i>
21	<i>hogeita bat</i>
22	<i>hogeita bi</i>
25	<i>hogeita bost (hogeita bortz)</i>
30	<i>hogeita hamar</i>
31	<i>hogeita hamaika</i>
32	<i>hogeita hamabi</i>
33	<i>hogeita hamahiru</i>
40	<i>berroge</i>
50	<i>berrogeita hamar</i>
60	<i>hiruroge (hiruretan hoge)</i>
61	<i>hirurogeita bat (hiruretan hogeita bat)</i>
62	<i>hirurogeita bi (hiruretan hogeita bi)</i>
70	<i>hirurogeita hamar (hiruretan hogeita hamar)</i>

80	<i>laurogei (lauretan hoge)</i>
81	<i>laurogeita bat (lauretan hogeita bat)</i>
82	<i>laurogeita bi (lauretan hogeita bi)</i>
100	<i>ehun</i>
101	<i>ehun eta bat</i>
102	<i>ehun eta bi</i>
200	<i>berrehun</i>
300	<i>hirurehun</i>
400	<i>laurehun</i>
500	<i>bostehun (bortzehun)</i>
600	<i>seiehun</i>
1000	<i>mila</i>
1200	<i>mila eta berrehun</i>
1984	<i>mila bederatziehun eta laurogeita lau</i>
1.000.000	<i>milioi bat</i>
10.000.000	<i>hamar milioi</i>
1.000.000.000	<i>mila milioi (miliar bat)</i>

Ikus Euskaltzaindiaren 7. araua: “Zenbakien idazkeraz”, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua.

**16.2.1b** Zenbatzaile horiek ez dira zatigarriak batetik hamarrera: *bat*, *bi*, *hiru*, *lau*, *bost*, *sei*... Gauza bera gertatzen da *hoge*, *mila*, *ehun* eta kopuru handien markak ezartzen dituztenekin: *milioi* eta abar. Hamarretik aurrerakoak zatigarriak dira: *hamabi* (*hamar+bi*), *hamasei* (*hamar+sei*), *hirurogeita hamar* eta abar. *Hamaika*-rekin zalantzak sortzen dira etimologia aldetik: bistan da *hamar* duela lehenbiziko zatian, baina amaierako *-ka* horren jatorriaz zalantzak dituzte espezialistek.

Multzokatu ere hogeika multzokatzen dira zenbatzaileak euskaraz, inguruko hizkuntzetan ez bezala: *hoge*, *berroge*, *hiruroge* (*hiruretan hoge*), *lauroge* (*lauretan hoge*) eta abar.

**16.2.1c** Zenbaki izen kolektiboak ere ibiltzen ditugu: *hamarreko*, *dozenal*/*hamabiko*, *ehuneko* (baina *ehunka etorri ziren*), *milako* eta abar: *Dozena bat bertso nahi nituzke jarri* (Larzabal); *Dozena bat hasgorapen biziz* (Pouvreau); *Hamabi dozena arbola* (Lafitte); *Hor ez daude, bada, dozenaka* (Urruzuno); *Zure dirua galdua zenuke: dozena bat pinta edan orduko* (Zerbitzari); *Hamarreko bat erranen dugu bakarrik* (Barbier).

**16.2.1d** Esan behar da 3 eta 4 zenbatzaileak kasu markak hartzen dituztenean, artikulua ondotik *-r-* bat tartekatu behar dela. Horrela, *hiruretan* edo *laureretatik* esango dugu. Kontuan izan, dena dela, zenbait hiztunek hedatu egiten dutela *r* hau beste zenbakietara ere, baina hori euskara idatzian ez da egokia. Hortaz, bada, *\*seiretan*, *\*azpiretan* eta antzekoak ez dira ontzat ematen. Hori ordez *seietan* eta *zazpitan* dira forma zuzenak.

Ikus Euskaltzaindiaren 8. araua: “Zenbakien deklinabideaz (*hiru, lau*)”, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua.

*Lau* zenbatzaileak kasu markak hartzen dituztenean bokalez amaitzen den beste edozein hitzek bezala hartzen ditu: *lauan*, *lautik*, *laura* eta abar. Ez du, hortaz, *gau* (*gauean*, *gaurik*, *gaueko...*) hitzaren eredia segitzen, hitz hori salbuespena baita.

Ikus Euskaltzaindiaren 29. araua: “Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea”, Bilbon, 1995eko otsailaren 24an onartua.

## 16.2.2. Bat zenbatzailea

**16.2.2a** *Bat* euskalki eta garai guztietan erabili izan da. Zenbatzaile zehaztua da (*hor badira bi andre eta gizon bat*) edo artikulua zehaztugabea (*lasterkari bat sartu da plazan*). Beti izenaren eskuinaldean ageri da ezinbestean (*etxe bat*), beste zenbatzaileak ez bezala (*bost mendi*). Ez da modu argirik *-a*

artikulua eta *bat* artikulua zehaztugabeen artean bereizteko. Eskura ditugun lehenbiziko testuetatik ageri dira bi joerak: *Ardi bat bezala heriotzera eraman izan da* (Leizarraga); *Zure baitan esperantza handi bat daukat* (J. Haranburu); *Hainbat ezen baitzirudien bere hitzetan saindu bat zela, eta saindu bat bezala mintzo zela* (Axular). Adibide horietan inolako arazorik gabe jar daitezke sintagma horiek artikuluekin (*ardia, handia, saindua*), eta perpausak ez du esanahia aldatzen. Leizarragaren “Ardi bat bezala” hori “Arkumea bezala” ageri da (Itun Berria, 1980).

Baina sarritan *etxea* eta *etxe bat* berdinak izanik ere, berdintasun hori galtzen da zenbatzailea mugatzen dugunean: *etxe bata*. Ondoko adibidean ikusten ahal da hori: *Euskal Herrian aspalditik gabiltza hizkuntza bataren eta bestearen arteko erabilera orekatu nahian*. Beraz, *bata* hori (artikuluekin) *bostak* sintagmaren parekoa litzateke gramatikaren ikuspuntutik. Tradizioan eta gaurko literaturan ere badira adibide franko holakoak: *Pasatzen ziren biajez ermita hartarik bi erlijioso: bata gelditu zen atarian deskantsatzen; bertzea haratxoago arbola baten pean erreztatzen* (Lizarraga); *Eta bekatuak ditu bi gauza, bata da hoben, edo kulpa, bestea pena* (Agirre Asteasukoa); *Bi egiteko ditu eria sendatzen dabilenak: bata da eriazen bizia albaez luzatzea eta bestea eriak hartu behar duen laztantasuna eta mina kentzea* (Mendiburu); *Gizon batek baldin baditu bi emazte, bata maite eta bertzea higuin dituenak [...]* (Duvoisin); *Emaiezue batari erdi bat, eta bertzeari bertze erdia* (Duvoisin). Beraz, *etxe bat*-en parekoa *etxea* da, eta ez *etxe bata*.

Ikusten denez *beste/bertze* hitzak ematen dio bidea *bat* mugatuari: *bata*. Tradizioan, hortaz, *bat* mugatua (*bata*) eta *bestea* parean doaz: *bata mingarri, bertzea sorgarri*. *Beste* falta bada artikulua gabe erabiltzen da (*batek, bati...*). Eta *bata* izenaren ordezkotako gisa agertzen ahal da (*batak Koldo agurtu zuen, besteak Miren*) edo adjektibo moduan ere: *hizkuntza batean eta bestean*. *Bata* mugatua eta *bestea* bikotearen erabilera sistematikoa XVII. mendearen erdialdera hausten da ekialdean. Pouvreaux baditu adibide batzuk non *bat* mugagabea erabiltzen baitu *bestea*-ren ondoan, adjektibo moduan: *Batzuk amodioaren beroz eramaitenago dira saindu batgana, bertzeagana baino* (Pouvreaux). Gero arrunta gertatzen da: *Soldado joan baino lehen neskatxa batekin eta bertzearekin ibiltzen*

*ginen* (Mattin). Adibide horietan ikusten da *bestea*-ren parean dagoena *bat* mugabea dela, adjektibo funtzioan. XIX. mende hasieran gauza bera gertatzen da *bat* izenaren orderekin ere, eta bi aldaerak (*bat/bata*) txandakatuz erabili izan dira, eta ez dute indarra galdu egun arte.

*Bat*-en plurala *batzuk* da (batzuetan tradizioan *batak* ere ageri da). Eta hau ere determinatzaile ez-zenbatzailea da batzuetan. *Etxe batzuk* esaten bada, badirudi horren parekoa dela *zenbait* zenbatzaile zehaztugabea: *etxe zenbait*. Ohart gaitezen *astoa da!* nahiz *asto bat da!* esaten dugula. Bigarrena ez da zenbatzailea, esanahiari dagokionez. Berdin gertatzen da *astoak dira!* eta *asto batzuk dira!* diogunean ere. Baina ezin dugu esan, ordea, ingurune horretan, *\*asto zenbait dira!* Horregatik diogu desberdinak direla. Irizpidea, hortaz, hori da: predikatuan ageriz gero, determinatzaile ez-zenbatzaileztat hartzen ahal dugu.

Ikus Euskaltzaindiaren 12. araua: “*Bat* eta *batzuk*-en deklinabidea”, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua.

**16.2.2b** Aldaera zehaztuak (*bata*) bakarrik, aldamenen *bestea* ageri ez bada, ez du ia lekukotasunik tradizioan. Leizarragak baditu hiru adibide (testuinguruan *bi* ageri da, ordea): *Zen Andriu Simon Pierrisen anaia, Joanes mintzatzen entzun zuten bietarik eta hari jarraiki zitzaizkionetarik bata*. Lazarragak, Axularrek, Agirre Asteasukoak, Mogelek eta Kirikiñok ere badituzte adibide bakan batzuk.

**16.2.2c** Inesiboan hiru forma erakusten ditu tradizioak: *batean*, *baten* eta *batetan*. Hiru aldaera horietarik *batean* izan da erabiliena. Bizkaieraz *batean* eta *baten* erabiltzen dira tradiziozko testuetan. Testurik zaharretan *baten*, eta XIX. mendetik aurrera bi aldaerak, nahiz Azkuek eta Aranaren jarraitzaileek *baten* erabiltzen duten gehien. Gerra ondoko testuetan *baten* testu dialektaltan, baina *batean* Erkiaga, Gandiaga edo Alzola bezalako idazleetan. Gipuzkeraz eta nafarreraz sistematikoa da *batean* aldaera hasiera-hasieratik. Ekialdean, Etxeparek eta Leizarragak *batetan* erabiltzen dute, baina XVIII. mendetik aurrera *batean* nagusitzen da. Axularrek biak erabiltzen ditu, eta pixkanaka

*batetan* desagertuz doa, salbu zubereraz, non *batetan* nagusitu baita egun artio. Batasunaren oinarriak jarri zirenean, praktikan 70eko hamarkadan, *batean*, *batera(t)* eta *batetik* erabiltzen ziren, ia salbuespenik gabe. *Batetaz* aldaerak ez du ia ez tokirik, ez lekukotasunik (Mirandek bi aldiz eta Orixek behin).

**16.2.2d** Etimologiari dagokionez, badirudi *\*bade* etimoan hartzen duela oinarria. Hori ageri da *bederatzi* hitzean eta *batbedera* (bakoitza) forman ere.

**16.2.2e** Izen berezien ondotik (§ 16.2.3), erakuslearen ondotik eta izenordainen ondotik erabiltzen da: *Hau esango balu S. Ambrosio batek, sinets liteke* (Agirre Asteasukoa); *Campion batek [...] gorengo izarretaraino goretsi zuen* (Mitxelena); *Gauza guztiak heldu dira hitz batetarik, eta bat hura aipatzen dute guziek* (Pouvreau); *Zeren ez da bide bat baizen, eta bat hura ere, guztia da mehar* (Axular); *Ala hura ere badudalarik norbait-bat penitentearen eta nire artean?* (*Fedearen Propagacioneco urtecaria*).

**16.2.2f** ‘(Bat) bera’ edo adierazi nahi duela. Arrunta Hegoaldeko testuetan, aise gutxiago ikusten da, ordea, Iparraldekoetan: *Zeren gorputz bat, eta gorputz batetako mienbroak eta parteak baikara* (Axular); *Hau ikusi eta beti era batera biziko naiz?* (Kardaberaz); *Gutxi gorabehera, biak izango dira adin batekoak* (Etxeita); *Denak daude iritzi batean: Zabaletako alabak hartu duen asmoa baino gauza hoberik ez dago* (Agirre) eta abar.

**16.2.2g** Genitibo mugagabea aitzinetik duela, ‘bat edo beste’ adierazi nahian. Hegoaldean gehiago erabili da Iparraldean baino: *Baruz edo beste bideren batez geren gorputzak nekatuz* (Mendiburu); *Abaderen bat dirudi* (Mogel); *Ostaturen batera joan beharko dugu bada* (Urruzuno); *Hurrengo gizaldietako bertsolariren batek [egina]* (Mirande) eta abar. Gaur egun aski arrunta da: *Edozein lekutan zabaldu, eta beti aurkitzen zuen gezurren bat* (Navarro); *Oso deserosoa egiten baitzitzaien ikasleren batekin topo egitea* (Lertxundi); *Neurriz gaineko astakeriaren bat ez badu egiten, behintzat* (Garate).

**16.2.2h** Numeral baten ondoren gutxi gorabeherako kopurua markatzen du: *Hamar bat egun etxean* (J. B. Etxepare); *Hamasei bat orduko / eguna lanean*

(Uztapide); *Urte anitz igaro baitziren, hamabiren bat* (Orixe); *Hura poza harako abarka-ren jatorriaz, kezkatan dauden hamar-hogeiren bat linguistena* (Mitxelena).

**16.2.2i** Balio inpersonalarekin ere erabiltzen da, Hegoaldean bakarrik: *Batek daki zer egin holakoetan!*; *Eta esango didazu ez direla horiek bat txoratze-ko gauzak?* (A. P. Iturriaga); *Nola basoan beti egonda gauden, batek ez daki zer egin* (Soroa); *Batek mundura etortzean / izaten du haurtzaroa / haur garelarik beharrezko da / bere amaren beroa* (Uztapide); *Honelako gizonarekin erromeriara joatea baino hobe luke batek ez dakit zer egin!* (J. Mokoroa).

**16.2.2j** Postposizio gisa erabiltzen da (ikus 21. kapitulua), sozietiboa edo instrumentalaren ondotik: *Bakoitzak bere enpleguko obligazioarekin kunplitu, ta duen moduz bat* ('nolakoa den moduz'), *obra onetan enplegatzea* (J. C. Etxeberria); *Egizu, harekin bat, emendatzeko proposito firmea* (J. C. Etxeberria); *Eta, Amarekin bat, euskal Fedeak magnificat jarraitzen du* (S. Mitxelena); *Zalduna ikustearekin bat geratzen da dontzeila ikaraz mututurik* (Bilintx); *Mandoa, frailea ikustez bat hasi zen ostikoka* (Urruzuno); *Argiz bat dira hasiko txori kantak* (Arrese Beitia); *Maldaz behera zeramaten arrastaka Ines, eta bat-batean, orazio Klarak egin zuenarekin bat, gelditu zitzaizen Ines han pisu ere...* (Beobide); *Egun biz bat aldatzen da* (C. Izagirre). Hemen sartzen dira *ikustez/ikustearekin batera* bezalako esapideak ere, gaur egun ere maiz erabiliak: [...] *esan zion aittittek Goiori, ikustearekin batera, gabon gaueko arratsaldean* (Sarrionandia); *Hura ikustez batera, Kafkaren izenak eta irudiak gorputz hartuko zuten gure baitan* (Alberdi).

**16.2.2k** Esamolde asko sortzen ditugu *bat* zenbatzailean oinarriturik (adberbioak, aditzak eta abar): *bat-batean, batik bat, batez ere, bat hartu, bat egin, bat(era) etorri, batetara heldu, batetara joan, bateko(a)z beste, batetik eta bestetik, batez beste, hitz batean...* eta abar. Idazkeran ez da *bat* etorri tradizioa, baina Euskaltzaindiak arautua du egungo forma. *Bat-batean* adberbioak bi esanahi ditu: 'berehalakoan, ezustean' da hedatuen eta erabiliena: *Bat-batean hil zen*; *Tximistaren argiak bat-batean bete zuen zerua*; *Lourdesko ura baso batetik edan eta bat-batean sendatu zen*. Bigarren esanahia 'aldi berean' da:



Goazen guztiok *bat-batean soroetara* (B. Mogel); *Gizonaren arreta edo begirada, mugatua izanik, ezin daiteke bat-batean puntu denetara hedatu* (Villasante).

Ikus Euskaltzaindiaren 1. araua: “*bat-batean, behinik behin, batik bat*”, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua.

**16.2.2I** *Bat* zenbatzailea izen sintagmaren eskuinaldean aurkituko dugu: *etxe bat*. Beste zenbatzaileekin, ordea, ez da horrelakorik gertatzen: *bost etxe*. Gorago aipatu dugu hori. Hala ere, jakina denez, *bi* zenbatzailea ezker nahiz eskuinean jartzen dugu, euskalki edo estilo literarioen arabera: *bi etxe nahiz etxe bi*. Esan bezala, zenbaitetan *bat* zenbatzailea artikuluekin batera truka daiteke, baina ez da horrelakorik gertatzen beste zenbatzaileekin. Beste zenbatzaile hauei, trukaketarik onartzen ez dutenez gero, artikulua eransten bazaie, delako izen sintagma hori mugatua gertatzen da; alegia, *etxe bat = etxea*, baina *etxe bi* (mugagabe)  $\neq$  *etxe biak* (mugatua).

Arau bezala, eman dugun arrazoiagatik (trukaketatik), *etxe bat*-en ordez eta balio bertsuaz *etxea* esan daiteke, baina ez *etxe bata*, hau mugatua baita, *etxe biak* edo *bost etxeak* bezalaxe. Beraz, *etxe bat* eta *etxe bata* ez da gauza bera: *Aita batek ba omen zituen bi seme ta bi alaba. Alaba bata handia omen zen eta bestea, ordea, txiki-txikia; Nagusi batek bi etxe omen zituen. Etxe batean Aste Saindua pasatzen omen zuen, eta bestean, berriz, udako oporrak.*

Esan dugu *bat* zenbatzailea eta *-a* artikulua elkarrekin truka daitezkeela zenbait kasutan eta arrazoi horregatik *etxe bat*-en pareko edo kidea, *etxe bata* ez, baina *etxea* dela. Hala ere, *bat* zenbatzailea (*bat* zenbakia) izendatzen dugunean *-a* erantsi behar zaio, izena baita, zenbaki baten izena, alegia: *Hau bata da eta beste horko hori bia; Hau batekoa (edo bata) da* (kartetan ari garenean).

Dena den, balio generikoaz ari garelarik, espezie osoa edo kontuan hartzen dugunean, *-a* erabiltzen dugu maizago: *Nekazaria beti dabil lurrarekin borrokan; Andrearen eskubideak zapaldirik daude; Kartzelan sartu omen dute*

eta abar. Mugak zedarritzea ez da, hala ere, hain gauza erraza. Zenbait euskalkitan generikotzat jotzen dira beste euskalki bateko hiztunek konkretutzat har ditzaketen elementu berak: *Tximista bezala bide laburrez firrindan erreka zolara jausirik* (J. B. Elizanburu); *Bart arratsean azeria hurbildu da base-rrira*; *Satorra hasi da lanean etxe aitzinean*; *Kalean utzi dute*; *Esneak ez du batere dirurik egin aurten* eta abar. Erkatu, esaterako, *Satorra sartu da landan* (aski arrunta) eta *Ikusi duk, behinere, Pello, mendian, iratze edo otepean, eper familia bat alhan dabilela?* (J. B. Elizanburu). Bietan zehatza da, batean artikuluaekin eta bestean zenbatzailearekin. Ondoko adibide honetan balio generikoa du: *Gernikako arbola iharraren sustraiak ere, sator batek jan omen zituen* (Mitxelena), Mitxelenak ez zekien eta, sator bakarra edo gehiago izan ziren.

**16.2.2m** *Bat* erabiltzen da istorio bat kontari ari garenean, istorio horretako elementuak aurkezten ditugunean (aditza normalean iraganean agertzen zaigula): *Errege bat bizi omen zen Patagonian*; *Aita batek ba omen zuen seme bat*. *Biak bizi omen ziren mendian zegoen herri koxkor bateko baserri eder batean*. Hortik aurrera *aita, herria* eta *baserria* aipatuko dira *bat* gabe, aurkezpena egin dugunean ezezagunak genituelako, baina behin aurkezpena egin ondoren, gure informaziora pasatu direlako eta ezagunak ditugulako orain.

**16.2.2n** *Bat* zenbatzailea erabiltzen dugu *bat/anitz/asko* oposizioa markatu nahi dugunean: *Gela honetan mahai bat eta lau aulki sartzen dira*; *Andonik uste zuen gela hartan aulki anitz sartuko zirela, baina bat bakarrik sartzen zen*; *Galdera askoren artean batek kezkatu nau* (Mitxelena); *Bai, zerbait ba- dira, baina galdera horrek beste bat zor du* (Mitxelena).

**16.2.2o** *Bat* zenbatzailea beste kuantifikatzaile konplexuago baten barnean ere agertzen ahal da: *Baso bat ur eskatu zuen*. Adibide horretan *baso bat* osoa da *ur* izenaren kuantifikatzailea, eta, nolabait esateko, *ur* neurriaren berri ematen du (§ 12.3). Noski, ez da hori *bat* zenbatzailearekin bakarrik gertatzen: *bi baso ur* ere esaten ahal da, baina maizkoenak, beharbada, *bat*-ekin osatuak dira. (§ 16.2.6).

**16.2.2p** *Bat-en txikigarria da batto. Iparraldean erabilia, izenordain gisa ageri da: Hainbertze semeetarik ez ote dut bada batto neurekin atxikiko (Laphitz); Bazkaltzen hasi eta laster, hiruetarik batto badoa nagusiarenganat (Barbier); Lehengo denboretan errege zen batto (Xarriton).*

### 16.2.3. Izen bereziak eta zenbatzaileak

**16.2.3a** Izen bereziak zenbatzaile gabe ageri dira gehienetan: Axularrek ez luke horrela esango; Altube biziko balitz! Baina batzuetan *bat* zenbatzailea hartzen ahal dute: Altube bat biziko balitz!; Axular batek ez luke horrela esango eta abar. Izenaren atalean aipatzen dira zenbait xehetasun (§ 12.3.2), izenak bestelako zenbatzaileek lagundurik ere ageri baitzaizkigu batzuetan: Mahler bat; Zenbat Aramendi; Picasso batzuk... Horrela, Badakit bi Kennedy tiroz hil zituztela, edo Badakit bi Kennedyak tiroz hil zituztela bezalako perpausak guztiz onargarriak lirateke euskaraz. Batzuetan, gainera, behartuak gaude halakoak erabiltzera: Bi Goenaga aurkitu ditut zerrenda honetan, baina ez dakit zein den margolaria eta zein hizkuntzalaria; Bost Maradona baina hobea duzu Goikoetxea.

**16.2.3b** Tradizio handia du erabilera honek, ez da gaurko kontua: Eta hau da azkenekoz ongi erdizkatzea, gaixtoa utzirik, onaren hartzea, Jondone Paulo batek bezala egitea (Axular); Eta damu hartu Manases batek bezala (Mogel); Holako eta holako Ormaetxea bat bezala, liburu idazlea (Orixe); Campion batek [...] gorengo izarretaraino goretsi zuen (Mitxelena).

### 16.2.4. *Bat* eta *batzuk*: kasu markak

**16.2.4a** Hauek dira bat-en kasu markak:

Mugagabea: *bat, batek, bati, baten, batentzat, batekin, batez, batean/baten, bateko, batera, batetik*. Mugatua: *bata, batak, batari, bataren, batarentzat, batarekin, bataz, batean, bateko, batera, batetik*.

**16.2.4b** *Bat* zenbatzaileak *-tzu* pluralgilea har dezake, *batzuk* kolektiboa sortuz: *Oilo batzuk ikusi ditugu etxe inguruan*. Kontura gaitezen, zernahi gisaz, *batzuk* ez dela zenbatzaile zehaztua, baizik zehaztugabea: ez dakigu zehatz-mehatz zenbateko kopuruari egiten dion erreferentzia *batzuk* honek. Euskalki guztietan, salbu erronkarieraz, erabili izan da. Idazleen artean historikoki bi sistema agertu badira ere (*batzu/batzuk* eta *batzuk/batzuek*, absolutiboa eta ergatiboa bereizteko), egun *batzuk/batzuek* (abs./erg.) nagusitu da, forma aldetik gainerako sintagmekin parekatuz horrela. Inesiboan *batzuetan* izan da erabiliena XVIII. mendeaz geroztik, eta genitiboan, kasu bakanen bat kendurik (Leizarraga, esaterako, eta ez da sistematikoa) beti *batzuen* ageri da, ez *batzuren*.

**16.2.4c** Lehenago (§ 16.2.2g) ikusi dugu genitiboaren ondotik *bat* erantsirik ‘(multzoko) norbait, zenbait’ (gutxi, hala ere) adierazi nahi duela: *Adiskideren bat ere etorri zen afaltzera*. Bakarra izan daiteke, edo bizpahiru. *Batzuk* ere erabil dezakegu ingurune horrekin eta orduan ‘zenbait’ adierazi nahi du (Hegoaldean erabilia): *Gero deitu zituen besteren batzuk* (Ubillos); *Gauza handiren batzuk Jesusen kontra esan zituztelako antzean* (Lardizabal); *Zaparrada gogorren batzuk hartu omen dituzte* (Agirre).

### 16.2.5. *Bi* eta gainerako zenbatzaileak

**16.2.5a** *Bi* zenbatzaileak, bakarrik doanean (zehaztugabeko izenordain gisa erabilia, hortaz), aldaera *batzuk* ditu: *bi, bia, biga, bida*, betiere Nafarroako eta ekialdeko euskalkietan ageri direnak: *Igorririk bere dizipuluetarik biga* (Leizarraga); *Meza bat enzun behar bazenuen, eta ez hura entzun, konfesa hartako bekatua, eta gero etorkizunean dobla, enzun bia* (Axular); *Partzuego hortan bia baino gehiago ere sar daitezke* (Duvoisin); *Bat, biga, hiru, lau, bost, sei... Eta zazpigarrena?* (Barbier).

*Batzuetan* zehaztua ere ageri da: *Eta Moisek, etxola bezala kutxa, bigak benedikatu zituen Jainkoak berak irakatsi otoiitzekin* (Zerbitzari). Izenaren ondotik, zehaztua, erabiltzen dute autore batzuek, eta izenordainaren ondotik ere:

*Ordu batez, ordu bidaz ta duzun odol guzia zere biziarekin nere amorez eman artean!* (Mendiburu); *Batek, berak joateko / Hartu zuen plana;* / *Gu bida gi-beletik / Beldurrez engaina* (Bordel).

**16.2.5b** *Bi* zenbatzailea izenaren eskuinean (mendebalean) edo ezkerrean (euskalki guztietan) erabiltzen da gaur egun: *bi andre / andre bi*. Testu zaharretan ikusten da eskuinaldean jartzearena hedatuago zela, baina erabilera horrek indarra galdu du mendeetan zehar.

**16.2.5c** Gainerako zenbatzaileak beti ezkerrean: *Eta kontseiluko hiru gizonek erran zutela goraki eta paperean ezarri* (J. B. Elizanburu); *Bihotz honek obeditu nahi ez badu, lau edo bortz gizonek makila mehetto batekin...* (J. B. Elizanburu).

**16.2.5d** Zenbaki txikienetan hiru modutara adieraz daiteke gutxi gorabeheranzko zenbatasuna: *bi edo hiru, lau edo bost, hiru edo lau* (hots, *edo* sartuz *bi* zenbatzaileen artean); *hiru lau, lau bost, zazpi zortzi* (hots, *bi* zenbatzaileak segidan emanez, edo gabe), eta modu markatu batean: *bizpahiru, lauzpabost, hiruzpalau, bospasei* eta abar. Hona hemen adibide batzuk: *Duela bizpahiru urte* (J. P. Arbelbide); *Liburutxo honi bizpahiru sarrera hitz ipintzeko* (Orixe); *Lauzpabost kilometro banituen* (J. B. Etxepare); *Lauzpabost ale baino ez dela gelditzen* (Mitzelena); *Aski da maizenik hiruzpalau aldizkari gainbegiratzea* (Mitzelena) eta abar. Ditugun adibide apurrak dvandva egiturakoak (§ 7.1) dira: *sei-zazpi, zortzi-hamar, hamar-hamaika, hamar-hamabi, hogeit-hogeita bost (urte), hirurehun-laurehun (ardi), gutxi-asko*. Ikus dezakegunez, gertuko zenbakiak adierazten dituzte elkartzen ditugun zenbatzaileek; nekez esango genuke *bi-hamar* (???) edo *hogeit-laurogei* (???). Hortaz, zenbaki handiagoek ez dute holakorik onartzen: *hogeita bi edo hogeita hiru; hamar edo hamabi porru* eta abar. Baina horietan ere *edo* ken daiteke: *hogeita bi hogeita hiru; hamar hamabi porru*.

Ikusten den gisan, *bi* osagaien arteko harremanari dagokionez, *edo* juntagailu hautakariaren bidez eman dezakegu *bi* elementuen arteko berri: “*bi* edo *hiru*”, “*hamar* edo *hamabi*”, nahiz, aipatu bezala, *bizpahiru, hiruzpalau, lauzpabost, bospasei*.

Zenbakien gutxi gorabeheranzko zenbatasun hori amaieran *bat* ezarriz ere eman daiteke, edo genitiboa eta beste esamolde batzuk erabiliz: *Hamar hama-bi bat porru erre genuen; Zortzi hamar bat ertzain sartu ziren dantzalekuan; Hogeiren bat; Hogeit bat; Hogeit lagun hurbil; Hamabi hurren bat; Hogeit lagun inguru; Lauretan hogeit urte eskas; Hogeit eta gehiago gizon; Ehun eta zenbait ardi.*

**16.2.5e** Zenbatzaile batek mugatutako izen sintagma inesibo kasuan agertzen baldin bada eta *noiz?* galderari erantzuten baldin badio, nahiz eta esanahiez plurala izan, erakuslea singularrez ere har dezake: *Azkeneko hamar urte honetan; Ai nire alaba! Bi urte honetan zure amak zer kalbario daraman ez dakizu!* (Amundarain); *Gizon bat hil da; jaun bat, gure departamenduan bizpahiru urte honetan lan onik egin duena, eta zalaparta ederrik erabili, ba eta erabilarazi* (Hiriart-Urruti); *Haiek egin eta eginarazi dituzte Europan eta Ameriketan, bederen ehun urte huntan, konta ahal erreboluzione, eta haiek hilarazi dituzte milaka eta milaka gizonak, gerla zibil haietan, berak leku segurrean zeudelarik* (M. Elizanburu); *Orai trenka ditzagun bi eztabaida, Frantzia anitz urte honetan nahasia daukatenak* (J. Etxepare); *Aldiz Abrahamen alaba hau, hemezortzi urte honetan Satanek estekan zeukana, ez ote zen behar esteka hortarik laxatu larunbat egunarekin?* (Duvoisin) eta abar.

Dena dela, galdera hori *non* baldin bada (eta ez *noiz*) komunztadura pluralez eginen da: *Azkeneko hiru herri hauetan.*

**16.2.5f** *Bi* zenbatzailetik aurrera plurala ere har dezakete zenbatzaileek: *Biak etorri ziren (bi ertzainak etorri ziren); Bostak sartu zitzaizkigun ohartu gabe (bost ertzainak sartu...).* Ez da esan beharrik kasuen postposizioak hartzeko gai direla zenbatzaileak: *Hirurak bien kontra; Biak hiruren kontra.* Edo, Lafittek jartzen duen gisan: *Biak ari gara hiruei (biak hiruren kontra. Mugatua); Biga ari gara hiruri (bi hiruren kontra. Mugagabea).*

**16.2.5g** Konparazioetan erabiltzen dira zenbatzaileak: *Etxe hau hura baino bi aldiz handiagoa da.* Hori da, beharbada, egitura hedatuena. Baina bada horren ondoan beste egitura bat aipatuko duguna hemen: *Etxe hura beste hau halako bi da.* Bi aldiz handiagoa dela esan nahi du. Beraz, konparazioetan

gutxienez bi elementu behar ditugu, “etxe hura” eta “etxe hau” gure perpau-sean. Lehenbiziko elementua absolutiboan dela (genitiboan ere batzuetan, bai-na aise gutxiago), mugatua nahiz ez, singularra nahiz plurala, *halako* + *zenbatzailea* jartzen dugu, eta aditza gero. Hortaz: *halako* + *zenbatzailea* edo *baino* + *zenbatzailea* + *aldiz/bider* ... + *-ago* egiturek esanahi bera dute: *Zaldiek lepoa luzatzen dutenean lehengoa halako bi dutela badirudite* (Anabitarte); *Bi urteren barruan jokatu zen gutxienez hamar aldiz, bera halako bi handi zirenekin eta guztietan irabazi zuen* (Iztueta); *Edozeinek halako bi balio zituen eta horrexegatik behartu ginen bat gutxiago egitera* (Anabitarte); *Bere luzera halako bi falta zitzaion gabarrari ibai ertzeroa iristeko* (K. Zabala); *Makineriaren hobekuntza dela eta, eskulan-kantitate berdina enplegatutik, galtzerdi-kantitatea lau halako egin ahal bada...* (Bakaikoa). Maiz konparazio burua agerian da (*oraingo jokalariek aurrekoek halako hogeia irabazten dute*), baina ez da ezinbestekoa (*bost halako handitu da hiria azken mendean; iaz 4.000 euro gastatu genuen, baina aurten hiru halako*). Hurrenkeraren eredia *hogeia halako* nahiz *halako hogeia* izan daiteke, adibide guztietan.

Adjektiboekin: *Autoa halako bi luze den garajea egin dute etxean*. Perpau-serlatiboekin ere gauza bera: *Lehen joaten ziren halako lau joaten da orain mendira*.

**16.2.5h** Zenbatzaileak izendatzerakoan joera dago artikulua eransteko beti: *Zein zenbaki da hau: bia ala hirua?* Kasu horretan artikuluekin batera izendatuko ditugu zenbakiak: *bata*, *bia* (baina ez, izendatzeko orduan, *bida* edo *biga*), *hirua*, *laua* eta abar.

Batzuetan artikulua eskatzen dute ezinbestean: *5a (bosta)*, *6a (seia)*. Artikulua jarriko diogu ere zenbatzaileari izendatu nahi dugun aldiro: *Hau bia da; Hau 2a da*. Hala eta guztiz ere, *0 (zero)* zenbakiarekin erabiltzen ditugun bi joerak ontzat eman daitezke: *huts* eta *zero*, kontuan hartuz, hori bai, beste zenbakie-kiko paralelismoa ongi zaindu beharko dugula: *Hauek bia, hirua edo hutsa (edo zeroa) dira; Nire telefonoa lau, bi, sei, zazpi, huts (edo zero) (eta) sei dut*. Matematiketan *zero* erabiliagoa, *huts* baino. Esan nahi da, *huts* eta *zero*-ari artikulua erantsiko diegu, testuinguru horretan beste zenbakiren bat jarri gero, azken horri ere artikulua eransten badiogu; bestela, ez.



Batzuetan *zenbakia + ko + -a* sistema erabiltzen dugu: *batekoa; bikoia; hirukoa; laukoa* eta abar. Kartetan ari garelarik, adibidez, honela izendatzen ditugu: *bateko urrea; seiko ezpata* eta abar.

**16.2.5i** Zenbatzaile kardinal hauek ematen diete izena zenbaki naturalei: *Telefono zenbakia bederatzian bukatzen da* diogunean, *bederatzian* hori izena da. Argiago ikusten da, beharbada, *marrazki hori hirua da* diogunean (*marrazki hori etxea da* esaten dugun gisan, *etxea* eta *hirua*, biak, izenak dira). Zenbaki izen hauek zenbatzaileak izendatzen dituztenez gero, arrunta da esatea *Atzoko zozketan lau aldiz atera zen seia*; *Atxikitzen ahal dituzu hor nahi dituzun zortzi guztiak*; *Horrek badu zazpi baten antz handia* eta abar. Testuinguru batzuetan izen bereziekin asimila daitezke: *Bi gehi bi lau da* (ez da esaten *laua da*); *Lau bider zortzi hogeita zortzi da*. Artikulu gabe ematen ditugu. Beste batzuetan, ordea, izen arruntekin asimilatzen dira: *Bederatzia ez da nire gustuko zenbakia*; *Zazpi honi bi gehituz gero bederatzia ateratzen zaigu*. Hor, *zazpi* zenbatzailea ez bezala, *bi* zenbatzailea izen berezi batekin asimila daiteke, baina izen arruntarekin, ordea, honako honetan: *Zazpi honi beste bi gehituz gero bederatzia ateratzen zaigu*. *Zero ere etxe hau zero euro kostatu zaio* adibidean zenbatzailea da, baina *zerotik hasi, zeroan bukatu...* bezalako esapideetan izen arruntekin asimilatzen da.

**16.2.5j** Zenbakiekin beste izen batzuk ere sortzen ditugu *-kote* atzizkia gaineratuz. Morfologiako atalean (§ 6.3.2) ikusi dugu *-kote* atzizkia handigarria dela eta izen bati erantsirik *mutikote*, *zezenkote* edo *gizonkote* bezalako izenak sortzen direla. Hemen ez gara horretaz ari: atzizki hori zenbatzaile zehaztu bati erantsirik izenak sortzen ditugu: *bikote*, *hiruko*, *laukote* eta abar. Erabiliena, zalantza gabe, *bikote* da. Gaur egun guztiz hedatua da. Tradizioan, ez horrenbeste, xx. mendeko Hegoaldeko idazleek erabiltzen dute: Orixe, Erkiaga, Labaien, Barrenso, Etxaniz... *Hirukotek* lekukotasun gutxiago ditu: Villasante, Etxegarai, Mitxelena... Hortik aurrerako izenak (*laukote*, *boskote*...) askoz ere bakanago ageri dira. Hona hemen adibide batzuk: *Egiazko biziduna bikoteaz osatzen baita, eta bikote hori ez da oraindik oso, harik eta emankor izan dadin artio* (Villasante); *Etorri bereko bikoteak (hirukoteak eta abar) maiz ditugulako* (Mitxelena); *Laukote honek inoren / kexarikan ez du* (Basarri).



**16.2.5k** Aldien zenbatasuna ere zenbakien bidez adierazten dugu: *Behin; Bi aldiz, bitan, bi bider, birritan; Hiru aldiz, hirutan...*

### 16.2.6. Zenbatzaileak eta kuantifikazio izenak

*Baso bat ur, bost litro ardo* eta holako esamoldeak osatzen ditugu zenbatzaileez baliaturik. Holako moldeak kuantifikazio izenak dira, hau da, zerbait mugatzeko, zehazteko... erabiltzen ditugu. *Bost litro ardo erosi zuen* entzuten badugu, badakigu ardoa erosi zuela norbaitek eta badakigu, gainera, zenbat ardo erosi zuen: *bost litro*. Izenaren atalean aztertzen dira xeheki holako moldeak. “Neurri izenak” deitzen ditugu han (§ 12.3.5d). Jatorriz izena, *litro* hitza, zenbatzailearen ondoan (*bost litro*) jarririk, muga elementu bihurtzen da.

### 16.2.7. Balio enfatikoa duten zenbatzaileak

**16.2.7a** Euskaraz ibiltzen ditugun zenbatzaile batzuek balio enfatikoa dute. Batzuetan plurala adierazten dute. Lafittek *bi, bortz, zazpi, hamaika, hogeita bortz, ehun eta mila* aipatzen ditu. Zuberok *biga bostetan* ere erabiltzen da: *Gauza horiek guztiak egiten begira zegoen, zorigaitzean, Saulen morroi kutun Doeg zeritzan, eta bost negar gero eragin zituena* (Lardizabal); *Santakruz apaiza kupida gabea dela entzun izan dut hamaika aldiz* (Txillardeggi); *Bereak eta bost esan dizkiozu Trapu zahar horri!* (Labaien); *Konradek bereak eta bi egiten zituen oreka eta segurtasuna aurkitzeko* (Olarra); *Ez nuen inola ere ulertzen: mila bider saiatuta ere* (Igerabide); *Gizakiarentzat mila aldiz onuragarriagoa da* (J. M. Lekuona); *Bi bertso paratuko ditut; Bai eta bost!; Agur eta erdi; Kestione horrek merezi ditu hameka pentsamendu eta hogeita bortz gogoeta* (Lafitte).

**16.2.7b** *Mila* hitza erabiltzen da eskerrak emateko: *mila esker; esker mila; esker mila anitz* (*Badugu osasuna, Inaxi, esker mila anitz, eta zuek?*, Labaien).

**16.2.7c** Euskaraz asko erabili izan dira *hamaiketako* eta *hamarretako* hitzak. Goizerdian egiten zen otorduari esaten zitzaien: “*Hamaiketakoa*” zela gauza bat egiten zena ez beti *xuxen hamaika orenetan, baina ahal zenean* (J. B. Elizanburu); *Eta otordu tartean ez dudalarik apur bat ere hartzen... Ez hamarretakorik, ez hamaiketakorik ez ezer* (Labaien); *Oraindik ez duzu, noski, hamaiketakoa egin* (Epaltza).

### 16.2.8. Orduak nola eman euskaraz

**16.2.8a** Orduak adierazteko sistemek bide bat baino gehiago erakutsi dute euskaraz, eta maiz zalantzak sortu izan dira: zeri erantsi behar zaio artikulua eta plural marka? (*zazpiak eta laurdenak / zazpiak eta laurden?*); kasu marka nola? (*hamarrak eta hogeitan / hamarrak eta hogeian?*) edo komunztadura nola egin? (*ordu bata eta hamar da / ordu batak eta hamar dira?*) eta abar.

**16.2.8b** Tradizioa eta literaturako erabilera kontuan hartuz gero, esan daiteke orduaren berri emateko orduaren zenbakia ematen dela, plural markarekin: *Bederatziak aldean joan zen Bernardatxo berriz ere arkaitzera* (Goñi); *Lanak egitera etorri nintzen bostak aldean, bazkalduta* (Mattin); *Goizeko zortziak irian* (Barbier). Iparraldean arrunta da “oren” hitza gaineratzea (eta Hegoaldean autore batzuek “ordu” ere ibiltzen dute, baina gutxitan): *Eta nola baru eguna baitzuten, eta ez baitziren oraino hamar orenak baizik, joan ziren aintzina, erranez ez zirela oraino baruaren hausteko orenera helduak* (Joanategi); *Biharamuneko eguna goizeko bederatzi orenak arte* (Joanategi); *Hamar orenak eta hogeita bi minutu ziren* (M. Elizanburu). *Ordu bata*-ren kasuan, Bizkai aldean *ordu batak dira* nagusitzen ari dela dirudi; erdialdean eta ekialdean *ordu bata / oren bata da*. Tradizioan ere Azkuek, Arrese Beitiak, Kiri-kiñok... *ordu batak* erabiltzen dute. Aldiz, Anabitartek, Izetak, Orixek, Txirritak... *ordu bata* erabiltzen dute.

Gaurko idazleen artean denetatik aurkitzen da, baina aise gehiago *ordu bata* forma: *Ordu batak aldera Iturbideren bulegotik gertu zebilen* (M. A. Mintegi); *Behin goizeko ortu batak eta erditan etxeratzen nintzela, ttuku-ttuku, gertakari*

*harrigarri baten lekuko izan nintzela [...] (Borda); Ordua, ordu bata eta bost (Zaldia); Ordu bata hiru minutu guti (Epaltza); Konturatzera ordu bata eta erdiak ziren (Morillo); Horrela bada, ordu bata arte irakurtzen egon ondoren [...] (J. Zabaleta); New Yorken, ordu bata eta erdiak (Zubizarreta); Ordu bata arte baliatuko zaizu zinta (Atxaga) eta abar. Oren bata ere aurkitu dugu: Dena adostua genuen bezala egin genuen; eta bizkondesa oren bata inguruan heldu zen nire gelara (Jon Muñoz).*

**16.2.8c** *Erdia* adierazteko bi joera nagusi daude: Hegoaldean artikulua eta plural marka *erdi* osagaiari eransten zaizkio, askotan *t'* erabiliz *eta*-ren ordean (batuan *eta* osorik aukeratu da holakoetan). Iparraldean arrunta da *orenak* hitza erabiltzea, eta plural marka orduari ere eransten zaio (ez beti): *Oren bat eta erdiak ziren (Barbier); Bederatziak eta erdiak ziren (Barbier); Hamar orenak eta erdiak nonbait han dira (M. Elizanburu); Bederatziak eta erdiak joak ziren (M. Elizanburu); Bederatzi eta erdiak, ustez (Lizardi); Hamar eta erdiak direla esan bahidan, berdin-berdin sinetsiko nian (Lizardi); Denbora laster badao holakoetan: bederatziak eta erdiak baziren jada (Zerbitzari); Baina zer ordu dut? Bederatziak eta erdiak (Barriola); Iluna: arratseko zortziak eta erdiak (J. B. Etxepare); Ordu bi t'erdiak baino lehentxeago (Anabitarre); Etxeko andratxo zaharragandik zazpi t'erdiak zirela jakin zuenean, pozik zegoen Santi (Azkue).*

*Euskararen Herri Hizkeren Atlaserako egin diren galdeketetan ere, Iparraldean, erantzun nagusia lauak eta erdiak da, baina horren ondoan lauak eta erdia, eta bakanago lau eta erdiak ere aurkitu dira.*

**16.2.8d** *Eta laurden* esateko, berriz, zalantza nagusia bada artikulua orduari eta laurdenari, biei, erantsi ala laurdenari bakarrik erantsi, hara nola jokatu duten gure idazleek.

Adibide gutxi dago tradizioan honi buruz. Iparraldean joera da *seiak eta laurden* bezalako esapideak erabiltzeko, hau da, zenbatzaileak pluralean artikuluekin eta ondoren *laurden* hitza, artikulua gabe, dagozkion postposizio markekin: *Ohartu zarete, joan den astelehenean, zeru zola urdin eta garbi zelarik, eguzkiak histasun bat izan duela? Bi orenen inguruan irau du*

*histasun horrek: arratsaldeko hirurak eta laurdenetatik, bortzak eta laurden iri arte (Hiriart-Urruti); Beransko izanagatik —zortziak eta laurden da— itsas bainu baten hartzeko, ene lagunek nahi dute egin legartzarako bederen (J. Etxepare).*

Egungo idazleen joera *bostak eta laurden*-en erudukoa da: *Bostak eta laurdenetan Bep etorri den arte ez naiz behera joan* (J. Zabaleta); *Asteburu libre baten bezpera, zortziak eta laurden jo gabe eta dagoeneko etxeko atariaren pean* (Epaltza); *Hirurak eta laurden dira* (Aristi); *Zazpiak, zazpiak eta laurden, zazpiak eta erdiak* (Arretxe); *Goizeko seiak eta laurden* (Landart); *Bostak eta laurden ziren* (Etxehandi); *Seiak eta laurden* (Txillardeggi); *Hirurak eta laurden arte poteoan ibili gara Iñaki eta biok, Donostiako Parte Zaharreko pintxorik onenen ehizan* (Zaldúa). Baina besterik ere aurkitzen da: *Bostak eta laurdenak arte patatak ez dira behar zuten lekura iritsi* (J. Zabaleta: ikusi gorago autore berak *ordu bata arte* erabiltzen duela, § 16.2.8b); *Ordu bata eta laurden* (J. Zabaleta).

**16.2.8e** Hurrengo orduko zenbat falta den adierazteko, gehienetan *gutxi* aurki daiteke (edo dituen aldaerak: *guti, gitxi...*): *Egintxe duelarik badoa orenari behatzera: «Eguerdi laurden guti! Ba, haiiek honat orduko»* (Barbier); *Otoa ebatsi diote bere etxe aitzinetik, hamaikak laurden gutitan* (Larzabal); *Eguerdioko hamabiak laurden gutxitan ilargitik fraile bat botako balute...* (G. Mujika); *Batek goizeko bostetan eramango ninduela agindu zidan, eta bostak laurden gutxitako pronto nengoela joan egin da* (Anabitarte).

Hala ere, *gutxiago* ere erabiltzen da, batez ere Hegoaldean: *Goizeko bostak laurden gutxiagotan, lo gaizki eginda, ateratzen nuen maleta ilunpetatik* (Anabitarte); *Hamarrak laurden gutxiago* (Labaien); *Bost gutxiago dira* (Erkiaga) eta abar.

EHHAn egindako galdeketek ere antzeko zerbait erakusten dute: *gut(x)i* Iparaldean eta *gutxiago* Hegoaldean.

**16.2.8f** Komuntzadurari dagokionez, *ordu bata da* esaten da, komuntzadura singularrean eginez (*hirurak dira* esaten dugu, pluraleko komuntzadurarekin).

Baina horri zerbait gaineratzen diogunean sortzen dira zalantzak: *ordu bata eta hogeia da / ordu bata eta hogeia dira...* Tradizioan ez da lekukotasunik ikusten. Eta gaurko idazleen artean ere ez dugu adibiderik aurkitu.

**16.2.8g** Kontura gaitzen, azkenik, egungo aldaketek eta egunero ikusten ditugun pantaila, tresna elektronikoa, abisu eta gainerakoetan, sistema berriak ezarri dituztela: *20:43, 15:30* eta abar. Nola eman hori euskaraz (batzuetan kasu postposizioak hartu behar dituzte), horretan inolako tradizioz ez bada?

**16.2.8h** Hori guztia kontuan izanik, Euskaltzaindiak aukera bat egin zuen:

1. Orduak honela ematen dira: *ordu bata, ordu biak, hirurak, laurak, bostak, seiak, zazpiak*, etab. *Ordu* hitzaren ordez *oren* ere erabil daiteke: *oren bata, bi orenak / biak, hirurak*, etab. Postposizioekin: *ordu batean, bietan / ordu bietan / bi orenetan, hiruretan* eta abar.
2. *Erdia* honela adierazten da: *ordu bat eta erdiak, ordu bi eta erdiak, hiru eta erdiak, bost eta erdiak, ordu bat eta erdietan, ordu bi eta erdietan, hiru eta erdietan, bost eta erdietan*, etab. Gauza bera *oren* hitzarekin.
3. *Laurdena* honela adierazten da: *ordu bat eta laurdenak, oren/ordu bata eta laurden, ordu bi eta laurdenak, oren/ordu biak eta laurden, hirurak eta laurden, hiru eta laurdenak, hirurak eta laurdenetan, hiru eta laurdenetan, bostak laurden gutxi(ago)* eta abar.
4. Minutuak: *hamarrak hamar gutxi, hamarrak hamar gutxiago, hamarrak hamar gutxitan, hamarrak hamar gutxiagotan, seiak eta bostean, laurak eta hogeian, hirurak eta hemezortzian* eta abar.
5. Zifretan ematen direnean, bi punturekin bereizten dira orduak eta minutuak, eta bakoitzeko bi zifra erabili behar dira beti: *00:12, 12:10, 09:25*, etab. Postposizioak hartzean, orduei plurala erantsi, eta minutuei singular marka, dagozkien lotura bokalekin: *15:00etan, 15:03an, 15:04an, 15:30ean*, etab. Irakurtzeko orduan hobe da, hala ere, honela irakurtzea: *hiruretan, hirurak eta hiruan* eta abar. Erabilera formaletan ontzat ematen dira, dena den, *hamabostak eta bostean, hamabostak eta hamabostean* eta abar.

6. Egitarau, kartel eta horrelakoetan ez da eragozpenik erdiko bidea hartzeko: *arratsaldeko 5etan, goizeko 11,30etan, iluntzeko 8etatik 11k arte, arratsaldeko 3etatik gaueko 12ak arte* eta abar.

Arlo honi dagokion Euskaltzaindiaren araua 35a da, 1995eko ekainaren 30ekoa.

Konturatzen garenez, lehen adierazi bezala, orduetan *hirur* eta *laur* aldaera zaharrak gorde ditugu zerbait atxikiz gero (*hirurak, hiruretan, lauretatik...*), bestela *hiru* eta *lau*.

### 16.2.9. Urteak eta data

**16.2.9a** Urteak aipatzen ditugunean ez da beharrezko *-a* eranstea. Honela, 1813. urtea, adibidez, modu hauetara esan daiteke, nahiz eta erabiliena lehenengoa izan: 1813, *mila zortzihun eta hamahiru* (bakarrik agertzen denean); 1813a, *mila zortzihun eta hamahirua* (perpaus baten barnean); 1813.a, *mila zortzihun eta hamahirugarrena*.

Data oso-osorik jartzen dugunean, urtea adierazten duen zifrari *-ko* erantsiko zaio, *-en* hilabetei eta *-a* egunari: *1983ko martxoaren 7a*. Inesiboa ere erabiltzen da: *1983ko martxoaren 7an*. Eta tokia aipatu nahi bada, berdin, tokia aipa daiteke besterik gabe, edo guztia inesiboan: *Durango, 1983ko martxoaren 7a* nahiz *Durangon, 1983ko martxoaren 7an*. Baina ez da komeni biak nahastea: *Durangon, 1983ko martxoaren 7a; Durango, 1983ko martxoaren 7an*. Ez dira gomendagarriak erabilera horiek.

**16.2.9b** Zenbakiak bakarrik erabili nahi badira, sistema bat baino gehiago ikusten dira: *1983/03/07; 1983.03.07; 1983/III/07; 1983-03-07; 1983-III-07...* Jakina, *1983/03/07ko egunkarian ikusi nuen* gisako esaldiak ere erabiltzen dira.

Hilabetea eta eguna bakarrik adierazi nahi denean, ostera, bi aukera ditugula esan ohi da: *urtarrilaren 20a* edo *urtarrilak 20*. Gehiago zehaztu beharko

litzateke, ordea, ez baitira beti biak aukeran izaten. *Urtarrilak 20* egitura, kasu postposizio agerikorik eskatzen ez duenean erabil daiteke, beste zerbaiten aposizioan doanean, esaterako: *Datorren ostegunean, urtarrilak 20, bilduko da epaimahaia*.

“Urtarrilak 20 egun dituela” edo horren antzeko egituraren laburpena da, azken batean. Esapide hori oso praktikoa izan daiteke karteletan eta erabiltzeko: *Elizondo, ekainak 4* edo *Elizondon, ekainaren 4an*. Baina postposizio atxiki bat ezarri behar zaionean ezin dugu egitura hori erabili.

**16.2.9c** Okerrak dira, beraz, ondokoak: *\*Hilak 20 eta 27an, bestalde, Txo-txongilo taldeak txikientzako Erreka Mari eta Altxor bat patrikan emango du; \*Otsailak 24tik 27 arte izango da ikastaroa; \*Datorren otsailak 14 egingo dugu bilera*.

Horiek horrela behar lukete: *Hilaren 20an eta 27an; Otsailaren 24tik 27(a) arte; Datorren otsailaren 14an*. Honek guztiak testuan zehar urtea, hilabetea eta eguna adierazi nahi denerako ere balio du, jakina. Goian aipatu ditugun aukeretatik forma bakarra geratzen zaigu orduan: *1993ko martxoaren 7a egun handia izango da guztiontzat; Jardunaldiak Bilbon, 1994ko urtarrilaren 5etik 7ra izango dira*.

Hilaren lehenbiziko eguna bi modutara irakurtzen ahal da: *martxoaren 1a* nahiz *martxoaren lehena* (edo *martxoaren lehenbizikoan / lehenbiziko egunean etorriko dira*). Tradizioan ez da adibide asko: *gehienak astearen lehen egunetan; hilabetearen lehen egunetan...* eta gisa horretakoak dira.

**16.2.9d** Azkenik, aposizioetan, hiru modutara eman daiteke asteko zein egun den: *martxoaren 7an, osteguna/ostegunean/ostegunarekin*. Tradizioan ere: *Garagarrilaren 12an, igandearekin, tokatu zen bere gorputza kanposantura eramatea, eta egundoko jende pila zen* (S. Salaberria). Horrenbestez, azken bolada honetan asko hedatu den arren, ez da egokia ondorengoa: *\*martxoaren 7an, ostegunez, ezkonduko dira*.

**16.2.9e** Adina zenbakien bidez ematen dugu: *hogei urteko neska; hamar urteko mutila; bost hilabeteko haurra* eta abar. Iparraldean *batetako* ere, idazle

batzuek. Urte batekoa delarik, hola eman daiteke: *urteko haurra*; *urte bateko haurra*; *urtebeteko haurra*. Tradizioan ere holakoak erabili izan dira: *Eta eskainiko dio Jaunari bere dohaina, urtebeteko bildots mantxa gabeko bat holokaustoa, eta urtebeteko ardi mantxa gabeko bat bekatuagatik* (Uriarte); *Ordea nola hasten baitzen malizia gabe, urte batetako haurraren pare, eta egoitza hartan iraun baitzuen bi urtez, eta ez gehiago* (Axular); *Esku ttipiño batzuk zituen, hamabi urteko haur baten eriak, dena hezurra* (J. B. Etxepare); *Eta ireki zuen bere diruko kutxa eta armadari eman zion urte bateko soldata* (Duvoisin).

**16.2.9f** Laburtuz, hortaz, data hola ematen da (Euskaltzaindiaren araua bil-tzen dugu): *Durango(n)*, *1995eko martxoaren 7a(n)*, aukeran utziz inesiboaren marka; *1995/03/07*; *1995-03-27*; *1995/III/07*; *1995-III-27*; *1993-11-23ko bilera agiriak dioenez...*; *urtarrilak 20* bezalakoak ere erabil daitezke, baina aposizioan: *gaur, urtarrilak 20* bezalakoetan (beraz, *\*otsailak 20* egin zuten bilera ez da zuzena).

Arlo honi dagokion Euskaltzaindiaren araua 37a da, 1995eko uztailaren 28koa.
--

## 16.2.10. Frakzioak eta kalkulu eragiketak

**16.2.10a** Frakzioak zenbakiak direla bide aurkezten ditugu:  $1/2$  (*erdi*);  $1/3$  (*heren*);  $1/4$  (*laurden*). Horrela, *ordu erdia*, *gazta erdia*, *ordu laurdena*, etab. erabiliko dira. Edo *hiru milioi laurden galdu zituen pilotalekuan* (750.000 euro) esango dugu.

*Bost* zenbatzaitetik gora, bide desberdinak ditugu frakzio hauek adierazteko. Horrela  $7/10$  frakzioak, adibidez, irakurketa hauek guztiak izan ditzake: *zazpi hamarren* (erabiliena); *hamarretik zazpi*; *hamarretatik zazpi*; *hamarretarik zazpi*; *hamarreko zazpi*. Antzera gertatzen zaigu  $2/5$  frakzioarekin ere, zein horrela irakurriko baitugu: *bi bosten* (zientzietan erabiliena); *bostetik bi*; *bostetatik bi*; *bostetarik bi*; *bosteko bi*.



**16.2.10b** Ehuneko kasuan hola egiten dugu: % 5 (*ehuneko bost* irakurriko da). *Ehunen eta milaren* erabil daitezke *centésima/centième* eta *milésima/millième* adierazteko.

**16.2.10c** Dena dela, ongi bereizi behar ditugu itxuraz oso antzeko direla irudi dezaketen espresio hauek: *Liburu erdia irakurri zuen / Liburuaren erdia irakurri zuen*. Bietan liburu baten erdia irakurri dela adierazi nahi da. Ez, ordea, hurrengo kasu honetan: *Liburuaren erdiak irakurri zituen*. Adibide horretan, liburu multzo batetik, multzo honen erdia edo irakurri duela adierazi nahi da. Ideia hau beste modu batzuetara ere eman daiteke: *Liburuetatik erdiak irakurri zituen; Liburuetarik erdiak irakurri zituen; Libururik erdiak irakurri zituen*.

Hala ere, *liburu erdiak irakurri zituen* baldin badiogu, beste zerbaitekin adierazi nahi dela dirudi: liburuak erdizka irakurri zituela, liburu bakoitzaren erdiraino baizik ez zela iritsi. Beste zenbait adibide jarritz: *Ganbaran dauzkagun sagarretatik erdiak usteldu egin zaizkigu; Euskararentzat diren diruetatik erdiak Bilbo aldetik, euskara ez dakitenen eskuetatik, datoz; Ahopean esaten ditu barbarik erdiak; Lotan ematen ditu ordurik erdiak*.

**16.2.10d** Kalkuluan erabiltzen ditugun eragiketak honela irakurtzen dira: Batuketa: *5 gehi 5 berdin 10* ( $5 + 5 = 10$ ); Kenketa: *3 ken 1 berdin 2* ( $3 - 1 = 2$ ); Biderketa: *4 bider 3 berdin 12* ( $4 \times 3 = 12$ ); Zatiketa: *4 zati 2 berdin 2* ( $4 : 2 = 2$ ).

*Plus* eta *minus* terminoak zenbakiaren positibotasuna eta negatibotasuna adierazteko erabiltzen ditugu. Horrela, honako ekuazio hau, ondoren jartzen den bezala irakurriko da:  $5 + (-3) + (-1) = 1$ , *Bost gehi minus hiru gehi minus bat berdin bat*. Beraz, bada, positibotasun-negatibotasun zeinuak ditugu *plus* eta *minus*.

### 16.2.11. Zenbatzaile zehaztuak eta komunztadura

**16.2.11a** Euskal aditzaren morfologiak perpaus horretan biltzen diren *nor*, *nori* eta *nork* kasuetako sintagmen zenbatasuna (sing./pl.) islatzen du: *Filma ikusi dut* (*nor* sing.); *Filmak ikusi ditut* (*nor* pl.); *Hark ikusi du* (*nork* sing.); *Haiek ikusi dute* (*nork* pl.); *Hari eman diot* (*nori* sing.); *Haiei eman diet* (*nori* pl.)...

**16.2.11b** Sintagma horiek zenbatzaile batek osaturik (eta ez, nahitaez, artikulatu edo erakusleak) ager dakizkiguke: *film bat ikusi...*; *bost film ikusi...*; *gizon batek ikusi...*; *bost gizon ikusi...*; *andre bati eman...*; *bost andreri eman...* Holako kasuetan, nola paratzen dugu aditz laguntzailea?

Zenbatzailea *bat* baldin bada, aditz morfologian singularra ageriko da beti: *Film bat ikusi dut* (*nor*); *Gizon batek egin du* (*nork*); *Andre bati eman diot* (*nori*). Hau da, *bat* horren orde artikulua balerama bezala.

Zenbatzailea ez baldin bada *bat*, besteren bat baizik, eta sintagma osoa —zenbatzaileaz gain— artikulua mugatzen baldin badu, aditz morfologian pluralaren aztarna ageriko da: *Lau filmak ikusi ditut* (*nor*); *Bost gizonak egin dute* (*nork*); *Bost andreei eman diet* (*nori*).

**16.2.11c** Gainerakoetan singularrez edo pluralez ageriko da aditza, gehiengotan pluralez. Idazle batzuek singularrez bakarrik erabiltzeko joera izan dute eta zubereraz ere —neurri batean behinik behin— horrela jartzen da, baina hori ez da nahi eta nahiezko araua, ondoan jartzen ditugun adibideek ongi aski erakusten digutenez. Egun pluralez egiten da maizago komunztadura hori: *Hiru film ikusi dut* (*nor*); *Hiru film ikusi ditut*; *Hiru ikusi ditut*; *Zer iduri zaitzue?* *Baldin gizon batek ehun ardi baditu, ez ditu laurogei eta hemeretziak uzten, eta errebelatu zena bilatzen?* (Leizarraga); *Mila gizon gaixtorik da emazte batendako. Gizon baten mila andre bere fedean dago* (Etxepare); *Badira beraz hiru Jainko?* (Belapeire); *Neure Jaun maitea, bi soldado pobre heldu dira Aruetik Barkoitzera, zure jauregi ederrean zure ikustera* (Tartas); *Gau egunetan hogeita lau ordu ditu* (Orixe); *Tiro bat, bi tiro, lau merezi ditu hola mintzo den gizonak* (Larzabal); *Larruneko harri ilunetarik altxatu ziren lau edo bost arrano handi, inguru eta inguru zeru gorenean eman zirenak* (Barbier); *Urteak hamabi hilabete ditu* (J. Haranburu).

**16.2.11d** Gaur egun gero eta gehiago ikusten da *iraun* aditzarekin pluraleko komunztadura: *Lau urte iraun zituen*. Tradizioan ez da adibide gehiegi ageri egitura honekin, baina lekuko ia gehienek singularra aukeratzen dute: *Iraun dute hogeita hamahiru urte* (Mihura); *Berrogei egun eta gau, behin ere atertu gabe, iraun zuen [...] euri-jasa ikaragarri batek* (Ubillos); *Bost urte iraun zuen*

[...] *gerra horrek* (Astarloa); *Bi minutu baino gehiago ez du iraun egun hartako lur-ikarak* (Hualde); *Berrogei urte iraun zuen Saulen erregeok* (Zerbitzari); *Ia zortzihun urte iraun zuten etengabeko harremanek* (Mitxelena).

Gaurko literaturan tradizioan baino ugariagoak dira pluraleko komunztadura erakusten duten egiturak (nahiz gehienak, egun ere, singularrekoak diren): *Milaka eta milaka urte iraun zituen lehia hartan* (J. A. Irigarai); *Berari bezala hari ere eraso zion akidura bat-batekoa izan zen, baina urteak iraun zituen* (An. Garikano); *Hilabeteak iraun zituen erasoak* (Aristi); *Liskarrak 14 'round' iraun zituen* (R. Etxeberri); *Hamabost minutu iraun ditu gaurko hasiera ekitaldiak* (Berria); *Hiru urte iraungo ditu bigarren faseak* (Berria); *Desfileak bost ordu inguru iraungo ditu orotara* (Cano).

### 16.2.12. Ordinalak

**16.2.12a** Ordinalek elementu batek serie batean edo hierarkia batean hartzen duten hurrenkera edo tokia seinalatzen dute: *bigarren etxea*; *hamargarren jabea*; *hiztegiaren hirugarren liburukia*; *lehenbizikoak txapeldun saria eraman du* eta abar. Dagokion zenbatzaileari *-garren* atzizkia atxikirik sortzen dira ordinalak (tradizioan badira adibideak, hala ere, *-garren* bereiz idatzia erakusten dutenak): *zortzi*, eta hortik *zortzigarren*. Idazteko orduan *zortzigarren* edo, zifra erabili nahi bada, 8., hau da, zifra ondoan puntua: *zortzigarren* nahiz 8.; artikulua erantsiz gero *zortzigarrena* nahiz 8.a.

**16.2.12b** Arau orokorra aipatu den hori baldin bada ere, 1 zenbatzailearen kasuan aldaera bat baino gehiago dago: *lehen*, *lehenengo*, *lehenbiziko* eta *lehendabiziko*. *Lehenengo* horren parean, zenbaitetan *lehenengo* ere erabili izan da: *Baina Teresa aiduru zen orain, lehenengo aldiz beharbada* (Mirande); *Aurpegiko trasplantea egin dute Txinan lehenengo aldiz, eta ondo joan da* (Berria). Baina orduan anbiguotasuna sortzen da, perpaus honetan ikusten den moduan: *Hau da lehenengo txirrindularia*.

Horrek bi esanahi bai baititu: *hau da lehendik ezagutzen den txirrindularia* (eta, agian, egun ez du korritzen) edo, *honek irabazi du itzulia* (hots, hauxe

izan da lehenbizikoa). Euskalki edo hizkera batzuetan oso ongi bereizten dira bi horiek, *lehen* eta *lehenengo*. Anbiguotasuna desegin nahi baldin badugu, bada, hobe da ordinalen kasuan *lehenengo* aldaera bakarrik erabiltzea.

Hori dela eta, bi gauza desberdin ditugu ondoko hauek: *Lehenngoan ikusi nuen* eta *Lehenengoan bizi da*. Edo erkatu bi hauek: *Egia da ez naizela lehengo jokalaria, baina oraindik maila eman dezaket; Ez naiz lehengo jokalaria, badi-tut aurretik hobeak direnak*.

Bestetik, *bost* zenbakiaren kasuan (berdin *bortz*-ekin ere) *bosgarren* egiten da.

**16.2.12c** Azkenik, ordena bat amaitzen duenari honela deituko diogu: *azken*; *azkenengo*; *azkeneko*. Zenbait euskalkitan, hala eta guztiz, *-engo* atzizkia ez da mugatzen aipatuko kasuetara eta beste guztietan ere ageriko da, aldaera hauekin: *bigarren*, *bigarrenengo*, *bigarreneko*; *laugarren*, *laugarrenengo*, *laugarreneko*. Tradizioan badira lekukotasun franko (batez ere Hegoaldean): *Nola diren Euskal Herrian ugariagoak eta zergatik, lehenengo izendatutakoak, bigarrenengoak baino* (Iztueta); *Nik, hain xuxen, bigarrenengoa, eta oraindaino hirugarrenenik ez da izan* (Lizardi); *Hau bera gertatzen da zenbait aldiz seigarrenengo hutsegiteetan* (Agirre Asteasukoa); *Mila zortzihun hirurogeita zazpigarrenengo urtean, lehenengo trena ikusi nuen Espainiako partean* (Txirrita). Eta gaurko idazleen artean: *Lur jotzeko zorian zen MTGD. Argazkilariei egin zizkien eskariak ez ziren alferrikakoak izan: abaildura zegoen MTGD bosgarren eta seigarrenengo gelen argazkien aurrean* (Jon Muñoz); *Hirugarrenengo, ordea, galdetu beharrekoa da, zerk eragiten duen egiaz behin eta berriro ihes hori* (Azurmendi).

*Laugarreneko* eredukoak gehiago ikusten dira Iparraldeko tradizioan: *Efraimen kanpetako kontatuak izan direnak heltzen dira ehun eta zortzi mila eta ehunetara, zein beren andanetan: hirugarrenekorik ilkiko dira* (Duvoisin); *Hau dio armadetako jaunak: laugarren hilabeteko barura, bosgarrenekoa, zazpigarrenekoa eta hamargarrenekoa, bozkario eta jauzitara eta besta-buru ederretara bihurturen zaizkio Judako etxeari: bakarrik maita ezazue egia eta bakea* (Duvoisin).

**16.2.12d** Lafittek *birden, heren, laurden*, etab. ere aipatzen ditu. Hortik sortuko lirateke: *lehengusu, herengusu, herenegun* eta abar.

Lehentxeago data aipatu denez gero, ez da esan beharrik ordinalak erabiltzen direla mendeak izendatzeko: *hirugarren mendea* eta abar.

**16.2.12e** Hauen pareko ditugun adberbioak *-ik* atzizkia dela bide sortzen dira: *lehen, lehenik, aurrenik; lehenengo, lehenengorik; lehenbiziko, lehenbizikorik; bigarren, bigarrenik, bigarrenekorik; azken, azkenik, azkenekorik...*

Batzuetan, zernahi gisaz, *lehenbizi* hori izen bihurtuko da: *Esango nuke nik lehenbizi hartan iluna eta argia [...] zeinek zein garaituko zuen ibili ziradela* (Larramendi); *Badaiteke ere batzuen gibelatzeko hori bera aski zen lehenbizi hartan* (Hiriart-Urruti); *Apostoluen denboran, eta oraino Apostoluak hilez gero ere, lehenbizi berri hartan, hain zen debozioa handi, eta bero, ezen egu-nero gorputz saildua errezibitzen baitzuten* (Axular).

**16.2.12f** Ordinalen puntu honetan ongi bereizi behar dugu jarritako ordinala sintagmaren zati bati bakarrik ala sintagma osoari dagokion: *Ipar Euskal Herriko II. astea*. Kasu honetan *II.* hori *astearekin* doa, eta beraz, *astea* dugu bigarrena. Hurrengo adibidean, aldiz, *II.* horrek sintagma osoa mugatzen du: *II. Ipar Euskal Herriko astea*. Horrenbestez, kontuan hartu behar da ordinalak zer besarkatzen duen: *Hauxe dugu etxeko 2. semea; Hauxe dugu 2. etxeko semea*. Azken batean, berdin gertatzen da zenbatzaile kardinalekin ere: *Hauek dira bi lorategitako loreak; Hauek dira bi lorategietako loreak; Hauek dira lorategiko bi lore; Hauek dira lorategiko bi loreak*.

Arlo honi dagokion Euskaltzaindiaren araua 18a da, 1994ko abenduaren 29koa.
---

### 16.2.13. Adjektibo biderkatzaileak

**16.2.13a** Zenbatzaileei *-kun* eta *-koitz* atzizkiak erantsiz gero adjektibo biderkatzaileak sortzen ditugu: *bakun; bakoitz; bikun; bikoitz; hirukun* (edo

hirurkun); *hirukoitz...* Aniztasuna ere horrela adierazten da: *r dardarkari soila da eta rr, berriz, dardarkari aniztuna.*

**16.2.13b** *Bakun* hitzak sinplea edo elementu bakarrekoa den zerbaiti egiten dio erreferentzia: *Grafia moldeak, letra bakunak edo letra multzo bakoitzak zer adieraz zezakeen igartzen ez badiogu* (Mitxelena). Beste batzuetan tolesturarik gabeko norbait adierazten du: *Horregatik, nik esango nuke bakunak eta inozenteak izan ohi garela sarri askotan* (Villasante). Edo konplikatua ez den zerbait: *Esan nahi nukeenaren erakuskari hitz zerrenda hau dakart hona, hitz bakoitzaren egitura hurrengoarena baino bakunagoa agertzen delarik: gu, gau, gaur, antz, geurtz* (Mitxelena). Bakartasuna ere adieraz dezake: *Jendea, 'masak', dira egiazko protagonista, ez izaki bakun batzuk* (Mitxelena). Bereizi den norbait edo zerbait: *Elizatik atera diren bilkura bakunak mendeetan ez daitezke jar kate berean* (Hiribarren). Edo aski berezi eta bakarra den zerbait ere: *Ezkontza, emazte bakuneko bertzeak, hemen bakanak dira, eta etxeko bi lagunek elkarren engainatzea oraino bakanago den gauza* (Fedearen Propagacioneco urtecaria).

*Bakoitz* hitzak ere bakarra dena izenda dezake. Hori adierazteko bakarrik erabiltzen du Leizarragak, baina adiera hori galduz doa, nahiz Zuberoako tradizioan mantendu den: *Adam lehen gizonean egin izan zen perdizionearen erreparatzeko esperantza guzia eta bakarra* (Leizarraga); *Jainkoaren egiazko seme bakoitza* (Belapeire); *Eta oraino orduan ez baitzen nahasia hizkuntza bakoitz hura* (Etxeberri Sarakoa) eta abar. Konposatuen bigarren kidea: *Errena edo beso bakoitza delako* (Astarloa). Batzuetan *-dun* atzizkiarekin ere ageri da: *Hobe duk hire, edo eskubakoitzdun bizitzean sar adin, ezen ez bi eskuak edo bi oinak dituala suko...* (Leizarraga). Balio instrumentala du zenbaitetan: *Gillotina bat kolpe bakoitz eta hamar bururen ebakitzeko* (M. Elizanburu). Multzo bateko gauzen izenari ezartzen zaion hitza, haiek guztiak, baina bana-bana harturik: *Erran herri bakoitza nola den agertzen, Zer Jaun edo nagusik duten ohoratzen* (Hiribarren); *Hipaka hasi zen, hasperen bakoitzak gorputz guzia inarrosten ziola* (J. Etxepare); *Hizkuntza bakoitzak badu horretan bere joera* (Mitxelena). Pluralean ere erabili izan da: *Lerro bakoitzak ez ote du ebakitzen barnean zeharka lau azal bakoitzen erdia?* (Zaitegi); *Bakoitzak beren*

*etxeetara / joango ziren zaharrak* (Uztapide). *Bakoitz batzuk* esapidea ere agertzen da tradizioan: *Testamentu Berriko hitz eta mintzatzeko manera difizil bakoitz batzuk bere deklarazionekin* (Leizarraga); *Urte bakoitz batzuk negarretan [...] eta eternidade luze eta ezin akaba daitekeen hura Jainkoaren zorionaz beraz gozatzen* (Duhalde).

Honetaz informazio gehiago “Izenordainak” atalean (§ 13.9.1c, § 13.10.7.7a, § 13.10.7.8b, § 13.11).

**16.2.13c** *Bikoitz, hirukoitz...* bezalakoak bi atal, hiru... dituzten gauzakiak dira: *Meritu bi eta sari bikotza irabaziko da* (Añibarro); *Eta italierak bezala, gurean ez diren kontsonante bikoitzak ezagunak baitira han* (Mitxelena). Badiu beste esanahi gehiago ere. ‘Halako bi’ esan nahi du batzuetan: *Ez ote da honen bikoitz izango lerro hori, hemendixek beste horrenbesteko lerroa ezar bagenez?* (Zaitegi). Edo bikiak: *Hartu zituen txakurkume gazte bi ama batenak eta sabelaldi bateko bikoitzak* (Añibarro). Izen gisa bikotearen esanahia ere badu: *Zarandona Otxoaz / Horra morrosko bi / Amerikara doaz / Utzirik lur honi / Ondo ibili hortik / Bikoitz eder hori* (K. Enbeita).

*Bikun* hitzak ‘bi aldiz zerbait’ adierazi nahi du, bikoitza den zerbait alegia: *Bihurtzen diet beren gaiztakeria eta bekatuen sari bikuna* (Duvoisin); *Ezker aldeko miradore bikunean inor ez begira; ezta Xotera anderea ere, hainbestetan hantxe, kuxkuxero, ikus-min* (Txillardegi); *Irristatzeko pistaren aldetik kezkarik gabeko barre bat iritsi zen leiho bikunetik zehar* (Morales); *Baina bide bikun horretan, gora eta behera, purutasuna erdiesten da* (Juan Garzia).

*Hiru*-tik gora zailagoak dira adjektibo hauek: *hirukoitz* erabilia da, baina *laukoitz*-ek, ordea, askoz ere lekukotasun gutxiago du. Ber gauza gertatzen da *hirukun* eta *laukun* hitzekin.

#### 16.2.14. Distributiboak

**16.2.14a** Zenbatzaile zehaztuei *-na* atzizkia erantsiz gero, distributiboak sortzen zaizkigu: *bat, bana/bedera*. Eta hortik *Liburu bana erosi dugu* edo



*Liburu bedera erosi dugu.* Tradizioan batez ere Iparraldean erabili izan da: [...] *erran zuen bertze soldadoak zigarreta bat hartuz. Bertzeek ere bedera hartu zuten* (J. B. Etxepare); *Nagusiak etortzen dira azote bedera eskuak* (Laphitz); [...] *iragan mendean gure Iparrak eta Hegoak historia bedera harilkatu izanak zenbait ohar egiteko parada eskainiko digu menturaz* (Xarriton).

Adibide horietan guztietan *bana* jarriz gero perpausak gauza bera esan nahi du: *bakoitzak liburu bat, zigarreta bat, azote bat...* eta abar. Ohart gaitzen *bedera*-rekin batera *batbedera* ere badugula euskaraz, baina hori beste zerba it da, *bakoitza* esan nahi baitu (§ 13.11): *Jakobek hiltzean Josefen semeetarik batbedera benedika zezan* (Leizarraga).

Gainerako zenbatzaileekin ere gauza bera: 2, *bina*; 3, *hiruna*; 10, *hamarna*; 100, *ehuna*; 999, *bederatziehun eta laurogeita hemeretzina*.

**16.2.14b** Distributibo hauek aurrekaria pluralez eskatzen dute, ezinbestean. Adibidez, perpaus hauek ez dira gramatikalak: *\*Nik liburu bana erosi dut*; *\*Nik liburu bina erosi ditut*; *\*Kotxe banatan etorri naiz*. Horien orde z, beste hauek ditugu zuzenak: *Guk liburu bana erosi dugu*; *Liburu bina erosi dugu*; *Kotxe banatan etorri gara*. Partidetan eta, markagailuak 0-0 adierazten duenean *husna* edo *hutsean* esan ohi da. Hona adibide pare bat: *Errumanean 1-0 galdu ondoren, husna egin zuten San Mamesen (Berria)*; *Partidu hartan hutsean geratu ziren Athletic eta Cádiz (Goienkaria)*.

**16.2.14c** Hala eta guztiz, *mila* zenbakitik gora gauzak aldatu egiten dira eta beste eredu baten arabera doaz distributiboak: 1.000, *mila bana* (eta ez, *\*milana*); 5.000, *bosna mila* (eta ez, *\*bost milana*); 5.030, *bost mila eta hogeita hamarna*.

Ohart gaitzen, hortaz, *mila* zenbakiak ezin dezakeela *-na* atzizki hori hartu. Gauza bera gertatzen zaigu *milioi* delakoarekin ere: 2.000.000, *bina milioi*; 1.000.000, *milioi bana*.

Horrenbestez, bada, honela agertuko ditugu ondoko adibideok: *Kafe bana hartu zuten Patxik eta Karmelek* (Patxik kafe bat hartu zuen eta Karmelek beste



bat); *Talde horiek bina ordezkari aukeratu dituzte* (talde batek bi ordezkari, besteak beste bi, besteak beste bi...).

**16.2.14d** Distributiboetatik aditzondoak ere sor daitezke: *banaka* (*banazka, bederazka*); *binaka* (*binazka, bidanazka*); *hirunaka* (*hirunazka*); *ehunka* edo *ehunaka* (eta ez \**ehundaka*, espresuki baztertua *Euskaltzaindiaren Hiztegian*).

### 16.2.15. Esamolde batzuk

**16.2.15a** Zenbatzaileek bide ematen digute esaera edo esamolde bereziak sortzeko. Horrela, adibidez, talde batean baldin bagaude eta talde hori osatzen duten lagunen kopurua aipatzen badugu honelako esaerak erabiltzen dira euskaraz: *Maritxu, Jon eta hirurok joango gara; Zuek eta lauron artean egingo dugu; Karmele eta biok ezkonduko gara...* Hori esaterakoan badakigu lehengo kasuan hiru garelara (Maritxu, Jon eta ni). Bigarrenean ere, lau izango gara (zuek hirurak eta ni, hain zuzen ere). Aski arrunta da esamolde hau: *Berak, Jean Magüek eta hirurok erabaki genuen autoak ahal zuen bezain urruti joatea* (Alonso); *Ozeano Bareko uharteen historia, niretzat, hiru indonesiar adiskidek eta laurok indonesiar Ginea Berriko Jayapura hiriburuko denda batean sartu ginenean izan genuen gertakari batean dago laburbilduta* (Sagarna); *Coco eta biak kanpamentura heldu ginenerako, gorila-habitataren kopia txiki-txiki bat zen gela* (Navarro).

**16.2.15b** Datari buruz ari garelarik, gaur astelehena baldin bada eta hurrengo nahiz lehengo astelehenaz zerbait esan nahi izanez gero, forma hau erabiliko dugu: *gaur zortzi, bihar zortzi, heldu den larunbatean zortzi* eta abar. Berdin beste egunekin ere: *hurrengo larunbatean zortzi* (horrek esan nahi du hurrengo larunbatean ez, baizik eta hurrengo asteko larunbatean); *Atzo zortzi etorri zen Ameriketatik eta bihar hamabost hartuko omen du berriz ere hegazkina*; *Atzo zortzi ortzegun goizaldera buruz supitoki ohean hila kausitu dute Albert Goienetxe, Donibane-Lohizuneko jaun medikua: Euskal Herri guziak Donibaneko auzapez bezala ezagutzen zuten gizon kartsua* (Hiriart-

Urruti); *Bai ba, Txorokilletako neska atzo zortzi ezkondu zen, eta bere gizon gazteaz hortik zehar ezti-aldia eginda, atzo etorri ziren etxera* (Orixe); *Gaur zortzi, pilota partida Eibarko Astelenean* (Aranbarri); *Joko ona erakutsi digute eta momentu onean, ezen igandean zortzi izanen dute derbia Avironeko Baioneseekin* (Herria).

### 16.3. Zenbatzaile zehaztugabeak

**16.3a** Orain arte aztertu ditugun zenbatzaileek zenbaki zehatz bati egiten zioten erreferentzia eta horrexegatik *zenbatzaile zehaztuak* deitu diogu atal horri guztiari. Baina gauzak ez ditugu, ordea, beti hain modu zehatzean adierazten: *bost lagun etorri dira* esaten badakigu *bost* lagunez ari garela, ez direla ez *lau* ez *sei*, baina *lagun batzuk etorri dira* esaten badugu, ez dakigu zenbat diren, testuinguruaren arabera interpretatzen baitugu *batzuk* hori. Zenbatasun hori, kasu honetan, gutxi gorabeherakoa baizik ez da, esanahiari dagokionez. Berdin gertatzen da beste honekin ere: *mutil bat* diogunean badakigu zenbat mutili buruz ari garen hitz egiten, baina *mutilen bat* esaten dugunean ez dugu zenbakirik zehazten. Dena dela, biak sartu ditugu zenbatzaile zehaztuen artean, formalki bederen zehatzak direlako.

**16.3b** Zenbatzaile zehaztugabeen kontua diferentea dugu: hemen ez da inoiz zenbaki zehatzik adierazten, handia nahiz txikia izan daitekeen multzoa baizik. Bestalde, hauek ere bakar-bakarrik nahiz izen edo izenki baten ezker edo eskuinean ager dakizkiguke.

**16.3c** Zenbatzaile zehaztugabe hauetako zenbait guztiz adberbializaturik daude. Hori gertatzen da inesiboarekin ematen ditugunean. Inesiboan ageri direnean, gehienetan, adberbioak dira, eta denborarekin dute zerikusia, lekua-rekin baino gehiago: *Herrien osasuna, askotan, emakumeen eskuetan dago* (Agirre); *Eta halatan anitzetan ere egiten diogu kalte geure gaizki egileari ere* (Axular); *Amaren begietan, batzuetan, jaki ongarriok murrizak eta...* (Erkiaga). Biziki zaila da holako egiturek tokiari egitea erreferentzia, non ez duten aurretik izenlagun bat isildua: *Ikusten mendi haiek? Haietako askotan egona*

*nai*z. Hor tokiaren erreferentzia du. *Haietako* hitza kenduz gero, erreferentzia tokiarena izan daiteke, edo denborarena, baina arruntean bigarrena ulertzen dugu.

Horrek ez du esan nahi, zernahi gisaz, inesiboan dauden guztiak beti adberbioak direla: *Zenbat jauregi diren oraino sutik Behenafarroa maitagarri horretan [...] Lakarren, Donapaleun eta beste leku anitzetan* (Manezaundi). Testuinguruak bereizten ditu.

### 16.3.1. *Batzuk*

**16.3.1a** Izen sintagmaren eskuineko aldean ageriko da eta *bat* zenbatzailearen pluralizat hartzen da gramatikagileen artean. Hori dela eta, aditzarekiko komuntadura beti pluralez eginen du: *Andre batzuk etorri dira; Ikasle batzuei esango diet; Idazle batzuek horrela nahi dute; Eta haren ingurura bildu ziren oste handi batzuk, halatan non, ontzi batera iganik hartan jarri baitzen, eta hur hegitik zegoen populu guzia* (Duvoisin); *Etorri ziren aldizka beste mutil batzuk, eta inork ere ez zuen ikusi* (Mogel).

**16.3.1b** Bakarrik ere ager daiteke *batzuk*, izen sintagma berak bakarrik osatuz: *Batzuk sartu ziren; Hor zeuden berrogei bat portuges, batzuk 15-16 urtekoak* (Larzabal); *Ezen haietarik batzuek sinetsi ez badute ere, halakoen sinets gogortasunak ezeztaren ote dute Jainkoaren zintasuna? Urrun dago* (Duvoisin); *O, nik baneuka arimak Jaungoikoaren artaldera erakartzeko batzuek izan duten jakituria!* (Agirre).

**16.3.1c** Hauek dira *batzuk* zenbatzailearen kasu markak: *batzuk, batzuek, batzuei, batzuen* (*batzuengan, batzuengana, batzuengandik, batzuen baitan, etab.*), *batzuekin, batzuez, batzuentzat, batzuetan, batzuetako, batzuetara, batzuetatik* (-tarik).

Ikus Euskaltzaindiaren 12. araua: “ <i>Bat</i> eta <i>batzuk</i> -en deklinabidea”, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua.
---

### 16.3.2. Zenbait

**16.3.2a** Zenbatzaile zehaztugabe honek (*zonbait* bezala ere tradizioan) ez du inolako mugatzailerik onartzen eta *bat* baino gehiago adierazten du, kopurua mugatu gabe uzten badu ere. Erabiliagoa izan da Iparraldean, baina autore gipuzkoarrek eta nafarrek ere erabili izan dute. Gutxiago erabili izan da bizkaieraz. Gaur egun euskalki guztietara hedatua da. Izenaren ezkerrean erabiltzen da gehienetan: *Igandetan zenbait aldiz Athletik ikustera joaten naiz; Zenbait gizonek ez du sinesten holakorik...* Tradizioan aski arrunta da: *Aldi honetan bazituen berarekin Jesusek beste gisako zenbait itsu ere; eta itsu, orduan ez baizik beste aldi batez eta bere neke-izerdi handien buruan argitu zituenak* (Mendiburu); *Kontatzen du halaber artzaintsa pobre batez okupatzen zenaz goardatzen zenbait ardi, zezakeen guzian erretiratzen zela ermita batera, non baitzen Ama Birjinaren imajina bat behar bezain dezente adornaturik* (Lizarraga); *Urtean behin ezezik, beste zenbait aldiz ere konfesatzera behartua ote dago Kristaau? Bai, jauna* (Agirre Asteasukoa).

**16.3.2b** Baina beste batzuetan eskuinaldean ere aurkituko da: *Andre zenbaittek ez du inoiz ere ulertuko hori; Liburu zenbaitetan ez duzu onik irakurriko*. Erabilera horrek ere tradizio handia du. Autore batzuek berdin jartzen dute ezker nahiz eskuin, estilo kontu hutsa da: *Bozetako denboran ere, bere burua sobera erakutsirik, zenbait liskar eta arnegu izan zituen* (Larzabal); *Niri pertsona gaixo horrek eman dit bizi guzirako irakaspena, Ebanjelioan aurkitzen dena: amagaldu zenbait sartuko direla zeruan, beren ustez saildu handi diren batzuk baino lehen* (Larzabal); *Gizon gazte zenbait, estekaturik batere gabeak, gorputzez ederrak, zuhurtzian argituak [...]* (Duvoisin); *Edo baserritar zenbait, edo artzain, edo lur-lanetako langile bat atzemana bazen [...]* (Duvoisin). Autore batzuek *zenbait* hori eskuinaldean paratzen dutelarik, ablatiboan jartzen dute determinatzen duten izena: *Handik zenbait egunen buruan Elizabeth haren emaztea izorra gertatu zen eta bortz hilabetez egon zen gordea* (Haraneder); *Haren baitan dugu ezen bizitzea, higitzea eta izatea, eta zuen poetetarik zenbaitek erran izan dutena: haren beraren arrazakoak ere gara* (Haraneder: oso sistematikoa da horretan, adibidez. M. Elizanburu ere bai).

**16.3.2c** *Beste*-rekin, ordea, beti eskuinaldean egonen da: Beste zenbaitek ez du hori uste; Beste zenbait gizonek; Beste gizon zenbaitek. Tradizioan badira adibide asko holakoak: *Jantoki berean, bada, Olivadiko bidean eta Olivadi bereko mendian hau guzia eta beste zenbait gauza esan eta apostolu berak eta beste anitz han utzi eta igan zen Jesus zerura [...]* (Mendiburu); *Gero nik hola bukatu nuen: Egia esan, haurra, gizon hark holako gauza bikainak esanarazi dizkidanez gero, ez zeukenat batere gogorik beste zenbait gauzatan nere luma kaxkartzeko* (Orixe); *Hauek baino erru handiago Oxer Batxillerrak Yurrea-mendiko semeak eta Andia-Torreko beste adiskide zenbaitek dute* (Labaien); *Komentua erretzen ari dela! Antzez-joku honi egiantz eta indar gehiago ematearren azken aldera Gotzon eta Paxkualekin gudari eta beste zenbait mutil sar daitezke, zuzendariak nahi izanez gero* (Labaien); *Badira hitzik ateratzen ez duten ta beretteren gaiztagintzak estaltzen dituzten beste lausengari zenbait ere, eta horiek dira agertu behar lituzkeen bide gaiztoak agertzen ez dituztenak* (Mendiburu); *Beldurtzen dituela zenbait aldiz besteren eskuz eta beste aldi zenbaitetan hemengo bere kastiguz eta geroko harrigarri handien izutasunez* (Mendiburu).

**16.3.2d** Sarritan bakarrik ageri da: *Gutarik zenbait hilen gara aurten; Zenbaitetan entzun izan dut*. Eta tradizioan: *Hartzen dituzte zenbaitek beren aitzineko ongi aurkitzen zirenen etxe bateko gauzak eta bazterrak [...]* (Mendiburu); *Baina populuak ikusi zuenean zertara zoan Lisimako, batzuek hartu zituzten harriak, bertze batzuek makila lodiak; zenbaitek berriz hautsa aurkitzen zuten Lisimakoren kontra* (Duvoisin); *Nork ez dakus, bekaturako bide, eta peril urkoa izango zela Joserentzat etxe hartan aurrera egotea? Hau bera gerta daiteke zerbitzatzen dabiltzan zenbaitekin* (Agirre Asteasukoa) eta abar.

**16.3.2e** Aditzarekin egiten duen komunztadura dela eta, singularrez nahiz pluralez egiten du: *Zenbait toki ikusi dut; Zenbait toki ikusi ditut*.

Batetik, tradizioa dugu kontu honetan. OEHK dioenez, izen horren erreferentzia batzuetan plurala da argi eta garbi: *Zenbait eri bakoitz... senda baizitzan* (“sendatu zituen”, Leizarraga). Beste batzuetan, berriz, singularra: *Zenbait zeinu ikusiren zuela* (Leizarraga). Autore batzuek, nolakoa den izen sintagmaren zentzua, numeroari dagokionez, aditza singularrean (*zuela*) edo pluralean

jartzen dute (*zitzan, zituen*), adibideetan ikusten den gisan. Baina tradizioan hainbeste lekukotasun ditugu esanahia plurala izanik aditza singularrean erakusten dutenak. Pouvreauk, adibidez, hola dio: *Non ez duen noizbait zenbait tentazione* (eta esanahia plurala da hor). Holako ereduak Etxeberri Ziburukoak, Mendiburuk, Larregik, Haranederrek, Mihurak... eta beste askok erabiltzen dute. Baina horren parean ikus daiteke Agirre Asteasukoak, Iztuetak, Lardizabalek edo Beobidek komunztadura beti pluralean egiten dutela.

Gaurko idazleen artean ere badirudi askatasuna dagoela, eta batzuk sistemati-koak badira ere singularra edo plurala aukeratuz, arruntena da bi ereduak aurkitzea: “*Dena zilegi dut*” dio zenbaitek (*Elizen arteko Biblia*); *Zuek niregana etorri eta esan zenidaten: Bidal ditzagun zurretik zenbait gizon lurraldea ikertzera, zein bidetatik joan eta zein hiritara sartu jakinaraz diezaguten* (*Elizen arteko Biblia*); *Hango zenbait fruitu hartu zuten* (*Elizen arteko Biblia*); *Emeki-emeki, azken hamar urte hauetan, Euskal Herrian euskaraz agertu diren obra zenbait ari ditut biltzen* (Aintziart); *Kantikek hunkitzen naute: zenbaitek diote oihukatzen ditugula, triunfan* (Aintziart); *Zenbaitek Graal boteretsua xerkatzen zuten* (Borda); *Eta jakin ere badaki, zeren geroago beste zenbait kapitulu indexologiko aurkituko baititugu* (Kintana); *Apezak oraindik otoitz zenbait egin zituen* (Landart); *Izan ere, “jo” esan, eta jotze fisikoa baino ez baitu, antza, zenbaitek entzuten* (Joxerra Garzia); *Barbarossak ateari zenbait ukabilkada eta ostiko jo zizkion* (P. Lizarralde) eta abar.

Jakina, *zenbait* horren erreferentzia ezinbestean plurala da zenbaitetan, eta hor ez da tokirik singularra ibiltzeko: *Sorlekutik atera gabe, auzoko kanoien hotsa genuen bakarrik entzuna zenbaitek, edo ihesi etorri haurrideen etsipena ezagutua* (Xarriton); *Kontura gaitezen beraz euskal ikastegi, ikastola, aldizkari, argitaldari, eta irrati-telebisten lanaren osatzeko eta jorratzeko Koldo Mitxelena, Pedro Miguel Etxenike, Gregorio Monreal eta beste zenbaitek ireki zuten Euskal Herriko Unibertsitatearen aldean [...]* (Xarriton) eta abar. Horietan, jakina, ez da singularra jartzerik.

**16.3.2f** Batzuetan *-tzuk* atzizkia ere erants dakioke eta orduan *zenbaitzuk* ematen du. Azkeneko kasu honetan aditzarekin egiten duen komunztadura plurala dugu beti. Tradizioan badira adibide batzuk (Izeta, Anabitarte, Larre-

ko, Iraizoz, Erkiaga...): *Lan pizar zenbaitzu bakarrik egin beharrak dira* (Izeta); *Langabekoen laguntzeko, herri gizonek eta beste zenbaitzuek erabaki dute laguntzeko: bakoitzari emanez hiru pezeta, noiz artio ez dute erran* (Larreko); *Zenbaitzuek hori argiro aldarrikatzen dute* (Kintana); *Sumendi zenbaitzuen erupzio eta eztanda gertatu ziren* (J. A. Irigarai).

**16.3.2g** Euskaldun batzuen artean zabaldurik dago *zenbat* eta *zenbait* nahasteko ohitura. Ezin daitezke bata bestearen ordeztu erabili: lehena galdetzailea da eta hau, berriz, zenbatzailea. Bai esanahiaz, baita hartzen duten itxura formalez ere, desberdinak ditugu.

### 16.3.3. *Asko*

**16.3.3a** Zenbatzaile zehaztugabe hau Euskal Herri osoan erabili izan da, salbu Pirinioetako euskalkietan eta Zuberoan. Izenaren ezkerrean edo eskuinean joan daiteke, nola diren euskalkiak edo hiztunaren ohiturak: *gizon asko*; *asko gizon*. Hola, izenaren aitzinean Iparraldeko euskalkietan, eta izenaren ondotik beste tokietan. Bizkaieraz beti ondotik: *Ikusiko duzu, asko bekatu egin, eta eragin dituela, eta asko arima galdu dituela, beharbada, betiko* (Agirre Astasukoa); *Horiek, egiazko deserregelemendu dira, zeren denbora galtzea berenaz ere gaizki handi bat baita, zeren bere etxekoei asko bekatu egiteko, eta mundutarrei haietaz eta debozioaz gaizki erasteko bide ematen baitiote* (Duhalde); *Eta gizon zahar, asko egunetakoa, eseri zen* (Uriarte); *Zerbait ongi egin badugu, edo egin badute anitz ongi sainduak, libratu badira egitetik asko bekatu, ez da zer hortaz presumitu* (Lizarraga); *Ez ote da Sionez erranen: Asko gizon sortu izan dira han, eta Guziç-Gorak berak asentatu du hura?* (Duvoisin); *Gero asko gizon hil zizkieten, eta gainerakoak osotoro izututa ipini zituen* (Lardizabal); *Bada bertze asko herri ere biluzi dutenik; zerbait zuten guziak zituzten guziez* (Hiriart-Urruti); *Frantzia-eskualde anitzetan herri askok dakartena, eta geroxeago deitura bilakatua* (Lafitte); *Horrelaxe, batere tirorik egin gabe, hartu ziren Albertia eta bere inguruko beste mendi asko* (S. Salaberria); *Lotsatzen dira gizon asko, Elizan eta aldare [...]* (Mogel).



Adberbioekin ere: *Maiz asko etortzen duk* (Gazteluzar); *Asko maiz ere Jainkoagatik egiten dugun obedientzian baltsatzen dira anitz* (Mihura); *Laster asko entzungo zuen arrain saltzailearen era honetako erantzuerara zorrotza* (Agirre); *Ederki asko dakik, alproja horrek* (Etxaniz); *Baina Joxek konpondu zituen gauzak, egoki asko* (Ugalde); *Egunkari bat mahai gainean zabaldu eta irakurtzen dihardu, lasai asko* (Erkiaga).

**16.3.3b** Bakarrik ere erabiltzen da: *Zertatik dator bada askok irautea bekatu eta bizitza gaiztoan, beste askok bizitza epel eta aurrerapen gabea* (Mogel); *Zeren askoren madarikazioak aditu nituen, eta izua jabetu zen nirekin aldamen guzietatik* (Uriarte); *Munduan asko dira, Jainkoa egiaz bilatu, eta bihotz gutitik zerbitzatzen dutenak* (Kardaberaz).

**16.3.3c** Komuntadura singularrez egiten du XVI. eta XVII. mendeetan. Lazarragak plurala ere erabiltzen du, eta XVIII. mendetik aitzina plurala hasten da nagusitzen: *Bekatu asko egingo dela pentsamenduari, berbarekin eta [...]* (Betolaza); *Daukanean gizonak kriado asko* (Mikoleta); *Zeren daukat gaur asko zer egin* (Mikoleta); *Asko galdera egin zizkion neskari* (Goñi); *Baina ugazaba askok [...] euren ondasunak gehitu eta ugaritzea baino beste asmorik ez dute eduki* (Eguzkitza); *Horregatik maite ditut gaurko gazte asko* (Mixelena); *Orduandik urte asko pasatu dira* (San Martin).

Zenbaitetan, hala ere, badirudi komuntadura hori singularrez edo pluralez egitea adierazgarria izan daitekeela. Hala, EGLU-I liburukiak bereizketa egiten du *liburu asko erosi dut* eta *liburu asko erosi ditut* perpausen artean. “Ez dirudi gauza bera esaten dugunik”, dio, eta azalpen hau ematen du: “Lehenbiziko adibidean liburu *masa* hartzen dugu gogoan. Bigarrenean, berriz, liburu *bat*, eta *beste bat*, eta *beste bat* eta *abar*” (EGLU-I: 143). Beste adibide bat hartuz gero argiago geratzen da: *harri asko bota dute / harri asko bota dituzte*. Lehenbizikoan, zenbakaitz modura hartua da *harri* hitza, harri kantitate handi bat esango bagenu bezala. Adibidez, mendian bidea konpondu nahi bada harri asko botatzen da. Gauza bera gertatzen da *jende asko* etorri dela diogunean. Hor zenbakaitza da *jende* hitza. Baina *harri asko bota dituzte* baldin badiogu, harriak bota dituztela ari gara esaten.



**16.3.3d** Izenik gabe ageri delarik, bi egoera hauek izan ditzakegu: *Asko bildu ziren azken orduan; Horrek asko daki*. Lehenbiziko kasuan pentsa daiteke izena isildu dela (edo izenordain gisa erabilia dela ere esan daiteke) eta isildutako izena testuingurutik atera daitekeela: (*Gazte*) *asko bildu ziren azken orduan; Horrek (diru) asko irabazten du; (Gauza) asko saltzen da han...* Baina horrek *asko daki* baldin badiogu badirudi adberbio hutsa dugula, *gutxi*-ren kontrakoa. Holakoetan ere: *Hori esatea asko esatea da*. Tradizioan ugari dira adibideak: *Asko dezake eskuak / baina gehiago buruak* (B. Mogel); *Laga izan zioten lanbideari, asko nekatu gabe* (Iztueta); *Asko hazi haiz eta ezingo haut altzoan eduki, baina bai bihotzean* (Agirre); *Asko gustatzen zait neska gazte hori* (J. B. Etxepare); *Beren hizkuntzak garai horretan asko aberastu, trebatu eta gaitu zirelakoan daude* (Mitxelena).

Batzuetan *nahiko*-ren ordez, edo *nahiko* adberbioaren esanahia duela, erabiltzen dugu: *Asko da* (nahiko da). Beste batzuetan *biziki, oso, txit...* esan nahi du: *Asko goiz itzuli zen*. Eta *gehiegi* adierazteko *askotxo* erabiltzen da: *Latin askotxo zenekien* (X. Mendiguren Elizegi); *Askotxo irabazten du horrek; Asko klaroki deklaritzen digu* (Leizarraga); *Ez da ahaztu behar irlandarrak politikaren aldetik beren gain egon baziren ere, asko goizik latinen kultura eta hizkuntza ezagutu zituztela* (Mirande).

**16.3.3e** Ezezko testuinguruetan *askorik* erabiltzen da zenbaitetan: *Horrek ez du txanpon askorik egingo inoren alde* (Agirre); *Ez zuela denbora-paxako huskeriekin asti askorik galtzen* (Mitxelena). Baiezko testuinguruetan ere ageri da *askorik*: *Baserritar sendo askorik ezagutu ditut nik neure bizitzan* (F. Bilbao); *Isil askorik jaio zen / Alostorrean semea* (Baladak).

**16.3.3f** Ezezko perpausetan *ezer, deus, inor...* bezalakoan gibeletik: *Niri ezer asko kostatzen gabe* (G. Arrue); *Espanian gaudela adierazteko ez dela deus askoren beharrik: aski dira gitarra soinua eta guardia zibil baten (hobe biren) kapelu ederra* (Mitxelena); *Salan ez daukat ezer askorik* (Txirrita); *Ez nuen inor askorik agurtu* (A. Zinkunegi).

**16.3.3g** *Izan* aditzaz baliaturik egiten ditugun esapide batzuetan ez du *asko* zenbatzaileak lekuri eta bestelakoak erabili behar ditugu: *Guztiz beldur dira;*

*Arras beldur dira; Arront beldur dira; Txit beldur dira; Beldur dira; Izigarri beldur dira. Oso maite dut; Arrunt maite du ama; Landibarren biziki maite dute Irene moduko adibideak biltzen ditu Garatek. Hala ere, holako testuinguruan asko eta oso-ren artean aise erabiliagoa da asko (OEH). Azkuek bere hiztegian (1905-1906) dio ezin dela asko hitza erabili pasioei, isurkariei, gasei... ezarririk. Ezin dela, hortaz, beldur asko, egarri asko, ke asko, ur asko dago itsasoan... erabili, eta horien ordeztu beldur handia, egarri handia, ke handia, ur handia dago itsasoan... erabili behar dela. Eta egia da tradizioko testuetan batez ere holakoak ageri direla: beldur handia, neke handia edo pisu handia... Baina horren ondoan neke asko edo pisu asko ere ageri dira, nahiz askoz autore gutxiagok erabili. Egungo testuetan ere tradizioko ohitura da nagusi. Berdin gertatzen da hotz handia, bero handia eta holakoekin.*

Hori guztia dela eta, *su asko* eta *su handia* oso ongi bereizten ditugu euskaraz. *Su asko* diogunean *leku desberdinetako suez* ari gara: *San Juan gauean su asko egiten da herrietan*. Esaldi horretan esan nahi da *su* bat baino gehiago egiten dela San Juan gauean herrietan. Alderantziz, berriz: *Su handia zen herri hartan eta suhiltzaileak deitu genituen* esanez gero, *su* bakarra dela eta *su* hori handia dela esan nahi dugu, indarrean dagoela *sua*. Eredu horri jarraituz: *maitasun handia, lotsa handia* eta abar. Nolanahi ere, horien kontrakoa ez da *ke txikia* edo horrelako zerbait, baizik eta *ke gutxi*. Bikoteak, bada, eredu hauek ditugu: *ke handia / ke gutxi; maitasun handia / maitasun gutxi; beldur handia / beldur gutxi; lotsa handia / lotsa gutxi*.

**16.3.3h** *Asko*-ren ordeztu euskalki zenbaitetan beste adjektibo eta adberbio batzuk ere erabiltzen dira (askotan anbiguotasunak sortuz): *Jende asko bildu zen; Egin duk festa asko? / Egin duk besta poliki?; Asko badira han / Bakarrak badira han; Jendea barra-barra bildu zen; Jendea erruz bildu zen; Belarralde ederra bildu dugu aurten; Sagar asko bildu du / Hainbeste sagar bildu du*.

**16.3.3i** Adjektiboaren ondoren erabiltzen dute idazle batzuek, artikularekin, hura indartzeko: *Polit askoa da etxe hori; Polit askoak dira etxe horiek; Telebista merke askoa erosi dut dendan* (Elexpuru); *Maisu gehienak kastillanoak / kolorez berde askoak* (Txirrita); *Nahasi askoa duzue film honen odola* (Mitxelena); *Gauza polit askoak / esan ditut nik* (Iztueta); *Eta Günter Grassek*

[...] *badu horretaz liburu bat, gomendagarri askoa* (Joxerra Garzia). Kontura gaitezen *askoa* honek ez duela zerikusirik aski oker eratu berri den *anitzarekin*: *Horregatik, “ikuspegi anitza” aldarrikatzen du (Berria); Kolore anitza zuri-beltzez osatzen delako (Berria); Gaitasunean ere, kolektibo oso anitza da (Argia); Ezker abertzalea anitza da (Goienkaria); Izaki anitza izan arren, bakarraren legez mugitzen zena zelai berdean behera (H. Etxeberria); Anitza baita sarea bera (Jakin)*<sup>2</sup>. Adibide asko dira holakoak, baina ez dirudi batere egokiak diren. Euskaltzaindiak ere baztertua du erabilera hau, eta *askotarikoa* edo antzekoak gomendatzen ditu. (Ikus, zernahi gisaz, “adjektiboen mailakatzeari” § 14.10).

#### 16.3.4. Anitz

**16.3.4a** Aldaera asko ditu tradizioan, *anitz* forma estandar horrez gain: *anitz, hanitx, hainitz, ainhitz, haunitz, aunditz*... Nafarroako eta Iparraldeko idazleek erabili izan dute, nahiz gipuzkerazko testu zahar batzuetan ere ageri den. Larramendi, Arakistain, Iztueta, Arrese Beitia eta beste batzuek ere erabiltzen dute.

Zenbatzaile hau, *asko* bezala, izenaren ezkerrean (pixka bat maizago) nahiz eskuinean erabiltzen dugu: *anitz etxe* edo *etxe anitz*.

**16.3.4b** Determinatzen duen izenak kontagarria den zerbaiti egiten badio erreferentzia, komunztadura singularrez nahiz pluralez egiten du tradizioko testuetan: *Anitz plazer ukan badu, anitz behar dolore* (Etxepare); *Zeren anitz ur baitzen han* (Leizarraga); *Egiten duzu anitz balentria* (Axular); *Guk erabiltzen ez dugun hitz anitz* (Xalbador); *Anitz inbidioso da ofizio horretan* (Lizarraga); *Anitz gauza saltzen zuen* (Etxebarne); *Anitz gauza behar dira iudizio*

---

<sup>2</sup> Nekez onartuko genituzke horien orde: *Horregatik, “ikuspegi askoa” aldarrikatzen du; Kolore askoa zuri-beltzez osatzen delako; Gaitasunean ere, kolektibo arras askoa da; Ezker abertzalea askoa da; Izaki askoa izan arren, bakarraren legez mugitzen zena zelai berdean behera; Askoa baita sarea bera*. Gauza bera da, hala ere.

*handian* (Etxepare); *Hiztegia eta beste gauza anitz gai honi dagozkionak* (Iztueta); *Ihespide anitz zituela* (Orixe); *Siria, Armenia eta bertze anitz herrialde konbertitu dituzte* (Zerbitzari); *Kunplimendu honen ikusteko desira ukan dute anitz erregek eta profetak* (Leizarraga).

Tradizioan plurala maizago erabiltzen da, zernahi gisaz, izena ageri ez delarik: *Anitz etorri dira*. Horrela: *Zu bezalako anitz behar litezke bazterretan* (Barbier); *Anitz ezkondu dira adinera geroz* (Bordel); *Anitz dira deituak, baina gutiak hautatuak* (Axular); *Ezen anitz etorriko dira ene izenean diotelarik: Kristo naiz [...]* (Testament Berria); *Ezen anitz etorriren dira ene izenean, erraiten dutela, Ni naiz Kristo [...]* (Leizarraga). Hori da joera nagusia, baina ez bakarra: *Anitzek laudatzen du errege haren kolpe hura, baina gutik segitzen* (Axular); *Eta zeren anitz baita Euskal Herrian irakurtzen dakienik, baina ez euskara baizen bertze hizkuntzarik aditzen* (Materre); *Ezen anitz datza infernuan nik baino gutiago eta gutitanago merezi duenik* (J. Haranburu).

**16.3.4c** Izenak partitiboa duela: *Halakotz da zuen artean anitz infernurik eta eririk* (Leizarraga); *Nire mendean anitz ikusi dut holakorik* (Axular); *Lekuko dira [...]* *Santa Paula, San Paulino eta bertzerik anitz* (Pouvreau); *'Euskaldun bat' horrek, atzera begiratu nahi baduzu, ikusiko al dituzu zu baino beheragorik anitz* (Lizardi). Zenbaitetan, izenaren ordeaz beste, *halako...* erabiltzen da, partitiboan (aposizioan batzuetan): *Ni bezala anitz duzu halakorik munduan* (Etxepare); *Zeren anitz baita Euskal Herrian irakurtzen dakienik* (Materre); *Hala egin izan dute hauetarik anitzek* (Etxeberri Sarakoa).

**16.3.4d** Beste batzuetan *anitz* zenbatzailea bera doa partitiboan: *Eta bertze parte bat eror zedin leku harritsueta, non ez baitzuen lur anitzik* (Leizarraga); *Eta ez zuen egin han ikusgarri anitzik* (Duvoisin); *Ez du horrek oilasko anitzik irentsi!* (Oxobi); *Ez duzu anitzik maite* (Duvoisin).

**16.3.4e** Izenak mugatzailea duela: *Ikusiko dituk, naski, gaztelu zaharrak, herriak anitz, baso gaitzak eta jai eta bestaburu* (Orixe).

**16.3.4f** Adberbio gisan: *Ez da anitz luzaturen exekuzioea* (Etxepare); *Hitz gutiz anitz erran du* (Tartas); *Hedadura handiko gizonarentzat, aunitz ikasi eta ikusi duenarentzat* (Hiriart-Urruti); *Anitz maite zuen* (Hiriart-Urruti);

*Anitz duk alegantzia eta kuraiaren ukaitea bizian* (J. B. Etxepare); *Mattinek anitz erraiten digu / eginez gero bi trago* (Xalbador).

**16.3.4g** Adjektiboak eta adberbioak graduatzen: *Kapitulu lehena, anitz nezesarioa* [...] (Voltaire); *Bertutean anitz aitzina joanen zara denbora laburrik artean* (Haraneder); *Euskal Herria, euskaldunak anitz aipatuak dira aspaldi honetan* (Barbier); *Mirakulu bat, anitz abila* (J. B. Elizanburu); *Egia errateko, anitz arraia da* (Hiribarren); *Ikusten duk [...] urrats orotan anitz gaizki eta eragabeki ibili izan naizela* (Duvoisin); *Nahiz anitz gaizki den tratatua, ororengatik ere, barkatzen du* (Jauretze).

**16.3.4h** Tradizioan artikuluekin ere ageri da, pluralean: *Anitzak deituak, guti hautatuak* (Duvoisin); *Zeren anitzak despazientatzen eta nagitzen dira, gauzak heldu ez direnean haiekin gogara* (Pouvreau); *Anitzak dira deituak, gutiak ordea hautatuak* (Haraneder); *Laborari sobera ikusten dut lanari iheska. Anitzak dira ahal bezain arinkiena iragaiten direnak* (Duvoisin); *Hurbiltzen zitzaizkionetarik anitzak bereganatzen bazituen, bertuteaz zituen bereganatzen* (J. Etxepare); *Gu 'Euskaldun fededun' gintezke anitzak / fedetik ihes egin ez badu hizkuntzak* (Xalbador).

Eta artikuluekin, singularrean: *Dugun apurra edo anitza zureganik da* (Harizmendi); *Ttipitik handira, gutitik anitzera, etxetik galeretara, bizitik hiltzera* (Duvoisin); *Bada, nor ere fidel izanen baita gauza gutitan, dio salbatzaileak berak, hura ezarriren da anitzaren gainean* (Pouvreau).

Zenbait kasutan izena du aurretik: *Halakotz erraiten diot barkatu zaizkiola bere bekatu anitzak* (Leizarraga); *Badakusat klarki, zuk egin liburuan / merezi anitzak, dituzula zeruan* (Harizmendi); *Gauza gutian izan haiz leial, anitzaren gaineko ezarriren haut* (Leizarraga).

**16.3.4i** Konparazio egituretan ere: *Anitz gehiago dirateke oraino erraiteko gelditzen direnak* (Etxeberri Sarakoa); *Eta irabazi zuen hura guzia eta anitz gehiago* (Mendiburu); *Neror baitan baino sineste anitz hobea nuke zu baitan* (Duvoisin); *Den itsuenak ikus dezake, bertzalde, anitz gutiago aski litekeela* (J. Etxepare); *Honengandik hartzen duena baino anitz gutxiago* (Mitxelena); *Antolatzaileek anitzez gutxiago espero zuten* (Berria); *Prefosta, axuria ardite-*

gian ez zen baraurik egoten, jaten zuen egunean hiruretan bederen, ematen zuena baino anitzez gehiago (Borda); [...] unibertsitatean inbestitzen duena baino anitzez gehiago itzuli diola unibertsitateak gizarteari BPGean eta lanaren emankortasunean (Pérez Iglesias, Salaburu).

### 16.3.5. Gutxi

**16.3.5a** Esanahiari dagokionez, *gutxi* (eta dituen aldaerak: *guti*, *gutti*, *gitxi*, *gixi*, *guttu*...) *asko* edo *anitz*-en kontraktzat hartu behar da. Euskalki gutzietan erabili izan da eta erabiltzen da. Izenaren eskuinean ageri da: *Ulerzaila onari hitz gutxi* (RS); *Hain denbora gutian* (Berriain); *Zeinek iragaiten ote ditu gau egunak geldiago eta malenkonia gutirekinago?* (Axular); *Sineste gutxiko gizona* (Lardizabal); *Gauza gutxi behar zuen, beraz, atzera egiteko* (Etxaniz); *Aste gutxi barru* (Mitxelena).

**16.3.5b** Aurreko adibideetan ikusten den gisan, batzuetan mugatzailea hartzen du: *Pena gutiaren ordain anitzez latzagoa*, *Barkatzekotz mundu, edo purgatoriokoa* (Etxeberri Ziburukoa); *Errezibi ezazu ene obra apurra, zeina baita deus gutia dagokizun eredura* (Etxeberri Ziburukoa); *Baina bitartean ene dohakabea! Ene ahalak eskasten dira: eta ene egunak, nola gutiak baitira, erdietsi hurran dira: hargatik erranen diot* (J. Haranburu); *Baina denbora gutia denean trabajatzten dena nezesidade gabe izanagatik, solamente da bekatu beniala* (Berriain); *Baina gauza gutia eta apurra denean, eta borondatea ere xoil deliberatua, orduan benial da eta ez mortal* (Materre).

**16.3.5c** Komunztadura singularrean nahiz pluralean (gehiago) egiten du, izen zenbakarriekin doanean (§ 12.3.6): *Artista gutxi izango da munduan mugimendu horri buruz bere jarrera definitu ez duenik* (J. Zabaleta); *Egungo egunean munduan nazio gutxi izango da India bezain jainkozale* (Garate); *Oso doktore gutxi egoten da erdi mailako ikastegietan* (Pérez Iglesias, Salaburu); *Egun gutxi da herri honetan nagoela* (Ezkiaga); *Gauetz nahiz egunez, gutxi ohartuko da konpas bateko kantuaekin bakarrik orduak bete daitezkeenik* (P. Zabala).



Izena zenbakaitza denean (§ 12.3.6, § 12.3.7), ordea, komunztadura singularrean egiten du: *Anai-arrebarik ez du [...], familiaren berririk iristeak, iristen bada, lasaitasun gutxi ekartzen du* (Alonso); *Errealitate-efektuak [...] axola gutxi du* (J. Zabaleta); *Baina bizitzak zentzu gutxi du [...]* (Juan Garzia, Egaña, Sarasua); *Bueno, agian ez da horren gaztea ere, bizar gutxi du* (Oñederra).

**16.3.5d** Bakarrik ageri bada, adberbioa izan daiteke, edo izena isildutako izen sintagma, baina askotan zaila da bien artean bereiztea: *Nork sobera besarkatzen baitu, gutxi hesten du* (Voltaire); *Birjinitatea ez dela on, guti dela, ezdeusa dela* (Tartas); *Munduan gutik du haboro sufritu* (Etxahun); *Gutxiren gose dena, gutxik asetzen omen du* (Mitxelena); *Gutti ezagun diren idazle trebeak* (Mitxelena); *Gutxi egin du katiluko esnea kaka koloreko gauza higuingarri bat bilakatu denerako* (Urain); *Gutxi irau du mitoaren denborak* (Lertxundi).

**16.3.5e** Baditu beste erabilera batzuk ere. Esaterako, *gutxi uste denean* gisa-ko itzuliak ageri dira idazleen artean: *Herioa jaugiten da guti uste denean* (Etxepare); *Guti uste dugun lekuan dago erbia lo* (Larreko); *Gutxi uste nuen nik* (Cano); *Umetatik hasita eta gaztaroan sartu arte bederen, betidanik izan dut halako gutxi-uste bat* (X. Mendiguren Elizegi); *Niri esan behar! —esan zuen Santxok—; bereak eta bi igarri gabe joango zitzaidalakoan niri, ez nuen gutxi uste* (Ezkiaga). Partitiboarekin ere erabiltzen da: *Haien fruitutik guti umotzen eta ontzen da* (Axular); *Toki begikoagorik guti Euskal Herrian* (J. Etxepare); *Horrelakorik guti ageri da gure artean* (Mitxelena). Eta ablatiboarekin: *Eta gizonetarik ez gutik* (Leizarraga); *Gipuzetatik ere gutxik* (Larramendi); *Lurreko ontasunetarik zeinen guti daramadan hobira* (Duvoisin). Adjektiboarekin: *Ez zitzaizkion guti eder lagunetarik ukaiten zituen laudorioak* (Laphitz); *Badira fruituak, irasagarra bezala, bere gozo minaz on guti direnak konfiturarik baizen* (Pouvreau); *Bere hitzetan da guti sinesgarria, bere agintzetan guti leiala* (M. Elizanburu); *Asko dira deituak, gutxi aukeratuak: baina guztiek izango dute ordaina* (Elizen arteko Biblia). Txikia den zerbait, asko ez den zerbait: *Etzazula otoi siega / ene pazientzia, / zeina baitakizu dela / eskas eta gutia* (Etxeberri Ziburukoa); *Ez da gutia Jainkoaren erresumaren galtzea* (Pouvreau); *Izan dezaten laguntza eta erraztasun guti bat* (Martin Harriet); *Ke guti bat baizen ez du uzten* (Gazteluzar); *Hazia ongi ereitea ez da*

*gauza gutia* (Duvoisin); *Hemen, lur guti honetan / dago erregea sarturik* (Mitxelena); *Ez da gauza guti bat baizik behar* (Jauretxe). Izen bezala ere erabiltzen dugu: *Anitz direla deituak, baina gutiak hautatuak* (Axular); *Hortik heldu da hain guti baitira perfektioneko gradu gorara igaten direnak* (Haraneder); *Ea, ez, asko eta gehienak bezala, ezpada gutxiak eta kontatuak bezala bizi behar dut* (Kardaberaz); *Utzi diguten gutxia ere aise zuzen eta hobe dezakeguna* (Mitxelena). Azken urteotan anitz hedatu da *gutxi balitz* esapidea: *Eta hori gutxi balitz, etengabe ibili dira argazkiak atera eta atera* (Zubizarreta); *Eta [...] gutxi balitz, hara non, gainera, Mikhail Semionovitz zuen izena* (Morales); *Eta hori gutxi balitz, zakurraren nagusiek irri egiten zuten nolako beldurra nuen ikusita* (Rey); *Hori gutxi balitz, hona zertara biltzen den D ereduko eskola batean filosofiaren historia* (Joxerra Garzia); *Eta hori gutxi balitz, “tocar las tetas” idatzi zuen* (Saizarbitoria). Horren aldaera da *gutxi bailitzan* esapidea: *Mundu batekoak ez zuen bestean balio, eta hori, gutxi bailitzan, zeinek bere hizkuntza zuen* (Saizarbitoria); *Hori gutxi bailitzan, kaltetuta eta usteltzen hasitako arrain guztia birrindu egiten du irina egiteko* (H. Etxeberria); *Bata gutxi bailitzan, to bestea* (P. Zabala).

**16.3.5f** Batzuetan izenaren testuingurua nolakoa den, zenbakarritzat edo zenbakaiztat har daiteke. Hala, *ikasle gutxi etorri ziren*, badakigu etorri zirenak ez zirela asko. Aldiz, *ikasle gutxi etorri zen baldin badiogu ikasle hitza zenbakaizt bezala ere har dezakegu, ikasle masa gisa edo.*

**16.3.5g** Konparazio egituretan *gutxi* zenbatzaileari maila gradua ere erants diezaiokegu: *Hori oso guti gustatzen zait; Horri arrunt guti gustatzen zait; Hori arras guti gustatzen zait*. Eta gauza bera *gutxi* izen sintagma oso batean agertzen denean: *Arrunt/Oso gauza gutxi gustatzen zaizkit mundu honetan*. Baina ez dugu esango ondoko honen antzekorik: *\*Hori arrunt/oso asko gustatzen zait*.

### 16.3.6. Honenbeste eta kideak

**16.3.6a** Erakusleetatik (§ 15.4) sortutako zenbatzaile hauek izenaren ezkerrean jartzen ditugu arruntean: *Hor haiz gure etxean, honenbertze egun honetan*



(Larzabal); *Horrenbeste arriskuren erdian* (Mitxelena); *Hantxe bai loriatzen ginela gu hainbertze lagunekin* (Larre). Gramatikari batzuek esan ohi dute nolabaiteko gradazioa dagoela eta horrek izenordainen parean joan behar duela (*nik honenbeste*; *zuk horrenbeste*; *hark hainbeste*). Baina hori ez da betetzen tradizioan.

**16.3.6b** *Honenbeste* (*hunenbertze*, *hunenbeste*, *onenbertze*, *onemeste*), Ipar eta Hegoaldean erabilia, nahiz lehenago ageri den Iparraldean XVI. mendean. Zenbatzaileen artean sartu dugu, baina badu batzuetan konparazio kutsua: *Ez dut egiazki honenbertze fede aurkitu Israel guzian* (Larregi); *Zuk honenbeste alegria eman didazu!* (Kardaberaz); *Mende luzeen lasaikeriak honenbeste eginkizun bizkarreratu digun garaian* (Mitxelena); *Nork susmatuko zukeen honenbeste garestituko zela bizitzea?* (Oskillaso).

Askotan zehaztasun gabeko kantitatea adierazteko erabiltzen dugu: *Kontsidera ezazu ez duela honenbertze urte baizen ez zinela munduan* (Pouvreau); *Espainiako gobernuari urtean honenbeste milioi ematen dizkiogu* (Lizardi); *Honenbeste hiztunetatik behera erabiltzen den hizkuntza txikia da* (Mitxelena); *Honenbeste kostako zela, horrenbeste lagun agertuko zirela, honelako edo halako lekutan filmatzekoa zela* (Mitxelena).

Esapide batzuekin: *Ez dago inor ere gure herrian honenbesteko liburua osatzeko gaia utzi duenik* (A. M. Zabala, in MEIG); *Emaiozu honenbertzeko bat edo hainbertzeko bat* (Duvoisin).

**16.3.6c** Zenbaitetan izenaren orde ez erabiltzen da: *Aurten inaute festak / edera eta luze. / [...] Inoiz ez dut ikusi / inon honenbeste* (Etxagarai); *Zugatik eta bakkarrrik zugatik daramat honenbeste* (G. Arrue); *Nola aldatu ote naiz honenbeste?* (J. Zabaleta); *Zenbait estatuk badituzte horretarako programa bereziak (honenbeste ordainduz hilabetero [...]), aurrezki plan [...]* (Pérez Iglesias, Salaburu).

**16.3.6d** *Horrenbeste* (*horrenbertze*, *horreinbertze*, *orremeste*, *urrenbeste*) Axularrek erabiltzen du dagoeneko. Izenekin erabiltzen da: *Etorkizunak ematen dizu horrenbeste beldur?* (Mogel); *Ez dezagun eduki horrenbertze dolu* (Xalbador); *Horrenbeste arriskuren erdian* (Mitxelena). Zehaztasunik gabeko kantitatea adieraziz: *Tratatu nuen zer kondizio zeuden. Horrenbeste diru traspasoan eta holako errenta hileko* (Albeniz). ‘Neurri batean’ adierazi nahi

duela: *Zergatik horrenbeste harrotu zeure burua?* (Mogel); *Ez zekiat zer dela eta luzatzen duen horrenbeste Udaberriak* (Mitxelena). Izenaren orde: *Horrenbeste zuri zor* (Kardaberaz); *Ez nekien horrenbeste, eta barkatu egidazu ofenditu bazaitut* (Mogel).

Ezezko testuinguruetan horrenbeste ere erabiltzen da: *Izango ote dira hirutatik bat? Ez eta horrenbeste ere* (Agirre Asteasukoa). Esapideetan: *Balantzan bezala egon naiz horrenbesterekin utziko dudan edo ez gai hau* (Agirre Asteasukoa); *Horrenbesterekin esan dut ez dudala Oihenart poeta bezala gutxietsi nahi* (Mitxelena); *Zure zerbitzariak egin balute bezala horrenbertzeko itsuskeria* (Duvoisin); *Giza-eredu jatorra dugu [...] horrenbesteko lan ikaragarria egin zuelako* (Mitxelena).

**16.3.6e** *Hainbeste* (hainbertze, hanbeste, hanbertze, harenbertze, arenbeste, arrenbeste, kainbertze, geinbertze...) zenbatzailea ez dute erabiltzen, ez Etxeparek, ez Leizarragak. Hegoaldean Lazarragak erabiltzen du, eta XIX. mendean geroztik aski arrunta da euskalki guztietan.

**16.3.6f** Izen zenbakarriekin doanean, aditzaren komunztadura singularrez nahiz pluralez egiten da (zenbat eta testu berriagoak, joera hau handiagotzen da): *Nola egiten dute hainbertze fraidek?* (Pouvreau); *Aitzitik negar egiten duk/hainbertze mila hobenez* (Gazteluzar); *Hemendik atera zituzten hainbeste argi txuri, gorri, urdin* (Larramendi); *Ez da ez hainbeste mirari / ikusi inoiz lurrean* (Munibe); *Galdu dituzu hainbeste arima* (Agirre Asteasukoa); *Hainbeste lagun galdu zutela* (B. Mogel).

**16.3.6g** Izena zenbakaitza denean, singularrean: *Duzun, beraz, laudorio zuk ere gureganik, / hainbertze on dugunean guk ere zureganik* (Etxeberri Ziburukoak); *Zertako beraz honi hainbertze atsegin eginen diot?* (Baratzart); *Gaztigatu zion Jesusi ez zezala hainbeste neke hartu* (Agirre Asteasukoa); *Hainbertze esne edan balu / zurituko zen gargoitik* (Mattin); *Ispiluak ez zion ematen hainbeste satisfazio* (Urruzuno); *Ze abantaila aurkitu duzu gizona baitan hainbertze merezi duenik?* (Materre).

**16.3.6h** Esapide batzuetan ere ageri da. Hainbesteraino: *Hainbesteraino la-saitua dago mundua, non gauza hauetan behar litzatekeen arreta ipintzen ez*

*den* (Agirre Asteasukoa); *Tinkatzen hainbertzeraino, non Pachecok uste izan baitzuen [...] jaun horrek ito nahi zuela* (J. B. Elizanburu); *Zenbait euskaldun hainbesteraino asaldatzen dituzten esanak* (Mitxelena). Hainbesteraino eta: Ez hari haserretu, ez duk hainbesteraino eta (Elexpuru). Beste hainbeste: Pozik egongo dira Luis Mariano bere guztizkotzat daukatenak; Garat-zaleak, beharbada, ez beste hainbeste (Mitxelena); *Hamar bat metro luze, bertze hainbertze zabal* (J. Etxepare); *Beste izaki bizi eta handi horrezaz zergatik ez duzu beste hainbeste pentsatu behar?* (Villasante).

### 16.3.7. Franko

**16.3.7a** Zenbatzaile hau (*frango, prango, franku* gisa ere ageri da) euskalki eta garai guztietan ageri da, nahiz bizkaieraz ez duen lekukotasun sobera. *Anitz esan nahi du, nahiko*. Eta dagokion sintagman hasieran nahiz amaieran agertzen da: *Bazuen oinen azpian ur franko* (Axular); *Franko denbora ez ontsa egonik* (Etxebarne).

**16.3.7b** Batzuetan aurreko sintagma determinatua dela ageri da: *Eta nola zabal baitira eta laguna ere franko baitute, plazer zaie [...] bide zabal hartan ibiltzea* (Axular); *Bazterra franko badiat kurriturik, ikusirik ere bai mahai ederra franko* (J. Etxepare); *Inguru hauetako artzain gehienak harat biltzen dira. Artzain ez dena franko ere bai* (Xalbador). Horietan aurreko sintagma singularrean doa, baina badira adibideak pluralean ere: *Munduak hala nahi duelako, itsu-itsuan erokeriak franko egiten dira* (Gerriko); *Aizkolari bikainak franko ezagutu ditut* (Insausti).

**16.3.7c** Aurretik partitiboa duela: *Bazuen mutilik franko laguntzaile* (Etxaide); *Bada horrelakorik franko literaturan* (Mitxelena); *Abiatu dugun debozioneaz gainera [...] badu, Andres izenaren errima berezia aprobe txatuz, jolas egiteko ofizioaren ondoriotan sortutakorik franko* (P. Zabala); *Erresumak ehunka gizon galdu zituen egun haietan, hilik franko, preso ez guti* (Epaltza).

**16.3.7d** Izena isildua du maiz: *Baina aberatsei, emanak emanik ere, franko gelditu baitzitzaien* (Axular); *Hizkuntza erdara frankok jakinen mintzatzen, /*

*euskaraz jakin gabe kasik irakurtzen* (J. P. Arbelbide); *Franko eta frankok ipurtargi bat gauaz nonbait ikustea aski dutela* (Zerbitzari); *Pentsatzeko da, frankorenak irakurri ondoren, ez dela euskara idatzian [...] etendurarik izan egungo eguneraino* (Mitxelena).

**16.3.7e** Adberbio gisa, aditzarekin: *Franko ibili da dirua gaurko idi proban* (T. Etxebarria); *Eta bekatua hain franko dabil giristinoen artean* (Duhalde); *Ordutik ona franko aldatu dira gauzak* (Mitxelena); *Usu eta franko egin ohi du izotza terreno eta paraje horretan* (P. Zabala); *Hainbeste aldiz hartua nuen bidea, ene ustez begiak hetsirik ere ezagutzen nuena, eta nola ez aitor, franko gustatzen zitzaidana* (Landart).

**16.3.7f** Adberbioak eta adjektiboak graduatzeko ere balio du: *Gaineratikoak oro urrun arazi ditu jendarme kapitainak, franko idorki* (Hiriart-Urruti); *Franko ongi dabilela oraino, adinarendako* (Barbier); *Han hil zen hogeita zenbait urteren buruan, oraino franko gazte haatik* (Zerbitzari); *Franko abila dela / letxero kontuan* (Mattin); *Franko gaizki bizi direnak uzten ditu luzaro* (Lizarraga); *Eta franko gutiago uste ditugunak bide doaz zerura eta franko uste ez ditugunak infernura akaso, nork daki?* (Lizarraga).

### 16.3.8. Zenbat, zenbanahi

**16.3.8a** *Zenbat* galdetzailea eta *zenbanahi* (*zenbat-nahi*) ere sail honetan sartze-koak dira. *Zenbat* galdetzaileak (*zeinbat*, *zeinbet*, *zemet*, *zonbat* eta beste aldaera batzuk erakusten ditu tradizioan) kopuruaz galdetzen du: *Zenbat euskaldun bizi da Iruñean?*; *Zenbat aldiz nahi ukan ditut hire haurrak [...] eta ez baitituzue nahi ukan?* (Leizarraga); *Jaungoikoak daki zenbat dirutan erosi duten hau* (Agirre).

*Harridura* esaldietan (eta kidekoetan) kopuruaren handia adierazten du: *Zenbat kalte dakarren arinkeriak!*; *Zenbat zaren hobea* (B. Mogel); *Zenbat lan ez dugu egiteko!* (Duvoisin); *Kargu ederrik munduan bada, zenbat ederra zuena!* (Xalbador). Adjektiboekin nahiz adberbioekin: *So egizu zure miseria, zure kondizioa, zure izatea zenbat den flako, ez deus, miserable* (Tartas); *Ikusiko dun zenbat naizen abila* (J. B. Elizanburu).

Batzuetan -ago atzizkiarekin erabiltzen da, ezezko perpausetan: *Zenbat ez genezake gehiago kontsola [...] entzuteak?* (Etxeberri Sarakoa); *Zenbat gizonago ez gintezke denak, gure ele onez bederen gorets bagenitza aitama familia-ko gaixoak* (J. Etxepare); *Zenbat bider izan ez duzu damutu beharra?* (G. Arrue); *Zenbaten bihotzak ez zituen hitz batez argitu eta sosegatu?* (Laphitz).

Tradizioan ikusten da izenaren balioa ere hartu duela kasu batzuetan: *Dituen diruen zenbat, ez naiz heldu jakitera* (T. Etxebarria); *Hona Jainkoa handi dela, gure jakiteari garai; haren urteek zenbatik ez dute* (Duvoisin); *Gudari zenbat eta beste zehaztasunak jakiteko* (J. Zinkunegi).

Esamolde batzuk osatzen ditugu galdetzaile honekin. Erabilienak: zenbat ere (*Nik, zenbat ere urratua nintzen, une horretantxe biratu nuen burua*, Epaltza), zenbat ere... -ago (*Ur hotzez busti ondoren, zenbat ere sendoago eta freskoago [...] hainbat biziagoa*, Morales), zenbat eta... -ago (*Eta hori, zenbat eta maizago ordena horretan berean ikusi baititu hainbat eta tinkoago*, Xarriton), zenbat... hainbat (*Zenbat eta gehiago ugaldtu, hainbat eta gehiago galtzen dute balioa*, Iñurrieta), eta zenbateraino (*Hemen aitortuko ez banu zenbateraino lagundu ninduten*, Mitxelena).

**16.3.8b** Zenbanahi zenbatzaileak nahi adina, asko, adierazten du: *Zenbanahi jatera eman dezaten, ezin ase daiteke behin ere?* (Duvoisin); *Zenbanahi argi eta lili emanik ere inguruan, aise ohartuko dira* (Lafitte).

Adjektibo nahiz adberbioekin erabiltzen da: *Zenbanahi urrun marinela bere begiak heda ditzan, beti urak ditu ikusten* (J. P. Arbelbide); *Guk ere jasan nola behar dugun, zenbanahi dorpea izanikan ere, Jainkoak igortzen digun gurutztea* (Barbier); *Zenbanahi maltzur eta faltsu izanik [...]* (Mirande).

### 16.3.9. Beste zenbatzaile batzuk

**16.3.9a** Hemen sartzen ditugu *pixka bat, apur(txo) bat, xorta bat, puxka bat, pittin bat, makina bat, poxi bat, pizar (bat), andana bat, dexente, aski, ugari, nahiko...*

Egitura konplexua duten zenbatzaileetan, *ogi pixka bat* eta antzeko sintagmetan, *pixka bat* oso-osoan da zenbatzailea, eta ez *bat* zatia bakarrik. Jakina denez gero, *ogi pixka bat* esaten dugunaren ondoan ez da *ogi pixka bi* edo holarikorik entzungo. Horrexegatik sartu ditugu sail honetan: *Erran zioten beraz, lehenbiziko solasak egin ondoan, behar zutela jan ogi pixka bat* (Joanategi); *Erran dut: apur bat lo eginen duk, apur bat kuluskan egonen haiz, apur bat bilduko dituk eskuak lo egiteko* (Duvoisin); *Nahi duzu bertze xorta bat?* (Larzabal); *Orain hasi naiz arrain pittin bat jaten* (Soroa); *Kontrabando poxi bat ere egiten zuten* (J. B. Etxepare); *Diru poxi batzuk ere bai bitartekoei atxikitze-ko eman [...]* (J. Etxepare); *Ala sobera zaizkizu zure alaba eta emaztearentzat egiten dituzun diru xahutze pizar horiek?* (Larzabal); *Sos pizar batzuk eskuratzten badituzte, hainbat hobe [...]* (J. A. Irigarai).

**16.3.9b** Kontuan hartu behar da zenbatzaile hauetako batzuk testuinguru zehatz batzuetan bakarrik erabil daitezkeela, enfatikoetan edo. Ezin da esan, huts-hutsean adibidez: *\*Edan dugu makina bat esne*.

Ohart gaitzen ere zenbatzaile batzuk izenaren ezkerrean paratzen ditugula (*makina bat jende etorri zen*), eta beste zenbait eskuineko aldean daudela. Bestalde, hauetako batzuek (*makina bat, nahikoa ugari, etab.*) aniztasuna adierazten dute, eta horrenbestez, aditzaren komunztadurari dagokionez, pluralizat har daitezke, eta hala egiten dute komunztadura aniztetan: *Makina bat kexu bildu izan ditu* (P. Zabala). Baina absolutiboan singularrez egitea ere aski arrunta da: *Makina bat euskaldun oroituko da bere gaztetan [...]* (Mitxelena). Ergatiboan pluralez, jakina: *[...] non makina bat lagunek gorriak ikusi bailituzkete [...]* (Morales).

## 16.4. Zenbatzaile orokorrak

Zenbatzaile orokorren artean sartzen ditugu *dena*, *guzti* eta *oro*. Aski zenbatzaile bereziak dira formari dagokionez. *Oro* zenbatzailea kendurik, *dena* eta *guzti* zenbatzaile orokorrek adjektibo itxura dute, mugatzailea ere behar baitute. Zenbatzaile hauek orokortasuna, osotasuna, hartzen dute kontuan.

Ez da horrelakorik gertatzen gainerako zenbatzaile zehaztuen eta zehaztugabeen kasuan. Horregatik, beharbada, eta nola askotan bakarrik erabiltzen ditugun, izenordaintzat ere hartu izan dira zenbaitetan (ikus, adibidez, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* eta OEH). *Oro* Iparraldeko euskalkietan erabili izan da tradizioan, baina gaur egungo literaturan aski hedatua da. *Dena*, singularrean, bizigabeekin erabiltzen da, eta *denak* plurala bizidun nahiz bizigabeekin<sup>3</sup>.

### 16.4.1. *Dena*

**16.4.1a** *Dena*, berez, erlatiboazko esaldi batean oinarritzen da (*goizean etorri dena*), baina XVIII. mendean Hegoaldean, eta XIX. mendean Iparraldean, autonomia hartzen hasi zen eta gaur egun guztiz iharturik gelditu dela esan daiteke. Ikusten denez, mugatua ibiltzen dugu beti. Plurala ere hartzen du (*denak*), baina orduan erlatiboaren itxura galtzen du (*direnak* behar luke). Lehenaldian ere *dena* erabiltzen dugu, ez *zena*, berez eskatuko lukeen gisan: *dena badaki*, baina *dena bazekien*, eta ez *\*zena bazekien*. Aldaketa hori (erlatiboazko perpausetik zenbatzailera pasatzea), zernahi gisaz, badirudi hirugarren pertsonarekin bakarrik gertatu dela, ez baitugu daturik baieztatzeko, batzuek egin duten gisan, beste pertsonekin ere holako zerbait gertatu dela.

Indarra emateko *den-dena* ageri da anitzetan. Postposizioekin morfologia mugatua erakusten du, singularra eta plurala bereiziz (*denarekin / denekin*, adibidez). Instrumentalean bat egiten dute: *denetaz*.

**16.4.1b** Izenordain erabilera du anitzetan: *Ehun milioi urtetik urtera itsasotik ur tanta bat aterako balitz, eta dena, itsaso guzia horrela agortu behar balitz* (Kardaberaz); *Nola daiteke, buru puska duelarik, gizon batek hutsa baitu dena?* (J. Etxepare); *Oso zait atsegin hango giroa, hango... dena* (Mitxelena); *Zaude pixka bat, gizona, den-dena esango dizut eta* (Otxolua).

---

<sup>3</sup> De Rijckek dio (2008: 223) *dena* eta *denak* bat datozela, banaketari dagokionez, ingelesezko *everything* (= *dena*) eta *everybody* (= *denak*) hitzekin.



**16.4.1c** Aposizioan, izen sintagmaren postposizio marka bera duela, eta arruntean izen sintagmaren ondotik: *Gure Jainkoak ditu bai segur laguntzen / hartzen dituzten sailen denen bururatzen* (Xalbador); *Hiri hura dena ibili eta inguratu ondoren* (Loramendi); *Sail honi denari azken hitz bat eman behar* (Xalbador); *Anitzek dute beren gorputza / zauri odolez dena estali* (M. Etxamendi); *Beretuen kasik dena Espainia* (Hiribarren). Erakusle baten aposizioan: *Hori dena badakizu buruz eta zehatz* (Kirikiño); *Egia da, noski, hori dena* (Mitxelena); *Hori buhamen lana da dena* (Larzabal); *Hauek denak behaldean zeuden* (Agirre); *Errexinolarena baitzen zure boza; / adimendua ere zenuen zorrotza, / horien denen artean urrezko bihotza* (Xalbador). Kasuren batean sintagmarekin komunztadura egin gabe: *Mutilak ere maitasuna azaldu nahi dio, gauza horiek denekin* (M. Atxaga). Izenordainekin: *Buruza-gia galdu duela Frantziak, / bertze Jabe bat baitu gu denen bihiak* (Xalbador); Beste-ren ondotik: *Beste denak baino bertsolari azkar eta zorrotzagoa dela* (Etxegarai); *Bere euskalkiaz beste denak izutu egiten du beharbada euskal irakurlea* (Mitxelena). Erlatiboaren ondoren: *Eman zizkioten behar ziren denak* (Izeta); *Gizonak egiten duten dena jolasa besterik ez da* (J. A. Irazusta).

**16.4.1d** xx. mendea baino lehenagoko idazleen artean, eta xx. mendean ere badira batzuk, komunztadura egiten duten adibideak aurkitzen dira, ihartu ga-beak: *Deus ere utzi gabe, direnak erraiten ditu* (Duvoisin); *Etxe gehienak elkarren ondoan dituzte, direnak eliza ttipi baten inguruan kurubilkatuak* (J. Etxepare); *Ele guti eta direnak on* (Iturbide). Lehenaldian ere bai: *Diru txarretan zenbat eman zuen berriz, / Jaungoikoak bakarrik zirenak dakizki* (Arrese Beitia); *Hain ongi egin dute zirenak egonik / ez zeuzkan merkatuak direnak eginik* (Hiribarren).

Komunztadura gabe XIX. mendetik aurrera hasten da dokumentatzen Iparraldean, eta Hegoaldean indarra hartzen du mende horren erdialdetik aitzina: *Denek ezagutzen dute ospitale hori* (J. B. Etxepare); *Orduan denek, goikoek eta behekoek, zeuzkaten sineskeria horiek* (Villasante); *Hiru edo lau aldiz aritu zen jokoan eta denetan irabazi* (Izeta). Hori da egungo joera ia bakarra.

Esanahi generikoa izan dezake, beste toki batzuetan singularrean erabiltzen dena: *Nire kasua zer den / nahi duenak jakin, / esplikatu ditut / denak has-*



*tetik fin* (Mattin); *Eta mozkinak oro bere artaldearen handitzeko, edertzeko xahutzen zituen. Denak ardientzat beti* (J. B. Etxepare).

**16.4.1e** Lehen eta bigarren pertsonen erreferentzia izaten ahal du. Erabilera orokorra da hori Iparraldeko testuetan, nahiko maiz ageri da gipuzkerazkoe-tan, eta gutxiago bizkaieraz: *Uste duk denak garela hire antzekoak?* (Apaola-za); *Oso triste genden denak* (Txirrita); *Kasinoan nola ibiltzen naizen / denek duzue aditu* (Mattin); *Denek dakigun bezala Azkue iritzi horren etsaia izan zen* (Mitxelena).

**16.4.1f** *Denok* aldaera ere batez ere xx. mendean hedatu zen, 1., 2. eta 3. per-tsonekin: *Ixo, ixo! Ez asi denok batera hitz egiten!* (Etxaniz); *Irakur ezazu denok entzuteko moduan* (Berrondo); *Adierazi duela zein den euskal eredia, euskaldunik gehienok, denok ez baldin bada, maite dugun ametsa* (Mitxele-na); *Bakarrik ezin dezaketena, gizonek uste dute denon artean lortu al izango dutela* (Villasante).

**16.4.1g** Esapide batzuetan ere ageri da: *Dena dela, oro ahantziak ditut orain* (Zerbitzari); *Dena dela, nabarmendu beharra dago bazekiela hori guztia* (Morales); *Dena den, landatu dute arbola* (Hiriart-Urruti); *Dena den, nik ulertzen dut idazleek independentzia nahi izatea* (Urkiza); *Horratx erromes, behartsu, edo dena delako bagamunduen aspaldiko martingala* (Perurena); *Denetara 545 gene bakarrik aurkitu zituzten* (Salaburu); *Esan gabe doa, de-netariko erantzunak ateratzen zizkidala* (P. Zabala).

## 16.4.2. Guzti

**16.4.2a** Zenbatzaile orokor gisa erabiltzen dugun *guzti* (*guzi*, aldaera nagusia, Nafarroa-Iparraldean) hitzak osotasuna adierazten du. Hain zuzen ere *oso* adjektiboarekin truka daiteke: *egun guztia / egun osoa*; *Euskal Herri guztia / Euskal Herri osoa*; *mundu guztia / mundu osoa* eta abar. Nolabait ere esateko, unibertsaltasuna adierazten du: *Etxe guztiak erre ziren*. Mugatzailea behar du, adibideetan ikusten denez.

Neurri batean bederen, adjektibotzat ere har daiteke, baina erabilerak baditu muga semantiko argiak: unibertsaltasuna adierazten duenez, ezin dugu unibertsaltasun hori mugatu, ezin dugu esan zerbait unibertsala edo mugatua dela, aldi berean. Horregatik, *etxe zuri guztiak* baldin badiogu, zuriak diren etxe guztiak, ezaugarri hori duten etxe guztiak, besarkatzen ari gara, baina ezin esan, hori hala bada, *\*bost etxe zuri guztiak* edo holako zerbait, *bost* horrek mugatu egiten baitu berez unibertsala den *guzti* hori, *guztik* nahitaez multzo osoa hartzen baitu.

Garai eta euskalki guztietan dokumentatzen da: *Eliza katoliko guzia* (Hiriart-Urruti); *Munduko pena guztiak* (Lazarraga); *Akabatuko zirela geroko gero guztiak* (Axular).

**16.4.2b** Izenordain gisa: *Iragaita eta hiltzea guztia da bat* (Axular); *Gainetarako guztia* (Mitxelena); *Guzia ahalketua, bazterrerat egin nuen* (Andre-dena); *Izutu zen zen guzia* (Mendiburu). Singularrean izanik, plural zentzua du batzuetan: *Madarikatua da zurean urkatua den guzia* (Leizarraga); *Ediren nazan guztiak hilen nau* (Axular). Batzuetan artikulua gabe erabili izan da tradizioan: *Jainko erraiten eta adoratzeko den guziren kontra* (Leizarraga).

Aposizioan, erakuslearen ondotik: *Grazia hauek guztiak egiten zaizkigu Baptismoaz* (Leizarraga); *Zer egin da hartaz guziaz?* (Txillardegia); *Ilkintza izugarri honek guztiak harri eginik utzi zituen* (Lardizabal); *Ez diot hau guztiau norberaren badaezpadako umiltasuna ager-nahian* (Mitxelena).

**16.4.2c** Erakuslea absolutibo edo ergatiboan dela eta *guzti* beste kasu marka batekin: *Hauek guztiez Herodesek ez du batere antsia* (Etxeberri Ziburukoa); *Hobe nuke hemengo lanok guziekin etxe hau uzten banu* (Izeta); *Hiri hura zen inguru haiek guzietako bigarrena* (Larregi). Aurretik izen sintagma mugatua duela: *Basoak guztiak, zoluak guztiak, etxeak guztiak, palazioak guztiak, herriak guztiak eta erreinuak guztiak bereak ditu Jaungoikoak* (Frai Bartolome).

**16.4.2d** Esapideekin: *Ahoa doi irekitzen duzu, eta guztiarekin ere arnegu eta juramentu egiten ari zara* (Axular); *Guztiarekin ere, eskertxar alaenak gu, amorrazioz, eta morboz, dakuskigu irudiok* (J. A. Irigarai); *Guztiaz ere*, *Artza*

*nork hil zuen ezagungarri txiki bat gelditu zen Zaldibian (Iztueta); Guztiaz ere nahiago zuen jabeak kalteak pagatzea, ezen ez gelditu otsoa gabe (Lertxundi); Bere semea guztiz gozoa, eta guztia deseagarria (Uriarte); Baina, erran bezala, ez guztiz (Irigoien); Batzuek nahi dute, bere gazte denboran bizi bere gogara, anitz bekatu eta desordenu, guztiz ere emazteekin egiten dutela (Axular); Hala eta guztiz ere, egun batez ni ere errege izan nintzen (Zubizarreta).*

### 16.4.3. Oro

**16.4.3a** Dagokion izen sintagma aipatzen duenaren osotasuna adierazten du. Tradizio handia du testu baxenabartar eta zuberotarretan, eta XIX. mendetik aurrera orokorra da Iparralde osoan. Arruntean zehaztugabe ageri da.

**16.4.3b** Izenordain gisa (edo dagokion izen sintagma isildurik duela) erabiltzen da sarritan: *Jakin dezaten orok ez dela Gobernamentua seroren ez fraideen etsai* (Hiriart-Urruti). Hor ikusten denez, *orok* ergatiboa da, autoreren batek absolutibo plural gisa erabili izan badu ere. *Oro* da absolutibo forma bakarra. Adibide gehiago: *Txerreroa dabil ororen aitzinean* (J. Etxepare); *Baina aulkia ororena zen, ez da?* (Mirande); *Baionako ospitalean orok dakiten bihotzarekin eraman dituen adin handiko 25 urteak* (Larre).

Erlatibozko perpausa izan dezake aurretik: *Sukaldean zeuden orok [...] erne eta adimin irauñ zuten* (Etxaide); *Axolazko den oro* (Mitxelena); *Gertatzen den oro bere koadernoan idazten duen mutil estatubatuarra* (Elizondo).

Mugatu plurala: *Oroen bularra* (Lizardi); *Baziren oroendako etxangiak* (Garate); *Agur Maria erran dezagun / ororek elkarrekilan* (Casenave-Harigile).

Izen sintagma baten ondotik: *Berrehun gudari oro sumin* (Lauaxeta); *Gizon oro errege bat da* (Payá).

*-ko* atzizkiaren eskuinean: *Besterik da uste izatea jaso itxurako oro poesia dela* (Egaña); *Ohitu nintzen [...] hark egin edo esandako oro beltz ikustera* (Lertxundi).

**16.4.3c** Adjektibo gisa ere erabiltzen da. Izen sintagma duela aurrean, kasu atzizkiak harturik: *Ikusiren du hura begi orok* (Leizarraga); *Bazter ororen behatzaile zara* (Duvoisin); *Begiak alde orotan ikerka* (J. Etxepare); *Dauzka-gun doai oro dituzu gu denon mende ezarri* (Xalbador). Erakusle baten ondotik: *Zertako behar dizkiogu [...] diru horiek oro eman?* (Lafitte); *Horietan orotan, bakoitzak egin beharko bere hautua goiz edo berandu* (Larre); *Zure puska horiekin ororekin* (Barbier); *Xehetasun horiek oro, orratzetik hari, Matiassek zekizkien* (Landart). Aurreko sintagmak plural marka duela: *Neure bekatuez oroz dudan barkamendua* (Etxepare); *Zure haurrak oro* (Tartas); *Haiek eta bertzeak oro zahartu ondoan* (Hiriart-Urruti); *Lurreko gauzak oro* (Mitxelena); *Emakumeak oro Kaiserren bezero* (Olarra). Aurreko sintagma singularrean mugatua: *Behar du hautatu urtean orotan egun bat* (Mercy); *Hark agindurik bere gogoa oro ager ziezaion* (Mirande); *Herriak oro jakin beza* (Casenave-Harigile); *Pitagoritarrek mundua oro kopuru eta kidetasun dela uste zuten* (Gaztelu).

**16.4.3d** Adberbio gisa: *Herria oro nahasi zen* (Martin Harriet); *Eta lurra izugarri oro ikaraturik* (Etxepare); *Nagusi gaztea hil zenez gero, oro aldatu ziren Dorronsoroko gorabeherak* (Barrenso).

**16.4.3e** Esapideetan: *Lau zihoazen orotara auto haren barruan* (Cano); *Denak ezkonduak ziren eta orotara hogeita sei lehengusu baginen* (Landart); *Oro har ele guti erabili genuen egun hartan* (Aintziart); *Boterea zer da oro har?* (Xarriton); *Baina niri, ororen buruan, Amandinen presentzia aski zitzaidan, nahikoa* (Landart); *Entzuten segitzen da oraindik, ororen buruan, bere tanta aleak kazkabarkatuz...* (Juan Garzia); *Ororen gainetik, ordea, segurtasuna balioesten nuen nik* (Saizarbitoria); *Oroz gain, Espainia arima bat da* (Azurmendi); *Hirutasun goren, oroz gaineko eta gurgarriaren festaburu benegararrian* (J. M. Lekuona); *Oroz gainetik, ez nituen aitamak negarrez ikusi nahi* (Aintziart).

**16.4.3f** Laburtuz, hortaz, hauek dira *oro*-ren erabilera nagusiak: 1. Izen baten ondotik zuzenean, kasu markak eta postposizioak mugagabeen hartzen dituela eta komunztadura ere gehienetan singularrean egiten duela: *Gazte oro*

*larunbatero ateratzen da; Gazte orok uste du...; Gazte ororekin joaten da.* 2. Artikulu plurala hartzen duen izen sintagma baten eskuinean: *Gazteak oro larunbatero ateratzen dira; Gazteek oro uste dute...* 3. Erakuslearen eskuinean: *(Gazte) horiek oro etorri dira; (Gazte) horiek oro uste dute...* 4. Izenordain gisan: *Dantzara joan ziren orok ikusi zuten; Hemen orok dakite hori ez dela hola gertatu.* 5. Adberbio gisan: *Gazteak, hori gertatu denetik oro aldatu dira.*



## 17. Determinatzaileak (III): zehaztugabea

---

17.1. Zer diren determinatzaileak

17.2. Determinatzaile zehaztugabeen aldaerak

---

### 17.1. Zer diren determinatzaileak

**17.1a** Orain arte ikusi ditugun determinatzaileak sail nagusitan banatu ditugu: mugatzaileak (artikulua eta erakusleak), partitiboa eta zenbatzaile guztiak (zehaztuak, zehaztugabeak eta orokorrak). EGLUn beste multzo bat ere bereizten genuen: Nolakotzaileak. Horiek determinatzaile zehaztugabeak deitzen ditugu hemen.

**17.1b** Determinatzaile hauek izen diferenteak hartu izan dituzte gramatikariaren artean: determinantea, predeterminantea, prepositiboak eta abar. Determinatzaile hauek izenaren ezkerrean agertzen dira beti eta ez dute mugatzailerik onartzen. Izenik ez dutenean izenordain gisa ageri dira (ikus § 13.10, § 13.10.4, § 13.10.5, § 13.10.7.3, § 13.10.7.4): *zein*, *zeinahi*, *edozein*, *zer*, *zernahi*, *edozer*. Hemen determinatzaile direneko kasuak bakarrik ikusiko ditugu.

### 17.2. Determinatzaile zehaztugabeen aldaerak

**17.2a** Aski erabilia da *zein* hizkera eta euskalki guztietan: *Zein ur, geldia ala lasterra?* (Axular); *Zein baserritan ikasi ote du* (Mitxelena). Izena, arruntean,

mugatzailerik gabe doa (*tribu, baserri...*), baina mugatzailearekin ere ikusiko dugu kasu bakan batzuetan: *Zein tribu, familia edo etxekoa zen Dabid?* (Ubi-llós); *Otoi egin behar ote zuen? Zein jainkoari, ordea?* (Mirande); *Irudi bat ikustean, zein pintzel edo kirtenez pintatua izan den jakitea* (Villasante); *Neuk ere ez dakit zein probintzian* (F. Bilbao). Gaurko estandar zainduan, hala ere, mugagabea da nagusi eta horren erabilera koherenteago dirudi determinatzaile zehaztugabe hauen kasuan.

**17.2b** *Zeinahi* gehiago dokumentatzen da ekialdean. Gero hedatu da gainerako euskalkietara: *Gogoz irakurriko ditu zeinahi euskaldunek* (Mitxelena); *Zeinahi lekutan salatariak baziren* (Mirande); *Jar daitezke zeinahi mirarien pareko* (Hiribarren). Kasu gutxi batzuetan izenaren ondotik: *Establimendu zeinahi / beti dator berant eta dirau guti* (Goihetxe). Adjektiboarekin: *Jakin ezazu, bada, zeinahi handi eta handiago iduri dakizun bekatua, ez zarela oraino nihondik hurbiltzen ezagutzera berenez zer den haren belztasuna* (Duvoisin).

**17.2c** *Edozein* izenaren ezkerrean erabiltzen dugu arruntean: *Edozein gizon erbestekori* (Iztueta); *Edozein hizkuntzaren dialektoak bezala* (Mitxelena). Batzuetan izenaren ondotik ere ikusiko dugu tradizioko testuetan: *Urrinari gizonki edozein jarria zaioke zortzi egunik barne* (J. Etxepare); *Bazter edozeinetan anitzak bizitzen / larrua erdiskaxe dutela estaltzen* (Hiribarren).

**17.2d** *Zer* (edo *ze*, banaketa ez da argia batzuetan, ikus OEH) izenaren aurretik, gehien-gehienetan, eta mugatzailerik gabe doa. Hala ere, badira adibideak garai guztietan, eta euskalki guztietan, izen mugatzailedunarekin: *Ezen bada-kizu zer manamenduak eman dizkizuegun Jesus Jaunaren partez* (Leizarraga); *Zer igaroko den eta zer gauzak ikusiko diren [...]* (Kardaberaz); *Zer erantzuna hartu dudala uste duzue?* (F. Bilbao). Determinatzaile honek bi aldaera ditu, *zer* eta *ze*, esan bezala. Bestetik, erdialdeko euskalkietan maizago erabiltzen da *zein*. Azkenik, *zer* + IS mugatua dugunean (azkeneko adibideetan, lekuko), badirudi hor ‘nolako’ren parekoa dela *zer* hori, esanahiaren aldetik.

**17.2e** *Zernahi* eta *edozer* maizago ageri dira izenik gabe (izenarekin *edozein* erabiltzea, *edozer* horren tokian, arrunta da). Baina, bestetik, *edozer gauza* asko erabiltzen da.



## 18. Egiturazko kasuak

---

18.1. Zer diren egiturazko kasuak

18.2. **Absolutiboa**; 18.2.1. Funtzioa eta kasu marka; 18.2.2. Absolutiboaren forma; 18.2.3. Absolutiboaren erabilera; 18.2.4. Absolutiboa eta partitiboa; 18.2.5. Absolutiboa eta genitiboa

18.3. **Ergatiboa**; 18.3.1. Funtzioa eta kasu marka; 18.3.2. Erabilera; 18.3.3. Ergatiboaren hausturaz; 18.3.4. Egitura ergatiboak eta pasiboak

18.4. **Datiboa**; 18.4.1. Kasu marka; 18.4.2. Helburu eta onuradunak. Osagarri bikoitzeko egiturak; 18.4.3. Esperimentatzaileak; 18.4.4. Datibo hunkituak eta jabe datiboak; 18.4.5. Datiboaren eta adlatibo/ablatiboaren arteko harremanez; 18.4.6. Marinelei abisua: *izenondoko datiboak*; 18.4.7. Datiboa hautatzen duten aditzek besteko kategoriak: postposizioak adibide

18.5. **Partitiboa**; 18.5.1. Zer den partitiboa; 18.5.2. Erabilera

18.6. **Genitiboa (-en)**; 18.6.1. Forma eta funtzioa; 18.6.2. Erabilera

---

### 18.1. Zer diren egiturazko kasuak

**18.1a** Egiturazko kasuak edo *kasu gramatikalak*, aditzari dagokionez, honako hauek dira: absolutiboa, ergatiboa eta datiboa. Horrelakoei orain arte *nor-nori-nork* motako aditzak deitu diegu euskaraz. Baina gramatika honetan ez ditugu *nork*, *nori* eta gainerako deiturak erabiliko, kasuez ari garela, gure lehenagoko tradizioetik aldenduz. Deitura hauek erabilgarriak badira ere, ez dute inongo oihartzunik euskararen gainekoa ez den gramatika batetik

kanpo, eta nazioarteko deiturak lehenetsiko ditugu printzipioz, egokiagoak ere direlakoan.

Zergatik deitzen ditugu *gramatikal* kasu horiek? (ikus 1. kapitulua) Gramatikalak direla diogu kasu horiek hartzen dituzten sintagmak zuzenean islatzen direlako aditzaren morfologian: perpausean ageri diren aditzaren argumentuak —*nork*, *zer* edo *nori* erantzuten badiote—, nolabait esateko, bildurik ageri dira aditzean. Komunztadura deitzen diogu horri. Horrela, *Gu etorri gara* esaten badugu, *gu* hori *gara* adizkiaren lehenbiziko letran islatzen da: G. Berdin da oraina nahiz iragana izan: *gara* / *ginen*. Noski, *gu* izan beharrean *zu* baldin bada argumentua, aditzaren morfologiak ederki biltzen du ezaugarri hori: Zu etorri zara edo Zu etorri zinen. Horiek absolutiboari dagokionez.

Ergatiboak ere berdin uzten ditu bere markak aditzean: *Nik egin dut* perpausean T izango litzateke ergatibo horren marka, lehen pertsona singularrari dagokiona. Baina pertsona aldatuz gero, aditzaren morfologia ere aldatzen da: *Zuk egin duzu* perpausean ZU da ergatibo marka. Eta ber gauza gainerakoekin ere: Zuek egin duzue; Haiek egin dute; Zuk gu aurkitu gaituzu eta abar.

Datiboak ere uzten du bere marka: *Opari bat egin diogu Mireni*. Kasu horretan O litzateke datiboaren marka. Pertsona aldatuz gero, marka egokitu behar dugu: *Opari bat egin didate niri*.

Eta marka horiek adizki laguntzailean eta sintetikoetan ere ikusten dira: (*zuk* – *ni*) *nakarzu*; (*nik* – *zu*) *zakartzat* eta abar.

**18.1b** Aditzak “markatzen” dituen egiturazko kasu horietaz gain, izenak ere badu egiturazko kasu bat, *-en* genitiboa. Horrela, *Irakasleak kritika egin du* esaten badugu, badakigu *irakasleak* sintagma aditzaren argumentua dela. Baina horren ordez *Irakaslearen kritika ez dut gogoko izan* badiogu, badakigu *kritika* izen horrek osagarri bat ere eskatzen duela (*irakaslearen*), eta interpretazio batean bederen, hori ere ‘irakasleak egin duen kritika’ dela (§ 23.3.2).

**18.1c** Aditzaren komunztadura sistematikoa da, orainaldiko formetan gutxienez, baina ez da beti modu berean gertatzen, batzuetan hautsia gelditzen baita, iraganeko aldietan: (*zuk ni*) *ikusi nauzu* / *ikusi ninduzun*. Lehen pertsona abso-

lutiboari N dagokio, gorago esan dugun gisan. Baina *nik ikusi dut / nik ikusi nuen* formetan ez da errespetatzen hori, marka aditzaren aldiarekin batera aldatu baita: *ikusi dut* (*t = ni* ergatiboari dagokio) eta *nuen* (*n = ni* ergatiboari dagokio). Horregatik esaten dugu iraganean komunztadurak ez duela eredu orokorra ongi segitzen eta beste bat sortzen duela ergatiboaren *t* morfema aldatu eta *n* morfema sortuz.

**18.1d** Euskarak ergatiboa duenez, hizkuntza ergatiboa dela esaten dugu. Hizkuntza ergatibo guztiek ez dituzte ezaugarri berak erakusten. De Rijkek (2008: 197) euskal ergatibitatearen zenbait ezaugarri aipatzen ditu: esaterako, ergatiboa —aditzak ergatibo kasua hartuko duen argumentua eskatzen duenean— izenki guztiek hartzen dute, oso sistematikoa da hori. Beste zenbait hizkuntzetan ez da hori hola gertatzen: Australiako hizkuntzetan eta papuetan modu desberdinean jokatzeko dute izenek eta izenordainek, adibidez, kontu honi dagokionez. Bestetik, euskaraz ergatibitatea perpaus nagusian eta mendekoetan ere atxikitzen da, Yucatan maia hizkuntzetan ez bezala, eta ez da aldatzen aspektu edo aldien arabera (georgieraz, hindiz edo tibeteraz gertatzen den moduan). Beraz, euskara uniformeagoa da ergatibitatearen ezarpen horretan, orainaldi-iraganean batzuetan ergatibitatea hausten bada ere (ikus “ergatiboaren hausturaz” § 18.3.3).

**18.1e** Atal honetan behin eta berriz aipatuko dira *aditz iragankor* edo *trantsitibo* eta *aditz iragangaitz* edo *intrantsitibo* kontzeptuak. Gai hau § 23.2.2 atalean aztertzen bada ere, labur-labur gogoratuko dugu gramatika honetan ez ditugula kontzeptu horiek euskal gramatika ohikoetan bezala definitzen, baizik aspalditik munduko hizkuntzetako gramatikek definitzen dituzten gisan. Euskal gramatikek *nor/zaio* erako aditzak (*izan/\*edin* hartzen dutenak) eta *du/dio* aditzak (*\*edun/\*ezan* hartzen dutenak) bereizi dituzte: lehenbizikoak intrantsitiboak lirateke, eta bigarrenak trantsitiboak. Gramatika honetan ez diogu aditz laguntzailearen izaerari behatuko, argumentu sareari baizik. Hitz gutxitan esateko, argumentu bakarreko aditzak, berdin dela nolakoa duten laguntzailea, intrantsitiboak dira: *Jone dator; Jonek eskiatu du*. Eta bikoak, aldiz, trantsitiboak: *Jonek alkatea agurtu du*. Bereizketa hola egiten da, oro har, kanpoko hizkuntzetan ere. Xehetasun gehiago aipatu tokian.

## 18.2. Absolutiboa

### 18.2.1. Funtzioa eta kasu marka

**18.2.1a** Perpaus trantsitiboen objektu zuzenak kasu absolutiboa hartzen duela esan ohi da: *Jonek Miren aurkitu du*. Aldi berean, perpaus intrantsitiboen subjektua ere kasu horretan ageri dela esaten digute gramatikek: *Miren gero etorriko da*. Bi egitura horietan *Miren* izen sintagma itxura berarekin ageri zaigu, bi funtzio sintaktiko desberdin baditu ere. Edozein euskaldunek berehala bereziko lituzkeen *umea dator / umea dakar* eta horien gisako bikoteetan, argi ikusten da hemen adierazi nahi dena. Bestetik, *Miren etorri da* eta *Mirenek egin du* perpausak erkatuz gero, berehala konturatzen gara bietan subjektua izanik ere, marka morfologiko desberdinak hartzen dituela perpaus batean eta bestean (*Miren* – *Mirenek*).

Horrek ematen digu euskararen ezaugarriren baten berri: gorago aipatu dugun gisan, euskara hizkuntza ergatiboa dela esaten dugu (ikus § 1.5). Arau orokor gisa (honek beste zehaztasun batzuk behar ditu, hala ere) esan dezagun, hortaz, euskarak ergatibo-absolutibo sistema segitzen duela, eta ez inguruko hizkuntzen nominatibo-akusatiboarena. Euskaraz perpaus intrantsitiboen subjektuak eta perpaus trantsitiboen objektuak kasu bera dute, absolutiboa (*Miren etorri da*, *Miren ikusi dute*), eta perpaus trantsitiboen subjektuak, aldiz, ergatiboa hartzen du (*Mirenek egin du*). Inguruko hizkuntzetan, ordea, perpaus trantsitiboen nahiz intrantsitiboen subjektua beti kasu berean doa, nominatiboan (*el, ella; il, elle*), eta perpaus trantsitiboetako objektu zuzena, berriz, akusatiboan (*lo, la; le, la*). Horregatik esaten dugu bi sistema nagusi ditugula, nominatibo-akusatibo eta ergatibo-absolutiboa, eta euskarak bigarrena segitzen duela. Ezin segitu lehenbizikoa, aditz trantsitiboen eta intrantsitiboen nominatiboek marka desberdinak ( $\emptyset$  eta *-k*) izango bailituzkete.

Ergatiboaren atalean (§ 18.3), dena den, honen gaineko beste zehaztapen batzuk egiten dira.

**18.2.1b** Funtzioaren (subjektua, objektu zuzena) eta kasuaren paralelismo hori ez da (absolutiboa, ergatiboa), hala ere, beti betetzen. Aditz intrantsitibo

batzuen subjektua ergatiboan erabiltzen dugu, eta ez absolutiboan: *Mirenek igandero eskiatzen du*; *Urak irakin du* eta abar. Batzuetan, hiztunen arabera aldatzen da hori: *dantzatu gara/dugu*, *borrokatu da/du* eta abar. Beste batzuetan, aditz trantsitiboaren objektua datiboan ere joan daiteke, ez absolutiboan, aditz motaren arabera: *deitu du/dio*, *lagundu du/dio* eta abar (§ 23.2.2).

### 18.2.2. Absolutiboaren forma

**18.2.2a** Absolutiboak  $\emptyset$  (zero) kasu marka du: *Miren- $\emptyset$  etorri da*. Kasu marka horrek ez du soinurik. Horretan bereizten da egiturazko beste kasuetatik. Horregatik diogu kasu honetan doazen sintagmek  $\emptyset$  marka dutela: *bost andre- $\emptyset$* , *zenbait gizon- $\emptyset$* . Jakina, aurretik determinatzailearen bat erabil dezakegu: *zenbait etxe- $\emptyset$* , *etxea- $\emptyset$* , *etxe hau- $\emptyset$* , *etxe asko- $\emptyset$* ...

**18.2.2b** Absolutiboaren artikularen parekoa dugu *-ik* determinatzailea ere, operadore batek aktibatzen duena. Ez du horrek esan nahi, hala ere, *-ik* marka daramaten sintagma guztiak mota horretakoak direnik, ez baita hala. Berehala itzuliko gara puntu honetara.

### 18.2.3. Absolutiboaren erabilera

**18.2.3a** Esan bezala, perpaus intrantsitibo gehienen subjektuak kasu hau hartzen du,  $\emptyset$  marka, alegia. Eta gauza bera gertatzen da perpaus trantsitiboetako objektu zuzenarekin ere.

**18.2.3b** Perpaus kopulatiboetako predikatu osagarria (*Jon handia da*) eta “bigarren predikatua” (*Miren alkate izendatu dute*) ere absolutiboan doa (§ 24.4). Ikusten denez, artikulua eta guzti ageri da predikatu osagarria. Hala izaten da gehienetan. Baina ez beti, eta batez ere ekialdean determinatzaile gabeko egiturak erraz atzematen dira: *Badakit zure anaia Aaron hiztun eder dela* (Duvoisin). Baina autore berak: *Badakit emazte eder bat zarela* (Duvoisin). Badira adibide asko: *Gizonen begietan eder dena...* (Duvoisin); *Sobera*

*jaun edo andere handi da horretako* (Abadia); *Gure eginbide partikularrari ukitzen ez zaizkion bertuteen artean hartu behar dira eszelenteenak, ez eder eta handi iduriago dutenak* (Pouvreau); *Eta edirenen du hiltzean bere herioa eder, on, eta maitagarri* (Tartas); *Zuretzat on ez dena, atxiki ezazu urrundik. Gorri ala zuri den egin gabe kasurik, izan nahi baduzu errespetaturik* (Mendiage); *Eder zara, Birjina maitea* (Intxauspe); *Hauxe da gauza polit, joietan lehena* (M. Etxamendi).

Zenbaitetan zail gertatzen da sintagmaren kategoria bera zehaztea ere: *Egarri da* diogunean, esaterako, ez dakigu ongi zein izan daitekeen *egarri* horren kategoria. Ez da adjektiboa, ez baitu komunztadurarik egiten: *Egarri da / Egarri dira*. Agian, gorputzaren egoera adierazten duten itzuli hauetan aditza ikusi behar genuke gaur egun, besterik gabe, bere garaian banaturik baziren ere: *egarri izan*. Gramatika honetan aditz predikatu konplexutzat hartu ditugu [izen + izan] egiturakoak (§ 23.2.1.3.4).

Badu parean beste egitura sintaktiko bat, *egarriak egon*, ergatiboan ikusten dena, beti singularrean erabiltzen dena: *Egarriak nago / Egarriak gaude*.

**18.2.3c** Pisua, neurria, prezioa, tokia, modua, denbora eta bestelakoak adierazteko erabiltzen dugu absolutiboa: *Bi aste eman zuen Londresen; Hala, esaterako, euro batek 166,386 pezeta eta 6,559 libera balioko zituela ezarri zen; Orain dela zazpi urte etorri ginen; Zaku horrek bost kilo pisatzen du; Zazpi oin luze zen mutil hura*. Holakoetan inolako markarik gabe ageri da sintagma, absolutiboan, nahiz batzuetan beste kasu batzuk, instrumentala bereziki, onartzen dituen: *Lau urtez egon zen aita ikusi gabe*.

Zernahi gisaz, komunztadura beti singularrean edo pluralean egiten da sintagma determinatuekin: *Zakua pisatu zuten / Zakuak pisatu zituzten*. Sintagma zehaztugabea delarik ere komunztadura singularrean nahiz pluralean egiten da *pisatu* aditzarekin, eta hori da tradizioak erakusten duena: *Hamar kilo pisatzen du/ditu*. Aldiz, *iraun* aditza gehien-gehienetan singularrean erabili da (Azkuek baditu adibideak pluralean): *Bi urte iraun du*. Horren arrazoia da *bi urte* sintagma hori ez dela objektu zuzena, sintagma adberbiala baizik.

**18.2.3d** Bokatiboa ere marka gabe ematen dugu. Hortaz, itxuraz, absolutiboa bezalakoa da: *Hi, Joxe, hator etxera*. Izen arrunta denean, determinatzailearekin nahiz gabe, ez da erraz hemen arau zehatzak aurkitzea: *Bai, jauna; Ez, andre; Adiskide, zer esan duk?; Astoa, alaen astoa!* Literaturan ere: *Barkatu, Ruche jauna* (Jon Muñoz); *Hizkuntza industriaren garaian sartuak ginen, adiskide!* (Salaburu); *Agur, Andre, Erregina santu, Jainkoaren ama santu, Maria* (Elizen arteko Biblia); *Burutik jota dago tentel alaen hori!* (K. Zabala).

**18.2.3e** Euskaraz gauzak izendatzean determinatzailea erabili behar da, oro har. Hori argi ikusten da izenburuak jarri nahi direnean, edo “Nola deitzen da irudi honetan ikusten dena?” edo “Nola esaten da euskaraz ‘mesa, table?’” galderen tankera duten esaldien erantzunean: “mendiA”, “mahaiA” eta abar. Beste hizkuntza askotan ez da artikulua beharrezkoa. Euskaraz, ordea, bai. Horrela, ingelesezko *Pride and Prejudice* eleberri ezagunaren izenburuak *Orgueil et Préjugés* eman dute frantsesez, eta *Orgullo y prejuicio*, gaztelaniaz, betiere artikulurik gabe. Aldiz, euskaraz *Harrotasuna eta aurrejuzuak* itzuli da, artikuluekin<sup>1</sup>.

Arrazoi horregatik izen guztiek artikulua daramate arruntean: *Filosofia Fakultatea* (eta ez \**Fakultate*); *Andre hori medikua da* (eta ez \**mediku*); *Zumalakarregi etorbidea* (eta ez \**etorbide*); *Udaletxea* (eta ez \**Udaletxe*) eta abar.

**18.2.3f** Postposizio batzuek kasu hori gobernatzen dute: *Ixtante artio* (Larzabal); *Igande artio, beraz* (Larzabal); *Datorren urte arte* (Urruzuno); [...] *harik eta Noe kutxara sartu zen eguna arte* (Iraizoz); *Hamar urte barru, non egongo garen, batek daki* (Lauaxeta); [...] *hogei egun inguru bertan eginda* (Kamiñazpi); *Aldapa behera arin doa* (EGLU).

Horrek ez du esan nahi, noski, beti eta ezinbestean postposizio horiek absolutiboa gobernatzen dutenik, beste aukera batzuk ere eskura baititu euskarak: *Hurrengo urtera arte, aldapan behera* eta abar. (§ 21.10).

<sup>1</sup> Ekialdean, zubereraz, errazago da artikulua ez erabiltzea: atributua denean (Gue aítá záhar da, ‘Gure aita zahar da’), multzo balioa duelarik (ógi badit, ‘ogi badut’), eta galderetan (ógi badéa? ‘ogi bada?’). Mendebaldean, berriz, askotan azentuak markatzen du artikulua: Nire semé da (nire semea da).

**18.2.3g** Absolutiboa kasu gramatikala da, eta aditzarekin komunztadura egin behar du: *laguna etorri da*, baina *lagunak etorri dira*; *liburua irakurri du/ liburuak irakurri ditu*; *arraina gustatzen zaio / abereak gustatzen zaizkio*; *oparia erosi dio / opariak erosi dizkio*.

#### 18.2.4. Absolutiboa eta partitiboa

**18.2.4a** Zenbait kasutan, ez beti (ikus § 18.5.2), *-a* mugatzailearen parekoa da *-ik* postposizioa hartzen duen sintagma (orobat *-ak*, *bat*, *batzuk* determinatzaileen pareko). Beraz, determinatzailetzat har daiteke (§ 15.5). Hori dela eta, esan daiteke *Etxea erosi dut* eta *Ez dut etxerik erosi* perpausetan, *etxea* eta *etxerik* sintagmak pare-parean daudela eta sintaxian funtzio bera dutela, nahiz batean artikulua izan eta bestean *-ik* marka hartu (gramatiketan *partitibo* deitu izan dena; bokalez amaitzen bada *-rik*).

**18.2.4b** Noiz erabiltzen da, orduan, artikulua eta noiz *-ik*? Esan dezagun perpausak operadore bat baldin badu, operadore horrek irekitzen duela atea eta orduan *-ik* marka hartzen duela sintagmak, artikulua edo erakuslea hartu beharrean. Operadore mota bat baino gehiago dagoenez, gure kasuan operadore hauek ditugu *-ik* erabilera bultzatzen dutenak: ezezkotasuna, baldintza, galdera, balio enfatikoa, superlatiboa, kuantifikatzaile batzuk (*asko*, *gutxi*, *franko*, *aski...*) eta “gabe” postposizioa:

- *Ez da etxerik ikusten*
- *Etxerik ikusten baduzu, jo atean berehala*
- *Ikusi duzue etxerik?*
- *Bildu da jenderik hemen!*
- *Etxerik handiena hango hura da*
- *Bazen zaldirik franko*
- *Eskerrik asko*
- *Dirurik gabe nekez erosiko duzu hori*



Ezezkoetan, *-ik* determinatzailearen erabilera ezinbestekoa da absolutibo zehaztugabeetan. Baiezkoetan aukera bakarra dugu: *Olioa erosi zuen*. Baina ezezkoetan bi: *Ez zuen olioa erosi*, eta *Ez zuen oliorik erosi*. Batean zerbait zehaztua (olio jakin bati buruz ari gara), eta bigarreanean generikoa da, eta horregatik partitiboa behar du. *Eta Jainkoa baitan ezin dateke halako faltarik* (Axular); *Kontsolamendurik ez dela? Erremedio eta esperantzarik ez dela?* (Duvoisin).

**18.2.4c** Berdintsu azalduko lirateke *Ez dugu zer eginik / Badugu zer esana* (edo *Badugu zer esanik* enfatikoa). Perpaus elkartuetan gainetik ere besarka dezake *ez* partikulak mendeko perpausari dagokiona, haren mugak gurutzatuz, mendekoa ezezkoa ez bada ere: *Ez dut uste [Josuk lagunik duenik]*.

Baina *-ik* marka absolutibora mugatzen denez, perpaus trantsitiboen objektu zuzenaren tokian ikusiko dugu (*Ez zuen oliorik erosi*), edo intrantsitiboen subjektu posizioan: *Ez zen irakaslerik etorri*. Baina ez perpaus trantsitiboen subjektu posizioan: *\*Ez zuen irakaslerik eman eskola*. Eta, esan bezala, aditzarekin egin behar duen komunztadura dela eta, beti balio singularra du: *Baditut anai-arrebak / Ez dut anai-arrebarik*. Batzuetan izen bereziekin ere: *Ez duzu hemen Mitxelenarik aurkituko*. Eta, zenbaitetan, erreferentzia zuzenarekin ere: *Apika nire izenik ez dakizue?* (Atxaga).

Galderekin baietza edo ezetza espero dugunean azaltzen da *-ik* marka: *Ba al da euskal musikarik?* (Mitxelena); *Zure neurriko soinekorik aurkitu ahal duzu?*; *Kapataz edo langileen artean ez al da kartzeletan ibili den jenderik?* (Izeta); *Eta? Jenderik galdu al da?* (Altzaga).

Adibideetan ikusten denez, kuantifikatzaile zehaztugabeak dira arruntean: *Eskerrik asko* (*\*esker asko*); *Zaldirik franko*; *Alde ederrik aski* (Mitxelena); *Gauza jakingarririk aski* (Mitxelena); *Horrelakorik franko* eta abar. Badira kuantifikatzaile existentzialak ere: *Ez dago ezer txarrik* (Mitxelena); *Beste penarik ez daukat ezer* (Basarri); *Beretzat ez zegoen beste gizonik inor* (Agirre); *Bazter guztietara begira nenbilela eta inor ezagunik ikusteko usterik gutxien neukanean* (Agirre).

**18.2.4d** Erka ditzagun perpaus hauek: *Etxea ikusten dut* vs *Ez dut etxerik ikusten*. Esan dezagun, hasteko, *etxea ikusten dut* horrek aldamenen duela

plurala ere, hala nahi izanez: *Etxeak ikusten ditut*. Ezezkora pasatuz gero, hiru aukera ditugu: *Ez dut etxea ikusten*; *Ez ditut etxeak ikusten*; *Ez dut etxerik ikusten*. Horko perpaus artikuludun horiek determinatuak daude: etxe zehatz bati edo batzuei buruz ari gara, dela elkarriketan etxe horien gaia atera delako, dela gure solaskideari etxe jakin batzuen gainean mintzatu nahi gatzazkiolako. Perpausen banaketa, perpausa osatzen duten osagaien funtzioei dagokienez, denetan berdina da.

Gerta daiteke, ordea, *Etxea(k) ikusten d(it)ut* perpausaren ezezkoa *Ez dut etxerik ikusten* izatea. Orduan ez gara etxe zehatz batzuei buruz ari: ukatzea absolutua da, ez dugu, etxeei dagokienez, ezer ere ikusten. Marka hori (-ik) erantsirik ere, funtzioa ez da aldatzen, eta *etxea(k) / etxerik* pare-parean gertatzen zaizkigu, perpaus barnean betetzen duten funtzioari dagokionez. Horregatik esaten dugu -ik ere, kasu honetan, determinatzaile zehaztugabea dela. Alegia, artikularen lan bera egiten duela, baina testuinguru egokia behar du, hala ere: operadore baten itzalean, kasu honetan ezetza, aktibatzen da.

**18.2.4e** Funtzioa aldatzen ez bada ere, ez da, ordea, -a/-ik parekotasun hori operadore guztiekin berdin-berdin gertatzen. Zenbait kasutan -ø /-ik ere izan baitaiteke:

- *Ez da etxea/etxerik ikusten* (baina \**etxe ikusten*)
- *Etxea/etxerik ikusten baduzu, jo atean berehala* (baina \**etxe ikusten*)
- *Ikusi duzue etxea/etxerik?* (baina \**etxe*)
- *Bildu da jendeø / jendea/jenderik hemen!*
- *Etxeø /etxerik handiena hango hura da* (baina \**etxea handiena*)
- *Diruø /dirurik gabe nekez erosiko duzu hori* (baina *dirua gabe aise gutiago*)

Ohart gaitezen gaur egun *diru gabe* nahiz *dirurik gabe* esaten dugula, eta nekez *dirua gabe*, nahiz ez den arazorik *diru hori gabe* esateko. Aurretik izenlaguna badute, ordea, artikulua behar du arruntean: *Haren nahia gabe* (Hiribarrren); *Jainkoaren amodioa gabe* (Xurio); *Kanpokoa edo gorputzekoa bakarrik arimakoa gabe*, *ez da benetako adorazionea* (Astarloa); *Beldurrez eta nehor*

*atzarraraz, harrabots ttipiena gabe* (Barbier); *Ez da Baigorritik Maulerat aipagarri bilkurarik izan Euskal Herrian Oxalde bertsolaria gabe* (Oxobi); *Buru muinak gabe, gogamenik ez* (Villasante); *Huts handia zuen halere bere lehenbiziko adixkidetxo gabe* (Mitxelena). Ikusi, hala ere, *Haren beldur gabe* (Tartas); *Ezin egin lezakezue gaitzik zuen borondate gabe* (Uriarte).

Egungo euskaran badira lexikalizatzeko bidean (edo guztiz lexikalizatuak) diren hitzak eta esapideak: *lotsa gabe, lotsagabe, ahalkegabe, errugabe, adingabe, nahigabe, mugagabe* eta abar (§ 21.10).

**18.2.4f** Baiezko perpausetan balio enfatikoan ageri den *-ik* marka ez da hain hedatua, eta euskalki batzuetan arras gutxi erabiltzen da. Badira, hala ere, adibideak: *Artzain baliosik hara biltzen da* (Etxahun); *Gaur film hoberik egin da* (Mitxelena); *Ni ez naiz eredutarako jaiola, eta hoberik aurki dezake irakurleak bazterretan* (Mitxelena).

Baiezko perpausetan diren sintagma partitiboek badute gehienetan ardatz izenaren ondoan izenondo bat, edo beste elementu adjektibal bat. Batzuetan, beste + izena ageri da: *Anartean bazen eta bada omen orain Parisen bertze lanik* (Hiriart-Urruti); *Badu bertze egitekorik goiz honetan* (Barbier); *Gaixoak badu bertze lanik egungo egunean* (Lafitte); *Beste esankizunik ere badago* (Mitxelena). Beste batzuetan, izenlagun genitiboa + izena ageri da: *Bazen haien artean talentu handitako gizonik* (M. Elizanburu); *Jainkoak ez zaitu ezarri mundu honetan zure beharrik zuelakotz* (Pouvreau); *Bazeukan buruan aurreragoko gauzarik* (Agirre); *Edukiko dik oraindaino Anastasik nire beharrik* (F. Bilbao). Izena + adjektiboa ikusiko dugu beste zenbaitetan: *Zuberoan bada mutil ederrik* (Etxahun); *Geroz eta lehen izan da zure familian letratu handirik* (Tartas); *Botikan badut nik / kalitate finik, / Parisetik jinik, / zuentzat eginik* (Oxobi); *Zeren baskoak baitira abil [...], eta haietan izan baita, eta baita letratu handirik* (Etxepare); *Akzione ederrik eta saindurik egin du hark ere* (Tartas).

Batzuetan sintagmako ardatza isildua izanik, sintagma adjektibala bakarrik agertzen da, eta hori perpaus erlatiboekin ere maiz gertatzen da: *Horretarako biguinagorik behar da* (Mitxelena); *Mintzatu balitz ederrik ikasiko zuten itsasuarrek* (Lafitte).

Joera hori ikusirik, zenbait gramatikarik, hala nola Lafittek (1944: 160), erran izan dute izen soil batez osatu izen sintagmetan partitiboa ezin erabil daitekeela baiezko perpausetan. Gehienetan hala bada ere, hori ez da beti horrela: *Ira-tin eta Arbotin hik baduk lagunik* (Etxahun); *Entzuleen artean komentariorik izan zen* (Erkiaga). Kontuan har bedi, hala ere, horrelakoetan izena bakarrik agertzen den arren, adjektibo bat ondoan balu bezala ulertzen dela; esaterako, *lagun onik, komentario txarrik...* esan nahi dute goiko perpaus horiek. Edo kuantifikatzaile existentzial edo zehaztugabeen interpretazioa dute: *komentario asko / nahikotxo...* Badirudi izena soilik utzi nahi bada, horrelako interpretazioei bidea irekitzen dieten izenak behar direla.

Ikus daitekeenez, kontuak kontu, baiezko perpausetan partitiboa erabil badaitteke ere, ez da nolana hika egiten hori. Horregatik ez da egokia itzuli hori enfasi beharrik gabe eta izen soilekin erabiltzea. Komeni litzateke baiezko perpausetako sintagma partitiboen erabilera zaintzea, eta tradizioaren arabera enfasi jokoetara mugatzea, komunzki izenaren ondoan zenbait adjektibo sintagma ere erabilirik. De Rijkek aipatzen duenez (2008: 29), *Bildu da jenderik* eta horren gisako perpausetan *Bildu da jenderik asko/aski* legoke beharbada (kuantifikatzaile zehaztugabea isildua litzateke).

Ikusi hemen Euskaltzaindiaren 30. araua: “Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola”, Donostian, 1995eko apirilaren 28an onartua.

### 18.2.5. Absolutiboa eta genitiboa

**18.2.5a** Perpaus trantsitiboetako objektuak, batzuetan, absolutiboa hartu beharrean genitiboa hartzen du. Hori Baztanen eta Iparraldeko euskalkietan gertatzen da aditz izenarekin: *Eta nihor ez da haren ikustera etorriko* (Duvoisin); *Zeina etorri baitzen haren entzutera* (Duvoisin); *Zatoz ene laguntzera* (Gazteluzar); *Zerbaitek burura ematen dit egun edo bihar etorriko zarela gure ikustera* (Hiriart-Urruti); *Noizbehinka gelditzen zen, gure beharren egitera,*

*edo ur xorta baten edatera* (Larzabal); [...] *bihotzaren eta gogoaren garbitzera* (Pouvreau); *Berehala horren garbitzerat nihoak* (Larzabal).

Erabilera hori oso sistematikoa da, eta holako ehunka adibide aurki daitezke. Zernahi gisaz, ez da hori erabilera bakarra, holako inguruneetan genitiboaren tokian beste mintzoetan ageri den absolutiboa ez baita guztiz arrotza tradizioan, Iparraldeko idazleetan ere. Idazle berak erabil ditzake biak, absolutiboa nahiz genitiboa, maiztasun handiagoa genitiboak badu ere: *Hala duk! Behiak ikustera!* (Larzabal); *Ohoinak izan direla jin fite jendarmeak ikustera* (Hiriart-Urruti); *Boketa-latsera edo baxera garbitzera zoakeela erranen zuen gure Amatxo zenak* (Barbier) / *Gizonak joan zitezkeen gizonen hiltzera, ehiztariak ihiziaren garbitzera bezala?* (Barbier); *Zoazte odolez lurra garbitzera* (Harispe) / *Honat heldu dira, gure garbitzera* (Harispe).

**18.2.5b** Holako egituretan ezinbestekoa da aditz izena izatea, eta ezin da gauza bera egin partizipioarekin edo aditzoinarekin: *Ama ikustera joan dira / Amaren ikustera joan dira*, baina *Ama ikusi dute / \*Amaren ikusi dute*. Aditz izenarekin, azken batean, hitz elkartuak sortzen ditugu: *bizarra mozteko makina* → *bizarraren mozteko makina / bizar-mozteko makina*. Baina *bizarra moztu* → *\*bizarraren moztu* → *\*bizar-moztu*. Beraz, partizipioarekin ezin dira holako egiturak sortu. Aditz izena behar du izan.

**18.2.5c** Aditz intrantsitiboko subjektua ere joaten ahal da genitiboan, nahiz ez den, beharbada, hain arrunta: *Eta horra zer ondore izan zuten erregeren etortzeak eta joateak* (Duvoisin); *Hamabi egun eta berrogeita hamar Jesusen etortzeak zituzkeen behar* (Hiribarren); *Baina zure etortzeak erremediatu zituen kalte haiek guziak* (Materre); [...] *eta Inaziok erran diezaion haren jiteak zenbatetaraino bozkariatzen gaituen* (Laphitz).

Hala ere, adibide horietan guztietan aditz izena berez izena dela pentsa daiteke, hain segur ere. Eta edozein izenek bezala, aurretik izenlaguna har dezake izen horrek. Zinez aditza dela onartzeko, eta ez izena, aditzaren testuingurua bilatu behar genuke. Adibide hauetan ikusten ahal da hori: *Jakesen berriz etortzeak ditu denak nahasi* (Dirassar); *Kukuen kantatzean, euri eta eguzki* (erranairua). Hor “Jakes berriz etorri...” (adberbioa beti aditzarekin doa, ez

izenarekin), eta “kukuek kantatu...” (kukuek kantatzen dute) uler daiteke, irakurketa batean bederen<sup>2</sup>. Kontura gaitezen horietan bietan genitibo arruntak baditugu, kontrol egitura bat edo holako zerbait behar dugula egitura horien sintaxia azaldu nahi badugu: [*Jakesen* [PRO *berriz etor*]*tzea*], eta [*Kukuen* [PRO *kantatu*]*tzea*].

## 18.3. Ergatiboa

### 18.3.1. Funtzioa eta kasu marka

**18.3.1a** Euskara hizkuntza ergatiboa da. Ergatibotasun hori hola adierazi dute gramatikek historikoki: perpaus intransitiboen subjektuak eta perpaus transitiboen subjektuak ez dute marka morfolo­giko bera hartzen. Perpaus intransitiboen subjektuak ez du markarik hartzen ( $\emptyset$ ), eta perpaus transitiboen subjektuak *-k* hartzen du.

Baina, aldi berean, perpaus transitiboen objektuak ere ez du markarik hartzen, eta horrek sortzen ditu nahasteak. Beraz, perpaus intransitiboen subjektuak eta perpaus transitiboen objektuak kasu bera dute, absolutiboa: *Miren etorri da* vs *Jonek Miren agurtu du*. Aldiz, perpaus transitiboen subjektua ergatiboan doa: *Jonek Miren agurtu du*. Absolutiboaren marka zero da ( $\emptyset$ ) (§ 18.2.2a) eta ergatiboarena *-k*, esan bezala. Mugagabe­an, kontsonante baten ondotik *-e-* epentetikoa eransten da *-k* markaren aurretik: *zenbait lagun-e-k*.

Esan dezagun, beraz, analisi horrek aditz askorekin balio duela, baina ez beti. Ez da arazorik *etorri* eta *agurtu* aditzen kasuan. Eta holakoak dira beste anitz ere. Baina analisiak ez du balio *etorri* eta *eskiatu* aditzak erkatzen baditugu, esaterako. Biak dira intransitiboak, argumentu bakar­ra hartzen dutelako (§ 23.2.2): *Jon etorri da* / \**Jon Miren etorri da* / *Jonek eskiatu du* / \**Jonek Miren eskiatu du*. Baina bi argumentuko aditz transitiboak eta argumentu bakar­reko aditz intransitiboak erkatzen baditugu, ergatibitateaz esan duguna egokia da.

---

<sup>2</sup> Gai hau Padillak (2013) aztertu du.

**18.3.1b** Marka hori artikuluaeren (edo erakuslearen) ondotik jartzen da beti, edo zuzenean, sintagmak artikulurik ez badarama: *Maisuak ariketak bildu ditu*. Pluralean *-ek* egiten dugu: *Maisuek ariketak bildu dituzte*. Aldiz, esan bezala, artikulurik behar ez denean zuzenean eransten zaio marka hori sintagmako azken osagaiari (§ 1.4b eta § 15.2.2h): *Zein maisuk bildu ditu ariketak?*; *Arantxak hamar urte egin ditu gaur*.

**18.3.1c** “Ergatibo” terminoa nahiko modernoa dela esan dezakegu. Badirudi Dirr hizkuntzalariak erabili zuela lehenbiziko aldiz 1912an (Dixon 1994, 3. oharra). Euskal gramatiketan “agente” (Azkue, Lécluse), “actif” (Lafitte), eta tankera horietako hitzak ageri izan dira historian. Oihenartek nominatibo “aktibo” eta nominatibo “pasibo” erabiltzen ditu, eta Pouvreaux ere antzeko terminoak. Gaur egun, hala ere, euskal gramatika guztiek ergatibo hitza erabiltzen dute.

**18.3.1d** Ergatibitatea kontzeptu morfologikoa da (eta sintaktikoa ere izan daiteke), ez semantikoa, eta perpausaren barnean sintagmek hartzen dituzten marka morfologikoei eta eratzen diren erlazio sintaktikoei egiten die erreferentzia. Baina, neurri batean, neurri batean bakarrik, erlazio sintaktikoei eta semantikoei bat egiten dute. Horrela, ergatiboa egiletasunarekin lotua dela esaten dugu: *Ertzainak lapurra harrapatu du*. Bistan da hor *ertzaina* subjektu ergatiboa eta *egilea* edo *agentea* dela aldi berean. Alderantziz jarriz gero, *Lapurrak ertzaina harrapatu du*, funtzioa (ergatibotasuna) eta esanahia (egiletasuna) ere aldatzen dira modu paraleloan.

**18.3.1e** Baina hori askotan hola gertatzen bada ere, ez da parekotasun hori beti eta modu sistematikoan mantentzen: *Mikelek hitz egin du / Mikelek esan du / Mikel mintzatu da*. Bistan da aditz horiek (*hitz egin*, *esan* eta *mintzatu*) aski antzekoak direla esanahiari dagokionez, eta hirurak aktiboak direla alde horretatik behaturik, baina batean ergatiboan doa eta bestean absolutiboan. Parekoak izan daitezke *arduratu* (*arduratu naiz... -ten/-teko*), *ausartu* (*ausartu naiz... -ten/-tera*), *baliatu* (*-z baliatu naiz/ hori baliatu dut*) eta abar. Denak dira aktiboak, baina *izan* daramate laguntzaile, subjektua absolutiboan. Bestetik, tradizio klasikoan, eta gaurko zenbait autoretan ere ikus daiteke hori,

*Jainkoa deabruaz tentatua izan zen* eta horren gisakoak arruntak dira. Egiletasuna ez da hor ergatiboarekin adierazten.

Oraindik gehiago, batzuetan badirudi ergatiboa agentearekin baino gehiago pazientearekin lotua dela: *Umeak min hartu du; Gaixo horrek asko sufritu du*. Ez du ematen hor umeak nahita eta bere borondatez hartu duenik min. Gauza bertsua gertatzen da *distiratu, iraun, irakin...* gisako aditzekin, horiek ez baitute agenterik, nahiz ergatiboa eskatu. Hitz batean, sintagma ergatiboak paper tematiko bat baino gehiago har ditzake: ‘egilea’ askotan, edo ‘kausa’ (*haizeak atea itxi du*), ‘tresna’ (*giltza honek irekitzen du etxeko atea*), ‘esperimentatzailea’ (*Jonek gorroto ditu barazkiak*) edo ‘jasailea’ (*urak irakin du*). (Ikus § 23.3.1).

### 18.3.2. Erabilera

**18.3.2a** Aipatu dugun gisan, ergatiboarekin batera absolutiboa ageri da arruntan perpaus iragankorretan edo trantsitiboetan. Eta gehienetan hala bada ere, hori ez da beti hola gertatzen. Perpaus iragangaitz edo intrantsitibo batzuetan ere ageri da ergatiboa: *Igandero eskiatzen du Jonek*. Hor subjektua bakarrik ageri da, ez dago objekturik, eta horregatik diogu perpausa intrantsitiboa dela, adizki laguntzailea *du/dio* erakoa badu ere. Holakoak dira *jardun, irakin, irten* (batez ere bizkaieraz, *irten/urten*) eta abar: *Horregatik jardun dut, loka eta zoroxka baten antzean* (Erkiaga); *Oldartzen nintzen, isurtzen, lizunkerietan irakiten nuen, eta Zu isil* (Orixe); *Burutapen eta gogoeta hauetan jardun zuen gainerako egunetan* (Erkiaga); *Beraz ordu laurden bat Jesusekin igaro gabe eskerrak ematen, irteten duenak elizatik, irteten du Kristo aldean duela* (Mogel).

**18.3.2b** Beraz, iragankortasuna eta iragangaiztasuna ez da adizki laguntzailearen motaren arabera definitzen, baizik aditzak dituen argumentuen arabera: argumentu bat (subjektua), iragangaitza edo intrantsitiboa; bi argumentu (subjektua eta objektua), iragankorra edo trantsitiboa, berdin dela adizki laguntzailea nolakoa den. Bereizketa hau ez da hola egin euskal gramatiketan. Aski da horretarako EGLUren liburukiak ikustea, esaterako.



### 18.3.3. Ergatiboaren hausturaz

**18.3.3a** Ergatiboaren aditz morfologia dela eta, adizki batzuetan ez da eredu bakarra segitzen: *dut* adizkian T da ergatiboaren marka, eta *naiz* adizkian N absolutiboaren marka. Baina *nuen* adizkian ikusten dugun N hori ez da, espero genezakeen gisan, absolutiboaren marka (*naiz*, *nintzen*), ergatiboarena baizik. Beraz, N horrek balio bikoitza du: absolutiboa eta ergatiboa. Iraganeko adizki batzuekin, ez denekin (*ninduzun*, erregularra; *nuen*, irregularra) gertatzen da “haustura” hori.

**18.3.3b** *Sareko Euskal Gramatikan* euskal sintaxiari eta ergatibotasunari buruz ere esaten da zerbait, bai baitirudi ergatibotasun sintaktikoa hausten dela. Kontrol egituretan (§ 30.2.5), esaterako, eskutik doaz perpaus trantsitiboetako eta intrantsitiboetako subjektuak.

Ikus dezagun kontrol egitura bat: *Hona alguazila, hemendik hasiko da bere bandoa botatzen* (Larzabal). Hori da kontrol egitura tipikoa: *\_ hasi da* [*\_ bandoa botatzen*]. Bi aditzen (*hasi*, *bota*) subjektuen guneak markatu ditugu. Kontua da, ordea, “goiko” subjektuak (*hasi* aditzarenak) mendeko subjektua (*bota* aditzarena) kontrolatzen duela: ezinbestean subjektu bera da bietan. Kasu marka erantsirik hau izango genuke: *X hasi da* [*X-k bandoa botatzen*]. Batean absolutiboa da eta bestean ergatiboa. Baina kontua da bietan eskutik doazela. Eta hori da azpimarratzekoa. Ikus dezagun beste hau: *Andoni hasi da* [(1) (2) *operatzen*]. Egitura bera da hori ere. Dakigunez, *operatu* aditzak bi argumentu ditu: *kirurgialariak* (1) *gaixoa* (2) *operatzen du*. Baina ezer ere zehaztu gabe badakigu Andoni dela kirurgialaria, eta ez gaixoa (semantikaren aldetik ez legoke arazorik alderantziz interpretatzeko, baina sintaxiak ematen digu informazio hori). Eta hor dago kontua: absolutiboak (Andoni) kirurgialaria (ergatiboa, adibidean) hartzen du kontrolpean. Sintaxi puntu horretan ergatibotasuna ez dabil espero genezakeen moduan.

Beste adibide batzuetan ere gertatzen dira holakoak: *Etxera sartu zen eta agurtu zuen*. Kasu horretan ere badakigu X etxean sartu zela eta X-k Y agurtu zuela, eta ez dela gertatzen posible zitekeen beste egoera hau: X etxean sartu

zela eta Y-k X agurtu zuela. Ez da arazorik semantika aldetik, baina sintaxiak bi absolutiboak elkartu beharrean (X eta Y, bigarren esanahia), absolutiboa eta ergatiboa elkartzen ditu (X eta X-k)<sup>3</sup>.

### 18.3.4. Egitura ergatiboak eta pasiboak

**18.3.4a** Egin dezagun hemen ohar bat, batez ere historiarekin lotua. Zenbait hizkuntzako egitura ergatiboek badituzte parean haiei dagozkien egitura pasiboak. Euskaraz ez dirudi holakorik baden. Bestetik, euskal ergatibitateak badu beste ezaugarri bat, alegia, perpaus intrantsitiboen subjektuak eta trantsitiboen objektuak marka bera dutela (∅). Horrek eraman ditu euskara aztertu duten zenbait hizkuntzalari (Müller 1888; Schuchardt 1893) pasibitatearen teoria garatzea. Horien artean lehen garaiko Lafon ere aipatu behar da, gero iritzia aldatu bazuen ere.

**18.3.4b** Ikus ditzagun bi perpausok: *Miren dator* perpaus intrantsitiboa batetik, eta *Jonek Miren dakar*. Lafonen arabera, bi perpaus horietan “Miren” izango litzateke subjektu sintaktikoa, pare-parekoak direlako: *Miren dator / Miren dakar*. Bigarrenak subjektu “paziente” horrez gain, osagarri agente bat izango luke, “Jonek”, alegia, eta hori beste hizkuntzetako *por Jon / par Jean / by John* horien parekoa litzateke (ohart gaitezen, bide batez, osagarri agente hori euskaraz ergatiboa erabiliz eman daitekeela: *haizeak astindua / agitado por el viento*). Teoria hau baztertzeko argumentu asko aurkitu ziren, eta ez du geroztik indarrik izan. Esan dezagun xx. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan hasi zirela hizkuntzalariak euskal ergatibitatea beste begi batzuekin ikusten. Ikus, honetaz, de Rijk (2008: 199).

---

<sup>3</sup> Batzuetan, hala ere, gauza kuriosoak gertatzen dira. Batzordeko kide batek mezu hau hartu zuen telefonoan: *Ikusi duzu Madrilen atzo aitak 21 hilabeteko umea autoan ahasitu eta beroarekin hil dela?* Jakina, interpretazio hedatuenean aita izango litzateke hil dena (*Badakizu atzo aitak semea agurtu eta gaixotu dela?*), baina esaldi horretan bistan da umea hil dela.

## 18.4. Datiboa

### 18.4.1. Kasu marka

**18.4.1a** Ergatiboaz eta absolutiboaz gain, egiturazko kasutzat edo besterik gabe kasutzat har dezakegun hirugarrena da datiboa. Datiboak *-i* marka morfologikoa erakusten du euskaraz, eta oinarria bokalez amaitzen denean, *-r*-epentetiko bat gaineratzen da bokalaren eta kasu markaren artean: *Hori bera da gertatu ohi zaiona, zerurat edo zerurantz dabilen edozein gizoni* (Mendiburu); *Geroago, laster ulertu nuen [...] zurekin tratua duen edozein emakumeri jotzen diozula, arreta ematen dizun edozein neska saltzaileri* (Matauko). Artikulu ondoren ere: *laguna-ri*.

**18.4.1b** Ipar-ekialdeko hizkeretan, pluraleko datiboan, *-ei* amaiera agertu beharrean, adibidez, *gizonei* forman bezala, *gizoner* jasotzen da: *Gloria Jainkoari zeru gainetan eta bakea lurrean gogo onezko gizoner* (Intxauspe).

### 18.4.2. Helburu eta onuradunak. Osagarri bikoitzeko egiturak

**18.4.2a** Datiboa nagusiki hiru argumentuko perpausetan agertzen da, hau da, *nork*, *nori* eta *zer* adierazten denean (§ 26.1). Perpaus horietan, aditza ditransitiboa da, hola deituko ditugu, edo nahiago bada, trantsitibo datiboduna, Fernándezek eta Ortiz de Urbinak (2010) deritzaten bezala. Adibidez, *eman* aditz ditransitibo prototipiko horietako bat da. Subjektuaz gain (*nork*), osagarria (*zer*) eta zehar-osagarria (*nori*) eskatzen dituzten aditzei esaten zaie ditransitibo. Bada, zehar-osagarri hori da, hain zuzen, datibo kasua jasotzen duena: *Sarak Joni surf-ohola eman dio*.

**18.4.2b** Zehar-osagarria diogunean, funtzio sintaktiko batez ari gara, baina funtzio hori alde batera utzita, *Joni* argumentuak perpaus horretan duen rol tematikoa, edo bestela esatearren, eduki semantikoa, helburua da. Izan ere, emateak norbaiti zerbait iragatea dakar, eta alde horretatik helburu bat du jomuga, kasu honetan Jon bera. Horretaz gain, Jon da jasotzen duen surf-oholaz baliatu daitekeena, eta, hortaz, horren onura jasotzen duena, hots, onuraduna. Onura-

duna gabe, kaltetuna ere izan daiteke datibo argumentua, baldin eta onuraren ordeztu, kaltea jasotzen badu: *Sarak Joni surf-ohola pitzaturik eman dio.*

**18.4.2c** Perpaus hauek guztiek erakusten dute datiboa kasutzat hartzeko literaturan erabili izan den irizpide nagusi bat, aditz komunztadura alegia. Aditz laguntzaileari begiratu besterik ez dago ohartzeko datiboz markatutako argumentuaren *isla* morfologikoa dakarrela *-o* morfemaren bitartez. Morfema hori singularreko hirugarren pertsonako komunztadura marka da, eta euskara mintzatu hedatue-nean, komunztadura marka hori ageri da beti. Ekialdeko mintzo batzuetan, zernahi gisaz, ez da beti egiten komunztadura hori: *Sarak Joni surf-ohola eman du.*

**18.4.2d** Nolanahi ere den, datibo komunztadurari dagokionez, aldakortasuna dago mendebaldetik ekialdera, ekialdeko hizkeretan datibo komunztadura ezabatu daitekeelako perpaus ez-gramatikalik sortu gabe, eta ondorioz, azken perpaus hori gramatikaltzat har daiteke dagokion hizkera eremuan, euskara batuan idazten diren testu gehienetan datibo komunztadura zaindua ageri den arren. Ekialdean holako adibideak aurkitzen dira: *Argobeko lurra oro eman nituen Mansferren leinu erdiari* (Duvoisin); *Kaathen semeen odoleko gainerrakoei eman zituzten oraino Manaseren leinu erditik Aner eta bere hiripeak* (Duvoisin); *Moisek erran zuen oraino Israelgo semeen bilku guziari* (Duvoisin); *Amak erran zuen bertzeri eta arribatu zen herri hori jaun baliarenganaino* (Webster); *Erretore horrek erran zuen bere buruari* (M. Elizanburu); *Orduan Jesusek erran zuen bere dizipuluei* (Etxenike); *Eta erresponditu zuten Jesusi* (Etxenike). Esan dezagun, zernahi gisaz, holako egiturak ekialdeko tradizioko idazle batzuen artean ageri direla, eta eredu “arruntarekin” erkatuz aise gutxiago ikusiko ditugula. Bestetik, ezin dira nolanahi erabili, eta muga sintaktikoak dituzte aldiari eta pertsonari dagokionez. Beste hitzetan, ekialdean ere, *Haiei erran zien* eta *Haiei erran zuen* perpausen artean, biak erabilirik ere, lehenbizikoa maizago aurkituko dugu, diferentzia handiarekin.

**18.4.2e** Halako egiturak ingelesezko *osagarri bikoitzeko egiturak* (ingelesez *double object constructions*) bezalakoak direla aldarrikatu izan da literaturan, eta batez ere Elordietak (2001) aletu ditu horretarako argudio nagusiak. Gure euskal perpausak, beraz, ingelesez ondoko kideko perpausa du: *Sarah gave John the surfboard*. Ingelesez, alabaina, osagarri bikoitzeko egitura hori harre-

manetan jarri ohi da esanahi bera duen egitura preposiziodun batekin, ondoarekin alegia: *Sarah gave the surfboard to John*.

Bigarren honetan ikus daitekeenez, helburua ez da ageri aditzaren ondo-ondoan, gaiaren ostean baino. Horretaz gain, *to* preposizioa darama bere aurretik, hots, preposizio sintagma baten modura agertzen da perpausean. Osagarri bikoitzeko egituran, aldiz, gaia bera baino lehenago ageri da, aditzaren ondoan eta ez du preposiziorik erakusten. Ingelesez, egile batzuen ustez, lehenbiziko perpausa (... *gave John*) perpaus postposiziodunetik (... *gave... to John*) sintaktikoki eratorritakoa da, eta euskaraz ere, batzuen ustez, postposizio sintagma bat duen egitura batetik eratorri da. Hau da, *Sarak Joni surf-ohola ekarri dio* perpausa beste honetatik eratorria litzateke: *Sarak surf-ohola ekarri du Jonentzat*.

Dena den, honi dagokionez eztabaida handia dago euskal hizkuntzalaritzan: lehen perpausa osagarri bikoitzeko egitura dela aho batez onartzen den arren, besterik da, adibidez, onartzea *Jonentzat* postposizio sintagmatik eratorri dela *Joni* datibo sintagma. Honetan ez dago akordiorik.

### 18.4.3. Esperimentatzaileak

**18.4.3a** Datiboak ez ditu bakarrik helburuak adierazten. Horietaz gain, *esperimentatzaileak* ere adieraz ditzake, esate baterako: *Malenari tangoa kantatzea gustatzen zaio; Malenari tango zahar hura ahaztu zaio*.

Perpaus bi horietan, datiboak ez du, jakina, helburua adierazten, ez bada *esperimentatzailea*. Izan ere, *gustatu* edo *ahaztu* bezalakoak *aditz psikologikoak* dira, eta gustatzea bezalako prozesu psikologikoak sentitzen dituenari esperimentatzailea deritza (§ 23.2.2.3c). Bestalde, absolutiboaz adierazten dena *estimulua* da. Aditz hauekin datibo sintagma ezinbestekoa da, hots, egituran egon behar da, agerian edo isilean, gramatikala izango bada: *\*Tangoa kantatzea gustatzen da* edo *(\*)Tango zahar hura ahaztu da*<sup>4</sup>.

<sup>4</sup> Parentesia darabilgu, zeren perpaus hori gramatikaltzat har liteke bere irakurketa inperstonalean.

Perpaus bi hauetan, absolutibo sintagma baino ez da ageri, eta datiboa ez ager-tzeak dakar ez-gramatikaltasuna.

**18.4.3b** Halako datibo esperimentatzaileak aurkituko ditu irakurleak baita *interesatu*, *iruditu*, *damutu* eta *dolutu* aditzekin batera, adibidez. Mendebaleko hizkera batzuetan, Bergarakoan, adibidez, edo Elgoibarkoan, datiboaren bidez adierazten dira bestelako hizkeretan eta oro har euskara estandarrean, bestela adieraziko liritekeen esperimentatzaileak: *Gure alabiari zoratu ein jako*; *Ai-ttari hasarrau jako azkenian* (Makazaga 2009: 155, 157)<sup>5</sup>.

Euskara hedatuenean adibide hauen ordainak dira, hurrenez hurren, *Gure ala-ba zoratu egin da* eta *Aita haserretu da azkenean*. Halako hizkeretan badira, bestalde, konfigurazio hau bera erakusten duten beste aditz batzuk, hala nola *pentsatu* Bergarako hizkeran —*Edurra ein bia dabela pentsatzen jat* (Elexpu-ru 1988)—, *irudituren* esanahi bera duena.

Hizkeretan orokorturik dagoen erabileraren ikuspuntutik kasu hauek bitxi sa-marrak diren arren, giza hizkuntzetan halako datibo esperimentatzaileak aur-kitzea ez da batere ezustekoa.

#### **18.4.4. Datibo hunkituak eta jabe datiboak**

**18.4.4a** Hitzez hitz adierazi ez dugun arren, azken atalean mintzagai izan ditugun datibo esperimentatzaileak absolutibo batekin batera ageri direla iku-si dugu, bi argumentuko perpausetan. Aditz horiek ez dira, beraz, trantsitibo datibodunak (*eman* edo *eraman* bezalaxe), *intransitibo datibodunak* baino (*nor-nori* deitu izan diegunak gure lehenagoko gramatiketan). Ikusi dugunez, intransitibo datibodun horietan, datiboa ezinbestekoa da, ez aukerakoa. Bada, antzeko konfigurazioa erakusten du *Alkandora urratu zaio* perpausak ere,

---

<sup>5</sup> Jakina, euskara estandarrean arruntean erabiltzen ez badira ere, horrek ez du esan nahi *Gure alabari txoratu egin zaio* eta gisa horretakoek euskara batuan tokirik ez dutenik. Ikus Salaburu 1994 eta 2018.

nahiz eta kasu honetan, datiboa gaineratutako argumentua den, eta hortaz, ez duen datiboak zertan egon behar: *Joni alkandora urratu zaio*.

**18.4.4b** Lehen perpausean (*Alkandora urratu zaio*), absolutiboz markatutako argumentu bakarra dugu, eta beraz, perpaus intrantsitiboa da, izatez aditza bera ere intrantsitiboa delako. Bigarren perpausean, berriz, *Joni* datibo argumentua gaineratu da perpausean, eta bi argumentuko konfigurazioa sortu da.

*Jon* da, bigarren perpausean, alkandora urratzeak nolabait *hunkitu* duena. Ingelesezt, *affected datives* deitu izan zaie halakoei eta deitura horren ildotik deritzegu guk datibo hunkituak hauei. *Interes datiboak* ere deitu izan zaie<sup>6</sup>.

**18.4.4c** Datibo hunkituetatik oso gertu daude *jabe* datiboak. Izan ere, *Joni alkandora urratu zaio* diogunean, datibo argumentua hunkitua izateaz gain, alkandoraren jabea dela ere interpreta daiteke. Hori are argiago ikus daiteke jabetza *ezin besterenduzkoa* denean, hots, inori besterendu ezin zaionean gure jabegoa, adibidez, gorputz atalak: *Aneren begitartea ilundu da; Aneri begitartea ilundu zaio*.

Bigarren perpauseko datiboa (*Aneri begitartea ilundu zaio*), zalantzarik gabe, *jabe* datiboa da, eta inoiz esan dugun bezala (EGLU-I: 344), *Aneren* genitibo sintagma ordezkatzen duela dirudi. Izan ere, hizkuntzalaritzan proposatu izan da, ñabardurak ñabardura, *Aneri* bezalako jabe datiboak genitibo batetik erartortzen direla sintaktikoki. Ez da hau xehetasun teorikoetarako leku aproposa, baina bai, gaiaren inguruko beste ñabardura bat gaineratzeko: Etxeparek erakutsi digunez (2003: 420-421), datiboa genitiboaren ordez erabiltzeko, datibo argumentua zuzenean *hunkitua* izan behar da. Jo, bestela, ondoko adibideetara: *Jonen ama hil da; Joni ama hil zaio*.

Bigarren adibidean, *Jonek* bizirik egon behar du, ama hiltzeak zuzenean hunki dezan; aldiz, lehenbiziko adibidean, *Jon* bera ere hilik egon daiteke urteak

<sup>6</sup> Eta inoiz baita etikoak ere, baina hizkuntza erromanikoetan, gaztelaniaz adibidez, etikoei eman izan zaieen estatus sintaktiko eta pragmatikoa kontuan hartuz, guk deitura nolabait neutrogoa hobetsi dugu oraingoan, etikoetatik ezberdindu nahian.

dirrela. Ikusten denez, jabe datiboen eta hunkituen arteko harremanek estuak dirudite, eta behin baino gehiagotan azpimarratu izan da hori —ikus, besteak beste, Hualde (2003a: 182) edo Fernández (2010)—.

#### **18.4.5. Datiboaren eta adlatibo/ablatiboaren arteko harremanez**

**18.4.5a** Behin baino gehiagotan aipatu izan dira euskal gramatikan datiboak postposizio batzuekin dituen harremanak. Gorago, datiboaren eta destinatiboaren arteko kidetasuna aipatu dugu, baina kidetasun hori beste postposizio batzuetara ere zabaldu daiteke, adlatibora, adibidez. Izan ere, mugimenduzko aditzekin batera ageri diren datiboek sarri askotan helburua adierazten dute, eta kasu horietan, datiboa adlatibo bizidunarekin txandakatu daitekeela dirudi: *Jon Nikori joan/hurbildu zaio; Jon Nikorengana joan/hurbildu da.*

**18.4.5b** Lehenbiziko perpausean ageri den datiboaren ordeaz, adlatibo biziduna azaltzen da bigarrenean, eta datibo hori helburua da. Jakina, horrelakorik ez da adlatibo bizigabeekin: *\*Jon Bilbori joan/hurbildu zaio; Jon Bilbora joan/hurbildu da.*

Kidetasun horretaz jabeturik, batzuen ustez datiboaren eta adlatiboaren arteko txandakatzea (*alternation*, ingelesez) aipatu izan da, baina ikusiko dugunez, datibo argumentuaren agerpenak helburu hutsa baino zerbait gehiago adierazten duela dirudi edo beharbada, besterik gabe, ez da helburua, gorago aipatu ditugun datibo hunkitu horietako bat baino. Ikusi bestela perpaus hau: *Jon Australiara joango zait laster.*

Kasu horretan, isildutako *niri* datibo argumentuak, aditzak islatzen duen datibo komuntaduraren bitartez (*zait*) berreskuratzen dugunak, ez du helburua adierazten (helburua adierazten duena *Australiara* adlatibo sintagma da). Perpaus horretan, ezkutuko datiboak adierazten du Jon Australiara joateak *niri* nolabait eragiten didala edo gorago esan dugun bezala, hunkitu egiten nauela *nire* ondoko norbait (semea, esaterako) den aldetik. *Nora joan dira zure txakurrak?; Nora joan zaizkizu txakurrak?* Jabe datiboa edo datibo hunkitua adierazten du *zuri* ezkutuko datiboak.



Hortaz, *joan* aditza bezalako mugimenduzko aditz batekin, helburu datibo bat aurkitzea espero daitekeen arren, horrek ez du zertan horrela izan behar. Fernándezek eta Ortiz de Urbinak (2010) diotenez, datiboak adlatibo bizidunak berak baino askozaz ere eremu handiagoa hartzen du, eta, hortaz, txandakatzeaz hitz egitea kasurik onenean ez dirudi oso zuhurra.

**18.4.5c** Orain artean, mugimenduzko aditzez ari garela, helburu datiboez hitz egin dugun arren, mugimenduak helburua izateaz gain, *iturburu* bat ere badu, eta *iturburu* hori gehienetan, ablatibo batez adierazi ohi da. Adibidez, Oskorriren kanta ederrean lehenbiziko bertsoa manipulaturaz eta ondorioz, potoginez bigarreanean: *Ez zaitetz, ez zaitetz urrun nigandik; Ez zaitetz, ez zaitetz joan nigandik*<sup>7</sup>.

*Urrundu* eta berriro ere *joan* aditzek norabidea alde bietara adieraz dezakete: mugimendu hori nora zuzentzen den eta nondik abiarazten den. Bada, hala-koetan, datiboa ager daiteke ablatibo bizidunaren ordeztan, eta horrek datiboaren eta ablatiboaren txandakatzea dagoela pentsaraz liezaguke: *urrundu zait; urrundu da nigandik*.

Alabaina, oraingoan ere, ez dirudi datibo *iturburu* hutsa dugunik, ablatiboa erabiliz izango genukeen bezala; datibo hunkitu bat dugula dirudi (Fernández eta Ortiz de Urbina 2010), adibidez: *Bertsotan ikasiko nion, Imanol Lazkanori edo* (Egaña).

Baina oso berezkoa den hori norbaiti ikas dakioken arren, Egañak Lazkanori bezala, datiboaren ordeztan ablatiboa ere maiz ageri da, aski modu naturalean: *Bertsolarien izen-abizenak ikasiko nizkion, Imanol Lazkanori edo; Bertsolarien izen-abizenak ikasi nituen Imanol Lazkanorengandik edo*.

Halakoetan, har dezagun *ikasi* aditza, biak erabiltzen dira, nahiz beharbada ablatiboa erabiliagoa izan: *Jesus beragandik ikasi arte guzian berariz eta beraren betiko Aitak nahi zuena egiteko gelditu zela Jerusalem orduraino*

<sup>7</sup> Jatorrizko bertsoak halaxe dio: *Ez zaitetz, ez zaitetz / ez zaitetz joan oraindik / . Ez zaitetz, ez zaitetz / urrun nigandik*.

(Mendiburu); *Ikusi zuen Jesusek elkarrekin zerausten guzia eta beragandik ikasi nahi zukeela zer ote zen esan nahi zuena eta esaten die* (Mendiburu); *Ikas zazue nigandik, bada ni naiz zuen Maisua, ikasi nigandik, bada ni naiz zuen modelua* (Agirre); *Nire arima ezagutzen, eta estimatzen nire etsairik handien demonioagandik ikasi behar dut?* (Kardaberaz); *Anaien arteko kari-dadearen gainean berriaz nez daukagu zuei eskribitu beharrik, bada zuek zerok Jaungoikoagandik ikasi zenuten elkar maitatzen* (Uriarte); *Legazpira igo eta Iruna jaitsi egiten zela, aitari ikasia nion, eta harrigarri egiten zitzaidan oso* (Joxerra Garzia); *“Dena dela, Gandiaga, beti Gandiaga bera izanik, ez da hala ere errepikatzen”, Joxe Azurmendiri ikasi genion* (Elustondo; Azurmen-di); *Gero ikasi genion Miranderi mendekuak alferrikako direla mendekatuaren jakinaren gainean gauzatu ezean* (Joxerra Garzia); *Hitz eta kanta zahar mordoak daki, gure artean zegoela beti zebilen bertso kantari, gerra garaiko Pepe Bolunbururenak ikasi nizkionetik* (K. Izagirre).

#### 18.4.6. Marinelei abisua: izenondoko datiboak

**18.4.6a** Egiturazko kasuak postposizioetatik bereizteko erabili dugun irizpide nagusia aditzarekin egiten duten komunztadurarena da: ergatiboz, absolutiboz eta datiboz markatutako argumentuak baino ez direnez komunztadura eragiten dutenak, eurak dira egiturazko kasu bakarrak (partitiboa absolutiboa- ren aldaera bat baizik ez litzateke, eta gainerakoak komunztatzen ez direnak, postposizioak). Bada, oraingo honetan, kasuak postposizioetatik bereizteko beste irizpide bat erabiliko dugu, hots, izenaren ondoko datiboak edo nahiago bada, datibo izenlagunak. Aipa dezagun lehenik eta behin, adibide klasiko eta polit bat egitura ezagutarazteko: *Marinelei abisua* (Etxeberri Ziburukoa).

Egitura honetako datiboa, hots, *marinelei*, *abisua* izenaren ondokoa da, edo bere izenlaguna nahi bada. Halako datiboak sarri aurki daitezke gaztelaniaz edo ingelesez, adibidez: *Aviso a navegantes*.

**18.4.6b** Alabaina, euskaraz askoz erabilera mugatuagoa dute, eta nagusiki izenburuetan agertzen dira, aspaldi genion bezala (EGLU-I: 233); beste

hizkuntzalari batzuek ere aipatu dute kontu bera (de Rijk 1998a: 378). Horregatik, oso bazterrekoak dira eta oso bakanak izenburuetatik aparte izenondoko datibo hauek erakusten dituzten agerraldiak: *Hona zer izan ziren haren azken hitzak bere semeei: “Mutikoak, mutikoak, aski baduzue zeruari beha egonik!”* (Larzabal); *Gaur denak ziren bibak eta gorak kapitainari, Caballeriari eta haiez erditu zen amari* (Manu 416, in Fernández eta Sarasola 2010)<sup>8</sup>.

Bestalde, EGLU-I liburukian (233) ageri da onargarriagoak direla datiboa eskuinetara dakarten adibideak (ezkerretara dakartenak baino), eta Albizuk (2009) ere eskuinetara lerratzen diren izenondoko datiboez dihardu. Nolanahi ere den, ezkerretara lerratzen direnak ere badaude, adibidez, gramatikari eta euskaltzain ezagun baten omenaldi-liburuak izenburu hau du: *Beñat Oihartzabali gorazarre*. Baina Oihartzabalen omenezko ekitaldirako gonbidapean, bestelako hurrenkerarekin ageri zen liburuaren izenburua: *Gorazarre Beñat Oihartzabali*.

Zalantzarik gabe, sarriago ageri dira, agertzekotan, izenaren eskuinetara ezkerretara baino, baina azken hauek ez dira ezinezkoak.

**18.4.6c** Datibo hauek eztabaidagai izan dira euskal gramatikan, datiboaren izaeraren nondik norakoak zein diren erabakitzeko. Izan ere, egiturazko kasutzat jotzen ditugun horietan (ergatiboa, absolutiboa, datiboa) izenondoko gisa ager daitekeen bakarra (bere muga eta guzti) datiboa baino ez da. Ergatiboak eta absolutiboak izena modifikatzekotan, genitiboa behar dute: *frankisten sarraskia*; *gudarien sarraskia*.

Zalantzarik gabe, zirkunstantzia historikoak ezaguturik irakurketa egokia egi-tera eramango gaituzten arren, perpaus horiek anbiguoak dira: edo frankistek/gudariak egin zuten sarraskia edo frankistek/gudariak jasan zuten sarraskia. Bestela esanda, genitiboaren bitartez berreskura daitezke ostean ergatiboz edo

<sup>8</sup> Fernándezek eta Sarasolak (2010) mintzagai honi buruz bereziki egindako lanean diote bi agerraldi hauek eta beste bat baino ez dituztela aurkitu, testu klasikoak eta EPG (*Ereduzko Prosa Gaur*) corpora arakatu eta gero. Bazterrekoak baino gehiago dira, beraz.

absolutiboz markatuko genituzkeenak (egilea eta gaia, hurrenez hurren). Izenondoko datiboak ere ordezkia dezake batzuetan genitiboa. Esaterako, Jules Verneren nobela gogoangarriaren izenburua bietara itzuli da euskarara: *Munduaren itzulia 80 egunetan*; *Munduari itzulia 80 egunetan*.

**18.4.6d** Izenondoko datiboaren ordezkia, genitiboa erabil daitekeela diogu EGLU-I liburukian (233), baina hori egia izanik ere, adibide batzuek behintzat ez dute genitiborik onartzen (irakurketa horrekin, jakina): *?Marinelen abisua*.

Adibide hori gramatikala da, jakina, marinelak eurak badira abisua ematen dutenak, baina ez dirudi interpreta daitekeenik marinelei emandako abisu gisa.

Hortaz, datiboa kasua da bai, baina postposizioek ohikoa duten bazterreko jokabidea duela pentsa daiteke. Izan ere, postposizioek tarteka badituzte izenondoko agerraldiak: *Jakoben jaiskera Egiptora* (Lardizabal); *Gerora automobil zelularrak banan-banan jasotzen zituen etxera bidean* (Payá).

Nolanahi ere den, izenondoko postposizio hauek ere nahiko bazterrekoak dira, eta holakoetan ezinbestekoa da, de Rijkek (1988, 1993) aspaldi irakatsi zigun bezala, *-ko* postposizioa gaineratzea postposizioari izen bat modifikatzeko: *antiojuak Txabirentzat*; *Txabirentzako antiojuak*. Bada, de Rijkek berak eta Elordietak (2001) ere zehaztu dutenez, postposizioek ez bezala, datiboak ezin du sekula *-ko* postposizioerik jaso: *\*Marineleiko abisua*.

**18.4.6e** Azkenik, azpimarratzekoa da izenondoko datibo gisa ager daitezkeen datiboak *helburuak* baino ez direla. Goian, adibidez, aipatu ditugun esperimentatzaileak edo jabe datiboak eta datibo hunkituak ezin daitezke inoiz ere testuinguru honetan agertu, eta besterik gabe ez-gramatikalak dira (Fernández eta Sarasola 2010): *\*gogorapena umeei*; *\*ahantzura umeei*; *\*begien argiketa itsuari*.

Datiboen artean, beraz, nolabaiteko asimetria dago izenaren ondoan joateko aukerari dagokionez: helburu datiboak postposizioira hurreratzen direla dirudi; aldiz, esperimentatzaileak edo jabe datiboak eta oro har datibo hunkituak ez dute postposizioen jokabidearen inongo aztarnarik.

### 18.4.7. Datiboa hautatzen duten aditzek besteko kategoriak: postposizioak adibide

**18.4.7a** Aditzek ez ezik, beste zenbait kategoriatako hitzek ere datiboa hautatzen dutela dirudi. Ihartutako zenbait postposizio sintagma ditugu euren artean, hots, *begira*, *beha* eta *zelatan*. Postposizio horiek iharturik daudela dirudi, ez baitira beste inongo postposizioekin ordezkutzen (*zuri begira nago* perpauseko *begira* formak ez du *begitik* edota *begian* motako forma erkide-rik). *Begira* aztertuko dugu adibide modura.

**18.4.7b** Ikus ditzagun bi adibide hauek: *itsasoari begira*; *itsasora begira*. Adibide horietan *begira* postposizioa da (§ 21.10.2). *Begira* postposizio ihar-tuak datiboa eskatzen du batzuetan eta adlatiboa besteetan, adibideetan ikus-ten denez, eta noiz bata eta noiz bestea erabakitzea ez da gauza erraza. Villa-santek dio (1983: 63) izena biziduna izanez gero, orduan datiboa hartzen duela: *Aneri begira*; *umeari begira*; *txakurrari begira*.

Dena den, datiboa ez da mugatzen bizidunetara, Fernándezek eta Ortiz de Urbinak (2010) Atxagaren nobela batez baliatuz ikusi dutenez. Izan ere, adibide sorta luze samar batean batzuk bizidunak dira, baina asko eta asko bizigabeak: *euritari begira*, *loreeri begira*, *paisaiari begira* —baita *paisaiara begira*—, *zaldiei begira*, *itzulbideari begira*, *bideari begira*, *kikarako kafeari begira*, *liburuari begira*. Eta batzuk besteak bezain gramatikalak, jakina.

Bestalde, lekuzkoak diren osagarriak adlatiboaz markatzen dira batez ere: *gora*, *behera*, *atzera*, *aurrera*, *iparrera*, *mendebaldera*, *itsasora*, *plazara begira*. Zernahi gisaz, horien kide datibodunak nahiko arruntak dira tokia adierazten duten izenekin: *Biak hesiaren kontra jarrita*, *etxeari begira* (I. Mendiguren); *Mendiari begira dago Padania* (Lertxundi); *Lehen zatian bezala*, *ordea*, *aurrera iritsi bai*, *baina ateari begira antzu zeuden* (Berria); *Isilik geratu ziren puska batean*, *jendeari eta plazari begira* (X. Aranburu) eta abar; (*itsasoari begira*, esaterako, oso arrunta da). Aldiz, tokiaren erreferentzia generikoa denean (*aurre*, *atze*, *inguru*, *goi*...) datiboak ez dira batere arruntak<sup>9</sup>, nahiz ez diren falta adibide

<sup>9</sup> Fernándezek eta Ortiz de Urbinak (2010) ez-gramatikaltzat jotzen dituzte holakoak.

batzuk: [...] *automobiletik irten eta, amildegiairen parean jartzen zela, batean beheari eta bestean goiari begira, halaxe oihukatu baitzuen, eskua ukabil eginik* (Irigoien); *Inguruari begiratu gabe ere plateretik ahora jakiak airean zebiltzan* (G. Mujika); *\*beheari, \*goiari, \*aldamenari edo \*aurreri begira, behera, gora, aldamenara edo aurrera begira* (Fernández eta Ortiz de Urbina 2010).

**18.4.7c** *Esker* hitza ere, kategoriaz izen hutsa dirudien arren, postposizio beregaina balitz bezala ere erabil daiteke, eta datibo osagarri bat hautatzen du, *buruz*-ekin ere gertatzen den gisan (§ 21.10.2): *Hizkuntzalaritzari esker, herri baten kontzientzian parte hartzen duzu* (Berria); *Naizena haiei esker naizelako* (Mitxelena); *Zuri esker, neurririk gabeko zorion hartaz izan nadila gai* (Leon); *Zuri esker bainai zigan aldare saindurat* (Iratzeder).

Nolanahi ere den, datiboa, eta bereziki *leku datiboa* hautatzen dute, genitiboarekin batera, ipar-ekialdeko hizkeretan zenbait postposizioek, hala nola *aitzin, barna, behera, buruz* (ez gara zertaz zentzuarekin ari hemen), *gora, kanpo* eta *kontra* postposizioek (Etxepare eta Oyharçabal 2008a eta 2008b): *paretari kontra; patarrari behera; patarrari gora; bata besteari aitzin; kanale bati barna; bi arte horier kanpo*.

Ipar-ekialdeko leku datibo hauen ordean, mendebaldeko eta erdialdeko hizkeretan, genitiboa edo inesiboa erabiltzen dira nagusiki: *etxearen kontra; aldapan gora; aldapan behera; basoan barna; basoan zehar; basoaz kanpo*. Leku datibo hauen aipamena aurki daiteke Lafitteren gramatikan (1944) edo Villasanteren lanean ere (1983).

## 18.5. Partitiboa

### 18.5.1. Zer den partitiboa

**18.5.1a** Euskal gramatiketan, oro har, partitiboa kasuen artean sartu izan da beti, “deklinabide” deitzen zen horretan, alegia (ikus EGLU-I, esaterako). Hemen beste esanahi bat emango diogu, egokiagoa, gure ustez. Partitiboa marka morfologiko bat baizik ez da (-ik), eta determinatzaile mota bat izan daiteke

(*oihanik*), edo adberbioak sortzeko bidea (*zutik*). Baina ez dugu kasuen artean sartzen, determinatzaile zehaztugabea denean berez absolutiboaren aldaera bat baizik ez baita (§ 18.2.4).

**18.5.1b** Partitiboa (*Negativus* deitzen zuen Oihenartek 1638an) beti zehaztugabea da, eta forma bakarra du. Ez du hartzen artikulurik, ez pluralik ere, hortaz. Forma *-ik* da, sintagmako azken osagaia kontsonantez bukatzen bada. Eta aurretik loturako *-r-* bat hartzen du (*-rik*) osagai hori bokalez amaitzen denean: *Ez baitzuen gizonik ezagutu bere biziko egun orotan* (Duvoisin); *Nik ez dut andrerik* (Labaien).

Badirudi jatorria ablatiboan duela. Gaur egun ere, zenbait mintzotan, arautua den *-tik* markaren ordez *-(r)ik* erabiltzen da, batez ere pluralean, ekialdeko hizkeretan: *Mendieta(r)ik handiena hango hura da; Nor da zueta(r)ik zaharrena?* eta abar.

**18.5.1c** Noski, zehaztugabea izanik, aditzarekin beti singularrean egin behar du komuntadura, eta inoiz ere ez pluralean: *Ez dut andrerik ezagutu / \*Ez ditut andrerik ezagutu.*

Ikusi hemen Euskaltzaindiaren 15. araua: “Partitiboaren erabilera okerra”, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua.

**18.5.1d** Partitiboaren marka, ohi denez, sintagma osoari ezartzen zaio: *Dena dela, ez genuen gehiago buru hauste handi-handirik* (Zerbitzari); *Soldadu bantentzat ez da hain heriotza ederrik nola arma eskuan etsaiari buruz hiltzea* (Lafitte); *Ezik zein da haren manamenduetan gogor egon-eta, bazterrerat utzia izan denik?* (Duvoisin).

## 18.5.2. Erabilera

**18.5.2a** Informazio hau egiturazko kasuen sailean biltzen badugu ere, partitiboaren erabilerak neurri batean bakarrik du zerikusia egiturazko kasuekin:

absolutiboaren aldaera denean (§ 18.2). Askotan, bestela, marka hori erabiltzen baitugu adberbioak edo esaera adberbialak sortzeko: *Oiloei atea goizik irekitzen zaie eta goizik hersten* (Duvoisin); *Ezen haur hark utzi zuen mundua goizik* (Joanategi); *Honela bakarrik ez dira izango alferrikakoak gure errukia eta malkoak* (Agirre); *Egin dun heuk nahi izan dunan guztia, eta pozik egongo haiz orain* (Etxeita). Horiek guztiak adberbiotzat hartu behar ditugu. Oinarrian izena (*poz-ik*), adjektiboa (*isil-ik*), adberbioa (*orain-(d)ik*), aditza (*ikusirik*) izan dezakete, baina testuinguru horietan adberbiotzat hartu behar ditugu (§ 22.6.6).

Badira ere esaera adberbialak, hitza errepikatuz sortzen direnak (itzuli hauek batez ere Hegoaldekoak dira): *Etixerik etxe erabiltzeko erosia izango da* (Agirre); *Mendirik mendi ibili ohi zen* (Etxeita); *Aterik ate ez badabiltza ere* (Mogel); *Zuk ikusiko duzu egun hartan zoazenean ihesi zokorik zoko ezkutatzen* (Uriarte); *Neurekin ibiltzen zen goizetan kalerik kale* (Erkiaga) eta abar. Hor sartzen dira *ordurik ordu*, *asterik aste*, *urterik urte* eta abar. *Egunik egun* esaera adberbialak hiru esanahi ditu (OEH): ‘egunero’ (*egunik egun ateratzen da egunkaria*); ‘egunetik egunera gehiago’ (*egunik egun aberatsagoa da*); ‘egun batean eta hurrengoan ere’ (*egunik egun neure bizia erretzen ari naiz*).

**18.5.2b** Baina adberbioa sortzen ez duelarik, partitiboa absolutiboaren aldaera bat da, neurri batean, operadore batek (ezezkotasunak, galderak...) eraginik erabiltzen duguna: *Hondartza ikusi dugu / Ez dugu hondartzarik ikusi / Ikusi duzue hondartzarik?*

**18.5.2c** Beste batzuetan perpaus batekin ikusiko dugu, eta holakoetan ere ki-deak ditugu ondoko bi perpausak: [*Etorriko dela*] *esan du* vs *Ez du esan* [*etorriko denik*]. Parekotasuna, orain, ez da determinazio mailan gertatzen, menderagailuan baizik. Baiezkoan menderagailu bat hartzen du, *-(e)la*, eta ezezko operadorearekin, ez nahitaez hala ere, beste bat, *-(e)nik*. Ohart gaitezen badirela bi aukera gehiago, *Ez du esan etorriko dela* eta *Ez du esan etorriko den*. Baina ez dugu hori atal honetan azalduko (§ 30.6.2.1, § 30.6.2.4). Hemen azpimarratu nahi dugu *-a/-ik* parekotasunaren antzekoa sortzen duela *-ela/-enik* parekotasunak ere. *Badakit etorriko dela* eta *Badakit etorriko dena* ere bere tokian azaltzen dira (§ 30.6.2.1, § 30.6.2.3). Zernahi gisaz, forma hutsez ari gara.



## 18.6. Genitiboa (-en)

### 18.6.1. Forma eta funtzioa

**18.6.1a** Genitiboari dagokion postposizioa *-en* da, eta bokalez amaitzen bada hitza *-r-* epentetiko bat eranstean da: *Jon-en*; *zein gizonen?*; *zein andre-ren?*; *zein/nor-en*; *Ane-ren*. Artikuluarekin, hortaz, *adiskide-a-r-en*. Eta pluralean *-en* egiten da (*-ak* artikulu + plurala desagerturik): *ikasle[-ak]-en* → *ikasle-en*.

Zenbatzaile zehaztuekin, forma berbera ageri dezakete idatzian artikuluga-beak eta artikuludunak, kontsonantez amaitzen bada hitza: *Bost lagunen etxeak dira hauek [bost lagun + -en / bost lagun + [-ak]+ -en]*.

**18.6.1b** Genitibozko sintagmek (izen sintagmari, § 15.2.2h, *-en* postposizioa erantsiz eratuak) izenlagun funtzioa hartzen dute (hots, adjektibalak dira), eta arruntean izenaren ezker aldean ageri dira, harekin sintagma osatuz: *[[Fernandoren] zapatak] dira*; *[[Gure] aitak] ez luke horrelakorik egingo*; *[[Iker-tzaile langilearen] lanak] aipatu nahi ditugu*.

Genitibozko izenlaguna kenduz gero ere, gramatikala da askotan izen sintagma, baina aldatua edo murriztua geratzen da interpretazioa, erreferentzia testuingurutik berreskuratu ezean: *Zapatak berriak dira*; *Aitak ez luke horrelakorik egingo*; *Lanak aipatu nahi ditugu*.

Adjektibo kalifikatzaile (atributibo) gehienak ez bezala, genitibozkoak izenaren osagarri argumentalak izaten dira. Aski garbi ikusten da hori honelakotan: *haien lehengusuak*; *etxearen gailurra*; *gure galbidea*; *Garbiñeren omenaldia*... Erlatibozko perpaus sinonimoa jartzen badugu korrelazioan, ikusiko dugu perpaus egiturazko kasuak aditzarekiko betetzen duten rol semantiko bera betetzen duela genitiboak izenarekiko: *Haiek lehengusu dituzte(nak)*; *Etxeak du(en) gailurra*; *Gu gal gaitzake(ena)*; *Garbiñeri egingo zaio(n) omenaldia*. Genitiboak forma-aukera bat bakarria izateak anbiguotasunak sortzake: *zezenaren beldurra* [*zezenak duena* / *zezenari zaiona*].

Ikuspegi horretatik, hala, gainerako egiturazko kasuak bezala, genitibozko izenlagunak ere osagarri argumentalak dira beti, edutezko adiera arruntekoak

barne: *Patxiren etxea* [*Patxik du(en) etxea*] (subjektu-genitiboa); *etxearen salmenta* [*etxea saldu dute*] (objektu-genitiboa). Hori dela eta, barra-barra ageri dira genitiboak nominalizazioekin eta antzeko izen argumentu-eskatzaileekin: *haurren jolasa* (*haurrak jolastu*); *irakaslearen jokabidea* (*irakasleak jokatu*); *zure amodioa* (*zuk duzuna / zuri dizutena*)...

**18.6.1c** Izenlagunak izenaren ezkerrean doaz. Batzuetan izena isildu daiteke: *Fernandorenak*; *gureak*; *langilearen*... Bestetik, izenlaguna bera ere izen sintagma ez ezik perpaus osoz eratua ere izan daiteke: *Horrek duen abilezia ikaragarria da* (ikus 31. kapitulua).

## 18.6.2. Erabilera

**18.6.2a** Joera nagusia, adibide horietan guztietan ikusten denez, izenlaguna izenaren ezkerrean paratzea da. Hala ere, badira kasu mugatu batzuk, non eskuinean jartzea ere posible den. Izen bereziekin arrunta da hori: *Gure Peru / Peru gurea*. Artikulua ezinbestekoa da holakoetan, sintagma modu egokian osatzeko: *\*Peru gure*.

**18.6.2b** Aditz kopulatibo baten predikatu atributiboa da anitzetan genitibo-zko sintagma (komuntadurazko artikulua daramala, hizkera gehienetan): *Kantu hau Benito Lertxundirena da*. Adibide horretan bezala, genitibo-zko sintagma mak adjektibatuko lukeen izen sintagma da halako perpausetan subjektua: *Benito Lertxundiren kantu hau*. Agian argiago adierazita: 1) *Kantu hau Benito Lertxundirena da*; 2) *Benito Lertxundirena den kantu hau*; 3) *Benito Lertxundiren kantu hau*.

**18.6.2c** Izenarekin duen erlazioa kontuan izanik, erlazio mota desberdinak adierazten ditu genitiboak: jabegoa (*aitaren etxea*, hots, ‘aitak duen etxea’; *gure dirua*, ‘guk dugun dirua’); agentea/tema (*aitaren etorrera*, hau da, ‘aita dator’); hartzailea (*aitaren kritika*, hau da, ‘aitari egin zaion kritika’). Jabegoaz gain, bestelako erlazioak adierazten dira honako adibide hauetan ere: *haren burua*; *Mikelen heriotza*; *zure lagun minaren aita*; *bizitzaren hasiera*; *haran*

*honen edertasuna; liburuaren lehenbiziko kapitulua.* Argi denez, beste erlazio mota franko ere adierazteko baliatzen gara kasu honetaz.

Horrenbestez, denda edo antzeko zerbaite bere jabearen izenarekin izendatzen denean, anitzetan baliatzen gara genitiboaz: *Etxeberriaren arrandegia* ('Etxeberriarena den arrandegia'). Beste horrenbeste norbaiten etxea aipatu nahi izanez gero: *Patxirenera joan naiz bazkaltzera* ('Patxirena den etxera joan naiz bazkaltzera').

Jakina, ez da pentsatu behar, horratik, osagarri izenlagun argumental *guztiak* direnik genitiboazkoak. Ugariak dira *-ko* atzizkiak eratuak ere: *etxerako tresnak*; *autonomoentzako laguntzak*; *erortzeko arriskua*; *hori esateko lotsa*, *beharra*...

**18.6.2d** Aditz izenaren objektua absolutiboan nahiz genitiboan joan daiteke hizkera batzuetan (§ 18.2.5): *Gauza ederra da euskara(ren) ikastea*; *Diamante bat(en) saltzera etorri natzaizu* eta abar.

Objektuak zentzu orokorra eta zehaztugabea duenean, genitiboaren ordeztu, oinarri forma har dezake: *Onddo biltzen ibili da*. Adizkia jokatua denean genitiboak ez du lekurik: *Gauza hauek (\*gauza hauen) esaten ditu*.

**18.6.2e** Hizkerako zenbait lokuziotan elipsia egiten dugu: *Gurean* ('gure etxean'); *Ez egin astoarena!*; *Ez egin gorrarena!*; *Beti tontoarena egiten*; *Kristorenak eman dizkio*; *Zureak egin du!* eta abar. Badira esapide eta erranairu anitz gehiago: *pozaren pozez*; *handiaren handiz*; *ikusaren ikusiaz*; *hondararren hondarreen*; *alderen alde*; *bururen buru*... Eta harriduretan ere bai: *Nire poza!*; *Ene dohakabea!*; *Ene galdua!*...

**18.6.2f** Postposizio askok genitiboa eskatzen dute: *elizaren ondoan*; *uraren gainean*; *nire inguruan*; *denon aurrean*; *Andoniren ordeztu*; *eskutitz honen birtartez*; *liburu batzuen arabera*; *espainolen antzera*; *euskara batuaren alde eta kontra*; *azken gerraren ondotik*; *nire baitan*... Kasu batzuetan postposizio itsatsia ken daiteke: *ur gainean*; *mahai azpian*; *ohe azpian*; *ni baitan*... Bizidunek beti behar dute marka hori, hala ere: *Andoniren ondoan*; *nire gainean* (*\*ni gainean*)...

**18.6.2g** Genitiboaren marka hau beste postposizio batzuen morfologian ere ageri da: *haurrarengatik*; *adiskideentzat*; *gizonarengan*; *zuregana*; *Andoni-rengandik*... Batzuetan absolutiboa ere balia daiteke funtzio berean: *Gabonak aurretik*; *diruagatik*; *nigan*...

**18.6.2h** Hitz eta predikatu konplexu batzuek genitibo hau eskatzen dute: *beldur izan*, *lotsa izan*, *herabe izan*, *zain izan*, *beha egon*, *mende egon*, *bila ibili*, *xerka joan/ibili*...: *Dentistaren beldur gara*; *Zure zain gaude*; *Mikelen bila gatzoz*; *Elkarren bete zeuden*... Baina marka gabe ere: *Etxe bila dabilta*; *Diru eske etorri zitzaidan*...

**18.6.2i** Zenbait euskalkitan ‘bat edo beste, bat edo bat, zenbait...’ adierazteko, izen sintagma genitibo zehaztugabea doa, eskuinean *bat* edo *batzuk* hartzen dituela: *Gazteren bat etorri da*; *Libururen batzuk erosiko ditugu*. Egitura bera zenbakiekin erabiliz gero, kopuruaren gutxi gorabeheratasuna adieraz daiteke: *Hogeiren bat urte ditu gure adiskide horrek* (= ‘hogei bat’, ‘hogei inguru’); *Hamabosten bat tona galdu dira* (= ‘hamabost bat’, ‘hamabost inguru’); *Baten bat etorri da* (= ‘norbait’, ‘gutxi batzuk’). (Ikus 16. kapitulua: “Zenbatzaileak”).

**18.6.2j** Euskara zaharrean, postposizio honek *-entzat* postposizioaren balioa du: *Hainbat gaiztoago zure* (Hainbat gaiztoago zuretzat); *Deabruen dela!* (Deabruentzat izan dadila). Zenbait euskalkitan oraingoz mantentzen dira hola-lako esamolde ihartu batzuk: *Adio zuen!* (Adio zuentzat, zuei); *-Esker mila, -Ez da zeren!* (Ez da zerentzat, zergatik).

**18.6.2k** Esan dezagun, azkenik, batzuetan ez dela batere erraza zehaztea zer den egokiago, *-en* edo *-ko* erabiltzea: *etxeko teilatua* edo *etxearen teilatua*? Beste batzuetan, esanahi desberdina dute bata eta besteak: *elizaren isiltasuna ez da elizako isiltasuna*; *elizaren hormak* eta *elizako paretak*; *hamar euroren kafea* eta *hamar euroko kafea*. Badirudi edukitzailea pertsona edo biziduna izanik, *-en* eskatzen duela: *Andoniren bizitza*. Postposizio askeekin ere *-en* erabiltzen da, eta ez *-ko*: *etxearen aurrean*. Aldiz, toki edo denbora bati dagokion delako erlazioa adierazi nahi bada, *-ko* maizago: *etxeko giltzak*; *arratsaldeko autobusa*. Baina beste kasu asko ilunagoak gertatzen dira (ikus *-ko* postposizioa § 21.8).

## 19. Postposizio sintagmak (I)

---

19.1. Postposizio sintagmak eta egiturazko kasuak

19.2. Postposizio itsatsiak

19.3. Postposizio askeak

19.4. Leku/denborazko PSak eta leku/denborazko ez direnak

19.5. Leku/denborazko PSen ezaugarri morfologikoak; 19.5.1. Bereizgarri nagusiak; 19.5.1.1. *-TA-* artizkia; 19.5.1.2. *-GA-* postposizioa; 19.5.1.3. Artikulurik ez agerian; 19.5.2. Laburbilduz

---

### 19.1. Postposizio sintagmak eta egiturazko kasuak

**19.1a** Postposizio sintagmak eta egiturazko kasuak bereizten ditugu gramatika honetan (*egiturazko kasuak* 18. kapituluaz aztertzen dira). Egia da egiturazko kasu deitzen ditugunak, *absolutiboa* (§ 18.2), *ergatiboa* (§ 18.3), *datiboa* (§ 18.4) eta baita *genitiboa* ere (§ 18.6), postposizioen bidez osatzen direla: *-k* ergatiboan, *-i* datiboan, *-en* genitiboan eta *-ø* postposizioa absolutiboan. Marka horiek, berez, *inesiboarena* (*mendia-n*) edo *adlatiboarena* (*mendi-ra*) edo *instrumentalarena* (*euskara-z*) eta abarrena bezain postposizio dira. Hortaz, denak ere postposizio sintagma (PS) lirateke. Hala ere, egiturazko kasuak eta PSei modu desberdinean jokatzen dute zenbait arlotan. Beraz, bi sintagma motak bereizteko eskubidea badugu: bereiziak dira, bai esanahiari dagokionez, bai osatzeko formaz eta bai sintaxiaz.

**19.1b** Esanahiari dagokionez, adibidez, PSek adiera jakina izan ohi dute gehienetan, egiturazko kasuek ez hainbeste. *-n, -tik, -ra, -z, -(r)ekin, -(ren)gatik* eta abarrek adiera zehatz samarra izan ohi dute: inesiboak lekutasuna adieraztea oso berezkoa du, edo adlatiboak norabidea adieraztea ere bai. Aldiz, ergatiboak edo absolutiboak, esaterako, esanahia izatekotan, askoz lausoagoa da esanahi hori. Adibidez: *Mikelek* (erg.) *Jone atsegin du nahiz Mikeli* (dat.) *Jone atsegin zaio*, edo *Irakaslea* (abs.) *gogor mintzatu da / Irakasleak* (erg.) *gogor hitz egin du*.

Kasu batean ergatiboak eta datiboak adiera bertsua dute, eta bestean ergatiboak eta absolutiboak ere bai. PSetan buruak markatzen du, hein handi batean, sintagmaren esanahi nagusia; egiturazko kasuetan beste kontu bat da. Horrexegatik, PSetan ere adiera bat dutenak eta beste bat dutenak bereiziko dira: leku/denborazko deitzen ditugunek lekua edo denbora adierazten dute funtsean; adibidez: *Mendian bizi da; Donostiara goaz; Etxetiki nator...* Bestelako esanahia dutenak ere badira (konpainia, modua, instrumentua, zergatia, helburua eta abar adierazten dutenak): *Zurekin bizi nahi dut; Gutaz oroitu da; Gurasoentzat erosi dut oparia; Zuregatik edozer egingo nuke...* Hemen postposizioek berezko esanahia dute, egiturazko kasuetan ez bezala.

**19.1c** Esanahiaz aparte, sintaxiari eta morfologiari dagozkien diferentziak ere nabarmenak dira. Esaterako, absolutiboak, ergatiboak eta datiboak aditzaren komunztaduran eragina dute, PSek ez bezala: *Etxe hori* (abs.) *guk* (erg.) *erosi diogu alabari* (dat.) (guk-etxea-alabari... diogu) vs *Etxe horiek* (abs.) *zuek* (erg.) *erosi dizkiguzue guri* (dat.) (zuek-etxe horiek-guri...). Baina *Etxe honetan* (ines. sing.) *dago osaba* (abs.) esan dezakegu nahiz *Etxe hauetan* (ines. pl.) *dago gure lehengusua* (abs. sing.) edo *Etxe honetan* (ines. sing.) *bizi dira gure lehengusuak* (abs. pl.); *Zutaz* (instr.) *mintzatu da Mikel* (abs.) vs *Nitaz* (instr.) *mintzatu da Mikel* (abs.), baina *Zutaz* (instr.) *mintzatu naiz ni* (abs.); *Etxe honetan* (ines. sing.) *bizi da / Etxe hauetan* (ines. pl.) *bizi da*, baina *Gure lehengusua* (abs. sing.) *bizi da* dugun lekuan, *Gure lehengusuak* (abs. pl.) *bizi dira* izango genuke. Alegia, egiturazko kasua erakusten duten sintagmek aditzaren komunztadurari eragiten diote; aldiz, PSek ez.

Bestalde, PS batzuek (instrumentalak eta leku/denborazkoek) badituzte zenbait berezitasun morfologiko. Esaterako, inesiboan, determinatzailea erakuslea denean, edo plurala denean, *mendi eder hone-ta-n* diogu, eta ez *\*mendi eder hone-n*, edo, instrumentalean, *mendi eder hon-e-ta-z*, eta ez *\*mendi eder hon-e-z*. Egiturazko kasuetan ez dugu holakorik: *mendi eder hon-e-k* esaten da ergatiboan, eta ez *\*mendi eder hon-e-ta-k*.

**19.1d** Diferentzia gehiago ere badira. Adibidez, *-en* eta *-koren* aurrean jokatibide desberdina dute egiturazko kasuek eta PSeK: perpaus mailan agertzen diren absolutiboa, ergatiboa eta datiboa IS mailan agerrarazi nahi baditugu, izenlagun gisa, *-en* genitiboaz baliatzen da euskara: *Aitak* (erg.) *amari* (dat.) *gona gorria* (abs.) *erosi dio* perpauseko ISak genitibo bidez ematera behartuak gaude, beste IS baten osagai gisa agerrarazi nahi baditugu.

Nominalizazioetan, adibidez: *aitaren erosketa*, *amaren erosketa* nahiz *gona gorriaren erosketa* esango dugu. PSen kasuan, ordea, lan hori egiten duena ez da *-en* genitiboa, *-ko* postposizioa baizik. *Donostiatik hamarretan ateratzen da trena* perpausa IS gisa gauzatu nahi bada, honelatsu gerta liteke: *Donostiako hamarretako trena*, adibidez, eta ez *\*Donostiaren \*hamarren trena*; *Zu* (abs.) *gauean* (ines.) *ibiltzen zara*, baina *Gaueko zure ibilerak*. Alegia, *zu* absolutiboaren ordez *zure* genitiboa ematen dugu, baina *gauean* inesiboaren ordez, *gaueko*.

Hortaz, *-en* eta *-ko* postposizioek ongi markatua dute beren eginkizuna: ergatiboa, absolutiboa eta datiboa *-en* genitiboz ‘janzten’ dira, eta denak ere egiturazko kasuak direla esango dugu. Aldiz, perpaus mailan inesiboak, adlatiboak, ablatiboak, instrumentalak eta abarrek IS baten barruan lan egin behar dutenean *-koren* beharra dute: *mendi(ra)ko*, *hemengo*, *egun honetako*, *zure ondorengo*... Orain [... *-ko*] PSak ditugu. Laburbilduz: *-en* genitiboa egiturazko kasuekin lerratzen da, eta *-ko* postposizioa, berriz, PSei itsasten zaie. Denak ere, berez, PSak direla kontsidera zitekeen, gorago esan den moduan, baina batzuk egiturazko kasutzat hartuko ditugu, PS deitura besteentzako utzita: *mendia*, *mendiak*, *mendiari*, *mendiaren* sintagmak, hortaz, egiturazko kasua duten sintagmak dira. Aldiz, *menditik*, *mendian*, *mendirra*, *mendiko*, *mendirra-ko*, *mendiaz*, *mendiagatik*, *mendiarentzat*... PSak.

## 19.2. Postposizio itsatsiak

**19.2a** Arestian aipatu dugu PSek morfologia berezia erakusten dutela. Morfologiaren ikuspegitik betiere, PSen buruak (postposizioak, alegia) bi mota berezitan bana daitezke: morfema itsatsiak dira batzuk, eta morfema askeak besteak.

Horrela, *igande-an*, *mendi-ra*, *etxe harta-tik*, *gu(re)-gatik*, *zure-kin*... sintagmetan ageri diren *-n*, *-tik*, *-ra*, *-kin*, *-gatik*... postposizioak morfema itsatsiak direla diogu, ezkerreko osagaiari itsatsirik baitoaz, hitz bakarra osatuz. Morfe-mok ezin ditugu libre utzi, ezkerrean daraman atalari itsatsi beharrekoak dira. Adibidez: {*Igande euritsu hartaz / Lehengo igandean*} *maiz gogoratzen naiz* ([<sub>PS</sub> [<sub>IS</sub> *igande euritsu har-*] [<sub>P</sub> *-ta-z*]] / [<sub>PS</sub> [<sub>IS</sub> *lehengo igandea*] [<sub>P</sub> *-z*]]). Halaber, postposizio itsatsiak dituzte honako sintagma hauek: {*Azken ikaslearengatik / Ikasle berriarengatik*} *haserretu da irakaslea* ([<sub>PS</sub> [<sub>IS</sub> *azken ikaslea-*] [<sub>P</sub> *-ren-ga-tik*]] / ([<sub>PS</sub> [<sub>IS</sub> *ikasle berria-*] [<sub>P</sub> *-ren-ga-tik*]]). Postposizio itsatsi hauek ohiko euskal gramatiketan ‘deklinabide’-paradigmetan jasotzen dira. Gu hemen bestelako azalpena eskaintzen saiatuko gara, egiaz deklinabidea duten hizkuntzen oso bestelako jokamoldea baitu euskarak (§ 1.3).

**19.2b** Morfema itsatsi hauen artean, batzuk postposizio soilak dira: *-n* inesiboa, edo *-z* instrumentala, adibidez. Beste batzuek, berriz, konplexuagoak dirudite: *-tik*, esaterako, historikoki *-ti-k* gisa eraturia dagoela pentsa liteke, edo *-gatik* kausazkoak beste osagai bat gehiago ere baduela dirudi, tartekatua: *-ga-*. *-(r)ekin* edo *-(r)e(n)gan* ere konplexuagoak dira: *-re-ki-n*, *-(ren)-ga-n*; biek ere *-n* inesiboa dute buru, baina horrek aurretik *-re-ki-* edo *-(r)en-ga-* osagaiak ere baditu gehituak, eta denak osorik morfema konplexutzat hartzea zilegi da: *-kin* nahiz *-gan*. Dena batera hartuz gero, postposizio konplexu itsatsiak direla esan genezake.

## 19.3. Postposizio askeak

**19.3a** *Igandean gero*, *gure ondoren*, *denon kontra*, *telebistaren bitartez*, *zure eruz...* Postposizio sintagma horiek ere eskuin muturrean postposizio bat daramate, baina oraingoan postposizio hori askea dela esango dugu; esaterako, *bidez*,



*bitartez, erruz, gainera, gero, kontra, ondoan, ondoren...* postposizio askeak deitzen ahal ditugu, ezkerreko osagaiarekin ez baitute ‘bat egiten’ hitz bakarra osatzeko. Hitz solte gisa lan egiten dute eta hiztegieta ere hala agertu ohi dira: *Igan-deaz gero, ez dut ikusi* ([<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *igande -a-z*] [<sub>P</sub> *gero*]]); *Gidariaren ondoan eseri naiz* ([<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> *gidariaren*] [<sub>P</sub> *ondoan*]]). PSaren burua postposizioa da orain ere.

**19.3b** Holako asko, hala ere, adberbiotzat hartu ohi dira, ezeri postposatuak ez direlarik: *alde, aurrean, gainera, gero, gora...* (*alde mintzatu zen; aurrean daukazu; gero etorriko naiz; gora gu eta gutarrak!...*). Hain zuzen, badira hizkuntzalariak ohiko adberbioak eta hemen hizpide ditugun postposizioak kategoria bereko direla aldarrikatzen dutenak: ohiko adberbioak (*beti, gora, hemen, inoiz...*) osagarriak gabeak izango lirateke, eta osagarria eskatzen dutenak, berriz, egiazki postposizio izango lirateke: *arabera, baitan, bitartez...* Beste batzuek, berriz, bietara jokatzeko dutela esan liteke: (*Proposamenaren*) *alde bozkatu dugu; (Bizikletaren) gainera igo zen...*

**19.3c** Postposizio hauek guztiek, itsatsiek nahiz askeek, era bertsuan lan egiten dute: sintagmaren buru dira eta ezkerretara osagarri bat dutela lan egin dezakete. PS = IS+P gisa irudikatuko genuke, xehetasunetan sartu gabe. Kontuan hartzekoa da, dena dela, morfema itsatsien eta askeen partiketa honetan, itsatsi gisa lan egiten duten zenbait postposizio, jatorrian elementu askeak zirela: gramatika paradigmatan jasotzen diren (*-en*)-*ga-n*, (*-en*)-*ga-n-dik*, (*-en*)-*ga-tik*, *-(r)e-ki-n* eta abar, adibidez, halakotzat har litezke. Hauetako asko, bestalde, *-en* genitiboaren laguntzaz eraikiak daude. Pentsatzekoa da genitiboaren ostekoa (*-ga-n*, *-ki-n...*) jatorriz izen kategoriakoa edo dela, berez. Hau guztiz argia gertatzen da postposizio aske deitu ditugun askotan ere: *zure mahaiaren azpi-an; iturriaren ondo-an; haitzaren gain-ean; gutun honen bide-z; zure bitarte-z; zure baita-n...*

Lehen *-gan* postposizio itsatsia dela esan dugu. *Baitan* postposizioak, aldiz, balio-kidea izan arren, postposizio aske gisa lan egiten du (*neuregan / neure baitan*).

**19.3d** Hortaz, postposizio itsatsi batzuk soilak dira (*-n*, *-ra*, *-z...*), eta beste batzuk konplexuak (*-ga-tik*, *-gan-a...*). Postposizio askeak (*baitan, gainean, bitartez...*) konplexuak dira lehenagoko beste PS batetik sortuak: *baita-n, gain-e-an, bitarte-z...* Batzuek, gainera, historikoki PS aske gisa sortuak izan

arren, gaur postposizio itsatsi gisa lan egiten dute: *-(en)-gan*, *-(en)-gatik*, *(-e)-kin*, *(-en)-tzat*...

## 19.4. Leku/denborazko PSak eta leku/denborazko ez direnak

Adierari dagokionez, PSak beste bi multzo bereizitan bana ditzakegu: leku/denborazkoak batetik, eta leku/denborazkoak ez direnak bestetik (20. eta 21. kapituluetan aztertzen dira).

Leku/denborazko postposizioetan *-tik* ablatiboa (*liburu honetatik*) (§ 20.2), *-n* inesiboa (*liburu honetan*) (§ 20.1) eta *-ra* adlatiboa (*liburu honetara*) (§ 20.3) dira oinarrizkoak. Hauetatik eratorriak dirateke: *-raino* (< *-ra-ino*) (*herri honetaraino*); *-rantz* (< *-ra-(a)ntz*) (*herri hartarantz*); *-(ra)ko* (*egun honetarako*).

Leku/denborazko ez direnen artean *-z* instrumentala (*pazientzia-z*, *ni-ta-z*) (§ 21.6), eta beste honako postposizio konplexu hauek jasoko ditugu: *-(en)gatik* kausazkoa (*zu-re-gatik*) (§ 21.3); *-(r)e*kin konpainiazkoa (*gu-re-kin*) (§ 21.2); *-(r)en*tzat helburuzkoa (*txakurr-en-tzat*) (§ 21.4).

Bereizketa hau postposizio itsatsietan ez ezik (*etxea-n*, *etxe-tik*, *etxea-(ren)gatik*, *plaza berri-ra*, *igandea-n*, *ostegun-e-tik*...), postposizio askeetan ere gertatzen da: *etxearen aurrean*, *egun horren ondoren*... leku/denborazkoetan, eta baita leku/denborazko ez direnetan ere: *herriaren alde*, *gure bitartez*, *gobernuaren erruz*... Ohiko adverbioen gainean eraikitako PSetan ere bai: *hemen*, *hor*, *han*, *gero*, *gaur*, *atzo*... leku/denborazko adverbioak dira; *biziki*, *egiaz*, *zinez*, *guztiz*, *ongi*, *gaizki*... ez (§ 22.4, § 22.5).

## 19.5. Leku/denborazko PSen ezaugarri morfologikoak

### 19.5.1. Bereizgarri nagusiak

Leku/denborazko PSak bereziak dira, bai esanahiaren aldetik, baita morfologiaren eta sintaxiarenetik ere. Hiru bereizgarri morfologiko aipa genitzake:

- *-ta-* artizkia (*bi herri-ta-n, taberna hone-ta-ra, bazter guztie-ta-tik...*). Egiturazko kasuetan ez da holakorik ageri (*bi herri-ri, taberna hon-i, bazter guzti-e-k, txakurr-e-n jabe-e-k...*). (§ 19.5.1.1);
- *-(en)ga-* postposizioa, izaki bizidunez ari garenean (*amaren-gan-a/\*ama-ra; hautesleen-gan-dik vs hautesle-e-ta-tik...*). (§ 19.5.1.2);
- hirugarren diferentzia da, inesibotik kanpo behintzat (*etxean, lurrean*), mugatu singularrean artikuluaen arrastorik ez dela: (*etxetik/\*etxeatik; etxera/\*etxeara; etxeraino/\*etxearaino...*). (§ 19.5.1.3).

### 19.5.1.1. -TA- artizkia

**19.5.1.1a** Leku/denborazko PSetan, zenbaitetan, *-ta-* morfema agertzen da determinatzailearen eta postposizioaren artean: *bi enpresa-ta-n, bi-ta-n, etxe guzti-e-ta-ra* (< ... *guzti-ak-e-ta-ra* < ... *guzti-ak-ta-ra*)... Artizki hau honako kasu hauetan agertzen da:

**19.5.1.1b** Erakuslerik baldin bada: {*Etxe honetan / \*etxe honen*<sup>1</sup>} ez dago bizitzarik; {*Ondorio hauetara / \*ondorio hauera*} iritsi naiz. Bestetik, *-z* instrumentalarekin ere gertatzen da, instrumentala leku/denborazko ez izan arren: *etxe honetaz, ondorio hauetaz...* Izenordainetan ere bai: *nitaz, gutaz...*

**19.5.1.1c** Mugatzailea plurala denean: {*Arboletara/\*arbolera; Arbola guztietara / \*arbola guztiera*} igo ziren haur batzuk. Mugatzailea plurala ez bada, ez dago *-ta-*rik: {*Arbolara/\*arbolatara*} igo ziren haurrak.

**19.5.1.1d** Ohar bat, hala ere, izen berezietz. Maiz mugagabetzat ematen badira ere, izen bereziek ez dute onartzen *-ta-*rik: *Igeldon/\*Igeldotan, Bilbora/\*Bilbotara...* Hau kontuan hartuta, esan beharko dugu mugatzailerik ez duten izen mugatuak direla eta berez osatzen dituztela IS mugatuak: *Igeldon, Igeldotik...* *Karmelegan, Karmelegandik...*

<sup>1</sup> Inesiborako okerra litzateke; ez, ordea, genitibo gisa: *etxe honen jabea* erabat zuzena da.

Izen propioak berez dira mugatuak eta horregatik ez dute behar, ez mugatzailerik, ez eta inongo *-ta-rik* ere. (§ 12.3.2): {Londresen/\*Londresetan} *izan ginen*; Bilbon/\*Bilbotan bizi naiz. (cf. Zein menditan / \*zein mendin izan zineten?). Gorago esan bezala, mugatzailerik agertu ez arren, izen propioak berez dira mugatuak. *Mendi* bezalako izen arrunt batek artikulua edo determinatzailearen bat behar du erreferentzia izateko: mendian, mendietan, bi menditan, bi mendi hauetan eta abar. Aldiz, *Bilbo* edo *Ataun* bezalako izen bereziek ez dute ezeren beharrik erreferentzia markatzeko.

Baina izen arrunt gisa ere erabiltzen ahal dira berez izen bereziak direnak (§ 12.3.2c). Orduan nahitaezko gertatzen da *-ta-* txertatzea. Adibidez, *Lasarten bizi naiz* dioenak *Lasarte* jakin bat du gogoan, baina solaskideak *Lasarte* bat baino gehiago direla baldin badaki, galde dezake: *Zein Lasartetan, Donostia ingurukoan ala Gasteiz aldekoan?* Hemen, nolabait, *Lasarte* izen arrunt bihurtu dugu, eta orduan *zein* (edo *bi*, *asko*, *-ak* edo erakusleren bat) agertzea nahitaezko gertatzen da.

**19.5.1.1e** Zenbatzaileekin eta determinatzaile zehaztugabeekin ere agertzen da *-ta-*: {Bi egunetan / bitan} *etorri da*; *Zerbaitetan eman behar da denbora*; *Zer ordutan etorri zara?* *Zertan igarri diozu?*

*Zer ordutan, bitan* eta holako sintagmak mugagabeak direla esan ohi da. Zehazkiago mintzatuz, artikulurik gabeak direla esan beharko genuke. Garbi dago *-ta-* morfema determinatzaile zehaztugabeekin batera doala (zertan, zeinetan, zenbaitetan...), eta zenbatzaileekin (bitan, hamarretan, askotan, guztietan).

Determinatzailea erakuslea denean ere (*etxe honetan*, *horretan*, *oztopo bere-tan*...) edo mugatzailea plurala bada (*etxeetan*, *kale bustietan*...).

Galde liteke, halaber, zenbatzaileekin eta pluralean agertzen den *-ta-* artizki honen eginkizunaz. Ez da erraz erantzutea (Azkarate eta Altuna 2001: 116-118). Hala ere, batzuetan nolabaiteko ‘masa’ adiera du, nonbait, artizki honek (ikus Rotaetxe 1978: 519). Horregatik, *neskatan ibili* edo *bazegoen ardotan!* modukoekin, *elurretan ibili* edo *eguzkitan etzan* diogunean bezalaxe, *continuum* bat adierazten dugu, masa bat, nolabait. Kuantifikazioarekin eta determinazioarekin lotua ageri da, nolana ere.

**19.5.1.1f** Eta azkenik, egin litekeen beste galdera da artizki hau zergatik agertzen den erakusleetan eta izenordainetan, eta zergatik ez gainerakoetan: *liburu honetan* baina *liburu honek* (ez \**liburu honetak*); *zeinetan* baina *zeini* (ez \**zeinetari*); *hiru liburutan* baina *hiru liburuk* (ez \**hiru liburutak*). Eta instrumentalak ere zergatik jokatzen duen jokatzen duen bezala, *zilarrez egina* baina *ostutako zilarraz hitz egin zuen* eta, batez ere, *ostutako zilar hartaz ez zuen hitz egin nahi* esaten den (§ 21.6.1).

### 19.5.1.2. -GA- postposizioa

**19.5.1.2a** Sintagma [+animatua] bada, horrek eragina du PSen forman. Sintagma animatuetan -ga- (edo *baita*) postposizioa tartekatuko da ISaren eta leku/denborazko postposizioaren artean, -en genitibo markaren ondoren: *irakaslearen-ga-n*, *inoren-ga-n-dik*, *Olatzen-ga-n-a*, *ministroaren-ga-n-a-ino...*

**19.5.1.2b** Genitiboaren marka bera aukerakoa gertatzen da zenbait kasutan: *Patxigandik* (= Patxirengandik) *ez nuen besterik espero*; *Ez dakit zer ikusi duen guban* (= guregan).

**19.5.1.2c** Honen baliokidea da ekialdeko euskalkietako (-en) *baita-n*: *Sinesten dut Jainko Aita(ren) baitan* (= Jainko Aita(ren)gan); *Gaiztakeriaren landare-a sustraitua du bere baitan* (= beregan). (§ 18.6.2f).

### 19.5.1.3. Artikulurik ez agerian

**19.5.1.3a** PSa [+mugatua, +singularra, -animatua] denean, artikulurik ez da agerian. Hau da leku/denborazko PSetan aurkitzen dugun beste ezaugarri bat. Erreparatu honi: *Etxe gorri-tik dator txakurra* / \**etxe gorri-a-tik...*; *Etxe gorri-ra hurbildu ginen* / \**etxe gorri-a-ra...* Hots, sintagmok mugatuak izan arren, mugatzailerik ez dute agerian. Artikuluaren orde z erakuslea agertzeko ez da oztopo handirik: *etxe gorri hartatik/hartara/honetara...*

**19.5.1.3b** Ergatiboan edo datiboan, konparazio baterako, mugatzailea agerian ematen da (§ 18.3.1 eta § 18.4.1): *etxe gorriak* / \**etxe gorrik*; *etxe gorriari* /

\**etxe gorriri*. Inesiboan, ordea, bada itxuraz artikulu dela dirudien *-a-* bat: *Etxe handian bizi da*; *Kalean agurtu dugu*. Baina sintagma kontsonantez amaitzen delarik, *-e-* bokal epentetikoa txertatzen da (§ 20.1.2e): *Leku onean* / \**leku onan utzi nauzu*; *Gau ilunean* / \**gau ilunan galdu zen*. Inesibo mugatu singularrean gertatzen da hori. Baina \**leku onan* ezinezkoa den bitartean, *leku onak* (ergatiboa), *leku onari* (datiboa) esaten dugu, eta ez \**leku oneak*, \**leku oneari*. Gainerako leku/denborazko PSetan ez dago artikulurik, baina bai *e-*ren epentesia: *sudurrean*, *sudurretik*, *sudurrera*...

Inesiboan artikulu itxura duen *-aren* aurrean agertzen den *-e-* epentetiko horrek iradokitzen du ondoren datorren *-a* osagaia ez dela, espero genukeenaren kontra, artikulua, baizik eta kontsonantez hasten den beste zerbait. Kontsonantez hasiko litzatekeen osagai hori *-ga* dela aldarrikatzen du de Rijk (1981). Gauzak hala badira, *-e-*ren tartekatzea erraz azal daiteke, zeren *-a* itxuran agertzen den hori egiazki *-ga* balitz, azken batean bi kontsonante elkarren ondoan izango genituzke, eta horrek eskatuko luke gure *-e-* bokal misterioitsu horren tartekatzea (Jacobsen 1977; Rotaetxe 1978; de Rijk 1981; Mitxelena 1981; Azkarate eta Altuna 2001; Manterola 2006). Hortaz, hipotesion arabera, goiko sintagmen azpian, honako egitura hauek izango genituzke: *leku on + ga -n* > *leku on-e-gan* > *leku onean*.

**19.5.1.3c** Inesiboan, bada, kontsonante baten eta *-ga* edo dena delakoaren artean, *-e-* txertatzen bide da: [... *ezker-e-ga-*], [... *ilun-e-ga-*]. Ondoren, bokal arteko *-g-* kontsonantea hutsean geldituko litzateke: *-egan* > *-ean*. Gainerako PSetan ere *-e-* horixe agertuko da: *mendi-tik* baina *adarr-e-tik*. Baina arestian esan den bezala, hauetan ez da artikulua arrastorik, eta honek ere bere azalpena behar luke.

## 19.5.2. Laburbilduz: leku/denborazko PSen bereizgarri morfologikoak

### 19.5.2a IS [-animatua]

– **-ta-n**, **-ta-tik**, **-ta-ra**, **-ta-raino**...

a) erakusleekin (*etxe honetan*, *baso haietan*...)

- b) zenbatzaileekin (*zenbait (etxe)tan, leku askotan, hiru (etxe)tan...*)
- c) *-ak* mugatzaile pluralarekin (*etxeetan, eskola guztietan...*)
- *-a* mugatzaile ez, inesiboan salbu (*etxean vs etxetik, etxera...*)

#### **19.5.2b IS [+animatua]**

- (-en)-**ga**-n, (-en)-**ga**-n-dik, (-en)-**ga**-n-a... (*Jonengan, lagunengandik, zu(re)gana...*)





## 20. Postposizio sintagmak (II): Leku/denborazkoak (inesiboa, ablatiboa eta adlatiboak)

- 
- 20.1. Inesiboa: *-N* ('non', 'noiz', 'zertan'...); 20.1.1. Inesiboa, oinarritzko PSa; 20.1.2. PS inesiboaren morfologia; 20.1.3. PS inesiboaren funtzio sintaktikoa; 20.1.4. Inesiboaren adiera; 20.1.4.1. Leku; 20.1.4.2. Denbora; 20.1.4.3. Jarduera; 20.1.4.4. Prezioa; 20.1.4.5. Modua; 20.1.5. Inesiboa leku/denborazko PSen oinarrian
- 20.2. Ablatiboa: *-TIK/-RIK*; 20.2.1. PS ablatiboaren morfologia; 20.2.1.1. *-TIK* eta *-(R)IK*; 20.2.1.2. *Harik/honik/arean*, adberbio ihartuak; 20.2.1.3. Morfema bat baino gehiago; inesiboa oinarrian; 20.2.1.4. Postposizio sintagma ablatiboa:  $[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] -TIK]$ ; 20.2.2. PS ablatiboaren funtzio sintaktikoa; 20.2.3. Adiera
- 20.3. Adlatiboak:  $[\dots -RA]$ ;  $[\dots -RAINO]$ ;  $[\dots -RANTZ]$ ;  $[\dots -(RA)KO]$ ; 20.3.1. PS adlatiboaren morfologia:  $[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] \{- (R)A / -RAINO / -RANTZ / -(RA)KO \}]$ ; 20.3.1.1. Adlatiboa<sub>1</sub> ('nora'):  $[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] \{- (R)A \}]$ ; 20.3.1.2. Muga adlatiboa ('noraino'):  $[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] \{- (R)A-INO \}]$ ; 20.3.1.3. Hurbiltze adlatiboa ('norantz'):  $[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] \{- (R)A-NTZ \}]$ ; 20.3.1.4. Adlatibo destinatiboa ('norako'/'noizko'/'zerta(ra)ko'):  $[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] \{- (R)A-KO \}]$ ; 20.3.2. PS adlatiboaren funtzio sintaktikoa; 20.3.3. Adlatiboaren adiera; 20.3.3.1.  $[_{PS} \dots -RA]$  adlatiboak adiera bat baino gehiago izan ditzake; 20.3.3.2.  $[_{PS} \dots -RAINO]$  adlatiboaren adiera; 20.3.3.3.  $[_{PS} \dots -RANTZ]$  adlatiboaren adiera; 20.3.3.4.  $[_{PS} \dots -RAKO]$  adlatiboaren adiera
- 20.4. Leku/denborazko PSak laburbilduz
-

## 20.1. Inesiboa: -N ('non', 'noiz', 'zertan'...)

### 20.1.1. Inesiboa, oinarrizko PSa

Leku/denborazko PSetan inesiboa da oinarrizkoena: [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ...] -N]. Beste guztiak inesiboaren gainean eraikiak direla pentsa liteke. Hori argi ikusten da batzuetan: *zuga*n inesiboaren gainean eraikiak dira *zuga*n-dik / *zuga*n-a, adibidez.

Baina, hain agerikoa ez izan arren, *mendikoren* 'azpian' adibidez, *mendian-ko* dagoela ere onartzen ahal da (Mitxelena 1971, 1972a). Eta bide honetatik jarraiki, beharbada, *menditik*, *mendira*... sintagmetan ere inesiboa badugula onartzen bada, zenbait azalpen erraztuko dira. Horregatik, inesiboa aurkeztuko dugu lehenbizi eta, ondoren, gainerako postposizioak, *-ko* bera barne.

### 20.1.2. PS inesiboaren morfologia

**20.1.2a** Inesiboari dagokion postposizioa *-n* da: *Bilbon*n, *herrian*n, *ikastolan*n, *etxe honetan*n, *zein lanetan*n; *guga*n, *gure baitan*n; *zure ondoan*n, *neure artean*n...

**20.1.2b** Leku/denborazko zenbait adberbio ohikotan ere agerian dago inesiboaren marka, eskuinaldean: *aurten*n, *hemen*n, *han*n, *herenegun*n, *non*n, *nonbait*n, *inon*n... Beste batzuetan, berriz, klase bereko adberbioak izan arren, ez dute horrelako markarik: *atzo*, *beti*, *gaur*, *gero*, *hor*, *inoiz*, *noiz*... Edozein modutan, hauek ere inesiboak direla onar daiteke, banaketa bera baitute; denak testuinguru berean ageri ohi dira: adibidez, denak izan daitezke *-koren* osagarri: *hemen* > *hemengo* bezala, *gaur* > *gaurko*, *hor* > *horko*... Hortaz, *gaur*, *hor*... berez lirerateke inesiboak, *hemen* eta *han* bezalaxe, *-n* postposizioa agerian ez izan arren.

**20.1.2c** Zenbait perpaus jokatugetan ere inesiboa ageri da: *Kontuzago ibiltze-n* ikasiko du; *Aspertzene-n* hasia naiz...

**20.1.2d** Perpaus jokatuak ere erakuts dezakete inesiboa: *Berehala onartuko zuelakoa-n* zeuden denak; *Konturatu naizenea-n* barkazioa eskatu diot...

**20.1.2e** Leku/denborazko PSen bereizgarri morfologikoak aipatu ditugu aurreko kapituluan (§ 19.5). Inesiboak guztiak ditu:

a) *-TA-* artizkia: *zenbat etxetan*, *zenbatetan* [-mug.]; *hamar etxeetan*, *hamarretan*, *etxeetan* [+mug./+pl.]; *etxe honetan*, *etxe haietan* [erakuslea]...

b) *-GA-* postposizioa [+anim.] diren sintagmetan: *zenbait gazterengan* [-mug.]; *hamar gazterengan* [-mug.] / *hamar gazteengan* [+mug./+pl.]; *gazte honengan* [+mug./-pl.], etab. Elementu hau postposizioa dela diogu. Jatorriz, gainera, izen kategoriakoa litzateke. Horregatik, genitiboaren marka ere ageri da osagarrian: *lagun hon-en-ga-n*, *ikaslea-ren-ga-n*, *lagun honen gainean* edo *ikaslearen aurrean* sintagmetan bezala, non genitiboa *gain* eta *aurre* izenen ezkerrean ageri den. Ez dago alde handirik *lagun honengan* (< *lagun hon-en-ga-n*) eta *lagun honen ondo-an* nahiz *lagun honen gainean* PSen artean. Gramatikalizazio mailan egongo litzateke diferentzia.

Genitibo marka hori, gramatikalizazio prozesuaren ondorioz, ezaba daiteke batzuetan. Dena dela, genitiboa ezabatu ondoren ‘bokala-*ga*’ segida zuzena da baina ‘konsonantea-*ga*’ segidarako, epentesirik ezean, oztopo gehiago izan daiteke: *Koldorengan/Koldogan*; *andreatengan/andreagan*, baina {*Mikele(n)gan*/\**Mikelgan*}. Hortaz, *-ga-* postposizioaren aurreko genitiboa ezabatzea ez da erabat librea.

Sintagma plurala denean ere, ezin da genitiboaren marka ezabatu: *gizonengan*/\**gizonakan*. Erakusleekin ere ezin da genitiboaren marka albora utzi: *gizon hauengan* / \**gizon hauekan*; {*Honengan*/\**haugan*} *badut itxaropena*; *Horrengana*/\**horigana* *hurbilduko naiz*.

c) *-E-* bokalaren epentesia (§ 19.5.1.3b) inesiboaren ezkerreko DSa kontsonantez amaitzen denean: (*mendi-an*, baina *adarr-e-an*).

**20.1.2f** Gauzak horrela, PS inesiboaren barneko osagarria nolakoa den, halako morfologia izango dugu. Argiago erakustearren, ondoko taula honetaz balia gaitzke. Taula bera erabiliko dugu gainerako leku/denborazko PSentzat. Alde bakarra bakoitzak erakusten duen postposizioan (*-n*, *-tik*, *-ra*...) egongo da. Euskal gramatiketan jasotzen diren ‘deklinabide paradigmak’ ordeztu izan litezke taulok. PS bakoitzari berea eskainiko diogu. Horrela, irakurleak, sintagma

mota bakoitza gainerakoekin alderatu ahalko du eta hobeki ohartuko da zer nolako kidesunak eta desberdintasunak dauden elkarren artean.

**20.1.2g** PS inesiboa: [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ...] -N]

<p>[-mug.]</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... zenbatzailea ...] -(e)ta-N]</p> <p>bitan / hirutan / seitan // bostetan / hamarretan... (baina batean)          bi etxetan / hiru herritan / sei zubitan // bost adarretan / hamar haitzetan... *<sup>1</sup></p> <p>zertan / edozertan / ezertan // zeinetan / edozeinetan / zenbate-          ((t)a)n / hainbate((t)a)n...</p> <p>zein etxetan / zenbat herritan // edozein haitzetan / hainbat adarretan...</p> <p>(etxe / harri / haitz / ...) {askotan / gutxitan / anitzetan...}</p> <p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... zenbatzailea ...] -en-ga-N]<sup>2</sup></p> <p>birengan / hirurengan / seirengan // bostengan / hamarrengan...          bi mutikorengan / bi lagunengan...**</p> <p>zein mutikorengan / edozein irakaslerengan // zenbat lagunengan / hainbat artzainengan...</p> <p>(mutiko / lagun...) askorengan / gutxirengan / anitzengan</p>
<p>[+mug.] &lt;iz. prop.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> izen propioa] -N]</p> <p>Bilbon / Donostian / Maulen // Irunen / Usurbilen / Zarautzen...</p> <p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> izen propioa] -(en)-ga-N]</p> <p>Irati(ren)gan / Ane(ren)gan / Pello(ren)gan // Mikelengan / Mirenengan / Antonengan</p>

<sup>1</sup> Taularen amaieran ageri diren hots egokitzapenei dagozkie izartxoak; izartxo kopuruek adierazten dute zein hots egokitzapen gertatzen den kasu bakoitzean.

<sup>2</sup> ISa kontsonantez amaitzen delarik (*bi mutil*, *bost adar*), *bi mutil-en-gan*, *bost adarr-e-tan* bezalako formak sortuko zaizkigu. Hauen ‘azpian’ bi egitura desberdin izan daitezke, ordea: bata artikulurik gabea ([[*bi mutil*]-engan], [[*bost adar-etan*]]), mugagabeak; bestea artikulurik duena ([[*bi mutil-ak*]-en-gan] > *bi mutilengan*), ([[*bost adarr-ak*]-ta-n] > *bost adarretan*).

<p>[+mug./-pl.] &lt;izord.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> perts. izord.] <i>-(en)-ga-N</i>] ni(re)gan / hi(re)gan</p>
<p>[+mug./-pl.] &lt;artikulua&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... ] <i>-a-N</i>] zeru (garbi)an / etxe (berri)an / ikastolan // itun (zaharr)ean / gau (ilun)ean *** [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... artikulua] <i>-r-en-ga-N</i>] ikaslearengan / lagun zaharrarengan...</p>
<p>[+mug./-pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] <i>-ta-N</i>] (etxe / haitz...) {honetan / horretan / hartan} (etxe / haitz...) {honetantxe / horretantxe / hartantxe // hone(t)xetan / horre(t)xetan / hare(t)xetan} (etxe / haitz...) beronetan / berorretan / berean [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] <i>-en-ga-N</i>] (mutiko / lagun / ...) {honengan / horrengan / harengan} (mutiko / lagun / ...) {honetxengan / horretxengan / haretxengan} (mutiko / lagun / ...) {beronengan / berorrengan / berarengan}</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;artikulua&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... artikulua] <i>-ta-N</i>] etxeetan / leku berrietan / enpresetan / une latzetan... egunotan / bide zabalotan [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... ] <i>-en-ga-N</i>] ikasleengan / gurasoengan... ikasleengan / gurasoengan...</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> erakuslea] <i>-ta-N</i>] (etxe / leku / enpresa / ...) {hauetan / horietan / haietan} (etxe / leku / enpresa / ...) {hauetxetan / horietxetan / haietxetan} (etxe / leku / enpresa / ...) {hauetantxe / horietantxe / haietantxe} (etxe / leku / enpresa / ...) {beraueetan / berorietan / ber(ai)etan}</p>

<p>[+mug./+pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -en-ga-N]</p> <p>{ikasle / guraso / ...} {hau<u>engan</u> / hori<u>engan</u> / hai<u>engan</u>}</p> <p>{ikasle / guraso / ...} {haue(t)x<u>engan</u> / horie(t)x<u>engan</u> / haie(t)x<u>engan</u>}</p> <p>{ikasle / guraso / ...} {berau<u>engan</u> / berori<u>engan</u> / ber(ai)<u>engan</u>}</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;izord.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... perts. izord.] -en-gan]</p> <p>gu(re)gan / zu<u>engan</u> / zu(re)gan</p>
<p>Hots egoki- tzapenak</p>	<p>* kots-kots &gt; kots-e-kots (haitz-tan &gt; haitzetan) -ak<u>-tan</u> &gt; -ak<u>etan</u>- &gt; -a<u>etan</u> &gt; -<u>etan</u> (adarrak-tan &gt; adarretan...)</p> <p>** bokala-bokala &gt; bokala-r-bokala (asko<u>-engan</u> &gt; askore<u>engan</u>...) kots-en &gt; -en &gt; -<u>en</u> (hauek<u>-engan</u> &gt; hau<u>engan</u>)</p> <p>*** kots-an &gt; kots-e-an (haitz-<u>an</u> &gt; haitz<u>ean</u>...)</p>

### 20.1.3. PS inesiboaren funtzio sintaktikoa

**20.1.3a** PS inesiboa adjuntua (*mendian ikusi dugu*) nahiz osagarria (*mahaian utzi dugu*) izan daiteke. Sintagma bat osagarria dela esaten dugu, dagokion predikatuak hautatua bada. Beraz, osagarri hautatua izango da. Adjuntu deitzen zaio, berriz, hala hautatua ez denari (§ 23.1a, § 23.3.1b, § 23.3.1h).

**20.1.3b** Inesiboa, normalean, adjuntua izan ohi da, ez benetako osagarria: *Lehenago egunean Maria agurtu nuen Bermeon* diogunean, bai *lehenago egunean* zein *Bermeon* sintagma inesiboak ez dira *agurtu* aditzaren osagarri, ez baitira aditzak ezinbestean hautatuak. Horiek gabe ere perpausa osorik eta zuzen eman daiteke: *Miren agurtu nuen*. Horrenbestez, kasu honetan adjuntuak ditugu aipatutako bi sintagma horiek. Ohiko gramatikan ‘osagarri zir-kunstantzialak’ direla esan ohi da.

**20.1.3c** Beste batzuetan, ordea, osagarria dela pentsa liteke: *Filipinetan bizi izan zen hainbat urtez* perpausoko inesiboa (*Filipinetan*) ezabatzen badugu, esanahia erabat aldatzen da: *Hainbat urtez bizi izan zen* esanez gero, itxura

bereko aditzak (*bizi izan*) ‘bizitzako aldi bat eman’ edo ‘nonbait bizitokia izan’ adierazi beharrian, norbaiten bizitzak zenbat iraun zuen ere esan nahi izan dezake. Zenbait predikaturen osagarri ere izan daiteke, hortaz, inesiboa: *Filipinetan bizi* diogunean *bizi izan*-ek adiera bat du, eta *hainbat urtez bizi* badiogu, berriz, bizitzaren iraupena edo adieraz genezake.

Osagarria da, halaber, honako honetan: *Beste bizitza batean sinesten dut*. Perpaus horretan, *beste bizitza batean* inesiboa *sinetsi* predikatuaren osagarria da, predikatuak hautatua, alegia. Ezin dugu esan, zerbait ulertutzat eman gabe, sinesten dudala: *zerbaitetan* sinesten dudala suposatu behar da, *sinetsik* zer esan nahi duen baldin badakigu behintzat.

**20.1.3d** Perpaus osagarriek ere inesiboa baliatzen ahal dute. Halakoak dira [... -T(Z)EN] formako perpaus osagarriak, zenbait aditzek (*ahaztu, ari, hasi, ikasi, irakatsi, jakin, jardun, pasatu, saiatu* eta abar) hautatuak (§ 30.6.3.3): *Zerbitzaria goiz osoan sukaldea garbitzen ibili zen; Isilik egoten ikasiko duzu; Ahaztu egin zaio hitz egiten. Goiz osoan eta sukaldea garbitzen* inesiboak dira, baina bigarrena litzateke osagarri argia. Lehenbizikoa ez da, behar bada, aditz nagusiak hautatua, ekintza eta gertakizun guztiak denborazko koordinatu batzuetan kokatzen diren arren. Agian, beste maila bateko osagarria litzateke.

Perpaus izan gabe ere, inesiboan agertzen dira hainbat predikaturen osagarriak (§ 11.5e): *dantzan hasi, kantuan ari, gogoan hartu, bertsotan ikasi, lanean eman...* *Jardun, ari, ikasi* bezalako aditzek holako osagarriak hautatzen dituzte. *Dantzan* ere osagarritzat hartu beharrekoa da seguru asko. *Denbora zerbaitetan pasatu* diogunean *pasatu*-k bi osagarri izango lituzke: ‘*denbora pasatu*’ eta ‘*zerbaitetan denbora pasatu*’.

**20.1.3e** Zenbait adberbio edo postposizioen (*behera, gora, zehar...*) osagarri ere izan daiteke PS inesiboa: *kalean gora; herrian zehar...* *Kalean gora, herrian zehar* eta antzekoak PS konplexutzat har litezke: *-n zehar, -n gora...* Bada PS bat *-n* inesiboa buru duena, eta PS honi beste postposizio bat erantsirik, *-n zehar* moduko beste postposizio bat osatu dela pentsa genezake. Hots: [<sub>PS/AdbS</sub> [<sub>PS</sub> *kalean*] [<sub>P/Adb</sub> *gora*]] / [<sub>PS/AdbS</sub> [<sub>PS</sub> *basoan*] [<sub>P/Adb</sub> *zehar*]] (§ 21.10).

#### 20.1.4. Inesiboaren adiera

Hasieran esan dugun bezala, postposizio guztien artean inesiboa da emankorrena eta oinarritzkoena. Adibidez, goian aipatu diren *zihar*-ek, *gora*-k eta abarrek inesiboa eska dezakete osagarri gisa (*kalean gora*, *aldapan behera*, *basoan zehar*...). Horrela sintagma osoak adiera bereziak bereganatzen ditu.

Bestalde, postposizio asko dira osagarritzat inesiboa hartzen dutenak: *elkarrengandik* (< [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *elkarrengan*] -tik]) / *elkarrengana* (< [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *elkarrengan*] -a]); *hemendik* (< [<sub>PS</sub> [<sub>Adbs</sub> *hemen*] -tik]). Modu horretara, adiera ugari bidera daitezke inesiboa oinarri hartuta. Baina inesiboak berak ere, berez, adiera bat baino gehiago izan ditzake.

Funtsean *kokagunea* adierazten du, baina kokagune hori modu berezian ulertzen ahal da: leku gisa, denbora gisa, jarduera...

##### 20.1.4.1. Lekua

**20.1.4.1a** Lekua adierazteko baliatzen da inesiboa, gertaera bat *non* kokatzen dugun adierazteko. Beraz, *non?* galderari erantzun diezaioke: *Plaza nagusian bizi naiz*; *Zure etxean hitz egingo dugu*; *Mahaiaren azpian dago katu*... Sintagma inesiboak lekua adierazteko balio du, egoera, prozesua nahiz gertaera edo ekintza bat *non* gauzatzen den esateko.

Eta hau sintagmaren erreferentea [+animatua] denean ere bai: *Bere seme-ala-bengan ez zuen inongo errurik aurkitzen*. Hemen, *non?* galdera egokia izan badaiteke ere, gehienetan *norengan?* izango litzateke galdera hori, erreferentea animatua delarik. Dena dela, adieraren aldetik, *-n* inesibo soilaren eta *-gan* inesibo konplexuaren arteko aldea zertan datzan azaltzea ez da erraza, hiztunok praktikan geure burmuinean gauzak ongi bereizten baditugu ere. Dena dela, batetik *herrian* esaten da, [-animatu] gisa interpretatuz, baina bestetik *herriarengan* [+animatu] gisa interpretatuz. Berdin *Irakasle batengan fijatu nintzen* esaten da, baina honen ondoan *Irakasle batetik bestera alde handia dago* esaten dugu. Nolanahi ere, batean galdera *non?/nondik?/nora?* baldin



bada, bestean *norengan?* edo *noren baitan?* izango da edo *norengandik?*, *norengana?*

**20.1.4.1b** Hala ere, ‘berez’ bizidun edo [+animatu] izango liratekeen sintagmen aurrean *non?* ere galde daiteke: *Mojetan ikasi zuen Leirek (non ikasi zuen?)*; *Mandoan ibiltzen da gure nagusia* (edo *mando gainean*, baina ez, \**mandoarengan*). Azken kasu honetan *non?* galdetu ordez, *nola* ere galdetzea agian egokiago litzateke. Galdera horien guztien gainean, ordea, bada halako ideia orokor bat, ‘kokagune’ adiera zabala izango lukeena. *Mandoan ibili* bai, baina \**mandoarengan ibili* ez. Eta *Mando honengan konfiantza handia du*, baina *Mando honetan konfiantza du*, zerbait izatekotan, desberdinak lirateke. Beraz, *zaldian* diogunean kokagune fisiko bat adierazten dugu. Aldiz, barneko ‘zer’ berezi batez ari garenean, fisikoa ez den kokagune batez alegia, erabiltzen ahal dugu *-gan* edo honen ordain den *baitan* postposizioa (§ 12.3.8b). Hortaz, aipatu ditugun PSen adiera desberdinen erantzukizuna ez da inesiboa bera, batean ageri den *-ga-* postposizioa baizik. *Mahaian* eta *mahai gain-e-a-n-*en artean dagokeen diferentzia bezala.

**20.1.4.1c** Zenbaitetan, itxura batean IS [+animatua] izan arren, *-ga-rik* ez da erabiltzen. *Mojetan* eta *mojengan* desberdinak dira: lehenbizikoan, espazio fisiko bat adierazten dugu, benetako leku bat, *mojen ikastetxean*, *mojen artean* edo. Aldiz, *mojengan* diogunean, fisikoa ez den zerbaitez ari gara, zer den azaltzea zaila bada ere. Lehenbizikoan, ‘mojen lekura’, ‘mojen komentura’ edo esan nahi da. *Mojengana* esanez gero, berriz, ‘moja artera’, ‘moja multzoa osatzen duten kideengana’. Holako interpretazio jokoak izan dadin, sintagmak plurala izan behar du, multzoa adierazten duena: *mojetan/mojengan* baina *mojarengan*/\**mojan*. Bestalde, *Moja guztietan atseginena bera zen / Moja guztiengan zuen konfiantza bera*.

Honen antzeko zerbait dugu leku bat adierazteko pertsona izen batez baliatzen garenean ere. Adibidez: *Alejo(re)nean bazkalduko dugu* esan daiteke (cf. *Alejoren tabernan bazkalduko dugu*). Baina hemen Alejoren tabernaz edo etxeaz ari gara, ez Alejo beraz; \**Alejorengan bazkalduko dugu* (cf. *Alejorengan uste osoa dut*). *Alejorengan* diogunean pertsona bati buruz ari gara, ez etxeaz edo tabernaz.

Nolanahi ere, PS hauetan, lekutasun adiera *-n* postposizioak ematen du: goiko adibide guztietan kokagune bat adierazten da, baina inesiboaren ezkerrean

beti dago beste elementu bat, kokagune horri eduki jakina eransten diona. *Ni-gan* eta *neure artean* diogunean, beti egiten diogu erreferentzia, nolabait, kokagune bati, fisikoa ez izan arren. Baina esamolde horiek ez dira berdinak, *geure etxean* eta *geure buruan* edo *geure gogoan* ere ‘kokagune’ desberdinak diren bezalaxe. Honen antzeko zerbait gertatzen da *-ga-*rekin ere, zehazki zer den esaten zaila bada ere.

#### 20.1.4.2. Denbora

**20.1.4.2a** Denbora adierazteko ere inesiboa darabilgu, gertaera bat denboran non kokatzen den adierazteko, alegia. Beraz, kokaguneaz ariko ginateke orain ere: *Zer urtetan etorri zinen Euskal Herrira?*; *Gaztetan ez duzu horrelakorik pentsatzen*; *Bazkalondoan aztertuko dugu egoera*; *Hiruretan deitu zidan...* Denbora une edo tarte bat adieraz dezake inesiboak, une jakin bat. Hori da adibideok adierazten dutena.

**20.1.4.2b** Aldi bat ere adierazten ahal da inesiboaren bidez, ez une zehatz bat. Ekintza edo gertaera bat zenbat luzatu den esateko, adibidez: *Hilabetean idatzi du liburua*; *Urte osoan ez du kolpe zorririk jo*. Holakoek zenbat denbora(n)? galderari erantzun diezaioke, esaterako. Hauen ordain gisa eman daiteke batzuetan instrumentala ere (§ 21.6): *Hiru urtez (hiru urtean) egon zen kanpoan*; *Egun batez (egun batean) emakume xarmant bat aurkitu zuen*.

**20.1.4.2c** Maiztasuna adieraz dezake beste batzuetan. Orduan, galdera *zenbat aldiz?* edo izango litzateke: *Hirutan izan naiz Galizian*; *Askotan joan gara elkarrekin*. *Hilean bi aldiz, noizean behin* eta holako esapideetan ere maiztasuna adierazten da, baina hauetan maiztasun hori ez dagokio, berez, inesiboari, *bi aldiz* edo *behin* sintagmei baizik. Inesiboak maiztasun horren kokagunea ezartzen du: *behin vs urtean behin*; *bi aldiz vs astean bi aldiz*. Gorago aipatu diren *mendian gora* bezalakoak lirateke hauek (§ 20.1.3e), PS edo AdbS konplexutzat har daitezke horrelako egiturak: *behin / bi aldiz* sintagma buruak direla esan genezake eta ezkerreko sintagma inesiboa (*urtean, astean...*) buru honen osagarria. Denak ere adberbio esapidetzat har litezke.

Denborazko zenbait perpaus jokatu nahiz jokatugabetan ere inesiboaz baliatzen gara: *Haserrea joaten zaiizunean, etorri*; *Goizean argia hastean, txori bat pausatzen da leihoan...* Hauek ere inesiboak dira eta denbora adierazteko aukera eskaintzen digute.

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 110. araua: “Traupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzaile-dunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen”, Iturenen, 2000ko maiatzaren 26an onartua.

#### 20.1.4.3. Jarduera

**20.1.4.3a** Jarduera ere adierazten du inesiboak (*zertan?*). *Dantzan aritu ziren neska-mutilak* diogunean, inesiboa darabilgu, baina oraingoan ez dago hain argi inesibo horren lekutasuna, ez bada ariketa edo jardun baten kokagune gisa ulertzen behintzat: *berriketan jardun, bertsoan hasi, atunetan ibili...* horrela ulertzen ditugu. Holakoak asko dira: *igerian, aitzurrean, musean, ehi-zean*, etab. *Ari izan, jardun, saiatu...* moduko aditzekin batera erabiltzen dira inesibo hauek (§ 11.5e). Argi dago holakoek *zertan?* galderari erantzuten diotela. Beste batzuetan beste galdera bat egin beharko litzateke, hala ere. Adibidez, *idazten ez daki* dioenak *zertan ez daki?* balizko galderari erantzuten dio, edo agian hobeto, *zer egiten ez daki?* litzateke galdera hori.

**20.1.4.3b** Perpaus mendekoetan ere inesiboa ezinbestekoa da batzuetan (§ 30.6.3.3): *jaten eman, josten ikasi, hitza hartzen saiatu, mintzatzen jakin, hitz egiten ahantzi, josten lagundu...* Hauetan ere jardunaz mintzo gara.

#### 20.1.4.4. Prezioa

*Prezioa* ere inesiboaren bidez eman ohi da aditzera: *Auto zaharra sei mila eurotan erosi zuen*; *Bost txakur txikitan jarri du salgai etxea...* Alegia, *zer preziotan?, zenbatean/zegan?* (/bizk.)... galderari erantzuten die inesiboak kasu honetan.

#### 20.1.4.5. Modua

Modua adieraz dezake, halaber, maiz, inesiboak: *Onean zerbait lortuko duzu, txarrean ez; Patxada ederrean geunden; Neurrian hartuz gero, pozoia ere on dateke; Uretan beratzen zuen bakailaoa...* Inesiboak oraingoan nola? galderari erantzuten diola esan genezake. Denetan ere, lekua edo kokagunea adierazten da, egia, baina modua ere bai: *Nola geunden?; Bakailaoa nola beratu behar da?; Nola saldu du etxea?* eta abar. Horregatik, adberbio gisa lexikalizatutako sintagma asko modu adberbioen artean sailkatzen dira, inesiboa gorabehera: *patxadan bizi da, neurrian egin behar da lan* eta antzekoak ez ezik, *herioan alde egin, abantaran joan, izu-zaparradan etorri...* Halakoak dira beste asko ere: *Eskean zebilen; Miserian bizi zen; Ezinean aurkitu nuen; Koxkorrean pijo gabiltza...* Beste PS inesibo batzuk mugagabeen ematen dira, egiazki adberbio bilakaturik edo: *gezurretan, kaltetan, izerditan, benetan, zinetan...* Hauek bere horretan adberbiotzat har litezke. Bestela, nola azaldu sintagma hauen mugagabetasuna? *Atunetan, oliotan, esnetan, gaztetan, elurretan, euritan, eguzkitan, ezkonberritan...* adberbio eratorri gisa analizatuta (*gaizki, zinez* eta abar bezala) arazorik ez genuke. Jatorria gorabehera, sintagma hauek adberbio bilakatutako esapidetzat hartzea litzateke egokiena, behar bada. Forma horretan lexikalizatutako adberbioak direla esan dezakegu, hortaz. Eta betiere *zer egoeratan?* edo *nolako egoeran?* galderari erantzuten ari garela pentsa daiteke. Modua adierazten dute, horrenbestez.

Adberbiotze honetan mailak egon daitezke, hala ere. Adibidez, *izerditan, benetan...* mugatzailerik gabeak ez bezala, *agian, agidanean, ahaleginean, ezinbestean...* sintagma ere, determinatuak izanik, lexikalizatzeko prozesu baten ondorioz adberbio bilakaturik ikusten ditugu, adberbio-esapide ihartu gisa. Hona hemen beste batzuk: *itsu-itsuan, arian-arian, ezarian-ezarian, etsietsian, kuxkuxean...* Holakoetan PS inesiboa adberbio gisa lexikalizatua ageri da. Honako hauetan ere bai: *agerian, arestian, artean, orduan...* Hiztegiatan horrelaxe agertuko zaizkigu, hitz aske gisa, erabat trinkoturik. Asko dira inesiboaren gainean eraikitako adberbioak: *txitian-pitian, noizean behin, lantzean behin...* Beste honako hauek ere esapide gisa trinkotu dira, baina egituraren konplexutasuna erabat agerian erakusten dute: *damu gaiztoan, ordu*

*onean, zori onean...* edo *hobeto nahian, hoberik ezean, azken batean, hitz batean, hondarraren hondarrean, lehen kolpean* sintagmen osaera gardena da. Beraz, inesiboak bizirik gordetzen du adberbio esapide berriak sortzeko ahalmena.

### 20.1.5. Inesiboa leku/denborazko PSen oinarrian

**20.1.5a** Leku/denborazko PSetan inesiboa aurki liteke oinarrian. *Lurrean / mendian* diogunean (§ 19.5.1.3b) inesiboaren aurrean ageri den *-a-* hori artikulua ote den eztabaidatu izan da. Nolanahi ere, leku/denborazko gainerako postposizioek ez dute balizko artikulua horren arrastorik: *menditik* esaten da (ez *\*mendiatik*), *mendira* (ez *\*mendiara*). *Mendiko*-ren kasuan ere berdin (ez *\*mendiako*). Hala ere, honen azpian *mendi-an-ko* dugula onartzen da (§ 20.1.1). Batzuetan, izan ere, inesiboaren *-n* postposizioa agerian ematen da: *hemen + -ko > hemengo*; *han + -ko > hango*. Beste kasu batzuetan, *-kok* ezkerrean daraman leku/denborazko PSak dagokion postposizioa gorde egiten du: *zerutik-ko > zeruti(ka)ko*; *mendira-ko > mendi(ra)ko*; *mendiraino-ko > mendiraino-ko...*

**20.1.5b** Beraz, *-korentzat* onartzen dena *-tik*, *-ra* eta enparauekin egin bage-neza, argi pixka bat izango genuke leku/denborazko PS hauen nondik norakoa azaltzeko orduan. Horrela, hemen egingo dugun proposamena honako hau da: *mendiko < mendian-ko* dugun bezala, pentsa dezagun *menditik < mendian-tik*, *mendira < mendian-ra*, *mendiraino < mendian-raino...* dugula, agerian mugatzailearen eta inesiboaren markaren arrastorik ez badugu ere. *-koren* kasuan bezala, hain zuzen. Izan ere, inesibo hori berori maiz agerian dago: *hemengo* bezala, *hemen-dik*, *han-dik*, *aurten-dik...*, adibidez, hor ditugu. Eta areago, *zugan-dik*, *zugan-a*, *zugan-a-ino...* PSak hor ditugu beren inesibo marka eta guzti. Beste honako hauen tankerakoak ere ageri dira han-hemenka: *gaztetan-dik*, *txikitandik...*

**20.1.5c** Hori guztia dela eta, pentsa liteke *-koren* ezkerrean ez ezik, *-tik* ablatiboaren edo *-ra* (*-raino*, *-rako...*) adlatiboen ‘azpian’ ere inesiboa dagoela,

agertu ez arren. *-gan* postposizioa bera, inesiboa izaki, hor ageri da harro asko: *zuregandik* (< *zurega-n-tik*); *zuregana* (< *zurega-n-a*); *gureganaino* (< *gurega-n-aino*). Adberbioetan ere bai (*hemendik*, *handik*...). Horrenbestez, *menditik* (< *mendi-an-tik*), *etxe hartatik* (< *etxe har-ta-n-tik*), *mendirira* (< *mendi-an-ra*), *etxe hartara* (< *etxe har-ta-n-ra*) eta abarretan inesiboa dugula pentsatuko dugu. Hau da, leku/denborazko postposizioetan beti oinarrian inesiboa dugula esan daiteke. Hipotesi honekin lan eginez leku/denborazko PSen analisisa gar-denago egingo zaigu.

**20.1.5d** Inesiboak ‘kokagunea’ adieraziko luke soil-soilik, oinarritzko kokagunea alegia. Inesiboaren oinarritzko adiera honi beste postposizio batzuk erantsi ahala, adiera ere osatuz eta zehaztuz doa: *mendian* > *menditik* / *mendirira*... Eta azken honetatik, adibidez, beste postposizioen laguntzaz, *mendirako*, *mendirantz(ko)*, *mendiraino(ko)*... Hots: oinarrian inesiboa izango genuke. Honek egoera edo gertaera baten kokagunea zein den esaten digu, eta hemendik *-tik* postposizioa erantsita, gertaeraren jatorria adieraziko da, eta *-ra* postposizioa gehiturik, berriz, jomuga, helburua edo horrelako zerbait. Postposiziobide honek euskaraz nola lan egiten duen ulertzea errazten duela uste dugu.

PS ablatibo eta adlatiboak aztertu ondoren, kapitulu honen amaieran ematen da postposizio-gehitze horien eta hortik sortzen diren formen eta adieren taula (§ 20.4).

## 20.2. Ablatiboa: *-TIK/-RIK*

### 20.2.1. PS ablatiboaren morfologia

#### 20.2.1.1. *-TIK* eta *-(R)IK*

**20.2.1.1a** Forma dela eta, aipatzekoa da lehenbizi *-tiken* parean, *-(r)ik* ere badela euskara batuan. *Goazen mendirik mendi*; *Liburu hauetarik zein hautatu nahi duzu?* (cf. *liburu hauetatik*...); *Inguru hauetako mendirik politena*

*Txindoki da...* ohikoak dira euskararen eremu gehiengan. *Liburu hauetarik zein?* modukoak ipar-ekialdean erabiltzen dira batik bat, baina baita euskara batuan ere.

**20.2.1.1b** Postposizio atzizkiaren formari dagokionez, *-n*, *-l*, *-r*, *-s*, *-z* edo *-tz* amaierako leku izenek bi modutara joka dezakete: a) zuzenean har dezakete ablatibo atzizkia (*-tik*), adlatibo atzizkia (*-ra(t)*) eta honen gainean erai-kiak) nahiz *-ko*; b) leku izenaren amaierako kontsonantearen eta postposizio atzizkiaren artean *-e*- epentetikoa ere ezar daiteke. Postposizio atzizkia zuzenean hartuz gero, *-dik* eta *-go* aldaerak eskatzen dituzte *-n* edo *-l* amaiera-ko leku izenek. Beraz, aukera hauek guztiak ditugu eta Euskaltzaindiak guz-  
tiak jo zituen zuzentzat: *Baztanetik/Baztandik*, *Usurbiletik/Usurbildik*, *Eibarretik/Eibartik*, *Gasteizetik/Gasteiztik*, *Garesetik/Garestik*, *Zarautzetik/Zarauztik*.

**20.2.1.1c** Aukera bitasun hori badagokie, esan bezala, *-ko*, *-ra(t)*, *-rantz* eta *-raino* postposizioei ere: *Baztaneko/Baztango*, *Usurbileko/Usurbilgo*, *Eibarreko/Eibarko*, *Gasteizeko/Gasteizko*, *Zarautzeko/Zarauzko*; *Baztane-  
ra/Baztana*, *Usurbileral/Usurbila*, *Eibarrera/Eibarra*, *Gasteizera/Gasteiza*, *Garesera/Garesa* edo *Zarautzera/Zarauza*. Ablatiboko postposizioaren ka-  
suan bezala, hauetan ere bi moldeak jo zituen zuzentzat Euskaltzaindiak.

**20.2.1.1d** Harrezkero ez du Euskaltzaindiak hasierako arau orokorra aldatua, baina onomastika eta exonomastika alorretako arauen harira, *Madrilgo Erkidegoa* (32. araua) eta *Afganistango Islamiar Errepublika* edo *Bahraingo Erresuma* (38. araua) formak eman zituen euskara baturako; eta ez *Madrileko*, *Afganistaneko* edo *Bahraineko*. Euskaraz ere *Usurbilgo Udala* eta *Irungo Udala* dira izen ofizialak. Forma horiek *Usurbildik* eta *Irundik* aukeratzera eramango gintuzkete, nahiz *Usurbiletik* eta *Irunetik* ere euskaldun askok erabiltzen dituzten.

Halaber, *Agoizko*, *Agoiztik* formak gomendatzen ditu 155. arauan (6. oharra). Beraz, *Gasteiztik*, *Garestik* eta *Zarauztik* izango genituzke (eta ez *Gasteizetik*, *Garesetik* eta *Zarautzetik*).

**20.2.1.1e** Gramatika honetan, postposizio atzizkien taulak ematean, *Usurbildik, Irundik, Eibartik, Eibarrera, Usurbilera...* formak hobetsi ditugu, baina beste aldaerak erabiltzen direla ohartaraziz. Izan ere, araurik ezean, ezin da esan gaizki daudenik bestelako formak (*Euskara Batuaren Eskuliburua*: “Izen bereziak: kontsonantez (*n, l, s, z, tz* edo *r*) bukatzen diren leku-izenen deklinabidea” eta Mujika 2013).

### 20.2.1.2. *Harik/honik/arean*, adberbio ihartuak

Bestalde, *harik* (< *har-ik*), *arean* (< *har-ean*), *honik* (< *hon-ik*) adberbio formak ere hor ditugu, *handik* eta *hemendik*-en parean. OEHn badira *harik* ablatiboaren adibideak: *Zelan arik atera zortzi gaiskinak?* (Mogel). Beste PS edo AdbS batzuekin ere aurki daiteke Añibarroren edo Mogelen testuetan: *harik aurrera, harik hona, harik laster...* Gaur egun denborazko mendeko perpau-setan erabiltzen da *harik eta* partikula konplexuan, ezkerrean ezarritik, hondarreko muga adierazteko (§ 36.10a): *Ez nintzen konturatu harik eta zu ikusi zintudan arte*. *Honik* ablatiboaren adibide gehien-gehienak Bizkaiko autoreen testuetan aurkituko ditugu: *honik aurrera* (*honerik aurrera* ere bai Añibarrok), *honik hilabetera, honik bigarren egunean...* *Onik aurrera beste bat isango nas!* (Añibarro). Baina nekez aurkituko dugu gaurko testuetan forma horretako erakusle ablatiborik<sup>3</sup>. *Arean* adberbio ihartuan, berriz, argi ikusten da Bizkaiko ablatibo zaharra, testuetan *h* gabe ageri dena: *arean* < *har-ean* (Azkue 1923: 10; Lakarra 1984: 161-193). *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* jaso du *arean*, baina ablatibo baliorik gabea (‘zerbait’ edo ‘ezer ez’ balioan batetik; ‘segurki, dudarik gabe’ balioan, bestetik). Lazarragarengan lehen graduako ablatibo zaharra ere ageri da: *honerean*. Baina forma horiek guztiak zaharrak dira; gaur ez dira erabiltzen esapide eginetan ez bada. Forma estandarrek, jakina, gaur euskararen eremu zabalean *hemendik, hortik, handik* dira. *Honik, harik* modukoak esapide eginetan erabiltzen dira bereziki.

---

<sup>3</sup> Besterik da *honik* = *onik* (batez ere *Ipar.*) gaur ere aurkitzen dena (ikus *Egungo Testuen Corpusa*).



### 20.2.1.3. Morfema bat baino gehiago: inesiboa oinarrian

**20.2.1.3a** Gorago esan dugun bezala (§ 20.1.5) leku/denborazko postposizio itsatsi hauek ( $[_{PS} [_{DS} \dots] -TIK/-RIK]$ ) beste PS bat dute osagarritzat. Batzuetan, gainera, agerian. *Zuregandik, aitagandik* sintagmetan argi dago: *zure-ga-n-tik, aita-ga-n-tik*. *Hemendik (hemen-tik), handik (han-tik)* sintagmetan ere bai. Denetan *-n* inesiboa ageri da. *Etzetik, kaletik, etxeko* sintagmetan, ordea, inesibo hori ez da azaltzen. Hala ere, *etxeko*-ren ‘azpian’ *etxean-ko* daukagula onartzen den bezala (§ 20.1.1), *etzetik*-en azpian *etxean-tik* dagoela pentsa liteke, *zuregandik* edo *hemendik* sintagmetan bezalaxe; batean ezkutuan, bestean agerian.

Gauzak nola diren azaltzeko modu erraza dela uste dugu lehen begiratuan sokari korapilo gehiago egitea lirudikeen arren. Hortaz, atalari ezarri diogun izenburuan sintagmaren egiturak honela beharko zukeen:  $[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] ] -tik/-rik]$ . Alegia,  $[_{PS} [_{PS} [_{DS} Pello] -(ren)-ga-n ] -tik]$  (*Pello(ren)gandik*). Baina beste kasu askotan ere bai, inesiboa agerian egon ez arren:  $[_{PS} [_{PS} [_{DS} Gernika] -n ] -tik]$  (*Gernikatik*).

**20.2.1.3b** Denborazko adberbioek ablatiboan har dezakete forma berezi bat: *-danik*. Jakina da *-tik* postposizioa leku/denborazko ohiko adberbioek ere har dezaketela. Orduan, adberbio horien morfofonologia egokitu egiten da apur bat. Bereziki, *-dan-ik* forma hartzen ahal dute: *noiztik/noizdanik, aspalditik/aspaldidanik, gaurtik/gaurdanik, betitik/betidanik...* Dirudienez, forma bi-koiztasun hau denbora-adberbioetan bakarrik gertatzen da. Leku-adberbio garbien kasuan ez da holakorik ikusten, antza: *nondik, hemendik, hortik, handik*; ez *\*nondanik, \*hemendanik...*

20.2.1.4. Postposizio sintagma ablatiboa: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ...] -N] -TIK]

<p>[-mug.]</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... zenbatzailea ...] -(e)ta-N-TIK]</p> <p>bi(ta)tik / hiru(ta)tik / sei(ta)tik... // boste(ta)tik / hamarre(ta)tik... (baina batetik)</p> <p>bi etxetik / hiru herritik / sei zubitik... // bost adarretatik / hamar haitzetatik... *</p> <p>zertatik / edozertatik / ezertatik // zeinetatik / edozeinetatik / zenbate((t)a)tik / hainbate((t)a)tik...</p> <p>zein etxetik / zenbat herritik // edozein haitzetatik / hainbat adarretatik...</p> <p>(etxe / harri / haitz / ...) {askotatik / gutxitatik / anitzetatik...}</p> <p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... zenbatzailea ...] -en-ga-N-DIK]</p> <p>birengandik / hirurengandik / seirengandik... // bostengandik / hamarrengandik...</p> <p>bi mutikorengandik / bi lagunengandik... **</p> <p>zein mutikorengandik / edozein irakaslerengandik // zenbat lagunengandik / hainbat artzainengandik...</p> <p>(mutiko / lagun...) askorengandik / gutxiorengandik / anitzengandik</p>
<p>[+mug.] &lt;iz. prop.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> izen propioa] -N-TIK]</p> <p>Bilbotik / Donostiatik / Mauletik; Irun-dik / Usurbil-dik<sup>4</sup>... / Eibartik / Lemoiztik / Zarauztik // Eibarretik / Lemoizetik / Zarauztetik<sup>5</sup>...</p> <p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> izen propioa] -(en)-ga-N-DIK]</p> <p>Irati(ren)gandik / Ane(ren)gandik / Pello(ren)gandik // Mikelen-gandik / Mirenengandik / Antonengandik</p>
<p>[+mug./-pl.] &lt;izord.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> perts. izord.] -(en)-ga-N-DIK]</p> <p>ni(re)gandik / hi(re)gandik</p>

<sup>4</sup> *Irun-e-tik* eta *Usurbil-e-tik* ere erabiltzen dira.

<sup>5</sup> Hemen ere bi formak dira zilegi: *Eibartik/Eibarretik*, *Zarauztik/Zarauztetik* eta abar. Euskaltzaindiak arautu gabe du zein forma hobetsi behar den euskara batuan.

<p>[+mug./-pl.] &lt;artikulua&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... ] -<i>a-N-DIK</i>]</p> <p>zeru (garbi)<u>tik</u> / etxe (berri)<u>tik</u> / ikastolat<u>ik</u>... // itun (zaharr)<u>etik</u> / gau (ilun)<u>etik</u> ***</p> <p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... artikulua] -<i>r-en-ga-N-DIK</i>]</p> <p>ikasle<u>rengandik</u> / lagun zaharr<u>rengandik</u>...</p>
<p>[+mug./-pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -<i>ta-N-TIK</i>]</p> <p>(etxe / haitz...) {honet<u>atik</u> / horret<u>atik</u> / hart<u>atik</u>}</p> <p>(etxe / haitz...) {honet<u>atixe</u> / horret<u>atixe</u> / hart<u>atixe</u> // hone(t)<u>xetatik</u> / horre(t)<u>xetatik</u> / hare(t)<u>xetatik</u>}</p> <p>(etxe / haitz...) beronet<u>atik</u> / berorret<u>atik</u> / beret<u>ik</u></p> <p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -<i>en-ga-N-DIK</i>]</p> <p>(mutiko / lagun / ...) {hon<u>engandik</u> / horr<u>engandik</u> / hare<u>ngandik</u>}</p> <p>(mutiko / lagun / ...) {honet<u>xengandik</u> / horret<u>xengandik</u> / hare-<u>txengandik</u>}</p> <p>(mutiko / lagun / ...) {beron<u>engandik</u> / berorr<u>engandik</u> / berar<u>engandik</u>}</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;artikulua&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... artikulua] -<i>ta-N-TIK</i>]</p> <p>etxe<u>etatik</u> / leku berri<u>etatik</u> / enpre<u>setatik</u> / une latz<u>etatik</u>...</p> <p>egunot<u>atik</u> / bide zabalot<u>atik</u></p> <p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... ] -<i>en-ga-N-DIK</i>]</p> <p>ikasle<u>engandik</u> / guraso<u>engandik</u>...</p> <p>ikasle<u>ongandik</u> / guraso<u>ongandik</u>...</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -<i>ta-N-TIK</i>]</p> <p>(etxe / leku / enpresa / ...) {hauet<u>atik</u> / horiet<u>atik</u> / haiet<u>atik</u>}</p> <p>(etxe / leku / enpresa / ...) {hauet<u>xetatik</u> / horiet<u>xetatik</u> / haiet<u>xetatik</u>}</p> <p>(etxe / leku / enpresa / ...) {hauet<u>atixe</u> / horiet<u>atixe</u> / haiet<u>atixe</u>}</p> <p>(etxe / leku / enpresa / ...) {berauet<u>atik</u> / beroriet<u>atik</u> / ber(ai)<u>etatik</u>}</p>

<p>[+mug./+pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -en-ga-N-DIK]</p> <p>{ikasle / guraso / ...} {hauengandik / horiengandik / haiengandik}</p> <p>{ikasle / guraso / ...} {haue(t)xengandik / horie(t)xengandik / haie(t)xengandik}</p> <p>{ikasle / guraso / ...} {berauengandik / beroriengandik / ber(ai)-engandik}</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;izord.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... perts. izord.] -en-ga-N-DIK]</p> <p>gu(re)gandik / zuengandik / zu(re)gandik</p>
<p>Hots egoki- tzapenak</p>	<p>* kots + kots &gt; kots-e-kots: bostetik / bost adarretatik (baina hortik / handik..)</p> <p>** bokala + bokala &gt; bokala+r+-bokala (Patxi-engandik &gt; Patxi-rengandik)</p> <p>*** bokala + kots &gt; bokala-kots (Bilbotik, menditik) -ak+-en- &gt; -a-e-n &gt; -en (gurasoak-engandik &gt; gurasoengandik)</p>

## 20.2.2. PS ablatiboaren funtzio sintaktikoa

**20.2.2a** Ablatiboa osagarri ala adjuntu den eztabaida daiteke. Garbi dago edozein predikatuk ez duela onartzen bere inguruan [<sub>PS</sub> ... -TIK] tankerako PSrik. ‘Iturburua’ (§ 23.2.1) hautatzen duen predikatua behar da, eskuarki: *alde egin, atera, begiratu, bidali, ekarri, etorri, hasi, ihes egin, igorri, iritsi, irten, jaitsi, joan, sortu...* bezalako (mugimendu) aditzek hautatzen dute PS hau, lekualdaketa adierazten dutenek alegia. Adibidez: *Ertz honetatik hasi behar duzu; Kaiolatik ihes egin zuen txoriak; Libra gaitzazu gaitz guztietatik; Larunbatetik nago hemen.*

Baina *egon*-ek, esaterako, nekez hautatuko du holakorik, denbora adieran ez bada: {*atzotik, aspalditik*} *nago hemen* (cf. *atzoz gero nago...*). Iturburuaz ari ez bagara, ordea, onartzen du *egon*-ek ere holakorik: *Zeruan izarra dago itsaso aldetik. Itsaso aldetik eta itsaso aldean* sintagmek baliokide dirudite. Nola-nahi ere, oraingoan ez gara iturburuaz ari.

**20.2.2b** Funtzioaz ari garelarik, PS ablatibo honen eta aipatu diren predikatuen arteko erlazioa hain estua izanik, pentsatzekoa da osagarri funtzioa betetzen duela. Azken batean, predikatuaren adierak eskatzen du ‘jatorria’ edo ‘iturburua’ moduko argumentu bat: *alde egin* predikatuak adibidez, alde egitearen jatorria adierazten duen argumentu bat hautatzea bidezko da. *Lan egin* bezalako batek, esaterako, ez dirudi holakorik hautatzen duenik, baina *ikasi* edo *jakin*-ek holakoak hauta ditzakete: *nondik jakin duzu hori?*, *egunkarietatik ikasi dut dena*.

Aditzekin ez ezik beste zenbait postposizio edo adberbioekin (*aurrera*, *aitzina*, *behera*, *gora*...) batera ere agertzen ahal zaigu ablatiboa osagarri gisa: *Eskaileretatik behera erori nintzen*; *Estratatik gora joango gara*; *Marra horretatik aurrera ez zaitetz pasa*; *Bihartik aitzina isilik egongo naiz*.

*Behera*, *gora*, *aurrera*, *aitzina* adberbioek postposizio gisa lan egiten dute, PS baten buru. Hau osagarria izango da. Ablatiboa eta adlatiboa, biak ageri dira goiko adibideetan, ablatiboa osagarri delarik eta adlatiboa sintagma osoaren burua. Ohart gaitezen, bide batez, euskaraz burua eskuinaldean kokatu ohi dela (§ 1.4). Horregatik, adlatiboa eskuinaldean kokatzea zentzuzkoa da: *Bihartik aitzina isilik egongo naiz* vs *\*Aitzina bihartik isilik egongo naiz*.

Horrela, sintagma osoa ere PS dela onar daiteke: [<sub>PS</sub> ‘nora’ [<sub>PS</sub> ‘nondik’ *eskaileretatik / puntu horretatik / hemendik*] *behera/aurrera*].

Esapide hauetan ‘nondik nora’ horrelaxe ikusiko ditugu bat eginda. *-ko* postposizioaren aurrean ere bai: *Hemendik aurrerako lanak gogorragoak izango dira* (*\*aurrera hemendiko lanak*). Eta berdin, *\*hemendiko aurrerako lanak*. Honek esan nahi du *hemendik aurrera* osagai bakar gisa ikusten dugula eta horrelaxe lexikalizatua dagoela, adberbio konplexu bat osatuz.

### 20.2.3. Adiera

**20.2.3a** ‘Iturburua’ edo ‘jatorria’ adierazten du funtsean [<sub>PS</sub>...-TIK] ablatiboak: *nondik?*, *noiztik?* edo *zertatik?* galderari erantzuten dio, lekuari nahiz

denborari nahiz ekintza edo gertaera bati gagozkiola: {*Bilera hartatik / handik*} *lur jota atera nintzen*; *Holako jendearengandik zer espero genezake*; *Ohitura hura froga negatiboak ezartzetik sortua zen*; *Ez naiz neure burutik mintzo* (Axular); *Alde hemendik!*

**20.2.3b** ‘Modua’ adierazteko ere baliatzen dugu zenbait esapidetan: *Hiru aldiz egin duzu barre nire lepotik* (*Elizen arteko Biblia*); *Neskek gogotik egiten zuten irri*. Kasu honetan ere bada, nolabait, iturburua edo jatorria, baina baita *nola?* galderaren erantzuna ere. Bestalde, bai *lepotik*, bai *gogotik*, biak aski ihartuak daude, eta horrek esan nahi du adberbiotzat ere har litezkeela, bere horretan. Lehenbizikoak, postposizio gisa lan egingo luke eta osagarria hautatuko luke ([<sub>PS</sub> [<sub>IS</sub> X-ren] [<sub>PS</sub> *lepotik*]]). Bigarrenak ez luke osagarririk, beharbada, *gogotik* diogunean ‘norberaren gogotik’ edo esan nahi dela ulertzen ez badugu behintzat. Nolanahi ere, *Euskaltzaindiaren Hiztegian gogotik* adberbiotzat ematen da.

**20.2.3c** ‘Abiapuntua’ adieraz dezake ablatiboak: *Joan den urtetik hona ez dut ikusi*. -tik postposizioa denbora/leku adberbio ohikoei erantsita ere berdin aurki daiteke: *bihartik aurrera*, *gaurtik astelehenera*, *hemendik aurrera*, *hortik ez zoaz inora...* Orduan ere abiapuntua, denbora tarte baten hasiera ematen du aditzera: *Noiztik ez zoaz elizara?*; *Bihartik hasita erretzeari utziko diot...*

Abiapuntu hori, hain zuzen, oinarrian dagoen adberbioak edo PSak adierazten duen unea izango da: *bihartik hasita* diogunean, *bihar* da abiapuntua. *Domekatik aurrera etxean izango naiz* dioenak, *domeka* ezartzen du abiapuntu. Hori adierazten du -tik postposizioak.

**20.2.3d** ‘Tartea’ adierazten duten esapideetan agertuko zaigu PS ablatibo hau. Gehienetan *nondik nora?* edo *zenbatetik zenbatera?* galderei erantzuteko moduan: [... -tik aurrera], [... -tik behera], [... -tik hona] eta abar. *Iaztik hona ikusi gabe neukan*; *Mila eurotik beherako soldatak ordaintzen dituzte*. Haue-tan ‘tarte’ bat adierazten da, hasi nonbait eta amaitu beste nonbait. *Sarrerak 50 eurotik* {*gora/aurrera*} esaten da (ez \**sarrerak 50 eurotik*) tartearen bi mutur-rak eta, horrenbestez, norabidea ere aditzera emanaz.

**20.2.3e** Ablatibo soila bera bakarrik eman daiteke, hala ere, baldin eta denboraz ari bagara. (*Atzotik* = *atzoz gero*): *Berehala hiri ostia pare bat emateko*

*maneran egonen dela ari duk atzotik erran eta erran* (Epaltza). Ohikoena, bi muturrak aipatzea da, hala ere: *Diferentziarik nabaritzen al dun atzotik gaurra?* (Alonso). Txartelen eta gainerako salgaien prezioaz ari garenean ere, adibidez, tartearen hasiera soila ez dirudi eman daitekeenik: *Sarrerak hogeiturotik aurrera* vs *\*Sarrerak hogeiturotik*.

**20.2.3f** *Prosekutibo* deitzen dena ere adierazten du ablatiboak: *Ibili al zara inoiz leku honetatik?*; *Pasatzen naizenean zure leihopetik, negarra irteten zait begi bietatik*. Hauetan argi dago ez dela jatorria edo iturburua adierazten, zeharkatzen den bidea baizik, pasabide bat edo kokagune bat, besterik gabe. Batzuetan, honen ordain garbia [... -n zehar] izan ohi da, baina ez dirudi beti hala denik. Nolanahi ere, goiko bigarren adibideak ongi adierazten du aldea: lehenbiziko PSa, *zure leihopetik*, ‘prosekutiboa’ da, bigarrenak, berriz, *begi bietatik* sintagmak, ohiko adiera izango du, negarraren iturburua alegia. *Kaiolatik ihes egin* eta *leihotik ihes egin* ere, adibidez, desberdinak dira. Batean abiapuntua edo daukagu (kaiola), bigarrenean, aldiz, ohiko adieraz gainera (txoria leihoan zegoen eta ihes egin du), pasabidea ere adierazten du (barnean zegoen txoriak zabalik zegoen leihotik ihes egin du).

### 20.3. Adlatiboak: [... -RA]; [... -RAINO]; [... -RANTZ]; [... -(RA)KO]

Adlatiboa funtsean *-ra* (edo *-rat*, euskalkiaren arabera) postposizioari deitzen diogu eta berau izango da [<sub>PS</sub> ... -RA(T)] postposizio sintagmaren buru. Honen gainean eraikiak diren [<sub>PS</sub> ... -RANTZ], [<sub>PS</sub> ... -RAINO] eta [<sub>PS</sub> ... -RAKO] ere adlatibotzat har daitezke. Azken hauetan oinarritzko *-ra* postposizioari ñabardura bat gehitzen dio ondoko postposizioak edo atzizkiak: *nora* vs *no-raino/norantz/norako*. Hots: *etxeraino/etxerantz/etxerako*. Hortaz, adlatiboak lau forma desberdin hartzen dituela esan genezake. Denei *adlatibo* deitura zor zaie, denek ere nolabait norabidea seinatzen baitute funtsean. *Etxera joan*, *etxeraino iritsi* edo *etxerantz abiatu* esanez gero, *etxera*, *etxeraino* eta *etxerantz* oso hurbileko ikusten ditugu, bai formaz bai adieraz: denek *-ra* postposizioa dute oinarrian eta adiera nagusia ere norabidea dela esan genezake. Hortaz, *-ra/-raino/-rantz* postposizioak adlatibotzat hartuko

ditugu. Berdin joka daiteke *-rako* postposizioarekin ere. Honek ere batzuetan, aditz bati atxikia ageri denean, norabidea/helburua adierazten du (*etxerako erosi dut loreontzia*). Aurreko hirurak bezala, [<sub>PS</sub> *etxerako*] ere predikatu batekin ager daiteke: *etxera ekarri / etxeraino hurbildu / etxerantz eraman / etxerako erosi*.

Ordea, holakoak izenlagun ere izan daitezke, *-ko* postposizioa daramatela: [*etxerako / etxerainoko / etxerantzako... bidea*]. *Etxeraino joan / etxerainoko bidea egin* bikotea dugun bezala, *etxera joan / etxerako bidea egin* ere hor dugu, baina baita *etxerako erosi* ere. Hortaz, *etxerako* sintagmak bi funtzio bete ditzake: aditz baten nahiz izen baten adjuntu izan daiteke. Bi egitura ditugula onartu beharko dugu, eta bi adiera ere bai, beharbada, hots: *etxerako loreontzia* ('*etxera* daramadan *loreontzia*' eta '*etxerako* erosi dudan *loreontzia*', adibidez). Aldiz, *etxeraino* eta *etxerainoko* bereiz ageri zaizkigu: *Etxeraino iritsi zen sua* vs *Etxerainoko garrak ikusi genituen*. *Etxerako* PSaren kasuan forma bera erabiltzen dugu batean eta bestean: *Etxerako erosi dut okela* baina *Etxerako erosi dudan okela* ere *etxerako okela* da, ez *\*etxerakoko okela*. Jokabide hau *-ko* postposizioari zor zaio. Horregatik, agian, batetik *etxerako*, *etxerako* gisa analizatu beharko genuke eta bestea, berriz, *etxe-rako* gisa. Alegia, *-rakoren* azpian bi egitura ezkutatuko lirateke: [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> *etxe*]-*rako*] *ekarri* vs [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *etxera*]-*ko*] *bidea*. Beste adlatiboekin, berriz, *-raino*/*-rainoko* eta abar, bikoteak izango genituzke.

### 20.3.1. PS adlatiboen morfologia: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ...] -N] {-*(R)A* / -*RAINO* / -*RANTZ* / -*(RA)KO*}

*-RA*, *-RAINO*, *-RANTZ*, *-RAKO* postposizioak dira PS adlatiboen buru. Morfologiari dagokionez, oraingoan ere leku/denborazko PSen ezaugarriek zutik diraute: a) *-ta-* artizkia: *zein etxetara? / bi etxetaraino / etxe haietarantz / etxeetarako...*; b) *-gan-* [+animatua] tasuneko sintagmetan: *semearengana/semeenganaino/semeenganantz/ikasleenganako...* eta c) artikulua singularraren arrastorik ez: *mendiraino/mendirantz/mendirako*, ez *\*mendiara/\*mendaraino/\*mendarantz/\*mendarako*.



Bestalde, adlatibook ere inesiboaren gainean eraikitzen direla pentsa liteke: *zuregana* (< *zuregan* -a), *hara* (< *han* -ra), *gerora* (< *gero*-ra) bezala, *mendirra* < *mendi*an + -(r)a genuke eta gauza bera gainerako leku/denborazko PSetan. Adlatiboaren azpiko inesiboa gehienetan azaleratzen ez bada ere (*Bilbo-ra*, *mendi-ra*...) beste batzuetan begien bistan dago: *Koldorengan-a*, *zугan-a*. Horrenbestez, inesiboa abiapuntu hartuta azaleko forma zein izango den erraz ikusten da orain ere: inesiboan, sintagmaren eskuinaldean, -ta-n agertzen bada, adlatiboan -ta-ra agertuko zaigu; -gan baldin badugu, berriz, -gan-a izango dugu. Hortaz, honako taula hauetan laburbil dezakegu adlatiboen morfologia.

### 20.3.1.1. Adlatiboa<sub>1</sub> ('nora'): [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ...] -N] {-(R)A}

<p>[-mug.]</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... zenbatzailea ...] -(e)ta-N-RA]</p> <p>bi(ta)ra / hiru(ta)ra / sei(ta)ra... // boste(ta)ra / hamarre(ta)ra... (baina batera)</p> <p>bi etxetara / hiru herritara / sei zubitara... // bost adarretara / hamar haitzetara</p> <p>zertara / edozertara / ezertara // zeinetara / edozeinetara / zenbate((t)a)ra / hainbate((t)a)ra...</p> <p>zein etxetara / zenbat herritara // edozein haitzetara / hainbat adarretara...</p> <p>(etxe / harri / haitz / ...) {askotara / gutxitara / anitzetara...}</p> <p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... zenbatzailea ...] -en-ga-N-A]</p> <p>birengana / hirurengana / seirengana... // bostengana / hamarren-gana...</p> <p>bi mutikorengana / bi lagunengana... **</p> <p>zein mutikorengana / edozein irakaslerengana // zenbat lagunengana / hainbat artzainengana-...</p> <p>(mutiko / lagun...) askorengana / gutxirengana / anitzengana</p>
----------------	--

<p>[+mug.] &lt;iz. prop.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> izen propioa] -<i>n</i>-RA]          Bilbora / Donostiara / Maulera... // Irunera / Usurbilera / Zarautzera<sup>6</sup>...          [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> izen propioa] -(en)-ga-N-A]          Irati(ren)gana / Ane(ren)gana / Pello(ren)gana... // Mikelengana / Mirenengana / Antonengana</p>
<p>[+mug./-pl.] &lt;izord.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> perts. izord.] -(en)-ga-N-A]          ni(re)gana / hi(re)gana</p>
<p>[+mug./-pl.] &lt;artikulua&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... ] -<i>a-n</i>-RA]          zeru (garbi)ra / etxe (berri)ra / ikastolara... // itun (zaharr)era / gau (ilun)era ***          [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... artikulua] -<i>r-en-ga-N-A</i>]          ikaslearengana / lagun zaharrarengana...</p>
<p>[+mug./-pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -<i>ta-n</i>-RA]          (etxe / haitz...) {honetara / horretara / hartara}          (etxe / haitz...) {honetaraxe / horretaraxe / hartaraxe // hone(t)xe-tara / horre(t)xetara / hare(t)xetara}          (etxe / haitz...) {beronetara / berorretara / berera}          [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -<i>en-ga-N-A</i>]          (mutiko / lagun / ...) {honengana / horrengana / harengana}          (mutiko / lagun / ...) {honetxengana / horretxengana / haretxengana}          (mutiko / lagun / ...) {beronengana / berorrengana / berarengana}</p>

<sup>6</sup> Adlatiboan ere bi formak dira zilegi, izen propioari zuzenean adlatibo atzizkia erantsirik sortzen dena, eta lotura bokala hartzen duena: *Usurbilera, Zarautzera / Usurbila, Zarautza*. Arautu gabeko puntua da hau ere.

<p>[+mug./+pl.] &lt;artikulua&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... artikulua] -<i>ta-n-RA</i>]          etxe<u>etara</u> / leku berri<u>etara</u> / enpre<u>setara</u> / une latz<u>etara</u>...          egun<u>otara</u> / bide zabal<u>otara</u>          [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... ] -<i>en-ga-N-A</i>]          ikasle<u>engana</u> / guraso<u>engana</u>...          ikasle<u>ongana</u> / guraso<u>ongana</u>...</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -<i>ta-n-RA</i>]          (etxe / leku / enpresa / ...) {hau<u>etara</u> / hori<u>etara</u> / hai<u>etara</u>}          (etxe / leku / enpresa / ...) {hau<u>etxetara</u> / hori<u>etxetara</u> / hai<u>etxetara</u>}          (etxe / leku / enpresa / ...) {hau<u>etaraxe</u> / hori<u>etaraxe</u> / hai<u>etaraxe</u>}          (etxe / leku / enpresa / ...) {bera<u>etara</u> / berori<u>etara</u> / ber(ai)<u>etara</u>}          [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -<i>en-ga-N-A</i>]          {ikasle- / guraso- / ...} {hau<u>engana</u> / hori<u>engana</u> / hai<u>engana</u>}          {ikasle- / guraso- / ...} {haue(t)<u>xengana</u> / horie(t)<u>xengana</u> /          haie(t)<u>xengana</u>}          {ikasle- / guraso- / ...} {bera<u>engana</u> / berori<u>engana</u> / ber(ai)-<u>en-gana</u>}</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;izord.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... perts. izord.] -<i>en-ga-N-A</i>]          gu(re)<u>gana</u> / zu<u>engana</u> / zu(re)<u>gandik</u></p>
<p>Hots egoki- tzapenak</p>	<p>* kots + kots &gt; kots-e-kots: bost<u>era</u> / bost adar<u>retara</u> (baina hona/horra/hara...)          ** bokala + bokala &gt; bokala + r + bokala (Patxi-<u>engana</u> &gt; Patxi-<u>rengana</u>)          *** bokala + kots &gt; bokala-kots (Bil<u>bor</u>a, mend<u>ir</u>a...)          -ak+-en- &gt; -a-e-n &gt; -en (guraso<u>ak-engana</u> &gt; guraso<u>engana</u>)</p>

### 20.3.1.2. Muga adlatiboa ('noraino'): [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ...] -N] {-(R)A-INO}

[<sub>PS</sub> ... -RAINO] adlatiboa -ra postposizioari -ino atzizkia erantsiz sortua da. Adibidez: *zenbait arlotara* > *zenbait arlotaraino*; *Maltzagara* > *Maltzagaraino*; *gizonengana* > *gizonenganaino*; *guregana* > *gureganaino*...

Adberbioekin ere hor ditugu, esaterako, *noraino* (< *nora-ino*), *honaino* (< *hona-ino*), *horraino* (< *horra-ino*), *haraino* (< *hara-ino*)... Muga adlatiboa deitu dugun PS honek oinarrian, -ra adlatiboa du. Horrenbestez, ez da zaila gorago-ko taula (§ 20.3.1.1) begien aurrean dugula -raino adlatibo honen forma zein den erabakitzea. Aski da oinarrizko adlatiboari -ino eranstea:

Bilbo-RA-INO / Donostia-RA-INO / Usurbil-e-RA-INO...  
 alde (zaharr)-e-RA-INO / une zail-e-RA-INO...  
 {bi / hiru / sei / ...} ({etxe / harri...}) -tara-ino...  
 {bi / hiru / bost- / ...} (mutiko / lagun...) -(r)en-gana-ino  
 {zein / edozein / zenbat / hainbat...} (mutiko / lagun...) -(r)en)gana-ino  
 (mutiko / lagun...) {asko / gutxi / anitz} -(r)en)gana-ino  
 etxe (berri)-eta-RA-INO / leku guzti-eta-RA-INO...  
 (...) hon-e-ta-RA-INO / (...) horretx-e-ta-RA-INO...  
 herri haue-ta-RA-INO...  
 leku guzti-eta-RA-INO...  
 MikelenGANA-INO / batenGANA-INO / edozeinenGANA-INO...  
 lehengusu {honenGANA-INO / horrenGANA-INO... }  
 ni(re)GANA-INO / haurrenGANA-INO  
 guztienGANA-INO...

### 20.3.1.3. Hurbiltze adlatiboa ('norantz'): [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ...] -N] {-(R)A-NTZ}

Adlatibo honen forma egokia lortzeko, aski dugu oinarrizko adlatiboari -antz atzizkia eranstea, edo nahiago bada inesiboaren -n postposizioa -(r)antz postposizioaz ordezkatzeara:

Bilbo-RAntz / Usurbil-e-RAntz...  
 alde (zaharr)-e-RAntz...  
 {bi / hiru / sei / ...} ({etxe...}) -ta-RAntz...  
 etxe (berri)-eta-RAntz  
 (mutiko / lagun...) {asko / gutxi / anitz} -(r)en-ganantz  
 {zein / edozein / zenbat / hainbat- ...} (mutiko / lagun...) -(r)en-ganantz  
 herri haue-ta-RAntz  
 leku guzti-eta-RAntz...  
 Mikelen-GANantz  
 guztien-GANantz...

#### 20.3.1.4. Adlatibo destinatiboa ('norako'/'noizko'/'zerta(ra)ko'):

$[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] \{- (R)A-KO\}]$

Postposizio honen forma *-ra-ko* da. Batzuetan, *-ko* soila izango dugu, leku/denborazko adberbioekin esaterako: *betiko* (ez \**betirako*); *biharko* (ez \**biharrerako*). Edozein modutan, PS honen burua *-(ra)ko* postposizioa dela esango dugu, *-ra* adlatiboaren gainean eraikia. Eta hau inesiboaren gainean eraikia bada, honako hau litzateke egitura osoa:  $[_{PS} [_{PS} \dots -N] -RA-KO]$ : *plazarako* <  $[_{PS} [_{PS} plaza-n] -rako]$ ; *herri honetarako* <  $[_{PS} [_{PS} herri honeta-n] -rako]$ ; *Azkoitirako* <  $[_{PS} [_{PS} Azkoiti-~~n~~] -rako]$ ; *teilatu gainerako* <  $[_{PS} [_{PS} teilatu gaine-~~n~~] -rako]$ . Aski da oinarrizko *-ra* adlatibo<sub>1</sub> arruntari *-ko* postposizioa eranstea, besterik gabe.

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 20. araua: “*Betiko* eta honen kideak”, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua.

Kontuan izan, hala ere, *-rako*, bere horretan, erabateko postposiziotzat hartu dugula eta, postposizio honen gainean eratutako PSa, aditz baten osagarri edo adjuntu dela, adizlagun alegia: *plazarako ekarri*; *herri honetarako egoki izan*; *Azkoitirako erosi*; *teilatu gainerako diseinatu* eta abar. Aurrerago ikusiko ditugu (§ 21.3.2d) *-kodun* beste PS batzuk, izenlagun direnak, adjektibozkoak, nolabait. Orain aurkeztuko ditugunak adberbiozkoak edo izango lirateke.

-koren zeregina, funtsean, AdjSak osatzea dela iradokiko dugu aurrerago (§ 21.8.3g, § 4.1.2c), ISaren barnean (urrezko legea, bertoko tomatea, zorione-ko berria...). Baina predikatu osagarrian (zure modukoa da hori; Bermeokoa du andregai...). Baina predikatu baten adjuntu ere izan daiteke (biharko, betiko, geroko, inoizko, noizko... bezalakoetan, adibidez): *Lan hau biharko amaitu nahi dut; Ez utzi ezer geroko; Betiko joan al zara? Noizko?* galderari erantzun nahi diote -ko sintagma hauek eta ‘destinatiboak’ direla esango dugu. Hegoaldean, bereziki denbora adberbioekin gertatzen da. Holakoek ‘helburua’ adierazten dute edo ‘epe’ bat.

Perpauz ez diren ISak ere helburuzkoak izan daitezke: *Harispe du laguna herri gidatzeko; Hainitz on ere dena bertze askotako* (Hiribarren). Baina puntu honetan jokabide desberdina dute euskalkiek: Hegoaldean, *bertze askotako* baino arruntagoa da, beharbada, *beste askotarako*. Nolanahi ere, oraingo -ko hau ez litzateke adjektibozko postposizioa izango, adberbiozkoa baizik. Hortaz, beharbada, -ko<sub>1</sub> adjektibo kategoriako dela esan genezake (*etxe* sua; geroko *bizitza*; iazko *programa*; urrezko *eraztuna*...) eta, horrenbestez, AdjS baten aurrean geundeke. Bigarrena, berriz, adberbio sintagma kategoriakoa izango litzateke, destinatiboa: *Biharko egingo dizut; Zerta(ra)ko duzu hau?* Lehenbizikoa izenaren inguruan edo mugituko litzateke, bigarrena aditzaren inguruan. Batzuetan, hala ere, bietara uler liteke PS hau: *Urteko lanak hauek dira* diogunean bezala, ‘joan den urtean eginak’ edo ‘joan den urterako egin behar zirenak’, adibidez.

Adlatibo destinatiboa (‘norako’/‘noizko’): [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> ... -RA] -KO]

Bilbo-rako / Donostia-rako / Usurbil-e-rako...  
 alde (zaharr)-e-rako / une zail-e-rako...  
 {bi / hiru / sei / ...} ({etxe / harri...}) -ta-rako...  
 etxe (berri)-eta-rako / leku guzti-eta-rako...  
 (...) hon-e-ta-rako / (...) horretx-e-ta-rako...  
 herri haue-ta-rako...  
 leku guzti-eta-RAKO...  
 egun guzti-e-ta-RAKO / datorren hil-e-RAKO...  
 bihar-KO / gaur-KO...

Orain arteko leku/denborazko PSetan sintagma [+animatua] ere izan zitekeen: *gurasoengan, gurasoengana...* Baina adlatibo destinatiboko postposizioa ezin erants dakioke sintagma animatuari: *zureganako/edozeinenganako* moduko formak ezin dira jarri aditz baten osagarri lanetan; alegia, destinatibo balioan. Horretarako dugu *-entzat* postposizioa (§ 21.4): *Zuretzat erosi dut / \*zureganako erosi dut. Zureganako* edo *ikasleenganako* formak zilegi dira, baina izenlagun gisa, izen bat modifikatuz (ez aditza): *zureganako jarrera*.

### 20.3.2. PS adlatiboen funtzio sintaktikoa

**20.3.2a** *-RA* adlatiboa, ablatiboa bezalaxe, mugimendu aditzek hautatzen dute batez ere: *bidali, bota, ekarri, eraman, etorri, igo, igorri, jeitsi, joan...* *Etxera bidali ninduten; Lurrera bota zuen; Ahora eraman du...* Mugimendua era abstraktuago batean adierazten duten aditzek ere bai: *animatu, ausartu, behartu, bultzatu, saiatu...* Predikatu hauen osagarriak maiz aditz jokatugabeko perpausak izaten dira, gainera (§ 30.6.3.4): *Aldatzera joan da; Arnasa hartzera ere ez zen ausartzen; Ez zaitut behartuko botika hau hartzera...* Aditzarekin duen lotura kontuan hartuta, PS adlatiboa egiazki osagarritzat har liteke.

Bestalde, euskalki batzuetan adlatiboa eta inesiboa elkarren ordain gerta daitezke, bereziki ekintza adierazten duten perpaus jokatugabeekin (§ 30.6.3.5.1): *Haragia eroztera noa; Aditzera eman* (orokorra), baina *Okela erosten noa; Aditzen eman* (mendebaldean).

Gorago esan dugun bezala (§ 20.2), maiz [<sub>PS</sub>... -TIK] eta [<sub>PS</sub>... -RA] sintagmak elkarren ondoan ematen ditugu, mugimendua edo tarte baten neurria adierazteko nolabait: *Azpeititik Azkoitira zenbat kilometro daude?; Gelatik sukaldera iristeko ez da denbora asko behar.*

Zenbait aditzek, gainera, *ibili-k* edo *zeharkatu-k*, esaterako, osagarri gisa, biak batera eskatzen ditu, dirudienez: *Alde batetik bestera dabil goiz osoan* (?alde batetik dabil goiz osoan / ?beste aldera dabil goiz osoan); *Alde batetik bestera zeharkatu zuen bidea.*

Beste batzuetan, ordea, adjuntu izango da, adibidez, mugimenduaren jomuga adierazi beharrean, besterik gabe ‘modua’ adierazten duenean: *Iritzira hartzen ditu neurriak*; *Lana {zuen gustura / nork bere erara /...} egitea ez da beti erraza izaten*.

**20.3.2b** [<sub>PS</sub>... -RAINO] sintagma ere mugimendu aditzei (*joan, iritsi, eraman, ekarri...*) lotua ageri da. Eta predikatuak hautatua den neurrian, osagarria izango da: *Muturreraino ezin dira eraman gauzak*; *Hango etxe haietaraino iritsi zen sua*. *Iritsi* eta *eraman* predikatuak, adibidez, duten esanahia dutelako hain zuzen, [<sub>PS</sub>... -RAINO] adlatiboa hautatuko dute. Orobat *bete, bota, ekarri, etorri, joan, sartu* eta beste zenbait aditzek ere.

Beste batzuetan, ordea, muga-adlatibo hau adjuntu soila da, beharbada. Adibidez: *Kokoteraino nago* esan daiteke eta PS hori *egon* aditzak hautatua dela pentsa genezake, osagarria alegia. Baina agian adjuntutzat hartu beharko genuke, baldin eta hemen elipsiren bat gertatu dela onartzen bada. Adibidez: *Kokoteraino beteta/aseta... nago* gisa ulertzen badugu. Baina, orduan, *bete/ase* aditzen osagarria dela uler liteke, edo agian *beteta egon / aseta egon* predikatuen.

**20.3.2c** [<sub>PS</sub>... -RANTZ] PSak norabidea adierazten du, gutxi gorabeherako norabidea edo. Baina holako argumentua eskatzen duen predikaturik ez da, baldin eta lehenagotik adlatiboa (‘nora’ argumentua) hautatzen duena ez bada: denak jadanik *-ra* adlatiboa hautatzen dutenak dira nonbait. Hortaz, adlatibo arrunta osagarri izan daitekeen neurrian, mugimendu aditzen kasuan bezala, [<sub>PS</sub>... -RANTZ] ere osagarritzat har genezake kasu horretan. Izan ere, sintagmak adlatibo izaten segitzen du, gorago aipatu den [<sub>PS</sub>... -RAINO] sintagmak bezalaxe. Honako hauetan, adibidez: *Iparralderantz abiatu ziren*; *Zeurekin noa mugako porturantz, gauzak argi dagozan herri askaturantz* (Gandiaga). *Abiatu* eta *joan* aditzek [<sub>PS</sub>... -RA] hautatzen duten heinean, [<sub>PS</sub>... -RANTZ] ere hautatzen dute. Baina aditz batek ez badu, berez, norabide adiera duen argumenturik onartzen, ezingo da holako sintagmarik erantsi: *\*Etixerantz iritsi nintzen*; *\*Belaunetarantz sartu nintzen* baina bai *Etixeraino iritsi nintzen* edo *Belaunetaraino sartu nintzen*.



**20.3.2d** [<sub>PS</sub>... -(R)AKO] sintagma destinatiboa da eta, alde horretatik, [<sub>PS</sub>... -(R)AINO] eta [<sub>PS</sub>... -(R)ANTZ] sintagmen pareko: *Dirua eman diot zinemarako edo Txakur hori baserrirako behar dut* diogunean, zinemarako eta baserrirako, *eman* eta *behar izan* predikatuen adjuntu izango dira, osagai horiek adierazi gabe ere, perpausa gramatikala baita: *Dirua eman diot; Txakur hori behar dut*, zuzenak eta osoak dira zertarako den esan gabe ere.

Ordea, *Soldata ez zait iristen neure gastuetarako* diogunean, *neure gastuetarako*, adjuntu barik osagarri dela ematen du, *iritsi* predikatuak eskatzen baitu nolabait. *Aski, gehiegi, lain, beste...* konparaziozko kuantifikatzaileekin batera ageri denean ere osagarri dela ematen du: *Ez du gasolinatarako lain irabazten; Diru hori gutxiegi da nire premietarako*. Osagarri hau agerikoa ez denean, inplizituzat edo har genezake. Izan ere, zerbait *gutxiegi* dela esaten denean, adibidez, ‘zerbaitetarako gutxiegi’ dela ulertzen dugu, *ez zaio soldata iristen* diogunean bezala. Biak pareko esamoldeak lirateke: *Soldata txikiegia da (nire premietarako); Ez zaio soldata iristen (bere premietarako)*.

Beste kontu bat da *Kontzerturako dirua etxean ahaztu dut* modukoetan daukaguna. Hemen izenlagun baten aurrean gaude: [<sub>DS</sub> [<sub>PS</sub> {*tontorrerako, tontorrerainoko, tontorreranzko*}] *bidea*] sintagmetan bezala. Hauetan ageri den *-ko* postposizioa aurrerago aztertuko dugu (§ 21.8). Hortaz, *-rako* adlatiboa batzuetan osagarri da eta beste batzuetan adjuntu.

Erreparatu behar diogu honi ere: sintagma [+animatua] denean, [<sub>PS</sub>... -ENGANA-KO] forma izango dugu, hots: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub>... -ENGAN-A]-KO]. PS hau izenlagun izan ohi da: *Virginiari nion maitasunak oztopatu egiten zidan beste neskeganako bidea* (Atxaga). Izen baten adjuntu, hortaz. Maiz, holakoak erlatibo baten bidez ordezkatu daitezke (*beste neskegana doan bidea*, adibidez). *Norbaitenganako maitasuna, gorrotoa* eta abar ere ohiko izenlagunak lirateke. Aldiz, *\*norbaitenganako eraman* bezalakoak, aditz batekin, ez dirudi zilegi direnik. Horretarako dugu datiboa (*zerbait norbaiti eraman*) edo adlatibo soila (*zerbait norbaitengana eraman*). *Egurra etxerako daramat*, aldiz, guztiz zilegi da. Baina, nolanahi ere, *norentzat* eta *norako* bi gauza dira.

### 20.3.3. Adlatiboen adiera

#### 20.3.3.1. [<sub>PS</sub> ... -RA] adlatiboak adiera bat baino gehiago izan ditzake

**20.3.3.1a Jomuga.** Mugimendu baten jomuga adierazten du maiz: *Artzaina txabola ondoko iturrira doa; Maritxu semearengana hurbildu da...* Hortaz, *nora?* balizko galderari erantzuten ahal dio. Mugimendu edo lekualdaketa adierazten duten predikatuekin (*begiratu, ekarri, etorri, eraman, hurbildu, joan...*) erabil daiteke adlatiboa. Holako aditzekin datiboa eta adlatiboa balio-kide izan daitezke, baldin eta erreferente biziduna badute eta benetako mugimenduaz ari bagara: adibidez, *Zuzendariarengana eraman dut* eta *Zuzendariari eraman diot* edo *Gurasoei hurbildu zitzaien* eta *Gurasoengana hurbildu zen*. Predikatu batek hartzailea eskatzen badu eta ez jomuga, orduan, noski, datiboa beharko du eta ez adlatiboa: *Mikeli azaldu diot kontua* baina ez *\*Mikelengana azaldu dut kontua*.

**20.3.3.1b Kokagunea.** Aditza mugimenduzkoa izan gabe ere, adlatiboa erabil daiteke: *ezkerre(ta)ra, eskuine(ta)ra, iparraldera...* Adibidez: *Perpaus baten subjektua, VPren ezkerre dagoen NP hori da* (Mitxelena). Hemen, helmuga baino areago kokagunea adierazten du. Hala eta guztiz, *VPren ezkerre* sintagma norabidea edo adierazten segitzen bide du nolabait, *ezker-ek* eta *eskuin-ek* norabidea adierazten duten heinean. Mugimendurik ez da, baina modu abstraktu batean, gure begirada eta gogoia espazio batean ‘mugitzen’ dira. Bestela, nola azaldu, adibidez, izen arrunt batekin holakorik ez izatea (*zuhaitz horren ezkerre daukazu seinalea*, baina ez *\*zuhaitzera daukazu seinalea*)? Pentsa liteke, zerbaiten elipsia dagokeela hor, *ezkerre begira* bezalako sintagma bat agian.

**20.3.3.1c Denbora.** Denbora ere adierazten du adlatiboak: *Gerora, hitz zatar hori erabiltzeari utzi zion; Handik bi urtera etorri zen; Hemendik aurrera leihoak zabalik egingo dut lo...* Ordea, hemen ere, nolabaiteko mugimendua adierazten da, denboraren iragatea nola-halako mugimendua dela onartzen badugu behintzat, atzetik aurrerako edo iraganetik oraindirako edo geroaldirako mugimendua alegia: *Zuk alde egin eta handik bost minutura agertu zen Joseba;*

*Hemendik aurrera nik emango ditut aginduak...* Jatorria, lekuari gagozkiola ez ezik denborari gagozkiola ere uler daitekeen bezala, helmuga ere, berdin.

**20.3.3.1d Modua.** Modua ere adieraz dezake *-ra* adlatiboak: *neure erara*, *gure antzera*, *lehengo modura*, *bere kontura* eta abar. *Bere kontura hasi da lanean*; *Ikasi du arrautzak flandriar erara prestatzen*; *Iritzira ari zara*; *Autoa zuk eraman*, *hartara*, *elkarrekin joango gara*.

Hauetako batzuk (*hartara*, *iritzira*...) aski ihartuak daude eta adberbio peto-petoak direla ere esan daiteke. *Gainera* adberbio adlatiboa ere hor dugu, bi perpaus lokaberen erdian, lotura ziurtatuz (§ 42.19.3). Hala ere, honek ez du modua adierazten, emendioa edo baizik.

**20.3.3.1e Baldintza.** Perpaus jokatu gabe batek *-ra* postposizioa badarama, baldintza adierazten ahal du (§ 34.2b, § 34.12): *Hau jakitera, ez nintzen etorriko*. ('hau jakin izan banu, ez nintzen etorriko'); *Tramitazioak, gauzak normal izatera, azkar samar joan beharko luke*. Adlatiboa baldintza adieraztera nola iritsi den azaltzeak ere ez du erraza ematen. Zerbaiten elipsia edo egon liteke hemen ere, beharbada: *Hau jakitera iritsi banintz* esango bagenu bezala. Agian asko esatea da. Nolanahi ere, testu idatzietan behintzat ez du erabilpen handiegirik esamolde honek.

### 20.3.3.2. [<sub>ps</sub> ... -RAINO] adlatiboaren adiera

[<sub>ps</sub> ... -RAINO] sintagmak, funtsean, mugimendu baten 'azken muga' adierazten duela esango genuke: *Edozein zokotaraino iristen da Internet*; *Etxeraino ekartzten dizute ogia*; *Kokoteraino (egina) naukazue*.

Eta ohar bat, [<sub>ps</sub> ... -RAINO]-ren adieraz ari garenez gero, *noraino* / *noiz arte* bikoteari erreparatu behar diogu: esan dezagun, denboraz ari garenean, *arte* postposizioaz baliatzen garela 'azken muga' adierazteko. Euskalkien artean badira diferentziak honetan ere: *Ez zuen zure haserreak azkenera arte irauten* (*Elizen arteko Biblia*), baina *Azkenerraino sendo irauten duena, horixe izango da salbatua* (*Asisko Frantzisko, Asisko Klara*).

Azken<sup>er</sup>arte-k denborari egiten dio erreferentzia, *noiz arte?* alegia. *Hil arte* esatea bezala izan liteke kasu honetan. Aldiz, *azken<sup>er</sup>aino*-k espazioa edo adierazten du, ‘azken muturreraino’ esango bagenu bezala.

Bestalde, *nora/noraino* bikotea dugun bezala, *arte/arteraino/arteino* ere hor dugu. Eta denborazko perpausetan, *Ni hemen naizeino* bezalakoak ere eite berekoak dira, *-ino* edo honen kideko postposizio bat dute denek ere: *Ezin sinets dezakegu, adinak berak akaba arteiño, akabatuko garela* (Axular).

Norabide soila adierazi beharrean bide horren azken muga markatzen du adlatibo honek.

### 20.3.3.3. [<sub>PS</sub> ... -RANTZ] adlatiboaren adiera

[<sub>PS</sub> ... -RANTZ] adlatiboak norabidea adierazten du, ez jomuga zehatza: *Mendirantz abiatu ginen; Zein aldetarantz joan da pilota?*; *Gaixoaren egoerak hoberantz egin du azken aldian. Etxerantz joatea eta etxera joatea ez dira gauza bera. -rantzek gutxi gorabeherako norabidea adierazten du: batean, etxeko norabidea hartu bai, baina gehiagorik ez. Bigarrean, etxera joan dioena jomuga zehatzaz ari da, ez gutxi gorabeherako jomugaz. Horregatik, oro har, leku aldaketa adierazten duten predikatuekin batera (*begiratu, bidali, bota, eraman, joan, etorri...*) agertzen da. Beste zenbaitekin (*egon, koku...*) arazotsuagoa izan daiteke kontua. Adibidez, *Herri hori iparralderantz dago* esaten da, baina, beharbada, hemen ere zerbaiten elipsia dagoela ematen du, ‘iparralderantz begira dago’ edo esango bagenu bezala. *Eguerdi alde-rantz ikusiko du medikuak* onargarrria baldin bada baina *eguerdirantz ikusiko dugu* onargaitzagoa, horren arrazoia, agian, *alde* hitzaren agerpena izan liteke. Kasu hauetan, *alde* postposizioak berak ere ‘gutxi gorabeheraka’ jarduteko balio du, *eguerdian* esan beharrean *eguerdi aldean* edo *eguerdi alde-ra* diogunean bezala.*

Baina moduaz ari bagara eta ez egiazko mugimendu batez, *-antz* atzizkia gehitzea ezinezkoa dela pentsa daiteke: *Mikel {iritzira/\*iritzirantz} ari da.*

#### 20.3.3.4. [<sub>PS</sub> ... -RAKO] adlatiboaren adiera

[<sub>PS</sub> ... -RAKO] destinatiboa dela esan ohi da. [<sub>PS</sub> ... -ENTZAT] bezala, esan dezagun bide batez. Helburua adierazten du, funtsean: *zerta(ra)ko?*, *norako?* nahiz *noizko?* galderei erantzun diezaieke: *Lan hori amaitua nahi dut bihar goize-rako*; *Bi etxeetarako egin behar izaten ditu erosketak*; *Etxeko lanetarako oso egokia da*; *Gaurko nahikoa duzu hori*. Horrenbestez, sintagma honek ekintza baten edo egoera baten azken muga edo epea zein den adierazten du: *noizko?* galderari erantzuten dio eta ezarritako denbora-muga zein den adierazten du. Beste batzuetan balizko galdera *norako?* edo *zerta(ra)ko?* da. Hemen mugarik ez da adierazten, helburu soila baizik.

Denboraz aritzean, aldi batez ari gaitzeko, bere osoan, nahiz epe batez, aditzak aspektuaren aldetik nolako balioa duen: *Har ezazu txamarra gauerako* (aldia); *Datorren udaberrirako amaitu nahi dute zubia* (epe muga).

### 20.4. Leku/denborazko PSak laburbilduz

Beheko taulak jasotzen ditu leku/denborazko PSen atzizkiak eta modu bateko eta besteko ISei erantsirik hartzen dituzten formak:

Inesiboa	-an -tan  -gan	herrian, igandean etxe hartan, zein herritan... herri hauetan, egun haietan, zein etxetan, zer ur-tetan etxeetan, astelehenetan gizona(ren)gan, horiengan, zугan...
Ablatiboa	-tik/-rik -tatik/-tarik -gandik	herritik, etxe hartatik, herririk herri; jende hauetarik... gizon horiengandik, zuengandik...
Adlatibo soila	-(r)a -tara -gana	negura, herrira, urrutira... herrietara, etxe hartara, etxe hauetara... Mikelengana, horiengana, guregana...

Hurbiltze adlatiboa	-rantz -tarantz  -ganantz	herrirantz, etxerantz... herrietarantz, adarretarantz... etxe hartarantz, baso haietarantz... gizon horienganantz, zuganantz...
Muga adlatiboa	-raino -taraino -ganaino	herriraino, ertzeraino, tontorreraino... etxe hartaraino, herri hauetaraino... haur horienganaino, zureganaino...
Adlatibo destinatiboa	-(ra)ko -ta(ra)ko	eskolarako, herrirako... zein etxetarako, etxe harta(ra)ko... zein plazatarako, plaza honetarako, plazetarako... egun horreta(ra)ko... geroko, bihako, etzi(ra)ko...
Erlazio soilezkoa	-ko	Bilboko, herriko, igandeko... etxe hartako, zein herritako, zer urtetako... herri hauetako, egun haietako... bihotz oneko, zuri buruzko, bost metroko...

Erlaziozko soila dei genezakeen *-ko* postposizioa ere bada. Maiz perpaus erlatibo baten bidez ordezkatu daiteke. Hala ere, jokamolde bereziak ditu *-ko* postposizioak. Gainera, *-ko*, berez, ez da leku/denborazkoa. Leku/denborazkoa, ondoan daraman PSa izango da, izatekotan: *Arantzazu-ko irudiak*, *egun hartako gertakizunak*... Baina *bihotz oneko* edo *ganorazko* diogunean ez da inondik ageri leku/denborazkorik. Horregatik, ‘erlaziozko’ deitu dugun *-ko* honek bere babespean (nolabait esatearren) leku/denborazko direnak eta ez direnak biltzen dituenez, hurrengo atalaren azkenean izango dugu mintzagai (§ 21.8.3).

Kapituluaren hasieran esan dugu inesiboa oinarri hartuta azal daitezkeela errazen leku/denborazko PSak (§ 20.1.5). Ondoko taulan ageri dira bai inesiboa eta bai inesiboari eransten zaizkion postposizio atzizkiak, sortzen diren formak eta bakoitzak duen adiera:

20. Postposizio sintagmak (II): leku/denborazkoak ...

-N inesiboa 'non'	[ <sub>oinarrizko</sub> 'kokagunea'... -N]	etxean / hemen / ganean / itsasoan / zugan / ikasleengan
-TIK ablatiboa 'nondik'	[ <sub>jatorria</sub> [ <sub>oinarrizko</sub> 'kokagunea'... -N] + -TIK]	etxetik / hemendik / gainetik itsasotik / zugandik ikasleengandik
-RA adlatiboa 'nora'	[ <sub>jomuga</sub> [ <sub>oinarrizko</sub> 'kokagunea'... -N] + -(R)A]	etxera / hona / gainera itsasora / zugana ikasleengana
-RAINO adlatiboa 'noraino'	[ <sub>'azken jomuga</sub> [ <sub>oinarrizko</sub> 'kokagunea'... -N] + -(R)AINO]	etxeraino / honaino / gaineraino / itsasoraino zuganaino / ikasleenganaino
-RANTZ adlatiboa 'norantz'	[ <sub>'hurbiltzea</sub> [ <sub>oinarrizko</sub> 'kokagunea'... -N] + -(R)ANTZ]	etxerantz / honantz gainerantz / itsasorantz zuganantz / ikasleenganantz
-(RA)KO destinatiboa 'norako'	[ <sub>'helburua</sub> [ <sub>jomuga</sub> [ <sub>oinarrizko</sub> 'kokagunea'... -N] -RA] -KO]	etxerako / honako gainerako / itsasorako





## 21. Postposizio sintagmak (III): leku/denborazko ez direnak

---

- 21.1. Sarrera
- 21.2. Soziatiboa: [<sub>PS</sub> ... -(R)EKIN]; 21.2.1. Morfologia; 21.2.2. Funtzio sintaktikoa; 21.2.3. Adiera
- 21.3. Kausazkoa: [<sub>PS</sub> ... -(EN)-GATIK]; 21.3.1. Morfologia; 21.3.2. Funtzio sintaktikoa; 21.3.3. Adiera
- 21.4. Destinatiboa: [<sub>PS</sub> ... -(EN)TZAT]; 21.4.1. Morfologia; 21.4.2. Funtzio sintaktikoa; 21.4.3. Adiera
- 21.5. Prolatiboa: [<sub>PS</sub> ... -TZAT]; 21.5.1. Morfologia; 21.5.2. Funtzio sintaktikoa; 21.5.3. Adiera
- 21.6. Instrumentala: [<sub>PS</sub> ... -Z] ('zertaz'/'zerez'); 21.6.1. Morfologia; 21.6.2. Funtzio sintaktikoa; 21.6.3. Adiera
- 21.7. Leku/denborazko ez diren PSak laburbilduz
- 21.8. [<sub>PS</sub> ... -KO] postposizio sintagma; 21.8.1. -KOn eremu zabala; 21.8.2. -KO postposizioa, inesiboa osagarri duela: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> ... -N]-KO]; 21.8.3. -KOn osagarria, inesiboaz bestelako leku/denborazko PSa; 21.8.4. Leku/denborazko ez diren postposizio sintagmak -KOn osagarri; 21.8.5. Zenbatzaile sintagmak -KOn osagarri; 21.8.6. IS soila -KOn osagarri; 21.8.7. -KO zenbait predikatu osagarri itsatsirik; 21.8.8. Mendeko perpausak -KOn osagarri; 21.8.9. -KO, erlaziozko postposizioa
- 21.9. -KOn lana morfologian; 21.9.1. Morfologia lexikoan; 21.9.2. Aditz morfologian; 21.9.3. -KOn erabilerari dagozkion zenbait auzi
- 21.10. Postposizio askeak; 21.10.1. Postposizio itsatsiak eta askeak; 21.10.2. Ohiko adberbioen gainean eraikitako postposizio askeak; 21.10.3. Kokapen izenez

eraikitako postposizio askeak (*aurrean, gainera, ondotik...*); 21.10.3.1. Koka-pen izenak; 21.10.3.2. *Gora, behera vs gainera, azpira*; 21.10.3.3. *Etxearen ondoan / etxe ondoan* gisako sintagmak; 21.10.4. Instrumentala buru duten postposizio askeak (*erruz, bidez, ondorioz...*); 21.10.5. Postposizio askeen zerrenda bat

---

## 21.1. Sarrera

**21.1a** Soziatiboa (-*ekin*), prolatiboa (-*tzat*), destinatiboa (-*entzat*), kausazkoa (-(*en*)*gatik*), eta instrumentala (-*z*) orain arte aurkeztu ditugun postposizioak ez bezalakoak dira, hein batean. Kasu batzuetan leku/denborazko ere badira: *Igande guztiez, joaten da osteratxo bat egitera* edo *Astelehenarekin gaixotu egiten omen da*. Baina, PS hauek ez dira, berez, leku/denborazkoak. Nolanahi ere, arestian aurkeztu ditugun sintagmen taxu bertsua dute: postposizioa dute buru eta buru honek, ezkerrean osagarria darama. Buru lana egiten duen postposizioaren izaeran dago, beharbada, alderik handiena, baina ez erabatekoa. Adibidez, inesiboa (-*n*) postposizio soila da, sinplea, ergatiboaren -*k* marka bezalakoxea. Edo *mendira* diogunean ere, -*ra* postposizio soila dugu, nahiz eta hemen azpian inesiboa ere badela aldarrikatu dugun gorago (§ 20.3.1). Modu berean, *mendiagatik, zurekin...* diogunean ere buruaren ezkerrean osagarria agertuko da: *mendia-gatik, zu-rekin...*

**21.1b** Bestalde, leku/denborazko postposizio sintagmetan beretan, [+animatu] direnetan, postposizioa konplexuagoa gertatzen da: *etxeAN dago* esaten dugu, baina *semeaRENGAN konfiantza osoa du*, ez *\*semean konfiantza osoa du*. Ondoko lerroetan ikusiko ditugun PSetan, hain zuzen, taxu bertsua aurkituko dugu: *semea-ren-ga-n* bezala, *semea-(ren)-ga-tik*, *semea-re-ki-n*, *semea-ren-tzat*. Batean zein bestean, genitiboa (§ 18.6) ageri zaigu (*semearen*) eta honen ondoren postposizio konplexu bat. Bide batez, ohart gaitez, *semearekin* PSak ere berekin daramala inesiboaren marka: *semea-re-ki-N*. *Semea-ren-ga-TIK*-ek, berriz, -*tik* ablatiboaren marka ere hor du, nonbait.

**21.1c** Eta modu bertsuan, postposizio konplexuagoekin ere egingo dugu topo: *futbolaz hitz egin* esaten den bezala, *futbolari buruz* edo *futbolaren gainean*

ere esaten da, bata instrumentala (... *buru-z*), bestea inesiboa (... *gain-e-a-n*)... Instrumentala postposizio soila da, inesiboa edo ergatiboa bezalaxe, baina PS konplexuagoetan ere partaide dugu: *futbola-ri buruz* edo *futbola-ren gainean*-en kasuan bezala. Hauek bere garaian sintagma ‘arruntak’ izan bide ziren, beren postposizioa gorabehera: *alboan*, *artean*, *aurrean*, *gainean*, *erruz*... Gero, erabiliaren poderioz, postposizio konplexu bihurtzera iritsi direla esaten dugu. Nolanahi ere, denek dute agerian postposizio sinplea: *-n*, *-tik*, *-ra*, *-z*. Garai batean, *ondoan* eta *ondo horretan*, edo *gainean* eta *gain guztian* mota bereko sintagmak ziren, baina gero, *gainean* postposizio konplexu gisa gramatikalizatu dela pentsa liteke, forma horretantxe hiztegieta agertzeraino.

**21.1d** Dena dela, instrumental delakoa berezia da. Bere kasa lan egiten du, genitiborik eta holakorik gabe: *Jarri zenuen aurpegiaz ongi gogoratzen naiz; Zementuz bete dituzte bazterrak*... Baina gramatikalizatutako postposizioen osagai ere bada: *Zuri buruz hitz egin dugu; Zure erruz galdu dute partida*... Azken batean inesiboak bezalako jokoa ematen du instrumentalak ere: *herria-n bizi da / herria-z maitemindu zen alde batetik, zuen ondoan-n bizi da / zuen bitarte-z jakin du*, bestetik. *Bitartez* eta *ondoan* postposizioek barnean dute, hurrenez hurren, *-n* eta *-z* postposizio soila.

Atal honetan jasoko ditugun PSetan beretan ere ager daitezke aurreko atalean jaso ditugun postposizioak, sintagmaren buru gisa. Adibidez: *zure-ga-tik*, *zure-ki-n*... Eta azkenik, beste pauso bat gehiago emanez, postposizio askeen esparruan sartuko gara: *zure ondoan*, *zure baitan*, *zure bitartez*, *zure kontra*... (§ 21.10.1).

## 21.2. Sozietiboa: [<sub>PS</sub> ... -(R)EKIN]

### 21.2.1. Morfologia

**21.2.1a** -(R)E-KIN gaur atzizki bihurturik dago, postposizio itsatsia da (§ 19.2). Arestian esan dugun bezala, jatorrian postposizio konplexua izan zela pentsa liteke, genitiboaren gainean eraikia, tartean izen bat zuela: *gizona-re-kin* < [*gizona-ren kide* + *-n*] (Mitxelena 1972a). Horrenbestez, hemen ere, geniti-

boari dagozkion egokitzapen-arau morfofonologiko berak (§ 18.6.1a) aplikatzen dira. Bestalde, leku/denborazkoetan ez bezala, [+/-animatu] tasuna ez da kontuan hartzen, eta, horrenbestez, ez du inolako eraginik sintagmaren morfologian.

**21.2.1b** Postposizio sintagma soziatiboa: [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ...] -(R)EKIN]

[-mug.]	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... zenbatzailea ...] -(r)-EKIN]</p> <p>{bi / hiru / sei / ...} (etxe / harri...) -(r)-EKIN</p> <p>{bat / bost / hamar / ...} - (adar / haitz /...) -EKIN</p> <p>{zer / edozer / ezer / zein / edozein / zenbat / hainbat...} (harri / haitz-) -(r)-EKIN</p> <p>(etxe / harri / haitz / ...) {asko / gutxi / anitz-} -(r)-EKIN</p>
[+mug.] <∅>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> izen propioa] -(r)-EKIN]</p> <p>Bilbo-REKIN / Donostia-REKIN / Maule-REKIN</p> <p>Irun-EKIN / Usurbil-EKIN / Zarautz-EKIN</p> <p>Irati-r-EKIN / Ane-r-EKIN / Pello-r-EKIN</p> <p>Mikel-EKIN / Miren-EKIN / Anton-EKIN</p>
[+mug./-pl.] <izord.>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> perts. izord.] -(r)-EKIN]</p> <p>ni-r-EKIN / hi-r-EKIN</p>
[+mug./-pl.] <artikulua>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... -a] -r-EKIN]</p> <p>zeru (garbi)-a-r-EKIN / etxe (berri)-a-r-EKIN / ikastola-a-r-EKIN</p> <p>alde (zaharr)-a-r-EKIN / ikasle (trakets)-a-r-EKIN</p>
[+mug./-pl.] <erakuslea>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -EKIN]</p> <p>(etxe / harri/ haitz...) {hon- / horr- / har-} -EKIN (-txe)</p> <p>(...) beron-EKIN / berorr-EKIN / ber-EKIN</p> <p>(mutiko / lagun / ...) {honetx- / horretx- / haretx-} -EKIN</p> <p>(mutiko / lagun / ...) {beron- / berorr- / bera-r-} -EKIN</p>

21. Postposizio sintagmak (III): leku/denborazko ez direnak

<p>[+mug./+pl.] &lt;artikulua&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... -ak/-ok] -EKIN]</p> <p>{etxe / leku berri / enpresa / une latz / ...} -E-KIN</p> <p>{ideia / bide... (zabal)} -O-KI-N</p> <p>{ikasle / guraso / ...} -E-KIN</p> <p>{ikasle / guraso / ...} -OKIN</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -EKIN]</p> <p>(etxe / guraso / enpresa / ...) {hau- / hori- / hai-} -EKIN(tx)</p> <p>(etxe / guraso / enpresa / ...) {hauetx- / horietx- / haietx-} -EKIN</p> <p>(etxe / guraso / enpresa / ...) {hau-E-KIN-/ hori-E-KIN-/ hai-E-KIN-} -txe</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;izord.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... perts. izord.] -EKIN]</p> <p>gu-reKIN / zu-reKIN / zue-KIN</p>

**21.2.1c** Bizkaieraz *-ekin*-en ordeztu *-gaz* erabiltzen da. Biek berdin-berdin eginen dute lan. Honako arau morfofonologikoak zaindu behar dira:

<p>konts -GAZ &gt; konts-e-GAZ</p>	<p>zein gizon-e-GAZ; edozein-e-GAZ, bat-e-GAZ... (-mug.)</p> <p>Athletik-e-GAZ; Miren-e-GAZ... (izen propioekin)</p> <p>edozein pertsonaGAZ; edozein semeGAZ, bigAZ... BermeoGAZ; AndoniGAZ</p>
<p>-ak -GAZ &gt; ... -aKAZ</p>	<p>gurasoaKAZ...; semeaKAZ...; umeaKAZ... ume honeeKAZ; zueKAZ... (+pl.)</p>

**21.2.2. Funtzio sintaktikoa**

**21.2.2a** Adjuntua da, normalean. Hala gertatzen da ‘konpainia’ edo adierazten duenean, joan, bizi izan, lan egin eta antzeko predikatuekin. Adibidez: *Nora zoaz liburu horrekin?*; *Ahots horrekin arrakasta izango duzu?*; *Zurekin amets egin dut bart*; *Horrelako esperientzia bat semeagaz bizitzea itzela da.*

**21.2.2b** Osagarri izan daiteke batzuetan, hala ere. Instrumentalaren ordain gisa ere erabiltzen da, esaterako, *ahaztu, gogoratu, pentsatu*, eta agian beste bakarren batekin: *Ez naiz horrekin gogoratzen; Gau osoa zurekin pentsatzen pasatu dut*. Kasu hauetan, osagarria litzateke, aditz batek hautatua baita.

*Ados egon, bat etorri, bat egin...* aditz konplexuekin erabiltzen denean ere osagarritzat hartu beharko genuke: *Ez nator zurekin guztiz bat; Esandako guztiarekin ados nago. Ezkondu edo elkartu* aditzekin ageri denean ere, badirudi osagarria dela, aditzak hautatua den neurrian: *Pello Mariarekin ezkonduko da aurten* (Pello eta Maria aurten ezkonduko dira); *Euki bazenu nogaz ezkondu; Geltokian elkartuko gara zurekin* (zu eta gu geltokian elkartuko gara). Ez dago ezkontzerik norekin ezkonduzik ez bada. Gauza bera *elkartu*-rekin ere. Hortaz, osagarri.

### 21.2.3. Adiera

**21.2.3a** ‘Konpainia’ adierazten du nagusiki: *norekin?* edo *zerekin?* galderari erantzuten dio. Hortik datorkio, hain zuzen, gramatika lanetan erabiltzen den *soziatibo* edo *komitatibo* deitura ere: *Joxerekin etorri nintzen Gasteiza; Zirujau ospetsu batekin ikasi zuen*.

*Zerbaitekin/norbaitekin batera* diogunean, aldi berean gertatutako bi kontu elkartzen ditugu. *Hau esatearekin batera agertu zen haurra* esanez gero, adibidez, *batera* postposizioak soziatiboa du osagarri eta aldibereko bi gertaera aipatzen dira: zerbait esatea eta haurra agertzea. *Zurekin batera joango naiz* diogunean ere kidetasun bera dugu funtsean, baina oraingoan ez gaude bi gertakizunen aldiak parekatzen, zure eta nire arteko elkartasuna edo baizik, *zu eta biok elkarrekin* alegia.

Maiz, PS hau juntadura batez ere ordezkari daiteke. Horrela, [X Y-rekin] eta [X eta Y] baliokidetzat har daitezke esanahiaren aldetik: *Mikel gurekin joango da* = *Mikel eta gu joango gara*; *A B-rekin alderatzen dituzunean* = *A eta B alderatzen dituzunean*.

**21.2.3b** ‘Instrumentala’ren baliokide ere izan daiteke (§ 21.6.3): *Aizkora batekin moztu zion lepoa oiloari*; *Zure jarrera zitalarekin gauzak okerrago jar-tzen ari zara*.

**21.2.3c** ‘Denbora’ balioa ere izan dezake, *noiz?* galderari erantzuten baitio zen-baitetan: *Egunsentiarekin abiatu ginen mendirantz* (cf. *Egunsentian abiatu gi-nen*); *Berrogei urterekin ezagutu nuen Patxi* (cf. *Berrogei urte zituelan/niuela*).

### 21.3. Kausazkoa: [<sub>PS</sub> ... -(EN)-GATIK]

#### 21.3.1. Morfologia

**21.3.1a** [<sub>PS</sub>... -EN-GATIK] sintagma ere genitiboaren gainean eraikia da: [... -(E)N-GATIK]. Seinale, -*gatik*-ek ere izena duela barnean: -*ga(i) -tik* edo. Ohart gaitezen, hala ere, zenbaitetan -*en-gatik*-en ordez, -*gatik* soila izaten dugula, -*en* genitiboaren markarik gabe. Hori sintagma mugatu singularra denean ger-tatzen da batez ere. Orduan, *gizonarengatik*-en ondoan *gizonagatik* bezalako bat izango dugu.

**21.3.1b** Izen propioekin ere, sintagma bokalez amaitzen delarik, genitiboaren marka agertzea hautazkoa da: *Alemania(ren)gatik*, *Bilbo(ren)gatik*, baina *Ur-kabustaitzengatik* (?*Urkabustaizgatik*), *Mirene(n)gatik* (?*Mirengatik*). Honen azalpena nahi izanez gero, pentsa liteke egitura konplexua soiltze aldera, geni-tiboa desagertu egin dela eta -*gatik* postposizioa gainerako postposizio soilen pareko gisa lan egiten hasi dela. Gramatikalizazioaren aurrean gaude, nolabait. *Mirenegatik*, adibidez, ez da soilik genitiboaren marka ‘galdu’ izanaren ondo-rioa. Zerbait gehiago da: -*gatik* postposizioa beregain bihurtu da eta zuzen-zu-zenean itsasten zaio osagarriari, genitiboaren premiarik gabe: *Miren-e-gatik*. Osagarria kontsonantez amaitzen bada, postposizioaren eta ezkerreko osaga-rria artean -*e*- epentetiko bat tartekatzen da. Baina kontsonantez ez, bokalez amaitzen bada, orduan ez dago epentesirik: *Patxi-gatik* vs *Miren-e-gatik*, eta *Alemania-gatik* vs *Iran-e-gatik*. Jakina, genitiboaren markari eustea ere zilegi da: *Patxirengatik*, *Mirenengatik*, *Alemaniarengatik* edo *Iranengatik*.

**21.3.1c** Mugatzailea erakuslea denean ere, genitiboaren marka ezkuta daiteke eta arestian aipatu dugun morfema soilteze hori hemen ere gertatzen bide da: ... *honengatik* > ... *honegatik*; ... *horrengatik* > ... *horregatik*; ... *harengatik* > ... *haregatik* > ... *hargatik*; {*honexen/horrexen/harexen*} -*gatik* > *honexegatik/horrexegatik/harexegatik*. Pluralean ere gauza bera: *liburu hauek+-en-gatik* > *liburu haue(n)gatik*; *arrazoi horiexek+-en-gatik* > *arrazoi horiexe(n)gatik*.

**21.3.1d** Kausazko postposizio sintagma: [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ...] -*GATIK*]

[-mug.]	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... zenbatzailea ...] -(ren)-<i>GATIK</i>]</p> <p>{<i>bi / hiru / sei / ...</i>} (<i>etxe / harri...</i>) -(REN)-<i>GATIK</i></p> <p>{<i>bat / bost / hamar / ...</i>} (<i>adar / haitz /...</i>) -(EN)<i>GATIK</i></p> <p>{<i>zer / edozer / ezer / zein / edozein / zenbat / hainbat...</i>} (<i>harri / haitz</i>) -(EN)<i>GATIK</i></p> <p>(<i>etxe / harri / haitz / ...</i>) {<i>asko / gutxi / anitz</i>} -(EN)<i>GATIK</i></p>
[+mug.] <iz. prop.>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> izen propioa] -(en)-<i>GATIK</i>]</p> <p><i>Bilbo-(ren)gatik / Donostia-(ren)gatik / Maule(ren)-GATIK</i></p> <p><i>Irun-e(n)-gatik / Usurbil-e(n)-gatik / Zarautz-e(n)-GATIK</i></p> <p><i>Irati-(ren)-gatik / Ane-(ren)-gatik / Pello-(ren)-GATIK</i></p> <p><i>Mikel-e(n)-gatik / Miren-e(n)-gatik / Anton-e(n)-GATIK</i></p>
[+mug./-pl.] <izord.>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> perts. izord.] -(re)-<i>GATIK</i>]</p> <p><i>ni-(re)-GATIK / hi-(re)-GATIK</i></p>
[+mug./-pl.] <artikulua>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ...] -a-(ren)-<i>GATIK</i>]</p> <p><i>zeru (garbi)-a-(ren)-GATIK / etxe (berri)-a-(ren)-GATIK / ikastola-(a)-(ren)-GATIK / ...</i></p> <p><i>alde (zaharr)-a-(ren)-GATIK / ikasle (trakets)-a-(ren)-GATIK</i></p>
[+mug./-pl.] <erakuslea>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -e(n)-<i>GATIK</i>]</p> <p>(<i>etxe / harri / haitz...</i>) {<i>hone(n)- / horre(n)- / hare(n)-</i>} -<i>GATIK</i> (-<i>xe</i>)</p> <p>(...) <i>beron-e(n)-GATIK / berorr-e(n)-GATIK / bera(ren)-GATIK</i></p> <p>(<i>mutiko / lagun / ...</i>) {<i>honetx- / horretx- / haretx-</i>} -<i>e(n)-GATIK</i></p> <p>(<i>mutiko / lagun / ...</i>) {<i>beron- / berorr- / bera-r-</i>} -<i>e(n)-GATIK</i></p>



<p>[+mug./+pl.] &lt;artikulua&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... -ak/-ok ] -en-GATIK]</p> <p>{etxe / leku berri / enpresa / une latz / ...} -EN-GATIK</p> <p>{ideia / bide zabal / ...} -ON-GATIK</p> <p>{ikasle / guraso / ...} -EN-GATIK</p> <p>{ikasle / guraso / ...} -ON-GATIK</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -en-GATIK]</p> <p>(etxe / guraso / enpresa / ...) {hau / hori / hai-} -EN-GATI-XE</p> <p>(etxe / guraso / enpresa / ...) {honex- / -horrex- / harexe-} -EN-GATIK</p> <p>(etxe / guraso / enpresa / ...) {hauetx- / horietx- / haietx-} -EN-GATIK</p> <p>(etxe / guraso / enpresa / ...) {hauEN- / hori-EN- / haien-} -GATI-XE</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;izord.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... perts. izord.] -(r)e(n)-GATIK]</p> <p>gu-re-GATIK / zu-re-GATIK / zu-en-GATIK</p>

### 21.3.2. Funtzio sintaktikoa

**21.3.2a** Ez dago *kaus*a hautatzen duen predikaturik. Horrenbestez, [<sub>PS</sub> ... -(EN)GATIK] tankerako sintagma adjuntua izan ohi da: *Kutsaduragatik, errekek egoera negargarrian daude* (cf. *Errekak egoera negargarrian daude*).

**21.3.2b** Mendebaldeko euskalkietan batik bat, eta hizkera arruntean, instrumentalaren ordez ere erabiltzen da kausazkoa. Horrela, *galdetu* edo (*egundo-koak*) *esan*, (*gai*zki *esaka*) *jardun* bezalako predikatuekin maiz erabiltzen da, instrumentalaren ordez: *Ez al du inork gu(re)gatik galdetu?* (cf. *Ez al du inork gutaz galdetu?*); *Gu(re)gatik nahi dutena esan dezatela*. Kasu honetan, osagarria izango litzateke, aditzak hautatua den heinean. Baina ez da egiazki kausazkoa. *Guregatik, nahi duena esan dezake* badiogu, [<sub>PS</sub> ... -GATIK] sintagmak adiera kontzesiboa ere izan dezake ('gu gorabehera, nahi duena esan dezake') eta, jakina, kasu honetan ez gaude osagarri baten aurrean.

### 21.3.3. Adiera

**21.3.3a** ‘Kausa’, ‘motiboa’, ‘arrazoia’... adierazten du oro har [<sub>PS</sub> ... -ENGATIK] sintagmak. Hots: *zergatik?* / *norengatik?* galderari erantzuten dio. Kausazko mendeko perpaus jokatu gabeek ere postposizio honetara jotzen dute (§ 25.3.3h, § 38.4): *Eskerrik asko hain bizkor erantzuteagatik*. Hemen eskerrak ematearren arrazoia (kausa) zein den adierazten da: hain bizkor erantzutea.

**21.3.3b** Ohar bat, hala ere: balizko gaztelaniazko itzulpena gorabehera, -*gatik* sekula ez da izango -*k* ergatiboaren ordezkio. Honako bi perpaus hauek, adibidez, erabat desberdinak dira esanahiaren eta formaren aldetik: *Etxe hau zuregatik eraikia izan zen* perpausaren kausa adierazten dugu egiazki (cf. *Etxe hau zuregatik eraiki zuten*). Baina *Nire lagunak ertzainek atxilotuak izan ziren* edo *Nire lagunak ertzainek atxilotu zituzten* esan nahi bada, \**Nire lagunak ertzainengatik atxilotuak izan ziren* esatea ez da bidezko. Honen antzekoak, zuzenak izatekotan, zergatia adierazi behar dute: *Nire lagunak ertzainengatik* (= *ertzainen erruz*) *izan ziren atxilotuak*. *Ertzainen erruz* PSa eta *ertzainek* sintagma ergatiboa ez dira gauza bera. *Bilera hau zuregatik atzeratu da* eta *Bilera hau zuk atzeratu duzu* ere ez dira gauza bera.

**21.3.3c** ‘Helburua’ ere adieraz dezake PS honek, mendeko perpaus jokatu gabeetan bereziki (§ 38.4): *Guri adarra jotzeagatik ari da* (cf. *Guri adarra jottzearren*); *Gehienetan, beti ez esateagatik, arrazoi izan ohi dut* (cf. *beti ez esatearren*). Azken batean, helburu bat zerbaiten arrazoi ere izan daiteke. Hori gertatzen da hemen ere. Izan ere, bi adiera horiek, helburua eta arrazoia, ez dira elkarren kontrakoak.

Prezio baten arrazoia adieraz dezake: *Erreka garbiak izateagatik ez dugu asko ordaintzen*; *Zer esan ortodoxia hausteagatik deabruaren kobazuloan ordaintzen duten bide-sariaz?* (Lertxundi). ‘Zerbaiten truke’ edo esan nahi da hola-koetan: erreka garbiak izatea ordaindu egin behar da; ortodoxia haustea bere prezioa du.

**21.3.3d** ‘Kontzesio’ balioa ere izan ohi du maiz [<sub>PS</sub> ... -GATIK] sintagmak, kausa eta kontzesioa elkarrekin erlazionatuak baitaude. Horrela, ez da harrizkoa ‘X

gorabehera' esanahiarekin edo, [... -GATIK] erabiltzea: *Basta ederragatik, astoa duk asto* (cf. *Basta ederra izanagatik / Basta ederra izanda ere, astoa beti asto*); *Horregatik, ez naiz kikilduko. Horratik* (< horregatik), *haatik* (< ha(r)gatik)... bezalako adberbioak ere, funtsean, horixe dira, kontzesiboak: *Ondarrak azaldu dituenak aski dira, haatik, ahaztuxe geneuzkan zenbait oroitzeko* (Mitzelena). Hauek aurkaritza juntagailu baten bidez ere adieraz daitezke (§ 28.6.2), nolabait (*Ez zinen orain altxatuko, baina?*; *Baina nik ez nion kasurik egin*). Nolanahi ere, aurkaritza eta kontzesioa oso hurbileko adierak dira (§ 28.6.2.5).

## 21.4. Destinatiboa: [<sub>PS</sub> ... -(EN)TZAT]

### 21.4.1. Morfologia

**21.4.1a** PS honen osaera [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... -EN] + -TZAT] da. Hau ere genitiboaren gainean eraikia, hortaz: *aitarentzat, niretzat* eta abar. (§ 18.6.2).

[-mug.]	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... zenbatzailea ...] -(r)en-TZAT]</p> <p>{bi / hiru / sei / ...} (etxe / harri...) -R-EN-TZAT</p> <p>{bat / bost / hamar / ...} (adar / haitz /...) -EN-TZAT</p> <p>{zer / edozer / ezer / zein / edozein / zenbat / hainbat...} (harri / haitz) -(R)ENTZAT</p> <p>(etxe / harri / haitz / ...) {asko / gutxi / anitz} -ENTZAT</p>
[+mug.] <iz. prop.>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> izen propioa] -(r)en-TZAT]</p> <p>Bilbo-r-ENTZAT / Donostia-r-ENTZAT / Maule-r-ENTZAT</p> <p>Irun-ENTZAT / Usurbil-ENTZAT / Zarautz-ENTZAT</p> <p>Irati-r-ENTZAT / Ane-r-ENTZAT / Pello-r-ENTZAT</p> <p>Mikel-ENTZAT / Miren-ENTZAT / Anton-ENTZAT</p>
[+mug./-pl.] <izord.>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> perts. izord.] -re-TZAT]</p> <p>ni-re-TZAT / hi-re-TZAT</p>

<p>[+mug./-pl.] &lt;artikulua&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... -a] -r-en-TZAT]</p> <p>zeru (garbi)-a-ren-TZAT / etxe (berri)-a-ren-TZAT / ikastola-a-ren-TZAT</p> <p>alde (zaharr)-a-ren-TZAT / ikasle (trakets)-a-ren-TZAT</p>
<p>[+mug./-pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -e(n)-TZAT]</p> <p>(etxe / harri / haitz...) {hone(tx-) / horre(tx-) / hare(-tx-)} -en-TZAT</p> <p>(...) beron-en-TZAT / berorr-en-TZAT / berar-en-TZAT</p> <p>(mutiko / lagun / ...) {honetx- / horretx- / haretx-} -en-TZAT</p> <p>(mutiko / lagun / ...) {beron- / berorr- / bera-r-} -e(n)-TZAT</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;artikulua&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... -ak/-ok] -en-TZAT]</p> <p>{gurasoen / enpresa berrien / galdera guztien / ...} -TZAT</p> <p>{gurasoon / ideion / enpresa berrion} -TZAT</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -en-TZAT]</p> <p>(etxe / guraso/ enpresa / ...) {hau- / hori- / hai-} -en-TZAT</p> <p>(etxe / guraso/ enpresa / ...) {hauetx- / horietx- / haietx-} -en-TZAT</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;izord.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... perts. izord.] -(r)e(n)-TZAT]</p> <p>gu-re-TZAT / zu-re-TZAT / zu-en-TZAT</p>

**21.4.1b** Postposizio hau, euskalkien arabera, [... -TZAKO] edo [... -ENDAKO] tankeran ere eman daiteke: *Garagardo hau {norentzat/norentzako/norendako} da?* [... -EN-TZA-KO / -ENDAKO] (*zuretzako, norentzako...*), ordea, ez da ezinbestekoa, aditzaren adjuntu dugunean behintzat. Beste kontu bat da, izenlagun denean. Orduan, jakina, *-ko* hori nahitaezko bihurtzen da (§ 21.8): *Jonentzako opariak hauek dira* (\**Jonentzat opariak hauek dira*). Aditzaren adjuntu denean hiru formak dira zilegi, euskalkien arabera: *Ez dut ezer aurkitu {amonarentzako/amonarendako/amonarentzat}*. Izenaren adjuntu denean, aldiz, ezinbestekoa da *-ko* agertzea: *{Amonarentzako/amonarendako/\*amonarentzat} pastilla ez dut aurkitzen*.

### 21.4.2. Funtzio sintaktikoa

**21.4.2a** [<sub>PS</sub> ... -ENTZAT] sintagma ‘adjuntua’ izan ohi da: *Opari hau ekarri dute zuretzat*. Hemen, [<sub>PS</sub> *zuretzat*] ez da aditzak hautatua. Aldiz, perpaus horretantxe ageri den [<sub>DS</sub> *opari hau*] sintagma *ekarri* aditzaren osagarria da, hori gabe predikazioa herren geldituko litzateke.

**21.4.2b** Esamolde batzuetan, hala ere, zenbait konparatiborekin adibidez, PS destinatibo hau ‘osagarri’ dela pentsa liteke: *Etxe hau garestiegia da {guretzat/guretzako}; Biontzat/biondako lain baduzue*. Hemen destinatiboa ageri da [...-EGI] konparatiboak hala eskatzen baitu (§ 32.2.2.1c). Alegia, [<sub>PS</sub> *guretzat*] eta [<sub>PS</sub> *biontzat*] *garestiegi*-k edo *lain*-ek hautatuak dira (§ 32.10.2). Alegia, *etxe hau garestiegia da* diogunean, ‘zeren arabera den garestiegi’ aditzera ematen digu *zuretzat* osagaiak. Hortaz, PS hau -egi edo *lain/aski*-ren osagarritzat har dezakegu. Osagarria inplizitua ere izan daiteke eta, horrenbestez, aditzera eman gabe utzi: *Lotsagabeegia zara (horretarako)*. Beste adjektibo batzuekin ere (*on, egoki, kaltegarri...*) ikus genezake destinatiboa: Besagaineko oinazearentzat ona; Herriarentzat mesedegarri...

### 21.4.3. Adiera

**21.4.3a** Aditzaren ekintzari dagokion ‘onuraduna’ adierazten du, ekintza edo gertaera baten onura (edo kaltea) nork jasotzen duen alegia: *Seme-alabentzat ekarri ditut opariok; Edozein ikastolarentzat kaltegarri izan liteke hau*.

Sarritan, hala ere, *norentzat?* eta *zerta(ra)ko?* edo *norako?* galderak elkarren lehian ibil daitezkeen bezala, *etxearentzat* eta *etxerako* PSen artean ere erabakitzea zaila izan daiteke: *Proiektu hau {herriarentzat/herrirako} ona litzateke*. [<sub>PS</sub>... -RAKO]-k badirudi ‘lekuari’ egiten diola erreferentzia, [<sub>PS</sub>... -RA]-k bezala. [<sub>PS</sub> ... -EN-TZAT]-ek, berriz, ‘onuradunari’. Dena dela, batzuetan -entzat eta -rako, egiazki, esanahi bertsukoak gerta daitezke: *Proiektu hau herrirako ona da* (cf. *Proiektuak herrira onura ekarriko du*), baina *Proiektu hau herriarentzat ona da* (cf. *Proiektuak herriari onura*

*ekarriko dio*). Proiektuak norbaitentzat edo norabaiteko onuragarri izan daitezke, nonbait.

Beste batzuetan, ordea, ez dira trukagarri: *Txartel hau Gernikarako da* (cf. *Txartel hau Gernikara joateko baliagarri da*) baina *\*Txartel hau Gernikarentzat da* (cf. *\*Txartel hau Gernikari entregatzeko da*), baldin eta Gernika deiturako norbaitez ari ez bagara behintzat.

Oro har, esan daiteke, *-(r)entzat* bizidunekin edo nolabait bizidun gisa interpreta daitezkeenekin (*herria* edo *Miren*, adibidez) ondo doala eta onuraduna adierazten duela; *-rako*, berriz, bizidun ez direnekin. Horrela, onuraduna baino areago, helburua adierazten du. Horregatik, zilegi da *-(r)entzat* leku/denborazko ez direnen artean kokatzea, hemen egin dugun bezala. Aldiz, *-rako* leku/denborazkoen artean kokatu dugu (§ 20.3.1.4).

**21.4.3b** Badu adiera ‘ebidentziala’ ere. Hala, *Niretzat ez da ona* badiogu, esaldi hori anbigua da: balio dezake, adibidez, niri kalte egiten didan zerbaitez mintzatzeko, ‘niri ez dit onik egiten’ edo esateko. Baina baita ‘nire ustez, ez da ona’ adierazteko. Adiera hau oso ohikoa da: *Hegazkina, niretzat, hegazkina da* (J. A. Arrieta). Ebidentziala edo izango litzateke, beharbada. Holako osagaiak hiztunak egiten duen baieztapenaren ‘ebidentzia’ edo oinarria eskaintzen dute: *Mozkortuta iritsi omen da; Axularren ustez, gauzak ez dira geroko utzi behar; Gure amak zioenez, hariak jostorrazak baino luzeagoa behar dik* eta abar. *Axularren ustez* edo *Axularrek zioenez* esatea bezainbat litzateke *Axularrentzat* esatea. Hauei deitzen diegu ‘ebidentzial’.

## 21.5. Prolatiboa: [<sub>PS</sub> ... -TZAT]

### 21.5.1. Morfologia

**21.5.1a** Aurreko atalean (§ 21.4) helburuzko gisa analizatu dugun [... -EN-TZAT] postposizioan agertzen den *-tzat* eta ‘prolatibo’ deitzen duguna gauza bera dira. Hemen, hala ere, genitiborik gabe agertzen da. *-TZAT*en osagarria IS soila edo AdjS izango da, mugatzailerik gabe: [<sub>PS</sub> [<sub>IS</sub> *gidari*] *-tzat*] *hartu genuen Karmele*;

[<sub>PS</sub> [<sub>IS</sub> epaile zuzen] -tzat] geneukan Jokin; [<sub>PS</sub> [<sub>AdjS</sub> on] -tzat] eman genuen Keparen iritzia. Formaren aldetik, hortaz, betiere determinatzailearik gabe.

**21.5.1b** Honekin batera, bada beste berezitasun bat ere: gainerako kasuetan ikusi ditugun hots aldaketek ez dute hemen lekurik. Esan nahi baita, kontsonante baten ondoren gertatzen denean, ez dugu *-e* bokalaren epentesirik: *gizon+ -tzat > gizontzat* (ez \**gizonetzat*) / *eder+ -tzat > edertzat* (ez \**ederretzat*) (cf. *zilar+ -z > zilarrez*, epentesiarekin).

Honetan, *-ka* adberbiozko atzizkiaren pareko dugu (§ 6.2.3): *dardarka* (ez \**dardarreka*) / *lantzanka* (ez \**lantaneka*). Hemen ez da, ez zenbatzailearik, ez mugatzailearik, ez izenordainik onartzen. Hortaz: [<sub>PS</sub> [<sub>IS</sub> etsai] -tzat > etsaitzat; [<sub>PS</sub> [<sub>AdjS</sub> lelo] -tzat > lelotzat. Baina \* [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> {gizon hau / zu / Pello /...} ] -tzat > \**gizon hautzat* / \**zutzat* / \**Pellotzat*...}. Izan ere, *gizon hau* / *Pello* / *zu*... DSak dira, mugatzailedunak, alegia.

**21.5.1c** Esan dugu horrelakoetan ezin daitekeela inolako determinatzailearik, ez mugatzailearik, ez zenbatzailearik ager: \**?Bi lapurtzat hartu zituzten* aski badaezpadakoa da. Beraz, honen ordez beste bideren bat hartu behar da. Adibidez: *Bi lapur zirela pentsatu zuten*. Edo, bestela, zenbatzailea predikatuan eman beharrean, objektuan agerrarazi: *Bi gizonak lapurtzat hartu zituzten*. Hau izango litzateke hitz egiteko modu arrunta.

Izen bereziekin edo pertsona izenordainekin ere problema bera aurkituko dugu: *Andoni nintzela pentsatu zuten* / *Ni nintzela pentsatu zuten* modukoak erraz onartzekoak dira, baina beste hauek ez hainbeste: \**Andonitzat hartu ninduten* / \**Nitzat hartu zuten Andoni*. Baina ISak edo AdjSak onartzen ditu, betiere mugatzailearik gabe: *Ongi prestatutako abokatutzat geneukan* (ez *Ongi prestatutako \*abokatuatzat*); *Langiletzat geneukan* (\**Langileatzat*)... Horrenbestez, prolatibo honek baditu debekuak. Dena dela, adberbioak edo adberbio esapideak bideratzen dituela esan genezake.

**21.5.1d** Eta formari dagokion beste ohar bat: zenbait aditzekin inolako postposiziorik gabeko ordainak ere eman daitezke: *Gerraren bila gau ta egun, etsaiak, harturik lagun*, esan zuen bertsolariak, *etsaiak laguntzat harturik* ere esan zezakeen. Aukera hau *hartu* aditzarekin gertatzen da bereziki, baina

baita beste bakarren batzuekin ere: *eman*, *eduki* edo *eskaini* aditzekin, adibidez, kasu batzuetan behintzat (*oparitzat eman / opari eman*; (zerbait) *oparitzat eskaini / opari eskaini*).

### 21.5.2. Funtzio sintaktikoa

**21.5.2a** Prolatiboa deitzen dugun [<sub>PS</sub> ... -TZAT] sintagma aditz jakin batzuekin agertuko zaigu beti, *hartu*, *eman*, *eduki* aditzekin batez ere: *Frantsesa daukate hizkuntza ofizialtzat*; *Oparitzat liburu bana eman nien*; *Asto zaharra gatzetzat saldu zioten*. [<sub>PS</sub> *Hizkuntza ofizialtzat*] prolatiboa [<sub>DS</sub> *frantsesa*] sintagmaz predikatzen da. [<sub>PS</sub> *Oparitzat*], berriz, [<sub>IS</sub> *liburu bana*] sintagmarekin lotzen dugun predikatua da eta [<sub>PS</sub> *gatzetzat*] ere berdin, [<sub>IS</sub> *asto zaharra*] sintagmarekin. Predikatu osagarritzat hartzen ditugu PS hauek. Hain zuzen, bigarren mailako predikatu lirateke (§ 24.4) eta perpauseko objektuaz predikatzen dira: [<sub>DS</sub> *frantsesa*] *hartu dute* [<sub>PS</sub> *hizkuntza ofizialtzat*]. *Frantsesa* litzateke perpauseko objektua eta objektu honi buruzko predikazioa gauzatzen du prolatiboak: *frantsesa<sub>i</sub> hizkuntza ofizialtzat<sub>i</sub>* hartu, alegia.

**21.5.2b** Predikazioa perpauseko objektuari ez baizik subjektuari dagokionean, ez du ematen prolatiboaz baliatzen ahal garenik: *Gure amona neskame joan zen Donostiara* (\**neskametzat joan zen*); *Mikel alkate zegoen gure herrian*, ez \**alkatetzat*. Hortaz, subjektuari gagozkiolarik, IS soila behar dugu inolako postposiziorik ez determinatzailezik gabe: *Alkate dago*.

### 21.5.3. Adiera

Adierari dagokionez, prolatiboa anbigua gerta daiteke. Adibidez, *Erregetzat hartu zuten* perpausa bi modutara uler liteke: a) *Errege zela uste izan zuten* eta b) *Errege izateko hartu zuten* = *errege hartu zuten*. *Hura errege izan* moduko predikazioa dugu bietan, baina batean *uste* bati buruz ari garen bitartean, bestean *helburu* edo *asmo* bati buruz edo ariko ginateteke: *Zer zela uste izan zuten* vs *Zertarako (zer izateko) hartu zuten*.



## 21.6. Instrumentala: [<sub>PS</sub> ... -z] ('zertaz'/'zerez')

### 21.6.1. Morfologia

**21.6.1a** -z da instrumentalaren postposizioa: [<sub>PS</sub> ... -z]. Dagozkion galde hitzak, berriz, *zertaz/nortaz* eta *zerez* dira. Hain zuzen, postposizio honen bidez bi eratako egiturak osatzen dira: a) orain arte aurkeztu ditugun beste PSen antzekoak (*duen lanaz aspertu da*; *egindako lanez mintzatu da*; *zenbait lanez ez da gogoratz...* eta abar), eta b) adberbio sintagmatzat har litezkeenak (*oinenez dabil*; *penaz mintzo da*; *trenez iritsi da...*). Batean *zertaz?* galderari erantzuten zaio, bestean, aldiz, *zerez?* edo *nola?* edo holako zerbait izango litzateke galdera. Lehenbizikoetan begiak jarrita, honako hau izango litzateke PS instrumentalaren taula:

**21.6.1b** Postposizio sintagma instrumentala: [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ...] -z]

[-mug.]	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... zenbatzailea ...] -(e)-z]</p> <p>{bi / hiru / sei / ...} (etxe / harri...) -z</p> <p>{bost / hamar / ...} (adar / haitz / ...) -(e)-z</p> <p>{zer / edozer / ezer / zein / edozein / zenbat / hainbat...} -(e)-z</p> <p>{zer / edozer / ezer / zein / edozein / zenbat / hainbat...} -(e)-TA-z</p> <p>(etxe / harri / haitz / mutiko / lagun...) {asko / gutxi / anitz} -(e)-z</p>
[+mug.] <iz. prop.>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> izen propioa] -(e)-z]</p> <p>Bilbo-z / Donostia-z / Maule-z</p> <p>Irun-e-z / Usurbil-e-z / Zarautz-e-z</p> <p>Irati-z / Ane-z / Pello-z</p> <p>Mikel-e-z / Miren-e-z / Anton-e-z</p>
[+mug./-pl.] <perts. izord.>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> perts. izord.] -ta-z]</p> <p>ni-ta-z / hi-ta-z</p>
[+mug./-pl.] <artikulua>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ...] -a-z]</p> <p>zeru (garbi)-a-z / etxe (berri)-a-z / ikastola-(a)-z</p> <p>alde (zaharr)-a-z / une zail-a-z</p>

<p>[+mug./-pl.] &lt;erakus.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -ta-z]</p> <p>(etxe / harri / haitz...) {hon-e- / horr-e- / har-} -ta-z          (...) beron-e-TA-Z / berorr-e-TA-Z / bera-z          Baina {honezkero/horrezkero/harrezkero}</p> <p>(Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 26. araua: “-z gero”, Donostian, 1995eko urtarrilaren 27an onartua).</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;artikulua&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... artikulua] -z]</p> <p>etxe-e-z / leku berri-e-z / enpres-e-z / une latz-e-z          ikasle-e-z / guraso-e-z</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;erakus.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea] -ta-z]</p> <p>(etxe / leku / enpresa / guraso...) {hau / hori / hai-} -e-ta-z          (etxe / leku / enpresa / guraso...) {hauetx-/ horietx-/ haietx-}          -e-ta-z          (etxe / leku / enpresa) berau-e-ta- z / berori-e-ta- z / ber(ai)-e-ta-z</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;izord.&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... perts. izord.] -TAZ]</p> <p>gu-TAZ / zue-TAZ / zu-TAZ</p>

**21.6.1c** Taula hau begien aurrean dugula, instrumentala egiturazko postposizioen (ikus 18. kapitulua) eta leku/denborazkoen (ikus 20. kapitulua) ‘tarteko’ zerbait dela pentsa liteke: DS bat har dezake osagarri, beste postposizioek bezalaxe: *Zure izenaz galdetzen dute* (< [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> zure izen -a] -z]) (singularra); *Etxebizitzen alokairuez kezkaturik daude* (< [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> etxebizitzen alokairu -ak] -z]) (plurala); *Edozein liburuz galde diezaiokezu* (< [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> edozein liburu] -z]) (determinatu zehaztugabea). Morfologiaren ikuspegitik, hortaz, ergatiboaren edo datiboaren antzera lan egiten du, itxura batean behintzat: *zure izenaz* (instr.) (cf. *zure izenak* (erg.), *zure izenari* (dat.)); *etxebizitzen alokairuez* (instr.) (cf. *etxebizitzen alokairuek* (erg.), *etxebizitzen alokairuei* (dat.)); *edozein liburuz* (instr.) (cf. *edozein liburuk* (erg.), *edozein libururi* (dat.)).

**21.6.1d** Bada, ordea, diferentzia nabarmen bat: determinatzailea erakuslea (*hau, hori...*), pertsona izenordaina (*ni, gu, zuek...*) edo determinatzaile zehaz-

tugabea denean (*zer, edozein...*) instrumentalak beste bide bat hartzen du: leku/denborazko PSek bezala, *-ta-* artizkia eskatzen du (§ 19.5.1.1): *kontu {honetaz/horietaz/haietaz...}*; *gutaz, nitaz, zainetaz...* Holakorik ez da ergatiboan edo datiboan gertatzen, adibidez. *-ta-* artizkia erakusleetara (*etxe honetaz/horietaz...*), pertsona izenordainetara (*gutaz...*) eta determinatzaile zehaztugabeetara mugatzen da (*edo<sup>z</sup>ertaz, zenbaitetaz...*); (ikus 17. kapitulua). Azken hauetan, ordea, *-ta-* hori gabe ere ikus dezakegu instrumentala. Badirudi, hortaz, instrumentala egiturazko kasuen eta leku/denborazko PSen artean, erdibidean bezala dabilela: batzuetan egiturazko kasuek bezala jokutzen du (*gizakiaz, gizakiez...*), baina beste batzuetan leku/denborazko PSek bezala: *gizaki honetaz, gizaki haietaz*. Eta zenbait egituratan baita *honez, harrez, -ta-* gabe ere: *honezkero, hauez gainera*.

**21.6.1e** Instrumentalak bi esparru betetzen ditu (*zertaz/nortaz* vs *zerez*), ondoko adibideetan ikus daitekeenez: *Peruko zilarraz baliatu ziren* esan daiteke, baina baita *Zilarrez estali zuten aldarea* ere. Batean erreferentzia zehaztua dugu: *zilarraz / zilar horretaz / zilar haietaz* moduko sintagmak, edo *zutaz, Mikelez, Moskuz*, adibidez. Hauek, hala ere, euskaldun askorentzat ez dira ohikoak. Bai, ordea, adberbio gisa lan egiten dutenak: *zilarrez ordaindu / irainez bete / katez lotu* modukoak adibidez, non PS instrumentalak ez duen erreferente jakinik. Instrumentala kasu honetan inolako determinatzailerik gabeko PSa da: *ahoz, buruz, egunez, eskuz, gauez, irainez, izkribuz, katez, malkoz, pausoz pauso, urrez, zilarrez, zorionez...* Hauetan, mugatzailerik ez da ageri inondik ere, baina *-ta-* artizkirik ere ez. Bi egitura desberdinez ari gara, horrenbestez.

Goiko taulan (§ 21.6.1b) PS instrumentalak duen forma jaso dugu. Azpian mugatzailerik ez dutenak, adberbiotzat har litezkeenak alegia, (*gogoz, buruz, urez, ardoz...*) taula horretatik kanpo gelditu dira. Adberbio osaera dutela onartuz gero, erraz azal daiteke hitz hauek mugatzailerik ez izatea. Nolanahi ere, taula horri erreparatuta *bi etxez / bere etxeaz / bere etxe guztiez* moduko sintagmen forma argi gelditzen da eta *etxez inguratu / frantsesez hitz egin* modukoekin alderatuta batzuen eta besteen arteko aldea aski argi gelditzen da.

**21.6.1f** Bestalde, *zerez, zerbaitez* eta abar ere taxu berekoak dira eta aski ohikoak, gainera. Baina *zerez/zerbaitez* modukoak eta *ZERTAZ/zerbaitETAZ* beza-

lakoak desberdinak dira, esanahiari dagokionez ere. *Eskuz/buruz/guraizez...* alde batetik, eta *eskuaz / buru handi hartaz / guraize zorrotz haietaz...* bestetik, desberdinak diren bezala. Desberdinak morfologiaz, baina baita adieraz ere: *batean*, *ekaiaz* edo *instrumentuaz* ari gara, *Lastoz egina da* edo *Trenez ibiltzen da* diogunean bezala. Bestean, *aldiz*, *gaiaz* edo ari gara, *Erre den lastoaz ari da* edo *Aingeruez mintzatu zitzaigun* diogunean bezala.

**21.6.1g** Determinatzailearik gabeko sintagma hauetan (*zilarrez, egarritz, ingelesez...*) -z postposizioaren osagarria ISa izango litzateke, baina determinatzailearik gabea. Hau instrumentalean ez ezik beste leku/denborazko postposizioaren bat daramaten adberbio batzuetan ere gertatzen da: *benetan, egiatan, eguzkitan, eztitan, ahotan, lotan...* *Diruz ordaindu* eta *nire diruaz ordaindu* diogunean, lehenbizikoan ez gara diru jakin batez ari, bestean bai: *nire dirua* sintagma badu erreferente jakin eta zehatz bat. Aldiz, *diruz* esaten dugunean ez diogu diru jakin bati erreferentzia egiten. Holakoak adberbio ihartuak direla aldarrikatuko dugu, adberbio gisa gramatikalizatutako egiturak. *Egunez, zorionez, pozez...* ere adberbiotzat eman litezke bere horretan, *egunero, pozik* eta abar bezalaxe. Instrumental mugagabe hauetan -ta-rentzat lekurik ez den bitartean, *uretan, benetan* eta holako adberbioetan, -ta- agertzea nahitaezkoa da.

Forma desberdintasuna, hortaz, formazkoa baino zerbait gehiago dela esango genuke. Hain zuzen, euskaldun askok mugatzailearik gabeko instrumental hauek bakarrik erabiltzen dituzte eta gainerakoetan beste itzuli batzuetara jotzen: *eskuaz, gogoz, pozez...* esaten dute lasai asko, baina *liburu entretenigarriez* forma ikasiztat daukate, eta *liburu entretenigarrien gainean*, edo *liburu entretenigarriei buruz, liburu entretenigarriekin...* gisako zerbait emango dute instrumentalaren ordez. Euskara batuan, jakina, *liburu entretenigarriez* modukoak gero eta hedatuago ikusiko ditugu, baina lagunarteko hizkera arruntean ez hainbeste.

Gauzak horrela, goiko taula osatzerakoan PS arrunten (determinatzaile eta guzti erabiltzen direnen) formak ezarri ditugu, gainerako PSen pareko baitira. Mugatzailearik gabeko *bidez, egiaz, gogoz, irriparez...* eta holakoak, adberbioen sailean kokatzea hobe, beharbada. Horregatik, tauletatik kanpo utzi

ditugu. Hiztegiara ‘bidal’ genitzake oso-osorik. Beste hizkuntzalari batzuk ere iritzi honetakoak dira (Trask 2003: 134, adibidez).

**21.6.1h** Hizketa arruntean bederen, eta bereziki Hegoaldeko euskaldunen artean, gaiaz mintzatzerakoan, instrumentalaren ordeztan, bestelako esamoldeez baliatzeko aukera eskaintzen duten aditzak badira. Batzuetan, instrumentala-  
ren ordeztan, [PS... -KIN] PSaz baliatzen gara. Hala gertatzen da aditz psikologi-  
koekin, esaterako: *akordatu, aspertu, gogoratu, maitemindu, oroitu...* Askotan  
*oroitzen naiz zurekin; Holako gaiekin aspertuta nago...* Batzuetan iruditzen  
*zait zurekin maiteminduta dagoela* (Landa) (cf. *Zutaz maiteminduta dago*);  
*Zuzendaria ez da zurekin gogoratuko* (Egia) (cf. *Ez da zutaz oroitzen; Ez da*  
*zutaz gogoratuko*).

Beste batzuetan, berriz, [PS... -GATIK] gisa ematen ditugu: *esan, (gaizkiesaka)*  
*jardun, galdetu...* aditzekin, esaterako: *Behin baino gehiagotan pasatu zitzaie-*  
*dan burutik nire benetako gurasoengatik galdetzea* (Lertxundi) (cf. *Nire bene-*  
*tako gurasoen galdetzea*); *Ez kezkatu nigatik* (Juan Garzia) (cf. *Ez kezkatu ni-*  
*taz*); *Herrian azitia nintzela hasi ziren nigatik esaten* (Navarro) (cf. *Aztia*  
*nintzela hasi ziren nitaz esaten*).

Mugak non diren jakitea ez da samurra, nolana ere. Dena dela, badirudi,  
ekialdeko euskalkietan PS instrumentalaren erabilera hedatuagoa eta ohiko-  
agoa dela mendebaldean baino.

**21.6.1i** Instrumentala, adberbio askoren osagai da: *aldez, aldiz, berriz, buruz,*  
*garaiz, gogoz, tamalez, zoritxarrez...* eta beste hainbat adberbiok -z instru-  
mentala buru dutela eraikiak dira. Holakoak, adberbio peto-petoak direnez,  
hiztegietan bildurik agertuko dira. Baina, bestalde, hiztegietan hala agertu ez  
arren, adberbiotzat har litezke: *eskuaz, lurrez, penaz, trenez...* modukoak.

**21.6.1j** Instrumentala mendeko perpaus bati itsatsia ere ager daiteke. Perpaus  
jokatugabeetan, adibidez (§ 25.2.4c, § 30.6.3.25, § 34.11, § 40.9): *Hau esanez/*  
*esanaz; Hau esanez gero...; Gezurra esateaz gainera...* Baina baita perpaus  
jokatueta ere (§ 38.8, § 40.17): *Lehendakariak ongi esan zuenez; Esatekoak*  
*esanak dituzenez gero...*

### 21.6.2. Funtzio sintaktikoa

**21.6.2a** Funtzioari dagokionez, PS instrumentala osagarri nahiz adjuntu izan daiteke, predikatuaren arabera. Instrumentala, osagarri izan daiteke: aditz batzuek (*ahantzi, arduratu, ari izan, baliatu, damutu, fidatu, galdetu, gogoratu, gozatu, jabetu, jardun, kezkatu, konturatu, maitemindu, mintzatu, ohartu, oroitu, pentsatu, poztu, segur izan* eta beste hainbatek) PS instrumentala hautatzen dute osagarritzat: *Ez naiz oroitzen zure izenaz; Zutaz maitemindua zegoen; Pentsatu al duzu esan dizudanaz?; Esandakoaz seguru nago...* Hauetako zenbait aditz psikologikoak dira, eta halakoekin ohikoa da eragingarria, estimulua, instrumentalean/soziatiboan ematea (§ 18.4.3, § 23.2.2.3c).

**21.6.2b** Predikatu osagarri ere izan daiteke beste batzuetan, predikatuarekin berarekin baino areago predikatuaren osagarri batekin erlazionatua dagoela: *Zer entzun duzu hitzarmen berriaz?; Ez daki gauza handirik euskal gramatikaz; Denok egiten dugu gogoeta gure iraganaz, eta gure bilakaeraz (Berria)*. Adibide hauetan *zer, gauza handirik* eta *gogoeta* dira egiazki aditzaren osagarri. [*Hitzarmen berriaz*], [*euskal gramatikaz*], [*gure iraganaz eta gure bilakaeraz*] sintagmak, osagarri bai, baina ez dira zuzenean aditzaren osagarri, predikatu osoaren osagarri baizik (*zer entzun, gauza handirik jakin* edo, are argiago *gogoeta egin*-en osagarri). Perpaus horiek beste modu honetara ere eman litezke, hots: *Hitzarmen berriari buruzko zer entzun duzu? (= Zer entzun duzu [hitzarmen berriari buruz]?)*; *Euskal gramatikari buruzko gauza handirik ez daki; Gure iraganari, eta gure bilakaerari buruzko gogoeta denok egiten dugu*.

Instrumentala, bigarren mailako predikatua izango litzateke, predikatu osoari dagokiona edo, agian zuzenago, objektuari berari dagokion predikatu osagarria. Nolanahi ere, galde hitza edo izenordain zehaztugabea bera ezin da alborra utzi perpausaren gramatikaltasuna gorde nahi bada: *Denok egiten dugu gogoeta gure iraganaz, eta gure bilakaeraz / Denok egiten dugu gogoeta*, baina *\*Gure iraganaz, eta gure bilakaeraz denok egiten dugu*. Honek esan nahi du PS instrumental honek *gogoeta* horren arrimuan bakarrik lan egin dezakeela, edo *gogoeta egin* predikatu osoarekin. Bere kabuz, PS instrumental hori ezin

da izan *egin* moduko predikatu baten osagarri. Bigarren mailako predikatua dela esan genezake (§ 24.4).

Honako hauetan ere predikatu osagarria (bigarren mailako predikatua) dela dirudi, hots, predikatu nagusiaren argumentu izan gabe, bestelako gorabeheraren bat ('moduzkoa' gehienetan) adierazten duenean: *Buruko minez altxatu naiz gaur*. Alegia *buruko minez* sintagmak ez luke altxatzeko modua adieraziko, altxatzerakoan nire egoera zein den baizik. Hots: [ni<sub>i</sub> [ni<sub>i</sub> buruko minez] altxatu naiz gaur].

**21.6.2c** Beste postposizio edo adberbio sintagmen osagarri ere izan daiteke instrumentala, *aparte*, *gain(era)*, *gero*, *gora*... postposizio edo adberbioen osagarri denean: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *zutaz*] *GAIN(ERA)*] *beste bost lagun etortzeko dira*; [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *gure azken elkarrizketaz*] *GEROZTIK*] *gauzak zeharo aldatu dira*; [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *hankaz*] *GORA*] *jarri zuten dena*. Aski esapide finkatuak dira holakoak. Nolanahi ere, argi erakusten dute nolako egitura duten: PS baten barnean, sintagmaren burua (postposizioa) eta honen osagarri gisa beste PS bat, instrumentala: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *zutaz*] [<sub>p</sub> *gainera* ]].

**21.6.2d** Instrumentalak diren perpausak ere badira (§ 40.9): *Boga-boga kantatuz amaitu zuten afaria*; *Ukabilak altxatuz agurtu gintuzten hizlariak*. Hauek adjuntu dira. Honako honetan ere beste horrenbeste: *Mikelek argi azaldu due-nez, zerbait egin beharra dago*. Hemen ere perpausa adjuntu garbia izango litzateke (§ 40.17).

### 21.6.3. Adiera

**21.6.3a** Instrumentalak askotariko erabilera du. Hizkuntzalari batzuen ustez (de Rijk 2008: 737), semantikaren ikuspegitik instrumentala da kasu guztietan tratatzen zailena. Arestian esan den bezala, bi forma erakusten ditu, ondoren ikusiko ditugunak. Gorago esan bezala, mugatzaile eta guztiko PSa izan daiteke (*urreez hitz egin*, *liburu honetaz baliatu*...) eta mugatzaile gabea (*urrez estali*, *liburuz bete*...) (§ 21.6.1). Adierak ere desberdinak dira kasu batean eta bestean.

Nolanahi ere, joko handia ematen dute instrumentalezko esapide hauek, ña-barduraz beteak, batez ere mugagabeen, adberbiotzat eman ditugunetan: *urrez, garaiz, algaraz...* Hauek euskararen eremu osoan erruz erabiltzen dira, mugatzailedunak ez bezala. Gaur, jakina, euskara batuaren hedatzearekin, gero eta erabiliagoak gertatzen dira instrumental mugatuak ere.

Instrumentalaren balioa askotarikoa izanik, ez da harritzekoa postposizio askeztat hartzen ditugun hitz askoren osagai nagusia instrumentala izatea (§ 19.3, § 21.10): *bidez, bitartez, buruz, erruz, medioz, ondorioz, ordez, partez. Zure {bitartez/bidez} lortu genuen hori. Adibidez* adberbia bera ere instrumentalean ematen dugu.

**21.6.3b** ‘Gaia’ izan daiteke PS instrumentalaren adiera. Instrumental mugatuak gaia adierazten du, ‘zertazkoa’ edo esango genukeena (de Rijk *aboutness* dio), *amets egin, ahantzi, arduratu, baliatu, galdetu, gogoratu, hitz egin, idatzi, kezkatu, pentsatu...* motako predikatuen gaia. Alegia ‘zeri buruz’ edo ‘zeren gainean’ ari garen: *Gai horretaz maiz mintzatu gara. Zertaz mintzatu, alegia.*

Kasu honetan, -z instrumental soilaren ordez, postposizio konplexuagoez balia gaitzke: [... -RI BURUZ] edo [... -EN GAINEAN] (§ 21.10): *Gai horretaz {gai horren gainean / gai horri buruz} mintzatu ziren.* Baina ez beti, zeren \*{*Nire ahuleziaren gainean / \*nire ahuleziari buruz*} baliatu ziren. Berdin, *Zuk esandakoaz ez naiz oroitzen* diogunean, pareko gisa nekez esan daiteke \**Zuk esandakoaren gainean ez naiz oroitzen*, baina *Zuk esandakoarekin ez naiz oroitzen*, bai. Dena dela, sintagma mugatua denean batez ere, -z instrumentala lehian ageri da -kin sozietiboarekin (§ 21.2). Edo -gatik postposizioak ordezkaturik ematen ahal da beste batzuetan: *Guregatik egundokoak esaten ari omen da* (cf. *Gutaz egundokoak esaten ari omen da*).

Instrumentalaren ordain izan daiteke, ordea, absolutiboa bera: *Nire ahulezia baliatu zuen.* Kasu honetan *baliatu* predikatuak ‘gaia’ argumentua hautatzen du. Hortaz, instrumentala bera ere gaia dela esan daiteke. Esapideak baliokidetzat ematerakoan kontu handiz ibili behar da, hala ere, zeren instrumentalaren ordain, esan bezala, batzuetan PS bat izan daiteke eta beste batzuetan beste bat: {*Zutaz / zurekin / \*zuregatik / \*zuri buruz*} *maiz gogoratzen naiz*, baina



{Zutaz / zuri buruz / zuregatik / \*zurekin} gaizkiesaka jardun du; {Zutaz / zurekin / \*zuri buruz / \*zuregatik} ahaztu da. Ahantzi eta gogoratu elkarrekin doaz, baina *jardun*, *mintzatu* eta abar beren aldetik.

**21.6.3c** Instrumentalak ‘eragingarria’ adieraz dezake, ‘estimulua’ alegia. Aditz psikologikoekin, adibidez: *ahaztu*, *akordatu*, *beldur izan*, *damutu*, *gogoratu*, *maitemindu*, *kezkatu*, *oroitu*... *Maiz gogoratzen naiz zutaz*; *Mozkorti batez maitemindu zen Joxepa*; *Jon aspaldi ahaztu zen neska horretaz*. Perpaus hauetan instrumentala ‘eragingarria’ bada, subjektua ‘esperimentatzailea’ dela esango dugu (§ 23.2.2.2g). Dena dela, hemen ere, instrumentalaren ordeztelako PSak erabil daitezke, gorago esan den bezala: *zurekin gogoratu*; *zurekin ahaztu*; *mozkorti batekin maitemindu*...

**21.6.3d** ‘Modua’: adberbiotzat hartu ditugun instrumentalek, mugatzailerik gabekoek, *zerez?* galderari erantzuten diote (§ 21.6.1e), gorago esan denez (*urrez*, *gogoz*, *alemanez*...). Orokorrean, moduzkotzat jotzen dira, baina ongi dakigu, delako ‘modu’ hori askotarikoa dela. Modua adierazten dute, adibidez, honako hauek: *arduraz*, *arretaz*, *beldurrez*, *buruz*, *dardaraz*, *garaiz*, *gogoz*, *ikaraz*, *kontuz*, *minez*, *negarrez*, *nekez*, *pozez*, *zentzuz*... Horrelakoak maiz predikatu osagarriak izan ohi dira: *Hotzez nago*; *Beldurrez agertu ginen*; *Penaz esaten dizut*; *Dardaraz dago*; *Naturaltasunez mintzatu da*.

Instrumentalak ‘aho jarduera’ adierazten duenean ere modua daukagu: *algaraz*, *burlaz*, *deiez*, *garrasiz*, *heiagoraz*... *Marmarrez ari da beti* (cf. *Marmarka ari da beti*); *Erreguz natorkizue* (de Rijk 2008: 753-762).

Modua adierazten da, halaber, *etxez etxe*, *buruz buru*, *eskuz esku*, *aurrez aurre*, *orpoz orpo* bezalako adberbio esapideetan ere (§ 9.9): *Buruz buru aritu dira bi hautagaiak telebistan*, *eta atzo etxez etxe ibili ziren*.

**21.6.3e** Ekintza bat gauzatzeko erabiltzen den ‘tresna’, ‘lanabesa’ edo ‘bitartekoa’ adieraz dezake instrumentalak. Horregatik deitzen zaio, hain zuzen, ‘instrumental’, hau baita erabilera tipikoa: *Zapata hauek eskuz josiak dira*, *beste hauek makinaz*; *Ezpataz hil zuen*... Hauetako batzuk sozietiboaren bidez ordezkatu daitezke: *Pintoreak ezin izaten zuen sinetsi begiekin ikusten zuena* (H. Etxeberria). Gorputz atalak ere bitartekotzat har litezke: *begiz*, *buruz*, *oinez*...

Zerbait adierazteko erabiltzen den hizkuntza edo bestelako adierazpideak ere instrumentalean ematen ditugu: *Latinez esango dizut; Izkribuz ezer ez egiteko aholkatu zidan notario jaunak*. Kasu hauetan instrumentala bai, baina mugagabea ematen da, nolabait lexikalizatutako adberbio gisa, gorago esan bezala. Baina sintagma konplexuagoak ere erabil daitezke: *Hizkera dotorez mintzatu zen alkatea*. Nolanahi ere, hemen aipatutako kasu gehienak, hein batean, moduzkotzat interpreta litezke.

Bitartekotzat hartzen den ekintza bat ere adieraz daiteke instrumentalaren bidez, zerbait gauzatzeko edo gertatzeko lagungarri dela adieraziz. De Rijk (2008: 744) ekintza “mediatiboa” deitzen dio: *Zure laguntzaz, garaipen handiak lortuko ditugu; Ostikada batez bota zuen etxeko atea*. Kasu honetan, instrumental soilaren ordeza erabil daitezke postposizio askezko sintagmak, *x-ren bidez* (hau ere instrumentala da, jakina: ... *bide-z*), edo *x-ri esker*, nahiz sozietiboaren bidez (*x-rekin*): {*Zure laguntzarekin / zure laguntzari esker / zure laguntzaren bidez*}, *burutuko dugu lana*; {*Ostikada baten bidez / ostikada batekin*} *bota zuen etxeko atea*. Eta baita beste modu honetara ere: *Zure ostikada dela medio, lortu dugu irabaztea*.

**21.6.3f** Lekuz aldatzeko erabiltzen ditugun baliabideak ere (*trenez, autoz, oinez...*) instrumentalean eman ohi dira: *Bizikletaz etortzen zen okina; Oinez ala autobusez joango gara?* Hemen ere instrumentala mugagabea dugu. Adberbiotzat ematen ditugu holakoak. Ibilgailu edo tresna zehatz batez ari bagara, ordea, tren jakin batez adibidez, mugagabearen ordeza mugatua erabiltzera behartuak egon gitezke, baina holakoetan instrumentalaren ordeza beste biderekin bat hautatu beharra ere gertatzen da. Adibidez: *Lehen, zortzietako {treenan/\*trenez/\*trenaz} joaten ginen; Ezkerreko eskuarekin (\*ezkerreko eskuz baina ezker eskuz) gidatzen du*.

Beste batzuetan holakoak ezinezkoak gertatzen dira: {*Oinez/\*oinetan*} *etorri naiz*; {*Itsasoz/\*itsasoan*} *joan da Ameriketara*. *Airez, mendiz, oinez, itsasoz...* ere adberbioak dira nolabait. Honako hauek bezala: *Mendiz joaten ginen igandero Urkiolatik Barazarrera; Bilbotik Rotterdamera itsasoz egin zuen*.

**21.6.3g** Ekintza bat gauzatzeko erabiltzen den ‘ekaiari’ edo ‘materiari’ ere erreferentzia egiten ahal dio instrumentalak. Holakoak ohikoak dira *bete, egin,*

*eratu, estali, moldatu, osatu, konpondu...* bezalako aditzekin. Instrumentalak ekintza bat gauzatzeko materiala zein den adierazten du: *Ardi esnez egindako gazta*; *Urrez estali zuen teilatua*. Berdin honako honetan ere: *Indiar buruzagi baten argazki zaharraz apainduriko kamiseta zeraman* (Epaltza). Kontuan izan lehenbizikoak mugagabeen doazela eta izen zenbakaitz batez (*ardi esne, urre*) ari garela. Aldiz, azkena mugatu singularra dugu: [...] *argazki zaharraz*. Denak ere soziatiboaren bidez ordezkia daitezke: *Ardi esnearekin egindako gazta*; *Plastiko batekin estali zuen teilatua...* Instrumental mugagabea hautatu beharrean beste sintagma bat aukeratzen badugu ([<sub>PS</sub> ... -KIN], adibidez), ordezkio honek aukera handirik ez du ematen mugagabeaz baliatzeko, mugatua izan behar ezinbestean: *urrez estali* baina *urrearekin estali*, ez *\*urrerekin estali*; *ardi esnez egin* / *ardi esnearekin egin*, ez *\*ardi-esnerekin egin*.

**21.6.3h** ‘Kausa’ ere adieraz dezakegu instrumentalaren bidez. Honako adibide honetan, esaterako: *Tristuraz eta penaz hil zen gizajoa*. Hemen kausa balioa eman dakioke instrumentalari (cf. *Tristura eta penagatik hil zen*), baina goian bezala, ez gabilta ‘modu’ delako horretatik ere oso aparte: *nola hil zen?* balizko galderaren erantzuna izan liteke.

**21.6.3i** ‘Irizpidea’/‘ikuspuntua’ adierazteko balio du instrumentalak. *Criteria* deitzen dio de Rijkek (2008: 757). Alegia, perpaus bat interpretatzeko orduan irizpide gisa ezartzen den erreferentzia jasoko luke instrumentalak. Zeren araberaren ulertu behar den esaten digu: *Motel dabil osasunez*; *Pisuz ondo dabil baina indarrez urri*; *Diruz larri samar ikusi nuen gizona*. ‘Osasun aldetik’ edo ‘diruari, pisuari eta indarrari dagokionez’ esango bagenu bezala.

**21.6.3j** ‘Denboraren iraupena’ instrumentalaren bidez eman daiteke edo inesi-boan, edo inolako markarik gabe ere bai batzuetan: *Bost urtez egon zen kartzelan* (cf. *Bost {urte/urtean} egon zen kartzelan*). ‘X aldiz’ ere instrumentala da (*aldi-z*) eta neurria, maiztasuna adierazten du: *Bost aldiz izan naiz Ameriketan*.

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 110. araua: “Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzaile-dunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen”, Iturenen, 2000ko maiatzaren 26an onartua.

**21.6.3k** Konparagaien arteko ‘koxka’ zenbatekoa den adierazteko instrumentala erabil daiteke (de Rijk 2008: 759): *Hogei urte(z) zaharragoa zen*. Eta [x *aldiz*] sintagma bera ere eginkizun honetarako baliatzen ahal dugu: *Mila aldiz hobea da zure formulazioa; Eztarriaz beherago sartzen zaio ke beltza* (Etxeberri Ziburukoa), ‘eztarria baino beherago’ alegia.

## 21.7. Leku/denborazko ez diren PSak laburbilduz

Leku/denborazko ez diren PS hauen guztien kontuak laburbiltzeko, honako taula hau eskaini genezake:

Kausazkoa	-(en)-gatik	diru guztia(ren)gatik, zu(re)gatik... honengatik, beragatik...
Soziatiboa	-(r)e-kin	esnearekin, emaztearekin, liburuekin... lagun horrekin, inorekin zurekin, nirekin... Josebarekin, Mirenekin...
Destinatiboa	-en-tzat -en-tzako / -en-dako	enpresarentzat, enpresentzat, arbolentzat... haur txikientzat, zuretzat, guztientzat... haur txikientzako / haur txikiendako
Prolatiboa	-tzat	lelotzat, ontzat, maisu handitzat...
Instrumentala	-(ta)z	etxeaz, basoez... arazo horretaz, zutaz...
	-z	beldurrez, buruz, trenez, urrez...

## 21.8. [<sub>PS</sub> ... -ko] postposizio sintagma

### 21.8.1. -koren eremu zabala

**21.8.1a** Azkenerako utzi dugu *-ko* postposizioa. Izan ere, *-ko* postposizioa ez da, berez, orain arte aztertu ditugun postposizioen modukoa: ez da, adibidez,

-n inesiboa bezala, leku/denborazkoa, ez eta ere *-gatik* bezalakoa, nahiz eta leku/denborazko PSak eta leku/denborazko ez direnak hartzen dituen osagarritzat. *-ko* postposizioa beste PSei erants dakieke: *Datorren urte-ko planak*; *Herrien askatasunari buruz-ko galderak*; *Zuregana-ko nire jarrera...* PS ez direnak ere hartzen ditu osagarri: *Itxura one-ko sagarra*; *Bost kilometro-ko ilarak...*

**21.8.1b** Aurreko kapituluan izan dugu hizpide [<sub>PS</sub> -(RA)KO] adlatiboa (§ 20.3). Beste begiradaxo bat eman behar diegu oraindik *-kodun* sintagmei. Adlatiboak aditz baten osagarri edo adjuntu gisa aurkeztu ditugu. Alde horretatik, *-ra*, *-raino*, *-rantz* eta *-(ra)ko* pareko postposizioak dira. *-koren* historia, ordea, ez da hor amaitzen. Izan ere, [<sub>PS</sub> ... -KO] PSa, aditz bati atxikia ez ezik (*Gazta iganderako gordeko dut*), izen bati atxikia ere eman daiteke: *Igande(ra)ko gazta bihar erosiko dut*. Aipatu ditugun lau adlatibo horiek joan daitezke izen bati atxikiak ere. Horretarako, ordea, *-ko* postposizioaren laguntza behar dute: *etxe(ra)ko bidea*; *Erromarainoko bidaia*; *goranzko abiadura...*; *-ko* hau beste PS askori ere eransten zaie, leku/denborazko nahiz bestelako izan: *Erromaraino iritsi da* diogunean *Erromaraino* PSa nolabait adberbiozkoa-edo da eta aditz bati atxikia ematen dugu. Berdin, *Zurekin nago*; *Hemen jai zen*; *Gero etorriko naiz*; *Beldurrez bizi da...* diogunean. Baina holakoak izen bati atxikiak joatea nahi dugunean, *-koren* laguntza nahitaezkoa da: *zurekiko*, *hemen-go*, *geroko*, *beldurrezko...* *Beldurrez* edo *gaur* adberbiozkoak badira, hauetatik eratorritako *beldurrezko*, *gaurko* eta abarrak adjektibozkoak direla pentsa liteke, nolabait: *beldurrezko film bat* eta *film beldurgarri* bat parekoak dira hein batean. Eta parekoak dira, halaber, *beldurrez-ko* eta *ikaragarri*.

### 21.8.2. *-ko* postposizioa, inesiboa osagarri duela: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> ... -N] -KO]

**21.8.2a** *Teilatuko katua* edo *atzoko bilera* diogunean, *teilatu-ko* eta *atzoko* sintagmak PSak dira, *mendiko txabola* edo *hamaika herritako alkateak...* diogunean bezala. Adibideotan PSa ‘goragoko’ beste IS baten barneko osagaia da: [<sub>IS</sub> [<sub>PS</sub> *mendi-ko*] txabola]; [<sub>IS</sub> [<sub>PS</sub> *hamaika herri-ta-ko*] alkateak]. Horregatik,

genitibotzat hartu izan da PS hau (Lafon 1965: 131-159), *mendiaren itxura* edo *hamaika herriren arazoak* sintagmen osagai diren *mendiAREN* eta *hamaika herriREN* sintagmen antzera; baina genitibotzat hartze hau eztabaida liteke.

**21.8.2b** Sintagma hauek leku adieran interpretatzen ditugu maiz: *mendiko txabola* edo *herri guztietako alkateak* sintagmen parafraasiak *mendian den txabola* eta *herri guztietan diren alkateak* izan litezke. Bestalde, *-ko* postposizioa zuzenean erants dakieke ohiko leku/denborazko adberbioei ere: *hemen-GO*, *han-GO*, *non-GO*... Beste adberbio inesibo batzuek ere, marka jakinik gabeak izan arren, zuzenean hartzen ahal dute *-ko* postposizioa: *atzo-KO*, *beti-KO*, *bihar-KO*, *egunero-KO*, *gero-KO*, *hor-KO*, *noiz-KO*... Hauetan guztietan, azpian, inesiboa edo beste leku/denborazko sintagma bat dugula onartzen ahal dugu. *Menditik*, *mendira*, *zugandik*, *zugana*... nolabait inesiboaren gainean eraikitzat eman ditugu (§ 20.1.5). *-koren* kasuan argi dago kontua: *mendiko* daukagun lekuan, *mendian-ko* inesiboa dugula onartzen dugu, eta inesiboaren marka ezabatu ondoren, *mendi-ko* < *mendi-~~an~~-ko* dugula.

*Etxeko* eta *orduko* bezalakoak, aspalditik aldarrikatu izan denez, ez dira soilik ‘mugatuak’, formalki agerian ez den artikulu batez hornituak, inesibo mugatua-  
ren gainean eratuak baizik, ez *etxe* edo *ordu* oinarri biluziaren gainean. Bestela esan, *orduko*, balio honekin, ez dator *ordu-tik*, *ordu-an-etik* baizik: azpian, [[<sub>izena</sub> {*etxe* / *ordu*}] + art. + [<sub>ines</sub> -N] + [-KO] izango litzateke eta determinazio marka eta kasua ezabatuz, *etxe-ko*, *ordu-ko* gisa azaleratzen da eta ez, *etxean* + *ko* (*etxean-go*), *orduan* + *ko* (*orduan-go*) gisa (Mitzelena 1977b: 505). Beraz: [*mendian* + *-ko*] *txabola* > *mendi~~an~~ko txabola* > *mendiko txabola*; [[*bost herritan*] + *-ko*] *alkateak* > *bost herrita~~n~~ko alkateak* > *bost herritako alkateak*.

**21.8.2c** *Hemengo berriak* / *nongo alkateak?* / *betiko kontua* / *aurtengo egitasmoak*... sintagmetan ageri diren *-kodun* sintagmak ere leku/denborazkoak dira. Begien bistan da *-koren* osagarria zein den: *hemen* / *non* / *beti* / *aurten*... denak ohiko leku/denborazko adberbioak, oso-osorik emanak, inolako ezabaketarik gabe. Hala ere, PS hauen leku/denbora balioa ez zaio *-ko* postposizioari berari zor, osagarriari baizik. *Hemengo* edo *nongo* sintagmetan ez bezala, *mendiko* / *bost herritako* sintagmak inesibo markarik gabe ageri dira. Hala ere, denetan azpian inesiboa (edo beste leku/denborazko PS bat) dugula onar-

tuko dugu eta leku/denbora balioa ez dio *-ko* postposizioak ematen, oinarrian dugun inesibo isil horrek baizik.

Hortaz, ‘azpian’ inesiboa dugunean, gainerako leku/denborazko PSentzat eman ditugun taulen antzera, *-korentzat* ere beste horrenbeste egin dezakegu, inesiboa ezkutuan duen PSak ditugula onartuz. Nolanahi ere, *-koren* oinarrian ez dago beti inesiboa, ez eta PS bat ere berehala ikusiko dugun bezala (§ 21.8.5): *bihotz oneko gizona, lau hankako mahaia*.

**21.8.2d** *-ko* postposizio sintagma:  $[_{PS} [_{PS} [_{DS} \dots] -N] -KO]$

<p>[-mug.]</p>	<p><math>[_{PS} [_{DS} \dots \text{zenbatzailea} \dots] -(e)ta-N] -KO</math>          {bi / hiru / sei / ...} ({etxe / harri...}) <i>-TA-KO</i>          {bost / hamar / ...} ({adar / haitz /...}) <i>-(e)-TA-KO</i>          (baina (etxe / harri...) bateko / *batetako))</p> <p>(Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 12. araua: “<i>Bat eta batzuk-en</i> deklinabidea”, Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua).</p> <p>{zer / edozer / ezer / zein / edozein / zenbat / hainbat...} (harri / haitz-) <i>-(e)TA-KO</i>          (etxe / harri / haitz / ...) {asko / gutxi / anitz} <i>-(e)-TA-KO</i></p>
<p>[+mug.] &lt;iz. prop.&gt;</p>	<p><math>[_{PS} [_{DS} \text{izen propioa}] -N] -KO</math>          Bilboko / Donostiako / Mauleko          Irungo / Usurbilgo / Zarauzko (§ 20.2.1.1c)</p>
<p>[+mug./-pl.] &lt;izord.&gt;</p>	<p><math>[_{PS} [_{DS} \text{perts. izord.}] -(en)-baita-N] -KO</math>          ni(re) baitako / hi(re) baitako</p>
<p>[+mug./-pl.] &lt;artikulua&gt;</p>	<p><math>[_{PS} [_{DS} \dots] -a-N] -KO</math>          zeru (garbi)ko / etxe (berri)ko / ikastolako...          alde zaharreko / une zaileko...</p> <p><math>[_{PS} [_{DS} \dots \text{artikulua}] -r-en- baita-N] -KO</math>          ikaslea-ren BAITAKO / lagun zaharra-ren BAITAKO...</p>

<p>[+mug./-pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea]-ta-<i>N</i>] -KO</p> <p>(etxe / harri / haitz...) {honetako / horretako / hartako}          (etxe / harri / haitz...) {honexetako / horrexetako / harexetako}          (etxe / harri / haitz...) {honetakoxe / horretakoxe / haretakoxe}          (...) beronetako / berorretako / bereko</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;artikulua&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... artikulua]-ta-<i>N</i>] -KO</p> <p>{etxe / leku berri / enpresa / une latz- / ...} etako          ideia / bide... zabalotako</p>
<p>[+mug./+pl.] &lt;erakuslea&gt;</p>	<p>[<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> ... erakuslea]-ta-<i>N</i>] -KO</p> <p>(etxe / leku / enpresa / ...) {hauetako / horietako / haietako}          (etxe / leku / enpresa / ...) {hauetxetako / horietxetako / haietxetako}          (etxe / leku / enpresa / ...) {hauetakoxe / horietakoxe / haietakoxe}          (etxe / leku / enpresa / ...) beraue- / berorie- / ber(ai)e-} -TA-KO          (-ta-ko-xe / xe-ta-ko)</p>
<p>Hots egokitzapenak</p>	<p>1) -an+-ko &gt; -ko (etxe batean + -ko &gt; <i>etxe bateko</i>; lurrean + -ko &gt; <i>lurreko</i>; nire baitan + -ko &gt; <i>nire baitako</i>)</p> <p>2) -tan+-ko &gt; -tako (bost etxetan + -ko &gt; <i>bost etxetako</i>; etxe honetan + -ko &gt; <i>etxe honetako</i>; etxe hauetan + -ko &gt; <i>etxe haue-tako</i>)</p> <p>3) -n+-ko &gt; -ko (Donostian + -ko &gt; <i>Donostiako</i>; Bilbon + -ko &gt; <i>Bilboko</i>...)</p>

### 21.8.3. -koren osagarria, inesiboaz bestelako leku/denborazko PSa

**21.8.3a** Leku/denborazkotzat hartu ohi diren PSen azpian maiz inesiboa badugu ere (*Loiolako bilera* < *Loiolan egin zen bilera*), beste askotan ez dugu inongo inesiborik. *Zuri buruzko iritzia* diogunean, beste zerbaitez ari gara, ez leku/denboraz ez eta ere inesiboaz. Honen azpian, *zuri buruz duten iritzia* edo dugu. Hala ere, *Loiolako* eta *zuri buruzko* sintagmak, funtsean, modu berean osatuak daude: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> {*Loiolan / zuri buruz*}] -ko]. Diferentzia bakarra ‘azpiko’



PSan dago: batean inesiboa da ([<sub>PS</sub> *Loiolan*]) eta bestean instrumentala ([<sub>PS</sub> *zuri buruz*]). Modu berean, *etxerako bidea*, *zerutikako ezaupide bat* eta abarretan ere *-koren* osagarrian inesiboa ez da ageri normalean, baina bai beste bat, beharbada: *Etxe(ra)ko bidea hartu zuen* (< *etxera* + *-ko*); *Zerutiko ezaupide bat eskatzen zioten* (Iraizoz) (< *zerutik* + *-ko*); *Zerutikako dei ezti bat entzun zuen* (< *zerutik* + *-ko*).

**21.8.3b** Azken adibide hauen pareko da honako hau ere: *Zeruko dei bat izan zuela zioen*. Holakoetan ohikoena isilpean inesiboa dagoela pentsatzea bada ere (*zeruko* < *zeruan* + *-ko*), ez da beti horrela izaten. Izan ere, *zeruko deia* izan liteke *zerutik datorren deia*. Modu berean, *Parisko trenak motel dabilta* diogunean ere ondoko hiru hauetariko edozein interpretazio egin liteke, berez: a) *Parisen dabiltzan trenak*; b) *Parisera doazen trenak*, edo c) *Paristik datozen trenak*. Hortaz, inesiboa, adlatiboa eta ablatiboa, hirurak, *-koren* azpian ‘ezkutuan’ egon daitezke, neutralizatuak, nolabait. Hortaz, *bost herritako alkateak* sintagma [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *bost herritan*] + *-ko*] *alkateak* dugula onar liteke (‘bost herritan diren alkateak’, alegia). Baina, testuingurua nolakoa den, [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *bost herritatik*] + *-ko*] *alkateak* gisa ere interpreta liteke: ‘bost herritatik etorri diren alkateak’. *Etorri* aditzaren ordeztuak beste bat bagenu, *bidali* adibidez, azpian adlatiboa dugula ere interpreta liteke: *Bost herrita(ra)ko gutunak bidali ditzute*. Nolanahi ere, azpian hiru PS horiek izan ditzakegu, berez.

#### 21.8.4. Leku/denborazko ez diren postposizio sintagmak *-koren* osagarri

**21.8.4a** *-ko* postposizioak izan ditzake, ordea, inesibo edo leku/denborazko PS ez diren osagarriak. Adibidez: *Gurasoekiko lotura eten dute* perpausean *gurasoekiko* sintagmak ez du leku/denbora adierarik, egitura berbera badugu ere: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *gurasoekin*] *-ko*] *lotura*. Hemen ere, *-koren* osagarria ez da IS soil bat, beste PS bat baizik (*gurasoekin*), kasu honetan leku/denborazkoa ez dena.

**21.8.4b** Hortaz, inesiboaz gainera, bestelakorik ere bada *-koren* ezkerrean: *mendiko giroa* < *mendian den giroa* bezala, *zurekiko desadostasuna*

(‘zurekin duten desadostasuna’) (< zurekin + -ko); *zuri buruzko galdera* (‘zuri buruz egin den galdera’) (< zuri buruz + -ko); *ganorazko lana* (‘ganoraz egin den lana’) (< ganoraz + -ko); *holako gauzak* (‘hola(koak) diren gauzak’) (< hola + -ko); *binakako partida* (‘binaka jokatzen den partida’) (< binaka + -ko)... Sintagma hauetan -ko dugu buru eta buru honen osagarria batzuetan, inesiboa izan beharrean, bestelako AdbS edo PS ere izan daiteke: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> {*etxe hartara* / *gurekin* / *zuri buruz* / *egia-z ...*}] -ko]; [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> [*binaka/hola ...*]}] -ko].

**21.8.4c** -koren osagarria aski PS konplexua ere izan daiteke zenbaitetan. Adibidez, [[*duela berrogei urte*]-ko] *kontuak*; [[*ordutik hona*] [-ko] *aldaketa*; [[*hitzez hitz*] -e-ko] *itzulpena*; [[*urtean behin*] -go] *bilkura*...

### 21.8.5. Zenbatzaile sintagmak -koren osagarri

**21.8.5a** Zenbatzaile sintagmak ere izan daitezke -koren osagarri: *bost metro (luze)ko horma* (< *bost metro (luze) den horma*); *bost urteko iloba* (< *bost urte dituen iloba*). Sintagma hauen osaera argi dago zein den. Inesiboaren eta abarren beharrik ez dugu orain ere: [<sub>IS</sub> [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> *bost urte*] -ko] *iloba*].

**21.8.5b** Batean kopurua adierazteko zenbatzaileaz nahiz mugatzaile pluralaz baliatzen gara, edo biak balia daitezke: *bost zaku* (mugagabea) vs (*bost*) *zakuak* (mugatu plurala). IS hauek leku/denborazko PSen osagai direnean -ta- artizkia agertuko zaigu (§ 19.5.2): *bost zakutan* (-mug.) / *bost zakuetan* (+mug./+pl.); *bere bi enpresatan* (-mug.) / *bere bi enpresetan* (+mug./+pl.)... *Zakuak*, *enpresak*, gauza diskretuak dira: *zaku bat*, *bi... bost*; *enpresa bat*, *bi...*; -korekin agertzen direnean ere horrelaxe gertatuko da: *bost zakutako* (-mug.) / *bost zakuetako* (+mug./+pl.); *bere bi enpresatako* (-mug.) / *bere bi enpresetako* (+mug./+pl.).

**21.8.5c** Aldiz, *neurriak* adierazten ditugunean (*bost kilometro*, *hamar urte*, *bi kilo...*), *kilometro*, *urte*, *kilo* izenak ez ditugu nahitaez izaki diskretutzat hartzen: *neurri izenekin*, *maiz*, *kopuru osoa hartzen da kontuan*. Ez gara ari kilometro bakoitza zenbatzen. *Bost arbola* diogunean, berriz, *bost arbola*

bereziz ari gara, ez neurri batez. Kontua da, neurriez ari garenean, holako sintagmak mugatu singular gisa eman daitezkeela: *Bost kilometroan ez dugu inor aurkitu*; *Hamar urtean eraiki zuten katedrala*. ‘Bost kilometroko tar-tea’ edo ‘hamar urte irauten duen epea’ edo antzeko zerbait esango bagenu bezala.

Ikus hemen Euskaltzaindiaren 110. araua: “Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzaileduntan mugatu singularra noiz erabil daitekeen”, Iturenen, 2000ko maiatzaren 26an onartua.

**21.8.5d** PSetatik kanpo ere, badira holakoak, kopuruak, prezioak eta abar adierazi nahi direnean: *Bost urte ibili zen Argentinan*; *Bi kilometro ditu zubi honek*. Kontua da holakoek *-korekin* ageri direnean, forma berari eusten ahal zaiola, *-ta-* artizkia baliatu gabe, singularra balitz bezala, alegia: *bost urteko ibilaldia* < *bost urte* + *-ko* (cf. *bost urte iraun zuen ibilaldia*); *mila euroko bidaia* < *mila euro* + *-ko* (cf. *mila euro balio duen bidaia*); *lau hankako mahaia* < *lau hanka* + *-ko* (cf. *lau hanka dituen mahaia*). Zenbait euskalkitan, hala ere, gauzak ohiko moduan ematen dira: *bost urtetako ibilaldia*; *bi kilometrotako bidea*; *mila eurotako bidaia*...

**21.8.5e** Gauzak horrela, erraz ulertzen da honako hiru esamolde hauen arteko diferentzia, eta samurra da erantzutea sor daitekeen zalantzari ere: *hamar urteko ardoa* (hamar urte-ko) ≠ *hamar urtetako ardoa* (hamar urtetan-ko) ≠ *hamar urteetako ardoa* (hamar urteetan] -ko). Batean ardoaren ‘adinari’ egi-ten zaio erreferentzia, bestean *hamar urtetako ardoa daukat* ‘hamar urte jakinetako ardoa’, eta *azken hamar urteetako ardoa*, berriz, hamar urteetan edo urte hauetan... egindako ardoa izan liteke.

Ikus hemen Euskaltzaindiaren 34. araua: “Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia”, Bilbon, 1995eko ekainaren 30ean onartua.

**21.8.5f** Honako hauetan ere lehengo egitura bera dugula pentsa liteke: {*bi urte / hoge euro / lau hanka*} -ko. Kontuan izanik -ko buruak maizenik beste AdbS edo PS bat hartzen duela osagarritzat, pentsatzekoa da holakoetan ere horrela direla gauzak: *Bost urte iraun zuen gerrak* > *bost urte-ko gerra*; *Hoge minutu egon naiz zain* > *hoge minutuko egonaldia*. Horrenbestez, hemen ere honako egitura izango genuke: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> {*bost urte / hoge minutu / lau urte...*}] [<sub>P</sub> Ø] -ko]].

**21.8.5g** Zalantzak gorabehera, tartean zenbatzaile numeralak dugunean, gauzak erraz konpon daitezke: *lau urteko lana* ≠ *lau urtetako lana* ≠ *lau urteetako lana*. Arazoa pixka bat korapilatsuagoa gertatzen da zenbatzailea zehatza (numerala) ez denean: *asko, batzuk, zenbait...* Baina hauetan ere, -koren osagarri gisa inesiboa dugun ala ZenbS soila dugun kontuan hartzeak lagun diezaguke: a) *Urte askotako lanak daude bilduak hemen* (cf. *urte askotan egingadako lana(k)*); b) *Urte asko(ta)ko etxea erre da* (cf. *urte asko zituen etxea*); c) *Indar askoko potajia da Ernaniko eltzekondo* (Txirrita) (cf. *indar asko duen potajea*). Hauen azpian zer dagokeen kontuan hartuz gero, arazorik ez. Dena dela, *batzuk, zenbait, aski*, eta holako zenbatzaile zehaztugabeekin nekeza da -ta-rik gabeko formak baliatzea. Bestalde, holako sintagmek, maiz, helburua edo adierazten dute.

**21.8.5h** Beste -ko bat ere bada, balio banakaria edo distributiboa duena: [<sub>PS</sub> ... -ko]. Adibidez: *Hausten zuen plater bakoitzeko euro bat kentzen zioten*; *Zinegotzi bat jarriko dute batzorde bakoitzeko*; *Herri honetan hamabost taberna daude mila biztanleko*. Kuantifikazio modu bat da: ‘zenbat plater, hainbat euro’; ‘zenbat batzorde, hainbat zinegotzi’ edo ‘zenbat biztanle, hainbat taberna’. Banakari deitu ditugu, hori baita duten adiera, zer proportziotan banatzen diren kopuruak alegia: ‘kilo bakoitzeko honenbeste emango dizut’, ‘talde bakoitzeko zinegotzi bat’, ‘euro bat, hautsitako plater bakoitzeko’ eta abar. Beraz, -ko destinatibotik oso gertu dago hau ere: *hamabost taberna mila biztanleko* esaten ahal den bezala, *mila biztanlerentzat hamabost taberna* esatea ez da urrunegi joatea. Zenbatzaileak aztertzean ikusi ditugun zenbatzaile distributiboan (-na atzizkia erantsiz sortzen ditugunen) oso antzeko balioa du -ko honek (§ 16.2.14).

Ehunekoak ematen ditugunean ere, egitura banakari edo distributiboaz baliatu ohi gara: *Irabazien ehuneko bost (% 5) emango dizu bankuak*, ‘ehun irabazi bankuak, zuri bost eman’ alegia. Egitura banakari honetan hiru osagai ageri dira: aditz bat (*kendu*, adibidez), zenbatzaile sintagma bat (*euro bat*) eta PS banakaria (*hausten zuen plater bakoitzeko*): [<sub>PS</sub> *Hasten zuen plater bakoitzeko*] [<sub>IS</sub> *euro bat*] [<sub>A</sub> *kentzen zioten*].

### 21.8.6. IS soila -koren osagarri

**21.8.6a** IS soila ere izan daiteke *-ko* postposizioaren osagarri. Hor ditugu *bihotz oneko gizona* modukoak ere, non [<sub>PS</sub> ... *bihotz on-e-ko*] sintagma predikatu lanetan ari den. *Bihotz ona duen mutila bihotz onekoa* dela esango dugu. Honen ‘azpian’ ez dago inesiborik: *Jonek bihotz ona du = Jon bihotz onekoa da*. Horregatik, hein batean ‘bihotz oneko’ eta ‘on’ kategoria bereko izan daitezke, biak adjektiboak nolabait. Hortaz, *-ko* postposizioa izanik ere, adjektibo kategoriakotzat har liteke (Altube 1929: 274). Eta goiko sintagman kategoria markarik jarri ez badugu ere, honela beharko zukeen: [<sub>AdjS</sub> [<sub>DS</sub> *bihotz on*]-*e-ko*]. Gramatika honetan ere atzizki adjektibo-sortzailatzat hartu dugu mota horretako *-ko* (§ 5.6.3).

**21.8.6b** Horrenbestez, *-ko* postposizioa PSari ez ezik, zuzenean ISari itsasten ahal zaio (Trask 2003). *Bihotz oneko gizona; etorkizun handiko proiektua...* bezalakoetan ezin gara hasi inesiboaren bila: *bihotz oneko mutila* ez da \**bihotz onean dagoen mutila*, adibidez, *bihotz ona duen mutila* baizik. Hauetan [[Izena + Adjektibo] *-ko*] taxua aurkitzen dugu, gehienetan: *bihotz oneko mutila; itxura txarreko arraina; etorri handiko hizlaria...*

Hala ere, badira salbuespen batzuk, zeinetan ez den beharrezko adjektiboa esplicituki agertzea: {*adineko/sasoiko/patxada(z)ko...*} *gizona; kalitate(z)ko gazta*. Adjektiboaren arrastorik ez egon arren, denak ere balio positiboa duen adjektiboren bat eramango balute bezala interpretatzen dira: ‘adin handiko’, ‘sasoi onko’, ‘patxada ederreko’, ‘kalitate handiko’ eta abar. Hauetan guztietan, ez dago *-koren* ezkerrean inolako PSrik. Predikazio bat dugu, subjektuaren

ezaugarri batzuk jasotzen dituen: *Mutil hori bihotz onekoa da* eta *Mutil horrek bihotz ona du* perpausetan modu bertsuan erlazonaturik daude subjektua eta predikatua. Horregatik onartzen dute erlatiboazko parafrasia: *bihotz onekoa den mutila / bihotz ona duen mutila* (§ 5.6) (Mitzelena 1972a; Goenaga 2003). Azken batean, *egin beharreko lana* eta *egin behar den lana* modu berean erlazonaturik daudela pentsatzeko eskubidea badugu.

**21.8.6c** Hortaz, *bihotz oneko mutila* edo *jakituria handiko irakaslea* sintagmetan ez daukagu inesiborik, ez bestelako PSrik, IS arrunta baizik. *Etxe oneko* eta *etxe onean jaiotako* sintagmen arteko kidetasuna argi dago. *Bihotz oneko*-ren kasuan, ordea, nekez hasiko gara *\*bihotz onean-ko* moduko ezeren bila; izatekotan ere, *bihotz ona duen* edo.

### 21.8.7. -ko zenbait predikatu osagarri itsatsirik

Zenbait predikatu-osagarri ere (*bi metro luze, izarra baino ederrago* bezalako) *-ko* erantsi ohi zaie DS barruan txertatuko badira: *Bi metro luzeko gizona* (cf. *bi metro luze den gizona*); *Izarra baino ederrago* *andrea joan zait ihesi* (cf. *izarra baino ederrago den andrea*). AdjSa luzea bada, goiko adibideetan bezala, ez da eroso gertatzen sintagma hori izenaren ondoan txertatzea *-koren* laguntzarik gabe (?*andre izarra baino ederragoa / izarra baino andre ederragoa...*). Horretarako egoki da *-ko* lagun hartzea; esaldia askoz errazago prozesatzen da.

### 21.8.8. Mendeko perpausak -koren osagarri

*-ko*, mendeko perpausekin ere erabiltzen dugu. Hor ditugu *-(e)lako* eta *-tzeko* perpausak *-ko* postposizioa agerian dutela (§ 30.6.4.1): *Bilerara agertuko ez delako kontua aipatu du*; *Eskuinak hauteskundeak irabaz ditzakeelako mezua zabaldu dute*; *Bazuen baietz esateko beldur pixka bat*. Holakoetan ez dugu leku/denborazko postposizio sintagmarik. [... -LAKO] perpausa izen baten osagarria edo da, *kontua*, *mezua* edo *beldur pixka bat* sintagmena, hain zuzen,

[... -LA] perpausa (ez *dela agertuko* edo *eskuinak hauteskundeak irabaziko dituela*), predikatu baten (*esan, zabaldu, mezua izan...*) osagarria den bezala.

[<sub>PS</sub>... -TZEKO] izenaren nahiz aditzaren osagarri izan daiteke. Goiko adibidean izenaren osagarri zen. Beste hauetan, berriz, aditzaren (§ 30.7.2.1) eta izenaren osagarri da, hurrenez hurren: *Isilik egoteko esan nion*; *Isilik egoteko agindua eman zioten*. Hemen -tzeke perpausa osagarria da (§ 25.3.3g). Baina adjuntua ere izan daiteke: *Isilik egoteko ez da arrazoi handirik behar*.

### 21.8.9. -ko, erlaziozko postposizioa

**21.8.9a** Har ditzakeen osagarri mota guztiak kontuan hartuta, -ko postposizioa ‘erlaziozkoa’ dela esan genezake (Altube 1929: 274; Azkue 1923-1925: 314-317; de Rijk 2008: 89-110). Hemen jaso ditugun sintagmak aurrean ditugula, hobeki ikusten da -koren izaera: erlazio bat ezartzen du predikatu baten eta honen argumentu (subjektu) baten artean, perpaus erlatibo baten bidez egingo litzatekeen antzera (Azkue 1923-1925; Goenaga 2003). Horregatik, -ko postposizio hau izendatzeko, ‘erlaziozko’ edo ‘erlatibo’ deitura egoki litzateke agian, edo, beharbada, aski litzateke adjektibo kategoriakotzat hartzea, adjektibozkoa baita nolabait, lehen ere esan dugun bezala (§ 21.8.6a). AdbSak AdjS bihurtzeko gaitasuna du nonbait, eta subjektu bati buruzko predikazioa bidera dezake.

Esaterako, arestiko adibideetan: [*Duela berrogei urte (izan ziren) [kontuak]*]; [*Ordutik hona (izan diren) [aldaketak]*]; [*Hitzez hitz (egindako) [transkripzioa]*], edo nahiago bada, argiago, *Kontuak [orain berrogei urte-ko-ak] dira*; *Aldaketak [ordutik hona-ko-ak] dira*; *Transkripzioa [hitzez hitz-e-ko-a] da*. *Kontuak [larri-ak] dira*; *Aldaketak [berri-ak] dira*; *Transkripzioa [zuzen-a] da* esaten dugunean bezalaxe, alegia. *Larri, berri, zuzen...* dagoeneko adjektibo kategoriakoak direnez, inolako ‘gehigarririk’ gabe lan egin dezakete adjektibo gisa.

*Orain berrogei urte*, aldiz, ez da adjektiboa, ezta DS arrunt bat ere, PS konplexu bat baizik. Baina, behin -ko ‘adjektibozko’ postposizioa gehituz gero, adjektibo bihurtua geldituko litzateke, nolabait: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *orain berrogei urte*]

-ko], [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *aspaldi*] -ko] bezalaxe. Alegia, [<sub>IS</sub> [<sub>AdjS</sub> *orain berrogei urte-ko kontuak*], [<sub>IS</sub> [<sub>AdjS</sub> *aspaldi-ko kontuak*]. Honek eskatzen duen bakarra da -ko postposizioa adjektibozkoa dela onartzea, perpaus erlatiboa den bezalaxe: [[<sub>P</sub> <sub>eri</sub> *balio handia duen gizona*] / [[<sub>PS</sub> *balio handiko gizona*] / [*gizon* [<sub>AdjS</sub> *balioatsu*]]a]. Ikuspegi honetatik, *betiko lagun zaharrak* nahiz *gailurrerainoko bide neketsua* sintagma, adjektibo kategoriako bina sintagmaz eta izen batez osatuak leudeke. Kategoría gramatikalari dagokionez ez da alde handirik sumatzen *aspaldiko* eta *zahar-en* nahiz *gailurrerainoko* eta *neketsu* osagaien artean. -koren adjektibotasunaren alde letorke halaber (eta -en genitiboaren kasuan ere berdin), sintagma hauek predikatu osagarri gisa lan egiteko duten aukera. *Lagun hauek Zarauzkoak dira* (ez, \**Zarauzko dira*); *Ogi hau herenegungoa da* (ez, \**herenegungo da*); *Liburu hori neska horrena da* (ez, \**neska horren da*).

**21.8.9b** -koren osagarria inesiboa denean sintagma hartzen duen forma gorago eskaini dugu (§ 21.8.2d). Orain hemen hizpide izan ditugun erabileren berri emateko arazorik ez dugu izango, gehienetan -ko postposizioa eransteak ez baitu inolako eraginik morfema segidan. Hortaz, hona hemen, laburbiltze aldera, [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> ... ] -ko] sintagma erakutsi ditzakeen zenbait forma:

Adlatiboak oinarri	etxerako / etxerainoko / etxeranzko... goitik beherako / handik honako / etxetik iturrirainoko /... gureganako...
Instrumentala oinarri	urrezko / beldurrezko / bidezko / legezko / pozezko / ganorazko zuri buruzko...
Bestelako PSa oinarri	erreka ondoko... / Bilboko autobusa /... aitarekiko...
Moduzko adberbio esapideak	zorieko / zorigaiztoko nolako / halako / horrelako erdipurdiko / hitzez hitzeko / han-hemenkako banakako / binakako galdutako / usteldutako / hildako...



Bestelako adberbio sintagmak	orain berrogei urteko / noizean behingo...
Predikatu osagarria oinarri	zuzeneko / okerreko / garrantzi handiko / itxura oneko / ikaragarritzko
Zenbatzaile sintagma	urte bakoitzeko ehun urteko... / milioi erdiko...

## 21.9 -koren lana morfologian

### 21.9.1. Morfologia lexikoan

**21.9.1a** Morfologia lexikoan ere aurkituko dugu *-ko*, eratorpen atzizki gisa (§ 4.2.5, § 4.4.3.6): *bateko urrea*, *bostekoa eman*, *belarritako politak*, *belarrondo-ko galanta*, *elizako(ak)*, *gerrikoa*, *ipurdiko bat*, *muturreko*, *oinezko*, *oinetako...* (Lafon 1999 [1965]: 182; Azkarate eta Altuna 2001: 97-101). Hitz hauek ohiko PS gisa sortuak dira, baina lexikalizazio prozesu baten ondorioz hitz eratorri beregain bihurtuak direla onar daiteke. Hitz eratorriak diren heinean morfologiari dagozkio kontu hauek, morfologia lexikoari. Nolanahi ere, *-ko* morfemaren eman-kortasuna izugarria da. Hiztegietan ere horrela bilduak egon litezke: *adineko*, *patxadazko*, *kalitate(z)ko*, *sasoiko* eta antzekoak ere, funtsean adjektibo edo izen eratorritzat har genitzake, nolabait iharturik dauden heinean (§ 21.8.6b, § 21.8.9a).

**21.9.1b** *-ko* partizipioari ere erants dakiok: *esaneko*, *jakineko...* (*Jainkoa da bakarrik / esanekoa / bein agindu dabena / a emongoa*. J. M. Zabala). *Esa-neko* adjektibo eratorria da; [*a emongo*], berriz, perpausa, aditzaz eta objektuaz osatua, [*hura ematekoa*] esango bagenu bezala.

### 21.9.2. Aditz morfologian

Aditzaren morfologian ere badu lekua *-ko* postposizioak. Zeregin nagusia du, adibidez, adizki analitikoaren eraketan, geroaldia osatzeko orduan: *Gero*

*ikusiko* *dugu*; *Zerbait esango nioke*... Euskalkien arabera, *-en* genitiboarekin partekatzen du eginkizun hau: *Zerbait erranen nioke*; *Galduren da*... (§ 26.3.2.3). Nolanahi ere, hauek ez dira, dagoeneko, PSaren buru: aditz morfologian funtsezko diren morfema bereziak dira. Lan horixe egiten dute beste morfema batzuek ere, *-n* inesiboak adibidez (*eskatzen dizut*, *egiten duzu*...). Hauek ez dute hemen PSrik osatzen, baina gaurko euskaraz postposizio gisa aztertzen ditugunak eta aditz jokoan erabiltzen ditugunak jatorri bereko dira.

### 21.9.3. *-koren* erabilerari dagozkion zenbait auzi

**21.9.3a** *-en/-ko* artean hautua egitean maiz zalantza izaten da. Batzuetan, izen bizigabea (edo bizigabetzat ere har daitekeena) oinarri duten sintagmetan, biak dira zilegi modu desberdinean interpretatu arren: *Elizaren isiltasuna* vs *elizako isiltasuna*; *Euskal Herriaren adiskideak* vs *Euskal Herriko adiskideak*. Berez, ez dira gauza bera. *-en* genitiboak jabegoa adierazten du askotan, posesioa, nahiz bestelako erlazioak ere adieraz ditzakeen (§ 18.6.2c); baina, oro har, norbaitek *duen* zerbaitez aritzeko balio du (cf. *Euskal Herriak dituen adiskideak*). Aldiz, *Euskal Herriko adiskideak* lekuzko gisa interpretatzen da: ‘Euskal Herrian {*diren/ditudan*...} adiskideak’.

**21.9.3b** Maiz, bi sintagmen artean ñabardura batzuk gorabehera, ez da alde handirik sumatzen praktikan: *Euskal Herriaren historia* / *Euskal Herriko historia*; *nobela honen bigarren atala* / *nobela honetako bigarren atala*. Dena dela, horrelakoetan ere, pentsa liteke hiztunak ikuspegi desberdina hartzen duela batean eta bestean: esaterako, naturalago edo sentitzen dugu *liburu baten atala*, *liburu bateko atala* baino. Eta, aldiz, *liburu bateko {orrialdea/pasarte}* naturalago, *liburu baten {orrialdea/pasarte}* baino, edo *ikastolako burua* naturalago *ikastolaren burua* baino (Lafon 1965; Goenaga 2003).

**21.9.3c** Beste batzuetan, *-en* eta *-koren* arteko diferentzia funtsezkoagoa izan liteke: *hamabi euroko kafea* ≠ *hamabi euroren kafea*. Batean ‘hamabi euro

balio duen edo kostatzen den kafea' dugu eta bestean zenbat kafe erosi den esateko modu bat izan liteke, *hamabi euroren truke erositako kafea* edo.

**21.9.3d** Zenbaitetan, *-ko* erabiltzen dugu, nolabait 'helburua' edo adierazi nahi denean: *Filosofiako irakaslea* vs *\*filosofiaren irakaslea*; baina *Arte ederrretako museoa* vs *arte ederren museoa*; *Arte garaikidearen historia* vs *\*arte garaikideko historia*. Dirudenez, *-ko* 'helburu' adierarekin lotzen dugu; *-en* genitiboak, berriz, ondoko izenaren 'edukia' edo 'objektua' adierazten duela dirudi adibide horietan. Nahaste handi samarra dago hemen, nolana ere. (Alberdi eta Sarasola 2001: 89-101).

**21.9.3e** [<sub>ps</sub> ... *-ko*] eta aposizio egiturako elkartuen (§ 7.2.8) artean ere bada erlazioa. *Bergara herria*, *Baias ibaia*, *Everest mendia* esaten dugu, izen bereziak aposizio gisa IS bat daramala nahiz izen propio soila erabiliz: *Bergara*, *Baias*, *Everest*... Izen bereziaren ostean doan sintagma mugatua azalpenezkoa dela esan ohi da.

Batzuetan, ordea, *-koren* laguntza ere badugu: *Bergarako herria*, *Gasteizko hiria*. Hauetan izenak lekua adierazten du eta agian horregatik, *Bergarako* eta *Gasteizko* erabiltzen dugu, *Bergara* edo *Gasteiz* izeneko leku batean den hiriaz ari bagina bezala. Aldiz, *?Baiaseko ibaia* edo *?Everesteko mendia*, baina *Himalaiako mendiak*. Nolanahi ere, zalantzak zalantza, holakoetan *-en* genitiboarentzako lekurik ez da izaten, nonbait: *\*Sistiagaren erreka*; *\*Everesten/Himalaiaren mendiak*. Bai, ordea, izen berezi bizidunekin (§ 7.2.8.2): *Magallanes-en estua*; *Ampere-ren legea*; *Gibbs-en printzipioa*.

**21.9.3f** Sarritan, ahotan darabiltzagun *-en/-ko* taxuko sintagma hauen ordeztu hitz elkarketara ere jo daiteke: *familia arazoak* vs *{famiaren/familiako} arazoak*. *Familia arazoak* esaten da familia jakin bati erreferentzia zehatza egiten ez diogun heinean. Izan ere, hitz elkarketan ezkerreko osagaiak generikoa izan behar du, zehaztugabea (§ 3.3a, § 7.2.8.1). Erreferentzia ongi mugatua duen osagaia bada, hitz elkarketaren bidea itxia aurkituko dugu: *\*familia hau arazoak*, baina bai *familia {honen/honetako} arazoak*. Hala ere, izen elkartuaren buru zein den, izen elkartua onargarri gerta daiteke edo ez. Buru hori *zale* hitza bada, adibidez, guztiz arrunta da elkarketa: *Athletik zaleak* nahiz *Athletiken zaleak*.

## 21.10. Postposizio askeak

### 21.10.1. Postposizio itsatsiak eta askeak

**21.10.1a** Orain arte hizpide izan ditugun PSeK konplexutasun desberdina erakutsi digute: alde batetik, *esku (ezkerr)az*, *etxe(berri)an*, *buruetatik*... moduko PS ‘ohikoak’ izan ditugu aztergai:  $[_{PS} \text{ esku (ezker)-a } \underline{-Z}] / [_{PS} \text{ etxe (berri)-a } \underline{-N}] / [_{PS} \text{ buru-(e-ta) } \underline{-TIK}]$ ... Hauen aldamenean beste honako hauek ikusi ditugu:  $[_{PS} \text{ eskua } \{ \underline{-RE-KI-N} / \underline{-GA-Z} \}] / [_{PS} \text{ andrea } \underline{-REN-GA-N}] / [\underline{andrea} \text{ } \underline{-(REN)-GA-N-A}] / [_{PS} \text{ etxe (berri)-a } \underline{-(REN)-GA-TIK}]$ ... Batzuk zein besteak sintagmaren azken osagaiari itsatsirik ikusi ditugu: *ama-ren-ga-tik* <  $[_{PS} [_{DS} \text{ ama}] \text{ } \underline{-(ren)-GATIK}]$ ; *lanpostu tentagarri horren-ga-tik* <  $[_{PS} [_{DS} [_{DS} \text{ lanpostu tentagarri hor-}] \text{ } \underline{-en}] \text{ } \underline{-GATIK}]$ . Denak ere postposizioak eta postposizio itsatsiak direla esan dugu (§ 19.2).

**21.10.1b** Beste batzuetan, ordea, postposizio askeak ditugu sintagmaren buruan (§ 19.3):  $\{ \underline{Irrati(aren) bidez} / \underline{irratitari esker} \}$  (cf. *irratiatatik*); *Zure erruz zigortu naute* (cf. *zuregatik*); *Hilerraren atzean* (cf. *hilerrian*); *Epailearen baitan* / *epailearengan*... Sintagmok modu bertsuan aztertzeke arazorik ez da. Alegia, *-tik* bezala, *-gatik*, eta hau bezala, *erruz*, *esaterako*, modu bertsuan analizatzen ahal dira. Eta, funtsean, *basoan zehar* bezalako sintagmak ere bai:  $[_{PS} [_{PS} \text{ basoan}] [_p \text{ zehar}]]$ .

Hau da, postposizio askeek (*bide-z*, *bitarte-z*, *buru-z*, *erru-z*, *gain-ean*, *ondo-ren*, *arte-an*, *arabera* (< *arau-era*)) zein itsatsiek (*-gan*, *-gatik*, *-gana*...) zeregin bera betetzen dute, jatorria gorabehera. *Zuregatik*, dena batera idazten dugu, ordea, eta *zure erruz* idatzi behar dela esaten zaigu, bitan banaturik. Batzuk itsatsiak dira, besteak askeak. Noski, bereizketa hau, batez ere idazkerari dagokio. Ez dago idazkeraz aparte alde handirik bien artean.

**21.10.1c** Hortaz, postposizio batzuk (*-n*, *-z*, *-tik*...) soilak eta itsatsiak dira. Beste batzuk (*-re(n)-ga-tik*, *-re-ki-n*, *-re(n)tzat*...) konplexuak eta itsatsiak. Eta azkenik, postposizio askeak izango ditugu: *baitan* (*gure baitan*); *erruz* (*gure erruz*); *kontra* (*denen kontra*); *aurrean* (*zure aurrean*). Postposizio itsatsiak (*semea(ren)gan*, *zu(re)gatik* eta abar) hitz bakarrean ematen ditugu. Aldiz,

*semearen erruz*, edo *semea(ren) baitan*, bi hitzetan ematen ditugu: *-gatik* edo *-gan* ez bezala, *erruz*, *bitartez*, *baitan*... hitz askeak dira eta bereiz idazten ditugu. Horregatik, hiztegietan agertu ohi dira, *-gatik*, *-kin* eta abar ez bezala. Hauei, morfema itsatsiak izaki, ez zaie sarrera berezirik esleitzen hiztegietan, gramatikaren alorrerako uzten dira (§ 19.3).

**21.10.1d** Kapitulu honen zatirik handiena postposizio itsatsiei eskaini ondoren, postposizio askeez ariko gara orain: *arabera*, *artean*, *baitan*, *baitarik*, *bitartez*, *bidez*, *gabe*, *erruz* eta abar izango ditugu mintzagai. Hauetako batzuk, hala ere, ohiko adberbio gisa ere erabil daitezke (§ 22.2.4.2): *Artean dendak zabalik zeuden* vs *Gure artean geldi dadila*. Ohiko kategorizazioetan, lehenbiziko *artean* denbora adberbiotzat hartzen da eta bigarrena postposiziotzat.

### 21.10.2. Ohiko adberbioen gainean eraikitako postposizio askeak

**21.10.2a** Ohiko adberbio batzuek parte har dezakete holako egituretan, hau da, sintagmaburu izan daitezke: *alde*, *fabore*, *inguru*, *kontra*... adberbiotzat hartu ohi dira, nahiz eta batzuk jatorriz izenak diren.

**21.10.2b** Adberbio kategoriako PS aske horien osagarria izan daiteke IS soilak, datibo sintagma, AdbS, genitibo sintagma, baina baita beste PS bat ere. Batzuek osagarri gisa genitiboa edo datiboa eskatzen dute: *NIRE kontra mintzatu ziren*; *HORMARI kontra bermatu zen*; *ZURE alde borrokatuko dugu*...

Beste batzuek, ostera, DS soilak hartzen dute osagarri, absolutiboa, alegia: {*Larunbata arte* / *bihar arte*} ez dira etorriko; *Bi urte barru lizentziatuko naiz*; *Ehun mila lagun inguru elkartu ziren*. *Larunbata* eta *ehun mila lagun* osagaiak IS soilak dira. *Arte* eta *barru*, berriz, adberbiozko postposizioak: [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> *larunbat-a*] *-arte*] > *larunbata arte*. *Arte*-ren osagarria beste adberbio bat ere izan daiteke: *bihar arte*, *gero arte*... PS konplexuagoak ere bai: *igandera arte*; *egun handira arte*. Eta baita IS bat ere: *igande arte* nahiz *igandea arte* (§ 21.10.5).

**21.10.2c** Arestian aurreratu dugun bezala, *barrena*, *behera*, *gora*, *zehar*... adberbioak sintagmaburu izan daitezke eta osagarritzat beste PS bat eskatu:

*Kalean gora joan ziren; Tolosan barrena ibili ginen; Bilbora bidean izan zen ezbeharra. Zehar, barrena, gora, bidean...* sintagmaburuak direla pentsa daiteke eta osagarritzat beste PS bat hautatzen dutela: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *Bilbora*] *bidean*]; [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> *Tolosan*] *barrena*]. Lehengoekin alderatuta, diferentzia bakarra osagarrian dago, orain, beste PS bat baitugu: *kalean* inesiboa, *Bilbora* adlatiboa, adibidez. Hauen egitura zein datekeen aztertzen hasi beharrik ez da, *arbola(ren) gainera* eta *arbolan gora* moduko sintagmek adiera desberdina dutela onartzeko: *arbolaren* osagaia *gainera* adberbioaren osagarria izango da. Bigarrenean, aldiz, *gora joan* predikatua izango genuke lehenbizi eta honen adjuntu edo litzateke *arbolan*. Alegia, *gora joan*, eta gero, *gora joate* honen zehaztapen gisa, *arbolan* osagaia. Adberbio hauetatik batzuk kokapen izena dute oinarrian: *goi > gora, behe > behera* (§ 21.10.3).

**21.10.2d** Beraz, ‘ohiko adberbio’ deitzen ditugun hauek AdbSaren buru izan daitezke, osagarriarekin edo gabe: *aparte, gero, gain(era)*... [<sub>PS</sub> (*Mundutik*) *aparte*]; [<sub>PS</sub> (*Kalean*) *behera*]; [<sub>PS</sub> *Atzoz gero*]; [<sub>PS</sub> (*Olioaz*) *gainera*]... Hauen egitura honakoa da: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> ... -Z] {*GERO* / *GAINERA* / *APARTE*}]. *Aparte*-ren kasuan, instrumentala ez ezik, [... -TIK] ablatiboa ere hautatzen du osagarri gisa. Orduan, lekuzko adiera nagusitzen da, nonbait: *Mugimendu horretatik aparte ibili da maiz*. Beste postposizio aske batzuek ere osagarri mota bat baino gehiago onartzen dute (§ 21.10.5).

### 21.10.3. Kokapen izenez eraikitako postposizio askeak (*aurrean, gainera, ondotik...*)

#### 21.10.3.1. Kokapen izenak

**21.10.3.1a** Postposizio askeen artean multzo berezia osatzen dute kokapen erlatiboa adierazten duten izenek —*albo, alde, atze, aurre, azpi, barne, barru, ertz, gain, inguru, ondo*...—, leku/denborazko postposizio itsatsi konplexuak sortzen dituztenek: *aldean, aurrean, barruan, atzera, gainera, ondora, ingurutik*... Ugaria da hauen saila. Adibidez, *Mahaian utzi zituen giltzak* esaten dugun bezala, *mahaiaren gainean* ere esan dezakegu. Bai batean zein bestean,

buru bera aurkitzen dugu funtsean, *-n* inesiboa. Esanahiaren aldetik ere, nolabait *non?* galderari erantzuten diotela onartzen ahal dugu: *Non utzi zituen giltzak?* Horrenbestez, denek ‘nontasuna’ adierazten dutenez, inesiboak dira, lokatiboak.

*Azpi* edo *gain* izentzat hartzeko arazorik ez dago, ezkerrean lagun duen genitiboak erakusten duenez. Inesiboaz gainerako beste elementu horiek ematen diote bakoitzari bere ñabardura edo zehaztasuna. Oinarrizko inesiboari leku/erlaziozko izen bat gehitu zaio: *gainean, ondoan, artean, inguruan...* Hauetan denetan, berez IS bat zena (*mahaiaren* {*gain-a, ondo-a, inguru-a...*}) berregituratu egin da: ISaren parte ziren osagai horiek *-n* inesiboak nolabait ‘xurgatu’ egin ditu, dena postposizio konplexu bihurtuz: *gainean, ondoan, inguruan...*; *-gan-en* osagai den *-ga-ri* ere beste horrenbeste gertatu bide zaio.

Inesiboaz *gain*, *-ra* adlatiboa edo *-tik* ablatiboa nahiz *-ko* ere har ditzakete kokapen izenak oinarri dituzten postposizio askeek: *mahai gainera, mahai gainetik, mahai gaineko; kale ertzean, kale ertzetik, kale ertzeko; etxe ondoan, etxe ondora, etxe ondotik, etxe ondoko...*

**21.10.3.1b** Izen hauetatik batzuek (*aurre, hurbil, urrun...*), bestalde, lekua nahiz denbora adieraz dezakete. Bi interpretazio izan daitezke: *Handik aurrera ezin zara pasatu* (lekua) / *Handik aurrera ez ikusiarena egiten zuen* (denbora).

**21.10.3.1c** Hortaz, bai *-n*, bai *-gan*, bai *ondoan*, bai *inguruan* edo *artean*, denak postposiziotzat har ditzakegu, batzuk soilagoak, besteak konplexuagoak, eta denek *non?* galderari erantzuten diote. Hots: inesiboak dira (*hemen* eta *hor* diren bezala, adibidez). Jakina, hemen egiten dugun analisia eztabaidagarria izan daiteke. Batek pentsa dezake *Etxearen aurrean aurkitu dut* diogunean eta *Etxearen irudian jarri nituen begiak* diogunean, bi sintagmak taxu berekoak direla. Hala ere, *aurrean* oso-osorik adberbiotzat hartzea bidezko dirudi, baina *irudian*, ez hainbeste. Jatorriz taxu bereko egiturak direla onartuta ere, bada aldea. Leku/denborazko erlazio bat adierazten duten izenak, denboraren poderioz gramatikalizatu egin direla esan ohi da, *hemen* (< *hau-n*) edo *hara* (< *har-a*) bezalako adberbioekin gertatu bide den bezala.

**21.10.3.1d** Zure *baita-n*, *aitaren-ga-n*, *jende guztia-re-ki-n*, *jende zintzoa-ren alde*, *mendia-n behera*, *mendi-ra-ino*, *lanaren bitarte-z* eta abar, denak modu bertsuan aztertzeo aukera ematen da horrela. Denak PS direla esaten dugu: buruak (-*ra* adlatiboak esaterako) osagarri bat hautatzen du (*goi* edo *behe* adibidez) eta PS bat eratzen: *gora*, *behera*... Hau, bere aldetik, sintagma buru bihurtzen da eta osagarrizat beste PS bat har dezake ([*mendian*] adibidez), beste PS konplexuago bat eratuz: [[*mendian*] *GORA*]. Baina gaurko euskaldunak *ondoan*, *ondora*, *ondoraino*... osagai bakartzat onartuko luke, -*gan*, -*gana* edo -*ganaino* bezalaxe. Hortaz, zenbait postposizio jatorrian izen baten gainean eratuak dira (*ondo-an*, *albo-an*, *gain-ean*; *erru-z*, *bide-z*, *bitarte-z*; *arabera* (< *arau-(e)ra*...). Deskripzioaren ikuspegitik eta etimologiari behar baino jaramon gehiagorik egin gabe, hautatu dugun bideak balio dezake euskaraz gauzak une honetan nola diren hobeto ulertzeo eta ikusteko. Adberbio edo postposizio sintagma hauek modu bertsuan lan egiten dute.

### 21.10.3.2. *Gora, behera vs gainera, azpira*

**21.10.3.2a** Hala ere, badira aldeak kokapen izenen artean. Izan ere, *aurrean*, *gainean*, *azpian*... modukoak osagarri bat dutela ulertzen dira: *zerbaiten* {*aurrean/gainean/azpian*...}, zerbaiten *aurreko*, *gaineko*, *azpiko*... beste zerbaiti erreferentzia eginez, alegia; erlaziozko izenak dira (Artiagoitia 2011).

**21.10.3.2b** Baina badira beste adberbio batzuk, berez izen baten gainean eraikiak izan arren modu absolutuan edo ulertzen ditugunak: *gora joan da*, *behean bizi da* eta abar, baina ez *\*arbolaren gora igo da*, *\*zubiaren behean bizi da* (cf. *arbola(ren) gainera igo da*; *zubi(aren) azpian* / *zubipean bizi da*). Batzuek genitiborik ez dute onartzen normalean: *gaina* zerbaiten *gaina da*, *goia*, berriz, *goia da* eta kito. Hala ere, *gure behean* modukoak ageri dira testuetan bakanka bada ere. Erabilera hori ez da ohikoa. *Gora, behera*, bere kasa, adberbioak dira, baina ez dute osagarririk onartzen. Aldiz, *aurrera* adberbioa erabil daiteke modu absolutuan (*egin aurrera, neskak!*). Baita ohiko postposizioen moduan ere: *Epailearen aurrera eraman dituzte*. Baina bestelako PS batzuetan parte har dezakete: *kalean gora*, *errekan behera*.



### 21.10.3.3. *Etxearen ondoan / etxe ondoan* gisako sintagmak

**21.10.3.3a** Orain arte aipatu ditugun egituretan, osagarri gisa ez da beti IS genitiboa agertzen, *etxearen inguruan* sintagman bezala, IS soila baizik, genitibo markarik gabe: *etxe ondoan*; *etxe inguruan*; *bide ondoan*; *mendi gainean*... Hori gertatzen da ‘leku’ adiera duten askorekin (de Rijk 2008: 69 eta hur.): *aldean*, *aldera*, *aldetik*, *artean*, *artetik*, *aurrean*, *atzean*, *azpian*, *erdian*, *ertzean*, *gainean*, *giblean*, *inguruan*, *ondoan*, *ostean*... eta abar. *Etxe aurrean*, *leiho atzean*, *arbola artean*, *iturri inguruan* bezalakoei begiratzen badiegu, pentsa liteke hauen barne-egitura izen elkartuena bera dela: *etxe-ondo-an*, *arbola-arte-an*, *iturri-inguru-an*... *Mahai-gain* izen elkartutzat hartzen bada, *mahai gainean* sintagmako *gainean* hori postposizio dela esatea zalantzarria izan liteke. Gramatika honetan ere hitz elkartuak aztertzean, atal berezia eskaini diegu *hitzaurre* moduko izen elkartuei, hau da, leku/denborazko mugakizuna dutenei (§ 7.2.2.3g). Baina izen elkartuak ote dira benetan? Itxura batean hala dirudite. Hala ere, hiztunak desberdin sentitzen ditu, adibidez, *Trenbide berria egingo dute* (*trenbide* hitz batean idatzita) eta *Tren bidez bidali* moduko bat (*Hitz-Elkarketa*/4: 26-27). Edo *Esnegaina ez dut gustuko* eta *Esne gainean euli bat aurkitu dut*. Edo gauza bera al dira *arbolartean* eta *arbola artean*?

**21.10.3.3b** Bada beste diferentzia bat ere, solasgai ditugun esamolde hauen sintaxia ukitzen duena. Izen elkartuaren burua eskuineko osagaia izan ohi da euskaraz: *zezen plaza* ez da *zezen* bat, *plaza* bat baizik, nola-halako *plaza* bat. Bestalde, egitura honetan (benetan izen elkartu denean) ezkerrean ezar daitezkeen izenlagun, zenbatzaile eta osagarriek osorik besarkatzen dute izen elkartua, eta izen elkartuaren buruari dagozkio bereziki. Esaterako, *Gipuzkoako zezen plazak itxi egingo dituzte* edo *Mirenen liburu dendak atseginak dira* diogunean, ez gara ari Gipuzkoako zezenez, edo Mirenen liburuez. Izatekotan ere, Gipuzkoako plazak izango ditugu hizpide edo Mirenen dendak. Aldiz, PStzat eman ditugun egiturez ari garenean, alderantziz gertatzen dela dirudi: *gure etxe ondoan* diogunean ‘gure etxeaz’ ari gara nolabait eta ez hainbeste, ‘gure ondoaz’. Alegia, *gure etxe ondoan* = [[gure etxe ] ondoan]] = [[gure etxearen] ondoan]. Baina *Azpeitiko zezen plazan* = [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> Azpeitiko [<sub>IS</sub> zezen plaza] ] -n] ≠ \*[[<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> [<sub>IS</sub> Azpeitiko zezen] plaza] -n].

**21.10.3.3c** Ohiko izen elkartuen aurrean bageunde, egitura bera dutela aitortu beharko genuke: [<sub>PS</sub> [<sub>PS</sub> Azpeitiko [<sub>I</sub> zezen plaza]] -n] eta [<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> gure [<sub>I</sub> etxe ondo]] -an]. Baina orduan ez da oso ondo ulertzen nolatan, *gure etxe ondoan* sintagma-  
ren ohiko irakurketan, *gure* izenlaguna *etxe*-ri dagokion, eta ez *etxe ondo*-ri. Aldiz, *Azpeitiko*, *zezen plaza*-ri dagokio, *plaza*-ri alegia, ez *zezen*-i. Kasu hone-  
tan ezina da perpaus hori honela interpretatzea: \*[[Azpeitiko zezen] plazan]].

Hortaz, *etxe ondoan* eta *etxearen ondoan* baliokide egokitzen eman badaitezke, horrek adierazten digu kasu batean (*zezen plaza* modukoetan) ohiko izen elkartu direla, baina *etxe ondo* ez hainbeste. Hemen lehenbizi [*ondo-an*] bera finkatu da, nonbait, eta gero [*gure etxearen [ondoan]*] sintagmako genitibo marka ezabatu dela pentsa genezake: [*gure etxearen [ondoan]*] > [*gure etxearen [ondoan]*]. Pentsa liteke *ondoan* postposizioak genitiboa gobernatzen segitzen duela, nahiz eta zenbait baldintzatan, determinatzailea eta genitiboaren marka ezabatuak gerta daitezkeen: [*gure etxearen [ondoan]*] > [*gure etxe [ondoan]*]. Hain zuzen, *gugan/guregan*, *gugatik/guregatik* bikoteak ditugun bezala. Hauetan, hain zuzen, *-gan*, *-gatik* eta abar postposiziotzat hartzen ditugu. *Ondoan* ere bai, horrenbestez. Gramatikalizazioa azken muturreraino eramana izan dela esan nahi du horrek.

*Ondo*, *aurre*, *gain* eta holako kokapen izenak erlaziozko izenak direnez, eduki abstraktu samarra dute eta horrek esplikatuko luke hemen aipatu den gramatikalizazio edo berregituratze prozesu hori. Hala ere, DS genitiboa nahitaezkoa da determinatzailea erakuslea denean: *Etxe horren aurrean ikusi genuen elkar lehen aldiz*. Beste batzuetan, berriz, zalantza egin daiteke DS genitiboa ala IS den zuzenena. *Zure etxe inguruan ikusi nituen* edo *Zure etxe gaineko apartamentua alokatu nahi dut* lasai asko esan eta idazten ditugu, nahiz etxe jakin batez, ‘zure etxeaz’ ari garen. Baina berdinean esan al daiteke *Frantziako muga inguruan tabako denda asko dago?* Ala egokiago da *Frantziako mugaren inguruan tabako denda asko dago?* Gaurko hedabideetan badira lehen adibidearen egiturakoak: *Palestinarrak Egiptoko muga ondoan Israelgo Armadak duen behaketa dorre bati tiro egin zioten (Berria)*; *Mexiko eta Tucsonen (Arizona) arteko muga inguruan (Berria)*. Azken batean, sintaxiaren eta hitz elkarketaren mugakoak dira hauek guztiak (Odriozola 2004b) eta ez da erraza erantzun bat eta bakarra ematea.

#### 21.10.4. Instrumentala buru duten postposizio askeak (*erruz, bidez, ondorioz...*)

**21.10.4a** Beste postposizio batzuk ere badira kokapen espaziala ez bestelako kontzeptuei bide ematen dietenak, instrumentalak adibidez: *erruz, bidez, bitartez, ondorioz...* Denak izen bat barnean eta honen eskuinean, buru gisa, instrumentala daramatenak. Izen horiek (*erru, bide, bitarte...*) -z instrumental soilaren adiera zehaztera datoz. *Postaz bidali* edo *posta bidez bidali* paretsukoak dira, morfologiari dagokionez ere, eta berdin: [... -en iritzi-z], [... -en orde-z], [... -en parte-z], [... -en uste-z] eta abar.

Baina gorago aipatu dugunez (§ 21.6.1), instrumental hauek mugatzailerik gabe erabiltzen dira (*partez/\*partez; ustez/\*ustez...*). Holakoen mugagabetasunaren berri emateko, onartu dugu adberbio edo postposizio eratorritzat hartzea litzatekeela biderik sinpleena eta, beharbada, zuzenena. Hori zilegi bada, jakina, barnean izen bat duten postposizioak izango lirake, izen batetik eratorriak: *buruz ikasi; erruz edan; kontuz gidatu*.

**21.10.4b** Horrenbestez, instrumental soila buru duten PSak izan ditzakegu: [<sub>PS</sub> *Andreaz*] *ez da fidatzen* ([<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> *andre-a*] [<sub>P</sub> -z]]). Eta baita instrumentalaz gainera, ‘tarteko’ izen baten laguntzaz postposizio konplexuagoa dutenak ere. Adibidez: *Alkoholaren erruz galdu zuen lana* ([<sub>PS</sub> [<sub>DS</sub> *alkoholaren*] [<sub>P</sub> *erru-z*]]). Adibide hauetan guztietan burua instrumentala da, baina leku/denborazko postposizioekin gertatzen den bezala, hemen ere gramatikalizazio prozesu bat gertatu bide da: izenak (*erru, bitarte, ondorio...*) eta instrumentalak bat eginez adberbio edo postposizio konplexu bat (*erruz, bitartez, ondorioz...*) sortzen dela onar genezake. Eta hau onartuta, sintagma osoa PS izango da, barnean osagarri gisa genitiboa duena.

#### 21.10.5. Postposizio askeen zerrenda bat

**21.10.5a** Ondoko taulan postposizio aske nagusiak bilduko ditugu. Hauek, gehienetan, izen batez eta postposizio ‘itsatsi’ batez osatutako PSak dira,

aurreko puntuetan ikusi bezala (§ 21.10.3, § 21.10.4): *aldera* < *alde-ra*; *artean* < *arte-an*; *behera* < *behe-ra*; *bidez* < *bide-z*; *bitartez* < *bitarte-z*; *erruz* < *erru-z*; *lepotik* < *lepo-tik*...

**21.10.5b** Postposizio hauen izaera eta bilakaera eta gramatikalizazio maila desberdina gogoan badugu, erraz ulertzen ahalko dugu zerrenda osorik ezin eman daitekeela. Gramatikalizazio bidea ere aurreratuagoa edo atzeratuagoa egon daiteke. Horrela, zenbait postposizioaren estatusa ere eztabaidagarria gerta liteke. Villasantek (1978: 47-108), esaterako, guk hemen ematen dugun baino zerrenda luzeagoa ematen du. Postposizio askeek, zalantzarik gabe, gramatikalizazioaz gogoeta egitera garamatzate. Zerrenda honek gogoeta hori pizteko baliagarri izan nahi du.

Ondoko taulan, lehen zutabeen postposizioak zerrendaturik ematen ditugu, PS konplexu hauen buru izango direnak alegia. Bigarrenean, buruak hautatzen duen osagarri mota. Hirugarren zutabeen, berriz, adibide batzuk. Adibide gehiago nahi dituenak, edo kontraadibideak, eskura ditu sarean hainbat corpus eta hiztegi, gauzak argitzen lagunduko diotenak.

Postposizioa	Osagarria	Adibidea
aitzi (‘kontra’)	DS <sub>genitiboa</sub> ___ DS <sub>datiboa</sub> ___	Ez zuen ahulagorik atzeman <u>bere aitzi</u> . <u>Metafisikari aitzi</u> oldartu zen.
alboan	DS ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Erreka alboan</u> zuhaixka bat dago. <u>Zure alboan</u> eseriko naiz.
alde	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Jainkoa ere <u>bere alde</u> du.
aldean <sub>1</sub>	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Horrek <u>zure aldean</u> asko daki.
aldean <sub>2</sub>	DS ___	Osaba <u>Bizkai aldean</u> sarri ibiltzen zen.
aldera	DS ___ [ <sub>KompS</sub> -tze] ___	Ordu biak <u>aldera</u> iritsi zen. Zerbait esate <u>aldera</u> esan nuen hori.

21. Postposizio sintagmak (III): leku/denborazko ez direnak

Postposizioa	Osagarria	Adibidea
aldetik	DS <sub>genitiboa</sub> ___ DS ___ [ <sub>KonpS</sub> -en] ___	<u>Hiztegiaren aldetik</u> pobre samarra da. <u>Gure aldetik</u> ez dugu beste ezer erantsiko. <u>Zeruan izarra dago itsaso aldetik</u> . <u>Zuzendari naizen aldetik</u> , badituz erantzukizun batzuk.
antzean	DS <sub>genitiboa</sub> ___ AdjS/AdbS ___	<u>Gure antzean</u> dabil hori ere. <u>Gaixo antzean</u> dabil aspaldian.
antzera	DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Zure antzera</u> nago ni ere, dirurik gabe.
aparte	PS <sub>instr</sub> ___  PS <sub>ablatiboa</sub> ___	<u>Soldataz aparte</u> , bidaia gastuak ere ordainduko dizkizugu. <u>Egunkaria irakurtzeaz aparte</u> ez zuen beste egin-kizunik. Ezin gara <u>mundutik aparte</u> egon.
arabera	DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Iritzi horren arabera</u> jokatu dut. <u>Diozunaren arabera</u> , ez dago irtenbiderik.
arau	[ <sub>KonpS</sub> -tu] ___ [ <sub>KonpS</sub> -∅] ___  DS <sub>genitiboa</sub> ___ DS ___	<u>Hitzak aurkitu arau</u> izkiriartzen nituen (Lafitte). <u>Loreondo batek, lilia idek arau</u> , ostoa galtzen du (J. Etxepare). <u>Zeure hitzen arau</u> gidatu nire urratsak. Ikas euskara, toki arau, ahal arau, arte arau.
arren	DS ___  [ <sub>KonpS</sub> -tu] ___  [ <sub>KonpS</sub> ...-EN] ___	<u>Bakearren</u> , isil zaituz apur batean. <u>Jainkoarren</u> , eraman nazazu zeurekin. <u>Zuk horrela uste izan arren</u> , niri bost axola. <u>Jendeari laguntzearren</u> hartu dut erabaki hau (cf. <i>laguntzearren</i> baina <i>lagundu arren</i> ). <u>Diru askorik ez duen arren</u> , dena emateko prest beti.
arte	AdbS ___ DS ___ PS <sub>adlatiboa</sub> ___ [ <sub>KonpS</sub> ...-TU] ___ [ <sub>KonpS</sub> -en] ___	<u>Bihar arte</u> ez naiz etorriko. <u>Hilaren bi(a) arte</u> kanpoan naiz. Ez da itzuliko <u>hurrengo igandera arte</u> . <u>Lurreko jostailuak jaso arte</u> , ez zara irtengo. <u>Argia piztu duzun arte</u> , ez zaitut ikusi.

Postposizioa	Osagarria	Adibidea
artean	DS ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___  [ <sub>KonpS</sub> ...-TU] ___ [ <sub>KonpS</sub> -en] ___	<u>Haitz artean</u> ibili ginen. <u>Andre guztien artean</u> bera zen dotoreena. Ni, <u>neure artean</u> , galdera mordo bati erantzuten saiatzen nintzen. Egon hemen ni etorri artean. Kanpoan den artean, zu lasai.
artetik	DS ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Arbola artetik</u> atera zen gizona. Liburu hauen artetik, aukeratu bat.
at	PS <sub>ablatiboa</sub> ___	<u>Mundutik at</u> bizi zela zirudien.
atze (-an, -ra, -tik, -ko)	DS <sub>genitiboa</sub> ___  DS ___	Gure atzean dabil. <u>Nire atzeko atea</u> ireki zen. Noren atzetik ote dabil. Etxe atzera joan da.
aurka	DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Gure aurka</u> ibili da denbora guztian.
aurre (-an, -ra, -tik, -ko)	DS ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Etxe aurrean</u> zegoen, geldi. Nor da <u>zure aurrean</u> dagoen hori? <u>Nire aurreko</u> guztiek izan zuten lekua. <u>Zuzendariaren aurrera</u> joan behar izan genuen. Josebaren aurretik ez zegoen inor.
azpi (-an, -ra, -tik, -ko)	DS ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Mahai azpian</u> duzu eskuzapia. <u>Gurpilen azpian</u> harrapatu zuen txakurra. <u>Lurraren azpitik</u> ur beroa ateratzen zen.
baino	[ <sub>KonpS</sub> -en] ___	<u>Uste duzun baino</u> aberatsagoa da.
baita (-n, -ra, -tik, -ko...)	DS ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Gizona baitan</u> doai handiak daude. <u>Geure baitan</u> dugu etsaia. Bere baitara bildu zen.
ba(ge)rik	IS ___ [ <sub>KonpS</sub> -tu] ___	<u>Diru barik</u> aurkitzen zen. Ezer esan barik sartu zen. Nahiago dut <u>kalean (bizi) barik</u> baserrian bizi. <u>Emazteari (eskatu) barik</u> amari eskatu zion laguntza.

21. Postposizio sintagmak (III): leku/denborazko ez direnak

Postposizioa	Osagarria	Adibidea
bako	IS ___ [... -ik DS] ___ [ <sub>KonpS</sub> -tu] ___	<u>Teilatu bako</u> etxean bizi zen. <u>Gatzik bako</u> jana. <u>Bost urtean ikusi bako</u> laguna.
barrena / barna	PS <sub>inesiboa</sub> ___ PS <sub>ablatiboa</sub> ___	<u>Afrikan barrena</u> ibiliko dira. <u>Larrabetzutik barna</u> iritsi ginen Gernikara.
barru	DS ___	<u>Bi egun barru</u> etorriko da irakasle berria.
barnean / barruan	DS ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Herri barruan</u> ezin da autoa erabili. <u>Poltsiko barnean</u> sartu zituen eskuak. <u>Ezarri dizkidaten mugen barruan</u> . <u>Kutxaren barnean</u> aurkitu nituen dokumentuak.
bat	PS <sub>instr</sub> ___	<u>Atea irekitzeaz bat</u> , zarata bat entzun nuen.
batera	PS <sub>instr</sub> ___ PS <sub>soziat</sub> ___	<u>Etxera iristeaz batera</u> euria hasi zuen. <u>Jonek alde egin zuenaz batera</u> irten zen hasi ziren istiluak. <u>Gurasoekin batera</u> etorri zen.
begira	PS <sub>adlatiboa</sub> ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___ DS <sub>datiboa</sub> ___	<u>Itsasora begira</u> dago. <u>Gorantz begira</u> jar ezazu karta hori. <u>Garien begira</u> egon. <u>Neska gazteei begira</u> pasatzen du eguna.
beharrean	[ <sub>KonpS</sub> -tu] ___	<u>Bizikleta erosi beharrean</u> , hobe zenuen motorra erosi bazenu. <u>Amari eskatu beharrean</u> , amonari eskatu zion.
beheiti	PS <sub>inesiboa</sub> ___ DS ___ DS <sub>datiboa</sub> ___ PS <sub>instr</sub> ___	<u>Maldan beheiti</u> erori zen. <u>Oihuka abiatzen</u> dira patarra beheiti. <u>Bagoazi gure beribiletan patar eztiari beheiti</u> . <u>Hobeki ikusteko, buruz beheiti</u> etzan da.
behera	PS <sub>inesiboa</sub> ___ PS <sub>instr</sub> ___ PS <sub>ablatiboa</sub> ___	<u>Urak haziak zetozen errekan behera</u> . <u>Buruz behera</u> ibiltzen ikasi zuen. <u>Goitik behera</u> zetorren ikaragarritzko abiadan.

Postposizioa	Osagarria	Adibidea
bestalde	PS <sub>instr</sub> ___	Errekaz bestalde dago herria. Ohar hauetaz bestalde beste batzuk ere ezarri dituzte.
bezain	[ <sub>KonpS</sub> -en] ___	Jakintsu (den) bezain harroa da.
bezala	IS ___ [ <sub>KonpS</sub> -en] ___	Adiskide bezala tratatu ninduten. Esan nizun bezala, ez naiz etorriko.
bidez	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Gutun baten bidez eman zioten berria.
bidean	PS <sub>adlatiboa</sub> ___	Donostiara bidean izan genuen istripua.
bila	DS ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___	Ur bila bidali genuen. Haur eder baten bila gabiltza.
bitartean	DS ___ [ <sub>KonpS</sub> -tu] ___ [ <sub>KonpS</sub> -en] ___	Ordu bata bitartean, paseatu egingo dugu. Gu iritsi bitartean, presta ezazu afaria. Ni zuzendari naizen bitartean, ez zara sartuko.
bitartez	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Gurasoen bitartez jakin genuen berria.
bizkar	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Asko dira herri honetan inoren bizkar bizi direnak.
buru	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Ororen buru, hau esango nuke.
buruan	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Hamar egunen buruan izango duzu erantzuna.
buruz	DS <sub>datiboa</sub> ___	Egitasmoari buruz zerbait gehiago jakin nahi du.
erdi (-an, -tik, -ra, -ko...)	DS ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___	Bide erdian zegoen trikua. Gauaren erdian jaio da haurra.
eretzean	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Orduko idazkiek ez dute balio handirik <u>literaturaren eretzean</u> .
erruz	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Geure erruz galdu dugu partida.
eske	DS ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___	Baimen eske joan naiz Udaletxera. Diruaren eske dator hori.



21. Postposizio sintagmak (III): leku/denborazko ez direnak

Postposizioa	Osagarria	Adibidea
esker(rak)	DS <sub>datiboa</sub> ___	Jainkoari <u>esker(rak)</u> , oraindik ere zutik gaude. <u>Musikari esker(rak)</u> behiek esne gehiago ematen omen dute.
esku	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Etorkizuna <u>gure esku</u> dago.
ezean	[... -ik DS] ___ [ <sub>KonpS</sub> -tu] ___	<u>Besterik ezean</u> , onak dira gaztainak. Garaiz etorri ezean ezin ezer egin.
fabore	DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Gure fabore</u> zerbait egin dezakeen inor ez da.
gabe	[... -ik DS] ___ IS ___ [ <sub>KonpS</sub> -tu] ___	Aterkirik gabe, nora zoaz? <u>Diru gabe</u> nengoen Pariseko puntan. {Gizon hau / zu / ...} gabe ezin gara inora joan. <u>Begiak altxatu gabe</u> erantzun zidan.
gabeko	IS ___ [... -ik DS] ___ [ <sub>KonpS</sub> -tu] ___	<u>Usain gabeko</u> arrosa da. Artzainik <u>gabeko</u> artaldea. Elkarri esan <u>gabeko</u> egiak.
gain	DS <sub>genitiboa</sub> ___ PS <sub>instr</sub> ___ [ <sub>KonpS</sub> -enAZ] ___	<u>Nire gain</u> uzten dituzte beti lan zailenak. <u>Senitartekoez gain</u> lagunak ere etorri ziren. Bitxiak saltzetik lor dezakeenez gain.
gainean	DS <sub>genitiboa</sub> ___ DS ___	<u>Arbolaren gainean</u> zegoen katagorria. Errealaren gainean hitz egin dugu. Zer egiten duzu <u>arbola gainean</u> ?
gainera	PS <sub>instr</sub> ___ [ <sub>KonpS</sub> -enAZ] ___	Esandakoaz <u>gainera</u> ez dut besterik. <u>Liburu hauez gainera</u> , beste hauek ere hor dituzu. Artxiboetan aurkitu ditudanez <u>gainera</u> , badituz datu gehiago ere.
gaindi	PS <sub>inesiboa</sub> ___	Teilatuan <u>gaindi</u> doa.
gero	PS <sub>instr</sub> ___ [ <sub>KonpS</sub> -enEZ] ___	Egun hartaz <u>gero</u> ez dut ikusi. Berandu etorri zarenez <u>gero</u> , zutik egon beharko duzu.

Postposizioa	Osagarria	Adibidea
gibel (-ean, -etik, -era...)	DS <sub>genitiboa</sub> ___ DS ___	<u>Elizaren gibelean</u> aurkituko duzu hilerria. <u>Etxe gibelean</u> bada iturri txiki bat.
gisa	IS ___	<u>Adiskide gisa</u> mintzo natzaizu, ez mediku gisa.
gora	PS <sub>inesiboa</sub> ___ PS <sub>instr</sub> ___ PS <sub>ablatiboa</sub> ___ DS ___	<u>Aldapan gora</u> abiatu ziren neskak. <u>Hankaz gora</u> bota zituzten gure proiektuak. Paristik gora dago Lille. <u>Aldapa gora</u> hasi dira txirringulak.
goiti	PS <sub>inesiboa</sub> ___ PS <sub>ablatiboa</sub> ___	<u>Mendian goiti</u> joan behar duzu. <u>Handik goiti</u> arrain asko ikutzen da. Hola egin bedi <u>hemendik goiti</u> .
gustura	DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Bere gustura</u> behar ditu gauza guztiak.
inguru	DS ___	Bost urte inguru pasatu ziren.
inguru (-an, -ra, -tik, -ko...)	DS ___  DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Etxe inguruan</u> dabil txakurra. <u>Martxo inguruan</u> kimatu behar da arbola. Ordu biak inguruan etorri ziren. Xoxote ingurutik pasatu ziren. Harri handiaren ingurura heltzean.
irian	DS ___	<u>Hamarrak irian</u> jotzen da xilin bat.
iritziz	DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Irakaslearen iritziz</u> , neskak hobeak dira.
izenean	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Ikasleen izenean gatoz.
kanpo	PS <sub>instr</sub> ___ PS <sub>ablatiboa</sub> ___	Internetez kanpo ez da ezer. Deialditik kanpo geratu zen.
kontra	DS <sub>genitiboa</sub> ___ DS ___ DS <sub>datiboa</sub> ___	<u>Zure kontra</u> daude denak etxean. Horma kontran jarri zen. Ahuspez, lurrari kontra jarri zen.

21. Postposizio sintagmak (III): leku/denborazko ez direnak

Postposizioa	Osagarria	Adibidea
landa (-ra/-n)	PS <sub>ablatiboa</sub> ___  PS <sub>instr</sub> ___	Bada beste bizitze bat honetarik landan. <u>Handik landa</u> jo zuen gero, esketik biziz. Herriak badu, <u>elizaz landa</u> , beste premiarik. Semea nor den ez daki inork, <u>Aitaz landara</u> . Zu zaitut, <u>Jainkoaz landan</u> , ene kontsolazione guzia.
legez	IS ___ [ <sub>KonpS</sub> -en] ___	Joka ezazu euskaldun zintzo legez. <u>Axularrek zioen legez</u> , ez utzi dena geroko.
lekuan	DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Ikasleen lekuan</u> ni joango naiz.
lepotik	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Emaztearen lepotik bizi da.
mende	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Alkoholaren mende bizi da Iñaki.
mendean	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Ez dugu nahi <u>inoren mendean</u> bizi.
ondo (-an, -tik, -ra...)	DS ___  DS <sub>genitiboa</sub> ___  [ <sub>KonpS</sub> -tu] ___	<u>Etxe ondoan</u> aurkitu dut. <u>Gurutze ondora</u> hurbildu nintzen. Nor da <u>Itziarren ondoan</u> dagoena? Isilune baten ondotik haxe esan zidan. Zuzendariordearekin mintzatu ondotik, zuzendariagana jo nuen.
ondoren	DS ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___ [ <sub>KonpS</sub> -tu] ___	<u>Gerra ondoren</u> asko sufritu zuen. Bataren ondoren bia dator. <u>Zu ezagutu ondoren</u> , gauzak asko aldatu dira niretzat.
ondorioz	DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Istripuaren ondorioz</u> , herren gelditu zen.
ordez (orde, ordean)	DS <sub>genitiboa</sub> ___  [ <sub>KonpS</sub> -tu] ___	Nork joan nahi du bilerara <u>nire ordez</u> ? Adjektibo baten ordean, erraz jar daiteke beste bat. <u>Hau erosi orde</u> z, hobe duzu bestea erosi.
orduko	[ <sub>KonpS</sub> -tu] ___ [ <sub>KonpS</sub> -en] ___	<u>Konturatu orduko</u> kartera ostu zidaten. Konturatu nintzen orduko, gainean neukan.

Postposizioa	Osagarria	Adibidea
oste (-an, -tik, -ra)	DS ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___ [ <sub>KonpS</sub> -tu] ___	<u>Ate ostean</u> ezkutatu zen. <u>Gizon bat atera zitzaidan arbola ostetik.</u> <u>Zure ostean</u> nor da? <u>Gerra amaitu ostean</u> , herrira itzuli zen atzera.
pare	DS <sub>genitiboa</sub> ___	Hutsaren pare gara.
pare (-an, -tik, -ra...)	DS <sub>genitiboa</sub> ___ DS ___	<u>Gure autoaren parean</u> geratu ziren ertzainak. <u>Gure parera</u> iristean, burua jiratu zuen. <u>Bular parean</u> eman zioten kolpea.
partez	DS <sub>genitiboa</sub> ___ [... -KO] ___	Joan zaitez <u>nire partez</u> . Goraintziak osabaren partez. <u>Atzoko partez</u> , bihar joango naiz.
partetik	DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Nire partetik</u> ez dago oztoporik. Goraintziak osabaren partetik.
truk(e)	DS ___ DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Diru truke</u> ez bada, horrek ez dizu lanik egingo. <u>Muxu truk</u> ibili nintzen lanean. <u>Erlojuaren truke</u> eman zidan baloia.
ustez	DS <sub>genitiboa</sub> ___	<u>Zure ustez</u> , zein da egokiena?
zain	DS <sub>genitiboa</sub> ___ [ <sub>KonpS</sub> -tu] ___	<u>Zure zain</u> egon ginen hamaikak arte. <u>Ni iritsi zain</u> ez zineten egongo, bada?
zehar	[DS ... -ak] ___ PS <sub>inesiboa</sub> ___ PS <sub>ablatiboa</sub> ___	<u>Urteak zehar</u> , guztiok izan ditugu arazoak. <u>Euskal Herrian zehar</u> ibili zen hizkuntzalaria luzaro. Urteetan zehar artelan asko bildu ditu. Gernikatik New Yorkera joan zen <u>Paristik zehar</u> .

## 22. Adberbioa

---

- 22.1. **Adberbioak zer diren**; 22.1.1. Kategoria mota bat; 22.1.2. Adberbioak ez dira aditz argumentuak; 22.1.3. Aditz sintagmaren edo perpaus osoaren modifikatzaile; 22.1.4. Adberbio sintagmak eta postposizio sintagmak; 22.1.5. Adberbioen aldaezintasuna; 22.1.6. Adberbioen funtzioaz; 22.1.7. Adberbioen sailkapen motak
- 22.2. **Adberbioen sailkapen formala: adberbio bakunak, eratorriak eta elkartuak**; 22.2.1. Adberbio bakunak; 22.2.2. Adberbio eratorriak; 22.2.3. Adberbio elkartuak; 22.2.3.1. Adberbio elkartu motak; 22.2.3.2. Galdetzailletan oinarritu adberbioak; 22.2.3.3. Adberbio dvandvak; 22.2.3.4. Mendekotasuneko adberbio elkartuak; 22.2.3.5. Adberbioak eta hots uztardura; 22.2.4. Adberbio gisa erabilitako bestelako hitzak; 22.2.4.1. Hitzak eta adberbioak; 22.2.4.2. Adberbio bihurtu diren hitzak; 22.2.4.3. Adberbio bihurtzeko diren hitzak; 22.2.4.4. Adberbioak sortzeko beste bide batzuk; 22.2.4.5. Adberbio gisa erabiliak mugatzailea eta guzti; 22.2.4.6. Adberbio gisa erabilitako hitz multzoak
- 22.3. **Adberbioen sailkapen semantikoa (I)**; 22.3.1. Sailkapen mota asko; 22.3.2. Zirkunstantzia, nozioa, jarrera...
- 22.4. **Adberbioen sailkapen semantikoa (II): Denbora adberbioak**; 22.4.1. Zer diren denbora adberbioak: *Noiz*, oinarritzko galdera; 22.4.2. Denbora adberbioak eta postposizioak; 22.4.3. Denbora adberbioen kokapena; 22.4.3.1. Askotariko adberbioak; 22.4.3.2. *Orain* multzoko adberbioak; 22.4.3.3. *Egun* multzoko adberbioak; 22.4.3.4. *Aurten* multzoko adberbioak; 22.4.4. Maiztasuna adierazten duten adberbioak; 22.4.5. Iraupena markatzen duten adberbioak; 22.4.6. Bestelako denbora adberbioak; 22.4.7. Denbora adber-

- bioen indargarriak eta esamoldeak; 22.4.8. Hitz batzuen denborazko erabile-  
ra adberbiala
- 22.5. **Adberbioen sailkapen semantikoa (III): Leku adberbioak**; 22.5.1. Zer diren  
leku adberbioak: *Non*, oinarrizko galdera; 22.5.2. Sintagma erabilienak;  
22.5.3. Forma indartuak; 22.5.4. Adberbio elkartu zehaztugabeak;  
22.5.5. Adberbio-adjektiboak; 22.5.6. Maila markak, esaera adberbialak eta  
bestelakoak
- 22.6. **Adberbioen sailkapen semantikoa (IV): Modu adberbioak**; 22.6.1. Modu ad-  
berbioak zer diren: *Nola* eta *zelan*, oinarrizko galderak; 22.6.2. *Nola*-ren bes-  
telako erabilerak; 22.6.3. Bestelako galdetzaileak; 22.6.4. Adberbio elkartu  
zehaztugabeak; 22.6.5. Erakusleetatik eratorritako adberbioak; 22.6.6. Ad-  
berbio eratorriak; 22.6.7. Bestelakoak; 22.6.8. Elkartze sintaktikoak
- 22.7. **Adberbioen sailkapen semantikoa (V): Maila adberbioak eta zenbatekoak**;  
22.7.1. Maila adberbioak zer diren; 22.7.2. *Oso*; 22.7.3. *Berdin* eta *nahiko*;  
22.7.4. Maila adberbio hutsak; 22.7.5. Kokagunea; 22.7.6. *Asko*, *aski*, *samar*,  
*pixka bat*; 22.7.7. Kopuruari eta osotasunari lotutako adberbioak; 22.7.8. Deik-  
tikoak; 22.7.9. *Zein*, *zer...*; 22.7.10. Azken oharrak
- 22.8. **Adberbioen sailkapen semantikoa (VI): Iritzi adberbioak**
- 22.9. **Adberbioen sailkapen semantikoa (VII): Bestelako adberbio batzuk**;  
22.9.1. Diskurtso markatzaileak; 22.9.2. *Ere*; 22.9.3. *Omen/ei*, *ote...*;  
22.9.3.1. "Partikulak" deituak; 22.9.3.2. *Omen*; 22.9.3.3. *Ote*; 22.9.3.4. *Bide*;  
22.9.3.5. *Al*; 22.9.3.6. *Ahal*; 22.9.3.7. *Bai* eta *ez*
- 

## 22.1. Adberbioak zer diren

### 22.1.1. Kategoria mota bat

Perpaus batean mota askotako hitzak aurkitzen dira: *Jonek etxe polit bat erosi du gaur goizean*. Perpaus horretan ageri diren hitzak kategorietan sailkatzen ditugu (ikus 11. kapitulua). Kategoriek esaten digute nolakoak diren hitzak, ze klasetakoak, baina ez digute esaten arruntean nolako funtzioa betetzen duten perpausean. Horrela, badakigu perpaus horretako *Jonek* hitza izena dela, izen berezia (§ 12.3.2), hain zuzen. Funtzioari dagokionez subjek-

tua da, baina *Joneri eman diogu* esango bagenu, edo *Jone ikusi dut*, kategoria berekoa izanik ere, izen berak beste funtzio batzuk dituela ikusten dugu berehala.

Berdin gertatzen da beste hitzekin ere: kategoriari dagokionez, *etxe* izen arrunta da, *polit* adjektiboa, *bat* zenbatzailea, *erosi* eta *du* aditzak dira, *gaur* adberbioa da, eta *goizean* inesibo kasuan dagoen izena (postposizio sintagma, hortaz).

Adberbioek, izenek edo adjektiboez ez bezala, ez dute determinatzailearik hartzen euskaraz, eta ez dute inolako komunztadurarik egiten aditzarekin: *gazteak egin du / gazteak egin dute*. Perpaus horietan, *gazte* hitzak (-a) artikulua hartzen du, eta bigarren adibidean numero marka ere (-k), eta komunztadura egiten du aditzarekin (*gazteak... du; gazteak... dute*). Baina *gaur* hitza biluzik dago, ez du artikulurik onartzen, eta ez du inolako komunztadurarik egiten aditzarekin, hitza beti bakarrik, inolako eranskinik gabe, ageri baita. Hori gertatzen da adberbioekin. Hau adberbioaren berezko *aldaezintasunarekin* dago lotua (§ 22.1.5).

### 22.1.2. Adberbioak ez dira aditz argumentuak

Adberbioak, nolabait esateko, aditzaren argumentu egituratik (§ 23.3) kanpo geratzen dira, bazter batean bezala: *ekarri* aditzak norbaitek zerbait ekartzea eskatzen du (beraz, *nor* eta *zer* argumentuak ezinbestekoak ditu, eta anitzetan *nori* ere). Baina ez du aditzak berez eta ezinbestean eskatzen nola ekarriko duen, noiz, norekin edo zergatik, horiek guztiak gertaera posibleen konstanteak baitira. Gertaerak beti gertatzen dira noizbait, nonbait, nolabait... zirkunstantzia batzuetan alegia. Horiek ez ditu aditz batek, honen edo besteak, berez eta bereziki eskatzen. Nahi izanez gero, hiztunak zehatz ditzake, jakina, edo ez, baina ez da aditzen kontua hori. Aditzak berez eskatzen duen informazio trinkotik kanpo gelditzen da, ez da ezinbestekoa informazio hori ematea. Aldiz, aditz baten izaera semantikoaren berri eman nahi izanez gero, haren ezaugarriak azaldu nahi izanez gero, aditzaren

argumentu sarea definitzeko ezinbestekotzat hartzen diren argumentuak zein diren zehaztu beharko da: *etorri* (norbait), *eman* (norbaitek–norbaiti–zerbait), *edan* (norbaitek–zerbait) eta abar. Beste kontuak marjinalak dira alde horretatik, zirkunstantzialak. Adberbioak hor kokatzen dira, inguruan, beste maila batean, aditzaren gunetik urrunago, eta “zirkunstantziak” mar-  
katzen dituzte<sup>1</sup>.

### 22.1.3. Aditz sintagmaren edo perpaus osoaren modifikatzaile

Geroago adibide batzuk ikusiko baditugu ere, aurrera dezagun hemen zerbait. Horretarako bi adibide hauek erabiliko ditugu: *Irakaslea orduan etorri da*; *Orduan, irakaslea etorri da*. Edozein hiztun gai da hor ageri den *orduan* adberbio horrek bi esanahi dituela ohartzeko: lehenbizikoan irakaslea garaiz etorri dela esan nahi du, ez dela berant etorri alegia. Bigarren adibidean, ordea, ez da hori kasua, eta ez du zerikusirik orduarekin. Beste zerbaitez ari garela, eta horretan, irakaslea etorri dela esaten dugu. Bi adberbioen funtzioa, nolabait esateko, bazterrekoa da, baina lehenbiziko kasuan adberbioak aditz sintagma modifikatzen du, eta bigarrean, ordea, perpaus osoa. Bigarren saileko adberbioak dira *zorionez*, *tamalez*, *azkenik*, *gainera*, *bestalde*, *askotan*, *maiz*, *gutxitan*, *bortizki nahita*, *zuhurki*, *dirudienez*, *egia esan*, *dagoeneko* eta abar. Lehen sailekoak —aditz sintagmaren modifikatzaileak— dira *zeharo*, *osorik*, *asko*, *ondo*, *ongi*, *honela*, *hobeki*, *hala bestela*, *beti*, *nahiko* eta gisa horretakoak. Batzuetan, eta hori ikusi dugu, *orduan*-en kasuan, sail batekoa nahiz bestekoa izan daiteke, nola den ageri.

---

<sup>1</sup> Argumentutzat hartuko ditugu, oro har, aditzarekin komunztadura egiten duten sintagma. Zernahi gisaz, arazoa ez da hain simplea: *Jonek liburua ipini du* esaten badugu, bistan da *ipini* aditzak *nonbait* ipintzea eskatzen duela. Bistan da ere *Jonek argazkia ikusi du* esaten badugu, *ikusi* aditzak ez duela ezinbestean *non* ikusi duen eskatzen, ikuste hori beti gertatuko baita *nonbait*. Ez da aditzaren kontua, baizik gertaera guztiena. Hortaz, badirudi sintagma eta aditzen artean badirela hiru maila bezala: argumentuak, argumentu ez diren ezinbesteko osagarriak eta osagai zirkunstantzialak, perpausan kanporago leudekeenak.



#### 22.1.4. Adberbio sintagmak eta postposizio sintagmak

Kontura gaitezen, hala ere, ez dagoela desberdintasun handiegirik honako bi perpaus hauen artean, hor ageri diren *gaur* eta *arratsaldean* hitzei dagokienez: *Miren gaur etorri da*; *Miren arratsaldean etorri da*. Itxura batean, *gaur* adberbiotzat hartzen badugu, iduri luke *arratsaldean* ere adberbioa behar lukeela izan ezinbestean. Biek denborari egiten diote erreferentzia, distribuzio antzekoa dute, ez dute komunztadurarik egiten, ez dira argumentu sarekoak eta abar. Hala ere, *arratsaldean* hitzaren kasuan berehala ohartzen gara *gaur* hitzarekin ez bezala, hitz barruan beste elementu gehiago bereiz daitezkeela: *arratsalde*, hasteko. *Arratsalde* hori ez da adberbioa, baizik denborari erreferentzia egiten dion izena: *Arratsalde ederra egiten du gaur*. Eta izena den aldetik, komunztadura egiten du: *Arratsaldeak beldurra ematen zion* perpausaren singularrean doa aditza. Ondoko honetan, berriz, pluralean: *Arratsaldeak beldurra ematen zioten*. Horretaz gain, *Miren arratsaldean etorri da* adibidean argi ikusten denez, izenak artikulua hartzen du (-a), numeroa (sing. edo pl.) eta -n inesiboaren postposizio marka.

Zer gertatzen da hor orduan? *Gaur* eta *arratsaldean* ez dira sail berekoak? Eta zer gertatzen da, eman dezagun gauzak gehiago nahasteko, *gaur arratsaldean* gisako sintagmarekin? Zer da hori? Esan dezagun, errazenetik hasteko *gaur* eta *arratsaldean*, biak, sintagma sail berekoak direla, nahiz sintagma mota horren izena zehaztea erraza ez den. Horiek guztiak adberbio sintagmak dei ditzakegu, izena batzuetan nahasgarri gerta badaiteke ere, *gaur* adberbioa baita, baina *arratsaldean* ez (bistan denez, postposizio sintagma da). Biak dira osagai zirkunstantzialak: denbora, tokia, modua, kopurua, zergatia, helburua... bezalako eduki semantikoekin erlazionatzen dira.

Hori dela eta, terminologiari dagokionez, bereizketa hauek egingo ditugu: denak dira, esan bezala, osagai zirkunstantzialak. Horien barnean adberbio sintagmak bereiziko ditugu, batetik (*gaur*) eta adizlagunak edo postposizio sintagmak (*arratsaldean*, *etxean*, *mendian*), bestetik. Hemen, EGLUn erabiltzen den terminologiatik urruntzen gara: han adberbio terminoaren azpian biltzen ziren “aditzondoak” (*gaur*) eta “adizlagunak” (*adiskideekin*).

EGLUko eskema: *Adberbio = aditzondo + adizlagun.*

Funtsean ez dugu gauza handirik aldatzen orain: multzo beraren (osagai zirkunstantzial deitzen dugu, ez adberbio) azpian sartzen baititugu adberbio sintagmak (adberbioa edo aditzondoa dute buru) eta postposizio sintagmak (orduko adizlagunak).

Oraingo eskema: *Osagai zirkunstantzial = adberbio/aditzondo + postposizio sintagma/adizlagun.*

Uste dugu orain aukeratzen dugun terminologia hedatuago dela gramatikarien artean.

Kapitulu honetan adberbio sintagmak aztertuko ditugu. Postposizio sintagmetarako ikusi 19-21. kapituluak. Hala ere, batzuetan hain dira hurbilekoak esanahian, non postposizio batzuk denborarekin multzoz aldatuz joan baitira eta benetako adberbio bihurtu dira azkenean: *Orduan etorri zen*. Perpaus horretan *orduan* postposizio sintagma izan daiteke: *Bostetarako etorri behar zuen, eta puntu-puntu, orduan, etorri zen*. Beraz, espero zen orduan etorri zen, oren horretan. Baina adberbio hutsa ere izan daiteke: *Koldori buruz ari ginen hizketan eta orduan etorri zen, hizketan ari ginela*. Bi esanahi desberdin ditu *orduan* horrek, ikusten denez: batean, ‘ordu jakin batean’ (halako orenean) eta bestean ‘une hartan’. Ez dira esanahi bakarrak, zeren ‘hortaz’ (edo holako zerbait) ere esan nahi baitezake: *Nondik datorkigu orduan konfiantza hori?* Kategoria aldatze hori beste izen zenbaitekin ere gertatzen da: gaur egun hitun gutxi ohartzen da *hemen* edo *aurten* adberbioen amaieran ageri den *-n* hori, *mendian* edo *goizean* hitzen amaieran ageri den inesibo marka bera dela. Hain da galdurik informazio hori, zenbait hizkeratan *orai* esaten da zuzenean, *-n* gabe.

Kontura gaitezen, bestetik, adberbioekin ere, beste edozein izenekin bezala, osa daitezkeela postposizio sintagmak: *Bihartik aurrera ez da etorriko*; *Gaurko egin behar zen hori...* Beraz, bai *goizean* eta bai *bihartik*, biak dira postposizio sintagmak, baina batean postposizioak izen sintagma hartzen du osagarri (*etxe-a-N*) eta bestean adberbio sintagma hartzen du osagarri gisa (*bihar-TIK*).

### 22.1.5. Adberbioen aldaezintasuna

Zehatz dezagun, hortaz, hobeki, zerbait lehentxeago aipatu dugun adberbioen aldaezintasunaren kontua. Gramatiketan ere azpimarratu izan da adberbioen ezaugarri nagusia dela aldaezintasuna. Hori gertatzen da, egia da, zenbait hizkuntzatan: gainerako kategoriak ez bezala, adberbioek beti itxura bat eta bakarra erakusten dute. Hori esaten da gertatzen zaiela interjekzioei eta postposizioei ere. Euskaraz egia da hori, baina neurri batean bakarrik (ikus EGLU-I: 312). Adibidez, *ere* partikula adberbiotzat har daiteke, eta horrek beti du itxura hori, ez du besterik hartzen, ez artikulurik ez postposiziorik. Baina euskaraz ez da hori gertatzen beste adberbio askorekin, aurreko pasartean ikusi dugun gisan, adberbioek postposizioak hartzen ahal baitituzte. Azkuek espresuki esaten zuen euskal adberbioak ez zirela hain aldaezinak: “Nada de invariabilidad tienen los de nuestra lengua en su mayoría [...] Muchísimos de ellos son tan declinables como cualquier nombre” (Azkue 1925: 454).

Bada, ordea, aldaezintasunaren kontzeptua definitzeko beste bide bat: aldaezintasuna hitzek edo hitz multzoek perpausean betetzen dituzten zereginen arabera hartzen dituzten muga-hizkiei, erlazio-hizkiei eta gradu-markei eta antzekoei badagokie, honako hau esan daiteke: adberbioek ez dute mugatzailearik hartzen, ikusi bezala; adberbioa batzuetan nominalizatu daiteke, izenkiei dagozkien kasuetara eramanez (*Iruñetik zerbait urrutian bizi da*), adberbioa izen bihurtuz alegia; adberbioa izenlagun ere bihur dezakegu *-ko* markaz baliaturik (*atzoko lagunak*); adberbioek ez dute kasu marka gramatikalik hartzen (*\*atzok*), baina bai leku-denborazkoak (*atzotik*) batzuetan; azkenik, adberbio batzuek, baina ez guztiek, gradu markak har ditzakete (*beranduegi*, *\*atzoegi*). Argumentu horiek erakusten dute euskal adberbioa, guztiz aldaezina ez bada ere, badituela eranskinak hartzeko gainerako izenkiek ez dituzten mugak.

### 22.1.6. Adberbioen funtzioaz

Hori guztia formari dagokionez. Funtzioari dagokionez, sintagma hauek ez dira gainerako sintagmak bezain homogeneousak, perpausaren osagai askoren

esanahia ukitzen ahal baitute: aditza (*lasterka etorri*), adjektiboa (*aski ederra*); adberbioak (*arras ongi*) eta abar. Hortaz, adberbioaren izaera zehaztea ez da erraza: neurri batean, definizioa ez da sortzen berez dituen ezaugarriengatik, baizik ukitzen dituen osagaien motagatik: azkenean, definitutako osagaia bihurtzen da definizioaren parte.

Esan dezagun, azkenik, baditugula osagarri zirkunstantzial konplexuak ere: *gaur goizean* da horietako bat. Badira asko: *zenbat eta goizago, zuk pentsatu bezala, aise aski, mantso-mantso, bi ordu eskas, arratsaldeetan aise maizago, bart arratsean goizkara* eta abar. Geroago aztertuko dira holakoak.

Adberbio batzuek adjektibo kalifikatzaileek erakusten dituzten predikatuen parekoak adierazten dituzte (ikus 14. kapitulua), baina aditzarekin: *idazke-ra ona* eta *ongi idatzi; ulertze erraza* eta *errazki ulertu* eta abar. Bada, ikusten denez, paralelismo handia izen-adjektibo eta aditz-adberbio bikoteen artean, eta honetaz aspaldi ohartu ziren gramatikariak, hizkuntza askotan gertatzen baita.

### **22.1.7. Adberbioen sailkapen motak**

Adberbioak bi modutara sailkatuko ditugu, nolakoak diren erabiltzen ditugun irizpideak. Irizpide bat morfologikoa da, formala, esanahia kontuan hartu gabe baliatzen duguna, eta bestea semantikoa, esanahia kontuan hartuz baliatzen duguna. Gramatikariek, egia da, beste irizpide batzuk ere erabiltzen dituzte zenbaitetan: izaera gramatikala, adibidez, edo izaera sintaktikoa, hots, nolako aldaketa motak eragiten dituzten. Baina irizpide horiek eztabaidagarriagoak dira, eta askotan ez da batere erraza sailkapen batzuen eta besteen arteko mugak zehaztea. Horregatik, hemen irizpide formalak eta semantikoak bakarrik erabiliko ditugu. Egia da, zernahi gisaz, azkeneko bi irizpideak (izaera gramatikala eta sintaktikoa) ari direla nagusitzen gramatika modernoetan (ikus RAE 2009: 2294), eta lehenbiziko biak (forma eta esanahia) ohikoagoak direla gramatika tradizioaletan.

## 22.2. Adberbioen sailkapen formalak: adberbio bakunak, eratorriak eta elkartuak

Erakusten duten forma hartzen badugu kontuan, adberbioak era askotakoak dira euskaraz: *atzo*, *beti*, *ederki*, *lasterka*, *berriro*, *norbait*, *nonbait*, *aurten*, *gainera*... batzuk aipatzearren. Zerrenda horretan *atzo* eta *beti* adberbio bakunak dira, soilak, ez da hitz horien barnean bestelako morfemarik bereizten. *Ederki*, *lasterka* eta *berriro*, aldiz, eratorriak direla esaten dugu, berez beregaina den hitz batean oinarriturik (*eder*, *laster*, *berri*), atzizki bat erantsirik (*-ki*, *-ka*, *-ro*) adberbioak sortzen baitira. *Noizbait* eta *nonbait* konposatuak, dira, elkartuak, bi lexemak (*noiz-bait*, *non-bait*) osatzen baitituzte. Azkenik, esan dezagun badirela euskaraz zenbait hitz, jatorriz adberbio izan gabe, guztiz adberbializatuak gelditu direnak: *aurten*, *inguruan*, esate baterako. Horietako batzuetan hiztunak galdu du guztiz haien jatorriaren kontzientzia (*aurten* horretan ez du ikusten inesiboaren marka), eta beste batzuetan, lehentxeago esan gisan, hitz berak adberbio balioa izan dezake batzuetan (*Inguruan egongo da nonbait*) edo postposizio aske arrunta da (*Etxe inguruan ikusi dugu*).

### 22.2.1. Adberbio bakunak

**22.2.1a** Adberbio bakunak, lexemari dagokionez, osagai bakarrekoak dira: *gaur* eta *atzo*, adibidez. Euskalki guztietan badira holako adberbioak, nahiz ez diren denak hizkera guztietara hedatzen: esate baterako, *usu* adberbioaren erabilera mugatuagoa da, hizkerei dagokienez, *gero* adberbioarena baino. Beste batzuetan, hitz bera izanik ere, esanahia aldatzen da hizkera batetik bestera: *sarri* adberbioak ‘askotan’ esan nahi du euskalki batzuetan, edo ‘berehala, gero’ beste batzuetan.

**22.2.1b** Gaurko testuetan adberbio bakun erabilieneen artekoak honako hauek dira<sup>2</sup>: *aiduru*, *aise*, *arau*, *ardura*, *atzo*, *aurtemein*, *aurten*, *bart*, *beti*, *bihar*, *doi*,

<sup>2</sup> Hau UPV/EHUko Euskara Institutuak garatu duen aplikazio batean ikus daiteke: <https://www.ehu.eus/ehg/ehme/>

*egun, etzi, gaur, gero, geurtz, iaz, jada, orain, sobera, sarri, ziplo*. Horietako batzuk arruntak dira euskalki guztietan: *aurten, beti, bihar, etzi, gero...* Beste batzuk, ordea, euskalki batzuetan bakarrik erabiltzen dira.

**22.2.1c** *Doi* adberbio gisa ezagunago dugu, baina izen edo adjektibo bezala ere ageri da tradizioan: ‘justu behar dena’ edo esan nahi du. Hori ikusten da adibide hauetan: *Ez dugu jan-edanean eta beztimentetan soberaniarik galdegiten: doiaz elikatzen, iragaiten eta kontentatzen gara* (Axular); *Egun-argia joana zen eta nire lantegia argizagi batzuen argi doietan neukan* (Mitxelena); *Nitan zen aberastasun doi hori baliatzeagatik* (Larre); *Beren burua gabe atxikituko badute ere maiz, umeen hazteko eta altxatzeko doia* (J. Etxepare); *Kontuen eskatze hori doi bat harrigarria da* (X. Arbelbide).

Baina adberbio gisa ere erabiltzen dugu *egun*, batez ere Iparraldean (batzuetan artikulua eta guzti): *Ahoa doi irekitzen du eta irekitzen duzu, eta guztiarekin ere arnegu eta juramentu egiten ari zara* (Axular, “Ez du ahoa ireki baizik egin...”); *Eta doi-doia hiru milioik ongi ahoskatzen zuten eta izikiriartzen zekiten beren frantsesa* (Xarriton); *Etxartek Bozen ihesa doi-doia ikasi zuen* (Borda); *Eta zenbait aipamen –“bederatzi ahizpez maiteki hazia”– doi aipatu, letratuentzat argi, eta besteentzat ilun izan daitezten* (Mitxelena).

## 22.2.2. Adberbio eratorriak

**22.2.2a** Baditugu adberbio eratorriak ere. Izena, adjektiboa, aditza nahiz beste adberbio bat oinarri harturik, eta horri adberbio atzizki bat erantsirik sortzen ditugu *adberbio eratorriak*. Adberbioak sortzeko atzizki nagusiak honako hauek dira: *-ki* (*apalki*), *-ka* (*lasterka*), *-ro* (*minutuero*), *-to* (*ederto*) eta *-la* (*horrela*).

**22.2.2b** *-ki* atzizkiak batzuetan *-gi* aldaera erakusten du (§ 6.2.4 atalean aztertzen da xeheki gai hau).

Kualitatea adierazten duten izenondoek, maileguak izan nahiz ez, hartzen dute, oro har, atzizki hau: *garbiki, oneski, segurki*. Eta adjektiboa balioa duten izenek ere: *gizonki*.

*Gaingiroki* berezia da, morfologiari dagokionez: *gainkirotik* sortua, Axularrek erabiltzen du, eta gero berriz ere xx. mendean berreskuratzen da euskara landuan.

Euskara modernoan hizkuntzak behar dituen hitz berriak sortzeko ezinbesteko lanabesa dela dirudi: *Mintzaira horrek zein abilki eta errazki moldatzen dituen hitzak* (Joanategi); *Zein abilki praktikatzen duan hire ofizioa!* (Larzabal); *Automatikoki begiak itxi zituen, eta neskaren amorruari berriro aurre egiteko prestatu zen* (Olarra).

Partizipioek ere har dezakete atzizki hau: *deliberatuki, markatuki, ohartuki* eta abar<sup>3</sup>.

Egungo idazleen artean oso erabilia da ezinbestean, aski emankorra delako. Ez hori bakarrik: batzuetan, hola sortzen diren adberbioek lekua jaten diete adizlagun arruntei: *itsuan* adizlagunaren ordez *itsuki* erabiltzea ez da gauza arraroa. Edo *zorrotz jokatu* esan beharrean *zorrozki jokatu* esateko joera ere igartzen da batzuetan. Ez da hori, dena den, egungo euskararen kontua, gisa horretako adibideak tradizioan ere ageri baitira.

Askotan, ordea, -z postposizioa nahikoa da adberbioak sortzeko: *airez, eskuz, hitzez, bihotzez* eta abar. Horrek ez du kentzen, zernahi gisaz, -ki ere gaineratzeko: *egiazki, ohorezki, zentzuzki, dolorezki, handizki, moldakiazki...*: *Oho-rezki hartu genuen Baionako apezpikua* (Larzabal); *Justu oro egonen da haie-tan goiti airian. Eta egonen da eskuinetik jujearen aldean bekatariak dolorezki sugarrean lurrean hariketa dantzuteno sententzia gainean* (Etxepare); *Baina hark mehatxatzen zituen handizki ez zitezzen ager* (Haraneder). Baina emankortasun mugatua du eredu honek, oro har -z bera aski izaten da-eta aditzondo balioa emateko: *hitzez, eskuz...* (ez \**hitzezki, \*eskuzki...*).

<sup>3</sup> Izen batzuek ere hartzen dute atzizkia, baina oso markatuak dira: *andreki, gizaki, gizonki, jendaki, ardiki, liburuki...* esate baterako: [...] *erlijio honetan edo hartan sartzen dira gizaki eta andreki guziak [...]* (Mendiburu); *Urtean hiruretan zure gizonki guziak agertuko dira zure Jainko jaunaren aitzinera* (Duvoisin); [...] *asperkundera egiten dut entzun ez nauten jendaki guzien gainean* (Duvoisin).

**22.2.2c** Sail honetan aipatu behar den bigarren atzizkia *-ka* da<sup>4</sup> (ikus § 6.2.3): *lasterka, korrika, oihuka, ehunka, pixkanaka, gainezka, tarteka, joka, apurka, presaka, zeharka, galdezka, irrika, dozenaka, norgehiagoka, dardarka, arrastaka, banaka, garrasika, hemenka, bueltaka, bakarka, tiraka, deika, milioika, noizbehinka, tiroka, arnasestuka, ahapeka, biraka, zaunka, atzeraka, isilka, erdizka, marmarka, bultzaka, jauzika, zotinka, esaka, segika, aldizka, saltoka, txandaka, atalka, kolpeka, txaloka, taldeka, balantzaka, gordeka, erreguka, barrezka, musuka, algaraka, intzirika, keinuka* eta abar.

Ikusten denez, kategoria bat baino gehiagori erants dakioke atzizki hau. Izen konkretuei, bizidun zein bizigabeei erants diezaiekegu, ‘bila ibili/joan’... adierako adberbioa sortzeko: *arrainka, egurka, urzoka... Gure Pelo / Hasi zen arrainka, / Sakekin miaka* (Oxobi); *Urzoka joan zen eta ostiraliaz geroz etzen ageri* (Herria). Nolanahi ere, oso adibide gutxi ditugu eredu honetakoak, Iparraldekoak guztiak. Izen bizigabeei erantsirik, bi modutako balioak har ditzake sortzen den adberbioak: batetik, oinarriak adierazten duena eginez (*bultzaka, eztulka, jauzika, keinuka, tiroka, zirika*); bestetik, oinarriak adierazten duenaz kolpea emanez (*harrika, mazoka, ostikoka, ukabilka...*). Hualdek eta Ortiz de Urbinak (2003) diotenaren arabera, baliabidea (‘tresna’) edo ‘modua’ adierazten dute aditzondo hauek. Beste batzuetan, ‘zein maiztasunez’ adierazten du adberbioak (errepikatzea, Hualdek eta Ortiz de Urbinak diotenez); izenak eta zenbatzaileak ere izan daitezke oinarri adiera honetan: *binaka, bosnaka, ehunka, epeka, hamarnaka, hilabeteka* ‘hilabetez hilabete’, *hirunaka, milaka, taldeka, urteka*. Aditzoinari ere erants dakioke *-ka* (*eskainka, joka, txistu-jaurtika*). Modua adierazten du erabilera honetan.

Bestela, *-z* postposizioari (*barrezka, galdezka*) eransten zaio (§ 6.3.8); eta adberbioari (*han-hemenka, pixkanaka*), aditzoinari (*eskainka, jaurtika...*) eta abar. Izen bizidunekin batzuetan ‘bila ibili/joan...’ adierako adberbioa sortzeko ere balio du, nahiz holako adibideak ez diren ugariak: *Arrainka joan zen*.

---

<sup>4</sup> Dena den, *-ka* atzizkia erantsirik, hitz berriak hartzen duen kategoria dela eta, ikus 11. kapitulua: § 11.10 (“*-ka* formak: zenbatzaileak, aditzak, postposizio sintagmak eta adberbioak”).



Aditzondo hauek tresna, modua, maiztasuna... adierazten dute. Zenbatzaileak ere izan daitezke oinarri: *binaka, bosnaka, milaka*... Eta kontatze edo zenbatze izenak ere: *hilabeteka, urteka, orduka, epeka* eta abar.

**22.2.2d** Adberbio eratorriak sortzeko hirugarren atzizkia *-(e)ro* da (§ 6.2.5). Garai batean euskalki guztietan erabilia, egun Hegoaldera mugatzen da. Izenei eransten zaie, batetik, eta maiztasuna adierazten dute batez ere. Holakoak ditugu honako hauek: *arratsaldero, arratsero, asteartero, astero, eguerdiro, hamabostero, hilabetero, ilunabarrero, minutuero, orduero, segundoero, udaberriro, udazkenero, une oro, aldiro*.

Zuzenean bokalez bukatutako izenki (*bizi-ro, errukarri-ro*) edo adberbio batzuei (*asti-ro*) ere ezartzen zaie, eta bokal hori *-e* baldin bada, arau fonologikoa ezartzen da: *luze* → *luzaro*<sup>5</sup>. Mitxelenaren iritziz orokorra zatekeen atzizki hau aditzondo berriak sortzeko, nahikoa ihartua dagoela esango genuke. Aspaldi samar sortutako *asti-ro, berri-ro, dongaro, geldiro, luzaro, opa-ro, osoro, zeharo*... erabiltzen ditugu oraindik ere, baina ez dugu berririk sortu.

Hitza kontsonantez bukatzen bada, tartean *-ki-* eskatzen dute: *samur* → *samurki-ro*. Batzuetan bokalez amaitzen bada ere: *anaiki-ro*. Beraz, bi atzizki baliatzen ditugu holako adberbioak sortzeko: *-ro* eta *-ki-ro*. Holako adberbioek gehiago ‘modua’ (zentzu zabalean) edo adierazten dute. Bi atzizkien arteko hurrenkera aldakorra da: *egiazki-ro, emeki-ro, gaingiroki, handiki-ro/handiroki, maitaki-ro/maitaroki, zorrozki-ro*...

Lehen sailekoak (*-ro*) honako hauek ditugu: *adierazgarri-ro, ageri-ro, aintzagarri-ro, arrikugarri-ro, aspergarri-ro, asti-ro, berri-ro, beti-ro, bizi-ro, errukarri-ro, etsigarri-ro, ezti-ro, garbi-ro, gogaikarri-ro, higuigarri-ro, hunkigarri-ro, ikaragarri-ro, izugarri-ro, luzaro, miragarri-ro, miresgarri-ro, zeharo, zoragarri-ro*. Azkueren ustez *asti-ro* adberbioa *asti* (‘lasai, mantso’) adjektibo zaharretik etor daiteke (1923-1925 I: 241; II: 418).

<sup>5</sup> De Rijk (2008) “minor apocope” deitzen du fenomeno hau, eta Hualdek (1991) “vowel lowering process”.

Eta bigarren sailekoak (-kiro) beste hauek: *anaikiro, apalkiro, astunkiro, atseginkiro, azkarkiro, basakiro, berezikiro, bigunkiro, desatseginkiro, desberdinkiro, desegokiro, egokiro, emekiro, ezegokiro, geldikiro, gizonkiro, goibelkiro, gozokiro, handikiro, lasaikiro, leunkiro, lizunkiro, maitekiro, motelkiro, nabarmenkiro, segurkiro, xamurkiro, zorrozkiro, zuzenkiro*.

Mitxelenak dio atzizki hau oso emankorra izan dela euskararen historian adberbioak sortzeko, nahiz gaur erabilera mugatuagoa duen. Adibideetan ikusten denez, oinarrian kategoria askotako hitzak ikusiko ditugu: izena (*astero*), adjektiboa (*garbiro*), adberbioa (*emekiro*) eta abar.

Euskaraz *orduero* (*orduoro, orduro*) erabili izan da beti. Berdin *egunero* edo *astero*, eta gainerakoak, maiztasuna adierazteko. Hori da literaturan eta ahozko erabileran tradizioa duen moldea eta ez, betiko erabileraren ondoan, azken urteotan hedatu den zenbatzailedun sintagmari ere erans-tea, *\*bi orduero, \*ordi erdiero, \*bi hilero, \*hiruhilero, \*lau astero* eta holakoak erabiltzen hasi dira (ez dira adibide idatziak ere falta egungo testuetan). Horrek ez du tradiziorik euskaraz, egia esateko. *Bi orduz behin, bi ordutik behin, hamabost egunetik behin, hamabost egunean behin* edo *bi ordutik*, besterik gabe, erabili izan da beti: *Bi ordutik pasatzen da autobusa*.

Ikusi hemen Euskaltzaindiaren 110. araua: “Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzailedunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen”, Iturenen, 2000ko maiatzaren 26an onartua.

**22.2.2e** *-to* ere erabiltzen dugu euskaraz adberbio eratorriak sortzeko (§ 6.2.6). Esan daiteke *-ki* atzizkiaren parekoa dela, baina atzizki hau da, beharbada, adberbioak sortzeko atzizkien artean emankortasun apalena erakusten duena. Hala sortzen diren adberbioak batez ere bizkaieraz ageri dira eta ez dira asko (sudurkariaren ondotik herskaria ahostun bihurtzen da): *egundo, ondo, ederto, hobeto, polito, politikito, txarto*, eta baten bat gehiago. *Ontsatto* ere sail honetakoa da, batez ere zubereraz erabilia.

Ez dirudi *-to* atzizkia batere emankorra denik, zernahi gisaz<sup>6</sup>.

**22.2.2f** Adberbioak sortzen ditu *-la* atzizkiak ere, baina erabilera mugatua du arras, eta ez da batere emankorra: *honela, horrela, hola, hala, bestela*. Hauek guztiak beste atal batean azaltzen dira (§ 22.6).

**22.2.2g** EGLU-I liburukian (316) esaten da *-ik* partitibo marka hartzen duten hitzak, oinarrian izena (*poz*), adjektiboa (*isil, on, bakar, zut*), adberbioa (*orain*)... dutela ere, adberbio bihurtzen direla: *pozik, isilik, onik, bakarrik, zutik, orainik*... Egia da *bakarrik utzi dugu, isilik gelditu da* eta holakoetan, berez, adberbio baten, edo adberbio antzeko zerbaiten funtzioa dutela forma horiek. Partitiboa deitzen dugun horrek (beraz, egokiago litzateke *-ik* amaiera duten sintagmez aritzea, besterik gabe) funtzio bat baino gehiago du. Batetik, determinatzaile gisa har daiteke (ikus SEG): *Ogia erosi dut / ez dut ogirik erosi*. Baina bestetik, batzuetan adberbio erabilera du: *Zutik egon dira ordu osoa*. Eta *-ta* amaiera hartzen duten sintagmek ere adberbio erabilera dute: *Eserita egon dira ordu osoa*. Badirudi, hortaz, bi *-ik* ditugula.

**22.2.2h** Holako atzizkien bidez sorturiko adberbioak elkarren artean truka-garriak dira batzuetan: *ongi* eta *ondo*, edo *ederki* eta *ederto*, esate baterako. Edo *osoki* eta *osoro*. Badirudi, hala ere *-ki* eta *-ik* partitiboa adberbio erabileran ezin direla beti eta besterik gabe trukatu: *onik* eta *ongi, bizirik* eta *biziki*, adibidez, ez dira esanahi bereko adberbioak. Beste argudiobide bat partitiboa hemendik kentzeko.

Goiko moduko atzizki horien bidez sortutako adberbioen pareko edo antzeko izan daitezke, azkenik, kasu marken bidez sortutako adberbioak ere: *itsuan* eta *itsuki; oihuz* eta *oihuka; berriz* eta *berriro*.

<sup>6</sup> Txikigarri bezala ere erabiltzen da, palatalizatua batzuetan (*-txo* txikigarriaren parekoa litzateke, nahiz horrek ez duen esan nahi bi txikigarriek banakuntza bera duten), baina orduan ez da adberbioa: izenekin (*alabatto, andanatto, aulkitto, auzitto, mutiko, neskato, ttantto, zakuto, bidetto, bulegotto, egonalditto, elizatto, emaztetto, eskutto...*), adjektiboekin (*ahultto, laburto, iluntto, luzetto, ttipitto, txikito...*), adberbioekin (*aitzintto, askitto...*), bat zenbatzailearekin (*batto*) eta abar.

### 22.2.3. Adberbio elkartuak

#### 22.2.3.1. Adberbio elkartu motak

Hauek dira ondoren aztertuko diren adberbio elkartuak: galdetzaileen gainean eraikiak (*edonon, nonbait, nonahi, nonbait...* eredukoak); dvandvak (*han-hemen* eredukoak), mendekotasunezko adberbio elkartuak (*mutur-joka, larrru-hutsik...* eredukoak), eta hots uzardurak (*kili-kili, txor-txor...*).

#### 22.2.3.2. Galdetzaileetan oinarritu adberbioak

EGLU-I liburukian (316-317) galdetzaileei *edo-* eta *-bait, -nahi* eta *-i* hizkiak gaineraturik osatutako adberbio elkartuak aipatzen dira: *edonon, edonoiz, edonola; nonbait, noizbait, nolabait; nonahi, noiznahi, nolana; inon, inoiz* eta *inola*. Horiek guztiak aski arruntak dira egungo hizkeretan, eta literaturan ere tradizioa dute.

*Noizbait* (*noizbeit, noizpait, noxbait, nozbait, nosbaita, nuzpait...*) euskalki eta garai guztietan erabili izan da. Esanahi bat baino gehiago du. Batzuetan ‘halako batean’ esan nahi du: *Egun bazoaz libertadez, hori noizbait galduko duzu* (Lazarraga). ‘Beste garai batean’ ere esan nahi dezake: *Nik ere, noizbait sinestu izan dut* (Inza). Zenbait kasutan, hurbilago dago ‘batzuetan’ hitzaren esanahitik: *Guziarekin ere, noizbait ihardetsi du beldurrez* (Pouvreau). Ezezko perpausetan ezezko balioa izan dezake, edo ‘halako batean’ esan nahi duela: *Ez dukete ene penek, bada, noizbait mugarik?* (Etxeberri Ziburukoa); *Nork ez du kanta gainera noizbait, hiru damatxoren beste hura ere?* (M. Lekuona). Zenbait kasutan ‘azkenean’ esan nahi du: *Noizbait hasi naiz berri ere lanean, eta egin dut bertze liburu bat* (Joanategi); *Ahulduko da haren kemena eta isilduko da noizbait haren burruna* (Mitxelena).

*Nonbait* ere (*nunbait, nonbaiten, nonbaisten*) euskalki eta garai guztietan erabilia da. ‘Tokiren batean’ adierazi nahi du batzuetan: *Horren gogoia beti nonbait dabila* (Duvoisin); *Bila nabil badenez, izan behar da nonbait, erretaula*

*bat* (J. Etxepare). Beste batzuetan ‘segur aski bai’, ‘antza denez’ esan nahi du: *Gurea delako nonbait, guretarrekin itsasirik gaudelako* (Mitxelena); *Herriko jendeak uste du, nonbait, beste arraza bateko laguna dela jakintsua* (Villasante). Harridura esaldietan, ‘zalantza gabe’ esan nahi du: *Nonbait makila hautsi diozu bizkarrean* (Maurice Harriet). Esapide batzuetan ere badu tokia: *han nonbait, nonbait han, hor nonbait, nonbait hor* (beharrik!, eskerrak!, gutxienekoa!).

*Nonahi* (*non-nahi, nun-nahi, nunai...*) batez ere XIX. mendetik aurrera hasten da tokia hartzen. XX. mendean hedatzen da, nahiz bizkaierazko testuetan pixka bat gutxiago ageri den: *Eskoletxe berriak nonahi irekitzen zituela* (J. Etxepare).

*Nonahi* honek (*noizbait* eta *nonbait*-ek bezala) toki-denborazko kasu markak har ditzake: *-tik* eta *-ra*. Baina marka hori lehenbiziko atalak nahiz bigarrenak har ditzake: *nondik nahi* (tradizioan *nondinahi, nundik-nahi, nundinahi, nunti-nahi, nundikan-nahi...* ageri dira) edo *nonahitik* (eta goiko aldaerak): *Han xuxentzen eta garbitzen da, zer ere bertzenaz eta nondik nahi makurtu eta lizundu baitzen* (Pouvreau); *Nonahitik haizea zetorren* (Agirre).

Adlatiboan (*-ra*) ere badira bi aukerak: *noranahi* eta *nonahira*. Tradizioan lehenbizikoa ageri da, aldaera bat baino gehiago duela: *noratnahi, nuranahi, nuratnahi* eta abar. Euskalki guztietan erabilia. Aldiz, *nonahira* adberbioak ez du lekukotasunik tradizioan, baina gaurko hizkeran badira adibide batzuk: *Matematikak, izan ere, nonahira eramaten zaitu!* (Jon Muñoz).

Esan dezagun, azkenik, *nonahi* horren ondoan, *non nahitan* ere ageri dela: *Leialtasuna hain ona da / nonahitan maite gaituzte* (Basarri); *Jainkoaren eskua ikusten zuten nonahitan eta zernahitan* (Villasante).

*Edonon* eta *edonoiz* batez ere bizkaieraz idazten dutenen artean dokumentatzen dira: *Edonon ageriko da ze itsusia den* (Astarloa); *Sustrai txarrak edonon eta edonoiz eman dezake kimu berria* (Agirre). *Edonola*, aldiz, ez da horrenbeste erabili, baina egungo literaturan indarra hartzen ari da.

*Non-zer* moduko galdetzaille dvandvak ere baditugu gure literatura tradizioan eta gramatikako terminologian, *noiz-nongo, zer-nola(ko), nor-nori,*

*nor-nori-nork*. Hauetan, aldiz, *eta* juntagailuak irudikatuko luke galdetzaile hauen arteko harremana. Nolanahi ere, emankortasun urrikoak dira bai bata (*bi-hiru*) eta bai bestea (*noiz-nongo*). *Aitak zer-nola lantzen zuen* (J. R. Zubillaga); *Bi gorputz aiek gutxi gora-bera non zeuden galdezka, zer nolatan atera bear genitun asmatzearren* (I. Alkain eta A. Zavalala). Ikus, dena den, § 9.10 atala ere.

### 22.2.3.3. Adberbio dvandvak

Maila berean dauden bi adberbio elkartzen ditugu, adberbio dvandvak sortzeko (§ 9.4.1): *han-hemen*, *hala nola*. Eta hemendik erator ditzakegu adjektibo dvandvak ere, *luze-zabaleko*.

### 22.2.3.4. Mendekotasunezko adberbio elkartuak

Mendetasunezko adberbio elkartuetan bigarren osagaia da burua, adberbio kategoriakoa. Lehen osagaia izena izaten da. Izen eta adjektibo elkartuetan bezala, hemen ere elkartu sintetikoak eta *bahuvrihi* elkartuak bereiz ditzakegu.

**22.2.3.4a** Osagarri-buru erlazioa dugu bi osagaien artean.

- a) Batetik, [aditzoina + *-ka*] adberbio eratorriak mugakizun dutenak (§ 9.4.3a): *aho-zabalka*, *arrosario esaka*.
- b) *Bila*, *eske* bigarren osagai dutenak: *abaro bila*, *barka eske...* (xehetasunak § 9.4.3b atalean).
- c) *Zain* (*egon*) bigarren osagai duten *eguna zabaldu zain*, *mutil kaiku horiei burura etorri zain egon...* (xehetasunak § 9.4.3c atalean).
- d) *Pasa* mugakizun dutenak (§ 9.4.3e): *gau-pasa*.
- e) Berez bizidunen jarduna adierazten dutenak (§ 9.4.3f): *kontu-kontari*.

**22.2.3.4b** Badira modifikatzaile-buru erlazio duten adberbioak ere sail honetan (§ 9.5): *esku-hutsik, aho-zabalik*. *Huts* bigarren osagai duten elkartuak ere adberbio elkartutzat har ditzakegu: *musu huts gelditu zen*.

### 22.2.3.5. Adberbioak eta hots uztardura

Adberbio batzuk hots uztarduren ondorio dira: *zurrumurru, bor-bor, kili-kili...* Horiek guztiak § 9.6 atalean aztertzen dira.

## 22.2.4. Adberbio gisa erabilitako bestelako hitzak

### 22.2.4.1. Hitzak eta adberbioak

Badira hitz batzuk, berez adberbio izan gabe, adberbio gisa erabiltzen ditugunak. Horiek aztertuko dira ondoko lerroetan. Hitz horietako batzuk, jatorriz adberbio ez izanik ere, adberbio gisa lexikalizatu dira, eta forma aldetik ere nekez identifika daitezke jatorrizko hitzekin. Adibidez, *hemen* adberbioak *hau* erakuslea da, inesiboan (*hau + n*). Hirugarren graduan ikusten da garbiago: *han* (*ha + n*). Beste zenbaitetan, hitza adberbio gisa lexikalizaturik gertaturik ere, erraz atzeman daiteke jatorria: *orduan* (*ordu + a + n*). Horiek osatzen dute lehenbiziko saila.

Badira beste sintagma batzuk adberbializatze bidean daudenak, baina praktikan adberbiotzat hartzen ditugunak: *gainera*, adibidez. Egia da *Teilatu gainera bota zuten pilota* esaten denean postposizio arrunt bat dela, baina horren ordez *Gainera, pilota teilatura bota zuten* esaten badugu, hor zinezko adberbio bat dugu, adberbioaren osaera gardena bada ere. Holakoak dira bigarren sailekoak.

Hirugarren sailean ditugu postposizio garbiak: *lagunarekin*. Ez ditugu horiek adberbiotzat jotzen.

Beste multzo batekoak ditugu adberbio lanetan erabiltzen ditugun adjektibo garbiak: *Dotore dator* edo *Zorrotz jokatu dute*.

Azkeneko sailean daude adberbio gisa erabiltzen ditugun hitz multzoak: *batez ere*, *gutxi gorabehera* eta holakoak.

Horiek guztiak ikusiko ditugu ondoko pasarteetan.

#### 22.2.4.2. Adberbio bihurtu diren hitzak

Adberbializazioa erabat burutu duten hitzak ditugu lehenbiziko sailean. Horrelakoak dira, hasteko, historian kasu marka baten bidez sortu adizlagunak, baina gaur egun hiztunek halakotzat ez dituztenak: *aurten*, *hemen* eta abar. Hiztun arrunt gutxik ikusten dute *hemen* adberbioan, esaterako, inesiboaren seinalerik (*hau + n*). Historian finkatu da forma hori. Gauza bera gertatzen da *han* adberbioarekin (*a/hura + n*). Aldiz, *hor* forman ez da ageriko aztarnarik ere geratzen.

Erabat adberbializatutzat har daitezke kasu marka agerian izan arren, erabilia-  
ren erabiliaz harturiko esanahi bereziagatik edo, hiztunek hitz berri edo dife-  
rentetzat dituztenak: *orduan*, *berriz*, *gainera*... Zaila da, jakina, eta ez norae-  
zean erabaki beharrekoa beharbada —batera zein bestera postposizio baten  
aurrean baikara— marka zirkunstantziala daraman izenkia erabat adberbiali-  
zatu denentz zehatz erabakitzea. Zergatik, esate baterako, *berriz* adberbiotzat  
hartu eta *luzaz*, *ostera*, *ez?* Zalantza horiek hiztegieta ere ageri dira inoiz:  
batzuetan horrelako hitz bati, adberbiotzat harturik, sarrera berezia eskaintzen  
zaio, baina beste batzuetan, nahiz itxuraz antzekoa izan, ez.

#### 22.2.4.3. Adberbio bihurtzeko diren hitzak

Beste batzuk adberbializatze bidean daudela esan daiteke, eta hiztegiek ere  
seinalatzen dute hori: adibidez, *neurritz* hitza, adberbio gisa ageri da *Euskal-  
tzaindiaren Hiztegian*, edo *Egungo Euskararen Hiztegian* (EEHn), baina be-  
tiere *neurri* sarreraren azpiatal gisa, ez beregain. Horrelakoak ditugu, *neurri  
batean*, *ondoan*, *ostean*, *gustura*, *gora*, *aurrera*, *oinez* (OEHn sarrera gisa,



baina *Euskaltzaindiaren Hiztegia* edo EEHn azpisarrera gisa), *agerian*, *berritan*, *birritan*, *onez*, *onean*, *txarrez*, *txarrean*, *zuzenean*, *adibidez*, *alderantziz*, *artez*, *benaz*, *benetan*, *zinez*, *egiaz*... Adibideetan ikusten denez, inesiboa eta instrumentala dira honetara gehien egokitzen direnak.

Hirugarren mailan genituzke, azkenik, kasu marka eta guzti izenki garbi izaten segitzen dutenak, hau da, adizlagun bai, baina adberbio ez direnak: *mendiz*, *lagunarekin*, *leku ederrera*... (ikus 19-21. kapituluak).

#### 22.2.4.4. Adberbioak sortzeko beste bide batzuk

Badira, ordea, bestelako adberbializatzeko bide batzuk ere. Zenbaitetan adjektiboa hartzen dugu, inolako atzizkirik gabe, ez mugatzaile ez kasu markarik, eta adberbio lanetan jarri. Adberbio gisa erabiltzen da, bestelako adberbioen zereginetan. Testuinguru soilak agintzen du aldaketa hori, beste inolako markarik gabe: *Lokarriak kate gogor bihurtzen dira itzul-lana neurtitzetan egin behar denean* (Mitxelena) vs *Gogor ari da* (Izeta); *Zuela bere buru gainean urrezko koroa bat, eta bere eskuak igitai zorrotz bat* (Leizarraga) vs *Zorrotz jokatu beharra zekuten* (Tx. Garmendia); *Arren bada, Jauna, argi bizi bat egidazu zure adibideak ikasteko* (Añibarro) vs *Ez dago batere argi, niretzat behintzat* (Mitxelena). Adberbio adjektibal ere deitu izan zaie inoiz. Prozesu hau aski arrunta da hizkuntza askotan, dena den.

Perpau horietan *gogor*, *zorrotz* eta *argi* hitzek *nola* galdetzaileari erantzuten diote eta *ondo*, *ederki* edo beste moduzko adberbioek bete dezaketen lekua betetzen dute. Hona, nahi izanez gero, horrelako erabilera ager dezaketen izenondoerrenda laburra: *alfer* (*alfer bizi*); *apal* (*apal etorri*); *argi* (*argi esan*); *arin* (*arin ibili*); *bikain* (*bikain jokatu*); *dotore* (*dotore jantzi*); *eroso* (*eroso ibili*); *erraz* (*erraz egin*); *garbi* (*garbi mintzatu*); *jator* (*jator jokatu*); *makur* (*makur atera*); *zintzo* (*zintzo ibili*); *zuzen* (*zuzen jokatu*) eta abar. Batzuetan mailakaturik ageri da adberbioa: *Azken aldikotz ez ote dugun ikusi zenbaitek? Biziki argi dago eguna* (J. Etxepare); *Nola ez baitzen arras argi Sarea ez zuen ikusi* (Goihe-  
txe); *Gainera, oso dotore jardun du* (Berria); *Oso ilun zegoen* (Lizardi).

Ohart gaitezen erabilera adberbiala duten adjektibo hauek konparazio mailak ere hartzen dituztela: *Argala eta hezurtsua zen, eta oso dotore jantzita zegoen* (Atxaga); [...] *sobera luzatuko bainintzateke eta beharbada argiegi mintzatuko* [...] (Salaburu); *Egia da gaztelaniaz ere askoz errazago aurkitzen direla trabari ahoskabeen bilkurak* (Oñederra); *Idiot savanten kasuak biziki garbi uzten du giza trebetasun bakar bat salbatzen dela beste esparru batzuetako* [...] (Olarra); *Gainera, sukaldea ez da oso zikin egongo* (Jokin Muñoz).

Holako adberbioek mugak dituzte, zernahi gisaz. Adberbializatze prozesua ezin da edozein adjektiborekin egin: *dotore dabil, zikin dator...* bai, baina nekez esango dugu *?txiki bizi da, ?handi ikusi dugu...* Muga sintaktikoak ere: *gogor ekin dio*, bai, baina *labur ekin dio* ez da hain erraz aurkitzen. Muga lexikoak: *garbi jan* esaten da, baina *itsusi jan* nekez (bai, ordea, *itsuski jan*).

Orobat esan daiteke zenbatzaile zehaztugabeei dagokienez ere: *Josetxo aunitz maite dute* (Izeta); *Ez zaitzela sobera nabarmendu* (Izeta); *Herabe zen gauza horietaz mintzatzeko, nahiz, bestenaz, ez zen batere motela* (J. B. Etxepare).

Holakoetan ez adjektiboa ez zenbatzailea ez daude izenari lotuak, ez izen sintagmaren barnean ez predikatu osagarri bezala ere. Izenarekin ez, aditzarekin dute lotura; baina, jakina, osagai zirkunstantzialak direnez, komunztadurarik gabeko lotura da hori. Gauzak horrela direla, testuinguru soilak agintzen du, adjektibo-zenbatzaile hauek ez baitute erabilera adberbialera eramango dituen inolako morfemarik hartzen.

#### 22.2.4.5. Adberbio gisa erabiliak mugatzailea eta guzti

Zenbaitetan, azkenik, adberbio gisa erabiltzen den izenkia forma absolutuan, mugatzaile eta guzti, agertzen zaigu: *Zabal-zabala erori zen*; *Gosaria doi-doi bukatu rik, horra non emakume ezti hura dolorezko itxuran zutitu zen* (Jon Muñoz); *Kattalin eta Sophieiek begiak zabal-zabala ezartzen dituzte* (Bidegain).

Azken adibide hori aski adierazgarria da, zeren berez adjektiboa den *zabal* hitzak artikulua harturik ere (*zabal + a*), ez du inolako numero komunztadu-

rarik egiten izenarekin: *begiak zabalak* behar luke izan hor, baina adberbio gisa erabiltzen denez ezin du komunztadura hori egin. Holako adibide gehiago ere aurkitu ditugu idazleen artean: *Hurbilago eta tristeago agertzen ziren, gorri-gorria, eguzkiak erreak* (X. Arbelbide); *Urrundu ziren, isil-isila, Jesusganik* (Larregi); *Gizon gaizok atorra dute gerrian xamar petit ageri, eta bi esku hutsak luze-luzea lurrerat dilindan!* (J. P. Arbelbide); *Gogoetan ari da, kadiran jarririk, zangoa luze-luzea, ohartu gabe minutuen orratza itzultzen ari dela* (Bidegain).

Adberbioak gehientasun mailan dagoelarik anitzetan hartzen du mugatzailea: *Goraka begiratu du, hurrena zorura, eta hurrenago goraka* (Zubizarreta); *Eta bentariak [...] ahaleginak egin zituen egin, ahal zuen ongiena afaria antolatzen* (Ezkiaga); *Horretarako ezinbestekoak dira, aurrena, norberaren apaltasuna, hurrena adiskideen iritziak eta, azkena, kritikoen iruzkinak, baina hirurak ala hirurak hain dira urriak...* (Zubizarreta). Horiekin batera -ik daramatenak ere aski arruntak dira: *Aurren-aurrenik, garbitu egin behar!* (Jon Muñoz); *Azkenik, urruneko gauzak gerturatu zaizkigu bat-batean* (Salaburu). Aldiz, *hurrenik* adberbioak ez du ia lekukotasunik egungo testu idatzietan, eta tradizioan Mirandek, Erkiagak, Orixek eta Lizardik erabili dute.

Edo artikulurik gabe ere agertzen da inoiz: *Ahal den azkarren etxera karta eskribitzea...* (Tx. Garmendia).

#### 22.2.4.6. Adberbio gisa erabilitako hitz multzoak

Aipatu behar dira, azkenik, nahitaez hitz elkartua, hau da, hitz berri eta bakarra, osatzen duten eta adberbio gisa erabiltzen diren hitz multzoak. Batzuk tinkoak eta itxiak dira: *gutxi gorabehera, noizik behin, bat-batean, behinik behin, batez ere, bide batez, lehenbailehen, lehenengo eta behin* eta abar.

Beste batzuk, berriz, irekiak dira, hots, esaeraren osagai bat aldagarria dute: *zenbat bider?, bi bider, hamaika bider, hainbat bider, nire kasa, zure kasa* eta abar.

## 22.3. Adberbioen sailkapen semantikoa (I)

### 22.3.1. Sailkapen mota asko

Sailkapen semantikoak egiten hasten garelarik, sailkapen bat baino gehiago proposa daiteke, anitzetan sail semantikoen mugak ez baitira batere argiak, eta irizpideak elkarren artean gurutzatzen baitira. Hemen hizkuntzak deskribatzeko erabiltzen diren gramatiketan proposatu izan direnez baliatuko gara. Adberbio guztiek osatzen dute nolabait aditzak ematen duen informazioa, baina ez denek eduki mota bera erantsiz: batzuek noiz-nongoaren gaineko informazioa ematen dute, beste batzuek modua, maila edo beste zirkunstantziaren baten erreferentzia ematen dute. Eta badira hiztunak esaldiarekiko duen jarrera azaltzen dutenak ere. Denek ez dute, bestalde, jokabide sintaktiko bera aditzarekin.

Adberbioen esanahia kontuan harturik, hiru sail hauek bereiziko ditugu ondoko lerroetan:

- Zirkunstantzia bat adierazten duten adberbioak: batez ere denbora eta leku adberbioak ikusiko ditugu hemen.
- Aditzari nozioren bat eransten dioten adberbioak.
- Hiztunak esaten duenari buruz jarrera bat adierazteko erabiltzen diren adberbioak.

### 22.3.2. Zirkunstantzia, nozioa, jarrera...

**22.3.2a** Adberbio batzuek zirkunstantzia bat adierazten dute, nondik norako zerbait, noiz, non... gertatzen den markoa ezartzen dute: *Giltzak galdu zaizkit... hemen; Autoa erosi nuen... atzo*. Holakoak dira: *atzo, gaur, hemen, bihar, etzi, aurten, goizik, berant*, eta horien gisakoak.

Leku eta denbora markatzen duten adberbio hauei maiz eransten zaie ondotik aposizio bat, esanahia indartu edo zehatzagotu egiten duena: *hor goian, bart arratsean, hemen berean, hor bertan, han nonbait, lehen garai batean* eta abar.

**22.3.2b** Beste adberbio batzuek aditzari nozioren bat eransten diote, modua edo maila (zenbatekoa) adierazten dutenak. Horiek lotura estuago adierazten dute aditzarekin, aditzari berari, nolabait esateko, laguntzen baitiote: *Mikel benetan mintzatu zen; Ama oso haserretu da; Denak ongi iritsi dira* eta abar.

Sail honetakoak dira aditzaren, adjektiboaren edo adberbioaren maila adierazten duten maila adberbioak ere: *aski polita, arras laburra, berandu asko etorri* eta abar.

**22.3.2c** Azkenik, beste adberbio batzuk hiztunak duen jarrera adierazteko erabiltzen ditugu: *agian, beharbada, itxuraz, nonbait...*

Sarritan, zernahi gisaz, moduzko adberbioa perpausetik kanpora bezala gertatzen da, perpaus osoaren modifikatzaile, eta hiztunak esaldiari buruz duen jarrera agertzen du: *Zoritxarrez, langabezia handituz doa*. Kasu hauetan, askotan, adberbioa eten edo pausa batez bereizten da esalditik.

**22.3.2d** Jakina, ez dira horiek egin daitezkeen sailkapen bakarrak. Bestelako irizpide batzuk hartuko bagenitu, sailkapena ere desberdina izango litzateke. Hori dela eta, galdetzaileak har ditzakegu batetik (*noiz, nola, zenbat...*), erakusleak (*hemen, hor, han, honela, hain...*), zehaztugabeak (*edonon, nolabait, noiz-nahi...*), esate baterako. Ez dirudi, hala ere, irizpideak nahasian erabiltzea egokia denik. Hori dela eta, sailkapen semantiko ohikoagoa izango dugu kontuan, eta horretan egokituko ditugu adberbioak. Horrek esan nahi du *noiz*, adibidez, galdetzailea izanik ere, denbora adberbioetan agertuko dela, eta *non*, berriz, leku adberbioetan. Segidan ikusiko dira, hortaz, adberbio mota hauek:

- Denbora adberbioak (§ 22.4)
- Leku adberbioak (§ 22.5)
- Modu adberbioak (§ 22.6)
- Maila adberbioak (§ 22.7)
- Iritzi adberbioak (§ 22.8)
- Bestelakoak (§ 22.9)

## 22.4. Adberbioen sailkapen semantikoa (II): Denbora adberbioak

### 22.4.1. Zer diren denbora adberbioak: *Noiz*, oinarritzko galdera

**22.4.1a** Denbora adberbioei dagokien atal honen laburpena: *Noiz* galdetzailerari erantzuten diote adberbio hauek. *Noiz* galdetzailerari, eta honen gainean eraikitako postposizioei: *noiztik*, *noiz arte*... Adberbio horiek guztiak hiru ardatz semantikotan artikulatzen dira: orain, egun, aurten. Bakoitzean beste hainbeste adberbio biltzen dira: *orain-lehen*, *gaur-atzo*, *aurten-iaz*... Batzuek maiztasuna adierazten dute: *egunero*. Iraupena beste batzuek: *luzaro*. Eta bada beste adberbio anitz eskema horretan kokatzeko lana ematen dutenak. Horregatik aparteko sail batean aipatuko dira: *sekula*, *agudo* eta abar.

Denbora adberbio batzuek atzizki indargarriak har ditzakete: *oraintxe*. Esan dezagun ere hitz batzuek, duten esanahiagatik, erabilera adberbiala dutela maiz aski: *aste*, *ordu*, *egun* eta abar. Horiek guztiak aztertuko dira ondoko lefroetan.

**22.4.1b** Denbora adberbio galdetzaile oinarritzkoa *noiz* da (aldaerak, historian zehar: *nos*, *nox*, *noix*, *noz*, *nui*...). Baditu lekukotasunak hizkera eta garai guztietan. Galdera zuzenean (*noiz egingo du?*) eta zeharkakoetan (*ez dakigu [noiz egingo duen]*) erabiltzen da. Mendeko perpausaren sarrera gisa ere erabili izan da tradizioan *noiz* adberbioa: *Ezen noiz bainai*z inpotent, orduan *naiz boteretsu* (Leizarraga). Batzuetan erlatibozko adberbioa da: *Aitzindari Sanatuaren sortzeari*, *noiz hasten baita agertzen Jesukristoren ogia* (Belapeire). Tradizioan ‘noizbait’ adierazi nahi duela ere aurki dezakegu: *Hobe da noiz, ezen ez inoiz* (Larramendi). Substantibatua ere erabil daiteke (*noizaldi* esan nahi duela), baina orduan ez da adberbioa: *Ikas bezate ez dela inoiz esaten noizik ez denean* (Orixe).

Postposizioak erantsirik *noiztik/noizdanik*, *noiz arte*, *noizdaino*, *noizko*... sortzen dira. Zenbait esaeratan ere ageri da beste postposizio batzuekin, nahiz halakoetan ez den galdetzailea: *noizean behin*, *noiztik noizera*, *noizean noiz*,

*noiz(e)tik behin...: Noizean behin gibelerat behatzen dugu* (J. Etxepare); *Oroitu, oroitu noizean noiz, eta erran: [...]* (Lizarraga); *Noizetik behin beha zagozkigu, bihotzean har* (Mirande).

EGLU-I liburukian *noizero* ere aipatzen da, baina guk ez dugu lekukorik aurkitu.

**22.4.1c** Galdetzailean oinarriturik egiten dira beste adberbio elkartu hauek: *edonoiz, noiznahi, noizbait, inoiz...* Beste atal batean aipatzen dira (§ 22.2.3.2).

## 22.4.2. Denbora adberbioak eta postposizioak

**22.4.2a** *Noiz* galdetzailearen erantzun posibleak *atzo, gaur, orain...* dira. Oinarrizko denbora adberbio horiek sintaktikoki inesiboan daudela onartuko dugu. Leku postposizio marka *-n* da: *karrikan, etxean, ilargian*. Baina ablatiboaren marka hartzen ahal dute denbora adberbioek: *gaurtik, bihartik* eta abar. Inesiboari adlatibo marka ere gaineratzen ahal zaio: *etxera, karrikara...* (Hori argiago ikusten da “bizidun”ekin, hor inesiboa oinarri harturik sortzen baitira ablatiboa eta adlatiboa: *alabagan, alabagana, alabagandik*. Gauza bera *hemen, hemendik* eta abar).

Baina denbora adberbioek ez dute hain erraz hartzen *-ra* marka. Batzuetan ezinezkoa da (*\*gaurrera*), eta *-ko* hartu behar dute, edo *arte* postposizio askea: *gaurko*, edo *gaur arte*. Hortaz, paralelismoa, leku eta denborazko adberbioen artean hau da: *mendian, menditik, mendira* batetik, eta *gaur, gaurtik, gaurko* (edo *gaur arte...* baina ez *\*gaurrera*), bestetik. Tradizioan Arrese Beitiak badu adibideren bat *etzira* hitza erabiliz (*etziko*). Badira egungo idazkietan ere adibide batzuk, oso gutxi, baina gehienetan *etzira arte* formula erabiltzen dute, hots, ez bakarrik adlatibo marka (*-ra*) baizik adlatibo marka eta *arte* postposizioa.

**22.4.2b** Iparraldean *-danik* erabiltzen da ablatiboa adierazteko: *San Bernardoren amak [...]* bere haurrak [...] *Jesus gure jaunari ofrezitzen zizkion, eta orduan danik haiek maite zituen errespetuarekin, gauza sakratua [...]* bezala (Pouvreau); *Gazte danik hasi zen Pierre Lhande literaturari ohartzen* (Lafitte);

*Orok ikasi behar beren ofizioa, eta ttipi danik* (J. B. Etxepare); *Nahiz eta legetarik urrundu zaretan eta ez dituzuen begiratu zuen arbasoen egunak danik* (Duvoisin); *Jaunaren izena lauda bedi orain danik betiere artio* (Artxu).

Hori dela eta, *gaur danik, bihar danik, orai danik, beti danik, etzi danik...* bezalakoak arruntak dira Iparraldeko tradizioan (*gaurdanik, bihardanik, etzidanik* idazten ditugu egun), baina inesiboan dauden postposizio sintagmak ere aurkituko ditugu lehen askatasun handiago zuen *-danik* honekin: *Munduaren hastean danik haren obrak akabatu izan baziren ere* (Leizarraga); *Eta bere amaren sabelean-danik puritate orijinalean Jainkoari konsakratu zaiola makulurik batere gabe* (Leizarraga); *Zeinek bereizi izan bainau neure amaren sabelean danik eta deitu izan bainau bere graziaz* (Haraneder). Eredutxo honek ez du lekukotasunik gaurko idazleen artean.

**22.4.2c** Adlatiboaren *-ra* ordez, esan bezala, denbora adberbioetan *arte* postposizioa dugu, edo bestela, *-ko* edo *-rako*. Zenbaitetan *-raino* ere. Hala ere, salbuespen bat edo beste ageri da literaturan zenbait lokuziotan, eta *-ra* horrekin egiten da: *Egunetik biharrera luzatu gabe* (Axular); [...] *nola egitekoen geroko uzteak, biharretik biharrera luzatzeak* (Axular); *Orduan dela sendatu bat-batean, gaurretik biharrera* (Hiriart-Urruti); *Gaurtik biharrera, egiteko handi hau uztea, zuhurtzia ote da?* (Duvoisin); *Uste dut badela hor beti gauza bat finkoa: hots, ez direla ohiturak aldatzen gauzetik biharrera* (Xarriton). Adibide guztiak tankera horretakoak dira.

Hor berean, Axularren bigarren adibidean ageri da *geroko uzteak* hori. Kasu horretan berdín balio lezake *gerora/geroko/gerorako uzteak* ere. Arruntan, *-ko* eskatzen du adberbioak (*biharko, etziko, atzoko, gaurko...*): *Gaurkoak ez du biharko balio* (Irigoién); *Garbi ditzatela arropak eta etziko egon daitezela prest* (Borda); *Atzoko egin behar du marrazketako ariketa* (E. Rodríguez) eta abar. Hiztun batzuek joera dute, adberbioa bokalez bukatuz bada, bereizketa egiteko: *Etziko egunkariak eterako omen du; Hori etzi(ra)ko egin behar duzu*. Berdín gertatzen da *beti* adberbioarekin ere: *Beranduenez etzirako burutu nahi dugu hirugarren kanpamenduaren ezartzea* (Montoiá); *Egia esan, herenegunerako espero nuen; atzorako, gehienera jota* (Zaldúa) eta abar. Bereizketa ez da beharrezkoa, *etziko* eta *betiko* izenlagun nahiz adberbio izan baitai-



tezke. Leku adberbioekin, ostera, bereizketa hori egiten da: *honako, horrako, harako* (adberbioak), eta *hemengo, horko, hango* (izenlagunak).

Baina bokalez amaitzen direnekin bada joera, hiztun batzuen artean, *-rako* erabiltzeko:

Ikusi hemen Euskaltzaindiaren 20. araua: “*Betiko* eta honen kideak”, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua.

**22.4.2d** Eta, esan bezala, *-raino*: *Zeren ikusiko da hutsa zure esertokia etzi-raino* (Uriarte); *Eta hartan irakurtu zuen ozenki [...] goizetik eguerdiraino* (Duvoisin); *Egon zen kandelera eguneraino grazia ematen* (Lizarraga). Denbora markatzen badu ere, *eguneraino*, hor, izena da. Adberbioa denean *egundaino* egiten du, berehala ikusiko dugunez, eta izena denean *eguneraino*: *Egundaino zaharrik ez dut ikusi hainbat ahalkekizunik* (Duvoisin), baina *Eta deitua izan zen toki haren izena Galgala, gaurko eguneraino* (Uriarte). *Herenegunekin*, hala ere, zalantzak badira literaturan, *herenegunerako* eta *herenegungo* ageri baitira, bata zein bestea adberbio gisa, *noizko?* galderari erantzun nahi diotela, erabiliak. *Noizdaino* da horien galdetzailea.

### 22.4.3. Denbora adberbioen kokapena

#### 22.4.3.1. Askotariko adberbioak

Asko dira denbora galdetzaile horiei erantzuna ematen dieten adberbioak (batzuetan modu eta denbora adberbioen arteko mugak aski lausoak dira): *agudo, antzina, ardura, arin, aspaldi, atzera, aurten, aurki, aurtemein, azkar, bart, behiala, behin, belu, berandu, berehala, berriki, berriro, berriz, beti, bihar, dagoeneko, egun, egundaino, egundo, etzi, etzidamu, fite, gaur, gaurgero, gero, geurtz, goiz, goizik, harrezkero, herenegun, honezkero, iaz, ja, jada, jadanik, jagoitik, laster, lehen, lehenen, lehenik, lehenbizi, maiz, orain, oraindik, orainik, oraindaino, oraino, orduan, ostera, sarri, sekula* eta abar.

Adberbio horietako askok, nola edo hala, hiru ardatz semantikori egiten diete erreferentzia (unea, eguna, urtea), denboraren iraganean erakusten duten kokapenari dagokionez, eta erreferentzia hori *orain* ('une honetan'), *gaur* ('egun honetan') eta *aurten* ('urte honetan') adberbioek markatzen dute. Horrela, *gero*, *lehen*, *aurtemein*, *berriki*, *behinola*, *aspaldi*, *arestian*, *berehala*, *antzina*, *sarri* ('berekala' esan nahi duela)... *orain* adberbioak ematen duen erreferentziaren inguruan kokatzen dira. Hori da *lehen* multzoa. Bigarren multzokoak (*egun*-en ingurukoak) dira *herenegun*, *atzo*, *bihar*, *etzi*, *etzidamu*, *bart*... guztiak *gaur* (edo *egun*) adberbioaren inguruan egituratzen direnak. Azkenik, *iaz* eta *geurtz* adberbioak *aurten* adberbioaren inguruan kokatzen dira, hirugarren multzoa.

#### 22.4.3.2. *Orain* multzoko adberbioak

**22.4.3.2a** *Orain* multzoa ikusiko dugu lehenik. *Orain* adberbiotik sortzen dira *orainago* konparatiboa (lekukotasun gutxi du tradizioan, eta egungo testuetan aski bakana da), 'orain berriro' esan nahi duela; *oraindaino* eta *oraindino* (*orain arte*), *oraino* eta *orainik/oraindik*. *Orainaldi* izena ere hortik sortzen da, eta horren inesibo adberbializatua, *orainaldian*: *Zenbat hobe zen orainaldian aprobetxatu munduaz* (Kardaberaz).

**22.4.3.2b** *Aspaldi* hitza izena ere izan daiteke, ez bakarrik adberbioa: *Baionetatik eramán galtza gorri politak zuri-zuria eginak ziren aspaldi hartan* (Barbier). Erabilera hedatua izan du, eta *gaur* egun arras arrunta da. Denbora tartea markatzen du hor (OEH). Baina gehiago erabiltzen da adberbio gisa, inolako postposiziorik gabe edo inesiboan guztiz lexikalizaturik: *Aspaldi ohartua naiz etxalde guti dela halako epaitzetan* (Duvoisin); *Letradua izan balitz egin zuen gureak aspaldi* (Mitxelena); *Badakit aspaldian sukulakoz bermatu dituzula zure erranak* (Artxu).

**22.4.3.2c** *Arestian* adberbioa oso erabilia da, baina ez da bizkaierazko testuetan dokumentatzen. Aldaera asko erakusten du historian zehar tradizioko testuetan (*oixtian*, *aistian aixtin*, *aixtean*, *arextean*, *aztin*, *oroxtian*...), baina Larramendiz geroztik *arestian* nagusitzen da gipuzkerazko eta goi-nafarrerazko

idazkietan. *Lot, arestian esan den bezala [...] ondo irten zen* (Lardizabal); *Isaaken jaiotza arestiko gertalditik laster [...]* (Lardizabal); *Kristobal galdezka nuen arestian* (Labaien).

**22.4.3.2d** *Gero* hitza adberbioa da (*gero etorriko da*), baina izen gisa ere erabiltzen da (*geroak esan dezala*), edo postposizio gisa: *ikusiz gero*. *Geroz* eta *geroztik* ere erabiltzen dira, eta instrumentala hartzen duen sintagma gobernatzen dute horiek guztiek: *Hori ezkonduz geroz, ez du balioko lanean lehertuak hartzea* (Larzabal); *Haur ttipiak postatik ekartzen direnaz geroz, ekar daitezke ba mutilak ere* (Larzabal); [...] *ezti hortatik guti bat dastatu dudana z geroztik* (Duvoisin); *Hizketan hasi garenez gero, gauzatxo bat esan nahi nizuke* (Agirre); *Dirua kenduz gero, hura besteko neskatxak badira* (Agirre). Azken adibidea baldintzazkoa ere izan daiteke.

**22.4.3.2e** *Aurtemein* ez da gaur egun gehiegi erabiltzen. Oso lekuko gutxi erakusten ditu gure idazle garaikideen artean. ‘Orain dela gutxi, joan den egunetan...’ esan nahi du, eta “aurten behin”etik dator. Hola erabiltzen dute, gainera, idazle batzuek, baina tradizioan nagusiago dira, idazkerari dagokionez, *aurtemein*, *artemein*, *artomin...* eta holakoak: *Hori dela eta, Urkiolara / etorri nintzen aurtemein* (K. Enbeita); *Heriotza esan nuen aurtemein, frakaso gaur...* (Txillardegi); *Zure zintzotasunak huts eman dit aurtemein eta* (Erkiaga).

**22.4.3.2f** *Lehen* adberbioaren inguruan beste hauek sortu dira eta ez dira denak esanahi berekoak: *lehenago*, konparatiboa; *lehenbizi*, beste ezer baino lehenago; *lehenbizian*, hasieran edo berehala; *lehengoan*, lehengo batean, aurreko aldi batean; *lehenik*, aurrenik; *lehenen*, aurren; *bigarrenik...*

**22.4.3.2g** *Sarri* adberbioak bi esanahi ditu: ‘berehala, gero’, eta ‘askotan’. Hemen lehen adiera interesatzen zaigu. Adiera horrekin erabiltzen da Iparraldean batez ere. Baina goi-nafarrerazko eta gipuzkerazko testu historikoetan ere ageri da. Lazarragak ere erabiltzen du: *Aitak ezkondu ezpanagi, / nerau ni ezkonduko naiz sarri* (Lazarraga); *Sarri jinen dira Manxenekoa bestak* (Larre); *Peril da eroria den edo sarri eroriko den* (Axular). Arrunta da ekialdeko euskalkietan *sarri arte / sarri artio* erabiltzea, horrek *gero arte / gero artio* esan nahi duela.

**22.4.3.2h** *Behinola* hitzak ‘lehen, beste garai batean, halako batean, aspaldi...’ esan nahi du. Hegoaldekoa da, eta Añibarroren idazkietan ageri da lehenbiziko lekukoa. XIX. mendearen erdialdera hasten da hedatzen: *Oraintxe hasten da ipuina. Behinola, orain hemeretziehun urte, [...] San Bartolome [...] Aralarpera etorri omen zen* (Azkue); *Ba omen ziren behinola bi Aita Santu, baten ordezt, bata Erroman eta bestea Avignonen* (Mitxelena).

**22.4.3.2i** *Berriki* adberbioa *berri* adjektibotik sortzen da, eta ‘orain dela gutxi’ esan nahi du. Batez ere Iparraldean erabilia: *Hona, bi aldetarik, gari landa ttipi batzuk, berriki ebakiak* (J. Etxepare).

**22.4.3.2j** *Antzina*, aldiz, (eta dituen aldaera guztiak: *antxina, aintzina, antzina...*) batez ere Hegoaldeko testuetan ageri da, bizkaieraz eta gipuzkeraz. ‘Lehen, aspaldi...’ esan nahi du: *Zuek, bilbotarrok, antzina galdu zenuten asaben hizkera biguna* (Agirre).

### 22.4.3.3. *Egun* multzoko adberbioak

**22.4.3.3a** *Egun* multzokoak dira beste adberbio batzuk. *Egun* izen (*egun ona egin zuen*) eta adberbio (*egun ez da holakorik erabiltzen*) izan daiteke. Adberbio denean *gaur* esan nahi du: *Egun bihar baino gutiago oroitzen zara* (Axular); *Eman diezaguzu guri geren egunerozko ogia, egun eta beti* (Ultzamako katixima); *O, gaur eguneko jakintza!* (Kirikiño); *Gehiegikeria iruditzen zitzaidan gaur egun ere orduko paper askatzailea joka zezakeela defenditzea* (Goikoetxea eta Egiguren). Askotan *egun* hutsaren ordezt *gaur egun* erabili izan da tradizioan. Iparraldeko idazleek *egun* erabili dute gehiago, eta Hegoaldekoek maizago *gaur egun*, hori da joera nagusia, baina ez da hori ulertu behar zuruntasun itxian, mota guztietako adibideak ikusten ahal baitira. Gaurko testuetan ere mantentzen da joera hori bera.

**22.4.3.3b** *Egun* adberbiotik sortzen da *egundo*, eta ezezko inguruneetan erabiltzen da, batez ere bizkaiera-gipuzkeraz: *Ez dizu berak egundo ezer esan?* (Agirre), ‘inoiz ere ez’ esan nahi du. *Egunero* ere *egun*-etik sortzen da, baita

*egunean-egunean, egunez egun, egunetik egunera, egungo egunean* esarak ere. Eta *egundaino*.

**22.4.3.3c** *Egundaino* (eta dituen aldaerak: *egundano, egundeino, aundaino, eundeino, igundaino*) Iparraldeko tradiziokoa da, batez ere, eta guztiz lexikalizatua dago. ‘Gaur arte/inoiz ere’ edo ‘baten batean/noizbait’ esan nahi du: *Ez da egundaino gaizki izan* (Lafitte); *Egundaino izan zuen zintzurrik leunenaren jabe gelditu zen* (Barbier).

**22.4.3.3d** *Gaurgero* eta *honezkero* antzekoak dira esanahiari dagokionez, nahiz euskalkien arabera bata edo bestea erabiltzen den: *Gaurgero* (*gaurgoro, gargero, gargoro, gargioro...*) Iparraldekoa da jatorriz, eta xx. mendean Hegoaldeko testuetan hasten da agertzen: *Gaurgero etorri izanen da* (Izeta); *Gaurgero hila egongo da* (K. Zabala).

Gaur egun bada joera *gaurgero, honezkero* eta *dagoeneko* nahaste erabiltzeko. Baina tradizioan ikusten da hiruren artean *dagoeneko* adberbioak markatzen duela nolabait segurtasuna: *Hori, urte haietan, dagoeneko aldarrikatua zuten Altubek, Mokoroak [...]* (Mitxelena. ‘Seguru da Altubek aldarrikatu zuela’). *Honezkero* adberbioak, ordea, zalantza puntu bat sortzen du: *Ez ote zaio honezkero haserrea igaro?* (Altzaga. ‘Ez dakigu haserrea igaro zaion’). Beste batzuetan ez: *Honezkero badu beste jabe bat* (Soroa). Ordea, *dagoeneko* adberbioak badu joera segurtasuna markatzeko: *Gauerdia da dagoeneko* (Mendiburu). Tradizioko testuetan batzuetan zalantzak sortzen badira, erabilerari dagokionez, gaur egun nahasiago daude gauzak.

*Harrezkero* ere sail honetakoa da, eta ‘ordutik aurrera, geroztik’ esan nahi du. Hegoaldean erabilia da: *Haren oroitzapenak alaitu omen zion harrezkero bizia* (Mitxelena).

**22.4.3.3e** Multzo honetakoak dira *etzi* eta *etzidamu* ere. *Etzi* hizkera eta garai guztietan ageri da, eta bihar pasatutako egunari, zentzu figuratua badu ere, egiten dio erreferentzia. *Bihar edo etzi hilko naiz* (Elorriaga); *Gaur txiki, bihar gazte sasoiko eta etzi buru makurra* (Insausti). *Bihardamu* ere erabili izan da, *etzi* esan nahi duela. Eta *etzidamu* deitzen da etzi ondoko eguna, etzikoaren ondorengoa alegia: *Varsovian hilen naiz bihar edo etzi edo etzidamu* (Jimenez).

#### 22.4.3.4. *Aurten multzoko adberbioak*

Hirugarren multzoa *aurten* adberbioaren inguruan kokatzen da. *Iaz* eta *geurtz* dira sail honetakoak. *Iaz* ('joan den urtean') Etxeberri Ziburukoak, Pouvreaux, Haranederrek eta Iparraldeko gainerako idazleek erabiltzen dute. Gipuzkeraz eta bizkaieraz idatzi testuetan ere ageri da, bizkaieraz berriagoa bada ere (XIX. mende amaierakoa da): *Iaz hitzeman zenuten* (Larre).

*Geurtz* adberbioak *datarren / heldu den urtean* esan nahi du: *Iragan urtea deitzen da "iaz", oraingoa "aurten" eta heldu dena "geurtz"* (Etxeberri Ziburukoak). Ez da hain erabilia izan, eta Iparraldeko testuetan aurkitzen da. Gaur egun ez du ia lekukotasunik idazleen artean (bat aurkitu dugu): *Jendea dantzari hasten da eta gero berezitzen, oportunitate eta beharren arabera, aurten hau eta geurtz beste zerbaite* (Luku). Prentsa idatzian ere erabili izan da zerbaite.

#### 22.4.4. *Maiztasuna adierazten duten adberbioak*

**22.4.4a** Denbora adberbio batzuk *maiztasuna* markatzeko erabiltzen ditugu: *behin, maiz (maiz aski), ardura, usu, sarri, etengabe, beti, inoiz (= noizbait), inoiz ez, sarri, sekula (= beti, baiezko perpausetan), sekula ez...* Ikusten denez, horietako batzuek esanahia aldatzen dute, nolakoa den perpausa, baiezkoa edo ezezkoa: *Entzun dut inoiz nik ipuin hori, eta barre onik egin ere bai berori entzunik* (Zamarripa); *Horiek egiten dutena ez da inoiz mugitua izango* (Uriarte). Ber gauza *sekula* adberbioarekin ere: *Sekula oroitzen naiz aldi bateko istorioaz* (Etxebarne); *Zu zerbitzatzeko ez zait faltako sekula borondaterik* (Lazarraga). Lehenbizikoan 'beti' esan nahi du, eta ezezkoan, ostera, 'inoiz ere ez'. Baldintzazkoetan 'noizbait' esan nahi du: *Sekula Euskal Herrian krikatzen bazara pasan...* (Xalbador).

**22.4.4b** *Sarri* adberbioak, lehen esan dugu, 'berehala, gero', eta 'askotan' esan nahi du. Bigarren esanahiak markatzen du maiztasuna: *Sarri asko ahotan darabiltzagun "gu" eta "gutarrak"* (Mitxelena).

**22.4.4c** *Ardura* ere euskaldun gehienek izen gisa erabiltzen dute, ‘erantzukizuna, kezka, interesa...’ adierazi nahi duela: *Gure artean, berriz, gauza horietako ardura joan den mendean sortu zen* (Mixelena); *Ez dakit, Ebroko Ur konfederazioak baitu lan horren ardura* (Elizondo); *Ardura berezia hartu zuen botoiak zuzen lotzen, bakoitza bere xuloan* (Epaltza). Baina Iparraldean adberbio gisa ere aski erabilia da ‘maiz’, ‘askotan’... esan nahi duela: *Bazterrenaren ederrak osagarria emaiten zion, bai eta liburuek hain ardura kentzen duten bihotzeko bakea* (J. Etxepare); *Ardura ikusten da munduan gizona / eta berdin andrea, kaiolatik joana* (Xalbador); *Hauek ardura oihan horretan zebiltzan* (Etxebarne); *Orok dakiguna da hori; eta bizkitartean egia hori hobekien jakin behar genukeenek ardura ahanzten dugu* (X. Arbelbide).

**22.4.4d** *Maiz, usu, etengabe...* adberbioak ere sail honetakoak dira. Azkene-  
kotik hasteko, esan dezagun *etengabe* Hegoaldeko tradizioan bakarrik ageri dela, eta xx. mendekoa dela. Adjektiboa izan daiteke: *Nornahik aski harrigarri deritzo [euskararen] iraute etengabe horri* (Mixelena). Adberbio gisa *etengabe*an, *etengabeki* eta *etengaberik* ere ageri dira haren ondoan: *Etengabe zegoen mutil haiengatik zer esana* (Agirre); *Elur eta elur; elurra, etengabean* (Lizardi); *Egun guztian eten barik zarataka* (F. Bilbao); *Holaxe dihardu etengabeki parafrasetzailleak bere azalpenetan* (Kintana). Gaurko literaturan hedatua da.

*Maiz* arrunta da gipuzkeraz, nafarreraz eta Iparraldean (salbu zubereraz). Bizkaieraz aise gutxiago. ‘Askotan’ esan nahi du: *Maiz behar da konfesatu* (Axular). Konparazio atzizkiak har ditzake (*maizena, maizegi*): *Zure eskea maiza da, maizegi* (Maurice Harriet); *Baina ikasle hauek elkarren artean maizegi erdaraz dihardute* (Salaburu). Beste adberbio batzuk, edo atzizki batzuk ere har ditzake inguruan, ñabardurak ezarriz esanahiari: *maiz asko, maiz aski, maizkara, maizenik, maiztxe, maiztxeago* eta abar.

*Usu* Iparraldekoa eta goi-nafarrerakoa da. xx. mendean hasten dira Hegoaldeko idazle batzuk ere erabiltzen. Adjektiboa izan daiteke: *Bere garaian usuago eta arruntagoa zelako* (Mixelena). Adberbioa delarik ‘anitz aldiz, askotan...’, esan nahi du: *Urrundu nintzen herri alderat, itzuliz usu begiak* (J. B. Elizanburu); *Euskaraz usuegi idatzi ez zuelarik* (Mixelena).



**22.4.4e** Maiztasuna adierazten dute *anitzetan*, *zenbaitetan*, *batzuetan*, *gehienetan*, *gutxitan*, *sarritan*, *bi aldiz*, *lau aldiz*... gisako sintagma adberbialek.

**22.4.4f** *Bide* izenetik eratorritako *bider* erabili izan da Hegoaldeko tradizioan. Zenbatzaileekin: *bi bider*, *hiru bider*..., *hainbeste bider*, *zenbat bider* eta abar. Aritmetikan ere bai: *bi bider lau berdin zortzi* ( $2 \times 4 = 8$ ). Batzuetan *-ago* konparazio atzizkia har dezake ondoan duen adjektiboak: *Bi bider gehiago behar genuen* (Zaitegi); *Zeruak eta lurrak baino mila bider ederrago dena* (J. J. Mogel).

**22.4.4g** Atzizki bidez eratorritako eta denbora adierazten duten adberbioak ere badira: *urteka*, *igandeka*, *asteka*, *igandero*, *urtero*, *orduero* eta abar.

### 22.4.5. Iraupena markatzen duten adberbioak

**22.4.5a** Beste denbora adberbio batzuek iraupena hartzen dute kontuan. Hori gertatzen da *luzaro* eta *laburzki* adberbioekin, eta *luze* edo *labur* adberbio gisa erabili adjektiboekin: *Gertakariaz luzaro mintzatzerik ez dago* (Mitxelena); *Hizkuntzaz luzeegi mintzatu ez bada ere* (Mitxelena); *Azkenik, laburzki, liburuaren zergatikoa eta zertarakoa azaltzen ditu* (Mitxelena); *Labur, nahi baduzue, baina sarkor eta zinez!* (Hiriart-Urruti). Sail honetakoa da *astira* forma adberbializatua ere: *Gero ikusiko dut etxean, astira*.

**22.4.5b** *Hiru egun iraun zuen* esaten den tokian, *Asko iraun zuen* ere aurkituko dugu: *Zorioneko bizitza zen hau, baina gutxi iraun zuen* (Agirre Asteasukoa); *Eta hau asko ibilia zen* (Erkiaga); *Agudo eramango nau eskribau jaunak nire egitekoa pixka bat luzatzen badu* (Soroa); *Atzenean behartzen du bekatuan erroi den kristaua konfesatzera asko-asko luzatu gabe* (Agirre Asteasukoa).

### 22.4.6. Bestelako denbora adberbioak

**22.4.6a** *Jada* (*ja*, *jadanik*) adberbioak ez du sobera lekukotasun tradizio idatzian (*dagoeneko* adieran, *ja* horrek *kasik* ere adierazten baitu), eta Iparraldeko testuetan ageri da batez ere: *Sei orenak dira jada* (Barbier). Gaurko testuetan



gehiago erabiltzen da: *Baditu jadanik egun batzuk Tourvel andrea eta biok akort garela geure sendimenduez* (Aristi); *Momentu bat iritsi zen damu izan zena lehenbiziko deia hartu ez zuelako, baina berandu zen jada erantzuteko ere* (Saizarbitoria). Zer den adierazi nahi dena, *ziplo* eta *agudo* adberbioak moduzkoak ere izan daitezke.

**22.4.6b** Tradizioan lekukotasun gutxi dituen *ziplo* adberbioak ‘bat-batean’ adierazi nahi du: *Ziplo hilda geratu zen* (Azkue). Gaurko testuetan badira adibideak: *Laster, ordea, automobila geratu zitzairen, ziplo geratu ere* (Iturbide); *Lurrean ziplo amaituko duzu* (K. Agirre).

**22.4.6c** *Jagoitik* eta *aurrerantzean* adberbioek ‘hemendik aurrera’ adierazi nahi dute. Lehenbizikoa Iparraldean erabiltzen da, behe-nafarreraz eta zubere-raz, eta bigarrena, gaur egun hedatuagoa bada ere, batez ere bizkaierazko testuetan ageri da, baina xx. mendean gipuzkerazko idazle batzuek ere erabiltzen dute: *Nik ez dakit zer egin aurrerantzean* (Etxeita); *Ez dezagun Jaungoikoaren izena jagoitik aipa ere, beldurrekin eta humilitatearekin baizen* (Leizarraga). Egungo testuetan ez du ia lekurik *jagoitik* adberbioak, baina *aurrerantzean* gehiago erabiltzen da.

**22.4.6d** *Atzera* adberbioa batez ere Hegoaldean erabili izan da, ‘berriz’ esan nahi duela, Iparraldean Mirandek ere erabili duen arren. Jakina, *atze* izenak hartzen duen kasu adlatiboa ere izan daiteke.

*Ostera* bizkaieraz ageri da, eta ‘berriz ere’ edo ‘gainera’ esan nahi du: *Bekatuan osteraz ez jausteko erremedioak* (J. J. Mogel); *Hitz horiek entzunda sartu zen osteraz berriz ere bere kotxean* (I. Alkain eta A. Zavala); *Ontzietako bat eratu zion eta osteraz Espainiarako ere gomendio karta edo gutunak eman zizkion* (J. I. Arana).

**22.4.6e** *Agudo* adberbioa ere sail honetakoa da. Kategoriari dagokionez, hitz hori adjektiboa izan daiteke, eta hala erabili izan da tradizioan: *Gizon beroa eta agudoa gauza guzietara da preparatua eta adelatua* (Pouvreau). Literatura tradizioan *aguro*, *abudo*, *aburo*, *auburo*, *auro*... bezalako aldaerak izan ditu, eta adberbioa denean ‘laster, berehala’ adierazten du: *Agudo, etorri agudo!* (K. Izagirre); *Agudo galdu nituen begitik* (Epaltza).

**22.4.6f** *Azkar, arin, laster...* adjektiboak dira, baina adberbio gisa ere erabiltzen dira. *Azkar*, batez ere gipuzkeraz erabiltzen da, ‘berekala’ esan nahi duela: *Beha zein laster doan karrika behera* (Oxobi); *Leihora jo zuen arin* (Mitxelena); *Hartan aurrera abiatuko naiz azkar* (Txillardegia). *Fite* ere multzo honeetakoa da, esanahiari dagokionez, Iparraldean eta Nafarroan erabilia, baina beti adberbioa: *Handik goiti urteak fiteago pasatu zaizkit* (Etxebarne).

Adberbio horiek, denborazkoak ez ezik, moduzkoak ere izan daitezke: *arin, azkar...* Izan ere, batzuetan denbora eta modua uztartzen dira, ikusten denez.

*Mantso* (*malto*, *mantxo*) eta *berant* (edo *berandu*) ere adjektiboak dira, baina adberbio gisa ere erabiltzen ditugu, eta aurrekoen kontrakoa esan nahi dute: *Haiek zagiak gorde eta aldi batean mantxo gora* (Azpiroz); *Mundu honetan ez du balio / akordatzek berandu* (Uztapide). Bizkaieraz *belu* erabiltzen da esanahi hori duela: *Belu agertu ziren hauek damutasun hauek* (Etxeita).

**22.4.6g** *Berri* adjektibotik sortzen dira *berriz*, *berriro* eta *berriki*. Formari dagokionez, *berriki* eta *berriro* antzekoak dira, *berri* adjektiboak *-ki* edo *-ro* atzizkia hartzen duela. Baina esanahiez ez dira berdinak: ‘orain dela gutxi’ eta ‘beste behin’ esan nahi dute, hurrenez hurren. Alde horretatik, *berriro* eta *berriz* dira antzeko.

**22.4.6h** *Goiz* izena adberbio gisa ere erabiltzen da: *Baina hurrengo goizean, erietxera goiz joan, eta jangelan aurkitu nuen* (Olarra). Adibide horretan ikusten dira, hurrenez hurren, bi erabilerak: *goizean* (izena) eta *goiz* (adberbio gisa).

**22.4.6i** *Egundo*, *sekula* eta *inoiz* adberbioak berez baiezko ez diren perpauzetan erabiltzen dira, *inor* eta antzekoak bezala: *Ez da egundo etorri; Ikusi al duzu sekula holakorik?; Joaten bazara inoiz...* Beste biak ez bezala, ordea, *inoiz* baiezkoetan ere erabiltzen da gipuzkeraz mendebaldeko testuetan. Goihe txek ere erabiltzen du holako perpauzetan: *Palaziotan banabilk, mahainean jartzen natzaik, inoiz zaikenean idi bat ofrezitzen, dastatzen hartarik diat hitaz lehen; Nitaz kestione, egia bada ere, zikiro bat edo bertze, gertatu dakiken inoiz irestea*. Eta hortik *inoizka* eratorria, eta *inoiz edo behin*, *inoiz edo beste*,

*inoiz edo berriz* esaerak: *Inoizka, gogo begiak olerkariari lausotzen ote zaizkion nago* (Aitzol).

**22.4.6j** Ikusi dugu denborazko adberbioen arteko zenbaitek *noiz* galdetzailerak hartzen dituen kasu markak eta postposizioak, denak edo batzuk, har ditzaketela: *geroko, gero arte, gaurtik/gaurdanik, gaurdaino, betidanik, betiko...* Bestelako atzizkiak ere hartzen ditu zenbaitek: *sarritan, geroztik, gaurgeroz...* Zenbait kasutan, dena den, badirudi atzizkiak ez diola esanahi berririk eransten forma soilari: *sarri(tan), sekula(n), aspaldi(an), berehala(koan)*. Orobat esan daiteke, baita ere, adberbio hizkia hartzen duten zenbait adberbiori dagokionez ere: *beti(ro), goiz(ik)*... Adberbioek kasu marka hauek hartzen dituztenean ez dira betetzen izenkiekin agintzen duten arauak: *egun* izenetik *eguneko* eta *egunetik* sortzen dira, baina *egun* adberbiotik *egungo* eta *egundik*. *Gailur* hitzak *gailurretik* egiten du, baina *gaur* adberbioak *gaurtik*.

**22.4.6k** Adberbio batzuek hurrenkera markatzen dute: *lehenik, bigarrenik, azkenik...*

**22.4.6l** Eta, behin eta berriz ikusi dugun gisan, partitiboan ageri direnak, edo *-ta* daramatenak: *ikusirik, eginik, ikusita, eginda...* Horiek guztiak adberbio gisa erabiltzen ditugu, esanahiari dagokionez.

**22.4.6m** Badira denbora adberbio gehiago ere. Horiek modu berezian biltzen dira 35. kapituluan.

### 22.4.7. Denbora adberbioen indargarriak eta esamoldeak

**22.4.7a** Adberbio batzuek atzizki indargarri eta adierazkorak ere har ditzakete: *berehalaxe, orduantxe, orduxetik, orduxerarte, oraintxe, oraindixek, oraintxe arte, oraintsu, maiztxo, beranduxko...* Gradu markak edo maila adberbioak ere hartzen dituzte: *beranduago, beranduegi, beranduen, oso berandu, ondo berandu* (gutxi erabilia), *berandu asko* (testuetan gutxi erabilia); beste maila batean, *bai* erabiltzen da *orduan*-en ondoren, *noiz bai* nabarmentzeko: *orduan bai* (§ 41.4.2d). Gehientasun mailakoek maiz daramate *-a* edo *-ik*: *beranduena,*

*beranduenik*. Beste zenbaitek, aldiz, ez dute horrelakorik onartzen: \**betixe*, \**behinago*, \**oraindik*egi. Batzuek, azkenik, esanahi berezia hartzen dute horrelako forman: *orainago*, orain berriki; *geroenean*, hemendik aurrera edo azkenean.

**22.4.7b** Erabilera adberbiala duten bestelako hitz eta esamolde batzuk ere baditugu euskaraz, aski lexikalizatutzat har daitezkeenak. Gehienetan inesi-boaren edo instrumentalaren marka daramate: *artean*, *bitartean* (*bizkitartean*, *bien bitartean*), *arestian*, *askotan*, *gutxitan*, *batzuetan*, *gehienetan*, *azkenean*, *gaztetan*, *txikitan*, *garaiz*, *tenorez*, *beste orduz*... Ez dute guztiek erabilera eta hedadura bera euskalkiei dagokienez: *Arestian* (*oixtian*, *aixtean*, *aiztian*, *araitian*, *arastian*, *axtean*, *axtion*, *oxtian*...) euskalki guztietan erabiltzen da, tradizioari dagokionez, zubereraz eta bizkaieraz izan ezik. Gaurko idazleen artean arrunta da. *Tenorez* zubereraz ageri da hasieran, XIX. mendean Iparraldeko gainerako hizkeretara hedatzen da, eta Nafarroako testuetan ere ageri da. Gaur egun idazle askok erabiltzen dute: ‘garaiz’ esan nahi du. *Beste orduz* (*bertze orduz*, *bestorduz*, *bertzorduz*) batez ere Iparraldean erabili izan da, eta Hegoaldean Beobidek eta Orixek ere erabiltzen dute: *Erran dezagun bertze orduz Larrunen bazela bizipide bat, orain nihori gogoratzen ez zaiona: betizoen haztea* (Zerbitzari). ‘Aspaldi, beste garai batean’ esan nahi du.

**22.4.7c** Sail honetan sar daitezke artikulua eta guzti erabilera adberbiala duten *aurrena*, *azkena*, eta horien gisakoak. *Artean* postposizio gisa ere erabiltzen da eta, zenbait euskalkitan egiten bada ere, ez da *arte* postposizioarekin nahasi behar: *Bostak arte ez naiz etorriko*; *Bostak artean hemen egon da*.

## 22.4.8. Hitz batzuen denborazko erabilera adberbiala

**22.4.8a** Izen batzuek ere, duten esanahiagatik, erabilera adberbiala dute maiz. Ez du horrek esan nahi adberbio direla, baizik izaeragatik errazago gertatzen dela erabilera hori. Hori gertatzen da *mende*, *gizaldi*, *urte*, *hil*, *aste*, *egun*, *ordu*, *oren*, *gau*, *minutu*, *segundo*, *une* eta horiek bezalakoekin: *Joan den urtean* (= *iaz*); *Zenbait egunez ez dira agertu*; *Ordu erdi bat utzi zuen ukitu gabe*; *Hilabete bat bakarrik iraun zuen han*; *Hamazazpi urte egin genuen*

*han; Orain dela bi aste etorri zen; Hola gertatzen ziren kontu hauek orain dela bi mende.* Jakina, *bost ordu egon da lanean* perpausean, *bost ordu* adberbioa da. Ez du inolako markarik. Aldiz, *joan den urtean* esaten badugu bistan da inesiboan dagoen sintagma bat dugula, baina hori ere, bere osotasunean, adberbio erabilerako sintagmatzat hartu behar dugu. Beraz, multzo honetan markagabeak eta markadunak izango genituzke<sup>7</sup>. Jarri berri dugun adibidean, *bost ordu egon da lanean*, ez da inesibo ez beste markarik ageri. Beste testuinguru batzuetan ere bada joera marka hori galtzeko. Ez gara hemen ari *\*igandea itxita* eta holakoez. Horiek berriak dira. Baina badira beste adibide batzuk lekukotasuna dutenak tradizioan: *Egon zen gau guzia otoitzean* (Larregi); *Gau guzia ez zen otoitzetik baratu* (Laphitz); *Han zeuden urte guzia* (Joanategi). Badirudi hor *gau guzian* eskatzen duela, baina *gau guzia* ageri da.

Halaber, *barru* eta *buruan* ere erabiltzen ditugu holakoetan: *bi egunen buruan, bi ordu barru*. Eta berdin gertatzen da *aurrean, aurretik, aitzinean, aitzinetik, ondoan, ondoren, ondotik, ostean, arte...* postposizioekin ere: *lau urteren ondotik/ondoren; hiru ordu aitzinetik han ginen; hamar egun aurretik; zerbait egin aurrean* eta abar. Horiek guztiak oso erabiliak dira.

**22.4.8b** Hemen sartu beharko genituzke *zori* izenean oinarritzen den *zorian*, eta *hurran* adberbiotik sortzen den eta denbora markatzen duen esaera adberbiala ere (*-tzeko zorian; -tu hurran*): *O, zein estu eta itotzeko zorian nagoen!* (Kardaberaz); *Jaunak orduan itsasora igorri zuen haize handi bat, eta festa gaitza egin zen itsasoan, eta lehertzeko zorian zebilen ontzia* (Duvoisin); *Zeren akabatu hurran da eguna, behehituko da eguzkia [...]* (Axular).

**22.4.8c** Denbora adierazten duten esaera adberbialak osatzen ditugu batzuetan galdetzailerekin: *noiztik hona, noiztik nora, ordutik aurrera, bat-batean, lehenbailehen, noiz edo noiz, noizetik noizera, aldian-aldian, urtean-urtean, urtez urte...* Tokia nahiz denbora adierazten dute beste batzuek: *hemendik goiti, hemendik aurrera, hemendik aitzina...* eta horien gisakoak.

<sup>7</sup> Zalantzak sor daitezke *badira hamar bat urte ez dugula ikusi* eta horren gisako egiturekin. Itxuraz adberbiotik ez oso urrun bada, kasu horretan subjektua da, eta komuntadura egiten du: *badira hamar bat urte ez dela etorri / bada urte bat ez dugula ikusi*.

Badira beste batzuk *behin* osagaia erabiliz osatzen ditugunak: *noizik behin, noizean behin, inoiz edo behin, aldian behin, lantzean behin, behin edo behin, beste behin, astean behin, hamabostean behin, behindanik behin, behin ere* (berez baiezko ez direnetan), *bebingo batean, lehengo eta behin, behin-behinean, behin betiko...*

Badira beste batzuk gehiago ere: *ahal bezain laster/arín/fite/azkar...*

**22.4.8d** Ez gutxitan denbora adberbioek beste postposizio sintagma bat daramate aposizioan. Inoiz adberbioak zabalegi utzi duen denbora-gunea mugatuago adierazteko: *bihar goizean, atzo gauean, bart arratsean, iaz udaberri...* Beste batzuetan, berriz, aurrekoa bera, indartuz edo, errepikatzen duen gehigarria baizik ez da aposizio hori: *orduan bertan, orduan berean, oraintxe bertan, oraintxe bertan, oraintxe berean, behin batean, lehen garai batean, lehen garai haietan...* Eta alderantziz ere gerta daiteke, hau da, adberbio bat izatea aposizioan: *lehengo egunean berandu, goizean goiz, goizean goizik...*

## **22.5. Adberbioen sailkapen semantikoa (III): Leku adberbioak**

### **22.5.1. Zer diren leku adberbioak: *Non*, oinarritzko galdera**

**22.5.1a** Lekuzko adberbioen atal honen laburpena: Lekuzko adberbioek *non* galdetzaileari, eta hortik eratorritakoei (*nondik, nora*) erantzuten diote. Erakusleak ditugu, batetik: *hemen, hor, hementxe, hona...* Indargarria harturik ditugu *bertan, bertatik* eta abar. *Bertan* eta *berean* aldaeren arteko desberdintasunak aztertuko dira. Adberbio elkartuek (*nonbait, inon, edonon, nonahi...*) osatzen dute sail bat.

Badira, jakina, horiez gain bestelako leku adberbioak: *hurbil, urrun, gertutik...* Batzuetan zail izaten da bereiztea adjektiboak diren (adberbio gisa erabiliak) edo adberbioak (batzuetan adjektibo gisa erabiliak). Maila markak onartzen dituzte: *hurbilago, oso hurbil...* Eta esaera adberbialak ere aipatu behar dira: *han-hemen, maldan goiti...*

**22.5.1b** Leku adberbio galdetzailea *non* da. Eta horretatik, kasu markak erantsirik, honako hauek ateratzen dira: *nondik*, *nora*, *noraino*, *norako* destinatiboa (eta *nongo* izenlaguna). Gainerako leku galderak bestelako postposizio sintagmen bidez egiten dira: *zenbat lekutan*, *zeren atzean*...

### 22.5.2. Sintagma erabilienak

**22.5.2a** Goiko galderei erantzuten dieten postposizio sintagma erabilienak honako hauek dira: erakusleekin zerikusia dutenak (*hemen*, *hemendik*, *bertan*...); adberbio zehaztugabe elkartuak (*edonon*, *edonondik* eta abar) eta adberbio gisa erabiltzen ditugun bestelako postposizio sintagmak (*aurrera*, *gora* eta abar). Banan-banan ikusiko ditugu ondoren.

**22.5.2b** Galdetzaile horiek erakusleetan har dezakete erantzuna. Toki adberbioak dira: *hemen*, *hor* eta *han*. Erakusle horiek (berez inesibo ihartuak direnak) bestelako postposizioak har ditzakete: *hemendik*, *hona*, *honantz*, *honaino*, *honako*; *hortik*, *horra*, *horrantz*, *horraino*, *horrako*; *handik*, *hara*, *harantz*, *haraino*, *harako*. *Horra* eta *hara* horiek, harridura perpausetan erabiltzen ditugularik, aurkezpen balioa ere badute: *Horra! Horra!*, *Gure Olentzero* (herrikoia); *Hara zer zioen* (Larzabal); *Horra zer onak dituen kanpotik* (Duvoisin). Zerrenda horretan ikusten ditugu *honako*, *horrako* eta *harako*. Ez dira nahasi behar *hemengo*, *horko* eta *hango* izenlagunekin. Denbora markatzen duten adberbioekin anbiguotasuna sortzen da: *Biharko egunkaria betan kontsulta daitete*; *Hori biharko egin behar duzu*. Lehenbiziko adibidean izenlaguna da, eta adberbioa bigarrenean. Baina forma bera dugu: *biharko*. Ber gauza gertatzen da *gaurko* esaten badugu ere: *Gaurko berrietan ikusi dugu*; *Gaurko aldarrikatua zuten independentzia*. Ez da forma aldatzen.

### 22.5.3. Forma indartuak

**22.5.3a** Forma indartuak ere eskura ditugu. Forma horiek *-(t)xe* atzizkia edo *ber-* aurrizkia erantsirik sortzen dira: *hementxe*, *hemendixek/hementxetik*,

*honaxe; hortxe, hortixek/hortxetik, horraxe; hantxe, handixek/hantxetik, haraxe.* Horiek batetik. Bestetik: *berton/bertan, bertotik/bertatik, bertora/bertara* eta abar.

Euskaltzaindiak erakusle soilen formari buruzko erabakia hartu zuen bere garaian: *hona*, eta ez *honera*, adibidez. Baina indartuei buruz ez du erabakirik hartu. Hemen forma erabilienak jarri ditugu (*hementxen, hementxet, hortxet...* ez ditugu kontuan izan). Baina, egia esateko, testu idatzietan ez da horrenbeste lekuko ageri ere.

**22.5.3b** Lekua zein denbora adierazteko erabiltzen diren *ber-* formei dago kienez, esan dezagun *berton/bertan* ditugula, batetik, eta *bereon/berean*, bestetik, euskalkien arabera bereziak. Baina ez dute horiek erabilera bera. *Berton/bertan* batez ere mendebaldeko testuetan ageri dira eta oso forma zaharrak dira. Gaur egun oso hedatuak dira, eta *bertan* forma indartuak lekua jan dio pixkanaka *han* forma soilari. Maizago ageri da testuetan. *Bereon* ez da horrenbeste ageri. Tradizioan baditu agerraldi batzuk (Orixe, Axular, Mendiburu, Iraizoz, Zabala), baina bakanak dira, eta gaurko testuetan ez da ageri. *Berean* maizago erabili izan da Iparraldean, baina mendebaldeko testu batzuetan ere ageri da: *Oraintxe berean iragan dituk hemendik* (Larzabal); *Oraintxe berton goazen, bada, Betleemera* (E. Bustintza).

Baina desberdintasuna ez da bakarrik euskalki kontua. Hasteko, forma horiek guztiak aposizio gisa erabiltzen dira: *hemen berean/bereon/bertan/berton*. Aurretik adberbio bat izan dezakete (*hemen*), edo postposizio sintagma bat (*etxean*). Baina horretaz gain kontua da *bertan/berton* laxo ere erabil daitezkeela, nahiz aposizioan baina maiztasun gutxiagorekin: *Itsuaeren parera zeneko aditu zuen Jesusek haren hots hitza: gelditu zen bertan eta [...]* (Mendiburu); *Jaunarena da lurra, eta bertan dagoen guztia* (Uriarte); *Eta bertan eror zedin haren gainera laino eta ilunbe* (Leizarraga). Baina testuinguru horretan ezin da *berean* erabili, beti zerbait behar du aurretik, aposizioan edo, non ez den determinatzaile hutsa (*etxe berean*).

**22.5.3c** Jakina, *bertan* horrek bestelako postposizioak ere har ditzake: *bertara, bertatik* eta abar, maiz erabiltzen dira euskalki gehienetan eta, beraz,



*orduan bertan*, eta *han bertan* bezala, *orain bertan* eta *hemen bertan* ere esaten da. *Orain bertan* eta *hemen bertan* formek erabilera markatuagoa dute, dialektala edo estilistikoa.

*Bertan* hitzak, azkenik, ‘hurbil’ nahiz ‘aurki’ ere adieraz dezake. Indartuaz ematen da inoiz: *bertantxe*. Eta *bertan behera*, *bertatik behera*, *bertatik bertara*, edo antzeko eserei ere ematen die bide: [...], *non gidariak esaten digun toki hartan bertantxe*, *bi egunez lehenago*, *nola suge batek fakir bati heldu eta ordu beteko gorputz zela* (Anabitarte); *Ez bageneki egiaz gaudela*, *gauzak bertan behera uzteko izango litzateke* (Kirikiño); *Orain*, *esango die Ezekiel profetak dioenez: orain bertatik bertara zuen gainean izango da*, *edo ixuriko dut nire ira*, *eta haserrea* (Agirre Asteasukoa).

*Bertan* honekin osatzen da *bertan goxo* (edo *bertan gozo*) esapide adberbiala ere: *Urte gehiegi iragan zaizkigu bertan goxo geundelarik* (Mitxelena). ‘Ezer egin gabe, lasai, geldirik’ adierazi nahi du.

#### 22.5.4. Adberbio elkartu zehaztugabeak

**22.5.4a** Adberbio elkartu zehaztugabeak ditugu sail honen bigarren multzoan: *edonon*, *nonahi* (*nongura*, aise markatua), *nonbait*, *inondik*. Horiek beste postposizio batzuk ere hartzen dituzte (§ 22.5.6): *edonondik*, *edonora*; *nondik-nahi*, *noranahi*; *nonbaitetik*, *norabait*; *inondik inora*. Horietan *inon*, *inondik*, *inora* eta abar, batez ere ezezko eta galderazko perpausetan erabiltzen dira.

**22.5.4b** Adberbio elkartu hauei maiz eransten zaie *ere* partikula, kutsu berezia emanez horrela. *Edo-* eta *-nahi* osagaiez eratuei esanahi kontzesiboa ematen die. *-bait* eta *i-* osagaiez sortuak, berriz, indartu egiten ditu: *Nahi duena jan*, *edo ahal duena*, *baina*, *nolanahi ere*, *jan behintzat* (Soroa); *Nolanahi ere den*, *negua bazen*, *elurretan zuri irudikatzen nuen dena delako izaki liluragarria* (Lertxundi); *Itsu tristeak nolabait ere / munduan behar du bizi* (P. Errota); *Nonbait ere zerbait bilatuko ahal diagu* (Urruzuno); *Eta horra*

*non ez batera eta ez bestera begiratuta Andre bidezkorik inon ere ez zuen ikusi* (Kardaberaz).

*Inondik ere* leku esanahiarekin erabiltzen dugu: *Ate eta sarrera guztiak itxiak daude, eta inondik ere ezin dezakegu biderik ireki* (Lardizabal).

Baina esanahi horretaz gain, moduzko esanahia ere badu, eta ‘seguru-seguru’, ‘dirudienez’... edo adierazteko erabiltzen dugu: *Baina zuk inondik ere zerbait baduzu, ez zaude zure onean* (J. Iruretagoiena).

### 22.5.5. Adberbio-adjektiboak

**22.5.5a** Bada, oraingoz, bestelako multzo bat ere sail honetan: *gertu, urrun, hurbil, urruti* eta abar. Horietako batzuk adberbio (*hurbil bizi da; urrun da*) nahiz adjektibo (*negu hurbila; mendi urruna*). Zail da esatea adberbio diren adjektibo gisa erabiliak batzuetan, edo alderantziz gertatzen den.

**22.5.5b** Askotan postposizio markak hartzen ahal dituzte: *aldean, gertutik, urrutira...* Zernahi gisaz, *-tik* postposizioarekin *hurbildik/hurbiletik* eta *urrundik/urrunetik* sortzen dira. EGLU-I liburukian (329) zehazten zen *hurbildik* adberbioa dela, eta *hurbiletik* adjektiboa. Hori ez da, hala ere, guztiz horrela: egia da *hurbildik* beti adberbio gisa erabili dela tradizioan eta hala erabiltzen dela egun ere: *Baina arrastoa hurbildik segitzen diegu* (Txillardegi); *Ez oso hurbildik* (Garate); *Oi lurra, orai hurbildik hire gainera ixuriren dinat ene haserrea* (Axular). Baina *hurbiletik* bietara erabiltzen da: *Jesus nobleari zaiotzen hurbiletik* (Etxeberri Ziburukoa); *Halaber naiz Jaungoikoa itzultzen zuregana. Peril hurbiletik salba nazakenarengana* (Etxeberri Ziburukoa); *Joanese bala baten haizea hurbil-hurbiletik sentitu zuen pasatzen* (Bidegain); *Urrunetik edo hurbiletik lurraren burtu batetik bertzera gure inguruan diren jendaki guztiak* (Duvoisin); *Errepublikak hurbiletik kontrolatzen baitzituen apezen harat-honatak* (X. Arbelbide). Adibide horietan ikusten da *hurbiletik* adberbio gisa erabilia. Noski, adjektibo gisa ehunka adibide atzemanen ditugu.

**22.5.5c** *Urrundik/urrunetik* bikotearekin ere gauza bera gertatzen da, *urrunetik* bietara erabiltzen baita, baina *urrundik* beti adberbioa baita: *Ihardetsi zioten: Anitz leku urrunetik etorri dira zure mutilak, zure Jainko jaunaren izenean* (Duvoisin); *Eta Dabid bertze aldera iraganik, gelditu ondoan urrunetik mendi bizkar batean [...]* (Duvoisin); *Hazienda haiek, urrunetik aditu balute bezala sailduaren boza jauzteka abiatu ziren kaperako alderat* (M. Eli-zanburu).

### 22.5.6. Maila markak, esaera adberbialak eta bestelakoak

**22.5.6a** Adberbio hauek maila markak onartzen dituzte: *oso hurbil, hurbilegi, hurbilago* eta abar. Marka adierazkorrak ere, batzuek bederen, *urrutitxo...: Horrez gainera, Etxalar urrutitxo eta bidea laburtu* (Anabitarte); *Horra non urrunsko bi gizon ikusten dituen: biak bizardunak* (Zerbitzari).

Jatorrizko izen batzuk postposizioak hartu ondoren nolabait adberbio gisa iharturik geratu dira, eta hala erabiltzen ditugu: *aurrera, gora, kanpora, barnean, behean goian, aldamenean, goiti* eta abar.

**22.5.6b** Baditugu, bestetik, lekua adierazten duten esaera adberbialak ere. Hor sartzen dira, batetik, galdetzaileetatik sortuak: *nondik nora* (moduzko esanahia ere badu). Inesiboaren gainean eraikiak ditugu beste batzuk: *aldapan gora, maldan goiti, maldan behera, kalean bar(re)na, kalean zehar...* Horrelakoetan, adberbio horiek postposizio balioa dute, eta emankorrek dira: *kalean gora, mendian gora, eskaileretan gora...* Azkenean, baditugu bestelako batzuk ere: *han-hemen, non edo non, nora edo hara, nondik edo handik, handik edo hemendik, gainbehera, goiti-beheiti, gorabehera, tokian-tokian, hor nonbait...* Eta hor sartu behar genuke *gero eta ... -ago* egitura ere: *gero eta urrunago*.

**22.5.6c** Lekua markatzen duten erakusleek adberbio bat eraman dezakete aposizioan, dela adberbioaren erreferentzia mugatzeko (*hor goiti, han urrun...*), dela gehigarri huts hura indartzeko (*han bertan...*). Eta postposiziodun sintagmek ere: *mendian urruti...*

## 22.6. Adberbioen sailkapen semantikoa (IV): Modu adberbioak

### 22.6.1. Modu adberbioak zer diren: *Nola* eta *zelan*, oinarrizko galderak

**22.6.1a** Adberbio hauek *nola* edo *zelan* galdetzaileei erantzuten diete. *Nola* horrek erabilera asko ditu. Esate baterako, *nola joango zara Iruñera?* galde-tzen duenak autobusean edo autoan joango zaren jakin nahi dezake, edo, bes-terik gabe, ezin zarela joan esan nahi dezake, ez dela batere egokia Iruñera joatea. Baditu beste erabilera asko hemen azaltzen direnak. Batzuetan, adibi-dez, konparazioetan erabiltzen dugu.

Adberbio elkartu zehaztugabeak (*edonola*), erakusleetatik eratorriak (*honela*, *honelaxe*), adjektiboetatik eratorriak (*ederki*), aditz jakin batekin erabiltzen direnak (*kili-kolo egon*) eta abar. Badira, noski, adberbio kategoriako hitz zu-zenak (*aise*), edo adberbio gisa erabilitako adjektiboak (*lasai*). Aditzekin ger-tatzen diren elkartze sintaktikoak ere badira (*doan eskaini*, *bidenabar esan...*) eta moduzko esaera adberbialak (*nola edo hala*, *bide batez...*).

**22.6.1b** Modu adberbioen galdetzaile nagusia *nola* (*nula*, *nurla*, *lola*) da, bai-na bizkaierazko testuetan aise gehiago ageri da, eta erabiltzen, *zelan*. Gaur egun ere indar handia du *zelanek* bizkaieraz: *Ikertu eta xuritu zuen hiztunak nola jokatzeko duen denborari buruz* (Mitxelena); *Zelan baina artzainez jantzi? Jantziak non aurkitu?* (F. Bilbao). ‘Zer gisa, zer modutan’, esan nahi du, eta esanahi hori duenean ez du bestelako postposiziorik onartzen. Izenlagun gisa erabil daitezke, hori bai: *Zer alegantziak, nolako bozkarioa, nolako ongietorria orotan eta guzienganik* (Barbier).

Horren ondoan baditugu *nolatan*, *zelatan* (lekuko gutxirekin), *nolaz...*, eta ho-riek ‘zergatik, zer dela eta’ edo holako zerbait adierazteko erabiltzen ditugu: *Esango digu egileak berak nolatan jo zuen bide horretatik* (Mitxelena); *Horra nolaz diren bilakatu apezgaitegiak eskola-etxe* (Larre). Hor ikusten da, ingu-ruko erdaratan bezala, galdetzaile horiek zergatia galdetzeko ere erabiltzen ditugula askotan.

*Nola eta zelan* adberbioek, zernahi gisaz, bi esanahiak dituzte ('zer modutan', eta 'zer dela eta'): *Nola pentsa dezakezu, Antonio bihotzekoa, zutaz ahaztu naizela?* (Mixelena); *Ikusi dugu zelan dakizun sinestu behar dena* (Kardaberaz).

**22.6.1c** Beste batzuetan isilpeko aditzen bat dugula tartean, baieztapen edo ezeztapen indartsua gordetzen duen itaun erretorikoa egiteko ere erabiltzen ditugu: *Nola egingo dut hori, bada?* (Ez dut holakorik egingo, nola uste duzu...?); *Nola ez, gero?* (Bai, noski; nola uste duzu...?); *Nehork ez aditu? Ezkila? Nola, bada, hori?* (Barbier).

## 22.6.2. *Nola*-ren bestelako erabilerak

**22.6.2a** Baditu adberbio honek beste erabilera batzuk ere. Batzuetan perpaus osagarrietan erabiltzen dugu: *Eta ikusi duzu nola eraman duten arima infernuko ministroek?* (Lizarraga); *Hara, entzun al duk nola deitu didan?* (Navarro).

Beste batzuetan esaera adberbial batzuetan, eta moduzko perpausetan ere: *Eta, nola diren gauzak, bihotza oraindik ere samurtu egiten dit gogoratzeak* (Sai-zarbitoria); *Guti aski zikindu edo anitz zikindu, nola gerta* (Herria); *Arras bakan oro har, nahiz izan zitzakeen gurekilako aldi luzeagoak, nola gerta* (Herria); *Gizonek dituzte hartzen beren gainlore arruntak, nonahi atzeman daitezkeenak, hala nola arrosak* (J. Etxepare); *Zertako profetizatzen duzu, erranez: Hau dio Jaunak: Hona hiri honen ematera nola hala Babiloniako erregeen eskuetara, eta hark hartuko du* (Duvoisin); *Deusek ez nau hala samurrarazten nola holako gauzen ikusteak* (Duvoisin). Edo 'adibidez' esan nahi duela: *Dantza jauzietan bazituen berak arrainaturik franko pieza, hala nola "Milafrankarrak", "Baztandarrak", "Ainhoarrak" eta beste* (Aintziburu eta Etxarren).

**22.6.2b** Mendeko perpausari bide emateko erabiltzen da (adizki laguntzaileak menderagailua behar duela): *Nola gaur dugun lehen eguna, berritik hasiko gara* (Xalbador). Eta zerbaiten araberrako testuingurua adierazteko (berriz ere laguntzaileak menderagailua behar du): —*Lizardiren zenbait pasarte ezin*

daiteke uler. —Nola irakurtzen den; Eta eguna luzeago edo motzago nola den, hiru ordutara alda litekeela [erlojua] (Munita). Konparaziozko testuinguruetan ere: *Hainbertze ontasun badu semeak nola bere aitak* (Duvoisin); *Iturburura joatea ez da hain makur handia nola den tarteko horietan gelditzea* (Villasante). Gainerako galdetzaileekin ere gertatzen da: *Onuragarria izango dula? Nondik ikusten den; Noiz ateratzen garen, argiago edo nekatuago egongo gara.*

Ezezko testuinguruan, konparaziozko perpaus batzuetan: *Ez duzu arbola itsusiagorik nola baita olibondoa* (J. Etxepare). ‘Bezala’ren esanahia duela: *Uste dute ezin dela deus ere eskriba daitekeela lengoia hartan, nola bertze orok baitute eskribatzen berean* (Etxepare).

Harridurazko perpausetan ere erabiltzen da: *A zer kanta! Nola bihotza jotzen duen!* (Larzabal). Sinesgarritasun eza erakusten du batzuetan: *Nola! Zer darazazu, gizona?, erraten dio apezak* (Hiribarren).

**22.6.2c** Atzizki adierazkorra, edo gutxi gorabehera markatzen duena da *-tsu* (gaur egungo testuetan ez du ia lekukotasunik, pixka bat gehiago *nolatsuko* izenlagunaren forman): *Segur naiz irakurtzaile zenbait bederen jakin nahiak direla nolatsu iragaiten ziren eresia emaitte horiek* (Lafitte); *Huna nolatsu duten moldatu guzia* (Hiribarren).

### 22.6.3. Bestelako galdetzaileak

*Nola/zelan* horiekin batera *zer moduz, zein eratan, nolako gisan...* bezalakoak ere erabiltzen dira. Esapide ihartuak dira, betiere adberbio funtziotan ageri direnak.

Galde horien guztien erantzun posibleak dira adberbio elkartu zehaztugabeak (§ 22.6.4) (*edonola, nolabait...*), erakusleetatik eratorriak (*honela, horrela...*), adberbio bihurtutako adjektiboetatik eratorriak (*ederki, txarto...*), zuzenean adberbio gisa erabiltzen ditugun adjektiboak (*arin, azkar, bizkor...*) eta bestelakoak, askotan aditz jakin batekin erabiltzen direnak (*kili-kolo egon, blai egin...*). Ondoren aztertzen dira guztiak.

#### 22.6.4. Adberbio elkartu zehaztugabeak

**22.6.4a** *Lehen saila* osatzen dute adberbio elkartu zehaztugabeek: *edonola* (*edozeelan* bizkaieraz), *nolabait* (*zelanbait*, bizkaieraz), *nolanahi* (*zelangura*, *zelan nahi*, bizkaieraz) eta *inola* (*ezelan*, bizkaieraz).

Adberbio horiek, egia esan, galdetzailea bezain zabalak dira esanahiari dago-kionez, moduaren mundua bera ere aski irekia baita. Esanahi horietako batzuk aipatuko ditugu segidan.

*Inola* (*inolaz*) berez baiezko ez diren perpausetan erabiltzen da: ezezkoetan eta galderazkoetan. Modu esanahiaz aparte, zenbaitetan ukapen indartua adierazten du (*inola ez = erabat ez*); beste batzuetan, berriz, ‘itxuraz’ edo ‘seguru’ edo antzeko zerbait esan nahi du.

**22.6.4b** *Nolanahi* adberbioak esanahia zehaztugabea du batzuetan (*edozein modutan*, *zernahi gisaz*), subjuntibo kutsua beste batzuetan, eta esaera kontzesiboei bide emateko ere balio du, *ere* gaineratuz gero.

Lehenbiziko adieran askotan, ez beti, zentzu peioratiboa du: *Baina gizartea zenbat eta aurreratuago, jendea bereganatzen hasi da gauzak ezin direla nolanahi egin* (Salaburu); *Ohituraren arabera, ez ziren bi premu edo bi kaiet elkarrekin ezkontzen ahal, etxe berriak ez ziren nolanahi egiten ahal* (M. Tambourin, *Herria*); *Zer ez dugu asmatzen gizonok, zuriezina zuritzeko eta gure kontzientziaren nolanahi garbitzeko* (Irigoien).

Batzuetan subjuntibo kutsua du: *Gauzak nolanahi gertatu diren, hari isilik egotea dagokio* (Villasante).

Esaera kontzesibotzat har daitezke *nolanahi ere den*, *nolanahi den ere*, *nolanahi den*, *nolanahi dela* eta horien gisakoak: *Nolanahi ere den*, *negua bazen*, *elurretan zuri irudikatzen nuen dena delako izaki liluragarria* (Lertxundi); *Nolanahi dela ere*, *gaizki esanak barka* (Altzaga).

**22.6.4c** *Nolabait* (*nolabit*, *nolapait*, *nolapeit* aldaerak). Ongi dokumentatzen da XVIII. mendeko idazkietan, Nafarroa Garaian eta gipuzkeraz. Aise gutxiago beste euskalkietan. ‘Moduren batean, hala edo hala’ esan nahi du: *Aspaldi*

*hartan gaixo egonda / nolabait jarria txutik* (Uztapide); *Gizakiaren gaineko beste ikuspegi bat, nolabait esan* (Alonso). Beste batzuetan ‘edozein modutan’ esan nahi du: *Erbestean denda morroi, bizargin, ferratzaile eta abar irabazbide errezen bila nolabait ibiliak* (Agirre). Edo ‘modu txarrean, hala-hola’: *Orain liburua egina dago, baina gaiarekin ere nolabait ibili naiz* (Uztapide).

Inguru batzuetan, nolakotasun hori aditzak markatzen du: *nolabait bizi* esamoldeak ‘ahal den bezala, modu batera edo bestera bizitzea’ da, baina beste ingurune batzuetan ‘gaizki, eskas edo itxura txarrean bizitzea’ ere esan nahi du, edo era susmagarriz ibiltzea: *Dena segituan gastatzen dutenak dira nolabait samar ibiltzen direnak* (Tx. Garmendia).

Zenbaitetan, bestalde, esaldiaren indarra leuntzeko edo erabiltzen den partikula gisako zerbait bilakatu da: *Horixe da, nolabait, esan nahi nuena*.

**22.6.4d** *Edonola (edozein)* badirudi ez dela hain erabilia bere esanahia zehaztugabea. Ez du lekukotasun gehiegi tradizioan (Mogel, Agirre, Orixe, Lizarraga). Gaur egun gehiago erabiltzen da: *Izan ere, obra honetan ez naiz behin ere edonola mintzatu, zehaztasun osoaz eta egokitasun handiz baizik* (Kintana), eta zenbait esaeratan, ‘dena dela’ adierazi nahi duela: *Edonola dela ere, gaur ez da etorriko* (Cano); *Edonola den: zaldiko-maldikoan ibiltzea baino, hark bira ematen zuen guztietan aita han zegoela ikustea zen, ororen gainetik, niri gustatzen zitzaidana* (Lertxundi); *Edonola ere, umore onez hartu zuten denek apustuaren amaiera* (Arretxe).

**22.6.4e** Adibideetan ikusten denez, maiz hartzen dute adberbio hauek *ere* partikula. Zenbaitetan adberbioaren esanahia indartzeko balio du, enfasia emanez: *inola ere ez, inoiz ere ez...* Beste batzuetan kontzesio kutsua ematen dio perpausari: *nolanahi ere den...*

## 22.6.5. Erakusleetatik eratorritako adberbioak

**22.6.5a** Bigarren sail batean sartzen ditugu erakusleetatik eratorritako adberbioak: *honela (holan, bizkaieraz), horrela, hola, hala*. Adberbio deiktikoak



dira. Jatorriz, \**honen+era+la*, segur aski, *-la* zaharretik sortu baita *-ra* adlatiboaren marka. Adierazkortasun kutsua, indarra adierazten dute *honelaxe*, *horrelaxe*, *holaxe*, *halaxe* adberbioek, eta gutxi gorabeheratasuna, hortik sortzen diren *honelatsu*, *horrelatsu*, *holatsu*, *halatsu* aldaerek.

Horiek guztiek tradizioa dute gure literaturan: *honela* Lazarragak erabiltzen du eta hedatua da gipuzkeraz edo bizkaieraz idazten dutenen artean; *horrela* adberbioak leku gehiago izan du Hegoaldean, eta gutxiago Lapurdin, Nafarroa Beherean edo Zuberoan; *hala* Lazarragak erabiltzen du eta, bizkaierazko tradizioan lekukotasun urriagoak baditu ere, oso hedatua izan da euskalki guztietan; *hola* (eta *holan*, bizkaieraz) ez da hain erabilia izan, baina Iparraldean Etxeberri Ziburukoak eta XVIII. mendeko idazleek erabiltzen dute, XIX. mendean bizkaierazko testuetan eta gipuzkoar bertsolariren batek ere, eta XX. mendean oro har hedatzen da. Hortik sortzen dira *hola eta hola* (berriz aipatu beharrik ez dagoen zerbait labur adierazteko-edo), *hala-hola*, *hola-hola*, *hala nola*, *nola hala* eta abar (§ 15.4.4). Gaurko liburuetan arruntak dira, nahiz *hola* baino maizago ageri diren gainerakoak. *Hala-hala* adberbioak bi esanahi ditu. Iparraldean ‘horrela’ adierazteko balio du: *Etxe apal batzuk, zaharrak, murrueak zartatu eta hala-hala utziak* (J. B. Etxepare); *Iltzeak izanikan ere hala-hala segitu zuen pilotan eta partida irabazi* (Aintziburu eta Etxarren). Hegoaldean maizago erabiltzen da ‘erdipurdika’ adierazteko: *Hala-hala dabil azken bolada honetan*.

*Honelaxe* (*hunelaxe*, *honelantxe*, *honelatxe*...) aldaera indartua Hegoaldean dokumentatzen da XVIII. mendeaz geroztik. Iparraldeko autore batzuek ere (Materrek, Etxeberri Ziburukoak, Haranederrek...) ere erabiltzen dute. Gaurko testuetan nahiko erabiltzen da. *Horrelaxe* ere gehiago ageri da gaurko idazleen artean. *Holaxe* gehiago ageri da tradizioan, baina gaur egun *honelaxe* bezalatsu, hain segur batzuek eredu zko formatzat hartzen ez dutelako, nahiz azken urteetan gehiago erabiltzeko joera ikusten den.

**22.6.5b** *Halaxe* da gehien ageri dena, desberdintasun handiarekin, bai tradizioan eta bai gaurko testuetan ere: *Etxera dijoa artez, burumakur eta gogoa goibel. Halaxe dagerkigu zerualdeak ere aurpegia gaur* (Barrenso). *Nola*

galdetzailearekin korrelazioan ere erabiltzen da: *Nola den haren iluna, halaxe izango da haren argia* (Larramendi). Eta zer galdetzailearekin: *Urriko tenporetan zer haize, negu guzian halaxe* (EZBB). *Bezala* adberbioarekin ere korrelazioan: *Beste gizonek zuei egitea nahi duzuen bezala, zuek ere halaxe egiezue haiei* (Iraizoz).

Batzuetan ‘amen’ adierazteko ere balio du: *Erregutu ezazu gu bekatarien alde orain eta gure heriotzeko orduan. Halaxe* (ArgiDL). Eta batzuetan ‘halaxe bada’, ‘halako batean’ eta holako esanahiak ditu: *Aitak ez zion eragozpenik jarri eta halaxe, Piarresek udaraldi oso bat egin zuen morroitzan* (Etxaide); *Halaxe, liztorrak buruan burrunbaka eta bihotzean sukarra irakiten zebilizkiola, heldu zitzaion egunsentia* (Barrensorro).

**22.6.5c** Erakusleetatik sortutako *hala* adberbioak ere hartzen badu, birformulatzailer urruntzaile bihurtzen da (ikus § 43.10.5 “Birformulatzailer urruntzaileak”): *Hala ere, zerbait iragarrita, egin egingo zuen: zeharo aldatua ez bazen, behinik behin* (Jon Muñoz). Hori *hala*-rekin bakarrik gertatzen da: ia adibide guztietan birformulatzailer da. Bada adibideren bat zalantzazkoa: *Hala ere egiten zuten ogiak ez zuen parerik eta, jatekoaren aldetik pobretasun handienez zirelaketz, ez zuten ogirik uzten eskapatzera beren harpe zuloetatik* (Aintziburu eta Etxarren).

Aldiz, ez da gauza bera gertatzen *honela* eta *horrela*-ren kasuan, holakoetan beti moduzko adberbio arrunta baita: *Honela ere deitzen zitzaion Aita Santuari Erdi Aroan* (Frantzisko Asiskoa, Klara Asiskoa); *Horrela ere alferrik izango duk eta* (Jokin Muñoz).

**22.6.5d** Erakuslea ez izanik, bada *-la* horretaz baliaturik egiten dugun beste adberbio bat ere: *bestela*. *Bestela* (edo *bertzela*) Leizarragaren garaitik dokumentatzen da, eta, tradizioari dagokionez, guztiz hedatua dago, nahiz bizkaieraz gutxiago erabili den. Gaur arrunta da.

Eta konparatiboetan *bezala* erabiltzen dugu. Perpaus osagarrien *-(e)la* atzizkiak ere badu, beharbada, erakusleen modu atzizki honekin zerikusirik: *horrela esan, ... -ela esan*.

### 22.6.6. Adberbio eratorriak

Hirugarren saila adberbio atzizkiren baten bitartez eratorritako adberbioek osatzen dute. Hau da sailik handiena, zalantza gabe. Holako adberbioak osatzeko *-ki, -to, -ro, -ka, -ik, -la* eta *-ta* atzizkiak erabiltzen ditugu: *arinki, polito, astero, jauzika, isilik, nola, jauzika...* (§ 22.2.2). De Rijkek *-ik* bidez sortutako adberbioak egoera adberbioak direla dio (2008: 684).

### 22.6.7. Bestelakoak

**22.6.7a** Laugarren saila osatzen dute adberbio gisa erabilitako bestelako hitzek. Holakoak dira *arin, azkar, bizkor, garbi, gogor, goxo-goxoan, lasai, zehatz, ziur, zuzen, aldrebes, apropos, lotsagabeago, dotore, lasai...*: *Ez dakit zuzen zergatik, Tomas aise ere lotsagabeago ari baitzen* (Epaltza); *Ezagutu nian erizain bat, dotore-dotore zegoena bere uniformearekin, fin-fina: ez, egiatan ari nauk* (Navarro); *Erraz esaten dira pitokeria horiek mahaira lasai-lasai eserita!* (Linazasoro).

Adjektibo asko erabil daitezke zuzenean, inolako aldaketa gabe, adberbio gisa (zenbait kasutan zail gertatzen da erabakitzea, dena den, kategoria aldaketa adjektibotik adberbiora gertatu den, edo alderantziz). Hasteko, kantitateari erreferentzia egiten diotenak aipatuko dira: *eskas, urri, jori, naro, oparo, ugari* eta abar. Badirudi, dena den, Hegoaldeko hizkeretan errazago onartzen direla. Askotan galdegai gisa erabiltzen ditugu, aditzarekin harreman estuan. Ezezko perpausetan ezinbestean aditzaren ondora biltzen ditugu (“quasi focus” deitzen dio de Rijkek honi, 2008: 239): *Ez naiz ongi oroitzen* (Mitzelena); *Ez duzu oso erraz barkatzen* (Garate). Gauza bera egiten dugu galdegai beste elementuren bat baldin bada ere: *Zer egin dut zehatz?* (Txillardegi); *[...] orduan ikusi zuen oso garbi zer gertatzen zen* (I. Mendiguren); *Seme, hartu zeure seme-alabak eta zoaz laster Mediara* (J. A. Mujika).

**22.6.7b** Aise (eta *aisa* aldaera) batez ere Iparraldean erabili izan da tradizioan, nahiz badiren adibide batzuk gipuzkeraz eta bizkaieraz ere. Hitz horrek

erabilera bat baino gehiago du: adberbio hutsa, nolabait esateko, maila adberbioa eta adjektiboa. ‘Errazki’ esan nahi du, ‘erraztasunez’: *Denik gutxien ohi-tuak ere aise atzeman dizaioke* (Mitxelena); *Horrek aise egiten ditu gauzak*. Maila adberbio gisa ere erabiltzen da: *Zu ere aise goxoago zinen / duela hamabortz urte!* (Mattin). Adjektiboa ere izan liteke, nahiz gutxitan erabilia: *Ezen ene uztarria aisea da, eta ene karga arina* (Leizarraga).

**22.6.7c** *Arau* hitzaren erabilera arruntena, bistan da, izenarena da: *Arau sobera dago munduan*. Baina postposizio gisa ere erabiltzen da, *arabera* aldaerarekin (tradizio idatzian *araura*, *arauera*, *arabera*...): *Horren arabera, kontua gero eta okerrago doa*. Edo *arau* gisa ere ageri da, besterik gabe, batzuetan ahalbidearen sinonimoa dela: *Euskaraz mintza, eta bertzalde ikas euskara. Ikas, erran gabe doa, toki arau, ahal arau, urte arau* (Hiriart-Urruti); *Emaztearekin duelarik gizonak bere gozoa, zenbat ara berezi gizon batetik bertzera eta gizon beraren baitan, adin arau, aldarte arau, ahal eta behar ordu arau!* (J. Etxepare); *Hitzak aurkitu arau izkiriartzen nituen* (Lafitte).

Ikusi hemen Euskaltzaindiaren 21. araua: “Arabera”, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua.
---

Badira, orobat, kasu markaren bat harturik adberbio gisa ihartuak geratu direnak ere. Instrumentalean: *berriz, oinez, zinez, nekez, adibidez, alderantziz, benaz (benez, menaz), berariaz, egiaz, gogoz, halabeharrez, itxuraz, tamalez...* Beste batzuek inesiboaren marka hartzen dute: *aidean, aukeran, benetan (bene-benetan), dilindan, ezinbestean, ezjakinean, itsumustuan, ustekabea, osterantzean (osteruntzean, ostiantzian, osteuntzean)...* Adlatiboan beste batzuk: *gogara, erara, gora gustura, otera...* Eta erakusleak ere: *honetara, horretara, eta, batez ere, hartara*. Ablatiboan ere: *gogotik*.

Adberbio horiek aditzari lotuak (aditz sintagmaren modifikatzaile), nahiz kanporago (perpausaren modifikatzaile) gerta daitezke: *Neskatoa ez zen itxuraz oso garaia* (Uribarri); *Gizon bat sartu da, hozbera itxuraz* (M. Etxebarria); *Eskua zuria zen, eta leuna, itxuraz* (Uribarri); *Autodidaktak ez du, itxuraz, mintzatu nahi* (M. Etxebarria); *Alderantziz da, hain zuzen: ez nuke bestela*

*izaterik nahi inolaz ere* (J. A. Arrieta); *Ez zuen kontra egin; alderantziz, ikaragarri gustatu zitzaion* (J. A. Arrieta).

Adberbio horiek adberbio esaera konplexuagoak eta aski lexikalizatuak osatzeko ere balio dute: *Bi bider hartu ninduen, hala ere, loak, nire gogoz kontra, segundu batzuetan* (J. Zabaleta); *Hitz bateko letrak atzekoz aurrera jarrita, hitza desitxuratua agertzen zaigu, esanahirik gabeko ulertu ezineko segida batean* (Arranz). Batzuetan egitura irekiagoa dute (*nire/zure... kabuz/ustez/aburuz/ustetan...*): *Hona gazte zentzudun eta prestuak gure aburuz nolakoa izan behar duen* (Zubizarreta).

### 22.6.8. Elkartze sintaktikoak

**22.6.8a** Bosgarren eta azken sailak biltzen ditu berez adberbio diren edo adberbio erabilera duten hitzez osatutako elkartze sintaktikoak ere: *ados izan/egon, blai egin, alde izan/egon, kontra izan/egon* (ikus § 9.4), *begira egon, beha egon, belauniko jarri, bidenabar esan, debalde eman, derrigor(ean) egin, doan eskaini, blai egin, kili-kolo egon, kito geratu, konforme egon, majo ibili* (lagunartekoa), *tente ibili, ziplo egin* eta abar. Agian sail honetakoak lirarteke *igeri ibili, ihesi joan, zain egon* eta horien gisakoak ere. Eta hots hitzak ere: *tiki-taka joan, ika-mika aritu* eta abar.

**22.6.8b** Moduzko esaera adberbial gehiago badira. Ugariak ditugu euskaraz: *baitezpada, badaezpada, batez ere, orobat, alde bat, nola edo hala, nola hala, noraezean, inondik ere, inola ere, hala nola, hala-hola, hola-hola, aldez edo moldez, argi eta garbi, batera eta bestera, edozein moduz, hain zuzen, hain segur, halabeharrez, bide batez, nahitaez, orpoz orpo, atzekoz aurrera* eta abar.

Beste batzuetan hitzak errepikatuz sortzen dira: *poliki-poliki, bene-benetan, itsu-itsuan, itsumustuan, isilka-misilka, zirt edo zart, bete-betea, tiki-taka, ika-mika...*

Eta hemen sartu behar genituzke *gero eta...-ago* egiturak ere: *gero eta hobeki, gero eta ederkiago* eta abar.

## 22.7. Adberbioen sailkapen semantikoa (V): Maila adberbioak eta zenbatekoak

### 22.7.1. Maila adberbioak zer diren

**22.7.1a** Hemen aipatuko diren adberbio guztiak zenbatekoari edo intentsitateari daude lotuak, baina lotura horren indarrak gradu asko izan ditzake. Maila adberbioak ditugu, batetik, adjektibo baten, beste adberbio baten edo aditzaren maila edo intentsitatea adierazteko erabiltzen direnak: *Hau oso berria da, eta ez diot inori ezer esan, oraindik* (Zaldua); *Hori arras laketu zait; zeren eta hura hemen ez denean, nehork ez baitit hitz egiten, eta aspertzen bainai*z (Jon Muñoz); *Behin oso haserretu zen nirekin* (Garate); *Nor berean aski gustura egon gitezkeen, baina bata bestearena normalena zen arrotz sentitzea* (Zubizarreta).

**22.7.1b** Beraz, maila adberbioak honako hauek dira, besteak beste: *oso, guztiz, biziki, txit, aise, arrunt, erabat, zeharo, dexente, arras, berdin, guztizki, izugarri, franko, ikaragarri, hagitz, pixka bat, samar, sobera, txoil* eta abar; *honen, horren* eta *hain* erakusleak; *zein* esklamatioa. *Erdi* izena da berez, baina maila adberbioa ere izan daiteke: *Txalupa txiki batzuk zeuden egurrezko poste erdi ustel bati lotuta* (Lertxundi). Horietan, ikusten denez, ilunena *txit* hori dateke. Ikusten dugu, bada, jatorri eta esaera desberdineko hitzak erabil ditzakegula maila/zenbateko adberbio modura.

### 22.7.2. Oso

**22.7.2a** Adjektiboen edo bestelako adberbioen gradua markatzeko erabiltzen ditugun adberbioen artean *oso* da hedatuena, hizkera eta garai guztietan ageri dena. *Gutziz* ere aski arrunta da. *Gutzizki* Iparraldean erabili da. Eta gauza bera gertatzen da *arras* (nahiz xx. mendearen erdialdetik Hegoaldera hedatzen den), *biziki*, eta *arrunt*-ekin ere (hau adjektiboa ere). *Aise* ere sail honetakoa da, beste erabilera batzuk baditu ere (§ 22.6.7b): *Artobero jauna, kanpo horietan oso ardozaletu zen* (Urruzuno); *Neutralak guztiz gutxi izanik* (Erkiaga);

*Gaur aditu gauza horiek orok nahasi naute arras* (Barbier); *Biziki erraz baita hamabortz urteko mutiko baten atakatzea* (Etxebarne).

**22.7.2b** *Oso*, berez, *oso* adjektibotik (*egia osoa*) dator. Sintagma sinpleetan ageri da: *Irakasle hori [oso ona] da*. Baina sintagma konplexuagoa denean (*oso* + izena + adj.), hurrenkera arruntena hori da, hain zuzen, parentesi artean eman duguna: *oso irakasle ona*. Batzuetan, hala ere, *oso* izenaren eta adjektiboaren artean ere ematen da: *irakasle oso ona*, nahiz hurrenkera honek ez duen aurrekoaren maiztasunik. Esan dezagun, zernahi gisaz, ez duela horrek *bat* determinatzailea onartzen: *\*oso irakasle on bat / \*irakasle oso on bat*. Ezinbestean, *-a* behar du hor. *Bat* zenbatzailea nahiz artikulua izan daiteke (§ 16.2.2), eta askotan ez da bien artean bereizteko modu garbirik, baina sintagma honek *-a* mugatzailea bakarrik onartzen du, esan bezala. Ez da eragozpenik, noski, bestelako zenbatzaileak erabiltzeko: *bost irakasle oso on, zenbait irakasle oso on* eta abar.

**22.7.2c** Zalantzak sortu izan dira artikulua ordez erakuslea ere onar dezakeen edo ez egitura honek: hiztun batzuentzat aski arrunta da *oso film barre-garria* egitura, baina nekez onartzen dute *oso film barre-garri hura*. Horrela, aldaera horri galdera marka jartzen dio EGLUK (I: 198), eta *oso barre-garri den filma* egitura erlatiboa eskura dugula oroitarazten da han. Debeku edo traba horretaz Saltarelli (1988: 81) ohartu zen. Badirudi joera hedatuena hori dela, nahiz Orixek badituen kontrakoa erakusten duten erabilerak (hurrenkera pixka bat aldatu, hori bai: (izena + *oso* + adj. + erakus.): *Gauza oso on hauen burubide txit ere hau bere bidea eginik, iraganen da* (Orixe)<sup>8</sup>. Gauza bera Orixeren beste adibide honetan: *Zure lan oso on horien ondotik*. Baina nahiko bakanak dira tradizioan, eta gaurko euskaran ere ez dira erraz ikusten.

**22.7.2d** *Oso* hori galdegai gisa ageri da zenbaitetan: *Oso da txarra Aitaren etxetik urrutian bizi, eta gure etxera bihurtu nahi dugunean gure Aita onak gu ez ezagutzea* (Agirre); *Farsa delako hau josteko aukeratu nuen gaia oso da arrunta* (Labaien); *Oso da txikia* (Lizardi).

<sup>8</sup> Bide batez, de Rijk (2008: 244) ez du ongi bildu adibidea, *ere* horren ordez *eder* jarri baitu.

Dagokion sintagmatik kanporatua ere, nahiz adibide gutxiago dauden literaturan: *Ez du harrokeriarik, / umila da oso* (Txirrita); *Garestia da oso* (Soroa); *Zergatik kontrizio edo amore damua da oso, edo perfektoa [...]* (Mogel); *Bai, mutil ederra da oso* (Erkiaga). Hiztun anitzen ustez, *oso* horren aurretik eten-txo bat egin behar da ezinbestean, baina ez beste batzuen ustez.

### 22.7.3. *Berdin eta nahiko*

**22.7.3a** *Berdin* ere batzuetan sail honetan sartzen ahal dugu: *Betidanik eta alde guztietan berdin gaizki ikusia dela [...]* (Larreko); *Iduri kanpoz berdin ongi doazela beti, baina kasurik egin gabe galtzerat uzten beren mintzaia* (J. P. Arbelbide). Esanahiari dagokionez ‘gauza bera, halaber, nolanahi ere...’ adierazi nahi du. Iparraldekoa da, baina B. Mogelek ere badu adibideren bat: *Egizu nahi duzuna; berdin ez diogu guk geure buruari horrelako lorrik eman nahi* (B. Mogel).

**22.7.3b** *Nahiko* (edo *nahikoa*) adberbioa zenbatzaile zehaztugabetzat hartzen dugu: *Badute nahiko afari* (Orixe); *Hogei bat lagun nahiko muniziorekin bagina* (I. Alkain eta A. Zavala); *Nahiko buruhauste bereganatu zuen* (J. A. Irazusta). Zenbakitaz diren izenekin ere: *Nahiko toki badago* (Labaien); *Nahiko beldur diot* (Orixe). Arruntak dira adibideak artikuluekin ere: *Ez da arrazoi nahikoa gainerako bideak mozteko* (Mitxelena); *Ausardi nahikoa dutenak* (Txillardegia). Askotan aurreko izenak ere hartzen du artikulua: *Dirua nahikoa daukazue* (Etxeita); *Gaia nahikoa bildu nuen* (Mitxelena); *Eta zuk guztientzako indarra nahikoa* (Insausti); *Emango digu lurrak / garia eta artoa / gaztaina, sagardoa / ta ardoa nahikoa* (Munibe). Baina ez da ezinbestekoa artikulua jartzea: *Jan nahikoa eman* (Inza); *Ale nahikoa jan* (Orixe); *Ausardi nahikoa dutenak* (Txillardegia); *Hats nahikoa hartu* (Oskillaso). Beraz, ezin da hor arau esturik eman.

Adberbio hori graduatzailea ere izan daiteke: *Harreman hori nahiko ongi ikusten da* (Mitxelena); *Bazeneki zein gogoan dudan gaizto haur ona! Jainkoak ez ahal du nahiko gaizki kausitua izan dadin* (Hiriart-Urruti).

**22.7.3c** Aditzekin eta adjektiboekin ere erabiltzen da. Ez da erraza jakitea batzuetan zer den, graduatzailea edo adberbio arrunta. Tradizioan *nahiko* eta



*nahikoa* txandakatzen dira, predikatu gisa ageri direnean ere: *Gainalde zuri-tuak nahikoa erakutsi eta goraipatu ditugu* (Mitxelena); *Mingaina bidean nahikoa busti zait* (Amundarain); *Horretarako zu zerori nahikoa zara* (Barriola); *Zuek bertan izanez gero nahiko apainduko duzue* (Labaien); *Harreman hori nahiko argi ikusten da* (Mitxelena); *Nire ustez nahiko egin nuen* (J. A. Irazusta); *Nahiko xelebrea zen, erdi eroa* (Anduaga); *Nahikoa aldakorra dugu* (Mitxelena); *Bart nahiko ederrak ikusi nitian* (M. A. Mintegi); *Gela nahiko txikia zen bertan hiru ohe edukitzeko* (Iturralde). Izena konplementatzen duen adjektibo batekin ageri bada, tartean ikusiko dugu maiz: *gizon nahiko handia*.

#### 22.7.4. Maila adberbio hutsak

**22.7.4a** Adberbio horietako batzuk maila adberbio hutsak dira, ez dira beste zereginetan agertuko, aldamenen adjektibo edo beste adberbio bat behar dute, eta ezin dira bestelako inguruneetan agertu: \**Badaki txit*.

**22.7.4b** Baina gehienak maila adberbioak izateaz gain bakarrik ere erabil daitezke: *Oren oro arras dugu erortzeko perila* (Etxeberri Ziburukoa); *Biziki erakuts diezaion nola herioan ez den deus* (Leizarraga); *Ez al din hire amak nahikoa hire ahizpari emandakoarekin?* (Etxaniz); *Ordutik hona franko aldatu dira gauzak* (Mitxelena); *Noiz niro erran, franko ditudala pakatu?* (Egiategi) eta abar. *Franko* adberbioa arrunta da *beste/bertze*-rekin agertzea: *Bertze franko bide daude ofizio horretakoak zeruan* (Lizarraga).

Beste zenbaitetan intentsitatearen neurrien gorabeherak onartzen dituzten aditzetan lagungarri izan daitezke, *oso* eta bestelako maila adberbioen pareko: *Eta ez dira orduan sobera harrituko, mundua gaizto, neke eta idorxko atzematen badute* (J. B. Etxepare).

#### 22.7.5. Kokagunea

**22.7.5a** Batzuetan izenaren atzean edo aurrean ager daitezke, nonahi, eta orduan zenbatzaileak dira: *Holako pleinta franko ekarri baitute eni* (J. Oihenarte);

*Nire buruak ere eman dit franko lan* (Labaien); *Bazuen oinen azpian ur franko* (Axular); *Haren bihotzean gaixtakeria franko atetu baita* (Artxu); *Haiek badute leku franko* (Axular). *Franko* adberbioa aurreko izenak mugatzailea duela ere erabiltzen da: *Bazterra franko badiat kurriturik* (J. Etxepare); *Eta nola zabal baitira eta laguna franko baitute [...]* (Axular).

**22.7.5b** Arruntena da adjektibo edo adberbio baten aurrean edota atzean agertzea. Adjektiboaren ondoan maila adierazten dute: *Besoa franko luze baitzuen* (Saint-Pierre); *Franko abila dela letxero kontuan* (Mattin); *Nik aditu diat hire astoa arrunt zozoa dela* (Larzabal); *Orain, zertxobait gehiturik eta arrunt dotoreturik agertu zaigu [liburua] bigarren aldiz* (Mitxelena).

**22.7.5c** Beste adberbio batekin ere maila adierazten dute: *Bizi bada bizi, jende horien erdian, arras ongi laketu nuen* (Larzabal); *Biziki ontsa oroitzen naiz* (J. B. Etxepare); *Gu gaizki bizi gaitun, oso gaizki* (Agirre); *Jadanik franko berant da aurtengo* (Alhabe); *Handik franko fite gertatu zen* (Etxebarne); *Ez zen sobera baina aski franko* (Mardo).

### 22.7.6. *Asko, aski, samar, pixka bat*

**22.7.6a** Multzo berekoa da *asko* mugatzailearekin ere, erabilera adjektibala duela: *Sofa karraska egin eta are beherago hondoratu zen, eta, egia esan behar badut, on askoa gainera, apurtxo bat trebatu ostean* (I. Mendiguren); *Baita on askoak ere* (Iturbe).

**22.7.6b** *Aski* adberbioa aurretik nahiz ondotik joan daiteke: *Joatekotz, aski goiz hobe dik deliberatzea* (Larzabal); [...] *dama polita da eta guztiz egokia: goiz aski bota zion Alzuruk begia [...]* (Iztueta).

**22.7.6c** *Samar* ere ez da urrun, esanahiaren aldetik, *aski* adberbiotik. Adberbio edo adjektiboekin batera erabiltzen dugu, ez aditzekin. Hegoaldean du tradizioa. Adjektibo ondoan jarririk, haren artikulua eta kasu marka hartzen ditu: *Uitzik hartu zuen, lehenbizikoz, astindu eder samarra* (Lizardi); *Etxe nagusian sartuta berehala, sukaldea, lasai samarra, euskal baserri guztikoen*

*irudira* (Agirre). Aldaera sabaikaria (*xamar*) ere erabiltzen da *samar* baino gradu apalagoa adierazteko, zenbait hizkeratan: *Aurpegiz mehe xamarra, zango politak eta azal guri eta leuna zuen* (Erkiaga) vs *Jabea baserritar txiki samarra zen, txaparra* (Erkiaga). Adberbioekin ere bai: *Bakoitzak ahalegina eginaz, ondo samar bizi ziren senar-emazteok* (Etxeita); *Baina, berandu samar da-eta, egiteko ugari dugu* (Erkiaga).

**22.7.6d** *Pixka bat* izen sintagma da berez, baina determinatzaile gisa erabiltzen dugu: *Pixka bat / asko / zerbait ikasi*. Izaera adberbiala du anitzetan: *Euskara pixka bat arrotzia du* eta *Euskara pixka bat ikasi du* (edo *Pixka bat ikasi du euskara*). Adibide horietan *pixka bat* izenarekin joan daiteke ([*euskara pixka bat*]) edo perpausarekin, kantitatezko adberbioekin gertatzen den gisan.

Bestelako aldaera batzuk ere onartzen ditu, postposizioak harturik, esanahia ('denbora laburrean') aldatu gabe: *Haatik, kasu eman behar diok, pixka bat* (Larzabal); *Geldi zaitetz pixka batean, mesedez, [...]* (Labaian); *Orduan, pixka batera gerra badugu* (Labaian).

Zerrenda horretan *zenbat* galdetzailea ere sartu behar dugu, adberbioen saillean. Batzuetan izenekin doa, eta orduan ez da adberbioa, baizik zenbatzaile mota bat: *Zenbat jende sartzan da hor?*; *Zenbat langile ditu enpresa horrek?* eta abar. Baina beste batzuetan aditzarekin doa, eta orduan adberbioa da: *Iku-siko dun zenbat naizen abila* (J. B. Elizanburu); *Zenbat maite zuen* (Larregi); *Nik zenbat dudan sufritzen* (Gazteluzar); *Zenbat umildu nintzen* (Añibarro); *Balekite ongi zenbat maite ditugun!* (Barbier); *Zenbat nekatzen gaituzten* (Uztapide).

### 22.7.7. Kopuruari eta osotasunari lotutako adberbioak

**22.7.7a** Baditugu, azkenik, asko ez badira ere, kopuruari eta osotasunari loturiko bestelako adberbio batzuk ere. Horiek aipatzen den gaiari buruzko nolabaiteko hurbilketa adierazteko erabiltzen dira: *ia, kasik, abantzu* (Iparraldean), *doi, ozta, eskas...*: *Baina aitona ez du ia ezer jaten* (Agirre); *Gogoan duzun hura kasik ezin erran, gerla piztu gabe* (Hiriart-Urruti); *Soinean ordukotz zituen*

*zapatak abantzu hautsiak zituen* (Webster); *Xahar-xahar bati edo bertzeri kafe bero bat emaiten zitzaion doi-doia, urrunetik ahitua zeren zen etorria, eta beharbada herrestaka* (Barbier); *Eta zerbait pagatzen badu ozta izango da erdia* (J. M. Zabala); *Egurak eskas egin dukeenean hilen da sua* (Duvoisin).

Normalean, perpaus hasieran edo perpaus amaieran doaz, besarkadurak perpaus osoa har baitezake, edo sintagma bat, edozein motatakoa: *ia bost kilo patata* (IS); *ozta-ozta goizetik* (AdbS); *doi-doi goiz osoan* (PS); *kasik ez dut agurtu ere egin* (P). Zer sintagma mota besarkatzen duen, horren hasieran ageri dira, gehienetan. Batzuetan, aldiz, amaieran, betiere besarkatzen duen sintagma amaieran, ez tartean: *Ordu erdi bat ozta egin zuen* (Kardaberaz); *Nik ezagutu ere egiten dut ozta* (Uztapide).

**22.7.7b** *Doi-doi* horren parekoa da *ost-ostean* ere, nahiz gutxiago erabilia: *Ost-ostean joan nintzen igandean elizaraino* (Agirre); [...] *pitin bat bere tentunera etorri zen, guztiz sendatu ez arren; eta jai egunean, ost-ostean bada ere, joan zen elizaraino* (Agirre). Egungo literaturan ez da ia adibiderik ageri.

Sail honetako adberbioak errepikatzen dira, sarritan, indarra emateko edo: *doi-doi, ozta-ozta, kasik-kasik...*

Ezezkoetan erabiltzen ditugunean badituzte pareko baiezkoko esamoldeak *gutxi*-rekin osatuak: *Ez nuen ia inor ikusi vs Inor gutxi ikusi nuen*. Esanahia dela eta, nolabaiteko maila adierazten du *hurran* adberbioak ere, aditzarekin ageri dela: *Ez dakusazu biziaz etsitu hurran dudala?* (Axular).

## 22.7.8. Deiktikoak

**22.7.8a** Maila adberbio deiktikoak ditugu *honen, horren, hain* bezalakoak. Ikusten denez, erakusle arrunten genitiboaren forma bera dute (*hain* hori, *haren* → *haen* → *hain* litzateke Mitxelenaren ustez [FHV 7.4 atala: 141]). Horietan erabiliena *hain* da, hori baita termino ez markatua, eta *honen* eta *horren* tokian ere erraz erabiltzen da: *Nora zoaz honen/horren/hain goiz?*; *Jainkoaren ontasuna hain handia da* (Pouvreau).

**22.7.8b** Gainerako maila adberbioekin erkaturik, bada beste desberdintasun bat hauen guztien artean. Zerrendako *oso, guztiz, biziki, txit, arrunt, erabat, zeharo, dexente, arras, berdin, izugarri, ikaragarri, hagitz...* maila adberbio gehienak adjektiboekin (*biziki interesgarria da*) edo aditzekin joan daitezke (*biziki maite du*), baina *honen* sailekoek galdu dute dagoeneko gaitasun hori, eta *honenbeste, horrenbeste, hainbeste* eskatzen dute aditza modifikatzen dutenean: *Filma amaitu aurretik utzi dugu aretoa. Hainbeste aspertu gara!*

### 22.7.9. Zein, zer...

**22.7.9a** Horiekin batera *zein* ere erabiltzen da: *Zein ederra zaren Jesusen ama!* (Mendiburu); *O zein ederra zaren, nere arima, zein ederra zaren!* (Agi-rre); *A, zein ederra zaren, ene maitea, zein ederra zaren!* (Duvoisin). Edo *zeinen*: [...] *eta nik ere badakit zeinen pozik bete dituzun haren nahikari xumee-nak* (Duvoisin); *Eta ni lotan, zeinen harritu eta sortua egon naizen* (Duvoisin); *O, zeinen ederra zaren, ene adiskidea! Zeinen polita zaren* (Otaegi); *Zeinen txoragarria udaberrian txoritxoak astirik han jolasean!* (Arzak).

Eguneroko hizkeran arruntena da *ze* hutsa erabiltzea, besterik gabe. Eta literaturan ere ez dira adibideak falta: *A! Ze ederra zaren, ze ederra zaren!* (Uriarte); *Ze ederra den erlijio katolikoa, ze pozgarria handik datorkigun sinistea* (Arrese Beitia); *Ze ederra gorputzez, ederrago ariman, [...]* (Lizarraga); *A, ze ederra zaren! Beste batzuetan dei egiten dio bere esposa laztana, bere usoa, bere bakarra* (J. M. Zabala). Ez dira falta izan zenbaitetan eztabaidak *ze* horren azpian legokeen hitzaren forma dela eta: *zer* edo *zein*. Ikusi dugu aurreko pasartean *zein* izan daitekeela. Baina ez dira tradizioan adibideak falta *zer*-ekin ere: *Begira iezaioz zer ederra* (Soroa); *Zer ederra den antxua, udako berdel bizkar gizona [...]* (Iraola); *Zer handia, zer ederra zaren* (Arzak); *Zer ederra den Jaungoikoaren obra* (J. Artola).

**22.7.9b** Beraz, esan dezakegu *ze* ahoskatu ere, idatzian *zer, zein* eta *zeinen* erabiltzen direla, denek esanahi bera dutela. *Euskaltzaindiko Hiztegiak* ere hala biltzen du. Guztiak adjektiboaren edo adberbioaren aurrean doaz.

Salbuespena *hain* da, horrekin hurrenkera aldatzen ahal baita, adizkiaren aurrean jarritz: *Hain da handia ezen frogatu duenak baiizen ezin jakin baitezake nolakoa den* (Axular); *Hura hain da grazia handia non ezin ausart bainintekere haren zuri eskatzea [...]* (Pouvreau); *Hain da gaixtoa, diotenez, arrotzetzat, deabruak berak bere antze guztiarekin egundaino ezin ontsa ikasi baitu!* (Hiriart-Urruti). Holakoetan, ikusten denez, ondoriozko perpausa eskatzen du, batzuetan perpaus hori isiltzen badugu ere.

Horietan guztietan arruntena artikulua erabilera da (eta ez erakuslearena), hau da, *honen/horren/hain hiri handia* egiten dugu, baina nekez *?honen/horren/hain hiri handi hau*.

### 22.7.10. Azken oharrak

**22.7.10a** *Gutxi* eta *asko* antonimoak dira, baina maila adberbioak edo maila atzizkiak hartzen dituztenean ez ditugu antzeko moduan ibiltzen: *gutxi* ez du arazorik *oso gutxi*, *gutxiago* edo *gutxiegi*, *gutxien* egiteko. Aldiz, ezin dugu esan *oso asko*, *askoago*, *askoegi* edo *askoen*. Gauza bera gertatzen da *anitze*-kin ere (ez dugu esaten *\*oso anitz*, *\*anitzen...*). (Ikus 32. kapitulua).

**22.7.10b** Zenbait kasutan intentsitatearen neurrian gorabeherak onartzen lagungarri izan daitezke adberbio batzuk, *oso* eta bestelako maila adberbioen pareko: *Orain anitz esnatu da* (Izeta); *Ez ziren gutxi lasaitu Bordaberrikoak* (Tx. Garmendia); *Beharbada ez nukeen sobera harritu behar* (Epaltza).

**22.7.10c** Sentimenduak zenbakarriak ez direnez eta euskararen legeak garbiago gorde nahirik, honelako perpausak edo antzekoak (*asko maite zaitut*) gaitzetsiz, *oso maite zaitut* ereduak proposatu izan dira inoiz forma egoki bakartzat. Eta galdera ere ez omen litzateke *zenbat maite nauzu?* tankerakoa. Baina hori erabilera hedatuenaren aurka joatea litzateke.

Iritziak iritzi, goiko perpausak gramatikalak dira. Eta konparatiboetan ere *hain maite* bezala *hainbeste maite* erabiltzen da. Denetatik aurkitzen da: *Mugaz beste aldean asko maite omen zuten* (Anabitarte); *Nik asko maite dut*

(J. Eizagirre); *Eta bai berak, eta bai herri guztiak, asko maite zituztela* (Kiri-kiño); [...] *asko maite bainuen teatro jokoa* (Larzabal); *Jon asko maite dut* (Lizardi); [...] *nire alaba bakarra da, oso asko maite dut* (Agirre); [...] *eta asko maite diat osaba gizajoa* (M. Lekuona).

Badira, jakina *oso* erabiltzen dutenak ere: *Oso maite ninduen* (Orixe); [...] *Donostian txoko polit bat, oso maite izaten zutena* (S. Salaberria); *Berak oso maite zuen bat eri zegoen* (Iraizoz); *Ni hainbeste maite ninduzun, aita* (Barriola); *Hil al da zuk hainbeste maite zenuen laguna?* (Altzaga); *Hain maite zituzten misionet frantsesask!* (Zerbitzari); *Hain maite zuen Iturrin* (Barbier); *Lourdesko Ama Birjina, Jesus hain maite duzuna* (Barbier) eta abar.

## 22.8. Adberbioen sailkapen semantikoa (VI): Iritzi adberbioak

**22.8a** Zalantza bat baino gehiago sor lezake, beharbada, atal honen izenburuak. Zer da, izan ere, iritzi adberbioa? Zehatz esateko, hemen perpausetik nolabait kanpora gertatzen diren eta hari buruzko hiztunaren iritzia edo jarra adierazten duten adberbioak sartzen ditugu: *Txarra zen, nonbait; Agian joango da...* Sail honetakoak dira *menturaz, itxuraz, agian, iduriz, onenean, nonbait* (ez lekuzkoa), *ausaz, apika, antza* (gip., bizk.), *arean* (bizk.) eta abar<sup>9</sup>. Arruntean perpaus osoari dagozkio adberbio hauek, ez bakarrik sintagma bati.

Horietako batzuk postposizio sintagma batetik datozenak dira, erabiliaren erabiliaz adberbio gisa finkatuta geratu direnak. *Menturaz*, esaterako, *mentura* izenetik dator, tradizio luzea du (Lazarragak erabiltzen du) eta forma adberbial horretan (edo *menturan* bezala) erabiltzen da batez ere: *Baina honelakorik oraindaino gutxitan jazo da, eta menturaz ez da sekula gertatuko* (Añibarro). Iparraldean *benturaz* gehiago. *Itxuraz* forma adberbiala, noski, *itxura* izenean oinarritzen da: *Herri poesiaren bideetara judu itxuraz Kerexetak* (Mitxelena). *Ausaz* formarekin ere berdin gertatzen da: *ausa* du oinarrian (edo

<sup>9</sup> De Rijckek "modalitate adberbioak" deitzen ditu (2008: 249).

*auza*), baina lekukotasun gehienak *ausaz* bezala ageri dira: *Eztarriak kilikatzen zion, gehiegi erre zuen ausaz* (Mirande). Apika idazle gipuzkoarren tradizioan ageri da gehien bat: *Bekatu asko genituen apika, baina nork bereak* (Mitxelena). Gaur egungo testuetan arrunta da.

*Antz* izenetik sortzen dira *antz*a, eta *antz*a *denez* esaera adberbialak. Jatorriz gipuzkoar-bizkaitar idazleek erabilia batez ere: *Antza denez, honetantxe ere, lapur izaten ere, euskaldunak berariazkoak izan dira* (Kirikiño). Eta hortik sortu da *antz*a bakarrik erabiltzea ere: *Norteko trenak jendea merke dabil, antza* (Zamarripa).

*Arean* bizkaieraz erabili izan da, eta hirugarren graduko erakuslearen ablatiboaren (-*rean*) forma arkaikoan oinarritzen da. Esanahi bat baino gehiago du ('deus ez' ezezkoetan, 'zerbait' baieztoko eta galderetan), baina forma adberbiala da ('hots', 'hau da'...) hemen interesatzen zaiguna: *Zure baitan iritzi bakar hau ez egizu aintzat hartu: arean, zuk diozuna eta besterik ez, ontzat hartzea* (Zaitegi).

**22.8b** Badira bestelako forma adberbial batzuk ere: *beharbada, dudarik gabe, agidanean, agidanez, badaezpada, inola ere* (moduzkoa ez denean) eta abar: *Agi danez, deitzailea ez da nornahi* (Lizardi); *Agi danean, hauxe bakarrik esan zuen: "Lapur horiek lapur talde bat dira [...]"* (Iraizoz). Ez dute denek erabilera bera: *agidanez, agidanean* eta *badaezpada* Hegoaldeko tradizioan erabili dira eta gaur egun ere nekez ikusten dira Iparraldeko testuetan. Aldiz, *beharbada* eta *duda(rik) gabe* euskalki eta garai guztietako testuetan ageri dira.

Sail honetan sartzen dira *noski, jakina* eta horien gisakoak. *Noski* gipuzkeraz eta goi-nafarreraz idatzi testuetan ageri da batez ere, tradizioari dagokionez. 'Segur aski' edo 'zalantza gabe' esan nahi du: *Gauza horiek guztiak behar ditu gizonak noizean behin, eta gure baserritarrek inork baino gehiago, noski* (Agirre); *Idatzi, noski, erdaraz idazten zen edonon* (Mitxelena); *Zuek ere irakurriko zenuten, noski, eta nik ere bai, Fernando Amezketarraren liburua* (Azpiroz). Goi-nafarreraz eta gipuzkerazko testu batzuetan ere *naski* ageri da, eta 'segur aski' esan nahi du: *Beldur honek zituen naski ikaratzten: guk hemen behar gauzen eramaile, eta urruntzale izanen zela autobidea* (Larre).



## 22.9. Adberbioen sailkapen semantikoa (VII): Bestelako adberbio batzuk

### 22.9.1. Diskurtso markatzaileak

Lehenengo sail honetan, osaeraz edo jatorriz desberdinak izanik, diskurtso markatzaile modura erabiltzen ditugunetako batzuk biltzen dira (ikus 42. kapitulua, § 42.19 atala): *behintzat*, *behinik behin*, *bederen*, *gutxienez*, *bederik* eta horien gisakoak.

### 22.9.2. Ere

Bigarren saila osatzen du *ere* adberbioak. Emendiozko juntaduran (§ 28.4) erabiltzen da, eta emendiozko diskurtso markatzaileen artean aztertu da (§ 42.19, § 42.19.2).

### 22.9.3. Omen/ei, ote...

#### 22.9.3.1. "Partikulak" deituak

Hirugarren sailean sartzen ditugu *omen*, *ei* (bizk.), *ote*, *bide*, *al* eta *ahal* partikulak, zenbaitetan adberbiotzat hartu izan direnak (gramatiketan "partikulak" hitza erabiltzen da). Partikula hauek bakarka doaz, ezin dira elkarrekin agertu perpaus berean<sup>10</sup>. Aditzarekin batera ageri dira eta aditzaren esanahia batera edo bestera zertxobait aldatzen dute. Adizkia sintetikoa denean aurrean jartzen dira, eta adizki analitikoetan laguntzailearen aurrean: *Jakinez geroz harenak egin zuela*, *nehor ezin hurbildua omen zen* (Hiriart-Urruti); *Trenez baino arinago eta merkeago egin ei da eroate hori* (Kirikiño); *Eta ihardetsi zidan: "Ez ote dakizu zertara etorri naizen zuregana?"* (Duvoisin); *Baina euskara, zertako? Euskaldun*

<sup>10</sup> De Rijkke "partikula modalak" direla dio (2008: 161).

*ez direnek ez bide dute haren ikasteko gutiziarik* (Hiriart-Urruti); *Gizaldeak harritu ziren eta esan zuten: “Hau al dugu gero Dabiden semea?”* (Iraizoz). Ahoskeran arau fonologiko arruntak ezartzen dira: *omen zen* edo *al zara* elkar-etak *omentzen* eta *altzara* bezala ahoskatzen dira hizkera gehienetan.

### 22.9.3.2. *Omen/ei*

Batez ere Nafarroan eta ekialdean erabilia, *omen* (*omenean, umen...*) izena da: *Prezio guti du munduko famak eta omenak* (J. Haranburu). Adberbio gisa gipuzkeraz ere ageri da tradizioan, XVI. mendetik aurrera. Hiztunak aditzaren aurrean *omen* sartzen duenean, informazio hori besteri entzuna diola adierazten du, *diotenez, dirudienez, entzun dudanez* edo horien antzeko zerbait esango balu bezala. Baina ez dela segur esaten duenaz, hori adierazten du.

*Ei* mendebaldean erabilia da.

Bi hauetaz ikus § 23.5.3.2. Han aztertzen dira xeheki.

### 22.9.3.3. *Ote*

*Ote* partikulak galdera edo zalantza adierazten du. Elementu espekulatiboa da, nolabait esateko. Tradizioari dagokionez, gutxi erabili izan da goi-nafarreraz eta zubereraz. Gainerako euskalkietan arrunta da. Batzuetan *ete* aldaera erabiltzen da. Zuzeneko nahiz zeharkako galde perpausetan ageri da, baina galdera horiek erretorikoak direnez, hiztunak ez du erantzunik espero. Xehetasunak § 23.5.3.5 atalean ikus daitezke.

### 22.9.3.4. *Bide*

Sail honetan sartzen dugu *bide* ere. Berez izena da, baina badu beste zentzu bat ere, eta orduan partikulatza har daiteke. ‘Dirudienez, segur aski’ edo

holako zerbait adierazi nahi du: *Gauza sakona bide da, izan / itsaso hondar-gabea* (Lazarraga). Tradizioan ez da ageri, ez bizkaieraz, ez zubereraz. Baina Lazarragak erabiltzen du, eta arrunta da lapurteraz eta behe-nafarreraz, arruntagoa XVIII. mendetik aurrera. Goi-nafarreraz ere erabiltzen da: *Senda bide lezake bere lepratik* (Larregi); *Barneak eman bide dio basa dentista hark ez zekiela hortzen antolatzen* (J. Etxepare); *Horrelako lege fonetikorik ezagutzen ez dugunez gero, analogia izan bide da aldaketa horren eragilea* (Mitxelena). Hiztunak ezagutzen duen zerbaitek bultzatzen du esaten duenaren egia onartzera.

Xehetasunak § 23.5.3.3 eta § 23.5.3.4 ataletan ikus daitezke.

### 22.9.3.5. *Al*

Galde perpausetako *al* ere hemen sartzen dugu. Berez, XIX. mendearen erdialdean hasi zen indarra hartzen bizkaierazko eta, batez ere, gipuzkerazko testuetan: *A! Zu al zinen, Xabier?* (Etxaniz); *Ikusten al dituk mendi zuri haiek?* (Anabitarte). Jakina denez, *al* horren tokian Iparraldean *-a* atxikitzen zaio adizki jokatuari (§ 10.3.2.2), baina hori ez da, noski, adberbioa: *Tomate saltsarik jan duzua egun?* (Mirande). Horren parean beste euskalki batzuetan *Tomate saltsarik jan al duzu egun?* Edo, besterik gabe, *Tomate saltsarik jan duzu egun?*

Xehetasunak § 23.5.2 atalean ikus daitezke.

### 22.9.3.6. *Ahal*

Aditz aurreko *ahal* partikula honek hiztunak duen nahikari indartsua adierazten du: *Laster ikusiko ahal ditugu!* esaten badugu, adibidez, ez gara uste edo nahi apal bat adierazten ari, ez dugu adierazten espero duguna, baizik benetan gerta dadin nahi dugun zerbait. Horregatik ere, arruntean geroko marka daran aditzarekin doa adberbio hau: *Ez ahal gaitu, Jainkoarren, gaur gauean*

*zurtz utziko* (Aldasoro); *Gaixoa ni, babestuko ahal gaitu Jaunak, ez ahal dugu sekula horrelakorik ezagutuko* (Navarro).

Xehetasunak § 23.5.3.6 atalean ikus daitezke.

### 22.9.3.7. *Bai eta ez*

**22.9.3.7a** *Bai eta ez* baiezko eta ezezko adberbiotzat hartzen dira egungo hiztegieta (ikus, esaterako, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* nahiz RAErena), baina zalantzak gertatzen dira gramatikarien artean, kategoriaren sailkapenari dagokionez. Izan ere, perpaus osoa ordezka dezakete (*etorriko al zara bihar? Ez*), edo adizkia (*ama ez da joango, baina aita bai*). Ikus § 23.5.1.

Esaten dugunaren (adierazpenaren, galderaren, erreguaren, aginduaren...) baiezkotasuna edo ezezkoatasuna adierazteko erabiltzen ditugu *bai/ba-* eta *ez*; hau da, gure esanari egia balioa onartzeko nahiz ukatzeko. Eta galderetan, berriz, egia balioaz galde egiteko: *badakizu hori; ez dute lagunik; badakizu hori? Ez dute lagunik?*

**22.9.3.7b** *Bai*, eta ekialdean XIX. mendearen erdialdetik *ba*, ez dugu adizki jokatuekin batera erabiltzen; esaten dugunaren egia balioa onartzeko adizkia (jokatu edo jokatugabea) baliatzen dugu bere horretan: *etorri da, zu kalera irtetea nahi dut*. Besterik da, *bai/ez* motako erantzuna eskatzen duen galdera baten erantzunean-eta, perpausaren aurretik nahiz ondotik ematea, baina betiere etenune txiki batez lagundurik (idatzian koma bidez adierazten dugu etenune hori): *bai, atzo oso berandu iritsi nintzen / atzo oso berandu iritsi nintzen, bai*. Gehienetan ez dugu perpaus osoa errepikatuko, galdegaia baino ez dugu emango (ikus § 41.4.2b): *Bai, oso berandu; Bai, zinemara joan nintzen; Bagabiltza Piarres? —Ba, bagabiltza. Zuek ere ba?* (J. B. Elizanburu). Baieztapenaren indargarri moduan ere erabiltzen dugu, betiere eten txikien artean: *Izan zituen, bai, bere lanak botatako paper guztiak biltzen!* Perpausaren ordain balioa du horrelakoetan *bai* adberbioak.

*Bai* hizkera guztietako testuetan ageri da, hasieratik. Ekialdean, XIX. mendearen erdialdetik *ba* ere erabiltzen da *bai*-rekin batera: *Bai, ihardetsi zuen Etxe-*

*barnek* (J. B. Etxepare); *Ba, laboraria naiz* (J. B. Etxepare); *Ba, jauna, ba, handik heldu naiz* (Barbier); *Ez al da negar egitekoa hemeretzi gizon eder galtzea?* —*Bai, hori bai* (Agirre). Bakarrik agertzen ahal da (*bai*), edo beste esaldi batekin justaposizioan (*Etorri da, bai*).

Adberbio hori baiezkitasunaren indargarri ere erabiltzen da: *Izan zituen, bai, bere gauak argi honek. Nolakoak, ordea?* (Larramendi); *Aita Melani, jendar-meek ez ahantzia, ez dugu guk ere ahantzi behar.* —*Paulina ere hor dun, bai!* (Lafitte). Batzuetan, ezezkotasunaren aurkako zerbaiten gisa ageri da: *Jan bai horrek, lanik eginen ez badu ere* (Garate); *Aita eta Ama begira ez zeuden, baina Zu bai!* (Kardaberaz); *Ikusteko begirik ez eta negar egiteko bai!* (Agirre); *Hori ez da, beharbada, gizontasun prestua; bai, ordea, soziologia zuzena* (Mitxelena).

**22.9.3.7c** Zehaztasunen baten baietzaz edo ezetzaz galdetzeko/ziurtatzeko: —*Hi, hainbeste bagaituk, behintzat, edozertan.* —*Bai? Ezetz eraman [...] har-kaitzen hoge minutuan Txantxikoren ontzia* (Barrenso); —*Nik uste dut pintatu egiten dituela.* —*Bai? Agudo jakingo dugu!* (Iraola). Galdera bati erantzuna ematen zaiolarik: —*Ost-ostean joan nintzen igandean elizaraino.* —*Elizaraino bai? Asko egin zara orduan* (Agirre); —*Bera, ordea, bera denez ez dut sekula maite izan.* —*Eta Xalbat bai?* (Etxaide). Lotura balioa, entzulearen arreta edo oniritzia indartzeko, erakusten du zenbaitetan: *Horra zer milagroak bi aldi horietan San Frantzisko Xabierrek bere aldarean eginak. Bai?, bada biak bezain ikustekoa da orain adituko duzun hirugarrena* (Mendiburu); *Dena dela, gaurkoak ez du honezkero zuzentzerik, bai? Eta jan dezagun* (Lizardi).

Adizkia sintetikoa denean, *ba-* aurrizkia erantsiko diogu baiezkitasuna nabarmentzeko: *badator, badaki, bazekarren*. Baiezkitasun horixe izaten da orduan galdegaia (ikus § 41.4.2b). Zenbaitetan baiezko hori enfasi handiz markatzen da, *bai* perpausordaina ere etenen artean eransten zaiola: *Badakit, bai, non ibili zinen*. Ezezkoaren oihartzun gisa edo, baiezkoa hanpatzen duten egituretan aurki dezakegu *ba-*: *Ez da etorri! Bada etorri!*

**22.9.3.7d** Ezezko adberbioa *ez* da. Esaten dugunaren egia balioa ukatzeko erabiltzen da, eta perpausordain nahiz adizki jokatuaren aurrean ager daiteke.

Bizkaiera zaharrea *ze* ageri da (aginte eta subjuntiboazko adizkietan), eta hori dela eta, filologoek ustez, bi formek, *ez* eta *ze*, \**eze* zahar batean aurkituko luke iturri bakarra (ikus OEH). Hizkera eta garai guztietan erabilia. *Ze* erabiltzen du Lazarragak ere (beti agintezko adizkiekin: *Ze zaoz engañadurik*), eta *Refranes y Sentencias* liburuan ere. Euskaraz idatzitako lehenbiziko testuan ere ageri da: *Guek ajutu ez dugu* (Donemiliagako glosak, X. m.).

**22.9.3.7e** Galde perpausetan eta ezezkoetan ageri da: *Ez al duzu entzuten?* (Etxaniz); *Ez guk esan genitzakeen baino ederkiago bakarrik, baita zehatz eta zorrozkiago ere* (Mitxelena).

Balio espletiboa izan dezake galde perpausetan: *Eta arimen salbazioagatik zer ez dugu egin behar?* (Kardaberaz); *Zer ez zuen hark emango semeak eta bilobak bere ondoan ikustearren?* (Etxaniz).

Konparazio perpausetan: *Obraren handitasunera eta dignitatera behatzenago duzularik ezen ez translatazalearen inperfekzionetara* (Leizarraga); *Hobe zela poto egitea, ezen ez arrazoi txar bat emaita* (Xalbador).

Batzuetan adjektiboen aurrean ageri da: *Ipuin ez garbiak* (Astarloa); *Badirela zenbait ez-euskaldun horrelakorik aditu nahi ez dutenak* (Mitxelena); *Badira zenbait ez-gizon horrelakorik aditu nahi ez dutenak*.

**22.9.3.7f** Tokiari dagokionez, adizki laguntzailearen edo sintetikoaren aurrean ematen dugu: *ez da etorri, ez dut uste, ez dator*. Perpaus nagusietan eta zenbait mendekotan gertatzen da ‘*ez* + laguntzailea’ aurreratzea. Erlatiboazkoetan, *-enez* (*gero*), *-en arren*, edo *-enean* menderagailuak hartzen dituzten perpausetan ezin da horrelakorik egin: *irakurri ez duen liburua, liburua irakurri ez duzenez* (*gero*), *liburua irakurri ez duzun arren...*

Baina perpaus nagusietan ere, hain aspaldiko ez diren idazleen testuetan, batez ere Hegoaldekoetan, ikus daiteke ‘adizki nagusia + *ez* + adizki laguntzailea’ hurrenkera: *Eta Tomas ageri etzan* (Lardizabal); *Izen ori iñork ezagutzen ez du* (Lopez Mendizabal). Hurrenkera hori bera gordetzen da harridura tankerako moldea duten zenbait ezezko erretorikotan: *Hitzik gabe gelditu ez da, bada! Nola oroituko ez naiz, bada, horretaz!* Formaz ezezkoak izan arren, esanahia

baiezkoa dute adibide horiek; ez dira ukapenak, baiezko hanpatuak baizik. Adizki laguntzailea isilpean gordetzen denean ere ordena horixe gertatzen dela pentsa daiteke: *Horrek egiten ez eta guk egin behar al dugu? Bertze inor ezagutu ez eta, nire kazetaritza ikasketak medio, neroni izan nintzen aukeratu* (Epaltza); *Baina jaieguna iritsi eta inor agertzen ez* (Zubizarreta).

**22.9.3.7g** Ezezko perpausak koordinatzen ditugunean, gerta daiteke ukapen desberdinen batuketa izatea: *Ez gara garaiz iritsi eta ez dugu ezertxo ere ikusi*. Baina gerta daiteke aukera desberdinen ukapen bakarra izatea ere: *Ez galdu da ez galduko; Ez galdu da eta ez galduko ere; Ez berak egiten du, ez guri egiten uzten (digu)*. Horrelako egituretan, koordinatzen diren perpaus edo sintagmen aurrean ematen dugu *ez*. Idazle zaharren testuetan ere aurki daitezke horrelako adibideak: *Ez atseginik nahi du utzi, eta ez penarik hartu* (Axular).

Ezezko perpausetan ukagai (ikus § 41.4.3g) bat baino gehiago zerrendatzen ditugunean, bakoitzaren aurrean eman dezakegu *ez*: *Ez zuen ez jantzirik, ez lo-zakurik, ez paperik, ez eta dirurik hartu* (Borda); *Baina hark ez zuen ez erantzun ez irribarrerik egin* (Montorio); *Ez zuen ez lagunik ez adiskiderik, ez erlijiorik ez sinesterik* (Aldasoro). Ezezkoa indartu nahi dugunean, aukeran dugu *ez* perpausordain gisa erabiltzea, eten artean: *Ez nuen, ez, zuen berri; Ez dut ez holakorik egingo, nire jaun hori* (Ezkiaga).

**22.9.3.7h** Badirudi, sintaxiaren ikuspuntutik, ezezkotasunak autonomia duela euskaraz: *Etxe hau ez da polita, eta hango hura ere ez*. Ohart gaitezen bigarren zatian ez dela ezinbestekoa aditza agertzea. Ez da holakorik gertatzen beste hizkuntza batzuetan (... *that one isn't either*), non aditz gabeko perpausa (... *\*that one not either*) ez baita gramatikala. Ingelesaren kasuan ezetza aditz inflexioarekin, hots, perpaus buruarekin loturik legoke. Euskaraz ezezko polaritatea gertatzen da perpaus hasieran: *Norbait dator, baina Inor ez dator*. De Rijken ustetan (2008: 165-166, I. Laka 1990, 1991 aipatzen du puntu honetan) horren arrazoia litzateke, berriz ere, ezetzak perpaus hasierari eragitea, eta ez ezinbestean inflexio osoari.

Esan dezagun, azkenik, adberbio honek baduela izen erabilera ere: *Lehenbiziko ezean eta errefusean ez dezagun etsi* (Axular); *Egokera hura, ordea, ez zen*

*orekarik eza baizik* (Txillardegi); *Batasunik eza* (Mitxelena); *Eleberri batean, ordea, ez dute behin ere [...] estaliko hemen-oraingo gertarien gabea eta eza* (Mitxelena); *Etorkizun beltz! / Zer duk niretzat? / Poza? Ezaren zuloa?* (Etxaniz). Adjektibo erabilera ere badu: *Inork baino ezagunago baititu nire idazlan argitaratuak eta ezak* (Orixe).

*Bailez* oposizioa ere marka daiteke, osagai bat baieztatu eta beste bat ukatzeko: *Ikusteko begirik ez eta negar egiteko bai* (Agirre).

**22.9.3.7i** *Ez* eta *bai* bestalde, *-tasun* atzizkiaren oinarri ere izan dira: *Zelango eragozpenak, ogi ta gauza askoren eztasunaz?* (Mogel); *Istiluak, hondamenak eta eztasun gorria baino ezin zezaketela ekarri* (K. Izagirre); *Errukarri izate hori, batere zentzurik gabeko hitza da, edo, bestela, eztasun mingarria* (Igerabide); *Irlandarren eztasun linguistikoa Irlandako estatuaren muinean dago* (K. Izagirre); *Ilusioa transmititzen dute, baikortasuna, alaitasuna, poza, etorkizuna, pluraltasuna, multietniatasuna... baitasuna alegia* (Otamendi).

Esan bezala, *ba-* eta *ez* adizki sintetikoen aurre-aurrean ematen ditugu (eta *ez* adizki analitikoetan, adizki laguntzailearen aurre-aurrean). Tartean ezin da bestelako osagairik ezarri, ez bada *al* galdera markatzailea edo modalitatea adierazten duten *ahal*, *bide*, *omen/ei*, edo *ote*.



## 23. Aditza (I): aurkezpena

---

### 23.1. Sarrera

- 23.2. **Aditz motak**; 23.2.1. Morfologia egitura; 23.2.1.1. Aditz bakunak, eratorriak eta elkartuak; 23.2.1.2 Aditz arazleak; 23.2.1.3. Aditz predikatu konplexuak; 23.2.1.3.1. [izena + *egin*], [PS/adberbioa + *egin*] egiturako aditz lokuzioak; 23.2.1.3.2. [izena/DS + *eman/hartu*] egiturako aditz lokuzioak; 23.2.1.3.3. [izena/DS/PS + *eman, hartu, jan, jo, lotu, sartu...*]: *lur jo, gogoak eman, bideari lotu, kontuan hartu*; 23.2.1.3.4. [izena/adjektiboa + *izan (da/du)*] egiturako aditz predikatuak; 23.2.1.3.5. [adberbioa/PS/adjektiboa + *egon, ibili*] aditzekin osatutako predikatu konplexuak; 23.2.2. *Kasu-balentziak*; 23.2.2.1. *Kasu-balentziaren* araberrako lau aditz mota nagusiak: *da, du, zaio, dio*; 23.2.2.2. Aditz intrantsitiboa; 23.2.2.3. Aditz intrantsitibo datibodunak; 23.2.2.4. Aditz intrantsitibo ergatibodunak (eta intrantsitibo ergatibodun eta datibodunak); 23.2.2.5. Aditz trantsitiboak; 23.2.2.6. Aditz ditransitiboak; 23.2.2.7. Alternantziak; 23.2.2.8. Aditz trantsitibozko perpausak inpersonal bihurtzea; 23.2.2.8.1. Adizki trantsitiboa intrantsitibo bihurtzea (*onartu da*); 23.2.2.8.2. Hirugarren pertsona gramatikal pluralari erreferente-balio generikoa ematea (*debekatu dute*); 23.2.2.8.3. Pasiboa eta erdi-pasiboa; 23.2.2.8.4. Datibozko *esperimentatzailea* ezabatzea; 23.2.2.8.5. Zenbait esapide berezi
- 23.3. **Argumentuak**; 23.3.1. Aditza eta argumentuak; 23.3.2. Izena eta argumentuak
- 23.4. **Aditz modalak**; 23.4.1. Sarrera; 23.4.2. *Ahal izan*; 23.4.3. *Behar izan*; 23.4.4. *Ezin izan*; 23.4.5. *Nahi/gura izan*
- 23.5. **Adizki jokatuaren inguruko osagaiak**; 23.5.1. *Bai/ba-* eta *ez* adberbioak; 23.5.2. *Al* eta *-a* galdera markatzaileak; 23.5.3. Modalitate epistemikoa eta

ebidentzialitatea: *omen/ei, bide, ote* eta *ahal* partikulak; 23.5.3.1. Ezaugarri orokorrak; 23.5.3.2. *Omen/ei*; 23.5.3.3. *Bide*; 23.5.3.4. *Omen* vs *bide*; 23.5.3.5. *Ote*; 23.5.3.6. *Ahal*

---

## 23.1. Sarrera

**23.1a** Honela definitu ditugu aditzak Gramatika honetako bigarren kapitulu- luan (§ 2.3.1): gertaerak, ekintzak, egoerak, prozesuak, deskribatzen dituzten hitzak. Aditz kategoriakoak dira, beraz, *joan, mintzatu, egon, erosi, ekarri, etorri, gustatu, bizi izan, jakin, eskiatu, gosaldu* edo *esan* hitzak. Aditzak munduko izakiek parte hartzen duten egoerak (*bizi izan, egon, jakin...*) edo ekintzak (*erosi, edan, eskatu, joan...*) denotatzeko erabiltzen ditugun hitzak dira.

Aditza predikatu bat da eta entitateen egoerak edo ekintzak predikatzeko era- biltzen dugu. Predikazioaren gunean dagoen elementua da, beraz, aditza: *Nes- kek mutilek baino askoz diru gutxiago irabazten dute futboleanean* perpausean, *neskek* sintagmari buruz predikatzen dugunaren [*mutilek baino askoz diru gutxiago irabazten dute*] gune, ardatz da *irabazi*. Beraz, perpaus guztietan izango dugu aditz kategoriako hitza, agerian nahiz isilean.

Aditz jakin batek adierazten duen gertaera, ekintza edo egoerak parte hartzai- le batzuk izango ditu, aditz horrek eratzen duen perpausean nahitaez agertu behariko dutenak. *Etorri* aditzak, esaterako, nahitaezkoa du *nor* datorren edo etorri den zehaztea, eta askotan *nondik* datorren eta/edo *nora* datorren ere bai. Beste osagai batzuk, ostera, hautazkoak izango ditu, hala nola *noiz* datorren edo *nola* datorren adierazten dutenak. *Argumentu* esaten zaio aditz batek nahi- taez eskatzen dituen osagaietako bakoitzari, eta aditz baten *argumentu egitura* nahitaezko osagaien multzoari. Argumentuak *osagarriak* izan daitezke (*gela garbitu du*) edo *adjuntuak* (*Iruñetik etorri da*).

Bigarren kapitulu- luan aipatu ditugun hiru ezaugarri horien eta hiru ezaugarri horietatik datozen beste batzuen berri emango dugu aditzari eskainiko dizkio-

gun bost kapituluetan. Ondorengo puntuetan aletuko ditugu xehekiago kapitulu horietako edukiak.

**23.1b** Batetik, aditz kategoriako hitz horiek hainbat irizpideren arabera sailka ditzakegu. Aditzaren morfologia egiturari erreparaturik, aditz bakunak (*etorri, erosi, joan, eman, ikusi*), elkartuak (*hostoberritu, lekualdatu, onetsi*), eratorriak (*luzatu, gizondu, kaleratu, ureztatu*), eta aditz predikatu konplexuak (*maite izan, gorroto izan, gai izan, lan egin, min hartu...*) bereiziko ditugu. Aditzen sailkapen semantikoa ere egin daiteke, aditzek zer gertakari mota adierazten duten kontuan hartuta; irizpide honen arabera bereiziko ditugu gertaera adierakoak, aldaketa edo iraupena adierazten dutenak, ‘iritzi’ aditzak, egoera baten, ekintza baten edo prozesu baten berri ematen dutenak, mugimendua adierazten dutenak eta abar. Aditzaren esanahiak, jakina, lotura estua du aditz horren argumentu egiturarekin. Hau da, azken batean esanahiak erabakiko du adierazten duen gertaera, prozesu zein ekintzak zenbat parte hartzaile eskatzen dituen. *Saldu* aditzak, esaterako, gutxienik bi parte hartzaile behar ditu: saltzailea eta salgaia, baina ohikoa izaten da hirugarren bat ere gehitzea, ekintza horren hartzailea, alegia. Hau da, *norbaitek zerbait saltzen dio* norbaiti. *Irakurri* aditzak, oro har, bi parte hartzaile eskatzen ditu: *nork* irakurtzen duen eta *zer* irakurtzen duen. Aipatu ditugun bi aditz horietako parte hartzaileak sintagma ergatiboaren, sintagma datiboaren, eta sintagma absolutiboaren bidez adierazten ditugu (ikus 18. kapitulua: “Egiturazko kasuak”). *Gustatu* aditzak ere bi parte hartzaile eskatzen ditu; baina ez ditugu sintagma ergatiboaren eta sintagma absolutiboaren bidez adierazten, baizik sintagma datiboaren eta sintagma absolutiboaren bidez (*nori, zer*): *Ume gehienei gustatzen zaie txokolatea*. Aditzen “argumentu” deitzen diegu aditzek duten sare semantikoan ageri diren osagaiei (ikus § 1.5c). Argumentu sare horren eta argumentu horiek adierazteko baliatzen ditugun funtzio sintaktikoen arabera bereizten ditugu, esaterako, aditz trantsitiboak (iragankorrek), intrantsitiboak (iragangaitzak), eta azken hauen artean, intrantsitibo absolutibodunak (*Jon berandu etorri da*), intrantsitibo datibodunak (*Joni txokolatea gustatzen zai*) eta intrantsitibo ergatibodunak (*Jonek oso ondo eskiatzen du*); edo trantsitiboen ondoan, ditransitiboak (objektu zuzenaz gain, zehar-objektua ere badutenak, *Jonek Mikeli autoa eskatu dio*). Beste hizkuntza batzuetan “inakusa-

tibo” eta “inergatibo” terminoak ere erabili dira, hurrenez hurren, intrantsitibo absolutibodunak eta intrantsitibo ergatibodunak izendatzeko, baina hobeto egokitzen zaizkio euskarari *intrantsitibo absolutibodun* eta *intrantsitibo ergatibodun* terminoak.

Irizpide horiek guztiak hartuko ditugu kontuan aditzari eskainitako kapitulu honetako bigarren puntuan aditz motak aztertzean (ikus § 23.2). Eta argumendu egituren puntua sakonduko dugu § 23.3 atalean.

**23.1c** Aditza predikazioaren gunean dagoela esan dugu, baina aditz kategoriako hitzak ezin ditugu bere horretan erabili perpausean. Izenak ISen buru izan arren mota bateko edo besteko determinatzailea eskatzen duten bezala, aditz kategoriako hitzek ere kategoria funtzionalen laguntza behar dute perpausa osatzeko. Ezin dugu esan, adibidez: *Gure lagunak atzo goizean Aizkorrira igo; Senarrari tomatea erosteak ahaztu* edo *Informatiboek gehienetan berri txarrak eman*. Horiek ez dira perpausak. Horretarako, beharrezkoa da euskaraz hiru kategoria funtzional adieraztea: aspektua, aldia eta pertsona komunztadura. Batetik, egoera, ekintza edo gertaera hori dagoeneko burutua den ala ez adierazi beharko dugu; edo une honetako den, edo ohiturazkoa (hau da, behin baino gehiagotan gertatzen dena), edo gertakizun dagoen. *Aspektu* esaten zaio informazio horri eta euskaraz aditzari *-tu* (badira beste atzizki batzuk ere, hala nola *-i* aurrerago ikusiko dugun moduan), *-t(z)en* edo *-kol-en* erantsirik adierazten dugu; hots, partizipio burutuena, burutuga-been eta partizipio prospektiboen bidez, hurrenez hurren (*etorkizuneko partizipio* terminoa darabil Euskaltzaindiak 85. arauan).

Euskaltzaindiaren 85. araua: “Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma”, Baionan, 1998ko maiatzaren 29an onartua.

Bigarrenik, gertaera edo ekintza hori iraganekoa den ala ez zehaztu beharko dugu. Beste morfema funtzional batzuek baliatuko gara aldia adierazteko: *-en/∅* (*zegoen/dago, esan du / esan zuen*).

Eta, azkenik, pertsona eta numero komunztadura adierazten duten morfema funtzionalak ere beharrezko zaizkigu perpausa osatzeko. Izan ere, egiturazko

kasu deitu ditugunek —absolutiboak, ergatiboak eta datiboak— komuntadura egiten dute aditzarekin, hau da, pertsona eta numero ezaugarriak “kopiatzen” dituzte aditzean: *nik liburua erosi dut / nik liburuak erosi ditut / zuk liburua erosi diozu aitari / zuk liburuak erosi dizkiozu aitari* eta abar.

Hiru kategoria funtzional horiek —aspektuak, aldiak eta pertsona- eta numero-komuntadurak— INFLEXIOA osatzen dute. Berez perpaus osoari dagozkio (ikus § 2.14), baina aditzari erantsirik ematen ditugu: *erosi dut, erosten nion, zetorkion, emango dizkit...* ‘Adizki’ esaten diogu perpausetako aditz formari; hau da, kategoria funtzionalei dagozkien atzizkiekin ageri denari. Adizki jokatupei eskainitako kapituluan aztertuko ditugu kategoria funtzional horiek (ikus 26. kapitulua).

Pertsona markei dagokienez, bi motatakoak bereizi behar dira euskaraz: perpausoko egiturazko sintagmei dagozkien morfema funtzionalak eta solaskideari dagozkionak. *Peru berandu dator* edo *Mikelek garesti ordaindu du etxe berria* perpausetan sintagma ergatibo eta absolutiboen komuntadura markak ditugu; hurrenez hurren, *Peru* hirugarren pertsona singularreko sintagma absolutiboa, eta *Mikelek* hirugarren pertsona singularreko sintagma ergatiboa gehi *etxe berria* hirugarren pertsona singularreko sintagma absolutiboa. Baina euskarak badu aukera solaskidearen aztarna, gizona eta emakumezkoarena, adizkian emateko. Goiko adibide horietan, emakume batekin ari bagara, esan dezakegu *Peru berandu zetorren*; edo *zeturrek* gizon batekin ari bagara. Berdin egin dezakegu bigarren adibidean ere: *garesti ordaindu din / garesti ordaindu dik*. Solaskidea adizkian “sartzeaz” gain, gizon edo emakume horri zuzentzen gatzazkionean *hi* esaten diogula ere adierazten dugu (konfiantzazko trataera ematen diogula, alegia). *Hitano* esaten zaio euskaraz solaskidea aintzat hartzen duen tratamendu honi eta *adizki alokutibo* solaskide horren marka daraman adizkiari (ikus 27. kapitulua).

**23.1d** Adizkien artean, ordea, bi motatakoak bereiz daitezke: hitz bakarrean ematen ditugunak (*dator, nekien, deritzo, dakarkit, zebilen*) / bi hitzetan ematen ditugunak (*etorriko da, esaten dizut, eman zizkidan, irakurriko zenuen...*). *Adizki sintetiko* esaten zaie euskaraz lehenengoei (euskal gramatiketan “adizki trinko” terminoa ere ohikoa izan da) eta *analitiko* (edo “perifrastiko”) bigarre-

nei, bi hitzetan ematen ditugunei. Azken hauetan, aditzak eta aspektu markak osatzen dute lehen parte (askotan aditz nagusi ere deitu zaiona) eta laguntzaileak bigarrena. Izan ere, bigarren osagai horrek, aldi berean, badu aditz laguntzaile deitzen dioguna, eta horri eranstean zaizkio aldia eta pertsona- eta numero-komuntadura adierazten duten atzizkiak. Lau aditz laguntzaile bereizten dira euskara idatzi estandarrean (baina euskalkietako aldaerak kontuan harturik euskarak sei laguntzaile ditu orotara, ikus § 26.3.3). Estandarreko lau horietatik bakarra da aditz kategoriako hitza edo lexema: *izan*. Gainerakoen *erroa* ikusten dugu eta erro horrek hartzen ditu atzizki funtzionalak: *erosi nituen* adizkian, adibidez, *n-* eta *-it-* dira lehen pertsonako sintagma ergatiboari eta hirugarren pertsonako objektu pluralari dagozkion markak, *-en* aldi iraganeko adizkiaren marka. *Ikusi ninduen* adizkian, lehen pertsonako sintagma absolutiboari dagokio *n-*, eta iragan aldiari *-in-* eta *-en* atzizkiak. Horiek guztiek *-(d)u-* erroa dute euskarri, eta horregatik proposatu izan da laguntzaile horren aditz lexematzat *\*edun* forma, nahiz testuetan ez izan forma horren lekukotasunik. Aditzak erabakitzen du zein laguntzaile mota hartuko duen, *izan* ala *\*edun*.

Beste bi aditz laguntzaileak *\*edin* eta *\*ezan* dira, hauek ere forma eraikiak, ez baitute lekukotasunik testuetan: *joan dadin*, *esan dezan* adizkietan ageri zaizkigu, hurrenez hurren, bata eta bestea. Aurreraxeago itzuliko gara *izan*, *\*edun*, *\*edin* eta *\*ezan* laguntzaileen arteko bereizketara (edo, nahiago bada, benetako formak erabiltzearen *da*, *du*, *dadin*, *dezan* bereizketara). Adizki jokatuaren kapituluan ikusiko ditugu aditz laguntzaile hauek ere (ikus § 26.3.3).

**23.1e** Orain arteko adibideetan adizki guztiek zeramatzaten aspektu, aldi eta komuntadura markak. Adizki jokatuak ziren guztiak. Baina badira horrelako markarik ez dutenak ere, adizki jokatuak alegia. Azken hauek partizipio burutu forman ageri dira edo *-tze* atzizkia oinarri duen formaren bat hartzen dute, oro har, perpausa osatzeko. Partizipio burutua dute zehar-galderetako, erlatibozko, moduzko zein denborazko mendeko perpaus jokatuak, baita kontzesiboek ere: *Hobe duzu poliki ibili*; *Lanean hasi baino lehen*; *Zuk egin(dako) lana*; *Hori eginagatik...* Beste mendeko askok *-tzeren* bidez erazten dituzte perpaus jokatuak: *Atzo goiz osoan alde batetik bestera ibil-*

*tzea*; *Saiatuko naiz* [*lanak garaiz amaitzen*]; *Azkenean utzi dio* [*zigarroak erretzeari*], *baina* [*puruak erretzen*] *jarraitzen du*; [*Eguneroko gimnasia saioa egitetik*] *nator*... Adibide horietan predikazio baten buru dira *ibili*, *hasi*, *egin*(*agatik*), *ibiltzea*, *amaitzen*, *erretzeari*, edo *egitetik*; baina predikazio horiek, perpaus horiek ez dira beregainak, beste baten beharra dute. Horregatik adibide horiek ezin ditugu bere horretan erabili, osatu egin behar ditugu. Hain zuzen ere adizki jokatuak duten gisako kategoria funtzionalik ez izatetik datorkie perpaus beregainak osatu ezina. Aditz izen esaten diogu euskaraz *-tze* atzizkia hartzen duen formari. Aspektu burutugabea adierazteko ere *-tze* baliatzen dugu, ondoren inesiboko *-n* duela. Laburbilduz, adizkien artean jokatuak eta jokatugabeak bereizi behar ditugu; eta jokatuaren barruan, sintetikoak eta analitikoak.

Bestalde, *-tze* adizkiek badituzte izenei egozten zaizkien ezaugarriak ere, baina beste leku batean aztertuko ditugu *-tze* adizkien eta izenen arteko antzak eta desberdintasunak, dagoeneko kapitulu batean edo bestean aipatuak ditugunak eta aurrerago ere ikusiko ditugunak (§ 4.5.9, § 11.5, § 30.6.3).

**23.1f** Adizkiek, dela sintetikoek dela analitikoek, inflexio markez gain beste-lako morfema funtzionalak ere har ditzakete, perpausen arteko menderakuntza erlazioak ere adizkiei erantsiriko atzizkien (edo *ba-* aurrizkiaren) bidez ematen baititugu. Honako adibide hauetan *-(e)la*, *-(e)n*, *ba-* eta *bait-* morfema funtzionalak mendeko perpausen ezaugarri dira: *Ane ikusten baduzu, esaiozu bihar deituko diodala*; *Ez zaio behingoan ahaztuko gaur ikusi duen filma*; *Ezingo zara Parisera joan, ez baituzu bete agindutakoa*. *-(e)la* morfemari *-ko* edo *-rik* erantsirik sortu dira *-(e)lako* eta *-(e)larik*. *-(e)n* morfemak postposizio atzizkiak *-(e)nean*, *-(e)netik* eta morfema beregainak *-(en arren)* har ditzake. *Menderagailu* deitzen diegu horrelako morfema funtzionalei.

Menderagailu gehienak atzizkiak dira eta adizki jokatuak bakarrik erants daizkieke. Mendeko perpaus batzuetan, ordea, morfema beregainak ere ikus ditzakegu: *Nahiz berandu iritsi zaren, afaria gorde dizugu*; *Berandu iritsi zaren arren, afaria gorde dizugu*; *Esan dudan orduko damutu naiz*... Adibide hauetan menderagailua morfema beregain batez eta atzizki batez dago osatua: *nahiz* ... *-en*, *-en arren*, *-en orduko*. Mota honetako menderagailu konplexuek

aukera ematen dute morfema beregaina bakarrik erabiltzeko adizki jokatu-gabeekin: *nahiz berandu iritsi, berandu iritsi arren, esan orduko*. Zeren perpaus jokatu-ekin bakarrik erabil daiteke, askotan *bait-* edo *-en* ondoan dituela. Zeren ... *bait-* egituran aukeran dugu *zeren* erabili edo ez, kausa balioa *bait-* morfema ematen duelako (§ 38.6): *Zeren kanpaiak Mattinentzat ari baitziren bereziki* (Irigoien). Baina maiz ageri zaigu bera bakarrik ere, eta orduan nahitaezkoa da *zeren* (diskurtso markatzailatzat hartzen duguna, § 42.23.2), bestela kausa balioa galdu egiten delako: *Arma hauekin ni ezin higi naiteke, zeren ez nago ohitua*. Mendeko perpausak aztertzean ikusiko dugu xeheki nolako men-deragailuak baliatzen ditugun perpaus mota bakoitzean.

**23.1g** Adizki jokatu-etan, aditz laguntzaileen *erroa* aipatu dugu (§ 23.1d) eta eratorpenari eta hitz elkarketari eskainitako kapitulu-etan *aditzoin* terminoa ere erabili dugu (aditzoina da-eta hainbat atzizkiren oinarri eta hitz elkarketa mota batzuetako osagai). Bi termino horiez zer adierazten den hobeto ikusteko, aldera ditzagun hiru forma hauek: *etorri, etor, -tor-*. Lehen biak forma beregainak dira; azkena ez, eta horregatik eman dugu marratxo artean. Hala ere, lotura estua du aurreko biek. Nola defini dezakegu forma horietako bakoitza? *Etorri* aditz kategoriako hitza dela esan dugu kapitulu honen hasieran; horixe da “hitz egiten duena dagoen tokira joan” ekintza izendatzeko erabiltzen duguna, hiztegi- eta sarrera dena. Baina morfologiaren ikuspegitik, bi morfema, bi osagai ditugu hor: *etor* kategoria lexikoa eta *-i* aspektu marka (kategoria funtzionala). Argi ikusiko dugu hori *etorri da / etortzen da / etorriko da* adizkiak alderatzen baditugu: hiru horietatik lehena erabiliko dugu ekintza hori burutua denean, *etortzen* (besteak beste) behin eta berriz gertatzen den ekintzaz dihardugunean eta *etorriko* gertakizun den zerbaitez ari garenean. Beraz, aditz kategoriako hitzak partizipio burutuari dagokion aspektu marka eta guzti aipatzen ditugu (izenak ere artikulatu eta guzti aipatzen ditugun bezalaxe).

Baina aspektu markarik gabe ere ager daiteke aditza: *etor, ekar, ikus, ikas, ida(t)z, azter...* ‘Aditzoin’ esaten diogu euskaraz aspektu markarik gabeko formari. Bi egitura motatan baliatzen dugu euskaraz aditzoina: batetik, hitz berriak sortzerakoan —*ikusgarri, ekarpen, azterketa, etorbide, idazluma...*—;



bestetik, aditzoina ikusiko dugu adizki jokatu askotan ere: *etor gaitezen, ikus dezagun, azter dezaket, ikas ezazu...*

Euskaltzaindiaren 28. araua: “Aditzoinen forma”, Bilbon, 1995eko otsailaren 24an onartua.

Aditz erroa oraindik ere elementu txikiagoa da: ez da morfema beregaina, baina aditzaren esanahia adierazten du. Adizki sintetikoetan ageri da dagokion aditzaren erroa: *nator, henbilen, zegoen, dakarkit*. Adizki horietan, *e-tor-i, i-bil-i, e-go-n* eta *e-kar-i* aditzen erroak dira, hurrenez hurren, *-tor, -bil-, -go-,* edo *-kar-*. Erro horiei lotzen zaizkie denbora eta pertsona eta numero komuntadura atzizkiak. Baita solaskidea adizkian txertatzeko atzizkiak ere: *zatorrek, zekarrenan...* Eta adizki analitikoetako aditz laguntzaileetan ere *\*e-du-n, \*e-di-n* eta *\*e-za-n* aditz laguntzaileen erroak dira *esan dezan, etor dadin* edo *ekarri ninduen* adizkietan ageri direnak.

Aditz gehienek ez dute forma sintetikorik, adizki analitikoak bakarrik era ditzakete. Beraz, aditz guztiek izango dute aditzoina, baina gutxi batzuek bakarrik erroa. Adizki jokatugabeari eskainitako kapituluan aztertzen dira aditzoinak (§ 26.3.2.4) eta aditz erroak (§ 26.1.1).

**23.1h** Aditz laguntzaileez baliatzen gara ‘modua’ adierazteko. Besterik gabe zerbaiten berri eman nahi dugunean, indikatibo esaten zaion modua erabiltzen dugu. *Izan* eta *\*edun* aditz laguntzaileek osatzen dituzte indikatiboko adizki analitikoak (perifrastikoak): *etorri naiz, esan ziguten*. Eskariak, erreguak, aginduak... adierazteko subjuntiboa eta agintera baliatzen ditugu eta dagokien adizki jokatuak *\*edin* eta *\*ezan* laguntzaileekin eratzen ditugu: *ekar dezagun, joan gaitezen, esan iezaguzu*. Indikatiboko, subjuntiboko eta aginterazko formen ondoan, baditugu ahalerazkoak eta alegiazkoak ere. Ahalerazkoek *\*edin* eta *\*ezan* laguntzaile hartzeaz gain, *-ke-* morfema funtzionala dute ezaugarri: *etor naiteke, ikus dezakezu*. Alegiazko adizkiek *ba-* aurritzia edo *-ke* atzizkia daramate: *sartzen balitz, egin balu, sartuko litzateke, egingo luke*. Baina aipatu ditugun bi balio horiek baino erabilera zabalagoa du *-ke* atzizkiak; ahalerazko eta alegiazko formetan agertzeaz gain, aldi oraineko eta

iraganeko laguntzaile guztiek har dezakete eta denbora-aspektu-modu perifrasi guztiekin konbina daiteke: *sartzen dateke, ikusten duke, ikusi zukeen, sartuko dateke, ikusiko zukeen...* (ikus § 26.3.5.3).

**23.1i** Adizki jokatuaren ondoan ager daitezke beste osagai batzuk ere, hala nola *ahal, bide, omen/ei, ote*, edo *al, -a: etorri omen da; etorri ote da?; etorri al da?; jin dea?* Adizki jokatuaren inguruan ematen ditugu, halaber, *bai/ba-* eta *ez*, esaten dena baieztatzeko edo ezeztatzeko balio dutenak. *Ba-* eta *ez* ere adizki jokatuaren, zehazkiago esanda, laguntzailearen aurre-aurrean ematen dira, partikula modalak edo *al* galdera marka tartekatzen direnean izan ezik: *badoa / ba omen doa; ez doa / ez omen doa; ba ote doa; ba al doa?* Bi multzo handitan banatu behar ditugu osagai horiek (EGLU-II 1987b: 486): egia baliorekin zerikusia dutenak (*bai* eta *ez*), eta *ziurtasun neurriari* buruzko *ñabardurak* edo *informazio iturriari* buruzkoak ematen dituztenak (*ahal, bide, omen/ei, ote*). Hirugarren bat gehitu beharko genioke sailkapen horri: galdera egitura nabarmentzera datozen *al* partikula eta ipar-ekialdeko hizkeretako *-a* atzizkiak osatzen dutena (§ 10.3.2.5, § 10.4, § 22.9.3). § 23.5. atalean aztertuko ditugu osagai horiek guztiak.

Bada beste morfema bat ere, *ohi*, kokagunea laguntzailearen aurrean duena: *etorri ohi da, egiten ohi zituen...* Aspektuari loturiko balioa ematen du eta, horrenbestez, adizki jokatuari eskainitako kapituluan aztertuko dugu, aspektuaz ari den atalean (ikus § 26.1.4.2).

**23.1j** Modalitatea adierazten dute beste adizki hauek ere: *gauza handiak egin ahal ditu, gauza handiak egin asmo zituen, gauza handiak egin behar ditut, gauza handiak egin nahi/gura ditut, gauza handiak egin gogo ditut, ezin ditut liburu horiek guztiak irakurri*. Bi aditz ditugu adibide horietako bakoitzean: *egin* eta *irakurri* batetik, eta horiei eransten diegun *ahal, asmo, behar, ezin, gogo, gura/nahi, uste + izan* bestetik. *Egin* eta *irakurri* aditzek esaten digute zer gertaeraz ari garen; horiek ematen dute oinarrizko esanahia. Gertaera horretarako ahala, gogo, asmoa, nahia, beharra edo ezina adierazten duen izenak eta *izanek* osatzen duen predikatua gehitzean modalitate deontikoa adierazten da gehienetan (ikus § 10.4). § 23.4 atala eskaintzen zaie aditz modalei.

**23.1k** Aditz perifrasiak. Predikazio berean aditz nagusi batek eta hura osatzera datorren, hari eragiten dion beste aditz batek eratzen duten egiturari esaten zaio aditz perifrasi. Mota horretako egiturak dira *-tzen hasi* (*kantatzen hasi*), *-tzeari utzi* (*erretzeari utzi*), *-tzera joan...* *Hasi, utzi* edo *joan* aditzek moldatu egiten dute, eragin egiten diote aditz nagusiari (*kantatu, erre...*). Perifrasi horietako askok modua adierazten dute, edo aspektua; mendeko perpau-sen harira ikusiko ditugu horietako bat baino gehiago (§ 30.6.3). Berez adizki jokatu gehienek ere egitura analitikoa, perifrastikoa dute: adizki nagusi batez eta adizki laguntzaile batez osaturik daude. Neurri batean, modu bereko egiturak dira *kantatzen hasi da*, *kantatzera doa* eta *kantatzen du*. Baina adizki analitikoetako adizki laguntzailea guztiz gramatikalizatu da, bere esanahia galdu du eta inflexio markei oinarria baino ez die ematen. § 26.4 atalean aztertzen da zer motatako aditz perifrasiak ditugun euskaraz.

## 23.2. Aditz motak

Hainbat irizpideren arabera sailka ditzakegu aditzak: morfologia egituraren arabera, esanahiaren arabera, hartzen duten laguntzailearen arabera edo argumentu egituraren arabera. Euskal aditzek duten morfologia egitura aztertuko dugu hurrengo puntuan, eta ondorengoan, berriz, aditzen balentzia (zein laguntzaile mota hartzen duten). § 23.3 atalean arduratuko gara *argumentuez*; eskatzen dituzten parte hartzaileen (eta parte hartzaile hauek duten paper tematikoaren) arabera sailkatuko ditugu aditzak.

### 23.2.1. Morfologia egitura

#### 23.2.1.1. Aditz bakunak, eratorriak eta elkartuak

**23.2.1.1a** Morfologia osaera kontuan hartzen badugu, aditz asko eta asko bakunak direla esango dugu. Barne egiturarik ez dutenak, gehiago zati ezin daitezkeenak dira aditz bakunak. Berdin dio jatorriz euskal aditzak diren edo

maileguz hartuak: *ahaztu, barkatu, bedeinkatu, erori, esan, etorri, etzan, gelditu, ikusi, irakurri, joan, sartu, dimititu, heredatu, simulatu, sufritu...*

**23.2.1.1b** Beste aditz asko izenetatik edo adjektiboetatik eratorriak dira: *adiskidetu, amatu, egurtu, gizondu, lekutu, loratu, lotsatu, umetu, zigortu / alaitu, apaindu, belztu, bigundu, gorritu, laztu, sendotu...* Eratorpenean azterten dira mota honetako eratorriak (ikus § 6.1).

Aditza bera ere izan daiteke aurrizki bat hartu eta beste aditz bat sortzeko oinarria: *arraeraiki, berregin, desegin...* (ikus § 6.5).

**23.2.1.1c** Aditz kategoriako osagai bat eta izen edo adjektibo kategoriako osagaia elkartuz ere sor ditzakegu aditzak. Aditz elkartuak ditugu *aurreikusi, gurutziltzatu, hostoberritu, tokialdatu, goretsi, luzetsi* (ikus § 9.3).

### 23.2.1.2. Aditz arazleak

**23.2.1.2a** Aditz arazle edo kausatiboak ere aditzoinari *arazi* erantsiz osatzen ditugu: *etorrarazi, eginarazi, ibilarazi, ikusarazi, mugiarazi, sinetsarazi...* 23. arauan eman zituen Euskaltzaindiak aditz arazleak osatzeko morfologia jarraibideak. Batetik, *arazi* forma hobetsi zuen euskara estandarerako, eta ez lehian zuen *erazi* (*adierazi* da salbuespena); bestetik, aditzoinari elkarturik idatzi behar dela arautu zuen. Baina arau horretan ontzat eman ziren *sortarazi* eta *agertarazi* (aditzoinak berez ez duen *-t-* dutenak), gero baztertu egin dira *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n eta *sorrarazi* edo *agerraraziren* alde egin; beste aditz batzuetan ikusiko dugu, ordea, *-t-* dun aldaera (*ulertarazi*).

Euskaltzaindiaren 23. araua: “ <i>Arazi</i> ”, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua.
--

**23.2.1.2b** *Arazi* formaren ondoan, *erazi* (batez ere erdialdeko eta ekialdeko aldaeretan), *erazo* eta *arazo* (mendebaldekoetan) ere erabili dira: *Beren bide makurrak utz-erazirik ekarri zituen gure lege santako bide zuzenera* (Mendi-

buru); *Beretatik asko il erazi zituen* (Uriarte); *Santa Helenak eraiki erazi zien eliza eder bat* (Intxauspe); *Ikurrin gorri aundiak aizetan zabal erakusten ditue, eta “Marselletarra” ta “Internazionalen” doiñuak entzun-erazo* (Erkiaga).

**23.2.1.2c** Mendebaldean *eragin* baliatu da kausatibotasuna adierazteko: *Tartetxo bat lehenago otu zitzaidanak [...], harexek esan eragin zidan nire graziaren egia* (Jimenez); *Ikusi eragin diezadala zein onuragarriak diren dauzkagun ohiturak* (Elexpuru); *Zelan irauñ eragingo deutsegu grazia onei?* (Mogel); *Otsoari belarriak agertu eragin eutsazalako* (Agirre). *Eragin* da, gaur ere, [izena+egin] motako aditz lokuzioen forma arazlea, *eginarazirekin* batera: *Barrre eragiten zion horrek* (K. Zabala); *Txoratu egiten zuen tipulek negar eragin diezaguketela ikusteak* (Olarra); *Davidek Israel lurraldean bizi ziren atzerritarrak biltzeko agindu eta hargintzan lan eragin zien* (Elizen arteko Biblia); *Nola daiteke gizon batek milari erasotzea, / eta bik hamar milari ihes eragitea?* (J. A. Mujika); *Jende askori entzumenean kalte eragiteko bezain zarata ozenak sortzeko gaitasuna* (Aldasoro).

Nolanahi ere, ugariak dira *arazi* hartzen duten [izena+egin] lokuzioak: *amets eginarazi, gogoeta eginarazi, ihes eginarazi, negar eginarazi, oiñu eginarazi, porrot eginarazi, talka eginarazi, zin eginarazi...*: *Nik biziki maite dut irri egitea eta irri eginaraztea* (Oxandabaratx); *Eta horrexek alde eginarazi zien* (An. Garikano); *Hormonek negar eginarazten zidaten* (Iturbe).

Testu zaharretan *erazi* ere ageri da balio arazleko aditz lokuzioak sortzeko: *Zeñak bekatu erazi zion Israeli* (Uriarte).

**23.2.1.2d** *Arazi* eta *eraginen* osaerari erreparatzen badiogu, bestalde, bietan ikusiko dugu *-ra-* morfema, euskararen historian aditz arazleak sortzeko baliatu zena: *irakatsi, erakutsi, iragan, erakarri, erantzun, eroan* eta beste aditz batzuetan ikus daitekeena (*eratorri* Arana Goirik sortua). Jatorriz, beraz, *ikasi, ikusi, igan, etorri, entzun* edo *joan* aditzen forma arazleak dira aditz horiek, *eragin, eginena* zen bezala: *Mark harturik erekharrak eurekin* (Leizarraga); *Berak lenik egiten duela, guri gero eragin nai diguna* (Mendiburu). Baina literatura tradizioan ere nekez aurkituko ditugu balio arazlean *-ra-* morfema duten aditz horiek.

**23.2.1.2e** Bada beste modu bat ere arazle edo kausatibo balioa emateko: aditz laguntzailea. Inkoatibo/kausatibo oposizioa eratzen duten aditzetan ikusten da modu hori: *hil da / hil du; atera da / atera du; zuritu da / zuritu du* (§ 23.2.2.2f, § 23.2.2.5c, § 23.2.2.5d). “Kausatibo lexiko” deitzen diete Ortiz de Urbinak (2003a) eta Oyharçabalek (2003b) horrelakoei<sup>1</sup>. Absolutiboko argumentua besterik ez duten aditzak dira forma kausatiboa horrela adieraz dezaketenak; eta horien artean ere, jarduera edo gertatzea adierazten duten aditzek ez dute balentzia aldaketa onartzen (*gertatu da / \*gertatu du; mintzatu da / \*mintzatu du*); ezta aditz bihurkariak ere (ikus § 23.2.2.2): *jantzi dut* edo *garbitu dut* aditz trantsitibo hutsak dira, ez *jantzi naiz* eta *garbitu naiz* bihurkarien aldaera kausatibo edo arazleak. Egoera nahiz leku aldaketa adierazten duten aditzek eta aditz psikologikoeak bakarrik era dezakete aldaera kausatiboa laguntzailea aldatuz (Oyharçabal 2003b): *hautsi da / hautsi du; zabaldu da / zabaldu du; hurbildu da / hurbildu du; aspertu da / aspertu du; izutu da / izutu du*.

### 23.2.1.3. Aditz predikatu konplexuak

Ugariak dira izen batez, adjektibo batez, adberbio batez edo postposizio sintagma batez gehi aditz batez osatutako aditz predikatu konplexuak ere. Hitz bat baino gehiagoz osaturiko aditz hedatutzat jo ditzakegu halakoak, sintaxiaren eta morfologiaren artean kokatzen direnak: badituzte morfologiako egituren ezauzgarriak, baina baita sintaxi egiturenak ere (Zabala 2004). Predikatu konplexu hauetako aditzen eduki semantikoa murriztua izan ohi da: aditz arinak (*egin*) edo lotura aditzak (*izan, egon, ibili*) izaten dira. Osagaien jokabide sintaktikoan zurruntasun maila desberdinak aurkituko ditugu: aditz predikatu horietako batzuetan osagaien hurrenkera guztiz zurruna da; beste batzuetan malguagoa. Esanahiari dagokionez, ihartze prozesuak gertatzen diren heinean, esanahia ezin izaten da osagaienetatik abiatuta asmatu. Ikasi egin behar izaten da.

---

<sup>1</sup> Eta “kausatibo analitiko”, ostera, ‘kausa’ adierako predikatu gobernatzaileak eta haren mendeko perpaus osagarriak osatzen duen egiturari (*liburu guztiak irakurtzera behartu naute*).

Atal honetan predikatu konplexu hauen morfologia egituraz arduratuko gara eta aurrerago aztertuko dugu hauen balentzia eta argumentu egitura (ikus § 23.2.2 eta § 23.3).

### 23.2.1.3.1. [izena + egin], [PS/adberbioa + egin] egiturako aditz lokuzioak

**23.2.1.3.1a** Izenak eta aditz arin batek osa dezakete predikatua. Adibidez: *agur egin, alde egin, aurre egin, barau egin, barre egin, dantza egin, dei egin, deiadar egin, doministiku egin, eraso egin, errieta egin, eskaera egin, eztanda egin, eztul egin, garrasi egin, hitz egin, hots egin, huts egin, ihes egin, iruzur egin, irri egin, jolas egin, kalte egin, keinu egin, kale egin, lan egin, lo egin, min egin, muzin egin, negar egin, oihu egin, otoitz egin, porrot egin, salto egin, tiro egin, traizio egin, txalo egin, uko egin, zalantza egin, zin egin*. Batzuetan lokuzioan bakarrik aurki daiteke lehen osagaia: *laprast (egin), turrrut (egin)*. Aditz lokuzio esaten zaie horrelako egitura duten predikatuei. Gramatikari batek baino gehiagok aditz elkartuen artean aztertu dituzte; izan ere, itxuraz, izenaz eta aditzaz osatutako aditz elkartuak dirudite, *hostoberritu* edo *gurutziltzaturen* parekoak. Horixe dute, hain zuzen ere, lokuzio hauek lehen ezaugarri morfologikoa, izen soila (determinatzailerik gabea) izatea lehen osagaia.

**23.2.1.3.1b** Meteorologiako gertakariak adierazten dituzten *euria egin, elurra egin, izotza egin...* aditzetan lehen osagaiak badu mugatzailea, baina hori da har dezaketen determinatzaile bakarra; ezin dute, adibidez, erakuslerik hartu (*\*elur hori egin, \*izotz hau egin*). Nolanahi ere, determinatzailerik gabeak ere badira: *bero egin, hotz egin*.

Meteorologia gertakariak adierazi ez arren, aurki daitezke lehen osagai determinatzailedunak (gutxi izan arren): *bizarra egin, harrikoa egin, itxura(k) egin, planta(k) egin*. Baita *-a/Ø* alternantzia ere: *eztul egin* (ugariena) / *eztula egin*.

Askoz adibide gutxiago ditugun arren, adberbioa edo postposizio sintagma ere izan daiteke lehen osagaia: *atzera egin, aurrera egin, behera egin, borrokan*

*egin, euskaraz egin, gora egin, haginka egin, hanka egin, harrika egin, hazka egin, hegaz egin, hegan egin, korrika egin.*

**23.2.1.3.1c** Mugatzailerik hartzen ez duen lehen osagaia izateak berarekin dakar aditz hauek ez erreferentzialak izatea; hau da, erreferentzia jakina baino areago, erreferentzia generikoa dute (*lan egin / agindu dizuten lana egin*). Honetan ere bat letozke hitz elkartuen erreferentzia generikoarekin. Determinatzailea hartu arren, *euria* edo *elurra* generikoak dira, ez espezifikoak.

**23.2.1.3.1d** Baina lokuzio hauek badituzte aditz elkartuetatik bereizten dituzten ezaugarriak ere; *Hitz-Elkarketa/3* lanean jaso zituen Euskaltzaindiak (1991) funtsezko ezaugarriak. Mota hauetako aditz lokuzioak aztertu dituzten hizkuntzalariek ere (besteak beste, Mitxelena 1977d; Azkarate 1990b; Zabala 2004; Martinez 2015) hainbat ezaugarri nabarmendu dituzte: partitiboa hartu ahal izatea, izena lekuz aldatzeko aukera, edo elipsia koordinazio egituretan. Horregatik, ihartzera jo duten jatorrizko sintaxi egituratzat hartu beharko lirarteke. Ihartze bide horretan, esanahi berezia ere hartu du zenbait aditz lokuzioek: *hanka egin, kale egin, porrot egin*. Ihartze bide horretan aurrera egin ahala, galdu egiten dituzte sintaxi egituren antzekotasunak: hurrenkera finkoa izaten dute, izenak ez du partitibo markarik hartzen eta abar (\**ez du kalerik egin, \*egin zuek porrot...*).

**23.2.1.3.1e** Partitiboa onartzen du lehen osagaiak gehienetan, *ez du lanik egin, ez du negarrik egin...* Egia da aditz esapide hauetako batzuetan izenak ez duela partitiboa hartzeko aukerarik, ez behintzat bestelako ñabardura semantikoren bat erantsi gabe (*ez du hitz egin / ez du hitzik egin, ez du inoiz hutsegin / ez du inoiz hutsik egin*). Gutxi batzuk dira horrelakoak, ihartutzat har daitezkeenak hain zuzen ere (*alde egin, huts egin, kale egin, porrot egin*). Lokuzio gehien-gehienek onartzen dute partitiboa (Martinez 2015), baina ez amaiera edo muga jakinik gabeko jarduerak aditzera ematen dituztenek (Etxepare 2003): esaterako, argi igorpena adierazten dutenek (*dir-dir egin*), edo erdiespenak adierazten dituztenek (*bat egin, eztanda egin, leher egin*).

**23.2.1.3.1f** Sintaxi egituren pareko askatasuna dute aditz lokuzio hauetako askok eta askok osagaien ordenari dagokionez: izena lekuz alda daiteke



galdegai/mintzagai jokoaren arabera (§ 41.4.1-2): *Egiozu otoitz Profetari* (Zubizarreta); *Ez dizut nik dei egin. Itzul zaitetz eta egizu lo* (Elizen arteko Biblia). Bi aditz lokuzio ditugu adibide horretan: lehenak [izen+aditz] ordena gorde du, bigarrenean izena atzera pasatu da, mintzagai hanpatugabearen gunera. Galdegai kontrastea ere marka daiteke lokuzio horietako izenekin: *Baina umeak ez du lo egiten, negar baizik*. Diskurtso markatzaileak ere eman daitezke izenaren ondoren: *Batzuetan barre ere egiten du* (Oñederra); *Baina lo behintzat ez zuen askorik egingo* (Olano).

**23.2.1.3.1g** Bi aditz lokuzio koordinatzean, aditzaren elipsia, lehen lokuzio-ko aditza isilpean uztea da ohikoena: *Otoitz eta barau egin ondoren; Askok, handi nahiz txiki, iseka eta irain egiten zieten* (Asisko Frantzisko, Asisko Klara); *Vassiak ez zekien barre edo negar egin* (Sastre). Egiatzko aditz elkartuetan ezin da lehen osagaiko aditza isilpean utzi: *\*leku eta herrialdatu*.

**23.2.1.3.1h** Lokuzio hauetako *egin* aditz arina da, berezko esanahirik ia ez duena. Ez da esanahi osoa duen *egin*, zerbait sortzea adierazten duena (*etxea egin, habia egin, tratua egin*). *Egin* horren objektuak erreferentzialtasun osoa izaten du eta erlatibo baten buru izan daiteke (*txoriak egin duen habia, egin duzuen tratu hori*). Subjektuak, berriz, ‘egilea’ paper tematikoa (ikus § 23.3) hartzen du. *Egin* arinak ez du horrelako ezaugarriarik; ezin dio subjektuari paper tematiko jakin bat esleitu. Izenak eta aditzak osatzen duen lokuzioak du eginkizun hori. Horregatik, izenaren araberrakoa da lokuzioak subjektuari esleitzen dion paper tematikoa: *hitz egin* (egilea), *barau egin* (esperimentatzailea). Bi *egin* hauetaz gain, *egin* aditz laguntzaile ere bada mendebaldeko hizkeretan (*esan dagigun egia osoa* (§ 26.3.3)) eta aditzaren beraren galdegaitasuna nabarmentzeko ere erabili ohi da Hegoaldean (ikus § 41.4.1d, § 41.4.1e).

**23.2.1.3.1i** Aditz lokuzio hauetako askok eta askok jarduera motaren bat adierazten dute: *barau egin, barre egin, dantza egin, errieta egin, garrasi egin, hegan egin, iruzur egin, iseka egin, lan egin, lo egin, mesede egin, oihu egin, porrot egin, pixa egin...* Beste batzuek burutzapenak (*harrikoa egin*) edo erdiespenak (*alde egin, ihes egin, irrist egin, tiro egin*); batzuek egoerak ere adierazten dituzte (*bero egin*). Argi geratzen da amaierarik gabeko jarduera adierazten duten eta amaiera duen aditz predikatuaren arteko aldea: *Jonek bi*

*orduan lan egin du, baina ez du lana amaitu / \*Jonek bi orduan harrikoa egin du, baina ez du harrikoa bukatu* (Zabala 2004; Martinez 2015). Aditzak bere baitatik dakarren aspektuari *aktionsart* edo aditzen aspektu lexikala esaten zaio (ikus § 26.1.4.1).

Rodríguezek eta García Murgak (2001), Etxeparek (2003), Zabalak (2004) eta de Rijk (2008) [izena + *egin*] lokuzioen sailkapen semantikoa ere egin dute. Hiru sailkapenak guztiz bat etorri ez arren, honako sail hauek bereiz ditzakegu:

- a) Igorpenak adierazten dituztenak, dela soinu igorpenak (*barre egin, deiadar egin, hasperen egin, intziri egin, negar egin, oihi egin, zurrunga egin*), dela hizketazko igorpenak (*agur egin, berba egin, birao egin, burla egin, dei egin, errieta egin, galde egin, hots egin, mehatxu egin, oles egin, otoitz egin, zin egin*), edo argi igorpena adierazten dutenak (*dir-dir egin, diz-diz egin*).
- b) Jarduera fisikoak eta kognitiboak adierazten dituztenak, mugimendua adierazten dutenak barne: *amets egin, duda egin, gogoeta egin, hausnarketa egin, kasu egin, kontu egin, itxura(k) egin, muzin egin, paso egin, zirt edo zart egin; aharrausi egin, botaka egin, dar-dar egin, doministiku egin, ez tul egin, kaka egin, lo egin, oka egin; ausiki egin, bultza egin, buru egin, gogor egin, hagin-ka egin, hozka egin, kalte egin, putz egin; alde egin, hanka egin, ihes egin, irrist egin, jauzi egin, korrika egin, labain egin, laprast egin*.
- c) Bestelako jarduerak adierazten dituztenak: *bekatu egin, bizarra egin, guardia egin, harrikoa egin, huts egin, lan egin, ohea egin*.
- d) Gertaera meteorologikoak adierazten dituztenak: *bero egin, eguzkia egin, euria egin, fresko egin, hotz egin, izotza egin*.

### 23.2.1.3.2. [izena/DS + *eman/hartu*] egiturako aditz lokuzioak

**23.2.1.3.2a** *Eginen* ondoan, maiztasun txikiagokoak izanik ere, badira *eman* eta *hartu* aditzekin osatutako lokuzioak ere: *abisu eman, adore eman, aholku eman, amaiera eman, amore eman, antz eman, arrazoi eman, atsegin eman, aukera eman, beldur eman, berri eman, buru eman, fede eman, kasu eman,*

*kontu eman, lur eman, meza eman, min eman, musu eman, nazka eman, pena eman, su eman; arnasa hartu, atsedeen hartu, esku hartu, hats hartu, kargu hartu, kontu hartu, lo hartu, mendeku hartu, min hartu, parte hartu, su hartu, usain hartu...*

Hauetan ere lehen osagaia gehienetan determinatzailearik gabeko izen soila izaten da, baina determinatzaile eta guztikoa ere izan daiteke (are plural markaduna): *animoak eman, beldurra eman, eskerrak eman, etsia hartu, lanak eman, bide(a) eman, kontuak eman...* Baina determinatzailea finkatua dago, ez dago aukerarik beste determinatzaile bat aukeratzeko.

Ergatibo sintagma ere izan daiteke lehen osagaia: *buruak eman, bihotzekoak eman*. Hemen sar daiteke aurreraxeago determinatzaile sintagma edo postposizio sintagma lehen osagai dutenen artean sartu dugun *gogoak eman* ere (§ 23.2.1.3.3).

**23.2.1.3.2b** Lokuzio hauetako izen osagaiak ere *eginekin* osatzen diren lokuzioetako en zaugarriak ditu: lekuz alda daiteke (hau da, mintzagai hanpatu gabe gisa eman daiteke), partitiboa har dezake eta abar. *Gauak ematen dit beldur; Egizu kontu; Besoak ez zion jada minik ematen* (I. Mendiguren).

**23.2.1.3.2c** Batzuetan, izen bera izanik, *egin* nahiz *eman* aditzekin osa daiteke lokuzioa, esanahia aldatu gabe: *atsegin egin / atsegin eman, min egin / min eman, errieta egin / errieta eman*. Beste batzuetan, ostera, esanahi desberdina dute lokuzio batek eta besteak: *ikara egin / ikara eman*.

**23.2.1.3.2d** Lokuzio hauetako aditzen esanahia, funtsean, *eman* eta *hartu* aditzen esanahi bera da (edo oso gertu dago, behintzat). Hortaz, ezin esan dezakegu *eginen* pareko aditz arinak direnik. Aditzaren argumentu egitura bera du lokuzioak ere: egilea edo arazlea adierazten du *eman* lokuzioetako subjektu ergatiboak; esperimentatzailea, aldiz, *hartu* lokuzioetakoak: *min eman zidan irainak / batek edo bik min hartu zuten orkatila arroketa bihurrituta* (K. Izagirre). Horregatik ez da harrizkoa mota honetako bikoteak aurkitzea: *atsegin eman / atsegin hartu, esku eman / esku hartu, hats eman / hats hartu, min eman / min hartu*.

**23.2.1.3.2e** *Eman eta hartu* aditzekin osatzen diren lokuzio gehienek modu bateko edo besteko jarduerak adierazten dituzte: jarduera fisikoak (*arnasa hartu, hats hartu*), psikologikoak (*amore eman, atentzioa eman, atsegin eman, atsegin hartu, etsia hartu, min eman, min hartu*), pertsonen arteko harremanekin zerikusia dutenak (*aurpegi eman, bizkarra eman, errieta eman, eskerrak eman, fede eman, kargu hartu, kontu(ak) hartu, musu eman...*). Beste batzuek ekintza baten hasiera edo amaiera adierazten dute: *azkena eman, buru eman, hasiera eman, gaina hartu* (Zabala 2004).

**23.2.1.3.3.** [izena/DS/PS + *eman, hartu, jan, jo, lotu, sartu...*]: *lur jo, gogoak eman, bideari lotu, kontuan hartu*

**23.2.1.3.3a** Aditz predikatu konplexutzat har ditzakegu *azkena jo, beheal erreka jo, begiak ireki, begiak itzuli, begiak josi, burua jan, gaitz opa, hitza bete, hanka sartu, hitza jan, kontu atera, larrua jo, lur jo, kanpaia jo, txalo jo, ziria sartu...*

Predikatu hauetako aditzak eduki semantiko osoa du (ezin da esan aditz arina denik), baina osagaien morfologia berezia da eta, batez ere, esanahia gehiengotan ez da konposizionala. Izan ere, determinatzaile sintagmak ez du aukerarik ematen plurala hartzeko (edo singularrean azaltzeko plurala bada), edo erakusle determinatzailea hartzeko (*\*begi horiek josi*). Bide beretik, postposizio sintagma lehen osagai dutenetan ere, ez dago aukerarik beste postposizio atzizki bat hartzeko: *kontuan hartu* bai, baina *\*kontura hartu ez*; *burutik egin* bai, baina *\*buruan egin ez*, eta abar.

Esanahia ere askotan ezin da asmatu izenaren eta aditzaren jatorrizko esanahia kontuan hartuta. Mota honetako predikatuen deskribapen zehatza aurki daiteke Zabalaren (2004) lanean.

Nolanahi ere, zalantzazkoa izan daiteke aditz predikatu konplexutzat hartu behar ditugun ala ihartutako esapidetzat.

**23.2.1.3.3b** Lehen osagaia ergatibo edo datibo sintagma ere izan daiteke: *arimak eman, buruak eman, gogoak eman, loak hartu, negarrari eman, bideari lotu, ihesari lotu*. Ekintza baten hasiera adierazten dute datibo sintagma duten predikatuek. *Orduan buruak eman zidan, edo gogoak, edo arimak, edo nik ote nekien ba ni baitako zerk eman zidan, alferrik zirela otoitzak* (Jimenez).

**23.2.1.3.3c** Postposizio sintagma dute lehen osagai beste askok. Horrelako egitura batzuek egoerak eta egoera aldaketak edo jarduerak adierazten dituzte: *aldean izan, bistan izan, boladan egon, burutik egon, gogoan izan, hizpidean egon, kontuan eduki, kontuan izan, modan egon, modan jarri, jolasean ibili, lanean aritu*. Beste batzuetan, adjuntua da postposizio sintagma, modifikatzailea, *-n, -ra* edo *-tik* postposizio atzizkiak har ditzakeena: *ahotan hartu, ahotan erabili, gogoan erabili, gogoan hartu, kontuan hartu, harira etorri, pikutara bidali, bazterrera eman/utzi, burura ekarri/etorri, gogora ekarri/etorri, larrutik pagatu, burutik egin, eskutik irabazi, eskutik eduki*.

**23.2.1.3.3d** Osagaien hurrenkerari dagokionez, predikatu konplexu hauetako askok ematen dute aukera lehen osagaia aditzaren ondoren emateko (mintzagai hanpatu egiteko, alegia): *Ez dator harira, ordea, nire barrukotasunaren zoko ilunak airatzea* (Saizarbitoria); *Entzumenaren sentiberatasuna kentzea eta tresnaz lagundutako komunikazioa daude boladan* (Olarra); *Ahalik eta erarik naturalenean erditzea dago modan* (Iturbe); *Botanikaz edo geologiaz pentsatzeak Artola dakarkizu burura* (Montoia). Hala ere, semantikoki ihar-tuak dauden predikatuetan nekez aldatuko dugu osagaien hurrenkera: *??Bidali pikutara lagun horiek; ???Lanean izandako hanka sartzea pagatu zuen larrutik*. Atal honetan aztertu ditugun gainerako predikatu konplexuen parekoak dira honetan.

#### 23.2.1.3.4. [izena/adjektiboa + izan (da/du)] egiturako aditz predikatuak

**23.2.1.3.4a** Beste predikatu batzuek [izena + izan (da/du)] egitura dute. Bi motatako aditzak bereiz ditzakegu *izan* aditzaren balioen arabera (*izan naiz /*

*izan dut*). Lehen motakoak *naiz* laguntzailea hartzen dutenak dira: *adin izan, ahalke izan, aiher izan, arrangura izan, beldur izan, damu izan, egarri izan, falta izan, gai izan, gauza izan, gose izan, kexu izan, lotsa izan, pena izan...* Hemen adibide batzuk: *Zure adin ginenean Otañoren kantuak abesten genituen* (Salaburu); *Arrangura dela etxe horren geroaz diru aldetik* (X. Arbelbide); *Pena litzateke hau guztia bertan behera uztea* (Juaristi).

Bigarren motakoak, *du* laguntzailea hartzen dutenak, berriz: *ardura izan, arrazoi izan, axola izan, balio izan, behar izan, damu izan, desio izan, gorroto izan, higuin izan, merezi izan, nahi izan...* Batzuetan zaila da lehen osagaia zein kategoriatakoa den esatea, predikatuaren barruan bakarrik erabiltzen baita: *itxaro izan*.

**23.2.1.3.4b** Hala ere, lokuzioko osagai diren hitz askoren izen kategoria ez dago beti garbi. Adibidez, *gose, egarri, lotsa, beldur* eta gisakoak garbi dago izentzat jotzekoak direla testuinguru askotan, baina egoera sentipen bati dagozkion predikatu osagarri gisa erabiliak dira lokuzio arrunt askotan: *gose/beldur naiz*<sup>2</sup>. Bestalde, jakina da izenak ere predikatu osagarri funtzioan joan daitezkeela (izen eta adjektibo kategorien arteko muga ere ez da garbi eta finkoa beti: *langile (oso) gaztea / gazte (oso) langilea*). *Alkate / lagun / gidari da/dute* eta gisakoak, berriz, predikatu osagarriko esapide arruntak dira (§ 24.2c).

**23.2.1.3.4c** [adjektibo+izan] egiturako predikatuak ere baditugu: *ageri izan, aiher izan, aski izan, ezagun izan, gogoko izan, gustuko izan, hobe izan, komeni izan, nahiago izan, nabari izan, posible izan, segur/ziur izan, zale izan, zilegi izan...* Zalantza sor daiteke predikatu konplexutzat hartu behar diren mota horretako egiturak ala lehen mailako predikaziotzat (ikus § 24.3.3.1). Predikatu nagusiaren barruan ageri dira beti adjektibo horietako batzuk, inoiz ez sintagma baten barruan (*aiher, aski, komeni, nahiago...*); baina horrek berak ere zalantzan

---

<sup>2</sup> Halako egituretan, dena delako sentipenaren esperimentatzailea da subjektua, baina bada joera gaur egun tradizio horretatik aldendu eta bestela adierazteko kontua, auzo erdaren erdian: *gosea/beldurra dut/daukat*. Erabilera horren zilegitasuna gorabehera, garbi dago halakoak ez direla lokuzioen artean sartzekoak, *gosea* zein *beldurra* izen sintagma beregainak baitira hor.

jartzen du egiaz adjektibo kategoriakoak diren. Bestalde, predikatu konplexua da argumentuak hautatzen dituenen, dela perpaus osagarri jokatua (*nabari du ez dela asko ibili mendian*), dela perpaus osagarri jokatugabea (*merezi du gauzak patxadaz egitea*). Horregatik hartu ditugu predikatu konplexutzat.

**23.2.1.3.4d** Badira *da* nahiz *du* laguntzailea hartzen duten predikatuak: *ageri da / ageri duzu, ezagun da / ezagun duzu, damu naiz / damu dut* eta abar. Hiztegiek ematen dute predikatu bakoitzaren balentziaren edo erregimenaren berri.

**23.2.1.3.4e** Predikatu hauetako aditza, *izan* (*da* zein *du*), ia laguntzaile soila da; izenak ematen du esanahia eta aditzaren aspektu balioak adierazteko euskarria baino ez da *izan*: *maite izan dut, maite izaten dut, maite izango dut* (ikus § 26.5). Baina batzuetan izenak zuzenean har dezake aspektu prospektiboaren morfema: *maiteko zaitut, beharko dut, axolako dizu, nabariko da*. Inoiz isilpean ere utz daiteke *izan*: *Merezi bai zuek jan gabe gelditzea!*

**23.2.1.3.4f** Predikatu hauetan ere osagaiek aditz elkartuek ez bezalako jokatibidea dute. Aurreko aditz predikatu konplexuetan ikusi dugun bezala, izena lekuz alda daiteke beste osagai baten galdegaitasuna markatzeko: *Bihotz-bihotzez zaitut maite; Ez izan horien beldur; Horregatik naiz beldur* (*Elizen arteko Biblia*); *Jaunari bakarrik izan beldur* (*Elizen arteko Biblia*); *Ez da kexu sortutako ezerengatik* (J. M. Lekuona). Baina aspektu ñabardurak adierazteko *izan* ere ageri denean (*kexu izan, kexu izaten, kexu izango*), corpusetako adibideek erakusten dute ez dela hurrenkera aldaketarik gertatzen: *Ez gaitezen kexu izan ezin garelako [...] pozez garrasika hasi* (Atxaga); *Jakizue berarekin noranahi heltzen zaretelarik ere, ez naizela kexu izango* (Montorio); *Ez zara ezeren beldur izango* (*Elizen arteko Biblia*).

Bi predikatu elkartzen ditugunean ohikoa da aditzaren elipsia: *Eskertu egin zuten Irisarriren eskaintza, gose eta egarri baitziren* (Juaristi); *Bereziki laborariak kexu eta arrangura direlarik* (Aintziart). Beste egitura hauetan ere aditza isilpean uzten dugu: *Ni beldur, ez dela sekulan ezkonduko Dominique* (Landart).

**23.2.1.3.4g** *Izan* aditzaren laguntzarekin osatzen diren predikatu hauek aditz eratorria dute askotan ondoan: *beldurtu, maitatu, gosetu, egarritu, lotsatu,*

*damutu, gorrotatu, higuindu, zaletu...* Ez dira, baina, guztiz berdinak. Egoera aldaketa adierazten dute horietako askok (ez guztiek), aditz telikoak dira eta inkoatibo/kausatibo oposizioa eratzen dute (ikus § 23.2.2.2f, § 23.2.2.5c, § 23.2.2.5d): *beldurtu (da/du), gosetu (da/du), egarritu (da/du), damutu (da/du), higuindu (da/du)* edo *zaletu (da/du)*. [Izena+izan] egiturakoek, ostera, gehienetan egoerak adierazten dituzte (ikus § 11.5d).

**23.2.1.3.4h** Emankortasunari dagokionez, *Hitz-Elkarketa/3* lanean (1991: 20) esaten den bezala, adibideek zerrenda dagoeneko osatua eratzen dutela dirudi; aspalditxoan ez da berririk sortu. Beste modu batera esanda, egitura hauek ez dira gaur emankorrak.

#### 23.2.1.3.5. [adberbioa/PS/adjektiboa + *egon, ibili*] aditzekin osatutako predikatu konplexuak

**23.2.1.3.5a** Predikatu konplexuen artean sartu izan dira, azkenik, *egon* eta *ibili* aditzekin osatzen diren *zain egon, eske ibili, bila ibili* eta gisakoak. Jar-duera adierazten dute *ibili* aditzarekin osatzen diren predikatuek. Egoera, berriz, *egon* aditza daramatenak. *Adi egon, argi egon, bero egon, garbi egon, zain egon; adi ibili, argi ibili, bila ibili, eske ibili, oker ibili*.

Lehen osagaia adberbio kategoriakoa izan daiteke edo postposizio sintagma (*adi, eske, zain, jolasean, lanean*), baina baita adjektiboa ere (*adi/oker egon, oker ibili, zintzo ibili*).

**23.2.1.3.5b** Zalantza sor daiteke lehen zein bigarren mailako predikazio egituratzat hartzekoak diren aditz predikatutzat eman ditugun horiek (§ 24.3.3.2). Interpretazio baten edo bestearen alde egiten lagun diezaguke aztertzeak aditzaren eta [X + aditza] egituraren artean alderik ote dagoen hautatzen dituzten osagaiei dagokienez. Irizpide hori kontuan izanik, *argi egon* eta *garbi egon* aditz predikatu konplexutzat hartzekoak dira: biek har dezakete perpaus osagarria, *egon* aditzak hauta ez dezakeena. *Bero/hotz/ilun egon* ere aditz predikatuak dira, gertakari meteorologikoa adierazten dutenak; *bero, hotz* edo *ilun*



ez dira hor subjektu baten egoera mailako predikatuak. Aldiz, gertakari meteorologikoetatik kanpo, *kafea bero dago* edo *aretoa ilun dago* esaten dugunean, predikazio egituren aurrean egongo ginateke. *Oker egon, oker ibili* nahiz *zintzo ibili*, ostera, hobeto esplika daitezke predikazio egitura moduan.

*Zain, bila* eta *eske* berez dira argumentu egituradunak, aditzaren beharrik ez dutenak osagarria hautatzeko. Beraz, erraz azter daitezke “(norbait) egon/ibili <sub>PRED</sub>[X+bila, eske, zain]<sub>PRED</sub>” moduan, non X *bila, eske* edo *zainen* argumentu den. Egitura berekoa da *eske etorri* ere. *Adik* ere har dezake datibo sintagma, *zeri adi*. Nolanahi ere, badirudi egitura hauek predikaziozko beste adibide batzuek (*kezkatuta ibili, nekatuta egon* eta abar) baino lexikalizazio maila handiagoa dutela. Eta gogoan izan behar da batzuetan aditzari begirako adberbioen eta bigarren mailako predikazioaren arteko muga lausoa izaten dela.

### 23.2.2. Kasu-balentziak

#### 23.2.2.1. Kasu-balentziaren arabera lau aditz mota nagusiak: *da, du, zaio, dio*

**23.2.2.1a** Aukeratzen duten laguntzaile motaren arabera bereizten ditugu aditzak hiztegian *da, du, zaio* eta *dio* motako aditzak. Zehatzagoa litzateke esatea aditzek ezartzen dutela, esanahiaren arabera, zenbat parte hartzailek eta zer motatakoak agertu behar duten perpausean. Eta parte hartzaile horien arabera dela laguntzailea (ikus § 23.1b). Aditzaren argumentu egitura esaten zaio horri eta hurrengo puntuan hartuko dugu aztergai. Hemen laguntzailearen arabera bereizten ditugun lau aditz mota horiez arituko gara. Aditzaren *balentzia* edo *erregimena* deitzen zaio aditz batek, inguruan behar dituen parte hartzaileen arabera, hartzen duen laguntzaile motari.

**23.2.2.1b** Guk lau aditz mota aipatu baditugu ere, bi multzo nagusitara bil ditzakegu lau horiek: *da/zaio* batetik eta *du/dio* bestetik. Hau da, *da* aditzak / *du* aditzak. Izan ere, oinarritzko bi sail bereizten ditu gramatika tradizionalak, erregulartasun handia erakusten dutenak: *intrantsitiboak* eta *trantsitiboak*

(euskaraz *iragangaitz* eta *iragankor* ere esan zaienak). *Da* motakoak dira, oro har, aditz intrantsitiboak eta *du* motakoak, trantsitiboak.

**23.2.2.1c** Bistakoa denez, perpausa osatuko bada, aditz guztiek behar dute subjektu izango den sintagma bat (eguraldi aditzak izan ezik, aurreraxeago ikusiko dugun moduan). Egiturazko kasuan joatekoak diren sintagmen artetik kasu absolutibokoa bada aditzak subjektu gisa hartzen duen sintagma, aditz hori intrantsitibo delako esaten da. Kasu horretan, ez da izango perpausean objektu zuzen funtzioko sintagmarik: *Aulkia erori da*. Aldiz, aditzak kasu ergatiboko sintagma hartzen badu subjektutzat, eta, subjektu horretaz gainera, kasu absolutiboko objektu zuzen bat, aditz hori trantsitibo delako esaten da: *Hurrek aulkia bota dute*. Badira subjektutzat kasu ergatiboko sintagma hartu arren, objektu zuzenik ez duten aditzak: *Jonek oso ondo eskiatzen du*. Intrantsitiboak dira hauek ere (intrantsitibo ergatibodunak). Beraz, objektu zuzen funtzioko sintagma izatea da irizpide nagusia aditz intrantsitibo eta trantsitiboen arteko bereizketan.

Bai intrantsitibo eta bai trantsitibo askok kasu datiboko sintagma bat ere har dezakete, beste *balentzia* bat gehituz: *Aulkia erori zaio hurrari*; *Hurrek aulkia bota diote atezainari*.

Beraz, aditzaren balentzia (laguntzaile mota) eta egiturazko kasuak alderatzen baditugu, honako eskema hau dugu:

<b>mota</b>	<b>balentzia</b>	<b>subj.</b>	<b>obj. zuzena</b>	<b>zehir-obj.</b>	
<b>da</b>	1	abs.	∅	∅	etorri da
<b>du</b>	2	erg.	abs.	∅	irakurri du
<b>du</b>	2	erg.	∅	∅	eskiatu du
<b>du</b>	2	∅	abs.	∅	eguna argitu du
<b>du</b>	2	∅	∅	∅	ilundu du
<b>zaio</b>	2	abs.	∅	datiboan	ahaztu zaio
<b>dio</b>	3	erg.	abs.	datiboan	eman dio
<b>dio</b>	3	erg.	∅	datiboan	ekin dio

**23.2.2.1d** Ohar batzuk egin beharra dago, hala ere. Lehenik, aditz bakoitzaren semantikaren arabera, datiboko sintagma ez da beti izango *gehitua* edo aukerakoa: *iruditu zaizu* (\**iruditu da*); *ondo iritzi dio* (\**du*). Bigarrenik, aditz batek berak adiera bat baino gehiago izan dezake perpaus batean edo bestean, eta horrek eragin balentzia-jokoan ere: *lagunak egunkaria dakar(kio)* / *egunkariak berri hori dakar(?kio)*; *autoa aurreratu dut* / *dirua aurreratu dit*. Hirugarrenik, aditz batzuk forma berean egokitu daitezke balentzia joko bat baino gehiagotan, edo guztietan: *sartu da* / *sartu du* / *sartu zai* / *sartu dio*.

**23.2.2.1e** Gure gramatika usadio zabalduenean, honela adierazi izan dira lau kasuok: NOR, NOR-NORK, NOR-NORI, NOR-NORI-NORK. Izendatzeko modu horrek badiu zenbait akats aski agerikoak. Alde batetik, ordena jakin bat iradokitzen du egiturazko kasuen artean, eta, bestetik —eta garrantzi handiagoa du bigarren kontu honek— NOR galde-izenordainak barnean hartu nahi edo behar lituzke hor ZER izenordainari dagozkionak ere (eta ZER izenordainari dagokion hori, bestalde, izen sintagmaz nahiz askotariko perpaus osatua izan daiteke, perpaus osagarrien kapituluan ikusiko dugun bezala: ikus § 30.1.1).

Horregatik, ohikoagoa dugu gramatika eta hiztegi modernoetan bestela adieraztea aditz mota, hirugarren pertsona gramatikaleko adizkiak markaturik haren balentzia-jokoa (komuntadura tarteko), hots, aditz horrekin joatekoak diren osagai nagusiak (egiturazko hiru kasuotan doazenak, alegia: absolutiboa, ergatiboa eta datiboa). Hala, *da*, *du*, *zai*, *dio* motako aditzak bereizten ditugu.

**23.2.2.1f** Azkenik, aipa dezagun, goraxeago esan bezala, badirela bestelako izen tekniko batzuk datiboko sintagma hartzen duten aditzentzat ere: *da* (intransitiboa), *du* (transitiboa), *zai* (intransitibo datiboduna), *dio* (ditrantsitiboa). Nomenklatura horretan, *di-transitibo* terminoaz adierazten da bi objektu dituela aditzak: zuzena eta zeharkakoa (euskaraz, datiboak adierazia betiere bigarrena). *Ditrantsitibo* da nazioarteko nomenklatura, aldi berean, *transitibo* eskatzen duena.

**23.2.2.1g** Aditzen balentzia eta aditz jakin batekin ager daitezkeen egiturazko kasuak kontuan hartuta, honako sailkapen hau egingo dugu: aditz intransitiboak, intransitibo datibodunak, intransitibo ergatibodunak, transitiboak,

ditransitiboak (edo trantsitibo datibodunak). Aditzen esanahia hartzen da kon-tuan aditz mota horietako bakoitzean azpisailak egiteko. Etxepareri (2003) ja-rraituko diogu ondorengo sailkapenean.

### 23.2.2.2. Aditz intrantsitiboak

**23.2.2.2a** Subjektu funtzio sintaktikoa betetzen duen argumentua baino hau-tatzen ez duen aditzari esaten zaio aditz intrantsitibo; objekturik hartzen ez duenari. *Da* laguntzailea hartzen dute aditz intrantsitibo gehienek (intrantsiti-bo absolutibodunek, alegia); eta perpausean absolutibo kasua hartzen du adi-tzaren argumentu bakarrak. Aurrerago aztertuko ditugu subjektua eta zehar-kako objektua (hau da, absolutiboa eta datiboa) hautatzen duten intrantsitiboak (§ 23.2.2.3) eta argumentu bakarrari, subjektuari, ergatibo kasua ezartzen dio-tenak (§ 23.2.2.4).

Intrantsitiboa da, beraz, izatea, existentzia adierazten duen *izan* (eta *existitu*): *ni naiz nirez, nire borondatez*; bai eta egitura kopulatiboetako *izan* eta *egon* ere, dela egoera mailako predikazioa —*haien mende gaude, pozik gaude, ne-katuta gaude*—, dela izaki mailakoa —*gure alaba oso bizkorra da*— (§ 24.3.3).

Lanbidea adierazten duten izenekin ere biak ager daitezke, *izan* eta *egon*: *Mai-der irakasle dago Cambridgen / Maider irakasle(a) da Cambridgen. Egon* hautatzean, aldi baterako lanbidea dela ematen dugu aditzera; *izanek*, aldiz, Mainerren lanbidea zein den adierazten du (eta bide batez, zein den bere lan-lekua).

Perpaua existentzialak ere intrantsitiboak, argumentu bakarrekoak dira, *egon* aditzarekin eratzen ditugunak (eta ipar-ekialdean *izan* aditzarekin): *Badago salda; Badago/bada filosofiaren eta erlijioaren arteko muga gaindiezin bat.*

**23.2.2.2b** Egoera fisiko eta mentalak adierazten dituzten aditz hauek ere in-trantsitiboak dira (horien artean [izena + *izan*] egiturako asko): *gaixo dago, haserre dago, ahalke da, beldur da, damu da, gose da, herabe da, lotsa da...*

*Gaur ere oraindik herabe naiz haren izena ahoskatzeko* (M. Mujika); *Damu zara, ahalke zara, lotsa zara* (Montoia).

Egoerak adierazten dituzte aditz hauek, baina ondoan duten aditz eratorriek (*gaixotu, haserretu, ahalketu, beldurtu, damutu, gosetu, lotsatu*) egoera aldaketa adierazten dute (ikus § 23.2.2.2e).

**23.2.2.2c** Kokapena eta noranzko mugimendua adierazten duten aditzak: *ailegatu, egon, erori, etorri, gelditu, gerturatu, hurbildu, hurreratu, ibili, igaro, igo, iritsi, irten, jaiki, jaitsi, joan, kokatu, partitu, sartu, urrundu*.

Aditz hauetako batzuk trantsitibo moduan ere erabil daitezke (*du* laguntzailearekin): *gelditu, gerturatu, hurbildu, hurreratu, ibili, igaro, igo, jaitsi, kokatu, sartu* edo *urrundu*. Bi motatako aditzak ditugu hor. Batetik, bide batean zehar aurrera egiten duen mugimendua adierazten dutenak: *ibili, igaro, igo* edo *jaitsi*. Horrelako aditz trantsitiboek adierazten dute objektuaren azalera guztia hartzen duela mugimenduak: *Mendia igo dut, aldapa jaitsi dut, mendialde guztia ibili dut goitik behera* (Juan Garzia). Beste aditz batzuek irakurketa kausatiboa dute; *da/du* alternantziak inkoatibo<sup>3</sup>/kausatibo alternantzia adierazten du (berez gertatu den egoera aldaketa, edo eragindakoa): *gelditu da / gelditu du, hurbildu da / hurbildu du* edo *kaxa guztiak igo/jaitsi ditut*.

**23.2.2.2d** Gertatzea eta agertzea adierazten duten aditzak: *agertu, aurkeztu, azaldu, desagertu, egokitu, gertatu, heldu* (Ipar.), *jazo, pasatu, suertatu, tokatu*. *Berandu afaldu beharra ere egokitzen da maiz; Eta frantziarrek badakite loteria gutxitan tokatzen dela* (Egungo Euskararen Hiztegia); *Izugarria jazo da!* (K. Izagirre); *Egunero gertatzen diren gauzak* (Euskaltzaindiaren Hiztegia). Azken adibide honetako *gertatuk* ‘gertatzea’ baino ez du adierazten. Beste adibide hauetan, ostera, ondoriozko aditza da: *Batzuetan, jakina, gehiegizko beroa galdu beharrean gertatzen dira klima hotzetako animaliak ere* (Aldasoro);

<sup>3</sup> Ekintza baten hasiera (*loratu, eguna argitu*) edo egoera aldaketa adierazten duten aditzei esaten zaie *inkoatibo*. Askotan aditz batek berak har ditzake bi adierak: gertaera baten hasiera, nahiz gertaera osatu ondorengo egoera aldaketa: *argaldu, aberastu, zahartu, gaztetu, haserretu...*

*Askotan Jainkoak ontzat ematen du gizakia erasotua gerta dadin* (J. M. Le-kuona); *Atzerriko gure etsaien aurrean barregarri gerta ez gaitezen* (Elizen arteko Biblia). Ondoriozko egoera adierazten duen heinean, predikazio egitura onartzen du: *animaliak [...] beroa galdu beharrean (gertatu), gizakia erasotua (gertatu) edo (gu) barregarri (gertatu)*.

*Pasatu* aditza trantsitibo bihur daiteke: *Ibaia pasatu du; Gorriak pasatu ditu*. Lehen kasua trantsitibo bihurtzen diren mugimendu aditzen oso-oso antzekoa da. Bigarrena, berriz, aditz psikologikotzat har genezake (ikus § 23.2.2.5e).

Agertzea adierazten duten *agertu*, *aurkeztu* edo *azaldu* aditzak ere trantsitibo bihur daitezke; inkoatibo/kausatibo alternantzia adierazten dute *da/du* (*dio*) laguntzaileek, *Euskaltzaindiaren Hiztegiko* adibide hauek erakusten duten bezala: *Ez da deus estalirik agertuko ez denik / Jaunak agertu duen guganako onginahia; Ez da etxera azaldu ere egiten / Nola egin zuen ihes azaldu zigun*. *Desagertu* aditzak *arazi* arazlea behar du kausatiboa adierazteko: *Hamabi urteko neska desagertu da / Hamabi urteko neska desagerrarazi dute*.

**23.2.2.2e** Eguraldia adierazten duten predikatuak (*egon* aditzarekin eratzen direnak): *ateri dago, bero dago, giro dago, hotz dago, ilun dago, sargori dago*. Molde intrantsitiboa baliatzen dute (*dago*); areago, aukera bakarra singularreko hirugarren pertsona gramatikala da, baina betiere subjekturik gabe.

Eguraldiaren egoera hutsa adierazi ordez, aldaketa baten ondorio dena adierazi nahi denean, *du* laguntzailea erabiltzen da: *ateritu du, ilundu du* (ikus § 23.2.2.4b). Baina ez dago, ez subjekturik, ez objekturik.

Denbora tartea adierazteko esapide batzuk ere eredu berean sartzekoak dira: *Bost hilabete da hori gertatu zela; Orain dela zazpi urte gertatu zen zuk diozuna*. Parekoak dira *du* hartzen dutenak: *Bost hilabete du (egin) hori gertatu zela; Duela zazpi urte ez zen horrela mintzo*. Berez ekialdeko hizkeretakoak dira azken hauek, estandarrera hedatu direnak.

Guztiek ere aukera bakarra dute: singularreko hirugarren pertsona gramatikala, perpausean gauzatzen ez dena, hutsik dagoena.

**23.2.2.2f** Egoera aldaketa adierazten dutenak. Bi mota bereiz daitezke horrelako aditzen artean: (berezko) egoera aldaketa edo gertaera baten hasiera baino adierazten ez dutenak (*erori, heldu, jaio, loratu*) eta inkoatibo/kausatibo oposizioa era dezaketenak, hau da, *da* eta *du* laguntzailearekin erabiltzen direnak (*argaldu, bihurtu, bilakatu, garatu, gizendu, goibeldu, heldu* ‘fruituez mintzatuz’, *sortu, tristatu, umotu...*). Adjektiboetatik eratorritako aditz gehienak mota honetakoak dira (ikus § 6.1c, § 6.1d). Egoera aldaketa adierazten du, eta inkoatibo/kausatibo alternantzia eratzen du *jarri* aditzak ere subjektu biziduna eta gogo egoera adierazten duen adjektibo edo adberbioa hartzen ditue-nean: *Triste jarri naiz / Azken berriek triste jarri naute*.

**23.2.2.2g** Aditz psikologikoak. Gogo egoeraren aldaketa (edo aldaketaren hasiera) adierazten duten aditz psikologikoen ere *da/du* bikoteak osatzen dituzte, inkoatibo/kausatibo alternantzia erakusten dute. Inkoatibo baliokoak intrantsitiboak dira: *alaitu, asaldatu, aspertu, aztoratu, beldurtu, harritu, haserretu, ikaratu, kezkatu, kontsolatu, lasaitu, liluratu, poztu, txunditu, urduritu...* Haue-tako asko izenetatik edo adjektiboetatik eratorritakoak dira. Absolutiboak esperimentatzailea paper tematikoa hartzen du eta, ageri bada, postposizio sintagma baten bidez adierazten da estimulua: *Pozten naiz hori entzuteaz* (O. Arana); *Andre gaztea, hori entzunik, biziki poztu zen* (Igerabide); *Eta Naroa alde bate-ra lasaitu egin da, eta, bestera, berriro ere urduritu da* (Zubizarreta).

**23.2.2.2h** Aspektu eta kontrol aditzak. Aspektu aditzak dira *amaitu, ari izan, bukatu, hasi, ibili, jarraitu, joan, segitu...* -tzen motako perpaus jokatu-gabeekin aspektu perifrasiak osatzen dituztenak (ikus § 30.6.3.3.2): *kantatzen hasi, galtzak josten jarraitzen du, gauza guztiak egiten amaitu, galtzen doa ohitura hori*. Jarduera adierako -n postposizio sintagma (baita -z postposizio sintagma ere) edo -ka adberbioa ere onartzen dituzte aspektu aditz horietako askok: *dantzan/jolasean/lanean + ari/hasi/ibili da. Gure zergetarik tiraka ari da* (Borda); *Txirula joka hasi zen; Ate joka ibili; Oihuz ari/hasi da*. Intrantsitiboak izan arren, *du* laguntzailea hartzen dute *amaitu, jarraitu* eta *segitu* aspektu aditzek (intrantsitibo ergatibodunak dira): *Idazle gazteak gutuna irakurtzen amaitu eta aitorenak egiten jarraitu zuenean* (Zubizarreta); *Bertsoak esaten amaitu zuenean, isilaldi bat izan zen* (Aldasoro).

Kontrol aditzak: *ahalegindu*, *ausartu* edo *saiatu* aditzek ere *-tzen* perpausak hartzen dituzte osagarri (*Lana garaiz bukatzen ahalegindu*; *Ez zen ausartzen emakumeei aurpegiz aurpegi begiratzeko*, K. Zabala). Aditz hauek subjektuaren kontrola ezartzen dute; mendeko perpaus osagarri jokatu gabeak ezin du ageriko subjekturik hartu: \**Ez naiz ahalegindu zuk lana garaiz bukatzen* (ikus § 30.6.3.3.3).

**23.2.2.2i** Bihurkari eta elkarkariak. Euskaraz *X-en burua* sintagma baliatzen dugu adiera bihurkaria emateko. Sintagma bihurkaria erabiltzen dugunean, nahitaezkoa da aditz trantsitiboa, bi argumentu izango ditugulako, *X-k X-en burua*: *bere burua heriotzara arte arriskatu du*, *ezkutuarekin babestu bere burua*, *bere burua urkatu du*, *nork bere burua garaitu*, *bere burua zeharo mespretxatu*, *bere burua zigortu*, *bere burua eskaini*, *bere burua zuritu*, *bere burua ezagutu*...

Baina bada beste modu bat ere: aditz bihurkariak *da* laguntzailea hartzea (“desbihurkaritzea” Etxepare 2003): *garbitu*, *jantzi*. *Hirugarren eta zazpigarren egunean garbikuntzako urez garbituko da*, *eta berriro garbi geldituko* (*Elizen arteko Biblia*); *Behar den bezala jantzi naiz?* (Navarro). Bihurkari atxikiak (‘inherentek’) dira *apaindu*, *garbitu*, *jantzi*, *lehortu*, *zikindu*, baina badituzte bihurkariak bestelako adierak ere. Inkoatiboa (*leihoak zikindu dira*, *eguzkia gorde da*, *jantziak lehortu dira*...). Badute forma trantsitiboa ere (inkoatiboari lotua): *jantziak lehortu ditu*, *zapatak garbitu ditu*...

Gaur nahiko hedatuak daude bi bideak onartzen dituzten aditzak: *X-en burua* (trantsitiboa) eta *da* (intrantsitiboa). *Aterkipean babestu naiz* / *Aterkipean babestu dut neure burua*; *Ondo defendatu da* / *Ondo defendatu du bere burua*; *Zerrien antzera gobernatzen naiz* (Morales) / *Gobernatzen dut neure burua*; *Prestatu naiz* / *Neure burua prestatu dut*. *Babestu* aditzari dagokionez, lokatiboak (*-n* postposizio sintagmak) erraztu egiten du *da* laguntzailea hautatzea. Nolanahi ere, nahiko mugatua izan da bide hau tradizioan eta kontu handiz aztertu behar da zein aditz bihurkarik onartzen duen *da* laguntzailea (ikus § 13.8.3). Alberdik (2003) ere seinatzen du zenbait aditz mailegatutan ere trantsitibo (*du*) / bihurkari (*da*) alternantzia: *abandonatu*, *gobernatu*, *defendatu*, *libratu*...



Beste batzuetan argumentu bihurkaria ez da absolutiboaren bidez markatzen, baizik postposizio sintagma batez edo datibo sintagma batez. Instrumentala (-z) hartzen dute *ahaztu*, *arduratu*, *fidatu*, *etsitu*, edo *kexu izan* aditzek (*bere buruaz fidatu*), -n postposizio atzizkia *sinetsik* (*bere buruan sinetsi*), eta komititiboa (-kin) *solastatu* edo *etsaitu* aditzek (*bere buruarekin solastatu*, *neure buruarekin etsaitu*). Beste aditz sorta batek datiboa ezartzen dio izenordain bihurkariari: *egotzi*, *galdetu*, *jaramon egin*, *kasu egin*, *leporatu*... *Neure buruari galdetu nion zergatik ari ote zen oihuka* (Larrañaga).

Elkarkariak. Bi bide ditugu objektu zuzen elkarkaria adierazteko ere. Ohikoen *elkar* izenordaina (eta forma trantsitiboa) da: *elkar hil*, *elkar babestu*, *elkar gorrotatu*, *elkar iraindu*, *elkar jo*, *elkar miretsi*, *elkar zaindu*. Baina intrantsitiboa (*da*) ere onartzen dute aditz batzuek: *maite gara*, *ikusiko gara*... Kontu handiz ibili behar da horrelako egiturekin; ziurrena *elkar* (dagokion kasu marka edo postposizio atzizkiarekin) eta aditz trantsitiboa erabiltzea da (ikus § 13.8.4).

**23.2.2.2j** Zenbait aditz faktibok<sup>4</sup> ere *izan* laguntzailea hartzen dute: *akordatu*, *jabetu*, *konturatu*, *ohartu*. *Jabetu da ez duela irtenbiderik*; *Akordatu da biharko entregatu behar duela lana*. *Gogoratu* eta *gomutatu* aditzek erabilera intrantsitiboaren ondoan onartzen dituzte *du* eta *zaio* laguntzaileak ere: *Antonio Machado erbesteratuaz gogoratzen naiz* (Hernandez Abaitua); *Amaordeak esan diona gogoratu zaio* (Sastre); *Lehen beti honela izaten zela gogoratzen*

<sup>4</sup> Hautatzen duten mendeko osagarriaren edukia ziurtzat, egiazkotzat ematen duten aditzei esaten zaie *faktibo*; ziurtasun horri ez diote eragiten ez ukazioak, ez galderak, ez baldintzak eta horien pareko beste operadoreek ere. Adibidez, *Jabetu zen bere laguna depresio latzak jota zegoela* perpausean, egiazkotzat hartzen da “bere laguna depresio latzak jota zegoen”. Eta hori hala delako ziurtasunari ez dio eragiten ez ezezkoak (*ez zen jabetu*), ez galderak (*jabetu al zen?*), ez baldintzak (*jabetu balitz*), egia izaten jarraitzen baitu mendeko proposizioak adierazten duenak (laguna depresio latzak jota zegoen). Aditz ez-faktiboetan, oster, operadore horiek etenda uzten dute mendeko perpausaren egiazkotasuna: *Bere laguna depresio latzak jota zegoela uste zuen*, baina *Bere laguna depresio latzak jota zegoela uste al zuen?*, *Bere laguna depresio latzak jota zegoela uste izan balu*. Azken bi adibideetan ezin da jakin laguna benetan depresioak jota dagoen ala ez.

*du* (Gonzalez); *Ediporen historiaz gomutatzen da* (Azurmendi); *Nahitaez baten bati Arana Goiri gomutatuko zai*o (Azurmendi); *Gomutatzen dut etxeratu orduko gau iluna zela* (Gonzalez).

**23.2.2.2k** Hizketa eta juzgu aditzak. Trantsitiboak izan ohi dira mota honetako aditzak, baina *mintzatuk izan (da)* laguntzailea hartzen du eta postposizio sintagma baten bidez ematen da barne argumentua (*zertaz mintzatu*).

Berez kokapena adierazten duen *egon* aditzak ere badu aukera juzgu aditzen adiera hartu eta perpaus osagarria hautatzeko: *Nago ez ote genukeen gehienok beste horrenbeste egin behar* (Joxerra Garzia). ‘Iritzi horretako izan’ adiera hartzen du horrelako egituretan *nago* adizkiak. Zehazkiago litzateke esatea *nago* adizkiak hautatzen duela perpaus osagarria, beti forma bera ageri delako; OEHko datuen arabera, literaturako salbuespen bakarra Egiategirena da: *Dago ere egia zela gizon behar bezalakoa, Phlegon zen deitzen*.

**23.2.2.2l** [adjektiboa + *izan*] predikatuak hirugarren pertsona generikoan bakarrik erabil daitezke *da* laguntzailearekin eta perpaus osagarria hartu ohi dute (edo horrelako perpausa ordezkatzten duen erakuslea): *erraz izan, haizu izan, neke izan, posible izan, zilegi izan... Neke zen ez baikor izatea honelako bizitasunaz jabe zen emaztearen ondoan* (Touyarou); *Oraintxe erran bezala, erraz da ihardestea* (Xarriton); *Zilegi da oroitaraztea Heliogabalo Asia Gutian hezi zela* (Juan Garzia).

*Zai*o laguntzailearekin erabiltzen direlarik, balio generikoa galdu egiten da (datibo hunkituko egituratzat har daitezke, § 18.4.4): *Bakoitzari zilegi zai*o bere onurari, *ustez, dagokiona egitea* (Xarriton); *Posible izan*en zaigu jendearen eskakizun zehatzei moldatzea gure eskaintza (Berria).

### 23.2.2.3. Aditz intrantsitibo datibodunak

**23.2.2.3a** Badira aditz motak absolutiboa eta datiboa eskatzen dutenak, edo, behintzat, onartzen dutenak: mugimendu aditzak, *gustatu* motako aditz psikologikoak, edo datibo hunkituko egiturak (Etxepare 2003).

**23.2.2.3b** Mugimendu aditzak. Aditz intrantsitibo hutsen artean ikusi ditugun mugimendu aditzetako askok (§ 23.2.2.2c) onartzen du datibo sintagma: *erori zaio, gerturatu zaio, hurbildu zaio, hurreratu zaio, iritsi zaio, joan zaio, urrundu zaio*. Datiboak, mugimenduaren amaiera (biziduna) adierazten du: *Barraren beste puntako gizona hurbildu zaio* (Gonzalez). Baina datibo hunkitua (interes datiboa) edo jabe datiboa ere izan daiteke (ikus § 18.4.4); hau da, jabetza edo interes harremana egon daiteke subjektu absolutibokoaren eta datiboz markatua den argumentuaren artean: *Gure amaren lankide bat etorri da / Gure amari lankide bat etorri zaio; Gero eta ikasle gutxiago joaten zaio eskolara* (Zubizarreta) / *Gero eta ikasle gutxiago joaten dira (haren) eskolara*.

**23.2.2.3c** Gustatu motako aditz psikologikoek (*bururatu, gustatu, otu*) absolutiboa eta datiboa eskatzen dute. Datiboak ‘esperimentatzailea’ paper tematikoa hartzen du eta absolutiboak ‘tema (gaia) edo estimulua’ (ikus § 18.4.3). Absolutiboko sintagmaren ordeztu perpaus jokatu gabea zein jokatu ere izan daiteke estimulua: *Literatur lantegi bat antolatzekeo ideia bururatu zaio Lujanbiori* (Lertxundi); *Gure laguntzaren beharrean ote zeuden bururatu zaio norbaiti* (Zubizarreta); *Beisbola gustatzen zaio* (Aristi); *Jende gehienari gustatzen zaio kafea hartzea* (Elorriaga).

Beste batzuek *da/zaio* alternantzia onartzen dute: *damutu, dolutu, interesatu, laketu*. *Garesen laster laketu naiz* (Aintziart); *Honako hau areago laketuko zaio* (Jon Muñoz); *Damutu zait horrela sutu izana* (Larrañaga); *Berehalaxe damutu naiz nire esaldiaz* (M. Etxebarria).

**23.2.2.3d** Datibo hunkituko egiturak zein jabe datibokoak (ikus § 18.4.4): *Joni alkandora urratu zaio; Joni ama hil zaio; Aneri begitartea ilundu zaio*.

Beste adibide hauetakoak ere datibo hunkitua dira: *Laster, eguna izanen da eta neke izanen zaigu herri aitzinetik iragan eta beste aldera iristea, nehork ikusi gabe* (Touyarou); *Zilegi izan bekitu zuri gaztigatzea ezen hasiak direla munduan Valmonten ausentziaz ohartzin* (Jon Muñoz).

Gertatzea eta agertzea adierazten duten aditzek ere har dezakete datiboa: *Sugetzar bat agertu zitzaion bidean* (EH); *Zer gertatuko zaio herri honi balio hauek familietan erakusten ez badira [...]?* (Salaburu).

#### 23.2.2.4. Aditz intrantsitibo ergatibodunak (eta intrantsitibo ergatibodun eta datibodunak)

**23.2.2.4a** Badira beste bi aditz mota, non (adiera jakin batean behintzat) adizkiak formalki objektu zuzen batekiko komunztadura markatzen baitu, baina ez baita gero ageri objektu zuzenik perpausean. Batak (intrantsitibo ergatibodunak) *du* motako adizkia eskatzen du, baina ergatiboazko subjektua baino ez du hartzen, eta objektu zuzenik ez da perpausaren osieran: *Gehienek etsi dute; Egunak argitu du; Eboluzionatu dugu*. Besteak, berriz (intrantsitibo ergatibodun eta datibodunak), *dio* motako adizkia eskatzen du, baina ergatiboazko subjektua eta datiboazko zeharkako objektua baino ez datoz perpausa osatzera, objektu zuzenik gabe berriro: *Zuk ekin diozu lanari; Inork ez deritzo gaizki horri*.

**23.2.2.4b** Eguraldi aditz batzuek formalki *du* laguntzailea hartzen dute, baina ez dute ez ageriko subjekturik ez objekturik hartzen (ez dute argumenturik): *atertu du, berotu du, hoztu du, ilundu du*. Beste batzuek, [izena + *egin*] egiturakoek ere *du* laguntzailea hartzen dute, baina ez dute ageriko subjekturik: *elurra egin du, euria egin du, izotza egin du, kazkabarra egin du*.

**23.2.2.4c** Ageriko subjekturik gabeak dira *irudi izan (du)* eta adiera bereko *eman* ere (*ematen du*): *Irudi du asko dela, baina idazle baten egitekoa idaztea eta publikatzea da* (Urkiza); *Beste ehun urte itxaron beharko duzula ematen du* (Azurmendi). Mendeko perpaus osagarriko subjektuaren igoera gertatzen denean (hau da, mendeko perpausaren subjektu posiziotik perpaus nagusiko subjektu posizioa igotzen denean), trantsitibo bihurtzen dira aditz hauek: *Orain, aldiz, hiru ehun mila hil ukan dituen herri dohakabe horrek iduri du bide hobean dela 2000 urtean sinatu bake hartaz geroztik* (Herria). Aspektu marka hartzen duenean, ordea, intrantsitibo datibodun moduan erabiltzen da *iruditu*: *ixaskunek zapiatz begiak xukatzen zituela iruditu zait* (Txillardegia).

Ageriko subjekturik gabea da irakurketa generikoa duen *merezi du* ere. Euskaltzaindiak arautu zuen *merezi izan* predikatuaren osagarri jokatuabeak

absolutibo kasua hartu behar zuela, eta ez ergatiboa: *merezi du joatea* / \**merezi du joateak*.

Euskaltzaindiaren 31. araua: “*Ekartzea merezi du*”, Donostian, 1995eko apirilaren 28an onartua.

Ergatiboko subjektua hartzen duten egiturak dira, aldiz, subjektu animatua dutenak (*merezi dut, merezi duzu, merezi genuen*). Determinatzaile sintagma nahiz perpaus osagarria har ditzake molde honek objektu gisa: *Espetxea merezi zenuen* (Morales); *Zuk ni guztiz madarikatzea merezi dut* (*Elizen arteko Biblia*).

**23.2.2.4d** Ergatibozko subjektua eskatzen dute *afaldu, bazkaldu borrokatu, bozkatu, dimititu, distiratu, ekin, eskiatu, etsi, irakin, iracun, kotizatu, nabigatu, protestatu, saltatu, toreatu, trafikatu, usaindu* edo *zirkulatu* aditzek. Baina debeku dute objektu zuzena hartzea, ez badira, behintzat, objektu sustraiki-deak (ingelesez *cognate* esaten zaienak): *tangoa dantzatu, aurreakua dantzatu*. Batzuek *da/du* alternantzia erakusten dute: *afaldu da/du, borrokatu da/du, dantzatu da/du, saltatu da/du*. Eman ditugun adibideetako asko aditz mailegatuak dira; egia da maileguz hartutako aditz asko intrantsitibo ergatibodunak direla euskaraz, baina ez guztiak. Intrantsitibo hutsen artean ere ikusi ditugu batzuk eta ez dira gutxi maileguzko aditz trantsitiboak ere<sup>5</sup>.

Ergatiboak *egilea* paper tematikoa hartzen du askotan (*borrokatu, dimititu, eskiatu, nabigatu, saltatu*); *gaia* beste batzuetan (*irakin, iracun*), edo *esperimentatzailea* (*etsi*).

**23.2.2.4e** [izena + *egin, eman, hartu*] motako lokuzioak ere intrantsitibo ergatibodunak dira; eta *eman* aditzarekin osatuak, gehienetan, intrantsitibo ergatibodun datibodunak (*min eman dio, lotsa eman dio*). Lokuzio hauetako izena aditzaren barne argumentua da, eta horren froga litzateke izen horrek partitibo atzizkia hartu ahal izatea (ikus § 23.2.1.3.1d, § 23.2.1.3.2b). Hain zuzen ere,

<sup>5</sup> Mailegatutako aditzen erregimenaz, ikus Alberdi 2003.

aditz esapide hauek ez dute objekturik onartzen; ezin da esan *\*hilketa bekatu egin du* edo *\*malkoak negar egin ditu*. Beraz, argumentu bakarreko aditzak direla esan daiteke, ergatiboa hartzen duen subjektua baino ez dute eskatzen; bestea, barne argumentua, aditzean txertatua geratzen da, aditzaren parte izate-ra pasatu da. “Inkorporazio” deitzen zaio operazio gramatikal honi, eta hala eman dute zenbait hizkuntzalarik aditz esapide hauen berri, inkorporazio bidez sortu direla esanez, alegia (Laka 1993b, edo Rodríguez eta García Murga 2003).

Salbuespen batzuk badira, hala ere, non aditz lokuzioak objektu zuzena hartzen duen: *Trena huts egin du*; *Zer itz eman zuen Jainkoak?* (Ubillos). Hortaz, *hitzeman* edo *huts egin* aditz trantsitibo bihurtu direla esan daiteke. Hizketa ekintza adierazten duten lokuzioek ere onartzen dituzte adierazpen perpaus osagarriak: *Berriz ez dudala horrelakorik egingo hitzeman nion*; *Eztiarazteko, hitzeman diote orori pagaren emendatzea* (Hiriart-Urruti); *Maisuak mehatxu egiten zion eskolatik botako zuela* (P. Lizarralde).

Baina, partitiboa hartu ahal izatea, ordena aldatzea eta abar goraxeago aipatu dugun inkorporazio bidezko azalpenaren kontra doa. Izena aditzean erantsia balego, ez luke horrelako “askatasunik” izango. Beraz, aditz esapide hauetako gehienak ezin dira inkorporazio bidez azaldu (Martinez 2015; Oyharçabal 2006a).

Ergatiboak egilea paper tematikoa har dezake (*ume horrek asko hitz egiten du*) edo esperimentatzailea (*Jonek gauero amets egiten du*).

Lokuzio hauetako batzuk aditz intrantsitiboa dute ondoan: *solas egin / solas-tatu da*, *jolas egin / jolastu da*, *barau egin / barautu da*, *borroka egin / borrokatu da*, *dantza egin / dantzatu da*. Beste batzuek aditz trantsitiboa dute ondoan, objektu zuzena hartzen duena: *agur egin / agurtu*, *bultza egin / bultzatu*, *lan egin / landu*, *amets egin / amestu*, *harrika egin / harrikatu*, *txalo egin / txalotu*, *min eman / mindu*... Baina ez dira guztiz berdinak lokuzioak eta horien ondoan eman ditugun aditzak: predikatu konplexuek objekturik ez duteenez, ezin dute adierazi ekintza horrek objektuak hunkitu dituen ala ez; *bultzatu*, *harrikatu*, *mindu* edo *txalotu* aditzek, ostera, objektua hunkitzen duen ekintza adierazten dute. *Txoriari harrika egiten dionak ihes eragiten dio* (*Elizzen arteko Biblia*); adibide horretan ez dakigu harriek txoria jo zuten ala ez.

Baina *Hiritik kanpora atera eta harrikatu egin zuten hil arte* adibidean argi dago objektu hunkitua dela.

**23.2.2.4f** Ergatiboaz gain datiboa ere har dezakete [izena + *egin*] lokuzio askok: *agur egin dio, harrika egin dit, bultza egin dizut, txalo egin digute*. [Izena + *eman*] aditz lokuzioek maiz hartzen dute datiboa, lokuzioko aditzak (*emanek*) zehar-objektua hartzen duen neurrian: *atentzioa eman dio, aukera ematen digu, min eman dit, musu eman die, nazka ematen dizu*.

Bestelako aditzekin osatzen diren aditz predikatu konplexuak ere (*behea jo, lur jo, hanka sartu, ziria sartu...*) intrantsitibo ergatiboduntzat hartu behar dira, ez baitute beste objekturik onartzen. Bai, ordea, zehar-objektua (lokuzioko aditzak datiboa hauta dezakeenean): *kontuak eskatu dizkigu, ziria sartu digu*.

**23.2.2.4g** Aditz intrantsitibo ergatibodun eta datibodunak dira *ekin, erreparatu* (Hegoaldean eta adiera batean behintzat), *eutsi, heldu, iritzi, jarraitu, itxaron*: ergatiboa eta datiboa hautatzen dute, baina ez dute ageriko objekturik hartzen. Adizki laguntzailean baino ez da ageri absolutiboaren komunztadura marka. *Zentzugabekeria deritzot judua horrela erretzeari* (Ladron Arana); *Lehen irria eragin didan trufari guztiz gustu txarrekoa irizten diot orain* (Zubizarreta); *Merezi duen zerbaiti ekingo diot* (Navarro). Zehar-objektua izan daiteke DS bat edo perpaus jokaturgabea. *Iritzi-k*, gainera, datiboari buruzko lehen mailako predikazioa eskatzen du (ikus § 24.3.5.2): *Hizkera jasoan, al-diz, egokiago irizten diot euskarazkoak erabiltzeari, nahiz eta beste euskalki batzuetatik hartuak izan* (Zuazo); *Hain iritzi zion xarmagarri eta kitzikatzaille anonimoari, ezen gogo biziz irakurri baitzuen bigarren aldiz, baita hirugarrenez ere* (Morales).

Azken urteetan *iritzi*-ren beste erabilera bat ari da hedatzen, *iruditu* edo *uste izan* aditzen parekoa: *Plano orokor batetik hartuta erabat ulergarria dela deritzot* (Cano); *Onea gaua han pasatzea zela iritzi diot* (Arretxe). Orain arteko *iritzi-k* ez bezala, perpaus osagarri jokaturgabea hartzen du erabilera honetan, ez dago datibo sintagmarik, ez eta horri lotutako bigarren mailako predikaziorik ere. Aditz mota berri bat dakar *iritzi*-ren erabilera honek: aditzean baino ageri ez den zehar-objektua, perpausean hutsik dagoena.



**23.2.2.4h** Badira *du/dio* alternantzia erakusten duten aditzak, baina *dio* aldaeran ageriko objekturik hartzen ez dutenak: *deitu du/dio*, *lagundu du/dio*, *tiratu du/dio*. *Mikeli deitu diogu / Mikel deitu dugu*; *Mikeli lagundu diogu / Mikel etxeraino lagundu dugu*. *Itxoin* eta *itxaron* aditzek ez dute ageriko objekturik hartzen, ez *du* laguntzailearekin, ez eta *dio* laguntzailearekin ere. Hauetako batzuen erregimena arautu zuen Euskaltzaindiak (39. araua). Zehazki:

- *itxoin* eta *itxaron* aditzek NORK-NORI eskatzen dute objektua dutenean: “Mireni itxoin zioten eguerdiraino”. Eta objekturik gabe daudenean NOR-NORK behar dute: “Egongelan itxoin dute goiz osoan”;
- *deitu* eta *lagundu* bietara erabil daitezke: “Mikeli deitu diogu”, “Mikel deitu dugu”; “Mikeli lagundu diote”, “Mikel lagundu dute”.

Euskaltzaindiaren 39. araua: “Zenbait aditzen erregimena (*gonbidatu*, *iguriki*, *itxoin*, *itxaron*, *deitu*, *lagundu*)”, Donostian, 1995eko uztailaren 28an onartua.

### 23.2.2.5. Aditz trantsitiboak

**23.2.2.5a** Subjektua eta objektu zuzena (sintagma ergatiboa eta sintagma absolutiboa) hautatzen duten aditzei esaten zaie trantsitibo. Mota bateko baino gehiagoko aditzak bereiz daitezke trantsitiboen artean.

**23.2.2.5b** Esatea, pentsatzea edo uste izatea/juzgua adierako aditzak, gehienak, trantsitiboak dira. Morfologiari dagokionez, aditz bakunak, eratorriak nahiz predikatu konplexuak izan daitezke mota honetakoak (zerrenda honetako aditzek badute horrelako adiera bat, behintzat, nahiz bestelakoak ere izan): *aditu*, *adierazi*, *adostu*, *agertu*, *agindu*, *aholkatu*, *aipatu*, *aldarrikatu*, *argitu*, *asmatu*, *azaldu*, *berretsi*, *berri eman*, *deklaratu*, *entzun*, *erabaki*, *erantzun*, *erregutu*, *esan*, *eskatu*, *galdetu*, *hitzeman*, *idatzi*, *igarri*, *ihardetsi*, *iragarri*, *itaundu*, *jakin*, *jakinarazi*, *kontatu*, *mehatxu egin*, *oihu egin*, *pentsatu*, *salatu*,



*sinetsi, ukatu, uste izan, zin egin, zabaldu* (berria zabaldu)... Objektu zuzena D<sub>S</sub>a izan daiteke, baina baita beste askotan modu bateko edo besteko mendeko perpaus osagarria ere. Badira aditzak perpaus egiturako osagarria baino hautatzen ez dutenak: *uste izan*.

‘Pentsatzea’, ‘uste izatea’ adiera hartzen dute *egin* eta *eman* aditzek ere erabileran hauetan: *Haren portzelanazko zurbiltasunari erreparaturik, egingo nuke bolada txarra pasatzen ari dela* (Zubizarreta); *Emango nuke biak sentitzen direla harro* (Arretxe); *Eman dezagun/demagun ikasgai guztiak gainditzen dituzuela*.

*Irudi izan* eta adiera horretako *eman* ere trantsitiboak dira: *Iduri du Jon haserre dagoela / Jonek haserre dagoela irudi du*.

**23.2.2.5c** Aditz arazle edo kausatiboak. Norbait edo zerbait eragile direla gertatzen diren ekintzak, jarduerak edo egoerak adierazten dituzten aditzei esaten zaie *kausatibo* (euskaraz *arazle*). Beste hitz batzuetan esanda, argumentu bat gehiago eranstean diote perpausari aditz arazleek. Horixe da *Jon hil da / Gaizkile batzuek Jon hil dute* perpausen arteko aldea: berez gertatu den zerbait (*hil da*) edo beste batzuek eragin dutena (*hil dute*).

Bi modutara marka daiteke arazletasuna euskaraz: laguntzailea aldatuz (*da > du*) edo aditz nagusiari *arazi*, *eragin* erantsiz (ikus § 23.2.1.2). Egoera aldaketa adierazten duten aditzek nahikoa dute *da > du* aldaketa: *argaldu, garbitu, ilundu, loditu, zikindu*. Ohiko jokabidea da adjektiboetatik eratorririko aditzekin; baina ez horiekin bakarrik, baita noranzko jakineko mugimendua adierazten duten aditzekin ere (horien artean *-ratu* amaieradunak): *atera da / atera du, oheratu da / oheratu du, sartu da / sartu du, urrutiratu da / urrutiratu du*. Eta, oro har, egoera aldaketa adierazten duten beste aditz askorekin: *erre da / erre du, gaixotu da / gaixotu du, haserretu da / haserretu du, hil da / hil du, sendatu da / sendatu du* eta abar (Oyharçabal 2003b).

*Arazi* edo *eragin* kausatiboek aldatu egiten dute aditzaren balentzia, goraxeago esan bezala, argumentu bat gehitzen diotelako. Euskara estandarrean aldaketa horiek nola adierazi behar diren arautu zuen Euskaltzaindiak (43. araua):

1. Araziren subjektuak beti ergatibo kasua hartzen du: *Koldok etorrarazi du Mikel*.
2. Oin aditzaren (hau da, *arazi* hartzen duen aditzaren) objektuak beti absolutiboa hartzen du: *sagarrek salarazi ditugu*.
3. Oin aditza trantsitiboa denean, datibo kasua hartzen du hasieran subjektu zenak: *ikasleek liburua irakurri dute > irakasleak liburua irakurrarazi die ikasleei*.
4. Oin aditzaren subjektuak absolutibo kasua hartzen duenean (hau da, oin aditza intrantsitiboa denean), absolutiboa hartuko du perpaus arazlean ere: *Mikel jarri da > Mikel jarrarazi dute; euskara bizi da > euskara biziarazteko beste tresna baitezpadazkoa: eskola (X. Arbelbide)*.
5. [izena + egin] motako lokuzioekin eta objektu zuzena ezabatua duten aditzekin (*edan, jan*), datibo kasua hartuko du subjektuak: *umeak negar egin du > umeari negar eragin dio arreba zaharrenak*. Berdin gertatzen da subjektu biziduna eskatzen duten *eraman, jasan, pairatu, sufritu* eta gisako aditz psikologikoekin, bai eta intrantsitibo ergatibodunekin, subjektua biziduna denean: *Rumsfeldek dimititu du > Rumsfeldi dimitiarazi egingo ziotela espekulatzen zuten askok (Berria); (guk) etsi dugu > erortzeak ez digula (guri) etsiarazi behar*. Baina subjektua bizigabea denean: *urak irakin du > ura irakinarazi dute*.

Euskaltzaindiaren 43. araua: “Arazi aditzaren erregimena”, Usurbilen, 1995eko irailaren 29an onartua.

**23.2.2.5d** Aditz psikologiko kausatiboak. Aditz intrantsitiboan artean ikusi ditugu gogo egoeraren aldaketa adierazten duten aditz psikologikoak, inkoatibo baliokoak (§ 23.2.2.2g). Trantsitiboak dira *du* laguntzailea harturik balio kausatiboa dutenak: *alaitu, asaldatu, aspertu, aztoratu, beldurtu, harritu, haserretu, ikaratu, kezkatu, kontsolatu, lasaitu, liluratu, poztu, txunditu, urduritu...* Ergatiboko sintagmak estimulua edo kausa adierazten du eta absolutiboak, berriz, esperimintatzailea. *Ahalegin txikienak ere dardarka jartzen nau,*

*eta itzal batek ikaritzen nau* (Navarro); *Orain konturatu naiz beti beldurtu nauen bakardadea dela neure salbazioa* (Jaio).

Eragilea biziduna denean ez da harritzekoa forma arazlea erabiltzea: *Azken aldian hainbeste izuarazi zuen gizon haren begietako so beltz hura berriz ikustean, emaztea ikaratu zen* (Touyarou); *Jainko maitalea niregana etorriko da eta etsaien porrotaz alaiaraziko nau* (Elizen arteko Biblia); *Horrek neskatoa haserrearazi zuen* (Gabiria).

**23.2.2.5e** Beste aditz psikologiko batzuek, berriz, ergatiboa eta absolutiboa hautatzen dute, baina esperimendatzailea izanik ergatiboa eta estimulua objektua. Horrelakoak dira: *adoratu, desiratu, ederretsi, errespetatu, estimatu, etsi, gaitzetsi, gurtu, gutxietsi, irrikatu, miretsi, onartu, onetsi* eta abar.

**23.2.2.5f** Laburbilduz, hiru motatako aditz psikologikoak bereiz daitezke: absolutiboa eta datiboa hautatzen dituzten intransitibo datibodunak (ikus § 23.2.2.3c), inkoatibo/kausatibo (*da/du*) oposizioa era dezaketenak (ikus § 23.2.2.2g, § 23.2.2.5c) eta transitibo hutsak, ergatiboa eta absolutiboa hautatzen dutenak (ikus § 23.2.2.5e).

**23.2.2.5g** [izena + *izan* (*du*)] predikatu konplexu batzuk ere (ikus § 23.2.1.3.4) aditz transitiboak dira, gogo egoerak adierazten dituztenak: *behar izan, damu izan, desio izan, gorroto izan, maite izan, nahi izan*. Esperimendatzailea da subjektu ergatiboa eta gaia/jasailea objektu absolutiboa. *Gorroto dut galtzerdiak janzte*; *Gurasoek asko maite zaituzte*. Objektua izan daiteke determinatzaile sintagma, bai eta perpaus osagarri jokatu gabea ere.

**23.2.2.5h** Aditz bihurkariak ere egitura transitiboa eskatzen dute: *bere burua arriskatu, bere burua erre, bere burua eskaini, bere burua gorroto (izan), bere burua maite (izan), bere burua mespretxatu, bere burua zigortu* eta abar. *Elkar* objektu zuzenak ere egitura transitiboa eskatzen du: *Elkar agurtu dute biek; Elkar ikusi duzue gaur goizean* (ikus § 23.2.2.2i).

**23.2.2.5i** Predikazioa. Jabetza edo posesioa ere txerta daiteke euskaraz aditzaren argumentu egituran *du* laguntzailearen bidez (Etxepare 2003): *Mikel bere anaia da / Jonek Mikel anaia du*. Bigarren perpaus honetan, predikazio

harremana dago *Mikel* eta *anaia* sintagmen artean. Mota honetako egituretan ergatiboak ‘jabea’ adierazten du, eta absolutiboak (jabe horrek) ‘hartua’ duena. Izaki mailako predikazioa adierazten dute mota horretako egiturek.

Egoera mailako predikazioa ere adieraz daiteke aditzaren argumentu egitura-  
ren bidez: *eskuak ikara ditut, ohea bero dut* (ikus § 24.3.4).

### 23.2.2.6. Aditz ditransitiboak

**23.2.2.6a** Subjektua, objektua eta zehar-objektua hartzen dituzten aditzak dira ditransitiboak (§ 18.4.2). Subjektuari ergatibo kasua ezartzen diote, absolutiboa objektuari eta datiboa zehar-objektuari. *Dio* laguntzailea hartzen dute horrelako aditzek.

**23.2.2.6b** Aditz trantsitibo askoren balentzia alda daiteke datibo kasua hartuko duen argumentu bat gehituz; horrelakoetan, *du/dio* alternantzia erakusten dute aditzek: *ekarri du / ekarri dio, esan du / esan dio, eskaini du / eskaini dio, eskatu du / eskatu dio, galdetu du / galdetu dio, irakurri du / irakurri dio, jakinarazi du / jakinarazi digu, kontatu du / kontatu dio* eta abar.

**23.2.2.6c** Forma ditransitiboak (*dio*) adierazten du transferentzia bat gertatu dela, zerbait (objektua) pasatu dela agente batengandik hartzaile edo onuradun batengana. Aditz batzuek berez dute ‘transmititze’, ‘batetik bestera pasatze’ adiera hori eta, horrenbestez, ohikoa dute hiru argumentuak hautatzea eta *dio* laguntzaile hartzea: *bidali, eman, erakutsi, erosi, eskaini, irakatsi, saldu...*

### 23.2.2.7. Alternantziak

**23.2.2.7a** Aditzen balentziak aztertzean behin baino gehiagotan aipatu ditugu balentzia alternantziak. Laguntzaile mota batekin baino gehiagorekin ager daiteke aditz bat eta, horren arabera, egiturazko kasuak ere aldatu egingo dira.

**23.2.2.7b** Alternantzia horietako batzuk denboran zehar sortuak dira (diakronian): *jarraitu natzaio* > *jarraitu diot*; (*horren*) *eskatu zaio* > (*hori*) *eskatu dio*. Beste batzuk garai bereko hizkeren artean (sinkronian): *afaldu naiz/dut*, *jardun dut/naiz*, *dantzatu gara/dugu*, *irten naiz/dut*. Hiztegiek jasotzen dute aditz bakoitzaren erregimena eta gerta daitezkeen alternantziak.

**23.2.2.7c** Aditz intrantsitibo datibodunak aztertzean esan bezala (§ 23.2.2.4h), Euskaltzaindiak ere arautu ditu aditz batzuek, euskalkien arabera, balentzia desberdinak dituztenak; zehazki, *gonbidatu*, *iguriki*, *itxaron*, *itxoin*, *deitu* eta *lagundu* aditzen erregimena.

Ikus Euskaltzaindiaren 39. araua: “Zenbait aditzen erregimena”, Donostian, 1995eko uztailaren 28an onartua.

**23.2.2.7d** Laguntzaile intrantsitiboaren eta trantsitiboaren arteko alternantziak (*da/du*) inkoatibo/kausatibo alternantzia ematen du aditzera sarri: *poztu da / poztu du*.

Beste batzuetan paper tematiko bera egiturazko kasu batez edo bestez adierazteak dakar alternantzia: *damutu zaio / damutu da*; *gogoratu da / gogoratu zaio*.

Balentzia alternantzia gertatu arren, subjektuak adierazten du esperimentatzailea *gogoratu da / gogoratu du*, bikotean.

**23.2.2.7e** Ohikoa da *du/dio* alternantzia, aditz trantsitibo askok aukeran baitute datiboa ere hartzea (*esan du / esan dio*). Halaber, *da/zaio* alternantzia (*joan da / joan zaio*).

**23.2.2.7f** Balentzia alternantziak (*da/zaio/du*) inbertsonala/subjektu jakinekoa (egiturazko kasu batean zein bestean) isla dezake: *zilegi da / zilegi du / zilegi zaio*.

Inbertsonala/subjektu jakineko egitura dakar *du/dut* alternantziak *merezi izan* predikatuaren kasuan.

Esan bezala, hiztegiak ematen du aditz bakoitzak nolako balentzia alternantziak izan ditzakeen.

### 23.2.2.8. Aditz trantsitiboeko perpausak inpertsonal bihurtzea

#### 23.2.2.8.1. Adizki trantsitiboa intrantsitibo bihurtzea (*onartu da*)

Erraza eta aski sistematikoa da euskaraz aditz trantsitiboz eraturiko perpausak inpertsonal bihurtzea: intrantsitibo bihurtzea aditza, eta hirugarren pertsona gramatikalera (*dut-duzu-dugu-du > da*): [*aipatzen ez den norbaitek*] *garaiz ordaindu du isuna > garaiz ordaindu da isuna*. Kasu horretan, subjektu zen ergatiboko sintagma desagertzeari zor zaio inpertsonaltasun-interpretazioa.

Analisi gramatikalean, bada auzitxo bat prozedura horrekin, erabilera garbi egonik ere. Eman dugun adibidean, kasurako, ez dago garbi ea *isuna* sintagma objektu zuzena izatetik subjektu izatera etorri den; zuhurrago izan liteke esatea subjektu ergatiboa ezabatu dela eta horrek eragina dela *du > da* komunztadura aldaketa. Rol semantikoaren aldetik, behinik behin, garbi dago objektu zuzenaren funtzioarekin lotu ohi dena betetzen duela.

Kontuan izan behar da, hala ere, aditz askok onartzen dutela berez *du* zein *da* jokoa, eta, halakoetan, beraz, testuinguru guztiz markatu batek baino ezin eragin aurreko adibidekoaren moduko interpretazioa: *konpondu da auzia* [berez, edo norbaitek konpondu duelako iradokizunik gabe behinik behin]; *ohart bedi* [norbait horretaz].

Zeharkako objektua adierazten duen datiboko sintagma bat badago tartean, halaxe eusten zaio perpausaren aldaera inpertsonalean (*dio > zaio*): *ordaindu dizkizu* [*norbaitek*] *kalteak > ordaindu zaizkizu kalteak*. Adizkia trantsitibo petoa ez denean ere, berdin jokatzen da: *iraunarazi dio* [*norbaitek*] *> iraunarazi zaio*. Ez da egoki, jakina, datibora jotzea objektu zuzena adierazteko (gaztelaniazko *a* preposizioaren balio bikoitza oker kalkatuz): *\*ederki engainatu zaigu herritarroi < \*ederki engainatu digu* [*norbaitek*] *herritarroi < ederki engainatu gaitu* [*norbaitek*] *herritarrok*.

#### 23.2.2.8.2. Hirugarren pertsona gramatikal pluralari erreferente-balio generikoa ematea (*debekatu dute*)

Beste prozedura bat, hau ere trantsitiboan kasurako, semantikaz eta testuinguruaz baliatzen da, erreferente generikotzat interpretaraziz ergatibozko hirugarren pertsona gramatikalaren plurala: [*aipatzen ez den norbaitek*] *bidea itxi du > bidea itxi dute* [kontua ez da nor(tzue)k, itxirik dagoela baizik].

Beste pertsona gramatikal batzuk ere balia daitezke antzeko jokoetarako (trantsitiboekin zein intrantsitiboekin), baina murrizagoa da halakoen erabilera, erretorikarekin lotuagoa, eta ez dirudi inpersonalen artean hain erraz sartze-koak direnik: *Demagun etxetik irteten ari garela/zarela*. Nolanahi ere, sarriago erabiltzen da bigarren pertsona, kontakizunetan-eta, balio generikoarekin: *Sartzen zara eguzkiaren argi betetik gela ilun batean eta hasieran ez duzu ezer ere ikusiko*. Halako perpausak pertsona gramatikalaren erreferentzia zehatza baliorik gabe utziz, kidetasun handiagoa ageri dute *inor* izenordainaz antolatzen direnekin (*inor etxetik irteten ari dela*).

#### 23.2.2.8.3. Pasiboa eta erdi-pasiboa

Aipatu ditugun prozedurek dituzten mugak kontuan harturik, ez da harrizkoa beste joskeraren bat ere baliatzea muga horietatik kanpoko adierazpideetarako: *izan* aditzaz eta adjektibo balioko partizipioaz osatzen diren joskerak, hain zuzen ere (Ortiz de Urbina 2003c: 298-299; Zabala 2003: 426-448; de Rijk 2008: 279-280, 671-673). Ondoren aztertuko ditugun egiturak ez dira inpersonalak, baina askotan gertatzen da balentzia aldaketa (ergatiboko sintagmatik absolutibokora pasatzea dakarrena).

Aztergai ditugun egituretako adjektibo/partizipioa izan daiteke aditz intrantsitibo batena zein aditz trantsitibo batena. Adjektibo/partizipio intrantsitiboan adibideak dira honako hauek: *Hemendik urrutira joana da*; *Joanes Labrit Nafarroa Beherean sartua zen* (Epaltza); *Gurutzatzen nituen emazte eta gizon askoren izen bereziak ezin atxikiz ibilia naiz* (Aintziart). Intrantsitibo ergatibo-

dunen adibideak ere badira: *Ordu bete lehenago afaldua nintzen* (Olarra); *Urteen joan-etorrian asko sufritua zen haien trikimailuen kausaz* (Berrizbeitia); *Englandekin nabigatua duk, England kapitain handi, piratarekin* (M. Garikano). Adibide horietan, jatorrizko subjektu ergatiboa, absolutibo bihurtu da, eta aditza, partizipio bihurturik, egitura kopulatiboko predikatu: *Englandekin nabigatu du (hark) / [Englandekin nabigatua] da (hura)*; hitanoak bihurtzen du da adizkia gizonezko solaskideari zuzentzeko *duk* adizki.

Aditz trantsitiboekin, predikazioko argumentua izan daiteke subjektua zein objektua. Subjektuari dagokio egitura kopulatiboko partizipio predikatua ondoko adibideetan: *Hau ere ibilbide luzeak egina zen* (Mitxelena); *Eta lehen ere nonbaitean esana naiz, dokumentu zaharretan maiz ageri dela UBICI deitura egungo HUICI orde* (Perurena); *Denbora luzea daramat hemen eta gauza asko ikusia naiz* (Rey). Balentzia aldaketa argi dago adibide hauetan ere.

Predikazioko argumentua objektua denean, pasiboaren antzeko egiturak sortzen dira, edo, hobeto esanda, adjektibozko edo egoerazko pasiboa<sup>6</sup> (Ortiz de Urbina 2003c: 298): *Liburua erdarara itzulia izan da; Bihi mota hori Afrikatik ekharria izatu da* (Duvoisin); *Zulo haietatik irtenarazi, eta denak frontoira eramanak izan ziren* (Linazasoro); *Ehorzketak intimitate osoan eta lagunartean eginak izan dira eta bere errautsak Durangorat eramanak* (Herria); *Ikerketak eginak izan dira garai hortako dokumentuetan* (Herria); *Jantzi bereziak Alemaniatik ekarriak izan ziren* (Aiestaran); *60 milioi pinta arno salduak izan dira, aitzineko urtean baino gehiago eta karioago* (Herria).

Adiera nagusia ondoriozkoa edo egoerazkoa da. Baina *izan* aditzak har dezake aspektu burutugabea, bai eta prospektibokoa ere: *Liburuak lasai bizi dira salmenta eskasian ere; batere salduko ez diren liburuek ere badakite noizbait irakurriak izango direla* (Aristi); *Ergelkeria guztiak —esaten dit D.-k—, zozokeria guztiak esanak izango dituzu* (X. Artola); *Etxeko sariak, Euskal Herrian*

---

<sup>6</sup> Aditz trantsitiboekin predikazioko argumentua subjektua nahiz objektua izan daitekeelako dio Ortiz de Urbina egitura hauek, onenean ere, adjektibozko pasibotzat hartzekoak direla, eta ez egiazko pasibotzat.



*ematen dizkigutenak, beti egiaz eginak izaten dira, bihotzez, eta hori niretzat oso garrantzitsua da (Berria).*

Adibide horiek auzo-erdaretako egitura *pasiboak* dakarzkigute gogora: *Laster garbituak izango dira tresnak* [aipatzen ez den norbaitek garbituko ditu]. Bistakoa da ez dela perpaus hori beste honen sinonimoa: *Laster garbituko dira tresnak* [berez, edo inork garbituko dituelako iradokizunik gabe behinik behin]. *Erdi-pasibo* esaten zaie halako egiturei, eta garbi dago joskera hori baliagarria dela anbiguotasunik gabe aditzera emateko badela hor *egile* bat tartean (kasu horretan *garbituko duen norbait*). Egitura hori, bidenabar esanda, ez da kultismo bitxi bat, tradizioak erakusten duenez: *Tiñako sei pezetan / izan zan saldua*<sup>7</sup>. Gaur ere adibide ugari aurki daitezke euskaraz.

Auzo-erdaretako egitura pasiboetan, erdi-pasibo delakoaren ondoan, bada pasibo osoa, hots, dena delako *egile* hori zehazki aipatzen duena beste sintagma espezializatu batean (*ablatibo agente* edo *complemento agente*, *complément d'agent* deitu izan zaio gaztelaniaz zein frantsesez, edo, berrikiago, *agente preposicional*): *los instrumentos serán limpiados por los propios usuarios; les témoignages ont été recueillis par la police*. Pasibo oso hori ez dago lotua, beraz, inperzonaltasunarekin, agerian baitago betiere *egilea* forma pasibo horretan, aktiboan bezalaxe: *los instrumentos los limpiarán los propios usuarios; la police a recueilli les témoignages*. Pasibo osoa bazterreko aukera da gaur egun gaztelaniaz, haren premiarik ez den seinale. Ingelesez, aldiz, modu bakarra da objektua aditzaren aurrera ekartzeko, eta horregatik baliatzen da erruz.

Euskaraz ez dugu bete-betea auzo-erdaretako pasiboen pareko egiturarik; hau da, egitura aktiboko subjektua (ergatiboa) postposizio sintagma bihurtuko duenik<sup>8</sup>. Baina aztergai ditugun egituretan, agentea, gaia edo helburua argu-

<sup>7</sup> Horren baliokideena *saldu zuten* (zegokienek) litzateke, eta ez *saldu zen*.

<sup>8</sup> Bada halako alerik tradizio zaharrea: *Jainkoaz maitatuak* (Haraneder, Duvoisin). Edo ikus Baztango 1750eko eliza-aginduko pasarte hau: “Gure obispado huntaco presuna fiel gucieri aditcera ematen dabegu, daudelarican handizqui eta seriosqui erreprenditu eta meachatuac danza publicoac Aita Sainduaz eta Escritura Sainduaz, bai eta ere daudelarican debecatuac, hala erreinu huntan, nola bercetan escomicu eta censura bortitcen penan, canon sagradoez, concii-

mentuak ager daitezke, aditzean komunztadura eragin gabe. Semantikoki pasiboaren parekoak dira, baina ez dago aldaketarik kasu-ezarketan. Komunztadurarik gabeko argumentuak partizipioaren ondoan kokatu behar dira<sup>9</sup>, hurrenkera oso mugatua da (Zabala 2003: 431): *Gutun hau zuk niri idatzia da; Keinu iluna: Apache helikopteroak amerikarrek eginak dira* (Arkotxa, Berria); *Hiritartasuna hiriak denontzat emandako legeak errespetatzea da, eta hiriaren gobernuan parte hartzea; legeak errespetatzea hiritarrek eginak direlako* (J. L. Zabala, Berria). Baina \**zuk gutun hau idatzia da; \*gutun hau idatzia da zuri; \*gutun hau idatzia da zuk niri.*

Egitura erdi-pasiboa, tradizio onekoa dugu euskaraz, eta baliagarria testuinguru askotan: *zaurituak/goratuak/zigortuak/sarituak/gaitzetsiak izan zarete*. Joskera horretara jo nahi ez duenak alternatiba *bakarra* du<sup>10</sup> (hirugarren pertsona pluraleko ergatiboko sintagma erreferente generikozkoa): *zauritu/goratu/zigortu/saritu/gaitzetsi zaituztete*. Izan ere, *da* > *du* prozedura aplikatzeak ez baitu balio halako kasuetan: #*zauritu zarete* / #*goratu zarete* / \**zigortu zarete* / \**saritu zarete* / \**gaitzetsi zarete*.

Horra nola baliatzen diren aditzaren joskerak esanahi banatarako: *zauritu gara, zauritu izan gara, zaurituak gara, zaurituak izan gara*. Binakako sime-

---

lionez eta hanitz arzobispo eta obispo saildu eta iaquinsunez. Halaber, debeatuac daudelarican haniz principe, erregue eta monarca handi eta piadosoer, hoquen conseju eta tribunale errealez pena handien azpian, eta leheneco mendetaco danzac, cein eguiten baicituzten guizonquieci guizonquiequin eta emaztequieci emaztequiequin, daudelarican continuoqui mechatuac eta erreprobatuac misionista apostolico zeloso zuhur eta piadosoenez” (Reguero: “Baztango 1750eko eliza-agindua: edizioa eta azterketa”). Etxenikek ere maiz erabiltzen ditu (Salaburu 1980). Bestalde, gaur nahi baino maizago entzun eta irakurtzen ditugun *-gatic* postposizio sintagma erdal egituren kalko txarra baino ez dira (\**dokumentua idazkariarengatik sinatua izan da*).

<sup>9</sup> Horregatik dute hurrenkera mugatua predikazioko argumentua subjektua denean ere: *Ni gutun asko idatzia naiz*. Hor ere objektua komunztadurarik gabeko argumentua da.

<sup>10</sup> Gaur egungo euskara arruntean bederen, bada-eta bestelakorik tradizioan: *Pixka batian ez naiz aztuko* [= *ez naiz ahaztua izango*] *sartuagatik lurpian* (Txirrita); *Hil adi, alaba aite* [= *alabatua izango haiz*] (Oihenart); *Obligatu giren* [= *obligatuak izan gaitezen*] *guziak Jeinkoari othoitz egitera* (Etxepare).

tria formala gorabehera ( $\emptyset$ /-izan /  $\emptyset$ /-ak), azken moldeak bakarrik adierazten du badela tartean *zauritzaile* bat, nahiz ez izan esplizitua. Horregatik dakargu egitura erdi-pasibozko perpausa perpaus inperzonalak eratzeko prozeduren sail honetara.

#### 23.2.2.8.4. Datibozko *esperimentatzailea* ezabatzea

Datibozko sintagma batzuek (*subjektu*) *esperimentatzaile* rol semantikoa adierazten dute aditz predikatu jakin batzuekin (§ 23.2.2.3c), eta inperzonalaren efektua lortzen da sintagma hori ezabaturik *esperimentatzaile* generiko bat adieraziz ([jendeari] *zai*o > *da*) halako aditz bakan batzuekin (*gustatu*, *iruditu*/*iritzi*), hizkera batzuetan bederen: *Bañan oriyen aziyo asko / etziran emen gustatu* (F. Imaz); *Ori etzan gustatzen / Oletako plazan (Euskal Jokoak)*; *Kontzientziko kristau artean / ez da geiegi gustatu* (Basarri); *Nola gusta diteke / ortano zurruta?* (Basarri); *Gustatu zera eta / azaldu azkar berriz!* (Basarri); *Gauza justu eta bidezkoa iruditu da urtearen illetako bat ere beraren onrarako esleitzea* (G. Arrue); *Obeki nunbait iruditu zan / bakartearen begiran, / gizonetzkoen komentu on bat / elizaren jirabiran* (S. Mitxelena); *Eguzkia eta ilargia illunduko dira, eta eretxiko da, zeruko izarrak jausiko balira legez* (Iturzaeta); *Esan eta iritxi izan zanez* (Zaitegi).

#### 23.2.2.8.5. Zenbait esapide berezi

Badira esapide berezi batzuk adiera horretan subjektu espliziturik onartzen ez dutenak, hala nola *ongi/ondo da(go)* (= *ados*)<sup>11</sup>. Besteren bat ere bada sinonimiaz edo/eta analogiaz eratua: *ederki egoten da (bat) hemen* (= *pasatzen da* [*< pasatzen du batek*])). Beste kasu batean —*badirudi* esapidearekin— bada adi-

<sup>11</sup> Pragmatikoki, horren indar ilokutiboa bestelakoa izaten da askotan, erretizentzia ironikoz edo ordain-mehatxua adierazten duelarik: *Ongi da...: etorriko zaizu zuri ere txanda (eginaren ordainarena)*.

bide bakanen bat tradizioan ageriko subjektu ergatibo eta guztikoa, baina ez da ohikoena inola ere: *Karga bat sagarrekiñ / iru karga erari / baliyatzen dirala / gauzak badiruri* (JanEd); *Biyak utsikan utzi / zuten Udarregi / tristeza ugari / gizagajuari, / ez dala ongi ori / gauzak badiruri* (AzpPr); *Tentatzen ai zerala / trazak badirudi* (Baladak). Aurreko *badirudi* horren sinonimo den *ematen du* esapideak ere esplizitatu gabe uzten du subjektu ergatiboa: *Ematen du ez dugula irtenbiderik*.

### 23.3. Argumentuak

#### 23.3.1. Aditza eta argumentuak

**23.3.1a** Aditzak erabiltzen ditugu pertsoneri edo gauzei dagozkien ekintzak (*gidatu, jan, eraiki, bota, ekarri...*), prozesuak (*hazi, haserretu, loratu, irakin*), egoerak (*aspertu, jakin, eduki, ezagutu...*) adierazteko. Prozesu horiek nonbait gertatzen dira, noizbait, nolabait... eta protagonista batzuk izaten dituzte.

Horrela, *lotsatu da* baldin badiogu, norbait lotsatu dela ari gara esaten; aldiz, *eskuratu du* esaten badugu, norbaitek zerbait eskuratu duela ari gara adierazten; azkenik, *eman dio* esanez gero, norbaitek zerbait beste norbaiti eman diola ari gara adierazten. Beste modu batera esateko, aditz bakoitzak sare semantiko bat eratzen du, eta sare semantiko horrekin batera gauzatzen da sintaxian. Ezinbestekoa da norbait lotsatzea, norbaitek zerbait eskuratzea, edo norbaitek beste norbaiti zerbait ematea, *lotsatu, eskuratu* edo *eman* aditzen esanahiaz jabetu nahi baldin badugu. *Abiatu* ere *nonbaitetik* abiatzen gara, eta *nonbait ipintzen* ditugu gauzak. Horiek dira argumentuak, hola deitzen diegu. Aditzak ezinbestekoak ditu argumentuak sintaxian modu egokian gauzatzeko. Bestela aditzak ez luke zentzurik, eta perpausa ez-gramatikala litzateke.

Hiztegiek *ematen digute*, zeharka bada ere, sare semantiko horien berri aditz bakoitza definitzean, eta nola erabiltzen den zehazten dutelarik. *Eman* aditzak, esaterako, (*norbaitek*) (*zerbait*) *norbaiten esku ezartzen* duela esaten digu. Emate hori noizbait, nonbait, nolabait... gertatzen da: *X-k Y-ri zerbait eman*

*dio gaur goizean herriko plazan.* Baina bigarren informazio hori (noiz, non...), argumentuena ez bezala, hautazkoa da, eta eman gabe ere, perpausa gramatikala da. Aditzarekin argumentuek bakarrik dute lotura zuzena. Besteak, lotura hori hain zuzena ez dutenak ez dira argumentuak.

**23.3.1b** Argumentuek aditzak bere sare semantikoan dituen paper edo rola adierazten dituzte. Aditzen balentziak aztertzean behin baino gehiagotan aipatu ditugu *egilea*, *kausa*, *esperimentatzailea* eta abar. Hauek dira aditzen argumentuek har ditzaketen paper tematikoak: *agentea* edo *egilea*: predikatuak adierazten duen ekintza nahita egiten duena. [+giz.], edo behintzat [+biz.], tasunduna dela esan ohi da, ekintza nahita egiten den aldetik (*Peruk liburua osorik irakurri zuen*). *Kausa*: predikatuak adierazten duen ekintzaren eragilea. Oro har, goiko egileari kontrajarria, ekintza nahigabe, berez, gertatzen dela adierazten du (*hai-zeak leihoa hautsi du*). *Gaia* edo *jasaila*: ezaugarri jakin bat duen entitatea edo ekintza nahiz prozesu baten ondorioz eragina edo hunkitua gertatzen dena (*haurrak jostailua hautsi du*, *liburuak apalean jarri zituen*, *txokolatea gustatzen zaio*). Guztien artean oinarrizkoena dela esan daiteke, barne argumentu ere esaten zaio eta gehienetan absolutiboko sintagmaren bidez ematen dugu euskaraz. *Esperimentatzailea*: predikatuak adierazten duen egoera (psikologikoa) jasaten duen entitatea edo egoera psikologiko baten hartzailea (*anaiari laranjak atsegin zaizkio*, *anaiak gustuko ditu laranjak*). Egoera psikologikoa den aldetik, [+giz.] tasuna dagokiola esan ohi da, nolabait ere, goiko *gaiari* kontrajarria. *Onuraduna*: predikatuak adierazten duen ekintzaren onura lortzen duena (*anaiari aprobatazea komeni zaio*). *Helburua*: predikatuak adierazten duen ekintza zuzentzen zaion entitatea (*anaiari paketea eman zioten*). *Iturria*: predikatuak adierazten duen mugimenduzko ekintzaren iturburua edo jatorria (*Donostiatik abiatu ginen*). *Lokazioa* edo *kokapena*: predikatuak adierazten duen ekintza edo egoera non kokatzen den adierazten duena (*Pello Parisen bizi da*)<sup>12</sup>. Hauez gain, aditz arazleen subjektuak eragilea adierazten du. Subjektu eragile hori, funtsean *kausa* nahiz *egilea* izan daiteke (*larrearen usainak sentiarazten dit bazterren ederra*, *Peruri liburua osorik irakurrarazi dio amak*).

<sup>12</sup> Aldezabal, I. (2004) doktore tesitik hartua.

Argumentu ez diren osagaiek ere hartzen dituzte paper tematikoak: hor goiko *iturria*, *lokazioa* edo *helburua* paper tematikoek ez dute nahitaez aditzen argumentu-egitura osatzen. Aditzak berak eskatu gabe perpausean osatzen den informazioa dakarte (ikus § 23.3.1h, § 23.3.1j). Horrelakoa da askotan *instrumentua*, *baliabidea* ere (*zertaz*, *zerekin*). Aditz batzuen argumentu egiturak eskatzen du *non ipini*, *nora eraman* edo *nondik hartu*, baina beste askorenak ez.

Sintagma mota batek baino gehiagok izan dezake paper tematiko bera. Aditz psikologikoen kasuan, esaterako, ikusi dugu *esperimentatzailea* eman daitekeela ergatiboko sintagmaren bidez (*Jonek gurasoak errespetatzen ditu*), absolutiboko sintagmaren bidez (*bere hizkuntzaz lotsatzen da*) edo datibo sintagmaren bidez (*Joni ogia erostea ahaztu zaio*). Instrumentua edo baliabidea ere ergatibo sintagmak adieraz dezake (*giltza honek irekitzen du ate hori*) edo postposizio sintagma baten bidez (*labanaz sabela ireki*).

**23.3.1c** Argumentuak beharrezkoak badira ere, hizkuntzaren maila batzuetan ez dute ezinbestean agertu behar, eta isilduak gelditzen ahal dira, inguru-neak argitzen badu zeri dagozkion direlako argumentu horiek: *Lotsatu da* nahiz *Jone lotsatu da* perpausak gramatikalak dira. Inguruneak argituko du isildurik den *lotsatu da* horren subjektua zein den. Badakigu, hori bai, 3. pertsona dela, eta singularra dela. Esan daiteke, hortaz, izenordain bat isildu dugula hor. Argumentua isiltzeko aukera duten hizkuntzei *pro-drop* hizkuntza deitzen zaie (§ 1.7). Eta aurkeztu ere, azterketa sintaktikoak egitean, hola aurkezten dira gramatiketan: *pro etorri da*. Argumentuak ez direnekin ez da inolakorik gertatzen.

**23.3.1d** Hola bereizten ditugu, hortaz, argumentuak eta argumentu ez direnak: argumentuak modu itxian daude aditzarekin lotuak, eta ezin dugu aditzaren esanahia ulertu argumentuak kontuan izan gabe. Argumentu ez direnak, ostera, aukerakoak dira. Beste modu batean esateko, argumentuek lotura zuzenagoa dute aditzarekin argumentu ez diren osagaiek dutena baino. Azken hauek periferikoak dira.

**23.3.1e** Funtsezko argumentuak subjektua, objektua eta zehar-objektua dira, euskaraz ergatibo, absolutibo eta datibo kasuan ematen ditugunak: *Patxi etorri*

da; *Mirenek Patxi agurtu du; Ane Patxiri hurbildu zaio; Aitak amari gona gorria ekarri dio*. Beste hitzetan esateko, euskal aditzez ari direla, gramatikek nor-nori-nork deitu izan dituen sintagma horiek.

**23.3.1f** Kontuak, hala ere, ez dira hain sinpleak. Ikus dezagun, adibidez, *jan* aditza, eta eratu dezagun perpaus bat: *Anek sagarra jan du*. Hor orain arte esan duguna betetzen da, *jan* aditzak norbaitek zerbait jatea eskatzen baitu. Bi argumentu, hortaz. Baina perpaus horren ordeztan ondoko beste hau eratzen badugu, *Anek gaizki jaten du*, zer gertatzen da hor? Zenbat argumentu ditugu holakoetan?<sup>13</sup>

Egitura horiek bi modutara azaldu izan dira gramatiketan. Batzuen ustez *ikusi*, *entzun*, *jan*... eta gisa horretako aditzek bi argumentu sare izango lituzkete: batzuetan argumentu bat bakarrik, eta beste batzuetan bi. Horrela, ikus ditzagun adibide hauek: *Itsuak izugarritzko kolpea hartu zuen paretaren kontra, eta ikusten hasi zen; Sortzetik zen gorra, baina bost urterekin hasi zen entzuten; Appetitu gabe egon da baina orain ongi jaten du*. Horiek ez dute objektu zuzenik agerian, eta testuingurutik ere ezin dugu jakin zer ikusi zuen, zer entzun edo zer jan. Aldiz, *Mirenek ere ikusi du; Jonek egunero entzuten du; Koldok jan du* gisako perpausetan, objektu zuzenik ez bada ere, hiztunak badauki, inguruneari esker, zertaz ari garen: *Mirenek (film hori) ikusi du; Jonek egunero entzuten du (irratia); Koldok jan du (pastela)*, adibidez. Beraz, lehenbiziko kasuan argumentu bakarreko sarea, eta bigarrean argumentu bikoia.

Hala ere, beste batzuen ustez, hori egia izanik ere, aditz bakoitzak murriztapen sintaktiko handiak ditu, eta zuzenean markatzen du ageri ez den objektu horren izaera. Hala, jo dezagun, esate baterako, *Hiru egunez egon zen jan gabe argaldu nahi zuelako* baldin badiogu, hor ez dugu objektu zuzenik (ez dugu argumentu hori agerian), eta inguruneak ere ez digu markatzen zer den jan ez duena. Baina aditzaren murriztapen semantikoek adierazten digute, besterik aipatu gabe, aditzak zerbait eskatzen duela, eta zerbait horren izaeraren berri

<sup>13</sup> Arazo honen gainean hainbeste ikerketa egin da. Hauek, besteak beste, aipa daitezke: Pyllkänen (2002); Junghanns (2008); Merchant (2007).



ere ematen digute. Adibidez, zuzenak dira *Hiru egunez egon zen (ogia) jan gabe*; *Hiru egunez egon zen (patatak) jan gabe*; *Hiru egunez egon zen haragia jan gabe*, baina ez luke inork ere ulertuko *\*Hiru egunez egon zen (zapatak) jan gabe*; *\*Hiru egunez egon zen (burdina) jan gabe* eta abar. Ikuspuntu honetatik badirudi benetan zerbait isiltzen dela eta argumentu hori hor dagoela. Eta hori hala bada, argumentu sare bakarra izango lukete, kasu guztietan, hemen aipatzen ditugun *ikusi*, *entzun*, *jan*... aditzek.

**23.3.1g** Arruntena dugu, hortaz, aditzek argumentu bat, bi edo hiru izatea: *Miren etorri da*; *Koldok hitzaldi bat eman du*. Zehar-objektua ere sar daiteke sarean: *Miren (guri) etorri zaigu*; *Koldok (guri) hitzaldi bat eman digu*. Zerbaitetan ageri den itxurazko objektua ez da zinez halakoa, baizik adberbioa: *Hiru egun pasatu zuen*; *25€ balio du*; *Filmak 90 minutu irauten du* (*\*irauten ditu*); *100 metro korritu du* eta abar.

**23.3.1h** Semantikak agintzen duen aditzen sareko argumentu horiek sintaxian gauzatzen dira. Arruntena da, hortaz, argumentu horiek egiturazko kasuak deitu ditugunetan gauzatzea: absolutiboan, ergatiboan eta datiboan; baina, aditzaren sare semantikoaren arabera, postposizio sintagmen bidez ere gauza daitezke argumentuak (*non ipini*, *nondik abiatu*, *nora iritsi*...). Hori dela eta, batzuetan *argumentuez* eta *adjuntuez* mintzo dira gramatikak (adjuntuak lirateke argumentu ez diren gainerako guztiak). Baina kontzeptu horiek, argumentuak eta adjuntuak alegia, ez dira maila berekoak. Argumentuaz hitz egiten dugunean esanahiaz, sare semantikoaz ari gara. Aldiz, adjuntuez ari bagara sintaxiaz ari gara. Horrela, *Miren gaur lotsatu da* esaten badugu, “Miren” argumentua da, baina “gaur” ez da argumentua. Sintaxi mailan, “Miren” argumentua absolutiboan doa eta subjektua da. Aldiz, “gaur” adberbioa da, adjuntua. Aditzarekin duen erlazio semantikoa ez da “Miren” subjektuak duenaren pareko. Argumentuak, neurri batean, aditzaren osagarriak baitira. Beraz, maila batean izango ditugu argumentu eta ez-argumentuak, eta bestean osagarriak eta adjuntuak.

Adberbioak, esaera adberbialak, denbora markatzen duten perpausak... adjuntuak izaten dira gehienetan: *Mirenekin egon gara goizean*; *Antza denez, eri omen da*; *Egoera aztertu ondoren, hori erabaki zuen*; *Ohean gelditu bada, ez*



*du treña erraz hartuko...* Baina batzuetan aditzak berak aukeratzen du adberbioa: *ongi/gaizki portatu*. Ikusten denez, sarri askotan adjuntu horiek mintzagaiaren (§ 41.5) tokian doaz. Bigarren mailako predikatuak gehienetan aukerakoak izan ohi dira (*Josu triste etorri zen bilerara; Nekatuta hurbildu zitzaidan aitona*), baina batzuetan nahitaezko bigarren mailako predikatuak ere aurkituko ditugu (*Jone alkate izendatu zuten; Ane egin zuten erantzule; Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai*, ikus § 24.4.3).

**23.3.1i** Aditz batzuek bestelako argumentu mota batzuk eskatzen dituzte. Horrela, *sartu* aditzak “nonbait” edo “norabait” sartzea eskatzen du: *Sartu zen barrura* (Lazarraga); *Begira zelan zabiltzan, non sartzen zaren* (Añibarro); *Asko bekatoros beren baitan sartu ziren eta bizitza berri bat lotu* (Laphitz); *Descartesen Discours de la Méthode sartzen al da frantses literaturan?* (Mitxelena).

*Ezkundu* aditzak “norbaitekin” ezkontzea: *Eta gero harekin ezkondu behar duk?* (J. Zabaleta).

*Ados egoteak* ere “norbaitekin” ados egotea: *Eta festa ondo amaitzeko, malta-whiskya, noski; ados egongo haiz nirekin, ezta?* (Zaldua).

*Kokatzeak* “nonbait” kokatzea: *Betiko irudi folklorikoetan kokatzen gintuzten besteek* (R. Etxeberri).

*Ahaztuk* “zer” edo “zertaz” eskatzen du, nolakoa hartzen duen laguntzailea, ‘hori ahaztu, horretaz ahaztu’: *Pippin gorritu egin zen, eta beldurrak ahaztu zituen* (Otsoa); *Gerraz eta munduaz ahaztu egin zen* (Otsoa).

*Baliaturekin* ere gauza bera gertatzen da: *Uste dut ezen, esposatzen naizenean, sekula ez naizela zapatari horrez baliatuko* (Jon Muñoz); *Zorioneko neure ausardiez oroitzen naizelarik ere, ezin ausart ninteke horiek baliatzera* (Jon Muñoz).

“Zerbaitean” edo “norbaitengan” *dugu konfiantza*, bistan denez: *Erabateko konfiantza baitzeukan harengan* (An. Garikano).

“Zerbaitez”, “zerbaitekin” *oroitzen* gara, edo “zerbait” *oroitzen* dugu: *Zuzendariordeaz oroitu nintzen* (Epaltza); *Guk ere hala behar dugu hartaz ontsa*

*oroitu* (Etxepare); *Jauna, zure erreinuratzen zarenean, nitaz oroitu zaitetz* (Lardizabal); *Oroitu nituen une magiko haiek* (Irigoien); *Heriotza aipatu duzunean lagun batekin oroitu naiz* (Perurena).

“Norbaitez” edo “norbaitekin” *maitemindu*, dakigunez: *Zurekin maiteminduta al zegoen?* (O. Arana); *New Yorken bizi den gizon batekin maitemindu zen* (O. Arana).

“Nonbait” *bizi* gara, ezinbestean: *Hirietan eta herri handietan bizi dira euskaldun gehienak* eta abar.

*Eman* aditzak badu, esaterako, beste erabilera bat aski diferentea: *Beste ehun urte itxaron beharko duzula ematen du* (Azurmendi); *Atzealde iluna duten irudiak argiago direla ematen du atzealdea argia dutenak baino* (J. Zabaleta); *“Itsasoaren baretasun hau ekaitzaren seinalea dela ematen du”, esanen du Axelek* (Sarrionandia).

*Fidatu* aditzak, esaterako, zerbaitez, zerbaitetan, norbaiti... fidatzea eskatzen du: *Ez baita emazte edalea baitan zer fidaturik* (Axular); *Halako eletara, nor liteke fida* (Egiategi); *Baina fidatzen zen jakinen zuela Isabela hartara ekartzten* (Mirande); *Ez gaitezen behintzat gure indarretan fida* (Mitxelena); *Jainkoari nahi ez bazara fidatu, nori nahi zara fidatu?* (Tartas); *Zerorrek, irakurle, ikus dezakezu zeure begiz, nire hitzari fidatzen ez bazatzaizkio* (Mitxelena); *Ez zen batere haietaz fidatzen* (Touyarou); *Fida hadi nirekin* (Cano) eta abar.

Eguraldi aditzak ere bereziak dira: *Euria egin du, elurra egin du* eta abar.

Laburtuz, orduan: aditz argumentuak dira aditzak, duen esanahiagatik, bereizten dituen osagarriak. Holakoetan elementu horiek aditzak azpikategorizatzen dituela, berez eskatzen dituela, esaten dugu.

**23.3.1j** Aditz horietan ikusten denez, argumentu horiek ez dira sintaxian egiturazko kasuetan gauzatzen: ez dira horietako asko absolutiboa, ergatiboa edo datiboa, baina, hala ere, argumentuak dira. Eta sintaxi mailan, berriz, adjuntuak.

Hortaz, argumentuak egiturazko kasuetan ikusiko ditugu batzuetan, eta beste postposizio zenbaitekin, beste batzuetan.

**23.3.1k** Badira perpaus egiturako osagarriak hautatzen dituzten aditzak ere, mendeko perpaus osagarriari eskainitako kapituluan xehekiago aztertuko ditugunak (§ 30.1.1).

### 23.3.2. Izena eta argumentuak

**23.3.2a** Izenak ere har ditzake, eska ditzake, argumentuak, aditzek egiten duten bezala. Dakigun gisan, batzuetan aditzetik sortzen dira izenak, zuze-nean: *etortzea*, *ikustea*, *ematea* eta abar (ikus § 30.6.3.1 “Aditz izena” atala). Ez da harritzekoa kasu horietan, izen bihurtutako aditzetan esan nahi dugu, izen horiek ere argumentuak subkategorizatzea: *norbaiten* etorreraz ari gara, *norbaitek zerbait* ikusteaz eta *norbaitek* beste *norbaiti zerbait* emateaz. Hor ere, aditzean bezala, nor, nork eta nori ageri dira.

**23.3.2b** Perpaus batean izenaren argumentuak ezartzeko *-en* postposizioaz baliatzen gara, genitiboaz alegia. Izenlagunak sortzen ditugu horrela. Eta aditzean argumentuak absolutiboan, ergatiboan edo datiboan jartzen baditugu, *-en* hartzen duten sintagmek ere absolutiboa, ergatiboa eta datiboa estaltzen dute, heredatzen dute, nolabait esateko.

Ikus ditzagun bi adibide hauek: *Bada zuk jakitera [...] Jesusen etortze onetatik datozkizun ondasunak* (Mendiburu); *Eta haien ixiltzeaz poztu dira, eta Jaunak eraman ditu berek nahi zuten portura* (Duvoisin). Hor ikusten ditugu *Jesusen etortzea* eta *Haien isiltzea*, biak genitiboan, *-en* postposizioa duela izenlagunak. Bistan da genitibo horrek absolutiboa ezkututzen duela: “*Jesusen*” *etortzea* eta “*Jesus*” *etorri* aski parean daude. Hala ikusten dugu ondoko adibide argigarri hauekin: *Ez beraz mirakulu, Jesus etortzean, Erroma gogortzea bere bizitzan* (Duvoisin); *Joannes-Batista isiltzearekin, Andere Geaxane jaikitzen da eta du erraten: “Jende onak, hamar orenak eta erdian nonbait han dira; ordu da joan gaitzen pausatzerá”* (M. Elizanburu). Hor zuzenean ageri da absolutiboa. Genitiboa eta absolutiboa, biak parean (§ 19.2.5).

**23.3.2c** Hala ere, hori aditz izenekin bakarrik gertatzen da, aditz izen hori zenbaitetan benetan aditza baita ingurune batzuetan, eta izena beste batzuetan.

Aditz izenaren orde, izen arrunta bada, ez dugu holako aukerarik eta argumetu beti *-en* postposizioarekin ageriko da, izenlagun gisa: *Hurbil da Jaunaren etorrera* (*Elizen arteko Biblia*, vs “Jauna etortzea”); *Mutilak irribarre amultsu batez eskertu zuen katua* (*Lertxundi*, vs “katua etortzea”). Ez da hor \**Jauna etorrera*, edo \**katua etorrera* esaterik. Holakoetan beti dugu beharrezko genitiboa: *liburu salmenta*. Edo izen elkartua, bestela: *liburu salmenta* (ikus § 7.2.7.3 morfologiako atalean izen elkartuak nola eratzen diren).

**23.3.2d** Baina nola esan dugun aditzen argumentuak gehienetan absolutiboan, ergatiboan edo datiboan doazela, ber gauza gertatzen da izenlagun honen ere, izenlagunak absolutiboa, ergatiboa edo datiboa ezkutatu bailitzake. Horregatik anbigua gertatzen da, egitura hauetan ez baitira aditz jokatuetak markak nominalak ageri: *Joxemari hil du*; *Joxemari hil du*. Bi interpretazioak izan ditzake, eta inguruneak esango digu zein den egokia. Jakina, zenbait kasutan, ez dugu ingurunea ezagutu beharrik ere: *Hitlerren erailketak*; *infernuaren beldurra*. Badakigu Hitler nor den, eta pentsatzekoa da bera dela hiltzailea (Hitlerrek hil du, hortaz). Ber gauza infernuarekin: infernuari beldurra izatea adierazten du sintagma horrek.

Baina, zernahi gisaz, anbiguotasuna ez da inoiz ere galtzen. Horrela, *irakaslearen kritika* aipatzen badu norbaitek ez genuke jakinen zertaz ari garen: ‘irakasleak berak egin duen kritikaz’, ‘norbaitek irakasleri egin dion kritikaz’ edo ‘norbaitek irakaslea bera kritikatu izanaz’. Hor ditugu bilduak, anbiguotasun horren itzalean irakaslea (nor), irakasleak (nork) eta irakasleari (nori).

**23.3.2e** Aditzarekin ikusi dugu, hala ere, badirela argumentu batzuk egiturazko kasuetan ez doazenak. Gauza bera gertatzen da izenarekin ere. Izenak zenbaitetan aditzaren sare semantikoen ezaugarriak heredatzen ditu, eta erlazio hori *-ko* markaz baliatuz adierazten du: *zurekiko nire harremana* (zurekin dudan harremana), *zueganako amodioa* (zuegan dudan amodioa) eta abar. Egitura hau, hala ere, ez da *-en* genitiboarekin sortzen duguna bezain emankorra.

**23.3.2f** Izenaren kapituluaren (“Argumentu, gertaera, kuantifikazio eta sailkapen izenak” izeneko atalean, § 12.3.5) “argumentu izenak” aipatzen dira.

Holakoak dira *irakurketa*, *idazketa*, *sakontasun*, *laburpen*, *aitzindari*, *hasiera* edo *argazki*, esate baterako. Horiek guztiek zerbait behar dute esanahia ongi eratzeko, argumentu sare bat dute: *zerbaiten* irakurketa, idazketa, sakontasuna, laburpena, aitzindaria, hasiera, argazkia... dugu hor beti.

**23.3.2g** Genitiboak baditu beste ezaugarri eta erabilera batzuk “Egiturezko kasuak” kapituluan ikus daitezkeenak (§ 18.6).

**23.3.2h** [izena + *izan*] predikatuetakoa izena ere izan ohi da argumentu izena. Argumentu hori izen elkartu baten barruan ase daiteke: *Denak, txiki eta handi, irabazi-gose dira (Elizen arteko Biblia); Lehoien artean natza, gizaki-gose diren horien artean (Elizen arteko Biblia)*. Beste batzuetan, ostera, genitibo sintagma baten bidez (besteak beste, sintagma egiturako argumentuak badira eta ez kategoria lexikoak): *Kanpoko berrien gose izan ohi zena (Olarra); Giza-terria oro entzungai gozoen egarri baita (X. Amuriza)*.

Argumentu izenak dira *irudi(a) egin*, *itxura(k) egin* lokuzioetako izenak ere: *Lotsa-irudia egiten jarraitu zuen (M. A. Mintegi); Hark erraten zuena [...] dudatan ezartzen zuelako irudia egin (Jon Muñoz); Eta nire baitan irudi egin nuen gizonak ez zuela belarririk (J. Zabaleta); Kantaren hitzak ahots betean kantatu irudi eginez (O. Arana); Harro itxura eginaz (M. Mujika); Zerbait irakurtzeko itxura egin nuen (Saizarbitoria); Batek itxura egiten zuen zorabiatu egiten zela bere edertasuna ikustean (P. Lizarralde); Oporretan geundelako itxurak egitea (O. Arana)*.

Horien oso antzekoak dira *beldur*, *berri*, *esperantza*, *hipotesi*, *itxaropen*, *kezka*, *susmo*, *uste*, *zurrumurru* izenak ere. Perpaus egiturako osagarriak hartzen dituzte (§ 30.6.4.1): *Euskara Afrikatik datorren hipotesia; Garai txarrak datozkigulako ustea*.

## 23.4. Aditz modalak

### 23.4.1. Sarrera

**23.4.1a** Modalitatea adierazten dute *asmo*, *behar*, *ezin*, *gogo*, *nahi/gura*, *uste* + *izan* predikatuek beste aditz baten ondoan ematen ditugunean perpausuan.

Guztiek eskatzen dute aurretik partizipio burutua. *Izan* aditza da aspektu markak hartzen dituen: *behar izaten dugu, ezin izan genuen...* Aspektu prospektiboaren marka *izanek* har dezake, baina zuzenean erants dakieke *ahal, behar, ezin* eta *nahi* izenei: *ekarri nahi izango du / ekarri nahiko du, sartu ahal izango dira / sartu ahalko dira nahiz dirutan ere ez da eskuratuko ahal* (J. Etxepare). Ezezkoetan, bat egiten du aditz modalak partizipioarekin: *ez du ogia ekarri nahi, ez du lana egin behar, ez du lana egiten ahal / \*ez nahi du, \*ez behar du edo \*ez ahal du.*

**23.4.1b** *Ahal, behar, ezin* eta *nahigura izan* dira orokorrenak, ekintza, egoera, jarduera, prozesua... adierazten duten aditzekin ager daitezkeenak.

Aditz modalek ageriko subjektua duen aditza eskatzen dute. Eguraldi aditzek edo *irudi du, ematen du, merezi du, pena da* motakoek ez dute onartzen horrelako aditz modalik<sup>14</sup>. *Behar izan* eta *nahi izan* aditz modalen erregimena arautu zuen Euskaltzaindiak 113. eta 114. arauetan. Euskara estandarrean, *du* laguntzailea eskatzen dute, baita aditza intrantsitiboa denean ere: *etorri behar du, etorri nahigura du*. Nolanahi ere, Euskaltzaindiak ez du gaitzesten zenbait euskalkitako erabilera: *etorri behar naiz*, edo ipar-ekialdeko euskalkietan erabiltzen den *etorri nahi naiz*. Izan ere, *da* laguntzailea ere erabilia izan da eta erabilia da lehena-goko eta egungo testuetan, ekialdean nola mendebaldean: *Ez zuan dudarik Pello, muthil hori izan behar zela atsoak helatu zuen Manuel* (J. B. Elizanburu); *Ni hortik joan behar naiz —esan die txoferrak* (P. Lizarralde). Aditz trantsitiboekin zehar-osagarria ageri denean, *dio* laguntzailea izango dugu: *Hortaz, adio esan behar dizut* (I. Mendiguren); *Arrautza frijituak nola jaten dituzun galdetu behar nizun* (X. Mendiguren Elizegi). Aditz intrantsitiboekin zehar-osagarria ageri denean, *zai*o laguntzailea erabiliko dugu: *Mintzatu beharko natzaizu*.

Ikus Euskaltzaindiaren 113. araua: “*Behar izan* aditzaren jokabidea aditz iragangaitzekin”, 2001eko otsailaren 23an, Lekeition, eta maiatzaren 25ean, Donostian, onartua.

---

<sup>14</sup> *Pena izan behar du* horrenbeste janari mahaian uztea edo *Ezin du merezi* horrenbeste lan egitea motako perpausek modalitate epistemikoa adierazten dute, hiztunaren hala izango den ustea, baina ez ziurtasun erabatekoa.

Ikus Euskaltzaindiaren 114. araua: “*Nahi / gura izan* aditzen jokabidea aditz iragangaitzekin”, 2001eko otsailaren 23an, Lekeition, eta maiatzaren 25ean, Donostian, onartua.

*Ezin izan*, ostera, bietara ikusiko dugu: *Gaur ezin naiz zintera joan* vs *Gaur ezin ditut erosketak egin*; hau da, ezkerrean daraman aditzaren ohiko laguntzailea hartzen du (ez du laguntzailea aldarazten: *etorri naiz* > *etorri behar dut*, *etorri nahi dut* / *ezin naiz etorri*). Forma inperzonal eta pasiboetan, jakina, *da* laguntzailea izango dugu: *Zientziak huts egiten duela diotenean, barre egin behar da* (J. Zabaleta); *Ahal izanez gero, [...] jatorriz idatzitako moduan irakurri behar da* (Salaburu); *Horri buruzko proba bat egin nahi denean, honela joka daiteke* (S. Iruretagoiena).

**23.4.1c** *Izan* laguntzailearen komunztadura markek argi uzten dute aditz hauek modalitatea adierazteko “laguntzaileak” baino ez direla: *Liburu horiek erosi behar ditut*; *Arrosak oparitu nahi dizkizut*; *Ni ere eraman beharko nauzu*. Laguntzaileak *erosi*, *opari egin* eta *eraman* predikatuen objektu zuzenarekin egiten du komunztadura.

**23.4.1d** *Asmo izan*, *gogo izan* eta *uste izan*ek askoz erabilera mugatua goa dute. *Uste izan* da hiruretan hedatuena, gaurko euskara estandarrean ere aurkituko duguna: *Garrasi egin zuen, edo egin uste zuen, behinik behin* (Jon Muñoz); *Azpitituluan ikusi uste izan dut nik benetako titulua* (Berria); *Noiz edo noiz pentsatu izan dut gutako bakoitzak film batean egon uste duela* (Rey). Modalitatea adierazteko Iparraldeko euskalkietan bakarrik erabili da tradizioan *gogo izan*, baina gaur euskara estandarrean ere hedatu da: *Gero egin gogo dituzun ongiak eta deskarguak* (Axular); *Holako afera txarrez ere mintzatu gogo du bere bisitan* (Herria); *Gaur ordea, azken aldietan baino borondate gehiagorekin abiatu gogo du* (Bidegain). Axularren adibideko laguntzaileak (*egin gogo dituzun ongiak*) edo beste honetakoak (*izarretan ikusi uste dituzte arbasoen arimak*) erakusten dute *egin* eta *ikus*i aditzen objektuarekin egiten dela komunztadura (§ 23.4.1c).

Erabilera urrikoa da *asmo izan* ere modalitatea adierazteko: *Nazio Batuen Erakundeak datorren urtean azterketa bat abiatu asmo du Kosovoko etorkizunaren inguruan (Berria)*; *Eraman asmo zuen bizimodua zala gizonaren indarrak gaindikakoa (Antia)*. *Izan* laguntzailea gabe ageri denean, *-tze*ko motako osagarria eskatzen du *asmo* izenak: *etortzeko asmoa*, *etortzeko asmoz*. Tradizioan zein egiturak duen indarra gogorarazi zuen Euskaltzaindiak (41. araua): *egiteko asmoz*, *joateko asmoz*, *eztabaidatzeko asmoz*. Horiek dira estandarrean erabiltzekoak, eta ez *\*etorri asmoz*, *\*joan asmoz* edo *\*eztabaidatu asmoz*.

Euskaltzaindiaren 41. araua: “*Egiteko asmoz*”, Usurbilen, 1995eko irailaren 29an onartua.

### 23.4.2. Ahal izan

**23.4.2a** *Ahal* izenak eta *izan* aditzak osatzen dute predikatu modal hau<sup>15</sup>. Gainerakoetan bezala, aspektuari, aldiari, pertsona komunztadurari dagozkion flexio morfemak hartzeko euskarria baino ez da *izan*; *ahal* izenak ematen dio esanahia, ‘aipatzen dena gertatzeko edo egiteko eragozpenik edo ezintasunik ez dagoela’ alegia. Ahalera adizkiek ere balio bera eman dezakete: *etor daiteke*, *egin dezake*, *dagike*...

**23.4.2b** *Ahal izan* predikatu modalaren aspektu markei dagokienez, prospektiboaren morfema zuzenean har dezake izenak, *-ko* atzizkia: *etorri ahalko da* / *etorri ahal izango da*. Bi moldeek dute lekukotasun ugari corpusetan, baina *ahalko da* nagusi. Laguntzailea *da*, *du* nahiz *dadin*, *dezan* izan daitezke, hau da perpauseko aditzak eskatzen duena, *ahal izanek* ez baitu laguntzailea aldarazten. Perpauseko aditza, berriz, partizipio burutu forman ematen da gehienetan: *Nahiko gauza beroak erabili ahal izaten dira eskuetan minik*

---

<sup>15</sup> Bestelako jokabidea eta balioa du modalitatea adierazten duten *omen/ei*, *ote* edo *bideren* ondoan ikusiko dugun *ahalek* (§ 23.5).



*sentitu gabe* (Aldasoro); *Kalean sei-zortzi besamotz gehiago ikusi ahal izan genituen* (Linazasoro); *Harryk entzun ahal izan zizkion mespretxuzko ahobero-kerien arabera...* (I. Mendiguren). Partizipio burutuaren ordeztutako aditzoia ere aurki daiteke *dadin* eta *dezan* laguntzaileekin: *Asma ahal baneza, erran beharraren gaitzetik begiratuko zintuzket* (Jon Muñoz); *Hango lurralde ederra, hango mendialdea eta Libano ikus ahal ditzadan* (Elizen arteko Biblia); *Froga bat ekar diezadakezun orduko, zatoz, eta zurea izanen naiz* (Jon Muñoz). Partizipio burutua eta aditzoia forma berekoak direnean ez dago bereizterik bietatik zein ageri den: *Otoi, uztazu apaiz-lanen bat egiten, ogi-puskaren bat jan ahal izan dezadan* (Elizen arteko Biblia); *Dena konpontzeko aukera emango digun agiri hau, gurekin etorri eta han bizi ahal izan zaitezten* (Irizar). Partizipio burutugabearen ondoren ere ezar daiteke *ahal izan*: *Honi erreka esaten ahal bazaio, furgona erreka joa da* (K. Izagirre); *Agian haren edukiak argi izpiren bat ematen ahal zioz nahaspila honi* (Epaltza); *Derradan hasteko txukun janztean atsegin dudala, berorrek ikusten ahal duenez* (Jon Muñoz).

**23.4.2c** -kedun laguntzailearekin ere ageri da *ahal izan* idazle klasikoetan, bai eta gaurkoetan ere: *Oraino hemen galdegin ahal diteke ea ifernuan berorik baitzen hotzik izanen denz* (Axular); *Haize hiltzaile, ziztugile, intziri egile, orro egile hori, ikusi al duzu, ikus ahal dezakezu?* (J. Zabaleta). Ez dirudi alde handirik dagoenik *ahal* duten eta ez duten adizkien artean: *ikus ahal dezakezu / ikus dezakezu*.

**23.4.2d** Gainerako aditz modalak bezala, *ote* morfema funtzionalarekin erabil daiteke (modalitate epistemikoa): *Zerk eragin ahal izan ote du zugar horren aldaketa ustekabeko eta krudela?* (Jon Muñoz).

**23.4.2e** Ezezko perpausetan *ez ahal izan* eta *ezin izan* baliokide gertatzen dira: *Nortzuk diren ez badidazu esaten ahal, esaidazu gutxienez zer egiten duten* (Alonso); *Ez nuke esaten ahal zer egiten nuen nik adierazi dizudan al-darte hartan* (K. Izagirre); *Zu zaren lekutik ez duzu ikusten ahal zer gertatzen den* (R. Etxeberri). Adibide horietan berdina erabil zitezkeen, hurrenez hurren, *ezin badidazu esan, ezingo nuke esan nahiz ezin duzu ikusi*.

### 23.4.3. Behar izan

**23.4.3a** Aditz modal honetako izenak ere zuzenean hartzen du aspektu prospektiboko *-ko: esan beharko diguzu*. Hori da molde nagusia, *behar izango* moldeak oso adibide gutxi ditu corpusetan bestearekin alderatuta.

Alegiazko *-kedun* adizkiekin, aukeran izaten da *-ko* prospektibokoa eranstea edo *behar* soila erabiltzea: *etorri beharko luke, jakin behar genuke*. Corpusetako datuek erakusten dute paretsu dabiltzala bi formak, *behar luke / beharko luke*.

*Ote* morfema funtzionalarekin erabil daiteke (modalitate epistemikoa): *Hau ere etxean sartu behar ote zait?* (Elizen arteko Biblia).

**23.4.3b** Partizipioa+*behar izan* hurrenkera hauts daiteke *behar* modala aurreratu eta galdegaiaren eskuinera eramanaz: *Banekien haiekin zelan jokatu, zenbat eta noiz behar zitzaien eskupetik ordaindu* (Montoia); *Espezialistak bere sailekoak behar ditu jakin* (Mitxelena).

**23.4.3c** Adierari dagokionez, batetik ‘obligazioa’ adieraz dezake (*ikasi egin behar dut*). Bestetik, geroaldia ere adieraz dezake, batez ere ondoan esanahi horretako adberbioren bat doanean nahiz *behar izan* aspektu prospektiboan ageri denean: *Bihar Donostiara joan beharko duzu; Zer egin behar duzu gaur arratsaldean?*

Iritzia edo ustea ere adieraz dezake (modalitate epistemikoa, § 10.4.1b, § 26.6.3.2): *Orain dela bi ordu alde egin du; Etxean behar du honezkero; Eguerdia izan behar du; Munduko jokalaririk onena izan behar du*.

**23.4.3d** Ezezko perpausetan ‘debekua’ edo obligaziorik eza adierazten dute: *Gaur ez dute lanera joan behar; Ez dugu gezurrik esan behar*. Beste batzuetan *bide* morfema modalaren baliokide dela esan daiteke (ikus § 23.5): *Gauetz amets egin dut, eta egunez ezin dut gogotik kendu zaldun gaztearen iduria: neska izan behar du* (Satrustegi). Adibide horretan berdin esan daiteke *neska bide da*. Modalitate epistemikoa adierazten du horrelako erabileretan.

#### 23.4.4. Ezin izan

**23.4.4a** Partizipio burutua izan ohi du aurretik *ezin izan* modalak, baina partizipio burutugabeekin ere erabiltzen da zubereraz: *Erraiten ezin den egia* (Maister).

Aspektu prospektiboan zuzenean har dezake *-ko* mendebaldean: *ezingo naiz / ezin izango naiz*; gaurko corpusetako datuen arabera paretsuko erabilera dute bi moldeek. *Ote morfema funtzionalarekin ere ager daiteke: Ezin ote dakioko gisa bereko kritikarik egin, azken buruan, administrazioaren esku-hartze politika orori?* (Heras); *Ezin ote da inon trago bat edan?* (Lopez de Arana).

*Ezin izan* indikatiboko adizkiekin erabiltzeaz gain (*ezin emango dizut*), euskararen historian alegiazko formekin ere ageri da (*ezin nengoke zerbait esan бага*, Añibarro), bai eta ahalerazko eta subjuntibokoekin ere: *Ezin dezaket asma* (J. Etxepare); *Ezin egin diro*; *Ezin inor sartu diteke* (Ubillos); *Gizonak su inhar bat eskuan ezin jasan badeza* (Duvoisin); *Berzeak enparatu ditu, bere burua ezin enpara diro* (Leizarraga). Orotariko Euskal Hiztegiko datuek erakusten dute xx. mendera arte indikatiboko laguntzailea ez zela hain ohikoa aspektua burutugabea zenean. xx. mendetik aurrera hedatuz joan da indikatiboaren erabilera: *ezin erori naiz / ezin eror naiteke*. Gaur sarri erabiltzen da bai indikatiboarekin, bai ahalerazko adizkiekin, bai *nuke*, *nintzateke* edo *nizuke* moduko alegiazkoekin ere.

**23.4.4b** Kokaguneari dagokionez, *ezin* adizki laguntzailearen aurrean ager daiteke (*ezin dute indarrik hartu*), baina baita adizki osoaren aurrean ere (*ezin ikusi dute*). Aditzaren aspektua prospektiboa denean erabiltzen da, batez ere, bigarren hurrenkera hori: *Ezin egongo gara beti hemen*; *Ezin esango dugu behintzat zuzen jokatu ez zuenik sortzaile horrek bere sorkariarentzat izena bereizterakoan* (Segurola); *Ezin utziko nuen arrotzen esku* (Lertxundi). Horrelakoetan, partizipio nagusiak hartzen du prospektiboko marka, *-ko*. *Ezin daiteke etorri* moldea ez zen oso ohikoa Iparraldean xx. mendera arte (nahiz baziren molde horretako adibideak), ez eta mendebaldean xix. mendera arte.

Badirudi zenbait tokitako hiztunek bereizi egiten dituztela *ezingo dizut eman / ezin emango dizut*. Lehenak, [*ezin* + adizki laguntzailea] egiturakoak, benetakoz ezintasuna adierazten du (ez dut emateko aukerarik edo gaitasunik izango). Bigarrenak, [*ezin* + partizipio prospektiboa] egiturakoak, gertatuko ez den zer-bait ematen du aditzera, baina ez egiazko ezinik dagoelako, baizik komeni ez delako, egoki ez delako...

Hona hemen molde bateko eta besteko kokagunea erakusten duten zenbait adibide: *Kabia utzi ezin badu* (Azkue); *Luzaroan leizetik ezin irten izan zen* (G. Arrue); *Ezin emango zaiotela bizilekurik* (Iztueta); *Nire gisako euskaldun bategen ezin uler dezake* (Mitxelena); *Andik zintera ezin juango da / ango lanari utzita* (Uztapide); *Ezin izango dabe ondatu nire gizabidea* (Etxeita).

Ez adberbioarekin gertatzen den bezala, mendeko perpaus askotan ezin dira *ezin* eta adizki laguntzailea aurreratu: *Ongi aditu ezin badegu ere* (Ubillos).

**23.4.4c** Adierari dagokionez, predikatuak adierazten duen gertaera gauzatzeko eragozpena edo ezintasuna ematen du aditzera *ezin izan* modalak. Benetakoz oztopo edo ezintasuna adierazteaz gain, hiztunaren ustez gertatua ere adieraz dezake; eman dezagun norbaiten zain gaudela eta ez dela azaldu. Badakigu autoz zetorrela eta konplikatua izan daitekeela autoa uzteko lekua aurkitzea. Testuinguru horretan erraz esango genuke: *ezin izango zuen aparkatu, ezin izango zuen aurkitu autoa uzteko lekurik...*

### 23.4.5. *Nahi/gura izan*

**23.4.5a** Bi aditz modal ditugu hemen euskalkien arabera bereizten direnak: mendebaldeko *gura izan* eta gainerako euskalkietako *nahi izan*. Gaur biak erabiltzen dira euskara estandarrean eta hala daude jasoak *Euskaltzaindiaren Hiztegian*.

**23.4.5b** Jokabidez *behar izan* modalaren gertu-gertukoak dira. Izenak zuzenean har dezake aspektu prospektiboko *-ko*: *Berrogeita hamar urte betetakoan berarekin ezkondu gurako diat* (Landa); *Hik mendira itzuli gurako dok, noski* (J. L. Zabala); *Bizkarrez tirokatu gura izango ninduten noski* (K. Izagirre);

*Gu baitako deabruetatik laxatu gura izango bagintu moduan* (Jimenez); *Diru-goseak eraginda, irabazia lortu nahiko dute hitz maltzurrez* (Elizen arteko Biblia); *Norbaitek tenpluan sartu nahi izango balu, hil dezatela* (Elizen arteko Biblia); *Dibanaren zorioneko plazerez gozatu nahi izango zuen* (P. Lizarralde). *Egungo Euskararen Hiztegi*ko datuen arabera, askoz erabiliagoa da *nahiko* molde soila, *nahi izango* baino.

Alegiazko *-kedun* adizkiekin, aukeran izaten da *-ko* prospektibokoa eranstea edo *nahi* soila erabiltzea: *jakin nahiko luke, jakin nahi genuke*. Corpusetako datuek erakusten dute gehiago erabiltzen dela *nahi luke* moldea.

**23.4.5c** Partizipioa + *nahi izan* hurrenkera hauts daiteke *nahi* modala aurre-ratu eta galdegaiaren eskuinera eramanaz: *Zergatik nahiko dut nik muggleen-gandik jaioei eraso?* (I. Mendiguren); *Izan ere, nondik nahiko luke esperientziak bere ziurtasuna jaso?* (Uribarri).

**23.4.5d** Adierari dagokionez, “zerbait egiteko, eginarazteko edo lortzeko asmo edo xede erabakia izan” (*Euskaltzaindiaren Hiztegia*) adierazteaz gain, iritzia edo ustea ere adieraz dezake (modalitate epistemikoa, § 10.4.1b, § 26.6.3.2): *Gauzak ondo egin nahiko ditu eta!*

**23.4.5e** *Ote* eta *bide* partikulekin batera ager daiteke: *Horrek esan nahi bide du heriotzaren kontzientzia betea zuela gizaki hark* (Joxerra Garzia); *Neure barruko Putzu kale zaharrari eutsi nahi bide nion* (Txillardegi); *Alokairua igo nahi ote digu?* (Txillardegi); *Puntuan hasi nintzen larritzen, zertarako nahi ote ninduen asmatu ezinik* (Lertxundi).

## 23.5. Adizki jokatuaren inguruko osagaiak

### 23.5.1. Bai/ba- eta ez adberbioak

Adizki jokatuaren inguruan ematen diren *bai/ba-* eta *ez* baiezkotza eta ezezko adberbioak ditugu, “partikulatza” ere hartuak izan direnak inoiz. Horiek adberbiotzat hartzen dira egungo hiztegietan eta horregatik aztertzen dira Gramatika honetan adberbioen sailean (§ 22.9.3.7).

### 23.5.2. *Al* eta *-a* galdera markatzaileak

**23.5.2a** Bai/ez motako galderetan erabiltzen da *al*, galdera egitura nabarmentzeko: *Egunero joaten al da mendira? Egin al du eskatu genion lana? Ez al duzu ikusten zer galtzen duzun nire eskaintza onartzen ez baduzu?* Gipuzkera literarioan ageri da, batez ere, nahiz bizkaierazkoetan ere ezezaguna ez den. Benetako zehar-galderetan erabil daiteke (*joango al den galdegin diote*), baina ez zehar-galdera itxura izan arren, egiazko galdera bat adierazten ez dutenetan: *\*Ez dakit joan al den*. Galderak erretorikoak ere izan daitezke, eta mota horietakoetan ere aurkituko dugu *al*: *Ez al dizut esan isilik egoteko? Haiiek baino gutxiago al gara gu?* Bi adibide horietatik lehena, baieztapena da funtsean (*esan dizut, noski!*) eta bigarrena, berriz, ukapena edo, zehazkiago esanda, ezezko moduan egiten den baieztapena (*ez gara gutxiago, noski!*). Literatura tradizioan *ahal* forman ere aurki daiteke galdera erretorikoetako *al* hau: *Ez ahal dakizu osoki partida ditugula liburuak euskaldunak* (J. Etxepare). Nolanahi ere, *al* beti da aukerakoa; ez dago partikula horren beharrik galdera adierazteko, intonazioa bera nahikoa da.

**23.5.2b** Iparraldeko hizkeretan adizki jokatuari *-a* atzizkia eransten zaio galde perpausetan (§ 10.3.2.2): *Ene falta dea bizirik enterratu banaute?* (Larzabal); *Mugarik badea zuretzat hilen eta bizien artean?* (Borda); *Baduzuia beste galderarik egiteko?* (Etxehandi); *Maite duzua lanean aritzea ordenagailuekin?* (Oxandabartz); *Ez duia ikusten zer galtzen duen ene eskaintza errefusatu?* (Larzabal); *Goizik afariten ginen: ez direa neguko gauak osoan lo egoiteko, udakoen orde [...]*? (J. Etxepare); *Mihi poxoin batzuek ez dutea biltzarra izengoititu: “bazkaltzaleen biltzarra”?* (Lafitte); *Anaiak ez girea, eta ez othe zaizkigute urrikalduko?* (Barbier); *Ene amaren begia nigarrez urtu zirea?* (Barbier). Galdera erretorikoetan ere ager daiteke, egiazko galdera ez direnetan, alegia: *Ez duta neure herria maitatuko?* Baina ez zehar-galderetan: *\*Hemen bizi dean galdegin du*.

Adibide horietan ikus daitekeenez, bai/ez motako galderetan ageri da *-a*; ezinezkoa da zati galderetan: *\*Nor ote dea?* Bestalde, zenbait egokitzapen gertatzen dira adizkiaren amaierako bokalaren eta *-a* galde-atzizkiaren artean: *da >*

*dea, dira > direa, zira > zirea; dute > dutea; duzu > duzua.* Perpausen ordain ageri den *bai* adberbioak ere har dezake *-a*: *Benat, Ameriketarat joaiten zauku!*: *Ha, baia?* (Larzabal).

**23.5.2c** Bai/ez motako galderetan batera ager daitezke *ote* eta *-a*<sup>16</sup>. Gaur egungo corpusetan aurki ditzakegu mota honetako adibideak: *Gizonak ere ez othe girea berdintsu?* (Manezaundi); *Hain maite nuen zure ilea ainitz xuritu othe dea?* (Barbier); *Nexkato batzuk orai bi urthe egin zutena, gizon gazteek ez othe dutea kalipurik gauza bera egiteko?* (Manezaundi); *Elgarren ezagutza eta adiskidantza finkatzeko beste manera hoberenik ba ote dea?* (Herria). Monfortek (2020: 139) nabarmendu duen bezala, bateragarriak *dira -a* eta *ote*, bai sintaktikoki, bai interpretatiboki ere. *Al* eta *ote*, baina, ez dira pragmatikoki bateragarriak: “*al* erabiltzen den testuinguruetan hiztunak entzulearengan erantzun bat sortu nahi du; *ote* azaltzen deneko perpausetan, ordea, hiztunak ez du entzulearengandik erantzunik jasotzea espero” (Monforte 2020: 242).

Hala ere, gutxi izan arren, badira adibideak *al* eta *ote* batera ageri direnak: *Baña orain il danean, zertarako barautuko naiz? itzuli al ote nitzaioke bizia? Ni bai joango naizala beragana; bera berriz ez da itzuliko nigana* (Uriarte); *Beste egun batean predikatzen ziarduela Hospitaletxo ta Magdalena bitartean elizatxoaren atarian, bi mirari moduko garaimen ederrak iritxi zituen bere itzaldiaren bidez Jaungoikoaren graziak neskata batean, zeña basarretxe Enparan-gaiñoaren leio batean erdi-etzana kanpora begira zegoan ea zerbait aitu al ote zegoen* (J. I. Arana); *Nola bada etzioten egingo? Izandu ziran batzuek erregla irakurri ondutan esan ziotenak onian, seme egiazko batek Aitari bezela: zerbait bizitzeko ondasun al ote zezaketen iduki, ez bakoitzaren izenian, baña guztien izenian? Au esaten zuten, egunetik egunera ugarituaz zijualako praile txikienen taldia* (Beobide).

Monforteren hipotesiaren arabera, *al* partikula *ahal* modala gramatikalizatzetik sortu bada, gerta liteke adibide horietan oraindik ere balio modala gorde-

<sup>16</sup> Aldiz, galdera nabarmentzen duen *al* partikula eta *ote* ez dira batera ematen. Uriarteren adibide bat baino ez dugu aurkitu: *Itzuli al ote nitzaioke bizia.*

tzea. Izan ere, ez da dudarik *al* modernoagoa dela eta hedadura murriztagoa duela. Dena den, Monfortek berak dioen bezala, gai honek oraindik ere azterketa sakona behar du.

**23.5.2d** Aurreko puntuan esandakotik ondorioztatzen da *al* eta *-a* ez direla baliokideak, oro har euskal gramatiketan halakotzat jo diren arren. Monfortek (2020: 350) erakutsi du ekialdeko *-a* partikulak indar ilokutiboa sendotzen duela; erdialdeko *al* partikulak, ostera, “erantzun jakin baten aldeko bideratzea saihesten du eta balizko erantzunak zabalik uzten ditu”. *Ote*-k ere indar ilokutiboari eragiten dio (§ 23.5.3.5) eta horregatik dira bateragarriak *-a* eta *ote*.

### **23.5.3. Modalitate epistemikoa eta ebidentzialitatea: *omen/ei, bide, ote* eta *ahal* partikulak**

#### **23.5.3.1. Ezaugarri orokorrak**

**23.5.3.1a** Ebidentzialitatea baieztapen bat bermatzen duen informazio iturriari (ebidentziari) dagokio. Ebidentzia izan daiteke esanezkoa (beste norbaiti entzundakoa) edo inferentziazkoa (eskura ditugun datuetatik atera dugun ondorioa) edo beste zenbait motatakoa<sup>17</sup>. Modalitate epistemikoa ematen duen informazioaz hitzunak duen ziurtasun maila enuntziatuan markatzeari dagokio (§ 26.6.3.2).

**23.5.3.1b** *Bide, omen/ei, ote* eta *ahal*<sup>18</sup> morfema funtzionalek adierazten dute hitzunak ez duela erabateko ziurtasunik edo zalantza duela egin duen baieztapenaren egiaz: *Galdu egin omen da; Ez omen da etorriko; Aitorpen berean, ehorzleak esan bide zuen oso urduri zegoela* (Saizarbitoria); *Etorri ote da? Zenbat balio ote du? Galde daiteke haren alde ote gauden*. “Ziurtasun neurriarekin” dute zerikusia horiek guztiek (EGLU-II 1987b: 501).

---

<sup>17</sup> Badira hizkuntzak baieztapen bakoitzaren iturria markatzen dutenak: ikusizkoa den, esanezkoa, ikusitakotik ondorioztatua, dakigunetik ondorioztatua... Ikus honetaz Aikhenvald (2004).

<sup>18</sup> Adiera batean behintzat inferentziazko balioa du.



Azken urteetako ikerlanen argitan, hemen aztertuko ditugun partikulek ebidentzia esanezkoa dela markatzen dute (*omen/ei*) edo inferentziazkoa, ditugun datuetatik ondorioztatua (*bide, ahal*). Inferentzia bidezko ebidentziak erabateko ziurtasunik eza dakarren neurrian, modalitate epistemikoari ere badagozkio partikula horiek.

**23.5.3.1c** Partikula esan zaie, eta termino hori darabil Jendraschek-ek ere (2007), askotan banako lexikoetatik datozen, baina funtzio gramatikal edo diskurtsiboa duten elementu aldagaitzak izendatzeko. Jatorriz izenak dira *bide* eta *ahal*; *omenek* ere badu izen kategoriako erabilera.

**23.5.3.1d** Adizki jokatuekin erabiltzen dira partikula hauek, ez jokatu gabeekin: *\*horrela omen eginik, \*horrela bide eginik, \*horrela ote egitearekin...* Kokaguneari dagokionez, adizki laguntzailearen edo adizki sintetikoaren aurre-aurrean ematen ditugu. Galdegaiaren eta adizkiaren artean kokatu arren, horrek ez dio galdegaitasunari eragiten: *Mikel dabil hor / Mikel omen dabil hor / Mikel ote dabil hor?* Hiru perpaus hauek galdegai bera dute, *Mikel*, nahiz lehenak partikula modalik ez izan eta beste biek bai.

Galdegai perpausaren baiezkotasuna edo ezezkotasuna denean ere, *ba-* edo *ez* adberbioen eta adizkiaren artean koka daitezke: *ba omen dakite, ez bide dira*. Nolanahi ere, ikusiko dugu *omen*-ek eta *ote*-k badutela adizki jokatuaren eskuinean agertzeko aukera; are gehiago, adizkia isilpean utzita agertzekoa ere. *Bide*-k, *ei*-k eta *ahal*-ek ez dute horrelako jokabiderik.

**23.5.3.1e** Morfema funtzional bakoitzak ñabardura jakin bat gehitzen dio perpausari; eta ñabardura horren barruan, adiera eta erabilera desberdinak ere izan ditzake (EGLU-II 1987b: 512).

### 23.5.3.2. *Omen/ei*

**23.5.3.2a** Euskalkien arabera da balio bera duten bi morfema funtzional horien banaketa: bizkaieraz erabili da *ei* eta gainerako euskalkietan *omen* (nahiz zubereran eta goi-nafarrean gutxi erabilia izan). Oso ohikoa da bai ahozko eta bai idatzizko erregistroetan.

**23.5.3.2b** *Omen*-ek badu kokagune eta esanahi orokor bat, erdialdeko eta ekialdeko hizkeretan komuna dena. Baina baditu kokagune eta adiera bereziak ekialdeko hizkeretan baino ageri ez direnak.

Euskalki guztietan ohikoena *omen* eta *ei* adizki laguntzailearen aurrean ematea da. Mota askotako mendeko perpausetan ere ager daitezke: erlatiboetan, adierazpen perpaus osagarrietan, zehar-galderetan, kausazkoetan, edo *-elarik* menderagailua hartzen dutenetan: *Aspaldian gogoan omen daukan xede bat* (J. Etxepare); *Nahiz eta orakuluek susperraldia gertu omen dela dioten* (Heras); *Beste inor baino hobeak direla pentsatzen dutenak beraiek odolgarbiak omen direlako* (I. Mendiguren); *Ura ixuri baitu olioaren gainerat, sekulan ez omen delarik hori egin behar!* (Herria); *Zera entzutean lasaitu nintzen: sugae-ausikiarengatiko hilkortasuna [...] ehuneko hirutik hamarrera bitarte ei dabilela* (J. A. Arrieta); *Urtaroen aldaketa 21ean ei delako esana, topikotxoa dena, hor dago aspaldidanik* (P. Zabala); *Hara zer galdu ei duen: errealitatearekiko berezko harremana* (Landa).

Alegiazko forma baten aurrean ere ager daiteke *omen*: *Zientzilari adituek diotenez edozein arbolatan sor omen liteke mihura, baina frutarboletan batez ere* (Perurena); *Ireki ondoren berriz ere lehen bezalaxe utziko omen lukete, moztu dutela ez nabaritzeko moduan, baina ez diet utzi nahi izan* (Saizarbitoria); *Medikuek diotenez, golpean zendu omen ditaike Mayi* (Herria); *Gainera tekoek ez dute oraino aterabiderik kausitu, ezi bertzean lantegia hetsiko omen lukete* (Herria); *Irakurketa rantxoan bertan egingo omen genuke, eta jende gutxirekin* (Atxaga).

**23.5.3.2c** Bestelako kokaguneak ere izan ditzake ekialdeko hizkeretan, baina betiere perpausak baiezkoak direnean (Etxepare 2010)<sup>19</sup>: adizki nagusiaren aurrean, adizki kopulatiboaren ondoren edo perpausaren hasieran. *Protestanteen komentu batean omen eskolarazi zuen* (Herria); *Esküalduna zen omen lehenago populü ez ikasia* (Herria); *Omen gizon zuhur horrek zuela gero gobernuaren mandua hartu* (Arkotxa). Hurrenkera horiek ezinezkoak dira

---

<sup>19</sup> Etxepareren lanetik hartuak dira adibideak.

erdialdeko hizkeretan; ekialdekoetan ere XIX. mendetik honakoak dira, *Orotariko Euskal Hiztegi*ko datuen arabera.

Parentetiko gisa ere erabil daiteke, baina erabilera nahiko berria da, lehen adibideak XIX. mendekoak baitira (erdialdekoetan ez dago adibiderik, ez bada erregistro ikasietan): *Erdi Aroan, omen, Nafarroa osoa etortzen zen debozioz* (Aintziart); *Ni naiz Donapaulekoa, omen, eta aski dut ez joatea ez badut nahi* (Luku).

Mendeko adierazpen perpausari ere bide eman diezaioke *omen*-ek ekialdeko hizkeretan (Etxepare 2010): *Omen, Lurreko Paradisuko kasko gorenean dela lau ibaiei sortzea ematen dien iturri miragarria* (Arkotxa); *Jadanik omen aurpegiz eta gorputzez aldatu dela* (Herria).

**23.5.3.2d** Erdialdeko hizkeretan ere eman daiteke adizkirik gabe; adizkia isilpean utzirik, alegia: *Non da Miren? Etxean omen; Bere bertsoak rimadun prosa uts omen, ez giar, ez gazi-gezik, ez bizi txinpartik* (Etxaide).

**23.5.3.2e** Izen kategoriako *omen* ere bada. Literatura testuen lekukotza oinarri hartuta, *Orotariko Euskal Hiztegi*ak hiru adiera bereizten ditu: 1. ospea; zurrumurrua, zabaldua den iritzia; aintza, loria. 2. omenaldia. 3. (pertsona bati buruzko) iritzia. Nabarmentzekoa da izen kategoriako erabilera ia guztiak ipar-ekialdeko testuetakoak izatea.

Lehen adierako ‘zurrumurrua’ adierakoak dira adibide hauek: *Orduan ezpaitzen bekhaturik, eta ez bekhaturen aierurik, omenik eta ez aiphamenik ere* (Axular); *Geroztik gaurko egunera arte banatu da omen ori Yuduen artean* (Iraizoz); *Entzun duzue engoitik / ixtripu horren omena* (Xalbador).

Hirugarren adierakoa da, ostera, beste hau: *Gero ere etsai berak hautatuko ditu eta sutatuko ifernuak jenden omenean Iñazioren galarazteko* (Laphitz).

Ipar-ekialdekoak dira, halaber, OEHko datuen arabera, (adiera horietan) *omen* izenetik sortutako *omenez* (‘diotenez’), azken adibideko *omenean, omenka* eta *omen-amen(ka)*: *Omenka mintzo dire haren mirakuluez: badute beraz zimentu onik!* (Hiribarren); *Omenka behar gira mintzatu, ez baitakigu non den egia eta non alegia plekaren “sortzea” aipatzen duten ixtorioetan* (Herria).

xxi. mendeko adibideak ere ekialdeko euskarakoak dira: *Ez du balio hemen goiti eta beheiti omenka eta omenez ibiltzea, Euskaltzaindiak eta euskaltzainek hau edo hura esan edo egin dutelakoa-edo arinki baieztatzen ibiltzea* (Salaburu); *Goldarazko aitona batek gogoan dauka, gizaldiz gizaldi omenka jasotako gertakari beltza* (Perurena); *Alferrik ari gaituk gai honetaz amen-omenka* (Olano). *-ka* adberbio atzizkia hartzeak, bestalde, erakusten digu *omenek* gertakari izen zenbakarria izan behar duela, horrelakoak baitira *-karen* oinarriak (ikus § 6.2.3).

**23.5.3.2f** Adierari dagokionez, beste norbaiten esanari egiten diete erreferentzia *omen* eta *ei* morfemek. Esaten duguna beste norbaiti entzuna dela ematen dugu aditzera kategoria funtzional horien bidez. *Omen*, beraz, *ebidentzialitatearen* barnean kokatu behar da; zehazki, baieztapen bat bermatzen duen informazio iturria (ebidentzia) esanezkoa dela nabarmendu nahi denean erabil daitezkeen marken artean (Etxepare 2010; Jendraschek 2007; Zubeldia 2011, 2013; Korta & Zubeldia 2014). Baina ez gaude behartuak *omen* erabiltzera inori entzuna errepikatzen dugun bakoitzean. Hiztunak bere informazio iturria nabarmendu nahi duenean bakarrik erabiltzen da *omen*.

*Omen*-ek ziurtasunik eza adierazten duela ere esan izan da euskal gramatike-tan (EGLU-II 1987b: 503); esaten dena beste norbaiti entzuna den neurrian, ezin dugula erabat ziurtatu egia den ala ez. Interpretazio horretarako bide ematen du, esaterako, honako adibide honek: *Orain duela lau, bortz aste izan omen da behin, bilku ixil hori; gero, berriz, egun hotan. "Omen" behar dugu erran, zeren ez baitugu gure begiz ikusi, ez baitakigu ere nor ziren batean ala bertzean [...]. Euskaldun aipatu andanaño bat bazela, hori bai, osoki egia daukagu* (J. Etxepare). Baina adiera hori ez da, partikula honen jokabidea aztertu duten hizkuntzalari horien ustez, *omendun* perpausaren esanahiaren parte; esaldiaren eduki pragmatikoari dagokio (ez eduki semantikoari). Izan ere, adibideei erreparatzea baino ez dugu ikusteko sarritan hiztunak erabateko ziurtasuna adierazten duela esaten ari den horretaz. Beraz, *omen* erabiltzean, hiztunak hauxe bakarrik ematen du aditzera: beste norbaitengandik jasotako informazioaren berri ematen ari dela.

**23.5.3.2g** Zubeldiak (2009: 243) hiru ezaugarriekin definitzen du *omen*-en balioa zein den<sup>20</sup>: a) beste norbaiti entzundakoa baiesten ari dela ematen du aditzera hiztunak *omen* darabilenean; b) hiztunak ez du entzundakoaren egia-ri buruzko ziurtasunik eza adierazten *omen* erabiliz (inplikatu egin dezake, baina ez ziurtasunik eza adierazi); c) beste hizkuntza batzuetako *se dice/dicen (que), on dit (que), they say/it is said (that)*... egituren baliokide da *omen*, ez *parece (que), il paraît (que)* edo *apparently* modukoena (azken hauek *bide*-ren baliokide dira).

**23.5.3.2h** Gure informazio iturria esanezkoa (inori entzundakoa) dela nabarmentzeaz gain, bestelako ñabardurak ere adieraz ditzake *omen*-ek, edo behintzat bestelako ñabardurak dituzten testuingurutan ager daiteke, hanpaduretan esaterako: *Xoxik ez du eta jauregia erosiko omen du! Edan gabe harrapatzen ei ditu mozkorrak!*

**23.5.3.2i** Batzuetan inferentzia adiera hutsa du eta, horrenbestez, modalitate epistemikoan sartzen da bete-betean: *Saigoneko girixtinoek ere gogotik atxikiko omen ninduten segurki! Omen gordetzen duen perpausa agiantza bat, desira bat da; ez da, beraz, esan-entzunezko zerbaiti buruzkoa, hiztunak ez baitu jendaki haien esanen edo iritzien inolako lekukotasunik. Testuinguru honetan, *omen*-ek esanarekin zuzenki lotua ez den dudazko adierazpide bat baizik ez du ekartzen (Etxepare 2010).*

*Omen* alegiazko adizkien aurrean ageri den adibideak (*edozein arbolatan sor omen liteke mihura; berriz ere lehen bezalaxe utziko omen lukete*, ikus § 23.5.3.2b) *omen* gabeko beste batzuekin alderatzen baditugu, ohartuko gara

<sup>20</sup> Adostasun/desadostasun testa eta eragin eremuaren testa aplikatzen ditu Zubeldiak. Lehenak frogatzen du esaldiaren egia-baldintzei egiten diela ekarpena *omen*-ek; hau da, *omendun* esaldiaren edukia zalantzan jarri, ukatu nahiz onartu egin daitekeela: *Ikasketak amaitu omen ditu, baina hala ote da? Ikasketak amaitu omen ditu, baina nik badakit ez dela egia, oraindik irakasgai batzuk gainditu gabe ditu...* Bigarrenaren bidez erakusten du adierazpen perpaus osagarrietan txertatzen denean, *omen*-ek mendeko perpausean duela eragina, hori dela bere eragin eremua, eta ez perpaus nagusia: *Bi urte gutxiago biziko gara, aita —esan zion Norak aitari, mofeta bat hilez gero bizitza urte betez laburtzen omen dela gogoraturik* (Lertxundi).

oinarrizko ebidentzial balioa ematen duena alegiazko forma dela: *Ez da oraino jakina nork erosiko duen (Donapauleko herria erosletarik litaike) (Herria)*. Esan-entzunezko interpretazioa berretsi egiten du *omen*-ek, baina ez da nahitaezkoa (Etxepare 2010)<sup>21</sup>.

**23.5.3.2j** *Omen* edo *ei* partikulen adiera bera eman dezakegu *diotenez, entzun dudanez* edo horien antzeko moldeen bidez. Baina horiek ez dute leku finkorik, esan daiteke perpausaren kanpoko gunea dutela berena. *Ei* edo *omen*-ek, ostera, gorago ikusi dugun bezala, adizki laguntzailearen edo adizki sintetikoaren aurre-aurreko gunea hartzen dute.

### 23.5.3.3. *Bide*

**23.5.3.3a** Batez ere idatzizko testuetan aurkituko dugu *bide*; ez da batere ohikoa ahozkoetan. Kokagunea, adizki laguntzailearen edo adizki sintetikoaren aurre-aurrekoa du: *Ez bide daki kazetari hark Alemaniak berak ez ezik Europako beste potentziek ere gerra horietan izan duten eragina* (Jimenez); *Denbora nahikoa kanpoan igarotzea aski bide da herrimina sortzeko* (Oñederra); *Berandu egin bide zaio, urrats luzez ibiltzen hasi baita* (Zaldua). Eta kokagune horretan ageri da galdegaiak eraginda laguntzailea aurreratzen denean (§ 41.4.2): *Akademiko talde batek bide du proposatu* (J. A. Irigarai). Bai eta ezezko perpausetan ere: *Itxura guzien arabera, holako lana ez bide zuten bizpahiru lagun xoilek egin bainan gizon andana handixko batek* (Herria).

---

<sup>21</sup> Kokaguneari eta adierari (edo adierei) erreparatuta erdialdeko eta ekialdeko hizkeren artean dauden aldeak ikusirik, honako ondorioa ateratzen du Etxeparek (2010): a) *omen* buru ebidentzial bat da erdialdeko eta ekialdeko hizkeretan (eta *ei* mendebaldeko hizkeretan, gaineratuko genuke); b) *omen* ez da nahitaez buru bat ekialdeko hizkeretan, espezifikatzaile edo adjuntu izaera du (eta buru ez denean, kokapen librea du perpausuan, baldintza batzuen barnean). *Omen*-en bariazio edo jokabide desberdintasun horren berri emateko, *omen* izenaren eta *omen* ebidentzialaren arteko erabateko antzari begiratzen dio Etxeparek: biek dute oso antzekoa bai esanahia eta erabilera eremua.

**23.5.3.3b** Esaten dugunari ziurtasun oso-osoa ematen ez badiogu ere, egiantz handia, bederen, eskaintzen diogula adierazteko erabiltzen dugu *bide*. Adiera bakarra du: ‘dirudienez’, ‘itxura guztien arabera’... *Bere izena holandarrek ezarritako Breukelen hitzetik dator (“lur ebakia” esan nahi bide du)* (Cano); *Landako giroak egin bide du mirari hori* (Jon Muñoz); *Beldarrainek aurpegiak irakurri bide zion oinaze ikaragarri hura* (Saizarbitoria); *Hala deritzot nik ere, alkate jauna, baina honezkero ez bide du konponbiderik* (Linazasoro).

**23.5.3.3c** Bestelako adierazpideak ere balia ditzakegu adiera hori emateko, hala nola, aspektu prospektiboa (*etorriko zen honezkero*), *behar* modalitate epistemiko baliokoa (*etxeratua behar du*), *badirudi*... (*Badirudi Manexen amona juduak ez zuela bere fedea ukatu, hala uler daitezke, behintzat, bilobaren hitzak*, Txiliku), edo zenbait adverbio edo postposizio sintagma (*antza denez, itxuraz, nonbait, sopra ere* ‘antza denez, itxuraz’ adieran... *Etxera etorri da nonbait; etxera etorri da sopra ere*). Azken adibide horiek erraz eman daitezke *bide* erabiliaz: *etorri bide da, etxeratu bide da, ez bide zuen bere fedea ukatu*.

#### 23.5.3.4. *Omen vs bide*

**23.5.3.4a** Zenbait testuingurutan baliokidetzat har daitezkeen arren, *omen* eta *bide* partikulen arteko desberdintasuna nabarmendu dute Kortak eta Zubeldiak (2015, 2016). *Omen* erabiltzean, hiztunak baiesten du beste norbaiti entzun diola esaten ari dena; *bide*-k, aldiz, zeharkako ebidentzia adierazten du. *Bide* erabiltzean hiztunak adierazten du zeharkako ebidentzia duela esaten ari denerako, nonbaitetik ondorioztatu duela. Konpara ditzagun bi adibide hauek (Korta eta Zubeldia 2016): *Asko mugitzen omen naiz lotan nagoela / Asko mugitzen bide naiz lotan nagoela*. Lehen esaldia dioenak adierazten du beste norbaiti entzun diola asko mugitzen dela lo dagoenean. Bigarrenean, berriz, deduzitu egin duela hiztunak asko mugitzen dela, beharbada goizean izarak oso zimurtuak ikusten dituelako. Baina gerta daiteke dedukzio edo inferentzia norbaiti entzuketik etortzea ere. Argi ikus daiteke hori adibide honetan: *Gauetz, ostera bai, agertzen bide dira itsaspekoak azalera, Gregoryk kontatuko duen legez* (Jimenez).

**23.5.3.4b** Beste norbaiti entzundakoa hala dela uste ez denean, bai eta hala dela uste denean ere, erabil daiteke *omen*: *Asko irakurri omen du, baina ez dut uste hala denik; Asko irakurri omen du, baina nik badakit ez dela egia. Bide ez da bateragarria ziurtasuna izatearekin: \*Asko irakurri bide du, baina ez dut uste / baina badakit ez dela hala.*

**23.5.3.4c** Laburbilduz, ebidentzialak dira bi partikulak, bai *omen* eta bai *bide*. *Omen*-en bidez adierazten dugu *hitzezkoa* dela dugun ebidentzia; *bide* erabiliaz adierazten dugu *zeharkako* ebidentzia dugula esaten ari garen horretarako. Hau da, bi eratako ebidentzialitatea bereizten du euskarak: hizkuntza-*ren* bidez ekarritako ebidentzia (beste norbaitek esana) eta beste era bateko zeharkako ebidentzia, inferentziazkoa (Korta eta Zubeldia 2016: 17).

#### 23.5.3.5. Ote

**23.5.3.5a** Galde perpausetan erabiltzen da, edozein motatakoak izanik ere; hau da, *bai/ez* motako galderak zein zati galderak: *Etorri ote da? Nork utzi ote du atea zabalik? Eta ilargiak noiz ote du bere txangoa egiteko aukera?* (P. Zabala); *Gure hizkuntzak, ba ote du ezkutukorik azpeitiarrarentzat?* (P. Altuna). Baita zehar-galderetan ere: *Etorri ote den jakin nahi nuke; Mutu egon da telebistan berria entzun duten arte, eta ez daki orduan ere zerbait esan ote dion* (Jon Muñoz); *Ta ikusiko ezetedozun uste izan dozunean* (Agirre). Bizkaiera literarioan *ete* aldaera ageri da.

**23.5.3.5b** Kokaguneari dagokionez, adizki laguntzailearen aurrean ageri da, baita ezezkoetan ere: *Ez ote da etorriko?* Baina adizki jokaturik bereizi ere ager daiteke, etenen artean emana bezala: *Ez dea ote miliun bat Euskaldun [...]?* (J. Etxepare). Adizkia isilpean dagoela ere ager daiteke: *Hori legea ote guretzat? Sagarra da eta arantzak ditu: nor ote?* (Irigoien); *Norentzat ote, zuretzat ala guretzat?* (Igerabide).

**23.5.3.5c** Adibide horietan *ote*-ren zeregina ez da galdera markatzea, baizik galderari zalantza kutsu edo ñabardura bat ematea. Argi ikus dezakegu hori



honako adibide honetan, idazleak berak azpimarratzen du-eta zer eransten duen *ote*-k: *Arrotako herriak hainbertze urte huntan zuen bezalako mera balinbazuen, merezi zuena baizik ez zuela. Ez ote? Ez, eta oterik gabe oraino. Zu hunen irakurtzen ari ziren bezen segur* (Hiriart-Urruti).

**23.5.3.5d** Gogoeta baten harira mamitzen den galderan ezarriko dugu *ote*, inguruaren arabera, gogoeta, beldurra, zalantza, susmoa, ustea, irudipena eta abar adierazteko. *Ote* daraman galderak ez du berez hizketa lagunagandik erantzunik eskatzen; galdera erretorikoak dira ia guztiak: *Etorriko ote da Luis, bakarrik etorriko ote da* (Oñederra); *Pazientziak erre, bere baitan egin zuen: “Noiz amaituko ote du?”* (Zubizarreta). Monfortek (2020: 194) ere nabarmendu du *ote* azaltzen den galderak konjeturalak edo erretorikoak direla.

Beste batzuetan galdera bati erantzuteko, edo argibideak emateko erabiltzen ditugu *otedun* zehar-galderak. Intonazioaren aldetik bereziak, eta esaldia amaitu gabe bezala utzita. *Jon? Gaixo ote dabilen... Hotel hori ixtekotan ote dabilzan... Horregatik ez ote dabilen mendeku bila* (K. Izagirre); *Otsailean etxe barruko lanak gehiago, ganbara eta arropa konpontze eta beste... Martxoan, berriz, alorrera, laborea egitera; Lanen banaketa ote duen intentzio...!* (P. Zabala). Entzundakoari buruzko argibidea ematen da, urruntasunez, *omenekin baino ziurtasun gutxiagoz (entzun dudala uste dut...; esaten da baina ez dut ziurtasun handirik...)*<sup>22</sup>.

**23.5.3.5e** Inoiz, gainera, enfasiaren zerbitzuan etor daiteke: *Hik esan duala eta, lege ote hori guretzat?* Adibide horretan garbi dago azpian benetan ukapena dagoela, hori ez dela lege guretzat. Beste batzuetan, enfasiaren bidez kopuru handia adierazten dugu: *Zenbat bertso jarri ote ditu Basarrik!* Askok, jakina. Eta nabarmenago eman dezakegu ezezko egitura baliatuz: *Zenbat bertso ez ote ditu Basarrik jarri!; Zenbatez zigor handiagoo ez ote du merezi izango Jainkoaren semea hankapean erabili [...] eta Jainkoak onginahiz eman dion Espiritua iraintzen duenak!* (Elizen arteko Biblia).

<sup>22</sup> Askoz deskribapen zehatzagoa aurki daiteke Monforteren tesian (2020), bereziki 5.4. atalean.

### 23.5.3.6. *Ahal*

**23.5.3.6a** Hainbat balio ditu *ahal*-ek. Izena da, *ahal izan* aditz modala ere bada (ikus § 23.4.2). Hemendik kanpo utziko ditugu balio horiek, bai eta galderetan ageri den *ahal*; galdera markatzea beste eginkizunik ez duen heinean, *al* galdera markaren pareko da. Euskara estandarrean *al* forman ematen ditugu gaur. Eta alderantziz, *al* forma ere aurkituko dugu literaturan galdera marka soila baino zerbait gehiago dela. Azken batean, forma biak ageri dira, bai *ahal* eta bai *al*, galdera nabarmentzeko eta bestelako balioetan (desira adierazteko edo ‘ziurrenik, dirudienez’ adieran). Euskara estandarrean bereizi egin ditugu bi formok: *al* utzi dugu galdera nabarmentzeko morfema balioan, eta *ahal* gainerako balioetan.

**23.5.3.6b** *Orotariko Euskal Hiztegiak* ematen dituen bi balio hartuko ditugu hemen kontuan: “probablemente, seguramente, al parecer, por lo visto” (*bide*-ren baliokidea) eta desira adierazten duena.

Bestelako ñabardurak adierazten dituen *ahal*-ek funtsean *ahal* izena duela jatorri pentsa dezakegu eta, horrenbestez, modalitatea adierazten duen *ahal izan* predikatuko bera dela. Hemen, ordea, jatorrizko esanahia galdu eta kategoria funtzionalen ezaugarriak ditu.

**23.5.3.6c** *Omen/ei, ote* edo *bidek* bezala, adizki jokatuko laguntzailearen aurrean du lekua: *Itoko ahal haiz! Ez ahal gara horregatik haserretuko!*

**23.5.3.6d** Ziurtasun osorik eza adierako *ahal*-ek ebidentzialen artean du bere lekua, *bide*-ren ondoan. Batez ere Iparraldeko testuetan, batzuetan ‘ziurrenik, dirudienez’ (ziurtasun osoa izan gabe) edo (galde perpausetan) ‘antza denez’ ñabardura ematen dio perpausari: *Hogoi eta bortz urthe ahal zituen orduan* (Duvoisin); *Alabaina, ez ahal zen bera jarria gizon hori herrian auzapez? Norbeitek izendatua zen araiç* (Hiriart-Urruti); *Ez ahal dituk taxi horiek hain kario. Nor nahik hartzen ditik* (J. B. Etxepare); *Hori ahal da munduan agertu den ereskinik zaharrena* (Mitxelena); *Hik egin ahal duk lan itsusi hori, ‘c’est toi probablement qui as fait cette laide action’* (Maurice Harriet). Adibide horiek beste modu batean ere eman genitzakeen: *Hogeita bost urte izango*

*zituen orduan; Taxi horiek ez dira hain garestiak izango edo Hik egin bide duk lan hori; Taxi horiek ez bide dira hain kario.*

**23.5.3.6e** Beste batzuetan ‘desira’ adierazten du: *Joango ahal da etxera! Behingoz amaituko ahal da! Hurrengo urteetan zorte hobea izango ahal dugu! Ez ahal dira hain urrun joango! Baina ez ahal zaizkit samurtuko* (J. Etxepare); *Ez ahal haut, gaixoa, betikotz galduko!* (Xalbador); *Biziko ahal da luzaroan, etsaiak etsai, behinola ugaria zen familia zahar batetik gelditzen zaigun haur bakar hori!* (Mitxelena).

Adizkiaren aspektua prospektiboa izaten da gehienetan, adibide horietan ikus dezakegunez. Baina ez du nahitaez hala izan behar: *Gutienetik bederen balinba bederatzi urte hautan jarraiki zauzkigun irakurtzaileetarik zenbaiti zerbeit onik sartu ahal diotegu buruan* (Hiriart-Urruti); *Gure gaixakeria guzitik sendatuak giren bezala, munstro eta harramantza guziak suntsitu ahal dira, hek ere, behin betikotz!* (Barbier). Balio honetan ezingo genuke ebidentzialitate morfematizat hartu, ez baitu loturarik hiztunaren informazio iturriarekin.

Baina, desiraren eta zalantzaren arteko muga ez da beti garbia. Inguruak, hizkera doinuak eta horien antzekoek agindu ohi dute zein den kasu bakoitzeko esanahia edo ñabardura (EGLU-II 1987b: 514).

Denborazko esanahia hartzen du, bestalde, zenbaitetan ezezko perpausetan: *Ez ahal zen etxera heldu, deika zeuzkan poliziak.*



## 24. Aditza (II): atribuzioa eta predikazioa

---

24.1. Sarrera

24.2. Aditzezkoak ez diren predikatuak

24.3. **Lehen mailako predikazioa**; 24.3.1. Adiera desberdinak egitura kopulatiboetan; 24.3.2. Aditz eta egitura kopulatiboak; 24.3.3. *Izan* eta *egon*; 24.3.3.1. *Izan*; 24.3.3.2. *Egon*; 24.3.4. *Ukan* eta *eduki* erabiliz osatutako egitura kopulatiboak; 24.3.5. Aditz eta egitura semikopulatiboak; 24.3.5.1. Askotariko aditz eta egiturak; 24.3.5.2. Iritzi aditzak; 24.3.5.3. Gertaera aditzak; 24.3.5.4. Aldaketa eta iraupen aditzak

24.4. **Bigarren mailako predikazioa**; 24.4.1. Zer den bigarren mailako predikazioa; 24.4.2. Subjektuari begirako bigarren mailako predikazioa; 24.4.3. Objektuari begirako bigarren mailako predikazioa; 24.4.4. Aukerako eta nahitaezko bigarren mailako predikatuak; 24.4.5. Bigarren mailako predikatuen interpretazio semantikoak

---

### 24.1. Sarrera

**24.1a** Predikatuaren ardatza aditza izan ohi da. Azpimarratutako elementuak, aditzak, bideratzen du predikazioa ondorengo adibideetan: *Mendian elurra ikusi dut gaur*; *Iaz itsasontzian ibili nintzen*; *Sarrionandiaren liburu berria irakurri dut*; *Giltzak autoan ahaztu zitzaizkidan*. *Ikusi*, *ibili*, *irakurri* eta *ahaztu* dira aurrekoetan predikazioaren gune nagusia; aditzaren bidez ematen da aditzera perpaus horietako ekintza edo gertakaria; subjektuari buruz esan-

go denaren muina aditzak ematen du, eta aditz horren inguruan biltzen dira beste elementu batzuk (*mendian, gaur, elurra, iaz, itsasontzian* eta abar), subjektuari buruzko predikazioa osatuz. Horrela izan ohi da aditz gehienekin.

Beste kasu batzuetan, ordea, aditzek eduki semantiko hutsa edo oso murriztua dute, eta aditza ez den beste elementuren bat izaten da predikazioaren gune nagusia: *June zoragarria zen; Zopa beroa zegoen; Eder dira txoriak mendian; Nire arreba triste dabil*. Adibide horietan *zoragarria, beroa, eder* eta *triste* dira predikatu nagusiak; horien bidez ‘esaten da edo adierazten da’ zerbait subjektuari buruz: [June – zoragarria]; [zopa – beroa]; [txoriak – eder]; [nire arreba – triste]. Horixe da, hain zuzen ere, atribuzio erlazioa: perpauseko izen sintagma bati ezaugarriak egoztea, elementu horretaz propietateak edo egoerak predikatzea. Horrelakoetan *izenki predikazioa* edo *atribuzioa* dagoela esan ohi da gramatiketan. Aldiz, aurreko paragrafoak bezalako adibideetan, *adizki predikazioaz* hitz egiten da<sup>1</sup>.

**24.1b** Aditzaren bitartez gauzatzen ez den predikazioari dagokionez, bi predikatu mota nagusi berezi ohi dira: lehen mailako predikatuak edo predikatu nagusiak, eta bigarren mailako predikatuak.

**24.1c** Lehen mailako izenki predikazioaren eredu modura aditz kopulatibodun (*izan, egon*) perpausak eman ohi dira: *Lore hori polita da; Ez naiz musika zalea; Kezkatuta nago; Indabak ederrak zeuden; Kafea beroa dago*. Esaldi horietako aditz nagusiak kopulatiboak dira (*da, naiz, nago, zeuden, dago*), eduki semantiko bat adieraztea baino areago predikatuaren eta subjektuaren arteko lotura bideratzea helburu dutenak. Flexioari dagozkionak adierazten dituzte (modua, denbora, aspektua, pertsona), baina, esan bezala, eduki semantikorik gabeak dira; ez dira subjektuaren predikatu. Predikatu nagusia, hain zuzen ere, azpimarratutako elementuak dira (*polita, musika zalea, kezkatuta, ederrak*,

---

<sup>1</sup> Gramatikaren tradizioan *nominal predicate, predicado nominal* edo *prédicat nominal* erabili izan da aditzezkoak ez diren predikatuak izendatzeko, nahiz eta guztiak ohartzen diren multzo horren barnean izaera eta ezaugarri oso desberdineko elementuak bildu ohi direla. Terminologia edo banaketa horrekin (*adizki predikazioa* eta *izenki predikazioa*) sortzen diren arazoen bilketa baterako, Zabalaren lana (1993: 138-143) ikus daiteke.

*beroa*); era honetako predikatu nagusiei gramatikaren tradizio batzuetan *atributu* ere deitzen zaie, eta nolakotasuna adierazten dute, modu zabalean, baina ez aditzaren osagarri bezala, subjektu bati dagokion predikatu gisa baizik.

Aditz kopulatiboez gain, badira beste aditz batzuk erabilera ‘arina’ izan dezaketanak, hau da, beren esanahi semantikoa galduta edo ahulduta zeregin kopulatiboa betetzen dutenak (*ibili, gelditu, jarri, jarraitu...*), eta, hortaz, *semikopulatibo* deitu daitezkeenak: *Burumakur dabil jendea; Triste gelditu zen laguna; Langileek kezkatuta jarraitzen dute*. Pentsa daiteke azpimarratutako elementuak esaldiaren predikatua direla eta aditzek subjektuarekiko lotura bideratzen dutela. Kopulatiboen pareko dira neurri batean semikopulatibook, baina, haien aldean, egoeraren aspektu bat iradokitzen dute zenbaitetan. Hala, *Langileak kezkatuta daude* esaldiaren aldean *Langileak kezkatuta jarraitzen dute* esaldiak egoera lehendik datorrela eta bere horretan dirauela ematen du aditzera<sup>2</sup>. Aditz hauen berezko esanahiaren eta erabilera semikopulatiboaren arteko aldea, berriz, honako esaldi hauek erakusten dute: *Trena gero eta azkarrago dabil* eta *Jendea gero eta aztoratuagoa dabil*; aurrenak aditzaren eduki semantiko betea gordetzen du (‘toki batetik bestera higitu’) eta ibilera fisikoa adierazten du; bigarrenak subjektuaren egoera bat ematen du aditzera. Beraz, hauetan ere predikatu nagusia azpimarratutako elementuak (*burumakur, triste, kezkatuta*) ematen du, eta atribuzio erlazioa dute dagokien subjektuarekiko.

**24.1d** Izenkien bidez bigarren mailako predikazioa ere gauzatu daiteke. Atalaren hasieran esan dugun bezala, esanahiaren aldetik aditz ‘osoak’ ditugunean, aditza izaten da predikazioaren gunea: *Auto berria erosi dut; Auto berrian abiada bizian ibiltzen da Miren; Hondartzara joan naiz; Porru-patatak egin ditut; Oinetakoak lokatzetan zikindu zaizkit*. Horrelakoak izan ohi dira adibide gehienak, eta mota honetako aditzez eta har ditzaketen osagarriez gramatika honetako beste atal batzuetan ematen da informazioa. Hala ere, predikatu nagusia aditza denean, batzuetan bigarren mailako predikazio bat ere azal daiteke: *Triste joan naiz hondartzara; Ederrak egin ditut porru-patatak*. Lehenengo adibidean predikazio nagusia [ni – joan] da, baina badago bigarren

<sup>2</sup> Iparraldeko erabileran bi adibide hauek adiera bera dute.

mailako predikazio bat ere [ni – triste]: *triste* elementua, nolabait esateko, aditzari eta subjektuari dagokie; nola joan den adierazten da, eta bereziki, subjektua zer egoeratan joan den; subjektuaz une horretako egoera predikatzean atribuzio erlaziora gatoz berriro. Berdin bigarren adibidean ere: predikazio nagusia [nik – egin] da, baina hor ere bada bigarren mailako predikazio bat [porru-patatak – ederrak]; porru-pataten amaierako egoera adierazten du *ederrak* elementuak. Adibide horietako *triste* eta *ederrak* elementuei *bigarren mailako predikatuak* edo *osagarri predikatiboak* deitzen zaie.

## 24.2. Aditzezkoak ez diren predikatuak

**24.2a** Eginkizun honetan —predikatu nagusi nahiz bigarren mailako predikatu— kategoria eta era askotako elementuak aurkitu ditzakegu. Perpauseko aditzaren nolakotasunek, eta oro har, egituraren ezaugarriek elementu batzuei edo besteei emango diete bidea.

**24.2b** Aditzezkoak ez diren predikatu askoren oinarrian adjektiboa egon ohi da. Adjektiboen bidez sarritan ezaugarriak eta propietateak adierazten dira, eta egokiak suertatzen dira subjektuei atributuak lotzeko eta, era horretan, subjektuei buruz predikatzeko: *Angulak garestiegiak dira nire etxerako*; *Zerua urdina da*; *Nire txirrendua zaharra da*; *Labana hura oso zorrotza zen*; *Harri-garria gertatu zait zure erabakia*. Adjektiboa artikuluekin nahiz artikulurik gabe azal daiteke: *Ederra izan da ikuskizuna*; *Eder dira txoriak kantuan*. Jatorrian adjektiboak izan gabe, adjektiboen ezaugarriak dituzten beste zenbait elementu ere erabiltzen dira eginkizun honetarako: partizipioak, artikulua erantsita (*nekatua aurkitu zaitu*; *bihotza erdibitua daukat*) eta dagozkien osagarriak eramateko aukerarekin (*eskuz eginak dira saski hauek*; *Moskun erositako vodka hau*); *-ko* postposizioa eta artikulua erantsiz adjektibo ezaugarrietara ekartzen diren elementu desberdinak (*arazo hori egiturazkoa da*; *gurpil horiek elurretarakoak dira*; *ardo hau Errioxakoa da*; *eskuz egindakoak dira saski hauek*; *horrelakoa da nire autoa*); *-en* genitiboa eta artikuluekin osatzen direnak (*nebarenak dira liburu horiek*).



**24.2c** Oinarrian izena dutenak ere agertzen dira predikatu modura, baina guxtiago, eta ingurune sintaktiko eta semantiko zehatzagoetan. Gehienetan identifikaziozko egituretan azaltzen dira: *Gure arriskua globalizazioa da*. Hortik kanpora, oro har predikaziozko interpretaziorako bidea ematen duten izenekin errazago agertzen dira. Horrelakoen artean daude jarduera izenak, lanbideekin, karguekin edo zereginekin lotutako izenak (*Miren medikua da; zu zuzendaria zara*) edo erreferentzia zehatza ematea zailago duten izenak (*urrunera ikusi genuena elurra zen*). Izenarekin batera beste elementu batzuk ere ager daitezke, bereziki adjektiboa, eta sintagmari nahi adinako konplexutasuna eman: *Nire laguna irakasle ona da; Lagun ona zaitut; Ni zure nagusia izango naiz*. Hauez gain, aditz eta egitura jakin batzuetan, artikulurik gabeko izen soilak ere azaltzen dira predikatu gisa: *Artzain joan zen Kaliforniara; Printzea igel bihurtu zen; Lehendakari hautatu dute; Ordezkarri izendatu dute*.

**24.2d** Adberbioek, bereziki moduzko adieratik hurbil daudenek, aukera ona ematen dute uneko egoerak adierazteko, eta sarritan aurkituko ditugu predikatu zereginetan; bai predikatu nagusi modura (*zuk esandakoa ondo dago; aspaldian gaizki dabilta nekazariak*), bai bigarren mailako predikatu gisa (*isilik hartu ninduten taldeko kideek; ondoezik ikusi nuen osaba*). Adberbio izaera hartzen dute, halaber, partizipioari *-ta* edo *-ik* erantsiz osatzen direnek, eta askotan aurkituko ditugu predikatu modura: *Asperturik nago; Kezkatuta dabil Mikel*.

**24.2e** Zenbait postposizio sintagma ere izan daitezke predikatu —nagusi edo bigarren mailako—; bereziki uneko egoerak adierazteko bidea ematen dutenak: *Umore onean inguratu zitzaigun Josu; Guraso asko ezinean dabilta; Kemenik gabe jarraitzen du Korok; Ez zaitut txapelarekin irudikatzen; Umore txarrez jarraitzen duzu; Pello ez dago bere onenean; Indar gutxirekin sumatzen zaitut*. Aipamen berezia behar du prolatiboak: *Agintariek inozotzat hartzen gaituzte; Semetzat hartu zuten Jon; Etxekotzat naukate familia horretakoek*.

**24.2f** Mendeko perpausak ere ager daitezke predikatu modura: *Zer egin ez dakiela dago Maddi; Arropak ondo lehortuta gorde behar dira; Alabaren jokatibidez gogaiturik sumatu nituen gurasoak; Adurra zeriola zegoen, maiteari begira; Ongi ikasiak ditugu arau guztiak*.

## 24.3. Lehen mailako predikazioa

### 24.3.1. Adiera desberdinak egitura kopulatiboetan

**24.3.1a** Egitura kopulatiboetan esanahi edo harreman semantiko desberdinak adieraz daitezke, atributuaren eta subjektuaren artean dagoen erlazio semantiko eta gramatikalaren arabera. *Izan* aditzak adiera gehienak emateko aukera du; gainerako aditz eta egitura kopulatiboek aukera murriztagoak dituzte.

**24.3.1b** *Izan* aditzari dagokionez, batzuetan pertsonen edo gauzen ezaugarriak adierazten dira. Ezaugarri horiek izan daitezke propietate iraunkorrak edo berezkoak adierazten dituztenak (*Tartalo begibakarra da; Mitxelena errenteriarra zen*), eta orduan *izaera mailako predikatuak* deitu ohi zaie (izate horren iraupen aldi osoan egia izango direnak); izan daitezke, halaber, une, aldi edo egoera jakin bati dagozkion ezaugarriak (*gaur goizean oso atsegina izan zara; Patxi hirugarren mailako ikasle da aurten*), eta orduan *egoera mailako predikatuak* eratu. Guztiek ere egitura kopulatiboaren *predikaziozko* adiera azaltzen dute. Bereziki adjektiboekin edo adjektiboen gisako elementuekin aurkitzen ditugu horrelakoak: *Jontxu gizona zen; Piper horiek minak dira; Aristoteles jakintsua zen; Beñat asko ikasia da; Polit dira lore horiek*. Asko izaten dira horrelako adibideak. Adjektibodun izen sintagma osoa dutenek ere antzera jokatzen dute: *Andoni gizon arduratsua da; Venezia hiri zoragarria da; Txindoki mendi dotorea da; Ainara lagun leiala zen*. Ezaugarriak adierazten direla esaten da, halaber, atributu gisa lanbideak, karguak edo zereginak dituzten izenak ditugunean ere: *Gaztetan sukaldari nintzen; Messi futbolaria da; Maddi medikua da*. Izenekin errazago lortzen da *izaera mailako irakurketa*.

Beste batzuetan bi elementuren arteko identifikazioa edo berdintza adierazten da, egitura ekuatiboak osatuz. Har dezagun ondorengo adibidea: *Arazo nagusia gurasoak dira*. Artikulua daramaten bi izen sintagma azaltzen zaizkigu, eta ez da gurasoen ezaugarri bat edo propietate bat azaltzen, baizik eta *arazo nagusia*-ri erreferente zehatz bat ematen diogu (*gurasoak*), gainerako arazo posibleen artean (gizartea, lagunak, Internet eta abar) hautatuz, eta atributuarekin identifikatuz. Horrelako egituretan batzuetan zalantzak izan ditzakegu

subjektua eta atributua zein diren erabakitzen; alegia, *arazoa langabezia da* adibidean, zein da subjektua? Auzi konplexua da, hizkuntzalaritzaren barnean eztabaidatua. Nolanahi ere, izenaren ezaugarri semantikoez —bereziki, erreferentzia ezartzeko gaitasunak— zeresan handia dute; ordenak eta intonazioak ere bai; eta askotan komunztadurak lagun diezaguke. Horrela, *arazoa zu zara* adibidea dugularik, garbi gelditzen da subjektua *zu* dela; *nor da arazoa?* galderaren erantzuna izango litzateke. Mota honetako identifikaziozko egituretan, batzuetan mendeko perpausa ere izan daiteke subjektua: *arazoa da ez duzula entzuten* (zein da arazoa?).

**24.3.1c** Zenbait kasutan, tartean elementu berak direla, bi irakurketak (ezauzarriak adieraztearena, eta identifikazioa bideratzen duena) dira posible. Adibidez, pentsa dezagun *izan* aditzaren bidez *neska hori* eta *ekonomiako irakaslea* lotzen ditugula. Ordena eta intonazio desberdinak erabil ditzakegu. *Neska hori gure ekonomiako irakaslea da* esaten badugu bi interpretazioak dira zilegi, baina ziurrenera errazago ulertuko dugu aipatzen den neskaren ezaugarri bat ematen dugula (ekonomiako irakasle izatea), subjektuaren lanbidea, kargua edo zeregina adieraziko bagenu bezala; eta atributua artikulurik gabe emango bagenu, adiera hori garbiago bideratuko litzateke, erreferentzia ezartzeko gaitasuna galduko bailuke: *Neska hori ekonomiako irakasle da* ('zer da neska hori?'). Aldiz, *Neska hori da ekonomiako irakaslea* esaten badugu, bi elementuak identifikatzen dituen irakurketa gailenduko da ('nor da ekonomiako irakaslea?'); berdin *Ekonomiako irakaslea neska hori da* esatean; eta sintagma-ren datu gehiago ematen baditugu (*hirugarren mailako ekonomiako irakaslea neska hori da*), predikatu gisako irakurketa zailduko dugu, erreferentzia ezartzeko errazago utziz.

**24.3.1d** Egon aditza adiera kopulatiboan erabiltzen denean une edo egoera bati dagozkion predikatuak osatzen dira: *Jon gaixo dago; Kafea beroa dago; Medikua urduri dago*. Aipatu ditugun gainerako adieretarako (identifikazioa edo izaera mailako predikatuak) biderik ez du ematen *egon* aditz kopulatiboak (\**Tartalo begibakarra zegoen*; \**Mitxelena erreneriarra zegoen*), eta izenak azaltzen direnean artikulurik gabe agertzen dira (*Izaskun tabernari dago Bergaran*), egoera mailako predikatu gisa, une bati dagokion ezaugarria adieraziz.

**24.3.1e** Adiera lokatiboa duten elementuak ere sarri azaltzen dira *izan* eta *egon* aditzekin: *Atzoko kaxak han daude/dira; Dirua mahai gainean dago/da; Josune ohean dago/da*<sup>3</sup>. Gramatikari batzuek diote aurreko adibideak zentzu zabalean egitura kopulatibotzat hartu beharko genituzkeela, eta azpimarratutako tokizko elementuak atributuak direla; azken batean, lokatibo horien ordeztelako adberbioak edo adjektiboak azalduko balira bezalako egituren aurrean gaudela: *Atzoko kaxak puskatuak daude/dira; Dirua eskuragai dago/da; Josune gaixo dago/da*. *Egon* eta *izan* lotura aditzak izanik, nahitaez eraman behar dute predikazioa gauzatzen lagunduko dien zerbait, eta goiko kasuetan, lokatiboaren bidez (*han; mahai gainean; ohean*) aseko litzateke eskakizun hori. Nolabait esateko, “predikatu lokatiboak” izango lirатеke, aditzok bai baitute ‘kokapena’ edo nolabaiteko ‘iraupena’ adierazten duten elementuei bide emateko gaitasuna. Baina ohart gaitezen beste batzuetan lokatiboa ez dela predikatu nagusia: *Hori ohikoa da Donostian; Triste nago Euskal Herrian*. Adibide horietan predikatu nagusiak *ohikoa* eta *triste* izango lirатеke, eta lokatiboak adjuntuak izango genituzke.

### 24.3.2. Aditz eta egitura kopulatiboak

**24.3.2a** Aditz kopulatibo nagusiak *izan* eta *egon* dira. Baina kontuan izan behar da erabilera kopulatiboaz gain badituztela kopulatiboak ez diren erabilera ere; adibidez, erabilera existentziala: *Bada hori egingo duenik; Arazo bat egon da goizeko saioan* (ikus Zabala 1993), edo erabilera predikatibo arruntak: *Gaur goizean Larrun mendian izan naiz*. Bestalde, bi aditzok ez dira era berean erabiltzen euskararen lurralde osoan. Adiera batzuetan *egon* erabiltzen da Hegoaldean, eta *izan* Iparraldean. Adibidez, ‘egoera batean gertatu’ adierazi nahi denean, osagarri adjektibalekin, adberbialekin, edo lokuzioetan *egon* azal-

---

<sup>3</sup> Hizkeren artean badira desberdintasunak era honetako egituretan, eta *izan* batez ere ekialdean erabiltzen da. Bestalde, subjektua jarduera adierazten duen izen bat denean *izan* aditza azaltzen da beti: *Kontzertua Baionan izango da; Bilera Gasteizen da; Omenaldia arratsaldeko seietan izan zen*.

duko zaigu Hegoaldean: *Busti(a) dago lurra; Ondo/gaizki nago; Sasoi oneko zaude; Sasoi onean zaude; Ziur al zaudete?...* Eta Iparraldean adibide berak emateko *izan* aditzera jo ohi da: *Ongi naiz; Bustia da lurra; Ziur al zara?* eta abar. Bikoiztasun bera gertatzen da adiera existentzialekin ere: *Badago/bada halakorik munduan; Arazo bat egon/izan da goizeko saioan; Bazeuden/baziren ikasle batzuk aretoan*. Jakina, bi tradizioetako erabilerak onartzen dira euskara batu edo estandarrean. Eta horrek ez du esan nahi *egon* Iparraldean erabiltzen ez denik, *egon* erabilera orokorrekoa baita beste zenbait baliotan: ‘leku batean gertatu tarte batean’ (*aste guztian egon da han*); ‘egoera batean gertatu’, adjektiboari *-(r)ik* eranstean zaionean (*tristerik nago; bakarrik zeuden*) eta *negarrez, minez, lotan, zalantzan, gogoetan...* bezalakoekin (*negarrez dago oraindik ere; lotan dago haurra*); partizipioekin, adiera erresultatiboan (*okerturik dago; okertuta dago; okertua da(go)*); aginteran (*zaude hortxe!; egon zaitez geldi pixka batean*). Baina hizkeren arteko desberdintasun horren ondorioz, balio kopulatiboari dagokionez, testuinguru sintaktiko berean batzuetan *izan* aditza aurkituko dugu Iparraldean eta Hegoaldean *egon* aditza.

Beraz, bi aditz hauen balio kopulatiboaz ari garelarik, kontuan izan beharreko puntu nagusia zera da: aditz bakoitza zer motatako predikatuak adierazteko erabiltzen den hizkera bakoitzean, eta egitura kopulatibo horietan parte hartzen duten elementuek zer eragin duten horretan. Bada kontuan izan beharreko bigarren auzi bat ere: hizkeraren eta esanahiaren arabera, atributuak artikulua hartzea noiz duen aukerako, noiz duen nahitaezko, edo noiz duen debekatua. Puntu horiek izan dira euskal gramatiketan gehiena aztertu direnak.

**24.3.2b** Bestalde, *izan* eta *egon* aditzez gain, euskarak badu egitura kopulatiiboak beste era batean eratzeko modua: *Kanpotarra zaitugu, dirudienez; Emaztea gaixo daukat*. Lehena *Kanpotarra zara* esaldiaren pareko izango genuke, eta han bezalaxe *kanpotarra* atributu izango litzateke; desberdintasuna, adibide honetan badagoela *guk* bat, alokutibo izaerakoa. Bigarrena *Nire emaztea gaixo dago* esaldiaren pareko izango litzateke, genitiboaren ordeztu eragatibodun subjektuarekin. Baina bietan ere *\*edun* eta *eduki* aditzak ez lirateke benetako predikatuak izango: loturazko aditzak lirateke, eta *kanpotarra* eta *gaixo* izango genituzke perpaus horietako predikatu nagusiak.

**24.3.2c** Hirugarren multzoa aditz semikopulatiboek osatzen dute. Sarreran esan dugun bezala, aditz batzuk (*ibili, jarraitu, gelditu, jarri...*) beren esanahi semantikoa galduta edo ahulduta erabiltzen ditugu tarteka, aditz kopulatiboen antzeko zeregina betez: *Zuzendaria burumakur dabil aspaldian; Nire alabak gaixo jarraitzen du; Kezkatuta gelditu nintzen hori entzutean*. Adibide horietako aditzek funtsean subjektuarekiko lotura bideratzen dute, eta horrez gain egoeraren aspektuari dagokion informazioa iradokitzen dute (iraupena, aldaketa...), baina aditz horien ohiko esanahi semantikoa (*ibili*: ‘higitze fisikoa’ eta abar) galdua dute. *Burumakur, gaixo* eta *kezkatuta* predikatu nagusiak dira hor, eta atribuzio erlazioa dute subjektuarekiko.

Nolanahi ere, ez da beti erraza zehazten aditz batek zenbateraino galdu duen bere esanahi semantikoa, edo zenbateraino eusten dion esanahi horren muin nagusiari; ñabardura eta xehetasun asko aurkituko ditugu aditzaren eta egitura bakoitzaren arabera, eta horien berri ematen saiatuko gara; batzuetan ez da argia lehen mailako predikazioaren aurrean gauden edo bigarren mailako predikazioaren eredura hurbildu garen. Hiru azpisail nagusitan emango ditugu era honetako egiturak, nagusiki Zabalari (2003) jarraituz: iritzi aditzak (*Mikel azkartzat daukat; Jonek jatorra dirudi; Arriskutsua deritzot zure jarrerari; Lehortea bukatutzat eman dute*), gertaera aditzak (*Mikel gaixo dabil; Hori kaltegarria gertatuko zaigu; Berri horren aurrean kezkatuta agertu dira grebalaria*) eta iraupen eta aldaketa aditzak (*Anek lasai jarraitzen du; Jon gaizki geratu da; Miren pozik jarri da; Ura ardo bihurtu zuen*).

### 24.3.3. *Izan eta egon*

**24.3.3a** Gramatiketan esan ohi da benetako aditz kopulatiboak *izan* eta *egon* direla: esanahi semantikoaren aldetik hutsak dira, eta subjektuaren eta predikatuaren arteko lotura bideratu besterik ez dute egiten, flexioari dagokion informazioa (denbora, aspektua, pertsona, modua) emanez; eta garrantzitsuena dena, ez dituzte beren subjektuak hautatzen, ez diete subjektuei murriztapenik ezartzen. *Izan* eta *egon* aditzak azaltzen diren perpaus kopulatiboetan atribu-

tuak hautatzen du subjektua, eta atributu-subjektu erlaziotik datoz murriztape-nak. Begira diezaiegun honako bikote hauei: *Miren bizkorra da*; \**Betaurrekoak bizkorrak dira*; *Josune lerdena da*; \**Liburua lerdena da*; *Leire goibel dago*; \**Txirindua goibel dago*. Adibide hauetan atributuak (*bizkorra*, *lerdena*, *goibel*) erabakitzen du ezaugarri batzuk dituzten subjektuak onargarriak izango direla, eta beste ezaugarri batzuk dituztenak ezin direla perpaus horren subjektu izan. Atributuaren eskakizunen arabera izaten da subjektua era batekoa edo bestekoa, eta horregatik esan ohi da perpaus kopulatiboetan predikazioaren ardatza atributua dela, ez aditza.

**24.3.3b** *Izan* eta *egon* aditzekin doazen predikatuek sarri *-a* eta *-ak* hartzen dituzte: *Zopa hotza dago*; *Zaldi horiek dotoreak dira*. Morfologiaren aldetik artikuluak, eta haien zeregina subjektuaren eta atributuaren arteko komunztadura markatzea dela dirudi<sup>4</sup>. Eta gorago esan dugun bezala, batzuetan aukerakoa da artikulua hartu edo ez hartu, beste batzuetan nahitaezkoa, eta zenbaite-tan debekatua dago. Atributua artikularekin edo gabe azaltzea, hautatzen den lotura aditzari eta predikatuen izaera eta adierari lotua dago; eta hizkera guztietan gauzak ez dira berdin.

### 24.3.3.1. *Izan*

**24.3.3.1a** Lotura aditza *izan* bada, atributua adjektibo kategoriakoa denean, eskuarki artikularekin erabiltzen da: *Jertse hori merkea da*; *Jertse horiek merkeak dira*. Baina tradizioan batzuetan artikulurik gabe ere azaltzen da: *Jertse hori merke da*; *Jertse horiek merke dira*, bereziki ekialdean, eta antzina edonon: *Ikusteko zen orduan mutiko horren zangoek, patarra gora on baziren, patarra behera zer balio zuten* (J. B. Elizanburu); *Egoki eta bidezko da, zuzen eta osasungarri, Zuri, Jaun guztiz ahaltzu horri [...]*; *Arrunten atseginerako*

---

<sup>4</sup> Elementu horien izaeraz gramatika sortzailearen ikuspegitik analisi desberdinak egin dituzte gramatikariek: Zabalak (1993) numero komunztadura gauzatzen duten morfema soil-tzat hartzen ditu, eta Artiagoitiak (1997) determinatzaile izaera nabarmentzen du.



*baizik egoki ez litzatekeena* (Mirande). Egoera mailako predikatuak ditugunean hizkeren artean desberdintasunak daude: mendebaldean *egon* aditzera sarriago jotzen da (*irakaslea lasai dago*), eta ekialdean *izan* aditza eta artikulurik gabeko atributua dutenak (*irakaslea lasai da*) erabiltzen dira (Orbegozo et al. 2018). Atributu gisa azaltzen den adjektiboa egoera mailako predikatu modura interpretatzeko modukoa ez bada, beti artikularekin azalduko da: *Elkano getarriarra zen* / \**Elkano getariarra zen*; eta oro har, izaera mailako predikatuaren adiera lortu nahi dugunean artikularekin emango dugu: *Josune urduria da*; *Nire alaba lasaia da*. Aldiz, izaera mailako predikatutzat interpretatu ezin diren adjektiboak ditugunean, nahitaez artikulurik gabe azalduko dira: *Hori ikusgai da*; *Hori eginkizun da*, edo hizkerarik gehienetan *egon* aditzaz baliatuko gara: *Hori ikusgai dago*; *Hori eginkizun dago*. Atributua partizipioz osatua bada, espero bezala, artikulua eramaten du beti: *Liburu hori oso ondo idatzia da*; *Arau horiek ondo pentsatuak dira*; \**Nekatuta/nekaturik naiz*<sup>5</sup>.

**24.3.3.1b** Subjektua mendeko perpaus bat denean, eta atributu zereginean doan adjektiboa hari dagokionean, artikularekin nahiz gabe azal daiteke<sup>6</sup>: *Gauza guztiak ongi egitea zail(a) da*; *On(a) da eskolatzea*; *Harrigarri(a) da zein nekez ikasten duten batzuek*. Artikulurik gabeak ekialdean ugariagoak dira mendebaldean baino; eta oro har, artikulurik gabeek hizkera landuaren kutsua dutela dirudi, artikuludun formak baino ‘jasoagoak’ edo ‘ikasiagoak’ balira bezala.

---

<sup>5</sup> Zubereraz azken adibide honen ereduko lekukotasunak badira, baina egungo hizkera estandarrean *izan* aditzarekin *-tua* motakoak erabiltzen dira. Berdin gertatzen da *ukan* aditzarekin ere: *Liburu hori irakurria dut*; \**Liburu hori irakurrita dut*. *-tuta* eta *-turik* daramatenak atributu gisa erabiltzeko *egon* eta *eduki* aditzetara jo behar da: *Nekaturik nago*; *Liburu hori irakurrita daukat*. Jakina, azken bi aditzok ere onartzen dituzte *-tua* motako atributuak: *Nekatuta nago*; *Liburu hori irakurria daukat*.

<sup>6</sup> Adjektiboak aditz batetik eratorriak ez direnean *-ela* menderagailua duten subjektuak debekatua daude. Baina adizetikoetan, jatorrizko aditzak *-ela* menderagailua duten osagarriak onartzen baditu, adjektiboak ere onartuko ditu (de Rijk 2008: 452-454): *Ohargarria da galderak bai, baina erantzunak ez daramala ba-rik* (Mitxelena). Bestalde, zenbaitetan aditzak eta adjektiboak forma bera izaten dute (*ageri, ezagun, nabari*), eta orduan ez dute artikuludun formarik onartzen: *Ageri da engainatu dituela konfesoareak* (Mogel); *Gizon azkarra dela ezagun da* (Labaian); *Nabari zaio ez dela hemengo* (*Euskal Hiztegia*).



Bestalde, badira zenbait adjektibo beti predikatu nagusizat agertzen direnak eta inoiz ez izen sintagma baten barnean (*gai, gauza, aiher, haizu, zilegi, sori, bide...* eta beharbada *komeni, ados* eta *akort* ere hauen artean sartuko genituzke). Horrelakoak beti artikulurik gabe agertzen dira, eta beharbada aditz esapide modura sailka daitezke: *Ez naiz gai zuk diozuna ulertzeko; Ezkontzaren haustea lege da, baina ez zilegi; Ados ginen geure asmo guztietan.*

**24.3.3.1c** Adjektiboen ondoan zenbait osagarri ager daitezke, adjektiboaren esanahia nolabait osatuz. Osagarri hori askotan perpaus osoa izaten da; sarri *-ko* atzizkia daramana, baina inesiboan edo instrumentalean ere azal daiteke: *Egin nahi duzun lana egiteko trebe da gizon hori; Perretxiko guztiak ez dira jateko onak izaten; Ez naiz zure arazoak konpontzeko gai<sup>7</sup>; Liburu hori ulertzen zail(a)/gaitz(a)/erraz(a)/neke da.* Osagarria bestelako postposizio sintagma bat ere izan daiteke: *Ez da apezetako on* (Axular); *Diruz aberats zen baina osasunez behartsu; Elizari hurbil dago Joxeren etxea; Piramideak ondoan zabal eta puntan mehar ziren* (Axular).

**24.3.3.1d** *Izan* aditzarekin izenak ere joan daitezke atributu gisa, nahiz aukera mugatuagoa den: askotan jarduera adierazten duten izenak (lanbideak, karguak, zereginak eta abar) azaltzen dira, eta oro har, zerbait orokorra adierazi eta adjektibo modura edo interpreta daitezkeenak. Predikaziozko adiera duen egitura bada, atributua artikularekin nahiz gabe ager daiteke (*Miren irakaslea da / Miren irakasle da*), nahiz ziurrenera artikuludun adibidea izatera mailako predikatutzat hartzeko joera izango dugun (Mirenen ezaugarri iraunkor bat), eta artikulua gabea egoera mailakotzat (Mirenek betetzen duen zeregin bat). Adibide horretan bertan irakasle izate hori aldi bateko eginkizuntzat mugatzen badugu —izenlagun baten bidez, edo perpausean irakurketa horretara eramango gaituzten beste elementu batzuk erantsiz— (*Iñaki euskarako irakasle da Lekeitioko ikastolan*), artikulurik gabe errazago emango dugu, ‘irakasle ari da’ esan nahi bagenu bezala; aldiz, *irakasle* izenari adjektibo bat eransten badiogu (*Iñaki irakasle zorrotza da*), artikulua eta guzti emango dugu,

<sup>7</sup> Adjektibo hauetariko zenbait beti osagarriarekin erabiltzen dira. Adibidez, *gai* beti ‘zerbaitetako gai’ da, eta *pare* dugunean ‘zerbaiten pare’ izaten da beti.

Iñakiren berezko ezaugarri iraunkor bat adierazi nahian bezala. Hona jarraian atributu zereginean artikulurik gabeko izena dakarten adibide batzuk, Agirre Asteasukoarenetik bilduak: *Ni naiz testigu, eta [...] ni nerau naiz juez; Ez nekien bekatu zirela; Zeru horiek jaunaren bizilekuaren atari besterik ez dira; Zen [...] lurreko gauza guztien jaun eta jabe.*

Bestalde, *izan* aditza eta izenak erabiliz identifikazioa adierazi nahi badugu, bi elementuak berdindu eta egitura ekuatiboa sortuz, artikuludun adibideak erabiliko ditugu: *Arazoa gurasoak dira; Donostia Gipuzkoako hiriburua da; Andoni atzo ikusi genuen mutila da; Gure irakaslea Marta da.*

**24.3.3.1e** Izen batzuek (*egia, gezurra* eta abar) onartzen dute subjektua mendeko perpausa izatea: *Egia al da inoiz zizparekin irten eta ia garbitu zintuela?* (X. Amuriza); *Gezurra da Frantziako erregea urzalea dela.* Horrelakoetan izena artikuluekin azaltzen da (de Rijk 2008: 452-454).

**24.3.3.1f** Zenbait izen adjektibo modura erabiltzen ahal ditugu: *beldur, gose, haserre, ahalke, lotsa, ikara, egarri, hotz, bero...* Oro har, inoren egoera, barnekoa nahiz kanpoko, adierazten duten izen adjektibatuak izango lirateke, eta atributu modura ematean artikulurik gabe azaltzen dira: *Nire txakurra gose zen; Haserre da gure mutila; Ahalke naiz zuk diozuna egiteko.* Baina kontuan izan behar da atributu modura izen gutxi batzuk bakarrik ager daitezkeela, eta gehienak debekaturik daudela (*\*hori liburu da*), identifikaziozko adieran edo definizioetan ez bada.

### 24.3.3.2. Egon

**24.3.3.2a** *Egon* lotura aditza testuinguru gehiagotan erabiltzen da Hegoaldean Iparraldean baino (§ 24.3.2). Sarri adjektiboekin joaten da, eta adjektibo askorekin artikuluekin (*kafea beroa dago; Miren gaztea dago; gizena zaude; zerua beltza dago*) nahiz artikulurik gabe (*kafea bero dago; Miren gazte dago; gizen zaude; zerua beltz dago*) ager daiteke. EIMArean arabera, “Tradizio biak dabilta lehian. Eredu zaharra mugagabearen aldekoa da, nahiz eta erdialdeko euskalkietako oraingo erabileran mugatua erabat nagusitu” (*Kalko Okerrak*, 28). Nolanahi ere, zenbait adjektiborekin aukera bakarra artikulurik gabea da:

*Josune urduri dago; Ikaslea lasai dago azterketaren aurrean; Aitona gaixo dago.* Bestalde, izenak agertzen direnean aukera bakarra artikulurik gabeko adibideak dira: *Neskame egon zen hiru urtez Iñaxi; Iñaki irakasle dago ikas-tolan; Miren zuzendari dago Petronorren.*

**24.3.3.2b** Kasu berezi bat *beldurrak egon, goseak/egarriak egon, hotzak/be-roak egon, minak egon; txizagurak egon* bezalakoek dakarte: *Bero harekin ega-rriak geunden guztiok; Minak egotea azkenekoa da.* Atributu modura izen bat doa, eta morfologikoki ergatibo singularrean azaltzen da; berdin dio subjektua pluralekoa den edo ez (*ni hotzak nago; gu hotzak gaude*). Egoera psikologikoak edo fisikoak adierazten dituzten predikatuak izaten dira, eta interpretazioaren aldetik egoera mailako predikazioa adierazten dute. Nolanahi ere, molde hau une honetan ez da guztiz emankorra ez erregularra: hitz gutxi batzuetara mu-gatzen da, eta teoriarantz ezaugarriak lituzketen beste batzuekin ez da era-biltzen (*\*tristurak nago; \*penak nago; \*gorrotoak nago*); are gutxiago egoera ‘positiboak’ adierazten dituztenekin (*\*maitasunak nago; \*pozak nago*).

**24.3.3.2c** Adberbioak ere sarri agertzen dira era honetako predikazio egitu-retan: *Haurra isilik dago; Amona gaixorik dago; Gustura nago zurekin; Gezu-rra esatea ez dago ondo; Pozik nago.* Guztiak ere egoera mailako predikatu gisa interpretatzen dira. Baina nabarmendu behar da adberbioidun egiturak *izan* loturazko aditzarekin ere ager daitezkeela, nahiz aukerak murrizagoak diren: *Etxean ondo gara; Gustura izango zara?; Gure amona ondo da; Opo-rrak hurbil direlarik, haurrak pozik izango dira*<sup>8</sup>.

**24.3.3.2d** Adberbioak bezala, postposizio sintagmak ere aurkituko ditugu: *Haurra negarrez dago; Umore onean dago gaur amona; Adorerik gabe nago; Izeba buruko minez dago aspaldian; Gure gizartea noraezean dago.*

**24.3.3.2e** *Egon* aditz kopulatiboarekin sarritan agertzen dira oinarrian partizipioa duten egiturak, *-tuta* eta *-turik* formak hartuz: *Aspertuta nago; Korri-kaldiaren ondoren nekaturik nago; Lotsaturik zegoen; Gizartearen norabi-deaz kezkatuta gaude.* Baina partizipiodun adibide hauek berak artikularekin

<sup>8</sup> *-ik* atzizkia duten adberbioekin bereziki zubereraz azaltzen dira horrelako egiturak.

ere eman daitezke, *-tua* forman: *Aspertua nago; Nekatua nago; Lotsatua zegoen; Kezkatuak gaude*.

**24.3.3.2f** Adberbioa/PS/adjektiboa + *egon* aditzarekin osatutako egitura batzuetan predikatu konplexuen eta egitura predikatiboen arteko muga ez da beti argia izaten. Horrela, *argi egon* (*argi dago gai hau labainkorra dela*) edo *garbi egon* (*garbi dago ez duzula lanik egin*) predikatu konplexutzat hartu behar ko lirateke (§ 23.2.1.3.5). Baina *adi egon* (*Josune adi egoten da klasean; gobernu adi dago, zer gertatuko*), *oker egon* (*oker daude arazoa erraz konponduko dela diotenak*) edo *zain egon* (*erantzunaren zain daude langileak*) gertuago daude predikazio egituren ezaugarrietatik. Gauza bera gertatzen da oinarritzat beste aditz batzuk hartuz inoiz predikatu konplexutzat hartu izan diren zenbait egiturarekin ere (*adi ibili, argi ibili, bila ibili, eske ibili, eske etorri, oker ibili* eta abar): adjektiboa edo adberbioa subjektuaz predikatzen den ezaugarritzat har daiteke.

**24.3.3.2g** Badira, azkenik, zenbait esapide, atribuziozkotzat hartu beharrekoak, eta *egon* eta *izan* aditzekin eta mugagabeen joan ohi den predikatu batekin sortzen direnak (*on izan, libre izan, hobe izan, berdín izan, neke izan, harrigarri/harritzeko izan, zail izan, zilegi izan, bare egon, hotz egon* eta abar): *Eta on zatekeiela, gauza hunetzaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea* (Axular); *Jaio naiz libre izateko, eta ez loturik egoteko; Itsasoa bare dago; Gaur hotz dago; Zilegi da soldata igoera nahi izatea*. Nolanahi ere, hauen arteko batzuk artikuluekin ere azal daitezke: artikulurik gabeko moldea Iparraldean eta Nafarroako ekialdean (*izan*) da erabiliagoa, eta artikulua daraman formak baino molde jasoagoaren, landuagoaren itxura du. Mendebaldean, maizago erabili izan dira eta erabiltzen dira mugatzailedunak.

#### 24.3.4. *Ukan* eta *eduki* erabiliz osatutako egitura kopulatiboak

**24.3.4a** Egitura kopulatiboak gehienetan *izan* eta *egon* aditz intrantsitiboenkin gauzatzen dira. Baina euskaraz bada aukera *ukan* eta *eduki* aditz trantsiti-

boekin egitura kopulatiboak osatzeko eta predikatuaren eta subjektuaren arteko lotura bideratzeko, zenbaitetan egitatezko lotura dena eta beste batzuetan psikologikoa-edo baizik ez: *Urte erdia joana dugu*; *Berri hori nik asmatua duzu*; *Oheak eginda/eginak dauzkagu*; *Asperturik dauzkazu lagunak*; *Emaztea triste dut/daukat*; *Lan handiak dituzu horiek*. Formaz badirudi bigarren mailako predikazioa dagoela esaldi horietan, hau da, objektuari begirako osagarri predikatiboak direla azpimarratutako sintagmak —*guk* subjektua, lehen adibidean, *urte erdia* objektua, eta *joana* azken honi begirako osagarri predikatiboa—, baina, funtsean, horietako aditz nagusiek ere eduki semantiko jakin bat adierazi baino areago subjektu-predikatuen arteko lotura bideratzea dute helburu; hots, balio kopulatiboa dute. Lehenbizikoa, esate baterako, *Urte erdia joana da* esaldiaren parekoa da; eta *Oheak eginda/eginak daude* esan nahi du hirugarren adibideko esaldiak. Esaldi kopulatibo horien eta *eduki* aditzaren esanahia gordetzen dutenen aldea ikus daiteke, aurreko adibidekoak honako beste honekin alderatuta: *Diru asko daukate horiek iruzurrez beretua*; *eduki* aditzak bere esanahia gordea du azken honetan, eta *iruzurrez beretua* predikatua *diru asko* objektuari begirako osagarri predikatiboa da, bigarren mailako predikatua.

**24.3.4b** Bi molde edo jatorritakoak izan daitezke egitura hauek. Batetik, nolabaiteko alokutibotasunaren esparruko adibideak ditugu: *Herri hori Hondarribia dugu*; *Aitor legazpiarra dugu*; *Liburu hori nik idatzia duzu*; *Nolakoa dugu hori?*; *Horretan Don Abraham ez duzu bat ere zeken* (Labaien). Subjektu gramatikal gisa azaltzen diren *zu* eta *gu* horiek alokutiboari dagozkio, ez dira benetan aditzak eskatutako argumentuak: lehenengo adibidean, ez da esan nahi ‘guk zerbait dugula’, ezta bigarrenean ‘guk Aitor dugula’ ere; adibide hauetako \**edun* aditza ez da bere ohiko esanahiarekin azaltzen, baizik eta lotura aditz gisa, absolutiboan doan ‘objektua’ eta dagokion predikatua lotuz. Eta alokutiboarekin lotura duten guztietan bezala, elkarrizketetan erabiltzen dira gehiena horrelakoak, eta ‘subjektua’ ezin da 3. pertsonakoa izan. Balioari dagokionez, lehen adibidean identifikazioa bideratzen da [herri hori – Hondarribia], egitura ekuatiboa sortuz; bigarrenean [Aitor – legazpiarra] eta hirugarrenean [liburu hori – nik idatzia] ezaugarriak ematen dira aditzera, interpretazio predikatiboarekin.

**24.3.4c** Beste aldetik, genitiboaren balioko edo ordezko moldearen arabera sortutakoak ditugu: *Josu anaia du*; *Ane nagusia dugu lantokian*; *Horko hori du autoa*; *Eskuak bero ditut*; *Txirrinduko gorpila zulatua duzu*; *Andrea leizarra du* (Uztapide); *Izpiritua goibel du eta bihotza ere* (Hiribarren). Hauen parekoak genituzke: *Josu nire anaia da*; *Ane gure nagusia da lantokian*; *Horko hori nire autoa da*; *Nire eskuak bero daude*; *Zure txirrinduko gorpila zulatua dago* eta abar. Euskarak bai baitu aukera jabetza genitiboaren bidez ez ezik, aditzaren argumentu egituraren bidez adierazteko. Alegia, \**edun* edo *eduki* duten adibideetako subjektua, *izan* eta *egon* duten adibideetan azaltzen den genitiboaren pareko da; eta alokutiboarekin lotutakoetan ez bezala, ez dago debekurik subjektu —edo genitibo— izan daitezkeen pertsonen aldetik. Eta berriro ere \**edun* eta *eduki* —azken hau mendebaldean— ez dira beren ohiko eduki semantikoarekin azaltzen: *Eskuak bero ditut* esaten dugunean, ez dugu adierazi nahi ‘zerbait dugula’; edo *Txirrinduko gorpila zulatua dut* diogunean, ez dugu esan nahi ‘txirrinduko gorpila dudala’; lotura aditzak dira hauetan \**edun* eta *eduki*, eta ‘objektu’ modura absolutiboan doan elementuari buruzko lehen mailako predikazioa bideratzen dute: [eskuak – bero] eta [gorpila – zulatuta]. Predikatu nagusia ager daiteke artikuluairekin edo artikulurik gabe, aurreko ataltxoetan azaldu diren joerei eta baldintzei jarraituz.

Gauzatzen den predikazioaren balioari dagokionez, aukera guztiak ditugu: identifikazioa adierazi, edo predikazioa adierazi (bai izaera mailakoa, bai egoera mailakoa). Nolanahi ere, argumentu egituraren bidez ezin dira eman genitiboarekin adierazi daitezkeen jabetza mota guztiak<sup>9</sup>. Argumentu egituraren bidez emateko, izaera mailako predikazioa dagoenean, jabetzak oinarrizkoa (*eskuak bero ditut/dauzkat*) edo ‘mundu pertsonalekoa’ izan behar du, zentzu zabalean: familia harremanak (*Peru eta Maren lehengusu(ak) ditugu*), harreman pertsonalak (*Asier lagun(a) duzu, ezta?*), lanbideari lotuak (*Elena lankide(a) dut*), familiaren objektuak (*horko hori dugu autoa; ohea bero dut/daukat*), osotasuna/zatia harremana dutenak (*aretoak hori du larrialdietarako irteera*).

---

<sup>9</sup> Analisi zehatzagorako, ikus Etxepare 2003.

**24.3.4d** Beste batzuetan zehazten erraza ez den nolabaiteko “lotura” egoten da azpian. Begira honako adibide hauei: *Hurbil duzu; Itsasoa urrun daukat; Hotel hori garestiegia dugu*. Lehen adibidearen parean legoke ‘hurbil da/dago zugar-dik’; bigarrenean ere ‘nigandik’ edo ‘ni bizi naizen lekutik’ egongo litzateke pa-rean; hirugarrenaren adiera berekoa genuke *Hotel hori garestiegia da guretzat*.

**24.3.4e** \**edun* eta *eduki* aditzak erabiliz osatzen diren egitura kopulatiboetan, predikatua partizipioaren gainean eraikitako mendeko perpausa ere izan daiteke: *Mende erdia joana dugu; Begiak nahigabez lausotuak ditut; Lanak amaituak al dituzu?; Autoa konpondua dut; Bihotza nahigabetuta daukagu; Kontu horiek lehen ere entzunak dauzkat; Eskuak izoztuta zeuzkan*. Horrela-koetan kasuistika zabala aurki dezakegu azal daitezkeen elementuei, komunz-tadurari edo interpretazioei dagokienez (ikus de Rijk 2008: 677-681).

### 24.3.5. Aditz eta egitura semikopulatiboak

#### 24.3.5.1. Askotariko aditz eta egiturak

**24.3.5.1a** Multzo zabal eta heterogeneo honetan askotariko aditzak eta egi-turak biltzen dira. Guztiek ere komunean dute aditzak bere eduki semantikoa neurri handian galdua duela, edo ohiko esanahitik bestelakoa den adiera ba-tean erabiltzen dela; batzuetan aspektuari buruzko informazioaz gain gutxi gehiago eskaintzen dute (*Josuk triste jarraitzen du*), baina beste batzuetan no-labaiteko nozio semantiko orokorrak ere adierazten dira (iritzia, aldaketa eta abar). Guztietan ere izenki predikatua nahitaezko elementua da, eta hura gabe adibideak okerrak izaten dira edo aditzari beste adiera bat ematen diogu. Pre-dikatu nagusi gisa jokutzen duen izenki predikatu hori marka desberdinez hor-nitua joan daiteke (absolutiboa, prolatiboa), eta dagokion subjektuak ere marka desberdinak har ditzake perpausuan (absolutiboa, ergatiboa, datiboa), egitura semikopulatibo deitu ditugun hauen artean molde desberdinak eratuz.

**24.3.5.1b** Nolabait esateko, *erromatarrak garaiezintzat hartzen zituzten* edo *denboraldia amaitutzat eman dute* esaten dugunean, *hartu* eta *eman* aditzak



beren ohiko adieratik urrunduta azaltzen zaizkigu; zerikusi gutxi dute *zapatak hartu ditugu* edo *dirua eman digute* adibideetako *hartu* eta *eman* aditzekin; eta egitura kopulatiboetara hurbiltzen dituen adiera berezi hori prolatiboa hartzen dutenean bakarrik izaten dugu; prolatiborik gabe adibide horiek okerrak izango genituzke, edo beste esanahi bat izango lukete *hartu* eta *eman* aditzek. Baina eduki semantikoari dagokionez, sarreran semikopulatiboen sailean aurkeztu ditugun *ibili* (*Nekane triste dabil*) edo *jarraitu* (*Josuk gaixo jarraitzen du*) bezalako aditzetatik aldenduz, aspektuari buruzko alderdiak (egoeraren hasiera edo aldaketa, iraupena edo amaiera) baino askoz ‘eduki’ gehiago ematen dute: ‘norbaiti buruzko X iritzia, ustea edo irudipena izan’ edo horrelako zerbait adierazten dute, eta alde horretatik, bigarren mailako predikaziora hurbiltzen dira. Honetan, bada, multzoaren heterogeneotasuna. Eta egoera horrek izan du isla egitura hauen berri emateko egin diren azterketetan: gramatikariek sailkapen desberdinak proposatu izan dituzte, eta guztiek ez dute lehen eta bigarren mailako predikazioa bereizten duen marra leku berean jarri (Zabala 1993; Demonte eta Masullo 1999; Zabala 2003; RAE 2010); batzuek irizpide batzuei eman diete lehentasuna, eta besteek bestelako irizpideen arabera egin dute banaketa.

Era honetako egiturak eta aditzak aurkezteko unean Zabalaren (2003) sailkapenari jarraituko diogu nagusiki, eta garrantzi handiagoa emango diogu egitura bakoitzaren ezaugarriak deskribatzeari, sailkapen jakin bat edo beste proposatzeari baino.

#### 24.3.5.2. Iritzi aditzak

**24.3.5.2a** Predikazioaren subjektuak daraman markaren arabera, hiru sail nagusi bereiziko ditugu.

Batzuetan izenki predikazioaren subjektua absolutiboan azaltzen da, eta predikatu nagusiak *-tzat* prolatibo marka eramaten du: *Guk Ane futbolari saiatu-tzat daukagu*. Alegia: perpausaren subjektua ergatiboan doa (*guk*); predikatu nagusiak *-tzat* marka darama (*futbolari saiatutzat*); predikatuaren subjektua



absolutiboan doa eta perpausaren osagarri zuzena da (*Ane*). Egitura hauetan, egia direlako aurre suposiziorik gabe predikatzen diren ustezko atribuzioak azaltzen dira; aurreko adibidean *Aneri* ‘futbolari saiatuaren’ ezaugarria egotzen diogu, baina ez dago egia delako aurre suposiziorik. Molde hori agertzen dute *hartu*, *eduki*, *jo* eta *eman* aditzek, adiera hau dutenean (‘x direla pentsatu’, ‘x ezaugarria egotzi’). Nabarmena da, beraz, egitura hauetako aditzek ‘aspektuari buruzko informazioa’ baino askoz gehiago ematen dutela. Gramatika lan batzuetan (Demonte eta Masullo 1999; RAE 2010) horrelakoen parekoak bigarren mailako predikazioaren barnean sartu ohi dira.

*Hartu*, *eduki*, *jo* eta *ukan* aditzekin izaera mailako nahiz egoera mailako predikatuak ager daitezke. Askotan izaeraren ezaugarriak edo ezaugarri iraunkorrak adierazten dituzten adjektiboak azaltzen dira predikatu gisa, baina izenak, izen sintagmak eta partizipioak ere azal daitezke. Hona zenbait adibide: *Hartu*: *Arerioak inozotzat hartzea arriskutsua da*; *Ez ezazu zeure burua hain jakintsutzat hartu*; *Euskal Herriko kantarien lana patxangatzat hartzen zen (Berria)*; *Hasieran dantzarisatzat hartu nuen, gero cocotte-tzat (J. A. Arrieta)*; *Gaizkiletzat hartu ninduten poliziek<sup>10</sup>*. *Eduki*: *Informatikariak azkartzat dauzkagu*; *Ane emakume umiltzat daukagu*; *Jon ez neukan langiletzat, baina konturatu naiz oker nengoela*; *Ezin zuen ulertu berak trapuzartzat zeukana inoren maindire izan zitekeenik (Lertxundi)*; *Beren burua objektu literario hutstzat daukate (Arkotxa)*. *Jo*: *Kaletarrek sarritan jo izan dituzte baserriarrak tontotzat*; *Euskalduntzat jo nuen gizon hura hasieran*; *Partida dagoeneko galdutzat jo dugu*; *Turkiarra ez balitz, ez zenuke erruduntzat joko (Goenkale)*. *Ukan*: *Hark gu ezdeustzat gintuen*; *Beren burua kale borrokalaritzat zuten (Berria)*; *Jende askok eta askok gazte bihurri gutxi batzuen ghettotzat*

<sup>10</sup> -tzat prolatiboa izenari eransten zaionean batzuetan bi irakurketa dira posible. Adibidez, *Erregetzat hartu ninduten gizon haiek dugularik, uler dezakegu ‘errege nintzela pentsatu zuten’*, nolabaiteko iritzia edo balorazioa adieraziz, edo uler dezakegu ‘errege izateko hartu ninduten / errege egin ninduten’, objektuak (*ni*) kanpotik eragindako egoera edo estatus aldaketa bat izan duela azalduz (ikus 19., 20. eta 21. kapituluak). Lehenengo irakurketako adiera dagokio predikatu nagusi izaerari.

*zuen Gaztetxea (Berria); Nazioarteak erakunde palestinarra talde terrorista-tzat duen arren, ez da hala Errusiarentzat (Berria).*

*Eman* aditzarekin *-tzat* postposizioa gehienetan partizipioari eransten zaio: *Krisia amaitutzat eman zuen gobernuak; Zure zorra kitatutzat ematen dut; Zumaia jaitsitzat ematen dute urtero garai honetan arraun munduan (Berria)*. Baina bestelako elementuekin ere ager daiteke: *Ontzat ematen dugu zure iritzia; Bere arimaz grinatzen ez dena emazu zorotzat (Lafitte); Euskal nortasun agiria baliagarritzat eman dezala eskatu dio BBKri (Argia)*. Bada aurrekoekiko (*hartu, eduki, jo*) desberdintasun bat: *eman* duten adibideetan subjektuaren nolabaiteko borondatea azaltzen da, eta subjektu horrek asmo osoz ezartzen dizkio ezaugarri batzuk perpausaren objektuari —lehen mailako predikatuaren subjektuari—. Alegia, lehenengo adibidean (*Krisia amaitutzat eman zuen gobernuak*), ulertzen da gobernu dela krisia amaitutzat ematea erabaki duena, krisiari ezaugarri hori ezartzen diona, edo ezarri nahi diona. Eta horren ondorioz, *eman* aditzarekin azaltzen diren predikatuek semantiko-ki ezaugarri horrekin bateragarriak izan behar dute; adibidez, ezin dira esan *\*Jon tristetzat eman dugu* edo *\*Ane futbolari saiatutzat eman dugu*, ‘triste izatea’ edo ‘futbolari saiatua izatea’ ez baitira subjektu batek nolabaiteko borondatez ezartzeko moduko ezaugarriak; aldiz, ‘zerbait amaitutzat ematea’ bada era horretako ezaugarria.

**24.3.5.2b** Iritzi aditzekin beste batzuetan predikazioaren subjektua ergatiboan azaldu ohi da. Hori gertatzen da, adibidez, *iruditu* aditzaren erabilera sintetikoan (*dirudi*), *iduri du*, *ematen du*, *iritzi (deritzo...)* aditzekin<sup>11</sup>. *Iruditu* forma sintetikoan doanean subjektua ergatiboan azaltzen da, eta hari buruzkoa izaten da predikazioa (*erizain horrek atsegina dirudi*). Lehen mailako predikatuari dagokionez aukera desberdinak daude, baina gehienetan izen sintagma edo perpausak izaten dira. Predikatua izen sintagma denean osae-ra desberdinak aurkituko ditugu, eta hizkera gehienetan artikularekin eta

---

<sup>11</sup> *Dirudi*, *iduri du* eta *ematen du* aditzek ez diote subjektuari paper tematikorik ezartzen, eta predikatuaren subjektuak hartu ohi du leku hori. Azterketa sintaktiko zehatzagorako ikus Zabala 1993: 238-248.

subjektuarekin komunztadura eginez azaltzen dira, baina ez beti. Mendeko perpausen artean, *-ela* menderagailua daramatenak dira ohikoenak. Hona adibide batzuk: *Lan horrek ez dirudi oso zaila; Leirek neska zoragarria zirudien; Gizon horiek gaizkileak dirudite; Bekatoreak ere kanpotik dirudi alegera* (Axular); *Zuk zintzoa zarela dirudizu; Zail dirudi horrek; Aberatsa dirudizu; Aberatsa zarela dirudizu.*

Molde berari jarraitzen diote *iduri du* motako adibideek, eta nagusiki ekialdeko euskalkietan erabiltzen dira: *Arbolen adarrek hilak iduri zuten; Zezen bat iduri duen behia* (Euskaltzaindiaren Hiztegia); *Xede horiek frango onak iduri dute* (Herria); *Ez zuen iduri hain bero* (Herria); *Auzapezak ere arras deliberratua irudi du* (Herria); *Europak iduri du arras osagarri onean dagoela* (Herria); *Iduri zuen hastean baino hobeki zegoela* (Herria); *Iduri luke azken gertakari ilunetarik landa, gauzak oraino okerrago diren!* (Herria). Predikatu gisa izen sintagmak ditugunean artikulurik gabe agertzea da ohikoena<sup>12</sup>.

*Eman* aditzarekin osatzen direnetan *-tzen* aspektu marka erantsi ohi da beti (*ematen du*), eta gehiago agertzen da mendebaldeko testuetan: *Neska bizkorra ematen du Maialenek; Mutil hark Josu ematen du* ('Josuren itxura du'); *Kanpotarra ematen duzu; Hiltegira daramaten txekorra ematen dut* (Alonso); *Aldagaitza ematen zuen esaerak, bat-batean, beste interpretazio bat eskaintzen du* (Alonso); *Ez ditut inondik ezagutzen, baina oso jatorrak ematen dute* (Arretxe); *Etxe Zuriak oso gauza gutxi ematen zuen kanpotik* (Cano); *Baldarrago ematen zuten orain* (Epaltza); *Arinegi joan dela ematen du kontu horrek* (Herria); *Bere lana artoski eremaki duela ematen du* (Herria).

<sup>12</sup> *Iruditul/iduritu* aditza datiboarekin doanean (*zaila iruditzen zait lan hori; mutil jatorra iruditzen zaigu Kepa*) subjektua (*lan hori, Kepa*) absolutiboan agertu ohi da, eta predikatuak gehienetan artikulua darama, baina bestelako adibideak ere aurki daitezke: *Nori berea iruditzen baitzaio hoberenik eta ederrenik* (Axular); *Erraz irudituko zaizu* (Axular). Nolanahi ere, horrelakoetan atribuzioa ez da hain era zuzenean egiten, eta datiboan doan sintagmaren go-goetari garrantzi handiagoa ematen zaio, aditzaren eduki semantikoa indartuz. Gramatikarien artean eztabaidagai da horrelako kasuetako predikatuak (goiko adibideetan, *zaila* eta *mutil jatorra*) predikatu nagusitzat hartu behar diren edo ez.

**24.3.5.2c** *Iritzi* aditza forma sintetikoan (*deritzot, deritzozu...*) agertzen denean, predikazioaren subjektua datiboan joaten da, eta predikatu nagusia artikularekin nahiz artikulurik gabe ager daiteke (*txalogarri(a) deritzot iruzurra salatu dutenen jarrerari*), edo adberbioa izan daiteke (*gaizki deritzot zure erabakiari*). Hona adibide batzuk: *Fenomeno horri lotsagarri deritzat* (Argia); *Familien biltzerako DNA azterketa legeari ongi deritzot* (Borda); *Aspergarria deritzot hainbat gairi buruz hitz egiteari edo idazteari* (J. L. Zabala); *Bidezko deritzot dagoeneko esateari: hegazkin frantsesa zen.* (J. A. Arrieta).

### 24.3.5.3. Gertaera aditzak

**24.3.5.3a** Gertaera aditzek denboraren aldetik hasiera eta amaiera jakina izaten dute. Gutxi batzuk (*ibili, azaldu, agertu, gertatu...*) egitura semikopulatiboetan azal daitezke, betiere egoera mailako predikatuekin.

Gertaera aditzen artean, *ibili* aditza da adiera semikopulatiboarekin sarriena erabiltzen dena, eta predikatu nagusiaren kategoriari dagokionez aukera gehiena ematen dituen: *Gaixo/urdu dabil Manex; Naroa artzain ibili zen Idahon; Seme-alabekin ezinean gabiltza; Nekaturik/etsita ibili naiz; Nora joan ez dakiela dabil Maria*. Ohart gaitezen artikuludun atributurik ez dela agertzen. Oro har izenki predikatuak *egon* aditzarekin azaltzen direnen antzekoak izaten dira, eta egoera mailako predikatu modura interpretatzen dira (*\*Jon beltzarran dabil*); baina aspektuaren eta edukiaren aldetiko desberdintasunengatik, zenbait ezaugarritan *egon* aditzetik desberdin jokatzen du: subjektuek nolabaiteko egiletasuna edo esperimentatzailetasuna azaltzeko modukoak izan behar dute, ‘bizidun ezaugarri hedatu bat’ izan lezaketinak (*alaba aspaldian burumakur dabil; gure enpresa aspaldian ez dabil ondo; \*liburua aspaldian ez dabil ondo; \*aulkia apurtuta dabil*), eta izenki predikatuaren subjektuak ezin du ‘gai’ paper tematikoa izan (*\*Jon lodi dabil*).

**24.3.5.3b** *Azaldu, agertu, ageri, gertatu* eta *suertatu* aditzek ere *ibili*-ren oso antzeko ezaugarriak azaltzen dituzte, eta sarritan *egon* aditza erabiltzen den tesuinguru beretan agertzen dira, baina askoz predikatu gutxiagorekin aurkitzen

ditugu. Hona *agertu* eta *azaldu* aditzekin osatutako egitura semikopulatibo batzuk: *Langileak haserre agertu dira soldata murrizketen aurrean; Ikasleak proiektu horrekin interesaturik azaldu dira; Edozertan laguntzeko prest azaldu naiz, baina ez didate kasurik egin*. Hauen nahiko parekoak dira ‘langileak haserre egotea’, ‘ikasleak proiektuarekin interesaturik egotea’ edo ‘edozertan laguntzeko prest egotea’, baina *azaldu* eta *agertu* aditzak erabiltzean, une bateko jarduera modura azaltzen ditugu, ekintza kutsu handiagoz; *ibili* aditzarekin, aldiz, izenki predikatuak adierazten duen ezaugarria une jakin bateko jarduera baino areago, denboran luzatzen ari den egoera modura aurkezten da.

*Gertatu* eta *suertatu* aditzek *da* edo *zaio* erako laguntzailea izaten dute, eta predikatuak artikuluekin nahiz artikulurik gabe ager daitezke: *Hori kaltegarria gertatuko zaigu; Uste baino zailagoa suertatuko zaigu; Batzuetan ahaleginak ustelak suertatzen dira; Zure laguntza nahitaezko gertatu zitzaigun arazoa konpontzeko*. Hauen hurbilekoak dira ‘hori kaltegarria izatea’, ‘uste baino zailagoa izatea’ edo ‘ahaleginak ustelak izatea’. Baina *gertatu* eta *suertatu* aditzekin une bateko gertakaritzat aurkezten ditugu. Aldiz, *izan* aditza erabiltzen denean, denboratik kanpora dauden ezaugarri abstraktutzat hartzen ditugu. Adiera erresultatiboa lortzen da. Aditz hauekin erabiltzen diren izenki predikatuek egoera mailako irakurketa izan ohi dute, eta berez izaera mailako predikatu gisa erabili ohi diren adjektiboak *gertatu* eta *suertatu* aditzekin doazenean egoera mailako predikatu modura interpretatu ohi dira: *Substantzia hori ez da kaltegarria, baina Mikeli kaltegarri gertatu zaio* (Zabala 2003: 443).

#### 24.3.5.4. Aldaketa eta iraupen aditzak

**24.3.5.4a** Iraupena adierazten duten aditzen artean ditugu *iraun*, *jarraitu* eta *segi*. Egoera mailakotzat hartzen diren predikatuekin erabiltzen dira, eta alde horretatik parekotasun handia dute *egon* aditzarekin, baina hemen egoera hori lehendik datorrela eta horrela dirauela iradokitzen da. Katgoria desberdineta-ko predikatuekin ager daitezke eta artikulua agertzea debekatuta dago, partizipioekin ez bada: *Errepideak moztuta/moztua jarraitzen du; Egoerak berdin dirau; Gaixoak minez segitzen zuen, eta medikuari deitu zioten; Zuzendariak*

*burumakur jarraitzen du; Garazik zuzendari jarraitzen du.* Adibideetan ikusten den bezala, predikazioaren subjektua ergatiboan joaten da.

**24.3.5.4b** Aldaketa adierazten duten aditzen artean bi multzo bereiziko ditugu: egoera mailako predikatuak hartzen dituztenak eta izaera mailako predikatuekin agertzen direnak.

Egoera mailako predikatuak hartzen dituzte *jarri, ipini, gelditu, geratu* eta *utzi* aditzek. *Jarri* eta *ipini* aditzek pertsonaren osasuna, gorputzaren itxura edo postura eta gogoaren egoera adierazten duten adjektiboak edo adberbioak hartu ohi dituzte gehienetan: *Berri ona entzutean pozik jarri dira etxeakoak; Gorri-gorri ipini zen Peru jendaurrean hitz egiteko unean; June gaixo jarri da; Urduri jarri nintzen maitearen aurrean; Zutik ipini zen Miren; Etzanda jarri ginen.* *Gelditu* eta *geratu* aditzek aldaketaren —edo egoera aintzat hartzearen— ondorengo egoeraren hasiera adierazten dute, eta egoera horrek nolabaiteko iraupena baduela iradokitzen dute. Mota desberdinetako predikatuak har ditzakete: *Ebakuntzaren ondoren ahul gelditu da; Herren gelditu zen istripuaren ondoren; Guztiak pozik geratu ziren; Harri eta zur geratu ginen albistea entzutean; Lasterketaren ondoren ahulduta/ahuldua gelditu zen Txomin; Maialen gelditu da zuzendari.* *Utzi* aditzak ere aldaketa eta nolabaiteko iraupena ematen ditu aditzera: *Azken albistEEK lur jota utzi naute.*

Izaera mailako predikatuak hartzen dituzten aldaketa aditzen artean daude *bihurtu* eta *bilakatu*. Batzuetan bat-batekotzat hartu nahi diren aldaketak adierazten dituzte (*zakuko gaztainak urre bihurtu ziren*), baina epe luzeagoko aldaketak ere agertzen dira (*ikasle zuena pixkanaka lankide eta are irakasle bihurtu zitzaion*). Askotan artikulurik gabeko izenak hartzen dituzte predikatu modura: *Profetak ura ardo bihurtu zuen; Ipuineko printzea igel bihurtu zen.* Hori da izen soilekin euskara baturako gomendatzen den moldea. Baina izen horrek adjektibo, izenlagun, perpaus erlatibo edo halako osagarriren bat darmanean artikulua ere onartzen da, eta batzuetan nahitaezkoa da: *Haur hura gazte lerd(a) bilakatu zen; Emakumerik ederrena bihurtu zen; Gazte saiatu hura gizon jakintsu(a) bihurtu zen urteen joanarekin; Lehen eskuzabal eta irribarretsu zena, zikoitz eta goibel bihurtu zen; Borroka bi anaien artekoa*

*bihurtu zen; Ornament ederrenetarik bat bihurtu zen.* Jakina, predikatu gisa doan izena inesiboan daramaten adibideak (\**ametsa topiko batean bihurtu zen; \*gizona munstro batean bihurtu da*) baztertu beharrekoak dira euskara baturako (ikus honetaz Euskaltzaindiaren 40. araua). Zenbaitetan *egin* eta *sartu* aditzak ere hauen hurbileko izan daitezke: *Unibertsitatera joan eta mediku egin zen; Apaiz sartu zen Mikel.*

## 24.4. Bigarren mailako predikazioa

### 24.4.1. Zer den bigarren mailako predikazioa

**24.4.1a** Lehen eta bigarren mailako predikazioaren arteko desberdintasuna ikusteko honako adibide hauek erabil ditzakegu: *Nekatuta iritsi nintzen; Nekatuta gelditu nintzen (lasterketaren ondoren).* Lehen adibidean bi predikazio daude, [ni — iritsi] eta [ni — nekatuta]; nolabait esateko, ‘iritsi nintzenean nekatuta nengoen’ adierazten du. Bigarren adibidean, ordea, interpretaziorik ohikoenean ez da ulertzen ‘gelditu nintzenean nekatuta nengoen’; *nekatu* predikatu nagusia da hemen, eta *gelditu* aditzak ez du adierazten ‘higitzeari edo jarduteari utzi’, baizik eta bereziki aspektua adierazten duen aditz arina da, ‘egoera batean gertatu edo suertatu’ edo antzeko zerbait adieraziko lukeena. *Nekatuta* bigarren mailako predikatua da lehen adibidean, eta predikatu nagusia bigarren adibidean.

Bigarren mailako predikazioa eta aditzaren adjuntuak ere batzuetan hurbil egon daitezke. Bakoitzaren izaera garbiago ulertzeko ondorengo adibidea erabil dezakegu: *Edurne ederki ikusten dut.* Eman nahi diogun adieraren arabera, izan daiteke moduzko adberbioa (aditzaren adjuntua), edo bigarren mailako predikatua. *Ederki*-k ikusteko era, gaitasuna, objektua (*Edurne*) zenbaterainoko zehaztasunez ikusten dugun, adierazten badu, aditzaren adjuntutzat hartuko dugu; baina *ederki*-ren bidez Edurneren une bateko ezaugarri bat edo egoera bat adierazi nahi badugu (‘nola dagoen’), orduan bigarren mailako predikatua izango genuke.



Gauzak horrela izanik, bigarren mailako predikatuak edo osagarri predikati-  
boak dira honako adibide hauetan azpimarraturik doazenak: *Gustura irten*  
*ginen aretorik*; *Harro erakutsi zigun saria*; *Josuk triste deitu zigun herenegun*;  
*Alai ikusi genituen haurrak*; *Atsekabetuak/latsekabetuta joan ginen hiletara*.  
Baina gogoan izan § 24.3.5.1 atalean esan duguna: gramatikariek irizpide des-  
berdinei eman diete garrantzia predikazio-egituren sailkapenak egiteko unean.  
Guk lan honetan egitura hauen ezaugarriak azaltzeari emango diogu bereziki  
garrantzia.

**24.4.1b** Bigarren mailako predikazioa subjektuari begirakoa (*triste joan nin-  
tzen hiletara*) edo objektuari begirakoa (*triste eraman ninduten senarraren  
hiletara*) izan daiteke.

#### **24.4.2. Subjektuari begirako bigarren mailako predikazioa**

**24.4.2a** Gehienetan bigarren mailako predikatua subjektuari begirakoa iza-  
ten da: *Triste irten nintzen ekitalditik*; *Zoriontsu hartu genuen saria*; *Gogorik  
gabe joan nintzen bazkarira*; *Mireiak gustura egin zuen lana*. Azpimarratu  
ditugun elementuak perpausaren subjektuari buruzkoak dira [ni – triste; gu –  
zoriontsu; ni – gogorik gabe; Mireia – gustura]. Subjektu horren une jakin  
bateko egoera adierazten dute guztiek. Eta, batzuetan, uneko egoera hori joka-  
bide modura ere uler daiteke. Har dezagun, esate baterako, *Patxi hunkituta /  
nagarrez inguratu zen* adibidea. *Hunkituta* eta *nagarrez* subjektuari begirako  
bigarren mailako predikatuak dira, subjektuaren une bateko egoera deskriba-  
tzen dutenak; berez ez dute aditzak adierazten duen ekintza (‘inguratzea’) nola  
gertatzen den deskribatzen. Baina lehenean (*hunkituta*) egoera soil gisa ulertu-  
ko dugu; aldiz, bigarrenean (*nagarrez*) egoera eta jokabidea, biak uztar daitez-  
ke. Bigarren mailako predikatu modura azaltzen diren elementuak oro har  
*egon* aditzari loturik ager daitezkeenak izaten dira (‘triste nengoen bileratik  
irten nintzenez’, ‘zoriontsu geunden saria hartu genuenez’, ‘gogorik gabe  
nengoen bazkarira joateko’), baina *izan* aditzari lotzen zaizkionak ere izaten  
dira: *Pobre jaio zen eta aberats hil* (‘pobre zen jaio zenez’, ‘aberats zen hil  
zenez’), baina betiere une bati dagokion ezaugarria ematen dute aditzera; ez



dira ezaugarri iraunkorrak. Adibideen esanahia azaltzeko denbora berdintasuna adierazten duten perifrasiak ere horixe erakusten digu: predikazio nagusiak irauten duen denbora tartean bakarrik daudela indarrean ezaugarri horiek. Azken batean, uneko egoera adierazten duten edo *nola?* galderari erantzuten dioten elementuak dira bigarren mailako predikatuak.

Subjektua absolutiboan nahiz ergatiboan joan daiteke, eta bigarren mailako predikatua kategoria desberdinetakoa izan daiteke: *Triste etxeratu zen Jon*; *Biluzik sartu nintzen ohean*; *Buruan txapela nuela joan nintzen kalera*; *Kezkatuta deitu nion arrebari*; *Itziarrek gustura idatzi zuen liburua*; *Artzain joan zen June Boisera*; *Garagardoa hotza gustatzen zait*. Baina betiere une bateko egoera edo ezaugarri gisa ulertzeko modukoa izan behar du: *\*Begiurdin etxeratu zen Jon*; *\*Iletsu sartu nintzen ohean*. Bestalde, bigarren mailako predikazioa agertu ahal izateko perpaus nagusiko aditzak ere ezaugarri semantiko/aspertual batzuk bete behar ditu: ekintza bat, prozesu bat edo lorpen bat adierazten duten aditzek nahiko erraz ematen diote bide bigarren mailako predikazioari, bereziki, egiletasuna adierazten duten jarduera aditzekin, eta nolabaiteko borondatea adierazten duten subjektuekin; aldiz, egoera bat adierazten duten aditzek (*jakin, izan, eduki...*), aditz estatiboek, ez dute horretarako aukerarik ematen (analisi zehatzagorako, ikus Zabala 1993: 257-262). Honako bi perpausetan garbi ikusten da desberdintasuna: *Jonek gustura entzun du saria berari dagokiola*; *\*Jonek gustura daki saria berari dagokiola*.

**24.4.2b** Batzuetan zalantza izan dezakegu bigarren mailako predikazioaren aurrean gauden, edo subjektuak gauzatzen duen ekintzaren nolakotasun soila adierazten duten adjuntuak ditugun aurrean. Adibidez, *Josuk errespetuz agurtu ninduen* esatean, aipatzen den ‘errespetua’ egotz dakioke aditzari, agurtzeko era deskribatuz (adjuntu funtzioa), edo egotz dakioke agurra egiten duen pertsonari, subjektuak une horretan azaltzen duen egoera adieraziz (bigarren mailako predikatua). Horrelakoetan elementuen arteko erlazio semantikoari —eta zeharbidez, funtzio sintaktikoari— erreparatu beharko diogu. Esate baterako, *Josuk gustura idatzi zuen liburua* adibidea badugu, ziurren guztiok ere erraz identifikatuko dugu bigarren mailako predikazioa dagoela: ‘Josu gustura egon zen liburua idatzi zuen denbora tartean’. Baita *gustura* adberbioaren

ordez *kezkatuta* erabiltzen badugu ere: Josuren egoeraz ari gara, ez idazteko era jakin batez. Baina *pasioz* erabiltzen badugu (*Josuk pasioz idatzi zuen liburua*), Josuren egoera deskribatzen dugu, baina zeharbidez idazteko era bat ere ari izan gaitezke iradokitzen: ‘dedikazio handiz’, ‘burua lan horretan guztiz sartuta’, beharbada ‘ordu asko sartuz’ idatzi duela liburua; eta orduan adjuntua funtzioaren mugara hurbilduko ginatke. Aldiz, *eskuz* erabiliko bagenu (*Josuk eskuz idatzi zuen liburua*), orduan idazteko eraz bakarrik ariko ginatke, eta adberbio izaerako adjuntua bat izango genuke, ez bigarren mailako predikatua. Beraz, unean uneko esanahiak eta asmoak aginduko dute.

### 24.4.3. Objektuari begirako bigarren mailako predikazioa

**24.4.3a** Beste batzuetan objektuari begirako bigarren mailako predikazioa izaten dugu: *Haurrak oinetakoak lokaztuta ekarri zituen*; *Paketea irekita aurkitu nuen*; *Biluzik ikusi zintudan hondartzan*; *Triste sumatu zintudan aurrekoan*. Azpimarratutako elementuak beren perpauseko objektuari buruzkoak dira [oinetakoak – lokaztuta; paketea – irekita; zu – biluzik; zu – triste], eta objektuaren une bateko egoeraren berri ematen digute; ez dute adierazten ‘ekartzeko era’, ‘aurkitzeko era’, ‘ikusteko era’ edo ‘sumatzeko era’.

**24.4.3b** Subjektuari begirakoetan gertatzen zen bezala, hemen ere bigarren mailako predikatu modura kategoria eta era desberdineko elementuak ager daitezke: *Gazte ikusten zaitut*; *Aldatuta sumatu zaitut*; *Eskiak hondatuak/hondatuta itzuli dizkirate*; *Dirurik gabe itzuli zidaten galdutako diru zorroa*; *Patxi txapelarekin ikusi nuen aurrekoan*; *Buruan txapela zuela gogoratuko dut beti aitona*; *Gudariak agintariaren aurrean ahuspez ikusi nituen*; *Peru hartu dut laguntzaile*; *Maren alkate hautatu dugu*; *Xabier lapurtzat salatu dute*. Nolanahi ere, objektuari begirako bigarren mailako predikazioak subjektuari begirakoak baino murriztapen gehiago ditu, aditz trantsitiboen multzo txiki batek bakarrik onartzen baititu horrelakoak: egoera aldaketa edo toki aldaketa dakarten aditzak (*gelako ordezkari izendatu naute*; *arkumea bizirik eraman nuen harakindegira*; *sagarrak garbitu gabe jan zituen*) edo iritzi eta hautemate aditzak (*esnea nahiago dut hotza*; *burumakur aurkitu dut alaba*;

*triste irudikatzen ditut atzoko galtzaileak; txapelarekin gogoratuko dut beti aitona*) izaten dira<sup>13</sup>.

#### 24.4.4. Aukerako eta nahitaezko bigarren mailako predikatuak

**24.4.4a** Bigarren mailako predikaturik gehienak aukerakoak izaten dira. Horrela, *Hiletara triste abiatu nintzen* adibidea baldin badugu, perpaus horrek bere barnean darama ‘hiletara abiatu nintzen’; *abiatu* aditza bere ohiko esanahiarekin erabiltzen da, eta *triste* elementua aukerakoa da perpausaren gramatikaltasunerako (*Hiletara abiatu nintzen*). Gauza bera gertatzen da ondorengo adibideetan ere: *Kezkatuta irten nintzen bileratik*; *Pozik joan nintzen bazkarira*; *Haserre hurbildu zitzaidan udaltzaina*; *Beldurtuta hartu nuen eskutitza*; *Damututa aitortu nituen bekatuak*; *Gogotsu hasi genuen denboraldia*. Guztietan aditza (*irten*, *joan*, *hurbildu*, *hartu*, *aitortu*, *hasi*) bere ohiko adieran erabiltzen da, eta bigarren mailako predikaturik gabe ere adibide zuzenak lortuko genituzke. Aukerako bigarren mailako predikatuen aurrean geundeke. Horrelakoak izaten dira subjektuari begira dauden guztiak.

Objektuari begirako bigarren mailako predikatuen artean aukerakoak eta nahitaezkoak aurki ditzakegu. Adibidez, *Emaztea hil zitzaionean, lur jota eraman genuen Jon hilerrira* perpausa daukagularik, adieraren aldetik ‘Jon hilerrira eraman genuen’ barnean darama, *eraman* aditza ohiko esanahiarekin agertzen da, eta *lur jota* elementua azaldu edo ez azaldu adibidea zuzena eta zentzu berekoa izango litzateke; objektuari begirako aukerako bigarren mailako predikatua izango litzateke *lur jota* [Jon – lur jota]. Horrelakoak dira honako hauek: *Urtsuegiak egin dituzu babarrunak*; *Ordenagailua hondatuta itzuli*

---

<sup>13</sup> Zehar-osagarriari begirako bigarren mailako predikaziorik ez da izaten (\**Josuri bere nota- ren berri urduri eman diot*; [Josu – urduri]), baldintza oso jakinak dituzten egitura batzuetan ez bada. Horien artean daude genitiboaren ordezkotzat datiboa dutenak (*Lokartuta atera zioten hagina Nekeneri*; [Nekane – lokartuta]) edo egitura arazleak (*Josuk Mireni lana zutik/mozorrotuta eginarazi zion* [zutik – Miren]; *Mireni zutik hitz eginarazi zioten alderdiko kideek* [zutik – Miren]). Gaiaren azterketa sintaktiko baterako, ikus Odria 2015.

*didazu; Inauterietan mozorrotuta ikusi zintudan; Ordulari bat eman didate opari(tzat).*

**24.4.4b** Beste batzuetan, ordea, objektuari begirako bigarren mailako predikatuak nahitaezkoak izaten dira. Esate baterako, *Bera egin zuten erantzule* esaten dugunean, adibideak ez darama barnean ‘bera egin zuten’, perpaus horretan *egin* ez baita bere ohiko adieran ulertzen —ez dago inolako ‘gauzatzeko fisikorik’—, baizik eta ‘norbaiti ezaugarri bat egotzi’ edo horrelako zerbait adierazten du, eta adiera horretan *erantzule* elementua nahitaezkoa da. Desberdintasuna argiago ikusteko, ohart gaitezuen adibide horren parean izan daitezkeela *egin* aditza erabiliz osatutako honako hauek ere: *Zubia egurrezkoa egin zuten; Dorrea okertuta egin zuten*. Horietan bai, azpian ‘zubia egin zuten’ eta ‘dorrea egin zuten’ daude, *egin*-ek bere ohiko esanahia du, eta *egurrezkoa* eta *okertuta* aukerako bigarren mailako predikatuak izango lirateke.

Nahitaezko bigarren mailako predikatuak onartzen dituzten aditzen eta egituraren saila aukerakoena baino murriztagoa da. Alde batetik, hautemate eta iritzi aditzak daude. Adibidez, *Zail(a) ikusten dut hori* esaten dugunean, *ikusi* aditzaren bidez ez da hautemate fisikorik edo begien bidezkorik adierazten; iritzi bat edo norbaiten ustezko egoera bat adierazten da, eta horrelakoetan bigarren mailako predikatua nahitaezkoa izaten da. Berdin *Josu triste sumatu dugu* diogunean; ez gara ‘ohartzeaz’ ari, baizik eta Jonen egoeraz. Edo *Aberatsak aurkitu zituen behartsuak baino gaiztoago* esaten denean *aurkitu*-ren adiera zerbaiten edo norbaiten egoera ‘sumatzeari’ dagokio; baina aditz horrek baditu beste esanahi batzuk: ‘bilatzen dena ikusi, non den jakin’ (*Aurkitu dut galdu zaidan ardia*), edo ‘topatu’ (*Huts asko aurkitu ditut liburu horretan*). Bigarren multzoan era batean edo bestean izendatzea edo hautatzea adierazten dutenak daude, eta sarritan artikulurik gabeko izen bat izaten da bigarren mailako predikatua: *Elkarteko lehendakari aukeratu zuten Nagore; Taldeko kapitain izendatu dugu Irene; Jokin hautatu dugu langileon ordezkari*.

Beraz, nahitaezko bigarren mailako predikatuen adibidetzat hartu ohi dira honako hauek bezalakoak: *Bart burumakur ikusi zintudan; Gogotsu sumatu nituen lehiakideak; Interesgarria aurkitu nuen artikulu hura; Alkate hautatu naute herritarrek; Mutil horrek ez zaitu zoriontsu egingo; Garaipen haren*

*ondoren errege izendatu zuten; Txiki-txiki egingo nuke telefono madarikatu hori; Gurasoek zintzo nahi zaituzte.*

#### 24.4.5. Bigarren mailako predikatuen interpretazio semantikoak

**24.4.5a** Aurreko ataletan aipatu den bezala, bigarren mailako predikatuek bere subjektuaren une bateko egoera adierazi ohi dute, une jakin batean —aditzak adierazten duen ekintza gauzatzen den unean— norbaitek edo zerbaitek agertzen dituen ezaugarriak, eta *deskribapenezkoak* direla esan ohi da. Adibidez, *Poeta hura pobre hil zen* esaten dugunean, heriotza iritsi zitzaionean ‘pobre’ ezaugarria zuela, ‘pobrezia egoera’ zuela, adierazi nahi dugu; edo *Haur haiek pozik bizi ziren* diogunean, aintzat hartzen dugun garaian pozezko egoera zela haur haien ezaugarria. Objektuari begirako bigarren mailako predikatuekin ere gauza bera gertatu ohi da. *Oinetakoak zikin(ak) / garbitu gabe / puskatuta itzuli zizkidan* esaten denean, oinetakoen une horretako egoeraz ari gara, une horretako ezaugarri bat adierazten; berdin *Gutuna irekita eman zioten presoari* edo *Kalean biluzik ikusi zintudan* adibideetan. Adjektiboen edo adberbioen kutsua duten osagarri predikatiboekin erraz ikusten da uneko egoeraren adiera hori.

Bigarren mailako predikatu modura izen bat azaltzen denean (*Jon artzain joan zen; Zuzendari hautatu dute Ane*) ‘bere subjektuaren une bateko egoera’ apur bat era desberdinean adierazten da, gehienetan izaera mailako predikatutzat hartu ohi direnak azaltzen baitira horrelako adibideetan. Baina hauetan ere adierazten dena da, lehenean, Jon ‘artzain egoeran joan zela’, edo ezaugarri hori izango zuela aurrerantzean; bigarrenean, egoera edo ezaugarri aldaketa bat ezarri zaiola Aneri, eta hemendik aurrera bere egoera edo ezaugarria zuzendari izatea edo zuzendari modura egotea izango dela.

Prolatiboa erabiltzen dugunean ere (*Nire esker onaren erakusgarritzat ematen dizut opari hau; Laguntzailetzat Patxi jarri dizugu*), uneko egoera adieraztearen kontuak baditu berezitasunak, eta erabiltzen den aditzak zeresan handia du horretan. Lehen adibidean, guk ezartzen diogu zerbaiti (*oparia*) ezaugarri edo

egoera konkretu bat (esker onaren erakusgarri izatea); bigarrean, Patxiri egoera edo une jakin baterako ezaugarri konkretu batzuk ezarri dizkiogu kanpotik, oraingoan era errealean.

**24.4.5b** Une bateko egoera edo ezaugarriak deskribatzearen alboan beste adiera batzuk ere azal daitezke bigarren mailako predikatuetan.

Batzuetan nolabaiteko kausaltate adiera ere suma daiteke. *Itota hil zen* esaten denean, itotzearen ondorioz hil zela adierazi nahi izan daiteke; alegia, adierazten den prozesuaren, ekintzaren edo gertakariaren —kasu honetan, hiltzea— kausa edo jatorria adieraz daiteke bigarren mailako predikatuaren bidez. Ohi-ko deskribapenezko irakurketari zer eransten zaion ohartzeko, ikus ditzagun honako bi adibide hauek: *Peruk biluzik ihes egin zuen*; *Peruk beldurtuta ihes egin zuen*. Lehenean Peruren egoera deskribatzen da, besterik ez; bigarrean zer arrazoigatik ihes egin zuen ere uler daiteke: beldurraren eraginez. Era honetako irakurketa onartu ahal izateko nahitaezkoa da aditz nagusia kanpoko kausak onartzen dituztenetakoa izatea.

Beste batzuetan, predikatu nagusiaren deskribapenezko oinarritzko adieraren alboan, uler daiteke aditzak adierazten duen prozesuaren amaierako egoera edo ezaugarria ere. *Gure sail horretan belarra mardul hazten da* esaten dugunean, hazte prozesuaren amaieran belarra nolakoa izan ohi den ari gara adierazten. Horrelakoak sarriena osagarri zuzenari begirako egiturekin agertzen dira: *Tipula xehe-xehe txikitu nuen* (tipula amaieran nola gelditu zen); *Ilea oso motz moztu dut*.

**24.4.5c** Azkenik, kontuan izan behar da adibide batzuetan aditzean adierazten den ekintzari edo prozesuari ere begiraten diotela bigarren mailako predikatuek, eta ekintza edo prozesu horren ezaugarriak adierazten dituztela. Begira diezaiozun honako adibide honi: *Gazta hori merke erosi zuen*. Bigarren mailako predikatuak (*merke*) adierazten du gaztaren une bateko ezaugarria edo egoera ('gazta hori merke dago' edo 'gazta hori merkea da'), eta baita eroste-ekintzari dagokion ezaugarri bat ere ('merke eroste'). Horren ondorioz, zenbaitetan aditzaren eta bigarren mailako predikatuaren arteko bateragarritasuna behar izaten da; eta batzuetan adjuntu erabilera oso hurbil izaten da.

## 25. Aditza (III): adizki jokatu-gabeak

---

- 25.1. **Aditzoina**; 25.1.1. Formak eta erabilerak; 25.1.2. Aditzoina perpaus lokabee-tan; 25.1.3. Aditzoina juntadura perpausetan; 25.1.4. Aditzoina mendeko perpausetan; 25.1.5. Aditzoina oinarri duten adizki analitikoak
  - 25.2. **Partizipioa**; 25.2.1. Partizipioa: formak eta erabilerak; 25.2.2. Partizipioa eta adjektiboa; 25.2.3. Partizipioa eta izena; 25.2.4. Partizipioa mendeko perpausetan; 25.2.5. Partizipioa juntadura perpausetan; 25.2.6. Beste erabilera zenbait; 25.2.7. Partizipioa oinarri duten adizki analitikoak eta perifrasiak
  - 25.3. **Aditz izena**; 25.3.1. Formak eta erabilerak; 25.3.2. Aditz izena eta kasuak; 25.3.3. Aditz izena eta postposizioak; 25.3.4. Beste erabilera batzuk; 25.3.5. Aditz izena oinarri duten adizki analitikoak eta perifrasiak
  - 25.4. **Partizipio prospektiboa**
- 

### 25.1. Aditzoina

#### 25.1.1. Formak eta erabilerak

**25.1.1a** Euskaraz adizki jokatu-gabeak hiru oinarrizko itxuratan ager dakiz-kiguke, goian adierazi bezala (ikus 23. kapitulua): aditzoina (*sal, eros, hauts, etor...*), partizipioa (*saldu, erosi, hautsi, etorri...*) eta aditz izena (*saltze, eros-te, hauste, etortze...*). Hiru horien artean aditzoina da oinarrizkoena, ez baitu inflexio atzizkirik biltzen; areago, partizipioa eta aditz izena hartarik erato-rriak dira (*sal-du/sal-tze, eros-il/eros-te, hauts-il/haus-te, etorr-il/etor-tze...*).

Kasu gehienetan, beraz, aditzoinaren eta partizipioaren arteko desberdintasuna *-i* edo *-tu* partizipio atzizkia beretzean edo ez beretzean datza: *eros* vs *erosi*, *hauts* vs *hautsi*, *sar* vs *sartu*, *har* vs *hartu*. Aditzoina ez da bizirik egungo hizkera guztietan. Ekialdean eta bereziki Iparraldean, aditzoinaren eta partizipioaren arteko bereizketari tinko eusten zaio oraindik; baina badu aspaldi haren ordeztu partizipioa erabiltzen dutela mendebaldeko eta erdialdeko hizkerek.

**25.1.1b** Aditzoin guztiek ez dute oinarri bera eta, ondorioz, denak ez dira gisa berean eratzen. Gainera, joera desberdinak daude hizkeren arabera. Lehenik, oinarrian aditz erroa duten aditzoinak daude: *etor*, *ekar*, *eros*, *sal*, *sor*, *har*. Aditz hauen ororen partizipiozko forma *-i* edo *-tu* atzizkiak gehituz osatzen da. Aditz mailegatuak ere multzo horretan sartzen dira, haien aditzoina *-tu* atzizkia kenduz erdiesten baita: *errezita*, *dibortzia*, *despedi*, *entrena*, *diberti*, *ataka*. Azken berrogeita hamar urte hauetan, mendebaldeko eta erdialdeko idazleek aditzoin mota horren aldeko hautua egin dute, beren euskalkian hala-bera ez izanagatik. Preseski, joera hau kontuan harturik, Euskaltzaindiak eus-kara batuan aditzoinaren eta partizipioaren arteko bereizketa egitea gomendatzen du: *etor dadin* (ez *\*etorri dadin*), *sal dezan* (ez *\*saldu dezan*).

Ikus Euskaltzaindiaren 28. araua: “Aditzoinen forma”, Bilbon, 1995eko otsailaren 24an onartua.

**25.1.1c** Badira beste kategoria batetik eratorritako aditzoinak ere. Hauetarik batzuek kategoriako anbiguotasuna dakarte, eratorpen-oinarriaren homonimoak baitira: *garbi*, *ilun*, *ur*, *gizon*, *dantza*, *kanta*. Adibide horietan, *garbi* adjektiboa edo aditza izan daiteke; *ur*, *gizon*, *dantza*, *kanta*, berriz, izenak edo aditzak. Osoki oinarriaren irudia duten aditzoin hauek nasaiak dira Iparraldeko literatur tradizioan, eta gaur egun oraindik bizirik diraute ekialdeko hizkeretan. Haatik, mendebaldeko eta erdialdeko testu zahar eta berrietan, haien ordeztu partizipiozko formak erabiltzen dira nagusiki. Preseski, Euskaltzaindiak bi joera hauen aintzat hartzea gomendatzen du, hau da, jatorrizko oinarritik ezertan ere bereizten ez denean, *-tu* atzizkidun adizkia ere erabil daiteke



aditzoin gisa (ikus 28. araua): *ur* eta *urtu*, *gizon* eta *gizondu*, *gaurko* eta *gaurkotu*, *bere* eta *beretu*, *lodi* eta *loditu*, *hobe* eta *hobetu*, *garai* eta *garaitu*.

**25.1.1d** Alabaina, beste kategoria batetik eratorri aditz guztiek ez dute kategoriako anbiguotasunik sortzen beren aditzoina eratzean. Mota horretakoak dira *zora*, *goza*, *urezta* aditzoinak; hauen kasuan, Euskaltzaindiak ez du *-tu* partizipio atzizkia duen formarik onartzen (ikus 28. araua).

**25.1.1e** Iparraldeko mintzoetan, aditzoin eratorri asko *-tu* partizipio atzizkiko *-t* fonema atxikiz osatzen dira; gisa horretan, aditzoina eta eratorpenaren oinarria ez dira homonimoak: *lagun* izena vs *lagunt* aditzoina, *ur* izena vs *urt* aditzoina, *zuzen* adjektiboa vs *zuzent* aditzoina, *garai* adjektiboa vs *garait* aditzoina, *samin* adjektiboa vs *samint* aditzoina. Bizkitartean, arau morfologiko hau ez da gisa berean gauzatzen hizkera guztietan eta, beraz, eskualde batetik bestera ugari dira *-t* atzizkidun formen eta oinarriaren irudia duten formen arteko txandaketak: *lagun/lagunt*, *dei/deit*. Hori horrela izanik, Euskaltzaindiak aipatu berri ditugun *-t* atzizkidun formen erabilera hiru testuingurutara mugatu du: (i) aditz eratorria izanik, oinarria *t*-duna bada (*oroit*, *laket*, *bat*, *ausart*) —baina *-tu* partizipio atzizkia duen forma ere onartua da azken hiruen kasuan: *laket/laketu*, *bat/batu*, *ausart/ausartu* ditugu *Euskaltzaindiaren Hiztegian*—; (ii) literatura tradizioan jokabide bakarra izan badu (*ezagut*, *lot*, *ohart*, *lant*); (iii) *-di* bukaerako oinarri batetik eratorria bada eta semantikoki forma laburtugabetik bereiz bada (*hant*, *hert*...). Gainerako kasu guztietan, partizipioa erabiltzea onartua da, eta aditzoina erabiltzekotan *-t* gabeko forma erabiltzea gomendatzen da: *urrun* nahiz *urrundu* (baina ez *\*urrunt*), *lagun* nahiz *lagundu* (baina ez *\*lagunt*), *neur*, *ezkon*.

**25.1.1f** Iparraldeko euskalkiek aditzoinaren eta partizipioaren arteko bereizketa formala partizipio atzizkirik ez duten aditz zenbaitetara ere zabaldua dute. Izan ere, *-ki* atzizkiz bukaturiko aditzetan, *-k* aditz erroko morfema gisa eta *-i* partizipio marka gisa berranalizatu dira, eta beraz, *-k* vs *-ki* bereizketa dugu aditzoinaren eta partizipioaren artean: *jaik* vs *jaiki*, *jarraik* vs *jarraiki*, *irek* vs *ireki*, *atxik* vs *atxiki*. Bizkitartean, euskara baturako, *-i* berezkoa duten aditzetan bukaera atxikitzea gomendatzen du Euskaltzaindiak (ikus 28. araua): *jaiki* (ez *\*jaik*), *jarraiki* (ez *\*jarraik*), *atxiki* (ez *\*atxik*).

**25.1.1g** Aditzoina emankorki erabiltzen duten euskalkiek erakusten dute haren erabilera-testuinguruak mugatuak direla: ondoko ataletan erakutsiko dugun bezala, egitura analitikoetatik kanpo zenbait perpaus lokabetan eta mendekotan soil-soilik ageri da (ikus § 25.1.3, § 25.1.4, § 25.1.5). Bizkitartean, perpausaren mailan aditzoinaren erabilera den bezalako izanik ere, hitz eraketari dagokionez, emankorra da euskalki guztietan. Izan ere, bai eratorpean, bai elkarketan, aditza oinarri duten izenak, adjektiboak, adberbioak eritzen direlarik, aditzoina da ageri: *zoragarri, jostailu, bihurgune, gozamen, irakurle, saltzaile, ekarpen, salerospenak, ebaska, erranka; helmuga, lisaburdina, garbigela*. Salbuespen bakarrak aditz elkarketak dirateke, ekialdean, bi aditz elkartzean, lehenak aditzoinaren itxura hartzen badu, mendebaldean partizipioa agertzen delako: *Gelara sar-atera/sartu-atera bat egin zuen; harreman/hartu-eman...* (ikus § 7.1.2b, § 9.2).

### 25.1.2. Aditzoina perpaus lokabeetan

**25.1.2a** Aditzoina solaskideari agindu bat emateko erabil daiteke: *Hets begiak!; Sar barnera!; Hets gero barrika, inarros ongi, eta utz den bezala, hogoita lau oren* (Abadia). Adibideek erakusten dutenez, aditzoinak solaskideari agintzen dioguna seinalatzen du, eta, hortaz, ezin daiteke jusiboan erabil, hau da, bigarren pertsonaz bestelako pertsona bati agindu baten emateko: *\*Jainkoak barka!; \*Guk elkarrekin kanta!* (jusiboaz ikus § 26.1.5.4 eta § 26.6.2.2). Mendebalde eta erdialdeko euskalkietan bestelako usadioa aurkitzen da, normalean partizipioa ageri baita agintera adizki jokatu gabe baten bidez adierazten denean: *Barkatu!; Sartu barrura!; Erdu ba neugaz!*

**25.1.2b** Ekialdeko euskalkietan aditzoina galdera erretorikoetan ere erabili ohi da, baina gehienetan zati galderetan —eta, hortaz, galdetzaile baten ondotik—. Bestela erranik, bai/ez erako galderetan ez da kausitzen (*\*bihar etor?*): *Baina guk zer hauta, ez bagira lehenik guhaur hautatuak?* (Hiriart-Urruti gaztea); *Nor fida halakoari?* (Hiriart-Urruti gaztea); *Non koka bada holako jendeketa izigarria?* (Hiriart-Urruti gaztea); *Xehetasun hauk bururatzean*

*nola utz aiphatu gabe gure Eskual-Herrian sorthu izan den lore eder, dixtirantenarik bat: Madalena Larralde, Sara Beltxereneko alaba?* (J. B. Etxeberri); *Barkatu bainan zertako ez sala nik ere zutaz dakitana?* (Larre). Harridurazko galderetan ere aurkitzen da ekialdean, solaskideak erran berri duenari buruz harridura edo desadostasuna adierazteko: —*Oi Xoane gaixoa, utzak soka madarikatu hori!* —*Soka utz?* (Barbier). Mendebaldeko euskalkietan, ordea, partizipioa dugu inguru hauetan: *Nok arei eskua ezarri?* (Kirikiño).

**25.1.2c** Errefrauetan eta haien itxurako esapideetan ere aditzoina aurkitzen dugu ekialdean: *Nik hora mana, horak bere buztana* (Oihenart); *Hik maka, nik saka* (Oihenart); *Bat gal eta hamar harrapa* (Landart); *Ikus eta, sinets*. Gainerako hizkerak, aldiz, partizipioa baizik ez dute halakoetan: *Iñoren emoia artu eta norberen burua saldu* (Otxolua); *Betiko ituteak arria zulatu, ta aldi luzeak guztia aztu* (Lopez Mendizabal); *Urteak galentu, ajiak azaldu* (Azkue).

**25.1.2d** Iparraldean maiz erabiltzen dira aditzoinak, kontakizunetan eta arrazoinamenduetan, perpausei halako erritmo berezia, bizi-bizia eman nahi zaielarik. Deskripzioetan ere aurkitzen da aditzoina, ia-ia aditzondo baten balioa duela: *Ez dira lotsa hemen, egun bat osoa kurrizteko edo berdin biga: lagun multxo bat bil, eta lot bideari* (Hiriart-Urruti gaztea); *Erbitto bat: beharri xut, buztan labur, ausik, itzul, beha, jauzi... bethi beldur* (Oxobi); *Ikustekoak ziren jendeak lerro-lerro, mendi batetarik jauts, beste bati goiti abia, denak beila tokiari buruz goatzila* (Hiriart-Urruti gaztea). Mendebaldean bereziki, baina anitzetan ekialdean ere antzera suertatzen da (bereziki bertsogintzan), partizipioa molde bertsuan erabiltzen da: *Unamunok euki bear dau alako gomuta samar lautso-tsu bat [...] eta geiago barik 'or joak' eta ukondoa sartu, sinestu, ta esan, 'di' atzizkiak arbolea dikurrela* (Kirikiño); *Ni Ajenan bi urthez, libre nintzala us-tez, / Bena aita orano ez ase mendekatzez; / Jaun horier galthatü ükhen otoritatez, / Presu begiratzeko librantxaik ükhen gabez, / Eta ere edüki hamar ilabatez. / Ni Ajenan libratü, etsaien artin sarthü / Hunak galdürük, haurrak dohakabe baratü, / Eni hen ikhustiak odola alteratü, / Atzione triste bat süjet hartarik heltü, / Harzara jüstiziak ni berriz preso hartü* (Etxahun).

**25.1.2e** Ekialdeko antzerkietan, eta bereziki Zuberoako pastoraletan, egileek antzezlarientzat idatzi antzerki-jokoari buruzko oharrak aditzoinaren bidez

adierazten dira izkribuetan: *Jalqui Oger, Richart, Alar [...] Asquen 2 jar* (Xarlem pastoral); *Sar eskuinetik [...] ama besarka [...], Allandek khanta [...]* denak *erretira...* (Oihenart pastoral).

### 25.1.3. Aditzoina juntadura perpausetan

**25.1.3a** Aditzoinaren erabilera manatzen duten bi adizki analitiko koordinatzen direlarik, adizki laguntzaileetarik bat ezaba daiteke, aditzoina Ø bakarrik uzten dugula orduan: *Ordu deno begiak idek ditzagun eta gisa hartarat berma* (Hiriart-Urruti gaztea); *Hurbil zaitetz eta sar atari hertsitik* (Arkotxa). Gisa berean *arazi* oinarri duten bi egitura arazle juntatzen direlarik, lehen aditzak, *arazi* ezabaturik, aditzoinaren forma har dezake: *Jaunak hil nahi ukan bagintu, ez zauzkigun onartuko egin diozkagun erre-oparia eta bihi-eskaintza, eta ez zaukun holako gauzarik ikus eta entzunaraziko* (Etxehandi).

**25.1.3b** Delako usadioak aditzoinaren erabilera manatzen duten adizki analitikoak gainditzen ditu. Izan ere, bi perpaus jokatugabe juntatzean ere, gerta liteke lehen aditzak aditzoinaren itxura hartzea: *Ama Herria gaur nola dagon ikus* eta *orroitzean, nigar xorta bat begietarat jautsi zaut egun goizean* (J. P. Mendiburu); *Batto sar eta hamar kendu, hori da egiten dutena!* (Herria). Hala ere, aipatu bi kasuetan, aditzoinaren ordeztu partizipioa erabiltzea ohikoa da, hala Iparraldean nola Hegoaldean: *Zubia jo eta botatzen hasi zen* (Aristi); —*Hau poza, Lamarain jauna!*— *esan zidan ni ikusi eta ezagutzean* (J. L. Zabala).

### 25.1.4. Aditzoina mendeko perpausetan

**25.1.4a** Errefrauetan aditzoinak usu ageri dira erlatiboetako perpausentzako dagozkien itzulietan: *Otsoa non aipa, han gerta* (Oihenart); *Non fida, han gal* (Oihenart). Mendebaldean, testuinguru honetan ere partizipioa erabiltzen da: *Non gertatu, an ostatu* (Azkue).

**25.1.4b** Zenbait predikatuk onesten dituzten zehar-galdera jokatu gabeetan, aditzoina erabiltzen da ekialdeko euskalkietan eta partizipioa, berriz, mendebaldekoetan: *Ez dakit nondik sar*; *Ez dakit har ala utz*; *Dudan nago zuri sal edo hari eskaint*; *Ez dakit zer oldoztu be*; *Dudan nago hemen gelditu ala zurekin joan*; *Esplikatu zigun nola erabili*. Badirudi molde horretako zehar-galderak forma jokatu bat erabiliz adieraziko bagenitu, modu morfema batez baliatuko genukeela: *Ez dakit nondik sartu behar dudan*; *Ez dakit nondik sartzen ahal naizen*. Hala ere, ez da horrelakorik gertatzen mendeko perpaus hauek izan, *egon*, \**edun*, *eduki* aditzen hedamenak direlarik: *Banikek, to, hiri zer ihardets* (Oxobi); *Badugu, engoitik, zer pentsa eta zertaz grina*; *Dena dela, han ere bada zer hobetu eta zer aldatu* (Zuazo). Partizipioa molde honetan erabilia denean, artikulua ere har dezake edo partitibo bihur daiteke: *Ez, ez dauka zer ikusirik Stendhalek eta Calvinok, bakoitzak oso bere moldera, ordezkatzan duten eklektizismoarekin* (Lertxundi); *Baina post-data irakurtzeak zer pentsatua eman zion* (Urteaga).

**25.1.4c** Hautuzko perpausetan, orobatasuna adierazteko erabil daitezke aditzoinak eta partizipioak, bai eta aditz izenak ere: *Urean ito, edo suan erra, da kalte bera* (Oihenart); *Zuk aitor ala hark sala, eni berdintsu zait*; *Ori galdu ta egaz dabillen txoria galdu, berdin dira ba* (Kirikiño); *Gaiizki egitea edo bate-re ez egitea orobat heldu da*. Orobatasuna adierazi gabe ere erabil daiteke aditzoina hautu baten adierazteko: *Har edo utz genuen*.

**25.1.4d** Komunzki postposizioak partizipioarekin erabiltzen badira ere, haietarik batzuk bederen, aditzoinarekin ere ager dakizkiguke, hala nola *arte*, *ondoan*, *eta*, *ordu*, *bezain laster*, *arau*: *sar eta*; *afal aitzin*; *ikus arte*; *har ondoan*; *bazkal ondoan*; *ardiak sar arau, artzainak kontatzen zituen*; *ikus bezain laster arrainak hatüa hontzen dü* (Davant).

**25.1.4e** Aditzoina zenbait esapidetan ere kausitzen dugu ekialdeko aldakietan.

- a) Beldurra adierazten duten predikatuek eta lanjer batez abisatzeko edo aholku baten emateko erabiltzen direnek aditzoinarekiko perpausak onesten dituzte osagarri gisa: *Begirauk eror!* (Lafitte); *Beldur naiz leizera eror*; *Kasu emazu ez gal!*; *Halako apostolu arrazoin batzu aterako ditie: Parise*

*gabe deus ez girela; Parise gabe ez gaitezkelaz bizi; Hobe dugula pixka bat gal eta jasan, ezenez-eta jazar eta oro gal; eta holako!* (Larzabal).

- b) Adlatiboa ohi duten zenbait aditz izenen ordean aditzoina dugu zenbait esateratan: *Goazen ikus (ikustera)* (Lafitte); *Emadazu dasta (dastatzera)*.
- c) Kontzesibo kutsua duten zenbait esateratan aditzoina galdetzaile batekin ager daiteke: *Zer bil ere; Lurra ardura mintzo baita Ameriketara, deliberratu zuten [...] hobe zitezkelaz bakoitzak bere etxerat joan zadin, zer gerta ere* (Etxarren).
- d) Ekintza baten luzapena edo errepikapena adierazteko ere erabiltzen da aditzoina: *Ari zen irakur eta irakur* (Etxarren); *Eror eta xuti dabilta* (Axular), *batean eror eta bertzean jaiki dabilanak* (Axular); *Mintza eta mintza, ez da ele egitetik baretzen*.
- e) Orobat, une desberdinetan iragan aurkako gertakariak parez pare ezartzeko: *Pilotan, batean gal eta bestean irabaz* (Larre); *Zer da gure fedea? Axalezko zer bat othe? Larru gaineko jauntzi bat, egun ezar eta bihar khi?* (Saint-Pierre).
- f) Aditzoina moduzko perpaus jokatu gabeetan ere ager dakiguke ahal eta ezin-ekin: *Euria jaits ahala ari zuen; Sinets ezin da; Ikus ahala urrun*. (Ikus 40 Moduzko perpausak: § 40.6b).

### 25.1.5. Aditzoina oinarri duten adizki analitikoak

**25.1.5a** Aditzoina oinarri duten adizki analitikoak urriak dira. Euskararen lehen testuetatik, \**edin*, \**ezan*, eta *-iro-* laguntzaileekiko adizkiak baizik ez dugu aurkitzen, eta gainera, azken mendeetan, hauen erabilera-eremuak murriztuz joan dira. Hamaseigarren mendean, euskalki guztiek [aditzoina + \**edin*] eta [aditzoina + \**ezan*] —mendebaldean [partizipioa + *egin*]— adizkiak erabiltzen zituzten iraganaldi burutua adierazteko (askotan *aoristo* gisa izendatu dira forma horien iraganeko erabilerak): *Unaiok arri zitean, gaztaeok agir zitean* ‘haserretu ziren, agertu ziren’ (RS); *Iaigi zidin nagia, erra zizan*

uria ‘jeiki zen, erre zuen’ (RS); *Zerutika iautsi zedin harzaz amaturik* ‘jautsi zen’ (Etxepare); *Bere desobedientziaren kausaz hiragun zekion, eta abominazionetan eta begitan har zezan* ‘hiragundu zitzaion, hartu zuen’ (Leizarraga). Gaur egun, adizki analitiko hauek indikatiboaz bestelako moduetan erabiltzen dira, hau da, subjuntiboan (*nahi dut etor dadin / egin dezan*), aginteran (*jeiki hadi; kanta ezak*), ahaleran (*etor naiteke; esan dezaket*) eta baldintzan (*etor baledi, esan niezaioke*) (ikus § 26.3.5, § 26.6.2). Ekialdeko euskalkietan leku-kotzen den [aditzoina + *-iro-*], berriz, ahaleran baizik ez da erabiltzen (§ 26.6.3.1): *Ez dirot onar erran duzuna*.

**25.1.5b** Lehen pertsonako jusiboan, hau da, lehen pertsona pluralari agindu bat zuzentzen zaionean, [aditzoina + *\*edin*] eta [aditzoina + *\*ezan*] —mende-baldean [partizipioa + *egin*]— adizki analitikoak erabili ohi dira: *Mintza gaitezen; Ikus dezagun*. Preseski, forma hauekiko analogiaz, ekialdeko mintzoek [dugun + aditzoina] egitura garatu dute aditz trantsitiboekin: *Dugun ikus; Dugun kanta* (ikus § 26.1.5.4).

**25.1.5c** Aditzoina *arazi* oinarri duen egitura arazleetan ere erabiltzen da (§ 23.2.1.2 eta Euskaltzaindiaren 23. araua, “*Arazi*”): *Libro nintzela sinetsarazi nahi zidaten; Amak semeari egia aitorrarazi zion*.

Ororen buru, euskarak dituen hiru adizki jokaturgabeen artean, aditzoina da erabilera mugatuena duena. Izan ere, testuinguru urrietan agertzeaz gain, euskalki gutik begiratu dute. Perifrasiek ere emankortasun oro galdua duela erakusten dute: euskara historikoan sortu diren perifrasi berriek noiz partizipioa, noiz aditz izena dute oinarri, baina nehondik ere ez aditzoina.

## 25.2. Partizipioa

### 25.2.1. Partizipioa: formak eta erabilerak

Euskararen aditz guztiek ez dute beren partizipiozko forma modu berean erabiltzen. Bi partizipio mota daudela erran daiteke.



**25.2.1a** Lehenik, aditzoinari *-i* edo *-tu* *-n*, *l* ondotik *-du* (*heldu*, *zabaldu*, *lagundu*, *laztandu*)— atzizkia gehituz eratorririkoak daude: *etorr-i*, *ikus-i*, *eros-i*, *has-i*; *har-tu*, *sal-du*, *sar-tu*. Aipatu bi atzizkiak ezin daitezke maila berean ezar, lehen testuetatik, *-i* atzizkiak emankortasun oro galdua baitu, eta *-tu* hedatuena baita. Preseski, —Oihenarten *aberatsi* ‘aberastu’ salbuespenaz aparte— *-tu* beste kategorietatik eratorritako partizipioak eratzeko erabiltzen den atzizki bakarra da: *gizondu*, *loratu*, *zahartu*, *azkartu*, *berandutu*, *gaizkitu*, *aitzindu*. Halaber, mailegu zahar eta berrietan hura da agertzen: *barkatu*, *despeditu*, *kantatu*, *klikatu*, *flipatu*, *haluzinatu*... (ikus § 6.1). Atzizki horren zabaltearen ondorioz, antzina *-i* atzizkia zeramaten partizipio zenbaitek *-itu* gisako partizipio-atzizki pleonastikoa dute (*motzitu*, *hotzitu*, *baltzitu*; *anzitu* ‘ahantzi, ahaztu’ Lazarraga; *haritu* ‘hartu’ Etxepare), eta bestek *-i* osoki ordezkaturia dute (*irakurri/irakurtu*, *ahantzi/ahaztu*, *iratzarri/iratzartu*, *sinetsi/sinistu*...). Edozein kasutan, partizipio-atzizki bat ala bestea erabili, partizipioak bere forma propioa du, aditzoinetik berezia.

**25.2.1b** Partizipio horien ondoan, badira aditzoinetik eratorriak ez direnak eta partizipio-atzizkirik ez dutenak. Bestela erranik, ez dute forma propiorik eta aditzoinaren homonimoak dira. Mota horretako partizipioa duten aditzen artean, *-n* bukaeradunak ditugu: *eman*, *izan*, *ukan*, *joan*, *esan/erran*, *iraun*... Nahiz eta Traskek (1990) proposatu zuen aditz hauek antzina beren partizipioa aditzoinari *-i* atzizkia ezarriz eratzen zuketela (*\*eman-i*, *\*joan-i*, *\*izan-i*...), euskara modernoan ez da hala, eta beraz, forma bat eta bera dugu aditzoina eta partizipioa esperoko genituzkeen tokietan. Halaxe dira, baita ere, *-o* bokalaz (*jo*, *eraso*, *jaso*, *ito*), eta *-ki* morfemaz (*jaiki*, *jarraiki*, *eraiki*, *atxiki*; mendebaldean *-gi*: *ebagi*, *edegi*, *jagi*) bukatuak. Badira, halaber, aditz batetik eratorriak iduri ez dutenak, hala nola adjektibo itxura dutenak (*hil*, *erre*, *ase*, *busti*, *bete*) eta izen postposiziodunak (*atera*, *lehorrera*, *lurrera*, *itsasora*). Germanikoari mailegatutako *gorde*, *bota* aditzek ere forma bera dute partizipioaren eta aditzoinaren testuinguru arruntetan. Bigarren multzo horretako partizipioak gutiago eta bakanago izanik, hizkera batzuetan *-tu* atzizki emankorra haietatik zenbaiten artera hedatu da: *izandul/izatu*, *egondu/egotu*, *bustitu*, *ateratu*, *gorde*, *botatu*, *betatu*. Bizkitartean, euskara batuan partizipio-atzizkirik gabeko formak erabiltzea gomendatzen da.



Aurreko atalean ikusi dugun bezala (§ 25.1), euskalki askok aditzoina galdua dute, eta beraz, aditzoina erabil litekeen testuinguruetan partizipioa baliatzen dute. Baina partizipioa ez da erabilera horietara mugatzen; atal honetan, beste zenbait baliabide gehiago ere baduela ikusiko dugu.

### 25.2.2. Partizipioa eta adjektiboa

Hizkuntzalaritzak aspalditik azpimarratua du partizipioaren kategoriaren arazoa. Izan ere, oinarrian aditza izanagatik, erran genezake partizipioa ez dela arras aditza. Partizipioaren eta adjektiboaren artean gertatzen diren zenbait erlaziok adjektiboaren eite handia duela erakusten digute: izen sintagma batean izenondoan lekuan agertzen ahal dira partizipioak, baita perpaus batean predikatu osagarri gisa ere.

**25.2.2a** Hurrengo adibide hauetan agertzen diren partizipioak izen sintagma baten barnean daude: *Bago erorira egurkari guziak laster ari dira* (Oihenart); *Harri erabilik eztu biltzen oroldirik* (Oihenart). Bi adibide horietan *erori* eta *erabili* partizipioak, beste izenondoak bezala, izenaren eskuinean ezarriak dira, eta hondarkia haiei zaie lotzen. Molde horretako partizipioak beste izenondo batekin ere elkar daitezke: *Haur polit eta ikasi batengana hurbildu nintzen*.

**25.2.2b** Partizipioa predikatu osagarri gisa ere erabil liteke. Euskara zaharrean partizipio soila, hau da, beste markarik gabea genuen halakoetan: *Benedikatu dela Jaunaren izena*; *Ene zezenak eta harakei gizenduak harakeitatu dirade* (Leizarraga); *Zamariak joan direnian, establia zerra* (Zalgize). Gaur egun, berriz, partizipioa predikatu osagarri gisa erabiltzekotan, *-a(k)*, *-(r)ik* edo *-ta* atzizkiak lotzen zaizkio, euskalkien arabera: *Benedikatu izan bedi Jaunaren izena*; *Autoa konponduta dago*; *Gutunak igorririk daude / igorriak dira*. Egitura predikatibo horiek erresultatibo ere izendatu ohi dira (Nedjalkov & Jaxontov 1988; Comrie 1976), beste predikatu osagarrietatik bereizteko (ikus 24. kapitulua). Izan ere, partizipioarekin egiten diren predikatuek seinatzen dute partizipioak, aditz gisa, adierazten duen ekintzaren ondorioa: *Etxe*

*hori tindatua da* (tindatzearen ondorioa); *Liburu hauek salduta daude* (saltzearen ondorioa); *Atea itxirik da(go)* (ixtearen ondorioa) vs *Etxe hori itsusia da*; *Gaur egungo haurrak handiak dira* (adibide hauetan adjektiboak egoera bat/kalitate bat adierazten du, ekintza baten ondorioa ez dena).

**25.2.2c** Aitzineko adibideek erakusten duten bezala, gaur egun partizipioak zentzu pasiboa du gehienetan: (*zerbait*) *ikusia*, (*zerbait*) *ikasia*. Halere, euskara zaharrean interpretazio aktiboa ere izan zezakeen: *O Jainko hoinbertze mirakulu egina, salba gaitzazu*; *Anitz ikusia, guti ikasia* ‘anitz ikusi duenak, guti ikasi du’. Interpretazio aukera bikoitz hori partizipioa oinarri duten egitura perifrastiko zenbaitetan hautematen dugu. Adibidez, *Esanik dago* perpausak irakurketa hauek izan ditzake: a) oraingoan *dena esanik dago*, hots, ez da ezer gaineratzekorik (partizipioaren interpretazioa: pasiboa; perifrasiaren balioa: erresultatiboa); b) ez zenuen nahi hark jakin zezan. Beranduegi da, ordea: segur naiz dagoeneko norbaitek *esanik dagoela* (partizipioaren interpretazioa: pasiboa; perifrasiaren balioa: erdi-pasiboa); c) ez zenuen nahi Patxik inori esan ziezaion. Beranduegi da, ordea: segur naiz dagoeneko bati baino gehiagori *esanik dagoela* (partizipioaren interpretazioa: aktiboa; perifrasiaren balioa: antipasiboa).

**25.2.2d** Partizipioa *-tzat* postposizioa harturik ere ager dakiguke predikatu osagarri gisa (ikus § 24.3.5.2a): *Bilkura amaitutzat eman zuten*; *Partida galdutzat emazu*.

### 25.2.3. Partizipioa eta izena

**25.2.3a** Euskaraz, beste hizkuntza askotan bezala, partizipioa izenaren erduan ere ager daiteke. Halakoetan, partizipioari dagozkion osagarriak izenak berarekin eramaten dituenak dira, ez aditzarenak, hala nola izenlaguna: *Zure esanak ez ditut sinesten*; *Aitamen erranetarik barna ibili bagina* (kantua: *Nevadara joan nintzen...*); *Ororen jakinean*; *Oiloen jana prestatzen ari da*; *Zein izan da zure lanaren ekarria?*; *Begiratu bat emaiozu honi*. Delako erabilera ez da, haatik, partizipio guztiena; alderantziz, guti dira izen gisa har eta erabil

daitezkeenak, eta dirudienez, ondare zaharreko aditzak dira gehienak: *esan, izan, ekarri, jan, edan, itzuli, estali, jauzi, hazi, jauntzi, ebaki, isuri* —ukitu eta *begiratu* dirateke berri bakarrak—. Bestela erranik, partizipio mailegatuek ez dute izen erabilerarik (\**barkatua, \*dantzatua*), non ez zuten jadanik erabilera hori hizkuntza emailean, adibidez, *merkatu*. Partizipioetatik sortu ziren izen zenbait lexikalizaturik geratu dira hizkuntzan (*esan zaharrak, hilak, irabaziak*...), eta beste batzuk partizipio erabilera galdu eta oso-osoan dira izenak (*erauntsi, bizi*...). Gauza bera esan genezake bi aditz elkaturik moldatzen diren izenez: *joan-etorriak, har(tu)-emanak, sal(du)-erosiak*...

**25.2.3b** Partizipioa zenbait esaeratan ere agertzen zaigu izen itxurarekin. Hala, *ezin*-ekin elkaturik, izen bat edo aditz izen bat osa dezake: *Ezin egonak hartua zen gure mutila; Utz ditzagun elkar ezin ikusiak eta gatazkak; Aitari ezin mintzatuak kezkutzen ninduen*. Halaber, partizipioa aditz izen bihurrazten dugu *huts* adjektiboarekin: *Frankfurteko jaunak etorriko ziren eta aita ikara batean zegoen bilera horretako emaitzetan pentsatu hutsarekin* (J. Zabaleta); *Nik ez nuen bide hartatik jarraitu nahi, ezen, izen hura entzun hutsarekin erraiak sutan jartzen zitzaizkidan* (Igerabide); *Baina ikusi hutsarekin, ukitu gabe, bereiziko ote lituzke esfera eta kubo?* (Olarra). Halere, aditz izena ohikoagoa da testuinguru horretan: *Horren orde, arrazoimena bera eta bere pentsatze hutsa soilik dira nire autugaia* (Uribarri); *Ekartze hutsa, mila duro kosta zaio* (Perurena); *Ikuste hutsak poz ematen dit* (Perurena). Partizipioa errepikatzean, edo *bortxaz* eta *ariaz*-ekin erabiltzen dugunean ere izen itxura du: *esanaren bortxaz; ikusiaren ariaz; ikusiaren ikusiaz; Behatuaren ariaz, ikasia bezala nuen* (J. Etxepare). Era berean, zenbait aditz *zer* galdetzailea erabiltzearen ondorioz, arras izen bihurtu zaizkigu: *zeregin, zeresan, zerikusi*.

#### 25.2.4. Partizipioa mendeko perpausetan

Partizipioa mendeko perpaus jokatu gabe zenbaiten aditza da batzuetan. Hori gertatzen da, hain zuzen ere, gorago aipatu diren kasuez bestalde (§ 25.2.2b), erlatibo laburtuetan eta perpaus osagarri eta adjuntu zenbaitetan. Hemen hiru

testuinguru hauen deskribapen labur-laburra eginen dugu, perpaus mota bakoitzari dagokion atalean sakonkiago azalduko baitira.

**25.2.4a** Perpaus erlatiboak labur daitezke adizki jokatua kenduz eta soil-soilik partizipioa utziz (ikus “Perpaus erlatibo jokatugabeak” § 31.5): *goizean etorri den gizona* → *goizean etorri gizona*. Mendebaldean eta erdialdean, erresultatiboaren marka *-(r)ik* edo *-ta*) lotzen zaio, eta *-ko* atzizkia eranstean: *goizean etorritako gizona*; *goizean etorririk(a)ko gizona*. Zenbait hizkeratan nahikoa izaten da *-ko* zuzenean eranstea partizipioari, besterik gabe: *goizean etorriko gizona*; *goizean entzuneko gezurra*; *Pellok aipatuko gizona*. Perpaus erlatibo laburtuak modifikatzen duen izen ardatza ezaba daiteke, eta ondorioz, partizipioari zuzenean lotzen zaio mugatzailea: *etxean ikusia*; *umeak ikasia*... Halakoetan, duda izan genezake partizipioa arras izen itxuran dagoen ala erlatibo laburtu bat den. Gehienetan molde horretako partizipioen adiztasuna ongi ageri da, partizipioaren ondoan osagarri gramatikalak nahiz *-ko* gabeko adizlagunak ager baitaitezke: *Zuk esana ez da egia*; *Alkoolari emanek ez dute ardorik edan behar*; *Atzo Parisen gertatuek harriturik utzi naute*. Erlatibatzearen ondorio ez diren partizipioen kasuan, berriz, ez da hautematen ardatzik isildu denik, eta arras izen bihurtuak dira. Adibidez, *Badira gauzak gure giza kondizioan saihestu ezin ditugunak, hala nola janean eta edanean hartzen dugun atsegina, gosea edo egarria daukagunean* (J. M. Lekuona) perpaus, *jan* eta *edan* izen gisa erabiliak dira, baina nekez kontsidera genezake perpaus erlatibo laburtu baten aditzak ditugula. Hau da, ez dugu uste *janean* eta *edanean* sintagmetan ardatza isilean dagoenik edo *jan* eta *edan* partizipioen *nor* sintagmari dagokionik. Izatekotan ere, *jan*-ek eta *edan*-ek hemen aditz izenaren balioa dutelakoan gaude, hala nola gertatzen baita honako bi adibideotako partizipioekin: *Geure ele gaisoa ostikopean darabilen ele arro maminbakoa olan ostikatuta ikusiak neure barru guztia berez gozatu eustan* (Kirikiño); *Anhiz iana, eta anhiz edana da hontara nakarrana* (Oihenart). Azken adibide horretan, Oihenartek ematen duen frantsesezko itzulpenak ez digu zalantzarik uzten partizipioaren izaeraz: “Le manger beaucoup et le beaucoup boire m’a réduit à ceci”. Beste kasu batzuetan, dudazkoa da nola sortu den partizipioaren izen erabilera; *izan* aditzarekin, esate baterako. Zenbaitetan erlatibatzeari dagokiola iduri luke, baina besteetan, ordea, ez: *Ez izana ez da baitezpada ezin*

*izana* (Hiriart-Urruti gaztea); *Honek dute alegrantziaren izena eta izana, eta gaiztoek izena eta ez izana* (Axular). Lehenbiziko adibidean, *izana* aditza dela pentsa daiteke, horren ordez, *Ez gertatua ez da baitezpada ezin gertatua* esan baikenezake. Bigarren adibidean, berriz, *izana* aditz izenari dagokiola ematen du, *izate* edo *izaera*-ren balioa baitu. Sozietiboaren marka lotzen zaiolarik, partizipioak maiz hartzen du balio hau: *Harrituarekin geldi-geldia zauden* (Lafitte).

Zenbaitetan, partizipioa oinarri duten erlatibo laburtuak aposizioen eraikitze-ko erabiltzen ditugu: *Atso bi, jeiniñoz erre-erreak, alkarregaz asarratu dira* (Kirikiñño); *Sinaico mendian eman zien legea, letraz ezarria, eta deitzen zaio Moisesen legea* (Agirre Asteasukoa). Hauetan partitiboa ere lotzen ahal zaio partizipioari: *Edan niro basoa beterik* (kantua: *Nik badakit...*). Batzuetan, aposizioan diren perpaus jokaturgabe horiek beren autonomia hartzen dute, eta bakarrik agertzen dira, maiz halako balio adberbiala hartzen baitute (maize-nean kausazkoa edo kontzesiboa): *Aita-amek hain artoski altxatua, ez diotet ahalgerik eman nahi* (Lafitte); *Arras gosetua* (*goseturik*), *ostatu batean sartu nintzen*.

Partizipioa erlatibo libro laburtu batean ere ager daiteke *egin* aditzarekin, norbaiten alegiazko jarrera adierazteko: *Ez ikusiarena egin zuen*. Hor, *ikusi ez duenaren itxura* edo gisa horretako erlatibo baten aditza da *ikusi*.

**25.2.4b** Partizipioa perpaus osagarri zenbaitetan ere kausitzen da. Modalitate predikatu batzuek (*behar, nahi, gogo...*) partizipioa buru duen perpaus jokaturgabea hartzen dute osagarri gisa: *etorri behar duzu; joan nahi dut; ikusi gura duzue; mintzatu gogo dugu; etorri gogo zuen*. Ekialdeko euskalkietan *uste*-rekin ere agertzen ahal dira horrelako perpausak: *Saindu batek bezala hil uste duenak...* (Axular). Halaber, predikatu psikologiko zenbaitek (*barkatu, oroit, urriki ukan...*) partizipiozko perpausa dute osagarri; kasu horretan, partizipioa partitiboarekin edo artikululu singularrarekin agertzen da: *Barkatu berant jinik* (= *berandu etorria*); *Oroit naiz han ikusirik*; *Kontent naiz zure eza-gutza eginik*; *Pozten naiz zu ikusia*; *Nik zer kulpa daukat zuk seme asko hazia?* Halakoetan, egoera burutu bat adierazten du partizipioak, egoera burutugabe bati erreferentzia egiteko beste adizki jokaturgabe bat erabiltzen baita, aditz

izena instrumentalean, hain zuzen: *Kontent naiz zu(re) ikustez* (agurtzean) vs *Kontent naiz zu ikusirik* (despeditzean). Preseski, balio burutu horren indartze-ko, euskalki zenbaitek *izana* gehitzen dute partizipioaren ondotik: *Kontent naiz zu ikusi izana*; *Damu dut egia esan izana*; *Dolu dut azartu izana*. Aholku baten emateko, *hobe izan* lokuzioak ere partizipioa har dezake osagarri gisa, absolutiboan edo partitiboan: *Hobe duzu han berean egon/egonik*; *Ixil hobe huke atxiki mihia* (Goihetxe). Kasu horretan, partizipioak ez du balio aspektual berezirik ekartzen eta aditz izenaren baliokidea da: *Hobe duzu han berean egotea*. Eskerrak emateko, ekialdeko euskalkiek partizipioa buru duen osagarria erabiltzen dute, partizipioak partitiboa duela: *Milesker zure sustengua emanik*; *Milesker honaino jinik*.

**25.2.4c** Perpaus adjuntu zenbaitek ere partizipioa dute (azterketa sakonago baterako, ikus § 23.3.1h). Zehatzago, partizipioa postposizio batekin ager da-kiguke: *ikusi arte* (*artio*, *artino*); *zuk egin artean* (*bitartean*); *aita etorri ondoan* (*ondoren*, *ostean*); *bazkaldu eta*; *bazkaldu aitzin(ean)* (*aurretik*); *ama heldu ordu(ko)*; *hau egin lekuan* (*beharbidean*, *ordez*); *ikasi faltan*; *haurrak sartu arau* (*ahala*); *lan eginarren*; *lan eginagatik*. Sail berean sar genitzake denborazko edo moduzko erkaketak: *lokartu bezain laster* (*sarri*, *fite...*); *hautsi baino lehen*; *etorri bezala joan zen*. Gauza bera suertatzen da partizipioa gabe-rekin erabiltzen denean: *Ni ondoan esertzen nintzaion*, *ohe ertzean*, *kontu handiz zangoak azpian hartu gabe* (Saizarbitoria); *Gezurra esango nuke dardara egin barik ikusi nituela esango banu* (Jimenez). Ekialdean denborazko balioa ere izan dezake zenbait aldiz itzuli honek: *Bero bat izigarria baitzen*, *etxerat heldu gabe*, *bere burra guzia urtua zuen* (Barbier) (= heldu aitzin). Partizipioa forma hutsean agertzen da *nahiz eta* erabiliz moldatzen diren kontzesibo jokatugabeetan ere: *Nahiz eta handia izan*, *ez zen apalera heltzen*.

Kasu horietaz aparte, partizipioa perpaus adjuntuetan aurkitzen delarik, partitiboarekin, edo postposizio batekin agertzen da. Preseski, maiztasun handiarekin agertzen zaigu partitiboaz markaturik aurrekotasuna eta modua edo bidea adierazteko: *Ele horiek entzunik*, *etxera itzuli nintzen*; *Sardea tripan sarturik hil zuen* (Lafitte). Baina ere partikula darraionean, kontzesiboa markatzen du: *Hortakotz ere Gilenen gaixtakeriek hanbat min eginik ere*, *ixilik egon behar*

(E. Etxamendi); *Nornahik esanik ere, ez nezake sinets*. Jakina, partitiboaren lekuan *-ta* ere erabil daiteke, hau da, mendebaldeko eta erdialdeko bigarren erresultatibo marka: *Aurretik doa bera, eta ni eskutik helduta narama* (Aristi); *Alde eginda ere, beti aurkitzen gaituztela, beti itzultzen garela autora* (Atxaga). Instrumentala partizipioari erantsiz, modua edo bidea adierazten duten perpausak molda ditzakegu, honako adibideotan ikusten den legez: *Lan eginez ikasi egiten da; Zurekin mintzatuz anitz ikasi dut; Bertze bat, piltzarrez lepo beharriak kukutuak ipar haizeak azpitik goiti daldaratzuz, ukurturik badoana* (J. Etxepare). Halakoetan instrumental mugatua lot dakioke partizipioari: *Zurekin hitz eginaz asko ikasi dut; Bihamon goizean deitu eban, “hemen nago holantxe eta holantxe” esanaz* (X. Amuriza). Instrumentalaren ondoan *bat(era)* agertzen bada, perpausak denborazko balioa hartzen du: *Irakaslea sartuaz batera, ikasleak isildu egin ziren; Hitzak esanaz batera, leihorantz jiratu zuen burua* (Gorrotxategi). Haatik, partizipioa instrumentalean *gero((z)tik)* postposizioarekin batean agertzen bada, perpausak kausazko edo denborazko balioa izan dezake: *Aitak erranez geroz, sinetsazu* (Lafitte); *Lagunak joanez gero bakarrik egon naiz; Algar ikusiz geroz, urte bat igaran da* (Casenave-Harigile).

### 25.2.5. Partizipioa juntadura perpausetan

**25.2.5a** Hegoaldeko euskalkietan, bi adizki analitiko koordinatzen direnean, maiz lehen adizkiko laguntzailea isiltzen da, eta adizki nagusiak partizipioaren itxura hartzen du. Horrela, partizipioa aditz izenarekin edo partizipio prospektiboarekin elkar daiteke, aurretik doanean: *Gauza asko ikusi eta entzuten du; Ikusi, entzun eta ezagutuko balute ere, halako agerpen fantasmagoriko bat senide, ahaide, adiskide eta burkide zaharren osasunerako kaltegarri izan ziteke[n]* (J. L. Zabala). Koordinazio mota bera dugu adizki analitiko bat adizki sintetiko batekin elkartzen delarik: *Tentel aldra bat, erderas ‘intelectuales’ izena eurentzat artu ta darabillena* (Kirikiño). Bi perpaus jokaturgabe elkartzean ere, lehenean partizipioa ager daiteke: *Bere izate moralaz zartatu eta erortzen sentitu zuen* (Aldasoro); *Florak apaletan flasko, pote eta gainera-koak kendu eta jartzean ateratzen zuen hotsa* (Saizarbitoria); *Ezin du gehiago*



*eskatu herriak, bere burua egia eta gezur bete horiekin entretenu eta apaintzearekin aski baitu (Perurena).*

**25.2.5b** Gorago deskribatu bezala (§ 25.1.3), ekialdeko euskalkietan koordinazioa beste gisa batez gauzatzen da. Bi adizki analitiko edo bi perpaus elkar-tzen direnean, lehen aditzak partizipioaren itxura baino, aditzoinaren itxura har dezake —eta laguntzailea isil, adizki analitikoaren kasuan—. Hala ere, mintzo hauetan, bi adizki analitiko koordinatzean arruntagoa da bigarren laguntzailea isiltzea; kasu horretan, adizki nagusiak bere aspektu marka begiratzten du: *Etxera itzuliko naiz eta segidan lanari lotuko; Goiz guziz ikusten dut eta elekatzen*. Perpaus jokatu gabek elkartzean ere bakoitzak bere postposizioari eustea da ohikoena, nahiz eta koordinazioaren lehen partean partizipioa duen adibiderik biltzen den literaturan: *Auto baten saltzeko edo erosteko; Iku-si nuen haur bat baratzean sartzen eta enegana hurbiltzen baina Hemen berean nintzen, oilaskoak lumatu eta husturik, apailatu nahi nituen (Lafitte); *Gehiegikeria horiek entzun eta ikustean, Frantzisko dohatsuak, esan bezala, errieta egiten zien eta halakorik ez egiteko agintzen* (Asisko Frantzisko).*

### 25.2.6. Beste erabilera zenbait

**25.2.6a** Partizipioa aipamenezko forma da egungo hizkera guztietan, bai erdarazko aditz baten ordaina ahoz ematean, bai hiztegi-tan. Ez bide da beti hala izan, Erronkaribarrean eta Zuberoako herri batzuetan aditzoina bildu izan baita. Gogoan izan dezagun, baita ere, Iparraldeko hiztegi zahar askotan aditzak aditz izenaren itxuran agertzen direla.

**25.2.6b** Desafiatzeko *baietz* edo *ezetz* erabiltzen da, eta hizkera batzuetan ikusmiran ezartzen den gertaera edo ekintza partizipioaren bidez adierazten da: *Larri ibilli baietz (Kirikiño); Ezetz harri hau altxatu; Ezetz harrapatu!; Apustu egingo dizut nirea baietz, bota arbola-ipurdi hura baino urrutirago (I. Mendiguren).*

**25.2.6c** Partizipio huts-hutsa erabil daiteke *egin* eta *irudi*-rekin ere: *Badakit [...] ez ikusi egingo deutzazuna (Otxolua); Ez ikusi iduri eginik (Axular).*



**25.2.6d** Tituluetan eta zenbait modismotan ere partizipioa adizki laguntzaile barik erabiltzeko joera izaten dugu. Hala ere, behar izanez gero, geroaren marka erants dakioke horrelakoetan: *Eusko Jaurlaritza bihar bilduko*; *Poliziak 200 kg heroina aurkitu*; *Geroak erranen*; *Gero ikusiko*; *Ikusiak ikusi*; *Erranak erran*; *Abiatuan abiatu*; *Hasian hasi* (J. B. Etxeberri); *Sartuan sartu* (J. B. Etxeberri).

**25.2.6e** Forma jokatugabeak fokalizazio baten ondorioz ere ager daitezke. Zenbaitetan partizipioa dugu orduan kausitzen, eta beste batzuetan, berriz, aditz izena: *Lapurrak ba geure gauzea ostatua daroa bana geu ez garoaz, ta barriz, bakaldun orrek dagiena da*: *gizonak eurak ostu osagun guztiakaz, gizonai aberria ostu* (Kirikiño); *Ez dauke gogoan beste gauzarik: il, erre, apurtu, kiskaldu, birrindu, ezereztu, ... Odola ixuri, negar eragin, ikaratu ta beldurtu mundu guztia* (Kirikiño); *Sobera akitu gabe egin zuten errepublikanoek erresumaz jabetzea* (Hiriart-Urruti gaztea); *Bertze gauza bat, erreboluzioneko gizonak, gure mendean egiten dutena da kargu guzietarik khentzea Eliza gizonak, berak heien orde edo plazan emaiteko* (M. Elizanburu).

### 25.2.7. Partizipioa oinarri duten adizki analitikoak eta perifrasiak

**25.2.7a** Ugari dira partizipioa oinarri duten egitura analitikoak. Lehenik, partizipioa bere forma soilenean —hau da, atzizkirik gabe— oinarri dutenak daude. Hauen artean, [-tu + *izan*/\**edun*] adizkia da segurki ezagunena. Laguntzailea *tempus* edo aldi orainean duela, perfektua edo iraganaldi hurbila adieraz ditzake (ikus § 26.6.1.1.2 eta § 26.6.1.2.2); laguntzailea aldi iraganean jokaturik, berriz, iraganaldi burutua adierazten du (§ 26.6.1.2.2): *Dimisio-gutuna idatzarazi dit*; *Goizean ogia erosi dut*; *Lehendakari berria iaz ezagutu nuen*; *Etxera iritsi zenean, konturatu zen egoera aldatu zela*. Egitura analitiko birkonposatuek ere partizipioa dute oinarri (*ikusi izan dut*; *erran izan/ukan dut*) (ikus § 26.6.1.1.2), baita erdi-pasiboek ere (*jantzi asko haurrek eginak dira*) (§ 23.2.2.8.3).

**25.2.7b** Euskalki arkaiko guztiek ohitura adierazteko adizki analitiko berezi bat zuten, partizipioaz eta *joan* (intransitiboekin) eta *eroan*, *eraman* (transitiboekin) laguntzaileez osatua: *Ao itxian eztoa sartu eullia, ta aldi guztietan*

*ezta eder egia* (RS 123); *Mundu honec anhez gende enganatu darama* (Etxepare). Forma horrek XIX. mendera arte iraun zuen Bizkaiko xoko zenbaitetan: Olaetxea (1763), Añibarro (1821) eta Mogelen (1881) testuetan nasaiki biltzen da, eta Astarloak (1803, 1883 [1805]), Añibarrok (1969: 77) eta Zavalak (1848) deskribatzen dute beren gramatiketan (ikus, halaber, Azkue 1923-1925: § 883, § 934).

**25.2.7c** Mendebaldeko hizkerek [aditzoina + \**ezan*] adizkia XVII. mendean berean baztertu zuten, [partizipioa + *egin*] adizkiaren onetan. Orduz geroztik, beraz, azken molde analitiko hori erabiltzen da indikatiboaz bestelako moduetan, hau da, subjuntiboan (*nahi dut egin dagien*), aginteran (*hartu egizu!*; *topa dagigun!*) eta ahaleran (*esan daikezu*). Partizipioa *eragin* oinarri duen egitura arazleetan ere erabiltzen da hizkera hauetan (§ 23.2.1.2 eta Euskaltzaindiaren 23. araua, “Arazi”): *Ballet mécanique* filmean *Fernand Léger-ek ziburu baten muturrean jarri zuen kamera bat, eta filmagaitik urrundu eta hurbildu eragin zion, mugimendu hori inolako begi diegetikori atxiki ezin zitzaiola* (J. Zabaleta).

**25.2.7d** Partizipioa instrumentaleko postposizioaz jantzirik ageri zaigu [-tu(a)z + *joan*] perifrasiari. Aldaketa gradual baten berri emateko erabiltzen da: *Edertuz doa eta hedatuz Baionako hiria* (Hiriart-Urruti); *Antton jauna gero eta zaharrago bilakatuz doa* (U. Apalategi); *Babazuza eta harrizko uri bat heldu da etxeko berinen xeakazterat eta galernaren hasarredura berratuz doa* (Daskonagerre).

## 25.3. Aditz izena

### 25.3.1. Formak eta erabilerak

**25.3.1a** Aditz izena aditzoinetik eratorria da, euskalkien eta garaiei arabera, *-te*, *-tze*, edo *-(k)eta* atzizkiak gehituz. Euskara batuan, *-te* eta *-tze* dira aditz izena eratzeke erabiltzen diren atzizkiak (ikus Euskaltzaindiaren 85. araua: “Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma”). Zehatzago:

Aditzoina -n kontsonantez eta txistukariz bukatua duten aditzek -te atzizkia hartzen dute: *egon* → *egote*, *iraun* → *iraute*, *eman* → *emate*, *izan* → *izate*; *haz* → *hazte*, *ikas* → *ikaste*, *hauts(i)* → *hauste*, *euts(i)* → *euste*, *hobets* → *hobeste*...

Gainerakoek -tze atzizkiaren bitartez osatzen dute aditz izena: *etor* → *etortze*, *har* → *hartze*, *jo* → *jotze*, *eduki* → *edukitze*...

**25.3.1b** Molde horretan eratutako izen multzo zabal bat bada euskararen lexi-koian, adibidez, *haste*, *sartze*, *sineste*, *sortze*... (ikus § 4.5.9, § 30). Izen horiek izen sintagmako ardatz nagusia dira, eta beraz, izenlaguna eta adjektiboan har ditzakete, izen ororen gisan: *Liburuaren hastean orri bat falta da*; *Ez dezagun gal geure arbasoen sineste sendoa*; *Sartze guztiak hertsia izanez gero, kanpoan gelditu ginen*.

**25.3.1c** Baina aditz izena perpaus jokatugabeetan erabiltzen da gehien. Horietan badu, bai aditzetik, bai izenetik. Gainera, izaera bikoitz hori ez da beti modu berean gauzatzen, perpausen eta euskalkien arabera, batean izen baten gisan erabiltzen baita, bestean aditz baten itxuran. Hala erakusten digu, behintzat, osagarri gramatikalen eta adizlagunen tratamenduak. Adibidez, zenbaitetan, subjektuari dagokion izen sintagma genitiboan agertzen da (izenlagun gisa, beraz), eta beste batzuetan, berriz, kasu gramatikal batekin (ergatiboan nahiz absolutiboan): *mendizaleen jaustea* / *mendizaleak jaustea*. Halaber, zenbaitetan adizlagunei dagokien sintagmak -ko atzizkia hartzen du (izenlagun bilakatuz): *menditik jaustea* / *menditikako jaustea*. Objektu zuzenari doakion sintagmaren tratamendua ere aldakorra da: batzuetan absolutiboan da, bestetan genitiboan (ekialdean), eta beste zenbaitetan kasu markarik gabe, izen elkarketa bateko elementu modifikatzaile izaki: *biperrak biltzea* / *biperren biltzea* / *biper biltzea*. Ohargarria da, aditz izenen kasuan, subjektuaren, objektuaren eta adizlagunen tratamenduak ez datozela beti bat perpaus berean. Adibidez, aditz intrantsitiboekin gerta liteke subjektua genitiboan agertu arren, adizlaguna -ko gabe gelditzea, hau da, aditz izena izen gisa agertzea subjektuaren eratzean, eta aditz gisa adizlagunaren aurrean: *mendizaleen menditik jaustea*. Halaber, aditz trantsitiboekin subjektua ergatiboan erabili arren, objektu zuzena dagokion kasu gramatikalean (absolutiboan) agertu ordez, geniti-

boan azal dakiguke (izenlagun baten itxuran, beraz): *hurrek paper zikinen biltzea*. Erran gabe doa lehen kasu horretan aditz izena oso-osorik izen zein aditz gisa tratatzea ere zilegi dela: *mendizaleak menditik jaustea* vs *mendiza-leen menditikako jaustea*. Halaber, aditz trantsitiboekin, objektua absolutiboan ezar daiteke, aditz izena arrunt aditz gisa erabiliz (*hurrek paper zikinak biltzea*), edo, bakanago gertatzen bada ere, izenen moduan ere trata daiteke aditz izena, objektua elkarketa batean sarraraziz eta subjektua genitiboan emanez: *zure liburu saltzea* (edo *haurren paper biltzea*).

**25.3.1d** Aditz izena perpaus jokatu gabe mota askotan ager daiteke, horretarako, kasu edo postposizio jakin batzuk gehitzen zaizkiola. Hemen, aditz izenak dauzkan erabilerak kasuz kasu eta postposizioz postposizio zerrendatzera mugatuko gara, horietatik bakoitza berriz tratatua izanen delako mendeko perpaus jokatu gabe edo dagokien atalean.

### 25.3.2. Aditz izena eta kasuak

Aditz izena ergatiboan, absolutiboan, partitiboan, datiboan eta genitiboan ager daiteke.

**25.3.2a** Aditz izena ergatiboan agertzen denean, aditz trantsitibo baten subjektua da: *Hura zurekin ikusteak harritu ninduen*; *Idazle zaharren irakurtzeak munta handia du guretzat*. Ohart gaitezenez, dena dela, *balio izan*, *plazer egin* bezalako predikatuekin aditz izena absolutiboan ere ezar daitekeela: *Ez du balio horrenbeste lan egitea* / *Ez du balio harrituarena egiteak* (Landart); *Plazer egiten dit zure ikusteak* (X. Arbelbide) / *Plazer egiten du solas batean onartua izatea* (Luku).

**25.3.2b** Aditz izena absolutiboan izatekotan kasik beti mugatua da, eta agertzen den perpausa aditz trantsitibo baten objektua edo aditz intrantsitibo baten subjektua izan daiteke: *Hemendik joatea debekatu digute*; *Aitari esatea ahanzi dut*; *Eder da herriarentzat hiltzea* (Lafitte); *Laket dut haurrarekin jolastea*. Zenbait predikaturekin (*gaitz izan*, *neke izan*, *erraz izan*...), mendeko perpauseko aditz izena absolutiboan beharrez inesiboan ager daiteke:

*Errex da erortzen, gaitz da berriz xutitzen* (Lafitte); *Gaitz da ba ulertzen* (Kirikiño). Ekialdean, *behar*-ekin aditz izena forma hutsean geldi daiteke: *Ez dut errate beharrik; ez zela urrun joaite beharrik hortako* (Etxarren); *Hil ala biziko egokitze beharra* (X. Videgain).

**25.3.2c** Partitiboa guti erabiltzen da *izan, ukan, egon* eta *eduki* aditzekin ez bada. *Ahala* edo *beharra* adierazten da horrela, sarritan: *Ez dago harekin hitz egiterik; Opor onen pasatzeko ez duzu urrun joaterik; Horretan ez egoan sar-terik* (X. Amuriza); *Nik hona etortzerik ez banuen zu niregana joango zinela ziurtatzen zenidan* (X. Mendiguren Elizegi).

**25.3.2d** Aditz izena datiboan agertzen da, datiboa manatzen duten aditzen osagarria delarik: *Modu horretan hitz egiteari barregarri deritzot; Etxeko lanak egiteari ekin zitzaion; Gurasoek ere hitz egiteari utzi diote* (Lertxundi); *Nola dabilan jakiteari behatu gogo naiz* (J. Etxepare). Joera bat adieraz dezake eman aditzarekin (*edateari emana*), eta ari *izan* aditzarekin ager daiteke: *Badira ere beharrik beste batzu [...] ari direnak fedearen argitzeari eta itxura berritzeari* (Hiriart-Urruti gaztea).

**25.3.2e** Aditz izena genitiboan kausitzen dugu zenbait predikaturekin edo postposizioekin: *Montmartren liburu-saltzaile izateak ez du antzik, noski, Tolosako legebiltzarreko kide, Auzitegi Goreneko kargudun, eta Ediktuen Ganberako komisario izatearen aldean* (Jon Muñoz); *Kanpoan egotearen eta alkohol gehiegi edatearen bortxaz ahuldutako soinek ez zuten ihardukitzeko kalipurik* (Borda); *Errusia orain arte Georgian izan duen eragina Washingtonen mesedetan galtzearen beldur da* (Berria). Genitiboa *behar*-ekin ere erabil daiteke, batzuetan mugagabeen: *Ez dut esate(a)ren beharrik; Hainbat hobe: gisa huntako lanek baitute beti osatzearen eta hobetzearen beharra* (Duhau).

### 25.3.3. Aditz izena eta postposizioak

Aditz izena hainbat postposizio erantsirik ager dakiguke, hala nola instrumentala, soziatiboa, inesiboa, ablatiboa, adlatiboa, muga adlatiboa edo *-ko, -agatik, -arren* postposizioak.

**25.3.3a** Aditz izena instrumentalean ere ager daiteke. Zubereraz, moduzko perpaus jokatugabeak osatzeko erabiltzen da, baina betiere mugagabeen: *Las-toa ikusi bezain sarri, arrotza ahospez etzan zen lastoaren gainean, hasperen baten egitez* (Davant); *Ortografian in erabiliko dügü lapurtar xixtema erdizka hartzez* (Peillen). Instrumentala manatzen duten predikatuek aditz izena instrumental mugatuan hartzen dute: *Pozten naiz zu hemen ikustez*; *Biltzarraren antolatzeaz arduratu da*; *Ahalegin berezi bat egitez mintzatu ziren*; *Haurrei tratu desonestak egitez akusatua izan da* (Herria); *Ohartu da bere huts egitez*; *Ez naiz fio harekin joateaz*. Aditz izena instrumental mugatuan postposizio batekin ere ager daiteke (*gero, gain(era), bestalde*): *Etxera itzultzeaz geroz zoriontsu da*; *Etxea garbitzeaz gain, afaria prestatu zuen*; *Han eskola egitez bertzalde doktoragoa apailatu zuen* (Lafitte).

**25.3.3b** Aditz izena soziatibo mugatuan ezar daiteke denborazko balio baten erdiesteko (cf. *herriko bestak larunbatarekin hasi ziren*): *Egun handia hurbiltzearekin, kezkek ez zioten gogoa pausatzeraz uzten* (Bidegain); *Planta hartan ikustearekin, amak erraiten dio: “Bainan ez duk beraz sekulan deusik ongi eginen?”* (Barbier). Aldiberekotasuna adierazteko, *batera/batean* postposizioa gehitzen zaio soziatiboan den aditz izenari: *Tontorra ikustearekin batera mendizalea zorabiatu zen*; *Eta madarizione hoi erraitearekin batean, itsusi itsusia, farrandaka, Laminhandi bat joan zitzaioten su-phizkiari goiti* (Barbier).

**25.3.3c** Aditz izena inesibo mugagabeen edo mugatuan ager daiteke. Jakintza edo hautemate aditz zenbaitek inesibo mugagabea (*-t(z)en*) eskatzen dute perpaus osagarrian (besteak beste, *ikusi, entzun, hauteman, jakin, ikasi, aditu, ahantzi/ahaztu*); kasu horretan, aditz izenaren subjektua eta perpaus nagusiko aditzaren argumentuetarik bat erreferentziakideak dira: *Sartzen entzun dut*; *Ingeleseaz mintzatzen ikasi duzu*; *Ebasten ikusi dut*. Gisa berean, *ohitu, usatu, utzi, lagundu* (mendebaldean), *izan, egon* aditzekin perpaus osagarriko aditz izena inesibo mugagabeen dago: *Lagundu zidan autoa konpontzen*; *Horrela lan egiten ohitua naiz*; *Ura irakiten utz ezazu*; *Izan da aitaren ikusten*; *Egon da kabalak zaintzen*. Aditz horietarik batzuek beste aditz izen mota bat ere har dezakete osagarri gisa, eta modu horretan, beste ñabardura semantiko bat eka- rri. Adibidez, *ahantzi/ahaztu* aditzarekin bereizketa bat ageri da aditz izena

inesibo mugagabeen izan ala absolutibo mugatuan izan: *Josten ahanzi dut* (*zait*) (= *Ez dakit gehiago josten*) vs *Aitari esatea ahanzi dut* (*zait*). Halaber, ekialdean, *utzi* aditzak aditz izena adlatiboan ere har dezake (§ 25.3.3e): *Utzi du ura irakiten* (= irakiten ari dela utzi du suaren gainean) vs *Utzi du ura irakitera* (= ura suaren gainean ezarri du irakin artean). Azkenik, aditz izena inesibo mugatuan, denborazko perpaus jokatugabearen ardatz gisa erabiltzen da: *Aita lanetik sartzean zurekin joango naiz*.

**25.3.3d** Predikatu batzuek perpaus osagarriko aditz izena ablatiboan izatea eskatzen dute (*gelditu*, *gibelatu*...): *Hara joatetik gibelatu ditut*; *Deusek ez du gibelatu etsaia haren azken egunak nahigabeaz eta kriestasunez pozoiindatsetik* (Hiriart-Urruti); *Ez omen zen irri egitetik gelditu hogeita-lau orenez* (Trunday). Gisa berean, *etorri*-k ablatiboaz postposizioaz jantziriko aditz izena har dezake: *Euskaldun izatetik datozkigu horiek oro*; *Emakume horietako batekin egotetik zetorren* (Zaldua).

**25.3.3e** Zenbait aditzekin eta predikaturekin aditz izena adlatiboan dago (*joan*, *etorri* bezalako mugimendu aditzak, *lagundu* (ekialdean), *utzi* (ekialdean), *prest izan*, *lehiatu*, *deliberatu*...): *Aitaren ikustera joan behar dut*; *Honelako bati lotzera prest naiz*; *Hobeki ikastera berma zaitez*. Mendebaldean, mugimendu aditzekin inesiboa erabiltzen da adlatiboaren ordeztasun (§ 25.3.3c): *Joan behar dot aita ikusten*; *Etorri da zugaz berba egiten*. Ekialdean, inesiboa eta adlatiboa txandaka ager daitezke, adierazi nahi denaren arabera; oro har, adlatiboa helburuaren ideia hobeki markatzeko erabiltzen da: *Ikastera ari da* (Lafitte); *Sinets ongi [...] elizaren begiratzera ari direnek miletan kalte gutiago egiten diotela erlisioneari, ezen ez eliza barnetik etsaiaren laguntzen, hari indar emaiten ari direnek* (Hiriart-Urruti). Adlatiboa adizlagun baten osatzeko ere erabil daiteke; orduan perpausak baldintzazko balioa hartzen du: *Jakitera, han gelditu nintzatekeen*. Adlatiboari *-ko* genitiboa lotzen zaionean, izenlagun bat edo adizlagun bat moldatzen da: *kantatzerako apailuak* (Lafitte); *kantatzerako momentuan*. Halakoetan, izena maiz ezabatzen da eta, gisa horretan, denborazko balioa duen adizlaguna sortu: *hasterakoan*; *eskolara abiatzerakoan*; *guk bazkaltzerako, lan horiek bukatuak egongo dira*.



**25.3.3f** Aditz izena muga adlatiboan agertzen delarik, ekintzaren bukaera hartzen da denbora muga gisa: *Boza galtzeraino kantuz segitu zuten*. Hemen ere *-ko* lotzen ahal zaio adizlagunari eta, gisa horretan, izenlagun bihurtu: *hiltzerainoko oinazeak* (Lafitte).

**25.3.3g** Aditz izenean maiztasun handikoa da *-ko* postposizioa. Alde batetik, izenlagunak molda ditzake: *Zati honetan hartu dut gauza horren kausa azaltzeko xedea* (Xarriton); *Partidaren ikustera joaiteko baimena* (J. Etxepare). Bestetik, adizlagunak, destinatiboaren balioa dutela: *Sosa behar duzu, erosketen egiteko*; *Ingelesa ikasteko, hoberena, bertara joatea da*. Azkenik, predikatu gisan ere ager dakiguke *izan* eta *ukan* aditzekin batera; gehienetan artikulua eransten zaio aditz izenari: *Hemendik laster Ameriketara abiatzekoa naiz*; *Xede horren sustenguz manifestaldi bat egitekoa zuten Iruñean joan den larunbatean* (Herria). Zenbaitetan aditz izena + *-ko* forma lexikalizatu egin da arras, eta izen hutsa da (*egiteko, esateko, joateko, jateko, edateko...*): *Xorieri beha? Izanen dut bertze egitekorik!* (Barbier); *Alta ez zen orduan orain baino jateko eta edateko gehiago* (Aintziburu); *Eta balukek hor erraiteko frango* (Dagorret). Eleak eta aginduak zeharkako diskurtsoan ekartzen direlarik, *-ko* postposizioa duen aditz izena erabiltzen da konpletiboen osatzeko: *Amak hara joateko esan du*; *Ikasteko erran zigun*; *Andu Lertxundi, Inazio Mujika, Jorje Giménez, Juan Garzia eta Joxe Azurmendi aritu izan zaizkit urteetan euskaraz idazteko esaten* (Zulaika). Helburua, baldintza nahiz denbora adierazteko, *-kotan* bukaerako aditz izenak hobesten dira maiz: *Hara joatekotan erosi dut*; *Hara joatekotan erosiko nuke, bestela ez*; *Abiatzekotan ginen, euria hasi zuelarik*. Helburua adierazteko, *-kotzat* eta batzuetan *-ko(t)z* ere lekukotzen dira. Azken horrek, halere, baldintzazko edo kausazko balioa izan dezake (ikus § 34.10): *Jitekotz, zatho berehala* (Lafitte); *Mintzatzekotz, behar da zerbait erraiteko* (J. Etxepare); *Joaitekotz, aski goiz hobe dik deliberatzia* (Larzabal).

**25.3.3h** Kausazko perpausetan, aditz izenak *-agatik* hartzen du euskalki gehienetan. Mendebaldean *-arren* postposizioa dago horren orde: *Ez habe euskaraz berba egiteagaitik fusilatuko* (J. L. Zabala); *Nik neuk ere ez nuen nahi Santesteban-era lehengusua ikustearren igo eta Basurtoko Joan Sanz ikusi* (Jimenez).



#### 25.3.4. Beste erabilera batzuk

Aditz izena egitura analitikoetan ere agertzen baita (§ 25.3.5), adizki laguntzailea ezabaturik egon daiteke batzuetan; adibidez, koordinazioan, galdere-tan, legendetan: *Ondo ikasten zuen, eta gero gogoan atxikitzen*; *Lagunak mendira buruz abiatzen* (argazki baten iruzkina); *Ikusten?* Zenbaitetan koordinazio baten ondoan, aditz laguntzailearen ezabaketak zirkunstantzial bat moldatu du: *Nausiak kargua khentzen-eta zer egin orai?* (Leon). Beste zenbait esapide-tan, aditz izena absolutibo mugatuan agertzen da; harriduretan, esaterako: *Hori sinestea ere!*; *Heien harritzea!* (Hiriart-Urruti gaztea). Azkenez, aditzari indar emateko ere balio dezake, fokalizazio moduan: *Egizie bertset hoi-en khantatzia* (Etxahun); *Irea oraintxe jasotzea egin diat* (Lizardi); *Entzutea badut*; *Irakurtzea egin nezake* (Lafitte). Azkenik, zenbait esapide berezitan ere aurkitzen dugu aditz izena: *Ba dabil ibilli [...] bere garunak ortu bearrez oldoztearen oldozteaz* (Kirikiño); *Onetan, dart!, itxartu nintzan oean, buru gutzia durundituta amesetearen ameseteaz* (Kirikiño). Jakina denez, partizipioa-rekin ere egiten da itzuli bera: *ikusaren ikusiaz* (§ 25.2.3b).

#### 25.3.5. Aditz izena oinarri duten adizki analitikoak eta perifrasiak

Ezbairik gabe, aditz izena da perifrasi berriak sortzerakoan gehien erabiltzen den adizki jokatugabea. Gehienetan inesibo mugagabea dago, baina adlatiboan eta datiboan ere ager liteke.

**25.3.5a** Euskalki guztiek [-t(z)en + izan/\*edun] adizki analitiko burutugabea erabiltzen dute (ikus § 26.3.4, § 26.6.1): *Ez zaitut ongi ikusten*; *Treinarene txistu bizia oihanean ere entzuten zen*.

**25.3.5b** Ekintzaren progresibotasuna adierazteko, ekialdeko hizkerek [-t(z)en + ari izan] perifrasi erabiltzen dute; mendebaldekoek, berriz, [-t(z)en + egon], [-t(z)en + ibili] edo [-t(z)en + jardun] (ikus § 26.4, § 26.6.1): *Haurrekin jostatzen ari da*; *Entzuten dago*; *Ikasten dabil*; *Ikasten dihardu*.

**25.3.5c** Ekialdeko hizkerek [-t(z)er + izan/\*edun] perifrasiak dute gutitarik gertatu ez dena adierazteko: *Urrunago, berriz bazoazilarik, zabal zabala erortzer zen Jon-Doni Petri, behi-ongarri baten gainean lerraturik (Barbier); Don Angulok erraiter zuen “eske jina”, zuzendu zuelarik hitza (J. Irigarai); *Erien etxean sartzean halako usainak sudur guzia bete zautan nun alditxartzer bainintzen* (Zerbitzari).*

**25.3.5d** Etorkizun hurbil-hurbilean gertatuko dena [-t(z)era + joan] perifrasiaren bitartez ematen dute euskalki gehienek (ikus § 26.6.1.3): *Urte batez beraz, “Jauneriaren” beha geundelarik gertakari arraro batek arras hunki ninduen eta hitz bat edo biz aipatzera noa (Landart); Esatera nindoan esaldia musu batekin itoko zidan (Joxean Agirre); *Eta orai berriz biziari lotzerat doa, amodio berri batez sustaturik* (J. B. Etxepare); *Ixil, ene arima, konplitzera doa misterio handia* (Intxauspe).*

**25.3.5e** Halaber, [-t(z)eari + egon/eduki] perifrasiak gogo bat edo burutzeko puntuan den gertaera bat adierazten dute: *Partitzeari nengoan hura etorri zenean ‘partitzeko asmoa nuen etorri zenean’; Ithotzeari banaukan ‘hura itotzekotan nintzen’ (Lafitte).*

## 25.4. Partizipio prospektiboa

Partizipio prospektiboa partizipioari -ko atzizkia gehituz eratzen da: *lagunduko, ikasiko, ekarriko, zapuztuko, beteko...* Partizipioa -n-z amaitzen bada, atzizki horrek -go forma hartzen du: *jango, izango, esango, irtengo...* Aldiz, -l-z amaitzen bada, -ko nahiz -go, biak dira zilegi. Ekialdean, partizipioa -n /-l-z amaitzen direnekin -en atzizkiaz baliatzen dira partizipio prospektiboa erdiesteko: *jinen, ukanen, hilen...* (ikus Euskaltzaindiaren 85. araua: “Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma”).

Delako forma jokatu gabearen erabilera izugarri mugatua da; euskararen geroaldiko forma nagusia den [-tuko + izan/\*edun] adizki analitikoan baizik ez da erabiltzen: *etorriko da; eginen/egingo du* (ikus § 26.3.2.3, § 26.6.1.3). Gerta liteke, laguntzailea isildurik, bakarrik agertzea: *geroak erranen; ageriko; gero ikusiko*. Ez dezagun azken erabilera hori nahas § 25.2.4a atalean aipatu erlatibo laburtuekin (*Pellok aipatuko gizona; Atzo erosiko edariak*).

## 26. Aditza (IV): adizki jokatuak

---

### 26.0. Sarrera

26.1. Adizki jokatuaren marka semantikoak eta formalak; 26.1.1. Erroa; 26.1.2. Denbora eta aldia; 26.1.3. Aldi motak; 26.1.4. Aspektua; 26.1.4.1. Aspektu lexikala eta predikatuaren mailakoa; 26.1.4.2. Aspektu gramatikala; 26.1.5. Modua; 26.1.5.1. Indikatiboa eta subjuntiboa; 26.1.5.2. Alegiazko adizkiak; 26.1.5.3. *-ke* atzizkia; 26.1.5.4. Aginte adizkiak; 26.1.6. Pertsona; 26.1.7. Numeroa

26.2. Adizki sintetikoak; 26.2.1. Sarrera; 26.2.2. Aldia eta aspektua; 26.2.3. Modua eta modalitatea

26.3. Adizki analitikoak; 26.3.1. Sarrera; 26.3.2. Adizki nagusiak; 26.3.2.1. Partizipio burutua; 26.3.2.2. Partizipio burutugabea; 26.3.2.3. Partizipio prospektiboa; 26.3.2.4. Aditzoina; 26.3.3. Adizki laguntzaileak; 26.3.4. Aldia eta aspektua; 26.3.5. Modua eta modalitatea; 26.3.5.1. Subjuntiboa eta agintera; 26.3.5.2. Ahalera; 26.3.5.3. Alegiazko paradigma; 26.3.5.4. *-ke* atzizkia

### 26.4. Perifraziak

### 26.5. Aditz predikatu konplexuak

26.6. Denbora, aspektua eta modua; 26.6.1. Denbora eta aspektua; 26.6.1.1. Orainaldia; 26.6.1.1.1. Burutugabea; 26.6.1.1.2. Burutua; 26.6.1.2. Iraganaldia; 26.6.1.2.1. Burutugabea; 26.6.1.2.2. Burutua; 26.6.1.3. Geroaldia; 26.6.2. Modua; 26.6.2.1. Subjuntiboa; 26.6.2.2. Agintera; 26.6.2.3. Hipotetikoa; 26.6.3. Modalitatea; 26.6.3.1. Ahalera; 26.6.3.2. Modalitate epistemikoa, ebidentziala

---

## 26.0. Sarrera

**26.0a** Hizkuntza gehienetan aditzak bi modutara joka daitezke: sintetikoki, hau da, hitz bakar baten bidez, edo analitikoki, erran nahi baita hitz bat baino gehiagoko egitura bat erabiliz. Alabaina, hizkuntza guztiek ez dituzte forma bata eta bestea neurri berean baliatzen. Hizkuntza erromantzeetan, aditz guztiek dituzte forma sintetikoak, eta egitura analitikoak denbora-aspektu-modu ñabardura zenbaiten ekartzera mugatuak dira: gazt. *veo, entendí, cantaba* baina *he visto, estoy leyendo, voy a cantar*; fr. *je vois, je compris, je chantais* baina *j'ai vu, je suis en train de lire, je vais chanter*. Euskaraz beste muturreko egoera dugu: oso aditz gutxik daukate paradigma sintetikoa eta egitura analitikoak denbora-aspektu-moduaren adierazpide bakarra dira euskal lexikoiko aditz gehienentzat: *hartzen dut, ulertu nuen, dantzatuko dut...*

Adizki sintetikoak hitz bakar batez osatuak direla erran dugu; hitz bakar hori adizki jokaturia da (*dakar, dator, nago*). Adizki analitiko ororen oinarrian (*etorri nintzen, ekartzen dut, egonen da*) adizki nagusi bat eta adizki laguntzaile bat daude: adizki nagusia jokaturigabea da (*etorri, ekartzen, egonen*) eta laguntzailea, berriz, jokaturia (*nintzen, dut, da*).

**26.0b** Euskararen adizki jokaturia morfologia konplexukoa dela erran ohi da, aditz erroaz gain, denbora eta modu markak, eta pertsona eta numero (sing., pl.) komunztadura markak biltzen dituelako. Kapitulu honen lehen atalean, adizki jokatuaren egitura deskribatuko dugu eta zenbait kontzepturen definizioa emanen (§ 26.1). Ondotik, alde batetik, adizki sintetikoak aztertuko ditugu (§ 26.2), eta bestetik, analitikoak (§ 26.3). Perifrasiak aztertu ondoren (§ 26.4), aditz predikatu konplexuen forma jokatuaren berezitasun zenbait agerian emanen ditugu (§ 26.5). Azkenik, adizki jokatuaren erabilera denbora-aspektu-modu sistemaren deskribapenari eskaini atalean azalduko dugu (§ 26.6).

## 26.1. Adizki jokatuaren marka semantikoak eta formalak

### 26.1.1. Erroa

**26.1.1a** Adizki jokatuaren oinarritzko osagaia aditzaren erroa da; hari lotzen zaizkio perpausaren egiturarekin zerikusia duten komuntadura markak —hau da, pertsona eta numero markak—, eta aldiaren eta moduaren adierazle direnak (ikus ondoko atalak).

<i>g-a-bil-tza</i>	<i>z-en-torr-en</i>	<i>l-e-tor-ke</i>	
pertsona-aldia-ERROA-	aldia-aldia-ERROA-	modua-aldia-	ERROA-
numeroa	aldia	modua	

**26.1.1b** Adizki sintetikoaren kasuan, adizki jokatuak bere eduki semantikoa ematen dio aditz sintagmari; bestela erranik, perpausaren deskribatzen den egoera edo gertakaria adizki jokatuak adierazten du: *Pellok semea ikastolara darama* (eraman ekintza, adizki jokatuaren bidez adierazia).

Adizki analitikoaren kasuan, gorago agerian eman bezala, adizki nagusiak —hau da, osagai jokatuak— dakar eduki lexikala eta adizki laguntzailea —hots, adizki jokatuak— semantikoki hutsa da: *Pello egunero joaten da amarengana* (joan ekintza, ez izan); *Mirenek kafea edan du* (edan ekintza, ez \**edun*). Adizki analitiko gramatikalizatuaren kasuan, laguntzaile zenbait ez dira gehiago aditz beregain gisa erabiltzen (\**edun* mendealdean, \**edin* eta \**ezan* euskalki guztietan, *-iro-* ekialdean) eta, ondorioz, batzuetan zaila da erroen jatorrizko eduki lexikala zein zen erratea (\**ezan* eta *-iro-* aditzena, adibidez). Erabilera beregain oro galtzarekin batean, beren forma jokatuak ere galdu dituzte; hortaz, haien aipamenezko forma berreraikia baita, izartxoaz markatzen dugu: \**edun*, \**edin*, \**ezan* eta *-iro-*.

Aditzak bere baitan duen eduki semantikoaren arabera, adizki sintetikoek eta analitikoek egoerak, gertaerak, ekintzak, prozesuak adieraz ditzakete; gramatika honetan, sinplifikatze aldera, ‘gertakari’ termino generiko gisa erabiliko dugu adizkiek dakartzaten adiera guztien ordezkatzeko.


### 26.1.2. Denbora eta aldia

**26.1.2a** Adizki sintetikoek eta analitikoek gertakari bat deskribatzearekin batean, denboraren ardatzean kokatzen dute.

Denbora marra horizontal batez irudika daiteke; erdian oraina kokatuko genuke, haren ezkerrean iragana eta haren eskuinean geroa.



Denboraren kontzeptualizazioa hizkuntzara ekarririk, solasaldiaren unea kokatuko genuke denboraren ardatzaren erdian; hura da erreferentzia-puntua eta haren arabera antolatzen dira gertakariak (solasaldiaren unean berean, solasaldiaren unea aitzin edo haren ondotik).



**26.1.2b** Hizkuntzek gertakariak denboran kokatzeko garatu dituzten adierazpideak ez datoz beti bat denboraz dugun irudi zurrun horrekin. Adibidez, hizkuntza askok ez dute bereizketa morfologikorik orainaldiaren eta geroaldiaren artean; gure inguruko hizkuntzetan ere delako bereizketa ez da beti egiten: gazt. *voy a casa/mañana voy al cine*; fr. *je vais chez moi/demain je vais au ciné*; *etxera noa/bihar zintera noa*. Adibide hauetan, adizki berak erabiltzen dira orainaldian eta geroaldian kokatu gertakari bati erreferentzia egiteko; bi enuntziatuak bereizten dituen adberbioa da, hark kokatzen baititu denboraren ardatzean.

Halaber, kontakizunari bizitasuna emateko hizkuntza askok oraineko formak erabil ditzakete lehenaldian kokatu gertakari baten berri emateko: *Izpura eta Arradoiko alderdira eskuin behaturik, ezker gero Uharte eta Izpegiko lephoari, abiatu zen pipa bat erre behar zuela hantxet, goxo-goxoan. Eskua sakelarat emaitzarekin beraz, ohartzen da gauazko uriak bideak zikindurik, bere galtza ederrak dena ixti eta lohi dituela... Berroia! Halako gauza pollitak! Eta ezteietara doalarik!* (Barbier). Ezaguna da, bestalde, ekialdeko hizkeretan

*atzo ikusi dut* erraten dela, hau da, oraineko adizkia erabiltzen dela iraganaldiko gertakariei erreferentzia egiteko. Oraineko adizkiak denboraz kanpoko gertakariak eta egia orokorrak ekartzeko ere erabil daitezke: *Behiek belarra jaten dute; Hartzek negu osoan lo egiten dute; Gizakiak tximinoetatik datoz; Denborarekin min guziak doaz.*

Hori hala izanik, hizkuntzalaritzak *denbora* eta *aldia* (edo *tempusa*) bereizten ditu. *Denbora* kanpoko munduari dagokio eta balio nozionala du. *Aldia*, berriz, gramatikari dagokio: gertakari bat denboran kokatzeko aditzean erabiltzen den flexio-marka da. Gramatika honetan, honako bereizketa terminologikoa eginen dugu: oraina, iragana eta geroa kontzeptu gramatikalak eta formalak dira, orainaldia, iraganaldia eta geroaldia, berriz, kontzeptu nozionalak, esanahiari loturik daudenak.

**26.1.2c** Gutxi dira hiru denbora-mugekin bat eginez hiru aldiko sistema duten hizkuntzak. Hizkuntza gehienek banaketa bitarra dute beren aldiak eta, beraz, beren adizkietan: (i) batzuek *iragana* vs *ez-iragana* (orainaldia, geroaldia) banaketa morfologikoa dute, erran nahi baita forma bat dutela iraganaldia adierazteko, eta beste bat eta bera orainaldiari eta geroaldiari erreferentzia egiteko; (ii) beste hizkuntza zenbaitek *geroa* vs *ez-geroa* (orainaldia, iraganaldia) banaketa dute, hau da, geroaldia adierazteko forma berezi bat dute eta beste bat eta bakarra orainaldia eta iraganaldia adierazteko.

**26.1.2d** Europako hizkuntza askok, euskarak barne, *iragana* vs *ez-iragana* banaketa dute. Euskaraz aldi oposizio hau *a/e(n)* morfemen arteko oposizioaren bitartez gauzatua da adizki jokatueta. Morfema hauek aditz erroaren aitzinttoan kokatzen dira, eta adizkiak bi multzo nagusitan banatzen dituzte. Lehenik, *a-* morfema dutenek orainaldiko eta geroaldiko formak eratzen dituzte (*da-kar*; *etortzen zara*; *etorriko zara* —orainaldiko laguntzailea izanagatik ere, egiturak geroaldia adierazten du—). Bistan dena, denboraren poderioz adizkiak opako bihurtzen baitira, adizki batzuetan *a-* aurrizkia ez da gehiago agerian, adibidez, *dut*, *diot*, *dezaket* adizkietan. Gero, *e(n)-* morfemak iraganeko eta alegiazko adizkiak sortzen ditu (*zekarren*, *egin zenuen*; *nengoke*, *baledi...*). Alabaina, aurrizki hauek ez dira aldi-oposizioa dakarten morfema bakarrak. Izan ere, NOR argumentua hirugarren pertsonakoa delarik (subjektua egitura intran-

tsitiboetan; objektua trantsitiboetan), adizkiak *d*- aurrizkia du paradigma *ez-iraganean*, hau da, orainaldiko eta geroaldiko adizkietan: *dakar*; *etorriko da*; *egin du*. Halaber, paradigma *iraganean*, 3. pertsonako subjektua duten iraganeko eta alegiazko adizkiak ez dira arras homonimoak: iraganekoek *z*- aurrizkia dute euskalki gehienetan eta euskara batuan (*zuen*, *zekien*), eta  $\emptyset$ - (hau da, aurrizkirik ez) mendebaldeko euskaran (*eban*, *ekian*); alegiazkoek, berriz, *l*- aurrizkia dute: *zekarren* vs *lekarke*, *balekar*; *zeturren* vs *letorke*, *baletor*. Gainera, iraganeko adizkiek *-n* atzizkia beretzen dute: *zeturren*, *zekarren*...

Euskararen adizki jokatuaren oinarrian dagoen oposizio morfologiko hirutarra hobeki identifikatze aldera, *iragana-ez-iragana* oposizioaz baino, *oraina-iragana-alegia* oposizioaz mintzatuko gara gramatika honetan. *Oraina* multzoko adizkiek *a*- morfema daramate erroaren aitzinean eta *d*- aurrizkia adizkiaren hasieran NOR hirugarren pertsonakoa delarik (subjektua zein objektua izan); orainaldiko eta geroaldiko adizkien osatzeko erabiltzen dira nagusiki. *Iragana* multzoko adizkiek, berriz, *e(n)*- aurrizkiak gain iraganaren bi marka daukate: *-n* atzizkia eta *z*- aurrizkia subjektua hirugarren pertsonakoa delarik. Adizki hauek iraganaldiko adizkien oinarrian daude. Azkenik, *alegia* multzoko adizkiek *l*- aurrizkiak gain beherago deskribatuko diren hainbat berezitasun morfologiko daukate (§ 26.1.5.2), *iragana* multzotik bereizteko arrazoi sendoak ematen dituztenak.

### 26.1.3. Aldi motak

**26.1.3a** Solasaldiaren unea erreferentzia-puntutzat daukan aldiari *aldi absolutua* erraten zaio (Comrie 1976). Bizkitartean, euskaraz eta hizkuntza askotan, *aldi absolutu-erlatiboak* ere badaude. Hauetan, testuinguruak ezartzen du erreferentzia-puntua: adizkiek badute denbora-erreferentzia bat, solasaldiaren unea aitzin edo ondotik finkatua, baina kontaktzen duten gertakaria erreferentzia-puntu horren arabera kokatzen dute —ez (soilik) solasaldiaren unearen arabera—. Halakoa da pluskuanperfektua: erreferentzia-puntua solasaldiaren unea baino lehen finkatua du, hau da, iraganaldian; baina deskribatzen duen gertakaria delako iraganaldiko erreferentzia-puntu hori baino lehen agitu da:



•	•	O
pluskuanperfektua	erreferentzia-puntua	solasaldiaren unea
<i>Pello etxera heltzea</i> <i>Pello joatea</i>	<i>ordu biak</i> <i>ni heltzea</i>	

Adibidez, *Ordu bietarako Pello etxera heldua zen* esaldian, *ordu bietarako* adberbioak erreferentzia-puntu bat ezartzen du iraganaldian, eta adizkiak *Pello* erreferentzia-puntu hori baino lehen heldu zela adierazten du. Halaber, *Heldu nintzenerako Pello joana zen* esaldian, *heldu nintzenerako* perpausak, hots, ni heltzeak denbora-muga markatzen du iraganaldian, eta Pelloren joatea muga hura baino lehen kokatua da.

**26.1.3b** Geroaldiko perfektua beste aldi absolutu-erlatibo posiblea da: *Hilabete honen bukaerarako, etxea saldua izanen dut* esaldian, adberbioak etorkizunean finkatzen duen denbora-muga baino lehen (hau da, hilabetearen bukaera) kokatua da geroaldiko gertakaria (hau da, etxearen salmenta).

O	•	•
oraina	GPRF	erreferentzia-puntua etorkizunean
	<i>etxearen salmenta</i>	<i>hilabetearen bukaera</i>

Ororen buru, aldi absolutibo-erlatiboek esker, gertakariak kronologikoki antola eta konta daitezke.

#### 26.1.4. Aspektua

Ikusi dugu adizkiek kontatzen duten gertakaria denboraren ardatzean kokatua dela. Aspektuak, preseski, denbora horren egituraketa zehazten du.

Aspektua lau maila desberdinetan gauzatzen da (Chung & Timberlake 1985): (i) aditzaren beraren izaera lexikalean (*aspektu lexikala*. Adibidez, *erosi*); (ii) predikatuaren mailan (aditza eta haren argumentuak. Adibidez, *Jonek autoa erosi*); (iii) perpausaren mailan (predikatua perpausaren mailan, hots, aditza

eta haren argumentuak denboraren ardatzean eta aspektuaren egituraren kokaturik: *Bezperan Jonek autoa erosi zuen*); (iv) testu-mailan (perpauza, harekin lotuak diren hainbat perpausen testuinguruan): *Nahiz eta ez zion inori esan, bezperan Jonek autoa erosi zuen eta bere garajea ezkutatu*. Maila bakoitzak bere garrantzia izanik ere, praktikan, bereizketa garrantzitsuena aipatu lehen hiruren artekoa da. Ondoko ataletan, lehenik aspektu lexikala eta predikatu-mailakoa aztertuko ditugu, eta ondotik, perpausaren mailakoa.

#### 26.1.4.1. Aspektu lexikala eta predikatuaren mailakoa

**26.1.4.1a** Erran bezala, aspektu lexikala (edo *aktionsart*) aditzak bere baitarik dakarren aspektuari dagokio. Hauek dira aditzetan aurkitzen diren aspektu-oposizio nagusiak<sup>1</sup>: estatibo/dinamiko, teliko/ateliko, puntual/iraunkor (Comrie 1976).

Aditz estatiboek deskribatzen duten egoeraren fase guztiak berdinak dira; ez da aldaketarik, ez mugimendurik, eta egoera horrek berenaz jarraitzen du horretarako indar berezirik egin gabe. Halakoak dira, besteak beste, *jakin, ulertu, ikusi, entzun, maitatu, ukan* aditzak. Aditz dinamikoek dagokienez, aldaketak eta fase desberdinak daude; ez du berenaz jarraitzen, hau da, jarraitu ahal izateko indar berezi bat egin behar da. Mota horretakoak dira, adibidez, *laster egin, igeri egin, irakurri, jan, erre, borrokatu* aditzak.

Aditz telikoek badute hastapen bat eta bukaera bat (gehi, normalki, egoera aldatuta bat); atelikoek, berriz, ez dute bukaerarik. Aditz estatiboak atelikoak dira; baina dinamikoen artean telikoak (*egin, etorri, kendu, ito*) edo atelikoak (*ibili, jostatu*) izan daitezke.

Aditz puntualek denboran irauten ez duen gertakari bat deskribatzen dute; hau da, barne egiturarik ez duen gertakari bat, momentukoa dena. Mota horretakoak

---

<sup>1</sup> Sailkapen honek Vendler-ek (1967) proposatu zuenarekin bat egiten du; hark lau sail nagusitan banatu zituen aditzak: egoerak, jarduerak, burutzapenak eta erdiespenak.

koa da *iritsi* aditza; *Mendi puntara iritsi da* erraten dugunean, heldu baino lehenagoko egoera ez da *iristen ari*. Lehenago *igo* edo *ibili* prozesuak ditugu, eta momentu batean *iritsi*. Haatik, aditz iraunkorrek denbora-tarte bat irauten duen gertakari bat deskribatzen dute, adibidez, *ibili* edo *igo* aditzak.

**26.1.4.1b** Agerian eman berri ditugun oposizioak gurutza daitezke: oro har, aditz estatiboak eta dinamikoak atelikoak diren neurrian, iraunkorrak dira (*egon, izan, ezagutu, ibili, igeri egin, irakurri*). Gisa berean, aditz telikoak puntualak (iraupenik ez, *zapartatu, agertu, iritsi*) edo iraunkorrak (iraupentxo bat bederen, adibidez *urtu, idortu, sendatu, ikasi*) izan daitezke.

**26.1.4.1c** Gorago erran dugu aspektuaz ari garenean aditzaren lexikoaren mailako aspektua eta predikatuaren mailakoa bereizi behar direla. Izan ere, aditzak bere argumentuekin duen harremanak gertakariaren aspektua ezartzen du. Hopper & Thompsonen (1980) erakutsi dute trantsitibotasunak, hau da, aditzak objektu bat izateak, eta definitutasunak, zehazkiago, aditzaren objektua definitua izateak, telikotasuna ekartzen dutela. Ororen buru, aditz asko atelikoak dira intrantsitibo direnean, eta telikoak trantsitibo direnean. Adibidez, *kantatu* aditza atelikoa da objekturik gabe edo objektu indefinitu batekin erabilia delarik: *Jon abesten ari da; Jon kantuak abesten ari da*. Objektu definitu batekin, berriz, prozesu telikoa adierazten du: *Jon kantu bat abesten ari da; Jon bi kantu abesten ari da*. Gisa berean, *Jonek idatzi du* atelikoa da (ez dakigu idazketa-lana bukatu duen), baina *Jonek gutuna idatzi du* telikoa (gutunaren idazketa bukatu du) (Chung & Timberlake 1985).

#### 26.1.4.2. Aspektu gramatikala

**26.1.4.2a** Perpausaren mailako aspektua gramatika-kategoria bat da, eta, edozein gramatika-kategoria bezala, hizkuntzaren flexio-morfologiaren bitartez adieraz daiteke.

Aspektu oposizio nagusia, *burutu* vs *burutugabe* oposizioa da. Aspektu burutuak, egoera gauzatua, burutua adierazten du (hots, hastapena, garapena eta

bukaera duena —hau da, ez soilik bukatutasuna—). Ez die baitezpada denbora-tarte labur bati edo gertakari puntual bati erreferentzia egiten. Adibidez, *Proiektu hori 30 urtez landu zuen* esaldian, ikusten dugu denbora-tarte luzea behar izan duen prozesua dugula, eta ez dela puntuala izan. Hortaz, zuzenago dateke erratea aspektu burutuak gertakari baten berri ematen duela haren barne garapenari buruzko xehetasunik eman gabe (Comrie 1976).

**26.1.4.2b** Aspektu burutugabeak, berriz, gertakari baten barne garapena zehazten du, nolabait egoera barnetik ikusita. Burutugabetasunaren barnean, ohitura (denbora-tarte zabal baten ezaugarri dena) eta aspektu jarraikorra (*continuous*, erreferentzia-puntuaren bidean dena) bereizten ditu Comriek (1976), eta azken horren barnean, progresiboa (erreferentzia-puntuaren garatzen ari dena, hots, iraute bat duena) eta ez-progresiboa, hau da, puntu-karia. Oro har erran daiteke hizkuntza guztiek badauzkatela oposizio semantiko horiek, baina ez direla denetan morfologikoki markatuak. Hizkuntza batzuetan, aspektu progresiboaren eta puntukariaren arteko bereizketa nahitaez markatu behar da, bakoitzari dagokion forma erabiliz. Beste batzuetan, berriz, progresiboaren forma bereizgarrien erabilera aukerakoa da. Bigarren multzo horretakoa da euskara, *kantatzen du / kantatzen ari da*, biak erabil baitaitezke ekintza garatzen ari dela adierazteko. Gisa berean, ohiturazko forma bat izanik ere (*Jon etorri ohi da, Jon ibili ohi zen*), ez da nahitaezkoa, [-t(z)en + izan/\*edun] adizki analitikoak ohituraren irakurketa izan lezakeelako: *Jon goizero etortzen da; Jonen txakurra egunero ateratzen zuen*.

**26.1.4.2c** Aditzak bere baitarik dakarren aspektu lexikalak perpausaren mailako aspektua franko mugatzen du. Izan ere, konbinaketa batzuk ezinezkoak dira; adibidez, estatibotasuna eta progresibotasuna ezin daitezke konbina (\**izaten ari da, \*egoten ari da, \*irauten ari naiz, \*maitatzen ari naiz...*), ezta puntualtasuna eta burutugabetasuna ere: \**zapartatzen da, \*iristen da, \*ageritzen da*. Gainera, aditz batzuen balioa aldatzen da ezartzen zaien aspektu gramatikalaren arabera. Adibidez, aditz telikoen esanahia izugarri murriztua da burutu/burutugabe oposizioarekin bateratzen delarik: *Pellok pastel bat egin zuen* edo *Pellok pastel bat egin du* esaldietan aditzera ematen da prozesua

bururaino eraman dela, pastela egina dela; aldiz, aspektu burutugabea ezarri geroz, prozesu atelikoak dugu: *Pellok pastel bat egiten zuen* (ez da erraten pastela egin zen ala ez; erraten den bakarra da denboraren kokapen jakin batean Pello horretan ari zela). Gisa berean, berez telikoak diren aditz batzuek interpretazio atelikoak dute denbora jakin batzuetan (orainaldian, lehenaldi burutugabea), eta telikoak besteetan (lehenaldi burutuan eta geroaldian): *ingeleza ikasten dut / ingeleza ikasten nuen* vs *ingeleza ikasi dut, ingeleza ikasi nuen, ingeleza ikasiko dut*.

**26.1.4.2d** Osagai adberbialek ere perpausaren aspektu-irakurketa alda dezakete: *Jonek etxea bi egunez tindatu du* erraten dugularik, aditzera ematen da prozesua ez dela bururaino eraman, hots, nahiz eta *Jonek bi egunez lan egin duen*, etxearen tindaketa ez dela bukatua; aldiz, *Jonek etxea bi egunetan tindatu du* esaldian, etxearen tindaketa bukatua dela erraten zaigu. Gisa berean, mugimendu aditzak berez atelikoak dira, baina leku-mugak zehaztuak direlarik, telikoak: *Jon ibili da* atelikoak vs *Jon elizatik plazara ibili da* telikoak.

**26.1.4.2e** Adizki jokatu sintetikoa ala analitikoak izan, aspektu gramatika- la ez da gisa berean ezartzen. Adizki sintetikoetan, hizkuntza batzuek aspektu marka argia, errazki identifikagarria dute; beste batzuek, berriz, adizki markatugabea dute aspektuari dagokionez. Adibidez, euskaraz adizki sintetikoek balio burutugabea dute orainean eta iraganean, burutugabetasunaren marka litzatekeen morfemarik ez izanagatik: *nator, dakar, zetorren, nengoan...* Adizki analitikoetan, egitura osoak dakar aspektua nahiz eta deskribapen askotan adizki nagusiaren forma aspektualki markatutzat hartzen den. Adibidez, euskaraz partizipio burutua oinarri duten adizki analitikoek aspektu burutua ekartzen baitute (*etorri naiz, hartu nuen*), [-tu] partizipio atzizkia aspektu burutuaren markatzat hartu ohi da. Halaber, partizipio burutugabea (hau da, aditz izena lokatiboan) oinarri duten egitura analitikoek adizki burutugabeak osatu ohi baitituzte, euskalariak [-t(z)en] atzizkia aspektu burutugabearen markatzat daukate. Hortik, aditzoina ‘biluzia’ den ber, aspektualki ez-markatutzat jotzen da euskal gramatika askotan (ikus § 26.3.2).

## 26.1.5. Modua

### 26.1.5.1. Indikatiboa eta subjuntiboa

Europa mendebaldeko hizkuntza askok ez bezala, euskarak ez du indikatibo/subjuntibo bereizketa morfologikorik bere adizki jokatuan; haatik, subjuntibozkotzat daukagun adizki analitiko bat badu, [aditzoina + \**edin*/\**ezan*] egitura hain zuzen —mendebaldean [-tu + *egin*] da adizki analitiko trantsitiboa, ez [aditzoina + \**ezan*]—. Delako forma adizki analitikoei dagokien atalean deskribatuko dugu (§ 26.3.5.1b) eta haren erabilerak § 26.6.2.1 atalean aztertuko ditugu.

### 26.1.5.2. Alegiazko adizkiak

**26.1.5.2a** Alegiazko adizkiak balizko mundu batez mintzatzeko erabiltzen dira, alegiazko errealtate bati erreferentzia egiteko. Gorago erran dugun bezala (§ 26.1.2d), *iragana* vs *ez-iragana* oposizio morfologikoa dago euskararen adizki jokatuaren erdian. *Ez-iragana* multzoko adizkiek *a*- aurrizkia daramate eta orainaldiko eta geroaldiko adizkiak osatzen dituzte: *na*tor, *etorri*ko *z*ara. Aldiz, *iragana* multzoko adizkiek *e(n)*- morfema dute eta lehenaldiko eta alegiazko adizkiak sortzen dituzte: *nentorren-banentor-nentorke*; *zentozen-bazentoz-zentozke*; *zetorren-baletor-letorke*; *genekien-bageneki, genekike*...

Adibideek erakusten duten bezala, nahiz eta lehenaldiko eta alegiazko adizkiak bat datozen erroaren aurreko markan, beste bi ezaugarritan bereizten dira: (i) iraganekoek, alegiazkoek ez bezala, *-n* atzizkia dute; (ii) adizkiaren subjektua 3. pertsonakoa delarik, alegiazko formek *l*- aurrizkia dute (*baletor, letorke; balu, luke; baleki, lekike*), iraganekoek, berriz, *z*- aurrizkia euskalki gehienetan eta euskara batuan (*zetorren, zuen, zekien*) —Ø- mendebaldeko hizkeretan: *etorren, eban, ekien*—.

**26.1.5.2b** Alegiazko forma horiek beste berezitasun bat dute. Erran dugu ez dutela iraganeko atzizkirik hartzen; ezin dute, hargatik, atzizkirik edo aurrizkirik gabe agertu, hau da, ez dugu **\*\*nentor, \*\*henkar, \*\*letor, \*\*lu, \*\*leki** bezalako

adizkirik. Alegiazko formak bi itxuratan agertzen dira: (i) *-ke* atzizki modalarekin (*nentorke, zenuke, luke, lekike, litzateke...*) edo (ii) *ba-* aurrizkiarekin (*banentor, bazenu, balu, baleki, balitz...*). Bistan dena, bi forma horien erabilerak desberdinak dira: *-ke* atzizkia duten formak perpaus nagusian erabiltzen dira (*etxe hau tindaturik ederragoa litzateke; ez nuke arazorik lanez aldatzeko; gogotik bisitatuko nuke Pariseko arte museoa*), edo baldintza irrealako apodosian (*hegan baneki txoria harrapatuko nuke / harrapa nezake; diru asko balu etxe handiago bat erosiko luke / eros lezake*); alabaina, bietan alegiazko gertakari baten berri ematen da, hau da, ez oraineko, ez iraganeko gertakari bat, baizik eta egoera jakin batean, mundu irreal batean, gerta litekeena. *Ba-* aurrizkia daramaten alegiazko adizkiak, berriz, baldintza irrealako protasian erabiltzen dira (*ingelesez baleki, asko bidaiatuko luke; egia aitortu banio, asko minduko zen*), edo hartarik eratorriak diren desideratibozko formetan (*otsoak jan baleza!*; *egia balitz!*) (ikus § 34). Edozein kasutan, esan daiteke oro har (*baldin*) *ba-* aurrizkia eta *-ke* atzizkia ez direla batera agertzen: *\*\*banentorke, \*\*baletorke, \*\*bazenuke*. Batzuetan, *-ke* atzizkia duten alegiazko formek *ba-* aurrizki bat dute, baina ez da oraintxe aurkeztu duguna, baieztapenezko *ba-* baizik: *Bazenuke zer erran; Baitekte Pello bihar etortzea; Bazenekike haren etxeraino heltzen?*

**26.1.5.2c** Ondoko taulan, *etorri* aditzaren iraganeko eta alegiazko paradigmak parez pare ezartzen dira bi forma multzoen arteko desberdintasun formalen agerian emateko.

Iragana	Alegiazko formak	
<i>Nentorren</i>	<i>nentorke</i>	<i>banentor</i>
<i>Hentorren</i>	<i>hentorke</i>	<i>bahentor</i>
<i>Zetorren</i>	<i>letorke</i>	<i>baletor</i>
<i>Gentozen</i>	<i>gentozke</i>	<i>bagentoz</i>
<i>Zentozen</i>	<i>zentozke</i>	<i>bazentoz</i>
<i>Zentozten</i>	<i>zentozkete</i>	<i>bazentozte</i>
<i>Zetozen</i>	<i>letozke</i>	<i>baletoz</i>

Orain arte erabili ditugun adibideetan ikusten den bezala, alegiazko adizkiak sintetikoak edo egitura analitikoetako laguntzaileak izan daitezke. Bestela erranik, adizki sintetiko eta analitiko guztiek paradigma errealaz gain (oraina, iragana) alegiazkoa ere badute (alegiazko adizki analitikoez, ikus beherago § 26.3.5.3).

### 26.1.5.3. *-ke* atzizkia

**26.1.5.3a** Ezbairik gabe, modu markatzailerik hedatuena *-ke* atzizkia da (*-teke* forma du *izan* eta *\*edin* aditzen NOR paradigmán: *naizateke/naiteke, dateke/daiteke, nintzateke/ninteke, zinatekeen/zintezkeen*). Izan ere, oraineko eta iraganeko aldietako adizkiek beretu dezakete, baita alegiazkoek ere: *dateke/zatekeen/liteke; dakarke/zekarkeen/lekarke; duke/zukeen/luke*. Halaber, bai adizki sintetikoek, bai analitikoetako laguntzaileei heda dakieke: *datorke, etortzen dateke, etorri dateke, etor daiteke; zekarkeen, ekartzen zukeen, ekarri zukeen, ekar zezakeen; lekike, jakin lezake...*

**26.1.5.3b** Alabaina, forma hauetan guztietan ez du betekizun bera. Euskara modernoan, hiru balio modal hauek dakartza: (i) alegia, (ii) ahalera, (iii) modalitate epistemikoa (ikus § 10.4.1 eta § 26.6.3.2). Gorago erakutsi dugu baldintzazko protasitik kanpo alegiazko formek *-ke* atzizkia nahitaezkoa dutela (*nintzateke; luke; letorke; lioke...*); bestela erranik, *-ke* atzizkia alegiaren markatzailea da. Gisa berean, ahalerazko adizki sintetikoek eta [aditzoina + *\*edin, \*ezan*] adizki analitikoa oinarri dutenek *-ke* beharrezkoa dute: *datorke; etor daiteke; egin dezaket; joan zintezkeen; sal zenezakeen*. Azkenik, ekialdeko hizkeretan —baina antzina euskalki gehiagotan ere hala zen—, *-ke* atzizkia modalitate epistemikoaren mailakoa da; hizlariak kontatzen duenarekiko ziurtasunaz zer iritzi duen islatzen du. Zehatzago, *-ke* atzizkia, segurtasunik gabe mintzo garelarik, erraten dugunarekin halako distantzia baten hartzeko erabiltzen da: *Ana bere lagunaren etxean dateke* ('ziurrenik Ana bere lagunaren etxean da, baina ez naiz segur'); *Aitorrek portuan lan egiten duke* ('ziurrenik Aitorrek portuan lan egiten du, baina ez naiz segur'); *Haurrak bart egin zituzkeen etxeko lanak* ('ziurrenik haurrak bart egin zituen etxeko lanak,



baina ez naiz segur’). Beherago ikusiko dugu ez dela modalitate epistemikoaren adierazpide bakarra (§ 26.6.3.2). Euskara zaharrean, betekizun modal horiez gain denborazkoa ere bazuen *-ke* atzizkiak, geroaldiari erreferentzia egiteko erabiltzen baitzen. Hura bereturik oraineko adizkiek gertakaria geroaldian kokatzen zuten: *Hogei urtetan eztena, hogei eta hamarretan ezta-kiena, eta berrogeietan eztuena, da jagoiti eztatena, eztakikena eta eztukeena* (Oihenart). Orobat, aginterazko adizkiei gehiturik etorkizunean betetzeko agindua ematen zen: *Zagokez isilik* (RS); *Jentil onbrea, ona çatozque gura banoçu gozadu* (Lazarraga).

#### 26.1.5.4. Aginte adizkiak

**26.1.5.4a** Hizkuntza gehienek bezala, euskarak adizki multzo bat dauka aginduak emateko: *hago isilik!*; *haika, mutil, jaiki hadi!*; *bil itzazue zuen puskak!*; *erran beza egia!*; *has dadila festa!* Ez dira, hargatik, aginduen adierazteraz mugatuak, besteak beste, aholkuak (*ez ezazu jan hori, gero, gaixotu eginen zara eta!*), erreguak (*etor zaitetz laguntzera, mesedez!*), debekuak (*ez bedi erre tabernaren barruan!*) eta baimenak (*sar zaitetz!*, *joan bitez festara!*) ere adieraz baititzakete.

Agindua, aholkua, debekua edo baimena solaskideari (edo solaskideei) baizik ez dakioker zuzenean adieraz, eta beraz, egiazki, agintera 2. pertsonakoa da, eta nehola ere ez 1. ala 3. pertsonakoa. Hori hala izanik, bereizketa terminologiko bat egin ohi da bi forma multzoen artean, *agintera* 2. pertsonako aginte adizkiei mugatuz, eta 1. eta 3. pertsonetako aginte adizkiak *jusibo* gisa izendatuz. Bereizketa hau morfologian islatu ohi da, hizkuntza askotan aginterazko eta jusibozko adizkiak desberdinak baitira. Euskaraz ere halaxe da orain ikusiko dugun bezala.

**26.1.5.4b** Euskaraz, aginterazko adizkiak jokatuak edo jokatugabeak izan daitezke. Agintera jokatu adizki sintetikoaren edo [aditzoina + \**edin*/\**ezan*] adizki analitikoaren bidez eratzen da euskalki gehienetan eta euskara batuan —mendebaldeko hizkerek [-tu + *egin*] adizki analitikoaren dute [aditzoina +

\**ezan*] adizkiaren orde: *esan egizu* ‘esan ezazu’—. Morfologikoki bereziak dira bietan erabiltzen diren adizki jokatu zenbait. Adizki intrantsitiboak oraineko adizkien homonimoak dira: *oraintxe zatoz?* / *zatoz hona!*; *noiz hoa lane-ra?* / *hoa hemendik!*; *etxean zaude?* / *zaude istant bat!* Bien arteko bereizketa intonazioan eta adizkiaren kokapenean gauzatzen da: aginterazko adizkiek intonazio bizia dute eta esaldiaren hastapenean kokatuak dira. Halaber, 1. pertsonako objektua duten adizki trantsitiboek oraineko adizkien eitea dute: *Nahi dut entzun nazazun* / *entzun nazakezu* / *entzun nazazu!*; *Nahi dugu lagundu gaitzazun* / *lagundu gaitzakezu* / *lagundu gaitzazu!* Bide batez, objektua 1. pertsonakoa delarik, adizki analitikoa baizik ez daiteke erabil (ikus § 26.2.3c). Haatik, 3. pertsonako objektua duten adizkiak berezi-bereziak dira. Kasu horretan, adizkiak ez du oraineko formek duten *d(a)*- aurrizkirik; *e*- aurrizkia duen aditz erroaren gainean eratua da (hemendik aitzina [*e*-ERROA]), pertsona atzizkiak hari datxizkola: *egi-zue*, *esa-da-zu*, *ekar-k*, *erran eza-k*, *entzun eza-zue*...

**26.1.5.4c** Debekua adierazteko, hau da, ezezkako aginteran, agintera adizkiak baino, subjuntibozkoak erabiltzen dituzte ekialdeko hizkerak: *egizu* / *egin ezazu!* vs *ez dezazula egin!*; *hator!* vs *ez hadila etor!*; *zaude!* vs *ez zaitzela egon!* Mendebaldean eta erdialdean, berriz, aginterazko formari eusten zaio testuinguru horretan ere: *ez ezak egin*; *ez hadi etor*; *ez zaitz egon*. Forma bata ala bestea erabil, euskalki moderno guztiek murriztapen bera dute: adizki sintetikoak ezin daitezke ezezkako aginteran ager (\*\**ez egik*, \*\**ez emazu*...). Horretarako, adizki analitikora jo behar da: *ez ezak egin* / *ez dezaala egin*; *ez ezazu eman* / *ez dezazula eman*.

**26.1.5.4d** Agintera jokatu gabeari dagokionez, ekialdean aditzoinaren bidez eratzen da, eta erdialdean eta mendebaldean partizipioaren bidez: *sar etxean!*; *altxa burua!*; *har gehiago!*; *sartu etxean!*; *altxatu burua!*; *hartu gehiago!* (ikus § 25.1.2a). Halere, iduri luke ekialdeko hizkerak agintera jokatu gabea besteek baino gutiagotan erabiltzen dutela.

**26.1.5.4e** Jusibozko adizkiak desberdinak dira subjektua lehen edo hirugarren pertsonakoa izan. Lehen pertsonako jusiboa adizki sintetikoen edo [aditzoina + \**edin*/\**ezan*] adizki analitikoaren bidez adieraz daiteke. Bietan

adizki jokatua orainekoa da eta *-n* atzizkia darama: *goazen; mintza gaitezen; hau egin dezadan; sar nadin etxean; indar bat egin dezagun; demagun egia dela*. Forma hauez gain ekialdeko euskalkiek [*dugun* + aditzoina] egitura dute lehen pertsona pluraleko subjektua duten aditz trantsitiboekin: *dugun kanta!; dugun ikas!* Ezezkako jusiboan [aditzoina + \**edin*/\**ezan*] adizki analitikoa baizik ez daiteke erabil; adizki jokatuak *-n* atzizkia beretzen du normalean: *ez gaitezen joan!; ez gaitezen mintza!; ez dezagun ezer egin!*

Hirugarren pertsonako jusiboak ere adizki sintetikoa edo [aditzoina + \**edin*/\**ezan*] adizki analitikoa izan ditzake oinarrian. Bizkitartean, bi modu daude adizki jokatuaren jokatzeko. Alde batetik, *-la* atzizkia beretzen duten oraineko adizkiak daude: *doala antzarrak ferratzera!; datorrela Jauna gure bila!; Jainkoak dizula egun on!; bejondeizula!; berak egin dezala!; ez dezala gezurrik esan!; joan dadila bere etxera!* Bestetik, [e-ERROA] oinarriari *b-* aurrizkia gehiturik formatutako adizkiak daude: *betor!; etor bedi zure nahia!; bekar!; ekar beza!; hala biz!...* Azken molde hau NOR 3. pertsonakoa duten adizkiei mugatua da, nahiz eta XVIII. eta XIX. mendeetako lapurterak beste pertsonetara hedatu formak dakartzan: *Zure esku botheretsuak, ene Jainkoa, gida benaza* (Xurio); *Ethor bekizkik laguntzerat, eman behazate ene kolpeen gerizean* (Barratziart); *Eta berek athera begaitzazte* (Duvoisin). Ezezkako jusiboan, hau da, debeku baten adierazteko, mendebaldean eta erdialdean *b-* aurrizkidun adizki analitikoei eusten zaie: *ez bedi joan; ez bedi etor; ez beza ekar*. Ekialdeko hizkerek, ordea, horren orde *-la* atzizkidun adizki analitikora jotzen dute: *ez dadila joan!; ez dadila etor!; ez dezala ekar*. Mendebaldean ala ekialdean, ezezkako perpausetan *-la* atzizkidun adizkiak erabiltzekotan, adizki analitikoak erabiltzen dira, sekula ez sintetikoak: *ez dadila etor (\*\*ez datorrela); ez dadila joan (\*\*ez doala); ez dezala ekar (\*\*ez dakarrela)*.

**26.1.5.4f** *Berori* errespetuzko tratamenduarekin (§ 13.3.4), hirugarren pertsonako jusibozko formak erabiltzen dira; kasu horretan, egiazko agintera bihurtzen dira, agindua zuzenean ematen baitzaio 3. pertsona gisa tratatzen den solaskideari: *Zaldun fededuna baldin bada berori, arren, ez biezat bizia kendu* (Ezkiaga); *Jaiki bedi berori* (Ezkiaga); *Hizpide xuxenera lotu bedi berori* (Juan Garzia).

Ororen buru, ñabardurak ñabardura, aginterazko eta jusibozko forma jokatuak adizki sintetikoaren edo [aditzoina + \**edin*/\**ezan*] adizki analitikoaren bidez osatzen dira.

### 26.1.6. Pertsona

**26.1.6a** Hizkuntza askotan, adizki jokatuak aldi, aspektu eta modu markez gain pertsona markak ere har ditzake. Zehatzago, predikatuaren argumentuak (subjektua, objektua eta zeharkako objektua), perpausean izen sintagmetan gauzatzen direnak, adizki jokatuan isla daitezke pertsona-marken bitartez. Adibidez, auzo-erdaiek predikatuaren subjektua adizki jokatuan islatzen dute hari pertsona-atzizkiak erantsiz: *canto*, *cantas*, *canta*, *cantamos*, *cantáis*, *cantan*; *je chante*, *tu chantes*, *il chante*, *nous chantons*, *vous chantez*, *ils chantent*. Euskarak, aldiz, predikatuak izan ditzakeen hiru argumentuekin du komuntadura, hau da, perpausean ager daitezkeen NOR, NORI eta NORK izen sintagmetan —sintagma hauek agerian izan ala isilduak—.

- 1) *N-ator* adizkian, *n-* aurrizkia perpauseko *ni* ISaren erreferentziakidea da, esaten digu NOR den datorrena.
- 2) *N-ator-ki-zu* adizkian, *n-* aurrizkia perpauseko *ni* ISaren erreferentziakidea da, eta *-zu* atzizkia perpauseko *zu* ISarena; hau da, esaten digu NOR den datorrena eta NORI datorkion, edo norengana datorren.
- 3) *N-arama-ZU* adizkian, *-zu* atzizkia NORK sintagmari dagokio eta eramailea nor den esaten du; *n-* aurrizkia perpauseko *ni* ISaren erreferentziakidea da, hau da, eramana dena.
- 4) *D-akar-ki-GU-ZU* adizkian, *-zu* atzizkia NORK sintagmari dagokio eta ekarlea nor den esaten du; *-gu* atzizkia perpauseko *gu* ISaren erreferentziakidea da, hau da, ekartze horren onuraduna; objektua, hots, ekarria dena, morfologikoki ez da markatua.

Adibide hauek erakusten duten bezala, pertsona komunztadura aurrizkien edo atzizkien bidez gauzaten da adizkian. Ondoko taulan, pertsona bakoitzaren markak zein diren zehazten dugu.

	Aurrizkiak	Atzizkiak
<b>1s</b>	n-	-da- / -t
<b>2s</b>	h-	-a- / -k ; -na- / -n
<b>3s</b>	∅-	-o
<b>1p</b>	g-	-gu
<b>2p</b>	z-	-zu
<b>2p'</b>	z-	-zue
<b>3p</b>	∅-	-(t)e

**26.1.6b** Aldi eta modu gehienetan, absolutibozko komunztadura ezkerreko zutabeen agertzen diren aurrizkien bidez egiten da; ergatibozko eta datibozko komunztaduraren islatzea, berriz, eskuineko zutabeko atzizkien bidez. Bizkitartean, ondoko hiru baldintzak betetzen direlarik, subjektu ergatiboarekiko komunztadura aurrizkien bidez egiten da: (i) aditza iraganekoa edo baldintza irrealakoa bada; (ii) subjektu ergatiboa 1. edo 2. pertsonakoa bada; (iii) objektua 3. pertsonakoa bada. Ergatiboaren lekualdatze horren ondorioz txandaketa ugari dugu paradigmetan. Hona adibide batzuk: *dut* vs *nuen*, *banu*, *nuke*; *duzi* vs *zenuen*, *bazenu*, *zenuke*...

**26.1.6c** Eskuineko zutabeen agertzen diren atzizkiak salbuespenik gabe datibozko eta ergatibozko komunztadura-atzizkiak dira. Bietan, singularreko lehen eta bigarren pertsonetako atzizkiek bi forma desberdin dituzte adizkian duten kokapenaren arabera. Adizkiaren bukaera absolutuan kokatuak direlarik, lehen pertsonak *-t* atzizkia du eta bigarrenak *-k* (maskulinoa) edo *-n* (femeninoa). Haatik, adizkiaren barnean kokatuak direlarik, hau da, ondotik beste atzizki bat gehitzen zaielarik (*-n*, *-la* menderagailuak, *-n* iraganaren marka, edo beste

komunztadura atzizki bat), lehen pertsonako marka *-da* atzizkia da eta bigarren pertsonakoa *-a* (maskulinoa) edo *-na* (femeninoa): *dut* vs *dudan*, *zait* vs *zitzaidan*, *duk* vs *zuan*, *dun* vs *dinan*. Datiboazko eta ergatiboazko atzizkien arteko homonimotasunak ez du, normalean, anbiguotasunik sortzen. Preseski, euskarak bien arteko bereizketa egiteko molde bat garatua du: komunztadura atzizkiak datiboazko komunztadura adierazten duenean, oso ohikoa da haren aitzintzoan *-ki* morfema kokatzea: *datorkit*, *daramazkio*, *dagokio*... Atzizki horren funtzioa ondotik datiboazko komunztadura-atzizkia datorrela erakustea da. Horregatik, datibo-markatzaile deitu ohi zaio (ingelesez *dative flag*).

**26.1.6d** Lehen eta bigarren pertsonak (§ 13.3) solasaldiaren eragileak dira, lehen pertsona hizketan ari baita eta bigarrenari zuzentzen baita. Hirugarrena, aldiz, elkarriketatik kanpo gelditzen da, ez du solasaldian parte hartzen. Hori hala izanik, hizkuntza askotan 3. pertsona ez da beste pertsonen gisan tratatzen (“ez-pertsona” zela zioen Benvenistek), eta ondorioz, markatugabea da. Euskalaritzak aspalditik erakutsi du adizkietan biltzen diren *d-*, *z-*, *l-* aurritzikiak aldi edo modu markak direla, eta nehondik ere ez pertsona markak (§ 26.1.2d). Hortaz, goiko taulan agertzen den bezala, euskaraz 3. pertsonak ez du absolutiboazko eta ergatiboazko markarik. Alabaina, datiboan marka berezia du, *-o* singularrean eta *-(t)e* pluralean.

**26.1.6e** Badakigu berez gaurko euskaraz *zu* bigarren pertsona singularreko izenordaina dela. Euskaldun askorentzat bakarra da, gainera; beste askorentzat, berriz, *hi* parean du. Baina garbi dago aditzaren morfologiaren aldetik, plural gisa lan egiten duela (§ 26.1.7a). Horregatik, hain zuzen, pertsona komunztadura atzizkiei eskaini taulan, pluraleko formen artean sailkatu dugu —eta *2p* deitu—.

### 26.1.7. Numeroa

**26.1.7a** Euskaraz numero komunztadura ere agertzen da adizki jokatuan. Gorago ikusi bezala (§ 26.1.6), adizkiak NOR argumentua lehen edo bigarren pertsonakoa den islatzen du pertsona marken bitartez; alabaina, NOR argumen-

tua *gu*, *zu*, eta *zuek* delarik, pertsona markaz gain pluralgilea ere beretzen du adizkiak. Hauek dira NOR sintagmaren pluralgileak:

– *-z(ki)*: *zaigu* vs *zaizkigu* (jatorrian *-ki* datibo markatzailea izanagatik, ematen du *-zki* pluralgilearen parte gisa berranalizatua dela)

– *-z*: *doa* vs *doaz*

– *-tza*: *dabil* vs *dabiltza*

– *-it-*: *nauzu* vs *gaituzu*

**26.1.7b** Hirugarren pertsona singularra eta plurala bereizteko, *-(t)e* pluralgilea erabiltzen da, hirugarren pertsona hori NORK (*esan du / esan dute*) eta NORI denean (*esan dio / esan die*). Baina ez da pluralgile horren erabilera bakarra, *zu* eta *zuek* pertsonen adizkien bereizteko ere erabiltzen baita (*ekarri dizut / ekarri dizuet; egin duzu / egin duzue; zabiltza/zabiltzate; zenuen/zenuten*), baita NOR pertsona zenbaiten pluralgile gisa ere: *dago/daude; hago/zaude*.

**26.1.7c** Adizki askok pluralgile bat baino gehiago dute pertsona beraren pluraltasuna markatzeko. Adibidez, *-z* ager daiteke *-ke* modu markaren aitzinean *-it-* pluralgilea indartzeko: *egingo luke / egingo lituzke* (eta ez *\*\*egingo lituke*); *ikusi ditu / ikusi dituzke*. Gisa berean, *\*edin-*en adizkietan *-z* eta *-te-* batera erabiltzen dira: *zaitetz, gaitezen, daitezen*. Zalantzarik gabe, *-it-* eta *-te-* pluralgile zaharrak ihartu arau pluraltasuna berriz markatzeko beharra sentitu dukete hiztunek. Orobat, NORK 3. pertsona pluralekoa delarik, *-tel/-zte* txandaka daude NOR singularra den edo plurala: *naute, haute, dute* vs *zaituzte, gaituzte, dituzte*.

## 26.2. Adizki sintetikoak

### 26.2.1. Sarrera

**26.2.1a** Kapitulu honen hasieran erran den bezala, euskal aditz gehienak adizki analitikoek (perifrastiko ere deituak gramatiketan) bitartez jokatzen dira, eta jokabide sintetikoa (trinko ere deituak) arras bazterrekoa da. Hauek

dira, gaur egun, adizki sintetikoak dituzten aditzak: *atxiki, eduki, egin, egon, ekarri, eman, entzun, eroan/eraman, erabili, eritzi, erran/esan, etorri, etzan, ezagutu, ibili, ikusi, \*io, iraun, irudi, izan, jakin, jardun, jario, jarraiki, joan, ukan*. Hauez gain, *Euskal Aditz Batua* izeneko liburuan (Euskaltzaindia 1979) *erakutsi, erauntsi, erosi, eutsi, igorri, ihardetsi, iharduki, irakatsi, utzi* aditzak ere aipatzen dira; baina testu zaharretan han-hemenka erabiltzen badira ere, azken mendeetan oso arraroak dira haien agerraldiak.

**26.2.1b** Lehen begi-kolpean multzo erlatiboki handia iruditu arren, ez da bere horretan hartu beharreko zerrenda, aipatzen diren aditz guztiek ez baitute erabilera-hedadura bera. Lehenik, desberdintasun handiak ditugu euskalkien arabera: oro har, mendebaldean eta erdialdean, ekialdean baino aditz gehiagok eutsi diote beren forma sintetikoari. Gero, testu moten eta komunikazio-egoe- ren arabera ere, batzuk beste batzuk baino ezagunagoak eta erabiliagoak dira; adibidez, literaturan eguneroko mintzoan baino ikusiagoak dira *atxiki, eritzi, erran/esan, ikusi, jario, jarraiki* aditzen forma sintetikoak. Azkenik, kontuan izan behar dugu zerrendako aditzen artean biziki guti direla paradigma osoak, hau da, pertsona, denbora eta modu guztietan forma sintetikoak dauzkatenak; multzo horretakoak dira *egon, etorri, izan, joan, ukan* aditzak. Hauen ondoan, pertsona bakar batzuekin, aldi eta modu bakar batzuetan erabiltzen diren sin- tetikoak ugariagoak dira: adibidez, *iraun* eta *jario* aditzen forma sintetikoek 3. pertsonako subjektua dute beti, eta orainekoak edo iraganekoak baizik ez dai- tezke izan —hau da, ez dute aginterazko ezta ahalerazko formarik ere—. Bis- tan dena, edozein euskalduni erraza zaio desagertuak —eta lekukotugabe— diren paradigmaren berrosatzea, eta hala egin genuen EGLU-II liburukian *iraun, atxiki, entzun, ezagutu, jardun, iharduki, ikusi, irudi* aditzen paradigma osa- tuak aurkeztu genituenean. Adizki sintetikoen paradigmak ikusi nahi dituenak delako liburura jo beza.

**26.2.1c** Adizki sintetikoak ez daitezke esaldiaren hastapen absolutuan ager inolako partikularik gabe: *\*\*dakit, \*\*dator ekaitza*. Hortaz, normalean *ba-* aur- rizkia gehitzen zaio adizkiari (*badakit; badator ekaitza*) edo adizkia bigarren posizioa mugitzen (*hau dakit; ekaitza dator*). Murriztapen horren salbuespena agintera dugu, horretan adizkia esaldiaren hastapen-hastapenean kokatzen



baita: *hago isilik!* (vs *isilik hago/bahago isilik* indikatibozkoak); *zaude etxean!* (vs *etxean zaude/bazaude etxean* indikatibozkoak); *zatozte hona!* (*hona zatozte/bazatozte hona* indikatibozkoak). Aginteratik kanpo, indikatiboan salbuespen pare bat biltzen da literaturan, \**io* aditza eta *nago ...-en(etz)/(-e)la* esapidea, hain zuzen: *Diot nik, adiskide gazte, honekin bat etorriko zarela* (Salaburu); *Nago ez dudanez gorago idatzi Baionako bi urteetan gertatu gauzetaz ez nintzela kasik oroit* (Aintziart); *Nago ez zarela ezeren beldur* (Zubizarreta).

Gorago ikusi dugu adizki jokatuak aldi eta modu markez gain pertsona eta numero komunztadura markak ere hartzen dituztela. Esandakoa errepikatu gabe, alde batetik aldia eta aspektua (§ 26.2.2), eta bestetik modua eta modalitatea (§ 26.2.3) ardatz harturik, ohar zenbait eginen ditugu adizki sintetikoaren berezitasun zenbait agerian emateko. Pertsona eta numero komunztadura ez ditugu aipatuko adizki sintetikoek ez baitute adizki analitikoetako laguntzaileetatik bereiziko luketen berezitasunik ez beren osieran, ezta beren erabileran ere (ikus § 26.1.6 eta § 26.1.7).

### 26.2.2. Aldia eta aspektua

**26.2.2a** Gorago erran dugun bezala, adizki sintetikoek, adizki analitikoetako laguntzaileek bezala, oraineko eta iraganeko aldietako paradigmak dauzkate: *dator, dakar; zetorren, zekarren*. Alabaina, adizki batzuen emankortasun falta dela kausa, kasu zenbaitetan aldi bateko adizkiak besterik ez dira gorde: adibidez, *entzun* eta *ezagutu* aditzek oraineko adizkiak dakartzate testu klasikotan, baina ez iraganekorik.

**26.2.2b** Antzina euskalki guztiek orainaldiaren eta geroaldiaren arteko bereizketa morfologikoa zuten adizki sintetikoetan, biak aldi oraineko adizkiak izanagatik, geroaldikoak *-tel-ke* atzizkia beretzen zuelako: *Beste bategaz ezkondu arren, / uste badozu oba dala, / errazoaz desakezue : / la bella mal mariada* (Lazarraga) ‘esango dizute’; *Hogei urtetan eztena, hogei eta hamarretan eztaiena, eta berrogeietan eztuena, da jagoiti eztatena, eztakikena eta eztukeena* (Oihenart). Gaur egun zuberera da delako usadioa mantendu duen

bakarra; alabaina, gorde dituen sintetikoak ere izugarri urriak izanik, *izan* eta *\*edun* aditzen geroaldiko sintetikoak baizik ez dira biltzen ahozko jardueran: *etxen niz* vs *bihar mendian nizate*; *gaitzeko marranta dut* vs *hotz niz*, *bihar gaitzeko marranta duket*. Oposizio morfologiko hau galdurik, hizkera askok aldi oraineko adizkiak erabiltzen dituzte etorkizunari erreferentzia egiteko: *Bihar etxera noa*; *Bihar lanean zaude egun osoan?*

**26.2.2c** Lehenago esan den moduan (§ 26.1.4.2e), adizki sintetikoek ez dute aspektuaren marka ageririk; ez dira hargatik hutsak aspektuari dagokionez. Hala orainean, nola iraganean puntukaritasuna adieraz dezakete: *Pello eta lagunak oraintxe datoz*; *Esneketariak esne freskoa dakar*; *Hegazkina hodeien gainetik doa*; *Oreinak hariztoian zebiltzan ehiztariak ikusi zituelarik*; *Futbolari gaztea auto gorrian zetorren*. Halaber, ohituraren balioa har dezakete: *Kiroldegira doa egunero*; *Goizero dator bere amarengana*. Batzuetan *ohi* partikulaz lagundurik agertzen da adizkia, ohituraren markatzeko: *Oreinak haritzen artean ohi dabilta*. Haatik, progresioa eta aspektu burutua adierazteko, paradigma sintetiko emankorra duten aditzek ere ezinbestean jo behar dute forma analitikoetara: *Oreinak haritzen artean ibiltzen ari dira/ziren* (progresioa); *Oreinak haritzen artean ibili dira/ziren* (aspektu burutua).

### 26.2.3. Modua eta modalitatea

**26.2.3a** Sintetikoetan ez dago indikatiboaren eta subjuntiboaren arteko bereizketa morfologikorik. Euskarak duen subjuntibozko forma bakarra [aditzoina + *\*edin/\*ezan*] adizki analitikoa da (ikus § 26.6.2.1) eta, beraz, testuinguru sintaktiko zenbaitetan (bereziki mendeko perpauk helburuzkoetan eta osagarri zenbaitetan), adizki sintetikoa utzi eta adizki analitikoa erabiltzen da euskara modernoan: *oraintxe dator* vs *nahi dut oraintxe etor dadin*; *etxera darama* vs *esan diot etxera eraman dezan/dezala*.

**26.2.3b** Adizki sintetikoek alegiazko paradigma dute, laguntzaileek bezalaxe. Forma hauen berezitasun morfologikoak ez ditugu hemen errepikatuko, aurreko atalean (§ 26.1.5.2) zehazki aipatu baititugu.

**26.2.3c** Sintetikoen erabilera franko nasaia da aginteran; hura da, hain zuzen, adizki sintetiko gehien biltzen duen kategoria. Ez dira guti forma sintetikoa bakarrik aginteran gorde duten aditzak; halakoak dira *jaugin* eta *etorri* ekialdeko hizkeretan (*haugi*; *hator*, *zatoz*, *zatozte*). Halakoak iduri dute, baita ere, *Euskal Aditz Batua* (Euskaltzaindia 1979) liburuan agerian eman bezala, *erosi*, *ihardetsi*, *igorri*, *irakatsi*, *utzi* aditzak. Gorago esan dugu 3. pertsonako objektua duten adizki trantsitiboak [e-ERROA] oinarriaren gainean eratzen direla, hari pertsona-atzizkiak datxizkola: *ema-da-zu*, *egi-zu*, *erra-k*, *erra-ko-zu*. Forma hauen ondoan, sintetikoen itxurako adizki analitiko kontraktatuak daude, *semisintetiko* izendatu ohi direnak: *adibidez*, *emaidazu*, *esaiok*, *jakizak*, *garbizazu* adizkiak. Hauetan, laguntzailearen arrastoa argia da: *-i-* morfema *egin* laguntzailearen aztarna da *emaidazu* ‘eman egidazu’ eta *esaiok* ‘esan egiok’ adizkietan; *-za-*, aldiz, *\*ezan* laguntzailearena *jakizak* ‘jakin ezak’, *garbizazu* ‘garbi ezazu’ adizkietan. Aginterazko forma sintetikoek bi murriztapen dituzte. Alde batetik, ez dira ezezakako aginteran erabiltzen, hau da, ez dira egokiak debeku baten emateko: *\*\*ez zatoz hona!* (vs *zatoz hona!*); *\*\*ez haugi etxera!* (vs *haugi etxera!*). Horretarako, adizki analitikoa erabili behar da: *ez zaitez etor hona*; *ez hadi jin etxera*. Bestetik, objektua 1. pertsonakoa delarik, adizki analitikoa baizik ez daiteke erabil (*ikus nazazu*, *entzun nazazu*); testu zaharretan kontrakorik agertzen bada ere: *Bana galde nauzun horrez ukenduru negizu* (Oihenart); *Amorea naitz eta nakutsu, / baldin badozu begirik* (Lazarraga). Jusibozko adizki sintetiko eta analitikoek ikus § 26.1.5.4e.

**26.2.3d** Nahiz eta normalean ahalera adizki analitikoen bidez osatzen den (§ 26.6.3.1), adizki sintetikoek ere adieraz dezakete, horretarako, adizkiak *-ke* atzizkia beretzen duela (*-teke* atzizkia *izan* aditzaren NOR paradigmán): *Ezin datorke hortik gauza onik* (Juan Garzia); *Nagusigo ezti hori ordea, ez da adiskidantza antzuak sortua*; *Soil-soilik amodioak dakarke* (Jon Muñoz); *Baina zu bezalako euskara modu baten seme, umezurtz izanagatik ere, ezin dateke gaizki* (Salaburu). Adizki bera erabiltzen da modalitate epistemikoa ekartzeko: *Mandabillaren kondaketaren kopia xvii. mendekoa dateke* (Arko-txa); *Adulterioaren malezia, agian, libidotik datorke* (Unzurrunzaga) (ikus § 26.6.3.2a).

## 26.3. Adizki analitikoak

### 26.3.1. Sarrera

**26.3.1a** Euskal aditz gehienak adizki analitikoen bidez baizik ez daitezke joka. Bi osagai ditugu adizki analitiko ororen oinarrian: adizki jokaturgabea eta adizki jokatua. Adizki jokaturgabea egiturako adizki nagusia da eta hark dakar eduki semantikoa. Adizki jokatua, berriz, egiturako laguntzailea da eta semantikoki hutsa da.

**26.3.1b** Lau dira adizki analitikoen osatzeko euskarak erabiltzen dituen adizki nagusiak: partizipio burutua (-*tu*), partizipio burutugabea (-*t(z)en*), partizipio prospektiboa (-*tuko*) eta aditzoina. Adizki nagusi horiek \**izan*, \**edun*, \**edin* edo \**ezan* —gehi *egin* mendebaldean eta -*iro*- ekialdean— laguntzaileekin elkartzen dira denbora-aspektu-modu ñabardura gehienen adierazteko. Atal honetan, adizki nagusiak (§ 26.3.2) eta laguntzaileak (§ 26.3.3) deskribatu ondoan, alde bate-tik aldia eta aspektua (§ 26.3.4), eta bestetik modua (§ 26.3.5) izanen ditugu aipagai. Pertsona eta numero komunztaduraz, ikus gorago § 26.1.6 eta § 26.1.7.

### 26.3.2. Adizki nagusiak

#### 26.3.2.1. Partizipio burutua

**26.3.2.1a** Adizki jokaturgabeak aztertzean ikusi dugun bezala (§ 25.2.1a), partizipioa aditzoinetik eratorria da eta hiru partizipio mota bereiz daitezke: (i) aditzoinari -*i* gehituz osatzen direnak: *etorri*, *ekarri*, *hasi*; (ii) aditzoinari -*tu* gehituz osatuak: *lotu*, *makurtu*, *sartu* (batzuetan -*du* bihurtua da fonologia aldatetengatik: *apaindu*, *ezkondu*); (iii) batzuek ez dute marka ageririk ([Ø] marka), adibidez, -*n*-z (*jan*, *edan*...), -*ki*-z (*ebaki*, *jarraiki*...) edo bokalez (*jaso*, *igo*, *bota*, *jo*, *laga*...) amaitzen diren aditzak.

**26.3.2.1b** Egitura analitikoen gramatikalizazioari buruz egin diren lanek erakutsi dute partizipioa oinarri duten adizki analitikoek aspektu burutua eka- rri ohi dutela. Euskaraz ere, aspektu burutua adierazteko, partizipioa oinarri

duten adizki analitikoak erabiltzen dira. Hori hala izanik, euskal gramatika gehienek partizipioa aspektu burutuaren ekarletzat daukate, eta partizipio-atzizkiak aspektu burutuaren markatzat. Hortik, adizki analitikoetan erabiltzen den partizipioari ‘partizipio burutu’ erraten zaio. Gramatika honetan, *-i*, *-tu* edo  $\emptyset$  marka izan, partizipio guztiak marka berarekin izendatuko ditugu: [-*tu*]. Horrela, marka horren azpian bilduko dira aldaki hauek guztiak: *eman, sartu, saldu, ekarri, bota, jarraiki...*

### 26.3.2.2. Partizipio burutugabea

**26.3.2.2a** Partizipio burutugabea inesibozko postposizioa duen aditz izena da: *ekartze-n, egite-n, esate-n* Gorago ikusi dugun bezala (§ 25.3.1a), euskara batuan *-te* eta *-tze* atzizkiak dira aditzoinetik aditz izena eratortzeko erabiltzen diren atzizkiak: (i) aditzoina *-n* kontsonantez eta txistukariz bukatua duten aditzek *-te* atzizkia hartzen dute: *egon* → *egote*, *iraun* → *iraute*, *eman* → *emate*, *izan* → *izate*; *hazi* → *hazte*, *ikasi* → *ikaste*, *hautsi* → *hauste*, *eutsi* → *euste*, *hobetsi* → *hobeste*; (ii) gainerakoek *-tze* atzizkiaren bitartez osatzen dute aditz izena: *etorri* → *etortze*, *hartu* → *hartze*, *jo* → *jotze*, *eduki* → *edukitze*.

**26.3.2.2b** Hizkuntza askok aditz izena eta osagai lokatibo bat (preposizio bat edo postposizio bat) oinarri dituzten egitura analitikoak erabiltzen dituzte aspektu burutugabearen adierazteko. Euskaraz ere aspektu burutugabea adierazten duten adizki analitikoetan inesibozko postposizioa daraman aditz izena erabiltzen da. Hortik, aspektu burutugabearen ekarletzat daukate euskalari askok, eta *-ten* edo *-zen* atzizkiak aspektu burutugabearen markatzat. Hemen, delako aditz izena ‘partizipio burutugabe’ gisa izendatuko dugu eta haren atzizki posibleak marka berarekin aipatuko: [-*t(z)en*].

**26.3.2.2c** Halere, partizipio burutugabea ez da aspektu burutugabea adierazteko erabil daitekeen adizki jokatu gabe bakarra. Hizkera batzuetan, aditzoinari *-ki* atzizkia gehituz adierazten da puntukaritasuna: *joaki da* ‘doa’, *ibilki da* ‘dabil’... Halako erabilerak kapitulu honen azken atalean berriz aipatuko ditugu (§ 26.6.1.1.1a). Bestalde, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian, formaz partizipio burutua izana-

gatik ere, *heldu* puntukaria da: *heldu da* ‘badator’. Aditz horri balio burutua eman nahi izanez gero, *-a(k)* gehitu behar zaio partizipioari: *heldua da* ‘iritsi da’.

### 26.3.2.3. Partizipio prospektiboa

**26.3.2.3a** Partizipio prospektiboa partizipiotik eratortzen da, hari *-ko* edo *-en* atzizkiak gehituz (§ 25.4). Bi hauetarik, *-ko* marka da maizenik agertzen dena (*sartuko*, *helduko*); partizipioa *n-z* bukatzen denean, *-go* ahoskatzen da (*jango*, *emango*). Partizipio markarik ez duten *bota*, *bete*, *kosta* bezalako partizipioei ere *-ko* zuzenean eransten zaie: *botako*, *beteko*, *kostako*. Ekialdean, atzizki hori bokalez bukatu partizipioei ezartzen zaie, eta *-en* marka hartzen dute kontsonantez bukatzen direnek: *joanen*, *janen*. Hortaz, euskalkien arabera ondoko txandaketak ditugu: *joango/joanen*, *jango/janen*, *eramango/eramanen*, *hilko/hilen*...

**26.3.2.3b** Geroaldia adierazteko modurik arruntena —nahiz eta ez den bakarra— partizipio prospektiboa oinarri duen adizki analitikoa erabiltzea da. Hemen, *-ko* eta *-en* atzizkiak dituzten partizipio prospektiboak identifikaturik, [-*tuko*] gisa aipatuko ditugu mota horretako partizipioak.

### 26.3.2.4. Aditzoina

Aditzoina adizki jokatugabeetarik oinarrizkoena da; areago, adizki jokatugabe guztiak hartarik eratorriak dira. Preseski, eratorpen atzizkirik ez baitu, aspektualki markatugabetzat daukate euskalari anitzek. Hemen ‘aditzoin’ gisa izendatuko dugu. Beherago ikusiko dugun bezala, aditzoina oinarri duten adizki analitikoak moduaren adierazpide nagusiak dira.

### 26.3.3. Adizki laguntzaileak

**26.3.3a** Euskararen denbora-aspektu-modu sistemako adizki analitiko nagusiak honako sei aditz laguntzaile hauekin osatuak dira: *izan*, *\*edun*, *\*edin*, *\*ezan*,

*egin* eta *-iro-*. Euskara batuan lehenbiziko laurak baizik ez dira erabiltzen —*egin* mendebaldeko hizkerei mugatua da eta *-iro-* ekialdekoei—. Egitura intrantsitiboetan, *izan* eta *\*edin* ditugu; trantsitiboetan, aldiz, *\*edun* eta *\*ezan*. Gorago erran dugun bezala, *\*edin*, *\*ezan* —eta *-iro-*— aditzek erabilera beregain oro galdua dute: ez dira ez adizki sintetiko gisa erabiltzen, ez adizki jokatugabe gisa. Preseski, haien aipamenezko forma izartxo batekin markatzen dugu ez baita lekukotua eta erabiltzen dugun forma berreraikia baita. Haatik, *izan* eta *\*edun*-en adizki sintetikoak oraindik erabiltzen dira —*\*edun* bereziki ekialdeko hizkereetan—: *Martin herri honetako alkatea da; Martinek etxe ederra du*. Izartxo batekin markatzen dugu *\*edun* ere bai, haren aipamenezko forma nehon lekukotua ez izanik, forma berreraikia erabiltzen baitugu. Laguntzaile horien ororen paradigmak kontsultatu nahi dituen irakurleak EGLU-II eta *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* (EGPB) liburuetan eta 78. arauan aurkituko ditu.

**26.3.3b** *Izan* eta *\*edun* laguntzaileek [-tu], [-t(z)en] eta [-tuko] adizki jokatugabeekin elkartuz osatzen dituzte adizki analitikoak. Haatik, *\*edin*, *\*ezan* —eta *-iro-*— aditzoinarekin elkartzen dira ekialdean eta euskara batuan (mendebaldean eta erdialdean, berriz, partizipioarekin, ikus § 25.1.1a, § 25.1.1b): *etortzen naiz, etorri naiz, etorriko naiz vs etor gaitezen; ekartzen dugu, ekarri dugu, ekarriko dugu vs ekar dezakegu*. Taula honetan, adizki nagusien eta laguntzaileen arteko banaketa biltzen dugu:

Adizki nagusiaren forma	Intrantsitibo	Trantsitibo
[-tu], [-t(z)en] eta [-tuko]	<i>izan</i>	<i>*edun</i>
Aditzoina	<i>*edin</i>	<i>*ezan</i>

#### 26.3.4. Aldia eta aspektua

**26.3.4a** Adizki nagusiaren formak ez du zerikusi zuzenik laguntzailearen aldia-rekin; adibide hauetan ageri da [-tu], [-t(z)en] eta [-tuko] oraineko zein iraganeko adizkiekin elkartu daitezkeela: *Haurrek goxokiak erosi dituzte; Haurrek goxokiak erosi zituzten; Pellok irratia entzuten du gosaltzen duen bitartean; Pellok irratia*

*entzuten zuen gosaltzen zuen bitartean; Bihar zintera joango naiz; Biharamunean zintera joango zen.* Aditzoina ere oraineko eta iraganeko aldiekin elkartu daiteke. Bizkitartean, murriztapen andana baten menpe dago: orainean eta iraganean ez da perpaus nagusietan erabiltzen, hau da, mendeko perpausetan baizik ez da agertzen: *Nahi dut etor dadin; Bihar bertan ekar zezala agindu nion.* Bestela erranik, ez dugu *\*\*etor dadi* edo *\*\*egin deza* bezalakorik, ezta *etor zedin, egin zezan* bezalakorik ere lehenaldiko perpaus nagusietan. Baina bai, aldiz, *etor daiteke, egin dezake / etor zitekeen, egin zezakeen* bezalako ahalerazko formak. Ondoko atalean ikusiko dugu aditzoina oinarri duten adizki analitikoak moduaren esparrura mugatuak diren ber, aparteko tokia dutela euskal aditzaren sisteman.

**26.3.4b** Gorago adierazi bezala, [-tu] partizipio burutua oinarri duten adizki analitikoek aspektu burutua dakarte, [-t(z)en] partizipio burutugabea dutenek, berriz, aspektu burutugabea. Haatik, [-tuko] partizipio prospektiboa geroaldia adierazteko erabiltzen da. Aspektua eta laguntzailearen aldia gurutzaturik, hauek dira denbora-aspektu sistemako adizki analitiko nagusiak:

	-t(z)en		-tu		-tuko	
	Oraina	Iragana	Oraina	Iragana	Oraina	Iragana
Orainaldi burutugabea	X <i>ikusten dut</i>					
Orainaldi burutua edo “perfektua”			X <i>ikusi du</i>			
Iraganaldi burutugabea		X <i>ikusten zuen</i>				
Iraganaldi burutua			X <i>atzo ikusi du</i>	X <i>atzo ikusi zuen</i>		
Geroaldia					X <i>ikusiko du</i>	
Iraganeko geroaldia						X <i>ikusiko zuen</i>



Taula horrek agerian ematen du gorago errana, hau da, aldia eta denbora ez datozela beti bat. Oraineko laguntzailea duten adizki analitikoek orainaldia eta geroaldia adierazteko adizkiak osatzen dituzte. Ekialdeko hizkeretan, [-tu] partizipio burutuaz eta oraineko laguntzaileaz eratu adizki analitikoa erabiltzen da iraganaldi burutua ekartzeko: *Atzo ikusi du* edo *Iaz Paris bisitatu dugu*. Haatik, iraganeko adizkiak iraganaldiari erreferentzia egiteko erabiltzen dira eskuarki. Salbuespen bakarra, hurren hizkera da, askotan iraganeko adizkiak erabiltzen baitituzte alegiazko mundu batez ari direla: *Ni Ama nintzen eta ikastolara joaten ginen*.

### 26.3.5. Modua eta modalitatea

#### 26.3.5.1. Subjuntiboa eta agintera

Adizki analitikoak	Indikatiboa	Gainerako moduak
[-tu], [-t(z)en] eta [-tuko] + <i>izan/*edun</i>	X	
aditzoina + <i>*edin/*ezan</i>		X

**26.3.5.1a** Aurreko taulak erakusten duenez, [-tu] partizipio burutua, [-t(z)en] partizipio burutugabea eta [-tuko] partizipio prospektiboa oinarri dituzten adizki analitikoak indikatiboaren esparrukoak dira. Indikatiboaz bestelako moduetarako, aditzoinaz eta *\*edin/\*ezan* laguntzaileez osatu adizki analitikoa erabiltzen da.

**26.3.5.1b** Hasteko, hura da euskararen subjuntibozko adizkia. Hizkuntzaz hizkuntza, subjuntiboa mendeko perpaus jokatu jakin batzuei mugatua izan ohi da; euskaraz, helburuzko perpausetan eta osagarri zenbaitetan erabiltzen da bereziki (ikus beherago § 26.6.2.1): *Erran diot oraintxe bertan dei nazan; Itxi atea haizerik sar ez dadin*. Euskarak hiru subjuntibo ditu: orainaldikoa, iraganaldikoa eta alegiazkoa. Orainaldiko subjuntiboak aldi oraineko laguntzailea du (*etor dadin, egin dezan*); iraganaldikoak, berriz, aldi iraganekoa (*etor zedin, egin zezan*). Alegiazko subjuntiboak alegiazko morfologia duen

laguntzailea du (*etor ledin, egin lezan*); euskalki gehienetan alegiazko perpaus baten osagarri gisa erabiltzen bada ere (*nahi nuke etor ledin*), zubererak, antzina orokorragoa zen usadio bati eutsiz, iraganaldiko perpausen osagarri gisa ere erabiltzen du (*üdan [üütürria] ttipitzen beitzen, hua behar zian haidürü egon behar zegoa betha ledin*, EHHA Montori). Mendeko perpausetan erabiltzen diren ber, subjuntibozko adizkiek menderagailua daramate; beherago erakutsiko dugu (§ 26.6.2.1) perpausen arabera, delako morfema *-n* edo *-la* izan litekeela (*etor dadin/etor dadila, egin zezan/egin zezala*).

**26.3.5.1c** Aditzoinaz eta *\*edin/\*ezan* laguntzaileez osatu adizki analitikoa aginterazko eta jusibozko forma analitiko nagusia ere badela ikusi dugu. Gorago azaldu direnak errepikatu gabe, gogoan har adizki analitiko horrek, sintetikoek ez bezala (§ 26.1.5.4, § 26.2.3c), ez duela erabilera-murritzapenik. Bestela erranik, nahiz eta aginte adizki sintetikoak dauden, maiztasun handiagoarekin erabiltzen da adizki analitikoa.

### 26.3.5.2. Ahalera

Ahalerazko forma nagusiak [aditzoina + *\*edin/\*ezan*] adizki analitikoa du oinarri. Laguntzailea aldi orainekoa edo iraganekoa izan liteke, eta gisa horretan orainaldiko edo lehenaldiko ahalera sortu: *etor daiteke; ez dezake egin; etor zitezkeen; ez zezakeen egin*. Alegiazko ahalera alegiazko morfologia duen laguntzailearekin osatzen da: *ez liteke etor; ez lezake egin*. Hiru kasuetan laguntzaileak *-ke* atzizkia beretzen du (*\*edin* laguntzaileak *-teke* NOR paradigmán). Geroago ikusiko dugu azken hamarkadetan adizki analitiko horren ordeztu zenbaiten erabilera hedatzen ari dela, *etortzen ahal da* eta *etorri ahal da* tipokoak (§ 26.6.3.1c, § 26.6.3.1d).

### 26.3.5.3. Alegiazko paradigma

**26.3.5.3a** Sintetikoak izan ala adizki analitikoetako laguntzaileak, adizki jokatatu guztiek daukate alegiazko paradigma, oraineko eta iraganeko aldietako

paradigmen ondoan. Gorago erran dugu alegiazko adizkiak bi itxuratan agertzen direla, *ba-* aurrizkiaz lagundurik, edo *-ke* atzizkia bereturik. Ezaugarri hauek denbora-aspektu-modu adizki analitikoetara ekarririk, ohartzen gara adizki analitiko guztiak *ba-* aurrizkidun alegiazko formarekin elkar daitezkeela. Adizki hauek oro, baldintza irrealeko protasian erabiltzen dira (§ 34.5.2):

- *sartzen balitz, egiten balu* (baldintza irreal ez-burutuko protasia, Iparraldeko hizkerak)
- *sartu balitz, egin balu* (baldintza irreal burutuko protasia, euskalki guztiak)
- *sartuko balitz, egingo balu* (baldintza irreal ez-burutuko protasia, Hegoaldeko hizkerak)
- *sar baledi, egin baleza* (baldintza irreal ez-burutuko protasia, zuberera —xvi. mendean euskalki guztiek erabiltzen zuten—)

**26.3.5.3b** Haatik, *-ke* atzizkia beretua duten alegiazko laguntzaileak ez daitezke adizki analitiko horietan guztietan erabil; [-tuko] eta aditzoina oinarri dituzten adizki analitikoek mugatuak dira halako adizkiak. Baldintza irrealeko apodosian eta hipotetikoan erabiltzen dira:

- *sartuko litzateke, egingo luke*
- *sar liteke, egin lezake*
- baina ez **\*\*sartzen litzateke, \*\*egiten luke** eta **\*\*sartu litzateke, \*\*egin luke**

#### 26.3.5.4. *-ke* atzizkia

**26.3.5.4a** Aldi oraineko eta iraganeko laguntzaile guztiek har dezakete *-ke* atzizkia, eta denbora-aspektu-modu adizki analitiko guztiekin konbina daitezke:

- *sartzen dateke, ikusten duke / sartzen zatekeen, ikusten zukeen*
- *sartu dateke, ikusi duke / sartu zatekeen, ikusi zukeen*
- *sartuko dateke, ikusiko duke / sartuko zatekeen, ikusiko zukeen*
- *sar daiteke, ikus dezake / sar zitekeen, ikus zezakeen*

**26.3.5.4b** Alabaina, gisa horretan eratu adizki analitikoek ez dute ez balio bera, ez funtzio bera sisteman. Lehenbiziko biak (*sartzen dateke, ikusten duke / sartzen zatekeen, ikusten zukeen* eta *sartu dateke, ikusi duke / sartu zatekeen, ikusi zukeen*) modalitatearen esparrukoak dira. Laguntzaileari *-ke* atzizkia ezarri, mintzatzaileak erraten duenaz segurtasun osorik ez duela adierazten du (ikus § 26.6.3.2a). Haatik, [-tuko] oinarri duten adizki analitikoak bakan agertzen dira laguntzaileari *-ke* atzizkia gehiturik. Antzina geroaldia adierazteko erabiltzen zen: *Orduan haren etxea pillaturen duke* (Leizarraga); *Emazteak zerengatik gaitz erranen dirate?* / *Handi eta txipi oro haietarik girade* (Etxepare). Gorago erran dugun bezala (§ 26.3.5.2), *sar daiteke, ikus dezake / sar zitekeen, ikus zezakeen* adizki analitikoek ahalera adierazten dute.

Gorago ikusi dugu alegiazko adizkiek ere *-ke* atzizkia hartzen dutela (§ 26.1.5.2); adizki hauetan, alegiaren markatzailea da.

## 26.4. Perifrasiak

**26.4a** Gutierrez bi osagai daude perifrasi ororen oinarrian: adizki jokatu gabe bat eta adizki jokatu bat. Hori hala izanik, batek pentsa lezake adizki analitikoak bezalaxe eratuak direla. Bizkitartean, perifrasiak eta adizki analitikoak oso desberdinak dira sintaxiari dagokionez. Analitikoetan, adizki jokatu gabea eta jokatu, gorputzeko organoen gisan, bata bestearen menpe dira eta bat egiten dute (ikus § 26.3). Perifrasietan, berriz, ez dira perpaus bereko bi osagaiak; alderantziz, perifrasiak egitura biperpausduna dute: adizki jokatu perpaus nagusiko adizki nagusia da, eta adizki jokatu gabea, haren menpeko den perpaus baten burua.

**26.4b** Mota askotako perifrasiak daude munduko hizkuntzetan, denbora-, modu-, aspektu-perifrasiak, baina baita balentziari dagozkionak ere. Euskararen perifrasi gehienek aspektu eta modu ñabardurak dakartzate. Perifrasi aspektualen artean, [-t(z)en + *ibili*], [-t(z)en + *egon*], [-t(z)en + *jardun*], [-t(z)en + *ari izan*] progresibozkoak aipa daitezke, edo [-tu(a)z + *joan*] ekintza baten gradueltasuna agerian ematen duena (ikus § 25.3.5b, § 25.2.7d, § 26.6.1.1.1).

Geroaldi hurbilari erreferentzia egiteko, [-t(z)era + joan] dute euskalki gehienek: *esatera noa* (§ 25.3.5d, § 26.6.1.3f). Modalitatearen esparrukoak dira [-tu + nahi izan], [-tu + behar izan], [-tu + ahal/ezin izan] (§ 10.4.1, § 23.4.2, § 23.4.4, § 26.6.3.1c).

**26.4c** Perifrasiak guti gramatikalizatuak dira, eta beraz, anbigua izan daiteke haien esanahia: testuinguru zenbaitetan, ez da argi egiturari bere jatorrizko balioa eman behar zaion ala gramatikalizazioaren ondorioz har lezakeena. Jarduera aditzak oinarri dituzten perifrasiak ohikoak dira aspektu progresiboa adierazteko; alabaina, ez da beti argi egiturak jarduera ala ekintzaren progresibotasuna adierazten duen. Hona [-t(z)en + jardun] perifrasiaren bi adibide: *Hark, idazmakina aurrean duela, itzulita eta zuzenduta dauden testuak meka-nografiatzen dihardu* (Iñurrieta); *Urte berrian sartu direnez geroztik behintzat Men at War gerrako kontagaien antologia zuzentzen dihardu* (Jimenez). Hala-ber, [-t(z)en + ibili] perifrasiak, progresiboa baino, mugimendu bat adierazten duen galdetzea zilegizkoa izan daiteke, bereziki adjuntuak daudenean: *Jaiki egiten da neska, gelan batera eta bestera dabil bere arropak batzen, bakarrik balego bezain lotsa gutxirekin* (O. Arana). Baina perifrasiak gramatikalizatzen diren heinean, aldaketak gertatzen dira syntaxian. Euskaraz, bereziki subjektuaren markaketan eta laguntzailearen hautaketan agertzen dira gramatikalizazioaren ondorioak. Eman dezagun [-t(z)en + ari izan] perifrasiaren adibidea.

Hastapen-hastapenean, partizipio burutugabea trantsitiboa izan ala intrantsitiboa, subjektua absolutiboan zen eta *izan* laguntzailea erabiltzen zen: *ni hurbiltzen ari naiz* eta *ni egiten ari naiz*. Ekialdeko hizkera askotan egitura berranalizatu da, partizipio burutugabea adizki nagusi gisa harturik. Hortik, aditz trantsitiboan kasuan, subjektua ergatiboan markatzen da eta *izan* beharrean, \**edun* da adizki jokatuak: *nik egiten ari dut*. xx. mendearen hastapenetik izugarri nasaiak dira erabilera horren lekukotasunak autoritateen testuetan: *Erran dugu kargu behar-gabekoak emendatzen ari direla, eta bizkitartean kargu bakhotxaren irabazia oroz batean goititzen ari; bi aldetarik iresten ari gaituztela gero-ta gehiago* (Hiriart-Urruti); *249 garren erreximendua ari zuten apailatzen gudu-tokietarat igortzeko* (Lafitte). Gauza bera gertatu da [-tu + behar izan] eta [-tu + nahi izan] perifrasiekin, nahiz eta alderantzizko norabi-

dean obratu den (aditz intrantsitiboekin, subjektua ergatiboan markatzetik absolutiboan markatzera pasatu da eta *izan* laguntzaileak \**edun* ordezkatu du): *etorri behar naiz* vs *egin behar dut*; *jin nahi naiz* vs *egin nahi dut*. Euskaltzaindiak ez du gaitzesten trantsitibo/intrantsitibo bereizketa formala [-tu + *behar izan*] eta [-tu + *nahi izan*] perifrasiaren kasuan.

Ikus Euskaltzaindiaren 113. araua: “*Behar izan* aditzaren jokabidea aditz iragangaitzekin”, 2001eko otsailaren 23an, Lekeition, eta maiatzaren 25ean, Donostian, onartua.

Ikus Euskaltzaindiaren 114. araua: “*Nahi / gura izan* aditzen jokabidea aditz iragangaitzekin”, 2001eko otsailaren 23an, Lekeition, eta maiatzaren 25ean, Donostian, onartua.

## 26.5. Aditz predikatu konplexuak

**26.5a** Orain arte aipatu ditugun aditzak, ondare zaharrekoak izan ala mai-leguak, hitz bakar batez osatuak ziren. Hauez gain, euskarak aditz predikatu konplexu franko dauzka, bi hitzez osatu aditzak. Gorago erakutsi bezala, erregimenari dagokionez, aparteko tratamendua dute askotan (§ 23.2.1.3). Baina aspektuari dagokionez ere bereziak dira horietariko asko. Zehatzago, izen bat (*beldur, nahi, behar, iduri, atsedeen, balio, uste*) edo adjektibo bat (*laketa, sori, maite, bizi, ageri*) eta *izan* edo \**edun* aditza oinarri dituzten predikatu konplexuei aspektua modu berezian ezartzen zaie (*beldur izan, nahi izan, behar izan, iduri izan, laketa izan, sori izan, maite izan, bizi izan, ageri izan, balio izan, uste izan...*).

**26.5b** Oro har, aspektu puntukaria markatugabea dute, hau da, predikatuko izenak ez du [-t(z)en] atzizkia beretzeko beharrik gertakaria bidean dela adierazteko: *nahi dut, beldur naiz, behar dut, iduri zait, maite dut, laketa dut, balio du, uste du, bizi da...* Haatik, ohitura edo burututasuna adierazteko, *izan* predikatuaren erdian kokatzen da —ekialdeko euskalkiek *izan* dute laguntzaile intrantsitiboekin eta *ukan* trantsitiboekin— eta aspektualki markatzen: *izaten*

partizipio burutugabea erabiltzen da ohituraren kasuan, eta *izan* partizipio burutua aspektu burutua adierazteko. Adibidez, *Igandetan jatetxean bazkaldu nahi izaten du*; *Igande honetan ez du jatetxean bazkaldu nahi izan*; *Lantegian sartzean, oinetakoz aldatu behar izaten du*; *Lantegian sartzean, oinetakoz aldatu behar izan du*; *Atunak 7 euro kiloa balio izaten du abuztuan, baina urte batzuetan 5 euro balio izan du*. Geroaldiari erreferentzia egiteko, aditz zenbaitek *-ko* atzizkia zuzenean eransten diote izenari edo adjektiboari (*nahiko*, *beharko*, *biziko*, *maiteko*, *komeniko*, *iduriko*, *balioko*); beste zenbaitek, berriz, nahitaez *izan* erabili behar dute bitartekari gisa, *izanen/izango* partizipio prospektiboa predikatuko bi osagaien artean tartekatuz: *beldur izanen da*; *laket izanen zait...* Batzuek bi aukerak dituzte posible, hizkeren arabera: *nahiko du / nahi izanen du*; *usteko du / uste izanen du*.

**26.5c** *Bizi izan* eta *maite izan* aditz predikatu konplexuen kasua berezia da ez baitezakete aspektu burutugabearen markarik har, ez [-t(z)en] atzizkia *bizi* eta *maite* osagaiei zuzenean gehituz (\*\**bizitzen*, \*\**maitetzen*), ezta *izaten* partizipio burutugabea erabiliz ere. Delako murrizketa gorago aipatu dugun aditzaren aspektu lexikoak ezartzen du, dudarik gabe, aditz estatiboak nekez batera daitezkeelako aspektu progresiboarekin edo ohiturarekin (§ 26.1.4.2c). Alabaina, egoera iraunkorra baino egoera puntuala deskribatzen denean, delako ezintasuna gainditzen da hizkera batzuetan: *Italian bizi izaten/bizitzen nengoela, asko disfrutatu nuen*. Halaber, inpersonalean ere *bizitzen* eta *maitetzen* adizkiak erabiltzea posible dute mintzo zenbaitek: *Dirua izanez gero, ederki bizitzen da*; *Maitatzen delako maitatzen da* (X. Aranburu).

**26.5d** Osaera desberdinekoa izanagatik, *ari izan* aditzak ezaugarri komun anitz ditu aditz predikatu konplexu hauekin aspektuaren ezarketari dagokionez. Aditz horretan ere aspektu burutugabea ez da markatzen (*pilotan ari naiz...*), eta ohitura adierazteko haren kide den *aritu* aditz eratorria erabiltzen da: *Pilotan aritzen da igande guztiz*. Haatik, aspektu burutua markatzeko, joera desberdinak ditugu euskalkien arabera. Batzuek *izan* behar-beharrezkoa dute, besteek *aritu* erabiltzen dute: *Atzo pilotan ari izan/aritu da*. Geroaldiari erreferentzia egiteko, *ariko*, *arituko* eta *ari izanen* ditugu euskalkien arabera: *Bihar pilotan ariko/arituko/ari izanen da*.

**26.5e** Aditz predikatu konplexu gehiagok daukate haien kidea den aditz eratorria: adibidez, *beldur izan* eta *beldurtu*, *iduri izan* eta *iduritu*, *maite izan* eta *maitatu*, *laket izan* eta *laketu*... (ikus § 23.2.1.3.4g). Zenbaitetan, aditz predikatu konplexua eta aditza banaketa osagarrian dira aspektu burutugabeari dagokionez: *maite du* (puntu-karia) vs *maitatzen du* (ohitura), *beldur naiz* (puntu-karia) vs *beldurtzen naiz* (ohitura). Baina ez da beti hala, *laket naiz/dut* eta *laketzen naiz/dut* eta *iduri izan* eta *iduritzen zait* puntu-kariak izan baitaitezke. Berezia da *mintzo izan* eta *mintzatu* aditzen arteko harremana ekialdeko hizkeretan. *Mintzo* puntu-karia da eta gainerako ñabardurak *mintzatu* aditzak erabiliz adierazten dira: *Zein ederki mintzo den haur hori* (= *mintzatzen (ari) da* ere posible da, baina ez da hain ohikoa). Horren parean *mintzatzen da*, *mintzatu da* eta *mintzaturen/mintzatuko da* ditugu.

## 26.6. Denbora, aspektua eta modua

Adizki jokatuaren osaera aztertu ondoan, haien erabilerak deskribatuko ditugu. Atal honetan, beraz, ardatz semantikoari jarraikiko gatazka; alde batetik denbora eta aspektua (§ 26.6.1), eta bestetik modua (§ 26.6.2) eta modalitatea (§ 26.6.3) nola adierazten diren erakutsiko dugu.

### 26.6.1. Denbora eta aspektua

#### 26.6.1.1. Orainaldia

Kapitulu honen lehen atalean ikusi bezala (§ 26.1.2a), orainaldiak solasaldiaren unearekin bat egiten du. Euskarak aldi oraineko adizki jokatuak erabiltzen ditu gertakariak orainaldian kokatzeko; ez da, haatik, adizki horien erabilera bakarra orainaldiaz bestelako denbora-erreferentziak ere ekar baititzakete, adibidez, iraganaldia edo geroaldia (§ 26.6.1.2b, § 26.6.1.2.2c, § 26.6.1.3c).

Azpiatal honetan, solasaldiaren unean aspektualki burutugabeak eta burutuak diren gertakariak nola adierazten diren ikusiko dugu.



### 26.6.1.1.1. Burutugabea

**26.6.1.1.1a** Adizki sintetikoak eta [-t(z)en + izan/\*edun] adizki analitikoak dira aspektu burutugabearen forma nagusiak. Alabaina, hauez gain perifrasiak ere badaude, ñabardura aspektual zenbait dakartzatenak. Ikus dezagun forma bakoitzaren banaketa zein den.

Adizki sintetikoak gorde dituzten euskalkietan, jokamolde sintetikoa eta analitikoa banaketa osagarrian erabiltzen dira: biek adieraz dezakete ohitura eta maiztasuna; bizkitartean, aspektu puntukaria adizki sintetikoak baizik ez dezake ekar: *Pello egunero dator/etortzen da* (ohitura); *Maddi askotan dabil/ibiltzen da mendian* (maiztasuna) vs *Pello autoz dator/\*\*etortzen da* (puntukaria); *Maddi kalean dabil/\*\*ibiltzen da* (puntukaria). Haatik, paradigma sintetikoak galduak dituzten euskalkiek adizki analitikora jotzen dute baita aspektu puntukarirako ere; [-t(z)en + izan/\*edun] adizkia da forma nagusia, baina hizkera zenbaitek, partizipio burutugabearen ordez, aditzoinari -ki atzizkia gehiturik osatzen den adizki jokatuabea erabiltzen dute aditz zenbaitekin: *Pello autoz etortzen da; Maddi kalean ibiltzen da/ibilki da; Haurrak etxera joaten dira/joaki dira*. Paradigma sintetikorik ez duten aditzen aspektu puntukaria [-t(z)en + izan/\*edun] adizkiaren bidez baizik ez daiteke adieraz euskalki guztietan: *Pellok kantatzen du; Maddik komiki bat irakurtzen du*.

**26.6.1.1.1b** Maiztasuna eta ohitura adierazteko, beraz, adizki sintetikoa eta [-t(z)en + izan/\*edun] molde analitikoa erabiltzen dira; gehienetan adberbio batek ematen dio adizkiari bere ñabardura aspektuala: *Auzoko gatuak askotan dabilza/ibiltzen dira teilatuaeren gainean* (askotan, maiztasuna); *Auzoko gatuak egunero doaz/joaten dira hiriguneko parkera* (egunero, ohitura). Alabaina, ohiturak forma bereizgarriak ere baditu, *ohi* partikulaz lagunduak. Sintetikoak izan daitezke (*Inbaditutako lurraldean inurriak bezala ohi dabilza zelatariak*, K. Zabala; *Dimenari doakionez, dakusadanez, bat ohi datoz adimenezko multzoaren atomoetako batean datzan akzidente bat dela esatean*, Kintana) edo analitikoak; Ipar Euskal Herrian [-t(z)en + izan/\*edun] adizkiarekin erabiltzen da *ohi* partikula, Hego Euskal Herrian, berriz, [-tu + izan/\*edun] adizkiarekin: *Usu eta franko egin ohi du izotza terreno eta paraje horie-*

*tan, Sakanatik aurrera* (P. Zabala); *Herri hazietan egin ohi dira azokak, feriak, jaiak eta ospakizunak* (Zuazo); *Herioak hartzen deraukun ahaide eta adiskideen gorphutzak arhatzen ohi ditugu oraino bizi balira bezala, edo hobeki* (Hiriart-Urruti gaztea). Mendebaldeko hizkera zenbaitek [-t(z)en + *jakin*] perifrasi erabiltzen dute gertakari baten ohikotasuna agerian emateko: *Sanantoliñetan, nire lagunak badakije etorten Lekittora* ‘etorri ohi dira’ (Hualde, Elordieta & Elordieta 1994: 145); *Udazkenean ere badaki elurra egiten inguru horretan*. Euskara zaharrean horretarako erabiltzen zen [-tu + *joan/eroan*] adizki analitikoa; baina egitura horren erabilera ez da lekukotzen gaur egungo euskalkietan: *Ao itsian eztoa sartu eullia, ta aldi guztietan ezta eder egia* ‘ez da sartu ohi’ (RS 123); *Burla gaxtoa bere sorlekura itzuli doa* ‘itzuli ohi da’ (Oihenart); *Mundu honek anhitz jende enganatu darama* ‘enganatu ohi du’ (Etxepare) (ikus § 25.2.7b).

**26.6.1.1.1c** Gertakari baten maiztasuna agerian emateko, euskalki gehienek sintetikoak eta [-t(z)en + *izan/\*edun*] adizki analitikoa erabiltzen dituzte maiztasunezko adberbio batekin batean: *Garai bereko seme, antzeko gogoetak darabiltzate maiz biek* (Zurutuza); *Eta hala sentitzen ditut usu neure baitan bi jaidura edo bi sentimendu kontrajarri horiek* (Irigoién); *Dirua modu askotara egin litekeela maiz entzuten dugu* (Garate). Mendebaldeko hizkerek [-t(z)en + *ibili*] perifrasiaren bitartez ekar dezakete maiztasunaren ñabardura: *Gainera, prezioak igo egin dituzte, beti jendeari esfortzuak eskatzen dabiltza zuzendaritzakoak, eta zaleak erreta, jota edo amatatuta ikusten ditut* (Berria).

**26.6.1.1.1d** Hizkuntza askok adizki bereziak baliatzen dituzte progresiboa adierazteko, hau da, gertakari baten garapena agerian emateko. Euskarak horretarako ere [-t(z)en + *izan/\*edun*] adizki analitikoa erabil dezakeen arren (*Non dago Ama? Josten du*), gehienetan perifrasiatara jotzen du. Euskalkien arabera, honako perifrasiak erabiltzen dira progresiboan: [-t(z)en + *ari izan*] (erdialdean eta ekialdean), [-t(z)en + *jardun*] (mendebaldean), [-t(z)en + *ibili*] (mendebaldean), [-t(z)en + *egon*] (mendebaldean): *Byron-en gutun bat irakurtzen ari da, 1820koa* (O. Arana); *Gure herria hazten ari da, baina, zerk iraungo du?* (Aristi); *Neska gazte bat bere zango-aztal eta oin-eri minberen artatzen ari da* (Aintziart); *Treneko hizkuntza guztietarik hiruna hitz harturik*

*olerkiak osatzen dihardu* (Jimenez); *Jakina, maletak egiten dihardu orain* (I. Mendiguren); *Benetan onartzen ote du erru hori, edo itxurak egiten dabil [...]?* (O. Arana); *Lozorrotik esnatzen dabil gosetia* (Urrutikoetxea); *Neska bat ispilu puskatu batzuekin jolasten dago eszenako behegainean* (Berria); *Musika eskola ondoko autobus geltokian itxaroten dago Iker* (Urrutikoetxea). Gogoan izan dezagun alde bat gramatikalizatuak ez diren heinean, perifrasi hauek ez dutela beti balio aspektualik eta, beren jatorrizko eduki semantikoa-ri eutsiz, jarduera adierazten dutela askotan (ikus § 26.4). Gorago erran dugu aditz estatiboek egoera egonkor bat, hau da, garapenik gabea, adierazten duten ber, ezin daitezkeela aspektu progresiboarekin konbina (§ 26.1.4.2c). Hori hala izanik, honako adizkiak ezinezkoak dira: *\*\*izaten ari da/\*\*izaten dabil, dihardu; \*\*egoten ari da/\*\*egoten dabil, dihardu; \*\*irauten ari naiz/\*\*irauten nabil/dihardut; \*\*maitatzen ari naiz/\*\*maitatzen nabil/dihardut*. Halaber, [-t(z)en + izan/\*edun] adizki analitikoaren bitartez jokaturik, aditz estatiboek ez dute sekula progresibotasunaren baliorik hartzen: *egoten naiz, izaten naiz, irauten dut* adizkiek usaiako gertakari bat adierazten dute edo maiz gertatzen dena, baina nehola ere ez garatzen ari den gertakari bat, hots, progresiboa.

**26.6.1.1.1e** Gertakari baten garapenaren gradueltasuna adierazteko ere perifrasi berezia dute euskalki gehienek, [-tu(a)z + joan] perifrasi hain zuzen: *Irudiaren planoaren paralelo dauden zuzenkien zabalera, zuzenki horiek errealitatean urrunduz joan ahala, txikituz doa irudian* (J. Zabaleta); *Gai jakin batean, material berezi batean murgildurik, bestalde, egunean-egunean handituz doa denbora- eta lan-inbertsioa* (Juan Garzia).

#### 26.6.1.1.2. Burutua

**26.6.1.1.2a** Orainaldiko bi forma burutuak erresultatiboa eta perfektua dira.

Perfektuak solasaldiaren unea aitzin agitu den gertakari bat adierazten du, baina solasaldiaren unean oraindik esanguratsua dena: *Irailaren IIko atentatuek munduko politika guztiz aldatu dute; Alemaniako Errepublika Demokratiboaren garaiko eraikinek Berlin ekialdea itsustu dute*. Adibide horietan

aipatzen diren gertakariak aspaldikoak dira (irailaren 11ko atentatuak 2001. urtean gertatu ziren; AEDren eraikuntza-lanak 50eko hamarkadakoak dira); alabaina, solasaldiaren unean oraindik esanguratsuak dira, hau da, haien ondorioak oraindik hautematen dira solasaldiaren unean. Euskalki guztiek [-tu + *izan*/\**edun*] adizki analitikoa erabiltzen dute horretarako (*etorri naiz, egin dut* tipokoa). Erresultatiboa eta perfektua parez pare ezarrita, argiago gera daiteke bien arteko alde semantikoa zein den. Har ditzagun *Soldadua zauritu da* eta *Soldadua zauritua da* perpausak. Lehenbizikoan, iragandako ekintza baten berri ematen da (*soldadua zauritu*); bigarrena, berriz, soldadua-aren egoeraz ari da, iraganeko ekintza baten ondorioz dagoen egoeraz (*soldadua zauritu da* eta ondorioz, *zaurituta dago*). Halaber, *Munduko politika guztiz aldatua da* erraten dugunean, munduko politikaren egoeraz ari gara, eta pairatu dituen aldaketen ondoko egoera erakusten du ('aldaketak egin dira, eta beraz, aldatua da').

**26.6.1.1.2b** Solasaldiaren unean oraindik esanguratsua den iraganeko gertakari bat adierazten duen ber, perfektuak esperientziaren berri eman dezake, hau da, jendeak diren bezalakoak bihurtu dituzten bizi-esperientziak —esperientzia-perfektua deitzen zaio literatura espezializatuan—. Baina adizki analitiko horrez gain, euskalki gehienek egitura analitiko birkonposatua ere erabiltzen dute, hau da, eduki semantikoa dakarren partizipioaz gain *izan* edo *ukan* partizipioa ere beretzen duena: *Gazte nintzalarik, antzotegi batean ikusi izan dut gizon bat, makila luze bat eskuan, hartaz jotzen zituela ikusliar arraboslari lotsagabeak* (Larزابال); *Koloradotik Bizkaiaraino, gero Donazaharrera, jin izan zira zure herria ta haurriden ikustera* (Arrosagarai); “*Ui! Ahaztu loa!*” —*esan izan dit ama batek baino gehiagok* (Iturbe). Askotan ohituraren edo maiztasunaren kutsua ere izan dezake adizkiak: *Mai z joan izan naiz Mediarat eta hango Rage hirian bizi den gure anaia Gabaalen etxean egona naiz ostatu z* (Etxehandi); *Carabanchel dena zuloz josia zegoela entzun izan dugu sarritan* (Urain). Malerrekan, Bortzerrietan, Goizuetan eta Hondarribian, partizipioari -*katu*/-*ketu* atzizkia gehiturik osatzen da esperientzia-perfektuzko adizkia (*emanketu, etorriketu, ikusiketu, izanduketu*...): *Ikusiketu dut or lenago erbia* (Arburua); *Oriyek zelayan, zabaliyan, utziketu gaituzte* (Arburua).

**26.6.1.1.2c** Geroago ikusiko dugun bezala (§ 26.6.1.2.2a, § 26.6.1.2.2c), [-tu + *izan/\*edun*] adizkia ez da perfektuaren adierazteari mugatua: euskalki guztiek iraganaldi hurbilari erreferentzia egiteko erabiltzen dute eta ekialdekoek baita gertakariak iraganaldi urrunean kokatzeko ere: *Goizean ikusi zaitut* (euskalki guztiak); *Atzo goizean ikusi zaitut* (ekialdeko euskalkiak).

**26.6.1.1.2d** Erresultatiboak iraganeko ekintza baten ondorioa den egoera bat adierazten du. Euskaraz, hizkuntza askotan bezala, egitura predikatibo bat du oinarri: partizipio bat, iraganeko ekintza zein den erraten duena, eta kopula bat, egoeraren adierazlea dena. Adibidez, *Paretak tindatuta daude* esaldian, paretan egoeraren berri ematen da, egoera horretara heltzeko ekintza zein izan den agerian emanez (*tindatzea*). Euskalki guztiek ez dituzte erresultatibozko perifrasi berak erabiltzen. Mendebaldean, partizipioari *-ta* atzizkia eransten zaio eta *egon/eduki* kopulak erabiltzen dira: *Mahaia, tarta eta lorez hornitua, urtebetetze afari baterako prestatuta dago* (Payá); *Aitak hatz txikia apurtuta dauka, eta kolpeak gorputz osoan* (Berria). Erdialdean eta ekialde gehienez, *-a(k)* artikulua beretzen du partizipioak eta kopularen hautaketan dautza desberdintasunak; erdialdeko hizkerek *egon/eduki* dituzte, ekialdekoek, berriz, *izan/\*edun*: *Bi hilabeterako joana da Irlandara ikasketak bururatzeko* (U. Apalategi); *Katea hautsia du, gidoia makurtua, pedalak ere hautsiak!* (D. Salaberria); *Gela hagitz egoki antolatua dago* (K. Izagirre); *-Hanka bat hautsia dauka -erran zuen morroietarik batetik* (Irigoien). Zubererak erabiltzen duen erresultatibozko perifrasiari dagokionez, partizipioa *-rik* atzizkiaz jantzia du eta *izan/\*edun* dira egiturako kopulak: *Horietan ezkiribatürrik düzü nuiž den* (Peillen); *Gure Printze zunbaiteki eginik dizü tratia, haiekilan hitzartürrik batetan gure joitia* (Casenave-Harigile).

**26.6.1.1.2e** Gramatikalizazioari buruzko lanek erakutsi dute perfektuzko adizki analitikoek erresultatibozko perifrasiak dituztela iturburu. Euskarak horren aldeko frogak eskaintzen ditu testu zaharrenetan [-tu + *izan/\*edun*] egiturak erresultatiboaren balioa baitu askotan. Adibidez, Bernat Etxeparek *Kontrapas* kantuan *orain dute porogatu engainatu zirela* erraten duelarik, *porogatu dute* aditzari irakurketa erresultatiboa ematen dio, ez perfektua. Zeha-

tzago, ez du erran nahi ‘zerbait frogatu dutela’, baizik eta ‘zerbait frogatuta daukatela’. xvii. mendetik aitzina, [-tu + *izan*/\**edun*] egitura perfektuzko adizki gisa gramatikalizatu zen osoki eta aipatu berri ditugun erresultatibozko perifrasiak errotu ziren.

### 26.6.1.2. Iraganaldia

**26.6.1.2a** Iraganaldia solasaldiaren unea aitzin kokatuak diren gertakarien denborari dagokio. Alabaina, izugarri zabala da, eguzki-sistemaren sortzetik solasaldiaren aitzineko segundorainoko denbora hartzen baitu. Hortaz, gutiezez hiru iraganaldi mota bereizten ditu hizkuntzalaritzak: (i) iraganaldi hurbila, solasaldiaren eguneko denbora-muga duena, hots, 24 ordukoa; (ii) iraganaldi ez hain hurbila, solasaldiaren aurreko egunetik gorako denborari dagokiona; (iii) iraganaldi urruna, solasaldiaren unetik mendetako urruntasuna duena. Hizkuntza askok bezala, euskalki gehienek bereizketa bitarra dute: solasaldiaren egunean burutuak eta solasaldiaren bezperatik gorakoak morfologikoki bereizten dituzte, lehenetarako aldi oraineko adizkiak erabiliz (*goizean ikusi zaitut*), bigarrenetarako aldi iraganekoak (*atzo ikusi zintudan*) (ikus § 26.6.1.2.2a, § 26.6.1.2.2b).

**26.6.1.2b** Alabaina, testu literarioetan ohikoa da aldi oraineko adizkiak (burutuak eta burutugabeak) erabiltzea kontakizunari bizitasuna emateko. “Orainaldi historikoa” deitzen zaio: *Ikus dezagun zer den orduko giroa Frantzian. 1870ean Frantziak galtzen du gerla Alemaniaren kontra. Hori izan da gertakari latza frantses guzientzat, egiazko bihotz-mina bereziki Alsazia eta Lorena galdurik. Errepublika sortzen da orduan, ez delarik batere onartua Euskal Herrian, Iparraldeko euskaldun gehienak Napoleonen aldekoak edo erregetiarrak izanez. Orduan sortzen da errepublikaren kontrako literatura bat, kantuetan bereziki, Adema olerkaria buru delarik. Haren kantuek 70eko hamarkadan sekulako arrakasta daukate* (Haritxelhar).

Azpiatal honetan, iraganaldi burutugabea eta burutua zein bere aldetik aztertuko ditugu.

## 26.6.1.2.1. Burutugabea

**26.6.1.2.1a** Iraganaldiko gertakari burutugabeak adizki sintetikoaren eta [-t(z)en + izan/\*edun] adizki analitikoaren bidez adierazten dira. Orainaldian dagoen banaketa berberaren arabera antolatuak dira forma bata eta bestearen erabilerak iraganaldian. Hasteko, paradigma sintetikoak dituzten euskalkiek adizki sintetikoa baizik ez dezakete erabil aspektu puntukaria agerian emateko: *Bakoitza zein zen edo zein ordenetan zetozen, ez zen esateko gai* (An. Garikano); *Urduri nindoan, zangoak dar-dar, eta harat heldu nintzenez, atea zabalik ediren nuen* (Irigoien). Haatik, ohitura eta maiztasuna adierazteko, hala molde sintetikoa nola analitikoa erabiltzen dira; askotan adberbio batek markatzen du aspektu ñabardura: *Nik aldiz maiz gogoan nerabilen Christophe adiskidearen arreba —Maddalene— dantzari ari ginelarik erran zidana* (Landart); *Tia Maria askotan etortzen zen etxera bisitan, herriaren goiko aldean bizi bazen ere* (Maia); *Ni ere joaten nintzaion maiz laguntzera* (Landart). Adizki sintetikorik ez duten euskalkiek adizki analitikoa dute baita aspektu puntukari-rako ere: [-t(z)en + izan/\*edun] adizkia erabiltzen da nagusiki, nahiz eta hizkera batzuek aditz zenbaiten adizki puntukaria aditzoinari -ki atzikia gehituz osatzen duten: *Goiz goizetik, finala haundiaren Getxoko antolatzaileek, ongi etorri egin dute Ipar aldetik etortzen ziren lehen bi autobuser* (Herria); *Eta soldadoen marrumak oro erori ziren kolpez. Tenore hartan sumatua zuten, traidorerik ez zela, heriotzeari buruz lau-hatzka hola, kopeta gorarik eta begiak sutan joaiten ziren aintzindarietan* (Barbier); *Iñaki zuzen-zuzen eta bihotza arin joaki zen bere destituaren aintzinerat* (M. Legorburu). Bistan dena, euskalki guztietan, paradigma sintetikorik ez duten aditzek ez dute besterik molde analitikora jotzea baino puntukaria, ohitura eta maiztasuna adierazteko: *Beste oiloak ere jauzi ta hegalka jiten ziren bainan kohoka hura, ausartago eta hurbilagotik jarraitzen baitziztaion bere xitekin* (E. Etxamendi) (puntutaria); *Izbek eskuz garbitzen zuen arropa, ontzi handi batean, eta atarian zintzilikatzen zuen, soka batean* (Igerabide) (ohitura); *Beste anaia bat, Peio, ardura jiten zen Ameriketatik, itzuliaren egitera* (Arrosagarai) (maiztasuna).

**26.6.1.2.1b** Erran bezala, gertakari baten ohikotasuna eta maiztasuna agerian emateko [-t(z)en + izan/\*edun] adizkia erabiltzen da euskalki guztietan.



Baina *ohi* partikula duten adizki sintetikoak eta [-t(z)en + *izan/\*edun*] (Iparraldean) eta [-tu + *izan/\*edun*] (Hegoaldean) molde analitikoak ere badira: *Bendaz lotuta zeraman, lehendabiziko hilabeteetan ohi zuen bezala* (Saizarbitoria); *Pazkoa urteko jairik handientzat hartu ohi zen, nahiz eta ez hala ospatu* (P. Zabala); *Lantegiko zuzendarietako bat balitz bezala mintzatu ohi zen emaztea senarraz* (Larrañaga); *Orbaizetarrak ere etortzen ohi ziren, Manuelina, Anabela, Juanita, Aurora* (E. Etxamendi); *Gehientsuek hiru urte emaiten ohi zituzten Tolosan* (E. Salaberri).

**26.6.1.2.1c** Iraganeko gertakarien progresibotasuna [-t(z)en + *izan/\*edun*] adizki analitikoaren bitartez adieraz daitekeen arren (*Emakume kubiko batek haurra garbitzen zuen, kemenez*, Alonso), ohikoagoa perifrasiatarra jotzea horretarako. Orainaldian bezala, [-t(z)en + *ari izan*] (erdialdean eta ekialdean), [-t(z)en + *jardun*] (mendebaldean), [-t(z)en + *ibili*] (mendebaldean), [-t(z)en + *egon*] (mendebaldean) perfrasiak ditugu iraganaldian: *Euria xehe ari zuen, guztiz bustitzen ari nintzen* (Lertxundi); *Jonek peta bat egiten ziharduen* (U. Iturriaga); *Xarlesen ahurak Josyren azpi oparoen erronda ikaragarria haztatzen zebiltzan* (Borda); *Ezpainetan irrifarre batekin sartu zen beste gelara, senarra eserita irakurtzen zegoen lekura* (An. Garikano).

**26.6.1.2.1d** Gertakari baten gradueltasuna agerian emateko, iraganaldian ere [-tu(a)z + *joan*] perfrasia erabiltzen da: *Konfiantza zuen, baina bere aita-ren sumina handituz zihoan egunetik egunera, kondenatuak hiltzeko eguna hurbildu ahala* (Rey); *Barrualdera, autoritatea galduz zihoan, baina kanpoaldera ez zirudien ahala urrituz zihoanik* (Iñurrieta).

### 26.6.1.2.2. Burutua

**26.6.1.2.2a** Iraganaldi burutuak solasaldiaren unea aitzin burutua zen gertakari bat adierazten du. Gorago erran dugu euskarak, hizkuntza askok bezala, solasaldiaren unearen eguna mugatzat harturik, iraganaldi hurbila eta ez hain hurbila morfologikoki bereizten dituela. Euskalki guztietan, solasaldiaren egunean agitu gertakariak aldi oraineko laguntzailea duen [-tu + *izan/\*edun*]



adizki analitikoaren bidez adierazten dira (*etorri naiz*, *egin dut* tipoko adizkia): *Goiz honetan berean jalgi naiz*, *ondo-ondotik darion erreka segitu dut bazter bazterretik*, *ote tustek desbideratzen ez nindutelarik* (Aintziart); *Rakel gaur nire aurretik ibili da telefonoz deitzen, baina ez du erantzunik jaso* (Zubizarreta). Solasaldiaren egunaren muga gainditzen duten denbora-tarte zenbait ere iraganaldi hurbilekotzat dauzkagu, solasaldiaren eguna barne hartzen duteno: *Aste honetan hire kontu horiek etorri zaizkidak gogora* (Etxabe); *Ez dute irteera berezirik egin hilabete honetan* (Iturbe); *Aurten ez dit lagundu niri suerteak* (Perurena); *Zutaz aunitz oroitu naiz egun hauetan* (Epaltza); *Gizaldi honetan ia laukoiztu egin da biztanleria* (Garate).

**26.6.1.2.2b** Mendebaldeko eta erdialdeko hizkerak solasaldiaren bezperatik gorako denboran kokatu gertakariak aldi iraganeko laguntzailea duen [-tu + *izan/\*edun*] adizki analitikoaren bitartez deskribatzen dituzte (*etorri nintzen*, *egin nuen* tipoko adizkiak): *Fredek eta biok ikusi genuen herenegun gauean Comet klubean*, *dantzan jo eta ke* (Larrañaga); *Zaflako latzagoak hartu nitian atzo* (Epaltza); *Bart ez huen bota kanpora katua, eta ez zidanen utzi begirik biltzen* (Juan Garzia); *Erreka ertzeko sasitza batean ezkutatu zuen Mobylettea eta oinez abiatu zen errepide jeneralaren ertzetik, eskuak zimur-maxkal eta prakak astun* (U. Iturriaga); *60ko hamarkadan osasun arazoak izan zituen eta emaztea hil zitzaion* (Uribarri); *50eko hamarkadan gertatu zen despopulazioa* (Elizondo). Salbuespena *bart* dugu, aldi oraineko laguntzailearekin erabiltzen baitute idazle askok: *Berant ibili haiz bart gauean* (Irigoien); *Goizaldeko ordu bi eta erdietan bukatu diat bart* (Epaltza); *Jakizu bart kanpoan egin dudala lo* (Zubizarreta); *Bart gauean Adarrandi trostan ibili da berriro* (I. Mendiguren).

**26.6.1.2.2c** Ekialdeko hizkeretan, aldiz, solasaldiaren egunarekiko denborazko urruntasuna ez da gehiago hain tinko markatzen. Solasaldiaren eguneko ala bezperako gertakariak izan, oraineko laguntzailea duen [-tu + *izan/\*edun*] adizki analitikoa erabiltzen dute: *Barda*, «*fondan*» *senditu dudan bakardadea ahantzia dut*, *goiz honetan* (Aintziart); *Atzo izendatu die han sous-prefet berri bat* (X. Arbelbide); *Ezkontzeko mandatu, egin diot atzo* (Larzabal); *Zalaparta polita atera duk, bart ailegatzean* (Epaltza). Solasaldiaren aurreko urteko

gertakariak ere adizki horrekin dakartzate egile gehienek: *Jaz Lurden Eukariztia-Biltzarrean parte hartu dutenek, barna senditu dute zer den «Ogi zatitua»* (Hiriart-Urruti gaztea); *Uste duka naski nik ez dakitala, Neretzat zer nahi jaz erran dukala, Ene ohorea nahiz galarazi!* (Xarriton); *Ez duzu sinetsi nahiko behar bada, bainan erranen dizut egia den bezala jaz ez digula dirurik eman frantses gramatikak erosteko, baizik eta dirua debaldetan xahutzea izanen zela, aitamei ez ziela behar gabeko xahupiderik ordainarazi nahi* (X. Arbelbide) baina *Iaz erosi zinuen umea, hamabortz egunen buruko hil zautzun* (Larzabal); *Iaz Maulen izendatu zinituzten buruzagiak bildu izan gira Baionan lauzpabortz aldiz, haziletik aurtengo agorri artian* (J. Etxepare); *Iaz hemen iragan ginelarik, hamar sosen zorretan gelditu nintzen* (Barbier). Halere, hamarkadetako eta mendetako denbora-urruntasuna dagoenean, iraganeko laguntzailea duen adizkia da nagusi: *Joseba bank robber bat izan zen laurogeiko hamarkadan* (Borda); *1980. hamarkadan sortu ziren euskarazko irratiak* (Oxandabaratz); *xix. mendean Frantziaren eta Alemaniaren arteko gerlak izan ziren, eta 1870ean, Alemaniak Frantziari Alsace-Lorraine eskualdea kendu zion* (Bidegain); *Español itsasturi batek atxeman zituen urarte hauk hamaseigarren mendean* (Zerbitzari).

**26.6.1.2.2d** Iraganaldiko erresultatiboak aurreko ekintza baten ondorioa den egoera bat agerian ematen du, eta egitura predikatibo bat du oinarri: partizipio bat, aurreko ekintza zein den erraten duena, eta kopula bat, egoeraren adierazlea dena (ikus § 26.6.1.1.2d). Euskalkien arabera, honako perifrasien bitartez eraten da: [-tuta + *egon/eduki*] (mendebaldea), [-tua(k) + *egon/eduki*] (erdialdea), [-tua(k) + *izan/\*edun*] (ekialdea) eta [-turik + *izan/\*edun*] (zuberera). Denetan, adizkia aldi iraganekoa da: *Ilunabarra zen, eta argiak itzalita zeuden* (Atxaga); *Ilea zurituta zeukan —arrebak bezala— gazte-gaztetatik* (An. Gari-kano); «*Nire gurasoen etxeko salan ere badago antzeko bat*» —*esan zidan Mary Annek jantokian zintzilikatua zegoen Picassoren koadro ospetsuaren erreprodukzio bat seinalatuz* (Atxaga); *Orekaren zentzua galdua zuen une batean, Felix ezkerrentz makurtzen hasi zen* (U. Apalategi); *Pauko kontrolüir jaunak etzian phentsatzen Eihartxeren phasta zertaz eginik zen* (Etxahun). Baina perifrasi horiek, egoera baten berri emateaz gain, ekintzaren burututasuna ere agerian ezar dezakete. Zehazkiago, iraganeko erreferentzia-puntua

baino lehen burutuak ziren ekintzak markatzeko baliatzen dira askotan; auzo-erdarek pluskuanperfektua erabiltzen dute horretarako: *Atzo arratsaldea libro genuen. Gure eskuko utzia ziguten* (Aintziart); *Azkenean iratzartu zelarik nozbeit gure mozkorra, han harat joana zen eguna* (Arotzarena); *Patri hizlaria zen oso eta bigarren botila koñak hartu orduko bere bizitzaren berri esana zuen, bi aldiz gutxienez* (Juaristi); *Mertxe eta Jesus Mari aurreko urtean hasiak ziren Arrasateko ikastolan irakasle* (Joxerra Garzia); *Inor ez zen, ordea, azken aste hartako deskalabroez ohartu, neurri handi batean Brown jaunak aurrez eginda zeuzkan lanak mahairatu zituelako* (Linazasoro); *Era berean, Alemaniako zenbait herrirekin adiskidetze hitzarmenak eginak zeuzkan aurretik Gernikak* (Berria). Adibide horiek guztiek iraganaldian kokatu erreferentzia-puntua aitzin gertatuak adierazten dituzte: ‘bezpera aitzin (atzo arratsaldea) eman zitzaien arratsaldea libro hartzeko baimena’; ‘mozkorra iratzarri baino lehen joan zen eguna’; ‘bigarren botila bukatu aitzin kontatu zituen denak mozkorrak’; ‘Mertxe eta Jesus Mari urte bat lehenago hasi ziren ikastola horretan irakasten’; ‘Brown jaunak lanak aurrez egin zituen’; ‘lehenago adiskidetze harremanak egin zituen Gernikak’. Alabaina, perifrasi horiek ez, baizik eta [-tu + *izan/\*edun*] adizki analitikoa agertzen da maiz auzo-erromantzeek pluskuanperfektua erabiliko luketen testuinguruan ere: *Hiru Erratzak ostatuan Blacki buruz isil-gordeka entzun zuen elkarrizketarena Lupini kontatzea gustatuko zitzaion, Blackek bere aita-amei traizio egin zuela esatea* (I. Mendiguren); *Inolako frogarik gabe sinetsi genuen komunistaren edo juduren baten boikotagatik joan zela argia* (Lertxundi); *Biharamunean izugarritzko ajeaz esnatu nintzen, bezperan edan genuenagatik eta Marik eman zidan gauagatik* (Iturralde); *Bezperan ikusi zuen neskaren aurpegia ezin zuen ahantzi* (R. Etxeberri); *Bezperan aitarekin izan nuen portaeraren ondoren, barrenak eskatzen zidan emateko poz hori aitari, baina ezin nuen* (Lertxundi). Oro har ekialdeko hizkerak emanagoak dira [-tua(k) + *izan/\*edun*] perifrasiak erresultatibotik kanpo erabiltzera. Gorago erran dugu hizkera horiek aldi oraineko laguntzailea duen [-tu + *izan/\*edun*] adizki analitikoa solasaldiaren egunetik gorako gertakarien adierazteko erabiltzen dutela; preseski, erabilera horretan, *Liburua irakurri dut atzo* eta *Liburua irakurria dut atzo* bereizten dituzte. Lehenean ekintza bera adierazten da, bestelako informazio-

rik eman gabe; bigarreanean, berriz, liburua osoki irakurri dela erraten da. Bestela erranik, testuinguru horretan, [-tua(k) + *izan/\*edun*] perifrasiak gertakariaren burututasuna agerian ematen du.

**26.6.1.2.2e** Azkenik, iraganaldi urruna adierazteko, [-tu + *izan/\*edun*] adizki analitikoa erabiltzen dute euskalki guztiek: *Abraham, orduan, kaldearren lurraldea utzirik, Haranen jarri zen bizitzen. Eta handik, aita hil zitzaionean, orain zuek bizi zareteneko lurralde honetara aldatu zuen Jainkoak (Elizen arteko Biblia)*. Antzina egitura analitiko birkonposatua zegoen horretarako: *Davit, errege ezinago debota bere indar oroz, Jinkuaren arkharen aitzinian dantzatu izan zen, orhitzzen zelarik Jinkouak beste orduz haren aiter egin zutian hountarzunetz (Maister); Modu onetan, bada, Berbo Eternoa, leen solamente Jaungoikoa zana (tenpora bage, eta asierarik bage) asi izandu zan tenporaz gizon izaten (Otxoa Arin)*.

### 26.6.1.3. Geroaldia

**26.6.1.3a** Euskarak molde asko ditu etorkizunean gertatuko denari erreferentzia egiteko. Ez da harritzekorik, geroaldiaren adierazpideak abiadura handian berritzen direlako munduko hizkuntzetan. Kapitulu honen lehen atalean erakutsi bezala (§ 26.1.2d), solasaldiaren unearen ondotik garatuko diren gertakariez mintzatzeko, euskarak aldi oraineko adizkiak oinarri dituzten formak erabiltzen ditu. Horien artean, [-tuko + *izan/\*edun*] adizki analitikoa da forma nagusia. Alde batetik, euskalki guztiek erabiltzen dute, eta bestetik, hizkera gehienek beste molderik baldin badute ere, adizki hau dute maizen erabiltzen: *Datorren urtean, egunak luzeen direnean etorriko gara (Iñurrieta); Bihar, Marsellako bideari emanen diogu (Aintziart); Baina urde horiek bizirik segituko dute, gizonek beso artean estutu eta musukatu egingo dituzte (Sastre)*. Geroago ikusiko dugu molde hau ziurtasun eza adierazteko ere erabiltzen dutela Hegoaldeko hiztunek (ikus § 26.6.3.2a): *Mendiz mendi ibiliko da* ‘ziurrenik mendiz mendi dabil’; *Etxean egongo da* ‘ziurrenik etxean da’.

**26.6.1.3b** Euskara zaharrean euskalki guztiek aldi oraineko adizkiari *-tel/-ke* atzizkia gehiturik osatzen zuten geroaldiko adizki sintetikoa: *Igo egin laster, eze eurk dakusken erietan* (Lazarraga); *Demanak bizian berea besteri doke negarra beti* (RS). Gaur egun, zuberera da erabilera horren arrastoak dituen bakarra; alabaina, *izan* eta *\*edun* aditzei mugatua da: *Han laster nizate, jaun-tsirik erregez, Lür hau düket pausagari, Asper egoxtiak, bestetan eginez* (Re-kalt); *Gudarien familien sufrimena hor dateke beti* (Borda).

**26.6.1.3c** Hizkuntza asko orainaldiko adizkiez baliatzen dira gertatzekoa denaz mintzatzeko; hain zuzen, ikerketek erakutsi dute biziki ohikoa dela orainaldiko adizkiak geroaldiko forma gisa gramatikalizatzea. Euskaldunek ere usu jotzen dute orainaldiko adizkietara horretarako; baina desberdintasunak daude euskalkien artean, alde batetik, erabiltzen diren adizkiei dagokienez, eta bestetik, hauei ezartzen zaien denbora-mugari doakionez. Hegoaldean, sintetikoak besterik ez dira erabiltzen, eta solasaldiaren unetik 24 ordurara gertatuko denari mugatuak dira: *Bihar Quitora goaz Andoni eta biok* (Sarrionandia); *Nire aldetik, bihar goizean Paris inguruan ekitaldia daukat* (Jimenez). Izugarri bakan gainditzen da 24 orduko muga: *Etzi datoz, ala?* (Sastre); *Datorren astean Chiapasera noak* (K. Izagirre). Iparraldeko hitzunik, berriz, orainaldiko adizkia erabiltzekotan, molde analitikoa baliatzen dute; usadio horrek solasaldiaren biharamunaren mugak gainditzen ditu askotan: *Bihar naiz partitzen ahizparenganat eta goizean goizik!* (Dirassar); *Eta bihar lanera itzultzen gara ala ez?* (Borda); *Baina etxera itzultzen naiz datorren astean* (R. Etxeberri). Mendeko perpausetan orainaldiko adizki analitikoa da nagusi euskalki guztietan: *Bihar, ikuskizun hau amaitzen denean, denak berdin iraungo du* (Juan Garzia); *Ea jaisten naizen bihar edo etzi* (An. Garikano); *Bihar eguraldi ona egiten badu, Urtzara joango naiz igeri egitera* (Atxaga); *Beharbada, datorren urtean etortzen haizenean, nik izango diat Gallaher jaun-andreei bizi luze eta zoriontsua opa izateko atsegina* (Aldasoro); *Begiratu diezu lorea aspaldi galdutako sei magnolia arbola itzelei, eta irudikatu dituzu zein eder egongo diren datorren urtean, martxoko eguzkia epeltzen hasten denean* (H. Etxeberria).

**26.6.1.3d** Erdialdeko hizkera zenbaitek *behar izan* lokuzioa baliatzen dute etorkizuneko gertakariez mintzatzeko: *Bihar kontzertura joan behar zara?*;

*Bihar etxean bazkaldu behar al duzu?* Noski, *behar izan* lokuzioa modalitate deontikoko forma nagusia izanik, hizkera hauetan, enuntziatuaren interpretazioa anbigua da askotan, baita denborazko adberbioa dagoenean ere: *Bihar joan behar al duzu basora, Lubis?* (Atxaga).

**26.6.1.3e** Azkenik, ahurtara bat perifrasi erabiltzen da etorkizunari erreferentzia egiteko; bizkitartean, semantikoki ez dira arras gorago aurkeztu diren adizkien pareko. Alde batetik, euskalki gehienek [-t(z)ekoa(k) + *izan*, \**edun*] perifrasia dute, subjektuaren intentzioa edo asmoa agerian ematen duena: *Eta artega jarri naiz pentsatzean bihar ibai horretaraino jaistekoak garela* (Zubizarreta); “*Datorren astean biltzekoa nauk AEBetako isilpeko ordezkariarekin*”, *erran zidan Ibarrek* (Ladron Arana). Bestetik, [-t(z)era + *joan*], [-t(z)ear + *egon*] perifrasiak berehalakotasuna dakarte, etorkizun hurbil-hurbilean gertatuko dena: *Hastera doa egun berria* (Cano); *Hona hemen eguna! Badator, iristear dago zuen txanda* (Elizen arteko Biblia).

**26.6.1.3f** Iraganaldiko geroaldia adierazteko, aipatu ditugun [-tuko + *izan*/\**edun*] adizki analitikoa eta [-t(z)ekoa(k) + *izan*, \**edun*], [-t(z)era + *joan*], [-t(z)ear + *egon*] perifrasiak erabiltzen dira —azken hauek, lehen eman ditugun ñabardura semantiko berekin—; baina adizkia, aldi iraganekoa da: *Osaba Joanikot, Pitagorasen teorema esplikatzan ari zitzaidan, noiz eta ohartu bainintzen bezperan hitz eman zidala ezen biharamunean kontatuko zidala nola sortu zen eta zergatik sortu zuen protestantismoa Lutherok* (Irigoi); *Eta lan horren arintzeko, erran zion biharamunean berean igorriko ziola emazte bat nexkato horri arropak erosteko, baitare plantan ezartzeko beharko ziren guziak* (Narbaitz); *Biharamunean ateratzekoa zen artikulua* (U. Apalategi); *Baina, biharamunean pilotan hastera gindoazelarik, mila-miliunka aldiz bezala, bota nuen: «Jo!»* (Landart); *Errektoreak, emozioz, eskuak hartu zizkion; hitz egiten hastera zihoan, etxe sarreratik Dekanoaren ahots sakona deika entzun zenean* (J. Zabaleta). Baldintza aztertzean ikusiko dugun bezala (§ 34.5.2), euskalki guztiek [-tuko + *izan*/\**edun*] adizkia baldintza irreal burutuko apodosian ere erabiltzen dute: *Etxean gelditu banintz, ez zintudan ikusiko*. Adizki bera ziurtasunik eza adierazteko ere erabiltzen da Hegoaldeko mintzoetan: *Mendiz mendi ibiliko zen* ‘ziurrenik

mendiz mendi ibili zen'. Azken erabilera hau kapitulu honen azken atalean jorratuko dugu (§ 26.6.3.2a).

## 26.6.2. Modua

Indikatiboaz bestelako moduak subjuntiboa, agintera eta hipotetikoa dira. Haue-  
tan orotan, [aditzoina + \**edin*/\**ezan*] adizkia da nagusi —mendebaldean, [-tu +  
*egin*] da adizki trantsitiboa—, nahiz eta adizki sintetikoa ere erabiltzen den.

### 26.6.2.1. Subjuntiboa

**26.6.2.1a** Subjuntiboa izendapen morfologikoa da, mendeko perpausari mugatuak diren adizki jokatuari ezartzen zaiena. Halere, testuinguru asertiboetatik kanpo erabiliak diren ber, karga semantiko berezia hauteman dakieke adizki horiei: kutsu irrealak dute askotan.

Gorago erran dugun gisan (§ 26.3.2.5.1b), [aditzoina + \**edin*/\**ezan*] adizki analitikoaren erabilera nahitaezkoa da mendeko perpaus jokatu zenbaitetan, eta hortik, subjuntibozko adizkitzat daukagu. Gainerako adizkiek duten denbora komunztadura berbera du, erran nahi baita aldi oraineko adizkiak orainaldiko subjuntiboa osatzen duela (*etor dadin, egin dezan*), aldi iraganekoak iraganaldiko subjuntiboa (*etor zedin, egin zezan*) eta alegiazko aldikoak alegiazko subjuntiboa (*etor ledin, egin lezan*) (ikus § 30.2d).

Euskararen subjuntiboak inguruko erromantzeenak baino erabilera mugatua goa du; ikus dezagun zehazkiago zer hedadura duen joskeran.

**26.6.2.1b** Zalantzarik gabe, helburuzko perpausetan (ikus 37. kapitulua) da gehien erabiltzen, hobeki erranik, ez daiteke [aditzoina + \**edin*/\**ezan*] perifrasiak bestelako adizki jokaturik erabil testuinguru horretan: *Aldaketa hori negurako egin da, hodiedetako ura izoztu ez dadin* (J. Zabaleta); *Hau adierazten diot neure jaun horri, nire berri izan dezan eta onez har nazan* (J. A. Mujika); *Ulertu nuen nahi ninduela higitu, harrotu, jalgi nendin* (Aintziart); *Mira egin-*



da nengoela esan beharrik ez nuen Anton hartaz ohar zedin (Jimenez); Barandaren kontra bermatu zen ilara amaigabea pasa zedin (Saizarbitoria). Idazlan klasikoei jarraikiz, idazle zenbaitek —nagusiki ekialdekoek— *-tza* edo *amoreagatik* postposizioa lagundurik osatzen dute adizkia, nolabait helburua indartzeko: *Lehenbizikoak oihalaz estaltzen eta estekatzen derauko buru guzia, oihurik egin ez dezantz* (X. Arbelbide); *Jason Gonzalez de Mendaviari bihar emanen nizkion indizeak oro, eta bereziki odol-ttantta, medikua zenez gero ahal bezain laster azter zezantz* (Borda); *Zenbat aldiz azken egun horietan, kirestasunez beterik ezinagoan, amets zoroari uko egitera ez zen saiatu, lehenagoko gizona izan ledintzat berriz ere* (Mirande); *Eta gero, isilik geratzen naiz, isilak bere besoetan har nazan amoreakatik* (Irigoien); *Kastelak besoa tinkatzen zion, isil zedin amoreagatik* (Borda).

**26.6.2.1c** Subjuntibozko adizkia mendeko perpaus osagarri zenbaitetan ere erabiltzen da. Euskalkien eta perpaus nagusiko predikatuaren arabera, adizkiak *-n* edo *-la* menderagailua beretzen du (ikus zehatzago § 30.7.1a). Honako adierako predikatuak dira beren osagarria subjuntibozko adizkiaren bidez osatzen dutenak (ikus baita ere § 30.7.1b-d):

(i) agindu-, eske-, erregu-aditzak: *Zure legezko errege honek errendi zaitzen agintzen dizu!* (Urkixo); *Adierazi zidan ez nendin urrunt haren gortetik, ohoratuko ninduela horren sari* (Xarriton); *Otoizten haut gurekin gera hadin* (Juan Garzia); *Armadako amabiak hala egin zedin agindua bazuen, agindua bete eta kito* (Jimenez); *Lubis eta Pantxo bi anaiek berekin joan nendila eskatu zidaten* (Atxaga); *Inork inoiz hala egin ez zezan erregutu nuen* (Jimenez);

(ii) hiztunaren iritzi-jarrera adierazten duten predikatuak: *on da, hobe da, beharrezkoa da, beldur izan, komeni izan... Hobe da arrazoi erratuak itxura bien kausak oker eman ditzan* (X. Amuriza); *Ados zira horrela izan dadin, gu denentzat, txofurrentzat, pixka bat errepresione bat?* (Oxandabarratz); *Ordezkarri ofiziala izan zedin berdin zitzaion* (Touyarou); *Beldur naiz gure herri honek zerbait paira dezan, sekulan gudukak hasten badira zinez* (Aintziburu eta Etxarren); *Esate baterako, arauak ematen dituenean [...] aholkuak izan daitezten komeni da, ez legeak* (Iñurrieta);



(iii) hitzunaren nahia edo desira adierazten duten predikatuak: *Esna nendin nahi zuen Teresak* (Atxaga); *Gainera, badirudi aski hedatua dagoela gizar-tearen maila batzuetan, eta onartua, enpresek badutela eskubidea adierazteko unibertsitateari zer nahi luketen erakunde honek egin lezan, zer espero duten egin dezan* (Pérez Iglesias eta Salaburu).

**26.6.2.1d** Antzina, hala helburuzko perpausek nola osagarriek, molde sintetikoa ere har zezaketen delako adizki analitikoaren orde: *Hihaurk lan egin-ahala, berzek degiten ez-tutzala* (Oihenart) ‘ez ezak utz besteek egin dezaten’; *Orduan mana zitzan espresuki bere dizipuluak nehoi ez lerroten* (Leizarraga) ‘orduan bere dizipuluei manatu zien inori erran ez ziezaioten’.

**26.6.2.1e** Euskara zaharrean, subjuntibozko adizkiak perpaus erlatiboetan ere erabiltzen ziren. Aldi oraineko adizkiek irakurketa ez-erreferentziala zuten, eta aldi iraganekoek, berriz, erreferentziala: *Jautsi din ezkurra ororen su egur* ‘jauts dadin ezkurra’ (RS); *Idia geinha dezanak, uzta diro* (Oihenart); *Itaxura ezansia zezanak bere etxea gal zezan* (Oihenart). Delako usadioa XVIII. menderako galdua zen arren, XXI. mendeko idazle zenbaitek berenganatu dute orainaldiko subjuntiboaren erabilera erlatibozkoetan; halakoetan, antzina bezala, adizkiak irakurketa ez-erreferentziala du: *Hara, gaur lur hauetatik botatzen nauzularik, zure begibistatik urrun ibili beharko dut, noraezean galdua munduan*; *Aurki nazan edonork hil egingo nau* (J. A. Mujika); *Merke aterako zaiola sakrifizioa bere behatzaren oferenda egin dezanari edo hartarako prest egon dadinari* (Irigoien); *Hemen, bihotz zintzoz otoitz egin dezanak lortuko du eskatzen duena* (Asisko Frantzisko).

**26.6.2.1f** Halaber, klasikoak eredu harturik, denborazko perpausetan orainaldiko subjuntibo-adizkiak erabiltzeko joera berrezarri da XXI. mendeko testu jaso zenbaitetan. Zehatzago, *-ean* atzizkia edo *arte* postposizioa oinarri dituzten perpausetan agertzen dira, eta etorkizunean kokatua den gertakari bat dakarte: *Euriak eta elurrak iragan daitezenean, erresinola Hegoaldeko bere lurraldeetatik itzul dadinean, gortearen eta Poeten Batzarrearen aitzinean errezitatuko duk laudorioa* (Juan Garzia); *Eta ni horra joateko eguna irits dadinean, orduan zigortuko ditut beren bekatuagatik* (J. A. Mujika); *Musen ezti gozoz gantzutu bezala egin nahi izan dizut, ea horrela zure gogoa nire bertsoei atxikia eduki ahal*

*dudan, gauzen izaera guztia nola osatua den eta nolako itxura duen ikus dezazun arte* (X. Amuriza); *Adiskidantzaren izenean, zaude emakume hori neuretu dezadan arte, baldin hura gaitzerran nahi bazeneza* (Jon Muñoz).

### 26.6.2.2. Agintera

Adizki jokatuaren morfologia tratatzean agintera eta jusiboa zehazki deskribatu baititugu, han erranak ez ditugu hemen errepikatuko. Irakurleak jo beza, beraz, atal hauetara: § 26.1.5.4, § 26.2.3c, § 26.3.5.1c.

### 26.6.2.3. Hipotetikoa

Gerta litekeena adierazteko, hau da, alegiaren esparruko hipotesi baten egiteko, baldintza irrealako apodosian erabili ohi diren adizkiak erabiltzen ditu euskarak (ikus § 34.5.2.3i): adizki sintetikoak, [-tuko + *izan*/\**edun*] erdialdeko hizkeretan, eta [aditzoina + \**edin*, \**ezan*] mendebaldean eta ekialdean —zehatzago, egitura trantsitiboetan zuberotarrek [aditzoina + *-iro-*] dute eta mendebaldeko hiztunek [-tu + *egin*]—. Sintetikoa izan ala analitikoa, adizkiak alegiazko morfologia du eta *-te/-ke* atzizkia darama: *Gogotik joan nintekel/joanen nintzateke konzertu baten entzutera; Bizia emanen nuke zu zoriontsu izan zintezten!* (Jon Muñoz); *Eta komeniko litzateke unibertsitateko irakasleek ere unibertsitatetik kanpo gertatzen den hori gogoan izatea* (Pérez Iglesias eta Salaburu); *Ondo letorke azken urteotako batenaz bestekoei erreparatzea, datu zerrendei begira, ekain normaltxu batek zer eman behar ligukeen, edo gutxienez, zer espero genezakeen jakiteko* (P. Zabala).

### 26.6.3. Modalitatea

Perpausen modalitateaz ari ginela (§ 10.4.1), bi modalitate-sail bereizi ditugu: modalitate deontikoa eta epistemikoa. Hemen, modalitate epistemikoa xehekiago aztertzeaz gain ahaleraren adierazpideak ere tratatuko ditugu.

### 26.6.3.1. Ahalera

**26.6.3.1a** Ahalerak bi funtzio nagusi ditu: alde batetik, subjektuak ekintza baten burutzeko duen gaitasuna adieraz dezake, eta bestetik, ekintza baten gertagarritasuna.

Gaur egungo euskaran ahalerazko adizki sintetikoak izugarri urriak dira; izan ere, paradigma sintetikoetako tinkoen eutsi dieten hizkerak ere ahaleran adizki analitikoak hobesten dituzte. Hortaz, gizaldi honetan, ahalera sintetikoa antzinako usadioetako begira dauden egileen idazlanetan baizik ez da agertzen. Aldi oraineko adizkiek orainaldiko eta geroaldiko ahalerazko adizkiak osatzen dituzte (*orain noake*, *bihar dakarke*), aldi iraganekoek iraganaldikoak (*nindoakeen*, *zekarkeen*) eta alegiazko aldikoek hipotetikoetakoak (*nindoake*, *lekarke*). Aldia edozein izanik, adizkiak *-ke* atzizkia beretzen du: *datorke*, *zatorkeen*, *letorke* (*-teke* atzizkia *izan* aditzaren NOR adizkien kasuan: *dateke*, *zatekeen*, *litzateke*). Ahalera positiboan, *ahal* partikularen erabilera hautuzkoa da; ahalera negatiboan, berriz, hala *ez* nola *ezin* erabiltzen dira: *Eguraldiarekin jolasan ibiliez gero, maitemintzeko tentazioa ere hortxe dabilke norberaren arri-muan* (P. Zabala); *Ez da eta ezin datorke hortik gauza onik* (Juan Garzia); *Baina zu bezalako euskara modu baten seme, umezurtz izanagatik ere, ezin dateke gaizki* (Salaburu). Noski, *ahal* eta *ezin* erabili ezean, orainaldiko adizki sintetikoaren irakurketa anbigua da, geroaldiko adizki gisa interpreta daitekeenaz geroz (ikus gorago § 26.1.5.3b eta § 26.6.1.3a): *datorke* = etor daiteke / etorriko da.

**26.6.3.1b** Ahalerazko adizki analitikoaren artean, [aditzoina + \**edin*/\**ezan*] da zaharrena eta zabalduena —[aditzoina + \**ezan*] adizkiaren ordeztu, [-tu + *egin*] dute mendebaldean, eta [aditzoina + *-iro-*] zubereraz—. Orainaldiko, geroaldiko, iraganaldiko eta hipotetikoetako ahalerak osa ditzake, horretarako, bakoitzari dagokion aldia erabiliz. Orainaldiko eta geroaldiko ahalerak aldi oraineko laguntzailearekin osatzen dira; homonimoak dira: *orain joan naiteke*; *bihar ekar dezake*. Aldi iraganeko laguntzailea dago iraganaldiko ahaleraren oinarrian: *joan nintekeen*; *ekar zezakeen*. Alegiazko aldikoa da ahalera hipotetikoko molde analitikoa: *joan ninteki*; *ekar lezake*. Adibideek erakusten du-

ten bezala, aldi guztietan, laguntzaileak *-ke* atzizki modala darama (*-teke* atzizkia, *\*edin* eta *izan* aditzen NOR adizkietan). Laguntzaile horien paradigmak kontsultatu nahi dituen irakurleak EGLU-II eta *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* liburuetan eta 78. arauan aurkituko ditu. Oso ohikoa ez den arren, ahalera positiboan, *ahal* partikula adizki nagusiaren eta laguntzailearen artean tartekaturik ager daiteke: *Batzuetan neur ahal daiteke denbora hori* (Arrigain); *Onartu ahal dezakegu [...] munduaren sortzaile jakintsu eta ahalguztidun bakarra?* (Uribarri) baina *Nigana etor zaitzake, zuk nahi duzun moduan eta sasoiari* (Otsoa); *Arraposki behehitzen ziren, Jessicak ez zekiela amatxi zegoen egoeran nola igo zitekeen hain gora* (Borda). Halaber, ezintasuna adierazteko *ezin* partikulak *ez* partikularen tokia hartzen du noiztenka: *Tira, ezin uka dezaket seinalea zegoela, nabarmen, baina edozelan ere soldadua bazuen zerbait esatea, nire iritzi* (Urrutikoetxea); baina *Ez dezaket gehiagorik egin* (Jon Muñoz); *Hartara jarritz gero, nik ezin nezake kontatu nire bezeroen istoriorik* (Aristi). Alabaina, perpaus subjuntiboetan agertuz geroz, ahalerazko adizki analitiko horrek ez du *-ke* atzizkirik eta, ahalera markatu beharrez, *ahal* eta *ezin* partikulak nahitaezkoak ditu: *Hori nola den jakin ahal dezazun, lehenik arestian esana gogoratu behar duzu, haziak era askotara nahasiak dagozela gauzetan* (X. Amuriza); *Badaki abiatu beharra daukatela gizonak, noizbait itzuli ahal daitezten* (X. Aranburu); *Estalki horri gainetik buztina jartzen zaio ahuntz-ilearekin nahastuta eta dena lodi emanda, suak ezin dezan inola ere makina hori kaltetu* (S. Iruretagoiena). Azken aldian *ahal* partikularen eta laguntzailearen artean *izan* kokatzeko joera franko hedatzen ari da: *Hauek jartzen dituzte oinarri teknikoak, gero eraikitzen den etxe zibernetiko horretan milioika lagun sartu ahal izan dadin* (Salaburu); *Zehazki, 1990eko Espainiako Kirolaren Legea aldatzeko saioa da, autonomi erkidegoetako federazioak nazioarteko federazioetan sartu ahal izan daitezten* (Berria); *Otsailerako bere ordezkoa aukeratzeko eskatu du Sean O'Keefe, berak kargua utzi ahal izan dezan* (Berria); *Ruche jaunak botoia sakatu zuen, neskak entzun ahal izan zezan* (Jon Muñoz). Usadio klasikoaren arabera, protasian gertatzen delarik ere *-ke* atzizkirik gabe agertzen da [aditzoina + *\*edin/\*ezan*] ahalerazko adizki analitikoa; kasu horretan ere *ahal* eta *ezin* partikulak behar-beharrezkoak ditu (§ 34.5.2.3g): *Baldin are libre eguin ahal*

*bahadi, harzaz lehen usat ezak* (Leizarraga); *Hilzen denean ahoz ezin erran badeza* bihotzez hiruretan *Iesus erraiten duela* (J. Haranburu); *Baldin hartaz gabetua izaiteko bihotzmiña deusek nere baithan goza ahal baleza, hura laite zutan edireitea bertze Ulize bat* (Duvoisin); *Baina bizitzen jarraituz lan onuragarria egin ahal baneza, ez nuke jakingo zer hautatu* (Elizen arteko Biblia); *Jakin ahal baleza zenbat sofritzen dudan, nire atsekabeak hunkituko luke* (Jon Muñoz). Bizkitartean, gaur egun *-ke* atzizkidun adizkiak erruz aurkitzen dira protasian; Axularren adibideak erakusten digu ez dela azken orduko aldaketa: *Baiña baldin ezin egin baditezke, ezin kofesa badadi, ez mintza, eta ez deusetan ere manai: asko da orduan barren ona, borondatea, bihotzezko damua, dolua eta dolorea* (Axular); *Esandakoak bestela pentsaraz balezake ere, saiatu naiz gauzak ahalik eta modurik errazenean azaltzen* (Oñederra); *Horrela, afekzio horietako baten kausa egokia izan bagaitzke, orduan Afektua deitzen dut ekintza bat; beste kasuetan, grina bat* (Xarriton); *Eta eztabaidatu ahal badaiteke, batzuen nahiz besteen arrazoiak erlatiboak direlakoxe da* (Azurmendi); *Ibilbidea luzeegia da korrika atzetik joateko, baina zaldi gainean ezin joan banaiteke korrika egingo dut* (Otsoa).

**26.6.3.1c** Erdialdeko eta mendebaldeko hizkerek [aditzoina + \*edin/\*ezan] adizkiari tinko eusten dioten arren —[-tu + egin] mendebaldean—, [-tu + ahal + izan/\*edun] eta [-tu + ezin + izan/\*edun] ahalerazko perifrasiak ere badituzte. Bien artean, [-tu + ezin + izan/\*edun] perifrasi tradizio luzeagokoa da —Lazarragaren eskuizkribukoak dira haren lehen lekukotasunak—: *Zu gabe ezin naiz istant bakar batez ere bizi* (Zubizarreta); *Gizakiek ezin dute inola ere egite horien kausarik ulertu* (X. Amuriza). Haatik, [-tu + ahal + izan/\*edun] ez da hain arrunta izan oraintsu arte: *Luisekin lasai egon ahal zara, ze ez dut uste Rakelen gustukoa izango denik* (Zubizarreta); *Horretan bai, zerbait esan ahal dute Hemingwayren lagunek* (Jimenez). Adibide horiek erakusten duten bezala, orainaldiko ahalera aldi oraineko adizkiaren bidez eratzen da (*etorri ahal naiz; ezin du ekarri*). Geroaldiko ahalerari dagokionez, nahiz eta aldi oraineko laguntzaileari eusten zaion, prospektibotasuna markatzen da *ahal/ezin* partikulari *-ko* postposizioa itsasiz edo *izango* partizipioa gehituz (ikus, halaber, § 26.6.3.1d): *Etorri ahalko / ahal izango naiz; Ekarri ahalko / ahal izango du; Osa dezala bakoitzak idi uztarri sendoa, eta, idien atzean, eroso*

*ipini ahalko da gurdia* (Zuazo); *Hala ere, zerbait ekarri ahal izango diat, uzten badidate* (Otsoa); *Artikuluak zioenez, ziurrenik bere bizitza osoan ezingo du liburu gehiago argitaratu* (Zaldua); *Hemendik aurrera ezin izango haiz lehen bezain maiz etorri landara, Algy maitea* (Olano). Iraganeko adizkiarekin, berriz, iraganaldiko ahalera osatzen da: *Etorri ahal nintzen; Ezin zuen ekarri; Zeuk ere eduki ahal zenuen neba bat, bada* (Garate); *Haren ustez, ibaia ezin zen inola ere zeharkatu* (K. Zabala). Adibideek erakusten dutenez, [-tu + ahal + izan/\*edun] perifrasiak balio burutugabea du orainaldian eta iraganaldian. Aspektu burutua erdiesteko, ahalera positiboan, *izan* partizipioa tartekatzen da *ahal* partikulararen eta adizki jokatuaren artean: *Etorri ahal izan naiz; Etorri ahal izan nintzen; Euskaltzaindiak lan handia egin du maila honetan, eta lan hori egin ahal izan du, besteak beste, gizartean onarpen zalan-tzagabea izan duelako* (Salaburu); *FBIrentzat lan egiten zuen gizona [...] Dominikar Errepublikara ekarri ahal izan zuten* (Jimenez). Ahalera negatiboan ere gehitzen da *izan* partizipioa aspektu burutua erdiesteko; haatik, bitasuna dakar haren joskerak (*ezin izan du ikusi / ezin ikusi izan du*): *La Epoca izan behar du, ezin ikusi izan dut lehen plana* (K. Izagirre); *Eta nik ere ezin hartu izan dut, funtsean, bertze biderik, zalantzarena eta galdegitearena baiizen* (Irigoién); *Ezin ikusi izan zioten aurpegia* (Ezkiaga); *Hiru hilabetez zigortuta egon da, eta ezin izan du jokatu* (Berria); *Ez zuen haren berri eta ezin izan zuen ikusi, sastraka artean erdi ezkutaturik zegoenez* (Saizarbitoria); *Haserreak ezin izan zion tristura eragotzi* (Jon Muñoz). Ahalera hipotetikoa gutitan osatzen da perifrasi horren bidez; halakoetan, prospektibotasuna markatu beharra dago, *ahal* eta *ezin* partikulei -ko postposizioa itsatsiz edo *izango* adizkia gehituz (\*\**etorri ahal nintzateke; \*\*ezin luke esan*): *Berrogeita hamar mila fedegabe horien konbertsio zoragarria egiaztatu ahalko genuke* (Alonso); *Nekez hasi ahalko ginateteke beste lanen batean* (Berria); *Ezingo nuke egun hartan sentitu nuena adierazi lilura edo xarma bezalako hitzak erabili gabe* (Lertxundi); *Gizakia, bere besaurre laburrez, ezingo litzateke adarretik adarrera ibili tximinoaren trebezia eta segurtasunez* (Aldasoro); *Ezin izango nintzateke hobeto sentitu* (Lopez de Arana); *Edonork galdetuz gero [...] zein dudan nire bizitzako aurreneko oroimena, ezin izango nuke erantzun* (Aranbarri).

Ekialdeko hizkerek [aditzoina + \**edin*/\**ezan*] adizkia baztertuxea dute ahaleran —baldintza hipotetikoan apodosian, aldiz, indartsu dirau (§ 34.5.2.3f)—. Haren ordeaz, [-t(z)en + *ahal* + *izan*/\**edun*] perifrasiak erabiltzen dute maizago. Aipatu berri dugun perifrasiak bezala, orainaldiko, geroaldiko, iraganaldiko eta alegiazko ahalera adierazteko balio lezake. Orainaldiko ahalera eratzeko, aldi oraineko laguntzailea erabiltzen da: *Joaten ahal naiz*; *Ekartzen ahal du*; *Ama batek anitz gauza konprenitzen ahal du* (Dirassar). Geroaldiaz bezainbatean, aldi oraineko laguntzailea erabiltzeaz gain, *ahal* partikulari *-ko* postposizioa gehitzen zaio: *Bihar etortzen ahalko naiz*; *Bihar ekartzen ahalko du*; *Eta hango jenerala, zu harat bezala, berdin hunarat jiten ahalko da* (Larزابal). Iraganaldiko ahalerak aldi iraganeko laguntzailea du oinarri: *Atzo etortzen ahal nintzen*; *Iaz ekartzen ahal zuen*; *Egun guzia gustian pasatzen ahal zen heiekin josteta* (Landart). Ahalera hipotetikoan, laguntzaile hipotetikoa du adizkiak, hau da, alegiazko aldikoa eta *-ke* atzizkiduna: *Etortzen ahal litzateke*; *Egiten ahal luke*; *Eskualdunen kontseilu jeneralak hobeki laguntzen ahal luke Eskual-Herria* (Davant). Ahalera negatiboan, *ez* partikula egokitzen zaio egitura perifrastikoari: *Ez duzu egiten ahal*; *Ez zara etortzen ahal*; *Frantzian estadoak ez du apezzi manatzen ahal* (X. Arbelbide).

**26.6.3.1d** Azkenik, erdialdeko eta ekialdeko testu zahar zenbaitek geroaldiko ahalera berezia dute, partizipio prospektiboan oinarritua: *Eta horra, mutu izanen aiz eta ezin minzaturen aiz, gauza hauk egin ditezten egunerano* (Leizarraga); *Zerren badakit bestela ezin salbatuko naizana* (Otxoa Arin); *Ni nula oren batez adelaturen ahal niz, muniaren egiliaren behar den umilitatiareki errezebitzeko?* (Maister). Gaur egun ere han-hemenka biltzen dira [-tuko + *ahal* + *izan*/\**edun*] eta [ezin + -tuko + *izan*/\**edun*] adizkien lekukotasunak: *Herri galdu batean hasi zuen misionea; guziek zioten ez zuela han deusik egiten ahal* (X. Arbelbide); *Orduan deus trabarik gabe, joanen ahal zare komenturat* (X. Arbelbide); *Ezin esango dugu behintzat zintzo jokatu ez zuenik sortzaile horrek bere sorkarientzat izena bereizterakoan* (Segurola); *Ezin utziko nuen arrotzen esku* (Lertxundi). Hizkera batzuetako hitzunek *ezingo dizut eman / ezin emango dizut* bereizten dituzte: lehenak benetako ezintasuna adierazten du, eta bigarrenak, berriz, gertatuko ez den zerbait, ez ezintasuna da-goelako, baizik eta ez baita komeni edo egoki.



**26.6.3.1e** Aipatu adizkiak ez dira gertakari baten ahalera adieraz dezake-  
ten bakarrak. Izan ere, euskarak ere espresio baten bitartez agerian eman  
ditzake subjektuak ekintza baten burutzeko duen gaitasuna eta ekintza baten  
gertagarritasuna. Esaterako, *gai/aukera/modua izan + -t(z)eko* eta *ez dago +*  
*-t(z)erik* egiturak aipa daitezke: *Maddi ez da gai testu hori irakurtzeko =*  
*Maddik ez dezake testu hori irakur; Ez dago atzera egiterik = Ezin daiteke*  
*atzera egin.*

### 26.6.3.2. Modalitate epistemikoa eta ebidentzialitatea

**26.6.3.2a** Modalitate epistemikoa hiztunak ematen duen informazioaz duen  
ziurtasun-mailari dagokio, eta zehatzago, enuntziatuan markatzeari. Euskarak  
molde franko dauzka hiztunak erraten duenaz arras ziur ez dela adierazteko.  
Sintetikoek eta [-ten + *izan/\*edun*] eta [-tu + *izan/\*edun*] adizki analitikoek  
-ke atzizkia bere dezakete horretarako. Iparraldeko euskalkien usadioa izana-  
gatik, Bidasoaz bestaldeko idazle zenbaitek bereganatua dute: *Gaztelaniazko*  
*“signo” hitzetik datorke, dirudienez* (P. Zabala); *Kontraespioitza sare hori*  
*1940ko txostenekoa dateke* (Jimenez); *Jaun horrek «HERRIA» irakurtzen*  
*duke, eta bereziki Gehexan Pontto-ren ateraldiak! (Herria); Ez niz orroit ere*  
*zer sasoin zitakeen, bainan ba arratsaldea zela, denbora ederra eta eskolarik*  
*ez ginuela* (Dirassar); *Sentitu zukeen zauritu ninduela eta segidan barkamen-*  
*du eskatu zidan* (Aintziart). Hegoaldeko hizkerek geroaldia adierazteko ohi-  
koa den [-tuko + *izan/\*edun*] adizki analitikoa erabiltzen dute gehienetan: *Pe-*  
*llok izango du pilota; Halako bitxiak kario salduko dira; Parisen ezagutuko*  
*zuen bere andregai*a. Euskal Herri osoan aurkitzen dira *behar* oinarri duten  
moldeak. Hegoaldean, Iparraldean ez bezala, partizipioari -a(k) eransten zaio  
orduan: *Eta kukurik? Sumatu duzue kukurik? Etorria behar du honezkero,*  
*bestela, malo!* (P. Zabala); *Bera zen Errekarteko argazki guztien egilea, Men-*  
*diguren familiako zale bakarra itxuraz, eta berak egina behar du honek ere*  
(X. Mendiguren Elizegi); *Nik ez dut sekulan eskutan ukan holako diru-alde-*  
*rik, ez hurbiltzekorik ere bixtan da, bainan bost miliar euro alimaleko sos*  
*meta izan behar da!* (Herria).



**26.6.3.2b** Gorago ikusi dugu *ahal* partikula ahalerazko adizkien osatzeko erabiltzen dela (§ 23.4.2, § 26.6.3.1). Ez da, haatik, har dezakeen balio bakarra. Euskalki guztietan desideratibo gisa erabiltzen da (§ 23.5.3.6) —*ba-* aurrizkia daramaten alegiazko adizkien bitartez ere adieraz daiteke desideratiboa (ikus § 26.1.5.2b eta § 34.5.2.3g)—: *Eta Medina argitsutik errosario bat ekarriko ahal diguzu!* (Zubizarreta); *Ur freskoak jabalduko ahal du buruko min arraro hori* (Askoren artean); *Nere hesiak iraunen ahal du nik bezenbat!* (Barbier); *Jainkoak ikusten ahal du!* (Hiriart-Urruti). Gainera, ekialdeko hizkeretan balio epistemikoa hartzen du askotan: *Gizon ederra egin ahal da!* (= ziurrenik); *Ez ahal du guti irri egiten* (Bidegain).

**26.6.3.2c** Molde hauez gain, *bide* (§ 23.5.3.3) partikula ere erabil daiteke adierazten denaz erabat ziur izan gabe, probablea dela agerian emateko. Adizki analitikoek mugatua da: *Emakume asko izan bide dira Luisen bizitzan* (Oñederra); *Igandeko ibilaldietan askatzen bide du bere harrapari sena* (Iñurrieta); *Ematua bide zen turuten sukarraldia* (Txillardegi).

**26.6.3.2d** Euskal hiztunak badu modu bat informazioa besteren eskutik heldu zaiola adierazteko, eta hortaz, iturriarekiko distantzia hartuz, ziurtasun osorik gabeko adierazpena egiten duela azpimarratzeko —ebidentzialitatea esaten zaio—. Adizkiarekin batera *omen* eta *ei* partikulak erabiltzen dira horretarako (azterketa sakonago baterako, ikus § 23.5.3.2): *Armairura joan eta bere laneko jantziak erakutsi omen zizkion, baina gizonak ez omen zuen sine-tsi, ez omen zuen sinetsi nahi izan* (Joxean Agirre); *Beren zeremonia sakratuenak biribiltzeko pikoak jaten omen zituzten ejiptiarrek, eta bestetan beste, Yiseko piramidean, han ageri omen dira piko biltze garaiko irudi sakratuak* (Perurena); *Euskalduna naixana, berbetan asi-orduko igarri ei dau* (Azkue).



## 27. Aditza (V): adizki alokutiboak

---

- 27.1. Komunztadura argumentala
  - 27.2. Euskararen tratamenduak
  - 27.3. Tratamenduak eta adizki alokutiboak
  - 27.4. Alokutiboaren hedadura
  - 27.5. Hitano alokutiboaren erabilera
  - 27.6. Alokutiboaren muga sintaktikoak
  - 27.7. Hika alokutiboaren adizkiak
- 

### 27.1. Komunztadura argumentala

**27.1a** Euskal aditzak oso morfologia aberatsa du, adizkietan, besteak beste, ageri diren komunztadura markek aski argi erakusten duten gisan. Denok dakigunez, subjektuaren, zehar-osagarriaren eta osagarri zuzenaren markak islatzen dira aditzean: *Nik Joni liburuak ekarri dizkiot* perpausean hiru argumentu ikusten ditugu (*nik*, subjektua; *Joni*, zehar-osagarria; *liburuak*, osagarri zuzena), eta aditz laguntzaileak (*dizkiot*) hiru argumentu horien erreferentzia erakusten du: *-t* (subjektu singularreko lehen pertsonaren atzizkia), *-zki-* (osagarri zuzenaren numero komunztadura marka) eta *-o*, (zehar-osagarriaren hirugarren pertsona singularreko komunztadura marka). Hiru sintagma horiek aditzaren argumentuak dira, eta horregatik hitz egiten dugu komunztadura argumentalaz: *dizkiot* da komunztadura argumentalaren erakusgarria. Hori dela eta, *Mikel ikusi dut* esango bagenu, hor

ere *dut* adizkiak bi argumenturen (*nik* – *Mikel*) komunztaduraren marka erakutsiko liguke.

**27.1b** Baina *Mikel ikusi dut* perpausaren ondoan, baditugu beste forma hauek ere: *Mikel ikusi diat* / *Mikel ikusi dinat*. Esanahiari dagokionez, hiru formek, *ikusi dut/diat/dinat*, gauza bera adierazten dute: bi argumentu dituela aditzak. Non daude, orduan, desberdintasunak? Esan dezagun, hasteko, hiruen artean forma neutroa, ez-markatua, *dut* dela eta, beraz, hori dela oro har gehienetan, egoera ez-markatuetan, erabiltzen dena hiztunen artean. Berez, *ikusi dut*, alde batetik, eta *ikusi diat/dinat*, bestetik, bi erregistroren aldaerak dira: arrunta bata, markatuak besteak. *Ikusi diat/dinat* horrek ingurune berezia eskatzen du erabili nahi baldin bada. Eta solaskidearen sexuaz ere zerbait esaten digu: *ikusi diat* erabiliz gero, badakigu gizona dela gure hizketa laguna, eta *ikusi dinat* adizkiaren kasuan, oster, andrea. Bi forma horiek, *ikusi dut* adizkiak ez bezala, solaskidearen gaineko informazioa ere ematen digute. Horretan bereizten dira forma neutrotik.

## 27.2. Euskararen tratamenduak

**27.2a** Euskarari hiru hizketa tratamendu bereizten ditugu, hiru erregistro nahi bada: *Noiz etorriko zara?*; *Noiz etorriko haiz?*; *Noiz etorriko da berori?*

Hiru perpaus horiek hiru tratamendu mota desberdin islatzen dituzte: *zuka*, *hika* eta *berorika*. Bigarren pertsona izenordainak markatzen du solaskidea, eta solaskidearen arabera aldatzen dira tratamenduak. Hiruen artean *zuka* da tratamendu arruntena, eta *eztabadakoa* deitzen dugu; *hika* tratamendua, *hitanoa* deitua, lagunartekoagoa da, edo solaskideen artean nolabaiteko konfiantza eta konplizitatea eskatzen du, ez da nolana erabiltzen ahal; azkenik, gaur egun ia desagertua den *berorika* tratamendua, *beroriketa* deitua, errespetuzko edo beldurrezko tratamendua da, apaizarekin, medikuarekin, herriko jauntxoarekin... zenbait tokitan egin izan dena. Berorikarekin, solaskideari bigarren pertsona ezarri beharrean, hirugarren pertsona ezartzen zaio, eta adizkiak ere hirugarren pertsonarekin egiten du komunztadura. “Egin izan dena”, diogu, gaur egun ez baita ia erabiltzen. Hiru tratamendu, hortaz: eztabada (edo *zuka*), *hika* eta *berorika*.

**27.2b** Zuka, hika eta beroriketa hiru elkarrizketa erregistro horiek desberdinak dira, eta pisuzko gizarte-aldagai batzuen arabera (konfiantza, hierarkia, sexua, adina, familia harremanak...) hautatzen dute solaskideek noiz bata eta noiz bestea erabili. Baina tratamendu bat edo bestea hautatzeak baditu beste ondorio batzuk ere.

Galderen erantzunak honako hauek izan daitezke, hurrenez hurren:

- *Noiz etorriko zara?* –*Zortzietan etorriko naiz.*
- *Noiz etorriko haiz?* –*Zortzietan etorriko nauk/naun.*
- *Noiz etorriko da berori?* –*Zortzietan etorriko naiz.*

Hortaz, *Noiz etorriko zara?* galderak *Zortzietan etorriko naiz* izan dezake erantzuna; eta gauza bera gertatzen da *Noiz etorriko da berori?* galderarekin ere. Beste modu batera esateko: eztabada eta beroriketa erregistroek ez dute solaskidearen aldetik aparteko hizkera aldaerarik eskatzen. Ez da gauza bera gertatzen hikarekin.

### 27.3. Tratamenduak eta adizki alokutiboak

**27.3a** Hika aukeratuz gero, adizki sistema osoa aldatzen da eta hika erregistro horrek adizki alokutiboak erabiltzea eskatzen du, sistema osorik egokituz. Hau da, *Noiz etorriko haiz?* galdetuz gero, hizkeraren koherentziak hitanoari dagozkion adizki alokutiboak erabili behar direla agintzen digu: *Ni goizean etorriko nauk/n* erabili behar dugu, solaskidearen sexua toka (gizon batekin solasean) eta noka (andre batekin solasean) bereiziz. Ezin da, egoera arrunt batean bederen, *\*Ni goizean etorriko naiz* erantzun.

**27.3b** Baina alokutiboaren adizki horietan, ikusten denez, beste mota bateko komunztadura ageri da. Komunztadura horrek erreferentzia egiten die, jakina, aditzaren argumentuei (*ni*) baina aditz argumentua ez den beste zerbaiti ere: solaskideari. Holakoetan komunztadura ez-argumentala dela esaten dugu. Euskararen alokutiboa ez da komunztadura argumentala (Oyharçabal 1993), beste mota bateko komunztadura baizik.

Ondoko bi esaldi hauek ere parekoak ditugu: *Nik Joni liburuak ekarri dizkiot* eta *Nik Joni liburuak ekarri zizkioat/zizkionat*. Lehenbiziko perpausean komunztadura argumentala (*nik – Joni – liburuak*) egiten da (*dizkiot*), baina beste bietan argumentala (*nik – Joni – liburuak*) eta ez-argumentala (*hiri* hitz egiten diat: *zizkioat*, gizonezkoa haiz; *zizkionat*, emakumezkoa haiz). Komunztadura sistema, kasu hauetan, lau pertsonakoa da (subjektua, osagarri zuzena, zehar-osagarria eta alokutiboa), ez hirukoa, laugarrena argumentala ez bada ere. Hori guztia ageri da aditzaren morfologian<sup>1</sup>.

**27.3c** Adizki alokutiboak ezinbestekoak dira hor, behin hika aukeraturik. Eta solaskideak? Esperatzekoa da solaskideak ere maila berean erantzunen duela eta alokutiboa erabiliko duela, hori da egoera arruntena, baina gerta liteke batzuetan solaskide bietako batek adizki arruntak, ez-alokutiboak, erabiltzea, arrazoi desberdinengatik: adina, sexua, errespetua..., batez ere solaskideak, arrazoi bat dela edo bestea, ez baitira gizarte maila berekoak. Hau da, nagusiago den batek hika egin diezaioke gazte bati, edo semeari edo alabari, eta honek hari, aldiz, zuka atxiki. Hori guraso eta seme-alaben artean arrunta da toki batzuetan, semeak edo alabak nekez egingo baitio aitari edo amari hika. Baina kasu markatuak dira horiek, hikak berez alokutiboa eskatzen baitu.

**27.3d** Tradizioan badira, zernahi gisaz, salbuespen batzuk. Azkuek *Euskal Herriaren Yakintza* lanean biltzen duen ipuinetako batean badu esaldiren bat (*Ongi da, ekarzikik*), adibidez. Eta D. Agirrek *Auñamendiko Lorean* sistematikoki erabiltzen du tratamendu hibrido hori (geroago idatzi zuen *Garoan* ez bezala): *hi haiz*, baina *hura da* (*hura duk/duk* erabili ordez). Salbuespenak dira eta, segur aski, garai hartako hizkuntza “berritze” nahiaren ondorioak.

Beraz, behin hika hautatuz gero (*Noiz etorriko haiz?*) erantzunak *Ni goizean etorriko nauk* eskatuko luke, eta hori izango litzateke erabilera estandarra solaskidea gizonezkoa bada, eta *Goizean etorriko naun* solaskidea andrea bada. Baina ez *\*Ni goizean etorriko naiz*.

---

<sup>1</sup> Hemen aipatzen diren kontu asko Xabier Alberdik egindako lanetatik hartuak dira. Berak ikertu du bereziki euskal alokutiboaren kontua (1986a, 1986b, 1993, 1994, 2008-).

**27.3e** Laburtuz, bada: eztabadako erregistroak (*ni etorri naiz, zu bihar joango zara...*) ez du berez alokutiboaren erabilera eskatzen, baina hikako erregistroak (*hi etorri haiz*), ordea, bai: *Zuk joateko asmoa duzu, eta ni ere joango naiz; Hik joateko asmoa duk/n, eta ni ere joango nauk/n* (\**Hik joateko asmoa duk/n, eta ni ere joango naiz*).

**27.3f** Kontua, hala ere, nahasiagoa da, euskalkien artean desberdintasun handiak gertatzen baitira. Horrela, Iparraldean (Garazitik Zuberoara), adibidez, eztabadako tratamendu erregistroak ere piztu dezake alokutiboaren erabilera. Orduan zukako alokutiboa (edo xukako alokutiboa, *xu* tratamenduan oinarritua) erabiltzen da, eta eztabadako adizkiek ere markatzen dute solaskidea: *Beñat berant joan duzu gaur* (= *Beñat berant joan da gaur*). Eta hori baino erabiliagoa, beharbada, xukako alokutiboa, balio afektiboa duena, eta izenordainean ere *xu* aldaketa eskatzen duena: *Beñat berant joan duxu gaur*. Idazleek espresuki aipatu dituzte erabilera hauek: *Baxenafarrako eskualde zenbaitetan jendeak mintzatzen dira xuka*. *Haien artean ere horrek etxekotasun berezi bat du* (Larzabal); *Garazin bezala, noiz xuka, noiz toka, noiz noka* (Lafitte); *Ez dut jakiten abadearekin zuka ala berorika egin* (Elexpuru).

Hona hemen zuka eta xuka alokutiboen adibide batzuk: *Sabaitik beheiti jausten dira lasterka, erranez: —Aita, nonbait su duxu* (J. B. Etxepare); *Izugarri ilun duxu* (J. B. Etxepare); *Arimaren jalgitea neke handia duzu* (Etxepare); *Hau duzu, hau, gauza ederra, erraiten zion amerikanoari* (Manezaundi); *Euskal Herria duzu anitz maitagarri* (Otxalde).

**27.3g** Beraz, dena laburtzeko, esan dezagun euskararen tratamenduak eta tratamenduek eskatzen duten alokutiboa, adibideak ikusirik, honako hauek direla:

- Hitanoa (toka/noka): *hi haiz* (horrek eskatzen duena: *Mattin joan duk* (toka); *Mattin joan dun* (noka)). Alokutiboa ezinbestekoa du.
- Eztabada (neutroa): *zu zara* (horrek eskatzen duena: *Mattin joan da*), eta horren aldaera bat: *xu xira* (horrek eskatzen duena: *Mattin joan da*). Hala ere, zenbait euskalkitan alokutiboa har dezake eztabada erregistroak. Kasu horretan, alokutiboak zuka (*Mattin joan duzu*) eta xuka (*Mattin joan duxu*) dira.

- Beroriketa: *berori da* (horrek eskatzen duena: *Mattin joan da*. Ez du alokutiborik onartzen).

**27.3h** Aukera horietan guztietan eztabadako erregistroa da hedatuena, eta hori dugu euskalki guztietan erabiltzen dena. Erregistro landuetan (jende aurrean, hezkuntzan, administrazioan eta abar) ezinbestekoa da. Besteak hizkeren araberakoak dira: hitanoa euskalki guztietan ageri da. Edo gaur egun nonbait erabiltzen ez bada ere badira historian zehar haren lekukoak, nahiz eztabadakoak baino erabilera markatuagoa duen eta ez hain hedatua gizartean. Bestetik, forma kontuan harturik, bistan da *zu* izenordaina, bigarren pertsona singularra adierazteko, *hi* baino berriagoa dela (ikus § 13.3.2 eta § 13.3.3); zuka eta xuka alokutiboak Iparraldean erabiltzen dira, eta beroriketa ia desagertua da.

**27.3i** Alokutiboaren erregistroa dela eta, arazo hauek sortzen zaizkigu, ordea:

- Zenbat alokutibo sistema ditugu euskaraz? Bakarra, edo alokutiboaren barnean ere sistema bat baino gehiago bereizi behar da?
- Badu alokutiboak muga sozialik erabileran, edo hiztunaren hautua da eta gogoia duenean erabil dezake nahi duen gisan? Noiz eta norekin erabiltzen da alokutiboa?
- Badu muga sintaktikorik? Adizki arrunt guztiek badute parean alokutiboa? Bada inolako debeku sintaktikorik alokutiboa erabiltzeko?
- Zein da aditz alokutiboen morfologia? Nolakoak dira adizki alokutiboak?

## 27.4. Alokutiboaren hedadura

**27.4a** Hitanoa modu batera edo bestera hizkera guztietan erabili izan da, esan gisan, eta batzuetan oraindik ere erabiltzen da, baina aspalditik hasia da zuketari toki osoa uzten. Euskaldun asko gaur egun erregistro bakarrez (zuketaz) baliatzen dira. Horiek forma eztabadakoak erabiliko dituzte, hots, bigarren pertsonarako zu tratamendua erabiltzen dute eta forma alokutiborik ez. Adizki horietan agertzen diren pertsona marka bakarrak perpauseko “nor”, “nori” eta “nork”



sintagmekin loturik daude, egiazko marka argumentalak dira. Eta perpauseko sintagma hauei dagozkien markez gainera, ez da besterik azaltzen aditzean.

Historiara behatzen badugu, D. Agirrek, adibidez, *Kresala* eleberriaren (1901-1905) hitzaurrean, honela dio:

*Beste gauza bat. Danok dakigu iru eratako izketea egiten deusagula euskaldunok alkarri: i-gaz esaten dana lenengoa, zu-gaz esaten dana bigarrena ta irugarrena berori-gazkoa. Lenengoaren zalea naz, zarrena dalako, ta opa dot bere bizitza luzea; baña antziña il zan Arranondon da orregatik ezta emen agertuko izketa zar ori.*

Oso adierazgarria da hor dioena. Bizkaian, hitanoa ia galdurik dago itsasaldeko herrietan (Ondarroan, esaterako), baina barrualdeko herrialdeetan bizirik dago. Zaharrek aise gehiago erabiltzen dute gazteek baino. Eta gizonzkoek gehiago andreek baino. Azkuek Bizkaiko eskualde gehienetako hitanoa bildu zuen, eta horregatik pentsa daiteke galera xx. mendean zehar areagotu dela. Bestetik, hitanoak ez du ospe handiegirik izan batzuen artean. Hori dela eta, Yirizarrek hau dio: “Holmer me escribía, desde Bermeo, que el tratamiento familiar en Vizcaya es decididamente agresivo e insultante” (Yrizar 1981: 376). Hitanoaren alokutiboaz hitzunek izan dituzten holako aurreiritzi moralak aski hedatuak izan dira toki askotan. Arrazoiak, bat baino gehiago: hitzun batzuek uste izan dute hola hitz egitea berez “bordarien” kontua dela, maila apaleko zerbait; ikasi ere, batzuetan toka bakarrik ikasi izan dute, harremanak mutilekin bakarrik izan dituztelako, edo etxean alabarik ez zegoelako... Nolanahi ere, toki anitzetan karga peioratiboa izan du hizkera mota honek.

Beharbada, kontu hauetan gauzak aldatzen ari badira ere, esan daiteke orain dela urte batzuk arte bederen, Bizkaia dela hitanoaren erabileran hutsunerik handienak erakusten duen eskualdea. Beste hizkeretan presentzia handiagoa izan du, baina tokian tokiko gorabehera handiekin, zernahi gisaz.

Galera handiagoa da noketari dagokionez, gutxiago erabili izan delako, eta euskalki guztietan, hizkera bat edo beste kendurik, hutsune nabarmenak daude. Hau da, hitanoaren alokutiboa gehiago erabiltzen da gizonen artean, edo gizonekin, andreen artean edo andreekin baino.

**27.4b** Eztabada: hau da euskararen oinarrizko tratamendua. Ez da uztartzen adizki alokutiboekin: *zu* izenordainak egiten dio erreferentzia solaskideari, eta eztabadako adizkiak bakarrik erabiltzen dira. Euskal Herri osoan hedatua egun.

Salbuespenak Bonapartek aipatu zituen: berak egin azterketen arabera, XIX. mendean, ekialdeko behe-nafarreran, zubereraz eta, haiekin batera, zaraitzueraz eta erronkarieraz zukakoaren alokutiboa erabiltzen zen. Alberdik egindako analisiak erakusten dute egoera ez dela XX. mendean zehar sobera aldatu. Zubereraz zuketa alokutiboa bakarrik erabiltzen da elkarrizketan (alokutiboa ez dena, berriz, elizan, liburuetan, irratian, literatura idatzian...), eta badirudi hori dela erregistro ez-markatua edo neutroa. Erronkarin, ordea, eztabada eta zuka alokutiboa, biak erabiltzen ziren ongi bereiziz, eta alokutiboak tratamendu mota bat markatzen zuen. Ekialdeko behe-nafarrerako herri batzuetan badira alokutiboa eta eztabada bereizten dituztenak ere, zeini bere baliio pragmatikoa emanik (hemen beti zuka alokutiboaz ari gara). Zukako eta xukako alokutiboetan adizkiak *zu* izenordainaren gainean eratzen dira: *Mattin joan duzu/duxu*.

Beste euskalkietan, ekialdeko horiek kendurik, eztabadako erregistroa da arruntena. Mendebaldeko behe-nafarreran, esaterako, ez dago zuka alokutiborik. Gaur egun Nafarroa Beherean ere, gazteen artean, eztabada arrunta nagusitzen ari da zuka alokutiboaren gainetik.

**27.4c** Beroriketan *berori* izenordaina erabiltzen da, eta solaskideari hirugarren pertsonan egiten zaio. Hegoaldean bakarrik erabili da, Azkuek dioenez: “Este pronombre respetuoso no está en uso allende el Bidasoa” (Azkue 1923-1925, II: 640, 432). Esan bezala, Lizarragak *hori* erabiltzen du *berori*-ren orde. Hona hemen beste adibide bat: *Ene Jesus ona, nik mundua despeditzen dut: ez dut nahi hori baizik, hori soilik aski dut*. Horren esanahia hau da: ‘Ez dut nahi zu baizik, zu soilik aski zaitut’. Nafarroako zenbait tokitan (Aezkoa, Zaraitzu, Erronkari...) erabili izan da, nahiz Alberdik dioenez datuak ez datozen bat. Baina, zahar-zaharrak kendurik, badirudi erabat galdua dela bai Nafarroan eta bai beste eskualdeetan ere.

## 27.5. Hitano alokutiboaren erabilera

**27.5a** Kontu bat da alokutiboa erabiltzen den edo ez. Beste bat, non erabiltzen den. Hirugarren kontua da nola erabiltzen den. Eta nola horretan bi gauza bereizi behar dira: noiz erabiltzen den (markatua denez, ezin da nolana eta nonahi erabili) eta nolakoak diren adizkiak (hauek ere euskalki batetik bestera bereizten direnez gero). Nola horretaz esango dugu hemen zerbait, alde batera utzirik oraingoz adizkiak nolakoak diren. Hemen hitanora mugatuko gara, hori baita alokutiborik erabiliena.

Argi eta garbi azpimarratu behar da, dagoeneko esana bada ere, testuinguru berezia eskatzen duela hitanoaren erabilerak: konfiantza eskatzen du; lagunartekotasuna; taldean erabiltzen bada erabiltzailea beti bati bakarrik zuzendu behar zaio, ez talde osoari; testuinguru berezia behar duenez, ekitaldi ospetsu batean ez dirudi oso egokia alokutiboa erabiltzea; irratian edo telebistan, esatari ofizialak ez dirudi alokutiboa erabili behar lukeenik eguraldia emateko eta berriak komentatzeko... Baina batzuetan egia da ez dela erraza debekuaren markak ongi zedarritzea.

**27.5b** Ereduak eskaintzen dituen aukera guztiez baliatu nahi izanez gero, behin alokutiboa aukeraturik, badirudi egoera adierazgarriena litzatekeela gizon-andreak elkarren artean (andreak-gizonak; andreak-andreak) beti hitanoa erabiltzea. Baina egoera hori da gutxien erabiltzen dena, eta ez dakigu historian ere zenbateraino erabili izan den horrela, muga gabe. Egia esateko, hori oso toki gutxitan gertatzen da. Ikus dezagun, argibide gisan, kantu ezagun hau:

*Oi, Pello, Pello,  
logale nauk eta  
jinen niza oherat?  
-Irun ezan eta,  
gero, gero, gero,  
Irun ezan eta,  
gero, gero bai...*

Kantu horrek bikote baten elkarrizketa islatzen du: gizona da bat, andrea bestea. Hitanoa erabiltzen dute, eta toka (*nauk*) eta noka (*ezan*) ageri dira. Baina holako elkarrizketak nekez entzunen ditugu egun eta, entzutekotan ere, toki batzuetara mugaturik daude.

**27.5c** Aise gehiago entzuten da toka (gizonezkoei zuzendua) noka baino. Horren arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke. Lehenbizikoa, genero desberdintasuna: gizonak andreak baino pisu eta botere gehiago izan duenez historian, joera izan daiteke gizonezkoen hizkera maizago erabiltzekoa andrekoena baino. Honek hari errespetua (edo beldurra) zor, ematen du, eta ezin nolanahi hartu gizonen hain erraz har dezaketan duten hizkuntza “askatasun” hori. Botere kontua, beraz. Gerta liteke hori izatea arrazoi nagusia. Baina ezin da izan ezinbestean hori arrazoi bakarra, ez dugu daturik aski hori hala dela besterik gabe baieztatzeko. Beharbada, hizkuntzek korapilo eta sigi-saga anitz dituztenez (ez nahitaez beti boterearekin lotuak), gerta liteke, besterik gabe, hizkera mota hori, eredu hori, gizonezkoen artean gehiago garatzea. Ez dakigu: kontua da gizonezkoen marka maizago ageri dela. Ondoko kantu honetan ikusten da hori:

*Ituringo arotza, Erramun Joakin,  
asarre omen zaude zeren degun jakin.  
Santurik ez laiteke fiatu zurekin:  
San Kristobal urtuta joaliak egin.*

*Arotzak erran dio bere andreari:  
- Urtu behar dinagu, ekarran santu hori!  
- Gizona nora zoaz, bekatu da hori!  
- Etzionagu erranen sekulan nihori.*

Senar-emazteen arteko elkarrizketa horretan, gizonak hika egiten dio andreari (*dinagu, ekarran, ez zionagu*), baina andreak, ordea, zuka senarrari (*zaude, laiteke, zoaz, da*). Egoera hori maizago ikusi izan dugu. Kasu bakan batzuetan ikusi izan dugu ere senar-emaztegaiek hitanoa erabiltzea ezkondu arte, eta gero zukara pasatzea. Baina horiek kontu zaharrak dira.

**27.5d** Nagusiaren eta etxeko mutilaren artean gertatzen den elkarrizketa honetan antzeko zerbait gertatzen da:

*Haika mutil, jaiki hadi,  
argia den mira hadi!  
– Bai nagusia, argia da,  
gure oilarra kanpoan da...*

Nagusiak hika egiten dio mutilari (*hadi*), baina honek nagusiari zuka, alokutiboak erabili gabe (*da*).

**27.5e** Jakina, bikotekideek eta anai-arrebek ez diote anitzetan elkarri hitano osoz (toka-noka), edo zatikakoaz (noka) egiten. Eta kontua ez da oraingoa, Urtsuko kantu zaharrak erakusten duen gisan:

*Goiti zazu burua,  
ene arreba Juana.  
Eztezaket goratu,  
anai Batista jauna.*

*Izorra omen zara,  
ene arreba Juana.  
Zertan zagutzen nauzu,  
nere anaia jauna?*

Batista eta Juana, anai-arrebak, ari dira hizketan, eta ez da hor alokutiboaren arrastorik, nahiz eta garai hartan hitanoa aski arrunta izan Baztanen.

**27.5f** Batzuetan, testuetan ikusten denez, egileak hika harturik adizki alokutiboan toka bakarrik hautatzen du beti, balio generiko bezala, nahiz bera zuzentzen zaion solaskidea gizona edo andrea izan daitekeen. Ez da oraingoa, B. Etxeparek hala egiten zuen xvi. mendean:

*Euskara, jalgi hadi mundura!  
Lengoajetan ohi hintzan  
estimatze gutitan;  
orai aldiz hik behar duk  
ohorea orotan.*

Hor *hadi* eta *hintzan* ageri dira, hikakoak, baina alokutiboan *duk* aukeratu du, eta ez *dun*. Egoera arrunta da hori: berez hitanoa markatua bada, hitanoaren barnean noka markatuagoa da toka baino.

Kantu hau ere aski ezaguna dugu. Euskaldun guztiak gizonezkotzat jotzen dira (*kantazak*, eta ez *kantazan*) kantu honetan ere:

*Kantazak euskalduna,*  
*Kantazak hire herria!*  
*Kantazak euskalduna,*  
*Hire aberria!*

**27.5g** Pertsona ez den zerbaiti, normalean, hika egiten zaio: animaliei, gauzei, landareei... Hona hemen Lauaxetaren adibide bat: *Bide luzez lagun izan haut baina hire keinurik baratzean ez zegok*. Hor *zegen* esaten ahal zuen, baina *zegok* hautatu du. Bistan da toka eta noka asimetrikoak direla alde horretatik, eta horrek ere bultzatzen du nokaren erabilera gero eta ahulagoa izatea.

**27.5h** Beraz, toka arruntagoa da noka baino, maizago entzuten da hitano alokutiboa gizonen artean (toka), andreek-andreekin edo gizonek-andreekin erabili behar luketen noka baino. Zeren, noski, noka ez da nesken arteko kontua bakarrik: neskei hitz egiten zaienean, hitz egiten duena gizona nahiz andrea izan, noka egin behar zaie. Azken urteetan hitzun batzuek toka hautatzen dute andreei ere egiteko, hola ikasi dutelako edo hobeki egiten ez dakitelako, baina hori ez da batere egokia eta indartu egiten du, gainera, gizonen hizkera ereduaren pisua harremanetan, nahastea sortuz.

**27.5i** Honetaz arduratu direnek diotenez, andreek ere bere buruarekin ari direnean, barne-elkarrizketan, toka erabiltzen dute (Rey 2013). Hau da, andrea eguneroko jardueran ohitua bada toka eta nokarekin, bere buruarekin ari bada, eta zerbait pentsatzen badu eta horrekin bakarrik ari bada, toka erabiliko du. Reyk berak ematen ditu adibide batzuk: “*Odolusten ari nauk, noski!*”, *pentsatu nuen*. Pentsatzen duena Amaia Salazar izeneko inspektorea da, eta bere buruaz ari da, bistan denez. Barne-elkarrizketa da hori, nolabait esateko.

Baina bakarrikzeta horretan, hitzuna, nolabait esateko, bitan banatzen bada, nolabaiteko proiektzioa egiten badu, orduan noka erabiliko da. Adibide bat

jarriko dugu. Argiago ikusteko *zuka* erabiliko dugu lehenik, hobeki ulertzeko. Karrikan pasaietan ari garela, ustez ezaguna den norbait hurbiltzen dela ikusten dugu. Eta ohartzen gara ez dabilela ongi, ziroka ikusten dugu, alde batetik bestera: “Eroriko da azkenean!”. Holako zerbait pentsatzea arrunta da. Bada, hor alokutiboa ere erabil daiteke. Baina kontua da, andrea nahiz gizonezkoa izan karrikan heldu dena, andrea nahiz gizona izan pentsatzen duena, holakoe-tan toka erabiltzen da: “Eroriko duk azkenean!”. Holakoa da goiko *odolusten ari nauk* hori ere, pentsatzen duena andrea bada ere.

Baina, bitan banatze hori gertatzen bada, gauzak aldatzen dira. Jo dezagun ikuslearen izena Maite dela. Pentsamenduarekin aurrera segituz, Maitek hau pentsa dezake: “Eroriko da azkenean! Maite, horren bila joan beharko duzu!”. Hori esaten dio bere buruari. Bada, hor hitanoa erabiliz gero, noka aukeratuko luke: “Eroriko duk azkenean! Maite, horren bila joan beharko dun!”. Eta hor ageri dira toka (bere buruarekin) eta noka (bere buruari), zein bere tokian erabiliak.

Reyk ere ematen du adibidea, andre inspektorearen buruan hori ere: *Horixe, polita, pistola bat. Eta horrek, Amaia, zertarako balio din?* Xabier Alberdiren hitzetan (2003)<sup>2</sup>: “Hots, itxura guztien arabera, hikako bi generoen arteko aurkakotasunean, noka da buru markatua (edo markaduna) eta toka markatu ga-bea (edo markagabea)”.

Hori da orain arteko tradizioa.

## 27.6. Alokutiboaren muga sintaktikoak

**27.6a** Alokutiboaren erabilerak ez du askatasun osoa, eta murriztapen sintaktiko batzuk ere baditu. Hona ekartzen ditugu berriz ere goiko bi adibide:

*Oi, Pello, Pello,  
logale nauk eta  
jinen niza oherat?*

---

<sup>2</sup> 2003ko urriaren 27an, erabili.eus webgunean.

*Haika mutil, jaiki hadi,  
argia den mira hadi!  
– Bai nagusia, argia da,  
gure oilarra kanpoan da...*

Ohart gaitezen hor kantuen zati hauetan: *logale nauk eta, jinen niza oherat*, eta *Haika mutil, jaiki hadi, argia den mira hadi!* Hor ikusten denez, hitano alokutiboak (*nauk*) eskatzen duen alokutibo adizkia ez da ageri galde perpausean (*niza* = *naiza*, *-a* hori bai/ez erako galde perpausaren Iparraldeko marka da). Bigarren zatian, berriz, hitanoa dugu (*hadi*), eta horrek alokutiboa eskatzen du, baina mendeko perpausean ez dugu holakorik: *argia den* dugu hor, eta ez *\*duan* edo *\*dukan*.

Adibide horiek informazio egokia ematen digute adizki alokutiboen muga sintaktikoez: tradizioa kontuan harturik, ez da erabiltzen hitano alokutiborik ez galde perpausetan, ez mendekoetan. Hori da tradizioan ageri den eredu erabili-ena, eta egungo idazle anitzek errespetatzen dutena ere.

Eta esperatzekoa da mendekoetan ez erabiltzea. Norbaitekin hizketan ari bagara, eta alokutiboak norbait hori markatzen badu, marka hori ezinbestean goian dagoen adizkiak bakarrik hartu behar du, aditz nagusiaren adizkiak, hain zuzen, eta horren mendean daudenek ez dute hartuko, horiek ezin baitute hizketakidea seinalatu, “beherago” daudenez gero. Arrazoi horregatik, *-la* nahiz *-n* atzizkiekin bukatuek, edo *bait-* aurrizkia daramatenek ezingo dute alokutibo marka hartu; ezta subjuntiboak ere, noski.

**27.6b** Galderetan alokutiborik ez: –*Baina, ba al daki? –Hori galdetzen nian nik ere* (Barriola); “*Nor da heldu?*”, *galdetu dik bere leihotik emakume xahar batek* (Txillardegia); *A, eternidadea! Nork konprendituko du hire hedadura mugarrigabea?* (Baratziart); *Zer da hire eta nire artean, Jesus Jainko subiranoaren semea?* (Leizarraga); *Eta erran zion: zer da hire semea? Eta ihardetsi zuen: Jakob* (Urte); *Galdegin zion, bada, Jesusek eta erran: “Zer da hire izena?”* (Haraneder); *Zer da hire infernua, zer dolore handia!* (Gazteluzar).



**27.6c** Mendeko perpausetan alokutiborik ez: *Carmenek esaten dik Berlino-ren eta bere anaien laguna zela gerra hasi aurretik, eta horregatik sartu zela politikan* (Atxaga); *Ikusiko diagu zer ateratzen den* (Etxabe); *Zorrotz ohar hakio; nik begiak josiak izango ditiat haren aurpegian; eta, ondoren, bion aburuak elkaturik diagu zer begitandu zaigun ebatziko* (Juan Garzia); *Etxetik zetorreatan, kapelarik gabe, berak gidatu zian kaleatxoa. “Alde egin al du?”*, *galdetu zian* (Olarra); *Berak esaten dik ni azkarra naizela eta ez dagoela moskeatua* (X. Mendiguren Elizegi); *Ba, nahi duan guztia egiten duela esaten dik nire anaiak* (Navarro); *Estoldetan jaiotzen ginela esan dik* (Jon Muñoz); *Egunen batean eskolara bere bila joanen ote naizen galdetu dik, nahi dudanean, hitz egin behar dugula* (Rey).

**27.6d** Hala ere, batzuetan araua hausten da, batez ere zuzeneko galde perpausetan: *Zer galdetzen zian? Ingelesaren andrea non bizi den?* (Urruzuno); *Nork dik beraz legea mexpresatzen, hik edo nik?* (Larzabal); *Nik? Nork esan dik? Hola bada, Satanek eraman nazala infernuko osinera* (Orixe); *Arraio hori nork egin dik kofradiako?* (Lizardi); *Nork hilarazi dik delako neskatxa? Ala eritasunez hil duk?* (Zerbitzari); *Nork beharko dik gero aitzurrari lotu? Ai, ai, ai! mutila, aitzurrari lotu* (Zaldubi); *Nork usteko dik holako itsuskeria?* (Decrept); *Nork bataiatu zian? Jondone Batistak* (Belapeire); *Nork esan behar zian gaur arratsean gertatuko zela hau!* (Soroa); *Nork zakik, bada, irtena naizela, eta nork dik, bada, jakiteko grina?* (K. Zabala); *Nork esan behar dik ezer?* (U. Iturriaga); *Nork jasotzen dik apustua?* (Alberdi); *Zain dadila bakkarrrik! Nork lapurtu behar dik, ba, traste puta hau?* (Morillo); *Nork hartuko zian Senpe bezalako azeri bakarti bat hiltzeko lana?* (H. Etxeberria); *Nork deskubritu zian Amerika, e?* (K. Izagirre).

## 27.7. Hika alokutiboaren adizkiak

**27.7a** Eztabadako adizkiak aski desberdinak dira euskalki batetik bestera, Euskaltzaindiak euskara idatzirako adizki sistema batua eskaini badu ere. Halaber, haiekin gertatzen den gisan, alokutiboaren adizkiek ere ez dute forma

bera euskalki guztietan. Aldaketa handiak daude toki batetik bestera, eta anitzetan hiztun berak forma bat baino gehiago erabiltzen ditu.

**27.7b** Euskaltzaindiak alokutibo adizkietan ere 1994an proposatu zuen eredu estandar bat. Baina parte bat baizik ez zuen finkatu, hikako moldeari dagokionan, hain zuzen ere. Ez da deus esaten ekialdeko euskalkietan bereziki erabiltzen den zukako (eta xukako) alokutiboaz, eta hori arautu gabe dago.

**27.7c** Zernahi gisaz, adizkiak finkaturik ere, ez du Euskaltzaindiak ezer ere esan haien erabileraz: ez gizarte mailako baliagarritasunaz, ez sintaxiak jartzen dituen mugez. Hikako alokutiboaren forma bakarrik arautu du. Eztabadako adizkiekin gertatu zen bezala, hemen ere erdibideko jokabideei eman zitzaizen lehenetasuna, sinpletasuna, argitasuna, tradizioa eta gaurko erabilera kontuan harturik.

**27.7d** Erro aldaketak gertatzen diren kasuetan, saileko paradigma guztietan ageri da erro hori: NOR bakarreko *izan* aditzean *-u-* erroa onartu da (*nauk*), eta iraganean alokutibo marka atzizki gisa, ez aurrizki gisa, onartu da (*zuan*, ez *huen*). Halaber, *ke-*dun formetan ere: *dateke* → *dukek*, edo *litzateke* → *dukek*. NOR-NORK sailekoetan *-i-* hautatu da: *nau* → *naik*, eta hor *-it-* plurala hobetsi da, eta ez *-zki-*: *ditu* → *ditik*; NOR-NORI dugunean lehen silaban ez da *-i-* onartu: *natzaio* → *natzaiok* (ez *naitzaiok*); alokutiboaren marka ergatiboaren ezkerrean ematea onartu da, ez haren eskuinean (*diagu*, eta ez *diguk*), baina, hala ere, *ditek*, eta ez *diate*. Azkenik, pertsona aurrizkirik ez duten orainaldiko adizkeretan *d* → *z* aldaketa onartu da, erro aldaketarik ez dakarten adizki alokutibo ergatibodunetan: *dezake* → *zezakek*, *dio* → *ziok*, baina *du* → *dik* (eta ez *zik*).

**27.7e** Adizkiak ez dira itxuraz ematen duten bezain nahasgarriak, datibo marka gaineratu behar da: *du* → *nauk/n*. Baina eztabadako adizkiak bezain erregularra da sistema. Aldaera anitzen bereizketa datiboaren kokaguneak markatzen du: toki batzuetan, esate baterako, *egin diate/dinate* esaten da, eta beste batzuetan *egin ditek/diten*, gauza bera adierazteko. Desberdintasuna markaren kokagunearen kontua da: *di-a-te* edo *di-na-te* batean, eta *di-te-k* edo *di-te-n*, bestean. Non jartzen den alokutiboaren marka, adizkia

aldu egiten da. Euskaltzaindiak aukerak egin behar izan ditu holakoetan, zenbait faktore kontuan izanik, batasun adizkiak proposatu ahal izateko. Adibide horietan *ditek/diten* aukeratu du, nahiz hiztun askok *diate/dinate* erabiltzen duten.

Adizki guztiak Euskaltzaindiaren 14. arauan ikus daitezke. Bilbon, 1994ko azaroaren 25ean onartua.

